



EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO

TXOSTENA

1999

EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO  
TXOSTENA - 1999. URTEA  
ARARTEKOA

© ARARTEKO  
Itzulpena: Hori Hori S.A.L.  
Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.  
Paper ekologikoa.  
L.G.: VI-149/2000.



EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO  
TXOSTENA  
1999

**AURKIBIDEA**

<b>AURKEZPENA</b> .....	21
<b>I. ATALA. ARARTEKOAREN JARDUERA NAGUSIAK</b> .....	23
1. 1999AN ZEHAR BURUTUTAKO EDO HASITAKO TXOSTEN BEREZIAK ETA AURREKO TXOSTENEN JARRAIPENERAKO OFIZIOZKO JARDUERAK .....	27
<b>1.1. Aurreko urteetan aurkeztutako txosten berezietan eman ziren     aholkuak betetzen diren ala ez kontrolatzeko jarduerak</b> .....	27
1.1.1. <i>Euskal autonomia Erkidegoko espetxeetako egoerari buruz         egindako txosten bereziaren ondorioz hasitako jardueren         jarraipena</i> .....	27
1.1.2. <i>Sasoikako beharginen arazoan jarraipena Araban</i> .....	40
1.1.3. <i>Adinekoen egoitzak kontrolatzeko jarduketan jarraipena</i> ..	46
1.1.4. <i>Adinekoei egoitzez kanpo ematen zaien laguntzaren kontrol-         ekintzen jarraipena</i> .....	51
1.1.5. <i>Babesgabezia egoeran dauden haur eta nerabeei egiten zaien         arreta kontrolatzeko jarduketan jarraipena</i> .....	56
1.1.6. <i>Adin txikiko lege hausleekin egiten den eskuhartzearen         jarraipena</i> .....	63
1.1.7. <i>Ertzaintzaren ziegen eta udal gordetegien egoeraren         jarraipena</i> .....	74
A) <i>Atxilotuentzako udal gordetegiak</i> .....	74
B) <i>Ertzaintzaren ziegak</i> .....	79
1.1.8. <i>Bilboko San Frantzisko auzoan poliziak atzerritarrekin         izandako zenbait jokaera direla-eta Arartekoak egindako         gomendioen jarraipena</i> .....	81
<b>1.2. Zadorra sistemako urtegieta uraren kalitatea babesteari     buruz egin den txosten berezia</b> .....	93
<b>1.3. Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko gizarte zerbitzuen     egoerari buruzko txosten berezia</b> .....	100
<b>1.4. Buruko gaixotasunak dituzten pertsonen ospitalez kanpo ema-     ten zaien arretari buruz aurki egingo den monografikoa</b> .....	103
<b>1.5. Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntzako beharrian bereziei     erantzuna ematez aurki egingo den azterlan monografikoa</b> .....	104

2. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPELATU ETA GIZARTEAREKIKO HARREMANAK SENDOTZEN DITUEN KULTURA SORTZEA HELBURU DUTEN JARDUERAK .....	106
<b>2.1. Taldeekin, elkarteekin eta gizarte-eragileekin izandako elkarlanerako harremanak</b> .....	106
<b>2.2. Arartekoak iragarritako ikerketa bekak</b> .....	119
<b>2.3. Giza eskubideen hezkuntzari buruz eskolan erabiltzeko materiala egiteko bekak</b> .....	120
<b>2.4. Euskal Herriko Unibertsitateko uda ikastaroetako jardunaldia, “Eskubideek ez dute balioa galtzen adinak aurrera egin ahala: Adinekoen Nazioarteko Urtea” gaiari buruzkoa</b> .....	121
<b>2.5. Giza Eskubideei buruzko “Padre Francisco de Vitoria” bilduma eta beste argitalpen batzuk</b> .....	122
3. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO GISA BEREKO ERAKUNDEEKIKO JARDUERAK .....	123
<b>3.1. Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako XIV. Jardunaldiak</b> .....	123
<b>3.2. Herriaren Defendatzaileen, Mandatarien eta Giza Eskubideen Batzorde Publikoetako Lehendakarien Federazio Iberoamerikarraren Laugarren Kongresua</b> .....	123
<b>3.3. Herriaren defendatzaileen eta Europako Batasuneko eskabi-deetarako eskualde batzordeen eta bi horien eta Europako Herriaren Defendatzailearen arteko lankidetzari buruzko hitzaldia</b> .....	128
<b>3.4. Parlamentuetako mandatarien bilera alorrez alorreko eta tokiko defendatzaileen sorrera aztertzeko</b> .....	134
4. EL LIMITADO IZENENKO LUR-MULTZOAREN INGURUKO GATAZKA: ARARTEKOAK ARTEKARI GISA JARDUTEA ARAMAIO ETA OTXANDIOKO UDALEN ARTEAN ETA ARABA ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIEN ARTEAN .....	135
<b>II ATALA. ARARTEKOAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR ETA TALDE BATZUEN ARAZOEI ESKAINTAKO ARRETA BEREZIA</b> .....	139
A) <i>ARARTEKOAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR</i> .....	146
1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA .....	146
<b>1.1. Sarrera</b> .....	146
<b>1.2. Aukeratutako kexak</b> .....	147
A) Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza ⇒ <i>Araba Lurralde Historikoko arrantza-barrutien kudeaketa eta prezio publikoak</i> .....	147

B) Merkataritza ⇒ <i>Ogiaren herriz herriko salmentaz</i> .....	150
2. GIZARTE ONGIZATEA .....	152
<b>2.1. Sarrera</b> .....	152
<b>2.2. Aukeratutako keak</b> .....	152
A) Adinekoentzako laguntza ⇒ <i>Adinekoentzako egoitzen finantzaketa eta erroldatze</i> <i>aldaketa</i> .....	152
⇒ <i>Jolas-jarduerak adinekoentzako eguneko zentro batean</i> ....	153
B) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa ⇒ <i>Udal errolda helbidearen froga gisa</i> .....	154
C) Eduki ekonomikoko gizarte sariak ⇒ <i>Herritar baten adierazpena ez zetorren bat erroldako</i> <i>datuekin</i> .....	156
⇒ <i>Zigorra gizarte laguntzetarako gastua epez kanpo justifika-</i> <i>tzeagatik</i> .....	157
3. KULTURA ETA ELEBITASUNA .....	159
<b>3.1. Sarrera</b> .....	159
<b>3.2. Aukeratutako keak</b> .....	159
A) Elebitasuna ⇒ <i>Euskara erabiltzeko eskubidea administrazioarekiko</i> <i>harremanetan</i> .....	159
⇒ <i>Hautatu den hizkuntza ofizialean harremanak izateko</i> <i>eskubidearen kasu berezia</i> .....	160
B) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa ⇒ <i>Jasotako diru-laguntzak itzultzea</i> .....	161
C) Ondare kulturala ⇒ <i>Herritarrek museoetara doan sartzeko duten eskubidea</i> ...	163
⇒ <i>Ondare kulturalako ondasun batzuen egoera txarra</i> .....	164
4. HEZKUNTZA .....	165
<b>4.1. Sarrera</b> .....	165
<b>4.2. Aukeratutako keak eta ofiziozko jarduerak</b> .....	167
A) Eskubideak eta betebeharrak ⇒ <i>Ikasleak onartzea: familiaren etxebizitza ikastegitik hurbil</i> <i>egotea</i> .....	167
⇒ <i>Hitzarmen pribatua ikastetxe batetik bestera igarotzeko</i> ...	169
B) Haur hezkuntza ⇒ <i>Udalen haur eskoletan matrikula egiteko arauak</i> .....	170
C) Derrigorrezko bigarren hezkuntza ⇒ <i>DBH: atzerriko hizkuntza aukeratzea</i> .....	172
D) Irakaskuntza artistikoak ⇒ <i>Musika: Instrumentuen hautabidea</i> .....	172



E) Administrazioaren jardunbidea eta prozedura administratiboa ⇒ <i>Lizentziatu ondoren espezializatzeko laguntzak</i> .....	175
F) Bestelakoak ⇒ <i>B ereduaren eskakizuna batxilergoko ikasketetan</i> .....	176
5. FUNTZIO PUBLIKOA .....	180
<b>5.1. Sarrera</b> .....	180
<b>5.2. Aukeratutako kexak</b> .....	184
A) Eskubideak eta askatasunak ⇒ <i>Funtzionarioek duten intimitaterako oinarrizko eskubideaz</i> .....	184
B) Polizia alorreko funtzio publikoa ⇒ <i>Polizi funtzionarioek duten adierazpen askatasuna</i> .....	189
C) Administrazioaren jardunbidea eta prozedura administratiboa ⇒ <i>Administrazio espediente eskuratzea</i> .....	191
⇒ <i>Administrazio espediente ikusi ahal izatea</i> .....	192
D) Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa ⇒ <i>Irakasle elkartu baten plaza hornitzeko lehiaketa</i> .....	194
⇒ <i>Irakaskuntzako bitarteko funtzionario ez-egonkorrak:         amatasun baimena</i> .....	195
E) Osasun alorreko funtzio publikoa ⇒ <i>Seme-alabak zaintzeko eszedentzia</i> .....	196
F) Funtzio publiko orokorra ⇒ <i>Epaitegietako bulego informatikoak: gau eta eguneko         zerbitzuak</i> .....	197
⇒ <i>Sarjentu plazak lenteak eramateagatik edo astigmatismo         edo miopia graduren bat edukitzeagatik baztertzea</i> .....	199
⇒ <i>Ordezkapenak: aldi baterako baja egoera</i> .....	200
⇒ <i>Udal bandako musikariak. Irakaskuntza jarduerekin         bateragarri izatea</i> .....	201
⇒ <i>Euskarazko ikastaroetara joateko lehentasun irizpideak         aplikatzea</i> .....	202
⇒ <i>Euskarazko ikastaroetara joateko baimena ukatzearen         arrazoiak</i> .....	205
6. OGASUNA .....	208
<b>6.1. Sarrera</b> .....	208
<b>6.2. Aukeratutako kexak</b> .....	210
A) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura ⇒ <i>PFEZren likidazio batzuk legearen arabera ez jakinarazi         izana</i> .....	210
⇒ <i>Prozedura exekutiboa zuzenean eta pertsonalki ez jakinarazi         izana</i> .....	211
B) Udal zergak ⇒ <i>Exekuzio espediente baten galera</i> .....	213
⇒ <i>Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren %50 ordaintzea</i> ....	214
⇒ <i>Minusbaliotasunaren ondorioz Trakzio Mekanikoko         Ibilgailuen gaineko Zerga ez ordaindu behar izatea</i> .....	215

⇒ <i>Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren subjektu pasiboa ...</i>	216
⇒ <i>Ibilgailu misto moldagarrien balorazioa TMIZri dagokionez</i>	216
C) Bestelakoak	
⇒ <i>Trafikoko isun bat zatikizko monetaz ordaintzea .....</i>	218
D) Udal tasak	
⇒ <i>Zabor bilketarako zerbitzua benetan gauzatu beharra .....</i>	219
7. HERRIZAINGOA .....	221
<b>7.1. Sarrera</b> .....	221
<b>7.2. Aukeratutako kexak</b> .....	223
A) Atxiloketa zentroak	
⇒ <i>Kontrol sistemaren bat ezartzeko proposamena, atxiloketetan tratu txarrik izan ez dadin .....</i>	223
B) Eskubideak eta askatasunak	
⇒ <i>Komisarian polizi eginbide jakin batzuk gauzatzeari buruz</i>	226
C) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura	
⇒ <i>Administrazioaren erantzukizunaz eta manifestazioa egiteko eskubideaz .....</i>	229
D) Herritarren segurtasuna	
⇒ <i>Bide publikoan burututako identifikazio eginbideak eta gorputz araketak .....</i>	232
E) Trafikoa	
⇒ <i>Donostiako TAOren ordenantzaz .....</i>	235
⇒ <i>TAOko arauak hausteagatiko zehapen prozeduraz.....</i>	238
⇒ <i>Trafikoko arau hausteen ondoriozko zehapen prozeduren jakinarazpenaz .....</i>	241
⇒ <i>Udaltzainez eta trafikoko arauak hausteagatik ezarritako salaketaz .....</i>	242
8. JUSTIZIA .....	244
<b>8.1. Sarrera</b> .....	244
<b>8.2. Aukeratutako kexak</b> .....	249
A) Justizia Administrazioaren funtzionamendua	
⇒ <i>Trafiko istripu baten ondoriozko prozeduran epaileen ebazpenean izan zen atzerakuntza .....</i>	249
9. INGURUGIROA .....	251
<b>9.1. Sarrera</b> .....	251
<b>9.2. Aukeratutako kexak</b> .....	252
A) Jarduera sailkatuak industri lurzoruan	
⇒ <i>Papergintza enpresa baten funtzionamenduak atmosferan eragindako kutsadura .....</i>	252
B) Jarduera sailkatuak egoitzazko lurzoruan	
⇒ <i>Industri jarduera klandestinoa .....</i>	254
⇒ <i>Hegazti-haztegi baten funtzionamenduak ingurugiroan izandako eragina .....</i>	255

⇒ <i>Hiri jarduera sailkatuen udal jarraipen eraginkorra behar izatea</i> .....	257
C) Bestelakoak	
⇒ <i>Etxebizitza batzuetatik hurbil pisaketak egiteko baskula instalatzea</i> .....	258
⇒ <i>Bakioko kostaldean hondarra ateratzearen aurka</i> .....	259
10. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK .....	261
<b>10.1. Sarrera</b> .....	261
<b>10.2. Aukeratutako keak eta ofiziozko jarduerak</b> .....	262
A) Bideak eta landabideak	
⇒ <i>Errepideen alboetako obrak burutzeko foru baimenak argiagoak izan beharra</i> .....	262
B) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	
⇒ <i>Agiriak konpultsatzeaz</i> .....	263
C) Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna	
⇒ <i>Administrazioaren erantzukizuna</i> .....	264
⇒ <i>Administrazioaren erantzukizuna</i> .....	265
D) Tokiko herri-zerbitzuak	
⇒ <i>Herri bideen azpiko ur-hornidurako hodian konponketak</i> .	266
⇒ <i>Hiri bideen hondamenaren aurrean administrazioaren inibizioa</i> .....	267
⇒ <i>Osasun bermeak etxetarako ur edangarriaren horniduran</i>	268
E) Garraioak	
⇒ <i>Pasagunearen onarpena, bi familia bakaturik geldi ez daitezen</i> .....	268
11. OSASUNA .....	270
<b>11.1. Sarrera</b> .....	270
<b>11.2. Aukeratutako keak eta ofiziozko jarduerak</b> .....	271
A) Erabiltzaileen eskubideak	
⇒ <i>Medikua askatasunez hautatzeko eskubidea eta osasun zentroen berregituraketa</i> .....	271
⇒ <i>Emakume seropositibo batzuk diskriminatzea haurdunaldia borondatez eteterakoan</i> .....	272
⇒ <i>Aitek beren seme-alabei ospitalean biberioia emateko duten eskubidea baldintzatzea</i> .....	273
⇒ <i>Gaixoa egonaldi ertain-luzeko zentroetara eramango dutela jakiteko eskubidea</i> .....	274
B) Bestelakoak	
⇒ <i>Larrialdietako osasun sarearen jardunbideari lotuta dagoen kasu bat</i> .....	275
12. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA .....	277
<b>12.1. Sarrera</b> .....	277

<b>12.2. Aukeratutako kexak</b> .....	277
⇒ <i>Garraioen zerbitzu publikoa</i> .....	277
13. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA .....	279
<b>13.1. Sarrera</b> .....	279
<b>13.2. Aukeratutako kexak</b> .....	281
A) Hirigintza arauen betearazpena eta aurria	
⇒ <i>Udalak obra baimen baten luzapena ez onartzea</i> .....	281
⇒ <i>Obra baimen baten exekuzioa etetea</i> .....	282
⇒ <i>Obra baimen bat salatzea, partzelaren plano ez baita zuzena</i> .....	283
⇒ <i>Udalaren lurrak osasungarritasun egoeran edukitzeko betebeharra</i> .....	284
B) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	
⇒ <i>BOEak saltzerakoan eroslehentasun eskubidea gauzatuko dela jakinaraztea</i> .....	285
C) Hiri antolamendua	
⇒ <i>Plan orokorraren aurka, ibaiaren lurrazpiko ibilgua ez errespetatzeagatik</i> .....	286
⇒ <i>Xehetasun azterketak hirigintza-antolamenduan duen ahalmenaz</i> .....	287
D) Etxebizitza	
⇒ <i>Etxebizitzak bota eta auzokoak beste etxe batzuetan kokatzea</i> .....	288
⇒ <i>Babes ofizialeko etxebizitzak esleitzea</i> .....	289
14. BESTE GESTIO BATZUK .....	291
<b>14.1. Sarrera</b> .....	291
<b>14.2. Aukeratutako kexak</b> .....	291
⇒ <i>Inkesta publikoei erantzun beharra</i> .....	291
B) <b>TALDE BATZUEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA</b> .....	294
1. EMAKUMEEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA .....	294
2. ADIN TXIKIKOEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA .....	301
3. ADINEKOEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA .....	305
4. ATZERRITARREN ARAZOEI ARRETA BEREZIA .....	308
5. EZGAITUEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA .....	312
<b>III. ATALA. ARARTEKOAREN JARDUERA KOPURUTAN</b> .....	317
1. OHAR ETA DATU OROKORRAK .....	319
2. ESTADISTIKA ALORREZ ALOR .....	322

3. ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO ESTATISTIKA .....	326
A) Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexak .....	327
B) Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexak .....	328
C) Tokiko administrazioaren aurka aurkeztutako kexak .....	329
D) Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako kexak .....	333
E) Justizia administrazioaren administrazio zerbitzuen aurka aurkeztutako kexak .....	333
4. LURRALDE ESTATISTIKA (KEXEN BANAKETA LURRALDEEN ARABERA)	334
5. PROZEDURARI BURUZKO ESTATISTIKA (KEXEN EGOERA) .....	336
6. ESTATISTIKA SOZIOLOGIKOA (SEXUA, HIZKUNTZA, ERREKLAMA- TZEKO MODUA) .....	345
7. HARRERA ZUZENEKO BULEGOEN JARDUERA (BISITAK) .....	346
A) Gasteizko harrera zuzeneko bulegoa .....	348
B) Donostiako harrera zuzeneko bulegoa .....	350
C) Bilboko harrera zuzeneko bulegoa .....	351
8. OFIZIOZKO JARDUERAK .....	353
9. ARARTEKOAREN JARDUERAREN BALORAZIOA (KEXAGILEEI EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK) .....	354
<b>IV. ATALA. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA .....</b>	<b>359</b>
1. SARRERA ETA ZENBAIT OHAR .....	361
2. ARARTEKOAK 1999AN ZEHAR EGINDAKO INFORMAZIO ESKARIEI ETA ERREKERIMENDUEI ADMINISTRAZIOEK EMANDAKO ERANTZUNA ...	363
A) Eusko Jaurlaritza .....	363
B) Foru aldundiak .....	364
C) Udalak .....	365
D) Bestelako erakunde publikoak .....	367
3. INFORMAZIOA LORTZEKO ARARTEKOAK 1999AN EGINDAKO ERREKERIMENDUEN ZERRENDA .....	368
A) Eusko Jaurlaritza .....	368
B) Foru aldundiak .....	369
C) Udalak .....	370
D) Bestelako erakunde publikoak .....	374
<b>V. ATALA. ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ZENBATERAINO BETE DIREN .....</b>	<b>375</b>
1. ONARTUTAKO GOMENDIOAK .....	380
A) Eusko Jaurlaritza .....	380
B) Foru administrazioa .....	384
C) Toki administrazioa .....	386

2. ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK .....	395
A) Eusko Jaurlaritza .....	395
B) Foru administrazioa .....	397
C) Toki administrazioa .....	397
D) Beste toki-erakunde batzuk .....	402
E) Eragindako beste erakunde batzuk .....	402
3. ERABAKI GABE GELDITU DIREN GOMENDIOAK .....	403
A) Eusko Jaurlaritza .....	403
B) Foru administrazioa .....	405
C) Toki administrazioa .....	406
D) Beste toki-erakunde batzuk .....	412
4. PROZEDURA JUDIZIALA IZATEAGATIK BERTAN BEHERA UTZITAKO GOMENDIOAK (OTSAILAREN 27KO 3/1985 LEGEAREN 13. ART.)....	413
<b>VI. ATALA. GOMENDIO OROKORRAK .....</b>	<b>415</b>
1. EUSKAL ADMINISTRAZIOEK KOMUNITATEAREN ONERAKO LAN ZIGORRAK BETEARAZTEKO HITZARMENAK SINATZEKO ETA SUSTATZEKO BEHARRA .....	417
2. ERANTZUKIZUN PERTSONALAK, FAMILIARRAK ETA PROFESIONALAK UZTARTZEA: ENPLEGU BALDINTZAK MALGUTZEKO BIDEAN .....	423
3. ZAHARREN EGOITZETAN SARTZEKO JARDUNBIDE NEURRI BERME- EMAILEAK .....	433
4. ZENBAIT JARDUERA PROPOSATZEA, ABELTZAINZAKO USTIATEGIEK INGURUGIROAN ERAGITEN DITUZTEN ARAZOEI BEGIRA .....	437
5. EHAE-K BERE LURZORU LEGEA ONETSI BEHARRA .....	446
6. EUSKARAZ ERABILTZEN DEN LEGE-TERMINOLOGIAN HIZKUNTZAK KOHERENTZIARIK EZ IZATEA .....	461
7. ZENBAIT GOGOETA ONDASUN HIGIEZINEN KUDEAKETA KATASTRALARI BURUZ .....	465
8. EZGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONEI ZUZENDUTAKO ZERGA POLITIKA EAE-N .....	471
<b>VII. ATALA. AZKEN ONDORIOAK. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK</b>	<b>503</b>
1. BERDINTASUN PRINTZIPIOA .....	506
2. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK .....	507
<b>2.1. Bizitzarako eta integritate fisiko eta moralerako eskubidea</b>	<b>507</b>
<b>2.2. Askatasun ideologikorako eskubidea</b> .....	<b>508</b>
<b>2.3. Askatasun eta segurtasunerako eskubidea. Atxilotuen     eskubideak</b> .....	<b>509</b>

2.4. Intimitaterako eskubidea .....	510
2.5. Intimitaterako eskubidea informatikaren erabileran .....	511
2.6. Adierazpen askatasunerako eskubidea .....	512
2.7. Komunikabideetan agertzeko eskubidea .....	512
2.8. Manifestaziorako eskubidea .....	513
2.9. Funtzio publikoan sartzeko aukera berdintasunaren printzipioa .....	513
2.10. Benetako babes judizialerako eskubidea. Errugabetasun presuntzioaren printzipioa .....	514
2.11. Askatasunik gabeko pertsonen eskubideak .....	515
2.12. Hezkuntzarako eskubidea .....	516
3. HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK .....	517
3.1. Bidezko zerga sistema. Berdintasun, mailakatasun eta legezkotasun printzipioak .....	517
3.2. Jabetza pribatua izateko eskubidea .....	518
4. ESKUBIDE SOZIALAK .....	519
4.1. Familiaren babesa. Adin txikikoen eskubideen babesa .....	519
4.2. Segurtasun eta higienearen babesa lanean .....	520
4.3. Osasunerako eskubidea .....	521
4.4. Ingurugiro egokiaz gozatzeko eskubidea .....	522
4.5. Etxebizitza duina izateko eskubidea .....	523
4.6. Ezindu fisiko, sentsorial eta psikikoen eskubideak .....	524
4.7. Adinekoen eskubideak .....	525
5. LABURBILKETA .....	526

## ERANSKINAK

- I. ERANSKINA: “Adinekoen eskubideen babesa” izenburuko ponentzia .....	529
(Herriaren Defendatzaileen Koordinazioko XIV. Jardunaldiak)	
- II. ERANSKINA: “Herritarren defentsa eskualde mailan, Europan” izenburuko ponentzia .....	541
(Herriaren defendatzaileen eta Europako Batasuneko eskabideetarako eskualde batzordeen eta bi horien eta Europako Herriaren Defendatzailearen arteko lankidetzari buruzko hitzaldia)	
- III. ERANSKINA: “Alorrez alor eta toki mailan defendatzaileak sortzeari buruz parlamentuko ordezkariak egindako gogoetak” izenburuko ponentzia .....	553

- IV ERANSKINA: GRAFIKOAK	
- 1. Diagrama: Arartekoak jasotako kexa-kopuruaren bilakaera (1989-1999)	561
- 2. Diagrama: 1999an jasotako kexen egoera onarpen-prozesuaren ondoren	561
- 3. Diagrama: Zuzenean bideratutako kexen banaketa jarduketa alorren arabera	562
- 4. Diagrama: Zuzenean bideratutako kexen banaketa eragindako adminis- trazioen arabera .....	562
- 5. Diagrama: Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera .....	563
- 6. Diagrama: Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen banaketa sailen arabera .....	563
- 7. Diagrama: Foru aldundien aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera .....	564
- 8. Diagrama: Udalen aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera ...	564
- 9. Diagrama: Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera (1989-1999) ....	565
- 10. Diagrama: Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera 10.000 biztanleko	565
- 11. Diagrama: Kexen banaketa hiriburutik datozen edo lurraldeko beste udalerrri batzuetatik datozen kontuan izanik .....	566
- 12. Diagrama: Arartekoak zenbatetan ikusi duen irregulartasuna administrazioaren jokaeran 1999an bukatutako kexetan .....	566
- 13. Diagrama: Jasotako kexen banaketa kexagileen ezaugarrien arabera .....	567
- 14. Diagrama: Jasotako kexen banaketa erabilitako hizkuntzaren arabera .....	567
- 15. Diagrama: Jasotako kexen banaketa aurkezteko moduaren arabera .....	567
- 16-17. Diagramak: 1999an harrera zuzeneko bulegoetan jasotako bisitak (kopurua eta ezaugarriak) .....	568
- 18. Diagrama: Banaketa adin-taldeen arabera .....	568
- 19. Diagrama: Harrera zuzeneko hiru bulegoetara joandakoen jatorri geografikoa .....	569
- 20. Diagrama: Kexa bilakatutako bisitak .....	569
- 21. Diagrama: Arartekoaren ofiziozko jarduerak (1999). Banaketa alorrez alor	570
- 22. Diagrama: Arartekoaren ofiziozko jarduerak (1999). Eragindako adminis- trazioen araberrako banaketa .....	570
- 23-28. Diagramak: Kexagileek Arartekoaren jarduerari buruz egin duten balorazioa (inkestaren emaitzak) .....	571
- 29-30. Diagramak: Arazoa “ez da konpondu” edo “nahikoa gaizki konpondu da” dioten kexagileek Arartekoaren jarduerari buruz egin duten balorazioa .....	574
<b>GAIEN AURKIBIDEA .....</b>	<b>575</b>



## AURKEZPENA

Eusko Legebiltzarrari aurkeztutako txosten honen helburua 1999. urteko Ararteko erakundearen jarduera laburbiltzea da. Txosten hori aurkeztea legearen agindu zehatz bat betetzea da, baina erantzukizun konpromiso atsegina burutzea ere bada. Arartekoa Legebiltzarraren goi mandataria denez, bere aurrean izan behar du erantzule. Herriaren defendatzailea da Arartekoa eta horregatik erantzun behar du herri hori legez ordezkatzeko duen erakundearen aurrean. Legeak independentzia eman zion Arartekoari herria hobeto defendatzeko, eta halaxe aritu izan da, baina urtean behin bere jardueraren eta jarduera horren emaitzen berri eman behar dio herria bere aniztasunean ordezkatzeko duen erakundeari. Eusko Jaurlaritzak zenbait funtzio betetzeko mandatua eman zion Arartekoari; kasu horretan, mandatua eman duenak bestearen ekintzen emaitzak ezagutzeko aukera izan behar du. Eta informazio hori izanik, iradokizunak eta gomendioak jasotzeko aukera izango du, legegile lanean eta bultzada eta kontrol lanetan laguntza izateko. Horrela, beraz, Arartekoak Zuzenbidea bultzatzeko funtzioa burutu nahi du: administrazio ona hobetzera eta txarra kentzera bideratutako neurriak hartzen lagunduko du.

Txosten honetan, nahitaezkoa denez, erakundearen jardueraren alderdi kuantitatiboak bildu dira. Baina, nahiz eta laburbilduta izan, honakoa jaso nahi izan da, batez ere: Arartekoaren eta biztanleen arteko harremanen (euren eskubideak hobeto defendatzeko) alderdi kualitatiboak, zehatzak nahiz bereziak. Kexak aurkeztera etortzen direnen ahots dardara; gure bulegoetara etorritakoen azken poza edo nahigabea; kexa aurkezten duenak emandako informazioa eta dagokion administrazioak emandakoa zein desberdin izaten diren; administrazioaren informazioa lortzeko zenbat eskaera egin behar diren; zein argudio juridikotan oinarritzen dugun defentsa; gomendioak eta gomendioen onarpen maila...

Ararteko erakundeak hamaika urte daramatza funtzionatzen. Horregatik, gero eta jende gehiagok du gure berri eta gure lanari buruzko gero eta informazio gehiago dago. Harrera zuzeneko bulegoek kexak gero eta zehatzagoak izatea lortu dute, benetan esku har dezakegun kexak, alegia. Kontsulta asko, aldiz, beste erakunde batzuetara bideratzen ditugu, gai bakoitzean eskumena duen erakundera, hain zuzen.

Gure lanean oso garrantzitsuak dira ofiziozko ekintzak eta gizarte ekintzako arloan eskuzabaltasunez lan egiten duten elkarteekin ditugun etengabeko harremanak. Izan ere, horiei esker hurrengo gaietan espezializatutako sentsoreak gure esku izaten ditugu: pertsonen eragiten dieten arazoak antzematen eta konponbideak imajinatzen espezializatutako sentsoreak. Jarduera horren bidez ari gara hurbiltzen pixkanaka populazioaren muturren etako segmentuetara, hau da, oinarriko eskubideen babes gehien behar dutenengana, batez ere, duintasunez bizitzearen inguruko eskubideei dagokionez.

Azken urteotako txostenetan bezala, oraingoan ere, jasotako kexen hartzailea aldatu egin da. Kexen %40,79 Toki Administrazioaren kontrakoa izan da aurten. Herritarrak Estatu sozialaren parte diren aldetik, horren inguruko eskubideei loturiko arazoak gure lanaren esparru handia ari dira hartzen. Ondorengo gaien inguruko kexak ere oso ugariak izaten dira: zerga betebeharrak, toki obra eta zerbitzu publikoak, hirigintza, etxebizitzak, hezkuntza eta ingurugiroaren kalitatea.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1999. urtea Adinekoen Nazioarteko Urte izendatu zuen. Aipatutakoa kontuan hartuta, hauxe izan da gure lan eslogana 1999. urtean: «Eskubideek ez dute balioa galtzen adinak aurrera egin ahala». Hainbat hedapen material sortu ditugu eslogan horren inguruan eta Jardunaldia antolatu dugu Euskal Herriko Unibertsitatearen udako ikastaroetan. Estatuak burutu beharreko adinekoen eskubideen babesari buruzko berariazko txosten batzuk azalduz, ondorengo ekitaldietan ere hartu dugu parte: Ombudsman-en Iberoamerikako Federazioaren Biltzarrean, Tegucigalpan (Honduras); eta, bestalde, herriaren defendatzaileen koordinazioko XIV. Jardunaldietan, Aragoiko Autonomi Erkidegoan. Lan horri guztiari amaiera emateko, honako iradokizuna aurkeztu diogu Legebiltzarrari: berak berariaz eman ditzala adinekoen eskubideen babesaren inguruko legeak Euskal Autonomia Erkidegoan. Gizarte Zerbitzuen legearen adierazpenek erretorikatik eraginkortasun juridikora pasatu behar dute: eskubide subjektibo gisa eratu behar dituzte. Guk gomendatu dugu legegileak edo, bestela, Gobernuak araudi bidez, “eskubideen zerrendak” sortzea, adinekoen taldea, besteak beste, barne hartuko duten zerrendak.

Txostenaren urteroko aurkezpenak eskaintzen didan aukera hau aprobetxatu nahi dut Legebiltzarrari gomendio orokorrak helarazteko. Gomendio horiek banakoek edo eragindakoen elkarrekin arazo partikularren inguruan ekitearen ondorioz sortu dira; erredundantzia hori dela-eta, orokor bihurtu dira. Gomendio horietan arazoei ikuspuntu globaletik heltzen saiatu gara, arazoaren sorburua bera konponduz gero, ondorio onuragarriak askoz gehiago hedatzen direla baitakigu.

Azkenik, ondorio gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko eskubideen babesaren egoera oro har baloratu dugu. Horren helburua hauxe izan da: legeak Arartekoari emandako helburu nagusia zein neurritan lortu den zehazki neurtzea. Gure helburu nagusia Konstituzioaren I. tituluan dauden oinarrizko eskubideen defentsa egitea da.

Txosten hau aurkeztean titular honen (nire) agintaldiaren bost urteak amaitu egiten direnez, eskerrak eman nahi dizkiet (eta hemen jasota gera dadila) urte guzti hauetan nire lanean harremana izan dudana guztiei: kexak aurkeztu dituzten guztiei, erakunde honetan izandako konfiantzagatik; administrazioetako langileei, euren informazio eta argudioengatik; erabakiak hartzeko ardura dutenei, gure gomendioak onartzeagatik; legebiltzarkideei, euren konfiantza eta laguntzagatik; eta Ararteko erakundea osatzen duten guzti-guztiei, euren zentzuzko ardura eta ardura pairamentsuagatik.

2000ko martxoaren 9a  
ARARTEKOA  
*Xabier Markiegi Candina*

I. ATALA

**ARARTEKOAREN JARDUERA  
NAGUSIAK**

Atal honetan, hiritarrek aurkezten dituzten kexei buruzko espedienteak tramitatze hutsaz gain, Ararteko erakundearen beste zenbait jarduera jaso nahi izan ditugu, horiek ere garrantzi handikoak baitira erakunde honek hiritarren eskubideak bermatzeko duen eginkizunean.

Atala lau zatitan banaturik dago: **lehenengo zatian** 1999an egindako edo hasitako txosten bereziak jaso dira, eta bai aurreko urteetan aurkeztutako txosten berezien jarraipena egiteko ofiziozko jarduerak ere.

Bestalde, hainbat esparrutan sar daitezkeen gai zehatzei buruzko ofiziozko jarduerak II. atalean sartu ditugu.

Lehenengo atalaren hasieran, beraz, aurreko urteetako txosten berezietan jasotako gomendioak bete ote diren kontrolatzeko jarduerak biltzen dira.

Zadorrako urtegiatako uraren kalitatea zaintzeari buruzko txosten bat ere aipatzen dugu. 1998an amaitu eta 1999ko lehenengo hilabeteetan Eusko Legebiltzarrari emandako txosten horretan, ingurune urtarra deskribatu eta uraren kalitatearen azterketa ekologikoa egiteaz gain, uraren araubidea eta eskumen-banaketa aztertu da.

Gainera, 1999ko abenduaren 22an Eusko Legebiltzarreko buruari emandako Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko gizarte zerbitzuei buruzko ikerlan monografikoaren azterketa egiten dugu.

Gure erkidegoan buruko gaixoek jasotzen duten ospitaletik kanpoko zaintzari buruzko lan monografikoa ere jaso dugu. Lan horrek ospitale psikiatrikoetan dauden buruko gaixoen egoerari buruz Arartekoak 1991n egindako txosten berezia osatu nahi du. Txostena bukatuta eta zuzentze eta euskaratze aldian dago.

Atal hau bukatzeko, Bilboko San Frantzisko auzoan Arartekoak atzeritarrekiko polizi ekintzei buruz egindako txostenaren jarraipenaren laburpen oso zehatza jasotzen da.

Atal honetako **bigarren zatian**, giza eskubideak errespetatzen dituen gizartea sortzen laguntzeko asmoz egindako jarduerak jaso ditugu. Arartekoak, hainbat talde, elkarte eta gobernuz kanpoko erakunderen bidez, euskal gizarteko sektore aktiboenekin izan dituen harremanak azaltzen dira, eta agerian uzten da erakundea gizarte zibileria hurbiltzen dela haren arazo eta kezka jakin eta bideratzeko.

Halaber, aurreko ekitaldietan egindako jarraipen diren ekimenak jaso dira: giza eskubideei buruzko ikerketa beka baten eta giza eskubideetan hezteko eskolarako langaiak prestatzeko beste baten berri ematen da.

Adinekoen Nazioarteko Urtea zela eta, jardunaldia egin zen Euskal Herriko Unibertsitateko uda ikastaroetan "Eskubideak ez dira adinaz iraungitzen: adinekoen nazioarteko urtea" izenburupean.

Ataleko **hirugarren zatian**, Arartekoak Estatuan zein Europan eta munduan antzeko diren erakundeekin izandako harreman eta elkarlana deskribatzen dugu.

Atal honen helburua garrantzi bereziko zenbait gairi buruz herri-defendatzaile guztiek hartutako erabakiak azpimarratzea eta bilera horietan Arartekoak egindako hitzaldietako batzuk transkribatzea da, interesgarri baiteritzogu horiek txosten honetan jasotzeari.

Amaitzeko, bitartekaritza lan berezi bat ere jasotzen da **laugarren zatian**: El Limitado izeneko inguruan mendeetako lurralde gatazka konpontzen laguntzeko lana, alegia. Gatazka horrek aurrez aurre jarri ditu Aramaio eta Otxandio udalerriak, hau da, Araba eta Bizkaiko lurralde historikoak.

## **1. 1999AN ZEHAR BURUTUTAKO EDO HASITAKO TXOSTEN BEREZIAK ETA AURREKO TXOSTENEN JARRAIPENERAKO OFIZIOZKO JARDUERAK**

### **1.1. AURREKO URTEETAN AURKEZTUTAKO TXOSTEN BEREZIETAN EMAN ZIREN AHOLKUAK BETETZEN DIREN ALA EZ KONTROLATZEKO JARDUERAK**

#### **1.1.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESPETXEETAKO EGOERARI BURUZ EGINDAKO TXOSTEN BEREZIAREN ONDORIOZ HASITAKO JARDUEREN JARRAIPENA**

1996ko martxoan Eusko Legebiltzarrari eman zitzaion erakunde honek Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetako egoerari buruz taxututako txosten berezia. Bertan gure erkidegoko hiru zentroetan ikusitako problematika deskribatu zen, eta, era berean, hainbat gomendio eman ziren espetxeratutako pertsonen egoera hobetzeko asmoz. Horren ondoren, urte horri zegokion ohiko txostenean informazio zabala eskaini zen Arartekoak administrazio desberdinetan emandako urratsen inguruan, bai eta txostenak hainbat eremutan sortarazitako eztabaidaren inguruan ere (1996ko txostenaren I. kapituluaren 2.1.1. atala).

Hurrengo urteko ohiko txostenean erakunde honek aurrera eramandako jarduketan gaineko balantzea egin zen; jarduketa horien xedea, bada, gorago aipatutako txostenean azaldutako egoera hobetzea baizik ez zen. Zenbait alderdi positibo nabarmendu ziren (espetxeratuen kopuruaren murrizketa, osasun zerbitzuan sartutako hobekuntzak, mantenimendu obrak, zerbitzu batzuei buruzko informazioa...), eta, batez ere, espetxe bakoitzaren inguruko datu gaurkotuak eman ziren (Basauri, Martutene, Langraitz), betiere ondorengoak kontuan hartuta: zentroetako zuzendariak egindako txostenak; espetxeratuei laguntzeko elkarteen ustez kezkatzeak ziren arrazoiak, eurekin egindako bileretan jakinarazi zizkigutenak; eta Osasun Sailak 1997an eskainitako osasun prestazioei buruz egindako txostena (1997ko txostenaren I. kapituluaren 2.1.1. atala).

Aurrera eramandako jardueren jarraipenaren ildoari segituz, iazko urteroko txostenak jasotzen zuen hiru espetxeetako zuzendariak emandako informazioaren laburpena, esku hartzeko hiru arloren ingurukoa (hezkuntza, lanbide prestakuntza, osasun zerbitzua...). Halaber, txosten horrek jasotzen zuen espetxeratuei laguntza emateko elkarrekin jakinarazi zituzten arrazoi eta gai kezkarrien inguruko laburpena. Gainera, euren garrantzia edo Arartekoak horietan izandako inplikazioa zela eta, txostenak zazpi alderdi zehatz nabarmentzen zituen (1998ko txostenaren I. kapituluaren 1.1.1. atala).

Arartekoak egoeraren jarraipena egiteko 1999an burutu dituen jarduerarik garrantzitsuenak mamitu dira aurreko urteko txostenean azpimarraturiko zazpi alderdietarik hirutan; hona hemen, bada, hiru horiek:

- Xiringak banatzeko programa zabaltzea.
- Espetxeratuei zerbitzu psikiatrikoa eskaintzea.
- Zaintza Bereziko Txagorritxu eta Basurto ospitaletako unitateak.

## 1. Xiringak banatzeko programa zabaltzea

Arartekoaren erakundeak 1999an parte hartu du Basauriko espetxean xiringak banatzeko programaren Jarraipen Batzordean. Gogora ekarri beharra dago programa hau abian jarri ahal izateko espetxeratutako pertsonak, laguntza elkarteak, Eusko Legebiltzarrak, Arartekoak... bultzatutako zenbait ekimen zein eskaera hartu zirela aintzat. Basaurin 1997ko uztailetik aurrera ezarritako programa honek eta orain arte izan duen jarraipenak frogatu dute programaren bideragarritasun eta onura. Hala, aurreko uztailen, hau da, programa hasi eta bigarren urteurrenean, horren ebaluazioa aurkeztu zen eta bertan aztertu eta nabarmendu ahal izan ziren erakunde honek iazko txostenean jadanik aurreratutako zituen alderdi positiboak:

- Xiringak banatzeko programaren bideragarritasuna, espetxean izaten diren baldintza zehatzak kontuan hartuta.
- Programak sortarazten dituen eragin positiboak: ez bakarrik drogen erabiltzaileengan dituen zuzeneko eragin positiboak (arriku maila gutxitzea, osasun zerbitzuekin harremanetan paratzea, bestelako egitasmo handiagoak abian jarri ahal izateko bidea jorratzea), ezpada zentroko beste pertsonengan, bai espetxeratu bai profesionalengan izandakoak.
- Egitasmoa abian jarri zenetik, ika-mika esanguratsurik sortu ez izana.
- Ezaugarri hauetako programa baten kostu urria.
- Egitasmoan beste zerbitzu eta administrazio batzuk inplikatzeko aukera eta abantailak.
- Zentroak, eta, bereziki, bertan lan egiten duten beharginak programa beren gain hartu eta zeregin horretan inplikatzeko garrantzia.

Horrela bada, egitasmoaren balorazio positiboek Arartekoa bultzatu zuten xiringak banatzeko programa arian-arian beste espetxe batzuetara zabaltzeko eskaria egitera (gure kasuan, zentroetako aldeko jarrera egonik, Martutene eta Langraitzeko espetxeetara hedatzeko ahaleginak egin ziren) eta estatuko beste arartekoei egitasmo honen onurak adieraztera, euren lurralde eremuetan antzeko ekimenak bultzatzen zituzten (1998ko txostenaren I. kapituluaren 1.1.1. atala).

Bestalde, Basauriko esperientzia onuragarri honek Espetxe Erakundeko Zuzendari Nagusia animatu zuen programaren abantaila nagusien berri eman (espetxeetara igorritako 1998ko azaroaren 23ko zirkularren bitartez), egitasmoaren ezarpena gomendatu eta horretarako prozedura zein zen zehaztera.

1999an barrena Martuteneko espetxeak eta erakunde honetako profesionalek osatutako talde batek xiringak banatzeko proiektua taxutzeari ekin zion. Horretarako, bada, beste erakunde batzuen laguntza izatez gain, zentroko ezaugarriak aintzat hartuak izan ziren.

1999ko ekainaren 10ean eratu zen programa garatzeko erakunde arteko batzordea; bertan, besteak beste, Arartekoaren erakundeak ere hartzen du parte. Alta, proposamen desberdinak aztertu eta gero, batzorde honek aurreko irailaren 30ean onetsi zuen Martuteneko espetxean xiringak banatzeko egitasmoa abian jartzea, bai eta planteatu ere, zeintzuk ziren programari azaroan ekiteko beharrezko aurreikuspenak.

Urteko azken hilabeteetan programari ekiteko beharrezko urratsak eman dira (langileak prestatu eta horiei egitasmoaren berri ematea, kits-ez hornitzea, baimena eskatzea...);

hala ere, esan beharra dago txosten hau idazteko momentuan oraindik ere ez zaiola hasierarik eman xiringak banatzeko prozedurari.

Egitasmoa Langraitzeko espetxean sartzeari dagokionez, Arartekoaren erakundeak bere proposamena martxan jartzeko ahaleginak egin ditu horretarako aukera izan duen guztietan: Eusko Legebiltzarrean, Martuteneko espetxe erakundeak zuzendaritzan, programaren jarraipenerako batzordeko bileretan (bai Basauri bai Martutenekoetan).

Horrela bada, txosten honen taxuketak pozteko aukera ezin hobea ematen digu, Basauriko espetxean egitasmoak izan duen ibilbide ezin egokiagoa izan delako eta Martuteneko espetxean bide hau jorratzen hasteko erabakia hartu delako. Era berean, parada aproposa ematen du programa Langraitzeko espetxera hedatzeko ekinean jarraitu ahal izateko.

## 2. **Espetxeratuei zerbitzu psikiatrikoa eskaintzea**

Aurreko txostenetan (adibide gisa, 1997ko txostenaren I. kapituluaren 2.1.1.III. atala) Osakidetza espetze erakundeetan eskaintzen dituen prestazioei buruz emandako datuek argi uzten dituzte zerbitzu batzuen mugak, hala nola zerbitzu psikiatrikoarenak.

Aurreko urtean Salhaketa elkarteak eta HIESaren kontrako Bizkaiko Batzordeak hainbat erakunderi aurkeztu zioten egoki arrazoitutako proposamena, betiere gure erkidegoko hiru espetzeetako pertsona presoei ematen zaien zerbitzu psikiatrikoa gehitu eta hobetzeko. Aipatutako elkarteon eskariari jarraituz eta horien ordezkariekin batzartu eta gero, Arartekoak gai honen inguruko kexa zehatza aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailean. Iazko txostenean eman zen kexa horren berri.

Horren ostean, elkarte horiek proposamen zehatzagoa egin eta legebiltzarreko talde desberdinei aurkeztu zieten aintzat hartua izan zedin. Proposamen horretan oinarrituz, talde horietariko batek ez legezko proposamen bat egin eta otsailaren 12an Eusko Legebiltzarreko osoko bilkurak honako erabaki hau hartu zuen: Eusko Jaurlaritzari eskatu, betiere indarreko hitzarmenen markoaren barruan eta hiru hilabeteko epean, gure erkidegoko espetzeetako pertsona presoei zerbitzu psikiatriko osoa emateko beharrianak baloratzea eta beharrezko neurriak hartzea. Alta, onetsitako testua ondokoa izan zen:

*“Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari ondoren azaldutakoa eskatzen dio, 1994ko apirilaren 18ko hitzarmenean ezarritako markoaren barruan eta 1995eko azaroaren 20ko hitzarmena bereziki kontuan hartuz; izan ere, Osasun Sailak eta Osakidetza Justizi eta Barne Saileko Espetze Gaietarako Estatuko Zuzendaritzarekin sinatu zuen hitzarmen hori, Euskal Autonomia Erkidegoko espetzeetako egoiliarrei osasun laguntza eman ahal izateko.*

1. Behin hiru hilabetekoa baino luzeagoa izango ez den epean beharrianen balorazioa egin eta gero, beharrezko antolamendu neurriak hartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde eremuan dauden espetzeetako pertsona presoei laguntza psikiatriko osoa emateko, bai eta autonomia erkidegoko gainerako biztanleei ere; horretarako, bada, horien guztien osasun egoera baino ez da aintzat hartuko.



2. Presoaren oinarrizko eskubideak bermatzeko asmoz, mediku eta gaixoaren arteko intimitatea eta isilpekotasan baldintzak babestea, betiere espetxeratze egoerak ahalbideratzen duen neurrian.”

Hiru hilabete horiek igaro eta gero, ekainaren 17an, Arartekoak Osasun Sailburuari eskatu zion hartutako neurrien inguruko informazioa. Horrela, Osasun Sailari lau gai planteatu zitzaizkion zehatz-mehatz:

- Ea Basauri, Martutene eta Langraitzeko espetxeetan laguntza psikiatrikoa emateko beharrezko balorazioa eginda zegoen, eta, horrelaxe burututa bazegoen, zelan egin zen balorazio hori eta zeintzuk ziren lortutako emaitzak.
- Urte honetako aurreneko hilabeteetan zein zen Osakidetzako langile espezialistek hiru zentroetariko bakoitzean emaniko laguntza psikiatrikoa eta ea Osasun Sailak nahiko eta egokitzat jotzen zuen laguntza hori.
- Ea gai hau tratatua zen hitzarmenen jarraipenerako batzordeetako azken bileretariko batean (hitzarmen-markoa eta osasunaren inguruko hitzarmena) eta zein emaitza izan zuen horrek.
- Zeintzuk antolamendu neurri hartuak ziren edo hartzekoak ziren hiru zentroetako espetxeratuei Eusko Legebiltzarraren erabakiak aipatzen duen laguntza psikiatriko osoa eman ahal izateko.

Sailburuaren erantzunak hainbat datu eman zituen eskaintako laguntzaren inguruan eta zerbitzuaren balorazio orokor positiboa egiten du. Hala, honako hau dio:

*“Ekitaldi honetako lehendabiziko bost hilabeteetan barrena Langraitz eta Basauriko zentroetan laguntza eman zaien gaixoen kopurua 150 eta 42koa izan da hurrenez hurren; aitzitik, Martutenen 7 gaixori eman zaio laguntza maiatzaren 15etik aurrera, hots, programa abian jarri zenetik aurrera. Jakina denez, egindako kontsulten kopurua askoz handiagoa izan da; horrela, zentro bakoitzaren ezaugarrien arabera, gerta daiteke laguntza hirukoiztea. Oro har, baieztatu dezakegu lehenengo mailako laguntza ematean zerbitzu medikoetako inplikazioak zein Osakidetzaren bitartez ematen den laguntza espezializatuak bide ematen dutela zerbitzu psikiatriko egokia eskaintzeko, bai baldintza kuantitatiboei bai kualitatiboei dagokienez.”*

Arartekoak espetxeetako zuzendariei informazio hori helarazi zien, legebiltzarrak gai beraren inguruan egindako galderari emandako “erantzun idatzi” arekin batera. Horren xedea zen zentroetako profesionalen taldeak jakinaren gainean egotea eta informazio hori guztia baloratu ahal izatea. Izan ere, erakunde honi interesatzen zitzaion zuzenean jakitea zein zen espetxeak Osakidetzako profesionalak ematen ziharduten laguntza psikiatrikoaren gainean egiten zuen balorazioa eta ea uste zuen bete barik edo behar bezala betetzen ez zen beharrezko baldintza bazegoen. Zentroetako zuzendarien erantzunak balorazio positiboa egiteko bidea eman zuten, Osasun Sailarekin gertatu bezala. Edozein modutan ere, Langraitzeko espetxearen kasuan honako hau planteatu zen: erregimen itxian egonaldi erdiko zentroa edukitzeko egokitasuna kasu larriak izaten direnean. Horren helburuak, bada, honaxekoak ziren: gaixoa espetxean bertan eta Santiago ospitalera eroan bitartean izaten den tarte betetzea eta zentroan horrelako laguntza eta zerbitzua eskaintzea.

### 3. Zaintza bereziko Txagorritxu eta Basurto ospitaletako unitateak

Txagorritxuko JBOU 1998ko urrian abian jarri eta gero, Arartekoak espeteratuen eskubideak ustez urratuak izan zirela jakin ahal izan zuen, unitatean egondako pertsona presoren batzuek salatutakoaren arabera. Beste alde batetik, gizarteratzearen eremuan lan egiten duten hainbat elkartek plataforma bat eratu zuten pertsona presoek eman beharreko ospitaleko laguntzan berehalako eta muturreko aldarazpenak exijitzeko. Horrela bada, beharrezko informazioa bildu eta gero, erakunde honetako ordezkariak JBOU hori bisitatu zuten, bai eta Basurto ospitalekoa ere, bertan egiaztatu ahal izan zuten jagoletzaz arduratzen diren agenteen hainbat jarduketa eta egiturazko hainbat elementu ezin zirela egokitzen hartu edo, behinik behin, hobetzeko modukoak zirela. Hori dela eta, 1999ko otsailaren hasieran, Arartekoak Eusko Jaurilaritzan arlo honen inguruan eskumenak dituzten hiru sailletara, hau da, Osasun, Herrizaingo eta Justizi zein Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailletara jo zuen. Azken honetara jotzeko arrazoia izan zen Eusko Jaurilaritza eta Barne Ministerioaren artean lankidetzarako sinatutako hitzarmen-markoaren barruan espeteetako jarduketak koordinatzeko ardura sail horrek izatea.

Handik gutxira, erakunde honetan jaso ziren Justizi Sail eta Osasun Sailaren erantzunak. Lehengo bat zetorren Arartekoaren planteamenduekin eta proposatutako neurriak betearazteko berrikuspenera egingo zuela agintzen zuen. Bestalde, Osasun Sailak informazio baliagarria eman zuen, bere iritziz bi JBOUetan bideragarri jotzen zituen aldatetei buruz. Guztiarekin ere, hainbat alderdiren inguruan Herrizaingo Sailaren adierazpenak behar-beharrezkoak ziren; horiek, bada, irailaren erdialdera ailegatu ziren.

Horrenbestez, bere egunean planteatutako gai arazotsuak ez ezik horiei banan-banan emandako erantzunak ere laburbiltzen saiatuko gara; era berean, unitate horietara egindako bigarren bisitatik ateratako ondorioak laburtuko ditugu:

#### 1. Intimitaterako eskubidea:

- Nahiz eta Txagorritxuko JBOUko gelek ospitalearen gainerakoen egitura berari eutsi dioten, sarrerako atea eta bainugelakoa banatzen dituen segurtasun ate bat ezarri da; horretara, gaixoak komunara erabili gura izaten duen bakoitzean, jagoletzaz arduratzen diren agenteei hots egin behar die atea ireki diezaioten. Basurton binakako hiru gela daude eta bi bainugela, banagailu baten bitartez komunikatuak. Orobat, geletako atea ere itxita egoten dira, eta, beraz, komunak erabili ahal izateko, agenteen baimena behar izaten da. Arartekoaren iritziz, deskribatutako egoera ospitaleratutako pertsonaren intimitatean gehiegizko esku sartzea da; izan ere, egoera konpon liteke gelatik bainugelarako zuzeneko sarbidea eginez.
- Basurtoko ospitaleko zuzendaritzak jakinarazi zuen bi gelatan bainugelarako zuzeneko sarbidea ezar zitekeela, nahiz eta hirugarrenean, beteta egonez gero, bainugela partekatu beharko zen. Txagorritxuko ospitaleak, dena dela, ez zion gaiari oratu. Beste alde batetik, Herrizaingo Sailak komunak gelatik banatzen dituen atea kentzearen alde agertu zen, eta, era berean, adierazi zuen gelen antolamendu hori espeteetako administrazioak diseinatu zuela.
- 2000ko urtarrilean ez zaio oraindik ere ekin ezelako berrikuntza lanik burutzeari; edonola ere, gela batetik bainugelarako sarbidea egitea erabakita dago, eta bigarren

gelaren berrikuntza atzeratuko da harik eta lehenengoaren funtzionamendua behar legez baloratzen den arte. Txagorritxuko ospitaleari dagokionez, ez gaude inolako berrikuntza proiektuaren jakinarean gainean, nahiz eta horren inguruko informazioa jasotzeko eskaera egin dugun.

## **2. Ospitaleraturiko pertsonaren ongi izateari eragiten dioten elementuen kontrola:**

- Txagorritxuko JBOUn leihoak eta pertsiak automatikoak dira eta poliziaren kontrol guneak erabiltzen dira; horrek jagoletaz arduratzen den ertzainaren esku uzten du gelan argi natura edo artifiziala egoteko erabakia. Basurtoko gelatan (zaharragoak dira) leihoak burdin sareak ez eze metalezko saretxo finkoa eta nahiko itxia ere badute; horrek, bada, aski zail egiten du gelak argiztatu eta aireztatu ahal izatea.

Bestalde, bi unitate horietan, ospitaleraturiko pertsonak bere arropa eta bestelako gauzak gordetzen dituen armairua giltzaz itxita egoten da, eta giltza jagoletzako agenteen esku. Hori dela eta, ertzainen esku hartzea eskatu behar izaten da barruko arropa edo bainugelarako tresnak, adibidez, erabili ahal izateko. Txagorritxun armairu horiek gela barruan daude, eta, edozein kasutan, argi dago azken aukera hau askoz bide egokiagoa dela.

- Gai honetan inplikaturiko hiru sailak objektu pertsonalak gela barruan edukitzeko aukerarekin bat etorri ziren; horretarako, hala ere, ospitaleratzean alde aurretiko kontrola egin behar zen. Hala, armairuen gaia konponduta zegoela ematen zuen.

Leihoetako segurtasun elementuez bezainbatean, Herrizaingo Sailak ezin direla kendu baieztatu zuen, aintzat hartu barik Arartekoak soil-soilik eskatu zuela Txagorritxun instalaturiko sistemari aldaketa batzuk egitea eta Basurtoko elementu fisikoak aldaraztea. Gai honi erantzunik eman ez zaionez gero, informazio gehigarriak eskatu dizkiogu Herrizaingo Sailari.

- Basurtora egindako bisitan egiztatu ahal izan genuen ez direla leihoetako sareak kendu, handik gutxira egingo zutela agindu arren, eta ospitaleraturiko pertsonak geletan armairurik izateke jarraitzen zutela, gau mahaiak instalaturik zeuden arren. Txagorritxun, arau orokorra da oraindik ere armairua itxita egotea eta giltza agenteen esku.

## **3. Ospitaleko langileekiko komunikazioa:**

- Txagorritxuko JBOUn, segurtasun neurri modura, gaixoak erizaintzako beharginei egindako deia Ertzaintzaren kontrol gunean jasotzen zen, eta, deia helburua zein zen jakin ostean, agenteak konmutadore bat sakatzen zuen osasun zerbitzuetara helarazteko. Sistema horrek deia helaraztea edo ez, jagoletzako ertzainaren esku uzten duela jakinik, Arartekoak horren aldarazpena proposatu zuen, ospitaleko langileekin zuzeneko komunikazioa izateko, Basurton dagoenaren antzera. Beste alde batetik, aldakuntza horrek saihesten zuen ezarritako sistemaren beste problema bat: gelarekin komunikazioa egiten duen interfonoa zabalik geratzeko aukera eta, horretara, pertsona presoak bisitariekin izandako elkarrizketa entzuteko parada.

- Proposatutako aldarazpena egin da, erizain eta gaixoen artean zuzenean komunikatzeko mekanismoa instalatu eta lehengo interfonoa blokeatua izan delako. Gauzak horrela, agenteek une honetan ohartarazle optiko-akustikoa besterik ez daukate.
- Bisitan sistema berriaren funtzionamendua ikusi ahal izan dugu. Une honetan sistema horrek bi txirrin ditu, bata osasun beharginei deitzeko eta bestea jagoletzaz arduratzen denari. Hori dela eta, dei bat jasoz gero, agenteak gelara joaten beharturik daude, daborduko interfonorik ez dagoelako.

#### **4. Isilpekotasuna:**

- Hainbat alditan Arartekoak kezak jaso ditu espetxeratuen eta osasun langileen arteko harremanetan egon beharreko isilpekotasuna urratua izan ei delako. Honen inguruan arau zehatz eta zorrotzak egonik ere, inplikaturako alderdi guztiek esandakoaren arabera, jagoletza bideratzeko modu zehatzak horretan parte hartzen dutenen esku geratzen da praktikan, hau da, jagoletzaz arduratzen den ertzainaren eta kontsulta egiten duten osasun langileen esku. Horrela bada, agente batzuk egoera kristaletik ikuskatzen atean edo horren atzean geratzen diren bitartean, osasuneko hainbat profesionalak ertzainari eskatzen diote euren aldamenean geratzeko.  
Ikus daitekeenez, oso gai korapilatsua da hainbat eskubide desberdin tartean sartzen direlako; hala ere, oreka bilatu beharra dago. Erakunde honen ikuspuntuaren arabera, argi egon behar da arau idatziek mediku eta gaixoaren arteko harremanetan intimitate eta pribatutasunerako eskubidea bermatzeaz gain, lehentasun osoa eman behar diotela. Eskubide hori, beraz, soilik sakrifika liteke segurtasunaren mesedetan, ondo arrazoitutako salbuespenak ageri direnean.
- Herrizaingo Sailak gure planteamenduari bat datorrela adierazi digu; izan ere, baieztatu du arrazoi orokorrak ez direla nahikoak eta arrisku zehatzak egon behar direla medikuaren kontsulta egitean ertzainen presentzia justifikatzeko. Ildo honi jarraituz, adierazi du ospitaletan lekualdaketa zein jagoletzaz arduratzen diren agenteei beharrezko jarraibideak eman zaizkiela, eta, bidenabar, eskatu zaiela txosten zehatza egitea osasun laguntza ematen denean gaixoaren alboan egotera bultzatzen diren arrazoiak justifikatzeko.
- Bigarren bisita egitean Basurtoko geletan jagoletza egiten ziharduten agenteek jakinarazi ziguten ez zutela euren esku idatzizko arau berririk eta inork ez ziela irizpide aldaketaren berri eman, betiere medikuaren kontsultak egin bitartean eman beharreko jagoletzari zegokionez. Antza denez, Txagorritxun ere ez da arategiaren berri eman, nahiz eta gaixoak, agenteek zein erizainek jakin jagoletza gelatik at egin beharra dagoela arau orokor gisara. Edozein kasutan, ez da txostenik egin jagoletza gela barruan bideratu denean.

#### **5. Harremanik eza:**

- JBOUetan sartzeak gaixoen ia erabateko isolamendua dakar. Presondegietan jazotzen denaren aldean, gaixoek egun osoa ematen dute euren gelan sarturik eta soil-soilik egin dezakete berba osasunaz edo jagoletzaz arduratzen diren langileekin. Osasun zentroan tarte berean ospitaleraturiko preso bat baino gehiago egonik

ere, ez zaie harremanetan jartzen uzten. Arartekoak iradoki zuen guneren bat egokitu edo erabiltzea ospitaleratutako pertsona presoen bilgune modura, betiere gaixotasunaren ezaugarriek eta espetxeko egoerak hori egiteko bidea ematen dutenean.

- Herrizaingo Sailak arrazoizko eta bidezkotzat jo zuen JBOUn sartutako pertsonak harremanetan jartzeko gune bat egokitzearen aldeko gomendioa, betiere segurtasun baldintza egokiei eutsita. Bestalde, inplikaturiko bi ospitalek adierazi zuten neurri hori berehalakoan hartzea bideragarria zela, eta, horretarako, Herrizaingo Sailaren txostena besterik ez zutela behar. Beraz, egoera konponduta zegoela ematen zuen.
- Basurtoko JBOUn ez da banagailua egokitu eta gorago azaldu bezala Ertzaintzaren agenteek ez dute honen inguruko jarraibiderik jaso. Edozein kasutan ere, ezin da alde batera utzi osasun zentro honetan kasu psikiatriko mordoia dagoela, eta, beraz, zaila dela harremanetan jarri eta komunikatzeko aukerak sortzea. Txagorritxun ere ez da aldaketarik izan egongelako altzarietan, baina orain, behintzat, gela hori hainbat alditan erabiltzea baimentzen da pertsona gaixoen topagune modura. Jokabide honen gaineko iritziak ez zetozen bat eta ez zegoen zehaztaperen idatzirik.

#### **6. Bisitak:**

- Zaintza unitateetan sartzearen ondorioz sortutako bakardade eta isolamendu egoerak arintzeko beste neurri bat izan daiteke pertsona presoei baimen dakizkiokeen bisiten inguruko irizpideak malgutzearena; horien kontrola, bada, Ertzaintzari dagokio. Agenteei emandako arauetan espetxeetako legeria beren beregi aipatzen bada ere, egia esan, ezarritako irizpideetarik batzuk legez zehaztutakoak baino zorrotzagoak izan ohi dira.
- Herrizaingo Sailaren esanetan, arau orokor gisara hasi dira aplikatzen bisitak ospitaleetan arautzen dituzten arauak; gauzak horrela, erregimen hori presondegian indarrean dagoena baino malguagoa izan daiteke. Gure aburuz, erabakia zuzena da eta espetxeratutako gaixoak bizi duen egoera hauskorragoari erantzuteko bidetzat hartu beharra dago. Arartekoak sail horri proposatu dio arauaren salbuespena justifika dezakeen segurtasun arrazoirik egonez gero, txosten bat egitea agintzeko, betiere horrela jokatzeko arrazoiak azalduz.
- Basurtora egindako bisitan egiaztatu ahal izan genuen arau idatziak ez direla aldarazi eta, agi danez, jagoletzaz arduratzen diren agenteei ere ez zaie agindu berririk eman. Nolanahi ere, erregistro liburuan ikusi ahal izan genuen espetxetik lekualdatutako pertsona batzuei utzi zieten bisita ugari hartzen (32 egun berean). Aitzitik, beste kasu batean bisitak modu zorrotzean mugatu ziren inolako arrazoirik agertu gabe. Txagorritxun, bi presori egin gura zizkieten bisiten kopurua handia dela eta, beste arautegi mota bat gauzatu da (1999-12-30eko). Horren testua Ertzaintzari eskatu diogu.

#### **7. Komunikazioak, norberaren gauzak eta erregistro liburuak:**

Espetxeratuen tratuari dagokionez, badira ospitaleko beste erabiltzaileen aldean zein presondegiko bizi baldintzen aldean, behar bezala justifikatuta ez dauden eta nolabaiteko bereizkeria sor dezaketen hainbat gai:

- a) Txagorritxuko JBOUn geletan ez dago telebistarik, bai, ordea, ospitaleko gainerako gela guztietan.
  - b) Gauza bera gertatzen da deiak jasotzeko telefonoarekin.
  - c) Beste solairuetan gertatzen denaz bestaldera, bi JBOUetan ez dago telefono publikorik.
  - d) Ospitaleratutako presoek espetxeko gelan baimenduta duten baino gauza gutxiago erabil dezakete ospitaleko gelan. Egoeraren berezitasunak espetxeko arautegia neurrian batean murriztea ekar badezake ere, ez da bidezkoztat jotzen atxilotzean erabiltzen den arautegi zorrotz berberari eustea sistematikoki.
  - e) Ospitaleko unitateetan dauden erregistro liburuei dagokienez eta betiere bakoitzaren barne antolamendua alde batera utzita, ageriko gauza da liburu horietan ezin dela azaldu ospitaleratutako pertsonen intimitatea urratzen duen daturik, bereziki, beraren osasun egoeraren gaineko daturik ez eta gaixoaren ezaugarrien ingururorik ere.
- Txagorritxuko ospitaleko zuzendaritzak jakinarazi zuen geletan telebistak eta telefonoak instalatzeko asmoa zeukatela, eta, horiek funtzionamenduan jarriko zirela 1999ko ekainaren amaiera aldean. Era berean, baieztatu zuen itxarote gelan jadanik telefono publikoa instalatua zegoela. Beste alde batetik, Basurtoko ospitaleak aipatu zuen JBOUn ez zegoela telefono publikoa instalatzeko zailtasunik. Presoen gauzei dagokienez, Herrizaingo Sailak Arartekoari jakinarazi zion aholkua ontzat ematen zuela, eta egokitzat jotzen zuela arau orokor gisa JBOUn sartutako pertsonak espetxean baimendutako edozein objektu erabili ahal izatea gela barruan. Guztiarekin ere, administrazio horrek nabarmentzen zuen presondegian batere arrisku gabekoak diren objektu batzuk arriskutsuak izan daitezkeela ospitalean (metxero baten adibidea jartzen zen), segurtasun baldintzak nahiko desberdinak direlako. Erakunde hau argudio horrekin oso ados ez badago ere, kartzelan baimenduta bai baina JBOUn ezin erabil daitekeen objekturik egonez gero, zerrenda bat osatu beharko litzatekeela uste du, horiek zehaztu ahal izateko. Horrela bada, pertsona presoek jakingo lukete zelan jokatu eta legezko bideak erabilia zelan aurkaratu aukeraketa hori, baldin eta funtsik gabekotzat hartzen badute. Erregistro liburuei dagokienez, Ertzaintza ados egon zen guk egindako iradokizunekin. Dena dela, euren iritziz horrek ez du ezeztatzen jagoletzako agenteek datu batzuk izateko eskubidea; izan ere, datuok neurri prebentibo egokiak hartzeko bide gisa erabili ohi dira.
  - Basurtoko JBOUn ez da telefono publikoa instalatu, ez da oraindik ere baimentzen geletan objektu pertsonalik izatea eta, gainera, erregistro liburuan egokiak ez ziren ohar batzuk azaltzen ziren. Txagorritxuko geletan ez dago telebistarik, nahiz eta elkarte batek emandako hiru telebista erabiltzen diren. Ez dago deiak jasotzea ahalbideratzen duten telefonoak instalatzeko proiekturik, baina itxarote gelan telefono publikoa ezarri da. Objektu pertsonalei dagokienez, irizpideak nahiko malgutu badira ere, ez dago galarazitako objektuen zerrenda idatzirik. Ez da ezelako hutsunerik igarri erregistro liburuetan.

\* \* \*

Aurreko guztia kontuan hartuta, Arartekoak JBOUetan hainbat hobekuntza egin direla uste du, baina oraindik ere batzuk ez dira abian jarri, nahiz eta zenbait kasutan

administrazioa bere adostasuna azaldu proposaturiko aldaketak sartzeko. Beste alde batetik, kontuan izan behar dira bi ospitaletako unitateen artean diren desberdintasunak, bai gelei dagokienez bai erabiltzaileen ezaugarriari dagokienez: Basurton kasu psikiatrikoen kopuru handiak nahikoa zailtzen du neurri malguagoak hartu ahal izatea, nahiz eta, kontsultaturiko iturrien arabera, horiek guztiak positiboak izan diren Txagorritxuko JBOUko funtzionamendurako. Txagorritxuko unitatean, ostera, espexeratuak zein erizainek uste dute gelatik komunera sartzeko zuzeneko sarbiderik ez egotea lehenbailehen konpondu beharreko akatsa dela. Azken batean, bada, oraindik ere beharrezkotzat jotzen da askatasunik gabeko pertsonari ematen zaien osasun laguntza ikuskatzen jarraitzea.

\* \* \*

Behin hiru gai horiek nabarmendu eta azpimarratu ostean, jarraian ageri da laguntza ematen duten elkarteekin aurten izandako bileren edukiaren laburpena.

## **ELKARTEEK AURKEZTUTAKO ARAZOEN LABURPENEA**

Euskal Autonomia Erkidegoko espexxerari buruzko txosten berezia egin zenez geroztik, Arartekoaren erakundeak aldizkako bilerak izan ditu pertsona presoei laguntza emateko elkarteekin. Hala, 1999ko urtarrilean hainbat batzar egin ziren (iazko ohiko txostenean horien edukia azaltzen da. Lehenengo kapituluaren 1.1.1.C atala) eta azkenak urtebete igaro ostean, hau da, 2000ko urtarrilean. Hona hemen, bada, azken batzar hauetan planteaturiko alderdien laburpen bat. Datuak eta informazioak zeharka erkatzeko bidea ematen dute eta zentro bati edo besteari eragiten diote maila apal edo handiagoan.

Argiago gera dadin, hona bildu dira modu desberdinean sailkatu ostean lurralde bakoitzean izandako hiru bileratan planteatutako proposamenak edo arazoak; horrek, hala ere, ez du esan nahi Gipuzkoako bileran, esaterako, planteatutako gaiak ez dagozkioala Martutuneko espexxerari besterik edo Bizkaian mahairatutakoek Basauriko zentroa besterik ez dutela ukitzen... Izan ere, sarritan problema horiek hiru zentroetan ageri dira maila apal edo handiagoan.

- Gipuzkoako elkarteek planteatutako gaiak

Lurralde honetan egindako azken bilerara ondoko elkarte zein zerbitzuetako ordezkariak bertaratu ziren: Turno de Asistencia Penitenciaria, DEE (Drogak Eragindakoen Elkarte), IRSE, Gizakia helburu, Gurutz Gorria eta Salhaketa. Trataturiko alderdien artean honako hauek nabarmendu behar dira:

- Zentroaz kanpoko talderen batek Martutunen xiringak banatzeko egitasmoan parte hartzeko garrantzia.
- Laguntza psikiatrikoa ematean azaldu diren hutsuneak (zentroko medikuen zein Osakidetzako profesionalen aldetik), zentroa aldatzean tratamenduak segitzeko izaten diren arazoak, gehiegizko medikazioa, eten barik hazten doazen beharrianak (espexxetik kanpoko herritarrekin ezin pareka daitezkeenak)...

- Lekualdaketak egitean izaten diren arazoak, bai eta urrunketetan zein senideen bisitetan izan direnak ere.
- Espetxeak Jagoteko Epaitegiak eman beharreko erantzunetan egoten diren atzerapenak, gehiegizko lana eta saturazioa.
- Prozeduretan izaten diren atzerapenak eta hutsuneak (desagertu edo galtzen diren errekurtsioak, Espetxeak Jagoteko Epaitegira zentrotik igorri beharreko txostenetan izaten diren atzerapenak edo espetxeak tratamendu taldearen proposamenei eman beharrekoetan edo indultuetan...).
- Laguntza odontologikoan izaten diren mugak zein tratamenduak kanpoan emateko izaten diren zailtasun ekonomikoak.
- Espetxeetako transferentzien garrantzia, bai eta espetxeko zerbitzua emateko eredu berriak aplikatzeko inportantzia ere.
- Seme-alabekiko loturarik eza eta horrek seme-alabak dituzten emakume presoei ekartzen dizkien ondorioak.
- Minusbaliotasuna dela eta jaso beharreko prestazioak, baina maiz galtzen direnak, esaterako, beste autonomia erkidego bateko komunitate terapeutiko batera lekualdatu beharra dagoelako.
- IRSEk kudeatutako programei zuzenduriko diru partiden aurrekontuak geldiaraztea.

- Arabako elkarteek aurkeztutako arazoak:

Lurralde honetan egindako azken bilerara ondoko elkarte zein zerbitzuetako ordezkariak bertaratu ziren: Gurutze Gorria, Cáritas (PAEX), Proyecto Hombre-Gizakia helburu, Pastoral Penitenciaria, Salhaketa, Comisión Anti-Sida.

Aztergai izan ziren alderdien artean honako hauek nabarmendu behar dira:

- Txagorritxuko ospitaleko zaintza unitatean oraindik ere konpondu ez diren akatsak (bainugeletara sartzeko zuzeneko sarbidea, telebistarik ez egotea, nahiz eta azkenean elkarte batek erosi dituen...).
  - Ea zentroek modu egokian erabiltzen dituzten ala ez, zenbait elkartek ematen dizkieten baliabideak (berbarako, elikagai osagarriak).
  - Langraitzeko psikologoaren taldeko saturazioa.
  - Langraitzen xiringak banatzeko egitasmoa abian jartzeko asmoa edo interesa agertu ez izana.
  - Elkarrizketak izateko elkarteek erabiltzen dituzten geletan igarri diren hutsuneak.
  - Osasunarekin zerikusia duten proposamenak: xiringen egitasmoa, erizaindegia berriztatzea, suspertze unitatea abian jartzea...
  - Menpekotasuna kentzeko programetan lan egiten duten taldeen arteko koordinazio falta...
- Bizkaiko elkarteek aurkeztutako arazoak:

Lurralde honetan informazioa trukatzeko bilerara ondoko elkarte zein zerbitzuetako ordezkariak bertaratu ziren: Salhaketa, Comisión Anti-Sida, ADSIS-Bestalde, Izangai, Gizakia helburu, Goiztiri, Bidesari, Pastoral Penitenciaria, Bilbo-Etxezabal, Bizitegi, Módulo Psicosocial de Deusto, Etorkintza, T-4.



Aztergai hartu ziren alderdien artean honako hauek nabarmendu behar dira:

- Espetxe zentroaz kanpoko langileek xiringak banatzeko programan parte hartzeko garrantzia.
- Basurtoko Zaintza unitatean gizarte laguntzaileak sartzeko izan dituzten arazoak.
- Laguntza psikiatrikoa emateko beharrianak hazi izana, eskariei espetxe barruan aplikatzen zaien iragazkia, gehiegizko medikazioa eta zentrotik kanpoko profesionalek laguntza medikoa emateko beharriana.
- Langraitzek erregimen itxian egonaldi erdiko zentroa irekitzeko egin duen proposamenaren inguruko zalantzak eta espetxe barruko ospitale psikiatriko bihurtzeko arriskua.
- Langraitzen dauden emakumeei bereziki eragiten dieten egoera negatiboak, bai eta bosgarren moduluko presoek ere.
- Beharrian psikiatrikoak egotean, laguntza mailaren inguruko zalantzak (ea gizonezko zein emakumezkoek antzera ematen zaien ala ez).
- Langraitzeko jarduerak aurrera eramateko, elkarrekin dituzten lokalen eskasia.
- Aurrekari penalak dizuten pertsonen (elkarrekin dituzten laguntzaileak izanik) zentrori sartzeko jartzen zaizkien zailtasunak.
- Egitasmoetan parte hartzeko sistema aldarazteko komenigarritasuna: zentroari egin beharreko eskaera interesatuaren edo elkartearen zuzeneko eskaeraz aldatzea.
- Tailerretan edo kanpoan lan egiten dutenen lan egoera: kontratuak, ordainsariak, informazio falta, lan egoera behar legez ez ezagutzea, gaixotasunengatik baxak...
- Kartzelatik irten ostean tramitazioak bideratu eta dirulaguntzak ordaintzeko atzerapenak.
- Sexu delituak direla eta zigortutako pertsonen zuzendutako programa berezirik ez egotea edo behar besteko laguntzarik ez ematea (barruan zein kanpoan).
- Ebatzi gabeko kasuak berriro presondegian sartzeko ekartzen dutenean, abian jarritako tratamenduak etetea...

Kasu honetan ikus daitekeen bezala, Bizkaiko bileran planteatutako gai eta proposamenetarik askok Langraitzeko espetxean dute hizpide; izan ere, lurralde honetan egoitza izan eta batzarrera bertaratutako elkarte askok bertan lan egin eta aurrera eramaten dituzte euren jarduketak eta programak.

Bilera honetan ere idatziz jaso ziren Langraitzeko espetxean askatasunik gabe dauden pertsonen talde batek azaldutako gai batzuk. Idatzian hutsune ugari aipatu ziren, esate baterako, honako hauetan ageri direnak: instalazioetan (gelen ekipamendua, dutxak, bisita gelak...), baliabide materialetan (oheetako arropa, higienarako lotea), janarian (menuak, garbitasuna, ekonomatoaren prezioak), tratuan eta tratamenduan (laguntza juridikoa eta medikoa, errekursoak tramitatzeko geldotasuna, tailerretako lan baldintzak...).

Idatzian azaldutako ezaugarriak eta zehaztapen maila aintzat hartu eta gaur egungo eskumenen banaketa gogoan izanik, idatzi hau estatu mailako Arartekoari helarazi zaio, honi baitagokio berori ikuskatzea.

\* \* \*

Orain arte azaldutakoa gorabehera, jarraipenerako atal hau amaitzeko, komenigarria da aurten honako alderdi esanguratsuak zehaztea:

- Uztailaren 9ko dekretu bidez Espetxe Erakundeetako presondegietan jardunean dabiltzan irakasleak hezkuntza administrazioetara lekualdatu izana. Lekualdaketa honek lagundu beharko luke behargin kopurua berrikusten eta hezkuntza eskaintza gehitzen, erakunde honek behin eta berriro planteatu duen moduan.
  - Langraitzeko espetxeko sukalde zein jakitokiko instalazioak berriztatzeko obra handia burutu izana; horrek nabarmen hobetu du lehenago zerbitzu horiek izan duten egoera.
  - Aurten ere espetxe gaietako eskumenak eskualdatu ez izana eta Eusko Jaurlaritza zein Barne Ministerioaren artean espetxeetako gaien inguruan sinatutako indarreko hitzarmenen garapen eskasa; izan ere, hitzarmenok ez dute ekarri jarduketa edo programa berriak martxan jartzea.
- Oraindik ere presoak euren famili ingurunetik urrunduta egotea; horrek familiei ondorio negatibo ikaragarriak ekartzen dizkie. Horrela, erakunde honek behin eta berriro plazaratu du kezka hori, baita ere gure gizartean hori ez gertatzeko dagoen sentsibilitate eta eskari handia. Hori guztia agerian jarri da urte honetan zehar egindako makina bat ekimenetan.

### 1.1.2. SASOIKAKO BEHARGINEN ARAZOEN JARRAIPENA ARABAN

Arartekoak 1996ko urteko txostenaren barruan sartu zuen Arabara mahatsa zein patata biltzera joaten ziren langileen eta euren familien egoerari buruzko azterketa egiteko kapitulu oso bat. Azterlan hori lau ildo nagusien ingurukoa izan zen, eta erakunde honen aburuz zein bildutako informazioarekin bat, ildo nagusi horiek pertsona hauen eskubideei eragiten zieten. Horren ondorioz, egoera hobetzeko neurriak hartzea ez ezik erakunde desberdinen arteko lankidetzeta eta laguntza ere eskatzen zen. Lau ildook modu honetara laburbil daitezke:

- Kontratazioak egiteko erabiltzen diren sistemak.
- Pertsona horien alojamendu baldintzak.
- Seme-alabak eskolaratzeko baldintzak.
- Ingurunean integratzea edo gizartetik baztertuta izatea.

Horren ondorean, erakunde honek urtean-urtean egin izan du egoera horren nolabaiteko jarraipena, betiere lortutako hobekuntzak eta oraindik konpondu ez diren gaiak nabarmenduz. Hala, legebiltzarrari horien berri eman dio urteroko txostenen bitartez. Gainera, 1997ko ohiko txostenean gomendio orokor bat egin zuen sasoikako beharginen zein euren familien alojamendu baldintzak arautzeko beharrianari buruz. Gomendio hori oraindik ere ez da abian jarri.

Sasoikako langileen egoerari buruzko jarraipena bideratu ahal izan da nekazaritzako kanpainetan egindako bisitei esker, baita ere gai honetan inplikaturiko hainbat erakunde, sindikatu, elkarte nahiz kolektiborekin izandako harremani eta lankidetzari esker.

Arabako Foru Aldundiko Ongizate Sailaren eskaerari erantzun nahian, Arartekoaren ordezkari bat hainbat alditan bertaratu izan da lurralde horretan sasoikako langileen problematikaren inguruan beren beregi eraturako erakunde arteko mahaiko zenbait lan bileratara.

1999ko kanpainari ekin baino lehenago egindako bileretarik azkenetariko batean, mahai horretako kideek iradoki zuten Arartekoaren erakundeak sasoikako langileen kokaleku eta alojamenduen gaiari berriro oratu behar ziola; izan ere, gai hau oso arazotsutzat hartzen zen, eta, ondorioz, irizpide komunak behar ziren. Eskaera horri erantzunez, Arartekoak urte honetan egindako jarraipena gai honen inguruan bilbatu da.

#### **Sasoikako langileen eta euren familien kokaleku zein alojamenduak**

Sasoikako beharginen egoera aztertzeko arazoetariko bat izaten da euren errealtateari buruzko datu orokorrak eta fidagarriak falta izatea. Badira hainbat gairen inguruko datu partzialak (eskolaratzen diren adin txikikoei buruzkoak, informazio bulegoetara bertaratu zein Agurain edota Biasteriko aterpetxeak erabiltzen dituzten pertsonen buruzkoak, Gizarte Segurantzako alta hartu duten langileei buruzkoak), baina horien bitartez oso nekeza izaten da arlo honen arazoei buruzko ikuspuntu bateratu eta osoa eskuratzea bai kuantitatiboki bai kualitatiboki.

Kokaleku zein alojamenduei buruzko datu zehatzei dagokienez, arazoa antzekoa da. Kasu jakin batzuetan, udal ekimenen baten bitartez zein Foru Ongizate Institutuak sustatutako programaren baten bitartez, bildu eta ezagutu ahal izan dira gai honen

inguruko datu batzuk. Horrela eta adibide bat jartzearen, Cáritas erakundeak sasoikako langileen eta nekazarien lanaren gainean egindako memorian biltzen dira Lautadan, Arana bailaran eta Arabako mendialdean 112 galdesorten bidez eskuratutako datu interesgarriak. Alabaina, oraindik ere ez dago lokal edo kokalekuen inguruko errolda fidagarririk.

Arabako Errioxan oinarrizko gizarte zerbitzuek hartu dute esku arlo honetan; halaber, Eltziegion gizarte zein hezkuntza arloan esku hartzeko egitasmoa bat egin izan da azken urteotan. Horien bitartez, bada, honakoak lortu ahal izan dira: batetik, elikadura, osasun, higiene zein adin txikiko mordoren aisialdiaren erabilpenarekin zerikusia duten jarduerak aurrera ateratzea eta eskolaratzea bultzatzea; bestetik, udalerrira bertaratzen diren sasoikako beharginen eta euren familien kolektiboaren egoerari buruzko datu orokorrak biltzea. "Hezilan" heziketa taldeak (Foru Aldundiko Ongizate Sailak diruz lagundutako programa horren garapenez arduratzen dena) urtero egindako txostenetan oso datu interesgarriak ageri dira geroan ere arlo honetan esku hartu ahal izateko: familien jatorria, famili guneen osaketa, mahatsa biltzera etorri diren urte kopurua, eskolaratze erregistroak...

Gainera, azken kanpainan bestelako zirkunstantzia bat izan zen, tratatzen ari garen gaiari zuzenean eragiten diona: aurreko urteetan Eltziegion prestatzen zen kanpatze gunea kentzearena, hain zuzen ere. Jakina denez, erabaki honek zuzeneko ondorioa izan du makina bat familiaren kokaleku baldintzei dagokienez; izan ere, sendi horiek azken urteotan ohituta egon dira bertara joan eta bertan kanpatzen.

Arartekoaren erakundeko beharginek *in situ* egiaztatu eta ikusi ahal izan zituzten familia hauetariko askori sortu zitzaizkion arazoak eta ziurgabetasuna, batik bat herrira iritsi eta lehenengo momentuetan.

Kanpatze gunea kentzea erabaki zen, besteak beste, aintzat hartuz kontratatzaileek beren gain hartu behar zutela kontratatutako pertsonen alojamendua emateko erantzukizuna. Irizpide horrekin ere bat dator Arartekoaren erakundea eta horrelaxe adierazi du. Adibide modura aipa daiteke 1997ko txostenaren 7.3. atala.

Nolanahi ere, arazoa sortzen da kontratatzaileek erantzukizun hori beren gain hartzen ez dutenean edo pertsonen duintasuna edota gutxieneko parametroak betetzen ez dituzten baldintzetan egiten dutenean. Bestalde, gogoan izan behar da gutxieneko horiek ez daudela behar bezala zehaztuta, horiek arautzeko arautegi jakinik edo zehazteko erabakirik ez dagoelako.

Erakunde honen aurreko txostenetan lau egoera mota bereizi dira pertsona horien alojamendu baldintzei dagokienez:

- a) Erakundeek sustatutako aterpetxeetan (eskuarki, egun baterako edo pare bat egunerako) hartutako pertsonena.
- b) Horretarako beren beregi ezarritako gune edo kanpamentuetan kanpatzen duten familiena.
- c) Nekazariak edo enpresa kontratatzaileek egokituriko lokaletan alojamendua hartzen duten pertsona zein familiena.
- d) Baldintza hoberik ez izatean, gaua ahal duten lekuan eta moduan igarotzen duten familien eta pertsonena.

Hona hemen, bada, 1999ko kanpainari dagozkion datuetariko batzuk, lau egoera hauei buruzkoak.

### a) Aterpetxeak

Behin beharrezko obrak amaitu eta gero, 1998an abian jarri zen Aguraingo aterpetxe iraunkorra, Arabako Foru Aldundiak sustatua eta 31 pertsonarentzako lekua zuena. Biasteriko aldi baterako aterpetxeari gagozkiola, aurreko urtean legez, udal igerilekuko lokalak prestatu ziren, iazko urteko plazen antzeko kopurua kontuan hartuta (48 pertsona) eta funtzionamendurako antzeko irizpideei jarraituz (gehienez ere gau biko egonaldiak, mantenua...).

Bi zerbitzu hauek hartzen dituzten eskariak eta ematen duten zerbitzua nahiko desberdinak dira: Aguraingo zerbitzuaren kasuan, eskaria txikiagoa da (93 gizonezko, lau astetan barrena eta gainezka egiteko ezelako problemarik izateke), eta Biasterikoaren kasuan askoz handiagoa (192 gizonezko eta 13 emakumezko, hamaika egunetan barrena); izan ere, azken honek aurten ere gainezka egin du funtzionamenduaren lehendabiziko egunetan eta, ondorioz, pertsoneri harrera egiteko lekua behin-behinean handitu behar izan du 16 plaza gehiago eskainiz. Muga hau gorabehera, nabarmentzekoa da elementu positibo mordoak: erakunde desberdinen arteko lankidetzak, kolektiborik ahulenei, berbarako atzerriko etorkinei, bereziki eskaintako arreta (Agurainen hartutako 93etarik 84, eta Biasterin hartutakoen %80 izan dira atzerriko etorkinak), alojamenduaz gainerako bestelako zerbitzuak eskaintzea (arropa, janaria, garbiketa, botika kutxa, informazioa...).

Alta, zerbitzu horietako memoria teknikoetan ageri diren datu eta balorazioekin bat, oraindik ere adieraz daiteke aterpetxeen bideak, bere mugak izan arren (bi eguneko gehienezko egonaldia, ordutegiak mugatuak izatea, hainbat egunetan gainezka egitea, gizarte agenteen aldetik inplikazio maila desberdina...) zerbitzu baliagarria ematen diola oso ahula den pertsona kolektibo bati, hots, mahatsa edo patata biltzera bere kasa edo familiarterkoak ez diren taldeetan doan kolektiboari, gehienbat atzerriko jatorria duten pertsonen osatua (bereziki Magrebekoak).

Hurrengo kanpainei begira, desiragarria izango litzateke Biasteriko aterpetxearen behin-behineko egoera gaintzea, areago kontuan hartzen bada, sasoikako langileen hazkunderik handiena gune honetan ari dela gertatzen.

### b) Kanpatze guneak

Gorago aipatu legez, aurtun Eltziegoko ohiko kanpatze gunea kendu da. Eredu hau, gehienbat, estatuko beste leku batzuetatik zein Portugaletik etorritako ijito etniako pertsonen erabiltzen zuten.

Patata batzeko eremuan Albainako kanpamenduari eutsi zaio aurreko urteetako antzeko baldintzetan: komun bi, elektrizitate sorgailu bat, edateko ur txorrota eta lau zaborrontzi. Aurten udalak komunerako lagatako ur patin bat ezarri da. Alta, "etxebizitzak", kasurik gehienetan, aldi baterako txabolatzen har daitezke (hamabost bat gutxi gorabehera); osagai eta material eskasez eginda daude eta ez dituzte segurtasun zein osasun arloko gutxieneko baldintzak betetzen. Orobat, esan beharra dago autobus zahar bat eta hainbat furgoneta alojamendu gisa erabiliak direla.

Eltziegoko kanpatze gunea kentzearen ondorioz, inguru horretan kanpatze gune berriak sortu dira, txikiagoak eta, kasuen arabera, eskasia baldintza gehiago edo gutxiago dituztenak. Horrela, adibide modura ondorengoak aipa daitezke:

- kanpatzeko lehengo gunearen aurrean, nekazari kontratatzaileak karabanak eta furgonetak aparkatzeko lagatako eremu batean 5 familia daude.

- Eltziegion ere mahastietara abiatzeko eta harrera leku bihurtzeko zabaldutako bide batean 6 familia daude.
- Baños de Ebroko baskularen ondoan 9 familia daude.
- nekazariaren lonja edo pabilioiaren baten alboko guneetan (Biasterin, Samaniegon, Bañosen, Lapueblan, Eltziegion...) hainbat daude.
- eraikitze materialak pilatzeko hainbat eremutan (Villabuenan) hainbat daude.

Oro har nahiko familia handiak izaten dira, edota euren artean senideturikoak (batzuetan 40 kide baino gehiagokoak). Taldeka abiatzen dira furgoneta eta kamioietan eta, eskuarki argi eta ur hartunereren bat eskaini ohi zaie. Gainerako zerbitzuak (komunak, dutxa, sukaldea, ur beroa, lo egiteko lekuak...) euren konturakoak dira. Eltziegion kanpatutako pertsonen udal igerilekuko dutxa eta bainugelak erabili ahal izan dituzte.

Erakunde honetako langileek urriaren 6an bisitatu zituzten kanpatze gune hauetariko batzuk eta berba egin ahal izan zuten bertan egon ziren pertsonekin. Ia denek uste zuten euren egoera txarrera egiten ari zela aurreko urteetakoaren aldean (zerbitzu ezagatik, herriko erdiguneko uruntasunagatik, gunetara sartzeko zailtasunagatik). Baten batek adierazi zuen egoera nahiko antzekoa zela: “lehen bezain txarra”. Era berean, familia handi bik aditzera eman zuten batzuetan aintzat hartzen ez den egoera bat: nekazari kontratatzaileek alojamendua eskaini zieten, baina gurago zuten, euren kamioiak eta erdi- atoiak erabilita, taldeko bizimodua egin.

Azken ohar honek ageri-agerian jartzen du behar bezalako alojamendua emateko zer-nolako zailtasunak ekartzen dituen horrelako lekuetara, lan egingo dutenez gain, kide guztiak biltzen dituzten familiak bertaratzea. Esperientziak erakusten digu errealitate hau (familiar bertaratzearena) urterik urterakoa dela, eta, litekeena dela horrela izaten jarraitzea.

### **c) Alojamentuak, nekazariak edo enpresa kontratatzaileek eskaintako lokaletan**

1997ko urteroko txostenean egoera modu honetara laburbiltzen zen: *“Nekazarien zein enpresa kontratatzaileen jabetzako lokaletan harrera egin zaien pertsona eta familiei dagokionez, oso egoera ezberdinak ikusi ahal izan dira: eredugarritzat jo diren lokalak (gaitasun ekonomiko handiko enpresa batzuek prestatutakoak) (...), gutxieneko bizi baldintzak betetzen ez dituzten guneak (sarritan familia arteko hainbat ustiategitan lanabesak gordetzeko erabiltzen diren lekuak), bai eta hainbat udalerritako nekazariak alojamendurako lokalak beren beregi konpondu eta berriztatzeko ekimen batzuk ere. Horrela bada, aurten egindako kanpoko bisitaldietan ikusitakoak bide ematen du oinarri-oinarrian arestian esandakoari eutsi ahal izateko.*

Irailaren 29tik urriaren 6ra bitartean bisitatu ahal izan ziren langileei eta euren familiei alojamendua emateko hainbat udalerritan erabiltzen diren lokalak, esate baterako Arabako lautadakoak, Arabako mendialdekoak eta Arabako Errioxakoak.

Ikusitakoa oinarritzat hartuta, lokal horietako tipologiarik ohikoena honako deskripzioarekin etor daiteke bat:

- Bizitzeko prestatutako lekuari dagokionez, pabilioia independenteak edota nekazariaren etxebizitzari atxikitako guneak izaten dira, sarritan lanabesak edo

salgaiak bildu eta gordetzeko erabili eta data horietan sasoikakoan familiei harrera egiteko garbitu edo atontzen direnak.

- Baldintza zein zerbitzuei dagokienez, ohikoena izaten da sukaldea eta komuna pabilioian bertan egotea edo leku hurbil batean. Espazioa banatu ohi da ezkontideen edo familien arabera, lurrean jarritako koltxoiek ematen duten tartea besterik ez dagoela; kasurik onenean mahai edo manpararen bat ere egon daiteke.

Lokal horietan hartutako pertsonen kopurua oso aldakorra da kasuen arabera. Egindako bisitetan era guztietako egoerak ikusi eta aztertu ahal izan dira: 14 familia eta 43 pertsona lonja horietariko batean, bai eta 10 pertsonako familia bakarrak okupatutako lokalak ere.

Gai hau behar bezala baloratu ahal izateko, komeni da honakoak, bederen, gogoan izatea: egoerak oso aldakorak izaten direla (bai beharrezanez zein emandako irtenbideei dagokienez), alojamenduak emateko baldintza ekonomikoak zeintzuk diren ezagutzeko zailtasunak egoten direla, eta arazo handiak izaten direla enpresak edo nekazariek eskaintako objektu zein zerbitzuen eta kontratatuek eurek ekarritako ekipamenduaren artean bereizi ahal izateko.

#### **d) Alojamenburik gabeko pertsonak eta zerbitzurik gabeko kanpatze guneetan dauden familiak**

Kanpatze guneen inguruan deskribatu eta ikusitako egoeretariko batzuk ezin hobeto sar daitezke atal honen barruan. Horri gehitu beharko litzaioke Biasterin zenbaitetan jazotzen den egoera, hau da, aterpetxeak ohe guztiak beteta dituen egun edo, hobeto esanda, gauetan gertatzen dena (arkupetan edo autobus geltokian lo egiten duten pertsonak).

Egoera mota hauek maizago izaten dira kontraturik ez dagoen kasuetan: beharginak inork kontratatu ez dituen edo kontratu batetik bestera zain egoten diren tartean. Alabaina, sarritan gertatu ere egiten da, langileek kontratua izan arren, kontratatzaileek alojamenburako erantzukizuna beren gain ez hartzea.

\* \* \*

Deskribatutako egoera gogoan izanik, erakunde honek aurreko aldietan ere azpimarratu gura izan ditu zenbait alderdi. Horrela eta adibide gisa, honako alderdiak nabarmendu ditu: zerbitzuak hobetu ahal izateko, erakunde desberdinen eta gizarte agenteen arteko lankidetzaren beharrezan; are arazo handiagoak sor ditzakeen egoeraren hauskortasuna; harrera egiteko sareek data zehatz hauetan gainezka egiteko duten erraztasuna; ukitutako udalerrietan udal agintaritzen inplikazio maila eta irizpide desberdinak..

Onartu beharra dago eta halaxe esan behar da alderdi hauetariko batzuen gaineko erabakiak hartu direla, bai eta baliabideak jarri eta hobekuntzak lortu ere: informazioa emateko bulegoak irekitzea, sensibilizazio kanpainetan laguntzea, profesionalen kopurua handitzea, esperientzia berriei oratu eta hasiera ematea... Guztiarekin ere, aurten ukitu nahi dugun kokaleku eta alojamenburu gai zehatz honetan ez da urrats esanguratsurik igarri.

Erakunde honen iritziz, badira bi gai deskribatutako egoeren oinarrian daudenak eta benetako zailtasun bihurtzen direnak, kokaleku eta alojamenburu buruz planteatutako arazoei aurre egin eta irtenbidea eman ahal izateko:

- Kontratatzaileen betebeharrak (eta horien artean, alojamenduari dagozkionak) zehazten dituen arautegi edo erabakirik ez egotea.
- Banakako baliabideak erabilia, beharizan batzuk betetzeko zailtasun objektiboak eta nekazarien arteko lankidetzaren edo erantzun erkidea aurrera eramateko ekimenik ez egotea.

Lurralde honetan oraindik ere ez dago gai hauek argitu eta zehatz litzakeen nekazaritzako hitzarmenik. Oraindik ere ez dago lokalen edo laguntza zein ikuskapen baliabideen inguruan gutxienez baldintzarik ezarriko duen arautegi zehatzik. Eta elkarren arteko arazoei irtenbidea emateko lankidetzaren ekimenek dagokienez, jakin dugunaren arabera, aurten nabarmen daitekeen gauza bakarra honaxekoa izan da: UAGAK azaldutako interesa, GOAG nekazaritzaren konfederazioaren migrazio arloak (Catalunyaren kasuan) gai honen inguruan aurrera eraman dituen esperientziak ezagutu eta zabaltzeko.

Horrela bada, deskribatutako errealitatea gogoan izan eta batik bat zenbait nekazari alojamendua emateko dituzten gabeziak nahiz beste batzuek familia oso-osoetara harrera egiteko dituzten zailtasun objektiboak aintzat hartuta, deigarria da nekazari batzuen arteko lankidetzarako ekimenik ez egotea, horrelako arazo komunei irtenbidea emateko momentuan. Baliteke, gainera, ekipamendu berririk gabe hainbat egoera konpondu ahal izatea, gaur egun diren, baina zeregin hauetarako aprobetxatu ez diren baliabideak erabilia. Esan nahi baita, baliabide egokiak izan litezke Bernedoko "Arabako Mendialdeko Gazte Alojamendua" edo Lagrango Udalak San Bartolomeko ermitaren aldamenean egin berri duen eraikina zein bertako kanpatzeko gunea...

Bestalde, Arabako Errioxan gero eta ohikoagoa da pertsona horiek kontratatzea mahatsa bildu zein nekazaritzako bestelako lanak egiteko. Horrek ekarri du egonaldiak luzatzea eta, horregatik, are garrantzikoagoa izatea alojamendu baldintza egokiak arautu, kontrolatu eta bermatzeko beharrezana.

Hori guztia dela eta, erakunde honek funtsean berresten ditu alojamenduari buruzko gaia arautzeko beharrezanaren alde 1997an erabilitako argudio berberak; horrek legebiltzarrari izaera orokorreko gomendioa egitera bultzatu zuen "*sasoikako beharginei eta euren familiei zuzendutako alojamenduek bete beharreko gutxienezko baldintzak (higienikoak eta funtzionalak) arautzeko; izan ere, arautegi hori irizpide gisara erabil daiteke dirulaguntza publikoak esleitzeko, alojamenduak baimendu eta ikuskatzeko, eta, azkenik, alojamenduotako baldintza duinak bermatzeko.*". (Sasoikako beharginen eta euren familien alojamendu baldintzei buruzko gomendio orokorra, 1997ko txostenaren VII. kapituluaren 7.3. atala). Era berean, horren ardura duten erakundeak bultzatu gura ditu beharrezko ekimenak sustatu, eta, bidenabar, azaldutako arazoak konpon ditzaten, gizarte agenteen lankidetzaren lortuz.



### 1.1.3. ADINEKOEN EGOITZAK KONTROLATZEKO JARDUKETEN JARRAIPENA

Arartekoak Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitzei buruz egindako txostenean gomendatu zuen gizarte zerbitzuei buruzko maiatzaren 20ko 6/1982 indarreko Legea aldaraztea. Horren xedea gizarte eskubideak bermatuko zituen markoa eratzea zen; horretarako, bada, ondokoak aintzat hartu beharra zegoen:

- Gizarte zerbitzuen **erabiltzaileen eskubide taula** bat ezartzea.
- Berdintasunaren abiaburuaren baldintzei jarraituz, gizarte zerbitzuak **eskuratze eskubidea** bermatuko lukeen araubidea arautzea.
- Gainerako egoiliarren eskubideak bermatzeko asmoz, **erabiltzaileen betebeharren taula** bat finkatzea.
- Egoitzei buruzko gizarte laguntzaren harreman juridikoen eremuaren barruan **administrazio zuzenbide zehatzailea** gauzatzea, betiere egoitzen zein erabiltzaileen urratze eta zehapenen taula bat arautuz.

Edozein modutan ere, gizarte zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legeak ez zuen gomendio hau aintzat hartu. Horrela, Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua, adinekoentzako egoitzazko gizarte zerbitzuei buruzkoa, izan zen erabiltzaileen eskubide zein betebeharren taula arau bidez ezarri zuena.

Arautegi berriak arreta berezia jartzen du egoitzetako zerbitzuek bete beharreko baldintza tekniko, material zein funtzionaletan, bai eta edadeko pertsonak jaso beharreko laguntzaren kalitatean ere. Horren helburua da pertsona nagusien ongizatea bermatzea.

Era berean, zahar-etxe guztiek erabiltzaileen eskura eduki beharreko funtzionamendu arautegian beste alderdi batzuek agertu behar dute, esaterako, zeintzuk diren barne funtzionamenduko arauak, zeintzuk edadeko pertsonak edo euren legezko ordezkariak era demokratikoan parte hartzeko bideak eta zein den erreklamazioak edota keax azaltzeko prozedura nahiz prezioen erregimena.

1999an barrena, Nazio Batuek Edadeko Pertsonen Nazioarteko Urte izendatutako horretan, Arartekoak kolektibo honenganako ardura azaldu du estatuko zein nazioarteko hainbat forotan. Halaber, gure erkidegoan hainbat bisita bideratu dira adinekoen egoitzen egoeraren jarraipena egin ahal izateko.

#### “Nuestra Señora de la Paz” egoitza

Donostiako Egia auzoan dago eta bost solairuko eraikina da, modu egokian zaindua eta 64 pertsonarentzako lekua duena.

1988an inauguratua, zerbitzu eta instalazio egokiak ditu. Gelek (banakakoak hogeit dira eta gainerakoak binakakoak) bainugela dute labainkada kontrako behea eta guzti. Dena dela, ez dira kendu dutxetako platerak. Azken horiek desagertarazi beharreko hesi arkitektonikotzat jotzen dira.

Aldizkako ikuskapenak egin ohi dira eraikinak egoera onari eutsi eta bertan ematen den laguntzaren kalitatea hobetzeko berrikuntzak egin daitezzen. Hori guztiori dela eta, komenigarria izango litzateke hurrengo berrikuntzen barruan kolore zein seinaleen bidez guneak banatzeko hainbat elementu sartzea, betiere erabiltzaileen orientazioa errazteko asmoz.

Aholkuak emateko gutunontzia instalatzea gomendatu da. Modu horretara, edadeko pertsonen partaidetza bultzatzeaz gain, nagusiek jardueretan esku hartzeko aukera izan dezakete, bizi diren zentroko protagonista sentituz.

### **Errenteriako “Sagrado Corazón” egoitza**

Udal egoitza hau herriko guneko lasai batean dago, berdegunez inguratua. 128 pertsona har ditzake. Kopuru horren erdiak, gutxi gorabehera, laguntza edo sorospena behar izaten du.

Lau solairuko eraikin hau, erdikorua biribileko itxurakoa, ondo zainduta dago eta kanpoko aldean lorategi zabala dauka. Solairu guztietan leiho handiko ikustokiak aurki daitezke, eta horrek asko laguntzen du guneko eroso eta atsegingarriak sortarazteko orduan.

Gela guzti-guztietan dutxa eta komun ontzia duen bainugela dago; hala ere, dutxetako platerak eta hormak kentzeko lanek segitu beharko lukete, bainugela guztietan labainkaden kontrako behea ezarri.

Era berean, aurreikusita dago hainbat altzari aldatzea, egoiliar elbarrituentzat aproposagoak diren beste batzuk jarri ahal izateko. Neurri hau oso egokitzat jotzen da; izan ere, bisitan ikusi ahal izan zen moduan, jantokiko mahaiak apur bat altxaturik zeuden egurrezko ziriak erabiliz, betiere gurgil aulkian zeuden pertsonak erabil zitzen.

Orobat, ikusi ahal izan zen ez zebilela arropa lohia jaurtitzeko tobera. Horren kariaz, bada, igogailuak erabiltzen ari ziren zeregin hori betetzeko. Hori dela eta, tobera erabiltzeko beharrezko obrak egitea gomendatu da, igogailuak pertsonak solairu batetik bestera joateko gordez.

Nagusiek egoitzako jarduera eta bizimoduan parte hartzeko sistemari dagokionez, azpimarratu beharra dago urtean-urtean 6 ordezkari osaturiko batzorde bat hautatzen dutela, eta horietariko bat Udal Patronatuko Batzara bertaratzen dela hizpidea eta hautespidea izanik.

Egoitzak barne erregimeneko arautegia dauka eta bertan zehaztuta daude erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak, bai eta sarbiderako baldintzak eta prezioak ere.

Halaber, esan beharra dago aholkuak emateko postontzia jarri dela, erabiltzaileen eta euren familien partaidetza errazteko asmoz.

### **“Santa M<sup>a</sup> Magdalena” egoitza**

Udal jabetasuneko egoitza hau Hernaniko udalerriaren erdigunean dago. Txostena hau taxutu eta gero, eskaintzen dituen zerbitzuak handitu ditu, 16 erabiltzaileentzako eguneko zentroa inauguratuz.

Hiru solairu eta bi azpisolairuko eraikin hau modu egokian zainduta dago eta auzokideek ere erabil ditzaketen zerbitzuak ditu, hala nola kapila, anfiteatroa eta tanatorioa. Kanpoko gunerik izan ez arren, terraza handiak ez ezik jantokiaren ondoan zein gelak dauden solairuetan makina bat egongela ere badu.

Guztiarekin ere, solairuetan orientazio zein informazioa emateko kartelak falta dira. Hurrengo berrikuntzei begira, eskaintzen diren zerbitzuak eta gunek bereiztea gomendatu da. Horretarako, informazio oholak jartzeaz gain, gelak bereizi beharko

lirateke eraikin barruan egoiliarren orientazioa erraztuko luketen kolore eta seinaleen bitartez.

Halaber, lehenengo azpisolairuko hormetan jarraikako eskudelak ezartzeko gomendioa eman da, bertan jantokia baitago eta aldamenean hainbat egongela; modu horretara, pertsonen joan-etorriak erraztuko lirateke. Solairu honetako bainugelek ez dute txirrinik, ez eta segurtasun barrarik ere. Hutsune hori, beraz, konpondu beharra dago.

Bisitan egiaztatu ahal izan zen gizarte zein kultur arloko ekitaldien eskaintza handitu zela, arlo hori suspertzearekin bereziki arduratzen zen enpresa bat kontratatuz.

Desadostasunak konpontzeko bideei dagokienez, komenigarria izango litzateke erreklamazio prozedura abian jartzeko neurriak hartzea, betiere erabiltzaile zein euren familiek horretaz baliatzeko aukera izan dezaten.

Era berean, behar-beharrezkoa da zentroko erabilera askotariko gelak aldaraztea, martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuan, adinekoentzako egoitzazko gizarte zerbitzuei buruzkoan, ezarritakoa betetzeko.

### **“Rekalde” egoitza**

Udal jabetasuneko egoitza hau Derioko Arteaga auzoan dago, leku lasai batean eta berdegunez inguratua. Nolanahi ere, ez dago erabat isolaturik, udalerriko biztanleek aisialdirako erabiltzen dituzten lekuetatik aski hurbil baitago. Horrek nahikoa laguntzen du egoiliarren gizarte integrazioa errazten.

Egoitza hau berritutako baserria da eta bertan 27 pertsonarentzako lekua dago. Bisita egin zenean, plaza guztiak beteta egoteaz gainera, itxarote zerrenda ere bazegoen. Berriztatze lanetan indarreko arautegia hartu da aintzat, barrera arkitektonikoak kendu, material egokia erabili, ateen zabalera ezarri eta bainugelen ekipamendua jartzeari dagokienez. Edozein kasutan ere, pasabideetan ez da eskudelik, ez eta goiko solairura sartzeko eskaileren lehenengo tartean ere; gainera, bainugeletako txirrinak falta dira. Hori guztiari dela eta, udalari akats hauek zuzentzeko gomendioa egin genion. Gomendioa kontuan hartua izan da.

Orobat, finka itxiko zela jakinarazi ziguten, egoiliarrek kanpoaldeaz goza zezaten ezelako arriskurik izateke. Bisita egin zenean, sarbiderako atea giltzaz itxi behar izaten zen; izan ere, orientazio gaitasuna murriztuta zuen egoiliarren bat kanpora irten eta alde egiteko beldur ziren.

### **Getxoko “Sagrado Corazón” egoitza**

Udal egoitza honetara egindako bisitaren helburuak honaxekoak izan ziren: batetik, adinekoei eman beharreko egoitzazko laguntzaren gaineko txostenean ageri ziren aholkuen jarraipena egitea; eta, bestetik, udalak martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua, adinekoentzako egoitzazko gizarte zerbitzuei buruzkoa, betetzeko aurreikuspenak zeintzuk ziren jakitea.

Aurreko bisitan ikusitako akatsak aurrekontu bidez zuzentzeko ahalegin handia egin dela egiaztatu ahal izan zen, suteak aurreikusteko sistemak berritu baitira. Izan ere, eraikinaren bi aldeetan larrialdirako irteerak zabaldu eta kanpoko eskailerak ezarri dira. Gainera, sua ebakitzeko atek jarri dira eraikinaren barruan.

Eraikineraz sartzeko arrapalaren malda pixka bat berdintzeko zailtasuna gogoan izanik, ate nagusian beste arrapala bat ezarri da; horrela, gurpil aulkia duten pertsonen erabiltzeko moduko makurdura egokia eman zaio.

Gainera, behargin kopurua handitu da eta udalak jakinarazi digu onartua izan dela gizarte aholkuralitza eman eta egoiliarren jarraipena egiten arduratuko den pertsona bat kontratatzeko emandako gomendioa; gauzak horrela, ziur aski egoitza zerbitzu honetaz baliatu ahal izango da 2000. urtearen hasieran.

Ekitaldi honen barruan udal egoitza berrizatu eta egokitzeko proiektua egin eta berori egokitzeko da adinekoentzako egoitzazko gizarte zerbitzuei buruzko dekretuan ezarritakoaren arabera.

Proiektu honek ekarriko du udal egoitzaren eredu berri zehaztea, betiere udalerriko pertsona nagusien beharrezko erantzunak emateko asmoz.

Era berean, aurreikusita dago erabiltzaileak ordezkatzeko organo iraunkorra abian jartzea; horretara, erreklamazioak eta aholkuak izapidetu eta bideratu ahal izango dira.

### **“Los Arquillos” egoitza**

Egoitza hau Vitoria-Gasteizko alde zaharrean dago. Bere barnean 22 egoiliar hartzeko behar besteko tokia dauka, bai eta martxan ere eguneko harrera zerbitzua.

Antzinako eraikina da, bost solairukoa. Alta, eraikinaren egiturak oso zail egiten du berrikuntzak burutzea. Hori dela eta, ezin die zerbitzurik opetsi gurpil aulkia edo eskorga behar duten pertsonen.

Gela guztiak binakakoak dira eta solairuetako korridoretan dauden bainugeletan ez dago segurtasun barrarik, ez eta labainkaden kontrako behekeren ere. Duxetako platerak beren kasa ondo baliatzen diren pertsonen ere sortaraz diezaike arrisku handia. Horretara, akats horiek guztiak zuzentzeko aholkua eman dugu.

Harremanak banakakoak izan eta erabiltzaileek zentroko jardueretan eta bizimoduan parte hartzen duten arren, komenigarria izango litzateke egoitzan informazioa emateko folieto bat egotea.

### **“San Roque” egoitza**

Egoitza hau Laudioko erdigunean dago eta harrera gehienez 23 pertsonari egin diezaike; dena dela, eguneko harrera egiteko 4 plaza ere baditu.

Antzinako eraikina denez gero, egoitza honek badu barrera arkitektonikoak kentzeko berrikuntzak egitea eragozten duen egitura. Horren ondorioz, plazak gordetzen zaizkie beren kabuz baliatu daitezkeen pertsonen, bai eta zentroan bizitzea ahalbidetzen dien gutxieneko ezgaitasuna duten ere. Eraikinean, egiturazko arazoez gain, termita izurria egon zen; horren ondorioz, alde batzuk, kapila esaterako, berrizatu behar izan ziren.

Egoitza Arabako Foru Aldundiaren menpekoa da; horrela, antza denez, foru erakundeak eraikin berria burutzeko proiektua dauka. Horregatik, Arartekoak aldundiari eskatu dio horren inguruan dauden aurreikuspenak jakinaraz diezazkigun, baita ere eguneko harrera zerbitzuari eutsi edo berori zabaltzeko asmoa daukan ala ez.

### **Basauriko egoitza**

Egindako gomendioen jarraipena egin nahian eta emandako aholkuei erantzunik ez zitzaiela eman kontuan hartuta, azaroan ostera ere bisitatu ziren zahar-etxe honetako instalazioak.

Egoitzako zuzendariak jakinarazi zigun udal korporazioak zentro berria burutzea aurreikusita zeukala, eta, daborduko proiektu teknikoa egiteko aurrekontu partida erabiltzea erabakita zegoela.

Bisitan, bada, egiaztatu ahal izan zen ez zaiela terraza ixteko obrei ekin eta ez direla amaitu 1997an ikusitako barrera arkitektonikoak kentzeko komun eta bainugelen egokitze lanak.

Edozein modutan ere, gure aholkuei jarraituz, ekitaldiez arduratu beharreko begirale bat kontratatua zen, lehenago ez baitzegoen zeregin honetan jarduten zuen pertsonarik. Dena dela, altzari eta material didaktiko ezak nahikoa zailtzen ditu pertsona honen betebeharrak. Hori dela eta, akats hori konpontzeko aholkua eman dugu.

Horrela bada, espero dugu eraikin berria errealitate bihurtzea oso luzea izango ez den epean; izan ere, zentroak makina bat gela anizkun dauka eta altzariak zein osasun instalazioak nahiko eskasak dira.

### **Ondarroako egoitza**

Ondarroako Udalak jakinarazi zigun 1998ko abenduan egindako bisitaren ostean erakunde honek emandako aholku eta gomendioei jarraitu diela.

#### 1.1.4. **ADINEKOEI EGOITZEZ KANPO EMATEN ZAIEN LAGUNTZAREN KONTROL-EKINTZEN JARRAIPENA**

Ikerketa honekin egoitzetan ez diran euskal zaharren egoera eta, zehatzago, euren beharrezane herri agintaritzak ematen dioten erantzuna zein den eta gure erkidegoan egoitzaz kanpoko giza-zerbitzuak erabiltzen dituzten zaharren eskubideak zeintzuk diren aztertu nahi izan da.

Lehenengo egin beharreko egiaztapena da pertsonarik gehienek -%90ak baino gehiagok- ez dutela ezelako herri-laguntzarik jasotzen.

1995. urtean, Euskadiko Autonomia Erkidegoan, zerbitzu horietan zaharren %6,74 soilik hartu zuten. Horretara, zaharren %3,05 SADren bitartez atenditu zen, %3,53 egoitzetan eta %0,47 eguneko zentroetan. Nahiz eta Arabaren maila, tasa ea %10 zen, Europako nazio aurreratuenekin guztiz homologagarria izan.

Beraz, esan daiteke botere publikoen eskaintza nabarmen defizitarioa dala, eta gainera ez dituela betetzen onartutako egitasmo gerontologikoen helburuak.

Soilik egungo zaintze tasak mantendu ahal izateko, zaharren kopurua geroago eta handiagoa dela ikusirik, inbertsio-ahalegin handia egin beharko litzateke. Gainera, beste aukera batzuk bultzatu behar lirateke, esaterako arnasaldi-zainketa eta aldi bateko egonaldiak. Egoitza-eskaintza ezindutako pertsona zaharrentzako gorde behar da, baina, hala ere, hemendik aurrera egiten diren egoitzak eredu mistooak izan beharko dira.

Baliabide urrioi eremu giza-sanitarioa izenekoaren arretarik eza gehitu behar zaio, eta horregatik zerbitzu sanitario eta sozialen arteko lankidetzat handiagoa ezinbestekoa dugu.

Azterlanean zaharrei egoitzaz kanpo ematen zaien laguntza publikoaren oinarriko bi bitarteko ikertu dira: etxez etxeko laguntza eta eguneko zentroak.

Urtero legez, Arartekoaren erakundeak bisitaldiak egin ditu gomendioen zenbateraino betetzen diren egiaztatzeko eta sortu diren eguneko zentro berriak (gehienak lehendik egon diren jubilatuetan edo zaharren egotetxeak aprobetxatuz) kalitatezko laguntza emateko gauza diren argitzeko.

#### **Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen eguneko zentroa**

Zentro hau maiatzean zabaldu zen, besteren menpe bizi diren pertsonen laguntza emateko, hain zuzen ere egotetxeetan sartu beharrik ez izan arren etxean bertan behar duten laguntza ezin jaso dezaketen adinekoei.

Gernikako hirialdeko alde baketsuan egonik, jendeak erraz jo dezake bertako zerbitzuetara. Zentroak 610 m<sup>2</sup> erabilgarri ditu, eta kanpoan zabalgunea handia eta erantsitako eraikinak, eta horri esker inoizkotan handitu egin ahal izango da eta aldi baterako egonaldietarako edo famili atsedendietarako erabil daiteke. Gaur egun, 25-30 lagun har ditzake, baina bisitaldia egin zenean erkidegoarentzako zerbitzu berri honetan 12 erabiltzaile zeuden.

Eraikina ondo hornituta egon arren, ez da aurreikusi toki askotan eskudelak jartzea, ez eta komunetan eta garbigeletan tinbrerik jartzea ere, eta horregatik horiek denak jartzea aholkatu da, erabiltzaileen ziurtasuna bermatzeko. Orobat, on litzateke kanpoko zabalgunea atontzea eta olana, aulkiak eta mahaiak jartzea. Hala, erabiltzaileek zerupean lasai egoteko gunea izango lukete.

Zentroan bizi diren pertsonak protagonista gisa parte hartzeko behar diren sistemak abiarazi behar dira. Horretarako, nahiz eta tratua guztiz pertsonalizatua izan, aholkatu diegu iradokizun-buzoia ipintzea eta informazio-liburuxka argitaratzea, zentroaren helburuen, instalazioen eta zerbitzuen, ziurtasun arauen, prezioen, partaidetza kanonaren eta erreklamazio-prozeduren berri emateko.

### **Santurtziko eguneko zentroa**

Zentro hau 1999ko martxoan zabaldu zen, udalerrri horretan gizarte-laguntza behar izan arren beren etxean bizi izaten jarraitu ahal duten hirugarren adineko pertsonen laguntza emateko helburuarekin.

Zentroaren titularra Udala da; Santurtziko Cabieces auzotik hurbil dago. Begoñako Amaren egoitzaren beheko solairuan egonik, haren zerbitzuetako batzuk erabiltzen ditu, baina bere funtzionamendua erabat lokabea da.

Zerbitzu mota honetarako komeni diren eraikintza-teknika guztiak gogoan izanez egokitu da: oztoporik ez sarbideetan, eskudelak hormetan, komunetan zoru labaingaitzak...

Hala ere, bisitaldia izan zenean, garbigela eta komunetan txirrinak jarri gabe zeuden. On litzateke, gainera, kanpoaldea atontzea ere, eta olana, aulkiak eta mahaiak jartzea. Horrela, bertakoek eremu zabalagoa izango lukete ibiltzeko eta zaharrek atsedengune ederra izango lukete, batez ere udan.

Azaroaren 30ean egindako bisitaldiaren helburua hirugarren adinekoentzako egoitzaz besteko zerbitzu berri hau ezagutzea izan zen; izan ere, egunkarietan agertutako berrien arabera, plazak ireki eta berehala bete ziren eta itxarote-zerrenda izugarri luzea du zuen. Hori dela eta, Udalari informazioa eskatu zitzaion onarpen-sistemez, prezioez eta kexatzeko eta erreklamatzeko prozedurez, herritar guztiak zerbitzua jasotzeko eskubide bera dutela bermazeko.

### **Indautxuko eguneko zentroa**

Bilboko Udalarekin itundutako zentro hau 1991ko apirilaren 1ean zabaldu zen. 130 m<sup>2</sup> erabilgarri ditu eta 20 pertsona har ditzake. Indautxuko Zerbitzu Geriatrikoen Egoitzako osagaia dela, haren zerbitzuetako batzuk erabilten ditu, eta horri esker kalitatezko laguntza ematen du.

Zentroko arduradunek garrantzi handikotzat dute sendikoekin harremanetan izatea eta haiek prestatzea, ez baitira prest egoten egoera berriari aurre egiteko. Helburu horrekin, prestakuntzari buruzko hitzaldi eta solasaldiak antolatzen dituzte.

Bai egoitzan, bai eguneko zentroan, koloreak eta seinaleak uztartzen dituen orientazio-elementuak jarri dira, erabiltzaileek erraz bereiz ditzaten zerbitzuak eta eremuak.

### **Derioko eguneko zentroa**

Zentroaren titularra Udala da; bisita irailean egin zen. Egun berean Errekalde egoitzara ere bisitatu genuen, zentroa integratuta dagoen egoitza, hain zuzen.

Hala ere, zerbitzu honen erabiltzaileak atenditzeko instalazioak egon arren, komunak eta garbigelak esaterako, orduan zabaldu gabe zegoen artean.

Derioko Udalari noizko zabalduko zela uste zuen galdetu genion, eta erantzun digu esanez ezen, nahiz eta ohartu zeintzuk diran zentro horien helburuak eta pertsona nagusien beharrianak, ezin esan dezaketela ziur ez noiz zabalduko den ez zenbat lagun hartuko dituen. Dirudienez, arazo nagusia eguneko zentroan hamabost erabiltzaile hartzeko tokia lortzea izan da.

Badugu ustea laster batean arazo guztiok konpondu eta, pertsona gutxiago hartzeko bada ere, laguntza-beharrian bereziak dituzten zaharrentzako bitarteko hau zabaldu ahal izango dutela, zeren zaharrok, familiarekin bizi izaten jarraitu ahal badute ere, laguntza behar baitute.

### **Lagun-etxea eguneko zentroa**

Zentro hau Donostiako Intxaurrondo auzoan dago, eta 80ko hamarkadaren hasieratik ari da lanean. Gipuzkoan zabalduko lehena da; Caritasen ekimenez zabaldu zen, baina gaur egun Urkoaren menpe dago.

Intxaurrondo auzoko txalet baten dago, eta halako eraikinek ematen dituzten alderdi on guztiak ditu: alde lasaia, terraza eta lorategia. Hala ere, higiezinaren egiturak baditu bere eragozpenak ere, eremuak zaharren beharrianetarako egokitzea eragozten dutenak.

Bisitaldian ohartu ginen barrunbeko toki gehienetan eskudelak falta zirela eta mugikortasun urrituta duten pertsonak ezin erabili dituztela eskorgak.

Osagarriok ezin instala daitezke, batez ere egitura-arazoak direla medio, esaterako gelen estuasuna. Laster egitekotan diren berrikuntzan horiek guztiak jarzea aholkatu diegu, ahal den neurrian behintzat.

Halaber, kontuan izan behar lukete komun eta garbigeletan txirrina ipini behar litzatekeela, larrialdietan erabiltzaileei laguntza azkar emateko.

### **Hernaniko eguneko zentroa**

Zentro honen titularra Udala da; beraren xedea hirugarren adinekoei laguntza-zerbitzua eskaintzea da, hain zuzen ere etxez etxeko laguntzaren eta zaharren egoitzaren arteko zerbitzua. Beraren helburuak zaharrak beraien familietan eta gizartean integraturik mantentzea, erkidegoan parte hartzeko bideak ematea, ahalmenen narriadura gelditzea eta beraien ongizate fisiko edo mentala hobetzea.

Hirigunean kokatuta dagoen tokiari esker zaharrek erraz dute gizartean integratzen eta erkidegoaren zerbitzuak erabiltzen. Hala ere, zentroak ez du zabalgunerik kanpoaldean eta, eraikinean dagoen tokia dela eta, erabiltzaileek ezin erabili dituzte egoitzako terrazak.

Inoiz zentroa zabaltzen edo birmoldatzen bada, komun eta garbigeletan txirrinak edo bestelako ohar-sistemaren bat jarri behar lirateke, larrialdietarako.

Hormetan eskubanda jarraiak falta dira, mugikortasuna urriturik dute pertsonak errazago ibil daitezen,

Halaber, aholkatu diegu kultura jarduera gehiago eta irtenaldi gehiago eskain ditzatela, ere erabiltzaileek eta beraien senideek erabiltzeko moduko erreklamazio-prozedura ezar dezatela. Era berean, iradokizun-gutunontzia ere jarri behar lukete, zaharrek parte har dezate eta laguntzaren kalitatea hobea izan dadin.



### **Errenteriako eguneko zentroa**

Zentro hau Udalaren herri-egoitzaren barruan dago. Eguneko zentroaren erabiltzaileek eta egoitzan bizi direnek jarduera eurak egiten dituzte eta zerbitzu eurak jasotzen dituzte, besteak beste egoitzako bizitzan eta jardueretan integra daitezzen.

Zaharrei egoitzaz kanpo laguntza emateko modu hau onuragarria da narriadura fisikoa edo egoera pertsonala dela eta zaharren egoitzan gelditu beharrean suertatzen diren zaharrentzat.

### **Artziniegako eguneko zentroa**

Jubilatuaren etxean kokatuta dagoan zentro hau giro atsegina eta erosoan kalitatezko laguntza emateko ezarri da. Giza Ongizatearen Foru Institutuak 1998ko urriaren 30ean zabaldu zuen, baina datorren urtetik aurrera Udalaren menpe izango da.

Zentro berria eta ondo hornitua izan arren, bisitaldian ohartu ginen ez zegoela hormetan eskubandarik jartzeko asmoarik, eta jartzea aholkatu genien.

Halaber, komunetan eta garbigeletan ziurtasun-barrak eta txirrinak ipini behar litzuketela ere adierazi diegu, larrialdietan laguntza azkar eman ahal izateko

Zentroko arduradunen helburua da zaharrek erkidegoaren zerbitzuak erabil ditzatela eta bizi diren giroan integra daitezala. Horretarako, bertako ekintza batzuetan parte hartzeaz gainera, kafe-solasaldia antolatu dute, ostiraletan izaten dena. Herriko gizartetalde eta pertsona guztiek zaharren errealitatea ezagutu eta haien arazoen berri izatea nahi dute.

Erabiltzaileen eta euren senideen partaidetza errazteko xedearekin, aholkatu diegu gutunontzia ipin dezatela erraz ikusteko moduko lekuren batean, eta horrez gainera baita boletina argitaratzea ere, zentroaren xedeen eta erreklamazioak jartzeko erabil daitezkeen bideen berri zabaltzeko.

### **Los Arquillos egoitza**

Los Arquillos zahar egoitza Gasteizko Udalaren menpe dago. Urte guztian zehar aritzen den eguneko laguntza-zerbitzua du, eta beraz zaharrei eskaintzen dien laguntza eguneko zentroetan ematen dena baino askoz osoagoa da. Gainera, kasu askotan tele-alarma bezalako beste laguntza batzuk ere ematen ditu, zahar batzuk bakarrik bizi baitira.

Eraikinaren ezaugarriak direla eta, ez dute bertan ezgaitu fisikoei laguntzerik, zeren egiturak ez baitu ahalbidetzen berrikuntzak egitea. Hala ere, aholkatu diegu eskailera eta pasiloetan eskubandak jar ditzatela, beren kabuz ibiltzeko gauza izan arren ahalmenak mugaturik dituzten pertsonak erosoago ibil daitezzen.

Laguntza oso pertsonalizaturik dago eta batzarrak egiten dira iradokizunak eta iritziak jasotzeko asmoarekin, eta horregatik iradokizunen gutunontzia ez da ia erabili ere egiten.

Aurten udal batzuek mezuak bidali dizkigute 1998an zehar eguneko zentroetara egindako bisitaldien ondorioz Arartekoak egindako iradokizun eta gomendioei onartzen dituztela esanez.

Zarauzko Udalak adierazi du eguneko zentroko komunetan eta garbigeletan txirrina eta alarma-sistema ipini dituela, larrialdietan laguntza azkar eman ahal izateko.

Bilboko Udalak ere esan du Bideberriko eguneko zentroko hormetan jarraiko eskudela eta komunetan eta garbigeletan segurtasun-barrak ipiniko dituela.

Irungo Udalak gure iradokizunak onartu eta udalerriko eguneko zentroko komun eta garbigeletan zoru labaingaitza, segurtasun-barrak eta txirrinak ipinteko agindu zuen.

### 1.1.5. **BABESGABEZIA EGOERAN DAUDEN HAUR ETA NERABEEI EGITEN ZAIEN ARRETA KONTROLATZEKO JARDUKETEN JARRAIPENA**

1997an Arartekoak aparteko txostena aurkeztu zuen Legebiltzarrean gure Erkidegoan babesgabezia eta arrisku egoeran dauden haur eta nerabeei jaramon egiten dieten zerbitzuak aztertuz. Helburua erakundeetatik pertsona talde horiei, adin txikikoei, arrisku kasu berezien egoeran daudenei, eskaintzen zitzaien erantzuna aztertzea zen eta, horren arabera, adin txikiko horiek babesteko sistemak hobetzeko proposamenak egitea.

Adin txikikoari Babes Juridikoa emateari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa izan zen lehenengoz islatu zuena haurren edo nerabearen gizarte estatusen gure artean gertatu diren aldarazpen sozial eta kulturelek izan duten eragina eta, ondorioz, haurren giza eskubideetan aplikatu behar den ikuspegia ezarri zuena. Horri esker gaur egun adin txikikoei beren eskubideen titulartasuna eta horiek burutzeko ahalmena aintzatesten zaie.

Konstituzioak, VIII. izenburuan, autonomia erkidegoetan adin txikikoak diren pertsonen babesari ekiteko esparrua ireki zuen eta Gernikako Estatutuak, bere 10.14. artikuluan, arlo honetan eskumen osoak Euskadiko Autonomia Erkidegori ematea erabaki zuen. Baina, hori gora-behera, gure Erkidegoak, gizarte babeseko eta haurren eta gazteen politikako arloan legegintzako eskumenak eduki arren, ez du egunera arte erregulazio zehatza gertutu. Legeen arloan horrek izan duen isla bakarra, maila orokorrean, Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legea eta horren 1982ko aurrekaria izan dira.

Hutsune juridiko horregatik eremu honetan jarduten duten zerbitzu eta zentroek ez dute hiru euskal lurralde historikoetan jarduteko erreferentziako esparru bermatzailerik eduki, jarduteko gutxieneko arau bateratu batzuk. Gure itxaropena hainbeste bider iragarri den adin txikikoei buruzko legea laster errealitate bihurtzea eta mentsa horiek estaltzeko balio izatea da.

Gai honi buruzko irizpide filosofikoei, gizartearen arretaren arloko beste esparru batzuetan gertatzen den bezala, ahal den guztietan adin txikiko horiek familiaren gunean mantentzea bideratzeko beharrezana azaldu dute, horretarako erkidegoaren aurrearreta eta jaramon egitarauak eta familian eskuhartzekoak landuz, arrisku egoerak eragiten dituzten prozesuak ekiditeko eta, hala denean, prozesu horiek berriz bideratzeko balioko dutenak.

1999an txosten horretan egin ziren aholku eta iradokizunen jarraipena egiteko eta laguntzaren kalitatea hobetu den frogatzeko bisitaldiak egin dira. Halaber, zentro berriak bisitatu dira, horien instalazioak eta babesgabezia egoeran dauden haur eta adin txikikoei eta nerabeei ematen dien arreta ezagutzeko.

### **Zikuñagako larrialdietarako arreta zentroa**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren pentzutan dagoen arreta eta larrialdi kasuetarako zerbitzua da; horren kudeaketa lehiaketaren bidez adjudikatu zitzaion, hiru urterako, Nuevo Futuro Elkarteari.

Zentroak 12 adin txikikorentzako kapazitatea du eta 1999ko otsailaren 1ean inauguratu zen. Eraikinak bi solairu ditu, erabat dago zaharberritura eta inguruan lorategia

du. Hernaniko hiri bilbaduran dago eta horregatik erkidegoaren zerbitzuak erabiltzeko aukera du.

Zerbitzu honen xedea arrisku egoeran dauden adin txikikoei arreta eskaintzea da, harik eta horien egoera aztertu arte eta horientzat egokiena den irtenbidea erabaki arte: berriz etxera eramatea edo elkarbizitzarako beste esparru batera. Larrialdi kasuetan eskuhartzen da eta adin txikikoei jaramon egiten zaie aldi mugatu baten arreta norbanakotua eskainiz.

Xederik behinena adin txikiko horiek oinarrizko beharrianak estalita izatea da eta era positiboan bizi duten egoera pertsonal hori onartzeko gauza izan daitezela. Elkarbizitza bideratzeko eta gainerakoekiko begirunezko jarreraren garapenak irakasteko lan egiten da.

Adin txikikoei zentzura heltzen direnean dituzten eskubide eta betebeharrei buruzko informazioa ematen zaie, idatziz alegia. Halaber, kexak aurkezteko dauden formula eta zehapena jasotzen duten jokaerei buruzko informazioa ematen zaie.

### **Txurdinagako etxe funtzionala**

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen (GUFÉ) etheen sarean dago. Bilboko Txurdinaga auzoko alde lasaian dago, toki horretan dauden bi ikastetxetik eta erkidegoaren beste zerbitzu batzuetatik hurbil eta ezaugarri horiek adin txikikoen gizarte integrazioa errazten dute.

Nahiz eta oso ondo ekipatuta dagoen etxea izan, bi pisu batuta eratu dena, ematen du esleituta duen 12 adin txikiko kopuru hori gehiegi dela, areago horien inguruabar pertsonalak kontuan hartuta.

Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak argitaratu duen “Haur eta nerabeen egoitzazko laguntzarako Praktika Egokirako Gidaliburuan”, azpiegiturei buruzko idatziazian -logelak- hau ezarri da:

*“Zentroak logelak izango ditu Egoitzazko Laguntzarako Egitarauak hori eskatzen duenean. Logela horietan gehienez bi adin txikiko egongo dira, salbu eta neba-arrebak direnean eta batera egotea egokitzen jotzen denean. Pribazitate eta pertsonalizazio beharrianak lehenetsiko dira.*

Halaber, ondoko aholku hauek proposatu dira:

- *Logela indibidual batzuk edukitzea, zaintza bereziak eskatzen dituzten haurrek edo nerabeek erabiltzeko.*
- *Haurren pribazitate beharriari erantzuteko gaituta egongo dira, bakarrik egoteko edo lagun batzuekin egoteko.*
- *Gelan ondoko hauek egongo dira: ohea, ispilua, ikasteko tokia, norberaren gauzak gordetzeko tokia eta beharrezkoak diren oherako gauzak.*
- *Adin txikikoaren adina eta beharriari erantzuteko gaituta egongo da.*
- *Adin txikikoaren duintasun sentimenduak sustatuko ditu (inguru zaindua eta eroso, bere jabetzakoa dena) eta baita erantzukizuna ere (norberaren gauzen ordena eta zaintza zuzpertzera).*

### **Sodupeko adin txikikoen etxea (A)**

Lehen haurtzaindegia ziren lokal batzuetan dago; 10 adin txikiko ditu esleituta, nahiz eta bisitaldia egin zen unean 8 zeuden.

Eraikinak, erkidegoaren zerbitzuak dituen beheko solairua ezezik, logelak dituen bi solairu eta lorategia ditu.

Lehen solairuan hezleen eta adin txikikoen gelak daude eta bi bainugela oso ditu, bat neskenzat eta bestea mutilentzat, igarobidearen alderdi banatan kokatuta. Gela indibidualen bat du baina 2 gelatan hiru pertsona bizitzeko literak jarri dira, eta hori ez da egokia.

Bigarren solairua, nahiz eta ekipatuta egon, udako kanpamentuetarako eta oporraldietarako baino ez da erabiltzen, beste pisu batzuetako haurrak aldi baterako egoteko. Txapitulian lau gela daude, bi bainugela eta dutxa bat.

Nuevo Futuro Elkarteari aholkua egin diogu asteburuko lekualdaketetan gela horiek erabil ditzaten eta familiarekin dauden adin txikikoenak jagon ditzaten, neurri horrek horien pribazitatea eta jabetza sentazioa sustatzen duelako. Iradokizun hori zentroa bisitatu genuenean egin zen bileran azaldu genuen.

Halaber, frogatu zen adin txikikoen ez zirela arratsaldeetan kanpora ateratzen eta Elkarteari galdetu diogu ea adin txikikoak jardueretan eskuhartzera eta bizi diren inguru horretan integratzera animatzen dituzten.

### **Sodupeko adin txikikoen etxea (B)**

Pisua 7 adingutxiri jaramon egiteko dago prestatuta, 3 gelatan alegia; bi gela bikoitzak dira eta baten 3 ohe daude. Pisua ondo ekipatuta dago baina kasu honetan ere ematen du esleituta duen 7 pertsonako kopuru hori gehiegi dela. 7 pertsona horientzat bainugela bakarra du, nahiz eta adin txikikoen hezleen gelan dagoena erabili, baina horrek intimitatea murrizten die.

Arestian ere adierazi den Praktika Egokirako Gidaliburuan, 8. kapituluaren azpiegiturak eta ekipamenduak logeletan bi adin txikiko baino gehiago ez egoteko aholkua ezezik, esaten da zentroak gutxienez bainugela oso bat izango duela lau pertsonako, eta kasu honetan ez da hori betetzen.

Logeletan ez dago bertan denek ikasteko beste lekuri eta egongelan, ikasi ezezik, beste jarduera batzuk ere egiten dituzte.

Bisitaldian frogatu genuen giroa familiakoa zela eta haurrak pozik zeudela. Etxea Nuevo Futuro Elkarteari kudeatzen du eta bertako arduradunak bikote ezkondu bat da.

Nuevo Futuro Elkarteari adin txikikoei jaramon egiteko duen erak lansaio luzeegiak eskatzen ditu eta horrek, egineran, hezleen prestakuntza iraunkorra ekiditen du, ezinezkoa delako, eta praktikan "erreta" egotea sortarazten du.

Praktika Egokirako Gidaliburuan ondoko aholku hauek ematen dira:

- *“Lanaren zama eta egon dauden bitarteko profesionalen arteko egokitzapena (kopuruan eta gaitasunean) bermatzea.*
- *Profesional horientzat arrazoizko lan zama ezartzea (zaindu behar dituzten kasuen kopurua, lanak bukatzeko gehieneko epeak,...).*
- *Laneko ordutegiaren eta ematen diren laguntza eta zerbitzuen arteko erlazio orekatua sustatzea.*
- *Lana egiteko dauden bitarteko materialak egokiak eta beharrezkoak direla bermatzea.*
- *Profesionalei oinarrizko asebetetasuna bermatzea lanagatik jasotzen duten ogibidesariaren bidez.*

- *Profesional bakoitzaren erantzukizunen eta lanaren espezialitatearen araberako ordainsariak ezartzea.*
- *Ahal den neurrian, lanpostuaren egonkortasuna sustatzea.*
- *Profesionalen segurtasunerako ustezko arriskuak aurrearretaz zaintzeko bitartekoak eta mekanismoak ezartzea.*
- *Lanbide sustapena eta mugikortasuna bideratzea.*”

Nuevo Futuro Elkarte eta foru erakundearen arteko hitzarmenean Aldundiak bereiztu egin beharko luke mantenimenduko gastuetarako esleipen ekonomikoaren eta hezleen ordainsari ekonomikoen eta horien lanbide prestakuntzarako sarien artean. Neurri horren bidez hezleek ogibidesari egokiak jasotzen dituztela bermatuko litzateke, eta aldi berean horien prestakuntza iraunkorra, eta horiek, jakina, eragina izango lukete ematen den laguntzaren kalitatearen hobekuntzan.

### **Hazaldi arreta zentroa**

Babesik ez duten adin txikikoei jaramon egiteko larrialdietako zerbitzua da; adin txikikoak 0 eta 18 urte artekoak dira. Zentro hau Arabako Foru Aldundiaren pentzutan dago eta alde oso lasaian dago kokatuta, lorategien artean. Pisua ondo artatuta dago eta hala altzariak nola esparruen banaketak jaramon egokia bideratzen dute.

Txostenaren ondorioz segurtasun sistemak hobetu dira, kea atzemateko detektagailuak eta suitzalgailuak instalatu eta larrialdietarako irteerak seinalizatu dituzte.

Foru erakundeak jarraipen iraunkorra egiten ditu eta une oro sortzen diren arazoek jakitun dago. Horrela zerbitzuaren erantzukizuna duten pertsonen segurtasuna eta laguntza dute.

Bertan dauden pertsona guztiek eskatzen diren jokaeren arauak eta jarrera ez-egokiengatik gerta daitezkeen zehapenen berri dute, baina arau horiek ez daude idatziz islatuta. Halaber, esan behar da ez dagoela helburuak adierazten dituen dokumenturik edo, gutxienez, ez dago erabiltzaileen eskura eta, beraz, horiek kontuan hartuta, mentsa horiek ongitzeko aholkua egin genuen.

### **Laudioko eguneko zentroa**

Egoitzazkoa ez den eskaintza honen helburua egituraketa arazo larriak dituzten familiei laguntza zuzkitzea da, haurra edo nerabea familiaren egoitzan egotea sustatzen delako, horrela egonkortasun eta segurtasun sentimenduak indartu egiten direlako. Ondore gutzietarako seme-alaben hazkuntzaren erantzulea familia da, eta horrela jarraitzen du.

Zentroaren ezaugarriengatik, krisi egoera pairatzen ari diren familientzako laguntzarako izan daiteke, sakabanaketa ekiditeko, edota tarteko irtenbidea izan daiteke, trantsizioa, sakabanatu edo bereiztu egin den haurra edo nerabea familiaren gunera behin betiko itzuli eta horretan berriz integratu aurretik.

Zentroaren arduraduna Laudioko Udala da eta Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizate Sailaren laguntza jasotzen du. 6 urte eta 16 urte arteko adin txikikoei jaramon egiteko gaituta dago. Gaur egun Hautzaroa Elkarteak kudeatzen du eta arratsaldez baino ez dago zabalik. Haurrak eskolak bukatu ondoren joaten dira zentrorra eta afariaren ordua heldu arte egoten dira; orduan etxera itzultzen dira.

Jarduteko arauak haurren eta hezleen artean egin dituzte eta horrek eskuhartzea eta talde bateko kide izatearen ideia sendotzen du. Dena dela, komeniko litzateke informazioa emateko liburuxka bat edukitzea zentroaren helburuak xehekatzeko, adin txikikoek eta horien familiak eskuhartzeko eta kekek azaltzeko dituzten prozedurak ezartzeko.

Arreta eskaintzako tarteko formula hau oso interesgarritzat jotzen dugun arren zabaltzeko aukerak aztertu beharko liriateke adin txikikoek zentroan jateko eta bertan denbora gehiago egoteko aukera izan dezaten, horrela jarraipen hobea egiteko aukera sortuko litzatekeelako.

### **Gasteizko eguneko zentroa**

Zentro hau Gasteizko Udalaren Gizarte Eskuhartzeko Sailak haur eta familiak babesteko dituen zerbitzuetako bat da.

Hamar adin txikikorentzako kapazitatea du, 3 urte eta 16 urte artekoak alegia, eta astelehenetik ostiralera dago zabalik, 12:00etatik 20:00etara, urtean 11 hilabetetan. Hiriaren alde zaharrean dago, ekipamendu egokiak ditu eta gaigabeziaren bat duten adin txikikoek erabiltzeko prestaturik dago, arkitekturako oztopoak kendu direlako.

Bisitaldia egin genuenean 12 adin txikiko zeuden, 6 eta 16 urte artekoak. Horien artean neska bat eguneko zentroko araubidean zegoen, alde batetik bere arazoak bereziak zirelako eta bestetik eguneko 3 zentroetan ez zegoelako plazarik.

Egoitzazkoa ez den bitarteko honen asmoa haurrak euren etxeetan egotea da, horien familiei laguntza eskainiz. 1995etik zeharkako kudeaketaren bidez jarduten du eta IZAN Elkarteak da zerbitzuaren adjudikazioduna. Hori gora-behera Udalak zentroaren kontrolari eusten dio eta Jarraipen Teknikorako Batzordean integratuta dago.

Jarraipenaren helburuak hauek dira:

- Esperientzien garapena eta inguruabar guztiak *in situ* ezagutzea.
- Egitarau indibidual guztiak aplikatzea eta moduluen esparru teoriko eta objektiboak egokitzea.

Jarraipen hau funtsezkotzat jotzen da etxearen arduradunak diren pertsonentzat, baina eragiketa hori egiten duen taldeak zailtasun ugari aurkitzen du egun dituen baliabide horiekin beharrezko laguntza emateko. Beraz, egokia litzateke indartzea.

Udalak, zerbitzu hau adjudikatu zuenean, adin txikikoei ematen zaien arretaren kalitatea bermatu nahi izan zuen. Horretarako, elkarte adjudikaziodunarekin zinatuz hitzarmenean hiru maila ezarri zituen ekarpen ekonomikoetan, mantenimenduagatik, lanbide heziketagatik eta hezleen ogibidesari ekonomikoengatik gastuetarako. Horrela prestakuntza iraunkorraren beharrezko formulatu zen eta profesional horiei bermatu egiten zitzaizkien erantzukizunaren araberako sarrerak jasotzea.

Bisitaldian frogatu genuen adin txikikoak pozik zeudela eta egiten dituzten jarduerak eta txangoak egokiak direla eta gustura daudela horiekin ere. Dagozkien eskubideak eta zehapena eragin dezaketen jarrerak ezagutzen dituzte, baina liburuxka informatiboa beharko litzateke zentroaren funtzioak zeintzuk diren argi azaltzeko, zein den horren antolamendua eta jardunbidea, elkarbizitzarako arauak, eta baita erreklamazioak eta kekek aurkezteko prozedura ere.

### **Andra Mari Kantoiko etxe funtzionala**

Txostena egin zenean haur eta nerabeen babeserako zerbitzu hau Gasteizko Udalak kudeatzen zuen zuzenean. 1998ko ekainaren 1etik aurrera IRSE Elkarte (Instituto de Reintegración Social de Euskadi) da kudeatzen duena. Hori gora-behera, Udalaren Haur Zerbitzuko etxeen taldeak jarraipena egiten du, bisitaldien eta etxeko erantzuleekin eta horri atxikita dauden langileekin egiten diren bileren bidez.

Adin txikikoek egiten dituzten jardueren helburua, alde batetik, eskolaratzea lortzea da -eta ondorioz garrantzitsua da eskolako lanak egiten laguntzea - eta, bestetik, gizarteko gainerako kideekiko erlazioa eta gizarte esparru horretan integratzea.

Pisuan lanak egin behar dira era jardunbide egokian lagundu behar da. Baldin eta jarrera ez-egokiren bat badago adin txikikoek jakin dakite zehapena ezar dakiekeela, baina aholkugarria da dituzten eskubideak eta zehapena jaso dezaketen jarrerren berri emango duen liburuxka egotea.

Adin txikikoek interesatzen zaizkien gaietan parte hartzeko mekanismoak indartu behar dira, adibidez, iradokizunen gutunontzia ezarriz.

Pisuaren egoera ona da, ondo artaturik dago, eta konponketa arazoetan edo altzarien berrikuntzetan unean uneko erantzunak ematen dituzte. Logelak bikoitzak dira eta bainugela dute, alboko logelarekin erdi bana alegia. Txostena egin ondoren segurtasun sistemak hobetu dituzte kea atzemateko detektagailuak ezarriz.

\* \* \*

1999an zehar **Nuevo Futuro Elkarteari** 1998an San Inazioko etxea ezagutzeko egin genuen bisitaldiaren ondorioz egin genituen aholkuen erantzuna jaso dugu.

Orduan esan genien komeni zela haurrentzako, nerabeentzako eta familientzako informazio liburuxka egitea. Gure iritziz esan genien egokia zela dokumentu horretan zehatz azaldu behar zirela zentroaren funtzioak, bere antolakuntza eta jardunbidea, elkarbizitzarako arauak, eta baita erabiltzaileentzako irizpideak eta kexak ezartzeko prozedurak ere.

Nuevo Futurok, aholku horri dagokionean, hau erantzun digu:

*“Kontuan hartu behar da etxe bakoitzak, oinarrizko irizpidetzat Elkartearen filosofia ezarriz, jarduteko era autonomoa duela eta haurren beharrezan arabera funtzionatzen duela, haur horiek subjektu indibidualak direlako eta etxe bakoitza desberdina delako.*

*Adin txikikoei zehapenak ezartzeko arauak ez daude aurrez ezarrita, hartu behar direnean adostasunean oinarrituta betearazten dira hezle, bulegoko langile eta haurraren artean”.*

Nuevo Futuroren erantzunak, amaieran, esan du une hauetan ez dutela haurrentzako eta horien familientzako liburuxka informatibo bat inprimatzeko ez langilerik eta ez bitarteko ekonomiko nahikorik eta, esan dute, aldi berean, oso zaila dela liburuxka baten arazo hain desberdinak dituzten norbanakoentzako gaiak laburtzea eta islatzea. Dena dela, esan dute hori egiteko aukerak aztertzen ari direla, baina hori egiteko ere kontuan hartu behar dela etxe hauen xedea adin txikikoek familiarekin erkatuta ahalik



eta antzekoena den bizitza araubidea bilatzea dela, berriz hezteko zentro baten edo eskola baten arauak izango ez dituen.

\* \* \*

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzu Sailak, **Martuteneko adin txikiko atzerritarren harrera zentroko** baldintzak zeintzuk ziren ezagutzeko hasi zen espedienteari dagokionean, Donostiako Probintzia Auzitegiko Fiskaltzaren laguntza eta aholkularitzarekin "laguntzarik gabeko adin txikikoen" kasuan aplikatu behar diren jarduteko irizpideei buruz gertutu zuen protokoloa igorri digu; testu hori Europako Erkidegoen Kontseiluaren ebazpenean ezarri dena betez egin dute.

Hori gora-behera, ez zuen erantzunik jaso beste galdera batek, hau da, foru erakundeak zenbat aldiz hartu duen laguntzarik ez duten adin txikikoen tutela eta zeintzuk izan diren legezko babes hori betearaztea ekidin duten inguruabarrak.

\* \* \*

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailak babesik gabe dauden haur eta nerabeen arloan burutzen ari diren egintzen informazioa eman digu. Horien artean Haurren Plana egiten ari direla azpimarratu behar da, oraintsu onetsi dena eta horren xedeak, alde batetik egun funtzionamenduaren arloan dauden mentsak gainditzea eta, bestetik, adin txikikoei eta arazoak dituzten familien eskuhartzei ematen zaien arreta hobetzea.

Foru erakunde horrek, halaber, **Loiuko San Jose Artisaua zentroan** zeharberrikuntza hasi dela eta berariaz "laguntzarik gabeko atzerriko adin txikikoentzat" izango diren egoitza-unitateak sortzea aurreikusi dela jakinarazi digu, eta baita "jarrera arazo larriak dituzten adin txikikoentzat" ere, eta ondorioz egoitza baten egoteko beharrezana duten babestu beharreko adin txikikoak egon dauden etxe eta zentroetara joango dira.

Loiuko zentroan kexak egiteko prozedura formalizatua ezartzeko egin genuen proposamenari dagokionean, foru erakundeak babesa jasotzen duten adin txikiko guztientzat balioko duen prozedura ezarri nahi du, ez bakarrik zentro honetarako. Inguruabar horiek guztiak kontuan hartuta, komeni da neurri hori atzeratzea, seguruenik Planean aurreikusi den "Prozedura gidaliburuan" azalduko delako. Halaber, Loiuko zentroan egingo den zeharberrikuntzak itxarotea aholkatzen du eta prozedura zentro horren etorkizuneko baina laster errealitate izango den egoera berriari egokitzea.

### 1.1.6. **ADIN TXIKIKO LEGE HAUSLEEKIN EGITEN DEN ESKUHARTZEAREN JARRAIPENA**

1998ko abenduaren 21ean Legebiltzarreko Lehendakariari Arartekoak prestatu zuen *Adin txikiko lege hausleekin egiten diren eskuhartzeak* izenburuko aparteko txostena eman zitzaion. Txosten hori Giza Eskubideen eta Hiritarren Eskabideen Batzordean aurkeztu eta eztabaidatu zen organo horrek 1999ko ekainaren 23an egin zuen bileran.

Txostenak, hala azterketan nola ematen zituen aholkuetan, erakunde bat baino gehiago ukitzen du, bi bereziki:

- Botere judiziala -fiskaltzak eta adin txikikoen epaitegiak- horien prozedura, neurriak hartzea, jarraipena eta ebaluazioari,... dagokienean.
- Eusko Jaurlaritzaren -Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko Gazteentzako Justizia Zerbitzua- neurriak betetzeari dagokionean, eta, ondorioz, horren eskura jarri diren bitarteko eta tresna guztiak.

Kasu honetan, Arartekoak egin duen jarraipenaren ardatza, Legeak horrela agintzen duelako, Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko arazoak eta proposamenen betearazpena izan da.

1999 urtean Arartekoak egin duen jarraipena gure Erkidegoan dauden adin txikiko lege hausleentzako hiru zentroak bisitatuz egin da, eta baita ofizios Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari eskatu zaion informazioaren bidez ere. Andollu, Ortuella eta Aramaioko hezkuntza zentroak urriaren 14, 15 eta 19an bisitatu genituen. Justizia Sailari azaroaren 18an eskatu zitzaion informazioa. Gero, abenduaren 27an, beste agindei bat egin zitzaion eta erakunde honek Sailaren erantzuna aurtengo urtarrilaren 14an jaso zuen.

Jarraian Arartekoak egin dituen aholkuekin lotuta dauden alderdi batzuk, positiboak eta negatiboak, azpimarratzen ditugu.

Gaur egun gure Erkidegoan dauden hiru zentro-barnetegiara egin ditugun bisitaldietan Arartekoak egin dituen aholkuak betetzen diren ala ez frogatu dugu. Horrela, adibidez:

- Erakundeak aholkatu zuen azalpenak emateko liburuxkak egin dituzte eta oraintsu argitaratu dira; testu horietan bai familiei eta bai nerabeei ere hasierako informazioa emateko dira.
- Arauak eta prozedurak sistematizatu dira zentroak-Gazteentzako Justizia Zerbitzua- adin txikikoen epaitegiak hiruko harremanei dagokienean.
- Posta elektronikoaren erabilerarekin erakunde horien arteko komunikazioaren denborak laburtu dira.
- Epaila eta fiskalen bisitaldiek ez dute oraindik aldizkotasunik eta nabarmen aldatzen dira titularren irizpide edo aukeren arabera.
- Zentroetan hobekuntzak egiteko obra batzuk egin dira: Andollun soroaren ingurua gaitu da, sotoko eusteko aldea kendu da eta Ortuellan bainugelako gailuak berritu dira...

Baina agian interesgarriagoa da iradokizunak eta proposamenak zerbitzu hauen eraginkortasun eta etorkizunerako oso garrantzitsuak izango diren lau alderdiren inguruan finkatzea:

- Zentroen sarearen taxuketa.
- Profesionalen lan-egoera.
- Laguntzarako beste sare batzuekiko harremana.
- Irteteko eta emantzipazio aukerak.

### **1. Zentroen sarearen taxuketa**

Berariaz adin txikiko lege hausleak barnetegi araubidean izateko gure Erkidegoko hezkuntza zentroen sarean, gaur egun, hiru zentro daude: Andollukoa (neskentzat), Aramaiokoa eta Ortuellakoa (mutilentzat). Laster sare horretan Zumarragako zentroa sartuko da, gaur egun eraikitze fasean baina oso aurreratuta dagoena.

Bildu ditugun datuen arabera, dauden zentro eta horien plazak nahikoak dira gure Erkidegoan gertatzen ari diren barnetegi araubideko beharriaz aurre egiteko. Areago esango genuke, kasu batzuetan hurbileko beste erkidego batzuetako adin txikikoei egiten zaie jaramon. Halaber, oso interesgarria da azpimarratzea bitarteko hauek barnetegiratzea ez diren beste neurri batzuk laguntzeko ere aprobeztatzen direla: askatasun zainduak, zerbitzugintzak, konponketa egintzak...

Dena dela, zentro horiek gaur egun duten egoera estali eta bete behar dituzten beharriaz aurre egiteko edo okerragoan egokitzeko baldintza da. Batez ere kokapenaren baldintzari daude lotuta eta, ondorioz, hurbileko ingurua eta zentroaren komunikazioei (hiriko esparrua eta komunikatua Ortuellari dagokionean; nahiko hurbil Gasteizen, baina komunikazio txarrekin Andolluren kasuan; landa esparrua eta komunikazio gutxikoa Aramaioren kasuan), eta titulartasuna eta lokal horien jatorrizko egiturari. Hiru kasuetan zentroen titulartasuna ez da Eusko Jaurlaritzarena eta ez dira eraiki eta diseinatu egun duten helbururako.

Bada, abiatzeko egoera honen eragin negatiboak asko dira, esaterako inguruko gizarte ekipamenduak erabiltzeko zailtasunak; lekualdaketak bideratzeko hainbeste energia eta profesionalen lana xahutu beharra; jatorrizko mentsak "partxeatzeko" baino balio ez duten eraikinak hobetzeko obretarako diru partidak; denbora jakin baterako erabilerarako lagapenean utzi diren zentroetan jardutea... Eta hor daude banaketa horrek barnetegian dauden adin txikikoen jatorrizko familiekiko ezartzen dituen distantziak, horrek ere lankidetzat eta harreman zuzena zailtzen duelako.

Zumarragako zentro berria sarean sartzeko unea egokia izan daiteke egungo banaketa hori berriz egituratzeko eta etorkizunerako plangintza egiteko; halaber, une egokia izan daiteke adin txikikoen zigor erantzukizuna arautu duen Lege Organikoa indarrean jartzeko unea ere.

### **2. Profesionalen lan-egoera**

Andolluko hezkuntza zentroa Gaztaroan Ekin Hezkuntza Elkarteak kudeatzen du. Aramaio eta Ortuellako zentroen kudeatzailea Berriztu Hezkuntza Elkarte da. Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu hauen kudeaketa elkarteei lagatzea lehiaketa publiko edo hitzarmen-egitarauen bidez egin da; urte bateko iraupena izaten dute eta epe hori luzatu egin daiteke. Guztira zentro hauetan 40 profesional daude lanean, eta txanda guztiak

betetzen dituzte; profesional horiek profil eta ezaugarri guztietakoak dira koalifikazio, dedikazio, esperientzia, genero, antzinasun eta abarri dagokienean.

Argi dago urteko hitzarmena edo kontratuaren formula ez dela egokiena plantila horiei jarraipena emateko, eta kontuan hartu behar da ezaugarri hori oso garrantzitsua dela arlo honetan.

Izan ere, bisitaldietan zentroetako zuzendaritzekin eta profesionalen taldeekin egin ditugun bileretan aniztasun handia antzeman genuen plantilen mugikortasunaren arloan (hobeto ordainduta dauden beste zerbitzu batzuetara joaten diren pertsonak, inkorporazio berriak), eta argi eta garbi eskatzen dutela lan-egoeraren hobekuntza (kontratuen behin-behinekotasuna gainditzea), eta egungo sistema honekin oso zaila dela langilegoaren antzinasunaren emaitzako zamei eustea (hirurtekoak). Beraien iritzia adierazi dizkiguten profesional guztiek esan ziguten oso pozik daudela lanarekin baina, aldi berean, lan-egoera honen alderdi negatiboak azpimarratzen zizkiguten.

Zentroetara egin ditugun bisitaldien osagarri bezala, Ortuellako zentrorra egin genuen bisitaldia aprobetxatuz, Arartekoak Berriztu Hezkuntza Elkarteari Eusko Jaurlaritzza-Hezkuntzako Elkarte eta langileen arteko kontratu bidezko harremanari buruzko oinarritzko datuak islatzen dituen txosten ekonomiko eta ogibidesariena eskatu zion.

Txosten hori azaroan jaso genuen eta abenduaren 1ean, Arartekoaren idazki batekin, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailari igorri genion. Idazki horretan, erakunde honek, zerbitzu hauek adjudikatzeko erarik egokiena zein den baloratu gabe edota profesionalen lan-egoerak zeintzuk izan behar duten bazter utzita, argi adierazi du antzeman diren gai horietatik batzuk ematen den zerbitzuaren kalitatean eta iraunkortasunean duten eraginagatik ardua (urtero adjudikatzea, langileen antzinasunagatik kostuei aurre egiteko zailtasunak).

Arestian adierazi den idazki horretan Arartekoak, aldi berean, Justizia Sailak 2000 urteari begi zentro hauen kudeaketarako aurreikusitako datuen berri emateko eskatu zion (aurreikuspen ekonomikoak eta adjudikazioaren baldintzak). Txosten hau itxi dugun unean ez da oraindik eskabide horren erantzunik jaso.

### **3. Laguntzarako beste sare batzuekiko harremana**

Idatz-zati honetan erkidegoaren ekipamenduen aprobetxamendua aztertu nahi dugu, zerbitzu espezializatu hauen eta beste zerbitzu batzuen arteko harremana, gizarte mailakoak, osasunekoak, hezkuntzakoak,... Arartekoaren txosten berezian arlo honi buruzko aholkuak egin genituen. Halaber, jarraipen hau egin dugunean ere berariazko jaramona egin zaio.

Profesionalek beraiek esaten dutenaren arabera, barnetegian egoteko neurriek irauten duten bitartean ez da beste sare edota arreta emateko zentro batzuekiko harremanetarako arazo handiegirik egoten, nahiz eta batzuen eta besteen artean arreta eta jaramon mailak desberdinak izan.

ildo honetatik, azpimarratu behar dira nerabeak era egokian eskolaratzeko izaten diren arazoak. Hezkuntza formalarekiko porrota eta motibazio faltaren esperientzia egon arren, ezaugarri hori kasu guztietan gertatzen delako, kasu guztietan horien eskolaratze prozesuari nolabaiteko jarraikortasuna eta iraupena emateko ahalegina egiten da: zentroaren beraren eskola eta hezkuntzako laguntzarekin, hezkuntzako aukeren aprobetxamendurekin (batez ere lanbide hastapenetarako zentroak-LHP), aurrez eskolaratuta edo matrikulatuta zeuden zentroekin harremanak edukiz...

Hiru zentroetako profesionalen aburuz hezkuntzako eraldaketak ez du inolako hobekuntzarik ekarri nerabe hauen erantzunean. Kontrakoa esan daiteke, uste dute erantzun egokia eskaintzeko aukera errealak murriztu egin direla eta hezkuntza sistema, sarritan, horiei jaramon egitearen aurka dagoela.

Gogorarazi behar da kasu honetan interesatzen zaigun adina (14-16 urte) erabat datorrela bat derrigorrezko hezkuntzarekin eta, ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eskumena eta erantzukizuna dela. Sail horri dagokio hezkuntzako beharrian berezien egoera bati aurre egiteko hezkuntzako erantzunak antolatzea, erantzun zehatzak eskatzen dituzten aldatzeko beste egoera batzuekin gertatzen den bezala (ospitaleratzeak, etxez etxeko arreta, boladako langileak...).

#### 4. Irteteko eta emantzipazio aukerak

Barnetegiratzeak irauten duen bitartean zentroak dira nerabeen beharrian erantzuna emateko ardurak dutenak. Kasu askotan arazoak barnetegi araubidean egoteko aldia bukatzen denean hasten dira. Ikuspegi hori, jakina, norbanakoen araberrako planetan eta garapen norbanakotarako egitarauetan zaintzen da eta jarraipen berezia egiten zaio prozesuaren amaieraraino. Orduan azaltzen dira eta nabarmentzen dira berezko esparruan integratzeko zailtasunak, eta erkidegoak horiei arreta egiteko dituen arazoak: familiarekin esku hartzea, kaleko hezleak, babes zerbitzuak...

Kasu batzuetan, aldi berean, irteera hori bideratzeko emantzipazio zentro edo zerbitzuak izateko beharria planteatzen da. Zerbitzu horiek ez egoteagatik, batzuetan, barnetegi araubidea bukatu ondoren oraindik zentroetan jarraitzen duten nerabeen kasuak gertatzen dira, hala beraien borondatea hori delako nola beste baldintza hoberik ez egoteagatik.

\* \* \*

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari hiru arlori buruzko datuak eskatu genizkion:

- Arartekoaren txostenean egin ziren 46 aholkuetatik zeintzuk bete dituen Sailak eta horiek zein neurritan bete diren.
- Oraindik betetzeke dauden aholkuak eta horiei buruz dauden aurreikuspen edo usteak.
- Azken hiru urte hauetan aplikatu diren beharriari buruzko datuak eta horiek betetzeko hornitu diren bitartekoak.

Jarraian, labor bilduta edo hitzez hitz, Sailak eman zuen erantzun xehekatutik atera ditugun informazio adierazgarrietatik eskuratu ditugunak eta Arartekoak bere eskumenekoak diren gaiari buruz egin dituen aholkuei lotuta daudenak:

- **Ordezteko justiziaren oinarrien aplikazioa** (Arartekoaren txosteneko lehen aholkua)

*“1997tik aurrera EAEko hiru Lurralde Historikoetan jarri da abian ‘Artekaritza, kontziliazioa eta lehengoratzea’ egitaraua. Plan horren ondorioz 1997an zehar mota horretako 94 prozesu egin ziren, 1998an 158 izan ziren, eta 1999an zehar*

*200/220tik gora izango dira. Egitarau hau garatzeko Sailak dokumentu-egitaraua onetsi zuen eta horretan deskribatu diren prozesuen helburuak, metodologia, etab. ezartzen dira.”*

- **Neurriak betearazteko bitartekoak arautzeko arautegiaren onespena** (3. zk.-ko aholkua)

*“Dekretuaren zirriborroa dago, Sail honek 1999ko irailean egin duena, eta egun kontsulta fasean dagoena.”*

- **Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren eskumenen arazoaren ebazpena** (4. zk.-ko aholkua)

*“Arazo hau behin betiko konpondu zen 1998ko urrian, Eusko Jaurlaritzak EAeko Adin txikikoen Epaitegiek eman zituzten neurri guztiak 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera betetzen hasi zirenean.”*

- **Artekaritzaren ondoreetarako talde teknikoak sendotzea** (10. zk.-ko aholkua)

*“1997 eta 1998an Adin txikikoen Epaile eta Fiskalei laguntzeko Talde Psikosozialetako profesionalen prestakuntza plana diseinatu eta burutu zen. Plana 3 fasetan garatu zen”: prestakuntza teorikoa, beste toki batzuetako esperientzien ezagutza, artekaritza-lehengoratzeko kasuetan beste profesional batzuekin batera lan egitea.*

*“Taldea Teknikoek berriz antolatu dituzte egiturak prozesu hauetan jarduteko. Bizkaia eta Gipuzkoan 2 profesional daude arlo hauetan lan egiteko lehentasuna duten talde bakoitzeko eta Araban, egitaraua hasi berria dago.”*

- **Profesionalen prestakuntza iraunkorra** (11. zk.-ko aholkua)

Adierazi den artekaritzaren arloko prestakuntza plan hori ezezik, Sailaren erantzunean Hobetuzekin egin diren hiru ikastaroak aipatu ditu, zehatzago Miguel Ángel Remírez eta Mendixola hezkuntza zentroetako langileentzat, eta Andoio Hezkuntza zentroa eta Aita Menni Ospitalearen artean bere langilegoa laguntzeko eta gainikusteko sinatu den hitzarmena. Halaber, ondokoa esan du: *“Aztertzen ari den dekretuaren zirriborroa, Egoitzak diren Zentroetako langile guztientzat derrigorrezko hasierako prestakuntza ezarri du, eta baita erreziklaia eta eguneratze ikastaroak egin behar dituztela ere.”*

- **Bulego Judizialak Talde teknikoak laguntza ematea** (12. zk.-ko aholkua)

*“Gaur egun Talde Tekniko guztiak administrari laguntzaile baten laguntza zuzena dute.”*

- **Talde Teknikoetarako bulegoak edo lokalak** (13. zk.-ko aholkua)

Ezarri da profesional guztiak idazgu indibidualak dituztela eta talde guztiak bilerak egiteko gelak dituztela.

- **Itxaroteko gelak** (14. zk.-ko aholkua)  
*“Bilboko Adin txikikoen Auzitegiak, Barroeta Aldamar kaleko lokal berrietara eramán dutenetik, berariaz horientzat den itxaron gela du. Gainerakoetan itxaroteko berariazko “esparruak” daude Auzitegien bulegoetan bertan.”*
- **Hiru lurralde historikoetan estatistika uniformeak egitea** (16. zk.-ko aholkua)  
*“Sailak, 1997an hasita, neurrien betearazpenari buruzko estatistika bakarra egiten du, hau esku hartzeko arloa delako, eta ez dago Adin txikikoen Fiskaltza eta Auzitegien zuzeneko daturik.”*
- **Txosten teknikoén askotarikotasuna beharizanaren arabera** (19. zk.-ko aholkua)  
*“Prozedura hau hiru Lurralde Historikoetan egiten da.”*
- **Talde teknikoaren barruan koordinatzailearen figura txandaka betetzeko ohitura orokorra** (20. zk.-ko aholkua)  
*Sailak eman duen erantzunaren arabera “Adin txikikoen, familia auzitegien eta instrukzio auzitegien eta zigor auzitegien (16-18 urte) epaile eta fiskalen laguntzan lan egiten duten profesionalak berriz antolatu dira (psikologoak, gizarte langileak eta hezleak), eta “Talde Psikosozialak” sortu dira, eta “langileriaren lan-baldintzak arautu dituen dekretuan Lurralde Historiko bakoitzean koordinatzaile bat eta EAE osorako beste bat egotea aurreikusi da.”*
- **Informazioa emateko liburuxkak egitea** (21. zk.-ko aholkua)  
 Sailak esan du neurri hori aztertzen ari dela eta adin txikikoaren zigor erantzukizuna arautuko duen lege berria onetsi ondoren egingo duela.
- **Prozeduraren fase guztietan erabiltzen den denbora murriztea** (23. zk.-ko aholkua) eta **egun bitarteko irekiko neurriak betearazteko erabiltzen diren epeak murriztea** (29. zk.-ko aholkua)  
 Sailaren erantzunean azpimarratu da Arartekoak bere txostena egin zuenetik nabarmen gutxitu direla betearazpenei ekiteko epeak eta hori baieztatzeko 1998 eta 1999 urteetako datuak aurkezten ditu, batez ere hiri neurritan aurreratu dena adierazten dutenak:
  - Erkidegoaren onurarako zerbitzugintzak: “1998an hilabete igaro aurretik kasuen %70 burutzen ari ziren, hasierako elkarrikuskaketak egin ondoren eta betearazteko plan norbanakotua prestatuta. 1999an, eta nahiz eta kasuen kopurua bikoiztu, portzentaia hori mantendu egin da (%69,1). 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera Eusko Jaurlaritzak neurri hori EAE osoan betearazteko erantzukizuna hartu du eta gutxi gora-behera 40 izan dira egitarau hau egiten lagundu duten erakundeak.”
  - Zaintzapeko askatasunak: “1998an kasuen %81ean betearazpena Auzitegiaren jakinarazpena egin eta 15 egun igaro aurretik hasi da. 1999an eutsi egin zaio

*maila horri (%80) eta kasuen %92,8an hil bat igaro aurretik hasi da. 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera Eusko Jaurlaritzak neurri hori hiru Lurralde Historikoetan betearazteko erantzukizuna hartu du.”*

- *Barnetegiratzeak: “Berehala egiten dira eta EAEn bertan dauden zentroetan burutzen dira.”*

- **Asteburuko barnetegiratze neurriak betetzeko bitartekoen egokitzapena** (25. zk.-ko aholkua)

Arartekoaren aholku honi dagokionean, sailak hau adierazi du: *“asteburuko barnetegiratzeak nabarmen hazi dira azken bi urte hauetan. 1999an mota horretako 15 agindu eman dira. Neurri horiek lau zentroan bete dira eta kasu guztietan ondore horretarako diseinatu den plan norbanakotua eta pertsonalizatuaren arabera egin dira.”*

- **Izaera terapeutikoarekin barnetegiratze neurriak betetzeko beharrezkoak diren bitartekoak zuzkitzea** (26. zk.-ko aholkua)

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak ondokoa adierazi du: *“Azken hiru urte hauetan ez da honelako neurririk burutu. Estatu osoan eta baita gure hurbileko eremuan ere neurri hauek salbuespenak izaten dira. Anbulategiko tratamenduak ematen dira; 1999an 9 tratamendu berezi hasi dira psikoterapeutekin.”*

- **Neska-mutikoentzat barnetegi itxiko araubideko neurriak betetzeko beharrezkoak diren bitartekoak zuzkitzea** (27. zk.-ko aholkua)

Gai honi dagokionean esan behar da azken bi urte hauetan ez dela araubide itxiko barnetegiratzerik agindu eta, neurri horiek betetzeko, 12-15 urteko tartean eta 16-18koan, Zumarragako hezkuntza zentroa eraiki dela; hori aurrean abian jartzea aurreikusi da eta gertutzen ari den dekretuan ezarri denarekin bat eraenduko da.

- **Barnetegi araubideko hezkuntza zentroi buruzko liburuxka informatiboa egitea nerabe eta familientzat** (28. zk.-ko aholkua)

Aholku hau betetzeari buruzko iruzkina egin da atal honen hasieran, arartekoak zentroetara egin zituen bisitaldietan hori frogatu zuenean. Hiru liburuxkak, bana zentro bakoitzeko, adin txikikoen auzitegietan daude eta baita zentroetan ere neska-mutilei eta horien familiei emateko.

- **Bitarteko irekiko neurriei buruzko liburuxka informatiboa egitea** (30. zk.-ko aholkua)

Sailak esan du horien diseinua egiten ari dela eta aurtengo bigarren hiruhilekorako egongo dela prest.

- **Barnetegiratze zentroen egituretan hobekuntzaren batzuk egitea** (31. zk.-ko aholkua)

Arartekoaren aholkuan esan zen beharrezkoa zela Ortuella eta Aramaioko zentroetan hobekuntza jakin batzuk egitea. Horietariko batzuk zentroetara egin ziren bisitaldietan



frogatu ziren eta adierazi ditugu arestian ere. Beste batzuk, hesien kasuan gertatu den bezala, Sailaren erantzunean oraindik ebatzteke dauden edota eztabaidatzen eta hausnartzen ari diren arazoan artean azaltzen dira. Hobekuntzak egiteko obrak ezezik, Sailak azpimarratu du *“Sailaren plangintzaren barruan Ortuellan kokatuta dagoen zentroa beste leku batera eramatea aurreikusi dela.”*

- **Barnetegiratze zentroei, baldin eta arautegian ezarri dena betetzen ez badute, aplika dakizkiekeen zehapenak Adin txikikoen Justizia Arautu duen Lege Organikoaren aurreproiektuaren aurreikuspenei egokitzea** (32. zk.-ko aholkua)

Sailak esan du EAeko egoitzazko zentro guztien araubide orokorra gertutzen ari den Dekretuaren bidez arautuko dela eta oraintsu onetsi den adin txikikoen zigor erantzukizuna arautu duen Lege Organikoan ezarri denari egokituko zaio.

Halaber, zehazten du adin txikikoen epaile eta fiskalek egun dauden arautegiak ezagutzen dituztela eta zehapen larria ezartzen duten guztietan horren berri ematen dietela auzitegiari.

- **Barnetegi araubideko hezkuntza zentroetan pribazitate eskubidea bermatzea** (33. zk.-ko aholkua)

Arartekoaren aholku honi dagokionean esan behar da zentroetako hezkuntza proiektu guztietan azaltzen dela eskubide hori eta aztertzen ari den dekretuak eskubide hori eta hori eragingarri izateko bitartekoak aztertzen dituela.

- **Barnetegiratze araubideko hezkuntza zentroetan baimenik gabeko ausentzien kasuan jarduteko arauak erregulatzea** (34. zk.-ko aholkua)

Arartekoak proposatu zuen aholkuak arau horiek idatziz erregulatzeko eskatu zuen, eta hori eskumenak dituen agintaritzak egin behar duela. Erregulazio hori protokolo baten bidez egin da eta horretan bi egoera bereiztu dira: baimen edo jarduera baten ihes egitea eta ez itzultzea. Sailaren erantzunaren arabera, prozedura hau da:

- *“Adin txikiko, familia edo jarduera egiten zuen tokiarekin komunikatzeko ahalegina egitea (ordu 1).*
- *Gertatu den inguruabarrari buruzko fitxa betetzea eta erregistratzea.*
- *Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari horren berri ematea.*
- *Eskumenak dituen Adin txikikoen Auzitegiari jakinaraztea.*
- *Gertatu denari buruzko txostena egitea.”*

- **Tutoretza bikoitzeko sistema barnetegiratze araubideko hezkuntza zentroetan** (35. zk.-ko aholkua)

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak esan du egungo zentroen ezaugarriak eta tamainak kontuan hartuta ez duela beharrezkotzat jotzen tutoretza bikoitzeko sistema. Horrekin batera, eman digun erantzunean, jarraipena eta hurbileko harremana bermatzen duten antolakuntzako beste elementu batzuk daudela adierazi du (zuzendaritza pedagogikoa, koordinatzailea, gainikuslea).

- **Trantsizio-egitaraua diseinatzea eta aplikatzea** (36. zk.-ko aholkua)

Sailak, bere erantzunean, esan du egitarau hori bere jarduketan planean bilduta dagoela eta 2000ko ekitaldiko aurrekontuetan hori abian jartzeko aurrekontuko partida zehatza sortu dela.

- **Esku hartzeko mekanismoen hobekuntza** (37. zk.-ko aholkua)

Sailak eman digun erantzunean esan du bereiztu egiten dituela barnetegiratze kasuetan eta bitarteko irekiko neurrien kasuetan gertatzen diren esku hartzeko mekanismoak. Azken horiei dagokienean esan du *“Bitarteko irekiko neurriei dagokienean, kasu guztietan adin txikikoarekin eta bere familiarekin egiten den lehen bileran garatuko den plana azaltzen zaie, eta bakoitzari dagokion betebeharra zein den. Bigarren unean norbanako mailako hezkuntza proiektua egiteko harremanak gauzatzen dira (L.V. eta T.A.) edo Prestazioa Beteazteko Plana (P.S.B.C.). Hori gertutu ondoren adin txikikoari eta bere familiari aurkezten zaizkie ezagutu dezaten eta onespena eman dezaten. Egitarauaren garapenean zehar harremanak izaten dira, aldiro, horren garapena aztertzearen ondoretarako eta, hala denean, beharrezko aldaketak egiteko. Azkenean, ebaluazioa egiten da eta horretan ere alderdi guztiek parte hartzen dute.”*

- **Erreklamazioak egiteko bide formalak** (38. zk.-ko aholkua)

Sailak Arartekoaren aholku honi eman dion erantzunak ere onetsita dagoen lege berria eta laster onetsiko den dekretu berria jartzen ditu erreferentziatuz; aholkuak ezarri du beharrezkoa dela neurriak betearaztea arautuko duen araudian berariaz eta argi erreklamazioak egiteko bideak azaltzea.

- **Beharrizan profesionali egokituta dagoen prestakuntza iraunkorra** (39. zk.-ko aholkua)

11. zenbakiko aholkuari dagokionean eman den erantzunaren osagarri gisa, Sailak adierazi du prestakuntza iraunkorra zerbitzuak kontratatzeko pleguen oinarrietan azaltzen dela eta egoitzazko zerbitzuei buruzko etorkizuneko dekretuan profesionalen eskubide horiek eta Gobernuak horiek bermatzeko duen erantzukizuna azaltzen direla, hala zuzeneko prestakuntzako egintzen bidez nola erakunde bakoitzarekin sinatuko diren hitzarmenen bidez.

- **Hezkuntzako zerbitzuen arteko lankidetzak** (40. zk.-ko aholkua)

Gai hau arestian ere aztertu dugu, atal honen 3. idatz-zatian alegia. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak Sailaren jarrera ondoko paragrafo hauetan islatzen dena da:

*“Abiaburu bezala, oso konplexua da sistematik kanpo denbora egin duten eta horien jardunbideari egokitzeko arazoak dituzten mutil eta neskek egungo hezkuntza zerbitzuetan integratzea.*

*Mutil eta neska askoren kasuan ez dago eskolaratze beharrizanari erantzuteko diseinaturiko mekanismorik. Gaur egun jorratu behar den bidea kasuz kasu negoziatzea eta erantzutea da, askotan tutore, zuzendari eta abarren borondate eta jarrera pertsonalari lotuta eta bestelako faktore objektiboagoak kontuan hartu gabe.*

Beharrezkoa litzateke sistema malguagoa izatea pertsona hauei jaramon egiteko, kontuan hartuta pertsona hauek ondoko ezaugarriak dituztela: eskolan atzeratuta daude; arauen arloko arazoak dituzte; ohiturak eta trebeziak falta zaizkie; zentroetara beste data batzuetan iristen dira, etab., eta benetan esku hartzeko moduko egitarauak eskaini behar zaizkie (egokitzapenak).

*Zentroei dagokienean Hezkuntza Saileko pertsonalak berak izan beharko luke horien ikasgeletako arduradun, legez aintzatetsita dagoen eskubidea delako eta egun Sail horrek ez duelako hori bermatzen.*

- **Gizarte Zerbitzuen lankidetz**a (42. zk.-ko aholkua)

Sailaren erantzunean hauek esan dira:

- *“Lankidetz*a estua dago gizarte zerbitzuekin hala barnetegietako kasuetan nola zaintzapeko askatasun kasuetan eta P.S.B.C.-etan ere.
- *Koordinazio hori gora-behera, zailtasun oso handiak daude euskarri familiar eta sozial ona ez duten nerabeei auzitegiko neurriak bukatzen direnean eta laguntza horiek falta zaizkienean arreta emateko.*
- *Derrigorrezkoa da sarritan ohiko zerbitzuetan integratu ezin diren nerabe hauen eskari eta beharriaz aurre egiteko gauza izango diren egitarauak zehaztea eta abian jartzea.*”

- **Neurriak betearazteko diren zentro eta zerbitzuen aldiroko kontrola** (43. zk.-ko aholkua)

Sailaren erantzunean gaur egun dauden kontrolerako mekanismo batzuk aipatu dira: jarduerari buruzko hileroko txostenak, balorazioa eta ebaluazioa egiteko bilerak hiruhilero, zentroak aldiro bisitatzea, arduradunekin hilero biltzea, kasuen jarraipena egitea...

Halaber, ondokoa esan dute: *“sistema hobetzearen ondoreetarako neurri guztien jarraipena egiteko parametro objektiboen ebaluaziorako sistema “estandarra” ari gara diseinatzen. Sistema hau, bukatuta dagoenean, datorren urtean jarriko da abian.*” Eta ondokoa gogorarazi du: *“Zentroei buruzko dekretuak Gazteen Justizia Zerbitzuaren kanpoko ikuskatzailletza sistema abian jartzea aurreikusit du.*”

- **Zerbitzuen ebaluazio koalitatiboa** (44. zk.-ko aholkua)

Arartekoaren aholku honi dagokionean, zentro bakoitzak dituen barneko ebaluazio mekanismoak gora-behera, Sailak esan du *“zerbitzu guztietarako eredu orokor eta kanpoko zehaztu behar da.*”

Arestian ere esan den moduan, Arartekoak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantz

Sailari 1997, 98 eta 99 urteetan hartu diren neurrien betearazpenari buruzko datuak emateko eskatu zion. Eman diren datuak ondoko taula honetan bildu dira:

**AZKEN HIRU URTE HAUETAN BURUTU DIREN NEURRIAK**

	<b>1997</b>		<b>1998</b>		<b>1999</b>	
	<b>GUZTIRA</b>	<b>PORTZEN-TAIA</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>PORTZEN-TAIA</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>PORTZEN-TAIA</b>
Artekaritza/Lehengoratzea	94	26,8	158	39,9	220*	45,1
Ohartarazpenak	120	34,2	97	24,5	60**	12,3
Zaintzapeko askatasuna	53	15,1	60	15,2	56	11,5
Erkidegoaren aldeko zerbitzugintza	53	15,1	39	9,8	77	15,8
Anbulategiko tratamendua	4	1,1	3	0,8	9	1,8
Asteburuko barnetegiratzea	5	1,4	8	2	15	3,1
Zentroan barnetegiratzea	22	6,3	31	7,8	51	10,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>351</b>	<b>100</b>	<b>396</b>	<b>100</b>	<b>488</b>	<b>100</b>

\* Zenbatespena, lehen seihilekoko datuak kontuan hartuta egin dena.

\*\* Zenbatespena, 1998ko datuen arabera.

Beraz, hala aurreko koadroan bildu diren neurrien bilakaerari buruzko datuei nola Arartekoak bere aparteko txostenean egin dituen aholkuen zati handia betetzeari buruzko informazioei esker eman diren urrats horiei buruzko balorazio positiboa egin daiteke.

Beste alde batetik, adin txikikoen zigor erantzukizuna arautu duen urtarilaren 12ko 5/2000 Lege Organiko onetsi berriak, zorionez, amaiera eman dio Zigor Kodea onetsi zenetik egon den behin-behinekotasun egoerari, eta Arartekoak bere txostenean horren beharizan eta presazkotasuna azpimarratu zituen.

Arauen garapenaren ildo horretatik jarraiki, erakunde honek itxaropenak ezarri ditu Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren erantzunetan behin eta berriz azaltzen den zentro eta zerbitzuei buruzko dekretuaren onespenean eta aplikazioan.

### 1.1.7. **ERTZAINTZAREN ZIEGEN ETA UDAL GORDETEGIEN EGOERAREN JARRAIPENA**

1990ean Arartekoak udal gordetegiaren eta Ertzaintzaren ziegen egoerari buruzko txostena egin zuen, zertarako-eta Legebiltzarrari eta gizarte osoari zentro horien egoeraren berri emateko, horietan atxilotuta dauden pertsonen orduak egiten dituztelako, baita egunak ere, askatasuna berreskuratu arte edo auzitegiko agintarien eskuetan utzi arte.

Txostenaren sarreran, lehenengo eta behin, zentro horien jasotzailea nor den edo nork izan behar duen galdetzen genuen, galdera horrek izango duen erantzunaren arabera aldatu egingo direlako administrazio ukituentzat egin daitezkeen ondoreak eta aholkuak. Izan ere, ez da gauza bera zentro horien erabiltzaileak atxilotuak baino ez izatea, edota horietan iraupen laburreko askatasunik gabeko zigorretara kondenatuta dauden pertsonak egotea, espetxean sartzea ekidinez.

Txostena aurkeztu eta gero, 1995ean, Zigor Kodearen 37. artikuluan ezarri zen asteburuko atxilotuta udal gordetegietan egin daitekeela baldin eta pertsona zigortua bizi den barruti judizial horretan espetxerik ez badago.

Zigor Kode berria indarrean jarri ondoren egin genituen jarraipen-bisitaldietan antzeman da Udalek ez dutela egitura egokirik arestian adierazi den legezko agindu hori betetzeko.

1999an zehar bisitaldiak egin genituen atxikoleta-zentro horiek ikusteko eta horien deskribapena egingo dugu.

#### **A) Atxilotuentzako udal gordetegiak**

##### **Portugalete**

Bisitaldiaren ardatza -nahiz eta landu zen arlo bakarra ez izan- ziega erabilera duten tokiak behatzea izan zen, eta ondoko hauek antzeman genituen:

a) Ziegen aldea Udaltzaingoaren zerbitzuetarako eraikinaren beheko solairuan dago -erdisotoa-. Sarrera lokabea du eta horrela pertsona atxilotuak zuzenean heltzen dira bertara poliziaren ibilgailutik, eta hori ezaugarri positibotzat jo behar da.

b) Sei ziega indibidual dauden arren, esan ziguten horietariko bat biltegi gisa erabiltzen dela, eta, beraz, bost baino ez daude erabiltzeko moduan. Horietatik bi baino ez dira tamaina egokia dutenak, eta horien azalera, gutxi gora-behera, 3,50 m x 2 m-koa da, eta altuera 2,50m-tik gorakoa; gainerakoak txikiegiak dira eta biren kasuan -1. eta 2. zenbakiak dituztenak- sabaia oso baxua dute. Gela horien gainjanzkidura osoa baldosazkoa da. Altzari bakarra ertza biribilduta duen eta hormari itsatsita dagoen apal antzekoa da. Pertsona atxilotuari bi manta ematen zaizkio eta, esan zigutenaren arabera, behin erabili eta botatzekoak diren arren, gehiagotan ere erabiltzen dituzte. Guk geuk ikusi genuen ziega baten itxuraz erabilita zegoen manta bat zegoela, tolestu gabe. Atxilotuei ez zaie koltxonetarik zuzkitzen.

Adierazi diren gai horiei buruz, nahitaez gogorarazi behar da Torturaren Aurrearretarako Europako Batzordeak (CPT) Gobernu espainiarrari 1994an igorri zion txostenean ezarri zela gaua igartzeko erabiltzen diren ziega indibidualen kasuan aholkatzen den azalera, gutxi gora-behera, 7 m<sup>2</sup>-koa dela, eta hormen arteko distantziak

2 metrokoak izan behar duela. Halaber, erakunde honek 1990ean atxiloketa-zentroei buruz egin zuen txostenean, arestian ere adierazi den horretan, gutxieneko espazioa 6 m<sup>2</sup>-koa izatea aholkatu zen. Ondorioz, ziega horietatik hirutan tamaina txikiegia da eta, beraz, ez dira erabili behar. Pertsona bat baino gehiago atxilotzen diren kasuetan ziega horietan egingo diren egonaldiek oso motzak izan behar dute.

Gainerako materialei dagokienean, txosten horretan ezarri zen hobe zela mantak behin erabiltzekoak eta botatzekoak izatea -behin erabilia alegia- eta egon daudela material suhargaitzez eginda dauden koltxoiak edota gai ignifugoz trataturik daudenak.

Ateak metalikoak dira eta metakrilatozko leiho txikia dute. Ziegen alde horretan ez dago argiztapen naturalik eta ziegen argiztapena ez da nahikoa, lanpara -hormaren barruan sartuta dagoena- oso lodiak diren baldosa garden batzuekin babestuta dagoelako. Ziega txikietariko baten -2. zk.- ia ez zegoen argirik. Nahitaez hobetu behar da arlo hori eta, ildo horretatik, komeni da argiaren intentsitatea graduatzeko aukera egotea bai lo egitea eta bai irakurtzea bideratzeko.

Eraikinaren gainerako ataletan gertatzen ez den bezala, ziegen alde horretan ez dago inolako berokuntza sistemarik. Udarako airea berritzeko sistema bat baino ez dago.

c) Instalazio sanitarioei dagokienean, komun bakarra dago -hiru esparrutan banatuta- eta horrek komuneko zuloa, dutxa eta bi konketa ditu. Lehenengo bietan pertsona atxilotuaren intimitatea tolestu egiten diren zurezko ate batzuen bidez bermatzen da, altuera ertainekoak alegia. Bisitaldia egin genuen unean xaboa eta paperezko toailak zeuden, baina itxura ez zen garbitasunezkoa, horman berogailu bat edo antzeko zerbait instalatu berri zegoelako.

d) Segurtasun sistemei dagokienean, ziegen esparru horretan ez dago jendearen zaintza iraunkorra egiten duen zerbitzurik, nahiz eta txirrina eta telefono bat egon goiko pisuetan dauden bulegoekin komunikatzeko. Behar bada, komeniko litzateke TBko zirkuitu itxia instalatzea, ziegetara heltzen den igarobidean kamerak jarriz, baina ez horien barruan, pertsona atxilotuak etenik gabe zaintzea eta ikustea ez delako egokia eta horien intimitatearen aurkako erasotzat ere jo daitekeelako.

Alde horretan ez dago kea antzemateko inolako detektagailurik eta nahiz eta alboko garajea ur paldo bat egon, komeniko litzateke mentsa horiek estaltzea.

e) Atxiloketaren aldian zehar erabiltzen diren gainerako tokiei dagokienean, atxilotua miazteko edo erregistratzeko eta datuak jasotzeko dilijentzia egiteko erabiltzen den gela bat dago.

Eman ziguten informazioaren arabera, dilijentziak eraikinaren lehen solairuan egiten dira. Atxilotuaren adierazpena, eta baita horren ostean abokatuarekin egiten den elkarrikuskaketa ere, bilerak egiteko ere erabiltzen den gela baten egiten dira. Dirudienetz areto edo gela horretan -ziegetatik igaro gabe- egoten dira adingutxikoak diren atxilotuak eta uste dugu hori zilegi dela, nahiz eta horrelako kasuetan ahalegina egin behar den horrelako atxiloketak ahalik eta gehien murrizteko.

Ziegetatik solairu horretara iristeko eskailera tarte batzuk daude, nahiko aldapatsuak; ezaugarri hori kendu behar den arkitekturako oztopoa da. Gauza bera gertatzen da sarrera nagusitik salaketak jasotzen diren gelaraino dagoen tartean.

f) Hobetzeko modukoak diren jardunbideko beste alderdi batzuk daude, horrela ematen den herri zerbitzuaren kalitatea areagotzea lortu daitekeelako.

Alde batetik, atxilotuei ematen zaizkien jakiak daude. Esan zigutenaren arabera bazkaria eta afarria otartekoak izaten dira. Esan behar da praktika hori egokia dela edo onartu egin daitekeela atxilotetaren aldia motza denean baina, hori luzatzen bada, gutxienez egunean jatordu bero eta oso bat eman behar da.

Beste alde batetik, erregistro liburuei dagokienean, formatu bera duten bi liburutan egiten dira idaztoharra: bat atxilotu eta identifikatuena, eta horretan komisaldegiko sarrera eta irteera dilijentziak baino ez dira idazten, eta beste bat - "telefonemena" deritzona- poliziaren jarduketa guztiak islatzen dituena. Uste da egokia dela gutxienez atxiloteten erregistroa liburu bakarrean bateratzea, eta atxilotu bakoitzeko idaztohar bakarra egotea -hau da, kontsulta batekin urteko kopurua jakiteko aukera egon dadin-, eta horretan atxilotetan zehar gerta daitezkeen inguruabar guztiak islatzea (sarrera eta irteera orduak, medikuntza azterketak, eman zaizkion botikak, dilijentziak egiteko irteerak, bisitaldiak, abokatu edo interpretariaren laguntza, etab.).

Atxilotuari eskubideen berri emateko dilijentziari dagokionean, egon dagoen aktaren idazkuntza zuzena da, nahiz eta lehen paragrafoaren azken atalean hobetzeko aukerarik egon, EKLren 520. artikuluan ezarri denaren arabera pertsona ukituari nahitaez eman behar zaiolako honen berri: "*egozten zaizkion **egintzak** eta askatasunaren galera hori eragin duten **arrazoiak***", eta ez egozten zaion delituaren izena. Hau da, beste era batera esanda, bermatu egin behar da pertsonak egintzak ezagutzen dituela, ez horiek duten kalifikazio juridikoa.

Beste alde batetik, beharrezkoa da Udaltzaingoak eskubideen informazioa emateko akta hori euskaraz idatzita ere edukitzea, baldin eta pertsona atxilotuak hizkuntza hori erabiltzea hautatzen badu.

Arartekoak uste du *in situ* egin diren azterketa horien arabera esan daitekeela Portugaleteko udal gordetegan hobetu behar diren alderdi batzuk daudela. Horregatik, 1999ko ekainaren 9an Alkateari horren berri eman zion eta adierazi zion bidegabea dela orduak askatasunik gabe atxilotuta egongo dituzten pertsona horiek duintasunaren aurkako baldintzetan egotea. Hori gora-behera, igaro den denbora eta egin zitzaion agindeia hor egon arren, ez dugu erantzunik jaso.

### **Getxoko udal gordetegia**

95ean poliziaren egoitza lekuz aldatu zen eta, horri esker, zerbitzugintza hau nabarmen hobetu da. Dena dela, azaroan egin zen bisitaldian ondoko ohar hauek egin genituen:

a) Gaur egun ziegen esparrua poliziaren zerbitzuak atzematen dituen eraikinaren sotoan dago. Sarbide lokabea dago eta pertsona atxilotua zuzenean heltzen da bertara poliziaren ibilgailutik, eta hori maila positiboan neurtu behar da. Dena dela, adierazi den tokitik beheko solairura heltzeko, adierazpenak egiten diren tokira, eta baita argazkiak eta hatz-marken dilijentzia, bi eskailera tarte daude eta ez da aurreikusitako beste bitartekorik gaigabezia fisikoak dituzten eta arkitekturako oztopo hau gainditu ezin duten pertsonentzat, eta hori beharrezkoa litzateke.

b) Lau ziega indibidual daude eta horien azalera 2,15 m x 1,75 m-koa da; ziega horietan apal bat dago, ertza biribilduta duena eta hormari itsatsita, eta elementu hori da altzari bakarra. Pertsona atxilotuei mantak eta maindireak ematen zaizkie eta esan

zigutenaren arabera erabili ondoren aldatu eta garbitu egiten dira. Koltxonetak material suhargaitzekoak ziren, baina itxuraz zikin zeuden.

Adierazi diren gai horiei buruz, nahitaez gogorarazi behar da Torturaren Aurrearretarako Europako Batzordeak (CPT) Gobernu espainiarrari 1994an igorri zion txostenean ezarri zela gaua igarotzeko erabiltzen diren ziega indibidualen kasuan aholkatzen den azalera gutxi gora-behera 7 m<sup>2</sup>-koa dela, eta hormen arteko distantziak 2 metrokoak izan behar duela. Halaber, erakunde honek atxiloketa-zentroei buruz egin zuen txostenean gutxieneko espazioa 6 m<sup>2</sup>-koa izatea aholkatu zen. Ondorioz, ziega horien egungo tamaina aholkatzen dena baino txikiagoa da. Gainerako materialei dagokienean txosten horretan adierazi da hobe dela mantak behin erabiltzekoak eta botatzekoak izatea, eta egon daudela material suhargaitzez eginda dauden koltxoiak edota gai ignifugoz trataturik daudenak, eta azken ezaugarri hori betetzen dute.

Hormen gainjanzkidurari dagokionean garbitzeko moduko pintura erabili dute, eta uste da material hori egokia dela; halaber, esan behar da itxura orokorra onargarria izan arren garbiketa gehiago zain daitekeela, batez ere sabaien kasuan. Ateek metakrilatoz estalita dagoen zulotxo bat dute. Argiztapen naturala ez da ziegetara heltzen eta ondorioz horien argiztapena elektrikoa da. Argiztapen hori ez da nahikoa irakurtzeko eta komeniko litzateke horren intentsitatea graduatzeko modukoa izatea, lo egin nahi duenari eragozpenik ez eragiteko

c) Bainugela edo komunei dagokienean, komun bakarra dagoela esan behar da eta horretan komuneko zuloa, dutxa eta konketa daude. Pertsona atxilotuaren intimitatea era egokian babesten da altuera ertaineko trenkadak daudelako. Bisitaldia egin genuen unean xaboa zegoen.

d) Segurtasun sistemei dagokienean, ziegen alde horren zaintza, jendearen bidez, garajeen esparrutik egiten da. Ziega bakoitzak bere interfonoa du eta horien bidez zilegi da kontrol ekipoarekin zuzen komunikatzea. Halaber, TBko zirkuitu itxia instalatu da eta kamerak daude ziegen barruan atxilotuen kontrol iraunkorra egiteko. Inguruabar horrek zaintza eraginkorra eta pertsona atxilotuaren intimitateari zor zaion begirunearen arteko interesen gatazka gogorarazten digu. Dirudienez, berariaz oso arriskutsuak diren subjektuen aparteko kasuetan izan ezik -hori aztarna objektiboetan oinarrituta egiten den apreziazioa da- pertsonen gutxieneko intimitateak izan behar du lehentasuna. Kontuan hartu behar da ohikoa dela -nahiz eta batzuetan hori erabat bidezkotuta ez egon- atxilotuei arriskutsuak izan daitezkeen objektu pertsonalak kentzea, gerrikoa edo oinetakoen kordelak barne, eta ondorioz eraso edo norik bere buruari zauriak eragiteko arriskuak murrizten direla. Horregatik guztiagatik badirudi egokiagoa dela kamera horiek igarobideetan jartzea edo, gutxienez, ziegen barruko zaintza iraunkorra ez izatea.

Aztertu den alde horretan ez da kea atzemateko gailurik ikusten, eta hori egokia litzateke; alhoan dagoen garajeen aldean suitzalgailuak instalatu dira, baina komeni da mentsa hori gaintitzea.

e) Ziegen aldeak esparrua du erdian, banagailua-edo dena, eta bertan mahai bat eta lau aulki daude, pertsona atxilotuek jatorduak egiteko direnak. Gela horretan leiho txiki batzuk ireki dira aireztapena hobetzeko eta argi naturalari sartzen uzteko .

Nahiz eta atxiloketen aldia ez den 24 ordura heltzen, askatasunik ez duten pertsona horiei jaki beroak ematen zaizkie, eraikinetik hurbil dagoen udal egoitzaetik ekartzen zaizkiena alegia. Uste dugu neurri hori oso egokia dela.



Pertsona atxilotuaren miaketa edo erregistroaren dilijentziari dagokionean, ziegetan bertan egiten da eta kentzen zaizkien objektuak eraikinaren beheko solairuan dagoen takiletan gordetzen dira.

f) Ematen den zerbitzu horren kalitatea hobetzeko eta areagotzeko hobetu egin daitezkeen jardunbideko bi alderdi adierazi behar dira.

Erregistro liburuei dagokienean, balorazioa, oro har, zuzena da. Gauza bakarra adierazi behar da, ez dela beti islatzen atxiloketa bukatzen den ordua: "Atxiloketa" liburuan inguruabarrak islatzen dira, eta baita zaintza egiten duten agenteen identifikazioa eta abar ere, baina ez da berariaz azaltzen atxiloketa noiz bukatzen den. Batzuetan datu hori "Ziegako Liburuan" idazten da, irteeraren dataren azpian, baina ez beti.

Atxilotuari eskubideen berri emateko dilijentziari dagokionean, egon dagoen aktaren idazkuntza zuzena da, baina esan behar dugu EKLren 520. artikuluan ezarri denaren arabera pertsona ukituari nahitaez eman behar zaiolako honen berri: "**egozten zaizkion egintzak eta askatasunaren galera hori eragin duten arrazoiak**", eta ez egozten zaion delituaren izena. Hau da, beste era batera esanda, bermatu egin behar da pertsonak egintzak ezagutzen dituela, ez horiek duten kalifikazio juridikoa, eta horregatik aktaren lehen paragrafoan zuzendu behar da.

Beste alde batetik, beharrezkoa da Udaltzaingoak eskubideen informazioa emateko akta hori euskaraz idatzita ere edukitzea, baldin eta pertsona atxilotuak hizkuntza hori erabiltzea hautatzen badu.

Bukatzeko, Arartekoak esan du ezagutu nahi duela ea Udalak atxilotuen udal gordetegia egokitzeko aurreikuspenik egin duen, zertarako-eta horietan asteburuko atxiloketak betetzeko aukera egon dadin. Ematen du hala higiezinaren egiturak nola eraikinak lorategia edukitzeak aldarazpen hori bideratzen dutela eta horrela Getxoko herritarrek ez luketela Basauriko espetxera joateko beharrianik edukiko askatasunik gabeko zigor hori betetzera.

Arartekoak uste du iradokizun eta aholku hauek betez zerbitzugintza eta pertsona atxilotuen baldintzak hobetuko direla eta, ondorioz, kontuan hartzea itxaroten duela adierazi du

### **Azpeitiko udal gordetegia**

Alkateak, Arartekoak atxilotuen gordetegiko instalazioak bisitatzeko erakundearen eskuordeak joango zirela adieraziz igorri zion eskutitzari egin zion erantzunean, jakinarazi zigun udal gordetegiak ez zuela instalazio egokirik bertan pertsona bat atxilotuta edukitzeko eta atxilotuek bertan ordu batzuk baino ez dituztela egiten, harik eta Ertzaintzaren eskuetan jarri arte. Bukatzeko, eskerrak ematen zituen erakundearen lanagatik eta Arartekoari jakinarazi zion gordetegia ez dela inoiz erabili epaileen epaiak betetzeko, eta ez zegoela horretako inolako aurreikuspenik.

Dena dela, ez zuen aipatzen aurreikusita zegoenik instalazio horiek ixtea eta, beraz, urrian bisitaldia egin zen horiek ezagutzearen ondoretarako eta pertsona atxilotuek bizi behar dituzten baldintza horiek frogatzeko.

Bisitaldian frogatu zen gordetegiak ez duela sarbide lokaberik. Beraz, gerta daiteke bertan salaketa egin duen pertsona eta pertsona atxilotua batera suertatzea, eta hori ez da egokia.

Bi ziega daude eta ez dute argi naturalik, eta artifiziala ezin da erregulatu eta kanpotik baino ezin da piztu eta itzali. Ziegen izariek -2,15 x 2,80 metro- ez dituzte

arestian ere adierazi den Torturaren Aurrearretarako Europako Batzordeak Gobernu espainiarrari igorri zion txosten horretan ezarri diren gutxieneko baldintzak betetzen, gogorarazten dugulako horretan ezarri dela azalera gutxi gora-behera 7 m<sup>2</sup>-koak izan behar duela; halaber, ez du betetzen Arartekoak atxiloteta-zentroei buruz egin zuen txostenean ezarri zuen gutxieneko espazioaren baldintza, kasu honetan 6 m<sup>2</sup>-koa.

Bisitaldian zehar ez genuen jakin urtean zehar zenbat pertsona atxilotzen diren, edota ziega horietan egiten duten denbora.

Hala Alkatearen adierazpenengatik nola *in situ* egin genituen iradokizunengatik, Arartekoak Azpeitiko atxilotuen gordetegia ixteko aholkua egin du.

### **Laudioko udal gordetegia**

Ez du sarbide lokaberik eta gordetegira iristeko udalaren bulegoak zeharkatu behar dira. Gaur egun dauden bi ziegetatik bakarra erabil daiteke, bestea, gaueko zaintza zerbitzua utzi zenetik, armak gordetzeko erabiltzen delako.

Bisitaldia egin zen unean alboko gela batean instalatuta zeuden konketa eta komuneko zuloa ezin ziren erabili eta esparru hori biltegi moduan erabiltzen zen.

Udaltzaingoaren lokalak zaharberitu egin daitezke horrela zerbitzu egokiagoa emateko, baina atxilotuen gordetegia itxi egin beharko litzateke, bai dituen ezaugarriengatik eta baita duen erabilera eskasagatik ere (2 atxilotu 1999an).

### **B) Ertzaintzaren ziegak**

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak obra oso garrantzitsuak egin ditu ziegak egokitzeko eta gaitzeko, zertarako-eta horien tamaina eta baldintzak Torturaren Aurrearretarako Europako Batzordeak (CPT) Gobernu espainiarrari 1994an igorri zion txostenean ezarri diren irizpideei egokitzeko.

1999an Gernika eta Basauriko Ertzaintzaren ziegak bisitatu ditugu.

### **Gernikako Ertzaintzea**

Txalet birgaitua da, Gernikako hiri bilbaduraren barruan dagoena. Ziegak higiezinaren sotoetan daude eta ibilgailuentzako sarbide zuzena dute, ezaugarri egokia beraz.

Dena dela, eraikinak ez du igogailurik eta lehen solairura igotzeko 16 maila dituen eskailera gainditu behar da, eta ez da inolako instalaziorik aurreikusi arkitekturako oztupo hori ezabatzeko.

Ziegak indibidualak dira, 6 m<sup>2</sup>-koak gutxi gora-behera. Garbitzeko moduko pinturaz gainjantzi dira eta altzari bakarra ertz biribilduak dituen apala da. Ez dute argiztapen naturalik eta instalatu den artifiziala erregulagarria da, atsedena eta irakurtzea bideratzen duena. Dena dago berri-berri eta oraintsu pintaturik.

Ziegen atetariko baten metakrilatoaren antzeko material batez gainjantzi diren barroteak jarri dira. Gainerakoetan atxilotuak zaintzeko aukera ematen duen leihotxo bat instalatu da. Baina komuneko atean, seguruenik intimitatea erreserbatzeko, ez da leihotxo hori jarri eta beraz ezin da zaintza hori burutu. Mentsa hori gainditzeko eta, intimitate horri eraso egin gabe, atxilotuen segurtasuna bermatzeko bidezko neurriak hartzeko aholkua egin dugu.

Urtero egiten diren atxilotetak gutxi izan arren eta atxilotuek poliziaren lokal horietan benetan derrigorrezkoa den denbora baino egin ez arren, Herrizaingo Sailari gogorarazi diogu atxilotuei gutxienez jatordu bero bat eman behar zaiela egunean.

Halaber, ziegen alde horretan suitzalgailuak instalatzeko aholkua egin zaio, bisitaldian antzeman zelako ez zegoela. Horregatik, baldin eta beharrezana balego, poliziaren beste lokal batzuetatik ekarri beharko lirateke eta horrek atxilotuentzako arriskua dagoela esan nahi du.

### **Basauriko Ertzainetxea**

Bisitaldiaren xedea komisaldegi horren instalazioak ezagutzea izan zen; ertzainetxe hori biztanle asko dituen eta Bilbotik hurbil dagoen udalerrri baten dago.

Ziegen aldea eraikinaren sotoan dago eta ibilgailuak sartzeko sarrera lokabea du; halaber, adierazpenak, abokatuarekin elkarrikuskaketak, argazkiak hartzeko eta ezagutza-saioak egiteko bulego egokiak ditu. Baina, hori gora-behera, komisaldegiko arduradunaren adierazpenen arabera, froga hori oso gutxitan egiten da poliziaren lokaletan.

Alde horretan 13 ziega indibidual daude eta justu-justu dira 6 m<sup>2</sup>-koak, hau da, erakunde honek atxiloteta zentroetarako gutxienezkotzat jo zuen izarikoak dira eta Torturaren Aurrearretarako Europako Batzordeak Gobernu espainiarrari 1994an igorri zion txostenean aholkatu zuen gutxienezko azalera horretatik urrun samar daude, testu horretan gaua pasatzeko ziegetarako aholkatzen den azalera 7 m<sup>2</sup>-koa zelako. Talde ziegak 16 m<sup>2</sup> ditu eta klaustrofobia kasuak ekiditeko barroteak ditu.

8 ziegetan argia naturala da eta bisitaldia egin zenean antzeman genuen gehien erabiltzen dituztenak direla, pinturazko gainjanzkidura gainerako ziegetan baino askoz narriatuago zegoelako. Dena dela, ziegaren itxura, oro har, zikina zen, pinturak denbora igarotzerakoan normala den narriadura azaltzen zuelako eta, beraz, lokal guztiak pintatzeko aholkua egin zitzaion. Halaber, ohartarazi zitzaion igarobidearen zoruak ere tratamendu berezia behar zuela, oso higatuta eta zikin zegoelako.

Argi artifiziala ziegen kanpoaldean dago eta ezin da erregulatu. Ezaugarri hori aldarazi egin behar da atsedena eta irakurtzea errazteko.

Sailari esan zaio hobe dela mantak erabili eta botatzekoak izatea -behin erabilia- eta koltxoiek material suhargaitzezkoak izan behar dutela, edo gai ignifugoz tratatu behar direla.

Ziegak desinfektatu egin behar dira erabili ondoren, oro har erabiltzen diren garbiketara eta desinfekzio sistemak gora-behera. Bisitaldia egin genuen unean antzeman genuen ordu batzuk lehenago erabilia zegoen batean oraindik mantak zeudela eta ez zegoela aurreikusita hura desinfektatzerik.

Komunetako instalazioak duela bi urte zaharberritu zituzten: altura ertaineko hormak jarri zituzten pertsona atxilotuen intimitatea zaintzeko. Bisitaldia egin genuenean norberaren garbiketarako tresnak zeuden.

Halaber, segurtasun neurriak hobetzeko aholkua egin da, ziegen artean dagoen igarobideak, 20 bat metro dituenak, ez duelako kea detektatzeko sistematik.

Atxilotuen kontrola agente baten zaintza pertsonala eta zuzenaren bidez egiten da. Halaber, telebistako bi kamera instalatu dira, igarobidearen bi alderdietan, eta horrela zilegi da zaintza pertsona horien intimitateari eraso egin gabe egitea.

### 1.1.8. **BILBOKO SAN FRANTZISKO AUZOAN POLIZIAK ATZERRITARREKIN IZANDAKO ZENBAIT JOKAERA DIRELA-ETA ARARTEKOAK EGINDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA**

#### **A) TESTUINGURUA ETA ERABILI DIREN SEGIMENDU-BIDEAK**

- Bilboko San Frantzisko aldean atzerritarrekiko burututako jarduera polizialei buruz Arartekoak izan duen eskuhartzea 1997an hasi zen. Hasieratik eta 1998 osoan emandako pausoak iazko txostenean laburtu ziren (ikus, Arartekoaren ohiko txostena 1998, 75-117 orrialdeak).

Geroago, 1999ko ekainaren 17an, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean, pauso guztien berri zehatza ematen zuen beste txosten mardula aurkeztu zuen Arartekoak.

Bestalde, Eusko Legebiltzarrak 1999ko maiatzaren 20ko Osoko Bilkuran Bilboko San Frantzisko auzoko gatazka-egoerari buruzko legez besteko proposamena aztertu eta onartu zuten, eta honako erabaki hau hartu zuen, besteen artean:

*“3.- Legebiltzarrak eskatzen du aplikatu daitezela Arartekoak bere txostenean (“Bilboko San Frantzisko zonan atzerritarrekiko burututako jarduera polizialak” izeneko zatian) azaldu dituen gomendioak, eta, aldi berean, inplikaturik dauden administrazioek gomendio horiek burutzeko konpromisoa har dezatela. Puntu hori egiaztatzeko, Arartekoari eskatzen diogu bere gomendioak zenbateraino bete diren informatu eta bere ebaluaketa aurkez dezala sei hilabete barru.”*

Beraz, Legebiltzarraren erabakien 3. puntuan honako eskaria egin zitzaion Arartekoari: sei hilabeteko epean, bere gomendioak zenbateraino bete diren adierazi eta horien inguruko ebaluaketa egin zezala. Dena den, Arartekoak, bideragarritasun eta eraginkortasun arrazoiak zirela-eta, epe hori luzatzeko eskatu zuen, eta Eusko Legebiltzarreko Mahaiak onartu egin zuen bere eskaria irailaren 21ean egindako bileran eta Bozera maileen Batzordearekin bat.

Eusko Legebiltzarrak onartutako erabakia ahalik eta egokien betetzeko, 2000ko otsailaren 29an jarraipen txostena burutu eta Legebiltzarreko Lehendakariari eman dio. Txostenak hauxe du izenburu: *“Bilboko San Frantzisko auzoan poliziak atzerritarrekin izandako zenbait jokaera direla-eta Arartekoak Herrizaingo Sailari eta Bilboko Udalarari egindako gomendioen jarraipena”*; 75 orrialde ditu gaztelarazko bertsioan eta 72 euskarazkoan, eta zazpi eranskinez osatzen da -hauen artean daude Arartekoak Bilboko udalari eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari egindako datu-eskariak eta bi erakundeen erantzun idatziak-.

Beraz, jarraipen txosten osoa dagoeneko Legebiltzarrean dagoenez, hemen laburpen bat baino ez dugu egingo. Jasotako informazio guztia aipatutako txostenean dago; hemen, ordea, informazio horretan oinarriturik Arartekoak egin dituen balorazioetara mugatuko gara.

- **Erabili diren segimendu-bideak.** Teorian, hainbat bide daude aukeran gomendioen jarraipena burutzeko. Baina, praktikan, eskura ditugun baliabideak kontuan hartuta, aukera horiek erabat murrizten dira. Bide guztiak aztertu ondoren,

Arartekoak bost informazio-iturri osagarri erabiltzea erabaki zuen, oso balio desberdinekoak denak:

1. Ertzaintzako eta Udaltzaingoko arduradunen datuak eta balorazioak.
2. Elkarteen datuak eta balorazioak.
3. Gure erakundean jasotako kexak.
4. Epai judizialak.
5. Prentsako berriak.

#### 1. Ertzaintzako eta Udaltzaingoko arduradunen datuak eta balorazioak

Bilboko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila dira aztergai dugun arazoaren gain erantzukizunik zuzenena duten bi erakundeak, eta Arartekoak bietan har dezake, gainera, esku. Horrela, gomendioak egin zizkien bi erakunde horiei, eta egindako gomendioen betetze-mailaren jarraipena burutzeko behar zen informazioa ere eskatu zien.

Gure iritzia gomendio eta erakunde bakoitzari buruzko datuak eta informazioak ahalik eta gehien banakatzea eta zehaztea izan da, nahiz eta onartu behar beti ez ditugula eskatu genituen datuak lortu. Baina egindako eskariak eta baita lortutako erantzunak ere 2000ko otsailaren 29ko txostenean agertzen dira oso-osorik.

#### 2. Elkarteen datuak eta balorazioak

Atzerritarren aldeko elkarteen aldetik informazioa jasotzeko asmoz, Harresiak Apurtuz elkarte-koordinakundera jo genuen, eta aztergai dugun arazoari buruzko bilerak burutu genituen euren lokaletan. Informazio horiek guztiak ahoz jaso ditugu. Harresiak Apurtuz koordinakundeko elkarrekin ez ezik, urtean zehar beste hainbat elkartetako ordezkariekin ere izan ditugu bilerak eta kontaktuak: auzo elkarrekin, polizi sindikatuekin, aztergai dugun arazoarekin zerikusia duten elkarrekin eta arazo horri buruzko auzo-bilera irekietan parte hartu dutenekin.

#### 3. Arartekoari bidalitako kexak

Aztergai dugun arazoa aurkezteko eta bideratzeko asmoz Arartekoak egindako lehen txostenaren ondoren, hamabi kexa jaso genituen. Horrela, kexa formal horiei dagokienez, kasuan kasuko espedientea bideratu genuen. Honakoak izan dira kexen iturriak: batetik, polizi jokaerak zuzenean jasan dituztenak; bestetik, salatutako gertakariekin zerikusia duten zona horretako elkarrekin kideak; eta azkenik, gertakarion lekukoak. Lortu dugun informazioa, nagusiki aipatutako kexak Herrizaingo Sailean bideratuz lortutakoa, alor jakin batzuk jorratzeko erabili dugu, hots, adibide edo alderaketa gisa.

#### 4. Epai judizialak

Hutsegiteei buruzko epaien inguruko nahikoa adibide izateko, Bilboko hamar Argibideetarako Epaitegiekin 1999an atzerritarren inguruko gertakariak buruz emandako epai guztiak bildu ditugu.

5.173 epai bildu ditugu guztira (89 aukeratu ditugu aztertzeko), eta lortutako informazioa 7. eta 8. gomendioen inguruko balorazioa burutzeko erabili dugu.

lido horretan, aipatzekoa da balorazio horrek kontrol-mekanismoak eta polizi jokabideak izan dituela helburu.

## 5. Prentsako berriak

Bizkaian hedadurarik handiena duten zazpi egunkariak 1999an zona horri buruz argitaratutako berri guztiak bildu eta aztertu ditugu, hamargarren gomendioa, hain zuzen gai hori lantzen duena, burutu ahal izateko. Azterketaren ondorioak gomendio hori zenbateraino bete den neurtzeko erabili ditugu.

- Arartekoak **hamar gomendio** egin zituen guztira 1998ko abenduaren 24an, zehaztopen-prozesu luze baten ondoren. Bi gomendio orokorrak dira, zona horretako arazo orokorrei buruzkoak, alegia. Beste zortzi gomendioak, ordea, bereziak dira eta polizi jarduerekin dute zerikusia.

Data horren aurretik jasotako eskumen eta informazioen ondorioz, Bilboko Udalari adierazitako hamar gomendioak egin zitzaizkion eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari, berriz, polizi gaiei buruzko zortzi gomendioetatik zazpi.

2000ko otsailaren 29ko Arartekoaren txostenak hamar gomendioetako bakoitzari buruzko oinarritzko informazioa ematen du, eta ia eskema berbera erabiltzen du kasu guztietan:

A/ Arartekoak 1998ko abenduaren 24an egindako gomendioaren edukia.

B/ Bilboko Udalak eta Herrizaingo Sailak Arartekoaren gomendio eta proposamenei emandako erantzunak.

C/ Arartekoak gomendioa zenbateraino bete den jakiteko eskatutako informazioak.

D/ Balorazioa zuzen egiteko bereziki nabarmendu behar diren datuak, informazioak eta balorazioak.

E/ Arartekoak gomendioaren betetze-mailari buruz egindako balorazioa.

Hemen E/ puntura -balorazioetara, hain zuzen- mugatuko gara. Hala ere, ezin dira ahaztu balorazio hauek guztiak jasotako informazioetan oinarrituak daudela. Oinarritzko informazio horiek guztiz ezagutu nahi jostekotan, Arartekoaren beste txostenetara jo behar da. Honako hauetara, hain zuzen:

- Arartekoaren 1998ko ohiko txostena (75-117 orr.).
- 1999ko ekainaren 17ko txostena, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeari emana.
- 2000ko otsailaren 29ko txostena, Eusko Legebiltzarrari emana.

## **B) ARARTEKOAREN GOMENDIO BAKOITZAREN BETETZE MAILA**

### **1. gomendioa: “Inguruaz jabetu eta lehenasunez erakundeetatik bertan esku hartu”**

Lortutako informazioaren arabera, gure erakundearen ustez, urrats erabakiorrak eman dira gomendiohau bete dadin. Honako urrats nabarmendu behar dira bereziki: beste antolamendu-egitura bat sortu da, esparru desberdinetako administrazioen (udal,

eskualde eta erkidegokoak) partaidetza lortu da, Zona horretarako Berregokitze Plan Integrala osatuko dute...

Gure erakundearen iritziz, emaitzak ikusteke egon arren, urrats horiek argi erakusten dute erakundeek badutela zona horretan antolatuta, elkarlanean eta partaidetzaz esku hartzeko borondatea, eta horretarako behar diren baliabideak ere badituztela, Arartekoak Bilboko Udalari egindako lehen gomendioan aipatzen den bezala. Bestalde, Berregokitze Plan Integrala guztien partaidetzaz eta adostasunez onartzea espero dugu, eta halaber, aipatutako plana baliagarria ere izan dadila baliabideak koordinatu eta epe ertainerako erabakitako jarduketak gauzatu ahal izateko.

## **2. gomendia: “Topaguneak sortu edo sustatu behar dira, gizarte-partehartzea eta integrazioa erraztuko dutenak”**

Lortutako informazioaren arabera, gure gomendioak erabateko gaurkotasuna duela iruditzen zaigu, eta oraindik ez direla bideratu horiek benetan gauzatzeko eman beharreko urratsak. Ildo horretan, San Frantzisko auzoan sortuko den Udal Zentroa erabakiorra izango dela uste dugu. Azkenik, zentro horrek bai barne-egituran bai jarduera-programan gizarte-sektore guztien integrazioa askoz ere gehiago sustatu beharko lukeelakoan gaude.

## **3. gomendia: “Adierazle argiak eduki behar dira, inguruan polizia eskuhartzeen baliogarritasunaren eta eraginkortasunaren neurketa ahalbidetzeko”**

Jasotako informazioaren arabera, erakunde honentzat ez da erreza bere gomendioaren betetze mailaren gaineko balorazio orokor bat egitea. Arrazoi desberdinengatik, informazioa urria da. Hona hemen arrazoi batzuk:

- Jasotako datuek ez dute eskatutako xehatzearen berri ematen, eta horrek balorazio zuzen bat egitea zaildu edo eragozten du.
- Erantzunak ez diote beti behar den irizpideari jarraitzen (esate baterako, baliabideen eta emaitzen arteko proportzionaltasunaren balorazioari dagokionez).
- Aurkako erantzunak eta erantzun kontraesankorrak daude (honela, Elkarrekiko Ekintza Planaren erreferentziei zein informazio iturburuaren arabera elkarten gaineko balorazioari dagokienean).

Geure ondorioen balioa erlatibizatzeko baliagarri izan behar duen lehenengo ohar hau egin eta gero, ondorengook aipa ditzakegu:

- Barne bilerez eta Ertzaintzak elkarte desberdinekin izandako bilerez gain, erakunde honek proposatutakoaren ildoan informazioa jasotzeko eta erabakiak hartzeko funtsezko elementua izan daitekeen elkarrekiko ebaluazio orokorrik ez dagoela dirudi.
- Ertzaintzari dagokionez, ingururako xehatutako datuen ez egotearen arrazoa ezin zaie informatika programaren mugei atxiki, erakunde honek beste batzutan xehatutako datuak jaso baititu (ikus, esate baterako, 1998-05-29an Seguritate Sailburuordeak emandako erantzunaren 3., 19., 22., 25., eta 25-bis taulak, 1999ko ekainaren 17ko txostenaren 196. orr.). Ez egote hau Deustuko Komisaldegia

eta Sailaren beste instantzia batzuen arteko koordinazio zein informazio eskasaren, edo Sailak daturik ez emateko hartutako erabakiaren ondorio izan daiteke soilik.

- Hona hemen 1998. eta 1999. azken bi urteetan jaso diren guztirako daturik adierazgarrietako batzuk:

- Kaleko identifikazioak guztira: 13.264 (horietatik, 4.547, hots, %34,2a, jatorriz atzerritarrak diren pertsonen dagozkielarik).
- Komisaldegiko atxiloketak guztira: 2.830 (horietatik, 1.136, hau da, %40a, jatorriz atzerritarrak diren pertsonen dagozkielarik).
- Konfiskatutako droga (Ertzaintzaren konfiskazio kopurua): 751 (horietatik, 132, hau da, %17,5a, jatorriz atzerritarrak diren pertsonen dagozkielarik).

Nabaria da erabilitako baliabideen eta lortutako emaitzen arteko proportzionaltasuna zuzen baloratzeko emaitza judizialak ezagutzea falta dela: artxiboak, artxibatzeak, absoluzioak, zigorrak... Hala ere, jasotako datuak nahiko adierazgarriak dira.

Hau guztiarengatik, erakunde honek bere gomendioaren eta proposamenen edukia indarrean dagoela uste du. Jasotako informazioaren arabera, inguruko polizi jarduerarako ebaluazio adierazlerik ez dagoela irizten dio, egongo balira ere, berez ez direlako erabiltzen.

#### **4. gomendioa: “Inguruan gehienetan eskuhartzen duen pertsonalgoaren hautaketan irizpide egokiak erabiltzea”**

Jasotako informazioaren arabera, erakunde honek, inguruan jardun ohi duten agenteak aukeratzeko garaian Udaltzaingoaren kasuan askoz ere baldintzapen gehiago hartu direla uste du; Ertzaintzaren operatiboari dagokionez, bere osatzea berrizatzeko behar adinako pausuak eman direla irizten dio, erabilitako prozedura positiboki baloratu, pertsona aukeratzean erabilitako irizpideen eta profilararen egokitasuna baloratu ezinezkoa zaiolarik, ordea, dagokien informaziorik eskaini ez zaiolako. Egindako 29 agente aldaketen arrazoien berri ere ez digute eman.

#### **5. gomendioa: “Agentei trebakuntza eta informazioa eman behar zaie inguruan eragiten duten afera zehatzen gainean”**

Jasotako informazioaren arabera, erakunde honek agenteen taldeari zuzendu eta burutu diren heziketa jarduerak urriak izan direla uste du. Agenteek heziketa jardueretan izan duten partehartzeari eta parte hartzeko baldintzei dagokienez, Udaltzaingoaren edo Ertzaintzaren arabera desberdinak izan direla nabarmentzen du. Era berean adierazi nahi du burutu diren edo epe laburrean burutuko diren heziketa jarduerak batzuk, beren eduki formalei dagokienez behintzat, alde batetik baizik ez dietela jarraitzen erakunde honen gomendio eta proposamenei, inmigrazioaren fenomenoaren ulertzea baino inmigrazioaren kontrola azpimarratzen duten neurrian.

#### **6. gomendioa: “Inguruan konpromezua harturik dauden gizarte-eragileen partehartzea eta elkarlana sustatzea”**

Jaso dugun informazioaren arabera, erakunde honen ustez Bilboko Udalak zein Herrizaingo Sailak urratsak ematen ari dira Arartekoaren gomendio hau betetzeko. Zentzu horretan, gizarte mailan ahalik eta partaidetza handiena lortzea garrantzizkotzat



jotzen du Bilboko Udalak Berregokitzeko Plan Integralarekin sortutako egituren bitartez. Era berean, Ertzaintzak elkarrekin harremanetan jartzeko erabakia edo ekimena positibotzat jotzen du, baina hala ere harreman horiek berriro aztertu beharko lirakeke orain arte izandako esperientzien argitan eta alderdi guztien nahiak, ekarpenak eta iradokizunak aintzat hartuz. Kontuan izan behar dugu elkarlanean aritzeko bideak egokiak izango direla baldin eta etengabe jorratzen badira. Horregatik, harremanak ezin dira aldian behin egiten diren bileretara mugatu edo une zehatzetan interes bereziak direla eta gertatzen den zerbait bilakatu.

### **7. gomendioa: “Polizia jardueren kontrolbideak indartzea”**

Jasotako informazioaren arabera, erakunde honen iritziz, oraindik beharrezkoa da “Polizia jardueren kontrolbideak indartzen” jarraitzea, eskubideak betetzen direla bermatu eta ziurtatzen duen bitartekotzat hartuz. Bildu eta aztertu egin diren datuen arabera:

- salaketa-bidea epailetzaren aurrean kasu hauetan benetako murriztapen serioak ditu, salatu diren gertakariekin loturarik ez duten zioak direla eta (abokatuak esku hartzen duen ala ez, hartzailleengana ailegatzen ez diren jakinarazpenak, ez agertzea ...);
- Arartekoak bideratzen dituen kekek, oro har, oso erantzun geldoa eta zatikakoa izaten dute, eta askotan gertakari eta ardura zehaztu eta argitzerakoan emaitzak eskasak izaten dira;
- ez dira irekitzen zigortzeko espedienteak (Udaltzaingoaren kasuan) edo, irekitzen badira ere, ez da horien berri ematen eta ez dute inolako emaitzarik lortzen;
- sistema informatizatuak oso ahulak dira: arazoren bat sortzen duen egoera gertatuz gero, basera datuak ez igortzea nahikoa izaten da datu horiek desagertarazteko, ez da horien isla inon ere topatuko...

Hala ere, kontrolbideak hobetzearen aurrera pausu esanguratsuak sumatzen dira zenbait arlotan, besteak beste, ertzainak hautatzeko irizpideak, operatiboaren barne antolaketa eta elkarrekin eskainitako aukerak zuzenean euren kexa edo datuak polizia arduradunei bidali ahal izateko.

Arartekoaren ustez, erakunde eskudunek egun ditugun kontrolbideen benetako funtzionamenduari buruz aldian behin azterketa sakona gauzatzea beharrezkoa da, kontrolbide horiek baliozkoak izatea nahi baldin bada behintzat eta horien helburuak erdietsi nahi baldin badira: eskubideak kaltetzen dituzten jarduerak deusezteak.

### **8. gomendioa: “Giza eskubideen aurkako polizia jokabide oro galarazi behar da eta, horretarako, aurre hartzeko mekanismoak sartu behar dira gehiegikeria posibleen aurrean”**

#### **Gomendioaren 8.a) atala: Jarduera diskriminatorioak prebenitzea**

Ez dakigu polizia arduradunek agenteei ondorengoa azpimarratu ote dieten hitzez: ekintza jakin bat zergatik burutu duten zehatz-mehatz azaldu behar dutela. Edonola ere, arrazoi horiek idatzita jasotzeko ildoan ez da inolako aurrerapenik egin: ez da

horren inguruko inolako jarraibiderik idatzi; ez da inolako aldaketarik ikusi erregistro informatikoetan ezta horiei emandako datuetan ere.

### **Gomendioaren 8.b) atala: Tratu zuzena eskaintzea eta eskuhartzeen arrazoiak ematea**

1999. urtean zehar, Arartekoak ez du kexarik jaso udaltzainak identifikazioa edo behar bezalako azalpenak eman ez izanagatik. Horrek gauzak behar bezala egiten direla adieraz dezake. Ez da ahaztu behar, ordea, hiritarrek eta, bereziki, inmigranteek ez dietela alderdi horri garrantzi handirik ematen; edo, hobeto esan, horri buruzko itxaropen handirik ez dutela.

Ezin da gauza bera esan Ertzaintzari dagokionez, izan ere, hainbat kexa jaso baitira. Are gehiago, Arartekoa hainbat alditan saiatu da ertzainek identifikatzeko duten eginkizuna nola bete behar duten jakiten, baina Barne Sailak inoiz ez dio horri buruzko berriazko erantzunik eman.

### **Gomendioaren 8.c) atala: Indarraren erabilpena**

Indarra erabiltzeko modu zehatzak eta horretara bultzatzen duten arrazoiak hobeto kontrolatzeko urratsak eman dira. Hala ere, ezin dugu ziurtatu kontrol hori ohiko jarrera denik, eta ezta agenteek kontrola euren ekintzak garbiagoak izateko mekanismotzat jotzen dutenik ere. Dena dela, urrats horiek nabariagoak dira Udaltzaingoan Ertzaintzan baino.

“Zintzurretik heltzea” jarduerari dagokionez, Udaltzaingoaren jarrera lehengoa baino hobea dela irizten da. Izan ere arrazoitu egiten da, eta kasuak desberdintzen saiatzen dira. Hala ere, ez da Arartekoak proposatutako berme mailara iristen. Beste alde batetik, Barne Sailak jarduera hori alde batera utzi dela egindako adierazpen hori ez da ezer zehatzean oinarritzen. Dena dela, behin eta berriz adierazi bezala, zintzurretik heltzea bortitz eta iraingarriegia da eta, batez ere, guztiz neurrigabea jarduera horren bidez antzematen den droga kopururako.

Jarduera horren bidez antzemandako droga kopuruari buruzko informazio zehatzik ez dugu jaso, hori ezagutzeko koadroetan ez baitira eskatutako datuak adierazi. Guk auzoan patruilatzen duten agente uniformatuek zenbat droga antzematen duten jaki nahi genuen, eta hori ezinezkoa izan zaigu. Hala ere, zona horretan edozein polizi operaziotan antzemandako droga kopurua oso txikia da. Heroina da gehien antzeman den droga, eta Ertzaintzak adibidez 2.075 g antzeman ditu 1998an eta 132 g 1999an. Udaltzainak, aldiz, 991 g 1998an eta 2.879 g 1999an. Datu horietatik ez dakigu zenbat antzeman zaien atzerritarrei; baina Ertzaintzak emandako datuen arabera, ez da bosten bat ere 1998an eta oraindik gutxiago (zazpiren bat) 1999.

Lehen ondorio gisa zera adieraz daiteke: komunikabideek bestelako irudi bat adierazten badute ere, San Francisco auzoan antzemandako droga Bizkaian antzemandako drogaren zati txiki bat besterik ez dela. Halaber, atzerritarrei antzemandako droga kopurua droga kopuru osoaren zati oso txikia da.

Horrek guztiak berretsi egiten du gure iritzia, hots jarduera hori -droga daramala susmatzen denak droga irentsi ez dezan zintzurretik heltzea- guztiz neurrigabea dela, eta desagertu egin behar duela.

### **Gomendioaren 8.d) atala: Miaketak eta “katxeo”ak**

Udaltzaingoaren 1/99 Instrukzioak nahikoa ongi jasotzen du, nahiz eta osotasunean ez jaso, Arartekoak egindako gomendioa. Baina gomendioa gauzatzeari dagokionez, ez dugu daturik balioztatu ahal izateko. Ertzaintzari dagokionez, ez ditu gure gomendioak barne araudira eraman, eta ez dugu nahikoa elementurik ere jarduera horiek gaur egun nola burutzen diren balioztatzeke.

### **Gomendioaren 8.e) atala: Agenteenganako errespetu faltagatik salaketak**

Arartekoaren ikuspuntutik, gomendio hau San Frantzisko auzoko egoerako puntu bati zuzendurikoa da. Bertan ikusi ahal izan denez, sarri samar hiritarrek polizia azalpenak eskatzen dizkietenean edo polizien jokabidea zalantzan jartzen dutenean, agenteek dokumentazioa eskatzen diete eta, batzuetan, atxilotu egingo dituztela mehatxatzen diete, larderiaz beteta. “Errespetu falta” dela-eta atxiloketa asko izaten dira eta gainera gertatzen da epaitegietan hasieratik bertatik balizko faltatzat jotzen dutela. Horrek zera esan nahi du: ez zegoela benetako arrazoirik atxilotzeko edo, baldin bazegoen, arrazoi hori oso ahula zela.

Bestalde, faltatzat jotzea itxura batera aldekoa dela ematen badu ere -arau hauste arinagoa delako- badauka berez nahi ez zen eta gehienetan etorkinaren kalterako izaten den beste ondorio bat. Izan ere, falta epaiketetan ez da derrigorrezkoa abokatuak egotea eta, beraz, ezin da lortu dohaineko zuzenbide asistentziarik. Epai ugari aztertu ditugu eta bertan argi ikusten da aholkularitza teknikorik ezean, zigorra jasotzeko askoz ere aukera gehiago dagoela.

Eta horrela, beste ondorio bat atera dezakegu, hain zuzen ere, etorkinentzako askoz ere larriagoa. Izan ere, kondenatzeagatik -eta batzuetan auziperatua egote hutsagatik- bertan bizitzeko baimena uka diezaioke eta/edo herrialdetik kanporatu ere bai.

Horregatik guztiarengatik, gomendio zehatz honi buruzko gure balorazioa negatiboa da: gorputz polizialek ez dute behar bezalako ahaleginik egin ez arazo hau ezagutzeko, ezta eragozteko ere. Dirudienez, Udaltzaingoa hasia da eskura dituen datuak aztertzen, eta hori nolabaiteko aurrerapausoa da. Ertzaintza, berriz, atxiloketa kopurua murriztu nahian ari da, horretarako “*egozpen eginbidea*” erabiliz, baina ez dakigu nolako emaitzak lortuko zituzten.

Hala eta guztiz ere, arazo honek bere horretan dirau eta ez zaio gaiari behar bezala heltzen. Gure ustez, arazoaren gakoa zera da: polizien jokabideen aurrean adierazitako edozein protesta, zalantzan jartze edo kritika lege hauste penaltzat jotzea, berez ez bailuke horrela izan behar.

### **Gomendioaren 8.f) atala: Hizkuntza ulermena bermatzea**

Arartekoak uste du atxilotu kanpotar askoren defentsa eskubidearen oinarria interpreteen laguntza jasotzeko eskubidea dela. Egia da, bai, atxilotu asko ongi moldatzen direla lagunarteko hizkeran, baina horrek ez du esan nahi hizkera teknikoak ulertzeko gai direnik, ezta euren defentsan behar bezalako azalpenak emateko gauza direnik ere. Horregatik, gai hau oso garrantzitsua iruditzen zaigunez, behin eta berriz azpimarratzen saiatu gara. Alabaina, ezin dugu honi buruzko balioespenik egin, ez baitugu lortu behar adina informazio. Dakigun gauza bakarra zera da: Barne Sailak oraindik ez dituela hizkuntza desberdinetako inprimakiak egin.

Nolanahi ere, oso deigarria iruditzen zaigu itzultzaileen lanari buruzko inolako daturik ez egotea, batez ere ez delako hain zaila lortzea, oso azaletik bada ere; adibidez, interpreteek bidalitako fakturazioaren bidez.

Atxilotuak gainerako eskubideak erabiliz gero, atxilotuek euren benetako eskubideak zein diren zenbateraino ulertu duten erakutsiko liguke, baina ez daukagu informaziorik eta ezin dugu eman iritzirik. Sendagile asistentziaren kopuruek erakusten dutenez, ordea, eskubide hori erabiltzen dute, bertako atxilotuek baino gehiago, gainera.

### **Gomendioaren 8.g) atala: Gorputz miaketa eginbidean bermeak**

Herrizaingo Sailak ez dio inolako jaramonik egin Arartekoaren gomendio honi. Ez du espreski azaldu zein irizpide erabiltzen dituen, ezta ere nola egiten diren gorputz arakatzea eta berau justifikatzeko egin beharko lirakekeen kontrolak. Horregatik guztiagatik, iradoki genuena ez dela bete uste dugu.

Udaltzaingoak on deritzegun pausoak eman ditu, nahiz eta, gure aburuz, ez duen erabat bereganatu gomendioan azaldutako ideia nagusia: alegia, gorputz arakatzea ezin dela atxiloketa guztietan erabil daitekeen jokaera sistematikoa bihurtu.

### **Gomendioaren 8.h) atala: Atxiloketaren iraupena mugatu eta bisiten erregimena malgutu**

Uste dugu ez direla konpondu gomendio hau proposatzera bultzatu zuten arazoak; beraz, bere edukiak balioa du oraindik. Atzerritarren atxiloketen iraupenak luzeagoak izaten dira. Horretaz jabetzeko, nahikoa da datu esanguratsu batzuk gogora ekartzea. Adibidez:

- Deustuko komisarian, 1998an, atzerritarrak ez ziren pertsonen batez beste 12 ordu eman zituzten bertan (11,89) eta atzerritarrek, berriz, 21 ordu inguru (21,48).
- 1999an, atzerritarrak ez ziren pertsonen %60a 12 ordu baino lehenago atera zen komisaria horretatik; aldiz, atzerritarren kasuan, portzentaia hori %25era jaisten zen.
- Aitzitik, atzerritarrak ez ziren pertsonen %5,8a bakarrik egon zen 24 ordu baino gehiago komisarian, atzerritarren %25aren aldean.
- Urte horretan komisarian ia gehienezko atxiloketa-aldia (60 eta 72 ordu bitartean) bete zuten 27 pertsonetatik, bi bakarrik ez ziren atzerritarrak, gainontzeko 25ak atzerritarrak baitziren.

Horren arrazoia Informazio Brigadaren erantzunaren atzerapena izan daiteke edota -buruzagi polizialek dioten bezala- epaitegiek identitate egiaztatu gabeko atxilotuak onartu nahi ez izana.

Nolanahi ere, ez dirudi poliziek sinesgarritasun maila berdinarekin tratatzen dutenik atzerritarren eta bertakoen agiriak. Gure ustez, kanpotar batek faltsua ez dirudien nortasun agiria eta indarrean dagoen bizitzeko baimena aurkezten badu, ez dago bere identitatea zalantzan jartzeko arrazoirik; eta hori egiten badugu, jatorriz diferentiek direlako diferente tratatzen ditugunaren seinale.

Bigarren mailako gaia bezala planteatzen zen bisitari buruzko galdera, eta askatasun gabeko ordu luzeak arintzea zuen helburu, beti ere ikerketa prozesua kolokan jarri gabe. Hala ere, gai hau ez da aintzakotzat hartu.

**Gomendioaren 8.i) atala: Salmenta ibiltariaren kontrolaren bermeak**

Gure iritziz, Udaltzaingoak berme handiagoak ezarri ditu salmenta ibiltariaren kontrolean, batik bat salgaiak atzemateari dagokionez. Dena den, atzeritarrei atzemandako salgaien kopurua ezagutzea komeni zaigu, eta atzematute bakoitzaren arrazoia ere bai. Beraz, alderdi horri buruzko informazioa ere eskatuko dugu etorkizunean.

**9. gomendia: “Polizien arteko elkarlana edota koordinaketa hobetu behar dira”**

Jasotako informazioaren arabera, erakunde honek uste du ez duela nahikoa datu zentzuzko iritzia finkatu ahal izateko polizia gorputz ezberdinen arteko lankidetzen eta koordinazioan eman omen den hobekuntza aztertzerakoan. Bildutako informazioak eta datuek frogatzen dute atxilotzen diren atzerriko pertsonak, oro har, denbora gehiago ematen dutela komisaldegian bertako pertsonak baino. Gainera Atzerriartasun Brigadak pertsona horiek identifikatzeko behar duen denbora da euren egoerari kalte egiten dioen zioetako bat. Arartekoari dagokionez, bere eskumenetik at dagoen polizia zerbitzua izanik, balorazio eta datu horiek Espainiako Arartekoari luzatuko dizkio, horien berri izan dezan eta ahal izanez gero esku har dezan.

**10. gomendia: “Kontu berezia izatea argitara ematen diren datu polizialei buruz eta datu horiek auzoaren irudi sozialean edo etorkinen kolektiboan duten eraginaren aurrean”**

Auzoari buruz 1999an egunkarietan azaldutako berriei buruz egindako azterketaren arabera, erakunde hau luzatutako gomendia bere horretan mantendu behar duelakoan dago, Udaltzaingoak komunikabideei eskaintzen dien informazioa dela eta egindako gomendia alegia.

**C/ ARARTEKOA GOMENDIOEN BETETZEARI BURUZ EGIN DUEN BALORAZIO OROKORRA**

Honen aurreko idatz-zatian Arartekoak egin dituen hamar gomendioak berrikusi dira banan-banan. Bada, hirugarren atal honetan, balorazio orokorra egin nahi dugu. Gogorarazi behar da balorazio honen abiaburua bildu den informazioa dela eta eskatu den edo nahi izan den informazioa ez dela beti lortu. Horrek, inolako dudarik gabe, egin daitezkeen balorazioak baldintzatzen ditu. Beraz, eskuratu dugun informazioaren arabera, Arartekoak ondoko hauek uste ditu:

1. Benetan borondatea dago eta bere gomendioak eta proposamenen atal batzuk betetzeko urrats garrantzitsuak eman dira, bereziki jarraian adieraziko diren hauetan:
  - erakundeek alde hau aintzat hartzea eta bertan egiten diren eskuhartzei lehentasuna ematea (1. gomendia);
  - normalean alde horretan jarduten duten Ertzaintzako kideak hautatzeko eta berritzeko erabili diren prozedurak (4. gomendia);

- poliziako agenteen informazio eta prestakuntza jarduerak (5. gomendioa);
  - Ertzaintzak aldean lan egiten duten gizarte eragileei ematen dizkien informazioak eta komunikatzeko bideak (6. gomendioa);
  - Udaltzaingoak tratu zuzena eman behar dela azpimarratuz eta jarduketak arrazoituak behar dutela izan adieraziz eman duen irizpena (8. gomendioaren b) atala);
  - poliziaren jarduketetan indarra erabiltzen denean kontrol mekanismoetan egin diren aurrerakuntzak (8. gomendioaren c) atala);
  - Udaltzaingoak gorputzen miaketak egiteko dilijentzietan erabiltzeko irizpideak (8. gomendioaren g) atala);
  - herriz herriko salmentaren kontrolaren bermeak, kasu honetan ere Udaltzaingoarenak (8. gomendioaren i) atala).
2. Beste gai batzuetan ez da aurrerakuntzari antzeman edo eman diren urratsak erabat dira ez-nahikoak:
- atzerriko pertsonen eskuhartzea edo gizarte integrazioa bideratuko duten bilguneak sortu beharra edo espazio horiek sustatu beharra (2. gomendioa);
  - aldean eskuhartzen duten polizien baliagarritasuna eta eragingarritasuna ebaluatzeko adierazkari argiak edukitzea (3. gomendioa);
  - poliziaren jarduketan kontrolerako mekanismoak indartzea (7. gomendioa);
  - bereizkeria eragiten duten jarduketak aurrearretaz zaintzea (8. gomendioaren a) atala);
  - norik bere burua identifikatzeko eta eskuhartzeak arrazoitzeko ohitura, kasu honetan Ertzaintzak (8. gomendioaren b) atala);
  - "samatik oratzea edo heltzearen" praktika behin-betiko baztertea (8. gomendioaren c) atala);
  - pertsona ukituek informazioa eskatuz egiten zaizkien galderak ohikotzat jotzea, horrek agenteekiko begirunea aintzat ez hartzearen ustea eragin gabe (8. gomendioaren c) atala);
  - Ertzaintzak gorputzak miatzeko eragiketetan irizpideak izatea eta bermeak ematea (8. gomendioaren g) atala);
  - komisaldegian egiten diren atxiloketen aldia murriztea, eta baita bisitaldien araubidea malgutzea ere (8. gomendioaren h) atala);
  - poliziaren datuak hedabideetan jendaurreratzea (10. gomendioa).
3. Eskuratzen den informazioa oraindik ez da nahikoa ondoko gai hauetan balorazio baliagarria eta fidagarria egiteko:
- aldean jarduten duten agenteen osaketa berrikusteko eta aldatzeko erabili diren irizpideak eta ezaugarri profesionalak (4. gomendioa);
  - aldetik zirkulatzen dutenen jabetzako gauzetan kontrolak egiteko era (erregistroak eta miaketak) (8. gomendioaren d) atala);
  - atzerriko pertsonen eskuetara jartzen diren bitartekoak (interpretatzaile baten laguntza, edo inprimakiak horien jatorrizko hizkuntzetan egotea) hizkuntzari dagokionez gauzak ulertzen dituztela bermatzeko (8. gomendioaren f) atala);
  - poliziaren kidegoen artean lankidetzaren edota koordinazioari dagokionez izan diren ustezko hobekuntzak (9. gomendioa).

4. Berriz ere, eta etenik gabe, adierazi behar da erantzukizuna duten erakunde guztiek ahaleginak egin behar dituztela bai aldearen arazoei eta bai bertan gertatzen diren poliziaren jarduketei irtenbide orokorra emateko, horrela bizitza kalitatea hobetzea eta alde horretako pertsona guztien eskubideak begirunez zaintzea lortzeko, eta bereziki atzerritarrenak edo berariaz egoera ahul edo arriskutsuetan bizi direnenak.
5. Ararteko erakundeari dagokionez, uste du beharrezkoa dela egunera arte eskumenak dituzten erakunde eta gizarte agenteekin informazioa elkartrukatzeko eta gomendioen betarazpenaren jarraipen zuzena egiteko ireki diren komunikatzeko bideei eustea.

## 1.2. ZADORRA SISTEMAKO URTEGIETAKO URAREN KALITATEA BABESTEARI BURUZ EGIN DEN TXOSTEN BEREZIA

**Txosten monografiko hau** Arabako Talde Ekologisten Elkarateak Arartekoari aurkeztu zion kexaren ondorioz egin da. Azken urteotan Ulibarri-Ganboa eta Urrunaga urtegieta inguruetan giza jarduerak ekarri dituzten kalteak eta eragin ugariak salatu zituen elkarte horrek. Gainera, Administrazioari kritika egin zion salaketei ez erantzuteagatik, ez baitzuen urtegiak zaindu eta babesteko neurriak hartzeko inolako planik ez programarik onetsi.

Kexaren garrantzia aintzat harturik, Arartekoak arazoa sakonean aztertzea erabaki zuen, hots, txosten monografikoa egingo zela. Txosten horretan urtegieta eta inguruetako uraren kalitatearen berri emango zen eta arriskuak alde aurretik ekiditeko eta baztertzeko Administrazioak nolako neurriak hartzen ari zen eta gerora zein neurri hartu ahal izango zituen aztertuko zen.

Zalantzarik gabe interes handiko azterlana izan da, hainbat arrazoiengatik. Nahikoa da datu bakar bat aipatzea: Zadorra sistemako urtegieta iristen zaie ura EAeko 900.000 biztanle baino gehiagori, hau da, EAeko biztanleetatik %43ri. Gainera, urtegieta ura baliabide galkorra da, erraz hondatzen dena eta epe laburrean ezin berritu dena.

\* \* \*

Ana Rallok, UPV/EHUko Animalien Biologiako katedradunak, laguntza teknikoa eman zuen txostena prestatzeko. **Zadorra sistemako uren kalitateak izan duen bilakaerari buruzko azterlan ekologikoa** egin zuen. Horretarako erabili zituen datuak Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak eta Eusko Jaurlaritzak 1984-1995 bitartean argitaratutako hainbat agiritatik atera zituen. Datuon analisi estatistikoaren emaitzak hiru kapitulutan bildu zituen: ura, jalkinak eta ekarriak.

Azterlan haren **emaitza** nagusiak hauek dira, labur azalduta: uretan fosforoaren eta nitrogenoaren kontzentrazioak aipagarriak dira eta batez ere nitrogenoaren kontzentrazioari erreparatu behar zaio, mugatzaileena delako; pestiziden kontzentrazioa ere nahikoa handia da eta aldika hidrokarburoen kopuruak gora egiten du; jalkinetan, elikagaien eta metal astunen kontzentrazioak Ulibarri-Ganboan handiagoak dira Urrunagan baino; eta ekarrietan, elikagai ugari heltzen da urtegieta Zadorra eta Alegria ibaietatik (ibai honetatik Ulibarri-Ganboa urtegieta doan ubidean zehar). Elikagaien iturri nagusiak nekazaritza, abeltzaintza eta hiri hondakinak dira.

Azterlan ekologikoa agerian jarri zuenez, uren kalitatea zaindu eta urtegiak babestu nahi badira Zadorra ibaiaren arto osoa hartu behar da erreferentzia, hau da, urtegieta zuzenean edo zehar bidez doazen ur-lasterrek zeharkatzen duten lurralde osoa.

\* \* \*

Urtegieta uraren kalitatea kolokan jar lezaketen arriskuak eta kutsadura-iturriak egotearen arrazoia, batetik urtegien kokaera dugu, Arabako Lautadaren erdian baitaude, eta bestetik urtegieta eta inguruetan egiten diren jarduerak. Azpimarratzekoak dira **kutsaduraren eragile** hauek:



1. Hiri eta industri hondakinen isurketa: Zadorraren arroan dauden herrietako hondakin-ur gehienak urtegiatara doaz zuzenean edo zehar bidez. Urrunaga aldeko herrietan Legutiano eta Otxandio nabarmentzen dira, eta Ulibarri-Ganboa aldean Alegria-Dulantzi eta Agurain, industrialde eta guzti.
2. Merkatugai arriskutsuen garraioa: trenbidez (Madril-Irun trenbidea) eta errepidez (CN-1 errepidea) merkatugai arriskutsuak garraiatzen dira. Urtegi inguruetakoa eta ertzetako errepideetatik ere bestelako merkatugaiak garraiatzen dira.
3. Aisiako jarduerak eta kirolak: bainu librea, motoredun untziak, Landa eta Garaioako atsedenekuetara egun pasa joaten den jendea eta abar. Eskuarki, udako jarduerak dira.
4. Nekazaritza eta abeltzaintza: nekazaritzan landare-osasunerako produktuak erabiltzen dira (herbizidak, pestizidak eta intsektizidak) eta bai nitrogeno, fosforo eta potasiodun ongarriak ere. Produktu horiek behar ez bezala erabiliz gero, euri-urak eta lur azaletik isurtzen denak ur-lasterretara eraman ditzake eta azken buruan urtegiatara hel daitezke.

Urtegietatik gertu dauden abere-haztegi batzuek ez dute instalazio egokirik minda eta gorotzak ezabatzeko. Abeltzaintza estentsiboa ere ez da ahaztu behar, abereek zenbaitetan urtegitik bertatik edaten baitute.

\* \* \*

Txosten monografikoaren beste atal batean zehatz azaltzen dira urtegiak gorago aipatu ditugun eragin eta arriskuetatik babestearren **herri administrazioek hartu dituzten neurriak**. Neurriok arloka aztertu dira:

1. Lurraldearen antolaketa eta hirigintza: lurraldearen antolaketaren eremuan azpimarratzekoa da EAeko Ibai eta Erreka Bazterrak Antolatze Arloko Lurralde Plana (isurialde mediterraneo). Eusko Jaurlaritzak behin betiko onetsi zain dagoen agiri horretan ezarrita dagoenez, landa-aldeetan uraren ibilguetatik gutxienez 50 metrora egin ahal izango dira eraikinak, eta urtegien inguruko zerrendan, urertzetik 200 metrora bitartean, erabilerak eta esku-hartzeak plan berezi baten bidez arautuko dira.  
Beste agiri hauek jorratu dira txostenean: EAeko Lurraldea Antolatze Zuzentarauak, EAeko Hezeguneetarako Arloko Lurralde Plana, urtegi inguruetakoa udalerrietako arau subsidiarioak (Aramaio, Arrazua-Ubarrundia, Barrundia, Elburgo/Burgelu, Legutiano eta Zigoitia) eta Ulibarri-Ganboa urtegiaren ertzetako egokitzapen ekologikorako Plan Berezia; Arabako Foru Aldundiak egin du azken hori.
2. Plan hidraulikoak: 1.664/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Ebroko Plan Hidrologikoa aztertu da, Zadorra sistema Ebroren arrokua baita. Planak ezer gutxi zehazten du Zadorra sistemari buruz, presako uhateak goratzeko proposamena besterik ez, urtegiatara doazen ibaien uholde handietan emaria hobeto kontrolatu ahal izateko.
3. Analisi bidezko zainketa: urtegiatako ura giza kontsumorako kudeatzen duten bi erakundeek, Bilbao-Bizkaia Partzuergoak eta AMVISAK (Aguas Municipales de Vitoria S.A.), laborategietan analisiak egiten dituzte, hainbat parametroren bitartez uraren kalitatea kontrolatzeko. Neurtu beharreko parametroa zein den, analisiak sarriago edo bakanago egiten dira. Parametro nagusi eta esanguratsuenen analisiak egunero egiten dira.

- Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Lurraldearen Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak aldian-aldian analisi kanpainak egiten dituzte, laginak hainbat tokitan hartuta.
4. Hondakin-uren bilketa eta tratamendua: Urrunaga urtegiko inguruetan, Otxandio (1.046 bizt.) eta Ubide (161 bizt.) udalerriek gaur egun badituzte hondakin-uren kolektorea eta araztegia; Legutianon, berriz (1.003 bizt.), hondakin-urak kolektore batean bildu eta handik Goiango industrialdeko araztegiara bideratzen dituzte.  
 Bai Agurainen (3.796 bizt.) eta bai Alegria-Dulantzin (1.178 bizt.) badute hondakin-uren araztegia, baina instalazioak behar bezala atondu gabe daude.  
 Bestalde, baserri auzo txikietan eta abeltzaintzako ustiategietan hondakin-uren isurketa zenbaitetan ez dela behar bezala egiten egiaztatu da.
  5. Aisiako jarduerak mugatzea: Arabako Foru Aldundiak zenbait atsedeneku atondu eta ekipamenduz hornitu ditu, besteak beste Garaiokoa eta Landakoa; gainera, urtegi inguruetan legez kontra eraikitako txabolen eta eraikuntzen inbentarioa egin du.  
 Eusko Jaurlaritzak, Uren Zuzendaritzaren bitartez, motoredun untzietan ibiltzeko baimenak eta baimena lehendik duten untzien potentzia handitzekoak emateari utzi dio. Are gehiago, 2007. urtetik aurrera urtegiaren aisiarako motoredun untzirik ez dela ibiliko erabaki da.
  6. Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako praktikak: Arabako Foru Aldundiak 78/1998 Foru Dekretua onetsi du, nekazariari laguntzak emateko ingurugiroaren babesarekin bateragarriak diren ekoizpen-metodoak erabil ditzaten. Eusko Jaurlaritzak oraintsu onetsi du 390/1998 Dekretua, Nekazaritzako Praktika Onen Kodea ofizial bihurtu duena. Kode hori nahi izanez gero erabil dezakete Zadorraren aroko nekazariak. Dekretu horretan, beste gauza batzuen artean, ongarriak nola erabili behar diren eta simaurtegiak eta mindazuloak nola diseinatu behar diren azaltzen da.
  7. Erakundearteko koordinazioa: uraren kalitatearen alorreko eskumenak izugarri sakabanaturik daude. Horregatik sortu ziren 1996an batzorde bi, Zadorra Sistemako Urtegien Babeserako Batzorde Teknikoa eta Zuzendaritza Batzordea. Haiek ireki zuten ildotik, 1999an Zadorra Sistemako Urtegien Babeserako Mahaia sortu da erakunde ofizial gisa. Zuzendaritza Batzordeak eta Batzorde Teknikoak osatzen dute Mahai hori, eta euren eskumenak edota jarduerak direla bide urtegi-tako uren kalitatean eragina izan dezaketen erakunde publiko eta pribatu guztiak biltzen ditu.

\* \* \*

Txostenaren VI. kapituluak, luzeenak, **uraren araubide juridiko** korapilotsua eta **eskumenen banaketa** ditu aztergai.

Gogoan izan behar da bi arazori egin behar zaiela aurre urtegi-tako uraren kalitatea hobetzeko edozein ekimen bultzatu nahi denean: alde batetik, erakunde-sare oso trinkoa dugunez, eskumenak gehiegi banatu dira administrazioko mailen artean (kontzejuak, udalak, foru aldundiak, Eusko Jaurlaritza, Ebroko Konfederazio Hidrografikoa...); bestetik, hainbat eta hainbat dira ur-ingurunearen kalitatearekin zerikusia duten sektoreak, zuzenean nahiz zeharka hartan eragina dutenak.

Kapitulu honetan urari buruzko oinarriko arautegiari heldu eta Urari buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen edukia azaltzen da, eta bai hura garatzeko egin diren araudien edukia ere (apirilaren 11ko 848/1986 Errege Dekretua, Jabari Publiko Hidraulikoari buruzko Araudia onetsi duena, eta uztailearen 29ko 927/1988 Errege

Dekretua, Uraren Administrazio Publikoari eta Plangintza Hidrologikoari buruzko Araudia onetsi duena).

Horrez gainera, Konstituzio Auzitegiaren zenbait iritzi-azalpen aztertzen dira, ur-ingurunearen araubide juridikoan eragina izan dutenak, eta arreta berezia jartzen zaio Uraren Legeari buruzko azaroaren 29ko 227/1988 Epaia.

Atal honetan azaltzen dira, halaber, Elkartearen arautegi luze-zabala eta haren arauak Estatuko antolamendu juridikoan sartzeko prozesua. Kontuan izan behar dugu ur kontinentalen kutsadura eragozteko Elkarre mailako neurriak direla, hain zuzen ere, EEEK ingurugiroa babesteko politikan gehien garatu duen arau-eremua.

EEEren legegintzako politikaren azken aldian, oraingo aldian alegia, egin diren arauetatik, azpimarragarriak dira zuzentarau hauek:

- 91/271/EEE Zuzentaraua, maiatzaren 21ekoa, hirietako hondakin-uren tratamenduari buruzkoa.
- 91/676/EEE Zuzentaraua, abenduaren 12koa, nekazaritzako iturrietatik datozen nitratoek sortutako kutsadurari buruzkoa.
- 96/61/EEE Zuzentaraua, irailaren 24koa, kutsaduraren prebentzioari eta kontrol osoari buruzkoa.
- Uraren arloko politikari buruzko zuzentarau marko berri baterako proposamena.

Eskumenen esparrua ere zehatz-mehatz aztertzen da, bai Estatuari eta EAERI dagokion eskumenen arteko konstituzio-mugaketaren aldetik eta bai EAE barruko eskumenen mugaketaren aldetik ere.

Bada, Konstituzioaren 149.1. artikuluko 22 eta 24. idatz-zatietan eta, horiei loturik, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10. artikuluko 11 eta 33. idatz-zatietan xedaturik dagoenari erreparatuta, hauxe esan liteke: ibai arroa autonomi erkidego baten baino gehiagoren lurraldeetara hedatzen denean, arroko uren gaineko eskumen eskusiboa Estatuari dagokio, eta EAERen mugartean osorik sartzen diren ibaien arroetan, berriz, uren gaineko eskumena autonomi erkidegoari dagokio.

Ibai hauen guztien arroak osorik sartzen dira EAERen lurraldean. Denak ere Bizkaiko itsasoan itsasoratzen dira:

- Jaizubia
- Oiartzun
- Urola
- Deba
- Artibai
- Lea
- Oka
- Butroe
- Gobela
- Asua
- Galindo
- Barbadun
- eta kostaldeko beste arro txiki batzuk

Gainerako ibaiei dagokienez, 1994ko maiatzaren 31n Estatuak eta EAER hitzarmena sinatzea erabaki zuten. Haren bitartez, herri jabari hidraulikoarekin zerikusia

duten baimen guztiak tramitatzeke ardura Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Sailari eman zitzaion.

EAE barruko eskumenen mugaketa dela eta, txostenean banan hartu dira Zadorra sistemako urtegi-tako uraren kalitatean eragina duten edo izan dezaketen arazo guztiak, eta horietariko bakoitzean Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta Arabako udal eta kontzejuek zer nolako eskumenak dituzten aztertu da.

Alderdi juridikoen azalpena dakarren kapitulu honetan, azkenik, lurraldearen antolaketa eta plangintza hidrologikoa uztartzeko irizpideak aztertzen dira. Ondokoak dira bi arlo horien arteko loturak ezartzeko irizpideak:

1. Plan hidrologikoen ibaien ibilguen eta urtegien inguruetan izan dezaketen eraginaren mugak.
2. Koordinazioaren oinarriko printzipioa.
3. Plan hidrologikoen lehentasuna izatearen printzipio subsidiarioa.
4. Plan hidrologikoen parke natural izendapenen menpe egotea.

\* \* \*

Txostenetik ateratako **ondorioak eta gomendioak** azken kapitulu biltzen dira.

Ondorio nagusi gisara, azken urte hauetan urtegien egoerak txarrera egin duela adierazten da, eta gizakiak eragin duela txartze hori, nekazaritza eta abeltzaintza, hiri jarduerak, industria eta aisialdiko jarduerak direla bide, funtsean.

Prozesu horren ondorioz, gai kutsagarrien eta elikagaien gehikuntzak -arroko ibaien ekarpenak, gehienbat- osasun arazoak sortaraz litzake epe ertainean eta, batez ere, epe luzean. Dena dela, oraingo uraren kalitatea osasunaren aldetik ona dela egiaztatzen da. A-1 kalifikazioa eman zaio, hau da, hobereana.

Administrazioarentzako gomendioak edo jarduteko aholkuak biltzen dituen atala bi azpiataletan banatu da. Batean gomendio orokorrak daude eta bestean arloko gomendioak.

**Gomendio orokorrak** dira interesgarrienak eta hitzez hitz jaso ditugu:

1. Zadorra sistemako urtegi-tako uraren kalitatearen arazoei batera harturik heldu behar zaie, sektore guztiak elkarlanean jarriz eta koordinatuz, eta arlo osoa hartu behar da lurralde-erreferentziatzen. Horretarako Zadorrako Urtegien Arroa Babesteko Arloko Lurralde Plana idatz dadila proposatzen da.
2. Administrazioen arteko koordinazio organoa eratu behar da, iraunkorra, nahiz aholku edo informazio emailea nahiz erabakitzailea. Erakunde hori uraren kalitatearekin zerikusia duten eskumenak dituzten administrazio guztien bilgune eta topagunea izango litzateke. Bide horretan, Zadorra Sistemako Urtegien Babeserako Mahaia sortu eta abian jartzea garrantzi eta interes handiko mugaria izango da.
3. Pasabide biologiko naturalak sortu behar dira urtegien inguru hurbiletan, bazterretako landaredia leheneratuz. Jendea erraz iristen ez den aldeak izango dira, beste erabilera kaltegarri batzuk baztertuko dituzte eta urtegi-tako ura benetan babesteko bidea emango dute. Arroko ibai eta erreken ertzetan ere antzeko neurriak hartu behar lirateke.
4. Arroko laborantza lurrak “alde zaurkor” izendatzeko aukera aztertu behar litzateke (otsailaren 16ko 261/1996 Errege Dekretua eta 91/676/EEE Zuzentaraua). Hala

eginez gero, nekazaritzako iturrietatik datozen nitratoen bidezko kutsadura gutxitzeko egitarauak egin behar lirateke. Bai egitarau horiek eta bai nekazaritzako praktika onen kodeak derrigorrez bete behar dira zaurgarritzat kalifikatzen diren aldeetako nekazaritza-ustiategietan.

5. Ebroko Konfederazio Hidrologikoari Zadorrako urtegien arroa "*alde sentikor*" izenda dadila proposatzea, 91/271/EEE Zuzentarauak (abenduaren 28ko 11/1995 Errege Lege-Dekretura eta martxoaren 15eko 509/1996 Errege Dekretura aldatua) hirietako hondakin-uren tratamenduari buruz dioena bete dadin. Horrela nahitaez egin behar litzateke uraren hirugarren mailako tratamendua hirigune handienetako hondakin-uren araztegietan (HUA).

**Arloz arloko gomendioak** ondoko sektore hauei zuzendu zaizkie:

- Saneamendua:  
Bai kolektoreen sarea eta bai hondakin-uren araztegien funtzionamendua eta mantenimendua hobetzea Zadorraren arroko hirigune nagusietan. Gainera, araztegietan uraren hirugarren mailako tratamendua egiten hasi behar da.
- Nekazaritza:  
Ibai edo urtegi ondoko lur zerrenda landu gabe uztea, eta ongari eta pestiziden erabilera murriztera jotzen duten nekazaritza-praktikak sartzea.
- Abeltzaintza:  
Abereei urertzeraino iristen eragozte, eta ustiategi intentsiboetan hondakinak eta mindak ezabatzeko sistemak berrikustea.
- Analisi bidezko kontrola:  
Analisi bidezko kontrolak egiten dituzten erakunde guztien lana koordinatu eta programatzea eta analisien emaitzak horien guztien eskura jartzea.
- Trafikoa:  
Urtegiak zeharkatzen edo inguratzen dituzten errepideetan merkatugaien garraioa kontrolatzea.
- Babes zibila:  
Autobabeserako plana egitea, gai toxiko edo guztiz kutsagarriren bat isuriko balitz babes neurriak berehala hartu ahal izateko.
- Aisia:  
Bainu aldeak mugatzea eta lehendik daudenak atondu eta ekipamenduz hornitzea. Gainera, parkeak eta atsedenguneak behar bezala taxutu eta ekipatu behar dira; era berean, debekatu eta kontrolatu egin behar dira kanpaldiak eta karabanen egonaldiak.
- Heziketa:  
Urtegietakoa ura eta inguruak kutsatu eta hondatzeko arriskuei buruzko informazio kanpainak sustatzea.
- Ingurugiroa:  
Ibaiek urtegiak dakartzaten jalkinen kopurua gutxitzea, jalkinak atxikitzen dituzten sarea ezarri. Ildo beretik, urtegiari biomasa kentzen dioten jarduerak sustatzea komeni da (arrantza...).
- Lurraldearen antolaketa eta hirigintza:  
Hondakin toxikoak sortzen dituzten lantegien instalazioa debekatzeko arroko industrialdeetan. Halaber, urtegi ertzetan dauden auzune txikien hazkundera debekatzeko.

Urtegi-tako inguru-etan duela zenbait urtetik hona ugaritu diren arauz kanpoko eraikuntzak eta kokaguneak (karabanak, txabolak) kendu egin behar lirateke.

Txosten hau 1999ko martxoaren 11n eman zaio Eusko Legebiltzarreko buruari. Eusko Legebiltzarrak txostena Giza Eskubideen eta Herritarren Eskabideen Batzordeari aurkezteko eguna ezarri zain gaude.

Gainera, Arartekoak txosten hau igorri die arazoak ukitzen dituen administrazioei, eta hurrengo egunetan jarraipena egingo du zenbateraino onartzen eta aplikatzen duten jakiteko.

### **1.3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN EGOERARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIA**

Iazko urteko txostenean iragarri zen gure Erkidegoko gizarte zerbitzuen egoerari buruzko monografikoa egingo genuela. Lan hori 1999an bukatu zen, oinarrizko 210 unitatek igorri dizkiguten datuak eta balorazioak zehatz-mehatz aztertu ondoren, hau da, gure Erkidegoan dauden unitateen %80 baino gehiagok.

Arartekoaren aparteko txostena 1999ko abenduaren 22an jendaurreratu da eta egun horretan bertan Legebiltzarreko Lehendakariari eman zitzaion; esan behar da txosten honen idazkuntza egiten ari garenean Giza Eskubideen eta Hiritarren Eskabideen Batzordean aurkezteke eta eztabaidatzeke dagoela.

Beraz, argitaratuta dagoen txostena da eta hemen ez gara sartuko eduki kontuetan, edota ez ditugu berriz aztertuko bertan egin ziren 21 aholku zehatzak. Hemen egingo dugun gauza bakarra eskubideak bermatzeko ikuspegitik egin den azterlan horren arabera garrantzitsuenak diren zazpi gaiak adieraztea eta azpimarratzea baino ez da:

#### **1. Zerbitzu hauei dagozkien funtzioen zehaztapen urria eta herritarrek horiei buruz duten ezagutza.**

Hogei urteko esperientzia izan arren, jende askok ez ditu oraindik oinarrizko unitateen funtzioak ezagutzen; are gehiago, ez dakite horietan aurkez ditzaketen eskaerak zeintzuk diren, ezta zein eskubide bete dadila exiji dezaketen ere. Egoera hori erakunde eta zerbitzu berrietan nahiz oraindik finkatu gabekoetan sarri gertatu ohi da. Arartekoaren erakundea bera da horren adibide garbia.

Funtzioen zehaztasun eta argitasun faltak, hots, oinarrizko unitateei dagozkien eginkizun eta ardurek, ez dute herritarrek horiei buruz duten ezagutza eta erabilera errazten. Egungo Gizarte-Zerbitzuei buruzko Legea, 1996koa, edo Gizarte-Bazterkeriaren aurkako Legea, 1998koa, orokorregiak dira zentzu horretan, eta ez dago zerbitzu hauentzako legedi berezirik. Ez dirudi, halaber, zerbitzu horiek herritarren artean edota bereziki ahulak diren gizarte-sektoreen artean ezagutzera emateko urrats posible guztiak eman direnik. Agian, beldur dira zerbitzu hauen oihartzun handiago batek jendez gainezka jarriko ote dituen. Pertsona jakin batzuek soilik ezagutzen eta erabiltzen badituzte zerbitzu horiek, Erkidego honetako herritar guztiei ez zaie praktikan berdintasunezko tratu bat ematen.

#### **2. Herrialde, eskualde eta herri desberdinetan herritarrei eskainitako arreta mailen arteko ezberdintasun handia.**

Kontuan hartzen badugu oinarrizko unitateak zein Herrialde Historikotan edo zein eskualde edo herritan kokaturik dauden (herri txikia, hiria...) alde handiak agertzen dira txostenean. Horiek eskainitako zerbitzuan zuzeneko eragina duten gaietan oso adierazgarriak dira alde horiek: profesional/biztanle-kopuru ratioa; prestazioak lortzeko prozedura errazagoak edo konplexuagoak; epeei, edukiei eta gizarte-txostenen zabalkundeari buruzko irizpide desberdinak; presako beharrei erantzuna emateko behar izan den denbora; zerbitzu desberdinen arteko koordinazio mailak... Hori guztia, baliabide materialen arloan eta gizartearen zerbitzura jarritako zenbateko ekonomikoen alorrean egon daitezken aldeak kontuan hartu gabe.

Egoera honen begi-bistako ondorioa herri edo Herrialde batetik bestera herritarrek jasotzen duten arreta desberdina da. Erakunde honen iritziz, eskainitako zerbitzuan homogeneitate handiagoa lortzea beharrezkoa da, baita minimo argi batzuk bermatzea ere.

**3. Administrazio-lanen gainkarga, eta, ondorioz, gizarte-lanari eskaintzen zaion dedikazio txikiagoa, profesional askori eraginez.**

Oinarrizko unitateetako profesional askok beraiei agindu zaizkien gehiegizko administrazio-lanei buruz egindako keak jasotzen dira txostenean. Egoera horrek, gizarte-lanari, banakako gizarte-lanari nahiz taldekako gizarte-lanari eskaini beharreko denbora murrizten du. Txosten honetan proposatzen diren laguntza administratiboek, zerbitzuen informatizazioak, prozeduren sinplifikazioak edo etengabeko prestakuntza sendotzeak, egoera hau gainditzeko balio izan behar dute.

**4. Zerbitzu askoren ibilgarritasun-baldintzek horien erabilpena zailtzen dute.**

Herritarrek gizarte-zerbitzuetaraino ailegatzea zailtzen dute oztopo ugari dago. Txostenak oztopo horietako batzuk azaltzen ditu: unitate batzuen kokapena, herritarrek unitatea ez ezagutzea, prozeduren konplexutasuna, unitate askoren ibilgarritasun-baldintzak... Azken gai honi dagokionez, eskainitako datuak oso kezagarriak dira: oztopo arkitektonikoak kentzeko Araudia onartuz geroztik hamasei urte igaro ondoren, gaurko gizarte-zerbitzu gehienak ibilgaitzak dira oraindik. Gurpildun aulkian dabilen pertsona bat ezin da, 159 zentroetan gutxienez, bere kabuz ibili.

Arartekoak, zentroen ibilgarritasuna hobetzeko asmoz, ofiziozko ekintza bereziak burutuko ditu udaletxe desberdinekin.

**5. Zerbitzuetara jotzen duten pertsonen intimitaterako eskubidea.**

Txostenak zerbitzuetara jotzen duren intimitatearekiko eskubideetan eragin handia duten zenbait gai material nahiz prozedurazko biltzen ditu: bulego eta itxaron-gelek dituzten ezaugarriak, dokumentazioa artxibatzeako sistema, gizarte-txosten batzuetan azaltzen den informazio mota, informazio hori eskura dezaketen pertsona kopurua eta erabakiak hartzeko orduan parte hartzen duten pertsona kopurua... Era honetako gaiek ere zaildu eta, azkenean, galerazi ere egiten dute pertsona batzuek gizarte-zerbitzuak erabili ahal izatea.

**6. Beste zerbitzu eta gizarte-agenteekin elkarlan urria.**

Begi-bistakoa da gure gizartean, oinarrizko unitateek eskainitako arreta, beste askoren artean, laguntza bat gehiago dela. Ez zerbitzu espezializatu asko dagoelako bakarrik, baita ere jatorrizko sareak (familiak batez ere) bere gain hartzen duen lan handiagatik nahiz laguntza eta borondatezko erakundeen duten garrantziagatik. Beraz, gizarte-bazterketaren aurka lan egiten duten ekimenak eta baliabideak ugariak dira.

Txostenak, sare desberdinen artean egon den ezagutza, elkarlan eta koordinazio falta erakusten du maiz. Gizartean dagoen solidaritatea aprobeztatzea premia bat da benetako arreta hobetzeko orduan, baita komunitateko baliabide guztiek ahalik eta etekin eta aprobetxamendurik onena ateratzeko orduan ere.

**7. Ezkutuan dagoen arreta-eskaera eta erantzunik ematen ez zaion eskaera.**

Orain arte aipatu ditugun oinarrizko gizarte-zerbitzu askoren egungo mugek norabide bera darameta eta bi galdera garrantzitsu planteatzen dituzte: oinarrizko



gizarte-zerbitzuek eskaintzen dituzten zerbitzuetatik, zeintzuk dira herritarrek eskatzen ez dituztenak, horiei buruzko ideia oker bat dutelako edota, besterik gabe, ezagutzen ez dituztelako?, oinarritzko gizarte-zerbitzuek jasotzen dituzten eskaeretatik zeintzuk ez dute arretarik jasotzen edo zeintzuk ez dute behar bezalako arreta jasotzen?

Arrazoi metodologikoak direla eta, egindako txosten honek ez die gai horiei erantzunik ematen. Argi erakusten du, ordea, gai horiek zehazki aztertuko dituzten hainbat ikerketa burutu beharra: eskaeretan agertzen ez diren beharrak eta behar bezalako irtenbidea jaso ez duten eskaerak.

Arartekoaren erakundeak, txostena Legebiltzarrari aurkeztu ondoren, azterketa, proposamen eta aholku horiek eskumenak dituzten erakunde guztiei helaraziko dizkie, eta baita gizarte bereizkeriaren aurka borrokatzen duten elkarte eta gizarte agente guztiei ere. Halaber, ofiziozko jarduera eta jarraipen batzuk egingo ditu Erkidegoko Udal batzuen kasuan, erakunde horiek direlako oinarritzko unitateen arduradunak. Urteko beste txosten batzuetan jarduera horiei buruzko azalpenak emango dira.

#### **1.4. BURUKO GAIXOTASUNAK DITUZTEN PERTSONEI OSPITALEZ KANPO EMATEN ZAIEN ARRETARI BURUZ AURKI EGINGO DEN MONOGRAFIKOA**

Iazko urteko txostenean (ikus I. kap., 2.2.1. idatz-zatia, 1998 txostenekoa) gure Erkidegoan buruko gaixotasunak dituzten pertsoneri eskaintzen zaien erkidegoaren arreta aztertzeko Arartekoak sustatu zuen txosten monografikoari buruzko daturen batzuk eman ziren. Horrela, adibidez, lana erakundearen beraren aurreko txosten eta jarduketan emaitzetan bidezkotu zuen, familien elkarteek eta pertsona horien laguntzarako elkarteek adierazi dituzten arazoren batzuk islatu ziren, lanak eragin zituen zailtasun batzuk planteatu zituen eta ordura arte emandako urratsak biltzen zituen.

Ikerketa lana 1999. urte osoan egin da eta ahalegin itzela egin behar izan da datuak eta balorazioak biltzeko. Berariazko helburua izan da, Administrazioak eman dituen datuekin edo profesionalen iritziekin batera, buruko gaixotasunen emaitzak zuzen jasotzen dituztenen ikuspegiak biltzea: gaixorik dauden pertsonak, horien familiakoak edo zuzeneko zaintzaileak, laguntzarako elkarteak... Horrela, elkarrikuskaketa indibidualak egin dira buruko nahasmendu kronikoa duten 410 pertsonarekin, eskualde desberdinetakoak eta arazo desberdinak adierazten dituztenak.

Egin den lan horri esker egun ospitalez kanpoko sareak, elkartegintzaren arloak, buruko gaixotasuna duten pertsonen eta horien familien bizitza baldintzak... eta abarren egungo egoera hobeto ezagutuko da. Halaber, zilegi izango da egoera desberdin horietan eragina duten inplikazio juridikoak ezagutzea eta baita arlo jakin batzuetan, esaterako elikadurazko nahasmenduak dituzten haur eta nerabeen kasuetan, gertatzen diren arazo bereziak ere. Egin den ikerketa horretatik abiatuta Arartekoak aholku eta proposamen batzuk gertutuko ditu pertsona horien eskubideak hobetzearen eta ematen zaien arreta hobetzearen ondoreetarako.

Urteko txosten hau idatzi den unean datuak biltzeko eta ustiatzeko prozesua bukatu da eta txostenaren hasierako idazkuntza burutu da; hasierako ale hori berrikusi eta itzuli egingo da eta, gero, argitaratu. Gure aurreikuspenen arabera txosten monografiko hori 2000 urtearen lehen erdian emango zaio Legebiltzarrari eta azalduko da jendaurrera.

## 1.5. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZAKO BEHARRIZAN BEREZIEI ERANTZUNA EMATEAZ AURKI EGINGO DEN AZTERLAN MONOGRAFIKOA

Arartekoak egin dituen azkeneko txosten monografikoetatik bi benetan arriskuan dauden haur eta nerabeen taldeei buruzkoak izan dira: babesgabezia egoeran dauden adingutxikoak eta adingutxiko zehatzaileak. Egoera oso txarrean edota oso egoera arriskutsuan dauden adingutxikoak babesteko behin eta berriz azaldu duen interes horren ildotik jarraiki oraingo honetan, 2000n, gure Erkidegoan hezkuntzako beharrizan bereziak dituzten ikasleen egoera aztertu nahi da.

Asko dira azken urte hauetan hezkuntza bereziaren eta hezkuntzako beharrizan berezien kontzeptuaren beraren inguruan gertatu diren aldaketak. Gure Erkidegoan aldaketa horiek nabarmenak dira, batez ere 1982tik aurrera, plan, araudi eta proposamen batzuetan: 1982ko Euskal Herrirako Hezkuntza Bereziaren Plana; "Eskola ulerkor eta integratzailea" txostena, 1989an; 1998ko ekainaren 23ko Dekretua, hezkuntzako beharrizan bereziak dituen ikaslegoaren hezkuntza-erantzuna arautu duena...

Arartekoaren lan berri horren betearazpenean hezkuntzako beharrizan berezien kontzeptua zentzu zabalean eta eguneratuan landuko da, adierazi den dekretu horretan definitzen den bezala:

*"Hezkuntzako beharrizan berezizat joko dira eskolaratzearen aldi jakin batean edota eskolaratze osoan hezkuntzako arreta bereziak behar dituzten ikasleek, bai gaigabezia fisikoak, psikikoak edo zentzumenezkoak edukitzeagatik, bai jokaera arazo larriak edukitzeagatik edo egoera sozial edo kultural txarretan egoteagatik; halaber, kontuan hartuko dira gaitasun intelektual altuei lotuta dauden baldintza pertsonalak edukitzeagatik jaramon berezia behar duten ikaslegoaren beharrizanak."*

Gerta daiteke erantzunak desberdinak izatea beharrizan batzuetan eta besteetan. Hasieran behintzat ikuspegi zabala eskaini nahi da, hezkuntzako beharrizan berezi guztiak eta erantzun guztiak kontuan hartuko dituen:

- \* buru atzerakuntza edo/eta garapeneko nahasmendu orokorra;
- \* gorra izatea edo entzumenezko gaigabeziak edukitzea;
- \* ikusmen urritasunak;
- \* gaigabezia motorea eta buruko paralisia;
- \* gain-gaitasun intelektuala;
- \* ingurune sozial edo kultural narriatua (gutxiengo etnikoak, inguru narriatuak...);
- \* eskola egokitzapenik-eza;
- \* iraupen luzeko ospitaleratzeak eta gaixotasunak;
- \* maila motelak eta ikaskuntzako arazo larriak...

Hezkuntza Bereziaren Planetik (1982) arautegi berrira arte igaro den denboragatik (118/1998 Dekretua eta horren ondoko aginduak eta ebazpenak) azterlan honek, aldi berean, egin denaren balorazio gisa eta jarduketa berriak sustatzeko balio dezake.

Azterlanaren xedea EAEn hezkuntza berezien beharrizana duen ikaslegoaren eskola errealitatea aztertzea da, hau da, erakundeetatik ematen ari zaion erantzuna.

Hiru lurralde historikoak atzemango ditu, eta unibertsitatez kanpoko hezkuntzako etapa guztiak -eskuhartze azkarra barne (atzemate eta hezkuntza goiztiarrak), gizarteratze sistemak (helduen bizitzarako urratsa) - eta hezkuntza sare guztiak (publikoak eta pribatuak).

Halaber, informazioa jasotzeko arlo ukitu guztiak izan nahi ditu: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta horren menpean daude maila guztietako zerbitzuak; pertsona horiekin lan egiten duten profesionalak; familien elkarteak eta laguntza taldeak; eta baita ikasleak ere, ahal den neurrian behintzat.

Ikerkuntzako lanaren adjudikazioaren prozesua 1999 urtearen amaieran hasi zen. Txosten hau idatzi den unean proiektuak egiteko fasean eta azterlana adjudikatzekoan gaude. Aurreikusi da behin betiko txostena Legebiltzarrari 2000 urtearen amaieran aurkeztuko zaiola.

## **2. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPECTATU ETA GIZARTEAREKIKO HARREMANAK SENDOTZEN DITUEN KULTURA SORTZEA HELBURU DUTEN JARDUERAK**

### **2.1. TALDEEKIN, ELKARTEEKIN ETA GIZARTE-ERAGILEEKIN IZANDAKO ELKARLANERAKO HARREMANAK**

Arartekoak, hasiera-hasieratik, gure Erkidegoko gizarte talde guztiekin lankidetzan jarduteko borondate irmoa adierazi du eta beti eman die berariazko garrantzia, hedapenagatik eta eredia izan daitezkeelako, horiekin egiten dituen jardueri. Horregatik guztiagatik, 1999an ere, eta kasu askotan aurreko urteetan hasitako lankidetzaren jarraipen gisa, Arartekoaren erakundeak sistematikoki gizarte agenteekiko harremana bilatzen jarraitu du. Ahalegin horiek, bereziki, egoera txarrean dauden pertsonen laguntzan lan egiten duten elkarte, erakunde eta taldeekin sustatu ditu, edota era askotako arazoak ebazten: talde bakezaleak, minusbaliadunen elkarteak, giza eskubideen defentsarako taldeak, atzerriko pertsonen laguntzarako taldeak, askatasunik ez dutenen laguntzarako edo bereizkeria arazoak dituzten languntzarako. Batzuetan talde horiek erakunde honetan egin dituzten esku hartzeko aginduak edo kexak izan dira jarduera horien abiaburu; beste batzuetan zuzenean informazio elkartrukaketak sustatuz edota aurrez hasita zeuden harremanei jarraipena emanez burutu dira.

Arartekoak bezala bermeak eskatzen dituen erakunde batentzat elkarte horiek gizartearen benetako antenak izan daitezke: beste era batera inork igarri gabe igaro daitezkeen arazo eta egoeren detektagailuak dituzten sentsoreak, eta gizarteari horren berri ematen diotenak. Eta hori horrela da sarritan defentsa edo babes gehien behar duten pertsonak izaten direlako erakundeetara gutxien jotzen dutenak: ez dakitelako daudenik edota dagozkien eskubideak ez dituztelako ezagutzen, gizartean bizitzeko oinarrizko trebeziak falta zaizkielako, aurrez izan dituzten esperientzia negatiboak galga izaten direlako, erakundeekiko konfiantzarik ez dutelako edota ez direlako fidatzen eta uste dutelako horiek ez dutela arazoak ebazteko borondate edo gaitasunik... Pertsona horietako askok ez dituzte beren kexak azaltzen ez dakitelako hori giteko biderik dagoenik, edota ez dakitelako ez non eta ez nola egin.

Urte hauetan eskuratu dugun esperientziak frogatu digu elkarte eta talde askok funtsezko artekaritza lanak egin ditzaketela gure gizartean bazter geratzen diren edo oso egoera larrian dauden arlo horien eta Arartekoa bezalako erakundeen artean eta gaitasuna dutela horiei dagozkien eskubideen eta arazoak konpontzeko bideen berri emateko, horien aldarrikapenak adierazten laguntzeko, administrazioek hiritarrei ematen dieten zerbitzua hobetzeko eta, horrela, erakundeekiko konfiantza sustatzeko eta gizarte lotura handiagoa bideratzeko.

Gure Erkidegoan dauden elkarte, talde eta erakundeen kopuru handiak argi frogatzen du gizartea bizirik dagoela. Baina, aldi berean, aniztasun eta aberastasun hori benetako erronka da horiekin lankidetzaharreman egonkorrak, neurri batean zein bestean, mantendu nahi dituenarentzat. Guri dagokigunez, beti ere mugak kontuan hartuta, gure lankidetzarako borondatea errealitate bihurtzeko lau bide hautatu ditugu, elkarren artean osagarriak direnak:

- erantzun positiboa ematea gugana jotzeko interesa adierazi duten elkarte eta talde guztiei;
- urtero, eta zilegi den kasu guztietan, aurrez gurekin harremanetan egon diren talde guztiekin nolabaiteko harremana burutuz;
- arazo larriak pairatzen dituzten eta benetan lehentasuna behar duten alde edo arloetan lan egiten duten talde batzuekin harreman berriak eratzeko ekimenak;
- jarduteko interes edo esparru baliokideak dituzten elkarteetan artean dauden lankidetzeta-plataformak aprobetxatuz.

Horrela, 1999an zehar Arartekoaren erakundeak lankidetzeta-harreman sendoak eta iraunkorrak izan ditu gizartearen ondoko arlo hauetan lan egiten duten elkarteekin:

- babesik ez duten edo lege hausleak diren adin txikikoei jaramon egiteko zerbitzuen kudeaketa;
- espetxeratuak kaleratzea edo etxera hurbiltzea;
- buruko gaixotasunak dituzten pertsonen tutela;
- HIESa duten pertsonen laguntza eta arreta eskaintzea;
- babesgabezia egoeran dauden haur eta nerabeei familietan abegi egitea;
- giza eskubideak defendatzea eta beste herri batzuetan horien aurka egiten diren erasoak salatzea;
- hezkuntza jasotzeko eskubidearen defentsa;
- atzerritar etorkinen gizarteratzea;
- drogamenpekotasun arazoak dituzten pertsonen laguntza;
- hirugarren munduko herrien garapena laguntzea eta horietarako egitarauak garatzea;
- espetxeratuaren eskubideen alde egitea eta haiei jaramon egiteko egitarauak garatzea;
- ijitoen erkidegoen beharizan bereziak planteatzea eta horiei aurre egitea;
- sasoiakako langileei eta horien familiei arreta eskaintzea;
- bazterkeria bizi duten taldeen gizarteratzea edota berariaz narriatuta dauden aldean gizarte-lotura lortzea;
- bakezaletasuna eta gatazkak elkarrizketa formulen bidez konpontzea;
- emakumeen eskubideen defentsa;
- indarkeriaren biktimei jaramon egitea edo horien eskubideak defendatzea;
- minusbalio era guztietan gizarte erantzuna bermatzea;
- tratu txarrak aurrearretaz zaintzea eta tortura egoerak salatzea;
- pertsona baztertuei eta familiaren laguntzarik ez dutenei arreta soziosanitarioa ematea;
- talde profesional jakin batzuen defentsa;
- herri zerbitzu guztien erabiltzaileen eskubideen defentsa;
- arrisku egoeran bizi diren familiakideei laguntzea...

Kasurik gehienetan (elkartearen eskubideei erantzutea, talde batekin harremanak hastea eta lankidetzeta foroetan egotea) erlazioa zuzena izan da eta bileraren bat eragin du. Beste kasu batzuetan, esaterako, aurreko urteetan hasita zegoen harreman baten jarraipena, horiei eusteko eta horiek mantentzeko bilera berriak egin dira; beste kasu batzuetan nahikoa izan da informazioa elkartrukatzea, hala ahoz nola idatziz, edota ekitaldiren baten esku-hartzea...

Era batera zein bestera, bide batzuk erabiliz zein beste batzuk, eta arestian ere adierazi ditugun muga horiek hor egon arren, aurten informazioa elkartrukatzeko bilerak edo lankidetzeta-formulak izan ditugu, gutxienez, jarraian adieraziko diren talde, elkarte eta erakundeekin (ordena alfabetikoan):

- 0,7 eta + GKE Garapenerako eta Plataforma Koordinadora
- Abokatuen Elkargoak
- Adap
- Afrika Etxea
- Afrovasca
- Alzheimerra duten gaixoen tutelarako Fundazioa
- Amaitu Plataforma
- AMAPASE (Asociación Alavesa de Madres y Padres Separados)
- Amarena
- Amnistía Internacional
- APNABI (Asociación de Padres de Niños Autistas de Bizkaia)
- Arabako auzo elkarteen Federazioa
- Arabako buruko gaixoen tutelarako Fundazioa
- Asociación de Psicólogos para la Atención de Víctimas de la Violencia (AVAPSI-AVASME)
- Asociación de Servicios de Iniciativa Social ADSIS-Bestalde
- Asociación Nacional Presencia Gitana
- Berriztu
- Besarka, Arabako arreta eta adopzio elkarte
- Beste herri batzuetan giza eskubideen defentsarako elkarteak
- Bidasoaldeko Emakumeak
- Bilbo-Etxezabal
- Bilboko Erkidego Musulmana
- Bizitegi
- Bizkaiko Minusbaliatu Fisikoen Elkarte
- Bizkakiko Gizarte Laguntzaileen Elkargoa
- Cáritas
- CEAR (Comisión de Ayuda al Refugiado)
- EDE Fundazioa
- Egunabar (psikiatriaren erabiltzaileen elkarte)
- Ekimen
- Elkarri
- Euskadiko Txinatarren Elkarte
- Euskal Herriko Gorren Elkarteen Federazioa
- Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Taldea
- Euskal-Aid
- FEDEAFES (Federación de Euskadi de Asociaciones de Familiares de Enfermos Psíquicos) eta federazio horretan integratuta dauden elkarteak (AVIFES, AGUIFES...)
- Gao Lacho Drom
- Gaztaroan Ekin
- Gernika Gogoratuz
- Gesto por la Paz

- Geugaz, Santurtzirantz Plataforma
- Gipuzkoako Erkidego Musulmana
- Gorabide tutelarako Fundazioa
- Gregorio Ordóñez Fundazioa
- Gurasoak
- Gure herria lankidetzeta-egitarauetan edo beraien arazoan berri emateko bisitatzen duten beste herri batzuetako taldeak
- Gurutze Gorria
- Harresiak Apurtuz Inmigrantei Laguntzeko GKEen Koordinadora Koordinadora (ondoko kide hauek dituena: CEAR, Bilbo-Etxezabal, Afrovasca, Cáritas, CITE, Gurutze Gorria, Hegoa, UGT, Elkartu, SOS-Arrazakeria, Euskadiko Txinatarren Elkartea...)
- Haurralde, haurtzaro, gazteri eta familiaren babeserako Fundazioa
- Hernaniruntz Plataforma
- Herri askotako kooperanteen taldeak
- Hezkuntza zentroetako ikasleen gurasoen elkarteak
- HIESaren aurka borrokatzeko elkarteak (Asociación Ciudadana Anti-Sida de Bizkaia, Comisión Anti-Sida de Bizkaia, Errotatxo, GHAT, Harri-Beltza, Hies-Ekimena, Txo-lhesa, T-4)
- Hirigintzako plan, ingurugiroko arazo eta abarregatik ukitutako herritaren elkartea
- Hirugarren Mundua ta Bakea
- Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioa
- Iniciativa Gitana
- Izangai
- Jóvenes por la Paz Fundazioa
- Juana Mugarrieta Elkartea
- Kalé dor Kayikó
- Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Euskal Erakundea (EKA/OCUV)
- Lan-arazoak dituzten langileak (hornitegi-tako langileak, profesio anitzeko taldeak...)
- Médicos Sin Fronteras
- “Padre Arrupe” Giza Eskubideen Institutua
- Paidós
- Pediatriako Espainiako Elkartea
- Pertsona presoek laguntzeko taldeak
- Sabino Arana Fundazioa
- Saharako Errepublikako eskuordeak
- Salhaketa
- San Frantzisko, Zabala eta Bilbao La Vieja auzoetako elkarteak eta laguntza taldeak
- Senideak
- Sindikatu, talde eta profesionalen elkarre asko (irakasleak, gizarte laguntzaileak, abokatuak, hezleak, psikologoak eta pedagoak, poliziak...)
- Sindikatuak edo sindikatu-tako atalak: CC.OO., ELA, LAB, UGT, CESIF, ERNE, UAGA
- SOS-Arrazakeria
- Toki desberdinetako pertsona atxilotu edo presoek familiak eta lagunak
- Torturaren aurkako Elkartea



- Torturaren Aurkako Taldea (TAT)
- Txiroekin Bat Eginik
- Txotxe Askatu, kartzelatik ateratzeko Plataforma
- UNICEF

Hainbeste kasutan elkarte horiekin egin den lankidetzaren lan monografikoen esparruan gauzatu da, Arartekoaren erakundeak berak burutu duena alegia. Horrela, adibidez, Euskal Herriko espetxeen egoerari buruzko lanaren jarraipenak (kapitulu honetan aipatu dena) jarraian adieraziko diren elkarte hauekin bilerak edo elkartrukeak egin beharra eragin du:

- Abokatuen elkargoetako espetxeetako laguntza txandak (TAP)
- Adsis-Bestalde
- Asociación Guipuzcoana de Investigación y Prevención del Abuso de las Drogas (AGIPAD)
- Bilbo-Etxezabal
- Cáritas (PAEX)
- Etorrintza
- Foronda
- Goiztiri
- Gurutze Gorria
- Hiru lurraldeetako birgizarteratzeko institutuak (IRSE)
- Hiru lurraldeetako hiesaren aurkako hiritarren batzordeak
- Hiru lurraldeetako SOS-Arrazakeria
- Izangai
- Pastoral Penitenciaria
- Proyecto Hombre
- Salhaketa
- T-4 (Hiesaren aurkako borrokarako eta autolaguntzarako hiritarren elkarteak)
- Txagorritxuko zaintza bereziko unitatearen aurkako taldeen plataforma

Arartekoak berariaz lantzen duen arazo baten jarraipenerako lankidetzaren mota hau arlo batzuetan gertatu da urtean zehar, esaterako: adin txiko lege hausleekin egin diren esku-hartzeak (Berriztu eta Gaztaroan Ekin hezkuntzako elkarteak), sasoikakoak (Paidós, Hezilan, UAGA, Cáritas...), San Frantzisko auzoko poliziaren esku-hartzeak (Harresiak Apurtuz koordinadoran integratuta dauden taldeak, auzotarren elkarteak...). Beste kasu batzuetan elkarteekiko harremana foro berezietan edo horiek antolatzen dituzten ekitaldietan gertatu da...

Dena dela, esan behar da bilera eta informazio-trukaketa guztiek ez dutela berez Erakundearen esku-hartzerik eragiten, batez ere berehalakorik. Baina adierazi behar da sarritan, egiten diren bilera horien ondorioz, alderdi guztien lankidetzaren ondorioz eta horien jarduteko duten askatasuna berariaz zainduz, ondoko ildo hauetan sailka daitezkeen jarduerak sortu direla:

- kexen tramitazioa (hala taldeenak nola norbanakoenak), elkarteek beraiek formulatu dituztenak;
- Arartekoaren ofiziotik jarduerak Administrazioaren atal batzuetan, azaldu zaizkion arazo horiek ebazteko;

- elkarte horien eta herri erakundeen arteko artekaritza lanak egitea;
- talde batzuek sustatu dituzten kanpaina edo elkartasun ekitaldiei erakundeen laguntza ematea;
- Administrazioa eta elkarteen arteko lankidetzaren harremanak hobetzeko proposamen zehatzak;
- arauak aldarazteko proposamenak aurkeztea;
- lanerako baliagarria den informazioa eta dokumentazioa elkartrukatzeko;
- arlo jakin batzuk sakon ikertzea (lan monografikoak);
- agintariekin presazko kudeaketak egitea zerbitzu jakin bat hobetzeko edo arazo bat ekiditeko;
- artekaritzaren eremuko esku-hartzeak...

Adibide bezala, labor bilduta, 1999an zehar Arartekoaren erakundeak lankidetzaren esparru honetan egin dituen jardura batzuk adieraz daitezke. Adibidez:

- Talde bakezale batzuekin, arazoetan artekari lanak egiten dituzten elkarteekin eta ikastetxeekin izan den erlazioari esker erakunde honek Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailean bakerako hezkuntzari buruzko proposamen orokorra aurkeztea ekarri zuen eta, proposamenaren ekarpen bezala edo hori sustatzeko, berariaz eskolan erabiltzeko giza eskubideen hezkuntzarako materialak egiteko eta hedarazteko lankidetzaren bekak (ikus txosten honen 2.3. idatz-zatia).
- Gaigabeziak dituzten pertsonen zaintzan lan egiten duten fundazioek eman diguten informazioari esker jarduerak hasi ditugu horietan eskumenak dituzten erakundeekin. Halaber, buruko gaixotasunak dituzten pertsonen familiekin izan dituen harremanen ondorioz Arartekoak sakon aztertu ditu, lan monografiko baten bidez, gure Erkidegoan pertsona horiei ematen zaien ospitalez kanpoko arretaren arloko arazoak (ikus kapitulu honen 1.4. idatz-zatia).
- Atzeritarren atxilotetak eta haiek kanporatzeko aginduak direla eta laguntza lanetan diharduten elkarte batzuek aurkeztu dituzten salaketek jardura batzuk eragin dituzte: agintaritzaren aurreko artekaritzak eta kudeaketak, kexen tramitazioa, ofiziozko jarduerak...
- Minusbaliatu fisikoek egoera batzuetan ematen zaien zerga tratamenduari buruz planteatu dituzten arazo bidez erakunde honek aholku batzuk eta aldarazpen-proposamen batzuk eman ditu, eta ikuspegi hori zainduz arautegi berriak aztertzeari ekin zaio.
- Elkarte batzuek salatu dute atxiloteta-zentro batzuetan tratatu txarrak eta torturak izaten direla eta hortik abiatuta Arartekoak eskumenak dituzten erakundeetara jo du, batez ere Herriaren Defendatzailea erakundera eta Herrizaingo Sailera.
- Herrietako presoak askatzeko eta kaleratzeko plataformekin egin diren bilerek toki askotan horien egoera planteatzeko balio izan du (Herriaren Defendatzailea eta Torturaren Aurrearretarako Europako Batzordea), eta baita talde horiei Arartekoak presoak hurbiltzea, espetxeen egoera edota zio desberdinengatik askatzea bezalako gaiak dagokionez duen iritzia jakinarazteko ere.
- Euskal Herriko espetxeen egoerari buruzko lanaren jarraipena egiteko, espetxeratuei laguntzen dieten taldeekiko lankidetzaren eta informazio-trukaketa oso erabilgarria izan da Arartekoaren esku-hartzeari dagokionez, esaterako preso dauden pertsonen arreta psikiatrikoa ematea, espetxeetan xiringa erabilen trukean xiringa berriak

banatzeko egitaraua hedatzea edo ospitaleetan zaintzapeko unitateetan dauden pertsonak bizi dituzten baldintzak berrikustea... (ikus kapitulu honen 1.1.1. idatz-zatia).

Elkartekiko harreman honek, halaber, batzuetan horiek dituzten arazoak aztertzeke balio izan du: lana egiteko aurkitzen dituzten zailtasunak, beraien artean koordinazio mekanismoak ezartzeko edo lankidetzarako bideak ezartzeko, egitarau horiei jarraipena emateko, erakundeekin bilgunean diren esparruak eraikitzeke... dituzten eragozpenak. Esan behar da aurreko txostenetan Arartekoak landu dituela arazo eta gai horiek, eta horiei buruzko proposamenak egin edo ekimen batzuk lehenetsi dituela: dirulaguntzetan urteko muga hori gainditzea, erakundea-elkartek foro bateratuak ezartzea, esaterako inmigranteen gizarte integrazioarako Foroarekin egin den bezala, edo Bolondresei buruzko Legean... (ikus, adibidez, 1997 eta 1998 urteetako txostenen atal hau berau).

Erakundeen eskuordeen eta gizarte zibil antolatuaren erlazioa eta lankidetzazko errazteko ildo horretatik, esan behar da Arartekoaren esku-hartzeak ez duela beti nahi izan den helburua eskuratu. Taldeekiko harremanei buruzko atal hau bukatzeke, aurten berariazko garrantzia izan duen kasu jakin bat aipatu nahi dut, oraindik ere era egokian konpondu gabe dagoena alegia.

1998ko abenduaren 3tik aurrera, lehen bileran egin zen egunetik, Arartekoak beti izan du erantzun positiboa Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Elkarteak egin dizkion eskabide guztietan. Egin diren bilera horiei esker talde horren eskariak entzun eta bildu ditugu, eta aldi berean gure solidaritatea eta Arartekoaren erakundean gai horretan duen jarreraren berri eman diegu.

1999ko apirilaren 21eko bileran Terrorismoaren Biktimen Elkartearen ordezkariak Arartekoari eskatu zioten Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordearekin artekaritza lanak egin zitzaizkien. Arartekoaren erakundearen laguntza eskatu zuten, batzorde horretan onartzeko moduko baldintzetan presentzia izateko formula bilatzearen.

Irailaren 10ean, behar ziren kudeaketak egin ondoren, Donostian eta Arartekoa bertan zegoela, helburu horretarako bilera egin zen eta bertan talde horren eta Euskal Legebiltzarrearen ordezkariak izan ziren. Bada, bilera horretan Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeko buruak iragarri zuen hala talde horrek nola Arartekoak batzordearen deia jasoko zutela nork bere iritzia azaltzeko. Iragarri ziren agerraldi horiek ez dira oraindik gertatu; Terrorismoaren Biktimen Elkartearen kasuan, ez dituztelako bidezkoztat jo planteatu ziren baldintzak, eta horrela adierazi dute jendaurrean; Arartekoari dagokionez, ez zaiolako deirik egin.

Beraz, txosten hau aprobeztatu nahi dut bertan azaltzeko, nahiz eta idatziz eta labur izan, ondoko hauek:

- talde horrek adierazi dituen sentimenduak eta eskariak;
- Arartekoak horiekiko duen jarrera;
- Arartekoak Batzordearen agerraldian azaltzeko gertutu zituen hausnarketa eta iradokizunak.

### **Terrorismoaren biktimak: jende orok ahaztu dituen pertsonak**

Inolako dudarik gabe, biktimak izan daitezke beren sentimenduak eta eskariak ondoen azaltzeko gai direnak. Beraiek eskatuta kudeaketaren batzuk egin ditut horien

presentzia bideratzearen ondoretarako. Legebiltzar honek ahaleginak eta bi egin behar ditu eta eragozpen guztiak gainditu biktima horiek hemen eroso egon daitezten, horien ahotsa entzun dadin, zuzenean, euskal gizarteko legezko eskuordeek esan behar dutena entzun dezaten. Ezin da egon inor edo ezer hori eragotziko duenik.

Beraz, nire xedea ez da horiek ordezea. Bai, ordea, horien eskarien oihartzun izan, igorri dizkidaten idazkietan azaltzen dituztenak, beraiekin egin ditugun bilkura eta bilereetan jakinarazi dizkidatenak.

Zer sentitzen dute biktimek? Zer salatzen dute? Zer lortu edo ekidin nahi dute? Zer eskuratu nahi dute?

Terrorismoaren biktimek ahanztura nabarmentzen dute, bazter utzi dituztela, ez diotela jaramonik egiten, eta berriz ere biktima bihurtzearen beldur dira: lehen, terrorearen biktima; gero, bakearen biktimak.

Gure ardurarik eza salatzen dute, gizartearen atal handi batena alegia, gizartean garrantzia duten arlo batzuen: hiltzaileei ez zaiela inoiz eskatu egin dituzten hilketak aintzatesteko, terroristek inoiz ez dutela onartu oker jardun dutela, pairatu duten askatasun falta eta izua ezkutatzea.

### **Aintzatespen morala, soziala, politikoa**

Eta oinarritzkoa den zerbait eskatzen dute “*gertatu denaren aintzatespen morala, soziala eta politikoa, bakearen oinarri izan dadin*”. Hori da egiten dituzten proposamen edo aldarrikapen guztien funtsa: egia jakitea, inolako anbiguetaterik gabe, hizkuntz trikimailurik gabe, ausart jokatzuz, autokritika aplikatuz; euskal gizarteak, bere eskuordeak aitzindari direla, onar dezala terrorismoa beti dela zentzugabea, denbora eta tokia gora-behera; beti dela antzua, eta perbertsioa baino ez dela; ez daitezela abantaila politikoak lortu egin diren krimen horien pentzutan.

Giza Eskubideen Batzordeari dagokionez, dauzkaten erreibindikazio eta protagonismoa babestu ezinik daude, eta minduta “*ez duelako inoiz beraiekiko ardurarik izan eta bai, ordea, hiltzaile eta horien laguntzaileekikoa*”. Uste dute ez dela bidezkoa bertan indarkeria kondenatzen ez duten kideak egotea. Berariazko ponentzia eskatu dute, eta gauzei benetan duten izenaren bidez deitzea: terrorismoaren biktimak.

Bada, hauek dira dituzten sentimenduak eta hauek dira bere hitzak, nik begirune osoz transmititu ditudanak.

### **Biktimen “ondoan” eta “alde”**

Arartekoak indarkeriaren eta terrorismoaren biktimei dagokienean duen jarrera beti izan da pertsona horiei erabateko laguntza eskaintzea, inolako dudarik gabekoa, eta horrela adierazi du behin eta berriz bere egintza guztietan -unerik mingarri eta gogorrenetan lagunduz- eta jendaurrean egin dituen adierazpen eta jarreretan.

Honen adibide argia izan daitezke Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako X. Jardunaldietan (Bartzelona, 1995eko urria) defendatu nituen proposamenak. Jardunaldi horietan, nire lehenengokoak zirenak, nire ardura jakinarazi nien gainerako defendatzaileei “Tolerantzia euskal gizartean” txostenean. Bertan argi adierazi nuen beharrezkoa zela “*gure erantzukizunei ikuspegi bakarretik eustea: biktimaren*

*defentsa. Gure jarrerak -esan nuen - beti izan behar du argi eta garbi biktimaren aldekoa, hori nor den gora-behera. Hori da gure herrian bakea eraikitzen laguntzeko dugun bide bakarra.”*

Une jakin hartan Euskadik bizi zuen egoera zehatzaren azterketatik abiatuta defendatzaile guztiei proposamen batzuk egin nizkien. Defendatzaileek horietariko bat bakearen kulturaren laguntzeko onetsi zuten, eta horretan esaten zen berariaz zaindu behar dela ondokoa: *“Indarkeria eta terrorismoaren biktimak maila material eta moralean ordaintzea, horren jatorria gora-behera.”*

Bada, biktimei arreta emateko lehentasunaren ildo hori bera Koordinaziorako XIII. Jardunaldietan herri defendatzaileek batera onetsi zuten Adierazpenean islatu zen (Kanariar Uharteak, 1998ko urria), kasu honetan ETAk iragarri zuen su-eten mugagabeak ireki zituen itxaropenekin. Bada, orduan ondokoa adierazi genuen jendaurrean:

*“Guztiok, lehentasun osoz eta beste ezeri ekin aurretik, terrorismoaren biktimak eta horien familiak aintzatetsi behar ditugu, eta horien sakrifizioa bakeratzerako pizgarririk onena izan dadila. Beharrezkoa da era guztietako satisfazio moralak bideratzea, eta era guztietako ordainak mina jaso duten eta nahitaez horien ordaina behar dutenentzat.”*

Idea horiek Legebiltzarreko Osoko Bilkuran adierazi nituen nire azken agerraldian, 1999ko ekainaren 29koan, erakundearen urteko txostena aurkeztu nuenean. Eta ondoko hau gehitu nuen: *“Giza eskubideen bermerako erakunde honen titularra naizen ginoan, zuekin batera ideia bat inposatzeko egiten diren heriotza bortiz guztiak kondenatzeko dudarik gabeko beharrezan morala sentitzen dut. Horrexegatik adierazten dut biktimekiko nire elkartasunik zintzoena: hil dituzten pertsonen familiakoei eta lagunei”.*

Giza eskubideekiko konpromiso etiko eta defentsatik abiatuta jarrera bakarra onar dezaket: biktimen ondoan egotea, eta horien alde, lehentasun osoa ematea, laguntza osoa.

### **Moral gaixoa duen gizartearen biktima bikoitzak**

Jakitun egon behar dugu gure herrian biktimek sarritan bi aldiz pairatu behar izan dutela zigor hori. Terroristek eragin dieten kalteari beste bat batu zaio, agian sakonagokoa eta mingarriagoa, eta neurri batean edo bestean horren errudun gizarte osoa da. Gizarteak eragin dien min erantsiaz ari naiz:

- biktimei buruzko isiltasunagatik;
- esan behar dituztenak entzuteko eta pairamen hori konpartitzeko interesik eza;
- “zerbait egingo zuen” esaldi zitalarekin hamaika aldiz formulatzen den zigorra merezi izatearen ustezko susmoak hor daudelako;
- isolamendua eta beldurragatik: ustezko beste biktima bat bezala identifikatua izateko beldurra, galtzaileekin identifikatua izateko beldurra;
- ezkutatzegatik eta beste alde batera begiratzeagatik (eguneroko bizitza ia aldatu ez duten hilketak);
- helburu faltsuetarako biktimen sufrimendua erabiltzeagatik;
- zigor justizia sistema zurrunezia edukitzeagatik, biktimari, protagonismoa ezezik, informazioa eta abar ukatzen dizkiona.

Denok ezagutzen ditugu, zuzenean, minaren gainean mina eragiten duten jarrera horien adibideak eta biktima askorentzat benetan pairatu ezinak izan direnak, eta askotan ihes egin behar izan dute, ezkutatu, auzoz, udalerriz edo herriz aldatu.

Ez da gurea horrelakorik gertatzen den herri bakarra, baina horrek ez du ezer bidezkotzen. Gizarte honetan indarkeria egon den urte hauetan hedatu den gaixo moral eta baloreen okertzearen froga argia dira, hogeita hamar urtetan terrorismoa pairatu ondoren alegia. Urte horietan guztietan ETA Euskadiko gune publikoaren ardatza izan da. Urte askotan, lehia benetan odoltsu eta makabroan, BVE, Triple A eta GAL bezalako erakundeen laguntza izan zuen. Gaur egun biktimek gure memoria erkidea osatzeko aukera eskaintzen digute.

Helburu politikoetarako indarkeria erabiltzeak eta nazio identitatea, edo besterik ezean talde identitatea, jasotzeko elementu bezala indarkeriaren erreferentia luzaroan erabiltzeak giza eskubideen erlatibizazio larria eragin du. Gure euskal gizarte honetan hiritarkideen asasinatuak edo bahiketak egiteko, bidezkotzeko edo laguntzeko arrazoiak aurkitu dituztenek ez dute kontuan hartu giza eskubide horien balio unibertsala. Eskubide horiek beren buruentzat eskatzen dituzte, baina ukatu egiten dizkiete beste batzuei. Pertsonen gainetik egon daitezkeen aberriak, idealak, kausak, funtsezkoak edo absolutuak, imajinatzen dira eta horien alde zilegi litzateke pertsona horien eskubideak zanpatzea, horien gainetik igarotzea.

Halaber, eta kasu honetan ere gure gizartean, Estatuko aparatuetatik terrorismoaren aurka egiteko arma berberak erabiltzea bidezkotu dutenek ere, ez dute giza eskubideen balio unibertsala onartu. Ustezko eragingarritasunean oinarritzen diren arrazoiengatik berez okerrekoak diren bitartekoak erabili ziren, bahiketa, tortura eta asasinatua bezalako krimenak. Eta urteek aurrera egin ahala batzuek ahalegina egin dute “testuinguruagatik” bidezkotzeko, atentatuen gorakadaren aitzakia, agintari frantziarrek “santutegia” egotea bideratzen zuelako eta pasibitatez jokatzeko zutelako, eta abar.

### **Egia gaiztakeriaren aurka**

Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Taldeak oso ondo esan duen bezala: *“Gertatu denaren egia ezagutu behar da”*.

*“Egiak aske bihurtuko zaituzte”*, duela 2000 urte esan zen esaldia gure kulturaren funtsezko atala da. Egiak min egiten du, baina baita askatu ere. Eta asko eta asko dira hausnartu dutenak eta gure gizartean egia jendaurrera azaltzearen beharrezanaz aspimarratu dutenak, indarkeriak lortu duen galbideratze narratiboa gainditzeko era bakarra izan daitekeelako: hizkuntza ezagutzeko gaitz bihurtu arte aldarazi duelako, hiltzaileak eta biktimak nahasian ematen dituenak; moral bikoitza praktikatzeko duena, protagonistaren arabera egintzak desberdin neurtzen direlako; balio gehiago eta gutxiago duten bizitzak daudela uste duelako eta beren beregi biktimenak direlako mespreza daitezkeenak; eta kalterik handienak eragiteko ahalmena dutenei egiten diona jaramon eta ez, arrazoiz beteta egon arren, kalterik eragiteko gai ez direnei...

Primo Levi-k ere, nazien kontzentrazio zelaietan egin zituen urteetako pairamenak ematen duen aginte moralez jantzita, oso zehatz esaten digu biktimak eta horiek hiltzaileen artean konfunditzea *“gaixotasun morala da, keinu estetiko hutsa edo konplizitate adierazkari iluna; eta, batez ere, egia ukatzen dutenei egiten zaien mesede itzela”*.

Munduko toki batzuetan gizartearen memoriaren eraikuntza berria Egiaren Batzordeen bidez taxutu da, adiskidetasuna lortzeko beharrezko urrats bezala. Adibidez, Hego Afrikako Egiaren eta Adiskidantzaren Batzordea ondoko helburu hauek lortzeko eratu zen:

- biktimei eskubide zibilak eta giza eskubideak itzultzea.
- Ordena morala berriz ezartzea.
- Egia bilatzea, idatziz erregistratzea eta herri iritziari horren berri ematea.
- Giza eskubideen eta Legearen agintea begirunez zaintzeko kultura sortzea.
- Iragan lotsagarri hori berriz ez gertatzeko bideak jartzea.

Eta El Salvadorren, UNOren Egiaren Batzordeak adierazi zuen egia ezagutzeko gogoaren ziurtasuna bera aurrepausua dela, “adiskidantza lortzeko pedagogia”. Eta egin zuen txostenean horretara iristeko beharrezko baldintzatzat identifikatu zituen “barnera begiratzea”, errudunak zigortzea eta biktima eta horien familiei ordaina ematea.

Beraz, gertatu den hori gizarte mailan aintzatestea bakearen oinarri da. Aintzatespen horretara heltzeko prozedurak hainbeste dira. Esparru horretan, gure herrian Justizia Administrazioak funtzio garrantzitsua izan dezake. Baina hau ez da biktimekin zorrean daukagun bakarra.

### **Hitza, arreta, barkamen eskea eta ordaina: betetzeke dauden eskubideak**

Halaber, hitz egiteko, aintzatsiak izateko, barkamen eskea eta ordaina jasotzeko eskubideak dituzte.

Biktima guztiak -beraien nortasuna gora-behera eta biktimak zergatik diren kontuan hartu gabe- eskubide horien subjektu dira. Kasu honetan arduratu behar gaituen arazoa eskubide horiek nork bermatu behar dituen eta nola bermatuko diren jakitea da.

Demokraziaren berezko etika eta legezko indarrarekin zilegi da biktima horiek eragin dituztenei, gizarteratzerakoan, eragin duten gaitz horretatik urruntzeko eskatzea eta horrek kaltetu dituzten pertsona horiekiko hurbilketa, besterik ezean objektiboa, ekarriko luke. Aldi berean, gizarteak sorospidez eta elkartasunez jardun eta arestiko horien erantzun-ezak uzten dituen atalak bete behar ditu. Terrorismoaren Biktimekiko Solidaritateari buruzko urriaren 8ko Legean, orainsu onetsi den horretan, hori egin nahi da esparru batzuetan eta, era oso zehatzean, maila ekonomikoan. Euskal gizarteak, bere Administrazioak, bere Legebiltzarrak, berariaz egin beharko dute gauza bera maila moral eta sozialean. Kasua ez da biktimak eragin dituztenei dagozkien erantzukizunak lausotzea, gizarteak biktima horiekin duen aintzatespena eta elkartasuna adieraztea baizik.

R. Mate-k hau esan du: *“Garrantzitsuena zorra aintzatestea da, pairatu diren bidegabeko egintza horiei buruzko galderak, hiltzaileari ezezik, pairamen horren gainean eraikiko den gizarteari ere zuzenduko zaizkion erruen serietatea”*.

Gaur biktimek beste aukera bat eskaintzen digute: betetzeke dauden eskubide horiek aintzatestea eta eragin zaizkien bidegabekeria horiek konpontzea.

### **Zer egin eta zer ekidin**

Gutariko bakoitzak ere, nork bere konpromisoarekin eta erakundeek dagozkien erantzukizunarekin, zer egin eta, aldi berean, zer ekidin planteatu behar du.

Iradokizun batzuk egin nahi ditut, nire aburuz Legebiltzar honek, Euskal Herriko gizartearen herri borondatearen goreneko eskuorde moduan, egin behar duen eta ekidin behar duenari buruzkoak. Nire iradokizunak hauek dira:

- Gizarte zibilizatua eta zuzenbideko Estatu baten euskarriak diren oinarri humanistak era eraginkorrean aldarrikatzea eta defendatzea, horrekin gizakiaren bizitzaren balio osoa berreskuratzeko. Ordea, “a posteriori” terrorismoa bidezkoa dela esateko ahalegin guztiei uko egitea, eta bizitza truke moneta bezala erabiltzekoei, kontrako alderdietako terrorismoen oreka edo ekidistantziagatiko erantzukizunak bidezkoetzeko edo indargabetzekoei. Arestian adierazi den Terrorismoaren Biktimekiko Solidaritateari buruzko Legeak, bere zioen azalpenean, hau esan du: *“Biktimentzat dagoen ordain bakarra indarkeria behin betiko ezabatzea izan daiteke. Terrorearen drama euren buruetan pairatu dutenek eskatzen digute intolerantzia, bereizkeria eta beldurra inoiz ez izatea hitza eta arrazoiaren ordezkotzko”*.
- Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimei Legebiltzar honi eskatu dioten aintzatespena eta lehenetsua ematea, horien presentzia eta ahotsa bideratuz.
- Biktimei dagozkien eskubideen betearazpen erreala eskatzea: justizia, egia jakitea, ordaina jasotzea. Ordea, amnesia ahalegin guztiei gaitziritzea; biktima eta biktima eragileak ez nahastea; horien erantzukizuna aintzatetsi arteko itzarote pasiboa edota horri barkatzeko aktiboki eskatzea ekiditea; eta gezurra eta infamia ez errepikatzea
- Biktimei barkamena eskatzea, hala mina minaren gainean eragin ditzaketen egintza edo omisioengatiko erantzukizun propioengatik nola, sorospidez eta era solidarioan, barkamenik eskatzen ez duenagatik eta gizarte osoagatik.
- Hurbilketa, elkarrizketa, adiskidantza eta akordioa sustatzea. Ordea, antagonismoa ekiditea, gorrotoa, aniztasuna ez onartzea...

### **Adiskidantza zeinuak**

Gure herriko jaietan terrorismoak hil dituen bertako seme-alaba guztien argazkiak edo izenak begirunez ikusteko aukera izango dugunean, “Gogoan zaitugu” esaldiarekin... Udalen Osoko Bilkurek seme-alaba kuttun izendatzen dituztenean, plaza bati horien izena ematen zaionean, edo horien oroimenezko egintzak antolatuko dituztenean... Hori guztia zilegi eta ohikoa den egunean jakingo dugu gure gizarteak berriz ere arnasa hartzen duela eta zauriak orbaintzen ari direla. Baina ezinezkoa da orbaintzea kontrakoa gertatzen den bitartean: oroimenak eta gogoetak asasinatuaren erantzukizunentzat edo horien laguntzaileentzat diren bitartean eta erasotzaileen laudoriorako egintzak eta mezuak jarraitzen dutenean. Zauri bat beste zauri baten gainean. Nik baino argiago adierazten dute biktimek beraiek: *“Ezin dugu jasan hil dutenek edo hiltzen lagundu dutenek horrekin harro gotea, krimen horiek ekintza heroikotzat jotzea eta gure hiltzaileei heroe deitzea”*.

Indarkeriagatik bananduta egon diren gizarte askok adiskidantzara arte jorratu duten bide luze eta zailean zeinu, tresna, aintzatespen eta elkartasun adierazpen asko erabili dira: egiaren batzordeak; orriak zuriz dituzten liburuak eta, bete ondoren, erkidegoaren memoria bihurtu direnak; identifikatuta dauden biktima guztien izenak dituzten nazio monumentuak; horien memorian ospatzen diren nazio egunak; biktimei buruzko txostenak...



Dudarik gabe, Legebiltzar honek badu indar eta nortasunik adiskidantza zeinu horietatik edozein sustatzeko. Nahiko da baldintza bakarra betetzea: biktimak beraiek aintzatetsi behar dituzten egintzak, keinuak, ordaina jasotzeko proposamenak izatea.

Gauza ez da barkamena edo ahazte hori "erostea". Jendaurrean aldarrikatu behar da -gizarteak eta bere eskuordeek- gure elkartasuna mezu sinboliko zuzena helarazteko bitartekoa erabiliz.

### **Justizia egiteko eta bakea lortzeko aukera**

Justizia beti da benetako bakearen aurrebaldintza. Biktimek, ahotsa, barkamena eta ordaina ematearekin, une honetan justizia egiteko aukera historikoa eskaintzen digute.

Ez dezagun gure burua engainatu. Gaurtik aurrera edozer egin arren ez dugu lortuko asasinatuen bizitza berreskuratzea, horrek ez du eragingo biktimen sufrimendua itzaltzea. Baina agian gerta daiteke gure egintza eta jarrera horiek euskal gizartean adiskidantzaren bidea errazteko balio izatea.

Halaber, nahitaezko urratsa izango litzateke herri honen berreraikuntza moralerako eta bakean igaro behar dugun etorkizunerako. Halaber, funtsezkoa da etorkizunean biktimarik egon ez dadin. Memoria artatzeko eta belaunaldi berriei tolerantzia, elkarbizitza eta askatasunaren baloreak irakasteko.

Legebiltzarrak elkarrizketa eta akordioak bilatzeko esparru behar du izan. Halaber, gizarte osorako eraikuntzako prozesuak bideratzeko tresna izan daiteke, indarkeriaren kultura laga eta horren ordez bakearen kultura ezartzeko funtsezko aktiboa.

Erakunde adierazgarrienen ekimenez batez ere erkidegoaren esparruetan gertatu behar duten talde prozesuen hasieraren esangura izan dezakete. Elkarbizitza lehengoratzeko ez da aldizkari ofizialean gertatzen, gizartean behar du gertatu. Baina, hiritarren arazoak konpontzeko era demokratikoan hautatu dituztenek, aldi berean, gizarte barruko haustura horretara hurbildu beharko lukete; zauri horiek osatzeko ahalegina egin beharko dute, behin betiko zauri bihur ez daitezen; elkarri lotzeko faktoreak bereizten gaituztenak baino gehiago izatea lortu. Lan hori, pertsona eta gizarteko taldeen arteko hurbilketa bideratzea, mintegi ezin hobea izan daiteke eta hazi horren emaitzak laster ikusteko itxaropena dugu.

## 2.2. ARARTEKOAK IRAGARRITAKO IKERKETA BEKAK

1999. urtean ikerketarako beka bat garatu da, Arartekoak 1998ko urriaren 1eko erabakiaren bidez iragarria (urriaren 14ko EHAA), Nagore Gardoqui Albizuri esleitua.

Ikerketa lana emakumeek etxean jasaten duten indarkeriaren fenomeno sozialari dagokio. Gai zabala izanik, ikerketak arreta berezia jarri du gizarteak arazo honen aurrean ematen duen erantzunetako batean: tratu txarrek, mehatxuek, etab. eragindako salaketen aurrean ematen den erantzun judiziala aztertu da soilik.

Hasierako proiektua egiten diren salaketak aztertzean zetzan, beren bideratzearen jarraipena egin, eta, horrela, zenbat –eta zein arrazoirengatik– artxibatzen diren epaiketa egin baino lehen jakitearren. Haatik, baliabideei eta epeei zegozkien mugek azterketa Justizi Administrazioaren «azken emaitzara», hots, epaietara murriztera eraman zuten.

Lagin behar bezain adierazgarria izateko asmoz, hiru euskal hiriburuetakoko epaitegiak hautatu ziren ausaz, modu honetan banaturik: 2 instrukzio epaitegi, 2 zigor epaitegi eta Probintzi Entzutegi bakoitzeko 2 sail, guztira 18 organo jurisdikzional izanik, eta bertan emandako epai guztiak aztertu ziren, analisirako soilik aztergaiari zegozkion epaiak aukeratuz.

Erabaki bakoitzari dagokionez, adierazgarri gerta litezkeen baldintzak aztertzen dira bakarrik, esate baterako:

### 1. Gertaerei dagokienez:

- Erasotzailearen eta biktimaren arteko erlazioa.
- Aldeen baldintza pertsonalak.
- Seme-alaben izatea eta egoera.
- Gertaeren eszenatokia.

### 2. Zigor prozesuari dagokionez:

- Aldeek emandako frogak.
- Epaietan atzeman diren eta erantzukizuna alda dezaketen baldintzak.
- Gertaeren tipifikazioa.
- Abokatuaren partehartzea.
- Ministerio fiskalaren partehartzea.
- Zuzenbidezko arrazoitzea.
- Epaiak.
- Ezarritako zigorrak.
- Apelazio helegiteak.

Eskuratutako datuen ustiapenerako metodologia kuantitatiboa –estatistika analisia– eta kualitatiboa erabiltzen ari dira, oinarri sendoak izango dituzten eta etorkizunerako proposamenen sorburu izango diren ondorioetara heltzeko.

Lan hau 2000. urteko erdialderako amaitu eta publiko egitea aurreikusten da.

### **2.3. GIZA ESKUBIDEEN HEZKUNTZARI BURUZ ESKOLAN ERABILTZEKO MATERIALA EGITEKO BEKAK**

Aurreko bi urteetan egin den bezala aurten ere Arartekoaren erakundeak aspaldi deitzen dituen bi beketatik bat zehatza izan da eta helburu berezia izan du: giza eskubideen hezkuntzari buruz eskolan erabiltzeko materiala egitea eta horren hedakuntza sustatzea. Aurtengo deialdian helburu hori oraindik gehiago zehaztu zen eta berariaz izan da haurren eskubideak lantzeko.

Beka hauen deialdiaren arrazoia Arartekoak azken urte hauetan duen ardura eta konpromisoan datza: demokraziaren pedagogia, belaunaldi berriak ezaugarri horien inguruan gizarteratzea eta, jakina, horren oinarrietariko bat giza eskubideen arloko hezkuntza da, bakerako eta tolerantziarako hezte alegia. Eta eskola sistema da, bakarra izan ez arren, haurtzaroan eta gaztaroan balore horiek irakasteko eta sendotzeko funtsezko tresnetariko bat.

Aurrez Arartekok beste ekimen batzuk planteatu zituen "Bakerako hezkuntza" izenburuarekin eta orduan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak aurkeztu zituen; halaber, Koordinaziorako XI. Jardunaldietan gainerako arartekoen artean ildo horretatik egin zituen proposamenak gogorarazi daitezke (cfr. I. Kap. I, 2.3.1.2. idatz-zatia, 1996ko txostena).

Beste alde batetik, esan behar da gure Erkidegoan hamaika direla eskolaren eremuan balore horiek garatzeko konpromisoa hartu duten pertsonak eta taldeak. Hala bekaren lehen deialdian jaso genuen erantzunak - 32 proiektu aurkeztu zirelako-, nola ondore horretarako Arartekoak antolatu zuen elkartrukaketa eguneko eskuhartzeak eta iazko deialdiak izan zuen arrakastak ere (33 proiektu aurkeztu ziren) argi frogatzen digute asko direla giza eskubideen hezkuntzan interesa duten pertsonak.

1999an, deitu zen lehen bekarekin erkatuta, ondokoak gertatu dira:

- bekaren adjudikazioduna izan zen taldeak eskolako dinamikan integrazeko jarduerak eta proposamenak betearazi zituen;
- profesional batzuk beka horren emaitza izan zen lana aztertu dute, bigarren hezkuntzako arlo guztietan eta curriculumeko zeharkako lineetan dituen eduki, helburu eta orientazioekiko duten egokitzapena ikustearen ondoretarako;
- material horiek argitaratzeko prozesua hasi da, euskaraz eta gaztelaniaz, gero Euskadiko Autonomia Erkidegoko bigarren hezkuntzako ikastetxeetan banatzeko.

Iaz deitu zen bekari dagokionean Hegoa eta Oinarrian elkarrekin pertsonak osatu zuten talde bati adjudikatu zitzaion; talde horrek material eta proposamenak gertutzen egin dute lan baina oraindik ez dituzte bukatu.

Azkenik, aurtengo deialdia 1999ko urriaren 22ko 203. zenbakiko EHAAn argitaratu zen (Arartekoaren 1999ko urriaren 18ko ebazpena). Horretan 23 proiektu aurkeztu dira.

Beka hauen bidez erakunde honen xedea eskola erkidegoari irakasteko eta hezteko lan hori garatzeko erabilgarriak izango diren materialak eskaintzea da. Aldi berean, Arartekoak arlo honetan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari dagokion erantzukizuna azpimarratzen jarraituko du eta, ahal duen neurrian, giza eskubideen hezkuntzarekin konpromisoa duten -hala eskolaren munduan nola hortik at- pertsona eta taldeen arteko harremanak eta lankidetzak bideratuko ditu.

## **2.4. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO UDA IKASTAROETAKO JARDUNALDIA, “ESKUBIDEEK EZ DUTE BALIOA GALTZEN ADINAK AURRERA EGIN AHALA: ADINEKOEN NAZIOARTEKO URTEA” GAIARI BURUZKOA**

Arartekoaren erakundeak giza eskubideei buruzko ikasketa-jardunaldia egin du berriz ere Euskal Herriko Unibertsitateko udako ikastaroen barruan.

Nazio Batuen Erakundeak Adinekoen Nazioarteko urte izendatu zuen 1999. Ospakizun hori dela eta, aurtengo jardunaldia gai horri buruzkoa izan zen, honako izenburupean: “Eskubideek ez dute balioa galtzen adinak aurrera egin ahala: adinekoen nazioarteko urtea”.

Ikastaroa Xabier Markiegi Arartekoaren aurkezpen-txosten batekin hasi zen. Bertan, iraultza demografikoak sortutako gizarte egoera berria eta berorrek estatu-ereduan izandako eragina aztertu zituen.

Zaharren beharrianak eta herri erakundeek horiei ematen dieten erantzuna deskribatu zituen, azkenean zera baieztatuz: adinak ez duela inoiz muga izan behar pertsona adinduek euren eskubideak erabiltzeko.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Juan Luis Beltran Agirre irakasleak txostena irakurri zuen, “herri administrazioek zaharrei arreta eta laguntza emateko egiten dituzten jardueren lege antolamendu”ari buruz.

Hitzaldi horretan, zehazki aztertu zuen Konstituzioak -41 eta 50. artikuluetan-, eta Estatuko zein autonomi erkidegoetako legeriek jasotzen duten zaharren babespena. Amaitzeko, zaharren eskubideak aztertu eta Zaharren Eskubideen Gutuna eskatu zuen.

Bestalde, Gaztela-Mantxako Unibertsitateko Angel Carrasco Pereira irakasleak txostena aurkeztu zuen “Famili ardurak dituzten adinekoentzako mantenua eta zainketa” izenburupean.

Bertan, senideen arteko mantenuari buruzko lege-araubide zibila aztertu zuen, eta zaharrei laguntzeko gastuen itzulketaren arazo korapilatsua azaldu zuen, batera gertatzen direnean senideen arteko mantenu emateko beharra eta diru-laguntza publikoak.

Txostenak aurkeztu ondoren mahai ingurua egin zen eta hiru komunikazio interesgarri azaldu ziren.

SIIS Fundazioko (Dokumentazio eta Azterketa Zentroko) Helena Soto Iglesiasek “Zahar etxeetan bizi diren pertsonen eskubideei buruzko zenbait gogoeta” mahairatu zituen.

EAEko zahar etxeak arautzen dituen dekretuan jasotzen diren eskubideak azaldu eta berorietan gertatu ohi diren interes-gatazkei buruzko hausnarketa egin zuen, bai erabiltzaileen eskubideen, erakundearen helburuen eta bertako langileen artekoak, bai erabiltzaileen euren artekoak.

Gipuzkoako Caritas-eko zuzendari eta notario Jose M<sup>a</sup> Segura Zurbanok “Tutoretza adinduen eskubideen berme gisa” gaiaz hitz egin zuen.

Bere hitzaldian, ezgaitasunaren kontzeptuaz eta ezgaituak babesteko mekanismoez hitz egin zuen, eta egiteko zaintza, “babesle judiziala”, “kuratela” eta batez ere babesa bezalako irudiak aztertu.

Azkenik Biktimari Laguntzeko Bizkaiko Zerbitzuko arduradun Juan Luis Fuentesek “zorraren aintzatespena”ri buruzko komunikazioa azaldu zuen.

Bere azalpenean, Kode Zibilak zein jurisprudenziak zorraren aintzatespenari buruz duten kontzeptuaz eta berorren gauzatze praktikoa eta ondorioez hitz egin zuen.

## **2.5. GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO «PADRE FRANCISCO DE VITORIA» BILDUMA ETA BESTE ARGITALPEN BATZUK**

Giza eskubideekiko begirune kultura sortzea sustatzearen hartutako neurrien artean, «Padre Francisco de Vitoria» argitalpen bilduma sortu zen, aipatutako eskubideekin lotutako gaiak jorratu asmoz.

1999an Jorge Morquecho Ibáñez-en *Intervención comunitaria en Euskadi. Acercamiento a la acción social sobre la exclusión* izenburuko liburua argitaratu da bilduma honetan.

Bestetik, «Giza eskubideei buruzko jardunaldiak» bildumaren barruan, «Eskubideek ez dute balioa galtzen adinak aurrera egin ahala: Adinekoen Nazioarteko Urtea» izeneko jardunaldian egindako txosten eta komunikazioak argitalpen batean bildu dira.

### **3. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO GISA BEREKO ERAKUNDEEKIKO JARDUERAK**

#### **3.1 HERRIAREN DEFENDATZAILEEN KOORDINAZIORAKO XIV. JARDUNALDIAK**

Jakina denez, Herriaren Defendatzaile eta autonomia erkidegoetako agintarien eskuordeen arteko harremanak kooperazio eta koordinazio printzipioetan oinarritzen dira.

Urtean zehar eskubideen bermatzaile ditugun erakundeon artean horien ohiko zereginei buruzko harreman estuak mantentzen dira, eta urtero gainera antzekoak diren arazoan batera jartze eta eztabaidarako leku izaten diren Herriaren Defendatzaileen arteko koordinazio jardunaldiak ere egiten dira.

Aragoiko Justiziak antolatu eta azaroaren 20tik 22ra bitartean Zaragozan egin ziren XIV. Jardunaldiotan eztabaidagai izandako gaiak hurrengoak dira:

- Ingurugiroa eta garapen iraunkorra
- Ondare artistikoaren zainketa
- Pertsona zaharrak

Hiru lan eremuoi buruz partaide ziren erakundeek hainbat txosten eta komunikazio aurkeztu zituzten.

Interesgarri delakoan, 1. eranskin bezala hemen azalduko da Xabier Markiegi Arartekoak aurkeztu zuen «Adinekoen eskubideen babes» izenburuko txostena.

Hiru gai nagusi horiek ezezik, «Komunikazioaren teknologia berriak defendatzaileen zereginean: Internet eta beraren erabileraren egokitzapena esku hartzeko prozeduretarako» gaiari buruzko txostenak ere aurkeztu ziren.

Andaluziako Herriaren Defendatzailearen erakundeak «Legebiltzarreko eskuorde eta beste administrazio eta eremu batzuetako alorrez alorreko defendatzaileen sorrera» izenburuko komunikazioa aurkeztu zuen, eta bere garrantziagatik berariazko lan jardunaldi baten xede izango zela erabaki zen.

Azkenik, Erkidegoko Diputatuaren erakundeak «Gaztaroaren eta nerabezeroaren eskubideen berezitasunei eta legebiltzarreko eskuordeek beraien defentsa eta sustapenari arreta berezia eskaintzearen beharrezan»ri buruzko komunikazioa aurkeztu zuen.

#### **3.2. HERRIAREN DEFENDATZAILEEN, MANDATARIEN ETA GIZA ESKUBIDEEN BATZORDE PUBLIKOETAKO LEHENDAKARIEN FEDERAZIO IBEROAMERIKARRAREN LAUGARREN KONGRESUA**

1999ko irailaren 27tik 29ra bitartean, Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren IV. Kongresua egin zen Tegucigalpan (Honduras).

Jardunaldi horiek, eztabaida-gune izateaz gain, Iberoamerikako herrialdeetan Ombudsmanaren erakundea ezartzen lagundu nahi dute.

Kongresu horretan, giza eskubideak eta iberoamerikar herriein erlazionaturiko hainbat gai landu ziren.

Horretarako zenbait lantalde eratu ziren. Lehen taldean, “Ustelkeria, txirotasuna eta giza eskubideak” gaiari buruz eztabaidatu zuten, honako txosten hauek aztertuz: “Ombudsmana ustelkeriaren aurkako borrokan”; “Kanpo zorra, txirotasuna eta migratzaileak”; “Jatorrizko herrien eta herri beltzen eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak”.

Bigarren taldean “Ombudsmana eta zaharren eskubideak” gaia aztertu zuten.

“Zaharren segurtasun ekonomikoaren babesa” eta “Zaharren bazterketa deusezteza” txostenak aurkeztu ziren.

Lantalde horretan, Xabier Markiegi Arartekoak “Estatuaren zeregina zaharren babesaren arloan” izenburuko txostena aurkeztu zuen..

Txosten horretan Arartekoak zera azpimarratu zuen: “*zaharrentzako prestazio sozialak ematen dituen sistema publiko bat ezin da neurtu ikuspegi ekonomiko hutsa kontuan izanda bakarrik, eta ez dago ahazterik hark justizia sozialaren eta berdintasunaren printzipioen menpe egon behar duela*”. Hirugarren adineko hiritarren egoerari eta gertatzen ari diren aldaketa azkarrei buruzko eztabaida soziala beharrezkoa dela gaineratu zuen, eta bertan, denen partehartzeaz, gizarteak eta herri erakundeek jarduteko eredia definitu beharko litzatekeela, adinak mugarik ezar ez dezan eskubideak erabiltzeko orduan. Bere hitzaldia amaitzeko, Arartekoak Zaharren Eskubideen Gutuna bultzatzea proposatu zien gainerako herri-defendatzaileei.

Hirugarren lantaldea “Ombudsmana eta adierazpen askatasuna” ren ingurukoa izan zen, eta berorretan honako txosten hauek aurkeztu ziren: “Hedabideen independentzia hiritarren eskubideen errespetuaren berme”, “Ombudsmana norberaren irudi on, ospe eta ohore eskubidearen bermatzaile”, “Ombudsmana eta estatuko informazioa artxibatu, sailkatu eta eskuratzeko eskubidea”.

Laugarren taldeak “Ombudsmana eta emakumeen eskubideak” gaia landu zuen.

Lantalde horretan aurkeztu ziren txostenak gai hauei buruzkoak izan ziren: “Emakumearen partehartze politikoa eta zuzenbide-estatuaren indartzea”, “Txirotasunaren emakumezkotzea” eta “Sexualitatearen etika eta gizakien duintasunari zor zaion errespetua”.

Bosgarren lantaldeak “Krimenen aurkako borroka eta ombudsmana” gaiaren inguruan lan egin zuen, eta bertan azaldu ziren txostenak “Erakunde demokratikoen indartzea krimen eratuaren aurka”, “Hiritarren segurtasuna desmilitarizazio prozesuan” eta “Ombudsmana, aginte judiziala eta espetxe sistema” izan ziren.

Seigarren taldeak “Ombudsmana haurren eskubideen defendatzaile” gaiaren inguruan jardun zuen, eta honako txosten hauek aztertu zituen:

- Haurren babesa sistema judizialaren aurrean.
- Haurren lana kentzea.
- Haurren babesa sexu erasoaren aurrean.

Iberoamerikako Federazioaren IV. Kongresuaren amaiera gisa, ondoren jasotzen den Tegucigalpa Adierazpena izeneko agiria onartu zen:

## **TEGUCIGALPAKO ADIERAZPENA**

1999ko irailaren 27tik 29ra bitartean Tegucigalpan, Hondurasen, Iberoamerikako Ombudsmanen Urteroko IV. Kongresuan bildutako Herriaren Defendatzaille, Prokuradore, Mandatari eta Giza Eskubideak babesteko Batzorde Publikoetako lehendakariak honakoa BERRESTEN DUTE Giza Eskubideei buruzko Ameriketako Hitzarmen edo San Joseko Itunaren XXX. urteurrenean: demokrazia eta zuzenbide-estatu direla herrien eta pertsonen ongizateari ondoen dagozkion gizarte-eraketa moduak, beti ere giza eskubideak erabat errespetatu, gizarte zibilaren partehartze aktiboa sustatu eta babesik gabeko taldeen egoera hobetzen saiatzen den gizartean.

KONTUAN IZANIK aurreko enuntziatu horiek, honakoa adierazten dute:

1. BAIEZTATZEN DUTE beren burua zuzenbide-estatu gisa azaltzen duten nazio guztiek ezaugarri hauek dituen antolamendu juridikoa edukitzeko ahaleginak egin behar dituztela: giza eskubideen adierazpena eta horiek babesteko bermea, Ombudsmana ere barne dela, legezketasun printzipioa, aginteen arteko banaketa, aldian aldiko hauteskunde aske eta garbiak gauzatzea, eta agintariak hiritarren aurrean kontuak ematea.
2. Lehen aipatutako printzipio guzti-guztiak zaintzeko etengabeko konpromisoa BERRESTEN DUTE, Ombudsmanak berezko dituen helburuak betez. Ombudsmanaren betebeharra legezketasuna zaintze hutsa baino harantzago doa, eta gardentasuna, erantzukizuna eta kontuak eman beharra eskatu behar dizkio herri-administrazioari, horrek bermatzen baitu gobernu on baten jarduna, gizakion duintasuna babesteko helburu garrantzitsua betetze bidean.
3. Gure herrialdeotan endemikoak diren arazoei buruzko kezka AZALTZEN DUTE, horiek garapena eragotzi eta herriek duin bizitzeko duten eskubidea oztopatzen baitute. Horien artean, txirotasuna, bereizkeria, bazterketa, ustelkeria, segurtasun falta eta gizarte-indarkeria nabarmentzen dira.
4. Zigorgabetasun eremuak apurtzeko beharra ONARTZEN DUTE, eta baita bidegabekeria, jauntxokeria eta ustelkeria arazoei aurre egiteko beharra ere, uste baitute kontuak emateko eta behar bezalako prozesua errespetatzeko ohitura ezak, inmunitatearen erabilera okerrarekin batera, direla aipaturiko arazoen eragile.
5. USTE DUTE bereizkeria era guztien aurkako borroka funtsezko eginkizuna izan dela gizakiak babesteko nazioarteko erakundeetan eta gure demokraziaren oinarri diren joera konstituziozaleetan. Horren harira, pozik hartzen dute Pertsonen aurkako Bereizkeria era guztiak Deusezteko Ituna, Amerikako Estatuaren Erakundeko Batzar Orokorrean 1999ko ekainean hartutakoa, eta gobernuari eskatzen diete Emakumeen aurkako Bereizkeria era guztiak Deusezteko Borondatezko Protokoloa onetsi eta berresteko.
6. ADIERAZTEN DUTE hirugarren adineko pertsonen eskubideak benetan erabiltzeko eta sustatzeko konpromisoa, gizarte-segurantza osoa duen sistema batean, edo berori sortzekoa, horrelakorik ez dagoen lekuetan. Sistema horrek biztanleriaren sektore horren beharrezko garrantzitsuenak beteko ditu, erabateko segurtasuna lortzeko asmoz. Horretarako dauden sareen bidez, esperientzien trukaketa BULTZATUKO DUTE.
7. Haurren Eskubideen Itunean jasotako honako printzipio nagusi hauek betetzen ez direlako kezka AITORTZEN DUTE: haurtzaroaren goi mailako garrantzia;



- bereizkeria ezaren printzipioa; bizi, garatu eta bizirik irauteko eskubidea; haurren iritzenganako errespetua. Horretarako dauden sareen bidez, esperientzien trukaketa BULTZATUKO DUTE.
8. JABETURIK DAUDE hirietako segurtasunik eza dela, gizartearen ustez, pertsonengan gehien eragiten duen arazoetako bat. Fenomeno horri egoki erantzuteko neurriak haren egiturazko eragileak kontuan izanik hartu behar dira, zuzenbide-estatuaren oinarri diren berme eta askatasunak zainduz.
  9. Kezka AZALTZEN DUTE kondenarik gabeko presoek jasaten duten babes eza eta segurtasun juridikoaren faltagatik, eta oro har, espetxe eta zigor sistemen gabeziengatik, batez ere herrialde hauetako gazteentzako zigor justizia administratzeko sistemetan.
  10. Hiritarrek parte hartzeko duten eskubidea bultzatzeko beharra BERRESTEN DUTE, gizarte zibilak egin behar duen zaintze lana indartzeko, legea bete eta bere eskubideak ezagut daitezten. Horretarako, ombudsmanek gobernuz kanpoko erakundeek eta giza eskubideen babeserakoek egiten duten lanarekin bat egiteko KONPROMISOA HARTZEN DUTE.
  11. ONARTZEN DUTE hedabide independenteak izateko garrantzia, informazio eskubidea erabat gauzatzeko ezinbesteko osagarria baita. Informazio publikoa eskuragarri izateko eskubidea bultzatzeko KONPROMISOA HARTZEN DUTE. Edonoren utziezinezko eskubidea da estatuaren jarduerari buruzko informazioa ezagutu ahal izatea, berori ezinbesteko baldintza baita eskatzeko eskubidean oinarritzen den hiritarren jagoletza lana gauzatzeko.
  12. AGURTZEN DITUZTE berriki martxan jarritako Ekuadorko Herriaren Defendatzailearen erakundea eta Nikaraguako Giza Eskubideen Babeserako Prokuradoretza, eta horiek ezarri eta garatzeko laguntza eskaintzen dute. POZIK HARTZEN DITUZTE Venezuelako Batzar Konstituziogilearen Ombudsmana sortzeko egitasmoa eta Txilen eta Dominikar Errepublikan asmo horrexekin abiatutako ekimenak. DEIA EGITEN DIETE Belize eta Paraguaiko gobernuei euren konstituzioek jasotzen duten Ombudsmanaren erakundea martxan jartzeko. Halaber, irudi hori euren konstituzioetan oraindik ez duten Iberoamerikako herrialdeetako kongresuei ESKATZEN DIETE horiek aintzat har ditzaten erakunde demokratikoak indartze bidean.
  13. POZTEN DIRA Herriaren Defendatzaileen Andeetako Kontseiluak eta Ertamerikako Giza Eskubideen Prokuradoreen Kontseiluak egindako lanarengatik, eta bereziki, Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioak bere laugarren urtean lortutako aurrerapenengatik, San Joseko Itunean eta estatutuetan jasotako helburuak betez. Halaber goraiatzeko Espainiako Herriaren Defendatzaile Fernando Alvarez de Miranda y Torres jaunak sendotze garai esanguratsu honetan IOFko lehendakari gisa egindako ekarpen paregabea.
  14. AZPIMARRATZEN DITUZTE Emakumearen Defendatzaileen Sarearen IV. Bileraren emaitzak, eta Toledon eta Liman sinatutako akordioak eraginkor egiteko konpromisoa hartzen dute, hau da, emakumearen eskubideen babeserako sailak garatu eta indartzekoa, kongresu horretan sareak aurkeztutako eginkizun-plana bultzatuz.
  15. AGURTZEN DITUZTE Giza Eskubideei buruzko Amerikar Itunaren hogeita hamargarren urteurrena eta 1979ko irailaren 3an San Jose Costa Ricakoan eratu zen Ameriketako Giza Eskubideen Auzitegia. AZPIRRAMATZEN DUTE, izan

ditzakeen ondorioengatik, Ameriketako Giza Eskubideen Auzitegiak ezarritako aurrekaria, hau da, onartezintzat jo izana Peruko Gobernuak auzitegiaren aginpidea ez onartzeko erabakia, zeren eta, nazioarteko erakundeen erabakiak bete eta interpretatzerakoan beharrezko den fede onaren arabera, aginpide horri onespina erretiratzeak San Joseko Ituna bezalako giza eskubideei buruzko hitzarmen baten muina bera desnaturalizatu egiten baitu. Hori dela eta, DEIA EGITEN DIETE Peruko agintariei Ameriketako Auzitegiaren epaiak bete ditzaten, herrialde hartako Herriaren Defendatzaileak behin eta berriro eskatu bezala.

16. Herriaren Defendatzaileen Andeatako Kontseiluaren txostena azterturik, bakea lortzeko ahaleginean Kolonbiako Herriaren Defendatzailearen erakundeak egindako balio handiko lana GORAIPATZEN DUTE, beti ere giza eskubideak garatu eta babesten saiatuz eta nazioarteko gizaldekoren zuzenbidea zainduz. Beren kezka ADIERAZTEN DUTE defentsa lan horrek jasan dituen mehatxu eta mugengatik, bereziki Herriaren Defendatzailearen, bere ordezkarien eta beste zenbait funtzionarioen bizitzan aurka egindako mehatxuengatik. Giza eskubideen aldekoen eta horiek biltzen dituzten gobernuz kanpoko erakundeen aurkako larderia DEITORATZEN DUTE, eta Kolonbiako Herriaren Defendatzailearen eta bere laguntzaileen segurtasuna bermatzeko eskatzen dute. Kolonbiako Herriaren Defendatzaileari beren babes eta elkartasuna ESKAINTZEN DIOTE, ahal eta beharrezko den heinean, erakunde hark bere eginkizuna bete ahal izan dezan.
17. Vieques uharteko bizilagunen egoerari buruz Puerto Ricoko Ombudsmanak aurkezturiko txostena ikusirik, Federazioaren babesa ADIERAZTEN DIOTE ordezkari horrek uharte-udalerritik hartako bizilagunen bizitzeko eskubidea eta ingurugiroa babesteko egiten duen lan baliotsuari.
18. IOFko presidenteari beharrezko lanak egiteko MANDATUA EGITEN DIOTE, datorren azaroaren 15ean eta 16an Habanan egingo den Iberoamerikako Lehendakari eta Estaturu eta Gobernuburuaren Gailurrean, Ombudsmanaren erakundearen sorrera eragin eta hura indartzeko, gure herrialdeetan giza eskubideak indarrean egon, errespetatu eta zain daitezzen.
19. Portugalgo Provedor de Justiça lanaren irmoki BABESTEN DUTE, eta timortarren oinarrizko eskubideak urratzen dituzten ekintza genozidak gaitzesteaz gain, Nazio Batuen Erakundeari eskatzen diote bakea lortu, erreferendumaren emaitza errespetatu eta erakundearen beraren erabakiak betearazteko ahaleginak aurrera eramateko, eta baita, indarkeria dela eta, euren gogoz kontra indonesiar lurraldean dauden timortarrak aberriratzekoak ere.
20. Ekuadorko Herriaren Defendatzailearen proposamena ONARTZEN DUTE, Federazioaren V. Kongresua 2000. urtean Quito hirian egitekoa, eta baita Puerto Ricoko Ombudsmanarena, 2001. urteko VI. Kongresua San Juan hirian egitekoa. Eskaintza biak biziki ESKERTZEN DITUZTE.
21. ZORIONAK EMATEN DIZKIETE Hondurasko Giza Eskubideen Komisionatu Nazional Leo Valladares Lanza jaunari, IOFaren IV. Kongresua antolatu izanagatik, Ameriketako Giza Eskubideen Institutuari, idazkaritza tekniko lanengatik, eta Hondurasko herriari, egindako abegi onarengatik. Eta akordio hauek Tegucigalpako Adierazpena izenez ezagutuko direlako atsegina adierazten dute.

Tegucigalpan, Hondurasen, mila bederatzehun eta laurogeita hemeretzi irailaren hogeita bederatzian.

### **3.3. HERRIAREN DEFENDATZAILEEN ETA EUROPAKO BATASUNEKO ESKABIDEETARAKO ESKUALDE BATZORDEEN ETA BI HORIEN ETA EUROPAKO HERRIAREN DEFENDATZAILEAREN ARTEKO LANKIDETZARI BURUZKO HITZALDIA**

1999ko azaroaren 11 eta 12an «**Erregioen babes zibikoa Erregioen Europan**» izenburuko hitzaldia egin zen Herri Defendatzaileen eta Europako Batasuneko eskabideetarako erregio batzordeen eta bi horien eta Europako Herri Defendatzailearen arteko lankidetzari buruz.

Lehenengo lan jardunaldian hurrengoko txostenak aurkeztu ziren:

«Europa berriaren eraikuntzan Europako Herriaren Defendatzailearen eta beste defendatzaileen arteko lankidetzaren garapena» (Jacob Söderman Jaunak, Europako Herriaren Defendatzaileak aurkeztua).

- Eskaera eskabidearen garapena Europako Legebiltzarraren esperientzian (Europako Legebiltzarreko Eskaera Batzordearen Lehendakariak, Nino Genelli jaunak, aurkeztutako txostena).

- Europan hiritarren defentsa erregio mailan, (Arartekoak, Xabier Markiegi jaunak., aurkeztua). Interesgarria delako, txosten honi 2. eranskin bezala ponentziaren testua gehituko zaio.

Hurrengo aipatzen diren arazoei buruz programatutako esku-hartze eta eztabaidak ere gauzatu ziren:

- Erkidegoaren Zuzenbidearen gertuketa eta aplikazioan herrialdeetako herriaren defendatzaileen zeregina.
- Zuzenbideko Estatu sendotzeko legeztatzearen eta ekitatearen erronka
- Deserdiratua dauden administrazio eta erregioekiko harremanak
- Erkidegoaren erakundeekiko eta Europako Batasuneko Herriaren Defendatzailearekiko harremanak

Ullrich Galle jaunak, Rheinland-Pfz (Alemania) eskualdeko Herriaren Defendatzaileak “Europako giza espazioaren eraikuntzan erregioetako herriaren defendatzaileen ekarpena” izenburua duen txostena aurkeztu zuen.

Lansazio hau bukatzeko hurrengo gaietako buruzko programatutako esku-hartze eta eztabaidak izan ziren:

- Europako hiritartasuna
- Amsterdameko Itunaren ikuspuntuak
- Hiritarren eskubideak eta zirkulazio askea
- Ongizate estatuaren muga berriak
- Lanerako eta heziketarako eskubidea
- Aukera berdintasuna
- Kontsumitzaile eta erabiltzaileak
- Zergak eta sistema fiskala
- Hiritar inmigranteen babesa

Bigarren lansazioan txosten hauek aurkeztu ziren:

- “Hiritarren erregio mailako defentsaren bilakaeran, lurralde esparruko berme erakundeekin dituzten harremanetan” (Félix Dunser jaunak, Austriako Voralberg erregioko Herriaren Defendatzaileak aurkeztua).

Hurrengo gaiei buruzko programatutako eztabaida eta esku-hartzeak izan ziren:

- Eskaerretarako eta eskatzeko eskubiderako batzordeak
- Babes juridikzionalaren eta ez-juridikzionalaren arteko harremana
- Merkatuaren arautze prozesu berriak
- Tutela-elkarteak
- Herriaren Defendatzaile pribatuak

Wallonne (Belgika) erregioko Herriaren Defendatzaileak, Frederic Bovesse jaunak “Herriaren Defendatzaileen zereginaren berezitasuna, tresnak, jarduteko bideak, erregio mailan hiritarren defentsaren autonomia-eremuarekiko harremanak” (artekaritza, zaintza eta tartekaritza) txostena aurkeztu zuen

Eztabaida berri bati ekin zitzaion eta hurrengo programatutako mintzaldiak aurkeztu ziren:

- Egoitza telematikoak eta informazio eskubidea
- Giza eskubide eta Europako hiritartasunaren balio kulturaletan hezteak.
- Hiritar guztientzako babes, gardentasun eta pribazitate tresnen erabilera eta ezagupena.

Bigarren lantsaioa amaitzeko, Italiako Liguria erregioko Herriaren Defendatzaileak, Roberto Sciacchiter Herriaren jaunak “Milurteko berrian giza eskubideen baieztapena: Europa, solidaritate, justizia, segurtasun eta askatasuna gozatu daiteken tokia; Europako Batasunaren kanpo politika eta nazioarteko bermeak” gaiari buruzko txostena azaldu zuen.

Eztabaida formala gauzatu zen eta ondorengo gaiei buruzko programatutako hitzaldiak izan ziren:

- Erkidego zuzenbidearen, erakundeen eta giza eskubideen defentsarako erakundeen bilakaera.
- Gizarte eta ekonomia eskubideen eta babeserako bitartekoen zabalkuntza.
- Erregioen arteko lankidetzak.
- Europako eta nazioarte mailako hitzarmenak
- Batasunaren hego eta ekialderako politikak
- Nazioarteko lankidetzan eta barne segurtasunerako akordioetako “berme” klausulak

Ideien eta esperientzien trukaketaren emaitza gisa, jarraian adierazten den **behin betiko agiria** onartu zen

Aitzinsolasa

Europako Batasuneko erregioetako herriaren defendatzaile eta erregioetako parlamentuetako eskabide batzordeetako buruak 1999ko azaroaren 11 eta 12an

Florentzian batzartu dira, Europako Herriaren Defendatzailearen eta Europako Parlamentuko Eskabideen Batzordeko buruaren txostenen aurkezpenarekin hasi zen hitzaldia amaitu zenean eta adierazi dute erregio ikuspegitik hiritarren defentsa gaur, inoiz baino gehiago, Europako integrazioaren prozesuarekin hertsiki lotutako zeregina dela.

Moneta batasuna lortzeko prozesua burutu ondoren, ezinezkoa da Europa bere baitan ixtea, eta, aldiz, elkarlan handiagoa lortu beharra dago Batasuna bere hiritarrei hurreratu dakien, Europako izaria eraginkorragoa eta nabariagoa izan dadin lortuz. Merkatua, pertsonen eta ondasunen zirkulazio askea, ekonomiaren baliabide apartak, eta beraz, gizarte eta kulturarekin zerikusirik duten gauza guztiak balorizatzeko gizartean eta erakundeen arteko harremanak hobetu beharra dago. Hori benetako Europako demokrazia lortzeko oinarritzko elementua dugu eta baita bere hiritarren zerbitzutako antolakuntza izateko ere

### *Zilegitasun demokratikoa sendotzea*

Herri Administrazioen aurrean hiritarren eskubide eta interesen babesa, Europako Legebiltzarraren eskaera eta ikerketa botereen hedapena, edo epaitegiek erabilgarri lituzketen tresnei eraginkortasun handiagoa ematea, Batasunaren zilegitasun demokratikoa sendotzeko ezinbesteko tresnak ditugu, Europako integrazioarekiko kontzeptu berria garatzeko bilakaera bermatuz. Horrek Europako Batasunaren, bere estatu kideen eta erregioen erantzukizunen banaketa orekatua eta argia bideratuko duen arlokako plangintza eskatzen du.

Esparru aurreratuagoetan ere, eragingarritasunaren hobekuntzak antolakuntzari ekiteko eredu berriak eskatzen ditu hautespena egiterakoan, jarduterakoan eta era egokian jokaterakoan, zertarako-eta herri administrazio eragingarria eta maila guztietan hiritarrek eskatzen duten jaramonari aurre egiteko gai izango dena izateko

### *Herri administrazio irekia eta lehiakorra*

Enpresa eta hiritarrek zigortu eta hunkitzen dituzten lokarri eta burokraziaren zama modernizatu, sinplifikatu eta murrizteko, oraindik lan asko dago egiteke. Sarritan, zerbitzuek hobetu beharrean edo berriak sortu beharrean izateko arrazoirik ez duten entitate edo egiturei baliabide erabat funtsezkoak ematen dizkiote. Ordea, bai gizabanakoaren eta baita familiaren alorretan ere, gizabanakoen oinarritzko bizitza balore propioak aldatzen dizkiguten prozesuak gelditzeko ez da ezer egiten.

Hiritarren interesen babesari dagokionean ere, garapenak ezinbestean batuketa prozesuetatik igaro beharra du; erkidegoaren eskubide eta hori betetzeko beharrezkoak lirakeen baliabideenganako konfidantzak sortu behar du; Herri Administrazioaren-ganako tratuan egon daitezkeen arazo edo auziak era errez eta zuzenean konpondu behar genituzke. Aniztasunean eta tolerantzian eraiki diren giza balore berriak sortzeko horixe dugu jarraitu beharreko bidea. Lehenengo eta behin, inertzia, bortxaketa eta gehiegikerien aurka jarriz eta gure zibilizazioaren lorpen historikoak nabarmenduz.

Europako hiritar orok erkidegoko erakundeek egin duten "administrazio txarraren" kasuan Europako Herriaren Defendatzailearengana joateko aukera izan behar du. Hala ere, erkidegoaren legegintzatik eratorritako eskubideak betetzea, neurri handi baten behintzat

jadanik -eta aurrerantzean are gehiago izango da- erregioetako administrazioei eman zaie. Europako Herriaren Defendatzaileari aurkeztutako erreklamazio edo salaketen %70 baino gehiago, izatez, kide diren Estatuetakoa Administrazioen jardupideari buruzkoak dira.

Helburua ez da erregio edo nazio mailan bere zaintza hedatzea, jurisdikzionala ez den babesaren eremuan ere gertutasun eta ordezkotasun printzipioak erabiltzea baizik. Printzipiook "herritarren interes eta eskubideen babesa sendotzeko" Batasunaren kide guztiei egindako deia bereganatzen duen baterako xedapenek onetsitako xedeekin batera Europa berria bideratzen dute.

Arestian aipatu den horren bezalako bermerik ezak, giza eta ekonomiaren desoreka eta desberdintasuna areagotzen ditu. Guztiok ditugu eskubide eta betebeharrak berdinak, baina ez ditugu onartzen dizkiguten eta maila guztietan betearazten dituzten erakunde berdintsuak. Epaitegien eskumena ez da erkidegoaren interesak zaintzea, edota Herri Administrazioari berrikuntza edo hobekuntzak aditzera ematea. Denborak eta baita prozesu eta auzien konpromisoaren zamak ere, betearazpenen ziurgabetasunaren antzera, egonezin handia dakarte; halaber, jardupide jurisdikzionalen gorakada izugarria eragiten dute.

Beraz, erregiotasuna areagotzeko ahalegin honek, aldi berean, erregioetako herri defendatzaileek eta erregioetako legegintza batzarren eskabide batzordeen zereginen bultzada ekarri behar du. Antolakuntza eta arlo publikoaren zerbitzu eskaintza hobetzeak erkidegoaren interesa hedatzea ere suposatzen du, horretan Europak moneta batasuna lortzen duen une honetatik, askatasun eskabide berriei erantzuna gehitu ahal izan dakion: enplegua, eta baita eusteko moduko garapena, osasuna, hezkuntza, ingurugiroarekiko kalitatea, giza zuzentasuna, ziurtasuna, aukera berdintasuna edo zirkulazio askea ere.

### *Herritarren eta lurraldeen Europa*

Europa berria herritarren Europa izango da: bateratzen gaituen Europako hiritartasunean oinarritutako Batasuna. Alde batetik hautagai diren herri berriek demokrazia ziurtatzeko eta giza eskubideenganako itzala bermatzeko gai diren erakundeek izaterik nahi badugu, ordez, Zuzenbideko Estatua eta Justizia ideiak betearazi eta sustatzen dituen Europa eskaini beharko dizkiegu hiritarrei.

Europaren etorkizuna eta estabilitateari eusteko beharrezkoak diren baldintzak ekonomiaren garapena eta hiritartasuna dira. Amsterdameko Ituna izenpetzearen ondoren gizarteko arlo eta eremu berrietan elkarlanerako era berriak abiarazi dira, gertu diren legegintza tresna askoren eraberritzea eta Herri Administrazioaren arlo guztien hobekuntza ekarriz. Hori gauzatzen ez baldin bada, inolako kontrolik gabeko erakunde teknikoek ugalduko diren erkidegoaren eraikuntza "funtzionala" garatzeko arriskuan gara.

Ezinezkoa izango da, beraz, tokiko sistemak sendotzea, eremu guztietan eraberritzea, ikerkuntza garatzea, barne kudeaketa guztien deszentralizazioa, sinplifikazioa eta gardentasunera bideratutako arduradun eta biziagoa den giza elkarriketa izan gabe komunikazio sareak gaurkotzea.

### *Europa sendo eta solidarioagoa*

Kontinente guztiko herriei irekita dagoen Europa sortu genezake. Eskubideen berdintasun eta oparotasuna eskainiko digun Europa demokratikoa. Etorkizun horrek

hirugarren munduko herriekin harremanak izateko beharrezkoa litzatekeen giza eskubideei dagozkien politika guztietan koherentzia ideia berria eskatzen digu.

Hiritarrek bokazio zibila erne mantentzeko gai den Europa behar dute, are gehiago hain desberdinak diren Kulturak aurrez-aurre jarriko direnean, aurreratuagoak dituen askatasunen esparrua baieztatzeko gai den eta, era berean, berdintasun eta solidaritateari buruzko helmuga berriak lortzerakoan borrokatzeko gai den Europa.

Gure gaurko garapena aldakuntza sakon eta arinen emaitza izan da. Aldaketok, ostera, arazoak ere ekarri dituzte eta giza eskubideak arriskuan jarri ere, demokrazia bera ere kaltetuz. Beharrianen gehiketak konbergentzia era berriak aurkitzera garamatza eta guzti horrek garapen orokortuarentzako mesedegarri izan eta jarduera eremu guztietan, hau da, eskoletan, lanbidean, hirietan, babes eremuetan etab. gizakiaren balioztatzea ekarri.

Guzti honek, demokrazia ekonomikoaren eta gizarte demokraziaren, benetako Europaren eta legezko Europaren artean geroago eta nabarmenago agertzen zaizkigun desberdintasunak ezabatzeko ekintza administratiboaren inpartzialitatea eta eragingarritasuna bategitea dakar, hiritarrek eta euren eskubideek berriz ere eraikuntza horretan, Europako progresuaren, berrorekaren eta garatzebidearen errekurtsio nagusi bihurtuz gairik garrantzitsuenak berriz izan daitezten

### **Herriaren Defendatzaileen eta eskabideetarako erregioetako batzordeen Europako Konferentzia**

Europako erakundeak errotik eraberritzeko bidean erantzun zehatzak eman behar dira, administrazio eta herritarren arteko gatazkakortasun artegatsua baretu (eskubideen bortxaketek, botere gehiegikeria, legez aurkako jardupideak, irregulartasunak, ekintzapiderik eza, utzikeriak) eta aldi berean Europako Batasunak egindako ekintzetatik etorritako gero eta informazio eta ezagutza handiagoak edukitzeko hiritarren beharriana asetzeko.

Erregioetako herriaren defendatzaileek eta Erregioetako Legebiltzarretako eskabide batzordeek, gero eta gehiago atzeman dute hiritarrek euren eskubideak gauzatzeko aurrez emandako arazoen ikuskatzaile pribilegiatuen zeregina. "Eskabideak", erakunde bezala, Europako hiritarrek gero eta gehiagotan adierazten duten beharriari bati egiten dio aurre, jarduketan aukera eta eskabidea adieraztekoa alegia. Beharriari horrek manua besterik ez den edo interes orokordun gaitan ere batzordeek duten erantzukizuna azpimarratzen du.

Europako Herriaren Defendatzailearen erakundearen sorkuntzarekin administrazio lehiakorragoa izateko, gizakiaren ukazinezko eskubideak betetzeko gai dena, eskuduntza eta betebeharren kontzientzia nabarmenagoa garatu da. Baina adierazpen hutsak gaintitu aurrera egiteko garaia heldu da. Erkidegoko Zuzenbideak aurrera egin behar du oinarrikoak diren gizarte eskubideen, edozein bereizkeria mota eta aukera berdintasunaren onarpenaren eremuan.

### *Erregioen arteko koordinazioa eta Europako herriaren defendatzailearen eta Europako Parlamentuko Eskabide Batzordearekin lankidetzan aritzea*

Erregioetako herriaren defendatzaileen, Europako Herriaren Defendatzailearen eta erregioetako parlamentuetako eskabideen batzordeen artean 1997an Bartzelonan

egin zen Lehenengo Hitzaldiaren ezarritako lankidetzak, eskubideen aldepena era erabakigarri hobetzearen beharrezkoak sortu zen. Aldepen hori ezin utzi daiteke Estatuaren edo nazioz gaindiko erakunde edo instituzioen esku bakarrik, aitzitik edozein Herri Administrazioari dagokion lana da.

Giza eskubideen aldepenak lortu beharrean duen baloreak Batasunaren barruan politika "integratu" bat izatea beharrezkoa dela erakusten digu. hiritarretan oinarrituta guztien helburuaren kontzientzia berria garatzeko gai litzatekeen babes-sarea, milurteko berriaren atarian edozein gizakiren eta herrien duintasun eta askatasunari buruzko gaiei lokarritu behar zaio.

Herriaren Defendatzaileen eta eskabide batzordeen lehendakarien Europako Hitzaldiak, erregioetako herri aldepenari autonomia eman eta hori balorizatzeko beharrezkoak bateratua, Europako Herriaren Defendatzailearekin eta Europako parlamentuko Eskabide Batzordearekin erregioen arteko lankidetzak eta koordinazio tresnarik egokiena da. Guzti horretatik hauxe ondorioztatzen da:

- guztien intereseko arloetan Europako Legebiltzarraren Eskabide Batzordearekin eta Europako Herriaren Defendatzailearekiko harremanak garatzea daitekeena da eta, halaber, babes juridikzionalik gabeko maila desberdinekin lokarriak mantendu eta lankidetzak izanez, herri-aldepenaren askatasunari dagozkien prerrogatiba eta manuak ere batera aurkituz;
- ekintza guztien eragingarritasuna eta baterakidetasun instituzionala eduki ahal izateko Europako politikak indartzea (kalitatezko eskaintza, zerbitzu prestazioa, gardentasuna, sinplifikazioa);
- sorospidetza eta hurbiltasun printzipioen erabilera sustatzea, erakunde guztientzako betebeharreko eta erabakiorrak direlako eta tokikoak eta erregioetako diren nortasunak baloratu eta hiritarrek elkarrikerak sendotu eta erabakiak hartzerakoan gardentasun gehiago eragiten dutelako;
- gaitasun eta hezkuntzari eta baita gizarte zibilaren adierazpenbide desberdinekin elkarlanari arreta berezia eskainiz, jakintzaren etengabeko trukea mantendu eta gizabidezko aldepen kultura aurreratua hedatzeko, heziketa profesionala sendotu eta erapide informatikoak hobetu beharra dago;

### *Europako Batzar Iraunkorra eratzea*

Batzarrak urtero gutxienez bitan egingo ditu bilerak. Erregioetako herriaren defendatzaileek egitarau eta antolakuntza proposamenak gertutu eta egoitza aukeratzeko arduratuko den lantaldea izendatuko dute. Helburu horrekin, taldeak hauek beteko ditu:

- erregioetako herriaren defendatzaile eta erregioetako eskabide batzordeetako buruekin harremanak izango ditu, Europako Herriaren Defendatzailearekin, Europako Parlamentuarekin eta beste erkidegoko erakunde batzuekin beharrezkoak liratekeen loturak ahaztu gabe.
- Hitzaldi hau eratzen duten erregioetako herriaren defendatzaile eta erregioetako eskabide batzarretako buruei elkarren artean interesgarriak diren dokumentuak igorriko dizkiete.
- interesatuta dauden erregioetako herriaren defendatzaileekin batera erregioen arteko lankidetzak ekimenak sustatuko ditu Europa mailan eta hiritarren aldepenak eta horien



eskubideek solidaritatea eta laguntasuna behar duten hirugarren herrien aldeko arreta tekniko eta aholku ekintzak babesteko, helburu jakin baterako egitasmo eta azterketak egitea barne..

*Florentzian aho batez onartua, 1999ko azaroaren 12an*

### **3.4. PARLAMENTUETAKO MANDATARIEN BILERA ALORREZ ALORREKO ETA TOKIKO DEFENDATZAILEEN SORRERA AZTERTZEKO**

Aragoin egin zen Herriaren Defendatzaileen Lankidetzarako XIV. Jardunaldietan alorrez alorreko eta tokiko defendatzaileen sorrera aztertzeke eztabaida geroratzea eta lansaio monografikoan aztertzea erabaki zen.

Horretarako, aurretiaz, erakunde bermetzaileetako ordezkariak osatutako lantaldea bildu zen, Herriaren Defendatzaileek gero eztabaidatu behar zuten lanerako agiria gertatzeko; bilera hori 1999ko azaroaren 17an egin zen, Sevillan

Herriaren Defendatzailea eta "Parlamentuetako mandatarien hausnarketak alorrez alorreko eta tokiko defendatzaileen sorrerari buruz" izena duen agiria onetsi zuten autonomi erkidegoetako parlamentuetako mandatariak Madrilen bildu ziren, 1999ko azaroaren 18an. Agiri hori txosten honi batu zaion 3. eranskinean azaltzen da.

#### **4. EL LIMITADO IZENENKO LUR-MULTZOAREN INGURUKO GATAZKA: ARARTEKOAK ARTEKARI GISA JARDUTEA ARAMAIO ETA OTXANDIOKO UDALEN ARTEAN ETA ARABA ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIEN ARTEAN**

El Limitadon kokaturiko lur batzuen jabeak kexa azaldu zuen eta, harrezkero, Arartekoari azaldu zaio historian zehar lur-multzo horretan izan den gatazka. El Limitado 565 hektareako ingurunea da; XIII edo XIV. mendeaz geroztik, ingurune horren gaineko jurisdikzioa eztabaidatu izan dute Aramaio (Araba) eta Otxandioko (Bizkaia) udalek.

Lur-multzo hori Otxandioko hiriaren eta Oleta izeneko nekazaritza-gunearen artean kokatuta dago (Araba). Hegoaldetik, lur-multzo hori Urrunagako urtegiaren isatsarekin mugakide diren mendietaraino hedatzen da; iparraldetik, aldiz, Abadiñoiko udalerriraino, Urkiolako portura doan errepidearen aldamenean.

Ehun urteko gatazka hori konpondu nahian, lehenengo ahalegina egin zen 1457ko ekainaren 2ko lagatze edo konkordia eskrituraren bitartez. Aramaioko Kondesak, Elvira de Leirak, bere semearen izenean, Otxandioko hiriko Kontzejuarekin sinatu zuen eskritura hori; garai hartan, Otxandioko Juan Pascualek zuen kontzejuaren burutza.

*“...en el dho nombre del dho Juan Alfonso otorgamos e conoscemos que desde agora en adelante para siempre jamás, damos e entregamos perpetuamente al Concejo de la villa de Ochandiano e a los vecinos e personas singulares del uso e fruto e aprovechamiento de todas o cualquier tierra o tierras e terrenos e frutos e frutales que llevan fruto y llevan e aguas corrientes e estantes e yerbas e pastos de herbajos e bellotas de robres e lio de hayas e de otro cualquier arbol de cualquier natura en estos linderos”.*

Elvira de Leira andrearen semea, Aramaioko Jauna, on Juan Alfonso de Múgica y Butrón, bertara itzuli zenean, konkordia eskritura berretsi zuen, 1470eko ekainaren 20an.

Itun horren ondorioz, Aramaioko Jaunak zenbait eskubide aitortu zizkien Otxandioko hiriko auzotarrei. Eskubide horien artean aipa daitezke, besteak beste, abelburuentzako bazka eskubidea, eta etxe nahiz burdinoletarako zura mozteko eskubidea. Eskubideok hiriaren aldameneko mendietan erabil zitezkeen eta, mendiok guztiz mugatuta geratzen zirenez gero, hortik dator gaztelaniazko izena El Limitado izatea.

XVI eta XVII. mendeetan zehar, Aramaio eta Otxandioren artean gatazka ugari izan zen. Alderdi bakoitzak bere buruarentzat erreklamatzeko zuten El Limitadoreko gaineko jurisdikzioa. Valladolideko Gantzelaritzak eta Bizkaiko Epaille Nagusiak euren irizpenak eman zituzten arazoari buruz. Judizio horietan, arazo zehatz-zehatzak azaltzen ziren eta, gaur egun, garai hartatik hona hainbat urte igaro eta gero, arazo horietatik nekez atera daiteke behin betiko ondorioz, El Limitadoko lur-multzoa nori atxiki behar zaion erabakitzeko.

Judiziozko epai horietako bat betearaztearen ondorioz, 1754. urtean ohitura gisa ezarri zen Otxandioko udalak, hiri horretako auzotarrekin batera, urtero-urtero bisita bat egitea, El Limitadoko zedarriak edo mugak ikuskatzeko; ikuskapen horren gaineko lekukotza akta-liburuan jasotzen zen. Ohitura horrek iraun egin du gure egunok arte eta, orain ere, ikuskapena irailean egin ohi da.

Udalek zergak biltzen zituzten, euren lurraldeen arabera eta foru aldundien bitartez. Bilketa horrekin, udalek laguntza ematen zuten Espainiako Koroaren gerra-gastuetarako. Bilketa hori dela eta ez dela, Aramaio eta Otxandioko auzotarren artean, gatazkak eta eztabaidak areagotu egin ziren. Borroka larriagoak saihestu nahian, XIX. mendearen bukaera aldera, Araba eta Bizkaiko foru aldundiek, udalen adostasunarekin, tartekari bat bilatzea erabaki zuten, arazoa konpontzeko. Tartekari lana eratxiki zion, bada, Gipuzkoako Foru Aldundiari.

1911ko urriaren 12an, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere egin zuen horretarako beren beregi izendatutako batzorde bereziaren txostena. Txosten horretan, Aramaio Haranari aitortu zitzaizkion El Limitado izeneko lur-multzoaren gaineko jurisdikzioa eta kotribuzioen ordainarazpena. Bizkaiko Foru Aldundiak ez zuen inoiz onartu tartekariaren erabakia; bizkaitarren ustez, batzorde bereziak ez zuen bete itundutako prozedura eta, ondorenez, batzorde horren erabakia baliorik gabekoa zen.

Hogeigarren mendearen azken hogeita bost urteotan, administrazio interesatuen artean hainbat elkarrizketa izan dira, une desberdinetan; baina ez da oraindik emaitza positiborik lortu.

\* \* \*

Nabarmentzeko modukoa da Otxandioko udal zerbitzu eta instalazio nagusiak, besteak beste, ikastetxea bera, El Limitado izeneko lurretan izatea; gauza bera gertatzen da, orobat, udaleko kirol instalazioekin. Egoera hori ulertzeko, aintzakotzat hartu behar da ibai batek baino ez dituela bereizten Otxandioko hirigunea eta El Limitado izeneko lur-multzoa. Aramaioren kasuan, ostera, Ibarra dagoen udaletxetik El Limitado izeneko horretara, 12 kilometro daude, gutxi gorabehera.

Arazoa ulertzeko, beste datu garrantzitsu bat da Aramaio udalerrri zabala izatea; gutxi gorabehera, Aramaio 7.410 hektarea ditu. Otxandio, berriz, udalerrri txikia da; 654. hektareako luze-zabala besterik ez du.

Administrazioak ez duenez argitu El Limitadoko lur-multzoa zein udali atxiki behar zaion, horren inguruan hamaika istilu sortu da, batik bat, zergen inguruko kontuetan. Adibide gisa, honako hau aipa daiteke: El Limitado izeneko lur-multzoa Aramaio eta Otxandioko, bi-biotako, katastroetan agertzen da. Ondorenez, Arabako eta Bizkaiko ogasunek, biek, ondasun higiezinaren gaineko zergak biltzen dituzte, tributu hori jadanik beste lurraldeko ogasunari ordaindu zaion ala ez kontuan hartu gabe. Era berean, arazoak sortzen dira, hirigintza antolamenduaren inguruan edota obretarako baimenak emateko orduan, ezin baita jakin zein den udal eskuduna halako kontuetan. Gauza bera gertatzen da, orobat, legearen aurkako obrak ikuskatu eta horien gaineko zehapena ezarri behar denean. Halaber, noizean behin, bestelako arazoak azaltzen dira, berbarako, Erregistroaren inguruan; izan ere, finka batzuk Gasteizko Jabetza Erregistroan inskribatuta daude eta beste batzuk, aldiz, Durangoko Jabetza Erregistroan.

\* \* \*

Arazoa oso konplexua denez gero, Arartekoak bere burua eskaini zuen, erakunde interesatuen artean tartekari gisa jardun eta, horrela, konponbide adostua bilatzeko.

Proposamenak harrera ona izan zuen, eta lau alderdi interesatuek erabakiak hartu zituzten, Arartekoaren bitartekaritza lana onartuz.

1. Aramaioko udala: osoko bilkuraren batzarraldia, 1998ko ekainaren 25ean
2. Otxandioko udala: osoko bilkuraren batzarraldia, 1998ko uztailaren 15ean
3. Arabako Foru Aldundia: Diputatuen Kontseilua, 1998ko ekainaren 16an
4. Bizkaiko Foru Aldundia: Gobernu Kontseilua, 1998ko irailaren 15ean

Arartekoak, aurretiazko baldintza gisa, jarraikoa ezarri zuen: bitartekaritza lanak dirauen bitartean, gatazka oro saihestu beharra dago, gatazkarik txikiena bada ere. Arartekoak proposatu zuen, halaber, judiziozko errekurtsioa behin-behinean eteteko; izan ere, errekurtsioa auzian zegoen Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusian (Administrazioarekiko auzibide errekurtsioa, 1956/96-2 zenbakiduna, Otxandioko udalak Arabako Foru Aldundiaren aurka jarritakoa, horrek Aramaioko Arau Subsidiarioetan El Limitado sartu zuelako). Gainera, Arartekoak proposatu zuen El Limitadoko auzotarrek askatasunez aukeratzea zergak zein udaletan eta zein lurralde historikotan nahi dituzten ordaindu.

Arartekoak eskatu zuen, berebat, auzibidean zehar erabateko zuhurtasuna edo diskrezioa izatea; horrela, gaizki-uletze kaltegarriak saihestu daitezke, elkarrizketa eta adostasunaren bidean aurrera egin ahal izateko.

Urtebete luzean, Arartekoak Gasteizen duen egoitza horretan, hainbat bilera egin eta bilera horretara joan dira lau administrazio interesatuetako ordezkariak. Bilerotan, aukera desberdinak aurrez aurre jarri izan dira. Azkenik, Arartekoak adostasunerako proposamen bat aurkeztu die alderdiei, epe barruan, alegia, 1999. urteko abenduan. Adostasunaren bila, El Limitado izeneko lur-multzoa Aramaio eta Otxandioko udalen artean erdibanatzea proposatzen da eta, ondorenez, lur-zati hori Araba eta Bizkaiko foru aldundien artean erdibanatzea ere. Lur-multzo hori 565 hektareakoa denez gero, 283 Otxandioko udalari atxikiko zaizkio, hau da, ehuneko 50,12; eta 282 hektarea atxikiko zaizkio, oster, Aramaioko udalari, hots, ehuneko 49,88.

Arartekoak zenbait irizpide erabili ditu banaketa hori egiteko. Irizpide nagusiak izan dira, besteak beste, hurrengoak:

- Baliokidetasun irizpidea: hedadura berekoak izango dira alderdiei adjudikatzen zaizkien lur-zatiak.
- Lurren artean etenik ez izateko irizpidea: lurren artean, ez da irla edo barrutirik sortu behar, eta zentzuzko itxura eman behar zaie lurroi.
- Hiriguneen garapenerako irizpidea: El Limitadoren aldameneko gunek, hau da, Oleta eta Otxandioko hiria, heda daitezen erraztu behar da.
- Mugak definitzeko irizpidea: banaketa-lerroa finkatzean, erreferentzia gisa hartu behar dira erraz antzeman daitezkeen osagai fisikoak, hala nola, ubideak eta errepedeak.

Bitartekaritza prozesuak iraun duen bitartean, alderdiek benetan zuhur eta diskrezioz jokatu dute, eta administrazio guztiak, Arartekoaren koordinaziopean, elkarlanean aritu dira, zerga nahiz administrazioaren inguruko arazoei aurre egiteko, El Limitadoko auzotar eta jabeek halako arazoak azaldu izan dituztenean.

Banaketarako proposamen horrek, nahitaez, ondorioak sortzen ditu, El Limitadoko biztanleentzat. Proposamenak aurrera egiten badu, biztanle horiek guztiak Otxandion

sartuko dira ondorio guztiekin eta, horrekin batera, Bizkaiko lurralde historikoaren barne geratuko dira.

El Limitado izeneko gunean, baserri eta etxebizitza gutxi daude, eta guztiak ere Otxandioko hirigunetik hurbil. Horregatik, bertako biztanleei proposatzen zaie, zerbitzuak zein udalerritan jaso eta udalerrri horretakoak izan daitezen. Kokapen zehatza hauxe izango da: Itza abeletxea (etxebizitza bakarra), Kerisara (lau etxebizitza), Mainondo (lau etxebizitza), Mainondo Garai (etxebizitza bakarra) eta Etxebarri (etxebizitza bakarra).

\* \* \*

Ehun urteko arazo horri behin betiko konponbidea eman behar zaio. Hori dela eta, Aramaioko udalak jadanik adierazi du, akordiorik lortzen ez bada, demanda jarriko duela Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusian; demanda hori jartzean, auzitegiak izango lirateke behin betiko erantzuna ematen dutenak, El Limitado izeneko lur-multzoa zein udali dagokion jakiteko. Auzitegien erabakiak berarekin ekarriko luke El Limitadoko lur-multzoa, oso-osorik eta zatiketa egiteko aukerarik gabe, Araba edo Bizkaian sartzea.

1999. urtea bukatzean, toki administrazio biek eta foru administrazio biek oraindik ez dute euren iritzia azaldu, Arartekoak aurkeztutako banaketa-proposamena onartzen duten ala ez adieraziz.

Aramaio eta Otxandioko udalek, eta Araba eta Bizkaiko foru aldundiek euren borondatea adierazi, eta Arartekoaren proposamena onartzen badute, nahitaezkoa izango da, jarraian, administrazio espediente egokiak tramitatzea, lurren arteko mugak aldatu direla behar bezala formalizatzeko. Horretan kontuan izan behar da mugak bi udalerrri horiei dagozkiela, eta udalerrriok lurralde historiko desberdinetakoak direla.

## II. ATALA

# **ARARTEKOAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR ETA TALDE BATZUEN ARAZOEI ESKAINITAKO ARRETA BEREZIA**

Arartekoak, legez bere esku utzitako funtzioen artean, hiritarrek egiten dizkieten kexen aurrean erabaki behar du, eta bai ofizioz esku hartu ere, itxuraz oinarrizko eskubideren bat urra lezakeen edo legeak betetzen ez dituen administrazio jardueraren bat antzematen duen bakoitzean.

Jasotako 1.283 kexek eta ofiziozko 61 jarduerak askotariko arazoaren erakusgarri dira, eta horregatik kapitulu honetan jarduerarik azpimarragarrienak bildu dira, Arartekoaren erakundearen jarduerak hartzen dituen alor desberdinetan sailkatuta.

Arartekoaren bulegoak aztertzen dituen gaien era askotariko kasuistikaren isla izan nahi du atal honek, euskal hiritarren kezken berri ematen baitute. Beti ere gaien errepikapena saihesten saiatu gara.

Hautatutako espedienteak alorretan ordenatu dira, azpialorretan bilduta, espedientearen jatorria kontuan hartu gabe –ofizioz hasi diren ala alderdi batek eskaturik, kexa bidez–. Hala ere, ofiziozko espedienteak «OF» erreferentziaren bidez bereiz daitezke besteetatik.

Hautatutako espediente bakoitzean laburpena hiru zatitan egituraturik dago: erreklamazioa, azterketa eta emaitza.

Izenak berak adierazten duenez, “erreklamazioa” atalak arazoaren iturri izandako egitateen kontaketa dakar.

Azterketaren atalean, berriz, espedienteaz aztertzea eta ebatzea helburu duten era askotariko jarduerak azaltzen dira, bai zuzenbideari bai ikerketari dagozkionak.

Azkenik, emaitzaren atalean, jakina, Arartekoaren esku-hartzearen azken emaitzaren berri ematen da.

Txostenaren atal honetan metodologia mailako bi berritasun garrantzitsu sortu dira.

Alde batetik, alorkako egituraketari dagokionez, alorrak berriro definitu dira, eta Osasuna eta Gizarte Ongizatea alorra bitan banatu. Hau gertatu da gizarte ekimenari lotutako gaien garrantzia gero eta handiagoa delako, eta gizarte ongizateak esparru material berezia osatzen duen heinean bere tratamendua izan behar duelako Osasun alorretik bereiz.

Bestalde, Administrazioaren Antolaketa alorrak orain artean eduki horizontala izan du, Administrazioaren funtzionamenduari, administrazio prozedurari, kontratazio erregimenari, ondareari eta administrazio erantzukizunari zegozkien kexak barne hartzen zituena, kexa zein administrazioaren aurka aurkeztua zen kontuan hartu gabe. Txosten honetatik aurrera, alor horren orde, lehengo Administrazioaren Antolaketa alorraren edukia barne hartzen dituzten bi azpialor egongo dira, gainerako alorrekin bat eginik.

Egokitze horiez gain, eta gauzak argiago azaltzeko asmoz, orain arte zeuden azpialorrak berrikusi egin dira. Berrikuspen hori txosten honetan bertan ezarri da, eta horregatik egokitza jo da alorren eta azpialorren arabera sailkapen berria zertan den

azaltzea; dena dela, ohartarazi behar da azpialor guztiek ez dituztela derrigor 1999ko ekitaldian keak eragin dituzten gaiak biltzen.

Hauxe da arlokako berregituraketa berria:

### **Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa**

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza  
Merkataritza  
Kontsumoa  
Eskubideak eta askatasunak  
Industria  
Turismoa  
Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa  
Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna  
Beste zenbait

### **Gizarte Ongizatea**

Haur eta nerabeentzako laguntza  
Emakumeentzako laguntza  
Elbarrientzako laguntza  
Adinekoentzako laguntza  
Eskubideak eta askatasunak  
Gizarte prestazio ekonomikoak  
Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa  
Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna  
Beste zenbait

### **Kultura eta Elebitasuna**

Kultur jarduerak  
Elebitasuna  
Kirola  
Eskubideak eta askatasunak  
Kultur ondarea  
Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa  
Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna  
Beste zenbait

### **Hezkuntza**

Eskolaz kanpoko jarduerak  
Batxilergoa  
Irakaskuntzaren kalitatea  
Irakaskuntza zentroak  
Eskubideak eta askatasunak  
Helduen hezkuntza  
Hezkuntza berezia  
Haur hezkuntza  
Lehen hezkuntza  
Derrigorrezko bigarren hezkuntza  
Hizkuntzen irakaskuntza



Unibertitate irakaskuntza  
Irakaskuntza artistikoak  
Lanbide heziketa  
Hezkuntza jardueraren funtsezko printzipioak  
Titulu akademikoak  
Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa  
Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna  
Beste zenbait

### **Funtzio Publikoa**

Eskubideak eta askatasunak  
Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa  
Funtzio publiko orokorra  
Polizia alorreko funtzio publikoa  
Osasun alorreko funtzio publikoa  
Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa  
Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna  
Beste zenbait

### **Ogasuna**

Udal zerga bereziak  
Eskubideak eta askatasunak  
Foru aldundiek kudeatutako tokiko zergak  
Foru zergak, PFEZ  
Foru zergak, OEZ  
Foru zergak, BEZ  
Foru zergak, oinordetzak eta dohaintzak  
Udal zergak  
EAEko prezio publikoak  
Foru prezio publikoak  
Udal prezio publikoak  
EAEko tasak  
Udal tasak  
Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa  
Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna  
Beste zenbait

### **Herrizaingoa**

Atxilotze zentroak  
Eskubideak eta askatasunak  
Jokoak eta ikuskizunak  
Babes zibila  
Hauteskunde erregimena  
Herritarren segurtasuna  
Segurtasun pribatua  
Bidezaingoa  
Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

Kontratazio erregimena, ondarea eta prozedura administratiboa  
Beste zenbait

### **Justizia**

Jarduerak espetxe gaietan  
Doako laguntza juridikoa  
Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak  
Eskubideak eta askatasunak  
Zigorren ordezkioak burutzea  
Justizia Administrazioaren funtzionamendua  
Justizia Administrazioaren giza baliabideak eta baliabide materialak  
Adin txikiko arau hausleak  
Kontratazio erregimena, ondarea eta prozedura administratiboa  
Beste zenbait

### **Ingurugiroa**

Jarduera sailkatuak industri lurzoruan  
Jarduera sailkatuak lurzoru ez urbanizagarrian  
Jarduera sailkatuak egoitza-lurzoruan  
Naturgune babestuak. Landaretzaren eta faunaren babesa  
Hondakinak eta isurkinak  
Justizia Administrazioaren funtzionamendua  
Kontratazio erregimena, ondarea eta prozedura administratiboa  
Beste zenbait

### **Herri lanak eta zerbitzuak**

Bideak eta landabideak  
Eskubideak eta askatasunak  
Obren burutzapena  
Nahitaezko desjabetzea  
Beste zerbitzu publiko batzuk  
Obren proiektuak  
Toki zerbitzu publikoak  
Garraioak  
Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa  
Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna  
Beste zenbait

### **Osasuna**

Osasun laguntza  
Erabiltzaileen eskubideak  
Buruko osasuna  
Osasun publikoa  
Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa  
Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna  
Beste zenbait

**Lana eta Gizarte Segurantzza**

Eskubideak eta askatasunak

Gizarte Segurantzza

Lana

Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna

Beste zenbait

**Hirigintza eta Etxebizitza**

Eskubideak eta askatasunak

Hirigintza arauen betearazpena eta aurria

Hirigintza kudeaketa

Hiri antolamendua

Etxebizitza

Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna

Beste zenbait

**Beste gestio batzuk**

Beste gestio batzuk

Txosten honetan metodologiaz haratago doan beste berritasun bat azaltzen da. Alorren ohiko egituraketa gaikako banaketa baten arabera egiten da. Arartekoaren jarduerak sailkatu izan diren alorretan barreiatuta dauden eta ezaugarri bereziak dituzten zenbait talderen arazoan berariazko tratamendu batek osatu behar du banaketa material hori.

Talde horienganako berariazko arretarako alor horiek, txosten honetan haien arazoan berri bilatzeko lana errazteaz gainera, taldeok dituzten arazo eta beharriaz beren beregi erantzuteko jardueren esparruak sortu nahi dituzte.

Hala, bada, bost alor sortu dira eta aholkularien artean arduradun bana aukeratu da alor bakoitzeko, talde horiei begira Arartekoaren jarduerak planifikatu, sustatu eta ordena ditzaten.

Txosten honetan, II. atal honen bigarren zati gisa, bost multzotan bildu dira talde jakinen alde burutu diren jarduerak:

- Berariazko arreta eman zaie talde hauen arazoei:
- emakumeak
  - zaharrak
  - adin txikikoak
  - atzerritarrak
  - ezgaituak

## A) ARARTEKOAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR

### 1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

#### 1.1. SARRERA

1999an erakunde honetan lehen arloa edo nekazaritza-abeltzaintza-arrantza, bigarren arloa edo industria eta hirugarren arloa edo zerbitzuetako 22 kexa-espeditente tramitatu dira. Erreklamazio horiek Arartekoak jaso dituen kexen kopuru osoaren %2,45dira.

Horrela, ukitzen duten administrazioaren arabera, horien banaketa hau da:

- Eusko Jaurlaritza.....	11
- Aldundiak.....	8
- Udalak.....	5

Edukia kontuan hartuta, kexen sailkapen hau egin daiteke:

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza .....	8
Industria .....	6
Administrazioaren jardunbidea eta administrazio prozedura ...	3
Kontsumoa .....	2
Kontratazio, ondare eta administrazioaren erantzukizun araubidea. ....	2
Beste gai batzuk .....	1

Lehen arloaren barruan aztertu diren kexen artean ibaiako arrantza elkarte batek aurkeztu duen erreklamazioa azpimarratu behar da; elkarte horrek Arabako Foru Aldundiak hartu zuen kirol arrantzako barrutiak kudeatzeko sistemaren aurkako protesta adierazi zuen, baimenen herri prezioen zenbatekoa aldatu egiten zelako barruti horren kudeaketa Aldundiak berak egin edo zeharrean egitearen arabera, hau da, erakunde laguntzaile baten bitartez. Halaber, esparru horren barruan toki izakien lur erkideetan herri horietako biztanleek duten aprobetxamenduaren eskubidea aztertu da, edota basoetako ustiatarien titularren eta ustiatari horietatik hurbil bizi diren pertsonen artean, azken horiek aurkezten dituzten salaketengatik, sortzen diren arazoak. Horrelako kasuetan pertsona ukituek erakunde honetara jotzen dute egiten dituzten salaketetan administrazio ukituek ez dutelako inolako jarduketarik burutzen uste dutelako. Salaketa horien arrazoiak foru arauetan horrelako kasuetarako ezarrita dauden gutxieneko distantziak ez betetzea izaten dira.

Halaber, bigarren arloa edo arlo industrialari dagokionez, era askotako gaiak landu dira. Adibide bezala, hezkuntza zentro bateko eskuordeek tentsio altuko hari batzuk lurperatzeko aurkeztu zuten eskabidea adieraz genezake, edota Europar Batasuneko kidea den herri batean ibilgailua eskuratu zuen eta nahiz eta ibilgailu hori Espainian homologatuta egon Estatuan matrikulatzerakoan ibilgailuaren zaldi fiskalak benetakotzeko ziurtagiri teknikoak aurkezteko eskatu zitzaion hiritar batek planteatu zuen kexa.

Azkenik, aurreko urteetan gertatu den bezala, toki izaki jakin batzuk merkataritzako jardueretan jarraipenik ez egiteagatik ogia saltzen duten merkataritza batzuk erakunde honengana jo dute udalerriri horietan produktu horren herriz herriko salmenta salatuz. Salmenta modalitate hori debekatuta dago baldin eta udalerriri horietan jendearentzako irekita dauden ogitegiak badaude.

## 1.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza

⇒ *Araba Lurralde Historikoko arrantza-barrutien kudeaketa eta prezio publikoak (317/1998 eta 435/1998)*

- Erreklamazioa

Arrantzako elkarte batek eta hiritar batek Foru Aldundiko Arrantza Sailak Arabako arrantza-barrutiak kudeatzeko duen erari buruzko kexa bana aurkeztu zuten.

Zehatzago, arrantza-barruti batzuen kudeaketa eta administrazioa Arabako Arrantza eta Kasting Lurralde Federazioari lagapenean emateagatik protestatu zuten (hemendik aurrera testuan AAKLF-FTPCA izango dena); lagapen hori foru administrazioak eta federazio horrek sinatu zuten hitzarmenetan bidez gauzatu zen eta horren bidez kudeaketa erakunde laguntzaile gisa jarduten duten arrantzako kirol elkarte batzuei eman zitzaion.

Halaber, kexa horietan otsailaren 23ko 8/1998 Foru Arauaren bidez ezarri den tratamendu bereiztuagatik protestatu zuten, horren arabera tratamendu desberdinak ezarri direlako erakunde laguntzaile horietako bazkideentzat eta gainerako arrantza-entzatek Arrantzako Arabako Federazioak kudeatzen dituen barrutietan dauden herri prezioen ordainketetan. Aldi berean, talde jakin batzuekin ezartzen zen harreman bereiztua azaltzen zuten, esaterako jubilatuekin edo gaigabeziak dituztenekin, horiek ere prezio desberdinak ordaindu behar dituztelako arrantza-barrutiaren kudeatzailearen arabera.

- Azterketa

Lehen alderdiari dagokionez -arrantza-barrutien kudeaketa erakunde laguntzaileen bidez egitea-, urtarrilaren 14ko 5/1998 Foru Aginduak, Arabako Lurralde Historikoko lehorreko arrantzaren aprobetxamenduari buruzkoak, arrantza-barruti batzuen kudeaketa eta administrazioa AAKLF-FTPCARI lagapenean emateko aukera ezarri zuen, baldin eta aurrez lankidetzarako bidezko hitzarmena sinatzen bazen.

Horrela, 1998ko otsailaren 11n sinatu zen hitzarmenaren bidez, bi erakunde horientzako lankidetzaren esparrua ezarri zen urtero adieraziko diren ibaietako arrantza-barrutien kudeaketarako. Hitzarmen horretan ezarri zen AAKLF-FTPCA hala zuzenean nola erakunde laguntzaileen bidez, emakidan sartzen diren barrutietako antolakuntza, zozketa, baimenen emakida eta kobrantza, harrapaketen parteen bilketa eta datuen erregistro informatikoa egin behar zituela eta, halaber, barruti horien zaintza agindu behar zuen, horretarako langileak kontratatuz eta baimenak kobratuz. Hitzarmen horretan

ezarri zena betez AAKLF-FTPCAk, aldi berean, hitzarmenak egin zituen beste erakunde laguntzaile batzuekin hizpatutako barruti horien kudeaketari ekiteko.

Horrekin lotuta, kirol elkarteei arrantza-barrutiak emakidan emateko prozedurari buruzko foru sailak zuen iritzia ezagutzeko asmoa adierazi genuen, hori zuzenean egiten zelako Federazioarekin zuzeneko hitzarmena sinatuta, inolako adjudikaziorako administrazioko prozeduratik egin gabe.

Sailak adierazi zuen zilegi zela eskumen horien burutzapenak federazioei lagapenean ematea eta hori azaltzeko kirolaren praktika sustatzeko erantzukizuna duten administrazioko organoen eskuordetzaren bidez kirol federazioek har ditzaketen herri funtzioak aipatu zituen. Federazioen eraketa eta jardunbidea arautu duen 265/90 Dekretuak, bere 6.2. artikuluan ezarri du zilegi dela herri botereek hitzarmenak sinatzea lurralde esparru horretako federazioekin, zertarako-eta "*erkidegoaren intereseko kirol jardueren sustapen eta hobekuntzan laguntzeko*". Aukera hori abiaburutzat hartuta sailak uste zuen hitzarmenaren sinadura, praktikan, ibaietako arrantza kirol jarduera hutsa baino ez delako egin zela, eta aldi berean herri botereek beti sustatu behar dutela elkartegintza, eta kirol federazioak babesteko eta horiei laguntzeko arreta berezia eskaini.

Arartekoak, beste aldetik, uste zuen inguruabar horiek argitu eta zehaztu egin behar zirela, elkarte laguntzaile horien eskuetan laga ziren funtzioak ez zirelako berariaz eta zentzu hertsian kirol esparrukoak. Horrela, ibaietako arrantza ez dago industri jardueran oinarrituta, antzina gertatzen zen bezala, eta aisialdiko edo astialdiko jarduera da eta, kasu jakin batzuetan, kirol lehiaketakoa. Baina hori gorabehera herri botereen eskuhartzearen ardatza gure arrain-bitartekoak mantentzeko ingurugiroko politikari erantzuna ematea da. Horregatik uste du administrazioaren kontrolaren asmoa herri botereek ingurugiroa kontrolatzeko duten interesa eta gizakiak inguru naturala era egokian erabiltzea dela. Horrela esparru honetan egiten den eskuhartzeak, hala zerbitzugintzakoa (arrantza-barrutien kudeaketa) nola poliziarena (arrantza lizentziak eta baimenak) Konstituzioaren 45.2. artikuluan azaltzen den agindu orokorra bete nahi du, "*bitarteko naturalen zentzuzko erabilera lortzea*".

Erakunde honek eman zituen argudioen artean, halaber, esan zen Foru Aldundi horrek hitzarmenari eusteko erabili zuen oinarri juridikoa gora-behera, Aldundiari agindu zaizkion bitarteko naturalen kudeaketa funtzioak publizitate, lehiakidetasun eta berdintasun oinarrien bidez eman behar direla, inor bereiztu gabe, eta horiek erabili behar direla administrazioaren zerbitzuen zeharkako kudeaketan.

Halaber, esan zuen AAKLF-FTPCAk iratxikipen horiek erakunde laguntzaileen eskuetan uzteko aukera hori ez dela kirolari buruzko legerian edo bestelako arau zehatzetan azaltzen. Areago, urtarrilaren 14ko 5/1998 Foru Aginduaren 9. artikuluan ezarri da aukera bakarra dagoela arrantzako-barrutien kudeaketa eta administrazioa lagapenean emateko, eta Arrantza eta Kasting Lurralde Federazioa baino ezin da izan horren hartzailea.

Horregatik, bukatzeko esan zuen beharrezkoa dela aukera hori arau juridiko baten bidez aurreikustea eta Arabako Foru Aldundiak, gaiari buruzko autonomia mailako legeriarik ez dagoela kontuan hartuta, argi zehaztu behar duela erakunde laguntzaileen kontzeptua eta horiek bete behar dituzten beharkizunak, eta horiek ezin dituela inoiz Federazioak ezarri.

Bigarren gaiari dagokionez -bazkideak diren arrantzaleek eta gainerako arrantzaleek duten tratamendu bereiztua lurralde federazioak kudeatzen dituen barrutietan-, hemen

argitu behar den gaia kudeaketaren arabera bi barruti mota horietan dauden kuoten diferentzia konstituzioaren arabera den ala ez da, erakunde laguntzaileek tarifetan beharpenak egiten zituztelako bazkideentzat eta ez zutelako prezio murrizturik aplikatzen jubilatuta eta gaigabeziak dituzten pertsonentzat.

Horrela, arrantza-barrutietan tarifen arteko diferentziagatik berdintasun oinarria ustez hausten ari zela eta horrek, bere ikuspegi negatibotik, elkartegintzako askatasun eskubidean duen eragina kontuan hartuta, Arartekoak Foru Aldundiarengana jo zuen bazkideak ez ziren arrantza horiek jasotzen zuten tratu bereiztu hori azaltzeko bidezkoketa objektiboak eta arrazoituak jasotzearen ondoretarako.

Aldundiak esan zuen tarifa murrizketa horiekin lortu nahi zen emaitza barrutien kudeaketan duten eskuhartzeagatik kirol elkarreki abantailak ematea zela. Hori gora-behera, gainerako arrantza elkarreki barrutien kudeaketan lehiakidetasun eta berdintasun baldintzetan ez eskuhartzeak arrazoi horrekiko kontraesanak adierazten zituen.

Jubilatuek ordaindu behar duten prezioan hobariak ezartzeari dagokionez Aldundiak uste zuen komenigarria zela barruti guztietan kentzea, bereizkerian ez erortzeko. Esan behar da eragiketa horrek neurriaren berdintasuna lortzen duela, baina erabat da kritikagarria gizarte ikuspegitik eta erkidego horren ongizatea sustatzeari dagokionez.

Bada, inguruabar horiek guztiak kontuan hartuta, ondoko terminoak dituen aholkua egin zitzaion Arabako Foru Aldundiari:

**“1. Arabako Foru Aldundiko Arrantza Sailak berriz aztertu beharko luke urtero Arrantza eta Kasting-eko Arabako Federazioarekin arrantza-barruti batzuen kudeaketari buruz sinatzen duen hitzarmenaren edukia, hitzarmen horretan babestu egiten delako, horretarako gaitasuna ematen duen inolako arau juridikorik gabe, barruti horien kudeaketa erakunde laguntzaileek egin ditzaketela.**

**2. Halaber, komeniko litzateke Arabako Lurralde Historikoko Batzar Nagusiei 1998ko Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren Betearazpenari buruzko abenduaren 19ko 33/97 Foru Arauaren xedapen gehigarrietatik 7.eko 5. idatz-zatian ezarri zenari idazkuntza berria ematen dion otsailaren 23ko 8/1998 Foru Arauaren aldarazpena egiteko proposatzea, eta erabiltzaile guztientzat kostuen arabera herri prezio bakarra ezartzea, barruti horien kudeaketa Foru Aldundiak egitea edo, zeharka, erakunde laguntzaileek egitea gorabehera, kontuan hartu delako Konstituzioan bildu den elkartegintzako eskubideari dagokionez legezko berdintasun oinarria hausten delako.”**

- Emaidza

Nekazaritza Foru Sailak 1999an lehorreko arrantzako aprobetxamendua arautu zuen araudia garatzeko urtarrilaren 22ko 7/1999 Foru Aginduaren onespenez berri eman zigen. Zehatzago, horren 9. artikuluan ezarri zen 1999 urtean arrantza-barrutien administrazioa Arabako Arrantza Federazioari lagatuko zitzaioala.

Abiaturtzat agindu hori hartuta, hitzarmen berria idatzi da eta horretan ezarri da Arabako Arrantza Federazioak hitzarmenean aurreikusi diren iraxkikipenen eskuordetza

erakunde laguntzaileei adjudikatzeko deialdia eta tramiteak egin behar dituela, baina “*publizitate, lehiakidetasun, berdintasun eta bereizkeriarik-ezaren oinarriei doitu*”, eta horren berri eman behar diola Foru Aldundiko Arrantza Sailari.

Arartekoak uste du zehaztapen hori betez aholkuaren xedea betetzen zela, hau da, arrantza elkarteek arrantza-barrutien kudeaketarako lehiakidetasun askea bermatzea. Hori gora-behera, berriz ere azpimarratu da ez dagoela lerrun egokiarekin erakunde laguntzaileen definizioa edo barrutien kudeaketa betetzeko gaitasunerako beharrezkoak diren beharkizunak ezartzen dituen autonomia edo foru mailako araurik.

Bigarren alderdi honi dagokionez. Aldundiak adierazi du Batzar Nagusiek Foru Arau berria onetsi dutela, otsailaren 23ko 8/1998 zenbakia duena, eta horretan aldarazi egiten direla 36/98 Foru Arauaren xedapen gehigarrietatik zazpigarreneko edukia eta tasa eta herri prezioen araubide berri ezarri duela, zertarako-eta arrantza-barrutietako erabiltzaileentzat herri prezio berberak mantentzeko.

## B) **Merkataritza**

⇒ *Ogiaren herriz herriko salmentaz (690/1997)*

### • Erreklamazioa

Erakunde honetan Trapagarango merkatarik batek sustatu zuen kearen idazkia jaso genuen; idazki horretan udalerrian ogia, arrautze eta esnekien herriz herriko salmenta salatzen zuen, eta esaten zuen toki mailako agintariek ez zutela ezer egiten praktika hori ekiditeko.

### • Azterketa

Egoera hori kontuan hartuta, Arartekoak jasotako kexa horren berri eman zion toki izaki ukituari eta adierazi zion salatutako egintza horiek, besteak beste ogi eta ogi berezien fabrikazioa, zirkulazioa eta merkataritza arautu zuen martxoaren 21eko 1.137/84 Errege Dekretuaren 21. artikuluan ezarri denaren aurkako arau-haustea izan daitezkeela.

Horien erantzunean toki izaki horrek pertsona salatuak aurkeztu zituen alegazioak igorri zizkion erakunde honi; alegazio horietan adierazi zen benetan egiten zen jarduera ez zela ogi eta esnekien herriz herriko salmenta, aurrez establezimenduari produktu horiek eskatu eta egiten zen etxez etxeko banaketa baizik.

Arlo honetan udalak burutu behar duen kudeaketa egokia izan dadin beharrezkoak diren irizpideak ezartzeko, Arartekoak uste izan zuen ohar batzuk egin behar zirela. Ohar horien bidez enpresa askatasunaren oinarria eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideen defentsa bildu eta bateratu nahi ziren.

Horrela, Korporazio horri gogoratu zion ogia egiten duten arloko merkataritzako jarduerak egiten dituzten enpresek jarduera hori martxoaren 28ko 1.137/84 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Ogi eta Ogi Berezien Fabrikazioa, Zirkulazioa eta Merkataritzarako Arautegi Tekniko-Sanitarioan eta Ogiaren Banaketa eta Merkataritzarako Araubideari buruzko uztailaren 11ko 184/83 Dekretuan ezarri denari doitu behar zaizkiela, horietan erabat debekatzen baita ogi eta ogi berezien herriz herriko eta etxez etxeko salmenta.



Ildo horretatik. Arartekoak azpimarratu zuen ogia saltzeko baimena duten establezimendu guztiek egiten duten ogia etxez etxe emateko eskubidea dutela, baldin eta banaketa hori Ogi eta Ogi Berezien Fabrikazioa, Zirkulazioa eta Merkataritzarako Arautegi Tekniko-Sanitarioaren 21.1. artikuluan ezarri diren beharkizun guztiak betez egiten bada, hau da, eskaria egotea, ogia era egokian ontziratzea eta faktura ematea.

Halaber, Udalari gure antolamenduak elikagaien kontrol eta zaintzan toki izakiei esleitzen dizkien eskumenak gogorarazi zizkion eta horiek erabiltzeko agindeia egin zion.

- Emaidza

Trapagarango Udalak erakunde honi jakinarazi zion salatutako ogiaren eta esnekien salmenta jarduera bukatu dela.

## 2. GIZARTE ONGIZATEA

### 2.1. SARRERA

1999. urtean zehar, 71 kexa aurkeztu dira Gizarte Ongizatea sailean.

Herritarrek aurkeztutako kexa batzuen ondorioz, beharrezkotzat jotzen dugu zenbait egokitzapen egitea hiritarrek eskatzen dituzten zerbitzuak eman edo ez erabakitzeke erabiltzen diren prozeduretan. Aipatu kexak direla eta, izaera orokorreko gomendio bat egin dugu, txosten honetako VI. kapituluari jaso. Izan ere, Arartekoaren ustez, beharrezkoa da hiritarrek egindako eskaerei uko egindakoan ukapen horren arrazoiak argi eta garbi azaltzea eta baita herritarrek dagokion erakundeak erabakia berraztertzea nahi izanez gero zein bide erabil ditzaketen berariaz aipatzea ere.

Bizilekua kontuan hartu beharreko funtsezko baldintza izan ohi da zenbait gizarte laguntza ematerakoan eta, beraz, ezinbestekoa da helbidea-eta udal errolodatu agertzea. Baldintza horrek hainbat kexa sortarazi ditu. Izan ere, kexa horietan herritarrek diotenez, zailtasunak aurkitu omen dituzte zenbait laguntza lortzeko, Administrazioak erroldatze baldintza horretaz egin izan duen interpretazioa dela eta.

Arartekoak egindako gomendioei jarraipena egiteko asmoz, urte honetan zehar babesik gabeko egoeran dauden haur eta gazteen zaintzarako zenbait zentro bisitatu dira. Eta hirugarren adinekoen egoitza batzuk ere bisitatu dira, helburu berberaz. Aipatu bisita horiei buruzko informazioa txosten honetako I. kapituluari aurkituko duzue.

1998. urtean zehar hitzarmen bat sinatu zen Bizkaiko Foru Aldundiaren, Osasun Sailaren eta Osakidetzaren artean, soziosanitario izaerako arazoak elkarlanean konpontzeko. Hiru erakunde horien aurreikuspenak ez dira behar adina garatu, nonbait, eta horrek Bizkaiko biztanle eta talde ugariaren kexak sortarazi ditu. Arartekoak jaso dituen testigantzen arabera, herritarrek ez dute behar bezalako atentzioa jasotzen. Baina auzi hori ez dagokio soilik eremu horri, baizik eta lotura estua du esparru soziosanitario deritzonaren beharrezko definizioarekin. Horregatik, aipu berbera egin dugu txosten honetako osasunari dagokion sarreraren ere.

### 2.2. AUKERATUTAKO KEXAK

#### A) Adinekoentzako laguntza

⇒ *Adinekoen egoitzen finantzaketaren gainean udalei dagokien ekarpen ekonomikoa azken urteotan, eskatzailearen erroldatze aldaketa kasuetan (2374/1998)*

Pasa den urtean aurkeztutako txostenean ere aipatu genuen kexa hori, baina txostena egin zenean espedientearen izapideak guztiz egiteke zeuden. Orain, behin erabakiak hartuta, berriro aipatuko dugu kasua, garrantzitsua delakoan baikaude.

#### • Erreklamazioa

Hirugarren adineko pertsona bat urte askotan bizi izan zen Gipuzkoako herri batean, bizilekua lurralde bereko beste herri batera aldatu zuen arte, bere alabarekin eta haren

familiarekin bizitzeko. Herri berrian urtebete zeramanean, bere egoera fisikoak okerrera egin zuen eta hirugarren adinekoentzako egoitza batean sartzeko eskaera egin zuen. Ez zen herritar horren beharra zalantzan jarri, baina udal ekarpen ekonomikoaren arazoa sortu zen.

- Azterketa

Bai Gipuzkoako Foru Aldundiak eta baita eskaeraren erantzukizuna dagokien udalek ere euren lurraldean bost urtez errolatuta egotea eskatzen dute (Aldundiaren kasuan, gipuzkoarra izatea), egoitzetan sartzeko laguntza ekonomikoak jaso ahal izateko.

Herritar horren kasuan, beraz, Foru Aldundiak bere gain hartu zuen egoitzako plazaren kostutik berari ordaintzea zegokion zatia, eskatzaileak aipatu baldintza betetzen baitzuen. Baina udalari zegokion zatia zein udalek hartu behar zuen bere gain zehazterakoan sortu zen arazoa, hots, jatorrizko udalak edo helmugazkoak ordaindu behar ote zuen erabakitzerakoan. Izan ere, eskatzailea ez zen jada lehenengoko biztanlea, baina ez zeramatzen bost urte bigarrean bizitzen ere ez.

- Emaita

Gipuzkoako Foru Aldundiak jarduketa jarraibide batzuk egin zituen horrelakoetarako, Gipuzkoako udalen arteko elkarlan eredu gisa. Agiri hori EUDEL-en (Euskal Udalen Elkartearen) Gipuzkoako Lurralde Batzordeak onartu zuen.

Azkenean, zenbait negoziazioaren ondoren, aipatu bi Udalek jarraibideak ezartzea onartu zuten. Kasu horretarako, jarraibideek honakoa diote: hasieran, jatorrizko udalak ordainduko du egoitzako plazaren finantzaketa zatitik udalari dagokion guztia, eskatzailea udal hartantxe egon baita errolatuta denbora gehien. Baina behin eskatzaileak helmugazko udalean errolatuta bost urte bete ondoren, udal horrek hartuko du bere gain dagokion finantzaketa zatia.

⇒ *Hirugarren adinekoentzako eguneko atentzio zentroetan jolas-jarduerak antolatzeaz (983/1999)*

- Erreklamazioa

Herritar batek Arartekoari zuzendutako kexa baten arabera, Gasteizko Udalaren menpe dagoen hirugarren adinekoentzako eguneko atentzio zentro batera jotzen dutenek jarduera okupazional gutxi egiten dituzte. Herritar horrek zioenez, zenbaitzuetan, zentro horretara jotzen dutenek inolako jarduerarik egin gabe ematen dute eguna. Azaldu zigunez, lagun horiek zentroan bertan burututako aisialdiko jarduerekin pasatu nahiko lukete denbora, baina ez omen dira ausartzen egoerarekiko desadostasunik agertzen, hori eginez gero zentroko langileek erakutsi dezaketen atsekabearen beldur.

- Azterketa

Arartekoak Gasteizko Udalari igorri zion kexa, bere iritzia eskatuz. Udalak emandako erantzunean, langileen eta ezaugarrien berri izan zuen Arartekoak. Halaber, jardueren asteko programa bidali zigun, gure ustez nahikoa ona, beti ere ondo burutuz gero.

- Emaizta

Aurreko informazio guztia kexa adierazi zigunari agertu zion Arartekoak, eta herritar horrek adierazi zigunez, atentzio zentroaren egoera nahikoa hobetu zen bera kexatutako alderdiei zegokienez. Horren aurrean, txostena itxi genuen.

Kasu honetan, Arartekoak informazioa eskatzeak Udala salatutako gabeziez arduratzeko balio izan du.

## B) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

⇒ *Gizarteratzeko Gutxieneko Laguntza eta Gizarte Larrialdietarako Laguntza eskatzen duenaren errolda helbidearen eraginaz (1419/1998)*

- Erreklamazioa

Herritar batek Arartekoaren iritzia jaso nahi izan zuen Gasteizko Udalarekin izandako honako auzi honi buruz: dirudienez, aipatu herritarrek Gizarteratzeko Gutxieneko Laguntza eta Gizarte Larrialdietarako Laguntza eskatu zituen Gasteizko Udalean, eta erakundeak, berriz, laguntza horiek jasotzeko eskubidea ukatu zion, besteak beste, herritarra erroldatuta zegoen helbidea ez zelako bere benetako bizilekua, udalbatzaren iritiz.

- Azterketa

Arartekoaren ustez, aurkeztutako auziak lotura estu eta zuzena zuen laguntzak jaso ahal izateko betebeharrak batzuk ez egiaztatzearekin. Izan ere, Udalak Gizarteratzeko Gutxieneko Laguntza jasotzeko eskubidea ukatzearen arrazoia honakoa izan zen: erreklamazioa egin zuenak ez zuela frogatu laguntza eskaera egin baino urtebete lehenago etxebizitza independente bat zuenik. Gizarte Larrialdietarako Laguntza jasotzeko eskubidearen ukapenaren arrazoia, berriz, hauxe izan zen: udal zerbitzuen ustez, eskatzailea ez zela benetan bizi erroldatuta zegoen helbidean. Azken batean, beraz, bi kasuetan arazo berberaren aurrean aurkitu ginen: bizilekua eta helbidea ez frogatzea, alegia.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 16. artikulua –urtarrilaren 10eko 4/1996 Legeak emandako idatzian– hauxe xedatzen du: *“Udal errolda udalerrri bateko biztanleak jasota dauden erregistro administratiboa da. Bertan ageri diren datuek frogatuko dute udalerrrian bizi izatea eta udalerriko ohiko helbidea. Datu horietaz egiten diren ziurtagiriak agiri publiko izaera izango dute eta eragin administratibo guztietarako fede emaileak izango dira”*. Halaber, arau horrek aurreikusten duenez, udal erroldak derrigorrez jaso beharko du, besteak beste, ohiko helbidea. Arau horretako 15. artikulua, gainera, Espainian bizi diren guztiei ezartzen die ohiz bizi diren udalerriko erroldan izen emateko betebeharrak. Aurreikuspen horiek Biztanleriari eta Lurralde Mugapenari buruzko Araudian islatu dira (53, 54 eta 57. artikuluetan), abenduaren 20ko 2.612/1996 Errege Dekretuak ezarritako aldaketaren arabera. Aipatu arauak kontuan izanik, honako ondorio ezinbestekora iritsiko gara: *“eragin administratibo”*etarako, udal erroldako datuak eztaba daezinak dira, bertan jasotzen den informazioa egiazkoa ote den auziari dagokionez.

Udal erroldako informazioa ez da inolaz ere aldagaitza; are gehiago, errealitatearekin bat etorri behar du, kontuan izanik zer-nolako eragina izan dezaketen hiritarregan bertan ageri diren datuak. Hori dela eta, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 17. artikulua hauxe xedatzen du: “*Udalek egin beharreko jarduerak eta lanak egingo dituzte euren Erroldak eguneratuta izateko, bertan jasota dauden datuak errealitatearekin bat etor daitezzen*”. Eta gauza bera adierazten du Biztanleriari eta Lurralde Mugapenari buruzko Araudiak ere, bere 62. artikuluan. Hori horrela, bizilagunek jakinarazitako errolda datu aldaketak zein udalek bestela lortutako aldaketak (bai berak egindako lanen bidez, bai beste administrazio publikoen bidez jakindakoak – BLMaren 68 eta 69. artikulua) erroldaren idazpenetan eguneratuta islatu behar dira. Dena den, erregistroko datuak eguneratzeko prozedura hori ezin da burutu datuak aldatuko zaizkionak horren berri izan gabe.

BLMaren 69.2. artikulua honakoa xedatzen du: “*Eguneraketak egingo diren guztietan, Udalak aldaketak dagokien bizilagun guztiei erroldako norbere datuen berri eman beharko die, bizilagunek jakin dezaten eta egin beharreko zuzenketak edo aldaketak jakinaraz diezazkioketen*”. Bestalde, arau bereko 72. artikulua dioenez, “*Udalek baja emango die ofizioz, izen emate okerragatik, Araudi horretako 54. artikuluan xedatutako baldintzak ez betez erroldatuta daudenei, behin egoera hori dagokion espedientean egiaztatutakoan, non interesatuari audientzia emango zaion*”.

Aurreko arauetan zehazten diren aurreikuspenek administrazio publikoek udal erroldako datuak eguneratzeko kudeaketa jarduerak burutzeko aukera eta beharra planteatzen dute, beti ere interesatuei horren berri emanez gero. Datuak aldatu zaizkienei horren berri eman ez zaieneko aldaketak hainbat epaitan jaso dira, besteak beste, Errioxako Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzi Prozesuetarako Epaiketa Gelaren 1995eko ekainaren 13ko Epaian.

Gasteizko Udalak bideratutako espedientean, interesatuak baieztatu zuen 1997ko apiriletik urrira arte herritik kanpora zegoen senide baten etxean bizi izan zela eta, 1997ko urritik, Gasteizko beste helbide batean bizi dela, nahiz eta 1998ko otsaila arte ez zen erroldatu azken helbide horretan. Aipatu datara arte bere gurasoen etxeko helbidean erroldatuta zegoen, Gasteizen hori ere. Udal zerbitzuek, hala eta guztiz ere, ez zioten froga baliorik eman interesatuak bere senidea Gasteiztik kanpo bizi zela frogatzeko asmoz aurkeztutako agiriari -zehazki, senideak izenpetutako idatzi bat- eta erroldako datuak fede emaileak ez zirela uste izan zuten, alegia, interesatua ez zela bizi berak adierazi zuen etxebizitzan. Horren ondorioz, etxebizitza independentea zuela onartzeari uko egin zioten (Gizarteratzeko Gutxieneko Soldata arautzen duen maiatzaren 3ko Legearen 3.a) artikulua eskatuko lukeen bezala) eta baita interesatuak bere etxebizitza zuela onartzeari ere, zeinen gastuei aurre egin beharko liekeen.

Erroldako datuak egiazkoak ez direla esateko, froga nahikoak eta egokiak aurkeztu behar dira eta, beraz, ulertzekoa da udal zerbitzuek ez ematea sinesgarritasun nahikorik interesatuak aurkeztutako idatziari, hots, 1997ko urritik kanpoan bizi zela frogatzeko asmoz aurkeztutakoari. Halere, Arartekoaren ustez, ez da zuzenbidearen araberakoa udal erroldako datuen egiazkotasuna ukatzea. Izan ere, Gasteizko erroldako datuek adierazten dutenez, 1998ko otsailetik interesatuaren ohiko helbidea berak azaltzen duenaren berbera da. Ondorio horretara iristen gara, udal erroldako idazpenetako datuen egiazkotasunaren *ex lege* presuntzioa kontuan izanez gero. Lehenago esan bezala,

eroldako datuak eguneratuak izan daitezke eta izan behar dute, errealitatearekin bat etor daitezen. Eta horrelako erabaki bat hartzeko, behar-beharrezkoa da interesatuari audientzia ematea. Aldaketa espedientearen izapideak egin arte, ordenamendu juridikoaren aurreikuspenen arabera, bertako datuak egiazkotzat hartu beharko dira. Hori horrela, beraz, udal zerbitzuak jakitun bazeuden kexaren eragilearen ohiko helbidea ez zela udal erroldan agertzen zena, egin beharreko aldaketak egiteko prozedurarako izapideak egin beharko lituzke, beti ere aurretik interesatuari audientzia eman ondoren eta akordio horretara iritsiz gero. Ordura arte, udal zerbitzuek dituzten txostenei kalterik eragin gabe, interesatuaren helbidea, horren eraginetarako, udal erroldan agertzen zena zen.

- Emaizta

Aurreko guztia kontuan hartuta, Gasteizko Udalari honako gomendio hau zuzendu zitzaion: Gizarte Gaietarako Sailaren Zinegotzi Ordezkariaren erabakia ofizioz berrikus zezala, hots, eskatzaileari Gizarteratzeko Gutxieneko Soldata, Gizarte Larrialdietarako Laguntza eta elikadurarako udal laguntza jasotzeko eskubidea ukatu zitzaion erabakia berrazter zezala, xedapenei dagokien eragin egokiak kontuan hartuz, eta horretarako kontuan izan beharko lukeela interesatuaren helbidea udal eroldako idazpenetan agertzen dena zela. Gasteizko Udalak, Arartekoaren zerbitzuekin harremanetan jarri ondoren, gomendioa onartu egin zuen. Espediente kontraesankorra esku artean, interesatuaren helbidea udal erroldan agertzen dena zela onartu zuen, eta Gizarte Larrialdietarako Laguntza eman zion.

### C) Eduki ekonomikoko gizarte sariak

⇒ *Herritar baten adierazpena, elkarrekin bizi ziren lagun kopuruari buruzkoa, ez zetorren bat udal eroldako datuekin (2607/1998)*

- Erreklamazioa

Erretiro pentsio ez kontributiboa jasotzen zuen herritar batek Gipuzkoako Foru Aldundiaren honako erabakia jaso zuen: pentsioa jasotzen jarraitzeko eskubidea kentzen zitzaiola. Gainera, aurreko bost hilabeteetako (1998ko urtarriletik maiatzera bitarteko) soldatak bidegabe eman zizkiotela ere iritzi zuen erabakiak eta, beraz, hilabete horietako kopurua itzuli behar zuela adierazten zitzaion. Hartutako erabakiaren arrazoia honakoa zen: dirudienez, familiako kide kopurua gutxiagotu egin zen eta, egoera berrian, familiaren sarrerak handiagoak ziren legeak familia kopuru horretarako ezarritako sarrera kopurua baino.

Halaxe izan zen, bai, familia osaera aldatu egin zen. Baina interesatua eta Administrazioa ez zetozen bat aldaketa horiek noiz jazo ziren zehazterakoan.

- Azterketa

Interesatuak zioenez, bere senarrarekin bizi zen eta, 1998ko maiatzaren 12ra arte, bere alaba eta biloba ere euren etxean ziren. Esandakoa frogatzeko, errolda ziurtagiri bat aurkeztu zuen.

Aldundiak zioenez, berriz, gutxienez urte bereko urtarrilaren 1etik aurrera, senar-emazteak bakarrik bizi ziren. Interesatuak bere egoera eta diru sarrerren berri emanez aurkeztutako urteko banakako aitorpenean oinarritzen zen Aldundia horrelakorik uste izateko (pentsioa jasotzen duen orok derrigorrez aurkeztu beharrekoa). Aitorpenean zioenez, bizikide bakarra senarra zuen.

Bi agiri ditugu, beraz, kasu honetan: alde batetik, errolda ziurtagiria (egiazkotzat eduki beharrekoa), eta bestetik, interesatuak berak egindako aitordena. Eta bi agiriek datu kontraesankorrak ageri dituzte. Hori zela eta, Aldundiari informazio gehiago eskatu zitzaion.

- Emaiza

Aldundiak adierazi zigunez, interesatuak aitordena aurkeztu zuenean, maiatzaren 8an, bere kasuaz arduratu zen funtzionarioa ohartu omen zen familiako osaera ez zela aurreko urteko aitordenearen berdina. Horren aurrean, interesatuak funtzionarioari ahoz adierazi omen zion aldaketa urtarrilean jazo zela eta, ordutik, bere senarra eta biak bizi zirela soilik etxean. Adierazpen horrek berretsi egiten zuen interesatuak sinatutako aitordena eta funtzionarioak halaxe jaso zuen espedientean. Froga hori helarazi zigun Aldundiak.

Horregatik guztiagatik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardura ez zuen bidegabetzat jo Arartekoak.

⇒ *Zigorra gizarte laguntzetarako gastua epez kanpo justifikatzeagatik (173/1999, 199/1999 eta 531/1999)*

- Erreklamazioa

Hiru espedienteren izapideak egin dira honako kexa hau dela eta: Donostiako Udalak 1999ko lehenengo seihilekorako gizarte larrialdietarako laguntza eskatu zuten hiru herritarrei eskaera ukatu zien, 1998ko bigarren seihilekoan jasotako diru laguntzaren gastuen egiaztagiriak epez kanpo aurkeztu izanagatik.

Udalak etxebizitza alokairurako diru laguntza eman zitzaie jakinarazi zien interesatuei. Idatzi horretan, 1998ko uztailean bidalia, ondorengoa ere ohartarazi zitzaion, besteak beste: bigarren seihilekoari zegozkion gastuen egiaztagiriak abenduan zehar aurkeztu behar zituztela eta, hori egin ezean, ez zitzaizkiela hurrengo urterako eskaeren izapideak egingo.

Arartekora jo zuten hiru herritarrek 1999ko urtarrilaren hasieran aurkeztu zituzten aipatu gastuen egiaztagiriak, urte horretarako diru laguntzetarako eskaerak aurkeztu zituztenean, hain zuzen ere, etxebizitza alokairurako laguntza eskaerak barne. Udalak, alabaina, lehenengo seihilekorako diru laguntza eskaerak onartzeari uko egin zion, honakoa alegatuz: aurreko ekitaldiko egiaztagiriak epez kanpo aurkeztu zirela eta eman zitzaie interesatuei horren berri 1998ko uztailean bidalitako idatziaren zein egunkarietan argitaratutako iragarkien bidez.

- Azterketa

Arartekoaren ustez, bi epeen arteko bost hilabeteak, hots, uztailetik (Udalak bere idatzi bakarra bidali zuenetik) abendura (herritarrak gastuaren egiaztagiriak aurkeztu

behar zuenera) arteko bost hilabeteak denbora askotxo da, bestelako ohartarazpenik gabe, betebehar formal bat ez betetzeak interesatuengan hain ondorio latzak eragin ahal izateko. Are gehiago baliabide pertsonal eta ekonomiko urriko herritarrez ari garenean, diru laguntzarik ez jasotzeak eragin nahikoa handiagoa baitu horiengan beste batzuegan baino.

Gure ustez, egunkarrietan iragarkien bidez jakinarazpen publikoak egitea ez da, horren bidez soilik, nahikoa, ez baita ziurra interesatuek horren berri izango dutenik.

Beraz, desoreka argia zegoen, gure ustez, Udalak egindako jardueraren eta, agindutakoa bost hilabete beranduago zehazki bete ezean, herritarrari ezarritako ondorioen artean.

Bestalde, hartutako erabakia diru laguntzen helburuen eta filosofiaren aurkakoa zela iritzi genuen -eskasia egoerak arintzea-, eta baita ezarritako zigorrek nahi ez ziren ondorioak sortaraz zitzaizkela ere.

Udalak, Arartekoaren informazio eskaeraren erantzunean, lehenagokoari eusten zion: interesatuak jakitun zeudela egiaztagiria epea baino lehen aurkeztu beharraz, betebehar hori familia osoarena zela eta udal zerbitzua bertan aurkeztutako auzi guztiez arduratzen zela. Dena den, gizarte zerbitzuek kasuen segimendu handiagoa egitea komenigarria zela onartu zuen, hori bai, eta presazko gaia zela iritzi bazion ere, une hartan antolaketa eta giza baliabide arazoak zituztela adierazi zuen eta auzi hori epe ertainera konpondu ahal izango zela azaldu zuen.

- Emaizta

Arartekoak honako gomendio hau luzatu zion Donostiako Udalari: hartutako erabakia, hots, hiru herritarrek aurtengo lehenengo sei hilekorako diru laguntza jasotzeko egindako eskaeren izapideak ez egiteko erabakia, berriki zezala. Gomendio hori ez zen onartua izan.



### 3. KULTURA ETA ELEBITASUNA

#### 3.1. SARRERA

Arlo honetan jaso diren kexak 15 izan dira, hau da, kopuru osoaren %1,67. Kexa horiek azpitaldeetan izan duten banaketa hau izan da:

- Kulturaren atalekoak .....	10
- Elebitasunaren atalekoak .....	5

Elebitasunaren atalaren barruan elkarren artean osatzen diren bi alderdiri buruzko kexak aurkeztu dira, herri administrazioek kontuan hartu behar dituztenak alegia, administrazio horiek bi hizkuntza ofizialetatik edozein erabiltzeko eskubidea betearazteko beharrezko neurriak hartu behar dituztelako. Horrela, bada, herritar batzuek salatu duten euskara erabiltzeko eskubidearen galerarekin batera, herri enplegura heltzeko lanpostugai batzuen kexak daude, kasu honetan euskara eskatzeari buruzkoak.

Jaso diren kexen artean azpimarratu behar dira Osakidetza eta Ertzaintzari zuzenduta daudenak. Esparru horietan atzeratu egin da euskalduntze planaren onespina; gaur egun oraindik onartu gabe dago Osakidetzakoa, nahiz eta, frogatu dugun bezala, horren gertuketa oso aurreratuta egon.

Plan horien onespina eta horien aplikazioak, euskarak hizkuntza ofizial moduan duen aintzatespena benetan hedatu ezezik, herri enplegua lortu nahi duten lanpostugaiei egiten zaien eskakizuna eztabaidatu ezin diren irizpideekin egitea ekarriko du, eskakizun hori epaitzeko parametroen ikuspegitik alegia.

Kulturaren atalean oraindik konpontzeke dagoen arazoa dela gizarteko taldeek herri titulartasuneko hedabideetara duten irigarritasun eskubidearena, oraindik mugatu eta zehaztu gabe daudelako eskubide hori burutzeko terminoak.

Ondare historikoaren mantenimenduari buruzko kexen kopurua, berez, ez da adierazgarriena, baina horiek aztertuta frogatu dugu arazoa dagoela gure garaira arte iraun duten baina bitartekoak mugatuak izateagatik jarduketan zain dauden ondasun kulturalen birgaikuntzarekin.

#### 3.2. AUKERATUTAKO KEXAK

##### A) Elebitasuna

⇒ *Euskara erabiltzeko eskubidea eta eskura dauden giza baliabideekin duen erlazioa (2317/1998)*

##### • Erreklamazioa

Pertsona bat Ertzaintzaren komisaldegi batera joan zen salaketa bat egitera, eta euskaraz hitz egin zuen. Hizkuntza horretan jaramon egiteko gaitasuna zuen agentea ez zegoen une horretan poliziaren bulego horietan eta, ondorioz, hiri horretako beste ertzaintxe batera joateko aukera zuela adierazi zitzaion.

- Azterketa

Euskara erabiltzeko eskubidea, hizkuntza hori ofizialkide izatearen emaitza dena, eskura dauden bitartekoei hertsiki lotuta dago. Horregatik, esan daiteke eskubide hori eraginkorra dela lanpostu jakin baten manuzko data bete denean eta, beraz, hori betetzen duen eta herritarrari jaramon egingo dion funtzionarioak euskara ezagutzen duenean.

Baldin eta onartzen bada planteamendu hori, arriskua bi gauza nahastea izan daiteke, alde batetik euskara erabiltzeko eskubidea eta, horri lotuta, herritarrak aurrean duen funtzionarioak ere euskara ezagutu beharra, eta bestetik ahaztea betebeharrak hori Administrazioarena dela.

Egon dago jaramona euskaraz jasotzeko eskubidea eta herritar bati ezin zaionean hizkuntza horretan jaramonik egin, benetakotu egin beharko da inguruabar hori ezintasun materialagatik izango dela. Hau da, baldin eta hasieran pertsona horri jaramon egin dionak ez badu euskara ezagutzen, kasuan kasuko administrazio bulegoak beste giza baliabide batzuen bidez bete beharko du hutsune hori eta, ezinezkoa bada, orduan benetako ezintasun edo eragozpena izango da.

- Emaitza

Arartekoak iradokizuna egin zion Herrizaingo Sailari herritar bat Ertzainetxe batera doanean eta euskaraz egiten duenean, baldin eta jaramon egiten dion agenteak ez badu hizkuntza hori ezagutzen, une horretan eskura dagoen beste bitartekoren baten bidez bete dezan beharrezana.

Sailak adierazi zuen ados zegoela eta esan zuen proposatu den irtenbide horren antzekoak aurkitzeko ahalegina egingo duela.

⇒ *Hautatu den hizkuntza ofizialean harremanak izateko eskubidearen kasu berezia (740/1999)*

- Erreklamazioa

Pertsona bat larrialdietako zerbitzura joan zen bere ama laguntzeko; amak 81 urte ditu eta gaztelaniaz hitz egiteko arazoak ditu. Bada, Osakidetzaren aurkako kexa azaldu zuen inguruabar horietan ezinezkoa izan zelako euskaraz egitea.

- Azterketa

Argi dago herritarrek Administrazioarekiko harremanetan euskara ezin dutelako erabili kexatzen direnean kexok badutela oinarririk. Dena den, baieztapen horrek ere badu ñabardurarik eta gogorarazi egin behar da ezin dela ahaztu giza baliabideen mugarena, eta horrek eskubidea erabat bermatzeko langileria apurka-apurkako euskalduntze prozesua eskatzen duela.

Kasu jakin batzuetan euskara erabiltzeko eskubide ukaezina ezin burutzeak berariazko garrantzia du pertsona kaltetuak arazoak dituelako gaztelaniaz egiteko.

Arazo honek, hau da, euskara erabili nahi dutenen eskubideak betetzeko eta erabiltzaile horiei jaramon egiteko lanpostuak beteko dituztenen eskubideak, nahitaez eskatzen du euskalduntze planaren onespina. Planaren onespina langileei euskara ezagutzeko eskakizuna era objektiboan eskatzeko bermea ekarriko du eta herritarrek

euskara erabiltzeko duten eskubideari lotuta Administrazioaren betebeharra zehazteko hainbeste bider erabili den progresibitatearen oinarria beti kontuan izateko baliokoa du.

- Emaizta

Arartekoaren aburuz kexaren azterketarako argitu beharrezkoa zen testuingurua azaldu ondoren, horren berri eman zitzaion Osakidetzako Zuzendari Nagusiari; horretan berariaz azpimarratu ziren eskubidea erabiltzeko aukerarik izan ez zuen pertsonaren inguruabar zehatzak, eta horrelakoei erantzun eraginkorra emateko Osakidetzako euskalduntzearen planaren aplikazioaren onespenez, gaur egun gertutzen ari dena eta oso aurreratuta dagoenak, izan dezakeen garrantzia gogorarazi zitzaion.

## B) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

⇒ *Arte eszenikoak eta musikalak ikertzeko eta hobetzeko laguntzak. Jasotako zenbatekoak itzultzea (467/1999)*

- Erreklamazioa

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak hartu duen erabaki bati buruzko kexa azaltzen duen idazkia jaso da; erabaki horretan arte eszeniko eta musikalen modalitateetan ikerkuntza eta hobekuntzarako eman zen laguntza bat itzultzeko eskatu zen, laguntzaren onuradunak bete behar zituen betebeharren artean deialdian ezarrita zegoen memoria baten aurkezpenean atzeratzeagatik.

- Azterketa

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak behin eta berriz azaldu duen bezala, dirulaguntza *ad causam futuram* eran egiten den dohaintza da, hau da, dirulaguntza den egintza banakatuak ez du *animus donandi*-rik, sustatzeko teknika horren bidez gizartearen edo arlo publikoaren intereserako oso egokiak diren helburu batzuk lortzea sustatzeko era baizik. Alderdi horrek dirulaguntza jaso duenari jarduera jakin bat egiteko agintzea azaltzen du eta, baldin eta ez bada egiten, Administrazioak nahitaez utzi behar du dirulaguntza indarrrik gabe, horren aurretiazko zioa falta delako (AGE 98-04-02 eta 97-03-31koak, RJ 1998\1453 eta 1997\685).

Beraz, ohikoa da laguntzak edo sustapen egitarauak arautzen dituzten administrazioeko xedapenetan dirulaguntzen zenbatekoak itzultzea ezartzea baldin eta jasotzeko ezarri diren beharkizunetarikoren bat bete ez bada; munta hori itzultzeak ez du zerikusirik zehapenak ezartzeko ahalmenarekin.

Kexaren xedea diren laguntzak kontuan hartuz, egia da, bai, deialdiaren aginduko oinarrietatik zortzigarrenean, epe jakin batean egingo den lan osoari buruzko memoria bat igortzeko beharrezkoa ezarri ondoren, ondokoa ohartarazi zela: *“Baldin eta Laguntzaren onuradunak adierazi diren txosten horiek ezarri diren epeetan aurkezteari uko egiten badio, edota epaimahaiaren ustez aprobetxamendu egokirik ez badago, Kultura eta Euskara Saileko Foru Diputatu titularrak Laguntza kentzea eta jasota dituen muntak itzultzea erabaki dezake.”*

Hori guztia gorabehera, deialdiaren agindu horren oinarrietatik hamahirugarrenean ondokoa ezarri da onuradunari buruz: “*deialdi honetan eman den Laguntza gal dezake, aurrez espedientea hasita, bere eskabidean maulazko omisioa egiteagatik edo formulatu dituen datuak, aurkeztu dituen dokumentuak faltsutzeagatik edo deialdi honetan ezarri diren betebeharrak ez betetzeagatik (...). Honako oinarri hauetan ezarri diren betebeharretatik edozein ez betetzeak horren berrikuspena ekarriko du eta, hala denean, eman den munta ezabatzea, murriztea edo itzultzea*”.

Erakunde honen aburuz, deialdiko oinarri hauen edukia eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntza eta Transferentziei buruzko otsailaren 3/1997 Foru Arauan ezarri denaren arabera horien interpretazio integratua kontuan hartuta, ezinezkoa da hertsiki objektiboak diren ez-betetze batzuk planteatzea (esaterako dokumentu bat epez kanpo aurkeztea), aldi berean interesatuek dituzten prozeduraren arloko berme formal batzuk kontuan ez hartzeko aukera ematen dutenak.

Ordea, zortzigarren eta hamahirugarren oinarriaren idazkuntzaren arabera betebeharrak ez betetzeak, izaera objektiboa eta berezkoa ez edukitzeaz gain, ñabardurak kontuan hartuta aztertu beharra zegoen (maulazko ez-betetzea edo borondate txarra, ez-betetze arrunta, inguruabar bereziak gertatzea, etab.) horrela baino ezin direlako ezarri, era doian, arrazoituan eta proportzionatuan ez-betetze horren emaitzako ondorioak.

Argi eduki behar dugu administrazioaren mota horretako eskuhartzeak bide egokietatik gauzatu behar direla, hau da, kontraesanen espediente bat hasita eta horretan interesatuek adierazi behar dutena entzunda, eta bere interesen tutela egokia eta eraginkorra lortzea.

Halaber, adierazi den tutela eraginkorraren beharrezko beste manu bat ezartzen du, hasiko den prozedura ebatzen batekin bukatzea alegia; ebatzen horretan era arrazoituan aztertuko eta landuko dira horretan planteatu diren gai guztiak.

Bada, Foru Aldundiak bete duen prozedura berrikusi ondoren, argi dago ez dituela bete nahitaezko berme batzuk. Horrela, azpimarratu behar da ez dela kontraesanen prozedurarik egon eta, bereziki, alegazioak aurkezteko tramiterik eta interesatuak formulatu zuen erreklamazioaren idazkiak aintzat hartuta, guk uste dugu eta azpimarratu behar dugu prozeduraren azken ebatzenak ez duela motibaziorik.

#### • Emaitza

Arartekoak 86/1999 aholkua eman zuen; aholku horretan agindeia egin zen arte eszeniko eta musikalen modalitateetan ikerkuntza eta hobekuntzarako eman ziren laguntzen esparruan jasotako zenbatekoak itzultzeko burutu zen prozedura berrikusteko aukera emango duten neurriak hartzeko, hau da, gutxienez, ebatzen berria ematea eta horretan era arrazoituan interesatuak aurkeztu duen erreklamazioaren idazkian adierazi diren alegazio guztiak aztertzea.

Txostenaren idazkuntza amaitu dugun unean bertan oraindik Arabako Foru Aldundiaren erantzunaren zain gaude.

### C) Ondare kulturala

⇒ *Herritarrek museoetara doan sartzeko duten eskubidea (1949/1997)*

- Erreklamazioa

Herritar batek Arartekora jo zuen gure herriko ondasun kulturaletan gutxienez asteen egun batean herritarrak doan sartzeko eskubidea adieraziz, zehatzago Guggenheim Museoan eta Butroeko Gazteluan.

- Azterketa

Gai hau 1978ko Konstituzioaren testuan bertan aztertzen da; testu horren 44.1. artikuluan ondokoa ezarri da: “*Herri botereek kulturara iristea sustatu eta babestuko dute eta jende orok du horietara iristeko eskubidea*”. Oinarri eraentzailen horren irakurketak herri botereen egintza kulturalak zuzentzeko balio behar du eta herritarren kulturari izan behar duten eskuhartzean finkatu behar du.

Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen esparruaren barruan, ezaguna den Euskal Ondare Kulturalari buruzko abuztuaren 6ko 7/90 Legea garatu da. Lege horrek euskal herritar guztiek kulturara iristeko duten eskubidea garatzen, zehazten era gauzatzen du. Lege horren xedea, bere lehen artikuluan ezarri denaren ildotik, “*euskal ondare kulturalaren defentsa, aberastasuna eta babesa daude, eta baita horren hedakuntza eta sustapena ere*” da.

Betebehar horren ildotik, oro har, izaera orokorrarekin sailkatu ditu ondasun kulturalak eta esaten du kalifikatuak edo inbentariatuak direla babesteko duten mailaren arabera. Kontuan hartu behar da Butroeko Gazteluak araubide iragankorra duela gazteluen babesari buruzko 1949ko apirilaren 22ko Dekretuan ezarri zenaren arabera; 7/90 Legearen xedapen gehigarrietatik lehenengoan ezarri denaren arabera eraikin horrek ondasun kultural kalifikatuaren maila du. Horrela, bada, ondasun kultural horietan eraentzen duen araubide juridikoaren barruan, adierazi den lege horren 24.3. artikuluan ezarri dena betez, jendeak bisitatzeko irekita egongo da. Jendearen irisgarritasuna arautzen duen araubide horrek, garapena falta zaiola kontuan hartuta, ez du inondik inora ere esan nahi zerbitzu horretara doan iris daitekeenik, ondasun horiek artatzeagatik edota zerbitzuaren beraren kudeaketagatik prezioa kobratzeko aukera egon dagoelako. Prezio hori herri botereek ezartzen dute baldin eta ondasunaren titulartasuna publikoa bada eta, gainerako kasuetan, jabeek.

Horrela, adierazi den legegintzazko testuan bildu denaren arabera, gaztelu hau ondasun kalifikatuaren sailkapena duten elementuei atxikita egoteak esan nahi du jendeak bisitatzeko aukerak eman behar dituela, baina sartzeko prezioa jabeek ezarriko dute, ondasun horren jabeak direlako.

Araubide bera aplikatzen da museoaren kasuan ere, ondasun kulturalen transmisiorako erakundeak direlako. Horrelako kasuetan 91. artikuluan ondokoa ezarri da: “*Eusko Jaurlaritzak titulartasun autonomikoa duten museoetara era askean eta doan sartzera bermatuko du, bertan dauden ondasunen artapenagatik gerta daitezkeen edo erakundeak berak ezar ditzaken mugak gorabehera*”. Horrela, 620/1987 Errege Dekretuaren 22. artikulua, 496/1994 Errege Dekretuaren bidez aldarazi ondoren, ondokoa ezarri du Museoen Espainiako Sistemari buruz “*Estatuko titulartasuna duten*

*Museoen sarrera-prezioak aginduaren bidez onetsiko dira. Estatuko titulartasuna duten museoetan aurrez ezarrita egongo diren egunetan, gutxienez lau egun hilean, astean behin alegia, doan sartzeko aukera ezarriko da".* Gauzak horrela uste dugu arautegi hau gehigarria dela titulartasun autonomikoa, forala edo toki mailakoa duten museoen kasuetan.

Hau guztia gora behera, titulartasuna pribatua denean, Guggenheim Bilbao Museoaren kasua, edo antzeko pinakoteketan gertatzen dena (esaterako Thyssen-Bornemisza Bilduma Fundazioa), sartzeko baldintzak eta sarreren tarifak eta gainerako baldintzak zentro kultural horren barneko arautegiaren arabera eraenduko dira.

- Emaizta

Horregatik ez da antzeman inolako irregulartasunik planteatu diren kasu horietan eta gai honetan izan dugun eskuhartzea bukatutzat jo da.

⇒ *Ondare kulturalako ondasun batzuen egoera txarra (497/1999)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek kexa aurkeztu zuen bere jabetzako dorre-etxeak zituen baldintza txarregatik. Bere kexan esan zuen Administrazioak ez zuela eraikinaren aurri egoera adierazten eta ez zuela Euskal Ondare Kulturalari buruzko 7/90 Legean ezarrita dagoen desjabetzapen espedientea hasteko beharizana betetzen.

- Azterketa

Aurri adierazpena hirigintzako kontzeptua da eta ondasun kalifikatu edo inbentariatu kasuan berezitasunak ditu. Gai honi dagokionez, ondasun kulturalen araubide bereziari lotuta ez dauden beste eraikin batzuekin gerta daitekeenarekin erkatuta, ondasun horien aurri adierazpenak ez du esan nahi erabat errautsi behar direnik, horien osagai batzuk baino ez.

Berezitasun horiek badute islarik 7/90 Legean, testu horretan aurreikusi delako aurri egoera hori 20. edo 35. artikuluetan ezari diren betebeharrak ez betetzeagatik bada, ez dela baimenduko, eta ondasunaren artapena jabearen pentzutuan egiteko agindua ezarriko dela.

Herri botereek nahitaez eskuhartu behar dute beraien ondare kulturalako ondasunak babesteko. Aurrekontuetan dauden mugengatik betebeharrak ezin da beti bete eta beharizan batzuk estali gabe geratzen dira.

Ikuspegi horretatik egia da arazoa egon dagoela eta beharizan guztiei jaramon egiteko aukerarik ez egoteak behin betiko baldintzatzen duela ondasun batzuen zaharberrikuntza eta konponketa. Dena dela, antolamenduak ez du ezartzen ondasun kultural baten jabeak berezko eskubide subjektiborik duenik Administrazioari desjabetzapenerako duen eskubidea burutzea eskatzeko.

- Emaizta

Arartekok kexaren sustatzaileari jakinarazi zion, jabe egoeraren ikuspegi horretatik, erabateko errauspenaren baimena ukatzea edo ondasunaren desjabetzapenik ez egitea ez direla Administrazioaren jarduketa irregularrak.

## 4. HEZKUNTZA

### 4.1. SARRERA

Hezkuntzaren eremuko arazoak direla eta 1999. urtean denetara 76 kexa aurkeztu zaizkio Arartekoari, hau da, tramitatu diren kexa guztien %8,47.

Datu kuantitatiboei soilik jaramon egiten badiegu, 1998ko ekitaldian aurkeztu ziren 52 kexen aldean 1999ko kexak gutxiago izan dira.

Ikuspegi materialetik, edo tramitatu diren kexen edukiari begira, berriz, Arartekoak 1999an arlo horretan egin duen jarduerak aurreko ekitaldietako ildo beretik segitu du. Baieztapen hori egiaztatu ahal izan dadin, hezkuntzaren maila edo tarte guztiak jorratuko ditugu, azaletik bada ere:

#### **Haur hezkuntza:**

Bi urteko haurrentzako hezkuntza-eskaintzan oraindik ere ez da aintzat hartzen Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen agindua, hots, ikasle guztiak aukera berdina izatea benetan bermatu behar dela, eta horretarako bereizketa positiboko neurriak hartu behar direla haurrek jatorritik elkarrekin dituzten aldeak konpentsatzeko. Neurri horietako bat ezintasun fisiko edo psikikoak dituzten haurren **hezkuntzako beharrizan bereziak** asetztea da. Ildo horretan, berriz ere kexak jaso dira hainbat gurasorengandik; euren umeentzat hautatu dituzten ikastegi publikoetan umeak ohiko eran **onartzeko**/eskolaratzeko oztopoak jarri dizkietela salatu dute, laguntzarako behar beste langile ez zegoela eta.

Erakunde honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari zuzendu izan dizkion gomendioak behin eta berriz alferrikakoak izan dira, baina uste osoa dugu arazoa konponbidean jarriko dela, haur hezkuntzaren lehenengo tarteaz aztertu eta ebaluatzeko sortu den Erakundearteko Batzordearen lanari esker. Batzorde hori Eusko Legebiltzarraren 1999ko apirilaren 21eko erabakia betetzeko sortu da.

Udalen haur eskoletan, adibidez Gasteizko Udalaren ardurapeko eskolan, ikasleak onartzeko eta matrikulak egiteko erabiltzen diren arauak direla eta, Arartekoak ofizioz esku hartu du. Haurren gurasoak Udalaren hezkuntza saileko langile izatea merezimendutzat gehiago hartu ez dadila eskatu du, arau horrek berdintasun printzipioa urratzen duelakoan (4/1999OF kexaren laburpena).

#### **Lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntza:**

Ikasleen **onarpena** - Arartekoari esku hartzeko eskatu zaio, ikasleek euren hezkuntza-ibilbidean ikastegi pribatu itundu batetik bestera igaro ahal izatea ziurtatzeko egin diren lankidetzaz hitzarmen pribatu batzuk aintzatetsi gabe zeudelako (679/1999 kexaren laburpena). Bestalde, kexak aurkeztu dira familiaren etxebizitza ikastegitik hurbil egotea merezimendutzat hartzeagatik. Merezimendu horren auzibide-tratamenduak eztabaidagai izaten segitzen du (610/1999 kexaren laburpena).

**Hezkuntzako beharrizan bereziak** dituzten ikasleak - Esku hartzeko ildo batzuk ireki dira. Alde batetik, jarraipena egin zaie oztopo arkitektonikoak ezabatzeko eta eraikina

eraberritzeko obrak egin behar zituzten zenbait ikastegiri, ikasle batzuk minusbaliatu fisikoak zirela eta. Bestetik, Arartekoa bitartekari lanak egiten saiatu da ikusmen arazoak dituzten umeen gurasoen Gipuzkoako Elkarteak aurkeztu duen bezalako proposamenak bideratzeko. Zehatzago, haur itsuei ikasten laguntzeko sistema (CRI) berriro egituratzea komeni dela iradoki du. Azkenik, aspaldi honetan ohi denez, kexak jaso dira - norbanakoengandik- lehendik aintzatetsita zeuden laguntzak jasotzen jarraitzeko, alegia, zenbait psikopedagogi taldek halako laguntzak eteteko hartutako erabakiak berriki zitezela eskatzeko.

**Ikastegiaren artapena eta mantenimendua** - Gure erakundea, alor honetan egin duen lanean, erakundearen arteko bitartekari lanak egiten saiatu da, kontuan izanik hezkuntza maila honetako ikastegiaren artapen eta mantenimenduaren ardura Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta tokian tokiko Udalaren artean banaturik dagoela. Tramitatu diren arazoaren artean bereziki nabarmentzen da Donostiako Orixe ikastolako hezkuntza-erkidegoaren sektore guztiek Arartekoari esku hartzeko egin dioten eskaera. Ikastolako ikasleak Zuloaga eskola zaharretan eta Urgull mendiko eraikin berrian kokatu behar dira behin betiko. Arartekoak ahaleginak egin ditu, alferrik ordea, ikastolak behin betiko kokalekua edo egoitza eduki arte ikasleek behin-behineko eskolatze baldintzak hobetzeko.

**Jantoki eta garraio** zerbitzu osagarriak - Zerbitzuok ezartzeko eskaera solteez gainera, zenbait ikastegik, eurek zuzenean kudeatzen dituzten jantokiak zabaldu dituztela eta, jantokian **euskararen** erabilera ziurtatu nahi izan dute. Asmo horrekin, euskara dakiten langileak eskatu dituzte jantokiko arduradun ipintzeko.

Azkenik, azpimarragarria da DBH mailan kexak aurkeztu direla atzerriko hizkuntzaren hautapenaren edota aldaketaren inguruan (253/1999 kexaren laburpena).

### **DBH osteko hezkuntza:**

Guraso talde batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu du, irakaskuntzaren **B hizkuntza eredu** DBH osteko hezkuntzan ere ezarri nahi dutela eta asmo hori betetzen lagun diezaien. Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 20. artikulua eman liezaioke erantzuna guraso horiek aurkeztu duten bezalako asmoari, baina artikulua hori garatu gabe dago, eta gaur indarrean dagoen antolamenduak, irakaskuntza eredu elebidunen ezarpenari dagokionez, berretsi eta babestu egiten du derrigorrezko irakaskuntza mailen eta aukerako mailen arteko bereizkuntza. Izan ere, indarrean dirau uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duenak. Horrenbestez, hezkuntzaren Administrazioak DBH osteko hezkuntzan A eta D irakaskuntza ereduak bakarrik eskaintzeko hartu duen erabakia bat dator Zuzenbidearekin (546/1999 kexaren laburpena).

Beste alde batetik, hezkuntzaren maila horretan bertan kexak aurkezten ari dira **hezkuntzako beharrezkoak** dituzten ikasleentzako hezkuntza-laguntzak DBH osteko aldi berean eman daitezela eskatzeko. Horien artean azpimarratzekoa da ASPANOVAS (minbizidun adin txikikoen gurasoak) elkarteko aita-ama batzuek eskatu dutena: batxilergo teknologikoan dabilen euren umeari konpentsaziorako laguntzak hezkuntzaren aldi horretan ere emateko, gaixotasunaren ondorioz eskola-errendimendu eskasagoa izan ez dezan.



**Irakaskuntza espezializatuak-musika:**

**Ikasleen onarpenaren** inguruko ohiko arazoez gainera, honelako irakaskuntzen berezko arazoa den eskaintza urria dela eta, Arartekoak bere iritzia azaltzeko egokiera izan du Bilboko “Juan Crisóstomo de Arriaga” Goi Mailako Kontserbatorioko ikasle batek musika-tresnen hautabideei buruz aurkeztu dion asmoaz. Erakunde honen esku-hartzea gorabehera, interesatuaren egoera ezin izan da leheneratu. Hala ere, hezkuntzaren Administrazioak hitz eman du Arartekoak gomendatutako hautabideak hurrengo ikasturteetako matrikulei buruzko jarraibide edo arauetan sartuko dituela (191/1999 kexaren laburpena).

Kexak aurkeztu dira, halaber, zenbait udalek (Santurtzi) musika eskoletan egin daitezkeen espezializazioen aukera murriztea erabaki dutelako.

**Irakaskuntza unibertsitarioa:**

Hezkuntzaren aldi honetan **bekak eta beste laguntza batzuk** izan dira kexen iturri nagusiak, beti bezala. Aurten jaso diren kexen artean aipagarria da atzerrian espezializazio-ikasketak egiteko laguntzen deialdiari buruzkoa. Eskabideak tramitatzerakoan, kexa aurkeztu duen pertsonak salatu duenez, ez dira kontuan hartzen karrerako azken urtean dabiltzan ikasleen ikasketa-espeditente osoak (891/1999 kexaren laburpena).

Fakultatez edo eskolaz aldatzeko arauak eta kreditu berrietarako matrikulak egiteko ezarrita dauden gehieneko mugek ere kexak eragin dituzte.

**4.2. AUKERATUTAKO KEXAK ETA OFIZIOZKO JARDUERAK****A) Eskubideak eta betebeharrak**

⇒ *Familiaren etxebizitza ikastegitik hurbil egotea merezimendutzat hartzea (610/1999)*

## • Erreklamazioa

Guraso batzuek Bilboko ikastegi itundu batean euren umea onartzea nahi zuten. Familiaren etxebizitza ikastegitik hurbil egotea ez zitzaien merezimendutzat hartu, hezkuntzaren administrazioaren iritziz merezimendu hori epez kanpo azaldu zutelako eta behar bestean frogatu ez zutelako. Erakunde honengana jo zuten, merezimendua aintzat ez hartzeko erabakia ezbaian jarritz.

## • Azterketa

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1999ko urtarrilaren 11ko Aginduak, oinarritzko irakaskuntzako ikasleak EAeko fondo publikoek eutsitako ikastegietan 1999-2000 ikasturterako onartzeari buruzkoak, 3. artikuluan hau ezarri zuten: *“famili unitatearen egoitza non dagoen egiaztatzeko, tokian tokiko Udalaren Errolda Bulegoak emandako ziurtagiria aurkeztuko da. Baremoaren arabera baloratu behar diren inguruabarrak frogatzeko agiririk aurkeztu ezik, inguruabar horientatik*

*jaso daitezkeen puntuak jasotzeari uko egin behar zaio. Agiriok eskabidearekin batera aurkeztu behar dira, eta inoiz ez da onartuko agiririk aurkeztea eskabideak aurkezteko epea igarotakoan.”*

Arau horiek ikusirik, garbi dago hezkuntzaren administrazioak zer ebatzi duen: familiaren egoitza ikastegitik hurbil egotea merezimenduztat hartuko da fondo publikoek eutsitako ikastegietan ikasleak onartzeko orduan, eta interesatuek nahi izanez gero merezimendu hori aurkeztu ahal izango dute. Beraz, ez dago zer esanik urteko agindu horretan interesatuei agintzen zaienari buruz, hau da, merezimendua azaltzeko eta kreditatzeko ezarri zaizkien arauari buruz.

Gogora ekarri beharra dago, ordea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen. 71. artikulua -hala gaur indarra duen 4/1999 Legearenak nola aurreko 30/92 Legearenak- Administrazioari ezarri dion betebeharra: Administrazioak interesatuaren eskabidean hutsune edo akatsen bat antzematen badu, interesatuari dei egin behar dio eta hutsuneak edo akatsak betetzeko edo zuzentzeko eskatu behar dio, hots, falta diren datuak emateko eta aurkeztu behar dituen agiriak aurkezteko.

Datuak emateko eta aurkeztu behar diren agiriak aurkezteko ohartarazpen hori berariaz aipatzen da 71. artikuluan. Aipamen horren zioz eta haren itzalpean, prozeduretan ohitura da, nahitaez bete behar ez diren zenbait irizpide edo merezimendu aintzat hartzeko baldintza gisa, printzipio xedatzaile bat aplikaturik, interesatuek eurek alde aurretik adieraztea irizpide edo merezimendu horiek betetzen dituztela.

Prozedurako praktika horiek administrazio bideen eta epeen nahitaezkotasunari loturik daude. Kontuan hartu behar da, ordea, administrazio prozeduran formalismoak baztertzeko joera nagusitu behar dela. Hala, prozeduran bete beharreko baldintzak, azken batean, bitartekoak baizik ez direnez, ahalik gehien malgutu behar da formazko akatsak edo irregularitasunak zuzentzeko aukera, akats horien ondorioz eskubide jakin batzuen edukia eta funtsa indargabetu ez dadin, kasu honetan, fondo publikoek eutsitako ikastegietan onartua izateko eskubidearenak.

Ikuspegi horretatik, Arartekoak iritzi zion derrigor azpimarratu behar zela inguruabar hau: kexaren sustatzaileek eskabidean bertan adierazi zuten euren famili egoitza non zegoen. Inguruabar hori egiaztatuz gero, familiaren egoitza ikastegitik hurbil egotearen merezimendua azaldutzat eman zitekeen. Hartara, 1999. urteko Aginduaren testuan ezarritako baldintza hori betetzat emanez gero, umearen gurasoek hasierako eskabidearen hutsuneak betetzeko eta akatsak zuzentzeko aurkeztu zituzten agiri guztiak ere aintzat har zitezkeen.

Azken horri dagokionez, ikasleen onarpenari buruzko otsailaren 4ko 14/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, erroldatzearen ziurtagiria aurkeztu behar da norberaren egoitza non dagoen egiaztatzeko. Arau hori bat dator norberak ohiko egoitza duen udalerrian erroldaturik egoteko legezko betebeharrarekin, eta bai udal erroldaren erregistroko datuak begiratu ondoren ematen diren ziurtagiriak ohiko egoitza non dagoen frogatzeko bidetzat onartzearekin ere. Horixe adierazten da Toki Araubidearen Oinarri buruzko Legearen 15 eta 16. artikuluetan.

Alabaina, erroldako datuak erabateko frogabideak direla onartzeak ez du esan nahi beti ere nahikoa denik frogabide horiek aurkeztea. Izan ere, epaileen iritzi-azalpenetan (1979ko urtarrilaren 2ko AGE - 1979\53 EJ) aitortu izan da, zenbait kasutan, litekeena dela erregistroan ageri diren datuak eta errealtatea bat ez etortzea.

- Emaizta

Horregatik, Arartekoak, kexaren sustatzaileek eskabidea behar bezala egin ez zutela jakitun egon arren (agiriak epez kanpo aurkeztu zituzten, erroldaren ziurtagiriak bata besteari kontrajarrita zeuden, eta abar), uste izan zuen ezin zela alde batera utzi umearen gurasoek umea euren famili egoitzan bizi zela frogatzeko egin zuten ahalegina; hezkuntzaren administrazioak berak ere ez zuen zalantzan jarri ahalegin hori.

Beraz, umea onartzeko eskabideari emandako tratamendua berrikeria zedila gomendatu zuen, alegia, interesatuen famili egoitza ikastegitik hurbil egotea aintzat har zedila ikasleak onartzeko prozesuan.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ez zuen onartu gomendioa eta lehengo iritziari eutsi zion.

⇒ *Iparragirre Eskolaurreko Ikastetxeko eta Karmengo Ikastolako ikasleak Begoñako Ama Ikastetxera igaro ahal izatea bermatu nahirik Bilboko Elizbarrutiak eta Jesusen Konpainiak sinatu zuten lankidetzaz hitzarmen pribatua aintzat ez hartzea (679/1999)*

- Erreklamazioa

Guraso batek bere umea Begoñako Ama ikastetxean lehen hezkuntzako ikasketak egiteko onar zezatela eskatu zuen. Ume hori ordura arte Iparragirre Eskolaurreko Ikastetxean ibilia zen, eta Bilboko Elizbarrutiaren eta Jesusen Konpainiaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren arabera ikastetxe batetik bestera igartzeko onarpen automatikoa eman behar zioten, baina hezkuntzaren administrazioak ezetza eman zion. Gurasoak ezbaian jarri zuen onarpen automatikoa ukatu izana.

- Azterketa

Egia esan, bai otsailaren 4ko 14/1997 Dekretuak, EAEko haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako ikastegi publikoetan eta itunduetan ikasleak onartzeko arauak ezarri dituenak (7. art.) eta bai 1999ko urtarrilaren 11ko Urteko Aginduak ere (2. art.) ondokoa adierazi dute: ikastegi itunduetan ikasleak onartzeko prozesuetan kontuan hartu behar dira ikastegi horien titularrek egindako atxikipen prozesuen emaitza diren hezkuntza-ibilbideak.

Ikastegi itunduetan egiten diren hezkuntza-ibilbide horien adibidetzat har liteke Bilboko Elizbarrutiak eta Jesusen Konpainiak 1996ko urtarrilaren 16an sinatu zuten lankidetzaz hitzarmena. Horren bitartez, Iparragirre Eskolaurreko Ikastetxea, Karmengo Ikastola eta Begoñako Ama ikastetxea elkarren osagarri izateko bideak jarri nahi ziren.

Hala ere, hezkuntza zentro horien ordezkariak eurek kexarekin batera aurkeztutako agiri batean (Hezkuntza Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritari 1996ko urtarrilaren 18an aurkeztutako eskabidea) aitortu dutenez, horrelako hitzarmen pribatuak, hots, haur hezkuntzako zenbait ikastetxetan ikasten ari diren haurrak modu automatikoan lehen hezkuntzako beste ikastetxe jakin batzuetara igarotzea ahalbideratzen dutenak, Administrazioak berak aintzatetsi behar ditu, akordio pribatuak ofizial eta publiko bihurtu daitezzen eta, ondorioz, fondo publikoek eutsitako ikastegietan ikasleak onartzeari buruz indarrean dagoen antolamenduan egokitu ahal izan daitezzen.

Aztergai dugun kasuan ere, ikastegi interesatuen ordezkariak euren hezkuntza-ibilbidea aintzatesteko eskaera aurkeztu zuten, baina 1996ko otsailaren 2ko Ebazpenaren bitartez berariaz ezetza eman zitzaion eskaerari. Ebazpen horretan, gainera, ohartarazi egin zitzaion fondo publikoek eutsitako ikastegietan ikasleak onartzeari buruzko arauak bete-betean aplikatu beharko zituztela.

- Emaizta

Ikastegien titularrek sinatutako lankidetzeta-hitzarmen pribatua era ofizialean aintzatesteko administrazio-ebazpenik tartean ez zegoenez, Arartekoak ez zuen uste izan berak esku hartzeko adinako arrazoirik zegoenik.

## B) **Haur hezkuntza**

⇒ *Udalen haur eskolatan matrikula egiteko eskabideen kudeaketari buruzko arauak (4/1999OF)*

- Erreklamazioa

Gasteizko Udalak matrikula egiteko eskabideen kudeaketari buruzko arauak onetsi zituen Udalaren haur eskolentzat (1999-2000 ikasturterako). Eskabideak eskolako plazak baino gehiago izanez gero zeintzuk eskabide lehenetsi behar ziren erabakitzeko irizpide batzuk ezarri zituen; besteak beste, familiaren errenta, familiaren egoitza eskolara dagoen distantzia eta umeen egoera.

Zehatzago esateko, Udalaren arauetan berariaz umeak matrikulatzeko eskabideak lehenesteko arrazoitzat jotzen ziren famili egoeren artean, haur txikiak eskolatuz lortu nahi diren helburuekin objektiboki bat datozen egoerak jaso ziren: hezkuntzaren arloko helburuetatik harago, etxeko eta lanbideko zereginak uztartzeko laguntza eskaini nahi zitzaion guraso bakarreko familiei, guraso biek lan egiten duten familiei etab.

Gure erakundea, hala ere, harritu egin zen ikusi zuenean Udalaren Hezkuntza Saileko langileen seme-alabak diren edo haien tutoretzapean dauden haurrei arauetan besteei baino puntu gehiago ematen zitzaizkiela. Puntuazio desberdinak emanez, haur eskola berean matrikulatu nahi ziren umeen tratamenduan bereizkuntza egiten zen. Horregatik, ofizioz ikerketa hasteko agindu zen.

- Azterketa

Jakina denez, arrazoi objektibo eta zentzuzkorik gabeko bereizkeria egiten denean bakarrik urratzen da berdintasun printzipioa; arrazoirik dagoen ala ez argitzeko, aztergai den neurriaren xedea eta ondorioak aztertu behar dira. Horregatik, Udalaren haur eskolatan umeak onartzeko prozesuan berdintasun printzipioa urratu ote zen zalantza argitu nahirik, Arartekoak Udalarengana jo zuen eta baloraziorako irizpide horren atzean zegoen arrazoi objektibo eta zentzuzkoa azaltzeko eskatu zion.

Udalaren Hezkuntza Saileko zuzendariak eman zuen informazioaren arabera, Udalaren Hezkuntza Saileko langileen seme-alabak diren edo haien tutoretzapean dauden umei arauetan puntuazio handiagoa emanez Udalak amaiera eman nahi zien antzinako Udalaren Hezkuntza Erakundearen langileek behinola eskuratu zituzten onurei. Izan ere, lehenago langile horien seme-alabak zuzenean sartzan ziren Udalaren haurtzaindegi eta haur eskoletan, eta ez zuten ordaintzen.

Hala, bada, udal arduradun horrek adierazitakoaren arabera, 1999. urteko lanbaldintzen negoziaketaren buruan sindikatuak zuzeneko sarrera eta doakotasuna kentzea onartu zuten, baina horren trukean ikasleen onarpenerako baremoan Saileko langileei onuraren bat eskaini behar zitzairen; ez bakarrik Udalaren Hezkuntza Erakundeko langile izandakoei, Saileko langile guztiei baizik.

Arartekoak onartzen du neurri horiek negoziagarriak direla eta baremoan puntuazio handiagoa emanda aurrerapena egin dela langileek lehenago izandako onuren aldean, zuzeneko sarrera eta doakotasuna kendu baitira. Hala ere, Saileko langileen seme-alaben gaurko tratamendua lehengoa bezain onuragarria izan ez arren, gure iritziz ez dago arrazoi objektibo eta zentzuzkorik berdintasun printzipioa urratu ez dela uste izateko..

Hala, bada, gure ikuspegitik, ume horien famili egoeran ez dago beraiei tratamendu desberdina eta berezia ematea bidezkotzen duen inguruabar berezirik; aitzitik, gurasoek lan egiten duten eta etxeko eta laneko ardurak uztartzeko laguntza behar duten familientzat aurreikusita dagoen tratamendu orokorra dagokiela uste dugu.

Iritzi hori berretsi behar balitz ere, gogora ekarriko ditugu Hezkuntza eta Zientzi Ministerioi funtzionarioen seme-alabei matrikula dohainik egiteko edo tasa akademikoak ordaindu beharretik salbuesteko asmoei buruz epaileek azaldu izan dituzten iritziak (denen laburpen gisara, Madrileko JAren 1.616 zenbakiko Epaia, 1998ko abenduaren 10ekoa). Iritzi-azalpen horietan ondorioztat atera da halako salbuespenak onartzen direnean EKren 14. artikulua xedatutakoa urratzen dela, herritar talde batean ez zaielako pertsona guztiei tratu berdina ematen, eta tratu desberdinak emateko ez dagoelako beste arrazoirik korporatibismoaren hondarra baino. Garai batean, agian korporatibismoa ontzat emateko arrazoiak egongo ziren, baina gaurko Zuzenbideko Estatuan jokaera hori ez dator bat herritar guztien berdintasunaren printzipioarekin. Gaur indarra duen konstituzio sisteman, batzuei eta besteei arau desberdinak ezartzea onargarria izan dadin inguruabar objektibo jakin batzuk gertatu behar dira, desberdintasunaren zentzuzko oinarri izan daitezkeen inguruabarrak.

- Emaiza

Arartekoak 80/1999 Gomendioa egin zuen. Bertan ondokoa eskatu zuen: haur eskoletan umeak matrikulatzeko eskabideen kudeaketari buruzko arauetan, baremoari dagokionez, aurrerantzean ez emateko tratu berezirik Udalaren Hezkuntza Saileko langileen seme-alabak eta haien tutoretzapeko haurrak matrikulatzeko eskabideei, gaur egiten den bezala.

Txosten hau amaitzear dagoenean Gasteizko Udalaren erantzunaren zain gaude.

### C) Derrigorrezko bigarren hezkuntza

⇒ *Atzerriko hizkuntza (alemaniera) hautazko irakasgai gisa aukeratzea (253/1999)*

- Erreklamazioa

DBHko lehen mailan -A eredu- matrikulatutako neskato baten amak gugana jo zuen, atzerriko bigarren hezkuntza gisa alemaniera ikasteko eskabidea egin zuenean hezkuntzaren administrazioak ezetza eman ziola eta, ezezkoa gure iritzipean jartzeko.

- Azterketa

Hezkuntzarako eskubidea, argi eta garbi, prestazioak jasotzeko eskubideen sailekoa da. Esan nahi dugu ezin dela eskubide absolututzat jo, unean uneko baliabideen arabera pixkanaka egituratuz doan prestazioaren emaitza baita.

Kexan aurkeztu zaigun arazoaz, hau da, DBHko lehen mailan hautazko irakasgai gisa atzerriko bigarren hezkuntza (alemaniera) hautatzeko aukerari buruz, esan beharra dago hezkuntzaren administrazioak erabat onartzen duela aukera hori, baldin eta bigarren hizkuntza ikasteko bidea ematen duten baldintza eta inguruabar jakin batzuk betetzen badira, horien artean, gutxieneko ikasle kopurua duen taldea eratzea.

Kexarekin batera aurkeztu ziren agirietan dauden datuen arabera, hezkuntzaren administrazioak argudio hau erabili zuen eskabideari ezetza emateko: **“alemaniera irakasgaiaren kasuan, salbuespen gisa B eta D eruedetan ikasle talde bat eratzeko baimena eman zen; ez ordea A erudian, ikasle bakar batek egin zuelako eskaera. Administrazio honetan ez da arauzkoa A ereduko ikasleak B edo D eruedetako ikasleekin elkartzea, eta horrez gainera kasu honetan ezin da salbuespenik egin, eskolak denei ordu berean ematerik ez dagoelako.”**

- Emaitza

Ondorioz, ez dugu uste guk esku hartzeko arrazoirik dagoenik.

### D) Irakaskuntza artistikoak

⇒ *Bilboko Juan Crisóstomo de Arriaga Goi Mailako Kontserbatorioa. Instrumentuen hautabidea (191/1999)*

- Erreklamazioa

Gure erakundeak Bilboko Juan Crisóstomo de Arriaga Goi Mailako Kontserbatorioan matrikula egiteko arauari buruzko kexa jaso zuen. Kexa aurkeztu zuenak, piano espezialitateko ikasle ofizial batek, eskusoinu espezialitateko goi mailako graduan sartzeko saioa “nahikoa” kalifikazioarekin gainditu ondoren bi instrumentu horietako bat hautatzeko aukera eskatzen zuen.

- Azterketa

Bilboko Goi Mailako Kontserbatorioan matrikulatzeko arauak urtero eman ohi dira, Hezkuntza Sailburuordetzak onesten dituen ebazpenen bitartez. Arau horietako batzuk 2.618/1966 Dekretuak arautzen dituen ikasketei dagozkie, “66ko planeko” ikasketak deitzen zaien horiei.

Kexaren tramitazioari ekin aurretik erakunde honek hala eskaturik, hezkuntzaren administrazioak txostena bidali zuen. Bertan, 98-99 ikasturterako onetsitako Ebazpenean ezarritako arauak aipatuz, ondokoa azaldu zuen:

- 1- Ikaslea ezin da aldi berean sartu ikasi nahi dituen instrumentu-espezialitate guztietan. Alderantziz, aurretik instrumentu-espezialitate bateko ikasle ofiziala izan behar du, eta gero bigarren instrumentuaren espezialitatean sartzeko aukera izango du baldin eta espezialitate horretan plaza hutsik badago -Ebazpenean ezarrita dagoen bezala-.
- 2- Ikasleari instrumentu biren artean hautatzeko aukera kasu bakar batean ematen zaio: bi espezialitateetako ikasle ofiziala izanik bietan huts egiten badu, bietako batean baino ezin da berriro saiatu, eta berak aukeratzen du zeinetan.

Aurrekari horiek ikusirik, instrumentuen irakaskuntza-eskaintza oso urria dela kontuan izanik, edo, bestela esanda, bigarren instrumentuaren irakaskuntzan sartzeko bideak ezinbestean arautu behar direla onarturik, Arartekoak uste du kexa honi tratamendu egokia emango bazaio nahitaez bereizi eta aztertu behar direla ondoko abagune hauek, bigarren instrumentua ikasi nahi duten ikasleei suertatu ahal zaizkienak:

- 1- Bi instrumentu-espezialitateetan nahikoa plaza huts egotea eta, ondorioz, ikasleak bi instrumentuak ikasteko matrikulatu ahal izatea.
- 2- Instrumentu-espezialitate bietatik bakar batean plaza hutsak egotea, espezialitate hori izatea ikasleak nahiago duena, eta, gainera, espezialitate horretarako matrikula beteta edo eginda edukitzea.
- 3- Instrumentu-espezialitate bakar batean plaza hutsak egotea, espezialitate hori EZ izatea ikasleak nahiago duena, eta beraz, gutxiago interesatzen zaion espezialitatean matrikula bete edo egin beharrean aurkitzea.

(Hezkuntzaren administrazioak, bigarren instrumentu-espezialitatean sartzeari begira, plaza hutsak hauek direla adierazi du: “*erdiko eta goiko graduako ikasleei eskaini ahal zaizkienak irakasleei bete gabe geratzen zaizkien orduetan, behin aurreko ikasmailako ikasle ofizialak eta LOGSEko erdiko graduako ikasle berriak euren plazetan egokitu ondoren*” eta kontuan izanik “*oraindik ordurik geratuko balitz ratioak 15 eta 30’ bitartean handituko lirатеkeela, ikasmilen arabera*”).

Garbi dago lehenengo bi kasuetan ez dagoela eragozpenik, instrumentu-espezialitate bat baino gehiago ikasteko mugak ipintzean kontuan hartu baitira ikasleen nahiak. Horrela, baldin eta ezinezkoa bada bigarren instrumentu bat ikastea, hori ikaslearentzat interes gutxien duena da.

Hirugarren eta azken kasuan, ordea, hezkuntzako administrazioak izan duen jardunagatik ikasleren batzuk, horien matrikulak kudeatzeko eragatik, beraiantzat

lehenespenik ez duten espezialitate bat ikastera behartuta egon daitezke eta ez zaie aintzatesten bi horien artean hautatzeko aukerarik.

Gure ustez bigarren instrumentua ikasteko ezarri diren mugen xederik behinenak (musika ikasketetara ahalik eta ikasle gehien iristeko aukera ematea) ez du emaitza hori lortu nahi. Gure iritziz azken emaitzak postu huts nahiko ez dagoenean instrumentuetan matrikula bikoitza egiteko aukerak murriztea da, baina beti ikaslegoaren nahiak eta asmoak zainduz, hau da, ikasle batek ikasturte berean bi espezialitateak gainditzen ez dituenean eta zein errepikatuko duen aukeratu behar duenean gertatzen den bezala.

Irakaskuntza Espezializatuetakoa Zerbitzuarekin izan ditugun harremani esker jakin dakigu Sailak ez zuela inolako eragozpenik 99-00 ikasturteari buruzko hurrengo urteko ebazpenean instrumentu-espezialitatea aldatzeko aukerari buruzko berariazko aurreikuspena sartzeko: *“Ikasle batek bi instrumentu-espezialitate ikasten dituenean gerta daiteke bietan irakaskuntza ofiziala izatea, bat ofiziala eta bestea askea edo biak askeak. Espezialitate bat araubide ofizialean eta bestea askean ikasten duen ikasle batek bi horien araubidea trukatu nahi badu, araubide askea duen espezialitateko onarpen frogan matrikulatzeko aukera izango du eta horrelakoetan eskabidean berariaz adieraziko du ofiziala den espezialitatean uko egiten diola matrikulari baldin eta onarpen frogako puntuazioan ikasle askearen araubidean zegoen espezialitatean ikasle ofizialaren plaza atzemateko beste puntuazio badu”*. Aurreikuspen horrekin zilegi izango da planteatu den kasu honen antzekoetan tratamendu egokia gauzatea.

Hori guztia gora-behera, baloratu egin behar zen ea irtenbide horrek, hau da, datozen ikasturteetarako onetsi den horrek, 98-99 ikasturteko matrikularen prozesuan eraginen bat izan dezakeen, areago kontuan hartuta kexa sustatu zuenak bidezko errekurtsioa jarri duela administrazio bidetik instrumentuen artean hautatzeko aukera eskatuz.

Hezkuntza Sailburuordetzak 98-99 ikasturtearen antolakuntzari buruz onetsi zuen Ebazpenean ez zen gai horri buruzko inolako aurreikuspenik azaltzen eta egiten zuen gauza bakarra hasieran komentatu ditugun matrikulaziorako arauak adieraztea zen; horien arabera Sailak uste du abiaburua beti dela ikasle ofiziala eta instrumentu bat eta gero, postu hutsen arabera, bigarren instrumentu bat ikasteko aukerak gertatzen direla. Halaber, uste du instrumentuen artean aukeratzeko bide bakarra bi espezialitatetan ikasle ofiziala izanik biak gainditzen ez direnean baino ez dela gertatzen. Horrelako kasuan bat bakarrik errepika daiteke, ikasleak berak hautatuko duena alegia.

Dena dela, kontuan hartu behar da matrikulazioari buruzko arau horiek beti direla bi instrumentu aldi berean ikasten direnerako. Ez da inon aztertzen iristeko aukera duten erloko instrumentuen artean hautatzeko aukera.

Horregatik, guk uste dugu gai honi dagokionez Hezkuntza Sailburuordetzak onetsi zuen Ebazpenak duen hutsunea, kexaren sustatzaileak planteatu dituen asmoak ezin betetzeko berariazko ezintasuna izan beharrean, bi instrumentu ikasi nahi dituzten ikasleen matrikula aukerak mugatzeko gaitasunik eza dela, legezketasun oinarriaren aplikazioak ez duelako uzten hainbeste bider arestian aipatu dugun arautegian berariaz eta era zehatzean ezarrita dauden mugak ez diren beste batzuk jartzen.

Horrela, bada, administrazio bidetik jarri zen errekurtsioa ebazteke zegoen bitartean, bidezkotzat jo zen 98-99 ikasturtearen hasieran erabili zen hautespen prozeduraren



berrikuspena, zertarako-eta ikusteko ea kexaren sustatzaileak akordeoiko goi zikloan matrikulatzeko aukerarik zuen ala ez.

- Emaidza

Erakundeak Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailari 32/1999 zenbakiko aholkua egin zion: *“bidezko neurriak har ditzala Juan Crisóstomo de Arriaga Goi Kontserbatorioko aurtengo 98-99 ikasturtearen hasieran erabili den onespenezko prozedura berrikusteko; zehatzago, zehaztea lortu den puntuazioa, interesa duten beste ikasle batzuen eskuhartzea etab. kontuan hartuta kexaren sustatzaileak akordeoiko goi zikloko ikasle matrikula formalizatzeko aukerarik ote zuen, ikasle ofizial gisa; hori guztia kontuan hartuta kontserbatoriak antolatzeari buruzko egungo araupeketan instrumentuen artean hautatzeko aukerari buruzko eragozpenik ez dagoela aintzat hartuta egingo da.*

Baldin eta berrikuspen horren emaitza interesatuarentzat baiezko irtenbidea edo positiboa bada, horren interesak lehengoratzeko eta birjartzeko aukerak aztertuko dira.”

Aholku honi ez zitzaion jaramonik egin Sailak hortik aurrera ere uste izan zuelako 98-99 ikasturteko araupeketak ez zuela erakunde honek proposatu duen instrumentuen artean hautatzeko era hori bideratzen,

## E) Administrazioaren jardunbidea eta prozedura administratiboa

⇒ *Atzerrian espezializazio ikasketak egiteko laguntzak. Karrerako azken urteko ikasleen irakaskuntzako espedientearen aintzatespena (891/1999)*

- Erreklamazioa

Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak deialdia argitaratu zuen 1999-2000 ikasturtean EAERako interesgarriak diren gaitan atzerrian espezializazio ikasketak egiteko (martxoaren 30eko 61. zenbakiko EHAA). Bada, deialdi horretan interesa zuen hiritar batek Arartekoarengana jo zuen uste zuelako karrerako azken urteko ikasleen eskabideen tramitazioa salatuz, merezimenduen ondoretarako ez zelako zenbatesten irakaskuntzako espedienteak.

- Azterketa

Arartekoak frogatu zuen laguntzen deialdian ezarri zela beken emakida ebaluazio batzorde baten proposamenean oinarrituta egingo zela, eta horrek kontuan hartuko zituela merezimenduen lehiaketa baten emaitzak; horretan, batez ere -eta beste merezimendu batzuen artean- eskatzaileen irakaskuntzako espedienteak hartzen ziren kontuan.

Karrerako azken urteko ikasleei dagokienez, deialdian aurreikusi zen lehiaketan eskuhartzeko aukera zegoela, eta baldintza bezala ezartzen zen gero baiezkatu egin behar zutela eskatzen ziren beharkizun horiek betetzen zituztela eta, horien artean, jakina, lizentziatura, ingeniaria edo arkitektoa, titulua eskuratzeko bidea ematen duten ikasketak bukatuta edukitzea

Halaber, ezarri zen karrerako azken urteko ikasle horien espedientearen batez besteko nota kalkulatzeko eskabidea aurkeztu arte gaindituta zituzten irakasgaiak kontuan hartuko zirela: irizpide hori, aldi berean, eta beste aurreikuspen batzuen faltan, espediente osoa merezimendutzat hartzeko balorazioaren kasuan aplikatzen zen.

- Emaizta

Aurreikuspen horiek erabat bermatzen zuten ebaluazio batzordeak bete zuen kudeaketa prozedura. Halaber, erakunde honek aginduta Politika Zientifikoko Zuzendariak gertutu zuen txostenean adierazi zen bezala, deialdiaren asmoak karrerako azken urteko ikasleei tratu objektiboa ematea zen. Horrela, hau esan zigun hitzez hitz: *“karrerako azken urtean dauden ikasleen bukatu gabeko irakaskuntzako espedienteen eta irakaskuntzako espediente bukatuen batez bestekoen diferentziak (...) ez dira adierazgarriak eta ezin da esan irakaskuntzako espedienteen ebaluazio prozedura bidegabea izan dela (...) eta areago kontuan hartuta ebaluazio horrek (...) hala alde nola kontra egin dezakeela.”*

Hori guztia kontuan hartuta Arartekoak ez zuen eskuhartzea bidezkozteko arrazoirik antzeman.

## F) Bestelakoak

⇒ B ereduaren eskakizuna batxilergoko ikasketetan (546/1999)

- Erreklamazioa

Guraso talde batek erakundearen eskuhartzea eskatu zuen; guraso talde horrek derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketak bukatzen ari ziren beraien seme-alabek batxilergoa B ereduaren izenarekin ezagutzen den hizkuntz ereduari bukatzea nahi zuen.

- Azterketa

Planteatu zen kexa hori irakaskuntzako hizkuntz ereduaren ezarpena aldarazteko legezko asmoaren adierazpena zen. Dena dela, Arartekoak uste izan zuen eskaera hori ezin zela beharkizun juridikoan oinarritu, jarraian adierazten diren zio hauengatik:

**“\* Azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen Normalizaziorako Oinarrizkoak, irakaskuntzari buruzko bere II. kapituluaren lehenengo aintzatetsi zuen ikasle guztiak irakaskuntza hala euskaraz nola gaztelaniaz egiteko eskubidea dutela, hezkuntzako maila guztietan (15. art.).**

*Halaber, Lege honek Gobernuari ematen dio hizkuntz eskakizunen araupeketak eta derrigorrezko irakaskuntzako ikasketak ofizialak bukatzen direnean bi hizkuntza horien ezagutza nahikoa izateko neurri egokiak hartzea ere (17. art.).*

**\* Uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuak, desagertu zen Hezkuntza eta Kultura Sailarena, irizpide horien ildotik era xehekatuagoan arautzen du Euskal Herriko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan hizkuntza ofizialek duten erabilera.**

Gauza jakina da Dekretu horrek hezkuntza elebidunaren ereduak ezarri dituela, A, B eta D, eta derrigorrezko irakaskuntza bukatu aurreko hezkuntza zikloen arteko muga argiak ezarri ditu -eskolaurrera eta OHO- eta horietarako hiru eredu elebidun desberdin ezarri ditu (A, B eta D), eta beste aldetik -BBB, UBI eta LH- eta horietan bi eredu baino ez ditu bereiztu (A edo D).

Dekretu horrek, hezkuntza eskubidea eman behar den zerbait dela kontuan hartuta, ohartarazi du B eta D irakaskuntza elebiduneko ereduaren ezarpena ikasleen guraso edo tutoreen kopuru jakin batek eskatuta edo onartuta egingo dela, beti ere irakasleen eta Sailak ezarrita duen euskalduntze planaren aukerak kontuan hartuta.

**\* Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen** onespenezkin, (hemendik aurrera EEPL), hezkuntzaren esparruko arlokako legeriak aurrez Euskararen Erabileraren Normalizazioari buruzko Oinarrizko Legeak ezarri zituen helburuak onetsi zituen, euskal eskola publikoaren helburutzat jotzen duelako derrigorrezko irakaskuntza bukatzerakoan ikasle guztiei eta baldintza berberekin bi hizkuntza ofizialen ezagutza bermatzea, horien erabilera sustatuz eta euskararen normalizazioan lagunduz (3.2. art.). Halaber, ikasle guztiek hezkuntzako maila guztietan ikaskuntza hala euskaraz nola gaztelaniaz jasotzeko duten eskubidea berriz errepikatu ondoren (12.1. art.), EEPL honek argi adierazten du eskubide hori eman behar den zerbait dela eta horren burutzapena, eta baita hezkuntzaren arloan herri botereen jarduna ere, Euskararen Erabileraren Normalizazioari buruzko Oinarrizko Legearen esparruan eta hizkuntz normalizazioa eta hezkuntza arloaren arteko harremanari buruzko legearen III. kapituluaren kokatzen du.

Ildo horretatik adierazi du eskubide honen betearazpena hezkuntzako hizkuntz plangintzak eskainiko dituen aukerei baldintzatuta dagoela; plangintza horrek, aldi berean, hizkuntz ereduaren ezarpena (20. art.) eta ereduaren eskaintzarako plangintzarako oinarrizko irizpideak hartuko ditu kontuan, jakina, horietan gurasoen borondatea eta alde horretako egoera soziolingustikoa ahaztu gabe (21. art.), irakaslearen euskalduntze plana (22. art.), etab.; horren guztiaren azken helburua hezkuntzaren esparruko hizkuntz normalizazioa bermatzea da.

Egia da, bai, EEPLak, irizpide nagusi batzuk ezarri ondoren, gobernuak xedatzeko duen ahalmenetik irakaskuntza elebidunaren ereduaren taxuketa kendu duela, xedapen gehigarrietatik hamargarrenean ezarri duelako eredu horiek ezin direla izan denok ezagutzen ditugun A, B eta D baino, eta horiek hedatzen direla hezkuntza sisteman, hala publikoan nola pribatuan.

Bereziki zuk xedapen gehigarrietatik hamargarrenean idatziko horri esleitu diozun edukia kontuan hartuta, hau da, zure seme-alabak hasiko duen batxilergo mailan B irakaskuntzako eredu elebiduna ez eskaintzea 'ez da zentzuzkoa eta, aldi berean, ez da legezkoa' esaten duzun hori.

Berriz ere azpimarratu nahi dut formulatu den asmo hori zentzuzkotzat jotzen dudala, egun dauden irakaskuntzako hizkuntz ereduaren ezarpena aldarazteko legezko asmoaren adierazpena baita. Baina, dena dela, zure asmoaren azterketak, ikuspegi juridiko hertsitik, jarraian adieraziko ditugun iradokizun eta ñabardurak behar ditu.

*Argi dago EEPLren 20. artikulua Gobernuari ematen diola ahalmena, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak proposamena egin ondoren, dekretuaren bidez hizkuntz ereduaren erregulazioa egin dezan; horretarako dagoen muga bakarra legearen xedapen gehigarrietatik hamargarrenean ezarri dena da*

*Horrela, bada, kontuan hartuta azken xedapen gehigarri horrek ez duela adierazten ereduak hezkuntzako mailen arabera ezarri behar direnik, gerta daiteke Gobernuak, Legearen etorkizuneko arauzko garapen baten, zure kexan azaldu duzun proposamena kontuan hartzea eta horrela egon dauden A, B eta D ereduak unibertsitatez kanpoko hezkuntza maila guztietara hedaraztea eta, beraz, derrigorrezko mailen ondoko maila horietara, gaur gertatzen ez dena.*

*Dena dela, bizi dugun une honetan gertatzen da Gobernuak ez duela oraindik EEPLren 20. artikuluan bildu den ereduaren araupeketaren agindua betearazi eta, ondorioz, erreferentziako esparrua EEPLren xedapen gehigarrietatik hamargarrenean behin eta berriz errepikatu dena da.*

*Xedapen horretan, kexaren idazkiak adierazi diren argudioetan azaltzen den bezala, argi ezarri da irakaskuntza elebiduneko eredu horiek hezkuntza sistema osora hedarazteko agindeia eta, horrek, zure iritziz, egon dauden hiru eredu horiek (B barne) unibertsitatez kanpoko irakaskuntza maila guztietara hedarazteko asmoa bideratzen du.*

*Dena dela, argudio horiek bi ikuspegi desberdinetatik erkatu behar dira:*

*Alde batetik, eta interpretazio maila hertsian mugitzen bagara, adierazi behar da eta hitzen zentzu propioa kontuan hartuta, legearen testuan irakaskuntzako sistemaren erreferentziak bildu direla eta xedea ez dela nahitaez hezkuntzako maila guztiak aipatzea, hau da, beste alde batetik bi kakoren artean sartu den 'hala publikoa nola pribatua' azalpena berresten duenak, aztertzen ari garen erreferentzia eztabaidatuaren atzean. Horrek azaltzen du legelariak "dena" esan duenean ez duela esan nahi 'maila guztiak' 'publikoa eta pribatua' baizik. Erraz frogatu daiteke Legearen testuan irakaskuntzen erreferentzia egin nahi denean berariaz aipatzen direla mailak, esaterako, besteak beste 9. artikuluan (doakotasuna), 16.ean (eskola etekina), 21.ean (hizkuntz ereduaren aldaketa), 24.2.ean (eskola barrutiko bitartekoak), etab.*

*Horregatik, gure irizpidearen arabera, hamargarren xedapen gehigarri horren hitzez hitzezko interpretazio hutsa ez da nahiko esateko irakaskuntzako hiru eredu elebidun horien hedakuntza unibertsitatez kanpoko, hala derrigorrezkoa nola derrigorrezkoaren ondokoa, maila guztiei buruzkoa dela.*

*Beraz, nahitaez sakondu behar da legearen osotasunaren testuinguruan legelariak xedapen gehigarrietatik hamargarrenean adierazi nahi izan duen borondatea zehatz ezagutzeko. Horretarako funtsezkoa da EEPLren xedapen iragankorretatik batean azaltzen den edukia. Xedapen iragankorretatik hirugarrena da eta, horren arabera, hau esan behar da:*

*'Harik eta Lege honen III. kapituluaren aipatzen diren arauzko xedapenak eman arte, indarrean mantenduko da Euskal Herriko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan hizkuntz ofizialek duten erabilerari buruzko uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuan ezarri dena, eta baita arlo honetan aplikagarriak diren gainerako xedapen guztiak ere.'*

*Izaera iragankorra duen klausula honen bidez, hezkuntzako eraldaketaren emaitzako beharrezko moldaketak egin ondoren, ezin da dudatan jarri irakaskuntza elebiduneko ereduen ezarpen bereiztua eskolaurreko edo OHOk aurreko irakaskuntzarekin erkatzeko modukoak edo horiei berdinsteko modukoak badira (hau da, derrigorrezko eskolaratzea bukatu aurreko mailak, gaur egun haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta DBH) edo hortik aurrerako mailak, hau da, BBB, UBI eta LH (hau da, derrigorrezko mailen ondokoak, gaur egun batxilergoa eta LH).*

*Hasieran ohartarazi dugun bezala, hala Euskararen Erabileraren Normalizazioari buruzko Oinarrizko Legeak nola EEPL berak erreferente argia hartu dute irakaskuntzaren esparruan hizkuntz normalizazioaren helburua ezartzerakoan, eta erreferente hori derrigorrezko eskolaratzearen aldia bukatzen den unea bi hizkuntza ofizialen ezagutza egokia bermatzea da. Horrela hezkuntzako maila edo tarteen arabera irakaskuntza elebidunaren eredu desberdinen ezarpenean egin den bereizketa azaltzen da, kontuan hartuta derrigorrezkoa edo derrigorrezkoen ondokoak direla.*

*Arestian esan dena osatzeko adierazi behar da hizkuntz ereduen tresna izaerari buruzko oharra egin daitezkeela, eta baita hezkuntza eskubideak duen izaera prestazionalari buruz ere, eta azalpen horiek Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailaren alegazioetan azaltzen dira... ”.*

- Emaidza

Arartekoak, bukatzeko, esan zuen EEPLren 20. artikulua arauzko garapena itxaron behar dela, hori izan daitekeelako formulatu den asmoa bezalakoak lortzeko bidea. Ordura arte, harik eta hori garatu arte, EEPLren xedapen iragankorretatik hirugarrenean bildu den aurreikuspenak eta egungo xedapen gehigarrietatik hamargarrenaren idazkuntzak, aurreko horren arabera irakurrita, berretsi egiten dute derrigorrezko hezkuntza edo derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza mailaren arabera hezkuntza elebiduneko ereduen ezarpenen aldea, Euskal Herriko unibertsitatez kanpoko hezkuntzan hizkuntza ofizialen erabilera arautu duen uztailaren 11ko 138/1983 Dekretua mantentze delako indarrean. Adierazpen horiek bat egin dute Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak hizkuntz ereduak tresna izaera edukitzeari eta hezkuntza eskubidearen prestazio izaerari buruz egin dituen hausnarketekin (eskura dagoen irakaslego mugatua, etab.).

## 5. FUNTZIO PUBLIKOA

### 5.1. SARRERA

1999an erakunde honek guztira funtzio publikoari buruzko 79 kexa jaso ditu; kopuru hori tramitatu diren kexen %8,81 da. Joan den 1998ko ekitaldiko datuekin erkatuta esan behar da 23 kexa gutxiago azaldu direla.

Tramitatu diren kexa horien edukiari dagokionez 1999ko ekitaldian zehar egin dugun jarduera horren deskripzio laburra egiten ahaleginduko gara funtzio publikoan zehar ibilbidea eginez:

#### **Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa:**

Berriz ere UPV/EHUK irakasle elkartuen kontratuak eta aldi baterako irakasle titularren izendapenak adjudikatzeko deitu dituen lehiaketak eskuhartzearen arrazoi izan dira. Horrela, bada, Arartekoak frogatu du nahiz eta ebaluazio batzordeek beraien ebaluazio irizpideak hurrenez hurren Gobernu Batzordeak onetsi dituen puntuazio marjinei egokitu arren, batzuetan baremoko ataletatik bat edo beste era xehekatuagoan aztertuz gero gertatzen dela motibazio egokia falta dela eta, azken finean, batzorde horien betebeharraren ustezko desbideraketa (2288/1998 kexaren laburpena).

Irakaskuntzaren arloan nabarmendu den beste atal bat erantzukizun profesional eta familiarren batuketa hobearen asmoa izan da. Horrela, esaterako, egonkortasunik gabeko bitarteko irakasle batek aurkeztu zuen kexa azpimarra daiteke; pertsona horrek bere erkidego horri ere amatasun baimenari dagokionez laneko baldintzen Akordioan aurreikusi ziren hobekuntzak aplikatzea eskatu zuen (889/1998 kexaren laburpena). Halaber, adierazi behar da hartze eta adopzio kasuetan gurasoentzako baimenekin berdintzeko eskatu zela.

Ordezpenei dagokienean, aurten ere bigarren hezkuntza eta lanbide heziketako espezialitate jakin batzuetako titulazioen egungo katalogoa zabaltzea eskatzen zuten kexak errepikatu dira. Horietatik, nahiz eta oraindik tramitazio fasean egon, uste dugu interesgarria dela gizakien nutrizio eta dietetikako diplomadun batek aurkeztu zuen kexa, asmo hori Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak 1999ko martxoaren 5ean onetsi duen legez besteko proposamenaren parlamentuko ekimenean ere azaltzen delako.

Ordezpenei buruzko atal horretatik atera gabe, egin diren zerbitzuen zenbatespenari buruzko kexak jaso dira. Zehatzago, dudatan jarri da hezkuntzako administrazioak izan duen jarduna eman diren zerbitzuen zenbatespen orokorretik 31. eguna baztertzeagatik.

Ikasturtearen hasierako kokatze prozesuei dagokienean, kexak jaso ditugu izaera mistoa duten lanpostu huts batzuen taxuketetan aldeak edota dudak sortu direlako; halaber, lanpostu hutsak betetzeko hautespenerako irizpideak eztabaidatzen dira.

Behin eta berriz kexak eragiten dituen beste gai bat lanpostuak ezabatzen direnean eta abar irakasleak antolatzeko irizpideak dira. Irizpide horiek Administrazioak zuhurtziaz arakotasunez aplikatzen ditu, edo era objektiboan, eta oso zaila da erakunde honentzat horrelakoetan eskuhartzea, ez bada horien aplikazioa

zuzena eta egokia dela kontrolatzeko. Hori guztia gora-behera, une hauetan bigarren hezkuntzako irakaslegoaren berregituratzeko datorren ikasturteko prozesuak arduratzen gaitu.

Dena den, bukatu aurretik IRALE egitarauaren barruko euskalduntze eta alfabetatze ikastaroetara iristeari buruzko keak aipatu behar ditugu. Bada, egitarau horren arauketari dagokionez, prestakuntzako jarduerak herri ikastetxeetako eta zentro pribatuetaiko irakaskuntzako langileentzat dira, irakaskuntzako irakasgai guztietakoak alegia. Horregatik Arartekoak gurasoen elkarte batek eskolaz kanpoko jarduerak egiteko kontratatu zuen pertsona baten eskuhartzeko eskabideari gaitziritzi zion.

Eta, azkenik, esparru honetan Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerkuntza Sailari atxikita dauden irakaskuntzako funtzionarioek eta EHU/UPVko Ikerkuntzako langileek aurkeztu zituzten bi keza adierazi nahi ditugu; horien bidez Arartekoari eskatu zitzaion Eusko Jaurlaritzak eta EHU/UPVk Kontseiluak sustatu duen "Bai Euskarari" kanpaina laguntzeko egituratu duten prozedura aztertzeko. Bi eskuhartze horietan Arartekoak esan zuen lankidetzarako prozedura horiek ez zirela ez egokiak eta ez beharrezkoak, ez zutelako inolako loturarik bi administrazio horien derrigorrezko eskumenekin. Horregatik aholkua egin zuen horrelako jarduketetan ahaleginak egin behar zirela lankidetzarako sistemak diseinatzerakoan herri langileek gauza pribatuei buruzko borondateak ez azaltzeko eta ez adierazteko aparatu burokratikoa edo administraziokoa osatzen duten organo edo zerbitzuetan, hala egintzaren bidez nola omisioz, hori Espainiako Konstituzioaren 16.2, 18.1 eta 4. artikuluetan ezarri diren oinarritzko eskubideen bermea delako (165/1999 kexaren laburpena).

### **Osasun alorreko funtzio publikoa:**

Bukatu da Osakidetzak egin duen enpleguaren azken herri eskaintzaren emaitzako kexen tramitazioa. Kexa horietan erakundeak artekaritza egitea eskatzen zen epaimahaiak oposizioako faseko frogaz baztertuailetan erabili dituen irizpide batzuetan eztabaidak sortu direlako. Jakina, Arartekoak ezin du horrelakoetan kontrolik egin, epaimahai horiek zuzentzerakoan teknikoetan oinarrituta hartzen dituzten irizpideak direlako.

Sanitatearen arlo honetan irakaskuntzako arloan ere aipatu ditugun erantzukizun profesional eta familiarren batuketaren beharrezko azaldu da. Zehatzago, seme-alaba zaintzeko eszedentzia jarraikortasunik gabe gozatzeko aukerak agortzea planteatzen zuen tartekaritza eskabidea jaso zen (206/1999 kexaren laburpena).

Lanpostuen hornikuntzari dagokionez. ATS/DUEn lekualdaketen azken lehiaketan eskuhartu zuen pertsona baten kasua aipatuko dugu, APD mediku moduan zerbitzuak eman zituen bitartean pilaketa araubidean eman zituen zerbitzuen balorazio ezagatik protestatuz. Nahiz eta deialdiaren oinarrietan horri buruzko ezer ez adierazi, Osakidetzako arduradunek era egokian bidezkotu zuten erantzun negatiboa, ohartarazi zutelako titularraren kategoriako propioei metatu zitzaizkien zerbitzuen balorazioak Sarrera Araudi Orokorrean ezarri diren manuen aurka joatea ekarriko lukeela, testu horrek gaitziritzi egiten diolako aldi berean eman diren zerbitzuen zenbatekoketa bikoitzari.

Ordezpenei dagokienez, Familia eta Erkidegoaren Medikuntzako espezialitateko MIR espezialisten talde batek espezialitate horretako zerrenden salbuespeneko irekiera

eskatu zuten, ez zutelako aukerarik izan aldi baterako kontratazio zerrendak egin zirenean erabili ziren hautespen-prozesuetan aurkezteko (95eko EEPn ez zuten lizentziaturatik eta 97ko EEPn ez zuten espezialitaterik), ez zutelako espezialitateko lanbide praktikara inkorporatzeko aukera errealik. Osakidetzak. zerrenden sistemaren araupeketari buruzko 1998ko uztailaren 23ko Akordioaren xedapen gehigarrietatik lehenengoan ezarri den aukera erabiliz (*“Zerrendak indarrean daudenean, baldin eta horiek itxita geratzen badira, salbuespen moduan urtero beharizanean aurre egiteko eskabide berriak onar daitezke...”*), 1999an zerrenden irekiera baieztatu zuen eta ondorioz desagertu egin zen kexaren arrazoia.

Halaber, kexak aurkeztu dira euskaldunen kopurua %80tik gorakoa den udalerrietan ordezkariak egiteko ezarri diren hizkuntz beharizunean buruz. Arartekoak agindeia egin dio Osakidetza osasunaren arloko hizkuntz normalizaziorako plan berezia behin betiko onesteko bidezko neurriak arintzeko eta sustatzeko, zertarako-eta hiritarrek jaramona hautatuko duten hizkuntz ofizialean jasotzeko eskubidea eraginkorra izan dadin eta, aldi berean, funtzio publikora iristeko ezarriko den euskararen ezagutzaren betebeharra eztabaidatu ezin diren irizpideen arabera egin dadin.

### **Herrizaingo alorreko funtzio publikoa:**

Arlo honetan tramitatu diren kexak gutxi izan dira eta horietatik Ertzaintzaren agente batek planteatu zuena azpimarratuko dugu; agente horrek Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko epaiaren burutzapenean berdintasunik gabeko tratua salatu zuen, epai horrek adierazi zuelako polizia kidego horretako funtzionario izendatzeko eskubidea zuela. Kexaren zioan esan zuen, bere ustez, ez zirela bete eta aplikatu egoitza ofizialaren arabera destinoaren esleipenaren irizpideak, hau da, berea baino geroagoko funtzionarioen promozioetan lanpostuen esleipen edo hornikuntza prozesuetan aplikatzen zirenak.

Arartekoak kontuan hartu zuen formulatu zen kexa hori bidezkoa zela, kasu guztien behin betiko destinoa lortu arteko behin-behineko atxikipenak zirelako. Dena dela, tramitazio luzea izan ondoren, egia esan Herrizaingo Sailak diferentziak ezartzeko elementu objektiboak alegatu zituen eta horiek argi adierazten zuten prozesu bereiztuak zirela, hala lanpostu jakin batzuk hornitzekoak nola epaia betez zerbitzu aktibora berriz bueltatzekoak. Alde horiengatik ezinezkoa izan zen bereizkeria hori planteatzea eta, beraz, erabaki zen administrazioko jarduketak ez zuela berdintasun eskubidea hausten.

### **Funtzio publiko orokorra:**

Enplegu eskaintza publikoen deialdian atzerakuntzak egoteagatik, epaimahaien edo hautespenerako batzorde teknikoaren jardunean arbitraritatea egoteagatik eta abarregatik ohikoak diren kexak ezezik, sarreraren arloan aipatu behar da *“era guztietako lenteak dituztenak, edo astigmastismo edo miopiako edozein mota edo gradu duten”* lanpostugaiak baztertzeari buruzko kexa bat; beharizun hori besteak beste hamar sargentu plaza betetzeko deialdiaren oinarrietan zegoen. Kasu honen azterketan frogatu zen baztertzeko klausula hori ez zegoela berdintasun oinarriaren aurka (99/1999 kexaren laburpena).



Halaber, beste kexa baten dudatan jarri zen epaimahai kalifikatzaileak ez zuelako hautespen froga bat eten nahiz eta EAEn egun horretan izan ziren baldintza klimatologikoek izugarri konplikatu errepidezko trafikoa (elurtza handiak, etab.). Arartekoak ohartarazi zuen erabaki horrek bidezkoketa egokia behar zuela, horrela egiten ez bazen ahalmen jakin baten gehiegikeriazko eragiketa izan zitekeelako, eta nahiz eta hori zuhurtzarazkotasunezkoa izan, era egokian bidezkotu behar dela; azkenean inguruabar hori baieztatu egin zen erakundeak egin zuen eskuhartzeari eman zitzaion erantzunean.

Sarrerei buruzko atal hau ixteko, nahitaez urtero sarrera prozeduren espedientetara iristeko eta horiek ikusteko errepikatzen diren inguruabarrak interesatu kopuru handiak dituzten sarrera prozeduretan aipatu behar ditugu (389/1999 kexaren laburpena).

Funtzionarioen karrera igurikapenetan sartzten diren sustapen eta mugikortasun aukerei dagokienean, uste dugu komeni dela gai bat azpimarratzea, nahiz eta tramitatu diren kexa batzuetan zeharka baino ez den azaltzen; dena den, gaia alternatiba bihurtu daiteke langilegoa berriz antolatzeko beharrianak sortzen direnean: sustapena kidego berezietatik kidego orokorretara egiteko aukera, batez ere tamaina txikia duten toki administrazioetan.

Funtzionarioen eskubide eta betebeharren arloan kexa bat jaso da udal musikarien irakaskuntzako jarduerak egitea (musika eskolako irakaslea) eta jarduera profesionalen (musika banda) arteko ustezko bateragarritasunari buruz (364/1999 kexaren laburpena).

Erakunde honek, halaber, foru administrazio bateko enplegatu baten kexa aztertu du; pertsona horrek bere ibilgailu partikularra konpontzeagatik gastuak ordaintzea eskatzen zuen, zerbitzuagatik egin zuen lekualdaketa baten istripua izan zuelako. Arloan ez dago jurisprudentziako ildo sendorik eta horregatik uste dugu ezinezkoa dela bidezko foru arduradunak hori ukatzeko hartu zuen erabakia irregularra edo arbitrarioa izan zela adieraztea.

Bukatzeko, lan baldintza jakin batzuei buruzko kexak aurkeztu direla esan behar dugu; horien tramitazioan herri zerbitzuen antolakuntza edo jardunbide irizpideekin ados ez egotea gertatu da eta, horrelakoak dira, besteak beste, laneko egutegia eta ordutegiari buruzkoak, eta ezin dute Arartekoaren eskuhartzerik eragin, irizpide horiek herri administrazioek zerbitzu guztien antolaketa eraginkorragoa lortzeko antolatzeko duten ahalmenaren arlokoak direlako.

Ordezpenen arloaren barruan, EAeko Administrazio Orokorrean HAEEn aurkako kexak azaldu dira, burtsetan dauden kideei ukatu egiten zaielako aldi baterako baja egoera pertsona horiek beren lan jarduerari edo bide profesionalari ekiteko autonomoena hautatzen dutenean (207/1999 kexaren laburpena).

Azkenik, EAeko Administrazio Orokorreko sail batzuetan laneko ordutegiaren barruan euskarazko prestakuntza ikastaroak egiteko baimenen emakidari buruz jaso diren kexak adierazi nahi ditugu. Planteatu diren kasu horien azterlan xehekatua egin ondoren erakunde honek frogatu du batzuetan aplikazioko arautegiko sartzeko irizpideak ez direla era egokian aplikatu eta tratamendu desberdinak eragin dituztela ikastaro horiek egiteko eskabideak aurkeztu duten enplegatuen artean (976/1999 kexaren laburpena). Aldi berean, kexa horien tramitazioarekin argi geratu da Administrazioak ez duela betetzen bere egintzat motibatuzko betebeharra, batez ere administrazio errekurtsoei buruzko ebazpenetan (983 /1999 kexaren laburpena).

## 5.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Eskubideak eta askatasunak

⇒ *Intimitaterako oinarrizko eskubidea eta Eusko Jaurlaritzak Kontseiluak antolatu zuen “Lanordu bat Bai Euskarari akordioaren alde” kanpaina laguntzeko onetsi zuen prozedura (165/1999 talde espediente)*

#### • Erreklamazioa

Herri ikastetxeetako irakasleen elkarte batzuk eta hezkuntzaren arloko sindikatu batek Arartekoarengana jo zuten Kontseiluak (Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak) antolatu zuen “Lanordu bat Bai Euskarari akordioaren alde” kanpaina laguntzeko Eusko Jaurlaritzako eskumendun organoek onetsi zuten prozedura salatuz. Kexa horien arrazoian esaten zen interesatuek uste zutela prozeduraren aplikazioak intimitaterako oinarrizko eskubidea hausten zuela.

#### • Azterketa

1. Eusko Jaurlaritzako eskumendun organoen eskuhartzea, era erraztuan laburtzeko, era honetan gauzatu zen: kanpainarekin bat egiteko erabakia hartu ondoren euskal herri administrazioa osatzen duten ikastetxe eta bulego guztietara agindeiak igorri ziren herri langile guztiei inprimaki bat helarazteko; inprimaki hori borondatezkoa zen eta horren bidez nahi zutenek lan ordu bat Kontseiluari emateko aukera zuten. Inprimaki horretan sinatzen zuten funtzionarioak nomina helbideratuta duen erakundeari jakinarazten zion arestian adierazi den kanpaina horri munta jakin bat eman nahi ziola (laneko ordu bati dagokiona) eta bertan azaltzen zen kontu korronteetariko baten ingresatzeko eskatzen zion. Inprimaki horiek, bete ondoren, zerbitzuetako zuzendaritzetara edo Gobernuako sailetako langilegoaren kudeaketarako bidezko organoetara igortzen ziren, interesatuek zuzenean edo, hala zenean, tartekaritzaren ardura zutenek. Ikastetxeen kasuan dokumentu horiek Hezkuntza. Ikerketa eta Unibertsitateak Sailerara igor zitezkeen, zuzendarien bidez, edo zuzenean, interesatuek eurek igorrita. Inprimakien azken helbidea Ogasuna eta Herri Administrazio Saileko Funtzio Publikoko Zuzendaritza zen eta, erakunde horrek, aztertu eta kasu bakoitzean aplikatu behar zen zenbatekoa erabaki ondoren, bidezko euskarri magnetikoetan sartu behar zituen eta horiek banketxeetara igorri behar ziren. Adierazi zigunaren arabera inprimaki horiek, paperean, Funtzio Publikoko zuzendaritzan gordeko dira hilabeteko epea bete arte, interesaturen batek erreklamazioaren bat egiten badu. Adierazi den epe hori iraungita inprimakiak deuseztu egin ziren.

Informazio osagarri bezala, Eusko Jaurlaritzak jakinarazi zigun prozesuan zehar ez zela ekarpena egin duen edo egin ez duen langileriaren zerrendaren inolako fitxategirik egin. Esan zuten langileek bete zituzten inprimaketan azaltzen ziren datuak helburu horretarako baino ez zirela erabiliko. Datu horiek desagertu egingo zirela prozesua bukatzearekin batera, hau da, 1999ko apirilaren 1ean, bai paperean zeuden inprimakiak apurtuta eta bai banketxeetara igorri ziren euskarri magnetikoak suntsituta, eta horiei ondore horietarako aginduak emango zitzaizkiela. Esan zuten adierazi den data hori igaro ondoren ez zela datu horiei buruzko inolako aztarnarik egongo, ez nominak

kudeatzeko sistema informatikoan eta ez Administrazio honen Langileriaren Erregistroan. Horrekin guztiarekin kanpaina horretan eskuhartu nahi zuten enplegatuen pribazitatea bermatu nahi zen, izaera pertsonala duten datuen tratamendu automatizatua arautzen duen 5/1992 Lege Organikoa erabat eta zurrun betez alegia.

2. Oinarrizko eskubideak ukitu direla adierazten duen ikuspegitik, nahitaezkoa da Eusko Jaurlaritzako eskumendun organoen eskuhartzearen barruan bi fase desberdin bereiztea. Lehenengo eta behin, horrela egin nahi zuten funtzionarioek laneko ordu bati dagokion munta emateko prozeduraren diseinua eta burutzapenari dagokiona. Bigarrena, inprimakiak bete ondoren Eusko Jaurlaritzak eskuratu zituen datu horien kudeaketari dagokiona. Ustez eskuhartze horiekin uki daitezkeen oinarrizko eskubideak, hasteko, eta lehen fase horretan, ideologiari buruzko adierazpenik ez egitea (EK, 16.2. art.) eta norberaren intimitatearen eskubidea dira (EK, 18.1. art.). Bigarrenean, datuen tratamendu automatizatuaren ikuspegiko intimitatearen eskubidea (EK, 18.4. art.)

3. Eusko Jaurlaritzako organoek aztertu den kanpaina horretan aritzeak, arestian adierazi den lehen fase horretan, bere antolakuntzako bitartekoen erabileran gauzatu zen, inprimakiak funtzionario guztiei helarazteko, horien bidez interesatuek, nomina helbideratuta duten banketxeei sarrera egiteko bidezko aginduak eman ondoren, ekarpenak egiteko. Inprimaki hori kanpaina lagundu nahi zutenek bete behar zuten, ez beste inork. Edozein eratako arrazoi pertsonalengatik kanpaina horrela lagundu nahi ez zutenek ez zuten ezer egin behar.

Aurrean adierazi den deskripzio horren arabera uste izan genuen askatasun ideologikoaren oinarrizko eskubideari lotuta egon daitekeen fenomenoaren aurrean geundela eta, zehatzago, ikuspegi negatibotik gaiari buruzko inolako adierazpenik ez egiteko eskubidea. Konstituzio Auzitegiak 1993ko urriaren 18ko 292. zenbakiko Epaiaren esan duen bezala *“...askatasun ideologikoa, tolerantzia eta diskrepantzia eta diferentziarekiko begirunearen oinarritzen den abiaburu pluralistak eraentzen duen testuinguru demokratikoa, bizitza pertsonalean eta sozialean azaltzen diren aukera guztiak biltzen dira eta ezin dira erlijioaren arloan eta gizakiaren destinoan eduki daitezkeen ziurtasunetara mugatu, eta berariaz horrela adierazten du Konstituzioaren testuak eskubidearen adierazpen moduan “askatasun ideologikoa eta kultura” eta “ideologia, erlijioa edo sinesmenak” bereizten dituztean”*.

Funtzionarioen talde batek kexa aurkeztearekin izan dugun ondorioa argia izan da, gutxienez ardura horrekin Arartekoarengana jo dutenek nolabaiteko “presioa” nabarmendu dutela egin zitzaizen gonbidapenari erantzuterakoan.

Gure ustez Kontseiluaren kanpainarekin bat egiteko proposamenak, Administrazioak diseinatu zuen prozeduraren bidez gauzatu zena, agian berak bakarrik ez zuen eragin ideologiari buruzko inolako adierazpenik ez egiteko eskubidearen hausturarik, nahiz eta nabarmendu zuten “presio” hori hori egon. Lehenengo eta behin, kanpaina laguntzeko erabakia erabat zelako borondatezkoa eta ez zegoelako inolako derrigortasunik eta, baldin eta sistema horren bidez laguntzen ez bazen ez zen beharrezkoa azalpenik ematea. Gai zehatz horri buruz komeni da jurisprudenziak esaten duena adieraztea. Horrela, Auzitegi Nagusiak 1997ko urriaren 20ko Epaiaren (Ar. 1997/7680), PFEZren aitortpenaren inprimakia betetzerakoan eliza katolikoari dagokion zergaren portzentaiaren laukitxoia betetzerakoan norberaren sinesmenak ez adierazteko eskubidea haustea izan daitekeela eta, ondokoa adierazi du *“...argi dago kasu honetan ez dela*

*gertatu, aurkaratu den egintzan ez delako adierazi (autoaitorpena), baina, halaber, Erliño Katolikoari esleitzen zaion ezarpenak ere, kasu jakin honetan berariaz katolikoak ukitzen dituenak, ez du eskubide hori hausten, argi dagoelako oinarritzko eskubide guztiekin gertatzen den bezala, honek ere mugak dituela eta kasu honetan gastuaren aurre-ekarpenaren aitortpena bidezkotuta dago eta arrazoizkoa da, eta horiek (sic) berariaz erabili behar dira helburu horretarako. Beste alde batetik, destino hori hautatzeak ere ez du esan nahi derrigorrez erliño hori duenik, ezin delako baztertu helburu hori beste zio batzuegatik ere aukeratu daitekeela, adibidez, erliño jakin bateko kide izan ez arren, gizarte mailan jarduera garrantzitsua egiten dutela uste izatea”.*

Gure azterketaren gai horri auzitegiko tesi horiek aplikatuz, aurreratu dugun bezala, laguntzeko gonbidapen hutsak ez du ustez ukitzen norberaren ideologiari buruzko adierazpenik ez egiteko oinarritzko eskubidea. Beste ikuspegi batetik, kanpaina horrekin bat ez egiteak ez zuen esan nahi, ezta omisioz ere, interesatuaren euskal hizkuntza laguntzeko era jakin batzuekiko jarrera positibo edo negatiborik adierazten zenik. Herri enpleguak bidezko inprimaki hori ez formalizatzearen arrazoiak beste era batzuetakoak izan zitezkeen eta omisio horrek ez zuen laguntza faltarik adierazten.

4. Intimitatearen oinarritzko eskubidearen ikuspegitik, arestian prozeduraren lehen fasetzat definitu den horri dagokionez, uste dugu horren inplementazioak ere ezin duela, *per se*, horren gozamenaren gainean eraginik izan, eskubideari dagokionez ez dutela atzez egiten pribatitatearen esparrukoak izan daitezkeen datu batzuei buruzko adierazpen pertsonal eta borondatezkoen legezko emaitzak. Gure azterketari lotuta egon den gai honen eta jarraian adieraziko denaren artean argi eta garbi dauden aldeak gaudituta, adibidez, aurrez baimena eman ondoren enplegatuak langileen ogibidesarietatik afiliatuta dauden sindikatuak kuoten zenbatekoa kentzea, hau da, LOLS delakoaren 11.2. artikuluan ezarri dena, legezko jardura da, eta horrela adierazi du Konstituzio Auzitegiak urtarilaren 13ko bere 11/1998 Epaian, “...*errekurtsua jarri duen langileak sindikatu jakin batetik afiliazioa legezko helburu bakar eta bereziarekin eman zen, enpresak ogibidesaririk sindikatuaren kuota kentzea eta munta hori sindikatuari transferitzea, LOLS delakoaren 11.2. artikuluan ezarri dena betez*”.

Kasu honetan aztertzen ari garen gai honetan Administrazioaren eskuetan borondatez datu pertsonal jakin batzuk jartze -izen-deiturak, NAN, eta atxikita dagoen saila- gero, zerbitzu horien jabetzan jardun dezaketenekin elkarlotuta, sustatu den kanpaina horren helburua lortzeko, ez zuen, jakina, eskabidea maila positiboan erantzun zutenen intimitatea hautsi, informazio horien transferentzia norberaren erabakiaren emaitza izan zelako. Horrela, bada, egin zen gonbidapenari ez erantzutea ezin da kalifikatu, inondik inora, norberaren intimitatearen hausturatzat, isiltasun horretatik ezin delako esan norberaren pribatitatearen esparruaren legez aurkako sartzetik gertatu denik. Konstituzio Auzitegiak apirilaren 22ko bere 142/1993 Epaian, esan du “...*Intimitatearen ezaugarriak garrantzitsuena, nortasunaren erdiko gunea den neurrian, gainerakoak baztertzeko ahalmena da, inoren eraginak ez egotea, eta baita datu horien legez aurkako hedakuntza ere*”.

5. Azken toki horretan aipatu dugun Konstituzio Auzitegiaren adierazpen horren edukia baieztatuz, aztertu dugu ea zilegi den formalizatu diren inprimaki horietatik eskuratuko diren datuen kudeaketarako ezarri den prozeduran EK-ko 18.4. artikuluan ezarri den eskubidea haustea, hau da, datuen tratamendu automatizatuaren ikuspegitik

dagoen intimitatearen eskubidea. Konstituzio Auzitegiak urtarrilaren 13ko bere 11/1998 zenbakiko Epaian, adierazi du EKko 18.4. artikulua -Legeak informatikaren erabilera mugatuko du hiritarren ohore eta intimitate pertsonala eta familiarra eta horien eskubideak erabat bermatzeko- “...esan den bezala, hiritarraren eskubidea teknologia informatikoaren erabilera ez-egokitik babestu ezezik, aldi berean pertsona bakoitza ukitzen duten informazioen fluxua kontrolatzeko oinarrizko eskubide autonomia nagusi bihurtzen du -Datu Pertsonalen Tratamendu Automatizatuari buruzko Lege Organikoaren zioen azalpenean adierazten den pribazitateari-, zentzu hertsian intimitatekoak izan zein ez izan, horrela beren eskubideen betearazpen osoa zainduz. Ahaleginak egiten ditu datu pertsonalen informazioak bereizteko jarrerarik eragin ez dezan”.

Beraz, ondorio bezala esan genezake funtzionarioek Kontseiluaren kanpaina horri laguntzea sustatzeko diseinatu zen prozedura horrekin bat egiteko gonbidapen hutsa, *per se*, ez dela nork bere ideologiari buruzko adierazpenik ez egiteko eskubidearen inolako hausturatik (EK, 16.2. art.) eta norberaren intimitatearen aurkakorik (EK, 18.1. art.). Dena dela, argi dago Administrazioak aztertu den prozedura horren betearazpenean eskura ditzakeen datuen erabilera ez-egokiak eragin dezakeela intimitate horren aurkako erasoren bat, hala gonbidapena era positiboan erantzun zutenentzat nola, baztertzeko hutsarekin, erantzun ez zutenena. Administrazioak, uste dugu gai honen jakitun, datu horien kontrol eta erabilerarako, eta baita horien euskarriak apurtzeko, paper zein magnetikoak, segurtasun eta berme neurri batzuk zuzkitu zituen. Datu horien legez aurkako edozein erabilera antolamendu juridikoan aurreikusita dago eta horrelakoetan erantzukizunak argitzeko mekanismoak, esparrua edo jurisdikzioa gora-behera, bere burua ukitutzat jo dezakeen edonork jar ditzake abian.

6. Aztertzen ari garen prozedurak berezitasun bat du administrazioeko zentro batzuetan izan duen aplikazioarekiko, esaterako irakaskuntzakoetan, eta horietan sortu da kexa. Berezitasun horrek eraginak izan ditzake prozedura egin den ezkutukotasun horretan. Erakunde honen irizpidearen arabera, izaera hori duten zentroen egiturazko berezitasunek ezkutukotasun hori zaintzeko zailtasunak eragiten dituzte eta horietan nabarmenagoa zen kexaren sustatzaileek salatu zuten “presio” hori. Jakin dakigu egoera hori ez zela gobernuko arduradunek nahi zutena. Dena dela, eta hau ere gure ondorioa da, datuak biltzeko lehen urrats horietan behintzat, adierazi ditugun ezaugarri horiek dituzten zentroetan, ez ziren era egokian “blindatu”, igorri ziren agindeietan ez zelako berariaz adierazten lehen jarduketa horretatik hasita nahitaez nagusia izango zen ezkutukotasun horren beharrik.

7. Gaiari buruzko gure balorazioan nahitaez azaldu behar dute berezitasun batzuei buruzko erreferentzia batzuk, mota honetako jarduketetan azaltzeagatik gero gure ondorioen formulazioan eragina izan ditzaketanak.

Lehenengo eta behin, argi adierazi nahi dugu Arartekoaren erakundeak, euskarari eta horrek Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial moduan duen ezarpenari buruzko gaia baloratzerakoan, uste duela fenomeno honetan hertsiki irizpide juridikoak gainditzen dituzten errealitateak biltzen direla. Horrela, “**Irakaskuntzako herri ikastetxe jakin batean hizkuntza erdua hautatzeko eskubidea, berdintasun eta hezkuntzako konstituzioko eskubideei dagokienez**” epigrafea duen eta 1991ko txosten arruntan azaldu zen izaera orokorreko aholkuan, besteak beste hau esan zen: “*Nahitaez adierazi behar da, halaber, hizkuntz eskubideen aplikazioak oso zama sentimental handia*

*daramala lotuta eta, kasu jakin batzuetan horregatik sortzen diren gatazkak ez dira lasaitasun egokiz aztertzen eta, beste alde batetik, erraza da horiek alderdikeriazko ikuspegitik erabiltzea. (...) Ararteko honek argi ikusi du planteatu den gai honen azterketan maiz emozioen arloko faktoreak ateratzen direla, Walter Kämpfer-ek oso ondo adierazi duen bezala eta horregatik gaia berariaz dela konplikatua eta derrigorrezkoa dela herri botereek (Estatuak eta autonomia erkidegoek), honen tratamendu eskuzabal eta ulerkorra egitea, eta baita hezkuntzako erkidegoak ere: irakasleek, ikasleek eta ikasleen gurasoek”.*

Bigarrenean, kontuan hartu behar da Kontseiluaren kanpainen laguntzeko eta prozedura zehatz bat diseinatzeko eta betearazteko Eusko Jaurlaritzako eskumendun organoen erabakia ez dela hartu eskuratu ezina edo nahitaezkoa den eskumena betez.

Balorazioa era egokian egiteko -auzitegiz kanpoko faktoreak azaltzea eta nahitaezkoak ez diren eskumenak betez Eusko Jaurlaritzako organoen erabakia- esan behar dugu gure aburuz, hartu den prozeduran eskuhartzeko gonbidapena eta horren betearazpenak ez dituela *per se* ustezko gonbidapenaren jasotzaileen eskubiderik hautsi ez arren - 6. zenbakiko idatz-zatian ezkutukotasunari buruz egin den erreferentzia gora-behera -, aldi berean egia da eragiketa horren diseinuan, hasieratik, zilegi zirela beste irizpide batzuk eta horiei esker asepsia gehiago lortzea, ahalik eta gehien ekidinez herri langile batzuk gai horri buruz adierazi zuten ustezko “prezioa”.

Herri administrazioek, dituzten erantzukizun publiko horiek betearaziz, konstituzioan ezarri dena kontuan hartuta, hala denean, horiek garatzeko arauak kontuan hartuz, hiritarren oinarritzko eskubideak muga ditzakete lehentasun osoa duten edota interes orokorra lortzeko beste eskubide batzuen gainetik. Dena dela, murriztu egin behar da herri erantzukizunetatik kanpo herri administrazioetako organoen jarduketaren emaitza izan daitekeen pribazitatearen gunea ukitzeak -horiek interes orokorreko helburuei lotuta egon arren ez direlako herri botereen adierazpenak-, eta hori horrela da edozein hiritarrentzat, nahiz eta hori bere intimitatea zorrotzen zaintzen duena izan, eskuhartzea izan daitekeena ekiditeko. Ezin dugu ahantzi, gai honi dagokionez, pribazitatearen edukiak, horrelako kasuetan, pertsonak beste muga azaltzen dituela.

Arestiko hausnarketa horrek ezin gaitu, derrigorrez, herri botereek inolako dudarik sortzen ez duten interes eta legezko helburuak lortzerakoan ekimen pribatuekin lankidetzan aritzeko aukerarik ez dutela esatera eraman, besteak beste hori antolamenduan dagoelako ezarrita. Horrelako kasuetan, hiritar bakoitzaren ikuspegitik egon daitezkeen irizpide desberdinak egotea kontu handiz neurtu eta zenbatetsi beharreko gauza da jarduera jakin bat sustatzerakoan. Herri erantzukizunaren betearazpenaren ikuspegitik, irizpideen arteko alde horren erantzun jurisprudentzial positiboa izan du administrazioako jarduketaren zuzenketari dagokionez. Baina, hori gora behera, berriz ere azpimarratzen dugu liberalitatearen esparruan burutu diren jarduketa horien balorazioei buruzko alde horiek oso kontuan hartu behar zirela, arestian esan dugun bezala. Orduan uste izan genuen Eusko Jaurlaritzak Kontseiluaren kanpainari eskaini zion laguntza pribazitatea begirunez zaintzen duten beste mekanismo batzuen bidez gauzatzeko aukerak zeudela, pribazitatetzat hitz horren zentzurik zabalena eta pertsonalena ulertuz, inolako eztabaidarik gabe, horrela argi eta garbi funtzionario batzuk kanpainarekin bat egiteko edo ez egiteko erabakitzerakoan pairatu zuten askatasun faltaren sententzia ekidinez.

- Emaidza

Arartekoak aholkua igorri zion Eusko Jaurlaritzari; horren zati xedatzaileak hau dio hitzez hitz: “*Gutxieneko eskuhartzearen oinarria betez, Eusko Jaurlaritzak ukaezinak diren bere eskumenekin lotuta ez dauden lankidetzajarduketak sustatzea edo burutzea erabakitzen duenean, ahaleginak egin beharko lituzke proposatu edo taxutuko diren eskuhartzeko prozedura horien diseinuan ez sartzeko herri langileek burokrazia edo administrazioko aparatua eratzen duten organo edo zerbitzuetan beraien pribazitateari buruzko borondateren bat adierazteko beharkizunik, hala egintzaren bidez nola omisioaren bidez, hori Espainiako Konstituzioaren 16.2, 18.1 eta 4. artikuluetan ezarri diren oinarrizko eskubideen bermea delako*”. Eusko Jaurlaritzak berariaz adierazi zuen aholkua onartzeko ustea.

## B) Polizia alorreko funtzio publikoa

⇒ *Udaltzaingoko funtzionarioek duten adierazpen askatasunaren oinarrizko eskubidea, lotura bereziko harremanen esparruan (1858/1997)*

- Erreklamazioa

Udal bateko Udaltzain funtzionario batek Arartekoari jakinarazi zion eskumenak dituzten organoek zehapena ezarri ziotela bere nagusiei igorri zien idazki bategatik eta horregatik azaldu zuen kexa. Idazki horretan zerbitzuaren antolakuntzari buruzko kritika batzuk adierazi zituen.

- Azterketa

Eskuratu duen informazioaren arabera, Arartekoak uste du toki korporazioak gaitziritzi zuen jarrera hori interesatuak bere nagusiei igorri zien idazkia izan zela, horretan ondoko esaldia azaltzen zelako “*Burutzak benetan nahi al du egutegi itxia? edo, hori plantilarako baino ez du nahi eta beretzat irekita utzi?*”.

Arartekoaren ustez interesgarria da adieraztea zehapena jaso duen jarrera hori poliziaren kidego baten baitan buruen eta horien menpekoen artean dauden harremanen esparruari lotuta dagoela, idazki hori argi eta garbi zegoelako lotuta zerbitzuaren arloko gai bati, zehatzago, laneko egutegiaren zehaztapena eta horren aplikazio estua. Ondorio hori garrantzitsua izan zen dudatan jarri zen poliziaren jarduketa neurtzerakoan, ezin delako ahaztu espediente ireki zitzaion poliziaren jarrera antolamendu juridikoaren arabera dagozkion eskubide batzuen burutzapenarekin lotuta egon daitekeela.

Udaltzaingoen poliziak atera zuen ondorioa idazkian azaltzen ziren esaldi horiek burutzaren aurkakoak zirela esatea gora-behera, egia da, bai, Arartekoaren ustez beste funtzionario bat kaltetzen zuen okerreko jarduketatzat jo beharrean -zehapen-espediente tipifikatu den jarrera- hiritar guztientzat aintzatetsita dagoen askatasun eskubidearen burutzapentzat jo behar ziren. Egia da lotura berezien araubidea duten harremanen esparruan, eta zehatzago polizia kidegoen kasuetan, jardunbideari dagokionez hierarkia eta menpekotasun oinarriari lotuta daudenak, adierazpen askatasunaren eskubidea erabiltzeak muga batzuk dituela eta horiek ez zaizkiela gainerako funtzionarioei edo gainerako hiritarrei aplikatzen; baina, hori guztia gora-behera, horrek

ezin du esan erabat baztertu behar denik. Aztertzen ari garen kasu honetan beharrezkoa da esatea idazki horrek ez zuela inolako publiztaterik izan. Gai honen balorazioari ekiteko beharrezkoa izan zen Konstituzio Auzitegiaren bi adierazpen aztertzea. Horrela, adibidez, 69/1989 epaiak, 81/1983 zenbakikoan poliziako funtzionarioen askatasun eskubidearen mugei buruz adierazi zen doktrina errepikatu ondoren, ondoko oharra egin zuen: *“Muga berezi horrek ez du esan nahi, argi dago, Segurtasun Kidego eta Indarren kideek beraien goragoko hierarkikoei buruz edozein kritika egiteko eskubide guztiak galtzen dituztela, edota beraien lanbideko eskubide edo interesak defendatzeko sindikatu bateko kide izateko askatasuna mugatzen zaiela, horrela balitz ez litzatekeelako kontuan hartuko Konstituzioko 20.2.a) eta 28.1. artikuluetan aintzatetsi diren eskubideen edukia, eta areago kontuan hartzen bada Auzitegi honek behin eta berriz errepikatu duen doktrinaren arabera, informazio eta adierazpen askatasunak aintzatetsi behar badira, horiek funtsezkoak direlako iritzi publiko askea bermatzeko”*. Ildo beretik, Auzitegi beraren 270/1994 zenbakiko epaia kritika egiteko askatasun horri edozein muga jartzearen aurka azaltzen da ondoko termino hauetan: *“Toki honetan bertan esan genuen eskubide horri buruzko edozein muga kasu bakoitzean aztertu behar dela eta horiek hertsiki interpretatu behar direla. Azkenik, 69/1989 KAEn, arestiko ezaugarri horiek azpimarratu ondoren, ohartarazi genuen muga zehatz horiek ez dutela lan eskubideak defendatuz Segurtasun Kidego eta Indarretako kideek beraien nagusien aurka egiten dituzten kritika askatasun osoa baztertzen, ez bakarrik horrela eginez gero galdu egingo litzatekeelako EKko 20.1.a) artikulua, baizik eta beharrezko neurriak zaindu gabe egingo dena, eta horregatik zehapen-organoek eta zehapen-erabaki hori berrikusi behar duten auzitegiko organoek funtzionarioak bere konstituzioko eskubideekin eta funtzionarioak diren ginoan bete behar dituzten betebeharren emaitzako erabilera horren mugekin egin duen erabilera hori neurtuko dituzte, beti ere gertatu diren inguruabarrak kontuan hartuta”*.

Udalak uste izan zuen interesatuaren jarduketa horrekin bere adierazpen askatasunaren eskubidea erabiltzeko mugak gainditu zituela, labur bilduz, ondoko arrazoi hauengatik: a) interesatuak lotura berezia duen harremana duelako; b) pertsona zehatuak Udaltzaingoaren antolakuntzako egituraren antzematen zuen tokiagatik, bere iritziz, inguruabar hori neurtu egin behar zela mugaz gainditu ziren ala ez neurtzerakoan, eta c) pertsona zehatuak egin zituen adierazpenek ez zutelako betetzen nagusiei zor dien begirunea, egutegiaren aplikazioan horiek izan zuten kudeaketa kritikatu zuelako eta dudatan jarri zuelako, eta, horrek, aldi berean, arriskuan jarri zuelako zerbitzuaren jardunbide ona. Eta hori guztia Konstituzio Auzitegiak eskuztatu duen irizpidea aplikatuz da, ustezko gehiegikeria hori antzematerakoan kontuan hartu behar delako ondokoa: *“baldin eta oinarrizko eskubide baten edo askatasun publiko baten erabilera muga bat hausteak bere nagusi hierarkikoen agintea dudatan jartzen badu eta baldin eta jarduketa horrek zerbitzuaren jardunbide ona kolokan jartzen badu”*.

Arartekoa ez zegoen zehatu zen adierazpen askatasun eskubidearen erabilera gehiegikeriaz erabiltze horrekin ados, zerbitzuari buruzko erabaki batzuk era negatiboan baloratze hutsak -kasu jakin honetan nagusi bati zuzenduta eta inolako eragin publikorik gabe - ez zuelako nahitaez poliziaren herri zerbitzua arriskuan jartzen, eta gutxienez guk eskura izan dugun informazioaren arabera, ezin da esan aztertu den kritika horrek zerbitzuan gorabeherarik sortu zuenik.



Gaiari buruz esan behar da Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzibideetarako Salak, 1998ko otsailaren 5eko Epaiaren bidez, baliogabekotzat jo zuela maiatzaren 3ko 170/1994 Dekretuaren -Udaltzaingoko polizia aplikatzen zaiena- bidez onetsi zen Euskal Herriko Kidegoen Diziplinazko Araubideari buruzko Araudiaren 9.8. artikulua, horren arabera zehatu beharreko jarreratzat jotzen zirelako “*Nagusien erabakiekin, zerbitzuko gai, disziplina edo Kidegoko harmoniazko harremanekiko kritika edo adostasun eza adierazten duten jendaurreko adierazpenak, ahozkoak zein idatzizkoak*”.

- Emaidza

Arestian adierazi diren iradokizun eta balorazio horiek bidezko Udalar jakinarazi zitzaizkion, bidezko ondoreetarako, eta ez zitzaion gure azterketarako aurkeztu zitzaigun gaiari buruzko aholku zehatzik egin, ezarri zen zehapenaren idaztoharra kitaturik zegoelako espedientearen eta interesatuak ez zuelako pairatu -horren ondorioz- inolako kenketarik funtzionario bezala zituen eskubideetan.

### C) Administrazioaren jardunbidea eta prozedura administratiboa

⇒ *Hizkuntz eskakizunak benetakotzeko frogetan ebaluazio eredu bezala erabiltzen diren grabazioak lortzea (2265/1998)*

- Erreklamazioa

Irakaskuntzako funtzionario batek erakunde honen eskuhartzea eskatu zuen Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak ukatu egin ziolako hizkuntz eskakizunak benetakotzeko frogetan ebaluazio eredu bezala epaimahaiak erabili zituen grabazio batzuetara iristea.

- Azterketa

Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administraziooko Prozedura Erkideari buruzko abenduaren 26ko 30/92 Legearen 37. artikuluan oinarri orokor bezala ezarri da ondokoa: “*hiritarrek, espediente baten atal izanik administrazioko agiritegietan dauden erregistro eta agiritegietara iristeko eskubidea dute, horien adierazpena gorabehera, grafikoa, soinua edo irudia, edo horiek dauden euskarri materiala gorabehera, baldin eta espediente horiek eskabidea egin den data horretan bukatuta dauden prozeduretakoak badira*”.

Eskubide hori betearazteko dauden ustezko salbuespenei dagokienez artikulua horretan bertan ukatzeko eskubidea ezartzen da herri intereseko arrazoiek lehentasuna dutenean, babestu behar diren gainerako beste interes garrantzitsuagoak daudenean edota lege batek hori ezartzen duenean; kasu guztietan ebazpen arrazoitua eman behar da.

Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak eman dizkigun datuen arabera interesatuaren eskabideari gaitziritzeko arrazoiak hizkuntz eskakizunen deialdi askearen oinarrietan ezarri zen betebeharra izan zen, azterketako materialen sekretotasuna bermatu behar zelako (horien artean, zinta euskarriko grabazioak).

Horrelako aurreikuspen edo kautelek ezin dituzte, dena den, aurrez aintzatetsita dauden eskubideak hautsi, esaterako dokumentuetara iristeko eta horiek ikusteko eskubidea, horietan ezin delako aplikatu irisgarritasun eskubide hori ustez ukatzeko planteia daitezkeen kasuetatik bat ere. Horrela, ez dago inolako herri interesik edo ez dago babestea merezi duen gainerako duinagorik grabazioetara iristeko baimena ukatzeko oinarritzat erabiltzeko.

- Emaizta

12/1999 aholkua formulatu zen. Aholku horretan agindeia egin zen kexaren sustatzaileari epaimahai kalifikatzaileek erabili zituzten grabazioetara iristea bideratzeko. Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak onartu egin zuen aholkua.

⇒ *Osasuna sustatzeko eta drogamenpekotasunen aurrearretarako teknikarien zerrenda sortzeko deialdiaren administrazio espedientea ikusi ahal izatea (389/1999)*

- Erreklamazioa

Vitoria/Gasteizko Udalak osasuna sustatzeko eta drogamenpekotasunen aurrearretarako teknikarien zerrenda sortzeko egin zuen deialdian eskuhartu zuen pertsona batek gure laguntza eskatu zuen, Udalak ukatu egin ziolako hautespen prozesuan zehar berak egin zituen eskabidetara iristea, hau da: (1) beste hautagai batek osasunaren hezkuntza eta drogamenpekotasunen aurrearretan urte bateko esperientziari buruzko beharkizuna benetakotzeko aurkeztu zuen ziurtagiriaren kopia lortzea, eta 2) froga gainditu zuten hautagaiek egin zituzten froga teoriko eta praktikoen kopia.

- Azterketa

Arartekoak behin baino gehiagotan adierazi du jende asko aurkezten den aukeraketa prozesuetan espedienteetara iristeko arazoetan duen iritzia. Erakundeak honelako gaietan duen iritzia frogatzeko, uste dugu interesgarria dela “erakundeko Idazkari Nagusiak HAEEK antolatu zituen jardunaldi batzuetan aurkeztu zuen “Arartekoak eta Herri Administrazioetako langileen hautespenak” izenburua duen txostenaren edukiaren zati bat transkribatzea.

*“...Hautespen prozesuetan eskuhartzen duten pertsonen interesen defentsaren esparrua ezartzeko ideari oso lotuta oposiziogileak bere espedientera eta gainerako oposiziogileen espedienteetara iristeko duen eskubidea dago.*

*Hori administrazioetako langileen kudeatzaileek gehien haserretzen dituen arazoetarikoa da, horrelakoetan makina bat sasi argudio adierazten dituztelako, hasi eraginkortasun oinarriaren aldarrikapen orokorretik eta intimitatearekiko begirunean bukatuta, zertarako-eta kasu askotan iluntasun esparruak eta gardentasun mentsak babesteko.*

*Egoera horri aurre egiteko Arartekoak aholku orokorra eman zuen 1992an, ‘Hautespen prozeduretan administrazioetara iristea. Eskubide horri gaitziritzea babesgabezia arrazoi izatea.*

*Aholku horretan Arartekoak hau esan zuen:*

- \* Hiritarrek administrazioko espedientean dauden dokumentuetara iristeko duten eskubidea beste eskubide zabalago baten atala baino ez da, eskuhartze eskubidearena, eta baita informazioa jasotzeko eskubidearena.
- \* Halaber, Gardentasun oinarriaren adierazpena da eta Administrazioak Zuzenbide Estatu batek izango dituen jarduketei buruzko informazioa eman behar du.
- \* Azkenik, eskubide horren eta benetako auzitegiko tutela eskubidearen arteko lotura adierazi zuen, berriz ere horrek eragiten duen babesgabezia gogoratuz.

Oraintsu indarrean jarri den Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazioako Prozedura Erkideari buruzko abenduaren 26ko 30/92 Legea (HAAJ eta APE) heldu arte egun hiritar guztiak duten irisgarritasun eskubide hori interesatuei baino ez zitzaien aintzatesten.

Eskubide horrek izango duen muga bakarra arau horren 37.7. artikuluan adierazi den eragingarritasun oinarria izango da; dena den, Arartekoak esan du kontu handiz neurtuko dela eskubidea gauzatzerakoan oztopo gainditu ezin bilakatu ez dadin

Eragingarritasun oinarri horretatik abiatuta, Administrazioak kasu askotan eragozpenak ezartzeko jarrera mantendu du, maila juridikoan babestu ezina dena, honen antzeko alegazioetan oinarrituta: zer gertatuko litzateke interesatu guztiak espedienteetara iristea eskatuko balukete?

Horrela, eragingarritasun oinarriarekiko begirunea aldarrikatuz benetan babesgabezia kasuak diren asko eragiten dira.

Adierazi dugu ebazpenen arrazoi faltaren eta, hala denean, espedientera iristeko ukapena eta benetako auzitegiko tutelaren arteko lotura estua dela, ezinezkoa delako interesatuak lortu nahi dituen asmoetan defentsa antolatua egitea.

Hautespen prozesuetan oraindik garrantzitsuagoa da, epaimahaiek zuhurtziarakotasun teknikoarekin jarduten dutelako.

Arartekoak, halaber, esan du nahiz eta HAAJ eta APEren 37.1. artikuluan eta KEren 105.1. artikuluan hiritarren irisgarritasuna, orokorrean hartuta, onartu arren, lege horrek berak gainerakoek izendun dokumentuetara iristeko duten aukera aurreikusten du, horien titularrak izan ez arren legezko interesa edo interes zuzena benetakotzen badute.

Horrek esan nahi du Administrazioak baimendu egin behar duela gainerakoek azterketetara iristea baldin eta legezko interesa edo interes zuzena benetakotzen badute, aldi berean prozesu horretan eskuhartu dutelako, eta hori horrela da HAAJ eta APEri buruzko 30/92 Legearen 37.1. artikuluan ezarri denaren arabera, horretan hau esan delako: 'izendun dokumentuetara iristea (...) titularren eskubidea ezezik, legezko interesa edo interes zuzena benetakotzen duten gainerakoek eskubidea ere bada.'

- Emaiza

Gure eskuhartzeak jaso zuen lehen erantzunean Vitoria/Gasteizko Udalak onartu egin zuen formulatutako eskabidetatik lehenengoa: beste hautagai batek osasunaren

hezkuntza eta drogamenpekotasunen aurrearretan urte bateko esperientziari buruzko beharkizuna benetakotzeko aurkeztu zuen ziurtagiriaren kopia lortzea. Dena dela, ukatu egin zuen gainerako azterketak aztertzeko baimena eta, oro har, eragingarritasun oinarria aipatu zuen, oinarri hori era egokian baloratzeko derrigorrezkoa den xehikapena egin gabe.

Horregatik, ahaztu gabe Arartekoak nahitaez hartu behar duela kontuan auzitegiko tutela eraginkorraren eskubidea erabiltzeko aukerei dagokien eskubidearen izaera instrumentala, 35/99 zenbakiko aholkua egin zen bigarren eskabidea babesteko eta, azken finean, onartu egin zen.

#### D) Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa

⇒ *Donostiako Erizaintza Eskolako irakasle elkartu baten plaza hornitzeko lehiaketa (2288/1998)*

##### • Erreklamazioa

UPV/EHUK Donostiako Erizaintza Eskolako irakasle elkartu baten plaza hornitzeko deitu zuen lehiaketan eskuhartu zuen interesatu batek erakunde honen laguntza eskatu zuen, ondore horretarako izendatu zen batzordeak egin zuen merezimendu batzuen balorazioaren aurka zegoelako.

##### • Azterketa

Beste kexa espediente batzuen tramitazioetan Arartekoak UPV/EHUri aholkatu dio kontratu elkartuen eta bitarteko irakasle titularren izendapenen lehiaketetan ebaluazio batzordeen ebaluazio lana aurrez ezarrita dagoen baremo arautu baten arabera egin behar dela (martxoaren 6ko 26/1998 zenbakiko aholkua). Gure ustez aholku hori betetzen ari ziren, Gobernu Batzarrak 1998ko maiatzaren 18an egin zuen bileran atal bakoitzerako baremazioak egiteko irizpide batzuk onetsi zituelako, 1994ko ekainaren 30eko aurreko beste erabaki baten ere kontuan hartu zirenak.

Hori gora-behera, orduan ere, erabaki horiek gora-behera hausnarketa bat egin zen eta esan zen hautespen batzordeetako etorkizuneko kideek izan behar dutela azken finean konstituzioak ezartzen dituen berdintasun, merezimendu eta ebaluazio lanetako gaitasun artez eta motibazio egoki bermatu behar zutenak.

Bada, formulatu zen kexa hori orduan ere azaldu zen arazoaren adibide argia zen.

Ebaluazio Batzordeak bere irizpideak Gobernu Batzarra hurrenez hurren onesten ari zen puntuazio marjinen barruan gertutu zituen. Horrela islatu zen 1998ko uztailearen 16ko batzordearen eraketaren bidezko aktan eta batzordeburuak egin zuen txostenean. Ondorioz, batzordeak erabili zituen irizpideei buruz ezer gutxi zegoen esateko, Gobernu Batzarrak kontratu elkartuen eta bitarteko irakasle titularren izendapenen lehiaketetan orokorrean erabiltzeko onetsi zituen irizpideekin bat zetozelako.

Baina, baremoko atal batzuen azterketa xehekatuagoa egiten bada, esaterako lan esperientziari dagokiona, motibazio egokia dudatan jartzeko edo horrelakorik ez zegoela esateko bideak ematen zituen, areago baremoaren alderdi hori funtsezkoa zenean hautagaien hautespenari ekiterakoan.

- Emaidza

UPV/EHUri aholkatu zitzaion, interesatuak formulatu zuen administrazioarekiko errekurtsoaren bidea erabiliz -administrazioeko egintzak berrikusteko legezko bidea-, batzordearen ebaluazio lanaren berrikuspenean bermatzeko bidezko neurriak hartzeko, bereziki lanbide esperientziari buruzko baremoan eta, ondorioz, ebazpen arrazoitu berria emateko. UPV/EHUK, hori gora-behera, ez zuen aholkua onartu.

Beraz, Arartekoak ebaluazio batzordearen lana dudatan jartzeko arrazoi nahiko dagoela adierazten zuen iritzia iritsi zion. Horrela, bada, gure aburuz behin eta berriz errepikatzen zen motibazioaren falta eragiten zuen jarrera arbitrarioa mantentzea ezezik, batzordeak boterea desbideratzeko lantzean behingo bizioari buruzko duda arrazoituak ere baitzeuden, ezin zelako bidezkotu herri enpleguen irisgarritasunerako nagusiak izan behar duten berdintasun, merezimendu eta gaitasun oinarrien araberako hautagairik egokiena hautatu zela.

⇒ *Irakaskuntzako bitarteko funtzionario ez-egonkorak: amatasun baimena (889/1999)*

- Erreklamazioa

Irakaskuntzako bitarteko funtzionario ez-egonkor batek erakundearen artekaritza eskatu zuen irakaskuntzako gainerako funtzionarioen (bitarteko egonkorak barne) kasuan amatasun baimenetan aintzatesten diren hobekuntzak aplikatzea eskatuz.

- Azterketa

Indarreko legeriak funtzionarioentzat gutxienez 16 asteko atsedenaldi ordaindua aintzatesten du erditzen direnean. Horrela ezarri du Funtzio Publikoari Buruzko Aldarazpenari buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 30.3. artikulua eta Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bateratua onetsi duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren 133. artikulua.

Hori guztia gora-behera, EAEko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako langile funtzionarioak arautzeko Akordioak -uztailaren 28ko 197/1998 Dekretuaren bidez onetsi zena- oinarritzko iazera duen gutxieneko aldi hori hobetu du, bere 43. artikuluan hau ezarri duelako: *“Euskadiko Autonomia Erkidegoko irakaskuntzako funtzionarioek haurdunaldiagatiko eta erditzeagatiko bidezko lizentziaz gozatzeko eskubidea izango dute eta horren iraupen mugatua 18 astekoa izango da...”*.

Beraz, hori da lizentzia edo haizugo horiek aintzatesteko esparru araupetzaila eta, bitarteko langile ez-egonkorren izendapenak edo kargu uzteak kudeatzeko eran gertatzen den bezala (nahitaez kargua abuztuaren 31n utzi beharra) eragin oso handia du baimen horien gozamenen, abuztuaren 31n kargua utzi beharrak Akordio horretan ezarri diren hobekuntzak ezin gozatzea eragiten duelako.

Egia da erakunde honek ere nabarmentzen dituela bitarteko irakaskuntzako langileen izendapenen kudeaketaren zailtasunak edo baldintzak. Horregatik ulertzen du hezkuntzako administrazioak adierazi duen arrazoia, hau da, izendapenaren azken data ikasturte bakoitzaren amaierarekin batera gertatzea; inguruabar horrek, aldi berean, era formalean azaltzen ditu kasu honetan aintzatesten ari garen baimenen aintzatespen eta gozamenen gertatzen diren aldeak.

Dena dela, argi daukagu diferentzia edo alde horiek ez direla bidezkoak eta kontuan hartuta erakunde honek emakumea lan merkatura iristea bideratzeko neurri guztiak sakontzeko hitza eman duela eta familian dituzten erantzukizunak eta lanbide mailakoak harmonizatzeko ahalegina egin behar duela, Arartekoak uste izan zuen nahitaezkoa zela bitarteko funtzionarioentzat ere haurdunaldi eta erditzeagatiko baimena 18 astekoa izateko ahalegina egitea baldin eta sail horren zerbitzuan jarraitzeko aurreikuspena badago, nahiz eta egonkorak ez izan erditzeko eta edoskitzeko aldia heldu zaienean.

- Emaizta

Arartekoak 88/1999 aholkua planteatu zuen eta agindeia egin zuen egonkorak izan ez arren hezkuntzako administrazioaren menpean jarraitzeko aurreikuspena egin den kasuetan EAEko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako langile funtzionarioak arautzeko indarreko Akordioak haurdunaldi eta erditzeagatik eskaintzen duen aldia (18 aste, guztira) gozatzeko neurriak hartzeko. Esan behar da azken finean Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak onetsi egin zuela aholku hori.

## E) Osasun alorreko funtzio publikoa

⇒ *Seme-alabak zaintzeko eszedentzia (206/1999)*

- Erreklamazioa

Kexa bat jaso genuen eta bertan langileen lan-baldintzen barruan seme-alabak zaintzeko eszedentziak aintzatesteko Osakidetzak duen era salatzen zen. Bereziki kexaren arrazoa harik eta iraupenaren gehieneko aldia agortu edo iraungi arte eszedentzia bat era ez-jarraikorrean gozatzeko Osakidetzak adierazi zuen ezezkoa izan da.

Osakidetzako langileen lan-baldintzak zehaztu dituen uztailaren 28ko 203/1998 Dekretuaren 44. artikuluan ez da adierazi den aurkako ezer ezarri. Dena dela, kexa sustatu zuten pertsonak adierazi zuten bazekitela seme-alabak zaintzeko eszedentzia era horretan gozatzeko interesa duten langile batzuen eskabideetan osasun zentro batzuetako zuzendaritzen horiek ukatzeko ebazpenak hartu dituztela.

- Azterketa

Gauza jakina da seme-alaba baten zaintzarekin argi eta garbi familia eta seme-alaba horiek babesteko helburu zuzen eta nabarmena lortu nahi dela. Seme-alaben zaintzagatiko eszedentziak, beraz, laneko harremanak eta familiaren beharrezko jaramon egitearen arteko harmonia bideratzen du pertsona enplegatuen presentzia familien garapen arrunta eta egokia lortzeko erabat beharrezkoa den uneetan. Beraz, azken finean horren xede nagusia lanbide eta familia mailako erantzukizunak bateragarri bihurtzea da, nahiz eta denok dakigun zeharkako beste helburu edo ondorio batzuk ere badituela, esaterako emakumeak lanaren esparruan sartzea edo horretan mantentzea, legezko aukera hori derrigorrezko eszedentziatzat jotzen duenean (lanpostuaren erreserba, etab.).

Erakunde honek badaki erantzukizun familiar eta profesionalak eta zerbitzuetan kalitaterik handiena eta onena eskuratu nahi duen administrazio baten beharrezkoak

bateragarri bihurtzeko hartzen diren neurri horiek harmonizatzeko ahaleginak zailak direla. Hori gora-behera uste dugu ahaleginak eta bi egin behar direla mota honetako neurriak ahalik eta gehien hedarazteko, eta zerbitzuaren beharrezanaren arabera legezko onura horien erabilera erreala mugatzeko ustezko kasuak mugatuz, eta areago kontuan hartuta honako abagune honetan herri administrazioek izan behar dutela bereizkeria positiboaren prozesuko aitzindari gizon eta emakumezkoen aukera berdintasuna lortzeko eta, ondore horretarako horien lanbide eta familien arloetako erantzukizunak biltzea bideratu.

- Emaidza

Arartekoak adierazi zuen komeni zela seme-alaben zaintzarako eszedentzietan jarraikortasunik gabeko gozamenaren aukerei buruzko azterlana egitea, legezko neurri horien gozamina sustatzeko beharrezana -maila familiar eta profesionaleko beharrezanak elkarri hurbiltzeko helburua dutela kontuan hartuta- eta horrek kudeaketa antolatuan eragin ditzakeen zailtasunak erkatuz eta neurtuz.

Eskuhartze honi erantzunez, Osakidetzako Zuzendari Nagusiak jakinarazi zigun zerbitzuko erakunde guztietara ibiltorria igorri duela eta idazki horretan seme-alaben zaintzarako eszedentzietan jarraikortasunik gabeko gozamenaren aldeko interpretazio positiboa egiten zela.

## F) Funtzio publiko orokorra

⇒ *Barakaldo, Donostia eta Gasteizko Auzitegi dekanotako bulego informatikoak: gau eta eguneko zerbitzuak (2396/1998)*

- Erreklamazioa

Arartekoak Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Giza Baliabideen Antolamendurako Zuzendaritzak Barakaldo, Donostia eta Gasteizko Auzitegi dekanotako bulego informatikoen gau eta eguneko zerbitzuetarako emandako ordutegiak betetzeko aginduengatik keza-idazkia jaso zuen. Kexa horretan batez ere instrukzio auzitegiatiko gau eta eguneko sistemarekin erkatzerakoan galtzen ateratzen zirela adierazten zuten.

- Azterketa

Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak erakunde honek eskatuta eman duen informazioaren arabera, Giza Baliabideen Antolamendurako Zuzendariak esan zuen ez dagoela ados instrukzio auzitegiatiko gau eta eguneko praktikarekin.

Estatuko Justizia Idazkaritzaren 1996ko abenduaren 5eko Ebazpenaren 1 b) artikulua idatz-zatietatik zarpigarrenaren egungo idazkuntza, hau da, Justizia Administrazioaren esparruko lansaioa eta ordutegietarako agindeiak eman dituen, jurisdikzioak bereiztuta dituzten herrietako edota 1. auzialdi eta instrukzioko 3 auzitegi baino gehiago dituzten herrietako gau eta eguneko zerbitzuari dagokionez, zoritxarrez ez da argiegia eta hori epaitegiatiko errealitatean frogatzen da, makina bat interpretazio eta praktika ari delako gertatzen.

Ildo horretatik, xedapen horretan argi adierazten dira ondoko gauza hauek: (1) gau eta eguneko zerbitzuak asteroko aldikotasuna izango du, eta (2) gau eta eguneko txandan idazkari bat, auzitegiko mediku bat, ofizial bat, bi laguntzaile eta agente bat egongo direla; hori gorabehera, zerbitzuaren ordutegia arautzerakoan idazkuntzak dudak planteatzen diru, ondokoa ezarri delako: *“Astelehenetik larunbatera bederatzietatik hamalauetara eta txandaka goardiako funtzionarioen artean astelehenetik larunbatera hamazazpietatik hogeietara eta igandean hamarretatik hamalauetara. Adierazi den ordutegi horretatik kanpo eskuragarri egoeran egongo dira eta era iraunkorrean aurkitzeko moduan.”*

Beraz, horregatik auzitegietako ohiko egineran goardian dauden bi funtzionario baino ez dira arratsaldeko txandan egoten, larunbat arratsaldeetan eta igande goizetan gertatzen den bezala eta batzuetan organo judizialean funtzionariorik ez egotea, nahiz eta goardian egon.

Nahitaez gogorarazi behar da hau guztia goardiak egiteagatik aintzatetesten diren ogibidesariak gora-behera gertatzen dela, eta horretarako hau ezarri dela: *asteroko aldizkotasuna duen egonaldiko goardia zerbitzuak, goiz eta arratsaldeko ordutegian, astelehenetik larunbatera, eta igande eta jaiegunetan, hamarretatik hamalauetara, egitea eragiten duen nekeak, eta aldi berean eskuragarri egoteagatik eta une hori aurkitzeko moduko egoeran*. Horrela ezarri zuen Lehendakaritza Ministerioaren 1997ko otsailaren 21eko Aginduak, Justizia Administrazio zerbitzuko funtzionarioentzako goardia zerbitzuetarako destino osagarrien munta ezarri duena.

Erakunde honek, planteatu zen kexa hori aztertzerakoan, nahitaez bat etorri zen Giza Baliabideen Antolamendurako Zuzendariak adierazi zuen iritzi honekin: une hauetan gau eta eguneko auzitegietan egiten den okerreko eginera ezin da izan kexaren suspertzaileek formulatu duten salaketaren oinarri.

Azken gauza hori kontuan hartuta eta gau eta eguneko auzitegietan gertatzen diren egoeren antzekoak ekiditearen ondoretarako, Arartekoak uste zuen funtsezkoa zela Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak zehatz-mehatz definitzea EAEko goardia informatikoen zerbitzuen garapen egokirako beharrezkoak diren zuzkidurak, alderdi hori funtsezkoa delako gainerako guztiak ebazterakoan.

Horrela, baldin eta esaten bada zerbitzuaren taxuketa nahikoa dela funtzionario bakarra zuzkituta, ogibidesarien antolamenduan izango dituen ondorioak eta abar kexan dudatan jarri diren agindeietan bildu direnak izango lirateke, nahiz eta horrek egunera arte nagusia eta ohikoa izan den eginera baztertzea ekarriko duen.

Ordea, goardia informatikoaren zerbitzuaren taxuketan beharrezkotzat jotzen bada bi edo funtzionario gehiago egotea hori aplikatu eta gau eta eguneko txanda eratzen duten funtzionario guztiei, era berean, aplikatu beharko zaizkie dedikazio handiagoagatik gerta daitezkeen ogibidesarien mailako ondorio ekonomikoak -goardiako ordutegian luzaroan egotea eskatzen duena- eta era iraunkorrean aurkitzeko moduko egoeran egoteagatikoak.

Bukatzeko, erabakiko litzatekeen taxuketa bata zein besta izan, hori EAEko goardia informatiko zerbitzu guztietan aplikatu beharko litzateke.

- Emaizta

Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak erabaki zuen auzitegi dekanonetako goardia informatikoko zerbitzuak funtzionario bakarraren zuzkidurarekin



taxutzea. Horregatik keza eragin duten agindeietan ere azaldu diren ogibidesari eta abarrei buruzko antolamenduen ondorioak mantendu ziren. Agindei horiek EAEn ezaugarri horiek dituzten hiru zerbitzuetara hedarazi ziren.

⇒ *Suteak itzaltzeko zerbitzuko sarjentuaren plazak hornitzeko oposizio lehiaketaren deialdia. Edozein lente eramateagatik edo astigmatismo edo miopia graduren bat edukitzeagatik baztertzearen zioak (99/1999)*

- Erreklamazioa

Erakundearen Gipuzkoako Foru Aldundiaren suteak itzaltzeko zerbitzuko sarjentuaren plazak hornitzeko oposizio-lehiaketaren deialdiari buruzko keza jaso zen (GAO, 227. zenbakikoa, 1998ko abenduaren 27koa).

Kexaren sustatzaileak deialdiko oinarrietan edozein lente eramateagatik edo astigmatismo edo miopia graduren bat edukitzeagatik hautagai horientzat ezartzen zen bereizkeria salatu zuen eta esan zuen hautagaiak arrazoi horientzat baztertzeak deitu ziren plaza horietara iristerakoan interesatuen arteko ustezko tratua bereiztua eragiten zuela.

- Azterketa

Gauza jakina da Konstituzioaren 23.2. artikuluan herri enplegu eta karguetara iristeko berdintasunaren abiaburua ezarri dela eta hori ezin da aldarazi bidezkoketa objektiboa eta arrazoitua duten iristeko eta merezimendu eta gaitasun oinarriari lotuta dauden baldintzak ezartzeagatik.

Beste era batera esanda, ematen du ez dela hausten arestian adierazi den Konstituzioaren agindu hori baldin eta iristeko beharkizun jakin batzuk kasu bakoitzean estali behar diren plaza horien funtzio propioak zuzen eta normaltasunez betetzea bermatzeko eta ziurtatzeko azken helburuagatik bada.

Erakundearen eskuhartzea, ondorioz, Foru Aldundiak ezarri zituen arrazoi horien zioak aztertzea izan zen, hau da, zergatik jo zuten beharrezkotzat lentedun hautagaiak ez onartzeari buruzko aurreikuspena, edota astigmatismo edo miopia graduren bat zuten hautagaiak ere kanpoan uztearen arrazoiak.

Gipuzkoako Aldundiko medikuntza zerbitzuek eman ziguten informazioaren arabera, sua itzaltzeko zerbitzuetako (suhiltzaileak, kabuak, sarjentuak) postuek iratxikita dituzten eskuhartze zuzenetako funtzioen arabera postu horiek atzematen dituzten pertsonak ezin dute inolako zentzu-urritasunik eduki. Eta hori horrela da zentzuen pertzepzio perfektua eta horri aurre egiteko erantzun zuzenaren arteko erlazio kausal, zuzen eta berehalakoa dagoelako.

Ikusmenari dagokionez, guri eman dizkiguten datu tekniko eta medikuntzako datu hauetan oinarrituta, zentzu-urritasunak ez du bakarrik esan nahi ezin dela egon ustezko zauri edo deformaziorik (astigmatismoa, miopia, etab.), baizik eta beharrezkoa dela elementu zuzentzailerik ez erabiltzea (betaurrekoak, lentetxoak), uste delako funtsezkoa dela ikusmen perfektua bermatzea, elementu edo tresna gehigarriak eduki gabe. Dena dela, onartzen da nolabaiteko miopia edo astigmatismo graduren bat duten hautagaiek badutela hasierako baztertze zio hori gainditzeko aukerarik gero eta gehiago erabiltzen diren teknika kirurgikoen bidez zuzenduz.

- Emaizta

Eskuhartze hori burutu ondoren erakundeak uste izan zuen ezin zela ezer adierazi Gipuzkoako Aldundiko medikuntza zerbitzuaren argudioen aurka, aurreikusita zeuden beharkizun fisiko horiek suteak itzaltzeko zerbitzuko postuetan egin behar dituzten funtzio eta lanetarako beharrezkoak zirelako, eta erlazioa eta proportzioa zuzenak zirelako. Ildo horretatik, ados gaude ustezko larrialdi kasuetan edo antzeko ezaugarriak dituzten beste inguruabar batzuetan zuzen eskuhartzeko funtzioetan nahitaezkoa dela arrisku faktoreak ahalik eta gehien murriztea eta esaterako horretarako derrigorrezkoa dela zentzumenak erabatekoak izatea, postu horiei lotuta dauden funtzioak eragingarritasunez eta normaltasunez betetzeko.

⇒ *EAEko Administrazio orokorreko lan-burtsak: aldi baterako baja egoeraren aintzatespena (207/1999)*

- Erreklamazioa

EAEko Administrazio orokorreko lan-burtsetan zegoen pertsona batek Arartekoarengana jo zuen eta adierazi zion HAEEK ukatu egin ziola aldi baterako baja egoerara igarotzea. Ondore horretarako alegatu zuen Lurraldearen Antolakuntza, Etxebizitza eta Ingurugiroa Sailerako lanean zegoela, horrekin lankidetzat hitzarmena zuelako sinatuta.

- Azterketa

EAEko Administrazioan aldi baterako zerbitzuak egiteko langileria aukeratzeko irizpideei buruzko 1997ko maiatzaren 6ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiak, bere laugarren artikuluan lan-burtsen kudeaketa aztertzen duenean, ezarri du zilegi dela lan-burtsa horietan dauden pertsonak aldi baterako baja egoerara joatea baldin eta Akordio horren esparrurik kanpo aldi baterako lanean badaude (7 c2. idatz-zatia).

Planteatu zen kexa horren lehen balorazioan Arartekoak ulertu zuen HAEEKo arduradunek aldi baterako baja adierazpenaren eskabideari gaitziritzeko eman zuten arrazoia horientzat Akordioak, bere esparrutik kanpo lanean zeudenak aipatu denean, gainerakoan kontura lan egiten duten langileak baino ez dituela kontuan hartzen izan zen; interpretazio hori, abiaburutik eta beste argibiderik gabe, Akordioaren hitzez hitzeko edukiaren aurkakotzat jo daiteke.

Baina, gero HAEEKo arduradunekin izan ditugun harremanetan, Arartekoari esan zioten orain dudatan jarri den ukapen horrek nahitaez azaldu behar diren beste ñabardura batzuk zituela. Horrela, HAEEren ustez, nahitaez ohartarazi behar da Akordioaren 4. artikuluan 7 c2) idatz-zatian aldi baterako baja egoerara igarotzeko aukera aintzatesi zaiela aldi baterako lanean ari diren bertako kideei eta bereziki aldi baterakotasun hori da kasu jakin batzuetan -esaterako kexaren sustatzailearen kasuan- aldi baterako baja adierazpena ezinezko bihurtzen duena, baldin eta lan-burtsako pertsonak beraien laneko jarduera edo jarduera profesionala era autonomoan garatzea erabaki badute, erabaki hori, hartu den bide edo erabaki horren arrakasta handiagoa edo txikiagoa kontuan hartu gabe, berez asmo edo irauteko ideia bati dagoelako lotuta eta hori bateraezina da Akordioaren testuan azaltzen den aldi baterakotasunarekin.

- Emaidza

Ondorioz, eta HAEEK adierazi zuen gaitzirizpenaren benetako arrazoia frogatu ondoren, Arartekoaren ustez esan behar da ez dagoela eskuhartzea bidezkotzen duen arrazoirik, kexan salatu zen administrazioaren erabakia Gobernu Kontseiluak EAEko administrazioetan aldi baterako zerbitzurako langileak aukeratzeko irizpideei buruz hartu zuen Akordioa aurreikuspenekin bat zetorrelako.

⇒ *Udal bandako musikariak. Musika eskolako irakaskuntza jardueretako bateragarritasun adierazpena (364/1999)*

- Erreklamazioa

Arartekoari Bilboko Udalaren Osoko Bilkurak hartu zuen erabaki bat aztertzeko eskatu zitzaion, hau da, udal bandako musikarien eta udalaren menpe dagoen musika eskolako irakaskuntza jardueraren arteko bateragarritasuna aintzatetsi zuena.

- Azterketa

Herri Administrazioen Zerbitzura dagoen Langileriaren Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak hiru kasu baino ez ditu ezarri herri arloan bigarren postua, kargua edo jarduera bateraezina dela adierazten duen arau orokorraren salbuespen gisa, ondoko hauek alegia:

- \* horretan irakaskuntza eta sanitateko funtzioetarako aurreikusi direnak (4. art.),
- \* halaber, horretan AAEE eta toki korporazioetako legegintza batzarreko kideentzat ezarri direnak (5. art.), eta baita iraunkorak ez diren ikerkuntzazkoak edota aholkularitza berezikoak (6. art.), eta
- \* herri intereseko arrazoiengatik errege dekretuaren bidez ezarriko direnak.

Zerga, Administrazio eta Gizarte Ordenako Neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legearen xedapen gehigarrietatik hamabigarrenean, herri administrazioen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunari dagokionez, ondoko aurreikuspen hau gehitu da

*“Halaber, Musika Goi Kontserbatorioetan eta Musika Kontserbatorio Profesionaletan zerbitzuak ematen dituzten katedradun eta irakasleen kasuan bateragarritasuna eman daiteke kulturaren arloko herri arloan bigarren lanpostu bat betetzeko, aurreko paragrafoetan adierazi diren terminoak eta baldintzak betez”.*

Hori guztia gorabehera, xedapen horrek aplikazio mugatua du eta ondoko hauek dira: (1) musikako katedradun eta irakasleen kidegoetakoak diren irakaskuntzako funtzionarioak, (2) zerbitzuak goi mailako kontserbatorioetan edo kontserbatorio profesionaletan egitea, eta (3) bigarren lana herri arlo kulturean egitea, eta inguruabar horiek ez datoz bat kexan adierazi diren musikarien administrazioa baldintzetan.

Hori gorabehera, lehen bateragarritasun adierazpen hori kontuan hartu gabe, musikari profesionalen kasuan Irakasle Espezialisten Kontratazio Araubideari buruzko irailaren 21eko 1560/1995 EDa aplikatu daiteke. ED horren 7.2. artikuluan hau ezarri da:

*“53/1984 Legearen 3. artikuluan ezarri denarekin bat, bateragarritzat jo da, herri intereseko arrazoiagatik, lansαιο partzialarekin herri ikastetxeetan eta honako errege dekretu honen 4.2. artikuluan ezarri den araubidean, irakasle espezialisten postua betetzea, ondoko kasu hauetan:*

*a) Instrumentu jolea, abeslaria edo orkestra sinfonikoko, banda sinfoniko edo udal titulartasuneko abesbatzako zuzendaria.”*

ED horretan bildu den araupeketa irakasle espezialisten kontratazioetan aplikatu behar da (eta horrelakotzat jotzen dira lan esparruan jarduera hori egiten ari direnak), ez bakarrik Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren menpean dauden ikastetxeetan, baizik eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioari lotuta ez dauden beste herri titulartasun bateko ikastetxeetan ere (horri dagokionez, lehen artikulua eta xedapen gehigarri bakarra).

ED honen aplikazio eremuak aukerak ematen ditu araupeketa hau -estatuko antolamenduaren ordezkotzat aplikazioagatik- EAEko Administrazio orokorrari lotuta ez dauden beste herri titulartasun bateko ikastetxeetako irakasle espezialisten kontratazioari aplikatzeko. Horrela, bateragarritzat jo daiteke aldi berean herri titulartasuneko bandako instrumentu jolearen postua eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailaren titulartasuneko ez den beste herri ikastetxe bateko irakasle espezialistaren postua betetzea, hau da, Bilboko Udalaren menpean dagoen Musika Eskolaren kasua.

- Emaizta

Erakundeak uste du Zerga, Administrazio eta Gizarte Ordenako Neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legearen xedapen gehigarrietatik hamabigarrenean oinarrituta bi jarduera horiek bateragarriak zirela adieraztea okertzat jotzen zuen kexaren idazkian formulatu ziren alegazioak bidezkoak direla.

Dena dela, Udalaren osoko Bilkurak adierazi zuen okerreko babes juridikoa gaudituta, Arartekoak uste izan du Irakasle Espezialisten Kontratazio Araubideari buruzko irailaren 21eko 1560/1995 EDak babes juridiko nahikoa ematen duela kasu honetan eta, onetsi zen bateragarritasun adierazpen horretan ez zuen irregularitaterik antzeman.

⇒ *Euskarazko ikastaroetara joateko lehentasun irizpideak aplikatzea. Horien aldarazpena arauan aurreikusi ez diren irizpideen aplikazioagatik (976/1999)*

- Erreklamazioa

Garraio eta Herrilan Saileko funtzionario batzuk kexa aurkeztu zuten lan ordutegiaren barruan euskarazko ikastaroetara joateko baimena ukatzeagatik. Kexa formulatu zutenean adierazi zuten aplikagarria den arautegian ezarri diren lehentasun irizpideak aplikatuz horretarako baimena jaso duten beste batzuk baino eskubide gehiago zutela.

- Azterketa

EAEko Administrazio orokorrean euskarazko ikastaroetara joateko baimenei buruzko arautegian emakida irizpideak ezarri dira eta horien aplikazioaren arabera bertako

enplegatuek lehentasun ordena baten arabera sailkatzen dira. Irizpide horiek lan egiten duten zerbitzuaren unitate motan (1998-2002 aldirako euskararen Erabilera Planeko aurreikuspenak betez) eta horien enplegu erlazioan oinarritzen dira.

Kasu zehatz honetan, Garraio eta Herrilan Sailak ezarri zuen laneko orduetan ikastaro horietara joateko baimena 2.4. lehentasun ordenaraino heldu zen, eta gaitziritzi egin zitzaizen hortik atzera zeudenei.

Hasieran behintzat, kasua aztertzeko aplikatu behar den ikuspegi juridiko zurrunik abiatuta, erabaki hori erabat da zuzena, arautegian ikastaroetara joateko ezarri ziren irizpideak betetzen zirelako.

Arazoa gero sortu zen, bazterturik geratu ziren langileen artean (2.5 eta 2.8 lehentasun ordenen artekoak), baimenak eman zitzaizkienean batzuei, bakarrik ordura arte euskarazko ikastaroetara joanekoak zirenei, horien lehentasun ordena kontuan hartu gabe. Bada, ordena hori kontuan hartu ez zenean, gertatu zen 2.8 lehentasun ordenean zegoen funtzionario bati baimena eman zitzaiola, baina ez aurreko beste bat (2.5, 2.6 edo 2.7).

Garraio eta Herrilan Sailak esan zuen erabaki hori zuzena zela, horrela bertako enplegatuek ordura arte eginda zituzten ikastaroen aprobetxamendua baloratzen zelako.

Txostena eskatuz egin zuen idazkian, Arartekoak kexa horien tramitea onartzeko izan zituen arrazoiak azaldu zituen. Funtsean, adierazi zen arautegian kontuan hartu behar ziren irizpideak adierazi zirela eta baldin eta horren emaitza lehentasunen araberrako zerrenda bat bazen -kasu honetan gertutu zena- irizpide horiek hausten zituela.

Arartekoren txostenaren eskabideari egin zion erantzunean, Zerbitziburutzak adierazi zuen aurrez egindako ikastaroen aprobetxamendua baloratu zela, horrela araua zaintzen zela uste zelako.

Aprobetxamenduaren balorazioaren interpretazioan oinarritzen zen aurreikuspena Euskararen Erabilpenerako Planaren 6.1.2.3. idatz-zatian azaltzen dena da (Euskadiko Autonomia Erkidegoaren zerbitzura lan egiten duen langileriaren lan baldintzei buruzko uztailaren 28ko 190/1998 Dekretuaren 4.1. artikuluan azaltzen dena bera). Aurreikuspen horren arabera, baimenaren emakidan kontuan har zitekeen, zilegi zen, eskatzaileak ordura arte burututa zuen hizkuntz prestakuntza prozesuaren aprobetxamenduaren gradua.

Arartekoaren ustez aprobetxamenduari buruzko aurreikuspen horrek ez zuen bidezkoitzen kexaren xedea den erabakia.

Aprobetxamendua 6.1.2.3 idatz-zatiaren barruan azaltzen da, eta laneko orduetan baimenak emateko kontuan hartu behar den arrazoiatarikoa da, baina hori ez da lehentasun irizpidea eta horrelakotzat jo zuen, oker, sail ukituak.

Euskalduntzeari buruzko arautegian euskararen aprobetxamenduaren balorazioa aurreikusi da eta hori zuzena da, enplegatuek ikastaroetara joateko baimenaren bidez lortzen duten prestakuntzaren onura logikoa delako. Trukean eska daitekeen kontrapartida horren emaitza gisa gerta daiteke eskabidea batek baimenik ez jasotzea ez duelako aurretiazko aprobetxamendu hori benetakotu, edota aprobetxamendurik ezak finantzaketara iristea edo 190/1998 Dekretuaren 4.3. artikuluan ezarri diren baimenen emakida baldintzatzea.

Ildo horretatik egia da aprobetxamendua hautagai baten asistentzia erabakitzeko faktorea izan daitekeela, baina -eta hori funtsezkoa zen- eskabide hori baloratzeko

elementu bezala baino ezin zen erabili, prestakuntzako aurrekari propioetan oinarrituta; baina horren emaitzek ez zuten islarik izan beste hautagai batzuen artean, une hartan baloratu izan balitz lehenetasun faktore bilakatuko zelako.

Nahitaezkoa zen bi plano desberdin bereiztea: lehenbizikoa eskabidea hautatzea, lehenespen irizpide batzuetan oinarrituta enplegatu batzuen artean aukeratzeko beharrezkoa zuena, eta bestetik, bigarrena, enplegatu bakoitzak behin betiko baimena gertatu aurretik zuen egoeraren balorazioa, norik beraren prestakuntzako aurrekariak kontuan hartuta.

Bi plano horietatik lehenengoan, enplegatu bakoitzaren inguruabarrek (lanpostuaren beharkizunak, enplegu erlazio mota, unitate mota) eraginak izan ditzakete beste hautagai batzuegan. Horrela, manuzko datak, edo enpleguaren egonkortasunak (karrerako funtzionarioa), edo unitate motak enplegatu bat beste batzuekiko lehenetasun ordenean koka dezake.

Baian, dena dela, adierazi diren bi maila horietatik bigarrenak, aprobetxamenduak enplegatuaren aukeraketa edo aukeraketarik eza erabaki dezake eta hori berari buruzko inguruabarrengatik da, baina ezin du emaitzarik izan gainerako enplegatuaren artean eta, aldi berean, ezin du lehenespen ordenarik aldarazi.

Zerbitzu Zuzendaritzak ere bere erabakia zuzena izan zela alegatu zuen, aurreko beste deialdi batzuetan baimendutako enplegatuaren prestakuntzari jarraikortasunik ez emateak inbertsio ekonomiko bat ez aprobetxatzea zela uste baitzuen.

Gai horri buruz, Arartekoak uste izan zuen gauzak argitzeko kexa horretan erabaki behar zela ea euskara ikasteko ikastaroen eskubideen baimenak ezarrita zeuden lehenetasun irizpideak betez gauzatu ziren, eta irizpide horien artean ez zegoen aprobetxamendu ekonomikoarena.

Eta, horrekin batera, Arartekoak Administrazioari jakinarazi zion inbertsio ekonomiko bat ez aprobetxatzeak berariaz eragin dezakeela eztabaidatzen ari garen Garraio eta Herrilan Sailaren erabakiaren aurkako emaitza. Zehatzago, adierazi zitzaion helburu bakarra inbertsio ekonomiko bat hobeto aprobetxatzea bazen, Euskararen Erabilpenaren Planean badagoela aurreikuspen bat, bere 6.1.2.1, 2) idatz-zatian, eta horren arabera "*Karrerako langile funtzionarioek lehenetasuna izango dute bitarteko funtzionarioekiko*". Dena dela, sail horrek kasu batzuetan bigarren multzo horretakoak lehenetsi zituen lehenengokoaren gainetik.

Berdintasun oinarriari dagokionez, zuzenbideko oinarri orokor horren betebeharra ahaztu gabe, ezin du hartu den erabakia babestu, zuzenbide positiboak (190/1998 Dekretua, Euskararen Normalizazio Plana eta Funtzio Publikoko Sailburuordetzaren Agindeia) eztabaidatu den kasua ebazteko araurik bazuelako

Zuzenbidearen oinarri nagusiak, horien artean berdintasunekoak, mundu juridikoaren formula teknikoak dira eta ezin dira borondate onen adierazpen izan. Horien aplikazioa okerrekoa izango litzateke baldin eta, kasu honetan gertatu den bezala, bere arau propioak hausten dituen Administrazioaren jarduketa eragin badu, eta horrek legezketasun oinarriaren aurkako arau-haustea egon dela adierazten du.

Bada, arrazoi horiekin bat, Arartekoak aholkua egin zion Administrazioari kexa eragin zuen erabakia zuzentzeko.

Gure aholku horrek ez zuen dudatan jartzen kexa formulatu zuten horien ikastaroak egiteko eskubideen baimena, horien balorazio zuzena baizik, hau da, herri enplegatuaren euskalduntzeari buruzko arautegian ezarri diren balorazio irizpideen arabera (1999ko

maiatzaren 10eko Funtzio Publikoko Sailburuordetzaren Agindeia, uztailaren 28ko 90/1998 Dekretuaren 4. artikuluan ezarri diren lehenespen irizpideak islatzen dituen eta Euskararen Erabileraren Normalizazio Plana, 6.1.2. idatz-zatian).

- Emaidza

Zerbitzuburuak, gure argudio hauek baloratu gabe, Arartekoari jakinarazi zion gure aholkuan ez duela berak hartu zituen erabakietan eraginik izan dezaketen irizpide berririk aurkitu eta uste duela euskararen arloan indarrean dagoen arautegian ezarritakoa betez jardun dutela

Jaso genuen erantzuna oso motza zen eta jakin genuen gauza bakarra ez zutela aholkua onartzen izan zen, baina ez Arartekoak aholkua oinarritzeko erabili zituen zuzenbideko argudioei buruzko baloraziorik -ez abagunekoak-.

Zoritxarrez bide honetatik ez dugu kexen arrazoia izan ziren erabakiei buruzko beste irtenbiderik lortu eta, ondorioz, Arartekoak Administrazioarengana jo zuen eta jakinarazi zion gai hau Euskal Legebiltzarrerako gertutzen ari den urteroko txostenean sartuko duela.

⇒ *Euskarazko ikastaroetara joateko baimenei gaitziritzea. Egintzak bidezkozteko beharrezana (982/1999)*

- Erreklamazioa

Garraio eta Herrilan Saileko funtzionario batzuk kexa bat aurkeztu zuten arrazoirik gabe euskarazko ikastaroetara joateko baimenak ukatu zitzaizkielako.

Kexaren oinarrian adierazi zuten maila organikoan zegokien zuzendariak baimenaren aldeko txostena egin zuela, baina, gero, arrazoirik gabe, Zerbitzuburuak gaitziritzi egin ziola eskabideari hitzez hitz hau adieraziz: “Zure sailburuorde/zuzendariak, zerbitzu beharizanengatik baimendu duen lehentasun-ordenaren ostean zaude.”. Kexak bazuen bigarren arrazoi bat ere, beste enplegatu batzuei baloratu egin zitzaizkiela aurreko ikastaroetako aprobetxamendua, baina ez beraiei.

- Azterketa

Zerbitzuko beharizanak gaitziritzenaren arrazoi izan daitezke, baina alegazio hutsa ez da nahiko eta arrazoitu eta bidezkotu egin behar da, batez ere kasu honetan gertatu den bezala, beraiei organikoki zegokien zuzendariak eskabideen aldeko txostena egin zuenean.

Beste alde batetik, kontuan hartu behar da beste enplegatu batzuen kasuan aurreko ikastaroetako aprobetxamendua aintzatetsi zela eta beraiei ez, eta horrek usteko tratu desberdina planteatzen zuen. Gure txostenean ere sartu dugun 976/99 zenbakiko kexa-laburpenean islatu zen bezala, faktore hori lehenespenezko irizpideen artean onartze hori ez zen zuzena izan. Dena dela, baldin eta aplikatzen bazen, berdintasun oinarria begirunez zaintzearen ondoretan duen eragina aztertu behar zen.

Kexaren bi arrazoi hauei buruzko txosten egiteko gure eskabideak jaso zuen erantzunean Sail ukituko Zerbitzuburuak esan zuen ez zela eskabiderik ukatu zerbitzuko beharizanengatik, lehenespen ordenak kontuan hartuta onetsi zirela. Bere txostenean adierazi zuen ukapenaren arrazoi moduan zerbitzuko beharizanak islatzearen arrazoia

ukapenaren zioetan HAEEko formula informatizatuen zerrendan horrela islatzen zelako izan zela.

Azalpen horren arabera kexaren arrazoi honek ukapenaren berrikuspena lortzea eragin dezake. Ez ordea administrazioaren okerreko praktikarik.

Ildo horretatik, ematen zuen ezin dela azaldu baldin eta ukapenaren arrazoiaren kausa zerbitzuko beharrian izan bazen, zergatik ez zen arlo hori argitu interesatuek jarri zituzten administrazio errekursoetan. Izan ere, Arartekoarengana jo aurretik, interesatuek errekurso horien erantzunak jaso zituzten: gaitziritzi egin zitzaien eta ez zitzaien arlo hori argitu.

Ukatzeko bigarren arrazoa enpleguak ordura arte eginda zituzten ikastaroen aprobetxamenduaren balorazioko tratu desberdina izan zen.

Gai honi dagokionez Sailak adierazi zuen igarotako ikasturtean baimena jaso zutenek bidezkozteko HAEEk sail bakoitzeko zerbitzu zuzendaritzetara igortzen dituen zerrendetan azaltzen direnak baino ez zirela baloratu.

Arartekoaren ustez erabaki hori, aurrez aprobetxamendu hori egon den ala ez esateko baloraziorik egon ez zelako, ezin da era arrazoituan bidezkotu. Gure aholkuetan maila juridikoan oinarritu genituen kasu honetan HAEEko zerrendetan ez azaltzea funtsezkoa ez dela adieraztearen arrazoiak.

Mota horretako erabaki bat bidezkotuta egon daiteke baldin eta xedea laneko baldintzei buruzko uztailaren 28ko 190/98 Dekretuan ezarri den ondoretarako asistentzia eta aprobetxamendua baloratzea bazen; horri lotuta aurki daiteke azalpenik HAEEko zerrenda horiek bidezkozteko, eta ez beste edozein bide, aprobetxamendua benetakotzeko. Dena dela, kexa hauetan kontuan hartu diren alderdien ondoretarako, aprobetxamendua alegatu zuenak iazko ikasturtean ikastaroetara joateko baimena izatea edo ez izatea gora-behera baloratu behar zen eta, ondorioz, zerrenda horietan azaltzen zen ala ez kontuan hartu gabe.

190/98 Dekretua eta Normalizazio Plana aztertuz gero, antzeman daiteke aprobetxamenduari buruzko aipamen guztiak ikastaroaren finantzaketari edo bidezko baimenen egunen emakidari buruzkoak zirela, edo hautatutako eskabideen behin betiko onespenerari ekin aurretik eskatzaileek aurreko ikastaroak aprobetxatu dituzten frogatzeko balio dutela. Azken kasu horretan, aprobetxamendu faltak geroagoko ikastaroen baimenak baldintza ditzake.

Hiru kasu horiek aurrez onetsita dauden eskabideei buruzkoak dira eta, ondorioz, logikoa da aprobetxamendua erabakitzeke HAEEren zerrendak baino ez erabiltzea.

Dena dela, baldin eta Garraio eta Herrilan Sailak ez bazuen adierazi diren ondore guztietarako aprobetxamendua baloratzen, orduan HAEEko zerrendetan azaltzearen beharrez, berez, ez da nahikoa prestakuntza ikastaroetara joan ziren baina zerrenda horietan ez azaltzeagatik baloratzen ez zituzten beste pertsonekiko bereizkeria bidezkozteko.

Sail horrek adierazi zuen HAEE dela ikastaroen aprobetxamendua baloratzeko eskumenak dituen bakarra. Arartekoak ez du eskumen hori dudatan jarri, eta ez du jakin nahi ea organismo hori den zerrendan azaltzen direnentzat aplikatu diren irizpideen antzekoetan oinarrituta kexa hau formulatu dutenek egin dituzten ikastaroen balorazioa egin behar duena.



Gure gatazka edo dudaren xedea beste bat da: Garraio Saileko Zerbitziburutzak hartu zuen erabakia zuzena zen ala ez jakitea, hau da, mintzagai edo aztergai bakarria HAEEko zerrendan azaltzen zirenen aprobetxamendua baino ez zela.

Erreklamaziogileek aurkeztu dituzten ziurtagiriak kontuan hartuta, ez dago inolako dudarik ezin zaiela erabat gaitzetsi Garraio eta Herrilan Sailak egin zuen bezala. Baloratu egin behar ziren, eta horrek ez du esan nahi balorazioaren edukia buruzko aurreikuspenik egin behar zenik.

Egia esan, ikastaroak ez baloratzeko erabakia -berriz ere gogorarazten dugu eztabaidaren ondoreetarako (beraz, ez funtzionario batek eskuratu duen prestakuntzaren onuren kontrapartida logikoa direnei)-, eta horrela horien aprobetxamendua baztertuz, emaitza erabat okerrekoak lortu direla.

Adibide argia dago: aurrez ikastaro bera egin zuten bi pertsona, euskaltegi berean egin zutenak, laneko orduetatik kanpo. Bada, bitxia izan arren lehenbizikoari ikastaro aprobetxatu bezala baloratu zitzaion eta bigarrenaren kasuan ez zen baloratzeko aukerarik izan, ez zegoelako hamaika aldiz adierazi dugun HAEEko zerrendan.

- Emaidza

Argudio horiek guztiak Garraio eta Herrilan Sailari igorri zitzaizkion, eta, horietan oinarrituta, eskabideak berrikusteko aholkua egin zen.

Zerbitziburutzak erantzun zuen gauza izan zen ez zuela arrazoirik ikusten bere erabakia aldarazteko. Ez zuen inolako baloraziorik egiten gure argudio juridikoei buruz eta ez zuen Arartekoak eskabideak berrikusteko eskatuz egin zuen aholkua bete.

Halaber, ez zuen inolako baloraziorik egin zergatik interesatuei jakinarazi zitzairen ukapenaren arrazoa zerbitzuaren beharrianengatik izan zela azaltzeko, benetan zioa beste bat zenean, edota zergatik administrazioko errekurtsioen erantzunetan ez zitzairen errekurtsioegilei hori azaldu.

## 6. OGASUNA

### 6.1. SARRERA

1999. urtean zehar, Ogasun sailean 147 kexa jaso dira, hau da, izapidetutako guztien %16,40a. Azpisailei dagokienez, banaketa hurrengo hau izan da:

Udal zergak .....	45
Administrazioaren funtzionamendua eta admin. prozedura ....	21
Udal tasak .....	20
Udal prezio publikoak .....	19
Foru zergak, PFGZ .....	15
Foru Aldundiek egiten duten udal tributuen kudeaketa .....	11
Foru prezio publikoak .....	5
EAE prezio publikoak .....	3
Kontratazio, ondare eta administrazio erantzukizun erregimena .....	2
Udal kontribuzio bereziak .....	1
Foru zergak, ITP .....	1
Foru zergak, BEZ .....	1
Foru zergak, oinordetzak eta dohaintzak .....	1
Beste alderdi batzuk .....	1
EAEko tasak .....	1

Aurreko urteetan bezala, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari (PFEZ) buruzko kexak gure arreta berezia merezi izan dute. Zerga horri dagokionez, esan behar dugu oso pozik gaudela, lurralde historiko bakoitzean berau arautzen duten foru arauak erakunde honek joan den urtean eman zituen hainbat proposamen sartu dituztelako. Hori gertatzen da, esate baterako PFEZren aitortzean egiten den tributazio aukera aldatu ahal izatearekin, eta baita banaturiko gurasoek aurkeztutako zenbait eskakizunekin. Horiek guztiak 1999. urteari dagozkien aitortzearen islatuko dira, 2000. urtean aurkeztu direnetan, hain zuzen ere.

Beste alde batetik, ohiko etxebizitzako inbertsioari dagokion kenkariak oraindik arazoak sortzen ditu, benetako etxebizitzaren egiaztapenari loturik, eta baita erosi eta hiru urte igaro aurretik egiten diren salmenten inguruan ere. Epe hori baino lehen egiten den salmentak, kontzeptu horregatik kenkarituriko diru kopuruak itzultzeko beharra sortzen du.

Foru tributuei dagokienez, jaso den kexa kopurua ez da oso garrantzitsua izan, baina, hala ere, jaso da kexaren bat oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari eta baita Ondare eskualdaketei eta BEZi dagozkien zergetan.

Herri mailako tributuen esparruan, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergak hainbat arazo sortzen jarraitzen du. Alde batetik, aldian-aldian kobratzen den tributua delako, eta ediktu bitarteko jakinarazpenak sortzen dituen arazoak direla eta. Beste alde batetik, higiezinaren katastroko balioa ezartzeko orduan aurkitu diren akatsak eta ordaindu beharreko kuotan duten eragina direla eta. Gai horren inguruan gomendio orokor bat

ematen da txosten honetan dagokion atalean. Era berean, tributu horrekin erlazionaturik, hainbat kexa azaldu dira, babes ofizialeko etxebizitzetara aitortzen zaizkien onura fiskalak indarrean egoteari dagokionez, eta baita zerga horren subjektu pasiboari buruz ere.

Aurreko urteetan bezala, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergak zenbait kexa eragin ditu. Kexa horiek, alde batetik, ordaindu beharreko kuota zehazten duen potentzia fiskalarekin erlazionaturik egon dira eta, bestetik, salbuespenak ezartzeko dauden zenbait eskakizunen egiaztapenarekin, ezintasunak dituzten pertsonen erabiltzeko ibilgailuei dagokienez batez ere. Atal honetan, aurreratu egin behar dugu txosten honetan, ezintasunak dituzten pertsonen zenbait tributuk ematen dizkien trataerari buruzko beste gomendio orokor bat ere sartzen dela.

Dena den, aurreko urtean Ogasun sailaren barruan tasei eta prezio publikoei buruzko kexek pixkanaka-pixkanaka lortzen joan diren gero eta pisu espezifiko handiagorako joera baieztatuz, kexa horiek nagusi izan dira, berriro ere, 1999. urtean, bai beraien kopuruari dagokionez eta baita planteatu diren arazoen heterogeneotasunari dagokionez ere.

1999. urtean zehar amaiera eman zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoan Gas naturala hornitzen duten enpresen aurka planteaturiko kexa espedientearen izapideari, alta eta ikuskaritza eskubideak izenekoak kobratzeagatik. Ondorioz, azkenik, erabiltzaileei, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak, egindako lanak kontuan izanik, zenbateko zuzen gisa ezarri zuen diru-kopuruaren gainera kobratzeagatik kobratzeagatik guztia itzuli zitzaion.

Arartekoak kontzeptu horiengatik kobratzeagatik diru guztia itzultzeko aholkua eman zuen, bere ustez kobraketa horrek ez zuelako inolako oinarri legalik. Arartekoaren gomendioa oso-osorik bete ez bazen ere, ukaezina da Industria Sailaren erabakiaren garrantzia, eta, gehiago oraindik, eskubide horiek, Estatu mailako Hidrokarburoen Legean sartu izanaren garrantzia. Horrek, azken finean, gas hornidurari ondare prestazio publiko izaera onartzen zaiola adierazten du.

Herri mailako tasekin erlazionaturiko beste alderdi batzuk hurrengo hauek izan dira: hirigintza baimenak emateagatik tasak kobratzea, obrak burutzen ez diren kasuetan; suhiltzaileen tasa ordaintzearen beharra, joan beharreko tokira heldu ondoren, haien parte hartzea beharrezkoa izan ez denean; edo zabor biltzeagatik tasak ordainaraztea beraien etxebizitzaren inguruan zaborrak biltzeko punturik ez duten zergadunei.

Udal eraikin publikoei dagokienez, azpimarragarriak dira Administrazioak, interesatuaren ukapenaren ondorioz, interesatuak zerbitzua edo jarduera erabili ez duenean, zerbitzu edo jarduera horri dagokion zenbatekoa itzultzeari ematen dizkion ezetzaren aurkako kexak; asko izan dira, baita ere, etxeetako ur kontsumoaren kontzeptupean bidalitako ordainagirien inguruan sortu diren desadostasunei buruzko espedienteak.

Amaitzeko, administrazio-tributuen prozedurari dagokion atalean, ofizioz zuzenbide publikoko zenbait zor preskribitza ez onartzeagatik aurkeztu diren kexak azpimarra daitezke, eta baita Udal batek, indarrean dagoen moneta batean egindako ordainketa bat (trafikoko arauak ez betetzeagatik ezarritako zigorra) ez onartzeagatik aurkezturikoa ere.

## 6.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura

⇒ PFEZren likidazio batzuk legearen arabera ez jakinarazi izana (1418/1998)

- Erreklamazioa

Kexa egin zuenak aurrezki-etxebizitza erako kontua ireki zuen. 1993ko eta 1995ko ekitaldietako aitortpenetan, aipatutako kontuari zegozkion kuota kenkariak egin zituen PFEZn. Baina legeak ezartzen duen epea iritsi zenean, ez zuen kontuko dirua inbertitu.

Ondorioz, kontuan eskatutako baldintzak bete ez zituen ekitaldiko aitortpenean -PFEZren Erregelamenduko 33. artikulua arabera- ordura arte kendutako kopuruak eta kopuru horiei zegozkien interesak sartu behar zituen.

Subjektu pasiboak ez zuen horrelakorik egin, baina Gipuzkoako Foru Ogasunak ere ez zion behin-behineko likidaziorik bidali 1998ko otsailaren 2a arte. Egun horretan iritsi zitzaizkion zorraren jakinarazpena, premiamendu erreargua eta berandutzako interesak.

Ildo horretan, interesatuak ez zuen ulertzen nola bidali zioten premiamendu bidezko jakinarazpena, aurretik aipatutako zorraren berri zuzenean eman gabe.

Birjartze errekurtsioa aurkeztu eta lau hilabetera, ez zitzaionez erantzunik heldu, Arartekoarengana jo zuen.

- Azterketa

Ogasun Sailak Arartekoaren eskariz bidalitako azken txostenak honakoa zioen: zergadunaren errekurtsioaren edukia ez zela zuzena, zorraren likidazioa GAOn argitaratu aurretik, bi aldiz saiatu baitziren (1997ko abuztuaren 19an eta otsailaren 12an) jakinarazpen pertsonala burutzen.

Jakinarazpen pertsonalaren ondorioz ezer ez lortu izana aski iruditu zitzaion Ogasun Sailari ediktu bidea aukeratzeko. Baina ez zuten kontuan izan zergatik ez zituen jaso interesatuak aipatutako jakinarazpenak: banaketa orduetan etxean ez zegoelako.

Honakoa gogorazi genion zerga administrazioari: Auzitegi Gorenak behin eta berriro finkatutako jurisprudentziaren arabera, debekatuta dagoela ediktu bidezko jakinarazpenak egitea, baldin eta aurretik ez badute argi eta garbi huts egin kasuan kasuko informazioa interesatuari helarazteko dauden bestelako bideek. Aztergai dugun kasuan birritan baino ez ziren saiatu jakinarazpena interesatuari bere etxean ematen, eta interesatua une horietan kanpoan egotea izan zen emaitza onik ez lortzeko arrazoi bakarra. Interesatua ez zen ezezaguna helbide hartan eta zen ukatu jakinarazpena hartzera. Bistakoa da, beraz, interesatuak ez zuela izan babes judizialerako eskubiderik, ediktu bidezko jakinarazpenaren eraginez, inongo babesik gabe geratu baitzen.

Gauzak horrela, 72/1999 gomendioa egin genuen, likidazioaren zorpeko egiaztapena eta premiamendu erabakia indarrrik gabe utz zitzaten. Izan ere, interesatuak jakinarazpenak ez jaso arren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten berria, eta aztergai dugun kasuari buruzko jurisprudentziaren arabera, ez zen zilegi ez-ohiko bide hori erabiltzea.

- Emaizta

Ondorengoia izan zen Ogasun Sailaren erantzuna: *“aurreko idazkien edukia berretsiz, zuzen jokatu genuen, jakinarazpenak egin zirenean indarrean zegoen lege araudia betez (Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbidearen 30/1992 Legea). **Ondorioz, ezin dugu zuen gomendioa onartu.**”*

Ogasun Sailak gure gomendioa ez zuela onartuko jakinarazi zigunean, Arartekoaren eginkizunei buruzko 3/85 Legea kontuan hartuta, espedientea artxibatu eta Eusko Jaurlaritzari urtero bidaltzen diogun txostenean sartu genuen, aurtengoan, alegia.

⇒ *Prozedura exekutiboa zuzenean eta pertsonalki ez jakinarazi izana (74/1999)*

- Erreklamazioa

Leganeseko biztanle batek kexa bidali zion Arartekoari, ez zegoelako ados Tolosako Udalak bere ondasunen kontra bideratutako exekuzio prozedurarekin. Izan ere, interesatuak ez omen zuen izan aipatutako espedientearen berri, lan egiten zuen enpresan nominatik kopuru bat kendu behar ziotela esan zioten arte: Tolosako Udalak bere soldata bahitzeko agindua eman zuela jakinarazi zioten orduan.

Ildo horretan, salatzaileak ez zuen ulertzen zergatik ez zion igorri Tolosako Udalak premiamendu prozeduraren ondoriozko administrazio egintzen jakinarazpenik, ongi baitzekiten Leganesen bizi zela: Izan ere, Tolosako udal erroldan baja eman zuenean aurrerantzean zein herritan biziko zen adierazi behar izan zuen. Gainera, Tolosan baja eman zuenetik Leganesen zegoen erroldatuta.

- Azterketa

Erreklamazioari zegozkion gestioak burutu genituen Tolosako Udalarekin, eta zorra preskribituta egoteko aukera ere aipatu genuen. Baina Udalak jakinarazpenak zuzenak izan zirela adierazi zigun, eta ondorioz, preskripzio epea bukatzeke zegoela.

Udalak zioenez, exekuzio prozeduran zehar hartutako erabakiak interesatuaren zerga egoitzara bidali zituzten: Bilketa Bulegoan agertzen zen egoitzara, alegia. Zergei buruzko Foru Arau Orokorren (ZFAO) 45.2. artikulua ere gogorarazi ziguten. Arau horren arabera, zerga egoitza aldatu nahi duen zergadunak ezinbestez egin beharko du esanbidezko aitortpena eta aurrerantzean zein helbide izango duen zehaztu. Esanbidezko aitortpenik egin ez badu, aurreko egoitza izango da baliozkoa, baita jakinarazpenetarako ere. Horrela, interesatuari Tolosako egoitzari bidali zitzaizkion jakinarazpenak, eta ez zen inolako emaitzarik lortu. Ondorioz, aipatutako jakinarazpenak bertako iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratzea erabaki zuen Tolosako udalak.

Honakoa ere zegoen jasota udal espedientearen: Tolosako Udalak interesatuaren egoitzari buruzko datuak eskatu zizkiola bere udal erakunde berriari, premiamendu prozeduraren ondoriozko administrazio egintzak bertara bidali ahal izateko. Dena den, aipatutako erakundeak ez zuen inolako erantzunik eman.

Aurreko informazioa jaso ondoren, Arartekoak gomendio jakin bat egin zion Tolosako Udalari: nominetan bahitutako kopurua eta kopuru horri zegozkion interesak

itzultzeko. Izan ere, aipatutako bahitura gauzatu zenean, zorrak jadanik preskribituta zeuden, ZFAOaren 64.b) artikuluan finkatutako mugaeguna –bost urtekoa, alegia– igarota baitzegoen.

Aipatzekoa da Auzitegiek zerga egoitzaren aldaketaren inguruan finkatutako jurisprudentzian oinarritu zela gure gomendioa. Jurisprudentzia horrek malgutu egin du egoitza aldaketen berri emateko obligazioa hiru kasu hauetan: subjektu pasiboak informazioa nahi gabe ezkutatu duenean, zerga egoitza berria zerga administrazioaren esku dagoenean edo datu hori beste bide batzuetatik lortu ondoren jakinarazpenei buruzko teoria orokorrari heltzen zaionean.

Bestalde, Tolosako Udalari gogora ekarri genion interesatuak zegokion zerga administrazioari jakinarazi ziola egoitza aldaketa, hau da, Tolosako Udalari berari. Beraz, bazekiten interesatuak baja eman zuela biztanleen erroldan eta Leganesera joan zela bizitzera. Beraz, nahiko erraza zen Leganesen interesatua non bizi zen jakitea.

Ildo horretan, bereziki azpimarratu genien, gure lege ordenamenduaren arabera, udal errolda dela administrazioaren ondorio guztietarako kontuan hartu beharreko dokumentu publiko eta fede emailea, bertan agertu ohi baitira kasuan kasuko udal esparruan izenemandako biztanleak zein iragaitzak. Tolosako Zerga Bulegoak eskura zuen bertako errolda: interesatua bajaran zegoen jadanik; beraz, administrazioaren ondorio guztietarako, zergak barne, argi zegoen erreklamatzaila ez zela Tolosan bizi. Garai hartan Leganesen bizi zela jakinda, ez du zentzu handirik jakinarazpenak ordura arte Tolosan izandako egoitzara bidaltzea.

Tolosako Udalak bazekien interesatuak beste zerga egoitza bat zuela, ofizioa bidali baitzion erroldan, bizileku berriaren atalean, agertzen zen udaleko Alkate-Lehendakariari, interesatuak bertan zein helbide zuen jakiteko asmoz.

Administrazio arteko lankidetzak ez zuen zertan geldiarazi ordainketa eragin nahi zuen administrazioaren exekuzio eginbidea, baina, hala ere, Arartekoaren ustez, ez zegoen ediktu bidezko jakinarazpena burutzeko arrazoirik. Gainera, ez zitzaion jarraitu 30/92 Legean ezarritako prozedurari.

Gainera, gogoan izan behar dugu, gure ordenamenduaren arabera, jakinarazpena ez dela eginbide formal hutsa. Aitzitik, hainbat mekanismo eta berme ezartzen dizkio bi printzipio konstituzional hauek beti bete daitezten: babes eta segurtasun judiziala. Ahal izanez gero, Administrazioak ediktu bidezko jakinarazpenik ez egiten saiatu behar du, gainontzeko bideekin ez bezala, ezin izaten baita egiaztatu interesatuak jaso duen ala ez..

Auzitegi Konstituzionalak jakinarazpenei buruz emandako jurisprudentzia argigarria da oso: ediktu bidezko jakinarazpenek azken aukera baino ez dute izan behar; jakinarazpenak helarazteko izan daitezken bide guztiak agortu behar dira aurretik. Gainera, bestelako bide horiek erabili izanaren egiaztapen formalak ere aurkeztu beharko da.

Gure iritziz, ediktu bidezko jakinarazpenak ez zituen bete 30/92 Legearen 59.4. artikuluko aurreikuspenak, ez baitzuten argitaratu ez interesatuaren azken bizilekuko udalaren (Leganes) ediktu taulan, ez udal horren Autonomia Elkarteke Aldizkari Ofizialean (Madril). Aitzitik, exekuzio prozeduraren ondoriozko administrazio egintzak Tolosako Udalaren ediktu taulan eta GAOn argitaratu zituzten.

Jurisprudentziaren arabera, ediktuak ez badira administratuaren azken egoitzako udalean argitaratzen, kasuan kasuko jakinarazpena indargabetuta geratuko da. Ondorioz,

honako eskaria egin zuen Arartekoak: bahitutako zenbatekoak eta horien interesak erreklamatzailari itzultzeko, bahitura gauzatu zutenean zorrak preskribituta baitzeuden. 5 urte baino gehiago igaro ziren, eta horixe da ZFAOaren 64.b) artikuluan zerga zor likidatuak ordainarazteko ezarritako muga.

- Emaiza

Tolosako Udalak onartu egin zuen interesatuari nomina bahitu ziotenean zorretako bat preskribituta zegoela. Dena den, beste zorrari dagokionez, kexaren izapideetan zehar emandako argudioa berretsi zuen.

## B) Udal zergak

⇒ *Exekuzio espediente baten galera (2456/1998)*

- Erreklamazioa

Barakaldoko finka baten oinordekoak honako salaketa bidali zioten aztergai Arartekoari: batetik, higiezin bati zegokion dirua kobratu zutenean, kopuru bat bahitu egin zietela ezagutzen ez zituzten zerga zor batzuen ondorioz; bestetik, ez zietela utzi likidazioaren banakapena ikusten.

Salatzaileek ziotenez, desjabetzapenari zegokion dirua kobratu zutenean ez zekiten euren amak inolako zorrik zuenik.

Hiri kontribuzioa eta OHZ borondatezko epean ez ordaindu izana zen aipatutako zorren iturburua. Beraz, erreklamatzailak Barakaldoko Udalera eta Bizkaiko Foru Aldundira jo zuten zorra zenbatekoa zen jakiteko. Baina ordainketa gutun batzuk baino ez zituzten lortu, bahitutako kopurua baino txikiagoak.

- Azterketa

Gauzak horrela, zorrak kobratzea helburu zuen premiamendu espedientea igortzekoa eskatu zion Arartekoak Barakaldoko Udalari eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari.

Honakoa erantzun zigun Foru Aldundiak: ezin zigula eskatutako informazioa bidali, OHZ kobratzeko hitzarmena egin baitzuten Barakaldoko Udalarekin, eta azken horri zegokiola zorrak kobratzea eta espedienteak bideratzea. Barakaldoko Udalak, berriz, kasu horren espedientea ez zutela aurkitzen jakinarazi zigun, ez baitzegoen Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenaren ondoren jaso zituzten dokumentuen artean.

Zor gehienak 1977tik 1990ra arteko ekitaldietakoak zirenez, erreklamatzaileri bahitutako zenbatekoa itzultzeko eskatu zion Arartekoak Barakaldoko Udalari. Halaber, bahitura gauzatu zenetik sortutako interesak ere itzultzeko adierazi zion. Izan ere, preskripzioa ez zen inola ere eten eta, ondorioz, bahitura agindua eman zutenean zorra kobratzeko mugaeguna igarota zegoen jadanik. Dena den, halakorik egonez gero, Udalari dagokio gertakari horren kontrako frogak aurkeztea.

Bestetik, kontuan izan behar da zerga zor likidatuak ordainarazteko epea 5 urtekoa dela, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Orokorrei buruzko martxoaren 26ko 3/1986

Foru Arauaren 64. artikulua arabera. Beraz, preskripzioak ofizioz gauzatu behar dira, eta kasuan kasuko zergaren subjektu pasiboak ez du zertan eskatu. Bilboko Udalaren txostenak ez zuen inolako aipamenik egin zor horien preskripzioa aztertzeko aukeraren inguruan.

- Emaiza

Bilboko Udalak gure gomendioak onartzeko asmoa zuela adierazi zigun eta, beraz, erreklamataileei bahitutako zenbatekoak itzuliko zizkiola, sortutako berandutzako interes eta guzti.

⇒ *Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren %50 ordaintzea (342/1999)*

- Erreklamazioa

Erreklamatailea Gasteizeko etxebizitza baten lurzorua jabetzaren titularra izan da 75 urtez.

EAEko Administrazioak eman zion aipatutako jabetza 1995ean, babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenaren baitan baitzegoen. Horregatik ordaindu zioten OHZaren %50 hiru urtez, 1998ra arte. Arabako Lurralde Historikoak ekainaren 15ean emandako 17/98 Foru Arauaren bidez, zerga onura horren epea luzatu egin zen, eta erreklamataileak luzapen hori lortzeko eskaria egin zuen.

Gasteizeko Udalak, 1999ko otsailaren 25eko erabakiaren bidez, ez zuen onartu erreklamatailearen eskaria, honekin batera doan fotokopian adierazten den arrazoi zela eta: **lurzorua gaineko eskubidea ez zuela benetan gauzatu.**

- Azterketa

Arrazoi labur horrek bi irakurketa izan ditzake. Batetik, Gasteizeko Udalak ez zuela kontuan izan interesatua etxebizitza horretan bizi zenik, eta hori egiaztatzeko aski zen udalbatzak bere esku zituen datuak ikustea.

Bestetik, Udalak ez zuen onartu etxebizitzaren erregimenak "lurzorua gaineko eskubidea" ere barne hartzea, eta hori argi agertzen da interesatuak eta EAEko Administrazioak 1995eko abenduaren 12an notario aurrean sinatutako eskrituraren kopian.

- Emaiza

Horri guztiari buruzko galderak egin genizkion Udalari eta honakoa erantzun zigun Ogasun Zuzendariaren txosten baten bidez: Zerga Kudeaketarako zerbitzuek -erreklamataileari zein eskubide zegozkion aztertu ondoren- 1999ko ekainaren 17ko espedientea ireki zutela, Eusko Jaurlaritzak Araban duen Etxebizitza eta Ingurugiro Ordezkaritzak bidalitako informazioaren ondorioz. Gero, erreklamataileak aztergai dugun higiezinako lurzorua gain eskubidea zuela egiaztatu zutela.

Ondorioz, Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren %50 baino ez ordaintzeko eskubidea aitortu zitzaion hurrengo 5 urteetarako, hau da, 2000tik 2004ra.



⇒ *Minusbaliotasunaren ondorioz Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ez ordaindu behar izatea (442/1999)*

- Erreklamazioa

%33etik gorako ezintasun fisikoa duen hiritar batek honakoa bidali zion aztergai Arartekoari: Errenteriako Udalak Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga (aurrerantzean TMIZ) ordaintzeko agiria helarazi ziola.

Interesatuaren ustez, TMIZ ordaintzetik salbuetsita dago minusbaliatua izateagatik eta bere ezintasun fisikoa egiaztatuta dauka, gainera. Bestalde, bere jabetzako ibilgailuak abiadura kaxa automatikoa du Trafikoko Zuzendaritzak zirkulaziorako ezartzen dion baldintza murriztailea betetzeko, baina ez du bestelako aldaketarik egin beharrik bere egoerari begira.

- Azterketa

Arartekoak gai horri buruzko txostena bidaltzeko eskatu zion Errenteriako udalbatzari eta honakoa ere jakinarazi zion: salbuespenei buruzko araudian aldaketa handiak egin direla eta, arau berrien arabera, are nabarmenagoa dela ibilgailuak abiadura kaxa automatikoa izateak, tailer mekaniko batean edo fabrikari bertan ezarria, ez duela inolako garrantzirik.

Halaber, Errenteriako Udalarari ondorengo datua ere ekarri genion gogora: ibilgailu moldatuak direla aipatutako zerga salbuespenaren xedeak, eta interesatuaren ibilgailua bere ezintasunarentzat ezin hobeto moldatuta zegoela, gidabaimenak ezartzen zizkion baldintza murriztaileak bete ahal izateko.

Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Sailaren Lehen Atalak 1998ko azaroren 18an emandako epaiak Arartekoaren iritzia alde egin zuen eta horren berri eman genion, azkenik, Errenteriako Udalarari. Aipatutako epaiak ondorengoa zioen, besteak beste, :

*“Adberbio horrek hasiera batean ez zuen adierazten zein aldaketa mota egin beharko duten minusbaliatuek, bakoitzak bere ezintasunaren arabera moldaketak burutu beharko baititu. Horrela, abiadura martxa automatikoa dakarten serie ibilgailuek ere legearen babesa izango dute, baldin eta horixe bada gidabaimenean eskatzen den baldintza bakarra. Beraz, zerga salbuespena lortu ahal izateko, ez da beharrezkoa izango marka eta mota bereko edo bestelako ibilgailu bat erosi eta aldaketa kaxa aldatzea, seriekoak ere onartuta baitaude.”*

- Eraitza

Errenteriako Udalak jakinarazi zigunez, interesatuaren ibilgailuari zerga salbuespena ematea erabaki zuen Alkateak, eta halaber, 1999ko TMIZ kobratzeko bidali zioten ordainagiria ere indarrrik gabe uztea.

Erreklamazioa konpondu eta interesatuari emaitzen berri eman ondoren, Arartekoak burututzat eman zuen aipatutako kexa.

⇒ *Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren subjektu pasiboa (496/1999)*

• Erreklamazioa

Bermeoko biztanle batek kexa aurkeztu zigun, ez baitzitzaion zuzena iruditu bertako etxebizitza bati zegokion Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioz 1999an Udalak buru zion likidazioa.

Interesatuak adierazi zuenez, berak eta bere ahizpak uko egin zioten familia herentziari, eta aipatutako etxebizitza zen aipatutako ondasunetako bat. 1997ko urtarrilaren 14an sinatu zuten notario idazkia herentziari uko egiteko.

Katastroko datuak aldatzeko eta zergaren likidazioa indargabetzeko eskatu zion Udalari, baina honakoa izan zen erantzuna: Udala ezin zitzaizela subjektu pasiboei zuzendu.

Ondorengoa jakinarazi zuen, azkenik, erreklamatzailerak: bost anai-arreba zirela, eta lauk baino ez ziotela uko egin herentziari.

• Azterketa

Dena den, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Arau Foru Orokorren 33. artikulua dioenez:

*“Hala erabaki duten foru arauetan –adibidez OHZaren Fan– herentzia banatugabeak herentziak eta ondasun erkidegoak subjektu pasibotzat hartuko dira, eta baita nortasun juridikorik gabeko gainerako entitateak ere, baldin eta zergaia izanik unitate ekonomikoa edo ondare banatua osatzen badute.”*

• Emaiza

Kexa jaso bezain laster, gai horri buruzko informazioa eskatu genion Bizkaiko Foru Aldundiari eta honakoa adierazi zigun Katastro eta Balorazio zerbitzuko buruaren idazki baten bidez: erreklamatzailerari okerretara ezarri zitzaizela titulartasuna eta, beraz, balio gabetu egin zitzaizola. Titulartasun horren ondoriozko administrazio egintza guztiak ere balio gabetuta geratu ziren. Katastroan titular zuzena ezartzeko asmoa zutela ere adierazi ziguten.

⇒ *Ibilgailu misto moldagarrien balorazioa TMIZri dagokionez (522/1999)*

• Erreklamazioa

Ibilgailu misto baten titularrak honako kexa bidali zion Arartekoari: Errenteriako Udalak 1999ari zegokion Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ) bidali zionean, bere ibilgailua kamioitzat hartu eta horiei dagokien zenbatekoa eskatu ziola.

Interesatua ez zetorren bat sailkapen horrekin, ordura arte turismoei zegokien zenbatekoa ordaintzen baitzuen, bere ibilgailuaren zerga mailaren arabera. Hori bai, Pasaiaiko Udalean ordaintzen zuen aipatutako zerga.

Interesatuaren ibilgailuak 525 Kg-tik gorako zama erabilgarria garraiatzeko baimena zuela adierazi zigun Errenteriako Udalak.

• Azterketa

Ikuskapen teknikorako txartelean adierazitako kalifikazioaren arabera izaten da ibilgailu moten sailkapena TMIZri dagokionez. Kasu horretan 3100 sailkapena eman

zitzaion ibilgailuari, nolakoa zen kontuan hartuta, hau da, ibilgailu misto moldagarria zelako (31), baina oraindik zehazteke zegoelako zertarako erabiliko zuten (00).

Bi baldintza hartzen dira kontuan ibilgailuek TMIZn zein tarifa ordaindu behar duten finkatzeko: batetik, ezaugarri teknikoak eta, bestetik, aipatutako zerga arautzen duen udal Ordenantzan ezarritako irizpideak.

Errenteriako Udalak TMIZrako tarifen oinarritzko elementuak arautzen dituen zerga Ordenantza onartu zuenean, ez zuen zehaztu zein tributu mota ordaindu beharko zuten ibilgailu misto moldagarriek. Sei ibilgailu mota handi baino ez zituen bereizi, maila eta potentzia kontuan hartuta. Ondorengo ibilgailuek zein tarifa ordainduko duten erabaki zuen: turismoek, autobusek, kamioiek, traktoreek, atoiek, erdiatoiek, ziklomotoreek eta motozikletek.

TMIZri buruzko uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauak xedatzen duenez, ibilgailu moten sailkapena erregelamendu bidezko garapenaren arabera izango da. Horrela, irailaren 4ko 49/1990 Foru Arauak ibilgailu moten kontzeptua finkatu eta TMIZrako tarifak ezartzeko legeak zehaztu zituen. Era berean, ibilgailu moten eta tarifen arteko loturari dagokionez, 1984ko uztailaren 16ko Agindu Ministerialari jarraituko zitzaiola xedatu zuen.

Ondorioz, bide publikoan zirkulatzeko modukoa den ibilgailuren bat ez badago TMIZ arautzen duen Ordenantzako tarifetan berariaz aipatuta, 1984ko uztailaren 16ko Agindu Ministerialak egindako sailkapenari erreparatuko zaio. Horrela, kasuan kasuko ibilgailuaren ezaugarri teknikoak kontuan hartuta, sailkapeneko zein ibilgailu motaren antza duen ikusiko da, zenbateko zerga dagokion finkatzeko.

Ibilgailu mistoa, nolako egitura duen kontuan hartuta, *“salgaiak eta pertsonak batera nahiz bereizita garraiatzeko prestatutako **automobila** da. Eserlekuak ezarritik, zama osoaren edo zati baten ordezkari pertsonak eraman ditzake. Baina, gehienez ere, bederatzi eserleku ezarritik dira, gidariarena barne.”*

Turismoa, berriz, *“motozikleta ez bezala, pertsonak garraiatzeko prestatutako eta egindako **automobila** da eta bederatzi plaza ere izan ditzake, gidariarena barne”.*

Azkenik, Foru Dekretuaren definizioaren arabera, kamioia *“gauzak garraiatzeko prestatutako eta egindako ibilgailua da. Hiru gurpileko motozikleta definizio horretatik kanpo dago, 400 kilogramotik beherako gauzak garraiatzeko baitago prestatuta eta eginda”.* Dena den, 49/90 Foru Dekretuak eraikuntza irizpideetan oinarrituz egindako definizioaren arabera, kamioia *“kabinadun ibilgailua da. Hiru plaza ere izan ditzake kabinan, eta atal hori gainerako karrozeriatik bereizita egoten da”.*

Ibilgailu mistoek ez dutenez kamioien ezaugarri tekniko bereizgarria (gainerako karrozeriatik at dagoen kabina), ibilgailu misto moldagarria automobila dela uste dugu, automobilen antz handiagoa baitu kamioiena baino.

Era berean, 49/90 Foru Dekretuko zerbaki kodeen antolamenduaren arabera, kamioien antzeko ibilgailuei 20 edo 29 kodeak eman ohi zaizkie ikuskapen teknikorako txarteletan. Dena den, ikuskapen txarteletako zerbaki klabearen lehen bi digituetan 30etik gorako zerbakiak agertu ohi dira, eta kopuru horietan bi ibilgailu mota baino ez daude: 30.a edo turismotik eratorritako ibilgailua eta 31.a edo ibilgailu misto moldagarria.

1984ko Aginduak bi definizio ematen ditu ibilgailu mota horien inguruan, eta oso antzekoak dira biak. Batetik, turismotik eratorritako ibilgailua *“turismo mota baten bertsioa da, baina lehengoaren oinarritzko ezaugarri guztiak gordetzen ditu,*

*kabinaren aurrealdea barne. Izan ere, aurrealdean **gauzak garraia daitezke, baina eserlekuak ezarriz pertsonak ere eraman daitezke zama osoaren edo zamaren zati baten ordez***. Ezaugarri berberak aipatzen ditu ibilgailu misto moldagarriaren definizioak: *“**salgaiak eta pertsonak batera nahiz bereizita garraiatzeko prestatutako automobila. Eserlekuak ezarriz, zama guztiaren edo zati baten ordez pertsonak ere eraman ditzake. Baina, gehienez ere, bederlatzi eserleku ezarriko dira, gidariarena barne**”*.

Honakoa jakinarazi genion, beraz, Errenteriako Udalari: Apirilaren 16ko 781/1986 Errege Dekretuak xedatu zuenez, 525 Kg baino gehiagoko zama erabilgarria garraiatzeko baimena duten ibilgailuek kamioien zerga bera ordainduko dute, baldin eta furgonetak badira. Dena den, 1984ko Aginduan ez zen furgonetan inguruko definiziorik egin eta, ondorioz, 1986ra arte arazo ugari sortu ziren zerga ordaintzetan. Aipatutako Errege dekretuak bi zerga mota finkatu zituen furgonetentzat: 525 Kg-tik beherako zama erabilgarria garraia zezaketenak turismoen parekoak izango ziren eta 525 Kg-tik gorako zama erabilgarria garraia zezaketenak, berriz, kamioien parakoak. Aipatutako agindua, ordea, jadanik ez dago indarrean, Udal Ogasunak arautzen dituen 39/88 Legearen Lehen Xedapen Indargabetzailearen d) atalaren ondorioz.

Gauzak horrela, Arartekoak aipatutako likidazioa indargabetzeko eskatu zion Errenteriako Udalari, eta beste likidazio bat ere egin zezala interesatuaren ibilgailua turismotzat hartuz eta turismoei dagozkien zergak ezarriz.

- Emaizta

Errenteriako Udalak berretsi egin zuen bere erabakia eta kexaren inguruko izapideetan izandako irizpideari eusteko asmoa zuela adierazi zigun. Dena den, honakoa jakinarazi genien: barne irizpide hori ez zegoela jasota inongo udal arautan eta ez zegoela araututa gai horri buruzko Foru Arauan ere, hau da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udal erakundeen TMIZ arautzen duen uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauan.

### C) Bestelakoak

⇒ Trafikoko isun bat zatikizko monetaz ordaintzeari buruz (2610/1998)

- Erreklamazioa

Irungo biztanle baten kexa jaso genuen, Udal horrek ez ziolako utzi trafikoko isun bat txanpon bidez ordaintzen.

Interesatuak eskura nahi izan zuen ordaindu isuna. Zatikizko monetak eman zituen, baina ez zizkioten ordaindu.

Salaketa ezarri zuen Irungo Udaltzaingoan, eta udaltzainburuak argi utzi zion kexa publikoek derrigorrez onartu behar dutela indarrean dauden moneta guztiak, inolako mugarik gabe.

- Azterketa

Lege xedapen ugari eman izan dira moneta metalikoen jaulkipena eta txanpongintza arautzeko. 1998ko otsailaren 3ko Agindua izan da azkena (BOEko 36. zk.).

Kexagaiari buruzko informazioa eta txostena bidaltzeko eskatu genion Irungo Udalari. Heldu zitzaigun txostenaren arabera, zuzenbide publikoko zorren ordaintetan moneta kopurua mugatzeko eskubidea zuela uste zuen. Halaber, Irungo Udalak 1998ko otsailaren 3ko aginduaren bosgarren atala ere gogorarazi zigun, gure idatzian aipatu genuen berbera, alegia:

*“Txanpon horiek **inolako mugarik gabe onartuko dira kaxa publikoetan eta partikularren artean, baina azken horien kasuan salbuespen batzuk izango dira...***”.

Beraz, partikularren arteko zorretan baino ez dira aipatzen salbuespenak eta gure kasuan, kaxa publikoak ditugunez aztergai, bistakoa da derrigorrez onartu behar direla indarrean dauden moneta guztiak, inolako mugarik gabe.

Arartekoak badaki horrek eragozpenak sortuko dizkiela, agian, administrazio zerbitzuei, baina ezin dugu ahaztu zor gehienak ez direla zatikizko moneta bidez ordaintzen. Gainera, ezin da jokatu indarrean dauden lege xedapenen kontra.

- Emaidza

Gure erakundea sortu eta arautu zuen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 11. artikuluan oinarrituz, 9/99 gomendioa egin genion Irungo udalbatzari: bertako kaxa publikoetan indarrean dauden zatikizko moneta mota guztiak onar zitzatela, moneta kopuruan inolako mugarik ezarri gabe, 1998ko otsailaren 3ko Agindua betez.

Irungo Udalak onartu egin zuen gure gomendioa eta interesatuari isuna nahi zuen moduan ordaintzeko aukera eman zion. Horrela, itxi egin genuen espedientea.

## D) Udal tasak

⇒ *Zabor bilketarako zerbitzua benetan gauzatzeko betebeharra (1042/1999)*

- Erreklamazioa

Baserri baten jabeak kexa bidali zion Arartekoari, Zierbenako Udalak zaborren gaineko tasa ordaintzeko eskatzen ziolako: izan ere, bere etxetik 3 Km-ra kokatutako puntu batean uzten diote zabor bilketari.

- Azterketa

Zabor bilketaren gaineko tasa arautzen duen Zierbenako Udal Ordenantza jasotzen denez, aztergai dugun tasa “*zabor bilketarako derrigorrezko **zerbitzuari** dagokio...*”. Gainera, “*zabor bilketa zerbitzua burutzen hasi eta berehala sortzen da tasa. Derrigorrezko zerbitzua denez, une honetan sartu ohi da indarrean aipatutako tasa: **zerga bilketarako udal zerbitzua osatu eta jardunean hasten denean, bai kaleetan bai tasa ordaindu behar dutenen etxebizitzak edo lokalak dauden eremuetan.***”

Auzitegi Gorenak (1997ko ekainaren 7ko AGE, 12.362/1991 zenb.), Errioxako (1997ko uztailaren 30eko epaia, 396 zenb., 292/1996 zenb.) eta Gaztela-Mantxako (1997ko irailaren 25eko epaia, 408 zenb., 560/1995 zenb.) Auzitegi Nagusiek argi

utzi dute zabor bilketarako zerbitzua benetan gauzatzen ez den lekuetan bizi direnei ez zaiela aipatutako tasa kobratu behar.

Bestalde, Gaztela-Mantxako Auzitegi Nagusiak bidegabetzat jo du honako kasu honetan zaborren gaineko tasa kobratzea: erreklamatzaillearen etxetik 300 metrora zabor ontzirik ez dagoenean. Izan ere, kasu horretan interesatuari ez zaio udal zerbitzurik ematen eta, ondorioz, ezin zaio eskatu zerbitzu horri dagokion tasa ordaintzerik.

- Emaidza

Zaborren gaineko tasa eskatu ahal izateko zerbitzu hori benetan eman behar dela jakinarazi genion Zierbenako Udalari. Azkenean, interesatuari bidalitako likidazioa indargabetzea erabaki zuen aipatutako udalak.

## 7. HERRIZAINGOA

### 7.1. SARRERA

Alor horretan burututako jardueri dagokienez, lehenengo eta behin, kexen inguruko sailkapen sistema berria ezarri dugula da aipatzekoa. Ondorioz, Arartekoaren jarduera eremua kontuan hartuta, honako azpialor hauek izango ditu aurrerantzean Herrizaingo alorrak: Atxiloketa zentroak, Eskubideak eta askatasunak, Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura, Jokoa eta ikuskizunak, Herri babesa, Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazio erantzukizuna, Hauteskunde erregimena, Herri Segurtasuna, Segurtasun pribatua, Trafikoa eta, azkenik, Bestelakoak izena izango duen azpialor orokorra. Aipatutako egitura jadanik indarrean dagoen arren, 1999ko ekitaldian zehar aurkeztutako edo ofizioz hasitako salaketak ez ziren azpialor horietan sailkatu. Izan ere, kontuan hartu behar da egitura berri hori zehatz-mehatz aztertu behar dela Arartekoaren jardunerako erabiltzen hasi aurretik, funtsezkoa baita aurretiaz finkatzea zein esparrutan gauza daitekeen benetan.

1999ko ekitaldian 70 kexa jaso genituen Herrizaingo alorrean. Herrizaingo Saileko organo eta zerbitzuen jokabideak eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalen jarduerak izan ziren kexa gehienen xedeak. Aipatutako kexak, bestalde, ondorengo azpialor hauetakoak izan ziren: 49 Trafikokoak, 12 Herri segurtasunekoak, 4 Administrazioaren funtzionamendu eta administrazio prozeduretakoak, 3 Bestelakoak, 1 Eskubide eta askatasunekoak eta 1 Segurtasun pribatukoa. Halaber, ofiziozko 11 espediente ireki ditugu: 6 atxiloketa zentroen ingurukoak, 3 trafikoko azpialorraren ingurukoak, 1 herri segurtasunaren ingurukoak eta beste 1 eskubide eta askatasunei dagokiena.

Trafikoko azpialorrean 49 kexa bideratu ditugu alde baten eskariz: 25 Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko organo eta zerbitzuen jokabideen kontrakoak izan dira (hiru espedientetan Arabako Foru Aldundiaren Bilketa Exekutiborako zerbitzuen jarduerak aztertzen dira), 8 Bilboko Udalaren jardueren kontrakoak, 4 Gasteizeko Udalaren kontrakoak, 3 Donostiako Udalaren kontrakoak, 2 Barakaldoko Udalaren kontrakoak, 2 Santurtziko Udalaren kontrakoak, 1 Bizkaiko Foru Aldundiaren kontrakoa (Bilketa Exekutiboa), 1 Arabako Foru Aldundiaren kontrakoa (Bilketa Exekutiboa), eta, azkenik, hiru udal hauek ere kexa banaren helburu izan dira: Laguardia, Lasarte-Oria eta Sopela. Kexen gaiak, bestetik, aurreko ekitaldietakoan antzekoak izan dira: zehapen erregimena, premiamendu bidezko zehapenak, kautelazko neurriak (ibilgailuak bide publikotik kendu izana etab.), aparkamendu mugatuak.... Hala ere, ez zaigu egokitu bereziki aipatzeko moduko arazorik.

Ofiziozko hiru espediente ireki ditugu Trafikoko azpialorrean. Lehenengoak Bilboko Udaltzaingoko zerbitzuek hartutako kautelazko neurriak ditu helburu: Europako Elkartetik kanpoko hiritar batek, Espainiako legediaren arabera, behar bezala prestatu gabeko ibilgailuak gidatzen zituelako hartu ziren aipatutako neurriak. TAO arautzen duen Barakaldoko udal ordenantzaren arau jakin batzuen legezkotasunari buruzkoa da bigarren espedientea. Azkenik, hirugarren espedienteak Gasteizeko udal zerbitzuen permitibitate salatzeko, oinezkoentzako eremuetan ibiltzen diren bizikletak zein bestelako ibilgailuak direla eta.

12 kexak Herri segurtasuna izan dute helburu. Honakoak bidali zaizkio Arartekoari: Ertzaintzako funtzionarioen 9 ekintzaren kontrako salaketak -bi espedientetan Gasteizeko

Udaltzaingoko funtzionarioen jarduerak daude aztergai eta beste baten Bilboko udaltzain batzuenak- eta Bilboko Udaleko Udaltzaingoko 2 funtzionarioen kontrako salaketak. Salaketa egin dutenek irregulartzat edo neurriz kanpokotzat jo dituzte jokabide gehienak.

Polizia jarduerari dagokionez, ofiziozko espedientea ireki dugu Bilboko Udaltzaingoko funtzionario batzuen kontra, San Frantzisko auzoan zeuden zenbait atzerritarrek izandako jokabidearen ondorioz. Aipatutako gaia eta Bilboko auzo horretako arazoak txosten honetako atal batean landu ditugu sakonago: besteak beste, Arartekoak burututako ikerketak azaltzen dira bertan (I.1.1.8. kapitulua).

Azterketa gehiago egiteari utzi gabe, Arartekoak 1999an zehar azpialor honi dagozkion gaietan burutu dituen eginkizunen (ekitaldi honetan nahiz aurrekoetan bideratuak) balorazioa egin ahal izateko, ezinbestez hartu behar da kontuan herri administrazioek kasuan kasuko gomendioak onartu dituzten ala ez. Ildo horretan, bereziki aipatu behar dugu Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak oso jarrera ona izan duela eta bi polizi jarduerari buruzko ikerketa prozedurari ekiteko prest dagoela. Izan ere, Arartekoak gehiegikeriaz jokatzeari leporatu zien aipatutako bi poliziei identifikazio, atxiloketa eta araketa lan batzuk burutzerakoan. Halaber, Arartekoak hiritar batek aurkeztutako salaketan ere hartu zuen esku: Ertzaintzaren komisaldegia batera joateko deia hartu eta bertaratu zenean, "eginbide" batzuk burutu behar izan zituen interesatuak, inolako bermerik gabe, nahiko delitu larri baten ustezko egilea ez zela "frogatu" ahal izateko. Bereziki aipatzekoa deritzogu, baita, sail honek Eusko Jaurlaritzari bidalitako gomendioari, atxiloketetan inolako tratu txarririk ez gertatzeko hartu behar diren neurriak bideratzeko eskatu baikenion. Aipatutako ikerketak eta emaitzak hain garrantzitsuak direnez, gai horien guztien laburpena egitea erabaki dugu, eta ondoren emango dugu denen berri.

4 kexa aurkeztu ziren Administrazioaren funtzionamenduaren eta administrazio prozeduren kontra, eta jokabide hauek izan zituzten oinarri: Plentziako Udalak ez ziola erantzun bertako udaltzain batzuen jokabideari buruz bidalitako idazki bati; Donostiako udalak ez ziola erantzun ibilgailu bat bide publikotik kentzeagatik ordaindutako kopuruen itzulketari buruz bidali zitzaion idazki bati eta, gainera, ez zuelako utzi Herrizaingo Saileko organo eskudunek ezarritako zehapen baten kontrako errekurtoa bideratzen. Aipatutako zehapenean Herritarren Segurtasunari buruzko Legea hautsi izana leporatzen zen. Ondorengoa izan zen, azkenik, azken kexaren salaketa: Gipuzkoako Trafiko Zerbitzuan utzitako dokumentazio jakin bat berreskuratzeko izandako zailtasunak.

Bestelako gaien azpialorrean 3 kexa bideratu ditugu: Portugaleteko udaleko biztanle erroldan izena emateko arazoak aipatzen dira horietako bitan eta, bestean, NANaren berrikuntza prozesuari buruzko zenbait arazo.

Eskubide eta askatasunen azpialorrean, besteak beste, Leioako udaltzain batek adin txikiko batekin izandako jokabidea salatzen da. Halaber, ofiziozko espedientea ere ireki genuen Ertzaintzako funtzionario batzuek Hondarribiko Alardean izandako jokabidearen kontra. Azken kexa hori burututa dago jadanik, eta gomendio bat egin zen azkenean. Txosten honen V. kapituluan emango dugu, hain zuzen, gomendio horren berri.

Segurtasun pribatuaren azpialorrean, segurtasun zaindari batek denda batean egindako "atxikipenari" buruzko espedientea bideratu dugu. Dena den, espediente horretan Ertzaintzako funtzionario batzuek atxikipenaren ondoren izandako jokabidea ere jasotzen da.



Azkenik, atxiloketa zentroak helburu dituzten ofiziozko 6 espediente bideratu ditugu, jarraian aipatuko ditugun atxiloketa zentroak zertan diren jakiteko asmoz: batetik, Portugalete, Getxo, Azpeitia eta Laudioko udaletakoak, eta bestetik, Gernika eta Basauriko Ertzaintza komisaldegiak. Leku horietan guztietan egindako ikuskapenen emaitzak gure txosteneko I. kapituluko 1.1.7. puntuetan agertzen dira.

Aipatu ditugun datuen bidez, azken ekitaldian zenbat lan bideratu genituen nahi izan dugu adierazi, eta baita hiritarrek nolako aztergaiak igorri zizkiguten ere. Aipatzekoa da, bestetik, aurkeztu diren kexa guztiak aztertu ondoren, denetan egiaztatu direla irregulartasunak edo lege hausteak. Bestalde, kexetako aztergaiei dagokienez, txosten honetako beste kapitulu batzuetan adieraziko dugu administrazio jarduerak zuzenak izan diren ala ez; batik bat, zein gomendio bidali ditugun eta gomendio horiek bete al diren zehazten duen atalean.

Ondoren, egokitu zaizkigun kasurik garrantzitsuenen (1999ko ekitaldian eta aurreko urteetan aurkeztutako kexak dira, baina aurreko ekitaldian burutuak denak) laburpenak bildu ditugu.

## 7.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Atxiloketa zentroak

⇒ *Kontrol sistemaren bat ezartzeko premia, atxilotetetan tratu txarrik izan ez dadin (1974/1998)*

- Erreklamazioa

1998ko ekainean, urte hartako lehen hiruhilekoan atxilotutako hiritar batzuen senideek txostena bidali ziguten. Bertan, 81 lagunuen testigantzak biltzen ziren: komisaldegian tratu txarrak eta torturak jasan zituztela salatzen zuten guztiak. Guardia zibilen edo polizia nazionalen kontrakoak ziren kexa gehienak, baina hamabost kasutan Ertzaintzak izandako jokabidea salatzen zen.

Aipatutako hamabost atxilotetak hainbat data eta lekutan burutu ziren, baina bi elementu komun izan zituzten: motibazioa –ustez ETAko ekintzetan parte hartu izana edo lagundu izana– eta isolamendu erregimena. Hiru hiritar aldi berean atxilotu zituzten, gainera, eta ohiko muga baino (72 ordu) 8 ordu gehiago eman zituzten komisaldegian. Salaketa egin zuten hiru lagun adin txikikoak ziren.

Honako hauek dira ertzainei leporatutako irregulartasun nagusiak: kolpeak (2 kasu); mehatxuak, presio psikologikoak eta irainak (15 kasu); galdeketak abokaturik gabe egitea (9 kasu); lo egiten ez uztea (8 kasu); jatekorik ez ematea (3 kasu); ileetatik tira egitea (2 kasu); atxilotua biluztera behartu eta egoera horretan argazkiak ateratzea (2 kasu); luzaroan egon behar izatea biluzik (2 kasu); sexu umiliazioak eta laidoak (kasu 1).

- Azterketa

Bistakoa denez, salatutako gertakariak oso larriak ziren eta ondorio penalak izan zitzaizketen. Ezertan hasi baino lehen, gertakariok Ministerio Fiskalari jakinaraztea iruditu zitzaizkien egokiena. Baina txosteneko ia kasu guztietan argi aipatzen zen interesatuak

jadanik aurkeztu zuela salaketa Argibideetarako Epaitegian, oro har, inputatu gisa deklaratu zuenean. Ondorioz, ustezko tortura eta/edo atxiloketa ilegalak ezagutu eta zehazteko behar diren kontrol mekanismoak jadanik abiarazita egon behar zuten, ustez. Baina Arartekoak, legeak aitortzen dituen oinarrizko eskubideen alde egitea dagokion aldetik, gai horretan esku hartzea erabaki zuen: salaketetako arrazoiek agerian uzten zituzten joerak aztertu eta barne ikerketak sustarazi zituen polizi gorputzetan.

Ikuspegi horri jarraiki, Arartekoak Guardia Zibilak eta Polizia Nazionalak izandako jokabideen berri eman zion Herriaren Defendatzailerari. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari ere Ertzaintzaren kontrako salaketen berri eman zion.

1998ko urrian, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak txosten luzea bidali zigun: zehatz-mehatz adierazten zuen nola burutzen dituen Ertzaintzak atxiloketak –bereziki, isolamendu agindua izaten dutenak– eta, bestalde, zein jardunbide eta mekanismo erabiltzen dituzten atxilotuen eskubideak bermatzeko. Baina, Arartekoaren ustez, txostenak ez zuen ematen inolako argibiderik tratu txarrak salatu zituzten hamabost atxiloketen inguruan. Bi datu baino ez zituen aipatzen: atxiloketa guztiak egin zirela eta zein atestatu zenbaki eman zitzaion bakoitzari.

Herriaren Defendatzailearen jakinarazpenaren zain geratu ginen, bi erakundeon artean nagusi diren lankidetzaren harremanen bidetik. 1999ko urtarrilean, Herriaren Defendatzaileak Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak bidalitako txostena helarazi zigun, baina ez zuen inolako ondorioz atera, artean ez baitzituen eskura Segurtasunerako Estatu Idazkariari gainontzeko salaketen inguruan eskatutako informazioak.

Aipatutako izapidea asko ari zenez atzeratzen, ahalik eta informazio gehien eskuratzea erabaki zuen Arartekoak. Ertzaintzaren kontra tortura salaketa ezarri zutenen atxiloketen nondik norakoak jakiteko asmoz, maiatzean zehar, bilerak burutu ziren gure saileko aholkularien eta Ertzaintzako arduradunen artean. Kasuan kasuko atestatuei buruzko argibideak ezagutu genituen, horrela. Hainbat alderdi aztertu ziren hamabost kasuetan, besteak beste: zein ordutan sartu eta atera zituzten komisaldegietatik eta zein ordutan eraman zituzten Entzutegi Nazionalera; ba ote zegoen eskubide jakinarazpenari buruzko agiririk eta zein ordutan egin zen; hala zegoen kasuetan, atxiloketaren luzapenari eta isolamendu aginduari buruzko datuak; azkenik, non burutu ziren deklarazioak eta zenbat iraun zuten. Datu honi erreparatu genion batik bat: ea atxilotuengana lege ordezkaririk eta/edo auzitegiko medikurik joan zen, eta zenbat aldiz.

Bestalde, Arartekoaren erakundeak salatzaileei ere idatzi zien, salaketen inguruan inolako lege prozedurarik bideratu ote zen jakiteko. Baina, behar adina denbora utzi arren, ez genuen erantzunik jaso eta honako ondorioa atera genuen, beraz: salatzaileek ez zutela salatutako tratu txarren inguruko inolako lege prozeduraren berri.

Gure erakundearen ustez, bi dira atxilotuen eskubideak bermatzeko hartu beharreko neurriak garrantzitsuenetakoak: batetik, lege ordezkarien bisita –oro har, argibideetarako epaileak, epai idazkariak eta auzitegi medikuak bertaratu behar dute–; bestetik, auzitegi medikuak egindako osasun azterketa. Aipatutako bisiten nondik norakoak hobeto ezagutzeko asmoz, bilera gure erakundearen aholkulariek bilera egin zuten Gasteizko Klinika Mediku Forentseko bi medikurekin. Atxilotuei egin ohi zaizkien bisitei buruzko argibide interesgarriak eman zituzten eta, salatutako tratu txarrak aipatu genizkienean, honakoa erantzun ziguten: atxilotuek sarri ematen ziela tratu desegokien berri, baina une hartan bertan azterketaren bidez ikusten zutena baino ez zutela idazten euren

txostenetan. Atxilotuen artean bi kexa hauek oso ugariak zirela aipatu zuten: batetik, ez zietela lo egiten uzten, gauez hainbat aldiz esnatzen zituztela eta gelatik kanpora ateratzera ere behartzen zituztela; bestetik, lekualdaketei zegokienez, eskuburdinak ezartzeko modua eta derrigorrez hartu beharreko jarrerak salatzen zituzten gehienbat. Hitz batean, giza duintasunaren kontrako ekintzak ziren guztiak, baina oso zaila izaten da horrelakoak osasun azterketen bidez egiaztatzea.

Aurrerago aipatu bezala, horrelako salaketak ugariak dira oso. Horrek ez du esan nahi benetan gertatu direnik, baina ezinbestez hartu behar dira kontuan atxilotuen eskubideen erabateko babesa bermatu nahi bada. Legez kontrako jardueren adierazgarritzat hartu behar dira, nolabait, eta beraz, ikertu egin behar dira nahitaez. Bistakoa da, gainera, neurriak hartu behar direla aurrerantzean ez dadin horrelako gertakaririk jazo.

Arartekoak, Eusko Legebiltzarraren Bilkuran aditzera eman zuenez, funtsezko deritzo Herrizaingo Sailak eskura dituen neurri, teknika eta mekanismo guztiak egoki antolatzeari. Ildo horretan, NBEak torturen inguruko gaietarako duen Ordezkarri Bereziak (E/CN.4/1998/38) atxiloteta guztiak bidez grabatzeko aukera proposatu zuen, eta gure erakundea ere horren aldekoa da. Grabaketa horiek burutzeko arazo tekniko ugari gainditu beharko lirakeenez, tarteko prozeduraren bat erabiltzea iruditzen zaigu onena, Ertzaintzaren atxiloteta zentroetan egun dituzten sistemekin bateratzeko modukoa, alegia. Horrela, ziegen eremuko korridoreetan TB kamaraz osatutako zirkuitu itxia egon ohi da, eta adibidez, kamara horien bidez egindako grabaketak gordetzea litzateke aukerako neurri bat.

Grabaketa horien bidez hainbat alor aztertzeke modua izango genuke gero: zenbat aldiz eta zein ordutan atera duten atxilotua gelatik beste norabait eramateko, noiz eman dioten janaria eta, batez ere, zaintzaileek –edo bertan egoteko baimena duen beste norbaitek– atxilotuari lotan utzi dioten ala ez. Ez litzateke, jakina, beharrezkoa izango atxiloteta guztien grabaketak osorik ikustea. Aipatutako sistema martxan jartzea soilik prebentzio neurria izango litzateke. Aski litzateke, baita, atxiloteta batzuk ausaz aukeratu eta grabaketak burutzea, baina agenteei horren berri eman gabe, noski.

- Emaizta

Aipatutakoa kontuan izanik, Arartekoak gomendio bat egin zion Herrizaingo Sailburuari, Ertzaintzaren arduradun gorena den aldetik. Atxilotuen eskubideen kontrako polizi jarduerarik gerta ez dadin, honako prebentzio neurria proposatu zion: Herrizaingo Sailak kontrol sistema bat aztertu eta, hala badagokio, ezar dezala, ziegen eremuko korridoreetako kamarez egindako grabaketetan oinarrituz. Atxiloteta prozesu osoa, hasieratik bukaerara, grabatu beharko litzateke korridoreetako kamaren bidez.

Bestalde, Herrizaingo Sailak finkatu beharko lituzke aipatutako kontrol mekanismoaren ezaugarri zehatzak, baina bistakoa da benetan eraginkorra izateko gutxieneko baldintza batzuk bete behar dituela. Besteak beste, ondorengoak:

1. Grabaketa arduraduna: Herrizaingo Sailak aukeratuko du zein atxiloteta grabatuko diren erabakiko duen arduraduna edo batzordea. Halaber, arduradun edo batzorde horren zeregina izango da grabaketa guztiak ikustea. Bistakoa da ez dela aukeratu behar atxilotetak egiten edo atxilotuak zaintzen dituzten unitateen funtzionamenduari eta antolamenduari zerikusirik duen inor.

2. Ertzaintzak egindako atxiloketa guztiak grabatzea ezinezkoa denez, grabaketa batzuk baino ez dira burutuko, baina kasuan kasuko ertzainak inoiz ez du jakingo noiz ari diren grabatzen eta noiz ez.
3. Grabaketa guztiak aztertuko dira, eta bideoak arrazoizko denbora batez gorde – puntu hori zehaztu egin beharko litzateke–, atxilotuen eskubideen bermearen arduradunek eskura izan ditzaten. Atxiloturen batek salaketa egiten badu, prozedura judiziala bukatu arte gordeko da materiala.
4. Grabaketen errolda sortu behar da, grabaketetan ikusitakoa idatziz ere jasotzeko. Halaber, grabaketak ikusterakoan gorabeheraren bat agertzen bada, kasuan kasuko gertakaria ere idatziz jasoko da. Horrela, eskubideen aldeko erakundeok eskura izango dugu beti aipatutako sistemari buruzko informazioa.

Herrizaingo Sailak bestelako prebentzio eta kontrol neurriak ere aukera ditzake guk gomendatutakoaren osagarri; izan ere, askoz hobeto ezagutzen baititu komisaldegien funtzionamendua eta aukera teknikoak. Kontuan izan behar da, bestalde, Arartekoak askotan aipatu duen bezala, berme egokiak eskaintzen dituen kontrol mekanismo oro dela erabilgarria. Baina derrigorrez bermatu beharko ditu, batetik, atxilotuen eskubideak eta, bestetik, Ertzaintzaren izen ona oinarririk gabeko kexa edo salaketen kontra.

Txosten honen bukaeran, Herrizaingo Sailak ez digu bidali egin genion gomendioari buruzko erantzunik.

## B) Eskubideak eta askatasunak

⇒ *Artxibo automatizatueta polizi datuak ezeztatzeari eta polizi ikerketetan eginbide jakin batzuk gauzatzeari buruz (1993/1998)*

### • Erreklamazioa

Honako hau jakinarazi zigun hiritar batek: Ertzaintzako komisaldegi batera joateko deitu ziotela delitu baten ikerketaren inguruko eginbide jakin batzuk zirela eta. Bertaratu zenean, datu pertsonalak hartu zizkieten eta, ondoren, une haietan aztergai zuten delituan susmagarri izan zitekeela adierazi zioten. Eskura zituzten datuetan oinarrituz leporatu zioten aipatutako salaketa. Galdera batzuk egiteko eta hatz aztarnak hartzeko asmoa zutela esan zioten, baina galdera bakarra egin zioten: ia zein ikasketa zituen. Era berean, inprimaki bat ere eman zioten, hainbat datu adieraz zitzan: datu pertsonalak, NAN zenbakia, helbidea, gurasoen izena... eta sinadura. Salatzailak ea zein delitu ari ziren aztertzen galdetu zien ertzainei, baina ezin ziotela ezer esan erantzun zioten. Orduan jakinarazi zioten argi zegoela ez zuela inolako zerikusirik aztergai zuten delituarekin eta etxera joan zitekeela. Komisaldegitik joan aurretik esan zioten zein delitu ari ziren aztertzen. Interesatuak bere haserrea adierazi zien, telefonoz deitu ziotenean ez ziotelako esan zergatik joan behar zuen komisaldegira. Gainera, ez zuen abokaturik izan, eta ez zioten bere eskubideen berri eman.

### • Azterketa

Aipatutako kexa hartu ondoren, Arartekoak Herrizaingo Sailera jo zuen gai horri buruzko informazio bila. Puntu hauek izan zituen, batik bat, kontuan: a) zitazioaren

arrazoia eta aztergai zuten arazoari buruzko informaziorik ez eman izanaren zergatia; b) komisaldegira heldu eta datu pertsonalak eskatu zizkietenean datuok zertarako erabiliko zituzten esan ote zioten, eta bestetik, ea datuok fitxategi automatizaturen batean sartzeko asmorik zuten. Horrelakoetan, datu pertsonalen tratamendu automatizatuari buruzko araudiaren arabera zein eskubide dagozkion esan behar zaio interesatuari, eta ea horrelakorik egin zuten nahi zuen jakin Arartekoak; c) informazio bera eskatu zuen interesatuak, polizi funtzionarioen aginduz, bete zuen inprimakiko datuen inguruan .

Honakoa izan zen Herrizaingo Sailaren erantzuna: ikerketa jakin batzuen ondorioz deitu ziotela interesatuari. Sumariopean zegoen delitu bat ikertzen ari zirenez, interesatuak ez zuela horietan parte hartu egiaztatzea zen, hasiera batean, izapideen helburu bakarra. Beraz, ez zitzaionez ezer leporatzen, ez zioten aztergai zuten kasuari buruzko informaziorik eman. Datu pertsonalak, bestalde, “aplikazio informatiko” batean sartu zituzten, Ertzaintzak horixe erabiltzen baitu komisaldegira joandakoen informazioen tratamendurako. Azkenik, inprimakiaren bidez, idatzizko froga bat nahi izan zuten lortu, gordeta zeukaten beste idazki batekin alderatzeko asmoz. Beraz, aipatutako froga egin ondoren, argi geratu zen interesatua ez zela susmagarria eta identifikazio eginbidea artxibatu egin zuten, gerora suntsitzeko.

Aurrekari horiek kontuan izanik, txostena bidali zitzaion Herrizaingo Sailari ondoren zehaztuko ditugun alderdiak jakinarazteko:

1. Komisaldegira heldu eta inprimakia bete zuenean interesatuari eskatu zizkieten datu pertsonalei dagokienez, ez genuen behar beste informazio urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoan, Herrizaingo Sailburuaren 1996ko maiatzaren 16ko aginduan eta Datu Babeserako Agentziaren martxoaren 1eko 1/1996 Instrukzioan jasotako aurreikuspenak bete ote ziren jakiteko. Izan ere, lehen Legeak eta bigarren Agindua datu pertsonalen tratamendu automatizatua arautzen dute. 1/1996 Instrukzioa, berriz, eraikinetarako sarbideak kontrolatzea helburu duten fitxategi automatikoei buruzko da. Interesatuari ondorengo datuak jakinarazi al zizkieten jakitea zen gure xedea: bere datuak bilduko zituen fitxategi informatizaturik ba ote zegoen, norentzat izango zen informazio hori, zertarako jaso behar zituzten datuok, derrigorrez erantzun behar al zuen, zer gertatuko zen erantzutera ukatuz gero, sarbide, errektifikazio edo ezeztapen eskubideak erabiltzeko aukera eta, azkenik, fitxategiaren arduradunaren identitatea eta helbidea.

Adierazitakoari kalterik eragin gabe, Herrizaingo Saileko fitxategietan bildutako datuak berehala ezeztatzeko gomendioa egitea erabaki genuen, bai komisaldegira bertarututakoan hartu zizkietenak, bai froga kaligrafikoaren bidez lortu zituztenak. Ildo horretan, gogoan izan behar da lehen datuen ondorioz hartu zutela interesatua delitu baten ustezko susmagarritzat. Urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoaren 20.4 artikuluan oinarrituta atera genuen aipatutako ondorioa. Izan ere, Lege horren arabera “*Helburu polizialeterako bildutako datu pertsonalak ezeztatu egingo dira, horien bilketa eragin zuten ikerketetarako beharrezkoak ez badira*”. Horrela, jaso genuen txostenean argi eta garbi aipatzen zen interesatuak ez zuela inolako zerikusirik aztergai zituzten gertakariekin. Dena den, ez dugu ahaztu behar Datu Babeserako Agentziaren Instrukzioaren bosgarren araua: “*Datu pertsonalak ezeztatu egingo dira bildu ziren egunetik hasi eta hilabetera*”.

2. Interesatuari bidalitako zitazioa eta ertzaintzak burututako jardunbideak kontuan izanik, ezinbestekoa iruditu zitzaigun argi zehaztea zeintzuk diren lege ordenamenduak poliziarri ezartzen dizkion erantzukizunak eta hiritarrei finkatzen dizkien betebeharrak.

Horrela, Auziperatze Kriminalerako Legearen 282. Artikuluak xedatzen duenez, *“Honakoak izango dira polizia judizialaren helburuak eta betebeharrak: dagokion lurraldean edo eremuan gertatutako delitu publikoak ikertzea; kasuan kasuko eskumenei jarraiki, delitu horiek frogatzeko eta errudunak aurkitzeko behar izango diren izapideak burutzea, eta azkenik, galtzeko arriskuan dauden ondorio, tresna edo froga guztiak bildu eta Aginte Judizialaren esku uztea”*. Beste bi aurreikuspen ere izan ditugu kontuan: Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 445. Artikulua eta Segurtasun Indarrei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoaren 4.1. artikulua. Azken horren dioenez, *“Hiritar guztien betebeharra da Segurtasun Indarrei delituen ikerketetan laguntzea, beti ere legearen aurreikuspenak betez”*.

Delituen ikerketetan poliziak eta hiritarrek zein erantzukizun orokor dituzten zehaztu ondoren, aztergai genuen kasuan bat eginik zeuden bi errealitate berezita hartzea erabaki genuen, gure iritiz, erreferentzia elementuak izango zirelako ertzaintzaren jokabidea neurtzeko. Lehenik eta behin, delitu horren inguruko ikerketetan izapide judizialak bideratu ziren eta, ondorioz, polizi zerbitzuek Botere Judizialaren Lege Organikoaren 446. Artikulari jarraiki, epaitegien eta Ministerio Fiskalaren zuzendaritzapean jardun behar zuten. Gainera, interesatuari bidalitako zitazioa susmo batzuen ondorioa izan zen, aztergai zuten delituarekin ustez nolabaiteko lotura izan zezakeelakoan. Susmo horren ondorioz, gure iritiz, interesatua egoera berezian geratu zen ikerketen inguruko izapideekiko. Jaso genuen txostenak honako hau zioen, besteak beste: *“...Unitate horretan delitu larri eta garrantzitsu bati buruzko ikerketak ari ziren burutzen eta, interesatuaren datuak ikertzaileek eskura zituztenekin nolabaiteko zerikusituzenez, egokia iruditu zitzairen (...) jaunari komisaldegira etortzeko deia egitea. Izan ere, hainbat alderdi nahi zituzten egiaztatu interesatua susmagarria ez zela argi gera zedin”*. Gero, susmoak “baztertzeko” burututako urratsen berri ematen zuen: aurrerago esan bezala, inprimaki bat betetzeko esan zioten interesatuari, froga kaligrafikoa nahi baitzuten eskuratu gero ikerketetan jasotako datu edo aurrekariekin alderatu ahal izateko. Dena den, ez zioten esan zein zen froga horren benetako helburua. Ildo horretan, bistakoa da froga idatziaren bidez interesatuak delituarekin zerikusia zuela ikusi balute, ondorioak oso larriak izango zirela interesatuarentzat, eta beraz, kasuak berme handiagoak eskatzen zituela iruditu zitzaigun. Espainiako Konstituzioaren 24. artikuluan ere aipatutako eskubideak aurreikusten dira, hots, nork bere buruaren kontra ez deklaratzeko eta defendatzeko eskubidea. Aipagai dugun ikerketa argibideetarako epailearen esku zegoen eta, gainera, interesatuak emandako datuetatik susmoak areagotzeko aukera zegoen, litekeena baitzen gertakari horietan parte hartu zuela pentsatzea. Ondorioz, gure iritiz, funtsezkoa zen auzitegiak kasua behar besteko bermeaz bideratzeko moduko erabakiak hartzea, poliziak eskura zituen aurrekariak ezagutu ondoren, berme prozesal guztiak izango zituzten izapideak gauza zitezten. Horrela, emaitzak positiboak lortuko zituzten ikerketetan.

Aurrerago aipatutako txostenean adierazten denez, nahi gabe lortutako datu kaligrafikoei esker –nahi gabe lortuak, interesatuak ez zuelako horien benetako helburua ezagutzen– egiaztatu zuten interesatuak ez zuela inolako zerikusirik ikertzen ari ziren gertakariekin. Ondorioz, ez zen interesatuari buruzko deklarazio negatiborik egin. Gauzak horrela, organo eskudunek ez zuten zertan hartu inolako ezeztapen neurririk, ezta EKren 24. artikuluan aitortutako eskubideak ustez ez zirela bete erabaki izan balitz ere. Horixe

dio, behinik behin, Auzitegi Konstituzionalaren 37/1989 epaiak: “*Deklarazioaren egileak ez zituenez ezagutzen inputatu gisa zegozkion bermeak, ez da, izan ere, inolako ondorio negatiborik eragin, eta ez zaio, bereziki, inolako kondenarik ezarri. Bistakoa denez, deklarazioa behar diren baldintza eta neurririk gabe hartu izanak ezinbestez dakar berekin jarduketa horren ezeztapena, baldin eta, ondorioz, kondena luzatu egin bada edo kondena larriagoa ezarri bazaio. Epaimahai honek akastutzat joko luke kondena epaia, Konstituzioak aurreikusten dituen bermerik gabe burututako deklarazio batean oinarrituta egoteagatik, eta erabaki judiziala ere indargabetuta utziko luke. Izan ere, hipotesi horren arabera, inputatuaren adierazpenak legez kontra lortu zirenez, ezingo lirateke bere kontra erabili. Aztergai dugun kasuan ez da horrelakorik gertatu, egiaz, aipatutako irregulartasunaren ondorioz ez baita (...) andrearen kontrako erabakirik hartu; bestela, erabakiok indargabetu egin beharko lirateke”. Adierazitakoari kalterik eragin gabe, gure ustez, polizien jokabidea ez zen egokia izan interesatuaren eskubideen bermeei dagokienez.*

- Emaita

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak, adierazi ditugun iritziei erantzunez, honakoa jakinarazi zigun: ezin izan zutela egiaztatu, argi eta garbi, interesatuari datu kontrolaren inguruan zegozkion eskubideen berri eman zitzaion ala ez. Dena den, datu bilketan aritzen diren funtzionarioak aipatutako informazioa ematera derrigortuta daude beti. Bestalde, “Zentroetarako Sarbidea” fitxategian bildutako datu automatizatuak ezeztatu egingo zituztela ere adierazi ziguten. Ildo horretan, interesatuak betetako inprimakiaren bidez lortutako datuak ez ziren agertzen ustez egon behar zuten fitxategian. Ondorioz, ez zirenez agertzen, ezin izan zituzten, jakina, ezeztatu. Azkenik, froga kaligrafikoa lortzeko modua ere desegokitzat jo zuten, oinarritzko eskubideen bermea kontuan hartuta, eta horrelako konponbide guztiak zuzentzen saiatuko zirela ere adierazi ziguten. Horrela, bukatutzat eman genituen gai horri buruzko eginkizunak.

### C) **Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura**

⇒ *Manifestazio baterako ezarritako baldintzak ez betetzearen ondoriozko administrazio erantzukizunak direla eta (2628/1998)*

- Erreklamazioa

Manifestazio baterako deialdia egin zuen hiritar batek gutuna bidali zion Arartekoari, Herrizaingo Saileko organo eskudunek ezarritako zehapena azter zezan. Honakoa izan zen zehapenaren arrazoia: egiaztatuta zegoela ez zituela Herritarren Segurtasunerako Zuzendariak manifestaziorako ezarritako baldintzak bete.

- Azterketa

Herritarren Segurtasunerako Zuzendariak Bilboko manifestazio baterako ezarritako baldintzak ez betetzea izan zen interesatuaren kontrako zehapenaren sorburua. Izan ere, baldintza horien arabera, manifestariek ezin zuten trafikoa erabat moztu eta Udaltzaingoak erabaki behar zuen galtzadako zein alderdi hartu ibilbiderako.

Udaltzaingoak unean uneko zirkulazio egoerari erreparatuta hartuko zuen erabakia. Hala ere, manifestazioak galtzada osoa hartu zuen, eta trafikoa erabat moztuta geratu zen.

Honakoa izan zen, beraz, gure jardunbidean eta ondorioetan eraginik handiena izan zuen funtsezko aztergaia: nor hartu zuen manifestazioak galtzada osoa betetzeko eta, beraz, trafikoa erabat mozteko erabakia, bistakoa baita ez zirela manifestaziorako baldintzak inondik inora bete. Zehapena ezarri zuen organoak deialdia egin zutenei leporatu zien erantzukizun objektiboa.

Zehapen prozeduraren izapideak burutzen ari zirela, interesatuak honakoa jakinarazi zuen: Bilboko Udaltzaingoko agenteek erabaki zutela trafikoa erabat moztea eta beraiek, Herritarren Segurtasunerako Zuzendariaren baldintzei jarraiki, udaltzainen erabakia bete zutela. Bestalde, zehapen espedientearen ertzain baten txostenak eragin zuenez, beste txosten bat egiteko eskatu zitzaion ertzain berari, bi helburu hauetarako: bere agertze aktaren edukia berresteko eta trafikoa Bilboko udaltzainek edo manifestariak moztu zuten argitzeko. Aipatutako funtzionarioak bere agertze aktaren edukia berretsi eta ondorengo jakinarazi zuen: *“Bilboko udaltzaingoak galtzadako lau erreietatik bi moztu zituela trafikoarentzat. Manifestariak moztutako bi erreietan zehar egin behar zuten, beraz, ibilbidea Nafarroako kaletik Jesusen Bihotzeraino, beste bi erreiak autoentzat libre utzita. Baina autoentzako erreiak moztuta geratu ziren, manifestariak galtzada osoa hartu zutelako, bai ibilgailuentzat utzitako erreiak, bai manifestarientzat utzitakoak”*.

Espedientearen izapideak aztertu ondoren, izapidegileak erabaki proposamena egin eta interesatuari jakinarazi zion. Interesatuak, proposamena irakurri eta aurreko jakinarazpenean aurkeztutako alegazioei heldu zien berriro: Bilboko udaltzaingoak manifestazionario buruz egindako txostena ere aipatu zuen bere baieztapenen oinarritzat. Besterik gabe, azaroaren 23an hartu zen zehapen erabakia, eta interesatuak ez zuen errekurtsorik aurkeztu.

Arartekoari, zehapen espedientearen egileari ez bezala, funtsezkoa iruditu zitzaion Udaltzaingoaren txostena ezagutzea, interesatuak erabaki proposamenaren ondoren bidalitako alegazioak kontuan hartuta. Ondorioz, aipatutako txostena bidaltzeko eskatu genion Bilboko Udalari. Txostenaren 5. atalean jasotzen denez, udaltzainen buruak honakoa jakinarazi zuen: *“manifestazioak Arriaga Plazatik atera eta Zirkulu Plazara heldu behar zuenez, **sinatzen duen honek, ziur aski, Arenaleko Zubiko lau erreiak mozteko agindua hartuko zuen, hasieran, manifestarien segurtasuna bermatzeko asmoz; izan ere, jende kopuru handia bildu baitzen**”*. Ondorioz, badirudi hasiera batean udaltzainen buruak hartu zuela trafikoa mozteko erabakia, eta ez manifestariak. Txostenaren 7. atalean jasotzen denez, *“Arenaleko Zubian galtzada osoa hartu ondoren, Zirkular Plazaraino, behintzat, manifestazioak horrela jarraituko zuela zirudien. Bertan hasten denez Gran Via kalea, erabakia orduan hartzea pentsatu zuten udaltzainek”*. Dirudienez, manifestazioak Zirkulu Plaza utzi zuenean, manifestariak galtzada osoa hartzen jarraitzea erabaki zuten udaltzainen buruek. Herrizaingo Sailera bidali zuten gero aipatutako txostena, bertan azter zezaten ea ba ote zegoen administrazio erantzukizuna aldarazteko moduko behin-behineko edukirik. Herrizaingo Saileko arduradunek jarrera negatiboa hartu zuten, informazioa helarazi zuen funtzionarioaren arabera, *“manifestariak euren kasa erabaki zutelako galtzada osoa hartzea (...) Hori ikusita, idazki hau sinatu duen arduradunak trafikoa moztea*



*erabaki zuen...*” Informazio hori kontuan hartuta, gure iritziz, azken txostenak indargabetu egiten zituen aurrerago aipatutako ertzainaren adierazpenak.

Aztergai genuen administrazio jokabideari buruzko baterako balorazioa egiterakoan, bi alderdiri erreparatu genien nagusiki, eragin handia izango zutelako gure azken ondorioetan. Lehenik eta behin, aipatzekoa da manifestazioa zaintzeko ardua zuten udaltzain buruek, beraiek adierazi zuten moduan, ez zekitela manifestazioak baldintza jakin batzuk bete behar zituenik. Ez zekiten, hain zuzen ere, ezin zela trafikoa erabat moztu. Bestalde, ertzain baten pasibitatea ere nabarmendu behar da: manifestazioak Herritarren Babeserako Zuzendariak ezarritako baldintzak hautsi zituela ikusi arren, ez zion inori horren berri eman, ez deialdia egin zutenei, ezta udaltzainen arduradunei ere. Eragindako guztiek horren berri izan balute, bi errai libre uzteko aukera izango zuten, administrazio agintariak ezarritako baldintzak betez.

Herri Administrazioen Araubidea eta Guztientzako Administrazio Jardunbidea arautzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 130. artikulua zehatz-mehatz ezarri zuen erruduntasun printzipioa administrazio zehapenen alorrean. Ondorioz, lege hauste administratibotzat tipifikatutako jokabideengatik batzordeari eskakizun juridikoak egin ahal izateko ezinbestekoa da kasuan kasuko lege-haustea ustezko arduradunaren erruz gertatu dela egiaztatzea. Ildo horretan, AGSk 1990eko martxoaren 12an emandako epaia ekarri behar dugu, besteak beste, gogora: *«Lege hauste administratiboak ezin dira inoiz mekanikoki ezarri, hitzez hitzezko enuntziatu hutsaren arabera, hauste suprakontzeptuaren baitan baitaude, eta kontzeptu horren funtsezko batasuna osagarria baita hainbat fenomeno agertzeko aukerarekin. Agerpen horien artean daude nola lege hauste administratiboa hala penala. Bi hausketek jokabide humanoa eskatzen dute ezinbestez, positiboa nahiz negatiboa, eta era beretan, juridikotasunaren kontrako ekintza, erruduntasuna, eta emaitza kaltegarri potentziala edo benetako gertatzea. Halaber, ezinbestekoa da ekintzaren eta emaitzaren artean kausazko lotura egotea ere. Helburu horiek izan behar dituzte lege hausketen inguruko egitura arauak administrazioaren esparruan, hau da, erantzukizunen indibidualizazioa eta erantzukizun objektiboen galarazpena izan behar dituzte xede»*. Era berean, AGSk 1992ko otsailaren 22an emandako epaiaren arabera, *«zehapen egintza orok honako baldintza bete behar du zuzenbidearekin bat etortzeko: subjektu pasiboaren jokabidean zehapena jasotzeko moduko elementuak egokitzea. Subjektuaren dolozko edo asmo txarreko erruduntasuna da elementu horietako bat, delituaren teoriari jarraiki. Erruduntasunak, halaber, arauaren eta zuzenbidearen kontrakoa ere izan behar du, administrazio zehapena zuzen gauza dadin»*. Ildo horretan, ekar dezagun gogora Andaluziako (Malaga) Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Sailak 1997ko apirilaren 30ean emandako epaia: *“Izan ere, Administrazioaren zehapen agintearen eta Estatuaren ‘ius puniendi’ren parekotasuna, ñabardurak ñabardura, hartu behar dugu oinarri. Auzitegi Gorenak 1972ko otsailaren 9an emandako epaia dugu aipatutako parekotasunaren aurrekaria. Epai horren arabera, <lege hauste administratiboak ezin dira inoiz mekanikoki ezarri, hitzez hitzezko enuntziatu hutsaren arabera, hauste suprakontzeptuaren baitan baitaude, eta kontzeptu horren funtsezko batasuna osagarria baita hainbat fenomeno agertzeko aukerarekin. Agerpen horien artean daude nola lege hauste administratiboa hala penala> eta <bi hausketek jokabide humanoa eskatzen dute ezinbestez, positiboa nahiz negatiboa, eta era*

berean, juridikotasunaren kontrako ekintza, erruduntasuna, eta emaitza kaltegarri potentziala edo benetakoa gertatzea. Halaber, ezinbestekoa da ekintzaren eta emaitzaren artean kausazko lotura egotea ere. Azken horren adibide dugu Kode Penalaren 1. Artikuluaren eta Zerga Lege Orokorraren 77. Artikuluaren arteko konparaketa>. Ondorioz, lege hauste administratiboa ezin da hartu erantzukizun objektiboaren aplikaziotzat. Auzitegi Gorenaren doktrina honako hauek ere berretsi zuten: Europako Kontseiluaren Giza Eskubideetarako Auzitegi Europarraren 1976ko ekainaren 8ko epaiak (Engel kasua), otsailaren 25ekoak (Otzürk kasua), 1984ko ekainaren 21ekoak (Campbel eta Fell kasua) eta 1990eko maiatzaren 22koak; Espainiako Auzitegi Konstituzionalak 1981eko ekainaren 8an emandako epaiak eta Auzitegi Gorenak gerora emandako epai ugariak (1987ko maiatzaren 6an, irailaren 21ean eta azaroaren 16an, 1988ko apirilaren 30ean, 1989ko otsailaren 6an eta 1991ko ekainaren 20an). Aipatutako Doktrina legedi positiboan ere sartu dute Herri Administrazioen Araubidea eta Guztientzako Administrazio Jardunbidea arautzen dituen azaroaren 30/1992 Legearen 130. eta 131. artikuluen bidez”.

Ondorio hau atera genuen, azkenik: manifestazioak ez zituela bete Herrizaingo Sailaren Herritarren Segurtagunerako zuzendariak ezarritako baldintzak, trafikoa erabat moztuta geratu baitzen. Baina, Arartekoaren ustez, erabat egiaztatuta geratu da udaltzainen arduradunek erabaki zutela trafikoa moztea, eta une hartako egoerari erreparatuta hartu zutela aipatutako erabakia. Ondorioz, manifestazioaren deialdia egin eta kexa aurkeztu zuen hiritarrak administrazio erantzukizun orotatik libre geratu beharko luke.

- Emaizta

Herrizaingo Sailari bi gomendio egin genizkion: batetik, kasuan kasuko izapideak burutu ondoren, manifestaziorako deia egin eta gerora kexa aurkeztu zuen hiritarrari ezarritako isuna ofizios ezeztatuta gera zedila; bestetik, zehapenean finkatutako kopurua derrigorrez ordainarazteko asmoz prozeduraren bat bideratuta egonez gero, bertan behera utz zezatela. Ildo horretan, aipa dezagun Herritarren Segurtaguna arautzen duen otsailaren 21eko 1/1992 Legearen 23.c) artikuluan aurreikusitako hutssegite bat leporatu zitzaioela. Herrizaingo Sailak onartu egin zuen gure gomendioa *in dubio pro reo* printzipioari jarraiki, eta aipatutako prozedura berrikusteko izapideak hasi zituen.

## D) Herritarren segurtasuna

⇒ *Bide publikoan burututako identifikazio eginbideak eta gorputz araketak direla eta (404/1998)*

- Erreklamazioa

Hiritar batek bi aztergai igorri zizkion Arartekoari: batetik, Ertzaintzako funtzionario batzuen jokabidea, eta bestetik, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari igorritako eskabide baten erantzunik eza. Lehenengo gaiari dagokionez, aipatutako funtzionarioek emakume batzuk kalean identifikatu eta arakatzerakoan izandako jokabidea salatzen zuten. Bigarren gaiari dagokionez, berriz, gertakari horretan parte hartu zuten funtzionarioei diziplinazko

espedientea irekitzeko eskaria igorri zuen, bere iritziz, ertzainen jokabideak ez zituelako bete lege ordenamenduan aurreikusitako baldintzak.

- Azterketa

Gertakariak eta eskuratu genuen informazioa aztertu ondoren, jarraian adieraziko ditugun ondorioak atera genituen: Gasteizeko kale batean gorpu bat zegoenez, jende ugari bertaratu zen, eta tartean, aurrerago aipatutako emakumeak ere bai. Bertan metatutako jende multzoa utzi eta beste aldeko espaloira abiatzen hasi zirenean, polizia funtzionarioek “susmo txarra” hartu eta emakumeak atxiki egin zituzten, jabetzaren kontrako ekintzaren bat egin ote zuten ikusteko. Emakumeak identifikatu eta, gero, arakatu egin zituzten handik hurbil kokatutako atari batean. Izan ere, emakumeek ez zuten komisaldegira joan nahi, bestela espetxera itzultzeko trenea galdu egingo omen zutelako, bertan baitaude kondena betetzen. Emakumeak arakutzen ari zirela, hainbat lagun sartu eta atera ziren ataritik eta,aldi bakoitzean, araketa bertan behera utzi zuten une batez. Salatzaileak ez zekien zehatz-mehatz nolakoa izan zen araketa, hau da, emakumeak erabat jantzita zeuden edo, ertzainek hala eskatuta, arroparen batzuk kendu behar izan zituzten.

Gertakarien deskribapen horretatik abiatuta, txostena igorri zitzaion Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari, besteak beste, honako datu hauek jakinarazteko:

EBren 17. artikuluan iragaite askatasuna aitortzen da, baina ez da erabateko eskubidea, kontuan izan behar baita lotura zuzena duela poliziari delitu azterketen inguruan aitortzen zaizkion erantzukizunekin. Ildo horretan, ugariak izan dira oso aurrerago aipatutako ondorioaren aldeko epai juridikozionalak. Besteak beste, Auzitegi Gorenak (Zigor alorreko Saila) 1994ko otsailaren 23an emandako epaia: *“Erabat onartuta dago gizarte demokratikoetan askatasuna dela lege ordenamenduaren baliorik gorenetakoa. Ez da, ordea, erabateko balioa, ezin baita inoren askatasuna mugatu jarraian zehaztuko dugun kasuan izan ezik, eta kasu horretan ere unean uneko gertakariak argitu arte (Espainiako Konstituzioaren 17.1. artikulua 17.2. artikulua inguruan) eta Legean aurreikusitako moduan gauzatu behar da atxikipena. Izan ere, inoren askatasuna mugatzeko bi baldintza bete beharko dira beti: batetik, delituren bat gertatu dela erakusten duten behar adina arrazoi arrazional izatea, eta bestetik, kasuan kasuko hiritarrak delitu horretan parte hartu duela erakusten duten behar adina froga izatea (17. artikulua, Auzipetze Kriminalari buruzko Legearen 492.4. artikulua ingurukoa)”. Auzitegi Gorenaren Zigor alorreko Sailak, bestalde, honako epaia eman zuen 1997ko ekainaren 4an: “1996ko otsailaren 2ko epaiaren arabera, Sail honek erabakiko ditu araketa, identifikazio, atxikipen eta aldi baterako askatasun murrizketen inguruko arazoak, eta gogora ekartzen du, baita, proportzionaltasuna dela ekintza horien onargarritasuna neurtzen duen ardatza. Funtsezkoa da, oraingo honetan ere, oreka zuzena mantentzea aztertuko den horren eta azterketaren ondorioz hiritarren duintasunari eragin dakizkiokeen kalteen artean. Ildo horretan, Auzitegi Konstituzionalak ondorengo zehaztu du: araketa eta identifikazio lanek ez dutela eraginik ez askatasunerako eskubidean ez Espainiako lurraldean zehar askatasunez iragaiteko eskubidean. Horrelako lanak burutzerakoan, eragozpenak eragiten dira, ezinbestean, kasuan kasuko eginbeharrak burutu arte hiritarrek ezin izaten baitute beste inora joan, poliziaren arauak bete behar izaten dira eta”. Aurretik emandako epaietan jasotzen denez, adierazi ditugun*

helburuetarako burutuko diren polizia lanetan ezingo dira inoiz urratu arrazionaltasun, premia eta proportzionaltasun printzipioak.

Arartekoak eskuratutako informazioen arabera, lehenik eta behin, ez genuen aurkitu behar besteko arrazoi arrazional atxikitako emakumeen iragaite askatasuna mugatzeko. Dirudenez, bi emakumeak jende multzoa utzi eta kalea gurutzatzen hasi zirenean funtzionarioek –ustezko suizidio kasu hura aztertzen ari zirela– susmo txarra hartu zuten, nonbait eta diru zororen bat lapurtu ote zutela pentsatu. Ondorio hori neurritz kanpoko iruditu zitzaigun, arrazionaltasunik gabea, aurkeztu ez ziren bestelako daturen batzuk kontuan hartu ez bazituzten behinik behin. Baina bertan zegoen jendearen artean, inork ez zuen esan diru-zorroa lapurtu ziotenik. Horrela, beraz, polizia funtzionarioek “auresuposatu” egin zuten, inolako arrazoirik gabe, delitu ekintzaren bat gertatu zela eta jende multzoa utzi eta kalea gurutzatzen hasitako bi emakumeak izan zitezkeela delitugileak. Ondorioz, funtzionarioen jokabidea hiritar horien eskubideen kontrakoa izan zela zirudien.

Herrizaingo Sailak honakoa jakinarazi zigun txostenetako batean: araketa TAO bera egin zitzaizela hiru emakumei. *“Araketa berdin-berdin egin zitzaizen hiru emakumei eta (ertzainak) ‘azalekoa’ izan zela adierazi zuen, eta honakoa gaineratu: “jertsea kentzeko eta praktikak askatzeko eskatu ziela hirurei. Barruan zeramaten alkandora edo kamiseta zutela soinean, eta praktikak ere jantzita zituztela, askatuta izan arren. Gero, arakatu egin zituzten. Inor ez zen biluzik geratu, ez osorik ez atalka, eta soinean zeramatzen arropen gainetik ukitu zituzten araketa burutzerakoan”.*

Auzitegi Konstituzionalak erabaki zuenez, gorputza helburu duten miaketak –tartean araketak ere badirela– intimitate eskubidearen kontrakoak izan daitezke, arrazoi objektibo eta zentzuzkorik gabe gauzatzen badira. Ildo horretan, ekar dezagun gogora abenduaren 16ko 207/1996 epaia (1789/1996 Babes Eskeko Errekurtsua): *“ondorio horretarako, proportzionaltasunari buruz dugun doktrinaren baldintzen funtsak gogora ekartzea komeni da: oinarrizko eskubideren bat mugatuko duen neurria Legean aurreikusita egotea, epaileak kasuan kasuko neurriaren aldeko erabakia hartzea eta burutuko den ekintza bete behar den legezko helburu konstituzionalerako egokia, beharrezkoa eta proportzionala izatea”* (OJ 4). Jurisdikzionaltasun baldintzari dagokionez, honako zehaztasuna egin zuen epaimahaiak berak: *“oinarrizko eskubideen mugaketak eskatzen duen monopolio jurisdikzionalak gorputz araketa kasuak ere hartzen ditu barne. Hala ere, (Epailearen aldeko erreserba konstituzionalik ezaren ondorioz), egiaztatutako premiazko arrazoiak daudenean, Legeak baimena eman dezake polizia judizialak ikuskapen ekintzak edo gorputz araketa arinak burutu ditzan, baina beti ere, horrelako zereginak gauzatzerakoan, proportzionaltasun eta arrazionaltasun printzipioak erabat bete beharko dituzte”.*

Aurrerago adierazi bezala, honakoa izan zen gure lehen ondorioa: ez zegoela behar besteko arrazoirik emakumeen iragaite askatasuna aldi baterako mugatzeko. Herrizaingo Sailak zionez, bestalde, araketa egin aurretik jertsea kentzeko eta praktikak askatzeko agindu zitzaizen emakumei. Gure iritziz, agindu hori ez dator bat horrelako ekintzetan nahitaez bete beharreko egokitasun, premia eta proportzionaltasun baldintzekin. Izan ere, Herrizaingo Sailaren txostena kontuan hartuta, jertsea kentzeko eta, batik bat, praktikak askatzeko agindua ez zen, itxuraz, beharrezkoa diru zorro bat aurkitzea helburu zuen azaleko araketa hura burutzeko. Kontuan izan behar da, gainera,

diru-zorroen ezaugarriak kontuan hartuta, arropa artean ezkatututa egon arren, aurkitzeko ez da beharrezkoa horrelako neurririk hartzea.

Laburbilduz, emakume horien iragaite askatasuna mugatu egin zen identifikazio eta araketa lanak burutzeko, eta ez ziren bete horrelako ekintzak arautzen dituzten lege juridiko-konstituzionaletan finkatutako proportzionaltasun eta arrazionaltasun neurriak.

- Emaizta

Hori dela eta, ondorengo gomendioa egin genion Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari: salatzailearen eskariari erantzuteko, aurretiazko informazioei buruzko espedientea bideratzeko agindua eman beharko litzatekeela salatutako gertakariak argitzeko asmoz. Eta behar adinako aztarnak aurkitu eta egiaztatuz gero, diziplinazko espedientea ireki beharko litzatekeela aztergai ditugun gertakarietan parte hartu zuten funtzionarioen erantzukizunak zehaztu eta ardurak eskatzeko. Halaber, salaketa egin duenari ere gai horren inguruan hartuko diren erabaki guztien berri ere emango zaio. Hainbat kontaktu burutu ondoren, Herrizaingo Sailak eskatu zitzaion ikerketa burutzeko asmoz zuela jakinarazi zion Arartekoari eta azken horrek espedientearen ondorioen berri emateko eskatu zion aipatutako sailari.

## E) Trafikoa

⇒ *Donostiako Udal Zerbitzuaren Ordenantzetan Aparkaleku Arautuen inguruan erabakita dauden zenbait araturen lege ordenamenduarekiko desadostasuna (1972/1997)*

- Erreklamazioa

Donostiako hainbat biztanlek ondorengo jakinarazi zioten Arartekoari: arazoak izan zituztela bai bertakoentzako txartelak lortzeko, bai ibilgailuak aparkaleku mugatuetan utzi ahal izateko, gai hori arautzen duen Udal Ordenantzan aurreikusitako zenbait alderdiren ondorioz.

- Azterketa

Aipatutako kebaren edukia Udalaren jarduera jakin batzuei zegokien, eta Udal Ordenantzaren zenbait aurreikuspen izan ziren jarduera horien iturburuak. Arartekoak, aipatutako araua osorik aztertu ondoren, honako ondorioa atera zuen: zenbait xedapen lege ordenamenduan jasotako aurreikuspenen kontrakoak zirela. Horrela, jarraian adieraziko ditugun eskaerak egin zizkion Donostiako Udalari:

\* 14, 19, 32 eta 36. artikuluetan bertakoentzako txartel edo parkimetro indibidualetarako baldintza jakin batzuk ezabatzea. Zenbait puntutan jasotzen denez, zirkulazio zerga eta ekonomi jardueri buruzko zerga ordainduta izan behar dituzte bertakoek, eta gainera, ezin dute izan Donostiako Udalarekiko zehapen zorrik trafiko arauak hautsi izanagatik. Puntu horiek guztiak dira, beraz, ezabatu beharrekoak. Arartekoaren ustez, ez dago horrelako baldintzak eskatzeko arrazoirik, udalak badituelako horrelako zorrak ordainarazteko behar beste mekanismo. Bestalde, zorrak ordainaraziz, presioa eragiten da interesatuengan. Hizpide dugun alorrari dagokionez, Auzitegi

Gorenak, besteak beste, 1987ko uztailaren 13an emandako epaiari erreparatu behar zaio (6.893/1987 ar.).

\* 19. artikuluan aparkaleku txartela eskuratzeko ezarritako baldintza bat ezabatzea: izatezko etxebizitza aparkaleku arautua duten kaleetakoren batean egotea eskatzen duena, alegia; izan ere, norbait udal horretan bizi dela egiaztatzeke, aski baita udal erroldan izenemanda egotea. Ekar dezagun, oraingoan, gogora Biztanleriari eta Lurralde Mugaketari buruzko Araudiaren 53.1. artikulua, abenduaren 20ko 2.612/1996 Errege Dekretuan jasoa. Araudi horri aldatu egin zen urtarrilaren 10eko Udal Erregimenaren Oinarri buruzko 4/1996 Legearen bidez. Honakoa dio 53.1. artikulua: *“Udal errolda administrazio erregistroa da, eta bertan agertzen dira udaletako biztanle guztien datuak. Eta datuok frogatzen dute, hain zuzen, biztanle batek bertan duela ohiko bizilekua”*. Aurreikuspen hori kontuan izanik, hasierako baldintza ez zaigu ez beharrezkoa ez garrantzitsua iruditzen, udal erroldan izenemanda egote hutsak frogatzen baitu interesatuak bertan duela ohiko bizilekua. Beraz, Arartekoaren ustez, 30. artikuluan *“errol datuak”* hitza ezarri behar da, *“izatezko eta zuzenbidezko biztanleak”* esaldiaren ordez.

\* 19. artikuluan aparkaleku txartela eskuratzeko ezarritako betebeharrak bat ezabatzea: etxebizitzaren jabetza edo errentamendu egiaztagiria aurkeztu behar dela dioena, alegia, ez baitakigu zein baldintza nahi den frogatu dokumentu horren bidez. Jarduketa eremuetako etxebizitza batean bizitzea eskatzen bazaie bertako biztanleei (19. Artikuluaren 1. atala), aski izango da udal erroldan izenemanda egotea, eta ez dago zertan bestelako dokumenturik aurkeztu. Gure iritziz, eskatzen diren baldintzak eta baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeke aurkeztu behar diren dokumentuak ez datoz bat.

\* 39. artikuluan aurreikusitako arau hausteen artean, ondorengo atalak ezabatzea: 5 *“Aparkaleku txartelen manipulazio zein faltsifikazioa eta/edo iruzurrezko erabilera”*; 6 *“Biztanle eta ezindu fisikoen ibilgailuentzako aparkaleku txartelen eta udaldirako txartelen erabilera arautzen duten III. tituluko I, III eta IV. kapituluetan aurreikusitako arauak ez betetzea”*; 7 *“Udalak emandako aparkaleku txartelen manipulazioa eta faltsifikazioa”*; 8 *“Udalak emandako aparkaleku txartelen bestelako iruzurrezko erabilerak”*; eta 9 *“III. tituluko I, III eta IV. kapituluetan deskribatutako txartelak datu faltsuen bidez lortzea”*. Legezketasun printzipioa hautsi izana da aurreko gomendioaren arrazoia, Arartekoaren iritziz, jokabide horiek hutsegitetzat hartzea ez baitago jasota lege izaerako inolako arautan. Donostiako udalari aipatutako balorazioaren berri eman genionean, honakoa erantzun zigun: bazegoela jokabide horiek guztiak administrazio hutsegitetzat hartzeko aukera, Kode Penalak arau haustetzat aurreikusten zituelako. Arartekoari ez zitzaion udalaren arrazoia garrantzizkoa iruditu. Aurreko gomendioaren oinarriak adieraziko ditugu jarraian:

a) Espainiako Konstituzioaren 25.1. artikulua arabera, *“Ezin zaio inori zigorrik edo zehapenik ezarri kasuan kasuko egiteak edo ez egiteak gertatu ziren unean legeak ez bazituen horiek delitu, falta edo administrazio hutsegitetzat hartzen”*. Auzitegi arruntek eta Auzitegi Konstituzionalak askotan izan dituzte aztergai berme horren mugak. Gai horri buruzko epaiak ere aski ezagunak eta ugariak dira, eta ez gara hasiko, beraz, denak aipatzen. Auzitegi Gorenak 1998ko urtarrilaren 8an (178/1998) emandako epaia ekarriko dugu gogora, laburpen gisa: *“Jakina denez, Auzitegi Konstituzionalak, Konstituzioaren 25.1. artikulua interpretatuz, behin eta berriro adierazi du bertan aitortutako legezketasun printzipioak berme bikoitza duela zehapen alorrari dagokionez. Lehen bermea materiala eta mugarik gabea da eta*

*erabat agerian uzten du segurtasun juridikoaren printzipioa funtsezkoa dela askatasun indibiduala mugatzen duen eremu honetan, eta halaber; ezinbestez eskatzen du arauak ezarri eta aurretiaz mugatzea, argi jakiteko zeintzuk diren legez kontrako jokabideak eta horien ondoriozko zehapenak. Hau da, aurretiaz finkatutako arau juridikoen bidez, ('lex previa') zehatz-mehatz jakingo da ('lex certa') zein jokabide hartu behar diren arau haustetzat eta zein zehapen ezarri behar zaien. Bigarren bermea formala da eta agindu horren mailarekin du zerikusia, 25.1. artikulua 'indarrean dagoen legedia' aipatzen baitu; zehapenen alorrak lege erretserba du, beraz". Auzitegi Konstituzionalaren 45/1994 epaiaren arabera, aurreko printzipioaren ondorioz, Konstituzioa indarrean sartu zenetik ezin da "tipifikatu arau hauste berririk, ez dago zehapen berririk sartzerik, ezta daudenak aldatzerik ere, horretarako erabilitako erregelamendu arauaren edukia ez badago Lege mailako beste arauaren batean aurreikusita edo mugatuta".*

b) Zehapenei buruzko administrazio erregimenaren esparruan, Herri Administrazioen Araubidea eta Guztientzako Administrazio Jardunbidea arautzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ditu aztergai aurreikuspen konstituzionalak. Aipatutako legearen IX. tituluko I. kapituluak zehapen ahalmenaren hainbat printzipio arautzen ditu, besteak beste, legezketasuna eta tipikotasuna. Horrela, 129.1. artikuluan xedatzen denez, "*Lege Ordenamenduaren kontrako jarduerak baino ez dira hartuko administrazioko arau haustetzat, beti ere hauste horiek Legearen batean aurreikusita badaude*". Arrazoi horiek guztiak eta aurreko agindua kontuan izanik, ondorio jakin bat atera genuen: 5, 6, 7, 8 eta 9. ataletan tipifikatutako arau hausteak aurretik adierazi ditugun printzipio konstituzionalen kontrakoak direla. Udalak emandako arrazoiari dagokionez, Kode Penalean ere arau hauste horiek agertzen direla, alegia, ez du inolako oinarririk, gure ustez, ez baitu 129. artikuluan xedatutakoa betetzen. Ildo horretan, gogoan izan behar dugu Ordenantzaren aurreikuspenak ez direla lege izaerako inongo arautan administrazioko arau haustetzat agertzen.

c) Erregelamendu lankidetzaren mugak zehapenei buruzko administrazio erregimenean daude araututa, 30/1992 Legearen 129. artikulua 3. atalean: "*Legeak ezarritako hauste edo zehapenen zehaztasunak edo mailak erregelamendu gehigarrietan sar daitezke, beti ere hauste edo zehapen horiek berriak ez badira edo ez badituzte Legeak aurreikusitako izaera edo mugak gainditzen. Halaber, jokabideak hobeto identifikatzea edo kasuan kasuko zehapenak errazago zehaztea izan beharko dute beti helburu*". Arartekoaren iritziz, Donostiako Udalak gainditu egin ditu muga horiek guztiak, arau hauste autonomoak sartu baititu bere Ordenantzan, eta arau hausteak ez baitira lege izaerako inolako arautan administrazioko lege haustetzat aurreikusten.

Ondorioz, 27. artikuluko aurreikuspenetan honako testu hau ezabatzeko gomendioa egin genuen: "*dagokion zehapena bideratzeko aukerari kalterik eragin gabe*".

\* Era berean, 3. atalaren 19. artikuluan aurreikusitako baldintza ezabatzeko aukera aztertzeko esan genion Donostiako Udalarari, nahiz eta kasu hori lege kontua ez izan. Aipatutako artikulua arabera, aparkaleku txartela eskuratu ahal izateko, ezinbesteko baldintza da ibilgailuaren jabea eta ohiko gidaria bat bera izatea. Gure iradokizunari jaramon eginez gero, 19.4, 31 eta 36.2.d). artikuluetatik dokumentuen inguruan ezarritako baldintzak ere -adibidez, ibilgailuaren aseguru poliza indarrean egotea- ezabatu beharko lirake.

- Emaizta

Udalbatzak zenbait araturen inguruko gomendioak erabat onartzeko asmoa zuela jakinarazi zigen. Beste arau batzuei buruzko gomendioei dagokienez, baldintza juridiko garrantzitsuak zeudenez aztergai, gomendioen oinarrii buruzko ikerketa juridiko sakona burutzeko konpromisoa hartu zuen Donostiako Udalak.

⇒ *TAOren zaintzaileen salaketak, trafikoko zehapen prozeduren ediktu bidezko jakinarazpenak eta zehapenen preskripzioak direla eta (99/1998)*

- Erreklamazioa

Hiritar batek premiamendu espediente bati buruzko kexa helarazi zion Arartekoari. Bilboko udaleko bilketa exekutiborako zerbitzuek ireki zioten aipatutako espedientea – besteak beste, trafikoko arauak hausteagatik ezarritako bi isun ordainarazteko-, baina hiritarrak zioenez, ez zizkieten jakinarazpenak behar bezala egin eta bi zehapenen muga eguna gaindituta zegoen, gainera.

- Azterketa

Arartekoari egokia iruditu zitzaion TAOren zaintzaileen salaketak aztertzea, interesatuak horren inguruko aipamenik egin ez arren, TAOren zaintzaileak ez baitira polizi agenteak eta aipatutako zehapenak ez baitziren gerora berretsi. Arartekoak informazioa eskatu ondoren, bi salaketak organo eskudunak berretsi zituela adierazi zion Bilboko Udalak. Ondorioz, salaketak ez zituzten TAOren zaintzaileek berretsi. Jurisprudentziak maiz izan du aztergai egoera hori (besteak beste, Auzitegi Gorenaren 1991ko urriaren 1eko epaia, 1993ko azaroaren 23koa, 1998ko abenduaren 20koa eta 1999ko azaroaren 22koa, eta bestalde, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Sailak 1995eko uztailaren 11n emandako epaia), eta honako erabaki hau hartu izan du: TAOren zaintzaileen salaketak, polizi agenteak ez direnez, ezin direla hartu inolako zehapenen oinarritzat, baldin eta gerora ez bada ekintza osagarririk -berrespena, adibidez- burutu. Aztergai dugun kasuan, TAOren zaintzaileek ez zituztenez bi salaketak berretsi, gerora bideratutako espedienteetan ezarri ziren zehapenek ez zuten behar besteko indarrrik eta, ondorioz, ezeztatu egin beharko lirateke. Jurisprudentziaren tesietan oinarritu genuen, hain zuzen, gure erabakia.

Zehapen espedienteen inguruko jardueren jakinarazpenak nola burutu ziren aztertuko dugu jarraian. Udal zerbitzuek adierazi zigutenez, prozeduretako batean interesatuaren etxera joan zen ordezkari bat bai salaketaren bai zehapenen berri zuzenean ematera. Beste prozeduran, ordez, ediktu bidez burutu zen jakinarazpena, interesatua ez zegoelako etxean salaketaren eta zehapenaren berri ematera joan zitzaizkionean. Argi dago, beraz, behin baino ez zirela saiatu salaketaren eta zehapenaren berri etxean zuzenean ematen. Arartekoaren ustez, saio bakar baten ondoren ediktu bidezko jakinarazpena gauzatuz hautsi egin zuten Herri Administrazioen Araubidea eta Guztientzako Administrazio Jardunbidea arautzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4 artikuluan aurreikusitakoa, aztergai ditugun bi kasuak gertatu zirenean, aipatutako artikulua indarrean baitzegoen jadanik.



Administrazio egintzen ediktu bidezko jakinarazpenak, aipatutako arauaren arabera, hiru kasutan baino ezin daitezke burutu: prozeduraren helburu diren interesatuak ezezagunak direnean, jakinarazpena bidali beharreko helbidea edo modua ezezaguna denean eta, azkenik, saiatu arren, ez denean egon horren berri ematerik. Bistakoa da aztergai dugun kasuan bazekitela nor zen interesatua, nora bidali behar zioten jakinarazpena (bai lehenago bai geroago, interesatuaren etxera behar bezala heldu ziren bestelako egintza batzuen jakinarazpenak) eta nola burutu behar zuten aipatutako prozedura. Arrazoi bakarra geratzen zen, beraz, ediktu bidezko jakinarazpena gauzatzeko: etxera bertaratu eta interesatua bertan ez egotea. Arartekoaren ustez, interesatuari jakinarazpena zuzenean adierazteko hainbat ahalegin egin izana, bestelako baldintzarik egon ezean, ez da nahikoa oinarri herri ediktu bidera jotzeko. Ildo horretan, herri administrazioak hainbat arrazoi eman zituen aipatutako jokabidearen inguruan, eta Arartekoaren 1994ko txostenean agertzen dira guztiak, aztergai dugun kasuari buruzko gomendio orokorren atalean, hain zuzen. Ekar dezagun, oraingoan, gogora Auzitegi Gorenak 1993ko azaroaren 10ean emandako epaia, Auzitegi Konstituzionalean nagusi izan den doktrinarekin bat datorrena (AKren 9/1981, 1/1983, 22/1987, 72/1988 eta 242/1991 epaietan): “...ediktu bidezko zitazioak (jakinarazpena), azken adierazpen aukera den aldetik, honako baldintza hauek bete beharko ditu: kasuan kasuko jakinarazpena interesatuari helarazteko dauden beste bide batzuk jadanik agortuta egotea eta saio horiek burutu izanaren egiaztapen formala. Halaber, interesatuaren helbidea ezezaguntzat hartzea erabakiz gero (...), ezinbestekoa izango da jakinarazpenetarako ohiko bideak alferrikakoak izan direla argi utziko duten arrazoizko irizpideetan oinarritzea (...). Urtarrilaren 17ko 9/1991 AKren epaian adierazten den bezala, gutun ziurtatua bidali eta hartzailea etxean ez badago, ezingo da, besterik gabe, ediktu bidezko jakinarazpenik burutu (...) Ediktu bidezko jakinarazpena egin aurretik, izan ere, ezinbestekoa da interesatuaren helbidea ezezaguna izatea edo bera non dagoen ez jakitea, eta izapideak egin beharko dira, gainera, horren berri emateko. Hiritarrak ez dute zertan egon Aldizkari Ofizialean berria noiz agertuko zain, ezta kasuan kasuko Udaleko iragarki taularen gorabeherei jarraitzen ere, dagozkien eskubide eta interesen arabera, zama juridiko astunegia bailitzateke hori.” (AKren 63/1982, 117/83 epaiak). Beraz, aipatutako arauaren arabera “...jakinarazpena egiten saiatu eta emaitzarik lortu ez denean...” izango du administrazioak ediktuaren bidera jotzeko aukera. Dena den, zehaztapen horren mugak finkatu egin behar direnez, Auzitegi Gorenak 1993ko azaroaren 10ean emandako epaia ekarriko dugu gogora (8.194, 1993 ar.). Aipatutako epaiak irregulartzat jo zuen ediktu bidezko jakinarazpen bat ondorengo arrazoiak zirela eta: “Auzitegi Konstituzionalean doktrina jakin bat nagusitu da etengabe -9/1981, 1/1983, 22/1987, 72/1988 eta 242/1991 epaiak, besteak beste-, hots, prozesuen jakinarazpenak ez direla kasuan kasuko izapideen inguruko ekintza formal hutsak, derrigorrezko betebeharrak baizik, funtsezkoak baitira aldeek berez dagozkien eskubide edo interes legitimoak defendatzeko aukera izan dezaten. Ildo horretan, kontuan hartu behar da aipatutako jakinarazpenek lotura estua dutela Espainiako Konstituzioaren 24.1. artikuluan bermatzen den oinarritzko eskubide batekin: babes juridiko efektiboarekin, alegia. Eta arau horretan galarazitako babesik ezarekin du, batik bat, zerikusia. Ondorioz, jakinarazpenei buruzko arauak betetzen ez direnean, litekeena da interesatuak

*euren interesak babesteko aukerarik ez izatea, eta aipatutako eskubidearen kontrakoa da hori*" (2. EJ). Aipatutako guztia kontuan hartuta, honako ondorioa ateratu genuen: ediktu bidezko jakinarazpenek helburu izan zuten zehapen espedienteari ezarritako zigorra bertan behera utzi beharko litzatekeela..

Azkenik, bi espedientei ezarritako zigorraren ustezko preskripzioa izango dugu aztergai. Udal zerbitzuek adierazi zigutenez, espedienteetako batean ezarritako zigorraren berri zuzenean eman zitzaion interesatuari bere etxean, 1992ko maiatzaren 15ean, hain zuen, eta ez zuen administrazio edo jurisdikzioarekiko errekurtsorik aurkeztu. 1992ko ekainaren 22an, premiamendu probidentzia bidali zen interesatuaren bizilekura, eta ondorengo jakinarazpena –bahitura egin izana– 1993ko uztailaren 27an. Gai horren inguruko hurrengo ekintzak aipatutako premiamendu espedientea izan zuen helburu eta 1995eko otsailaren 25ean gauzatu zen. Data horretan, hainbat zorren berri ematen zuen eginbidea bideratu zen -ez dago egiaztatuta interesatuari helarazi ote zitzaion- eta, bertan, prozeduran ezarritako zehapena ere agertzen zen. Gerora, 1996ko ekainaren 20an, kontu korranteak bahitzeko agindua eman zen premiazko prozedura bidez, baina espedienteetan ez dago egiaztatuta interesatuari helarazi ote zitzaion. Datu horiek argi erakusten dute data guztien artean erabat gaiturik zutela zehapenen preskripzioarako finkatuta dagoen epea –urtebetekoa, alegia–, Trafikoari, Motorezko Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Artikulu Testuko 81.2. artikuluan xedatutakoaren arabera. Aipatutako Legea martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartu zuten. Ondorioz, urtebeteko epea erabat gaiturik zegoenez, interesatuak ez zeukan zertan isuna ordaindu. Ediktu bidezko jakinarazpenaren espedienteari dagokionez, honako balorazio hau egin genuen: ediktu bidezko jakinarazpena lege ordenamenduari jarraiki egin izan balitz ere –prozedura eztabaidagarria, hala ere, aurrerago azaldu bezala– BAOn argitaratu zuten egunean hartuko zukeen indarra, hots, 1993ko abenduaren 28an. Isuna derrigorrez ordainaraztea helburu zuen premiamendu probidentzia 1994ko urriaren 13an gauzatu zen. Gero, 1995eko otsailaren 20an hasitako eginbidearen bidez (ez dago egiaztatuta interesatuari helarazi ote zitzaion), zehapenaren ondoriozko zorrari zegokion premiamendu espedienteetan metatzea erabaki zuten. Aipatutako zorrari buruzko hurrengo erabakia, 1996ko ekainaren 20koa, kontu korranteen bahitura izan zen (ez dago egiaztatuta guri bidali ziguten espedientea interesatuari ere helarazi ote zitzaion). Ikusten denez, azken bi data horien artean, urtebete baino gehiago igaro zen, eta horixe da, esan bezala, Trafikoko Legearen 81.2. artikuluan xedatutako mugaeguna. Ondorioz, zehapena preskribituta zegoen eta ezin zioten interesatuari derrigorrez ordainarazi.

- Emaizta

Honako gomendioa egin zion Arartekoak Bilboko Udalarari: trafikoko legeak hautsi izanagatik ezarritako isuna premiamendu espedientearen bidez zordunaren ondasunetatik kenduta bazegoen jadanik, kasuan kasuko izapideak burutu ondoren, itzuli egin beharko zitzaiola. Edo bestela, isunaren zenbatekoa artean kendu gabe egonez gero, premiamendu espedienteetan ezabatu egin beharko zela isun horiek ordainarazteko helburua. Bilboko Udalak onartu egin zuen gure gomendioa, zehapenak bertan behar utzi eta interesatuari zegozkion kopuruak itzuli zizkion.

⇒ *Trafikoko arau hausteen ondoriozko zehapen prozeduren inguruan hartzen diren erabakiak zein helbidetan jakinarazi behar diren eta ediktu bidezko jakinarazpena (2313/1998)*

- Erreklamazioa

Honako kexa bidali zion emakume batek Arartekoari: Lasarte-Oriako Udalaren bilketa exekutiborako zerbitzuek premiamendu espedientea ireki eta bere ondasunak bahitzeko agindua eman zutela, trafiko arauak hautsi izanagatik ezarri zizkioten isun batzuk derrigorrez ordainarazteko.

- Azterketa

Arartekoaren ustez, sorburu jakin bat izan zuen arazo horrek: trafikoko arauak hautsi izanagatik ezarritako zigor espedienteen jakinarazpenak ez zituztela lege ordenamenduak aurreikusten duen helbidera bidali. Lasarte-Oriako Udalak adierazi zuenez, interesatuak inoiz ez zuen eragozpenik izan zergeri buruzko bestelako egintza batzuen jakinarazpenak ere azken zehapen prozedura horretan hartutako erabakiak helarazi ziren helbidera bidaltzeko. Hala ere, Lasarte-Oriako Udalak onartu egin zuen interesatuak ez zuela, zentzu horretan, inolako eskabide formalik egin eta, gainera, bertako udal erroldan zegoela izenemanda.

Bestalde, espedienteetan jasotako salaletak eta zehapen erabakiak ediktu bidez jakinaraziz ez ziren bete Herri Administrazioen Araubidea eta Guztientzako Administrazio Jardunbidea arautzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4. artikuluan xedatutako aurreikuspenak. Ildo horretan, kontuan hartu behar da, batik bat, interesatua Lasarte-Orian zegoela erroldatuta eta Udalak ongi asko zekiela hori. Gogora ekarri nahi ditugu, baita, 99/98 espedienteko kexa laburpenean agertzen diren azalpenak. Aipatzekoa da, azkenik, kapitulu honetan bertan sartu dugula aipatutako espedienteak.

Aurreko guztiari kalterik eragin gabe, azter dezagun ediktu bidezko jakinarazpenari lotutako beste gai bat: nolako eragina izan zezakeen aztergai dugun prozedurako erabakien berri GAO hutsaren bidez eman izanak, Udalaren iragarki taulan ere ez baitzuten ikusgai ezarri. Gure ustez, jokabide horrek ez zituen bete 30/1992 Legearen 59.4. artikuluko aurreikuspenak. Hau da, ediktu bidezko jakinarazpenak “*interesatuaren azken bizilekuari dagokion Udalak ediktu taulan ezarriko ditu ikusgai*”, eta baita kasuan kasuko aldizkari ofizialean ere. Betebehar hori etengabe nagusitu izan da jurisprudentzian. Beraz, aipatutako izapidea ez denean egiten, jakinarazpenak baliorik gabe geratu ohi dira. Horrela, Auzitegi Gorenak 1996ko maiatzaren 11n (EJ 4.303/1996 Ar.) emandako epaiaren arabera, “*...espedientean ere ez da agertzen Ediktua saltzaille guztien azken bizileku ezagunari dagokion Udaleko iragarki taulan ikusgai ezartzeko agindua, eta ez dago egiaztatuta horrelakorik egin denik ere. Beraz, ez da bete jakinarazpen mota ez-ohiko horri balioa ematen dion lege araua. Eta erabat ez-ohikoa denez, ezinbestez eta zorrotz bete behar dira legeak eskatzen dituen baldintza formalak, bestela, litekeena baita interesatuak babesik gabe geratzea*”. Halaber, Baleareetako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Sailak ere honako epaia eman zuen 1997ko urriaren 28an (AAEJ 1.968/1997 ar.): “*Ondorioz, errotiko baliogabetasuna egokitu da*

*kasu horretan –30/1992 Legearen 62.1.a) artikulua– administrazio zehapenaren espedientean hautsi egin baita oinarrizko eskubidearen funtsa –Konstituzioaren 24.2. artikulua–; ondorioz, zigorrak eta ohiko errekurtsioak ez dute zuzenbide osoko baliorik. Izan ere, errekurtsioa egin duenaren etxera jakinarazpena bidali eta emaitzarik ez lortu ondoren, derrigorrezko zeregina zuten ediktua argitaratzea. Azken urrats hori ez zenez burutu, F. Jaunak ez zuen izan bere interesak defendatzeko aukerarik, zehapen espedienteari zegokionez. Beraz, Administrazioak ez zuen bete aurrerago aipatu dugun oinarrizko eskubidea”.*

- Emaizta

Honako gomendioa egin genion Lasarte-Oriako udalari: trafikoko arauak hausteagatik ezarritako zehapen espedienteetan finkatutako zigorrak ofizios indargabetzeko. Ondorioz, isunak derrigorrez ordainarazteko bideratu zuten espedientearen inguruko jarduerak ere indarrrik gabe utzi beharko litzuzke, eta bahitutako edo exekutututako diru kopuruak itzuli. Lasarte-Oriako udalak onartu egin zuen gure gomendioa.

⇒ *Trafikoko arauak hausteagatik ezarritako salaketetan Udaltzaingoetako funtzionarioei dagozkien erantzukizunak direla eta (503/1999)*

- Erreklamazioa

Sopelako biztanle batek kexa igorri zion Arartekoari bere udaleko udaltzainen jarrera pasiboa zela eta. Trafikoko arau hauste egiaztatuen kontrako salaketak ez egitea leporatu zien aipatutako funtzionarioei, jokabide horrek, bere ustez, zirkulazio arazo larriak eragiten baitzituen herriko bideetan.

- Azterketa

Gai horren inguruko informazioa eskatu genion Sopelako alkateari eta udaltzain buruak egindako txostena igorri zigun. Txosten horretan Sopelako udaltzainei zein zeregin dagozkien zehazten zen: besteak beste, udalaren esparrupeko bideetako trafikoa zaintzen eta kontrolatzen ari direla egokitzen zaizkien arau-hausteak salatzea. Bestalde, Sopelako udaltzaingoko zuzendaritzaren datuen arabera, udaltzain guztiek salatzen dituzte trafikoa zaintzen eta kontrolatzen ari direla egokitzen zaizkien arau hausteak.

Ondorengo artikuluetan daude araututa udaltzainei dagozkien eginkizunak: Segurtasun Gorputz eta Indarrei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Legearen 53.1. artikuluan eta Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 27. Artikuluan. Bi arauen 1.b) ataletan honako erantzukizunak aipatzen dira, besteak beste: “*Hiriguneko trafikoa antolatzea, seinalizatzea eta zuzentzea, zirkulazioko arauak betez*”. Bestalde, Trafikoari, Motorezko Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Artikulu Testuko 75.2. artikuluan arabera, “*Trafikoa zaintzeko ardura duten agenteek beti salatu beharko dituzte bide zirkulazioa zaintzen eta kontrolatzen ari direnean ikusitako lege hausteak*”. Hori guztia kontuan hartuta, gure ustez, Udaltzaingoko funtzionarioek, trafikoa zaintzeko ardura duten aldetik, salatu egin beharko litzuzkete bide zirkulazioa zaintzen eta kontrolatzen ari direla ikusitako lege hauste guztiak.

Aipatu ditugun arauetan Udaltzaingoarentzat finkatutako funtzioak udaltzain funtzionario guztiek bete behar dituzte. Dena den, litekeena da, Udaltzaingoak burutu beharreko lanen antolamendu orokor edo zehatzen ondorioz, funtzionario batzuei funtzio jakin batzuk baino ez ematea, nahiz eta legez gainontzeko funtzioak ere bete ditzaketen.

Udalak bidali zigun txostenaren arabera, arau haustek salatze erantzukizuna horiek gertatzen diren unean trafikoa eta bide segurtasuna zaintzeko ardura duten funtzionarioei baino ez dagokie. Gure ustez, arrazoi hori zuzena da, baina batzuetan, hiritarrek ez dute ulertzen udaltzainek zergatik ez dituzten arau haustek salatzen. Arartekoaren iritziz, honakoa izan daiteke jokabide horren arrazoa: kasuan kasuko udaltzainari ezinezkoa zaiola une horretan burutzen ari den zerbitzua eta legeak ezarritako funtzio orokorrako hori bateratzea. Aipatzekoa da, halaber, edozeinek egin ditzakeela trafikoko arau hausteen salaketak, berak ikusi baditu, Trafikoari buruzko Legearen Artikulu Testuko 75. Artikuluan jasotzen diren aurreikuspenak betez –beti ere jokabide horri dagozkion prozedura bereziak kontuan izanik–. Beraz, gure iritziz, polizi funtzionarioek euren aurrean gertatutako arau haustek salatu egin beharko lituzkete, nahiz eta une horretan trafikoa zaintzen ez aritu. Hala ere, aurrerago aipatu bezala, arau hausteen salaketak bat etorri beharko du beti unean uneko erantzukizunekin. Horrela, une horretan beste zeregin batzuetan aritu behar izateak eragina izan dezake trafikoko arau haustek salatze erantzukizunarekin.

Oro har, kontuan izan behar dugu arau hauste jakin batzuk, adibidez autoa behar bezala ez aparkatzeak, kalte egin diezaieketela ekintza horien ondorioak zuzenean jasan behar izango dituztenei. Beraz, herri administrazioek euren eskumenak gauzatu eta trafikokoaren inguruko legea egoki beteko dela bermatu behar dute beti, administratuen ongizatea baitute, izatez, helburu. Azkenik, ekar dezagun gogora Auzitegi Gorenak 1996ko azaroaren 26an emandako epaia: *“hiri barruko trafikokoaren antolamenduak garrantzi handia hartu du, gaur egun, jende artean. Argi dago berebiziko eragina duela bai ibilgailu eta pertsonen zirkulazio libreak, bai bestelako eskubide batzuk benetan gauzatzeko aukeran: lanpostura heldu ahal izateko eskubidea, osasun, hezkuntza eta kultur zerbitzuez gozatzeko eskubidea (...). Hirietako bizi kalitateak zerikusi handia du trafiko alorreko Herri Administrazioek eskura dituzten teknika juridikoak –herri zerbitzuen antolamenduari, eremu publikoaren kudeaketari... buruzko araudiak– indarrean jarri eta gauzatzeko moduarekin”*.

- Emaizta

Honako gomendioa egin genion Sopelako Udalari: bertako udaltzainek trafiko antolamenduaren alorrean izango dituzten erantzukizunen irizpide operatiboak finkatzerakoan, aipatu ditugun arrazoi eta gaiak kontuan izan ditzatela.

## 8. JUSTIZIA

### 8.1. SARRERA

Arartekoak funtzio publikoaren jarduna eta betearazpena gainikusteko duen betebeharrak horrek benetan nabardura bereziak ditu Justiziar dagokionez, esparru horretan jarduteko aukerak oso murriztak direlako: erakunde honek egin dezakeen gauza bakarra Justizia Administrazioaren jardunari buruz jaso dituen kexak horiek ebazteko ahalmena duen horren organoari jakinaraztea baita.

Egia esan, botere judiziala -Zuzenbide Estatuaren euskarri diren hiru zutabeetakoak- berez norbanakoen eskubideen eta botere betearazlearen kontrola bermatzeko bitartekoa edo tresna da. Eta funtzio hori betetzeko nahitaezkoa da organo judizialen jardura legearen aplikazioaren independentziaren oinarritzko printzipiotik abiatuta egitea, eta horrek esan nahi du Justizia Administrazioa ez den beste edozein izakik ezin duela esparru horretan eraginik izan. Horregatik, erakunde hau sortu eta arautu duen 3/1985 Legearen 13. artikuluan ondokoa ezarri da: *“Arartekoa ez da sartuko epai irmoa jaso duten edo epaileen ebazpenaren zain dauden kexen azterketa norbanakotuan”*.

Auzitegietan planteatuta dauden gaietan ezin esku hartzeak ez du esan nahi Arartekoak ez dituela horiei lotuta dauden gatazka pertsonalak eta gizarte mailakoak ezagutzen. Izan ere, sarritan, hiritarrak haserre azaltzen dira eta, zergatik ez, harrituta, dagozkien arazo horiek ebazteko Justizia Administrazioaren ez-gaitasuntzat jotzen dituzten jarrerekin.

Adibidez, egon daude gizarte mailako elkarbizitzan arazoak eragiten dituzten esparru jakin batzuk, eta norbanakoen artean igurikizun gehiegi eragiten dutenak sistema judizialarekiko, eta sarritan uste horiek ez dira betetzen. Esparru jakin horietan gizarteak uste izaten du Justizia ez dela heltzen, ez dela eraginkorra, nahiz eta horietan esku hartzeko ahalmena duen izaki bakarra izan.

Besteak beste, Justiziak ez du bitarteko egokirik emakumeek bizi diren edo bizi izan diren gizonengandik jasotzen dituzten tratu txarrendik babesteko. Nahiz eta 1999an zigor arloko legeetan eragingarritasuna hobetzeko aldaketa batzuk izan, emakumezkoren batzuk Arartekoarengana jo dute beraien ezkontide ohiek egin dizkieten mehatxu eta erasoei buruzko beldurra adierazteko, edota baita horrek eragiten dien babesgabezia sentsazioaren berri emateko. Emakume horiek jakin dakite poliziak ez duela bitartekorik zaintza iraunkorra egiteko, baina kexu azaltzen dira kasu zehatzak salatzen dituztenean eta, horiek, ia beti, hobenengatikoko epaiketak eragiten dituzte eta horien emaitzako zigorrak ez dira nahikoak izaten eta gizonezko horiek lehengotan jarraitzen dute, eta, hori gutxi balitz, batzutan eraso horiek eta jarrera erasokor horiek areagotu egiten dira.

Erreklamazio horietan behin eta berriz errepikatzen den ezaugarri bat pertsona salatuek izaten duten laguntza juridikoaren falta izaten da. Hobenengatikoko epaiketetan ez da manuzkoa legelari batek esku hartzea eta uste da tratu txarrak jaso dituzten emakumeek ez dutela ofiziozko abokatu baten izendapena izateko eskubiderik. Arazoa ez da hor bukatzen eta delituengatikoko prozeduretan ere gertatzen da, uste baita biktimaren interesak Ministerio Fiskalak defendatzen dituela. Bada, aholkularitza teknikorik ez egoteak esan nahi du askotan karguaren frogen gertuketa eskasa izaten

dela eta, ondorioz, pertsona salatuak absoluzioa jasotzen duela. Magistratu batzuk arazo honekiko sentsibilitatea adierazten dute eta esaten dute beharrezkoa dela doaneko laguntza juridikoa. Hori gora- behera, Arartekoak uste du komeniko litzatekeela laguntza hori bermatzea, beti ere pertsona salatuak frogatzen badu ez duela bitarteko ekonomikorik eta, ondorioz, eskumenak dituzten erakundeek - abokatuen elkargoak eta Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila-, planteatu den arazo horren berezitasunak kontuan hartuta, helburu hori lortzeko beharrezko neurriak hartu behar dituztela.

Halaber, etxeko indarkeriaren arazo horri lotuta, Arartekoaren esku-hartze zabalagoa bideratu duen kasu bat aipatu behar da, ustezko erasotzailea udaltzaina zelako. Alde batetik, agente horrek ordura arte ere tratu txar, mehatxu eta abarregatik kondena zituelako, erakunde honek iradokizuna egin zion poliziaren kidego horretako arduradunari agente horri ohartarazteko Euskal Herriko Polizia Kidegoen Disziplinazko Araubideari buruzko Araudiaren 9. artikuluan (maiatzaren 3ko 170/1994 Dekretua), ezarri delako hoben larria dela “*dolozko zigor hobena (...) eragin dezakeen edozein jokaera*” baldin eta “*zerbitzua edo Kode Deontologikoa ukitzen badu*”. Eta familiari egiten zaizkion erasoak azken kasu horretan daudenez, uste genuen disziplinazko zehapena jasotzeko arriskua -seguruenik- zuela jakiteak aurrearretazko ondore nabarmenak izango zituela.

Beste alde batetik, biktimen salaketetan erasotzaileak arazuko arma erabili zuela mehatxatzeko esan zutelako, guk aldi berean Udalarengana jo genuen. Alkateak esan zigun gure esku-hartzea gertatu aurretik agenteak berak bere borondatez arma entregatu zuela, eta hori poliziaren lokaletan zegoela gordeta.

Arartekoak uste du adierazi den kasu hau aurrearretaz jardutearen adibidea dela eta horretan herri administrazio batek esku-hartze aktiboa izan duela emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko borroka horretan.

Aurrekoarekin zerikusi edo antzen bat duen beste gai bat familia hausten den kasuetan, haur horiek bizi diren gurasoari -normalean ama- kentzen zaizkien eta legez aurka atzerrira eramaten dituzten haurrei buruzkoak dira. Jokaera hau beste gurasoak izaten du, hau da, epailearen ebazpenaren arabera seme-alaben zaintza ukatu zaion horrek. Kasu askotan adin txikiko horiek non dauden jakitea gauza oso zaila izaten da baina, askotan non dauden jakin arren, oso zaila izaten da dauden herri horretako agintarien lankidetzak eskuratzea: batzutan guraso horrek estatu horretako naziotasuna duelako eta naziotasun hori seme-alabek ere jaraunsten dutelako. Beste batzuetan jokaera hori ez delako delitutzat jotzen -edo jo arren ez delako larriegia- eta, ondorioz, ez da poliziaren eta epaileen laguntzarik egoten. Arazoa konplexua da, baina derrigorrezkoa da organo jurisdikzionalak gaiarekiko sentsibilitatez jardutea eta eskura dituzten bitartekoen eragingarritasuna areagotzea.

Arartekoak jaso dituen kexen artean multzo bat epaileen ebazpenetan gertatzen diren **berandutzak** eta **atzerapenak** dira, hau da, Justizia berandu heldu dela esaten den kasuak. Hurrengo idatz-zatian trafikoko istripu baten ondorio izan zen hobenengatik epaiketa baten gertatu zen berandutza kontsulta daiteke. Adierazgarria izan daiteke, baina ez da aurkeztu zaigun bakarra. Prebentziozko espetxe egoeran dauden pertsona batzuk epaileen ebazpenen berandutza salatu dute, egoera horregatik askatasunik gabeko aldi hori luzatu egin daitekeelako. Berariaz da bitxia Auzitegi Nagusian aurkeztzen diren kasuzko errekursoen epeetan gertatzen diren berandutzak.

Beste hiritar batek gure erakundearengana jo zuen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Familiako Salan epaiketa eman ondoren irazpen prozedura baten autuak itzultzeko hilabete batzuetako berandutza zegoelako. Erreklamazio egileak esan zuenaren arabera, inguruabar horregatik ezinezkoa zen epaia betetzea eta, ondorioz, enpresak zor zion munta jasotzea, eta horrek kalte egiten zion. Sala horretako lehendakariak txostena igorri zion Gobernu Salari eta bertan, erreguzko errekurtsioan gertatu ziren inguruabarrak zehatz-mehatz azaldu ezezik -epaian gertatu zen akats aritmetikoa, horren argibideak, alderdiei egin zitzaizkien jakinarazpenak, etab.-, esan zuen akats informatiko batek, jatorri ezezagunekoak, bi hilabetez atzeratu zuela Ministerio Fiskalari egin behar zaion manuzko jakinarazpena eta, horrek, aldi berean, epaiaren irmotasuna atzeratu zuela. Bada, irregularitate hori gora-behera, gobernuko organo horrek hasi ziren informaziorako jarduera haiek artxibatzea erabaki zuen, uste izan zuelako ez zela gertatu erantzukizuna eragin zuen jokoerarik.

Gauza bitxi bezala, edari alkoholduen eraginpean gidatzearen delitua egotzirik prozesatu zuten hiritar baten kasua aipatuko dugu. Kondena ia erabat segurua zen; baina hori gora-behera, ustezko errudunak nahiago zuen epaiketa egitea, lanpostua lortu zuelako eta etorkizunean gidatzeko baimena galtzea baino askoz ere txarragoa zelako gertaerak gertatu zirenean eta berehala betearazita. Berriz ere frogatzen da epaia "noiz" izango den ez jakiteak nahitaez areagotzen duela edukia.

Berariaz Justizia Administrazioaren jardunean berandutza izan ez arren, arlo horri lotuta daude indultu eskabide biren tramitazioan gertatu zen gehiegizko luzapena.

Justiziaren arloaren beste atal bat **abokatu eta prokuradoreen elkargoen** jardunari buruzkoa da, administrazio organoak diren neurrian. Aurten jaso diren kexak, neurri handi batean, abokatu batzuen jokaera profesionalari dagokionez hiritarrek formulatu dituzten salaketen ebazpenen atzerakuntzari buruzkoak izan dira. Bizkaiko Abokatuen Elkargoa -arlo horretako lau kexarekin- lehenbizikoa da jaso dituen kexen kopuruari dagokionez eta, aldi berean, motelena da Arartekoak egin dizkion informazio eskabideei erantzuterakoan. Ezin da ahantzi abokatuen elkargo hori kiderik gehien duena dela, eta kopuruari buruz biztanle kopuru handienari jaramon egiten diona, baina horrek ez du esan nahi hiritarrek planteatu dituzten arazo horien ebazpena aztertzeke beharrezko neurri egokiak hartu behar ez direnik. Eta gauza bera esan daiteke Abokatuen Euskal Kontseiluz: dirudienez errekurtsioen tramitaziorako epeak laburtzeko legelari koordinatzaile bat izendatu da, baina horiek luzeegiak izaten jarraitzen dute.

Arartekoak aztertzeke aurkeztu den beste gai bat bitarteko ekonomiko gutxi dituzten hiritarrek beraien ustez agindu zaizkien gaietan oker jardun duten abokatuen erantzukizun zibila eskatzeko aurkezten dituzten zailtasunak dira. Gertatzen da ofizios izendatu den legelaria ez dela prest egoten -edo hori egiteko arazo oso handiak izaten dituela- lankide baten aurkako erreklamazioa gauzatzeko, eta horrek nolabaiteko defentsarik ezaren sententzia sortarazten du. Gai honi dagokionez, interesgarria izan daiteke Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa eta aseguru enpresa batek eskuratu duten akordioa, horren arabera enpresa horrek erabakitzen duelako erantzukizun zibilik egon den ala ez. Erakunde honen ikuspegitik egokia izan daiteke auziak ekiditea bideratzen duten ebazpen bideak irekitzea.

Azkenik, aipatu behar da Arartekoak EAEko abokatuen hiru elkargoetan ordainsarien minutak aurkaratzen diren kasuetan egiten diren prozedurak erkatzeko



azterketa hasi duela. Esku-hartze horren helburua tratu homogoneoa eta abokatuen zerbitzu profesionalen erabiltzaile guztien gutxieneko bermeak ziurtatuko dituzten jarduteko irizpide erkideak ezartzea da. Hori gorabehera, txosten hau bukatu den unean oraindik ez dugu Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren erantzunik jaso eta, beraz, ezinezkoa izan da ofizioz hasi zen jarduera hori burutzea.

**Espetxean dauden pertsonak** planteatu dizkiguten gaiak dira Arartekoak Justiziaren arlo honetan landu eta aztertu dituen beste batzuk.

1999an zehar emakume espetxeratuen bizitza baldintzei lotuta dauden gai batzuk ezagutu ditugu, makina bat foro eta kasutan adierazi denaren ildotik, gizonezko espetxeratuek bizi dituzten baldintzak baino eskasagoak izaten direlako. Lehenengo eta behin, EAEko espetxeetan ama-haurren modulua ez egoteari buruzko gaiak daude. Izan ere, Gipuzkoako Espetxeetako Laguntzarako Txandako koordinatzaileak Arartekoarengana jo zuen eta haurra erditu zuen emakume preso baten egoeraren berri eman zion, haurrarekin jarraitzeko izan zuen irtenbide bakarra bere egoitza dagoen tokitik urrunago zegoen beste espetxe batera joatea izan zelako. Kexa hori jaso aurretik guk erabakita genuen ofizioz Herriaren Defendatzailearengana jotzea espetxeetako Administrazioari ments hori betetzeko agindua emateko, EAEEn bizi diren eta haur txikiak dituzten emakume presoak ukitzen dituen arazoa delako.

Adierazi den kasu horrek berriz ere argi adierazten du Eusko Jaurlaritzak espetheen arloko eskumenei dagozkien funtzioak bere gain hartu behar dituela. Dena dela, jakin arren euskal gobernuko Justizia Sailak ezin duela esparru horri buruzko erabakirik hartu, uste genuen egokia zela honen berri ematea, adierazi den sail horrek EAEko espetxeren batean Amen Unitatea sortzea susta dezakeelako, eta baita horietan lagundu ere. Ildo horretatik, uler daiteke Erkidego horri dagokiola, halaber, zigorra araubide irekian betetzeko "menpeko unitateak" abian jartzea. Espetxeetako Araudiaren 165. artikuluan ezarri denaren arabera, unitate horiek "*espetxeetako esparruetatik kanpo daude, eta hobe etxebizitza arruntetan badaude*", eta horien kudeaketa "*zuzena eta lehentasunez, espetxeetakoak ez diren elkarteek edo erakundeek*" egin beharko lukete. Bitarteko horren sorkuntzari esker umea egiten duten emakumeen egoera hobetuko litzateke, hirugarren graduako sailkapenak kanpoko unitate menpekoetan bizitzeko aukera eman dezakeelako.

Adierazi den Justizia Sailak ez dio, momentuz behintzat, gure idazkiari erantzun. Baina, hori gorabehera, beste gai bati buruz eman digun informazioaren arabera, jakin izan dugu dirudienez espetxeetako Administrazioarengana jo duela eta Amen Unitate bat egiteko obren burutzapena bere gain hartzeko prest dagoela adierazi diola. Ez ditugu proposamen horren xehekapenak ezagutzen baina Sailak baieztatu du Barne Ministerioak ez diola inolako erantzunik eman.

Emakume espetxeratuen egoerari buruzko beste kexa bat askatasunik ez duten pertsonen laguntzarako elkarte batek planteatu zigun. Langraizko espetxean dauden emakume preso batzuek sinatuta dagoen idazkia aurkeztu ziguten eta horretan esaten zuten ezinezkoa zela beraiantzat espetxeko produkzio lantegietara iristea. Uste zuten hori bereizkeria zela, eta EK-ko 25.2. artikuluan espetxeratuenzat onetsi den ordaina jasotzen duen lana egiteko oinarriko eskubidearen aurkako haustura zela. Guk, kexa hori jaso eta Herriaren Defendatzaileari igorri genion -espetxeetako Administrazioaren kontrolaren ardura duen erakundea delako-, eta aldi berean horren berri eman genion arestian ere adierazi den Justizia Sailari, 1994tik indarrean dagoen *Eusko Jaurlaritza*

*eta Justizia Ministerioaren artean Espetxeetako Arloan sinatu zen Hitzarmen Markoko* arlo zehatza delako lanbide heziketa eta enpleguaren sustapenari dagokiona. Uste dugu sail horrek, hitzarmen horren garapenaren koordinazioaren arduraduna delako, eta pertsona guztientzako enplegua sustatzeko dituen eskumenak erabiliz, ahaleginak egin behar dituela euskal espetxeetan dauden emakume presoen lan-egoera hobetzeko.

Bada, Eusko Jaurlaritzako organo horrek eman zigun informazioaren arabera, bazekiten lanpostuak falta zirela emakume preso batzuentzat eta bat egiten zuten Arartekoarekin arazoarekiko ardura horretan. Horregatik, kudeaketa batzuk egin dituzte Barne Ministerioan eta dirudienez ez dute, momentuz, emaitzarik lortu.

Erakunde honetara kexa batzuk heldu dira espetxe batzuetatik, askatasuna kentzen duten zigorrak betetzeko tokiari buruz alegia. Gauza jakina da asko direla EAEn bizi baina oso urruneko espetxeetan dauden pertsonak. Maiz espetxeetako Administrazioak ez dio kasurik egiten -edo, behintzat, ez dio lehentasunik ematen- familiaren egoitzaren datuari destinoko espetxea ezartzerakoan, eta lekuz aldatzeko eskabideak asko izan arren, gehienetan gaitziritzi egiten zaie. Arartekoak aztertzeke aurkeztu den kasu jakin batean urruntasun horrek familiaren bisitaldietarako ezartzen dituen zailtasunak aipatzen dira. Istripua edukitzeko arriskua ezezik, espetxe horietara iristeko garraiorik ez edukitzea gehitzen da, eta horrek kostu ekonomikoan duen eragina. Kasu batzuetan vis a vis elkarriskuketa bereziak ez dira asteburuetan jartzen eta horrela era guztietako zailtasunak areagotu egiten dira, eta egineran bisitaldi hori ezinezko bihurtzen dute.

Adierazi den bezala, Arartekoak, orokorrean, espetheen jardunbideari buruzko kexak Herriaren Defendatzaileari igortzen dizkio, baina kasu batzuetan kudeaketa zuzenak egiten ditu, hala arrazoi humanitarioengatik nola informazioaren bat eskuratzeko. Lehenbiziko horien artean Arartekoak, familiaren agindeia kontuan hartuta, gose greban dauden presoek osasunari buruzko interesa adierazi duen kasuak daude. Beste kasu batzuetan preso bat non dagoen jakiteko informazioa eskatu da, familiak jakin dakielako espetxetik atera dutela beste batera eramateko, baina egun askotan ez delako inolako berririk egoten; edo gaixorik dagoen preso baten lekualdaketaren arazoia ezagutzeko, etab.

Aurreko urteetan gertatu den bezala, askatasun baldintzatua ukatzeari buruzko kexak heldu zaizkigu, hala kondenaren hiru laurdenak beteta dituzten kasuetan nola pertsona horrek gaixotasun larriren eta osatu ezinen bat edukitzeagatik beharkizun hori desagertu egiten denean. Halaber, atzerritar batek egin digun beste kexa bat jaso dugu, inguruabar horregatik sistematikoki eta berez ukatu egiten zaizkiolako irteteko baimenak.

Goardia Zibilak atxilotu ondoren espetxera sartu zuten hiritar batek poliziako kidego horretako agenteek tratatu txarrak egin zizkiotela eta zauriak ere egin zizkiotela salatu zuen. Gertaera horiek larriak zirela kontuan hartuta, arazoa Herriaren Defendatzailearen eskuetan jarri genuen, nahiz eta interesatuak esan gai hori Auzitegian salatu zuela. Berdin jokatu genuen Teixeira (A Coruña) hiru presorekin, horiek ere baieztatu egiten zutelako zentroko funtzionarioen erasoak pairatu zutela eta, gero, egun batzuetan isolatuta eduki zituztela eta egun horietan eskuburdinez oheari lotuta eduki zituztela. Presoetarik baten familiak aginduta, bere osasun egoerari buruzko informazioa eskatu genuen. Espetxe horretako zuzendaritzak esan zigun interno horrek ez zuela nahi medikuntza zerbitzuek azterketa egiterik, eta adierazi zigun itxuraz bere egoera normala zela. Berri hori erreklamazioa egin zuenarekin erkatu genuen -preso horiek bisitatu zituena- eta horrela jakin genuen horiek adierazten zutela ez zeudela medikuntzako azterketa egitearen

aurka. Beste alde batetik, pertsona horrek adierazi zigun hiru presoek zauriak eta beltzuneak zituztela gertaera horiek igaro eta egun batzuetara. Informazio horiek ardura logikoa eragin ziguten eta Arartekoak Herriaren Defendatzailearengana jo zuen, eta horrek jarduketari ekin dio.

Beste arlo baten, esan behar da kasu baten baino gehiagotan gaixorik dauden preso batzuk espetxean jasotzen duten laguntza sanitarioaren mentsak salatu dizkigutela. Halaber, Arartekoak honen aurreko urteetan egin dituen jarduketan jarraipenari buruzko idatz-zatian adierazi dugun bezala, 1999an zehar hobekuntzaren bat lortu da Txagorritxu eta Basurtuko ospitaleetako Zaintza Bereziko Unitateetan (cfr. 1. kap., txosten honen 1.1.1 idatz-zatia).

Ospitaleetako medikuntzako laguntzari dagokionez, bi kasutan azterketa ginekologikoetan intimitatearen aurkako egintzak planteatu dira. Kasuetariko bat EAETik kanpo gertatu zen eta, ondorioz, Herriaren Defendatzaileari igorri zitzaion, baina bestea euskal ospitale baten gertatu zen. Ertzaintzako agenteen jarduna dudatan jarri zenez, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailarengana jo genuen gertatu zenaren berri eskatuz. Administrazio honek Arartekoari jakinarazi zion bat egiten zuela honen irizpide orokorrarekin, hots, norberaren intimitatearen eskubidea segurtasunarekin gatazkan dagoenean lehenbiziko horrek izan behar duela lehentasuna, salbu eta eskubide hori bigarren mailan uztea bidezkitzen duten zio zehatzak eta garrantzitsuak badaude. Kasu zehatz honi dagokionez, sail honek bere arrazoiak azaldu zituen -preso zegoen emakumearen espetxeko ezaugarriei buruzkoak, eta, bereziki, froga egin behar zen lokalaren baldintzei buruzkoak- eta esan zuten horien arabera Ertzaintzak erabaki zuela intimitatearen eskubidearen haustura hori ez zela arbitrarioa, gertatu ziren inguruabarren araberrako proportziokoa baizik.

Adierazi behar da, azkenik, askatasunik gabeko zigorrak atzerriko herri batzuetan betetzen ari diren euskal hiritar batzuk bizi duten egoera zaila. Bi kasutan presoek ez dute lortu Espainiako espetxeetara ekartzea, nahiz eta hori bideratzen duten nazioarteko hitzarmenak egon, ezin dituztelako ordaindu munta izugarri altuak dituzten droga trafikogatik isunak. Halaber, Arartekoak kondena bete duten eta polizia espainiarraren eskuetan jarriko zituzten pertsona batzuk herri batzuetatik bota dituzten kasuetan esku hartzeko eskabideak jaso dira. Argi eta garbi arazo hori erakunde honen eskumenetatik kanpo dago eta Herriaren Defendatzailearen edota horren Frantziako baliokidearen eskuetan utzi ditugu.

## 8.2. AUKERATUTAKO KEXA BATZUK

### A) Justizia Administrazioaren funtzionamendua

⇒ *Trafiko istripu baten ondoriozko prozeduran epaileen ebazpenean izan zen atzerakuntza (205/1999)*

- Erreklamazioa

Sevillan bizi den pertsona batek Arartekoarengana jo zuen esanez 1991ko azaroaren 27an trafiko istripua izan zuela Deban (Gipuzkoan); istripu horretan zauriak

jaso zituen. Erreklamazio egileak adierazi zuen prozedura hasi zela Donostiako 5. zenbakiko Instrukzio Auzitegian eta 1995eko uztailean hobenen epaiketa agerraldira aurkezteko deialdia egin zitzaiola. Baina, hori gora-behera, interesatuak azaldu ezin dituen arrazoiengatik, epaiketaren egintza ez zen egin eta gaia Eibarko 2. Instrukzioko Auzitegira eraman zuten eta bertara joateko deialdia egin zitzaion, ahozko agerraldira, 1996ko martxoan, nahiz eta -eman digun informazioaren arabera- hori ere eten egin zen ez zitzaiolako beste alderdiari jakinarazi. Lekualdaketa horiengatik gastuak eta kalteak pairatu ondoren, denbora luzea igaro zen eta erreklamazio egileak ez du prozeduraren beste berririk izan, eta, azkenean, bere abokatuak jakinarazi zion espedientea galdu egin zela Auzitegian.

- Azterketa

Gertaera izan eta handik eta zortzi urtera zirkulazio istripuarengatik erantzukizunak erabaki gabe egoteagatik eta, ondorioz, kalteak jasan zituen pertsona horrek ordainik ez jasoteagatik, Arartekoak erabaki zuen auzitegiko prozeduraren tramitazioan beharrezkoak ez diren ustezko atzerakuntzen itxura zegoela. Beraz, erabaki genuen kexa honen berri ematea Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salari.

- Emaiza

Kexa hori jaso ondoren, Gobernu Salak informazioa eskatu zion Eibarko Instrukzio Auzitegiari. Bidezko txostenean, auzitegiko Idazkariak onetsi zuen kasu honetan aztergai den espedientea galduta egon zela bi urtez eta agertu zenean uste izan zutela istripua eragin zuen pertsonaren ustezko zigor arau-haustea iraungita zegoela eta, ondorioz, epaiketa egiteak ez zuela zentzurik, Hori guztia gora-behera, Gobernu Salak uste zuen ez zegoela Instrukzio Auzitegiko langileriari egozteko moduko jardun irregularrik edo axola gabekorik, esaten dutelako tramitazioa geldirik egon zen une horretan alderdien abokatuak ez zutelako inolako ekimenik burutu edota ez zutelako inolako protestarik formulatu.

Bada, erakunde hau arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 9.2. artikuluan ezarri denaren arabera, Arartekoak Justizia Administrazioari buruzko kexak jasotzen dituenean, erakunde honek horiek ikertzeko edo ebazteko ahalmena duen organo judicialaren eskuetan utzi behar ditu, eta bere esku-hartzea hor bukatzen da. Horregatik, uste genuenez kasu honetan esku-hartze honek ez zuela lortu sakonean zegoen arazoa erabat konpontzea, erabaki genuen egokiena erreklamazio egileari jasan dituen kalteengatik ordaina hartzeko ustezko bideei buruzko informazioa ematea (Administrazioaren erantzukizuna, bere abokatuari erantzukizun zibila eskatzea, etab.).

## 9. INGURUGIROA

### 9.1. SARRERA

1999. urteari dagokion ekitaldian arlo honetan jaso diren kexak 73 izan dira, hau da, jaso diren kexa guztien % 8,14.

Administrazio ukituen arabera, ondoko era honetan sailka ditzakegu:

- Udalak .....	8
- Eusko Jaurlaritza .....	3
- Foru Aldundiak .....	3

Edukiari dagokionez, ondoko hauek aipa daitezke:

Jarduera sailkatuak egoitzazko lurzoruan .....	53
Beste alderdi batzuk .....	8
Jarduera sailkatuak lurzoru urbanizaezinean .....	4
Jarduera sailkatuak industri lurzoruan .....	4
Hondakinak eta isurketak .....	3
Esparru natural babestuak. Landaretza-faunaren babesak .....	1

Berriz ere jarduera sailkatuek eragiten dituzten eraginengatiko kexak azaltzen dira, eta aurten ere, gatazkarik handienak eragin dituztenak, ostalaritzako establezimenduetakoak izan dira, esaterako tabernak, pubak, jatetxeak, txoko edo elkarte gastronomikoak, otarteko-dendak, etab.

Halaber, supermerkatuek eragiten dituzten zaraten eragozpenengatiko salaketa asko jaso dugu, batez ere gaueko ordutegian, hala kamera frigorifikoetako konprentsoreen jardunagatik nola intsonorizatu gabe dauden lokaletan egiten diren zamaketa lanengatik.

Jarduera horiek izaten dira hiritarren artean eraginik gehien izaten dutenak, eta egoitzazko hiri lurzoruan egoten direlako kokatuta, udalaren baimenen araubideari lotuta egoten dira eta, beraz, administrazioaren kontrol iraunkorrari lotuta daude; esan behar da indarrean dagoen legeriaren arabera eskumen horiek udalena direla. Horregatik, aurten ere Arartekoaren lana toki korporazioarengana jotzea izan da, eta horiei gogoraraztea garrantzitsua dela ikuskapena egiteko ahalmen hori burutzea, batez ere instalazio horien funtzionamenduan sortzen diren irregulartasunek ukitutako hiritarrentzat, eta horrela udalaren manuzko lizentzian ezarri diren neurri zuzentzaileak egiaztatzea eta horien araberrako egokitzapena eskatzea.

Beste alde batetik, aipatu behar ditugu erakunde honetan industri jardueren aurka aurkeztu diren salaketak; horien artean ikatz biltegiek eragiten dituzten eragozpenei buruzkoak nagusitzen dira, eta baita transformazio zentroen eta transmisio antenen instalazioen emaitzako ustezko kutsadura elektromagnetikoagatik aurkeztzen direnak ere.

Garrantzitsuak edo aipatzeko modukoak izan dira, halaber, herri bideetan egiten diren obren burutzapenaren emaitzako zarategatiko kexak, batez ere obra horiek gaueko ordutegian egiten direnean; multzo horretan sar daitezke herri garbiketa zerbitzuek egiten dituzten zarategatiko kexak ere.

Azkenik, bitxia izan da Arrasateko hiritar batek erakunde honetan aurkeztu duen kexa, bere auzoko elizako erlojuko kanpaiek eragiten duten soinuak eragozpenak sortarazten dizkiolako.

Argi dago gizarte mailan gero eta handiagoa dela eta gero eta hedatuago dagoela ingurugiro egoki eta osasuntsua izateko eta horretaz gozatzeko kontzientzia eta, inolako dudarik gabe, hurbiletik ingurugiroaren aurkako erasoak zuzen pairatzen dituzten pertsonen asmoa dela.

Berariaz azpimarratu behar da aurten gehikuntza egon dela erakunde honetan auzotarren elkarteek, jabeen erkidegoek eta ekologisten elkarteek aurkeztu dituzten kexen kopuruan.

Esaterako, Bakio herriko biztanle asko arduratuta azaldu ziren bertako hondartzatik hurbil idorkiak ateratzen ari zirelako, bertan dagoen hondar-bankutik alegia, uste zutelako eragiketa horrek eragin larriak izan ditzakeela kostalde osoan eta hondartzaren baldintzak eta ezaugarriak aldaraz ditzakeela, barrarenak, olatuenak, itsasoko espezienak eta abar.

Derioko auzotarren elkarteak erakunde honengana jo zuen eta Vista Alegreko hilerriko errausteko labeak eragiten zuen atmosferako kutsadura salatu zuten, eta elkarte naturalista batek Donostiako Igara auzoan dagoen Gurelesako hezegunea biotopo babestu adieraztea eskatu zuen, esaten dutelako bertan galtzeko zorian dagoen espezie edo taldean katalogatuta dagoen Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko anfibio bakarra dagoela, *hyla meridionalis* (hegoaldeko zuhaitz-igela).

Bukatzeko Erandio herriko Asua auzoko biztanleek Arartekoari aurkeztu dioten salaketaren berri emango dugu, Asua ibaiaren ingurugiro narriaduragatik eta gaixotasun eta zikinkeria iturria delako bertara egiten diren ur beltzen eta hondakin toxikoen isurketengatik.

## 9.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) **Jarduera sailkatuak industri lurzoruan**

⇒ *Papergintza enpresa baten funtzionamenduak atmosferan eragindako kutsadura (1477/1997)*

- **Erreklamazioa**

Mungiako biztanle batek udal mugarte horretan dagoen paper pintatuen fabrikazioko enpresa batek atmosferan sortzen duen kutsaduragatik protesta aurkeztu zuen. Esan zuen jarduera horren inguruetan bizi diren pertsonak urteak daramatzatela zaratak eta funtzionamenduaren emaitzako gasen emisioak pairatzen eta, ondorioz, Mungiako Udalari salaketak aurkezten, eta ez dutela salatzen dituzten arazo horiei buruzko irtenbiderik ikusten.

- **Azterketa**

Udal agintariei eskatu zitzaizen dokumentazioa jaso ondoren, ondoko hau frogatu genuen: jarduera horrek gasak arazteko sistemari dagokionez ezarri zitzaizkion neurri

zuzentzaileak aplikatu zituen eta, ondore horretarako egin ziren saioetan, frogatu zen atmosferara egiten ziren konposatu hegazkorren emisioek aplikagarria den arautegian ezarri diren parametroak betetzen zitzutela.

Hori gorabehera, frogatu genuen ez zela egin inolako zaraten neurketarik jarduera egiten zenean gertatzen ziren zarata horiek araz ezarrita dauden gehieneko zarata maileri egokitzen zaizkien frogatzeko.

Horregatik, Arartekoak eskabidea egin zion Mungiako Udalari toki erakunde horrek beste ikuskapen bat egin zezan eta atmosferara botatzen dituzten konposatu organiko hegazkorrei dagokienean indarrean dagoen antolamendua betetzen den zehazteko, eta aldi berean zaraten emisioen gehieneko mugak betetzen diren jakiteko. Udalak hartu zuen erabakiaren berri eman zigun; erabaki horretan, egin genion eskabideari erantzunez, hau ebatzi zuen *“Udal sail teknikoak eskabidea egitea LABEIN laborategiei horiek konposatu organiko hegazkorren emisioei buruzko saioak egin ditzaten, eta baita zaraten gehieneko mugenak ere; halaber, txostena egingo du indarrean dauden arautegiei egokitzen zaizkien jakiteko.”*

Erakunde honetan sarrera eman zitzaion LABEIN enpresaren txostena bideratzen zuen toki ebazpen horri, eta baita egin ziren saioen emaitzei ere.

Baina, hau guztia gora-ehera, txosten horretan ez zen lortutako emaitzei buruzko balorazio teknikorik egin eta ez zen zehaztu horiek araz ezarrita dauden gas eta zaraten emisioen parametroei egokitzen zaizkien.

Horregatik Arartekoak Mungiako Udalari eskatu zion enpresa salatuaren ingurugiroko kontrolaren txostena eta indarreko arautegiari egokitzeari buruzko txostena Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolakuntza, Etxebizitza eta Ingurugiroa Sailari igortzeko, gero horrek egin ziren analisi horien emaitzei buruzko txostena egitearen ondoretarako.

Azkenik, Jaurlaritzako sail horrek egin zuen txostenean oinarrituta adierazi den enpresa horri manuzko irekiera-lizentzia emateko Udalak hartu zuen erabakia jaso genuen:

*“Egin den analitikan DIOKTILFTALATO (D.O.P.) eta 2 Kg/h baino gehiagoko fluxu masikoetarako apar-tunelaren irteerako biderakuntzan partikulak erreferentziatzat hartuta dauden partikula solidoak aztertu dira eta esan behar da araudiak ezarri dituenak baino baxuagoak direla (100 mg/Nm<sup>3</sup>-tik beherakoa).*

*KONPOSATU ORGANIKO HEGAZKORREI dagokienean (C.O.V.) ez dago kanpora igortzen diren EMISIOEN gehieneko mugari buruzko legeriarik, nahiz eta otsailaren 6ko 833/195 Dekretuak, bere 46. artikularen 4. idatz-zatian, ondokoa ezarri den: III. eranskinean zehaztu ez diren kutsagaiek I. eranskinean ezarri diren inmisio mailen emaitzakoak izango dira... edo, horien ezean, ezin dute gainditu ustiategiaren barneko esparruetan haizu den gehieneko kontzentrazioen hogeita hamargarren parte, eta, ondorioz, inguruan izango duten eragina ebaluatzeko INMISIOAREN analitika egin beharko da, beste enpresa batzuen baturarik egon gabe.*

*ZARATEN MAILEI dagokienean, hau da, VINELUS, S.A. enpresari bakarrik egotz dakizkiokeenak, enpresaren ipar eta hegoaldean dauden etxebizitza ukituen kanpoaldeko muga, maila horiek 46 eta 50 dB(A) artekoak dira, hala eta irekita nola itxita.*

*Kontuan hartu behar da etxebizitzetan, hormetan dauden baoak itxita, ezin direla 40 eta 30 dB(A) gainditu jarraikako mailan edo horren baliokidea Leq. 60 segundotan, goizeko 8etatik gaueko 22:00ak arte, edota 45 eta 35 dB(A) ordu gorietan eta horien barruan.*

### ONDORIOA

*Konposatu Organiko Hegazkorren EMISIOEI buruzko Legeriarik ez dagoela kontuan hartuta (C.O.V.), INMISIOAREN analitika egin beharko da horren emaitzak otsailaren 6ko 833/195 Dekretuak, bere 46. artikulua 4. idatz-zatian ezarri denarekin erkatzeko.*

*Hurbil dauden etxebizitzetan antzematen den zaratari dagokionez, fatxadan neurtzen diren baloreekin ezin dira barruan eta hormetako baoak itxita, arestian adierazi diren mugak gainditu baldin eta horiek 30 dB(A) gutxitzeko Eraikuntzari buruzko oinarrizko araua betetzen badute .”*

- Emaizta

Beraz, LABEIN enpresak neurtu zituen atmosferako kutsaduraren emisioen mailak indarreko antolamenduan ezarri diren parametroen barruan zeudela kontuan hartuta, Arartekoak kexaren sustatzaileari espedientea itxiko zuela jakinarazi zion.

### B) **Jarduera sailkatuak egoitzazko lurzoruan**

⇒ *Industri jarduera klandestinoak (1668/1998)*

- Erreklamazioa

Jabe erkidego batzuek Elgoibarko Udalaren pasibitatea eta axolagabekeria salatu zuten, euren higiezin ondoan dagoen eraikineko bigarren solairuan industri jarduera instalatzearen ondorioz etxebizitzetan pairatu behar izan dituzten zarata eta bibrazioengatiko aurkeztu dituzten erreklamazioei jaramonik egin ez diela eta.

- Azterketa

Kexaren tramitea onartu ondoren, Arartekoak udal horretako Alkatetzarengana jo zuen eta informazioa eskatu zion salatutako instalazio horren administrazio eta hirigintzako egoera zehaztearen ondoretarako. Hori egin ondoren bidezko agindeiak egin zitzaizkion eta Udalak ez zuen ezer erantzun. Horregatik, eta kexaren sustatzaileek berriz ere pairatzen ari ziren egoera benetan jasanezina zela jakinarazi zigitela kontuan hartuta, erakunde honen eskuorde bat udalaren bulegoetara joan zen tramitaturik zegoen udal espedientea aztertzeko eta horren kopia osoa eskuratzeko.

Udal espedientea aztertu ondoren, Arartekoak frogatu zuen Elgoibarko Udala industri instalazioaren jardunbidea zuen jarduera sailkatu baren funtzionamendua haizutzen ari zela, kalifikazioa erabakitzeke zuena, bidezko udal lizentziak eduki gabe. Halaber, udal agintariek eta Lurraldearen Antolakuntza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren Gipuzkoako Ordezkaritzako zerbitzu teknikoek egin zituzten ikuskapen-bisitaldietan



baieztatu zen jarduera horrek ingurugiroko eraginak eta kalteak eragiten zituela biztanle mugakideen artean.

- Emaidza

Indarrean dagoen legeriaren arabera, Administrazioak -kontrol eta ikuskapen ahalmena duenak- ezin du haizu baimenik ez duen jarduera baten jardunbidea. Halaber, kasu zehatz honetan frogatu zen instalazio horren bidez arazo eta eragozpen larriak sortarazten zirela, zaratak eta bibrazioak, eta horiek aise gainditzen zituztela arauz ezarrita dauden parametroak, eta eragin nabarmena zutela instalazioaren ondoan bizi ziren pertsonen bizitza kalitatean. Bada, hori guztia kontuan hartuta, Arartekoak Elgoibarko Udaleri Alkatetzaren dekretuaren bidez eta kautelazko neurri bezala, jarduera berehala ixteko erabakia hartzeko aholkatu zion, harik eta legeztatu arte, instalazioaren funtzionamendu gokia bermatzearen.

Toki erakunde horrek onartu egin zuen aholkua eta espedientea itxi eta artxibatu genuen.

⇒ *Hegazti-haztegi baten funtzionamenduak ingurugiroan izandako eragina (2338/1998)*

- Erreklamazioa

Sabando udalerriko biztanle batzuk hegazti-ustiategi baten funtzionamenduak sortarazitako irregularitateak salatu zituzten; ustiategia haien etxebizitzaren ondoko eraikinean zegoen kokatuta, hiri lurzoruan, Arraia-Maeztuko Udalaren Plangintzako Arau Subsidiarioen arabera.

- Azterketa

Toki erakunde horrek jakinarazi zigun ezinezkoa zela instalazio eta irekiera lizentziak ematea, salaketa jaso zuen haztegiak “*ez zuelako jarduteko udal baimenik eskatu, ez eta eskuratu ere*”.

Arartekoak, manuzko udal lizentziarik ez duten jardueren kasuetan, behin eta berriz errepikatu den jurisprudentzian ezarri den irizpideari eusten dio. Horrela, Auzitegi Nagusiak esan du lizentziarik ez duten jarduerak klandestinoak direla eta, kautelazko neurri bezala udal agintaritzak horiek ixtea zuzenbidearekin bat datorrela uste du, harik eta GOKA araudian ezarri den prozedura betez egoera legeztatu arte.

Adierazi behar da, adibide bezala eta ezin argiagoa delako, 1998ko ekainaren 10eko Auzitegi Nagusiaren epaia (Ar. 4.195), ondokoa ezarri duelako:

*“...merkataritza eta industri establezimenduen irekiera klandestinoak edota 1961eko azaroaren 30eko Araudian ezarri diren jarduerak beharrezko lizentziarik gabe egiteak, berehala eta eraginkortasun osoz, kautelazko neurri bezala obra horien jarraipena etetea, establezimendua ixtea edo jarduera geldiaraztea eragiten dute, zertarako-eta gizarte elkarbizitzak eskatzen eta ezartzen dituen mugak legez aurka ustez gainditzea denboran zehar ez luzatzeko; eta eragiketa horiek indarrean jarraituko dute harik eta bidezko lizentziaren eskuraketaren bidez arau-hausterik ez dagoela edota horiek zuzentzeko beharrezko neurriak hartu direla bermatu arte.”*

Irizpide bera azaltzen da, halaber, Auzitegi Gorenaren ondoko epai hauetan: 1988ko otsailaren 1ekoa (Ar. 669); 1987ko apirilaren 24koa (Ar. 3.158)...

Eta ildo horretatik jarraituz, adierazi nahi dugu Auzitegi Nagusiaren jurisprudentziak bereiztu egiten duela establezimendu bat ixteko dekretatzeak eragiten duena baldin eta jarduera horrek lizentziarik badu edota lizentziarik ez duen establezimendu publikoa bada. Adibide bezala oso argigarria den 1986ko urriaren 4ko Auzitegi Nagusiaren epaia aurkeztuko dugu hemen (Ar. 7.402):

*“... Lizentziarik gabe egin diren jarduerak ixtea erabakitzekeo prozedura zehazterakoan azpimarratu behar da desberdina dela ixte hori jarduera hori lizentziarekin edo lizentziarik gabe egiten bada. Lehen kasu horretan, lizentzia dagoela, hau da, Administrazioaren aurretiazko kontrola, bidezkotuta dago 1961eko azaroaren 30eko Araudiaren 36. artikuluan eta hurrengoetan ezarri diren tramiteen jarraipena. Bigarrenean -lizentziarik gabe- ez dago Administrazioaren aurretiazko kontrolik eta, beraz, etete hori lizentziarik ez dagoela benetakotu eta besterik gabe erabaki daiteke, interesatuak adierazi behar duena entzunda, APL 91. artikuluan eta Konstituzioaren 105 c) artikuluan ezarri dena betez. Entzunaldia, beraz, derrigorrezkoa izango da salbu eta, jakina, arrisku kasuak eta abar daudenean.”*

Irizpide bera azaltzen da, besteak beste, 1990eko otsailaren 21eko Auzitegi Nagusiaren (Ar. 1.507) eta 1988ko otsailaren 1eko (Ar. 669) epaietan.

Halaber, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteari buruzko martxoaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 65. artikuluan, lizentziarik ez duten jarduerari dagokienean, hau ezarri da:

*“Bidezko zehapenak gora-behera, Alkateak jarduera batek bidezko lizentziarik gabe jarduten duela ezagutzen duen unean, ondoko jarduketara hauek burutuko ditu:*

*a) Baldin eta jarduera hori legeztatzekeo aukerarik badago, agindeia egingo dio horren titularrari eta ondore horretarako epea emango dio eta epe hori, salbu eta era egokian bidezkotuta egongo diren aparteko kasuetan, gehienez sei hilekoa izango da; halaber, interesatuak adierazi behar duena entzun ondoren, itxi egin dezake baldin eta inguruabarrak horrela egitea aholkatzen badute.*

*b) Baldin eta jarduera ezin bada legeztatu arlokako araudia edota udalaren bidezko ordenantzak ez dituelako betetzen, itxi egingo da, kasu honetan ere interesatuak adierazi behar duena entzun ondoren.”*

Sabandoko Udalak eman zigun udal arkitektoaren txostenean ezarri denaren arabera, kasu honetan aztergai den jarduera ezin da legeztatu, Arraia-Maeztuko Udalaren 1992ko otsailaren 4ko Plangintzako Arau Subsidiarioen arabera instalazio hori hiri lurzoruan dagoelako kokatuta, eta horretan “egon dauden abeltzaintzako erabileren mantenimendua baino ez delako zilegi, eta familiaren erabilerarako autokontsumoa, eta hori, hegaztiei dagokienean, gehienez 20koa da”.

Horri buruz, erakunde honi igorri zitzaion Osasun Publikoaren Zuzendariordetzako txostenaren arabera, oilaskoak gizentzeko jarduera horretan gutxi gora-behera 2.000 oilasko zeuden, eta esan behar da jarduera horrek ezin duela inoiz bete indarrean dagoen hirigintzako araudian ezarri dena.

- Emaidza

Horregatik guztiagatik, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteari buruzko martxoaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 65.b) artikuluan ezarri dena kontuan hartuta, Sabandoko Mediodia kaleko 18. zenbakian zegoen oilaskoen haztegi horren jarduera etetea dekretatzea aholkatu zen, interesatuak adierazi behar duena entzun ondoren alegia.

Formulatu zen aholku horrek ez zuen erantzunik izan eta, beraz, Arartekoak frogatu zuenean ez zutela bete, kexaren sustatzaileengana jo zuen eta bere jarduketan berri eman zien, eta, gero, espediente itxi zuen.

⇒ *Hiri jarduera sailkatuen udal jarraipen eraginkorra behar izatea (132/1999)*

- Erreklamazioa

Gasteiz hiriko jabeen erkidego batek Arartekoarengana jo zuen eta etxebizitza horietan pairatzen zituzten zarata eta bibrazioengatik eragozpenak salatu zituzten; halaber, bizi diren higiezinaren beheko solairuan zegoen diskoteka baten funtzionamenduak eragiten zituen arazoak adierazi zituzten. Gainera, pertsona ukituek esaten zuten ez zeudela ados Udalaren jarduketan irmotasun eskasarekin.

- Azterketa

Gasteizko Udalarari jarduera horren funtzionamenduaren jarraipenari buruz duen informazioa eskatu genion, eta frogatu genuen establezimenduko titularrari zehapen batzuk ezartzea erabakia zuela, ixteko ordutegia ez betetzeagatik, haizu den gehieneko jende kopurua gainditzeagatik eta etxebizitza mugakideetara heltzen den zarataren gehieneko mailak gainditzeagatik. Dena dela, arazo batzuetan, lokalean haizu zen gehieneko aforoa gainditzea kasu, Udalaren erantzuna ez zetorren bat jendaurreko ikuskizunei eta josteta-jarduerari buruzko 4/1995 Legeak ezarri duenarekin.

Hiri jarduera sailkatuen funtzionamenduari dagokionez, ondoko hauek izan behar dira kontuan:

1. Indarreko legerian ezarri denarekin bat, jardueren funtzionamenduaren jarraipena, ikuskapena eta kontrola nahitaez udalek eman behar duten zerbitzua da eta lehentasun osoa du hiritar ukituei dagokienean.

2. Udalek une oro zaindu eta bermatu behar dute baimendu dituzten jarduera horien funtzionamendua jarduera horri instalatzeko lizentzian ezarri zaizkion muga eta neurri zuzentzaileei egokitzen zaiela, eta jarduera baimendu den instalazio horren parametro eta mugetara ekarri behar dute. Baldin eta horretarako, atsedenarekin begirune gutxi duten jarrerak edo jokaerak aldarazteko eta hiritarrentzat kalitatezko ingurugiroa lortzeko zehapenak ezarri behar badira, indarrean dagoen antolamendu juridikoak bide horiek eskaintzen ditu hiritarren interes orokorra babestearen ondoretarako.

3. Argi dago mota horietako establezimenduek, horien jarduerak ez badu araupeketa tekniko-juridikoan ezarri dena betetzen, arazo larriak eragin ditzaketela eta horrela gertatzen dela lokal horien titullarrek jarduera horren inguruan negozioa egiteko interes partikularren eta interes publiko orokorraren artean, establezimendu horien inguruan bizi diren auzotarren intimitate eta segurtasun eskubidearekin identifikatzen dena, eta

horiek ezin dutela dagokien lasaitasuna kolokan eduki lokal horiek eragiten dituzten eragozpenengatik.

- Emaizta

Hiritarren ingurugiroaren kalitatea babestea eta bermatzea (Konstituzioaren 45. artikulua) eta jarduera horien erabiltzaileen segurtasuna (jendaurreko ikuskizun eta josteta-jarduerari buruzko 4/1995 Legearen 8. artikulua) herri botereen eskumena da, eta, hori kontuan hartuta, erakunde honek Gasteizko Udalarari gogorarazi zion ustezko zehapenak zehazterakoan kontuan hartu behar duela batzuetan urratzaileentzat hobe dela araua haustea eta zehapena ordaintzea, eta ez hiritarrek atsedean hartzeko eta kalitatezko ingurugiroa izateko eskubideak begirunez zaintzen dituzten jarrerak edo praktikak eskuratzea. Ildo horretatik, gogorazten da Jendaurreko Ikuskizun eta Josteta-Jarduerari buruzko 4/1995 Legearen 36.2. artikuluan ondokoa ezarri dela: *"urratzailearentzat arau-haustea egitea arauak betetzea baino errazagoa izan ez dadin, ezarriko den zehapen ekonomikoa gehitu egin daiteke, arau-haustearen bitartez legez aurka lortutako mozkinaren zenbatekoa gehituz"*.

### C) Bestelakoak

⇒ *Etxebizitza batzuetatik hurbil pisaketak egiteko baskula instalatzea (197/1999)*

- Erreklamazioa

Lasarte-Oria herriko pertsona batzuek erakunde honengana jo zuten eta esan zuten ez zeudela ados udalerrin horretan, N-1 errepidean 150 T. arteko zamak neurtzeko baskula homologatua instalatzeko erabakiarekin.

Gai horri buruz, uste zuten proiektuan ezarri zen kokalekua ez zela egokia mota horretako instalazio bat kokatzeko, hirigunean zegoelako, dentsitate baxuko etxebizitzetatik hurbil, eta horrek eragin handia izan ditzakeelako ingurugiroan eta aldeak jasaten duen gurpilezkoen trafikoaren dentsitatean.

- Azterketa

Erreklamazioaren edukia aztertu ondoren, uste dugu kexa sustatu dutenei argitu behar zaiela gure antolamendu juridikoaren arabera foru aldundiak direla -kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundia- zuhurtziarakotasunez erabakitzen dutenak instalazio bat non kokatuko den, hau da, logikaren arabera zilegi diren toki guztietatik bat aukera dezakete. Dena dela, pisaketak egiteko baskularen behin betiko kokapena lurzoruaen sailkapenari eta hirigintzako plangintzako arauetan horri esleitu zaizkion erabilerei lotuta dago.

Gai horri dagokionez, Lasarte-Oriako Arau Subsidiarioek baskula kokatu nahi zen esparru hori komunikazioetarako sistema orokorra dela adierazten dute. Hau da, alde egokia da hala pisaketak egiteko baskula bat nola hornitegi bat eta abar atzemateko.

- Emaizta

Nahiz eta toki jakin horretan pisaketak egiteko baskula bat instalatzeko erabakiak indarreko legerian ezarri dena bete, Lasarte-Oriako Udalak proiektuaren barruan zuhaitz

multzo txiki bat landatzea sartzea erabaki zuen, zati batean autobidea eta pisaketak egiteko baskula etxebizitzetatik hurbil egoteagatik sortarazten duten eragina arintzeko.

⇒ *Bakioko kostaldean hondarra ateratzea Getxoko Arrigunagako hondartza lehengoratzeko (407/1999)*

- Erreklamazioa

Arartekoak Bakioko herritar askok sinatuta zegoen kexa jaso zuen. Idazki horretan esaten zuten arduratuta zeudela Bakioko hondartzatik hurbil karrakaketa egiten eta idorkiak ateratzen ari zirelako, bertan dagoen hondar-bankutik alegia, uste zutelako eragiketa horrek eragin handiak izan ditzakeela kostaldean, eta hondartzaren, barraren, olatuen, itsasoko espezien eta abarren ezaugarriak alda daitezkeela.

Harea-erazketa hau Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Sailak sustatuta zegoen, eta horren xedea Bakio aldean 210.000 m<sup>3</sup> hondar karrakatzea zen, gero hondarra jaso eta Getxo udalerriko Arrigunaga hondartzara eramateko, hondartza horren lehengoratzeko lanetarako.

Hiritarrek karrakaketagatik protestatu zuten eta bereziki eskumenak dituen arlokako administrazioak baimendu zuen aldearen perimetrotik kanpo egiten ari zirelako, hau da, Euskal Herriko Kosten Demarkazioak (Ingurugiro Ministerioa) 1998ko urriaren 4ko Ebazpenaren bidez baimendu zuen tokitik kanpo.

- Azterketa

Kexa jaso ondoren, karrakaketa lanek aurrera jarraitzen zuten bitartean, Bizkaiko Foru Aldundiaren informazioa jaso genuen eta erakunde horrek, atzerakuntzarik gabe, erakunde espezializatuek eginiko proiektu eta azterlan tekniko batzuk igorri zituen, Euskal Herriko Kosten Demarkazioak onetsi zuen karrakaketa eta 210.000 m<sup>3</sup>-ko ateraketa egiteko baimena bidezkozteko euskarri teknikotzat erabili zirenak.

Halaber, Foru Aldundiak ondore horretarako kontratatu zen Iria Flavia ontziak eguneroko egin zituen karrakaketa lanen parteak aurkeztu zituen; idazki horietan hondarra ateratzeko eguneroko eragiketak egin ziren koordinatuak adierazten dira.

Dokumentu horiek aztertu ondoren esan dezakegu otsailaren 25a eta martxoaren 22a artean guztira ateratzeko 30 eragiketa egin zirela Euskal Herriko Kosten Demarkazioak baimendutako perimetrotik kanpo, hau da, 22.373 m<sup>3</sup> hondar era irregularrean atera zirela.

Karrakaketa daten barruan eta Euskal Herriko Kosten Demarkazioak bere baimenean ezarri zituen baldintzetan egin bazen egiaztatzeko, azken hori Estatuko Administrazioako erakunde delako kontuan hartuta, Arartekoak aurrez Herriaren Defendatzailearen baimena eskatu zuen eta horrek berehala eman zion baimen hori.

Koste buruzko Legearen 164-1. artikuluan ezarri denaren arabera, baimenak luzaezinak dira, salbu eta berariaz kontrakoa adierazten den kasuetan, eta hau ez zen honetan gertatu; dena dela, Kosten Demarkazioak bi alditan luzatu zuen baimen hori, Bizkaiko Foru Aldundiak aginduta.

Halaber, kexan aurkezten zelako, ingurugiroko eraginaren ebaluazio banakatua egiteko ustezko derrigortasuna aztertu zen, horrela eskatzen delako Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteari buruzko martxoaren 27ko 3/98 Lege Orokorrean. Ondorioa

negatiboa izan zen, ez zegoela horretarako beharkizunik alegia, kasu honetan ezin zelako aplikatu, Lege hori Konstituzio Auzitegian errekurrituta dagoelako eta estatuaren herri jabaria delako.

Halaber, karrakaketa horrek hondar-banku horren ekialdeko ertzean dagoen Gaztelugatxeko San Joaneke itsasoko biotopo babestuan izan duen ustezko eragina aztertu da. Azterlan horren bidez frogatu daiteke itxuraz ez dela eraginik izan, hondar-bankuaren 4. aldearen, hau da, ateraketa baimenduta zegoen tokiaren, eta itsas biotopoaren artean 100 metro baino zabalagoa den distantzia dagoelako.

- Emaizta

Arartekoak, bukatzeko, adierazi zuen Bizkaiko Foru Aldundiak, "Arrigunagako hondartza lehengoratzeari-II. fasea" proiektua egiteko kontratatu zituen enpresek Euskal Herriko Kosten Demarkazioak baimendu zuen esparrutik kanpo 22.373 m<sup>3</sup> hondar atera zutela eta, beraz, era irregularrean ateratako hondar hori okerreko eragiketarako egin ziren alde horietara itzuli behar zela, horretarako baimenduta zegoen alde horretatik hondarra garraiatuz.

Proiektuaren burutzapenean sortu den kostu erantsia, Arartekoak bere aholkuan esan duenaren arabera, enpresa kontratatuak ordaindu beharko du, irregularitasun horren erantzukizuna duelako, eta beraz horrek ez du gastu gehikuntzarik eragingo foru kutxetan.

Halaber, adierazi zen Bizkaiko Foru Aldundiak urte bateko epean hondarra ateratzeko eragiketa horiek Bakioko hondartzaren profil eta ezaugarrietan eraginik izan duten frogatzeko bidezko azterlanak egin behar dituela.

Beste alde batetik, txostena igorri zitzaion Herriaren Defendatzaileari; dokumentu horretan, administrazioko prozeduraren ikuspegitik, Euskal Herriko Kosten Demarkazioak Bizkaiko Foru Aldundiari eman zizkion baimenen luzapenak kritikatu ziren eta argi azaltzen zen zergatik jo den ez-egokitzat erakunde horren jarduketara.

Ingurugiro eta Lurralde Ekintza diputatuak erantzun zigun esanez Arartekoaren aholkua onesten zuela eta termino horietan betetzeko konpromisoa hartu zuen.

## 10. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK

### 10.1. SARRERA

Herri lanen eta zerbitzuen inguruko arazoek 113 kexa eragin dituzte, kexa guztien %12,60 alegia; eta honako azpialorretan bana daitezke:

- Udal zerbitzu publikoak .....	44
- Garraioak .....	16
- Obren burutzapena .....	6
- Obren proiektuak .....	3
- Derrigorrezko desjabetzapena .....	6
- Landabideak .....	2
- Bestelako zerbitzu publikoak .....	3
- Adm.aren funtzionamendua eta prozedura adm. ....	15
- Kontratazio err., ondarea eta adm. erantzukizuna. ....	16
- Eskubideak eta askatasunak .....	2

Proiektugintzari eta herri lanak burutzeari dagokienez, herritarrek kexa ugari jarri dituzte; kexetan, eraikuntzak eta errepideak egin, hobetu edo zabaltzeko obrak direla eta kalteak jasan dituztela edota bizitza kalitate txarragoa dutela salatu dute. Dena dela, aldi berean, azpiegitura horiek guztientzat hobekuntzak eta onurak ekarriko dituztela aitortu dute.

Proiektu horiek, sarritan, hain dira konplexuak ezen agiri kopuru handia biltzen baitute; eta horrek asko zailtzen du proiektuek ukitutako herritarren interesekin bat etorriko diren aukerak aurkeztea. Horri gehitu behar zaio administrazioak berak ahalmen eta bitarteko tekniko zabalak dituela aukeren artean guztien interesari ondoen egokitzen zaiona hautatzeko.

Horrelako kexak jasotzen dituenean Arartekoak elkarriketa bultzatu ohi du, alderdien jarrerak hurbiltzeko eta, azken batean, dena-delako jarduerak eragingo dituen kalteak gutxitu ahal izateko. Gainera, legez edo erregelamendu bidez ezarritako prozeduraren alderdi formalak (organoaren eskumena, jendaurreko informazioa, ingurugiroaren gaineko eraginaren ebaluazioa, manuzko txostenak edo baimenak...) beti kontrolatzen dira.

Herri lanen burutzapena eta zerbitzugintza dira Arartekoaren bulegoetara iristen diren eta administrazio erantzukizuna dakarten arazo askoren sortzaile, Administrazioak bere erantzukizuna onartu nahi ez duenean eta eragindako kalteak ordaindu nahi ez dituenean.

Udal zerbitzuen artean, etxeko edateko uraren hornidurak eragiten du kexa gehien. Gehienetan, hirigunetik urrun dauden auzo edo baserrien horniduraren inguruko arazoak izan ohi dira.

Gero eta sarriago aurkezten dira auzabideei buruzko kexak ere. Batzuetan, Udalak landabideen titulartasun publikoa aintzatets dezala eskatzen dute herritarrek; eta beste hainbatetan etxerako bideak konpontzeko eskatzen dute.

Udalek udal titulartasuneko landabideen inbentarioak egitearen alde agertu da Arartekoa; horrela, landabideen taxueta eta ezaugarriak deskribatuko dira. Horrenbestez,

hainbat arazo zail konpontzeko argitasuna eta segurtasun juridikoa ekarriko dituen legezko tresna bat lortu nahi da, gutxienez ere.

## 10.2. AUKERATUTAKO KEXAK ETA OFIZIOZKO JARDUERAK

### A) Bideak eta landabideak

⇒ *Errepide alboetako babes-aldeetan obrak burutzeko foru baimenak argiagoak izan beharra (22/1998OF)*

#### • Erreklamazioa

Arartekoari egin zitzaion kontsulta bati esker jakin genuen Bizkaiko Lurralde Historikoko errepide alboetako babes-aldeetan itxiturak jartzeko eta bestelako obrak edo instalazioak jartzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren Herrilan Sailak erabiltzen zituen inprimaki-ereduak ez zirela egokiak; izan ere, ez zen inon azaltzen obra horiek egin ahal izateko nahitaez udal baimena eskuratu behar dela, eta bai, egoki denean, bestelako administrazio baimenak ere.

Inprimakien akats horren erruz, herritar batzuek beren finketan itxiturak jarri zituzten Errepideen Plangintza eta Ustiapen Zerbitzuak emandako baimenaren babespean. Hirigintzaren ikuspegitik, ordea, legez kontrakoak ziren itxitura horiek, udalek kontrolatu behar baitituzte halako itxiturak. Kexa aurkeztu zuen herritarra legez kontrako itxitura jarri zuenean onustez aritu zen, itxitura jartzeko Foru Aldundiak eman zion baimena aski zelakoan eta beste inongo administrazio-baimenik behar ez zuelakoan.

#### • Azterketa

Aplikagarria den araudia aztertu ostean, egiaztatu ahal izan zen martxoaren 10eko 72/1996 Foru Dekretuak 1. artikuluan dioenez, Herrilan Sailak ematen dituen baimenak gora-behera, *"kasuan kasu aplikatu beharreko lege-xedapenen arabera bidezkoak diren gainerako lizentziak eta baimenak ere eskuratu behar dira"*, eta *"hirigintza arauetan ezarritako distantziak errespetatu egin behar dira itxiturak jartzen direnean"*. Foru Aldundiaren inprimaki-ereduan, ostera, ez zen aipatzen Foru Dekretuaren 1. artikulua hori.

Ondorioz, Arartekoak Herrilan Sailari honakoa iradoki zion: *"Bizkaiko Foru Aldundiak bere inprimakian interesatuei ohartaraztea berak emandako baimenaz gainera beharrezkoa dutela Udalaren obra-baimena ere"*.

#### • Emaiza

Herrilan Sailak Arartekoaren iradokizuna onartzen zuela erantzun zuen, eta *"administratuari argibide hobekak ematearren"*, inprimakian honako klausula hau ipiniko zuela:

*"Baimen hau errepideei buruzko indarreko arautegian xedatutakoari jarraituz eman da, Foru Aldundiaren eskumenera eremuan, gainontzekoen eskubideen kalterik gabe, eta lur edo ondasunen gain lehendik dauden eskubideak salbu"*



*dira; honakoaz gainera, behar diren beste baimen guztiak ere lortu beharko dira”.*

## B) **Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa**

⇒ *Donostiako Udalaren udal zerbitzuek konpultsatutako agiriak (2450/1998, 2478/1998)*

- Erreklamazioa

Hainbat hiritarrek Arartekoaren iritzia eskatu dute Donostiako Udalak agertutako jokabide jakin bati buruz; alegia, beste herri administrazio batzuek izapidetu beharreko espedienteetara herritarrek eraman behar zituzten agiriak konpultsatzeko eskaerei ezezkoa eman zien Donostiako Udalak.

- Azterketa

Antolamendu juridikoak ez du aurreikusten udal zerbitzuek beren artxiboetan ez dituzten agiriak edota bertan izapidetu behar ez diren espedienteetan sartu beharreko agiriak konpultsatzeko betebeharra dutenik. Ondorio honetara iritsi gara honako arauetan aurreikusitakoari so eginez: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92.3. artikulua; apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Toki Araubidearen Testu Bateginaren 162. artikulua; Toki Administrazio Nazio Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onetsi zuen irailaren 18ko 1.174/1987 Errege Dekretuaren 1.2 eta 8. artikulua; eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35.c artikulua. Beste alde batetik, jurisprudentziak honako irizpena eman du Auzitegi Gorenaren bi epai hauetan: *“Udal idazkari batek emandako agiria ziurtagiritzat, hots, agiri publikotzat jo ahal izan dadin, agiri horretan azaltzen diren datuek Korporazioak dituen liburu, agiri edo artxiboetatik ateratakoak izan behar dute”* (Auzitegi Gorenaren 1980ko otsailaren 2ko Epaia); eta *“Idazkariak ezin du ziurtagiririk eman bere esku edo bere zaintzapean ez dituen agiriei buruz”* (Auzitegi Gorenaren 1980ko abenduaren 11ko Epaia). Egia da irizpide horren aplikazio praktikoaren ondorioz batzuetan zailtasunak sortzen zaizkiela herritarrei; esate baterako, administrazio espedienteetan sartu aurretik konpultsatu behar diren agiriak egin dituen organoak egoitza interesatuaren herrian ez duenean; edota, prozedura izapidetu behar duen administrazioak egoitza beste herri batean duenean. Dena dela, Egoera hori konpondurik dago urtarrilaren 13ko 4/1999 Legea, azaroaren 26ko Legea aldatu zuena, indarrean jarri zenetik; izan ere, 4/1999 Legearen 38.4 eta 5. artikuluek diotenez, beste herri administrazio batzuei zuzendutako idazkiak eta jakinarazpenak jasotzen dituzten administrazioen erregistroek erkatu egin ditzakete haiekin batera aurkezten zaizkien jatorrizko agiriak.

- Emaizta

Goian egindako azterketa juridikoaren arabera, Donostiako Udalaren zerbitzuen jokaera dela-eta salatutako irregulartasunak ez zirela gertatu egiaztatu da.

### C) Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna

⇒ *Errepidearen titularra den foru aldundiari dagokio errepidea erabiltzeko moduan edukitzea (1177/1998)*

#### • Erreklamazioa

Hiritar batek Arartekoari bere iritzia eskatu zion, Bizkaiko Foru Aldundiak ondare erantzukizuna eskatzeko erreklamazio bat ezetsi ziola eta; hiritar horren ibilgailuak kalteak izan zituen Bizkaiko Aldundia titular den errepide batean, errepide erdian zegoen oztopo bat jo zuenean.

#### • Azterketa

Erreklamazioa ezestearren arrazoiak eskatu zituen Arartekoak; esan ziguten ez zegoela kausa-ondorio erlaziorik gertaera horren eta administrazioaren funtzionamenduaren artean, izan ere, administrazioak axolagabekeriak jokatu zuenik ez baitzen frogatu. Beraz, erreklamatzailari zegokion *in vigilando* errua frogatu beharra. Era berean, aseguru etxeak ibilgailuaren titularraren (kexa sustatu zuenaren ama) ordezkari gisa aritzeko behar adinako kreditazioa ez zuela jakinarazi ziguten. Aseguru etxeak administrazio bidetik egin zuen erreklamazioa.

Inguruabar horiek ikusita, Tolosako Udalari gomendio bat bidali zitzaion, gertaera horretan ondare erantzukizuna onartzeko zeukan betebeharra azpimarratuz; gomendio hori honako argudioetan oinarritu zen:

Aseguru etxeak erreklamatzailaren ordezkari gisa aritzeko behar adinako kreditaziorik ez izateari zegokionean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 32.3. artikulua agindutakoa ez zela bete esan behar da. Hala ere, organo izapidetzaileak ez zuen espedientea artxibatu; administrazioak espedientearen izapideetan ofizioz aurrera aurrera egin zuenez, ez zegoen inguruabar hori geroago berriro aipaterik.

Beste alde batetik, ibilgailuak izan zituen kalteen eragilea errepidean zegoen oztopoa (seguruenik kamioiren batetik eroritakoa) izan zela onartuta ere, administrazioak, erantzukizunetik salbu gelditzeko, gainontzekoren bat tarteko izan zela frogatu beharra dauka; eta, horrez gain, oztopoa zegoela egiaztatu zenetik administrazioak esku hartu zuen arte denbora gutxi igaro zela frogatu behar litzateke. Kasu honetan ez zen beharkizun hori bete; ez eta gertaera horretan administrazioak izan zezakeen erantzukizuna frogatzearen zama erreklamatzailari leporatuta ere.

Gainera, errepideak zaintzeko zerbitzu publikoaren funtzionamendu ez-egokiari egotzi zitzaion gertaeraren errua, berari baitzegokion bideak oztoporik gabe edukitzeko eta balizko arau hauleak jazartzeko ardura; eta zerbitzu hori Aldundiaren esku dago.

#### • Emaiza

Horregatik guztiagatik, Foru Aldundiaren Herrilan Sailak gomendioa ez zuela onartu ondorioztatu zuen Arartekoak, eta bere esku zituen baliabide guztiak agorturik zeudelakoan, horren berri eman zion erreklamaziogileari eta kexari buruzko espedientea amaitutzat eman zuen.

⇒ *Administrazioaren erantzukizuna bere eskumeneko hiri bideetan trafikoa antolatzeko (2590/1998)*

- Erreklamazioa

Herritar batek Tolosako Udalari ondare erantzukizuna eskatzeko erreklamazioa aurkeztu zion, Udalak ezetza eman zion, eta ezespina Arartekoaren iritzipean jarri zuen. Herritar horren ibilgailuak kalteak izan zituen kamioi bat jotzean, bidean seinale egokiak falta zirelako. Udalak ezetsi egin zuen erreklamazioa, esanez administrazioaren jardueraren eta ibilgailuak izandako kalteen arteko kausa-ondorio erlazioa ez zela zuzenekoa ez bakarra.

- Azterketa

Eskaera ezestearen arrazoiak jakiteko asmoz, espedientea izapidetzeko udal txostenak eskatu zizkion Arartekoak Tolosako Udalari. Udaltzainek egindako argiketa-agiria igorri zion Udalak; agiri horretan azaltzen zen istripua gertatu zen kalean ez zegoela seinalerik. Gertaera horren eragilea administrazioaren funtzionamendurekin zerikusirik ez zuen egitate bat izan zela alegatzen zuen txostena ere bidali zigun, kaltearen eta zerbitzu publikoaren arteko kausa-ondorio lotura ez zela frogatu adierazten zuena. Azkenik, administrazio ebazpenean aipatzen ziren zuzenbideko oinarrietan jurisprudentziako joera jakin bat aipatzen zuen; alegia, Administrazioaren jardunaren eta eragindako kaltearen artean lotura zuzena eta eskusiboa egotea beharrezkoa dela dioen jurisprudentzia, kaltetuen eta beste inoren inolako esku-hartzerik gabe. Beraz, batetik, kamioi gidariaren balizko axolagabekeria, eta bestetik, erreklamaziorik gabe jokoera (alboetara begiratu gabe eta behar adinako arretarik gabe sartu baitzen errepidean) kontuan hartuz gero, kausa-ondorio lotura ez zela ez zuzena ez eskusiboa iritzi zitzaion.

Inguruabar horiek aztertu ostean, Arartekoak Foru Sailari gomendioa egin zion, gertaera horretan bere ondare erantzukizuna aitortzeko zeukan betebeharra azpimarratuz. Gomendio hori honako argudioetan oinarritu zuen:

Gertaera horretan, zerbitzu publikoaren funtzionamenduak ibilgailuen trafikoa antolatzeko udalek duten eskumenean zuen jatorria, hain zuzen ere Toki Araubidea arautzen duen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.b) artikuluan emandako eskumena. Era berean, Trafikoa, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioa eta Bideko Segurtasuna arautzen duen Legea onetsi duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzazko Errege Dekretuaren 7.a artikulua bidez udalei eman zitzaizen titular diren hiri bideetako trafikoa antolatu eta kontrolatzeko eskumena. Eskumen hori dela bide, Tolosako Udalari dagokio udalerriko bideen antolaketaz eta seinaleztatze egokiaz arduratzea.

Hori zela eta, trafikoa antolatzeko zerbitzuaren funtzionamenduaren eta ibilgailuak jasandako kalteen artean kausa-ondorio loturarik zegoen aztertu behar zen. Auzitegi Gorenak hainbat epaitan zehaztu duen bezala (esate baterako, 1994ko ekainaren 4koan), zuzenekoa, berehalakoa eta eskusiboa izan behar du, lotura hori alda dezakeen inolako eskuhartzerik gabekoa.

Dena den, errua administrazio zerbitzuko funtzionamenduarena eta gainontzeko batena bada, Auzitegi Goreneko jurisprudentziak ñabardura hau egin du (esate baterako 1998ko irailaren 28ko epaian): **“Administrazioaren jarduketa eta egindako kaltearen artean kausalitate-lotura ezinbesteko zeharkako, hurbileko**

**eta aldi bereko formetan ager daiteke;** bestelako inguruabarrak egoteak erantzukizunaren aldaketa eragin dezakete eta kalteordaina zehazteko orduan kontuan hartuko da” (EJ 1997/226).

Ñabardura horrekin, errua birena izateak ez dakar berekin inork erantzukizunik ez izatea; aitzitik, kalteordainaren kopurua kaltea sortu duten agenteen artean banatu beharra dakar.

Kaltearen eta zerbitzu publikoaren arteko kausa-ondorio erlazioa zehazten zuena bidegurutzean trafikoa antolatzeke titularraren obligazioa eta horrek istripuan izandako eragina zen. Beraz, ezin ukatuzkoa da seinaleztapena ez zela egokia, hala ziurtatu baitzuten agenteek beren argibideetan. Hura frogatuta gelditu zen aipatutako bidegurutzean semaforoak jarri zituztenean. Bidegurutzean semaforoak jartze soilak frogaturik utzi zuen istripuaren arrazoia seinalerik ez egotea izan zela, zeren, bidegurutzea arautua egon balitz, istripuak ez baitzukeen halako nahaspilarik sortuko. Bestetik, ohartu ginen bazitekeela gertaera hartan beste faktore batek ere eragitea, alegia, gidariak behar adinako arretea ez jartzea bidegurutzean sartzean..

Beraz, Tolosako Udalari gomendioa luzatu genion aipatutako gertaeran Udalaren erantzukizuna eskatzen zuen erreklamazioa ezesteko erabakia atzera botatzea eta ebazpen berri baten bidez erantzukizuna onar zezan.

- Emaizta

Ondare erantzukizuna eskatuz aurkeztu zen erreklamazioa ezesteko erabakia atzera bota zuen Udalak, eta ebazpen berri baten bidez erruen aldiberekotasuna eta kalteordainetan bere erantzukizuna onartu zituen. Udalaren jarduketa horren ondorioz, espedientea amaitutzat jo genuen.

#### D) Tokiko herri-zerbitzuak

⇒ *Herri bideen azpiko ur-hornidurako hodian konponketak (1117/1997)*

- Erreklamazioa

Getxoko jabeen erkidego bateko kideek Arartekoarengana jo zuten gertaera jakin baten aurrean Udalak izan zuen jarrerarekin ados ez zeudela adierazteko. Ur edangarriaren hodiariak jasaten zituen jarioak konpontzeko eta presioaren galera ekiditeko Udalari konponketak egiteko eskatu zioten, eta hark ezezkua emanik beraiek arduratu ziren konponketak egiteaz; gero gastuak ordaintzeko eskatu zioten, eta Udalak ezetza eman zien berriro. Ukituek alegatu zuten espaloi azpiko hodia aldatu behar izan zutela, bai eta sare nagusiarekin lotzen duen balbula ere; titular diren finkaren hartunera iritsi aurretik dagoena. Getxoko Udalak, ordea, obrak higiezinaren tutueria pribatuan izan zirela adierazi zuen, eta beraz jabeen erkideko kideek ordaindu behar zituztela.

- Azterketa

Ukituek aurkeztutako fakturan egin zituzten obrei buruz, erabilitako materialez eta tutuaren ebakiduraz ageri diren datuak kontuan harturik, Arartekoak Getxoko Udalari

erreklamazioa eragin zuten obrak jabeen erkidegoaren ur-hornidurako tutuerian soilik egin zirela frogatzeko erabilitako txosten teknikoen aldakia eskatu zion.

Honi dagokionez, kontuan hartzekoa da konponketa lanak egin ziren ur edangarriaren hodieria herri bidearen azpian zegoela eta beraz, ondare publikoko ondasunei dagokien bezala, aske zeudela zama, zortasun eta afekzioetatik. Ondorioz, herri bidea jabari publikokoa izanik, tutueria jabari publikokoa dela pentsatu behar zen. Hortik ondoriozta zitekeen Getxoko Udala zela jabari publikoko ondasunen azpitik igarotzen diren ur edangarriaren hornidurako instalazioen titularra.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak Getxoko Udalari gomendatu zion jabeen erkidegoak egindako ezinbesteko obren gastuak beregana zitzala, zeren konponketa haiek ura banatzen duen sareko hodia ukitu baitzuten, eta hori ondo mantentzeko ardura Udalari baitagokio.

- Emaiza

Getxoko Udalak erreklamazioaren izapidetzan izan zuen jarrera berretsi zuen, alegia, ez zuen onartu gomendioa. Gainera, gomendioan aipatzen zitzaizkion ondasun higiezin jabetza pribatuari buruzko mugen oinarriak zalantzan jarri zituen. Zalantza haien inguruan, Arartekoak gogorarazi zion jabari publikoko ondasunen erregimen juridikoa zorrotzagoa eta babesleagoa dela; izan ere, ondasun pribatuei aplikatzen ez zaizkien, ez behintzat jabari publikoko ondasunetan eskubide horiek duten adinako garrantzi eta intentsitatearekin, ezaugarri definitzaileak bere egiten dituztela jabari publikoko ondasunek.

⇒ *Hiri bideen hondamenaren aurrean administrazioaren inibizioa (2441/1998)*

- Erreklamazioa

Bilboko hiritar batzuek, batzuetan banaka eta besteetan taldeka, Arartekoarengana jo zuten bizi diren kaleen egoera kaxkarra eta Administrazioak arazo horren aurrean izan zuen jarrera salatzeko. Bilboko Udalean salatu zutenean, hark erantzukizuna Bizkaiko Foru Aldundiari zegokiola erantzun zuen, Aldundia zela bide horien titularra, baita errepedeen egoeraren arduraduna ere.

- Azterketa

Administrazioaren pasibitateak eta inibizioak, ezer ez konpontzeaz gain, hiritarren etsipena eragiten zuela ikusirik, Arartekoak Bilboko hiri lurretan barna doazen errepedeetan Foru Aldundiari dagozkion errepede-tarteak zein diren zehazteko, mugak jartzeko, espedienteari hasiera ematea komeni litzatekeen galdetu zien bi administrazioei; beti ere, Bizkaiko Errepideei buruzko otsailaren 18ko 2/1993 Foru Arauaren IV. kapituluan (57. art. eta hurr.) ezarritakoarekin bat etorritz.

Baiezko erantzuna eman zuten bi administrazioek, bai Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan Sailak, bai Bilboko Udalak. Bi administrazioen jarrera ona ikusirik, Arartekoak hainbat errepede-tarte mugatzeko espedienteak izapidetzea proposatu zien; honako zatiak mugatzeko hain zuzen:

1. CN-634, BI-636 Montevideo etorbidea
2. CN-634 Atxuri

3. A-8 Juan de Garay lotunea
4. A-8 Sabino Arana lotunea
5. BI-631 Begoñako Andra Mari zeharbidea
6. BI-3704 Enekurirako sarbidea
7. BI-625 Salbe zubia

- Emaidza

Une honetan, Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan Saila, Bilboko Udalarekin koordinaturik, hainbat hiri lur mugatzeko espedienteak izapidetzen ari da; aurretik, jarduketa horrek eskatzen zuen datu bilketarako behar zen programa informatikoa prestatu zuen.

⇒ *Osasun bermeak etxeetarako ur edangarriaren horniduran (250/1999)*

- Erreklamazioa

Santa Ageda-Castresanako auzo elkarteak Arartekoaren aurrean salatu zuenez, Las Delicias eta Santa Ageda (Barakaldo) auzoetako hainbat baserrietara zihoan ura aztertu zuen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, eta azterketa horien ondorioz, kutsadura bakteriologikoa detektatu zuen, indarrean dagoen legeriak ezarritako mugez gaindikoa.

- Azterketa

Baserri horiek jasotzen duten ura edangarria ez zela ikusirik, eta horrek osasuna arriskuan jar zezakeela oharturik, Arartekoa Barakaldoko Udalarekin harremanetan jarri zen berehala eta Osasun Sailak egindako txostenaren kopia bidali zion; horrek, ohi den gisan, udal bulegoetan agertu beharko zukeen.

- Emaidza

Udalaren erantzuna berehalakoa izan zen; jakinarazi zuen Arartekoak txostenaren kopia bidali zion arte ez zuela uraren analitikaren berririk izan, agian, Osasunerako Lurralde Ordezkaritzari ahaztu egingo zitzaiola analitikaren kopia bat Udalari igortzea.

Dena den, hutsegite bat egon zela argitu zuen, izan ere, aztertu zen ura ez zen etxeetara zihoana, baizik eta gainazaleko isurketa batekoa eta Arroletza mendiko iturri batekoa; beti ere, auzokoen testigantzen arabera.

Las Delicias eta Santa Ageda auzoetako baserriak sare nagusitik hornitzeko proposamen teknikoa jaso zain zegoela gehitu zuen Udalak; horrela, Udalaren sarean sartuta leudekeenez, baserri horiek osasun berme egokiak izango lituzkete.

## E) **Garraioak**

⇒ *Pasagunearen onarpena, bi familia bakaturik geldi ez daitezzen (550/1999)*

- Erreklamazioa

Añorga Txiki auzoko baserritar batek Arartekoarengana jo zuen Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. enpresak ordura arte erabiltzen zen oinezkoentzako pasagunea

itxi nahi zuela salatzeko. Pasagune horrek, trenbidea zeharkatzen zuen, eta beren etxebizitzetatik auzoko oinarrizko zerbitzuetara iristeko erabiltzen zuten.

Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. enpresak pasagune hori ixteko bi arrazoi eman zituen: bata, toki horretatik gero eta tren gehiago pasatzen direla; eta bestea, baimendu gabeko trenbide pasaguneen bidez trenbidea zeharkatzeak eta ikuspen eskasak sortzen zuen arriskua.

Hala eta guztiz ere, auzokideek Añorgako tren geltokian zegoen trenbide pasagunetik trenbidea zeharkatzen uzteko eskatzen zuten, gainontzekoan auzotik bakartuta gelditu bailirateke. Horrela, Añorga Txiki auzoko etxeetatik baserrietaraino dauden 100 metro inguru horiek 2 kilometro bilakatuko liriateke errepidez joan behar izanez gero.

- Azterketa

Nahiz eta oinezkoentzako pasagune hori Añorga Txiki auzora iristeko pasagune gisa inongo agiritan aitortu ez, Arartekoak bere burua eskaini zion Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. enpresari arazo horren konponbidean bitartekari gisa aritzeko.

- Emaiza

Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A. enpresa Añorgako geltokiko andenetan oinezkoek soilik erabiliko duten oinezkoentzako pasagunea onartzeko prest agertu zen, beti ere, seinaleztapena antolatzeak eta bidea egiteak eragindako gastuak interesatuek beren gain hartzen bazituzten.

## 11. OSASUNA

### 11.1. SARRERA

1999an 61 kexa aurkeztu dira arlo honetan. Esan behar da, batez ere, informazioa jasotzeko eskubideari, prestazioekiko irisgarritasunari, herri sistematik kanpo jaso den laguntzagatiko gastuak ez itzultzeari eta antolakuntzako alderdiei edo gizakiaren jaramonari buruzkoak izan direla.

Prestazioekiko irisgarritasunari dagokionez haurdunaldia eteteari buruzko kexa baten inguruan egin den ikerketak frogatu digu Osakidetza onartu egiten duela egon dagoela aurrez legeak ezarrita dituen terminoak betez hori egiteko eskubidea, baina, gero, egineran, emakume guztientzako benetako berdintasun egoeran hori betearazteko arazoak sortzen dituzten inguruabarrak daudela.

Aintzatetsita dauden prestazioen eskaintzan antzutasunaren aurkako tratamenduei buruzko kexak aurkeztu dira. Kexa honetan erabiltzaileek adierazi dute ez datozela bat beraien ustez prestazio horretarako bitartekoen faltarekin.

Osasun zentro batzuetan antolakuntzako aldarazpenei buruzko kexak planteatu dira, hala oheburuko medikuak aldatu direlako nola pediatren kopurua murriztu delako. Kexa horietan nagusi dira egon dauden medikuak demografiako gora-beherei egokitzerakoan sortzen diren arazoak.

Halaber, kexak sortu dira larrialdietako laguntza zerbitzuetan gertatu diren laguntza eskabideekin. Balizko kasu horietan gertatzen den funtzionamendua aztertu dugu eta, gure ustez, larrialdietako laguntzarako zerbitzu horri dagokionez zerbitzu horien jarduketa zuzena izan da.

Kexa batzuetan paziente guztien eskubideei buruzko alderdi bereiztaileak aztertzeko aukera izan dugu, adibidez, sein jaio berrien edoskitzerako gaituta dauden ospitaleetako instalazioei buruzkoak, horrela egin nahi duten gurasoek beraien seme-alabei biberioia emateko gertuturik daudenak alegia; edo alta jasotzeko moduan dauden amen egoera, baina oraindik ospitalean jarraitu nahi dutenak izan duten seinak oraindik egun batzuk gehiago egin behar dituelako ingresatuta.

1998an hitzarmena sinatu zen Osasun Saila, Osakidetza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean izaera soziosanitarioa duten arazoak ebazterakoan era koordinatuan jarduteko. Hitzarmen horretan islatu ziren aurreikuspenei buruz, erakunde honek ustez behar duten laguntza edo jaramona jaso ez duten Bizkaiko pertsona eta taldeen testigantzak jaso ditu. Argi dago honako hau aldi berean gizarte zerbitzuen arloan ere landu behar den gaia dela. Horregatik gai hau Gizarte Ongizateari dagokion atalean ere aipatuko dugu.

Arlo honen barruan baina laguntza sanitarioa ez den esparruan, aipatu behar da pertsona baten kexaren bidez Arabako alde jakin batzuetan jendeak edaten duen uraren potabilitate baldintza txarregatik zeuden arazoren batzuk ezagutzeko aukera izan dugula.



## 11.2. AUKERATUTAKO KEXAK ETA OFIZIOZKO JARDUERAK

### A) Erabiltzaileen eskubideak

⇒ *Medikua askatasunez hautatzeko eskubidea eta osasun zentroen berregituraketa (2452/1998)*

- Erreklamazioa

Osasun zentro baten berregituraketa egin zen, bertan zeuden beharrianengatik, eta bertara mediku berriak ekarri zituzten. Inguruabar horrek oheburuko mediku batzuk aldatzea eragin zuen.

Familia bateko kideek nahiago zuten ordura arteko medikuarekin jarraitzea eta, ondore horretarako, bidezko eskabidea aurkeztu zuten. Eskabideari gaitziritzi egin zitzaion eta, ondorioz, kexa planteatu zuten eta alegatu zuten gaitzirizpen hori arbitrarioa zela, eskatu zuten medikuarentzat aurreikusita zegoen txartelen kupoa oraindik estali gabe zegoelako.

- Azterketa

Printzipioz, mediku horrek esleituta zuen txartelen kopuruak aukerak ematen zituen erabiltzaile gehiago onartzeko.

Dena dela, Arartekoak bildu zuen informazioaren arabera, txartelen marjina hori bera zen Osakidetzak unitatearen berregituraketa horretan bereiztuta geratu ziren familietako kideak inkorporatzeko aukera izateko erreserbatuta zuena, eta baita historia delikatu, oso larri edota historial horren garapenagatik medikua aldatzea aholkatzen ez zuten patologiadun erabiltzaileentzako erreserbatuta zegoena. Bada, aurreikuspen horietan oinarrituta egineran kupoa beterik zegoen eta, ondorioz, esan daiteke erabiltzaileen inkorporazioaren baimenari gaitziriztea ez zela arbitrarioa izan.

Osakidetzak igorri zuen txostenean, halaber, adierazi zen kexa azaldu zuten pertsona horien eskabideak ezin zirela era lokabeen bete, aurkeztu ziren beste eskabide askorekin erkatuta tratatu bereiztua egitea litzatekeelako eta orduan horiei jaramon egitea egindako berregituraketaren ildoaren aurka joatea litzatekeelako, bereziki horren funtsa, beste arrazoi batzuen artean, mediku bakoitzak esleituta zuen erabiltzaile kopuru handiegia zelako.

Bada, Osakidetzak aurkeztu zuen txostenean adierazi diren datu horiek kontuan hartuta, ez dugu antzeman lehen mailako laguntzarako unitate horretako bitartekoak berregituratzeko prozeduran era arbitrarioan jardun zela adierazten duen aztarnarik.

Azken balorazio hori medikua aldatzeko eskabidea ukatu zenean zeuden inguruabarren testuinguruan kokatu behar da. Horrela, berregituraketa egin zen uanean bertan aldi berean aurkeztu zen eskabide kopuru handia funtsezko faktorea izan zen onespenerari ekiterakoan; baina egoera horren ondoreak birmoldaketa egin zen unera mugatzen ziren.

Horregatik hortik aurrera berregituratu zen lehen mailako laguntzarako unitate funtzionalean aurkez zitezkeen medikuz aldatzeko eskabideak era lokabeen eta banakatuan aztertu behar ziren, une hartan zeuden inguruabarretan oinarrituta, kexa egin zen uanean zeuden inguruabarrei lotu gabe.

Arartekoak kexa honen balorazioaren berri eman zion Osakidetzari eta adierazi zuen aldi bat igaro ondoren eta, beraz, egindako berrantolakuntza hori era egokian garatuta, medikuz aldatzeko eskabide berriak, hau da, medikua era askean hautatzeko eskubide horren adierazpenak, une jakin horretako inguruabarren arabera aztertu beharko zituztela.

- Emaizta

Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak baieztatu egin zion erakunde honi etorkizunean egon daitezkeen medikuz aldatzeko eskabideak era banakatuan aztertuko direla, hau da, iraganeko inguruabarren ebazpenak kontuan hartu gabe. Eragiketa horrekin Arartekoak bukatutzat jo zuen eskuhartze hori.

⇒ *Antzutzea eta hori haurdunaldia borondatez eteteko baldintza moduan ezartzea emakume seropositibo batzuen kasuan (224/1999)*

- Erreklamazioa

Kexa honetan adierazi zen Osakidetzako ospitale baten, behin baino gehiagotan, emakume seropositiboek haurdunaldiaren borondatezko etena (HBE) egiteko baldintza moduan ezartzen ziotela antzutzea. Horrela ulertu zuten emakume batzuk.

- Azterketa

Salatu ziren egintza horiek antolamenduak aintzatetsita dituen osasuneko prestazioetara iristeko tratu desberdinak planteatu zituzten.

Arartekoaren aburuz, emakume seropositiboek antzutzeko eskatzeak izaera hori ez dutenekiko bereizkeria da. Osakidetzako Zuzendari Nagusiak, guk eskatu genion informazio eskabideari erantzunez, gauza bera adierazi zuen eta ondorioz ez zegoen inolako eztabaidarik legezko kasuetan emakume seropositiboek haurdunaldia eteteko duten eskubidearen idazkuntzari dagokionez.

Bada, ez zegoen inolako eragozpenik erantzun horretan adierazi zenarekiko eta kexa horren inguruko aurrekari batzuk aztertze beharrezana antzeman zen.

Mediku batek uste izan dezake pazienteak antzutzeari uko eginez, egineran HBE antisorgailu bezala erabiltzea ekar dezakeela, eta iritzi horrek beste proposamen batzuei erantzuteko balio dezake, baina ez antzutzeari ekiteko.

Baldin eta mediku batek uste badu emakume seropositibo bat antzutzea egokia edo aholkugarria dela, mediku horrek informazio ulergarria eman behar dio, eta ez zeharkakoa, emakume horrek askatasunez erabaki dezan, inolako mehatxurik gabe.

Kontzientzia arazo baten oinarritzen den medikuaren erabaki batek HBE egiteari uko egitea bidezkotu dezake. Hori gorabehera, kontzientziatzko eragozpen horrek ez du balio baldin eta benetako arrazoia HBE nahi duen emakumeak antzutzeari ekitea nahi ez badu.

- Emaizta

Arartekoak idazkia igorri zion Osakidetzako Zuzendari Nagusiari eta horretan arestian adierazi diren hausnarketa horiek adierazi zizkion; halaber, osasuneko

prestazioetara iristeko benetako berdintasuna lortzeko beharrezko neurriak sustatzeko beharrezko adierazi zion.

⇒ *Aitek beren seme-alabei ospitalean biberioa emateko duten eskubidea. Edoskitzeko instalazioen egokitzapena (335/1999)*

- Erreklamazioa

Ospitaleetako jaio berrien zerbitzuetan esparru itxiak daude, zertarako-eta umeak edoskitzeko; toki horietan, inguruabarrek horretarako bidea ematen dutenean, amek bularra edo biberioa ematen diete seinei.

Bada, arrazoi batzuegatik aitei debekatu egiten zitzaizkien esparru itxi horietara sartzea, batez ere bularra ematen ari ziren amek gizonezko bat aurrean izategatik zuten lotsa nagusitzen zelako. Egoera horregatik ospitale jakin batean debekatu egin zitzaizkien gizonezko gurasoei edoskitzeko toki horretan sartzea.

- Azterketa

Kexa eragin zuen debeku horren emaitza argia izan zen, gizonezko gurasoentzat, nahi izan arren, ezinezkoa zela umei biberioa ematea. Sarrera salbuespeneko kasuetan baino ez zen zilegi, adibidez bere emaztea ez zen beste emakumerik ez egotea, edo bidezko txandako langileen irizpideak hori bideratzea, horrelakoetan beste amaren batek gaitziritzen ez bazion gizonezko guraso baten sarrera baimentzen zuelako.

Egoera honek desberdintasunak eragin ditzake, zehatzago esateko, gizonezko eta emakumezko gurasoentzako tratua bereiztua, eta ez dago horretarako bidezkoetarik. Txostenaren eskabidean antzeman dugu tratua bereiztua gertatzen dela eta informazioa eskatu genuen Osakidetzari lotuta dauden gainerako zentroetan egoera horri ematen zaion tratamendua ezagutzearen ondoretarako.

- Emaitza

Bada, osasunaren arloko organismo horrek eman digun informazioaren arabera ez zen azaltzen senarra ez den beste gizonezko batzuen aurrean umei bularra eman nahi ez zion amaren baten deserosotasun egoerei buruzko beste berririk, eta, ondorioz, ez zegoen aita eta amen berdintasuna ukitzen duen ustezko tratuei buruzko inolako frogarik.

Hori guztia gorabehera, txostenean adierazi zenaren arabera, ospitaleetan beti dago beste gela edo leku itsatsi bat eta zilegi da horrela eskatzen duen ama baten intimitatea bermatzea.

Kexaren arazoia izan zen kasuari dagokionez, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak Arartekoari jakinarazi zion ospitale horretako gerentziak bermatu egiten duela laster egiteko diren jaio berrien arloaren birmoldaketan hemen planteatu den arazoa kontuan hartuko dutela.

Konpromiso hori ezagutu ondoren, interesatuari horren berri eman eta Arartekoak bukatutzat jo zuen jarduketa.

⇒ *Gaixoa egonaldi ertain-luzeko zentroetara eramango dutela jakiteko eskubidea (29/1999OF)*

- Erreklamazioa

Egunkari baten argitaratu zen gutunean paziente baten familiakoek kexatu egiten ziren gaixo hori Osakidetzako ospitale batetik beste ospitale batera eraman zutelako eta ez zutelako horren informazio egokirik jaso. Adierazten zutenaren arabera, ingresatuta zegoen familiako kide bat gaixo horren ondoan era iraunkorrean egon arren, ez zuten lekualdaketa horren berririk izan harik eta gertatu arte.

Datu horiek kontuan hartuta Arartekok espedientea hasi zuen lekualdaketa horren inguruabarrak ezagutzearen ondoreetarako.

- Azterketa

Kexa hau kontuan hartu genuenean abiaburua paziente bat lekualdatzen denean bere edo bere senideen adostasuna behar dela da eta, edozein kasutan, horiek informazio egokia edukitzea.

Bada, oinarri berean finkatuta, ospitaleak gaixoen lekualdaketa neurtu behar diren alderdi guztiak aztertzen dituen prozedura gertutu zuen, hala laguntzaren arloan dauden beharrezkoak nola familiakoei eman behar zaien informazioari dagokionez.

Prozedura horretan aurreikusi da Osakidetzako ospitaleetatik egonaldi ertain eta luzeko beste zentro batzuetara joateko egiten diren lekualdaketa familiakoei ohartarazi behar zaiela lekualdaketa hori edozein unetan gerta daitekeela eta zentroa, eguna eta ordua ezagutzen den unean bertan familiakoei aurrez eta denbora nahikoarekin jakinaraziko zaiela, baldin eta zilegi bada.

Lehen alderdi hori ez zuen inork eztabaidatzen, hau da, bazekiten lekualdaketa hori edozein momentutan gerta zitekeela. Dena dela, ez zen gauza bera gertatu lekualdaketa buruzko informazio zehatzari dagokionez. Bi alderdi horiek ospitaleak gertutu zuen prozeduran zeuden aurreikusita.

Osakidetzak kexa eragin zuen gertaerari buruz egin zuen txostena aztertu ondoren, Arartekoak antzeman zuen bazegoela arrazoirik familiako kideek informazioa aurretiaz eta denbora nahikoarekin jasotzeko duten eskubidea ez zela bete pentsatzeko. Ondorio horretara heltzeko funtsezkoa izan zen datu bat, gaixoaren medikuntzako historian, iruzkinen orrialdean (goizeko txanda) adierazi zela egun horretako arratsaldean lekualdatuko zutela. Hori gorabehera, gaixoarekin gelan bertan familiako kide bat egon arren, horiek ez zuten lekualdaketa berririk izan hori gertatu zen unera arte (18.45etan).

- Emaidza

Aztertu den kasu horren bidez frogatu zen ospitale horrek bazekiela familiako kideek eskubidea dutela lekualdaketa berririk aurrez eta denbora nahikoarekin jasotzeko. Dena dela, pentsa daiteke aztertu dugun kasu zehatz honetan ez zela horrelakorik gertatu eta aholku bat egin genion Osakidetzako Zuzendari Nagusiari, etorkizunean familiako kideek eta pazienteek informazioa era egokian jasotzeko duten eskubidea bermatzeko beharrezko neurriak har daitezkeen.

Bere erantzunean, nahiz eta adierazi ez zegoela ados Arartekoak bere azterketan emandako ondorio horiekin, Osakidetzako Zuzendari Nagusiak onartu egin zuen aholkuaren edukia eta bidezko agindeia igorri zuen hori betetzearen ondoreetarako. Azkenik, Zuzendari Nagusiak Arartekoari jakinarazi zion aldarazi egin zuela egonaldi ertain-luzeko zentroetara lekualdatzeko prozedura eta bertan, erizaintzako bilakaeraren orrian, familiak horren berri duela idaztea komeni dela sartu dela.

## B) Bestelakoak

⇒ *Larrialdietako osasun sarearen jardunbideari lotuta dagoen kasu bat (330/1999)*

### • Erreklamazioa

Pertsona bateak kalean lurrean etzanda zegoen beste bat lagundu zuen; etzanda zegoena itxuraz mozkortuta zegoen. Bada, larrialdietara deitu zuen eta anbulantzia bat etorri zen. Anbulantziako pertsonak larrialdien koordinaziorako zentrorra deitu zuten eta mediku koordinatzailearekin datuak erkatu ondoren, horrek esan zien pertsona horrek ez zuela lagundu beharrik, nahiz eta mozkortuta egon, eta bertan behera uzteko.

Horren laguntzan joan zen pertsona horrek laguntzarik-eza salatu zuen.

### • Azterketa

Osakidetzak, Arartekoak eskatuta, egin zuen txostenean anbulantziako jendearen eta mediku koordinatzailearen arteko elkarrizketaren hitzez hitzeko transkripzioa egin zen; txosten horretan erabili ziren irizpideak eta kasu jakin horretan zergatik zen egokia larrialdietako zerbitzuaren eskuhartzea etetea azaltzen ziren.

Anbulantzia toki horretara heldu zenean bertako zuzkidurak mediku koordinatzaileari deitu zion eta adierazi zion laguntzen ari ziren pertsona mozkortuta zegoela, ez zuela zauririk eta kontziente zegoela (txostenean adierazten da adina esateko gauza izan zela).

Informazio hori kontuan hartuta mediku koordinatzaileak laguntza hori bukatzea erabaki zuen. Horretarako kontuan hartu zuen edari alkoholduak hartu dituzten pazienteekin, baldin eta elkarrizketa bati eusteko gauza badira eta adina eta non dauden gogoratzen badute, bidezko jarrera terapeutikoa itxarotea dela harik eta organismoak berak odolak duen alkohol-tasa jaitsiarazi arte.

Datu horien arabera ezin da esan baztertze horren arrazoi bakarra toxikapen etilikoa izan zenik, ezin baita hori onartu. Erabakia etilismo horren graduari eta ustezko zauriei lotutako inguruabarretan oinarrituta hartu zen.

Dena dela, Arartekoak elkarrizketaren azterketa -anbulantziako jendearen eta mediku koordinatzailearen artekoa- egin zuen eta frogatu da egon daudela alderdi batzuk iruzkinak egitea merezi dutenak.

Egia da, bai, Osakidetzak pertsona horrek ez zuela laguntzarik behar erabakitzeko kontuan hartu zuen datuetariko bat horren kontzientzia izan zela, kontuan hartu zuelako bere adina adierazteko gauza zela. Hori gorabehera, anbulantziako zuzkiduraren eta

mediku koordinatzailearen arteko elkarrizketa grabatua kontuan hartuta, hori DYako laguntzaileak pertsona horren adinari buruz zuen iritzia izan zen, eta ez laguntza jasotzen ari zen pertsonaren adierazpena.

Beraz, mozkortuta zegoen pertsona hark elkarrizketa bati eusteko gaitasuna zuela esaten zuen ondorioa, behintzat datu bakar horretan finkatuta egin bazen, ez zen zuzena izan.

- Emaidza

Aztertu den kasu zehatz horretan frogatzen da medikuen laguntzarik behar ez dela esaten den egoera batzuk laguntza ukatzeko mugatik hurbil dauden kasuak izaten direla. Badirudi hori ez dela kasu honetan gertatu zena, baina aldi berean egia da geroago aztertu zen kasua izan zela eta, zorionez, ez zuela pertsona horrentzat kalterik eragin.

Ildo horretatik, nahiz eta laguntza jasotzen ari zen pertsona horri laguntzen ez jarraitzeko zioa toxikapen horren jatorri etilikoa ez izan, eta bai pertsona hori kontziente zegoela eta ez zuela zauririk, Arartekoak Osakidetzarengana jo zuen eta esan zion kontziente zegoela baloratzeko irizpena okerrekoa izan zela.

Kexaren sustatzaileari Arartekoak egin zuen azterketaren emaitza jakinarazi zitzaion; halaber, pertsona horri Osakidetzako Zuzendari Nagusiari kasu jakin honen gainean egin genizkion iradokizunen berri eman zitzaion.

## 12. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA

### 12.1. SARRERA

Lan eta Laneko Seguratasunaren arloari dagokionez lehenengo eta behin azpimarratu behar da oso gutxi direla arlo honetan azaldu diren kexak, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eskumenek esparru honen barruan garrantzi gutxi dutelako.

Kontrol jarduketak, aurreko urteetan gertatu den bezala, lan eta laneko seguratasunaren alorrean finkatu dira, eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko legeria kontrolatuz eta jarraituz egiten dira.

Bada, alor honi dagokionez, Seguratasun eta Laneko Osasunerako Euskal Institutua/OSALANen tramitatu zen kexa espedientea bukatu da; espediente hori automobilak konpontzeko lantegietan Amiantoarekiko ustezko esposizioagatik langileak babesteari buruzkoa izan zen.

Erakunde honek burutu zuen jarduketa horretan argi adierazi zen beharrezkoa zela aldiro frogatu behar dela ibilgailuen konponketan lan egiten duten lantegietan jarduera horiek amiantoaren arriskua duten enpresen erregistroan sartu behar diren ala ez. Bere erantzunean OSALANek aholkua betetzeko egin zituen jarduketa batzuen berri eman zuen, eta baita ibilgailuak konpontzen dituzten enpresetan neurketak egiteko teknikei buruzko beste datu batzuk ere. Ondorio bezala, esan behar da oraindik norbanakoen babeserako ekipoen erabileraren prebentzio-neurriei buruzko dudaren batzuk ditugula, eta baita amiantoarekiko esposizioaren ondorio diren ustezko patologiak antzemateko politika eraginkorraren beharizanari buruzkoak ere.

Beste alde batetik, beste kexa espediente bat tramitatu dugu -aukeratutako kexen idatz-zatian sartu dugu-, gidariak pairatzen dituzten zaratatetik datozen arriskuak eragozteko araudia ez betetzeari buruz, izan ere, ustez zaharkituta baitaude TCSA enpresako -Bizkaian hiri garraioa egiten duen herri zerbitzua- autobusak.

### 12.2. AUKERATUTAKO KEXAK

⇒ *Hiriko herri zerbitzuetako gidariak zaratatetik pairatzen dituzten kalteen arriskuei buruzkoa (408/1999)*

- Erreklamazioa

Bizkaiko hiriko eta hiri arteko herri garraioa egiten duen Transportes Colectivos S.A. enpresako sindikatu bateko eskuorde batek Arartekoari jakinarazi zion herri zerbitzu hori egiten zuten autobusak ordeztu beharra zegoela, enpresak ez dituelako betetzen autobusetako gidariak pairatzen dituzten arriskuak eragozteko arauak.

- Azterketa

Kexa sustatu zuen sindikatuak adierazi zuenaren arabera, garai hartako Laneko Seguratasun eta Higienarako Kabineteko Ikuskatzaileak TCSA enpresako autobusen zarata presio mailaren emaitzako baldintza higienikoen txostena egin zuen. Txosten horretan eredu batzuetako gidariaren kabinan zegoen zarata maila gutxitzeko seguratasun

neurri batzuk aplikatzea aholkatzen zuen, maila horrek urriaren 27ko 1.316/89 EDn ezarritakoa gainditzen zuelako. Baina ez zela bete kontuan hartuta, Bizkaiko Laneko Lurralde Eskuordetzak zehapena ezarri zion enpresari laneko segurtasun eta higienerari buruzko arautegia hausteagatik.

Baina, hori gorabehera, autobus kopuru handiak adierazi den arautegi hori bete gabe jarraitzen zuen; horren berri eman zitzairen hala Bilboko Udalari nola Bizkaiko Foru Aldundiari zerbitzugintza horren titularrak direlako, eta baita OSALANi ere, baina inolako erantzunik jaso gabe.

Kexa horri bidezko tramitea ematearen ondoretarako kexa Bilboko Udalari eta Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio Sailari igorri genien. Halaber, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak enpresa horretako gidarien kabinek zituzten baldintza higienikoei buruz duen irizpidea ezagutu nahi genuela jakinarazi genion.

Inguruabar horiei dagokienez, Bilboko Udalak esan zuen 11 autobus berri jarri direla abian eta, horrela, batez-besteko adina zazpi urtekoa dela eta batek ere ez dituela Udalaren garraioen herri zerbitzuaren emakida arautzen duen kontratu-egitarauan aurreikusi diren hamalau urteak gainditzen. Bere aldetik, Foru Aldundiak esan zigun 1999ko uztailean autobusen ibilgailuteri osoak kontratuan ezarri den adina izango dela.

Halaber, Segurtasun eta Laneko Osasunerako Euskal Institutua/OSALANek aholku bat egin zion enpresari eta esan zion frogatuta dagoela zarata maila eta tenperatura altuak direla autobusen kabinetan eta, ondorioz, gidarien lanpostuen azterlan ergonomikoa egitea aholkatzen zuen.

- Emaiza

Inguruabar horiek kontuan hartuta eta autobusek hamalau urteko iraungitzeko epeari egokitzen zaizkiola kontuan hartuta, gai honi buruzko gure eskuhartzea etetea erabaki genuen, baina enpresak egin behar duen azterlan ergonomikoaren emaitzako ondorioak behin betiko burutu arte eta egin daitezkeen jarduketa berriak baztertu gabe.



## 13. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

### 13.1. SARRERA

Hirigintza eta etxebizitza alorreko arazoan ondorioz 110 kexa jaso dira, kexa guztien %12,26. Azpialorka honela banatuta daude:

- Hirigintza arauen betearazpena eta aurria .....	38
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	8
- Hirigintzaren kudeaketa .....	6
- Hiri antolamendua .....	8
- Bestelako alderdiak .....	3
- Kontratazio erregimena, ondarea eta admin. erantz. ....	1
- Etxebizitza .....	46

Hirigintzaren inguruan era askotako galderak planteatu zaizkigu. Hala ere, adierazitako arazoak gero eta zehatzagoak eta gertuagokoak dira, bereziki planeamenduari eta hiri antolamenduari buruzkoak direnean.

Kexetan ez dira jada oinarrizko planeamenduko plan orokor eta arau subsidiarioetako irizpideak, helburuak eta proposamenak zalantzan jartzen. Aitzitik, gero eta kexa gehiago aurkezten dira xehetasun azterketek –hirigintza planeamenduko elementurik txikiena, bai hierarkian eta baita aginpidean ere– zehaztutako xehetasuneko antolamenduaren inguruan. Herritarrentzat ohikoenak eta hurbilenak diren espazioen hiri antolamenduak erantzun biziagoa eragiten du, izan ere herritarrek hiriko gune horien (kaleak, leku irekiak, lursail hiriztagarriak...) etorkizunean eta eraketan kontuan har daitezela eskatzen baitute.

Hirigintza kudeaketa higiezinaren agenteek sustatu beharrean, lurjabe txikiek sustatzen dutenean, Arartekoaren bulegoan kontsulta eta kexa ugari izaten dira. Kexa eredu honako herritarra izango litzateke: familia bakarreko edo bi familiako etxebizitza eraikitzeke asmoz lursail bat erosten duena. Horren ondorioz, lurra berriro zatitzeko espedienteetan sartzen dira, eta batzuetan baita konpentsazio proiektuetan ere, konpentsazio batzordeko kide bihurtzen baitira konpentsazio horiek banatzeko. Gauza horiek ulertzeko zailak izaten dira, eta batzuetan ez zaizkie behar bezala azaltzen hirigintza etekinak eta kargak banatzeko hirigintza teknika korapilotsu horiek, eta ez zaie azaltzen jabeek obligazioa dutela hiriztatze gastu izugarriak finantzatzeko eta udalei lur lagapenak egiteko.

Askotan obra baimenak emateko udal erabakiak dira kexaren jatorria. Hori urtez urte jasotzen diren kexetan agertzen da, eta askotan bizilagunen arteko auziek sortutakoak dira.

Hirigintza diziplinaren alorrean, beste mota bateko kexak ere jaso ditugu: Udalak eraikin bat aurri egoeran aitortzeko egindako eskaera onartu ez izana salatzen duten herritarrenak, hain zuzen ere. Aurri egoerako eraikinek herritarren segurtasuna arriskuan jartzen dute eta auzoaren edo herriaren inguruneari kaltea eragiten diote. Askotan, gainera, zabortegei bihurtzen dira edo baimenik gabe okupatu, eta horrek enbarazu, eragozpen eta arazoak dakartza.

Etxebizitza alorrean herritarrek aurreko urteetako antzeko arazoak planteatzen dituzte.

Gehien adierazi diren kekek babestutako etxebizitzaren eraikuntza akatsei (hezetasuna, altxa egin diren parketak, pitzadurak, berokuntza instalazio akatsak, etab.) buruzkoak dira. Kontuan izan behar da eraikuntzak eskuz egiten direla, eta ez makinaz, kanpoan egiten direla eta gremio askok eskuhartzen duela. Gauza horrela izanik, onartu egin behar da eraikuntza akatsak eta hutsak egon daitezkeela etxebizitza libreetan nahiz babestutakoetan. Baina kasu horietan eskatu behar dena zera da: akats horiek antzeman bezain laster Administrazioak, kasu honetan Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak behar bezalako arduraz jardutea, eta promotoreari edo eraikitzaileari eraikuntza akats horiek konpon ditzala exijitzea. Adierazi egin behar da, ordea, keka guztietan akabera edo instalazio akatsak adierazi direla, eta ez dela egitura akatsei buruzko kekarik aurkeztu.

Kexetan babes ofizialeko etxebizitzak adjudikatzeko irizpideak ere jarri dira zalantzan. Etxebizitza horiek emateko araudian etxebizitza eskatzen dutenen egoera berezi guztiak ez aurreikusi eta jasotzea ulertzekoa da (helburuak hori izan behar badu ere). Beraz, egoerak hain desberdinak izanik, araudiak emandako erantzuna egokia eta bidezkoa ez den kasu zehatzak beti izango dira. Arlo horretan erakundeak eskatzen duena zera da: kasu horietan interpretazio malguak egiteko gaitasuna egotea; edo, bestela, arauak aldatzeko borondatea izatea, objetiboki edo konparazioz bidezkoak ez diren egoerak gerta ez daitezen.

Azkenik, babes ofizialeko etxebizitza saltzen duten herritar batzuen kekek aipatu behar dira. Izan ere, salmenta egiterakoan Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak tanteo eskubidea gauzatu eta etxebizitza erosi nahi duela adierazten baitie. Jardunbide horren inguruan Sail horri gomendio bat igorri diogu. Bertan zera eskatzen diogu saltzaileei egiten dizkieten jakinarazpenek jakinarazpen izapideak arautzen dituen administrazio arauak bete ditzatela.

Iriskortasun alorrean arazo batzuk azaldu zaizkigu. Hain zuzen ere, gutxitu fisikoei adjudikatzen zaizkien babes ofizialeko etxebizitzek izan beharreko ezaugarriak osotasunean arautuko dituzten arau teknikorik ez dago, eta horrexek sortu ditu arazoak.

Abenduaren 4ko Eusko Legebiltzarreko 20/1997 Legeak, Iriskortasuna Sustatzekoak, 2. azken xedapenean ezartzen zuen 6 hilabeteko epean Eusko Jaurlaritzak hiri ingurune, gune publiko, eraikuntza, garraiobide eta informazio eta komunikazio bide eta sistemen iriskortasun baldintzak zehaztuko dituzten arau teknikoak onartu behar zituela. 20/1997 Legeak legearen alderdi teknikoak Erregelamendu bidez garatzeko ezarritako epe hori ez da bete, eta jasotako kekek adierazten dutenez, oraingoan ere, kaltetuak gutxitasunen bat dutenak dira.

## 13.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Hirigintza arauen betearazpena eta aurria

⇒ *Udalak obra baimen baten luzapena ez onartzea (1536/1996)*

- Erreklamazioa

Herritar batek Arartekoan honakoa salatu zuen: duela hilabete batzuk Gornizko Udalarari 1987ko maiatzaren 7ko Gobernu Batzordeak onartutako obra baimena luzatzea eskatu zion, Uresaranse auzoan familiabakarreko etxebizitza baten eraikuntza amaitu ahal izateko (B/06/87 espedientea).

Etxebizitzaren egitura teilatu eta guzti egin ondoren, obrak bertan behera utzi behar izan zituen. Izan ere, bide zibilean auzitara eraman zuten eraikuntza zegoen 1.800m<sup>2</sup>-ko partzelaren jabetza eskubidea zalantzan jarriz. Bilboko 1. Instantsiako Epaitegiak bere aldeko epaia eman zuen; Bilboko Probintziako Auzitegiak ere bai; eta, azkenik, Epaitegi Goreneko 1. Salak ere antzeko epaia eman zuen. Epaitegi batetik bestera ibiltze hori izan zen, hain zuzen ere, urte horietan obra geldituta egoteko arrazoia. Epaitegiek finkaren titulartasuna norena zen behin betirako erabaki arte lanak bertan behera uztea eskatzen zion zuhurtziak.

- Azterketa

Arartekoak txostena eskatu zion Gornizko Udalarari, eta honek erantzun zion eskatzaileak “*luzapen eskaera arrazoitzeko argudioak eman beharko zituela, eta datu zehatzak eman Administrazioak luzapena emateko arrazoiak badaudela ikus dezan*”.

Hala eta guztiz ere, eskatzaileak nahitaez eskuhartu behar izan dituen auzibideei buruzko datuak eman dizkio Udalarari, eta horren erantzun idatzirik ere ez du jaso.

Erantzunik ez jasotzean, erakunde honetako ordezkariak Gornizera joan ziren. Bertan hirigintza arloko arduradunarekin elkarrizketatu eta eraikuntza lanak ikuskatu zituzten.

Elkarrizketaren ondorioz, Gornizko Udalarekin honako akordioa lortu zen: Udalak obra baimena luzatuko zion, baldin eta eskatzaileak Uresaranse bizitegiko Plan Partzialaren antolaketaren eta kudeaketaren ondorioz sortutako hirigintza kargak bere gain hartzeko konpromisoa hartzen bazuen. Planaren udal izapideak geratuta zeuden, eta itxuraz ez zegoen inolako arrazoirik hainbeste denboran etenda egoteko. Jarraian, kexa aurkeztu zuenak aurreko baldintza onartzen zuten idatzia aurkeztu zuten Udalean, eta baimenaren luzapena eman zitzaioela jakinarazteko zain geratu zen.

Halaber, Arartekoak Gornizko Udalarari 87/1998 Gomendioa, irailaren 22koa igorri zion. Bertan, honakoa adierazten zen: Udalak 1987an emandako baimena iraungi egin zela adierazi ez zuenez, baimen horrek ondorioak izaten jarraitzen zuten eta, beraz, bidezko diren hirigintza obligazioak beteko direla ziurtatu ondoren, eskatzaileari familiabakarreko etxebizitzaren eraikuntza amaitzeko luzapena eman beharko lieke Udalak.

- Emaizta

Gorlizko Udalak ez zuen eskatzailearen idatzia erantzun, eta ezta Arartekoaren gomendioa ere. Dena den, eskatzaileak agiri idatzia behar zuela azpimarratzen zuen, hots, Administrazioak eragozpenik ez zuela jartzen eta obrei berriro ekitearen aurka ez zegoela adierazten zuen idatzia behar zuela (kontuan izan behar da etxebizitza amaitzeko diru dezente jarri beharko zuela). Arartekoak Udalarari beste irtenbide bat proposatu zion, izan ere Udalak inolako arrazoirik gabe obra baimena indarrean zegoela idatziz aitortzeari uko egiten zion, nahiz eta ahoz familiabakarreko etxebizitza eraikitzeko obrei ekiteko baimena ematen zuen.

Gorlizko Udalarari honako irtenbidea eskaini zitzaion: Arartekoak Udalarari jakinaraziko zion, berarekin izandako elkarrizketei jarraiki, B/06/87 espedienteari dagokion obra baimena indarrean zegoela, eta hiriztatze gastuei aurre egiteko 3 milioiko abala aurkeztu ondoren obrei berriro ekin ahal izango zitzaiola. Horrekin ados ez balego, Udalak 10 eguneko epea izango luke egokiena irizten zuena erantzuteko.

10 eguneko epea igarotakoan, Arartekoak beste idatzi bat bidali zien Udalarari eta eskatzaileari. Bertan, adierazitako epean kontrako inolako arrazoirik eman ez zenez, Udalean abala aurkeztu ondoren, obrei edozein unetan ekin ahal izango zitzaiola adierazten zen.

Joan den udaberrian, obrak 10 urtetan geratuta egon ondoren, kexa egin zuenak, familiabakarreko etxebizitza eraikitzeko obrei berriro ekin ahal izan zien azkenean.

⇒ *Obra baimen baten exekuzioa etetea (640/1998)*

- Erreklamazioa

Portugaleteko gozotegi jarduera baten titularrak bultzatutako kexa idatzia jaso genuen. Bertan adierazten zen Portugaleteko Gobernu Batzordeak bere saltokian aireztatze hodia jartzeko obrak burutzeko udal baimena ematea erabaki zuela, aurkeztutako proiektuari jarraiki. Geroago, ordea, Gobernu Batzordeak erabaki horren -jarduerarako aireztatze hodia jartzeko beharrezko obra baimena ematen ziona- exekuzioa etetea erabaki zuen, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 104. artikuluan ezarritakoari jarraiki: “*baimen hori berehala burutzeak sor ditzakeen kalteak kontuan hartuta, eta espediente honetan esku hartzen dutenek adierazitako arazoei irtenbidea eman arte.*”

- Azterketa

Portugaleteko Udalak emandako informazioaren arabera, Arartekoak honakoa ikusi zuen:

1. Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 104. artikuluan ezarritakoari jarraiki, kautelazko neurri gisa ekintzen exekuzioa etetea, administrazio bidean berrikuspen jardunbidea hasi ondoren soilik da bidezkoa. Horrela, 104 artikulua honakoa adierazten du: “*Ofiziozko berrikuspen jardunbidea hasitakoan, hori erabakitzeko organo eskudunak ekintza etetea erabaki dezake, ekintza horrek konpontzeko zailak edo ezinezkoak diren kalteak sor baditzake.*”

Erakunde honi emandako udal txostenean honakoa adierazten zen: *“ez da jardunbiderik hasi eztabaidan dabilen aireztatze hodia jartzeko baimena ematen zuen erabakia berrikusteko”*.

2. Halaber, xedapen horrek ezartzen duena hitzez hitz jarraituz, etetea legitimatzeko, eta eskubide subjektibo bat mugatzen zuen ekintza bat zela kontuan hartuta, hodi hori jartzeak *“konpontzeko zailak edo ezinezkoak diren kalteak”* sortzen dituela egiaztatu beharko litzateke.

Administrazio espedientearen zegoen informazioaren arabera, esan genezake kasu honetan ez dela bilatu etetea erabakitzeko arrazoi horiek bazeudela zehazteko inolako arrazoirik.

Aireztatze hodia jartzeko proiektu teknikoaren memorian –proiektua interesatuak aurkeztu zuen, arkitekto tekniko batek sinatuta dago eta dagokion elkargoaren zigilua du– adierazten zen hodi hori eraikuntzakoa ez den elementua zela, hodia jartzeko fatxadan euskarri metaliko soil batzuk besterik ez direla behar, eta euskarriak kendu egin beharko balira fatxadan eta eraikinean ez lukeela inolako kalterik eragingo.

Baimenaren exekuzioa etetea erabaki ondoreneko udal txosten tekniko batean, obra baimena eman zuen erabakiaren legezketasuna zalantzan jartzen zen. Baina ez ziren adierazten ekintza hori burutzeak sor zitzakeen kalteak.

- Emaizta

Aurreko guztia ikusita, Portugaleteko Udalak gozotegiko titularrari emandako obra baimenaren legezketasuna edo legezketasun-ezari buruz iritzirik eman gabe, Gobernu Batzordeak hartutako bigarren erabakia baliogabetzea gomendatu zion Arartekoak Udalari. Hau da, jardueraren titularrari lokalean aireztatze hodia jartzeko baimena ematen zion erabakiaren exekuzioa eteten zuen akordioa baliogabetzea. Bigarren akordioan Herri Administrazioen Araubideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak 104. artikuluan ezarritako baldintzak eta egoerak ez zirelako ematen egin zitzaion gomendioa, izan ere lege horretan oinarrituta hartu baitzen akordioa.

Portugaleteko Udalak ez zuen gomendioa aintzat hartu.

⇒ *Auzokide elkarte batek obra baimen bat salatu du, partzelaren planoaz ez baita zuzena (183/1999)*

- Erreklamazioa

Uliako auzokide elkarteak Arartekoarengana jo zuen Donostiako Udalaren ekintza bat salatzeko. Izan ere, Udalak auzokideen alegazioak aintzat hartu gabe Eguzki Alde finkako Barne Erreformako Plan Berezia (BEPB) onartu zuen (finka hori AU.02 Uliak Barren hirigintza eskuhartze arean dago), eta finka horretan (Ategorrieta Etorbidea 59) sei (6) familiabakarreko etxebizitza eraikitzeko obra baimena eman zuen.

Auzokide elkarteak adierazten zuen BEPBko proiektuan zehaztutako bide berriaren zabalera ez zuela betetzen Donostiako Hiri Antolakuntzako Plan Orokorrean ezarritako gutxieneko zabalera (8,60 metro).

Horrez gain, auzokide elkarteak adierazten zuen Eguzki Aldeko finkaren azalera ez zela 3.165 m<sup>2</sup>-koa, nahiz eta etxebizitzaren sustatzaile eta BEPB idatzi duen merkataritza enpresak hori esan. Elkarteak topografia enpresa bati eskatutako plano takimetroaren arabera, finkaren azalera 2.883 m<sup>2</sup>-koa zen.

- Azterketa

Arartekoak Donostiako Hiri Antolakuntzako Plan Orokorrean AU.02 Ulia Barren hirigintza eskuhartze areari buruz ezartzen duena ikusi, eta horri buruzko kontsulta batzuk egin ondoren, Udalera jo eta txosten bat eskatu zuen. Txostenaren helburua proiektuan dagoen bideak bide partikularrak zatiitutako partzelen lerrokaduren arteko gutxieneko distantzia betetzen duten jakitea zen.

Beste alde batetik, partzelaren benetako azalerari buruz zalantza zegoela ikusita –auzokide elkarteak eskatutako finkaren plano takimetrokoan aierazitakoak eragindakoa–, Arartekoak Udalaren lankidetzara eskatu zuen *“legeak Donostiako Udalari ematen dizkion hirigintza ikuskapen ahalmenak erabiliz, berehala (...) ofizioz Eguzki Alde finkaren neurketa eska dezan, partzela horren benetako azalera zein den jakiteko: BEPBan adierazten dena edo auzokide elkarteak eskatutako plano topografikoan adierazten dena”*.

- Emaidza

Udalak txosten eskaerari honakoa erantzun zion: bete egiten zela planeamenduak eskatutako partzela eta bidearen ardatzaren arteko distantzia, 4,30 metrokoa. Eta auzokide elkarteak egindako interpretazioa, hots, trafiko partikularrerako bideak banatzen dituen bi partzelaren artean gutxienez 8,60 metro egongo direla, Plan Orokorreko araudiaren interpretazioetako bat zela, baina ez egin daitekeen interpretazio bakarra.

Eguzki Alde finkaren azalerari dagokionez, zera adierazten zen: espedientea ireki eta sustatzaileei eta jarduerak eragindakoei entzunaldia ematen ari zitzaiela.

Azkenean, Alkatetzak, 1999ko maiatzaren 25eko Gobernu Batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, 93/98 zenbakiko obra handien baimenaren ondorioak etetea erabaki zuen. Obra baimen hori 1998ko abenduaren 30eko Alkatetzara Ebazpen bidez eman zen Ategorrieta etorbidea 59ko eraikina bota eta bertan sei (6) etxebizitza eraikitzeko. Hirigintza arau hauste larria izateagatik eten da ebazpena, ez baitira betetzen partzelazioa eta partzelako etxebizitza kopurua arautzen duten baldintzak. Halaber, jabetza erregistroan akordio horren oharpen prebentiboa egitea erabaki zen, eta akordioa Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiari igortzea, baimena emateko ebazpena baliogabetzeko izapideak hasteko.

Ebazpen hori topografia azterketa bat egitea eskatu ondoren hartu zen. Azterketan Eguzki Alde finkaren azalera 2.921 m<sup>2</sup>-koa zela adierazten zen; eta, beraz, bide publikoa kenduta (355 m<sup>2</sup>), ezin dira osatu BEPBak ezartzen zituen bi partzela: bata 1.000 m<sup>2</sup>-koa, 2 etxebizitza izango lituzkeena; eta bestea 1.800 m<sup>2</sup>-koa, 4 etxebizitza izango lituzkeena.

⇒ *Udalaren lurra osasungarritasun egoeran edukitzeko betebeharra (793/1999)*

- Erreklamazioa

Bilboko Monte Aldamiz kaleko auzokideak Arartekoarengana jo eta honakoa adierazi zioten: euren etxeen ondoan Bilboko Udalaren jabetzako lursail bat dutela, bideetarako egindako desjabetze batetik soberan dagoena. Lursail hori utzita zegoen, zabor eta sastrakaz beteta, eta arratoi ugari zituen.

Auzokoek egoera hori Udalean salatu eta lekua txukuntzeko eskatu zioten, baina Udalak ez zien erantzun.

- Azterketa

Jabeen betebeharra da bere lurak segurtasun, osasun eta txukuntasun egoera onean edukitzea da (Lurraren Araubideari eta Balorazioei buruzko 6/98 Legearen 19. artikulua). Hori dela eta, lursail hori arratoiez betetako zabortegi izaten ez jarraitzeko neurriak hartzea Udalari zegokion.

- Emaidza

Udalari informazioa eskatu ondoren, Arartekoak irailaren 22ko 76/1999 Gomendioa egin zuen. Bertan, honakoa zioen: *“Bilboko Udalak, Monte Aldamiz kaleko 9 zk.ko eraikinaren eta Maurice Ravel kalearen artean dagoen lursailaren titularrak, lursail hori berehala garbitu beharko luke, eta segurtasun, osasun eta txukuntasun egoera onean mantendu”*.

Bilboko Udalak ez zuen gomendioa onartu, izan ere ez baitu lursaila garbitu.

## B) **Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa**

⇒ *Babes ofizialeko etxebizitzak saltzerakoan eroslehentasun eskubidea gauzatuko dela adierazteko jakinarazpenei buruz (842/1999)*

- Erreklamazioa

Herritar batek Arartekoarengana jo eta honakoa adierazi zion: babes ofizialeko etxebizitza baten salerosketan Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak ez ziola behar bezala jakinarazi eroslehentasun edo tanteo eskubidea gauzatuko zuela.

Honakoa zioen: babes ofizialeko etxebizitza baten jabe izanik, saltzea erabaki zuen, eta sail horrek emandako argibideak jarraitu zituen.

Horrela, bada, erosleak izango zirenekin izenpetutako salerosketa kontratua aurkeztu zuen Lurralde Ordezkaritzan. Eta eroslehentasun eskubidea gauzatuko zen ala ez jakiteko hilabete itxaron zuen.

Epe horretan ez zuen jakinarazpenik jaso, eta Lurralde Ordezkaritzarekin harremanetan jarri zenean, bertatik zera adierazi zioten: sail horrek eroslehentasun eskubidea gauzatzeko ebazpena sinatu zuela, horretarako ezarritako epearen barruan. Horrekin konforme ez zegoenez, erreklamaziogileak bere etxean ebazpen hori jakinarazten zion frogatzeko moduko idatzirik ez zuela jaso alegatu zuen.

- Azterketa

Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak adierazi zuenez jakinarazpena notario bidez egin zen, hori baita babes ofizialeko etxebizitzetan tanteo eskubidea gauzatzeko erabiltzen den ohiko bidea. Notarioak, jakinarazpena egiteko, jakinarazpen aktak arautzen dituen Notaritzaren Antolaketa eta Erregimenaren Erregelamenduak 202.e artikuluan xedatutakoa bete behar du. Forma aldetik, notari jakinarazpena egiten

saiatzearekin jakinarazpena egintzat jotzen da, nahiz eta interesduna bere etxean ez aurkitu. Kasu honetan, notarioa hiru aldiz saiatu zen jakinarazpena egiten, legeak agintzen duen jakinarazpen saiakera bakarra egin beharrean.

Beste alde batetik, 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubidearen eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak 59.4 artikuluan zera xedatzen du: jakinarazpena egiten saiatu, eta hori lortzen ez bada, interesatuaren azken helbideko Udaleko iragarki taulan eta probintziako aldizkari ofizialean iragarkiak argitaratuz egingo dela jakinarazpena.

30/1992 Legea administrazio publiko guztiei –horien artean autonomia erkidegoei– ezar dakiekeen administrazio jardunbidea arautzen duen oinarrizko legea da. Horrela, bada, Arartekoaren iritziz, Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak bere ekintzen jakinarazpena egiten zuenean, lege horrek xedatzen duena zehatz-mehatz bete beharko luke, eta ez alde batera utzi.

Hori dela eta, interesdunari berari jakinarazpena egiten saiatu, eta hori etxean aurkitzen ez bada, sailak dagokion Udaleko iragarki taulan eta aldizkari ofizialean argitaratu beharko luke jakinarazpena. Izan ere, administrazio legaltasunaren ikuspuntutik, ez litzateke nahikoa izango Notaritzaren Antolaketa eta Erregimenaren Erregelamenduak ezarritakoa betetzea.

- Emaizta

Arartekoak Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari gomendioa egin zion eta erantzunaren zain gaude.

### C) Hiri antolamendua

⇒ *Plan orokorraren antolakuntza proposamenaren aurka, Gobelas ibaiaren lurrazpiko ibilgua ez errespetatzeagatik (1075/1999)*

- Erreklamazioa

Areetako (Getxo) herritar talde batek honako kexa agertu zuten: Getxoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak euren etxebizitzaren alboan babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko proposamena egiten zuen, baina etxebizitza horiek Asua ibaiaren lurrazpiko ibilguaren gainean egingo liriteke. Eta hori legearen aurkakoa da, eta, gainera, etorkizunean arazoak larriak sortuko lituzke. Plan orokorra jendaurrean erakusteko Udalak erabili zuen maketan etxebizitza berri horiek ibaiaren ibilguaren gainean zeuden, eta plan orokorraren dokumentazio grafikoan ere horrela zegoen adierazita.

- Azterketa

Kexaren nondik norakoak eta inguruaren ezaugarri fisikoak eta hirigintzakoak hobeto ezagutzeko, erakundeko aholkulari bat Areetara joan zen. Han, auzokoekin batera Gobelas ibaiaren lurrazpiko ibilgua aztertu zuen eta baita inguruaren hirigintza ezaugarriak ere.

Arartekoa harremanetan jarri zen Eusko Jaurlaritzako Uren Lurralde Zerbitzuarekin (ibaiaren ibilguan eskumena duen administrazioa) eta Lurralde Antolaketa, Etxebizitza



eta Ingurugiro Sailarekin (exekuzio unitatean dauden lurren titularra). Hori egin ondoren, Udalarengana jo zuen. Udalari bidalitako idatzian zera adierazten zitzaion: plan orokorrean, eraikuntza egin aurretiko baldintza gisa, xehetasun azterketa izapidetu eta onartzeko beharra adieraztea, horrek hain zuzen ere ibaiaren ibilgua eta horren eraginpeko ingurua errespetatzea bermatuko luke eta.

- Emaidza

Udalak Arartekoari emandako erantzuna ez zen herritarrei orain artean eman zitzaien berbera izan; baina, hala ere, lasaitzeko modukoa izan zen. Erantzun idatzian, Plan Orokorreko Hirigintza Ordenantzaren 7.1.3 artikulua arabera, xehetasun azterketa hori beharrezkoa dela adierazten du Udalak. Izan ere exekuzio unitate horretan eraikin bat eraitsi behar da etxebizitza berriak egin ahal izateko, eta horrek, nahitaez, xehetasun azterketa idaztea eskatzen du, Plan Orokorreko Ordenantzaren arabera.

Arartekoak Getxoko Udalak emandako erantzunaren berri eman zien herritar horiei eta erne egon beharko luketela adierazi. Izan ere, xehetasun azterketa onartzeko, aurretik 15 lanegunetan egon behar du jendaurrean, agiriaren epeak aztertu eta, egoki irizten bada, alegazioak aurkezteko. Alegazio horietan Asua ibaiaren lurrazpiko ibilgua eta horren eraginpeko ingurua errespetatzea eska dezakete, edo euren herritar interesak defendatzeko bestelako gauzak adierazi.

⇒ *Industrialde bat zati batean berrantolatzeko xehetasun azterketek duten ahalmenaz (1113/1999)*

- Erreklamazioa

Bizkaiko Etxebarria herriko herritar talde batek Arartekoan Udalaren ekintza baten aurkako salaketa aurkeztu zuten. Udal horrek Galartza industrialdeko antolaketa zati batean aldatu nahi zuen, aluminioaren eraldaketan lan egiten duen enpresa bat hedatzen laguntzeko. Eta horretarako, xehetasun azterlan bat izapidetu zuen, plan partzialaren aldaketa puntuala izapidetu beharrean.

Eraiki nahi zen pabiloi berriak, gainera, kutsadura sortuko zuela eta leku horren landa ingurunekeo paisaiari kalte egingo ziola adierazten zuten.

Azkenik, xehetasun azterlanaren izapidea 1995eko apirilaren 22ko Udalbatzak hartutako erabakiaren aurkako zela adierazten zuten. Akordio horren bidez honakoa erabaki zen: industrialdearen lurra berriro zatitzeko proiektuan Etxebarriko Udalari adjudikatu zitzaizkion bi partzelak –1 b eta 1 c partzelak– industri eraikinik ez zutela izango eta toki irekiak izango zirela.

- Azterketa

Kexa aztertzeko, Etxebarriko Udalari kexa eragin zuen xehetasun azterlanaren kopia eskatu zitzaion, eta horrek handik gutxira bidali zigun.

Adierazitako lehenengo gaiak azterketa juridiko zorrotza behar izan zuen. 1976ko Lurraren Legearen Testu Bateratuaren 14. artikulua eta Hirigintza Planeamenduko Erregelamenduaren 65. artikulua aztertu ziren, horiek baitira planeamenduko elementu hori arautzen dutenak. Baina hori ez ezik, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia doktrina aztertu ziren.

Azterketa horren ondorioz jurisprudenzia anbigua eta aldakorra zela ikusi zen, eta pronuntziamenduak kontraesankorrak dira: batzuetan xehetasun azterlanen ahalmenen interpretazio zabala eta hedatua egiten zen; beste batzuetan, ordea, interpretazio murriztagoa. Horrez gain, aipatutako artikuluen gramatika interpretazioak ez zuen gauza handirik argitzen, eta ondorio argiak ateratzea ezinezkoa gertatu zen.

Kutsadura eta ingurune kalteari dagokionez, ezin zen egiaztatu hori gertatuko zenik, eta ezta gertatuta ere, zein mailatan gertatuko litzatekeen. Dena den, kontuan izan behar da lursailak industri lur gisa sailkatuta badaude, industri erabilera izango duela eta horrek berez kutsadura maila bat dakarrela: zaratak, usaina, gasak eta abar.

Aluminio injekzioak –pabilioi horretan egingo den jarduera– sor dezakeen kutsadurari aurre egiteko Udalak, indarrean dagoen ingurugiro araudia betez, neurri zuzentzaileak har daitezela eskatzeko ardura eta obligazioa du.

Azkeneko gaia ere aztertu zen, hots, 1995ean hartutako erabakia bete ez izana. Erabaki horretan Udalak 1b eta 1c udal partzeletan ez zela ezer eraikiko adierazten zen.

Erabaki horren ondoren ez zen hirigintza planeamendua aldatzeko administrazio espedienterik ireki, eta, beraz, akordio hori asmo adierazpena besterik ez zen. Asmo hori aurkako beste udal asmo adierazpen batek alda zezakeen, eta horixe da xehetasun azterlanak egin duena.

- Emaita

Herritar taldeari Arartekoak egindako azterketa zehatz-mehatz azaldu zitzaion. Etxebarriako Udalaren jardueran ez zegoela erakundeak eskuhartzeko moduko administrazio irregulartasunik adierazten zen azterketan.

Hala ere, xehetasun azterlanek zuten ahalmenari buruz lege zehaztasun eza dagoela adierazten zen. Horrek zuzenbide segurtasun-eza dakar, eta hirigintza legediaren eskumena EAEk duenez, Arartekoak Eusko Legebiltzarrerara joko zuela adierazten zen, lurraren erregimena eta hiri antolaketari buruzko lege propioa egin eta onar dezala eskatzeko. Eta lege horretan, besteak beste, xehetasun azterlanen ahalmena norainokoa den argitu beharko litzateke.

## D) Etxebizitza

⇒ *Hirigintza jardueren ondorioz etxebizitzak bota eta auzokoak beste etxe batzuetan kokatzea (2067/1998)*

- Erreklamazioa

Galdakaoko herritar batzuk Arartekoarengana jo zuten hirigintza proiektu batek kaltea eragiten baitzien. Izan ere proiektua burutzean gaur egungo etxebizitzak utzi egin beharko zituzten, etxebizitza berriak egiteko eraitsiko baitziren. Hala ere, inork ez zien segurtatzen (ez Udalak, ez beste inork) etxebizitza horien ordeztu beste batzuetan kokatuko zituztela.

Etxebizitza berrien sustatzaileak euren etxebizitzak 10 milioi pezeta eskaini zien hitzez; baina Exekuzio Unitateko lurra berriro zatitzeko proiektuan etxebizitzak 4

milioi pezeta inguruan balioesten ziren. Kalte ordain horrekin ezin zuten herrian beste etxebizitza bat erosi, askoz ere garestiagoak baitziren.

Gainera, herritar horien egoera pertsonal batzuek (langabezia, erretiroa, etab.) zailagoa egiten zuten beste etxebizitza batean kokatzea.

- Azterketa

Bilera bat egin zen Galdakaoko Udaleko hirigintza arduradunekin. Eta bileran zera adierazi zitzaien: egia da ez dela legez bermatzen hirigintzako lurra berriro zatitzeko jardueretan utzi egin behar diren etxebizitzetan legez bizi direnak beste etxebizitza batean kokatzeko eskubidea dutenik. Baina hori horrela izanik ere, irizpide sozialaz jokatzeko eta konstituzioak etxebizitza duina izateko eskubidea gauzatzeko, Galdakaoko Udalak jarrera aktiboa izan beharko luke, hain zuzen ere, kaltetutako herritarrak beste etxebizitza batzuetan kokatzea lortu eta bermatzeko. Baina beti ere, eta aldi berean, sustatzailearen interesak ere errespetatu eta kontuan hartu beharko lituzke.

Gainera, lurra berriro zatitzeko proiektuak bota beharreko etxebizitzaren balorazio hain txikia egiteak bizilagunei kezka eta larritasuna eragin ziela adierazi zitzaien. Eta, halaber, Udalaren asmoa bizilagunak beste etxebizitza batzuetan kokatzea bazen, gutxienez, horiekin bilera bat egin zezaketela, azalpenak eman eta etorkizunari begira lasai zitezen.

Gainera, bizilagunei lurra berriro zatitzeko proiektuaren erabakia jakinarazi zitzaientean, euren etxebizitzaren balorazioa erantsi zen arren, horri buruzko informaziori osagarririk ez zitzaien eman, ez ahoz eta ez idatziz. Hori dela eta, bizilagunek abokatu eta arkitekto bat kontratatu behar izan zuten aurkako aditu-balorazioa egiteko. Eta Udalak beste modu batean jokatu izan balu, balorazioaren gastuak, beharbada, ez lirateke sortuko.

- Emaidza

Sustatzailea, bizilagunak eta Udala ados jarri ziren, eta azkenean exekuzio unitate horretan eraikiko ziren etxebizitzetan kokatuko ziren. Akordioan bizilagunek diru kopuru bat jarriko zuten, arrazoizko kopurua, euren baliabide ekonomikoekin ordaindu zezaketena.

⇒ *Etxebizitza bat esleitzeko prozesuan onartutako zerrendetan baztertzea, Burgoseko etxebizitza baten herenaren jabetzaren titularkide izateagatik (175/1999 eta 176/1999)*

- Erreklamazioa

Herritar batzuek Arartekoari adierazi zioten Donostian, Urumeako sustapenean, babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozesuan baztertu egin zituela Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak; eta Arartekoaren iritzia eskatzen zuten.

Baztertzearen arrazoia etxebizitza beharra ez egiaztatzea izan zen. Izan ere, gurasoek dohaintzan emandako etxebizitza baten herenaren jabe baitziren, euren ohiko egoitza ez den beste herri batean. Euren eskaerak ez zituzten 1997ko maiatzaren 12ko Aginduaren 2. artikulua, bosgarren esakunean adierazten diren baldintzak betetzen, izan ere esakuneak horrela baitio: *“Onartutako eta kitatutako oinordetzan,*

oinordetzaren barruko etxebizitza baten jabetzan titularkidetasuna badago, beste etxebizitza bat erosteko edo titular den etxebizitzaren jabetza osoa lortzeko finantza laguntzak eskatzen dituenak finantziazio hori jaso ahal izango du. Baina, beti ere beste etxebizitzarik ez badu eta oinordetzaren barruko etxebizitzaren jabetzaren titulartasunean duen parte hartze kuota ehuneko 50ekoa edo hori baino txikiagoa bada”.

- Azterketa

Lege xedapen horren helburua etxebizitza eskualdatu bai, baina etxebizitza erabili ezin den kasuak salbuestea da. Horrela, Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak etxebizitza ohiko etxebizitza moduan erabili ezin den kasuen barruan sartu du oinordetzaz lortutako etxebizitza baten jabetzan titularkide izatea.

Kasu honetan, hiritarrek, jabetzan Burgoseko herri bateko etxebizitza baten herena dute, jabetzan. Ondasun hori euren aiton-amonek gurasoei eskualdatu zien *mortis causa*. Horiek usufruktua eurentzat gorde eta jabetza eman zien *inter vivos* dohaintzan euren hiru seme-alabei, hain zuzen ere, euren nahitaezko oinordekoei. Kode Zibileko 819. artikuluan ekintza hori oinordetzan eskualdatzeko zati legitimoaren dohaintza-aurrerapena dela azaltzen da.

Agi denez, eta errekursoaren azken kontuan hartuzkoan jasotzen zen moduan, titularkidetasunaren eskualdaketa titulua ez zen 1997ko maiatzaren 12ko Aginduan adierazten zena, hots, oinordetza. Hain zuzen ere, *inter vivos* dohaintza bat zen.

Hala ere, ulergaitza dena zera da: etxebizitza bat oinordetzaz eskuratu denean ohiko etxebizitza moduan erabiltzea ezinezkoa dela frogatu ahal izatea; eta hori bera ezin egin izatea, etxebizitza hori dohaintzaz eskuratu denean, eta, gainera, jabetzaren herena soilik izanda.

Kasu honetan garrantzitsuena ez zen jabetza lortzeko modua, baizik eta ekintza horien eskuzabaltasuna eta eskatzaileek jabetzan duten parte hartze kuota. Izan ere, kuota hori da etxebizitza ohiko etxebizitza moduan erabiltzea eragozten diona.

Kasu honetan, gainera, titularkidetasun horretan jabetza zuten, baina ez usufruktua, eta horrek ezinezko egiten zuen etxebizitza hori ohiko etxebizitza moduan erabiltzea.

Aurreko guztia ikusita, Arartekoak Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailera jo zuen, eta kasu hori –nahitaezko oinordekoei *inter vivos* dohaintza egitea– 1997ko maiatzaren 12 Aginduaren 2. artikuluan jasotako oinordetzaren antzeko kasu gisa jaso beharko litzatekeela adierazi zuen. Izan ere, ohiko etxebizitza erabiltzeko ezintasunen artean sartzen baita zalantzarik gabe, eta aginduaren artikulua horren helburua horrelako kasuak salbuestea da.

- Emaizta

Sailaren erantzunean berriro adierazten zen etxebizitza beharra azken bi urteetan etxebizitza bat ez izatea frogatuz lortzen dela; edo, bestela, agindu horren 2. artikulua ezarritakoa betez. Ezin da adierazi erreklamaziogileek azaltzen zuten kasuak legea betetzen zuenik, izan ere ez baitago artikulua horretan adierazita.

Hala ere, Arartekoak deialdiaren oinarrietako baldintzak arauaren borondateari jarraituz interpretatu behar zirela berretsi zuen; eta baldintzak ez direla hitzez hitz eta testuingurua kontuan izan gabe interpretatu behar, horrek zentzuaren eta berdintasunaren aurkako erabakiak hartzea baitakar.

## 14. BESTE GESTIO BATZUK

### 14.1. SARRERA

Arlo honetan, izenburuan adierazten den bezala, Arartekoak 1999 urtean zehar egin dituen era askotako jarduketak sailkatu nahi dira.

Bada, arlo honen ezaugarriak behinena erakundeak egiten dituen jarduketa guztiekin erkatuta bazterrean gelditzea da, horietatik kanpo alegia. Horrexegatik oso esparru egokia da gertatzen diren arloen ezaugarriengatik beste inon kokatu ezin diren kexak sailkatzeko, hau da, erakundeak bere burua antolatzeke ezarri dituen arlo nagusietatik kanpo geratzen direnak.

Ezaugarri horregatik, gehi edukien heterogeneotasunagatik, zaila izaten da arloaren barneko egituraketa eta oso konplexua izaten da kasu batzuk besteekin erkatzea edo garrantziaren arabera antolatzea.

Adibide bezala, esparru honen barruan eta besteak beste gutxiengo etniko batzuetako pertsona asko bizi diren auzo batean sortu diren elkarbizitza arazoak aztertu dira, edo biztanleen erkidego baten barruan sortzen diren gatazkak baldin eta bizi diren eraikin horretan buruko gaixoak bizi direnean edota ustez drogarekin trafikatzan duten pertsonak bizi direnean. Halaber, butanoa maila ofizialean hornitzen duen enpresa batek gure autonomia erkidegoan izan zen garraiolari autonomoen enpresako paro edo lan etenean bermatu behar zituen gutxiengo zerbitzuak.

Azkenik, argitu behar da espediente hauen tramitazioa, erakunde honetan, tartekaritza hutsetik abiatuta egin dela, horrelako kexekin sortzen diren arazoak benetan izari humanoa duten eta autonomia erkidegoan eragina izaten duten gaiei buruzkoak izaten direlako. Arestian adierazi den horrekin guztiarekin bat, adierazi behar da horrelako kasuetan ahalegina edo xedea pertsona ukitu edo kaltetuei kexan azaltzen duten arazo zehatzari dagokionez eskura dituzten jarduteko aukera guztien berri ematea dela.

### 14.2. AUKERATUTAKO KEXAK

⇒ *Eskumenak dituzten herri erakundeek aurrez hautaturiko herritarrei igortzen dizkieten inkestei erantzuna eman beharraz (655/1999)*

- Erreklamazioa

Hiritar batek Arartekoarengana jo zuen eta esan zion EUSTAT/Estatistikako Euskal Institutuak hautatu eta agindeia egin ziola inkesta bati buruzko galdera-sorta erantzuteko, kasu horretan bizitza baldintzei buruzkoa, eta esan zuen jakinarazi zitzaiola eskabidea bete ezean zilegi zela zehapena ezartzea.

- Azterketa

Gaiari buruz guk izan ditzakegun ondorioetarako nahitaezkoa izan zen Euskadiko Autonomia Erkidegoaren esparruan estatistikak arautzen dituzten arauen analisia egitea.

Horrela, esaterako, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Estatutuaren 10.37. artikuluan ezarri da bere organoen berariazko eskumena dela “*Euskadiko Estatistika*,

*baldin eta bere helburu eta eskumenerako bada*". Bada, xedapen horretan oinarrituta, Eusko Legebiltzarrak Euskadiko Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 28ko 4/1986 Legea onetsi zuen. Legezko arau horren 6. artikuluan Estatistikako Euskal Plana arautu du eta ezarri da "*Euskadiko Autonomia Erkidegoko estatistikako jarduerak eraentzeko tresna dela aldi jakin baterako*". Halaber, adierazi zen plan hori lege lerruna izango zuen arau baten bidez onetsiko zela.

Agindu horretan ezarri zenean finkatuta, Eusko Legebiltzarrak, 1996ko azaroaren 8ko 7/1996 Legearen bidez Estatistikako Euskal Plana onetsi zuen; horren jarduketean artean, besteak beste, eta bere I. eranskineko 0901. kode zenbakiarekin, ondokoa ezarri zen:

IZENA: Bizitza kalitateari buruzko inkesta

HELBURUAK: Euskadiko Autonomia Erkidegoko biztanlegoaren bizitzaren baldintza objektiboak ezagutzea eta biztanlego horren atal jakin batzuetan bizitza kalitatea gehien kaltetzen duten elementuak zehaztea.

ERANTZUKIZUNA DUEN ERAKUNDEA: EUSTAT (Estatistikako Euskal Institutua)

ESKU HARTZEN DUTEN BESTE ERAKUNDE BATZUK:

ERAGIKETAREN EGUNGO EGOERA: Muntaturik eta jardunbidean.

EMAITZEN HEDAKUNTZAREN ALDIKOTASUNA: Bosturtekoa

ERAGIKETA MOTA: Laginketa bidezko inkesta

Arestian adierazi diren araudien erreferentzietatik esan dezakegu EUSTAT/ Estatistikako Euskal Institutuaren jarduketak legezko hedakuntza eta maila egokia zuela, eta hori lerrun nahikoa duen arauaren bidez zuela.

4/1986 Legean ezarri da estatistika bakoitzaren araupeketan zehaztu diren pertsona edo erakundeek nahitaez eman behar dutela eskatzen zaien informazioa eta baldin eta informazio hori une bakoitzean ohoreari eta norberaren edo familiaren intimitateari buruzko eskubidean indarrean dagoen arautegiari lotuta dauden datu norbanakotuak badira, horiek ematea borondatezko kontua izango dela eta inguruabar hori berariaz, ondo ikusten den tokian eta letra mota argian, gutxienez eskaeraren neurrikoa, islatu beharko dela egingo diren informazio eskaeretan. Halaber, Estatistikako Funtzio Publikoa arautu duen maiatzaren 9ko 12/1989 Legearen 7. eta 10. artikuluek ezarri dute Estatuan bizi diren pertsona fisiko eta juridikoentzat nahitaezkoa dela derrigorrezko izaera duten estatistikako datuak hornitzea.

Ustez inkestan egin diren galdera horiei erantzutean ohorearen eta norbanakoaren eta familiaren intimitatea erasotzen denean, Ohorearen, Norberaren eta Familiaren Intimitatearen eta Norberaren Irudiaren Eskubidearen Herri Babesa arautu duen maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa aipatu behar dugu, horren 2.2. artikuluan hau ezarri delako "*Ez da babestuta dagoen esparruaren aurkako legez aurkako erasorik antzemango berariaz Legeak baimenduta dagoenean edo eskubidearen titularrak berariazko bere baimena eman duenean*".

Aurrean adierazi den hori gorabehera kexaren sustatzailearengana jo genuen eta esan genion adierazi den arau horretan ezarri diren xedapenen arabera, estatistikako planetan dauden jarduketean emaitzako datuak estatistikako sekretuari lotuta daudela eta ezinezkoa dela horiek hedaraztea edo inori ematea, eta halaber debeku dela datu horiek ezagututa jardutea. Halaber, jakinarazi genion estatistikako sekretuaren

betebeharrari lotuta dauden datuak lege horretan ezarrita dauden izaera horretako estatistikak edo beste jarduketa batzuk egiteko erabili behar dituztenek baino ezin dituztela ezagutu eta erabili, eta berariaz horrexetarako baino ez. Bukatzeko, estatistikako sekretuaren aurkako edozein urratze arau-haustetzat joko dela eta zehapena ezar daitekeela.

Gaia aldatuz, interesatuari jakinarazi genion eskatzen den informazioa emateko betebeharra ez betetzea ere, baldin eta hori derrigorrezkoa bada, zehapentzat jotzen dela eta adierazi den 4/1986 Legearen ezarri diren aurreikuspenen arabera zigor daitekeela.

- Emaiza

Bada, iruzkin horiek guztiak kontuan hartuta, gure ustez esan behar da derrigorrezko estatistikako galdera-sortei erantzuteko beharkizuna antolamendu juridikoan oinarrituta dagoela eta, beraz, EUSTAT/Estatistikako Euskal Institutuaren jarduketak, gure aburuz, ez dituela antolamendu juridiko horrek ezarri dituen aurreikuspenak hautsi.

## B) TALDE BATZUEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA

### 1. EMAKUMEEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA

Azken urteetan erakunde honen funtzionamenduan “generoaren ikuspegia” deiturikoa barneratzen saiatu gara; horrek, “emakumezkoen dimentsioa” arreta berezia eskaintzea eskatzen du, Arartekoari hiritarrek aurkezten dizkioten gai eta arazoekin duten lotura dela eta.

#### 1. Planteamendua

Gizon eta emakumeen arteko berdintasun erreala oraindik ez dela lortu oinarritik abiatzen gara: bizi baldintzak, baita familia beraren baitan ere, ezberdinak dira; berdin gertatzen da lanpostua eta babes judiziala eskuratzeko baldintzekin, gizarte, politika eta kultur gaietan parte hartzeko baldintzekin... ere. Arazoa da, sarritan errealitate hau berdintasun legalaren ispiluak estali edo desitxuratu egiten duela. Beraz, gure egitekoa, praktikan benetako berdintasuna zailtzen duten egoerak, inguruabarrak, abiapuntu baldintzak... jarduera eremu bakoitzean argitzea eta bistaratzea da.

Pertsona talde jakin baten egoera zehatza kontutan hartuta, arazo multzo jakin bati modu orokor batez heltzea proposatzen duen ikuspegia jarraitu du Arartekoak hainbat giza taldeei dagokienez; besteak beste: atzerritarrak, adintxikikoak, adinekoak, gutxitasunak dituztenak... Dena dela, erreklamazio egilearen arabera alor ezberdinak hartzen dituen zeharkako begirada horrek ñabardura bereziak izango ditu emakumeei buruzkoak diren gaietan. Izan ere, diskriminatutako talde hori, emakumeena alegia, zenbakiz gutxiengoa ez izateaz gain, bestelako arrazoiengatik diskriminazioa jasaten duten taldeetan ere, erdiak edo dira. Horrela, ahultasun bereziren bat duten jende talde horietan, azpitalde bat egon ohi da; eta hor, emakume izatea bazterkeriarekin oso lotua egoten da, bazterketaren eraginak biderkatuz; esate baterako: emakume etorkinak, adinekoak edo gutxitasunak dituzten emakumeak.

Generoa kontutan hartzen duen ikuspegi horrek, aipatutako talde bakoitzean, emakume izatea nabarmentzeko eta bereizteko balio ziezagukeen. Planteamenduarekin egokien uztartzen den aukera hori izango zela jakin arren, emakumeen problematikari atal bakarra eskaintzea erabaki dugu; horrela, txosten honi buruzko eskema errazteko. Dena dela, ez dugu ahaztu behar, elkarguneak topatu behar ditugula gizarteko arlo guztietan sexua kontutan hartuta egiten den rolen banaketa gainditzeko. Horren ondorioa ez da bereizketak eragindako faktoreen batura soila, baizik eta ondorioak hori baino urrunago doaz.

Arartekoak berezko duen funtziotik eratorritako beste ezaugarri bat ere nabarmentzea komeni da. Hiritarren eskubideak defendatzea dagokio Arartekoari, alegia, herri administrazioaren egitekoak berrikustea, bertako organoek beren egitekoak burutzerakoan izan ditzaketen irregulartasunak, akatsak edo gehiegikeriak ekiditeko. Arartekoaren egitekoa da ere, giza eskubideen kulturaren sakontzea; gizon-emakumeen arteko berdintasuna bultzatzeari dagokionez, bere egiteko horrek bat egiten du



Emakumearen Euskal Erakundearen –Emakunde– egitekoarekin. Biek egiteko bera izatea, emakumeen eskubideen babes alegia, ez da kalterako; alderantziz, izan ere, bi erakundeen arteko harremanetan komunikazioa arintzen du eta elkarlanerako gogoia pizten. Bestalde, egia da ere, Emakunde erakundea egon ezean, Arartekoak eremu honetan ofizioz hasten dituen jarduerak garrantzi handiagoa izango zuketela.

Dena dela, gogoan izan behar dugu, generoa dela bide sortzen diren diskriminazio gogorrenak eremu pribatuak ematen direla, familia harremanetan eta lan harremanetan, alegia. Horrek ez du esan nahi, administrazioan, eta bereziki, enplegu publikoan erabateko berdintasuna lortu denik; baina, nabaria da administrazio eremuan jarduera diskriminatzaileak sotilagoak direla eta ez daudela nabarmenki legearen aurka. Ondorioz, sarritan, Arartekoaren ezagutzara iristen diren berdintasun printzipioaren urrapen gogorrenak Arartekoaren eskumen eremutik at daude; eta Arartekoak egin dezakeen gauza bakarra, beren eskubideak babesteko zein bide eta mekanismo dituzten informatzea da.

Ugariak dira eremu pribatuan jasandako diskriminazioak direla eta gure eskuetara iritsi diren aztergaiak. Horien artean, kualitatiboki duten garrantziarengatik, emakumeek jasandako indarkeria nabarmendu nahiko genuke. Justizia alorrari (II. atala) eskainitako sarreran azaltzen den gisan, ohikoa da erasoak jasan dituzten emakumeek benetako babes polizial eta judizialik ez jaso izana. Egin diren lege aldaketak baloratzeko oraindik goizegi bada ere, helburua emakumeek autonomia handiagoa izan dezatela da, behin eta berriz gogorarazi behar da hori; ondorioz, emakumearen menpekotasuna, ezkontidearekiko, familiarekiko nahiz estatuarekiko, bultzatzen duten neurriak baztergarriak dira.

Aurretiazko puntualizazio hauekin amaitzeko, erakunde honen eguneroko praktikan generoaren ikuspegiak jarraian aipatuko diren kasuak detektatzean datza:

- Azaldutako arazoa, emakume izateak eragiten edo eta areagotzen duen edo ez.
- Sakoneko arazoak emakumeari eragiten dion ohikotasunez.
- Administrazioaren hasierako jarduerak, nahiz gure jardueren emaitzek emakumezkoentzat ondorio ezberdinak dituzten edo ez.

Azterketarako erabiliko dugun eskema horretan, gauzak hobeto agertzeko, bereztuko ditugu: emakumeek aurkeztutako arazoak(2); generoa dela bide emandako diskriminazioa salatuz aurkezten dituztenak (3); eta azkenik, zehazki emakumeei eragiten dieten beste hainbat arazo (4).


## 2. Emakumeak erreklamazio egile gisa

Txosten honetan estatistika soziologikoari eskainitako atalean (III. kapitulu), kexak, alorrak eta erreklamazio egilearen generoa kontutan hartuta bereiztea iradokitzen da; azken urteetan ohiko izatera iritsi da, gainera. Noski, Arartekoarengana joaten diren emakumeen jokamoldea ezin da aztertu zenbakien analisi soilarekin. Sarritan, erakunde horretara kexa bidaltzen duena ez da izaten zuzenean arazoa jasaten duena; beraz, interesgarria litzateke honako alderdiak aztertzea ere: emakumeek zein kasutan aurkezten dituzten beren arazoak, noiz aritzen diren zaintzen dituzten pertsonen defendatzaile gisa, eta noiz eskuordetzen duten beren ordezkaritza gizonetzkoengan. Une honetan, ezin gara horraino iritsi, baina, gaiaren hurbilpen bat egitea posible litzateke.

Harrigarria da emakumeek aurkeztutako erreklamazioen kopurua nola murriztu den ikustea, oraintsu arte gero eta ugariagoak baitziren. Alegia, 1996. urtean %36,74 zena eta 1997. ean %39,38 eta 1998. ean %45,19ra iritsi zena, aurren, %38,97ra jaitsi izana; kontutan hartuz, gizonezkoek aurkeztutakoaren kopurua %46 eta taldeek aurkeztutakoena %14,6an kokatzen direla.

Arreta zuzena eskaintzen den gure bulegoetara hurbildu diren emakumeen portzentajea %39an mantentzen da.

Emakumeek aurkeztutako erreklamazio kopurua 500era iristen da, eta era honetan bana daiteke:



Ingurugiro eremuko alorrean jasotzen dira kexa gehien, gizonezkoek alor horretan aurkeztutakoak baino gehiago. Seguraski, emakumeengan beren familiaren ongizateak eragiten duen ardura izan daiteke kopuru handi horren arrazoia; sarritan, kutsadura akustikoei, jarduera gogaikarriei... buruzkoak izan ohi dira. Emakumeek Gizarte Ongizate eta Osasun alorretan aurkeztutako kexa gehienak ere, besteen zaintza beren gain hartzea izango lukete arrazoi; garbi dago hipotesi soilak direla, eta ondorioz, kontrastatu beharra dagoela.

Herriaren Defendatzaileari –edo eta elkarte autonomoetan antzeko egitekoak dituztenei– bidalitako erreklamazioek eta baztertuak izan direnak, gai ugari besarkatzen dute; lehenengo multzokoen artean, nabarmenenak, espetxeratuen amek edo eta familiakoek aurkeztutakoak dira; eta baztertuakoen artean, partikularren arteko gatazkei buruzkoak edo eta justizia administrazioaren aurrean jada aurkeztuak izan direnak dira, gehienetan, famili hausturen ondorioak.

Kopurua kontutan hartuta, Ogasun saila ere nabarmentzen da, nahiz eta alor honetan gizonezkoek aurkeztutako kexak izan ugariak, inolako zalantzarik gabe; gauza bera gertatzen da Herrizaingo saileko alorrean ere. Funtzio publikoaren alorrean alderantzizkoa gertatzen da; neurri batean horren arrazoi izan daiteke, enplegu publikoa, sarrerari dagokionez, emakumeen taldeak diskriminazioa jasaten ez duen eremuetako bat izatea, eta seguraski, eremu bakarra.

### 3. Sexuan oinarritutako diskriminazioak salatuz hasitako jarduerak

Aurrez aipatu den gisan, gutxi dira herri administrazioaren funtzionamenduan sexua dela bide emandako tratamendu ezberdina salatuz aurkeztu diren kekek, dena dela, hainbat ñabardura egitea komenigarri litzateke.

Tamalez, aipatu beharrean aurkitzen gara Irunen eta Hondarribin sortutako gatazka, hau da, herri horietako jaietako ospakizun nagusia den Alardean biztanleen kopuru handi batek berdintasunean parte hartu ezina. Bertako udalek, pertsonen arteko benetako berdintasuna bultzatu beharrean, onartu –Irunen– eta bultzatu eta txalotu –Hondarribin– egiten dituzte ekintza publiko horiek, nahiz eta nabarmenki diskriminatzaileak izan. Erakunde honen egitekoa, poliziak inoiz Hondarribiko Alardean izan duen jarduera aztertzea izan da. Erakunde honen iritzi, Ertzaintzak ez zuen emakumeek Alardean parte hartzeko duten eskubidea babestu, nahiz eta bere egitekoa hori izango zatekeen, baizik eta, ordena publikoko arazo soila bailitzan aritu zen; eta zeuden jarreraren legitimitatea baloratu gabe, gutxiengoa zen taldea, emakumeen aldekoa zena, alegia, ordena haustearen erantzule egin zuen. Jokaera hori dela eta, Arartekoak Herrizaingo Sailari gomendio bat egin dio, gomendio horren edukia txostenean, dagokion atalean ( V. kapitulua), jasotzen da.

Bazterketa eragiten duten bi faktoreren (generoa eta kultura gutxitua) arteko elkargunea emakume musulman batek aurkeztutako kekan sumatzen da; emakume honi, agiri ofizialetan jartzeko argazkietan burua agerian uztea galdatzen zitzaion, nahiz eta beloak ilea baino ez zion estaltzen. Erreklamazioa Herriaren Defendatzaileari bidali diogu, eta oraindik, tramitazioan dago.

Emakumeek eta etorkinek dituzten ezaugarri berak aurki zitezkeen 1998. urtean burututako hainbat jardueren jasotzaileengan; jarduera horiek, egoera administratibo irregularrean dauden eta etxean indarkeria jasaten duten emakume atzerritarrei eskaintzen zaien gizarte arretarekin zuten lotura. Elkarte batek egindako salaketari esker jakin zen emakume horiek ez zutela toki administrazioak kudeatzen dituen harrera etxeetan sarrerarik. Salaketa horren ondorioz, Bilbo eta Donostiako udalei eta Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiei gomendioak egin zitzaizkien; eta Arartekoaren 1998ko txostenean ere, gomendio orokor bat gehitu zen. Gomendio zehatz horien edukia txosteneko V. kapituluan jaso dago. Aipatzekoa da, gomendio horiei erantzun baikorra eman dietela erakundeek.

Espetxeen eremuan –berriro ere bazterketa bikoitza–, Langraizko espetxean preso dauden emakumeek salatu dutenez, lan ordainduaren gabezia presoen artean orokorra bada ere, kasik ezinezkoa gertatzen da produkzio lanetan sarbidea izatea. Gai horretan eta bestelakoetan emakume presoen bizi baldintzak okerragoak dira egoera berean dauden gizonezkoen baldintzekin alderatuz gero. Gai hau patxada gehiagoz aztertzen da Justizia alorrari eskaintako sarreran (II. kapitulua).

Hauteskunde mahaian parte hartzeko izendatua izan zen emakumezko hiritar batek diskriminazio arazo gisa kexa bat aurkeztu zuen. Diskriminatua sentitu zela zioen, izan ere, besteen kontura lan egiten duten eta hauteskunde mahaian parte hartzen dutenentzat ezarritako ordainsaria ez zitzaiolako berari eman. Gertaera hori, emakumeei gizartean talde gisa eskaintzen zaion beheragoko mailaren isla garbia da, eta beste ezaugarrien artean, enplegua eta honekin lotutako gizarte ondasunak lortzeko duten aukera murriztua

da aipagarriena. Jakina da, batik bat emakumeek egiten dituztela etxeko lanak, lan horregatik inolako soldatarik jaso gabe. Hortik dator emakumeek askatasun ekonomikorik ez edukitzea, eta ondorioz, diskriminatutako eta beheragoko baldintzak dituen taldetzat hartzea.

Dena dela, ezberdintasun horiek gure gizarte sistemaren funtzionamenduaren ondorio zuzenak dira, ezin zaiolarik egoera horren erantzukizuna pertsona edo entitate jakin bati egotzi. Beraz, ikuspegi juridikotik ez dira lege hauste. Goian aipatutako kasu zehatz horretan, *besteren kontura lan egiten dutenek eta funtzionarioek* hauteskunde mahaian parte hartzen dutenean, hauteskunde osteko egunean beren lanaldia murrizteko eskubidea dutela dioten arau bat bada. Hau da, legeak, baldintza jakin batzuk betetzen dituztenentzat, eta horientzat soilik, onura bat aurreikusten du, baina, horrek ez du esan nahi arau horren aplikazioak diskriminazio arbitrarioa dakarrenik. Arazoa da, aldeko tratu horrek aurrez dauden ezberdintasun egoeretan duela eragina, eta egoera horiek nabarmenago bilakatzen dituela; baina, sortu ez ditu egiten.

Amaitzeko, bitxikeria gisa, jaso dugun kexa baten aipamena egin nahiko genuke. Horri esker jakin dugu enpresa pribatu batean bertako emakumezko langile batek ustez jasandako diskriminaziozko tratuaren berri. Kexa enpresako nagusiak berak aurkeztu zuen; Arartekoarengana jo zuen, bere ustez, Emakunde bere funtzioen muga gainditu zuelako; izan ere, balizko urrapen laboral baten zantzuak zituela eta Lan Ikuskaritzara bidali zuen langile horren salaketa. Era berean, Emakumearen Erakundeak nagusiari jakinarazi zion salaketa bat zegoela eta Lan Ikuskaritzaren aurrean aurkeztu zuela. Erreklamazio egilearen (enpresaria) ustez, Emakunde berari egitea ez zegokion balorazioa egin, eta bera babes gabe utzi zuen, ez baitzuen langileak aurkeztutako salaketaren kopiarik jaso. Arartekoak, halabeharrezko azterketa egin ostean, Emakunde erakundearen modu egokian aritu zela ondorioztatu zuen; eskumena zuen erakundeari igorri baitzion salaketa, honek arazoa azter zezan. Gainera, enpresariari babesik eza ez eragiteaz gain, berez galdatzen den baino begirune handiagoz jokatu zuela ondorioztatu zuen salaketa Lan Ikuskaritzara igorri zuela enpresariari jakinaraztearekin.

#### **4. Emakumeari modu berezian eragiten dioten beste hainbat arazo**

“Diskriminaziozko tratua” eta “emakumeentzat ondorio ezberdinak dakartzan jarduerak” kontzeptuen arteko muga bertan behera gelditzen bada ere, tratu ezberdintasunaren isla diren hainbat kasu aztertuko dugu atal honetan. Kasuak tratu ezberdintasunaren adibide gisa aurkeztu izanak ez du esan nahi ezkutuko edo zeharkako diskriminazioaren adibide ez direnik, hainbat kasu, behintzat. Esate baterako, esanguratsua da, haur jaioberriak eta seme-alabak zaintzeko, edo eta adopzio kasuetan eskatzen diren baimen eta eszedentzien inguruan sortzen diren kexa gehienak emakumezkoek aurkeztuak izatea. Gertaera horren benetako arrazoa aztertuko bagenu, gizarte harremanei, eta bereziki, familiaren baitan egin ohi den rol banaketari atxikirik dagoen ezberdintasun egoerarekin egingo genuke topo. Baina, ez da hori emakume hauek salatzen duten alderdia, baizik eta, adintxikikoen zaintza beraiei dagokiela onartuaz, beren lana ezagutua izatea eta eginkizun hori jarduera profesionalarekin bateragarria izan dadin erraztasun handiagoak aldarrikatzen dituzte.

Amatasunagatiko/aitatasunagatiko –nahiz biologikoak nahiz adopziozkoak– baimenen, beste norbait zaindu ahal izateko eskatutako eszedentzien... inguruan aurkeztu diren kexein lotuta, txostenean (VI. kapitulu) gehitu den gomendio orokorra aipatzea komeniko litzateke. Gomendio hori, erantzukizun pertsonal, familiar eta profesionala uztartzearen alde zerbait egitearen aldekoa da. Arartekoak herri administrazioei proposatzen die, aipatutako uztartze hori errazteko, enplegurako baldintzak malgutuko dituen prozedura zuzendu dezala, edo gutxienez, bere laguntza eskaini diezaiola. Helburu hori, ez da helburu bere horretan, baizik eta, enpleguaren sortzea bultzatzeaz gain, emakumeentzako onuragarri izango den ekintzako estrategia baten baitan kokatuko litzateke.

Kexa multzo handi bat (12, eta horietako asko taldean aurkeztuak), tratamendu hormonal jakin bat jasotzen duten gaixo talde batzuei aldika mamografiak egiteko eskariaren inguruan aurkeztu zen, eskari hori hainbat ospitalek ez zuten onartu. Ezezkoak arrazoituak zeuden edo ez kontutan hartu gabe, onuragarria da, emakumeak berentzat egokiena den osasun arreta defendatzeko antolatzea. Historian zehar, sarritan, bereziki emakumeek jasaten dituzten arazoen ikerketa eta arreta atzeratu egin izan dela froga daiteke.

Osasun zerbitzuak eta emakumeen interesak loturik agertzen diren beste hainbat kexa gai hauen inguruan sortu dira: haurra izan ostean ama etxera bidali eta haurra oraindik ospitalean gelditzearen ondorioz sortuak; haurdunaldia etetearekin zerikusia dutenak, esate baterako, emakume seropositiboen kasuan etete hori aurrera eramaterakoan hauei egin izan zaien esterilizatzeko gomendioa –beren esanetan, hertsapena erabiliaz–. Arartekoaren irizpideen arabera, galdapen horrek emakume horiek diskriminatu egiten ditu. Osakidetza bat zetorren gure iritziarekin, alegia, emakume seropositiboek legeak aurreikusitako kasuetan haurdunaldia beren borondatez etetea eskubidea dutela; beraz, praktika enuntziatu hori aurrean dela aztertzea komeni da (Osasun alorra, II. kapitulu).

Sendagilearen kontsultan intimitatea izateko eskubidearen eta segurtasunaren artean gatazkak sortu izan dira, hala nola, preso dauden emakumeei ospitaleetan eskaintzen zaien laguntzaren inguruan (Justizia alorrari eskaintzen zaion sarreran, II. kapitulu). Emakume presoan talde berak kartzeletan beren haurrekin egoteko egokitutako gelarik ez izateak eragindako arazoak ere jasaten ditu. Espetxeetako araudiak amentzat unitate bereziak sortzea aurreikusten badu ere, kartzela euskaldunetan ez da oraindik horrelakorik eraiki (Justizia alorrari eskaintako sarrera, II. kapitulu).

Bestelako gaiei dagokienez, garraio publikoaren emakumezko erabiltzaileei eragiten dieten bi kexa aipatu behar ditugu. Emakume batek bere desadostasuna agertu zuen haurrak trenean bidaia ordaindu beharrik izan ez eta ume kotxea eramateagatik ordaintzeko dagoen obligazioaren aurrean. Auzi hori konpondu zen, trenean edozein fardel eramatea doan izatea erabaki baitzuten. Herrian barrena ibiltzen diren hainbat autobus lineek autobusera igo ahal izateko haurraren ume kotxea tolestea derrigortzen zuten; horrek ere liskarrak eragin zituen; une honetan badirudi konponbidean dela arazo hori. Pentsa daiteke gertaera horiek ez zaizkiela emakumei soilik gertatzen, baina zalantza oro uxa daiteke honakoak kontutan hartuz gero: batetik, haurren garraioaz edonor ardura badaiteke ere, oraindik, batik bat emakumeen esku egon ohi dela eginkizun hori. Bestetik, egin diren azterketa soziologikoek garbi utzi digute emakumezkoak direla garraio publikoa erabiltzen dutenak, gehiengo nagusi batez gainera. Baieztapen hori

oso kontutan hartu dute “Emakumea eta Hiria” izeneko taldeetan. Talde horiek herri ezberdinetan egiten dute lan –besteren artean, Donostian –, eta beren asmoen artean, emakumeen ikuspegia diseinu urbanistikoan eta hiri zerbitzuetan sartzeari aurki daitezke.

Amaitzeko, sexua hautatzeko aukera dela bide eman daitezkeen diskriminazioei ere aipamen bat egin nahi genieke. Hiritar homosexual batek kexa aurkeztu zuen ez baitzioten utzi bere bikotearen asistentzia sanitarioko txartelean sartzen. Auziari konponbidea emateko orduan, Herriaren Defendatzailea ez zen arazoaren sakonean sartu, izan ere, erreklamazio egileak txartel propioa edukitzeko baldintzak betetzen zituen. Dena dela, gisa honetako kexa gehiago egon daitezkeenez, hauek generoaren ikuspegitik aztertzea komeniko litzateke.

## 2. ADIN TXIKIKOEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA

Adin txikikoen eskubideen alde urtean zehar egindako jarduera nagusiak bildu nahi ditugu atal honetan, labur-labur, kontuan izanik biztanleriaren sektore hau bereziki ahula dela.

Arartekoak lehentasuna ematen dio biztanle talde horren eskubideak defendatzeari, eta bere jarduera honako lan ildo hauetan labur daiteke:

- kexei irtenbidea bilatzea eta gomendioak egitea; horixe da, hain zuzen, erakunde honen ohiko jarduera;
- adin txikiko zenbait talderen (baztertuenen eta behar handienak dituztenen) berariazko problematika aztertzea eta horiei jarraipena egitea;
- adin txikikoekin diharduten gizarte eragileekin, elkarteekin eta erakundeekin elkarlanean aritzea eta gizarte sektore horren eskubideen aldeko kultura hedatzea.

Hori horrela, laburpen honetan hiru puntuko eskema horri jarraituko diogu eta, puntu bakoitzean, burututako jardueri buruzko alderdiak deskribatuko eta balioztatuko ditugu.

### 1. Berariazko kexak eta gomendioak

Kopuruaren ikuspuntutik, erakunde honek ez ditu berariaz adin txikikoei buruzko kexa asko jasotzen; eta are gutxiago aurkezten dituzte, jakina, eurek beraiek. Ziur aski, hainbat arrazoi izango ditugu horren atzean: adin txikikoek euren eskubideei buruz kontzientziatuta ez egotea, erakunde honek defentsa bitarteko gisa lan egiten duela ez jakitea, erakundeetara jotzeko ohitura falta, familiarekiko edo beste pertsona eta erakunde batzuekiko menpekotasuna... Arrazoi horietatik aurkitzen ditugu, halaber, arazoak dituzten edo ahulak diren beste gizarte sektore batzuetan ere.

Administrazioko zerbitzuren batekin harremanik izatekotan, adin txikikoek hezkuntza zerbitzuarekin dute, ezbairik gabe, harremanik zuzen eta ohikoena. Horrela, ikuspegi zabal batetik, ia hezkuntza esparru osoa har daiteke kontuan, goi mailako unibertsitate hezkuntza izan ezik, gure Erkidegoko adin txikikoen tratamenduari buruzko atal honetan (ikus Hezkuntza alorra, txosten honetako II. kapituluan).

Hezkuntza alorrarekiko erreferentzia orokor hori alde batera utzita, urte honetan jasotako kexa eta jardueretatik honako alderdiei buruzkoak azpimarratuko genituzke:

- ikastetxeetan ezarritako zigor araubideei buruzkoak;
- ikasleak onartzeko edo kanporatzeko ikastetxeek kontuan izandako irizpideei buruzkoak;
- ikastetxearen esparruan jasandako tratu txarrei eta sexu abusuei buruzkoak;
- babesik gabeko egoeretan dauden adin txikikoak babesteko arazoei buruzkoak.

Eta berariazko gomendioei dagokienez, interesgarri deritzogu haur hezkuntzaren lehen garaia (jaiotzen direnetik hiru urte bitarteko garaia) aztertu eta balioztatzeko asmoz sortu berri den erakundearteko batzordea azpimarratzea. Izan ere, Arartekoak behin eta berriz eskatu izan du hezkuntza aldi horretarako plangintza orokorraren

beharra, eta batzorde horren lanek aipatu plangintza burutzeko aurrerapausoak ematea ahalbidetuko dutelakoan gaude. Gainera, hezkuntza arloez soilik aurreratzeaz gain, bestelako ondorio positiboak ere lortuko dira haurtzaroaren zaintzarako zerbitzu soziokomunitarioak sustatzean, hala nola, lan egiten dutenen ardurak –norberarenak, familiakoak eta lanari dagozkionak– bateratzea, horixe baita gizarte eskaeretako bat.

## 2. Sektorerik ahulenen problematika

Adin txikikoen kolektiboaren baitan (hirurehun eta berrogeita hamar mila lagun, Euskal Autonomia Erkidegoan), badira zenbait talde edo sektore batzuk arrisku egoera berezian daudenak. Arartekoak arreta berezia eskaini die arazo egoeran edo behar bereziak dituzten gazte talde horiei. Eta horretarako bitarteko gisa, bere lan monografikoak edo ez ohiko txostenak erabili ditu, funtsean. Horrela, urte honetan zehar, honako bost sektore hauen problematika aztertu da edo jarraipena egin zaie:

- babesik gabeko haurtzaroa (arrisku eta babesik gabeko egoerak);
  - adin txikiko arau hausleak (neurri judizialak betetzeko menpe daudenak);
  - sasoikako langileen seme-alabak (eskolatu gabeak direnez, maiz);
  - gaixotasun mentalak dituzten adin txikikoak;
  - hezkuntza behar bereziak dituzten adin txikikoak.
- Babesik gabeko haurtzaroari dagokionez, Arartekoaren ez ohiko txostena 1997an argitaratu zen eta 42 berariazko gomendio egin ziren bertan. Urte honetan zehar, gomendio horiek betetzen ote diren ikusteko jarraipenekin jarraitu da eta baita babes etxeetara aldizkako bisitaldiak egiten ere. Bestalde, gomendioen ildotik, EAEko lurralde batzuetan sektore horretan esku hartzeko plan estrategikoak edo orokorrak onartu izana azpimarratuko genuke (ikus txosten honetako 1.1.5. atala).
  - Adin txikiko arau hausleei dagokionez, ez ohiko txostena 1998an argitaratu zen eta erakundeei 46 gomendio zuzendu zitzairen bertan. Urte honetan zehar egindako jarraipenaren bidez, gure Erkidegoko hiru barnetegi zentroen egungo egoera *in situ* ezagutu ahal izan da eta, bestalde, gomendio asko eta asko bete direla egiaztatu ahal izan da. Datu azpimarragarri gisa, eta etorkizun hurbilean garrantzi handia izango duena, honakoa aipatuko dugu: onartu berri den adin txikikoen erantzukizun penala arautzen duen lege organikoa (ikus txosten honetako 1.1.6. atala).
  - Sasoikako langileen seme-alaben problematika: jakina da adin txikiko horiek euren familiekin joaten direla mahats eta patata bilketa lanetara Arabara. Arartekoak urtero mahaigaineratutako auzia dugu hori, eta aurtengoan ere arreta piztu nahi dugu gai horren inguruan. Izan ere, nolabaiteko eskolatze maila lortu da Arabako Errioxako ikastetxeetan eta, aldi berean, beste behar batzuk ere azpimarratu dira, hala nola, higienarekin, osasunarekin eta aisialdiaren erabilerarekin lotutako beharrak. Baina ez gara, oraindik ere, kolektibo guztira iritsi eta, bestalde, eskaintakoaren kalitateari dagokionez hobetu beharreko asko dugu (ikus txosten honetako 1.1.2. atala).
  - Gaixotasun mentalak dituztenei zuzendutako ospitalez kanpoko atentzioari buruzko ikerketa bukatu da urte honetan zehar. Lan horren baitan, besteak beste, bi arazori buruzko informazioa bildu nahi izan dugu, bi azpikapitulu eskainiz: bata, haurrei eta



gazteei zuzendutako atentzio psikiatrikoaren egoera zehatzari buruzkoa eta, bestea, elikadura arazoak dituzten gazteen problematikari buruzkoa (anorexia eta bulimia arazoak dituztenena, hain zuzen). Txostena eta gomendioak laster aurkeztuko dira Legebiltzarrean (ikus txosten honetako 1.4. atala).

- Arartekoaren hurrengo azterketa monografikoan ere adin txikikoen kolektiboetako baten problematikari ekin nahi zaio: hezkuntza behar bereziak dituzten adin txikiko eskolatuak, hain zuzen (bai urritasun fisikoak, psikikoak edo sensorialak izateagatik, bai arazo bereziko minorietakoren batekoak izateagatik...). Azterlan horrekin hauxe egiaztatu nahi da: erakundeak, eta zehazki hezkuntza sistema, zenbateraino ari zaien behar bezalako erantzuna ematen adin txikiko horiei (ikus txosten honetako 1.5. atala).

### 3. **Gizarte eragileekin elkarlana eta gizarte sentsibilizazioa**

1. atalean esan bezala, adin txikikoei buruzko oso kexa gutxi jasotzen ditu Arartekoak. Eta atal horretan bertan azaldu denez, horren arrazoiak honakoak izan daitezkeelakoan gaude: Arartekoa bera edo bere zereginak ez ezagutzea, batetik, edo adin txikikoak euren eskubideei buruz edo eskubide horiek defendatzeko aukerei buruz kontzientziatuta ez egotea, bestetik. Hori horrela, urte honetan zehar Arartekoak burututako jarduera batzuen helburua hutsune horiekin etetea edo, zuzenean edo zeharka, egoera hori aldatzea izan da, hain zuzen ere. Eta jarduera horietako askok, halaber, adin txikikoen eskubideak ezagutaraztea eta gizarte sentsibilizatzea zuen helburu.

Aipatu jardueretatik hauek dira azpimarragarrienak:

- Arrisku egoeran dauden edo behar bereziak dituzten adin txikikoekin diharduten elkarte eta erakundeekin izandako elkarlana eta harremana. Batzuek aipatzearren, hona hemen zenbait elkarteren zerrenda: Berriztu, Gaztaroan Ekin, APNABI, Besarka, Paidos, Hezilan, Nuevo Futuro, Unicef, ikastetxeetako guraso elkarteak eta abar (ikus txosten honetako 2.1. atala).
- Elkarreetekin eta erakundeekin izandako elkarlanaren esparruan, aipatzekoa da, halaber, Arartekoak elkarte eta erakunde horiek antolatutako foro eta topaketetan parte hartu izana, beti ere adin txikikoen problematikari buruzkoak, bai gure Erkidegoan eta baita hemendik kanpo ere.
- 1999an ospatu da ONUk Haurren Eskubideei buruzko Deklarazioa onartu zueneko hamargarren urteurrena. Ospakizun hori aitzakiatzat hartuta, eta beste erakunde batzuek sustatutako ekimenetan parte hartzeaz gain, Arartekoak haurtzaroaren eskubideak ezagutarazi ditu, derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasleen artean 40.000 egutegi argitaratuz eta banatuz. Bestalde, haurtzaroaren berariazko eskubideei buruzko eskola materiala lantzeko beka baterako deialdia ere egin du (ikus txosten honetako 2.3. atala).
- Gaia ikuspegi zabalagotik hartuta, Arartekoaren ardura da, halaber, adin txikikoak giza eskubideetan eta tolerantzia eta errespetua balioetan oinarritutako kulturaren gizarteratzea. Belaunaldi berriak balio horien arabera hezteko behar-beharrezkoa du gizarte demokratiko orok. Geure kasuan, gainera, hori egitearen beharra eta erantzukizuna are handiagoa da, hainbeste urtetan indarkeriarekin eta erailketarekin

ondo ondo bizi izan garenez. Horren aurrean, Arartekoak giza bizitzaren gorenko balioa defendatu eta bere lanean elkarrizketa, artekaritza eta adostasunak bilatzea erabili nahi izan ditu. Horrez gain, hezkuntza sisteman elkarbizitza balioei sistematikoki heltzeko proposamenak egin ditu eta, horretarako, laguntza gisa, giza eskubideei buruzko eskola materiala sortzea eta hedatzea sustatu du, bigarren hezkuntzako ikasleei zuzendutakoa (ikus txosten honetako 2.3. atala).

\* \* \*

Eta adin txikikoei zuzendutako atal honekin amaitzeko, Arartekoak aurreko urteetan egindako, baina oraindik burutu gabeko, gomendio batzuk aipatuko ditugu. Hiru gomendiotara mugatuko gara, hirurak ere arau emaile izaerakoak:

- Haur hezkuntza arautzeko beharra. Erakunde honek pasa den urtean eman zuen horretarako gomendio orokorra (ikus 1998ko Txosteneko VI. kapitulua, 2. atala) eta txosten honetan bertan ere aipatua izan da.
- Ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko araudia berrikusteko beharra. Arartekoak eman zuen, lehenago ere, horretarako gomendio orokorra (ikus 1997ko Txosteneko VII. kapitulua, 7.3. atala).
- Haurtzaroaren eta gaztaroaren zaintzarako legearen beharra gure Erkidegoan, hiru lurralde historikoei irizpide berberak eta oinarritzko betebeharrak eskatu ahal izatea ezarriko duena (ikus honako bi ez ohiko txosten hauek: babesik gabeko adin txikikoei buruzkoa -1997- eta adin txikiko arau hausleei buruzkoa -1998-).

### 3. ADINEKOEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA

Pertsona nagusien eskubideak, botere publikoen ihardunari dagokienez, batez ere gizarte-prestazioen eremuan azaltzen dira. Horregatik, ohizkoa dugu arrenkurarik gehienek Osasun eta Gizarte Ongizate eremuei buruzkoak izatea.

Zaharrek ez ditugu, nahiz eta guztientzako berezitasun berdinak eskeintzen dituen errealitate beretan izan, talde homogeneoa eta ezta euren ekandu, balore, ekonomia- edo osasun-egoerak ere. Pertsona nagusiek talde anitza osotzen dute, eta bere barnean, gure ihardueraren helburua, babes bereziagoaren beharrezan aurkitzen direlako eta gaixorik edo narriadura fisiko edo psikikoa izanez menpekotasun maila nabariagoa duten pertsonengana, batez ere, zuzendu izan da.

Pertsona nagusiei buruz Arartekoak garatutako ihardueraren zati bat, joakeen aurkeztutako bakarkako arrenkurak edo horrelakorik egiteko gaituta ez diren sendikideek aurkeztu ondoren hasi da.

Arrenkurok, narriadura fisiko edo psikikodun edo gaixotutako pertsona nagusiei laguntza eskeintzeko bideratutako baliapideen urritasuna, berriz ere, egiaztatzeko baliagarri izan ditugu. Euren artean, osasun- eta gizarte ongizatearen zerbitzuak alkarlanean ihardunaz emon beharrean litzatekezan atentziorik emon gabeko kasuak aipatu ditzakegu. Izaera soziosanitarioa duten arazoei, garatu eta gauzatzekoan duten atzerakuntzagatik, atonbidea emateko lankidetasun hitzarmenak sinatu dituzten administrazioen dagozkien arrenkurak, aipamen berezia behar dute.

Hirugarren adinekoen egoitzaz kanpoko laguntza eta zahar etxeetako zerbitzuei buruz Arartekoak egindako gaibakarreko txostenetan, botere publikoei gomendio batzuk egin zitzaizkien. 1999. urtean zehar, gomendio hoi jarraipen lanari ekin izan diogu, besteak beste hiru lurraldeetako, lehenengo idazpuruan adierazten den bezala, hirugarren adineko eta eguneko zentroetara ikustaldiak eginaz.

1999. urtea Nazio Batuek Pertsona Nagusien Nazioarteko Urte bezela izendatu zuten, Arartekoaren erakundeak hori zela eta, hirugarren adinekoen buruzko hainbat ekintza gauzatu. Horretara, UPV/EHUK antolatutako Udako Ikastaroetako partaidetza jardunaldietan, nagusien errealitatearen, euren beharrezan eta eskubideen gaiak aztertu ziren. "Los derechos no caducan con la edad" izenburuz aurtun "Giza-eskubideei buruzko Ihardunaldiak" Bilduman argitalduko diren ihardunaldiotako oldozpenek giza-erronka bati eusten diote: zaharren eskubideen egikaritzan adinak ez duela inoiz mugarik suposatzen lortzearekikoa. Horretarako, botere publikoaren eta gizartearen ekintzaren urratsak zehaztu behar litzuzken hirugarren adineko herritarrei eta gauzatzen ari diren izugarritzko aldaketei buruzko errealitatearen giza-eztabaida beharrezkoa dugu.

Arartekoak, gainera, "El papel del Estado ante la protección de los derechos de la tercer edad" izenburuko txostena Hondurasen 1999. urtean ospatutako iberoamerikar Herri Aldezleen Kongresuan azaldu zuen.

Bere txostenean, Arartekoak bere iberoamerikarrak ziren kideei Europan, Espainian eta Euskadin den errealitate demografikoa zein den azaldu zien: europar kontinentean 60 urte baino gehiagoko pertsonen kopurua azkenengo hiru hamarkadetan %50ean baino gehiago gehitu da, Espainiako ugalkortasun tasa (andra bakoitzeko 1,3) belaunaldien ordezkapena baino askoz beherago dago eta baita europar batezbestekoaren eta Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak duenaren azpitik

ere, gure erkidegoarena jaioberrien kopurik urriena duena izanez, hau da, ugaltze adinean diren andra bakoitzeko 0,9 seme. Alderantziz, Espainiak Europar Batasunean bizi-itxaropen arloan lehen tokia du (1990. urtean 79urte gizonezkoek eta 83,2 andrazkoek)

Pertsona nagusien babes eta eskubideen alde Arartekoa aitatu zen “ que no puede ni debe medirse un sistema público de prestaciones sociales a los ancianos desde parámetros exclusiva o predominantemente economicistas, ni puede obviarse su sumisión a los principios de justicia social y de equidad”. Bere eskuhartzea amaitzeko, Arartekoak nagusien eskubideen agiri baten sustapena salatu zuen.

Beste alde batetik, Aragoan ospatutako Herri Aldezleen Koordinazioari buruzko XIV. Ihardunaldietan Arartekoak nagusien eskubideen arazo berbera honi ekin zion, euskal eta espainiar errealitatearen ikuspegitik egin izan zuen arren. Jaiotzean, biziraupenean, sendi-egituran, andrazkoaren lanbideratzea eta zahartzaroarne gizarte-balorazioaren giza errealitate berriari buruzko oldozpen batzuk egin ondoren, zaharren beharizanen lege- eta erakunde-erantzuna azaldu zuen.

Alde batetik, erkidego guztiari dagozkion eta nagusien integrazioa onuratsen duten neurriak ditugu; bestetik, sendi zaintzaileari laguntza emateko neurriak; eta azkenez, pertsona nagusiei ezarri beharreko neurriak. Azkenengoon artean, Arartekoak, zaharren beharriaz atontzea lekarken eskeintza anitza administrazioek ezarri beharra bezelako izaera orokordun eta pertsona nagusien eskubideen agiria arautzea bezalako izaera normatibodun neurriak azaldu zituen, eta baita zaharsariari, sorospide sanitarioari, osasun-eskubideari, hirugarren adinekoen egoitzetako giza-zerbitzuak, egoitzaz kanpoko sorospideak ez diranetaz eta, azkenez, pertsona nagusien partaidetzari buruzko neurri zehatzagoak ere agertu zituen.

Agiri hori txosten honen eranskin bezala agertzen da.

Beharrezkotzat jotzen dugu, zaharren eskubideen burutzapen hobeago bat izatekotan gizarte-zerbitzuen eskubidearen jaube diran pertsona nagusien tokiaren garapenean Administrazioak agente eragile bezela duen zereginari buruzko txosten honetan agertzen den VI ataleko izaera orokordun gomendioa gogoraztea ere.

Gomendio horrek gizarte-zerbitzuen eskale diren pertsona nagusien egoerak aintzakotzat hartzen ditu eta beti ere nagusiek ez dituzte euren eskabideei dagokien erantzuna ez jasoteko irizpideetaz edo hartutako erabakien berrikusterik izan daitekeanari buruzko informazio egokirik izaten.

Esan dugunez, pertsona nagusiei dagozkien arrenkurarik gehienek Osasun eta Gizarte Ongizate eremuetan, batez ere, kokatutakoak ditugu. Aldiz, aztertutako arrenkuretan beste arlo batzuenak ditugun arloak ere azaltzen zaizkigu.

Horrela, hirugarren adineko egoitzetan diren erabiltzaileen ekarpenei buruz edo etxez etxeko laguntzagatik ordaindu beharreko kopuruak ere, prezio publikoekin duten harremana dela eta, Ogasun Sailarekin ere badute zerikusirik. Eredu honetan ahaidetasun mota edo mailaz aparte nagusiekin bizi izateak dakartzan gastuek PFEZn behar bezalako aipamen izan dezaten zintzilik dagoen zerga egokitzeagaz zerikusia duten arrenkurak ere kokatu behar ditugu.

Ingurugiroarekiko ikuspegitik, pertsona nagusiei dagozkien arrenkuraren batzuk ere aurkitzen ditugu. Zaratak bezalako jarduerak sortutako kalterik ez jasateko beste herritar batzuk duten eskubide berbera duten arren, ez dugu ahaztu behar pertsona nagusiak, gaixotasun edo narriaduren bat izan dezaketelako edo arazo horretatik

“ihes eginez” bizilekua aldatzeak suposatzen duen arazoagatik, berezitasunez aisialdi-eremuetan kontzentrazioekaitik izan daitekezan kalteak, berarizkotasunez jasaten dituztela eta jakina denez, hirietako “alde zaharretan” kokatzen dira, hau da pertsona nagusien kopururik handiena bizi den eremuan hain zuzen.

#### 4. ATZERRITARREN ARAZOEI ARRETA BEREZIA

Antolamendu juridikoak Arartekoari agintzen dion zereginik funtsezkoena hiritarren funtsezko eskubideen jardunean birjarpen, aldezen eta suztatzearen alde ekitekoa da. Eskuduntza hauen jardunak, batzuetan, Arartekoaren ardurapean jartzen diren gaien berezko nortasunarenak diren eragozpen logikoekin egiten du topo. Zailtasunok, zuzenbideko subjektuak jatorriz atzerritarrenak diren kasuetan, areagotu egiten dira, zeren, neurri handi baten, arrazoi ekonomikoengatik dira inmigranteak eta, ohiko den bezala, gainera legez kontrako egoeran egoten direlako. Inguruabar hauek, egiaztatu ahal izan dugunez, eskubideen itzala eskatzeko Zuzenbideko Estatua hornitzen den kontrol eta berme erakundeengana hurbiltzeko pertsona hauentzako betidanik oztopoa baino besterik ez da izan. Arrazoi horregatik emakume eta gizon hauen bizitza eremuan ikusi izan diren hutsuneak gainditzeko ahaleginak egiteko gauzatutako ekimenik gehienak, atxikitako inmigranteen edo atzerritarren eskubideen defentsa eta laguntzarako erakundeen eskariz egindako arrenkura zehatzak ere tramitatu izan diren arren, erakundeak berak sustatuz eta ofizioz egin dira.

Jatorriz atzerritarrenak diren hiritarrei buruzko arazoek gero eta izari handiagoa dute, zenbatespen hutsari dagokionez ezezik, gizartean duten eraginari dagokionez.

Atzerritarrek, atzerritar izateagatik bakarrik, zaurkotasun egoera berezian daude murgilduta eta ezaugarri hori oso argi dago, eta ondorioz herri botereek arazo horiei aurre egiteko neurriak hartu behar dituzte.

Inguruabar hau Arartekoaren beraren jardunean ere islatzen da, eta bidezkoztat jo du erakundearen barneko egiturari atzerritarren arazoekin lotuta dauden jarduera guztiak batzeko eta sustatzeko zeharkako atala, eta horrek ere izango du islarik txosten honen kapitulu honetan.

Hau da Arartekoaren txostenak Euskadiko Autonomia Erkidegoan atzerritarrenak diren hiritarren arazoari buruzko atal berezia aurkezten duen lehenbiziko aldia. Dena dela, arazo honi buruz bere izate guztian zehar erakunde honek egin dituen eskuhartzerik garrantzitsuenen hedadura gogoraraztea komeni da, muga bezala eta zorroztasunez egiten ez baldin bada ere. 1993 urtean atzerritarrek egindako eskabideen -garai hartan asilo eta babeslekuari buruzkoak- erantzunaren zain zeuden erbesteko hiritarren izatezko eta legezko egoeraren errealitatea azaltzen zuen txostena egin zen. Txosten horretan, hiru foru erakundeen gizarte ongizatearen arloan jarduteko proposamen zehatzak egin ziren, pertsona horien behin-behineko beharrezanek bereganatzeko helburuz. Jarduera honi buruzko argibide osoago bat ekitaldi honi dagokion urteroko txostenaren irakurketatik atera daiteke. Txosten horretan bertan Arartekoak *"El acceso de los extranjerios a los padrones municipales"*-ari buruz Autonomia Erkidegoko udalerrri guztiei, erregistro horietan sartuta egotea, orduan, zerbizugintza publiko jakin batzuetara iristeko ezinbesteko baldintza zen ezkerro, izaera orokordun gomendioa egin zieten.

Arabian patata eta mahats-bilketetan sasoikako langileak aurkitzen ziren marginalitate egoerak, euren artean atzerritar hiritarren zenbateko garrantzitsu bat, 1996. urtean alde aurretik errealitatera hurbilketa eginaz, arazoari buruzko ikerketari ekitea ekarri zuen, kontratazio erapideari, alojamendu baldintzei, eskola-adinean zeuden neska-mutilen eskolaztea eta pertsona horien inguruarekiko barneratze edo kanporatzeari buruzko alderdi berezitasunez problematikoak egiaztatzea lortuz. Errealitate honek

pertsona horien egoera hobetzeak hiru lehentasunezko jarduketa eremuetan benetako urratsak ematea zekarrela gogoetatea erakarri zuen: legezketasunaren betetze zehatzean eta arauen garapenean ; gizarte agenteen eta hunkitutako erakunde publikoen arteko koordinazioa ; eta pertsona horienganako dauden zerbitzuen eta eurei dagozkien eskubideei buruzko argibidean.

1997. urtean, Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako udareko ikastaroen barruan “*El derecho a la no discriminación por motivo de raza*”-ri buruzko jardunaldia sustatu zuen, eta “*Los problemas concretos en la inserción de los inmigrantes*”-ari buruzko mahi inguru ere. Ekitaldi horri dagokion txostenean atzerritarren egoerarekin erlaxionatutako gorabeherei irtenbide jakin batzuk ematekotan izaera orokordun gomendio bi barneratzen ziren: bata, 1993. urteari dagokion txostenean barneratu zen arazo berdin honi buruzko artamenduaz geroztik egindako araudi eraldaketak ezartzen ziren “*El acceso de los extranjeros a los padrones municipales*”-ari buruzkoa, eta bestea “*Las condiciones de alojamiento de los trabajadores Sasoikiako langileak y sus familias*”-ari buruzkoa.

1998. urtean, inmigrante kopuru handi bati ukitzen dion eta arazo horren hedadurari buruzko datu gehiago ekitaldi horretako eta baita oraingo 1999.eko txostenean lortu ditzakegun bilbotar San Francisco auzoari zegokion arazoaren azterketa egiteaz gain “*La asistencia social a las Emakumeak inmigrantes maltratadas*”-ari buruzko izaera orokordun gomendia egin zen.

Arinagoko erakunde-izaeradun jarduketek, Arartekoari ordenamendu juridikoak ematen dizkion eskumenen egikaritzaren ispilu diren neurrian, bere adierazpenean “formaltasun” gutxiagoko eskuhartze mota batzuekin batera izan dira, baina beti Autonomia Erkidegoan bizi diren atzerritar-taldearen arazoei irtenbidea aurkitzerakoan Arartekoa bezalako erakunde bermetzaile baten lankidetzeta eta partaidetzeta izatearekiko helburua izanez. Jarduketok hedapen ekintzen bitartez, (hitzaldiak, mahai inguruak, komunikabideek,...) inmigranteen arazoekin zerikusirik duten gobernuaz kanpoko erakundeekin izandako ohiko harremanen bitartez eta, gainera, arazoetaz egiaztu zitezkeen gabezien arreta (osasan-laguntza, eskolatzea, giza-barneraketa, laguntza juridikoa) bideratu eta aztertzeke administrazio publiko eta giza mugimenduek bategiten duten egituren bultzada eta partaidetzarekin burutu dira. Horrela, atzerritarren gizarte-integratzearako Foroa sortzeko gehien baten “Harresiak apurtuz” koordinadoran barneratutako gorago aitatutako helburudun administrazio publiko eta giza mugimenduen arteko aurkigune eta lankidetzeta formula bezala Arartekoaren zerbitzuek gauzatu duten bultzada-eginkizuna aipatu beharra dago. Arartekoak, giza-kontzientziaren zeregina eta gai honetan erantzukizuna duten giza-agentzia eta erakundeen arteko elkarlan eta hurbiltasuna atzerritarren fenomeno normalizatu eta zenbait arazogatik, pobrezia zalantzarik gabe aipagarriena izanez, Zuzenbidezko Estatuak ahalbidetzen dituen euren eskubideen itzalaren eremuan geroago eta bizitza hobeto bat bilatzen dabiltzan pertsonak diren inmigranteek gizarteratzeko bideak ditugula ulertzen duelako, lan horri ekiten jarraitzeko emandako hitzari jendaurrean eusten dio.

Azterritartasunari buruzko araubide juridikoaren manu araupetzailearen ezarpenak, batzuetan, inmigranteen bizitzan ikusi izandako arazo problematikoen jatorrian aurkitzen dira. Ikuspegi honetatik, atzerritarren arazo jakin batzuei indarrean zeuden legeek ematen zizkieten erantzun desegokiei atonbide egokia emateko asmotan, Arartekoa, Estatuko Defensor del Puebloekin, Andaluziako Herri Aldeztzailearekin,

Cataluñaako Síndic de Greugesekin, Galiziako Valedor do Poborekin, Valentziako Erkidegoko Síndic de Greugesekin, Canariaseko Diputado del Comúnekin eta Castilla eta Leoneko Procurador del Comúnekin Umeen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Araudiaren promulgazioaren X. urtebetetzearen esparruan batzartu zen. Atzerritartasunari buruz indarrean dagoen legedia eraldatzeko jardura parlamentarioan ikusten ziren arazoetaz ohartzuz, erdikegoetako defendatzaileek, hiritarren funtsezko eskubideen aldele eta bermatzaile diren erakunde-buru bezala hurrengo adierazpena azaldu zuten.

*“desean hacer llegar, tanto a los diversos grupos parlamentarios como a aquellas personas y organizaciones que desde la sociedad civil vienen trabajando en los diferentes ámbitos relacionados con la inmigración, que comparten plenamente la idea de que resulta conveniente alcanzar un acuerdo que permita la modificación del actual régimen jurídico de la extranjería, especialmente en relación con determinados aspectos en los que la legislación actual ha quedado desfasada o resulta insatisfactoria.*

*Por esta razón, y con pleno respeto a la función que corresponde al Legislador, quieren manifestar su esperanza de que la citada reforma de la Ley Orgánica pueda verse culminada en la presente legislatura. En tal sentido, consideran que aún resulta posible -y sería además deseable- llevar a cabo, con el necesario consenso, aquellos cambios que deban introducirse en el Proyecto de Ley acualmente en tramitación, pero que ello no debiera ser un óbáculo que impidiese finalmente la pronta aprobación de una nueva Ley.*

*Precisamente el espíritu solidario del que ha hecho gala la gran mayoría d la sociedad española ha de tener su reflejo mediante la cristalización del mismo en el texto legal que definitivamente se apruebe.*

*Por ello, quieren transmitir a las diversas fuerzas políticas y sociales la necesidad de que no se escatime ningún esfuerzo para lograr un texto que dé satisfacción a las legítimas expectativas de quienes pretenden que ésta sea tierra de libertad, de justicia y de solidaridad”.*

Jakina denez, Gorteek, azkenean, Espainian atzerritarren askatasun eta eskubideei buruzko urtarrilak 11ko 2000/4 Lege Organikoa onartu zuten.

Partaidetza zehatzen eremuari dagokionez, 1999. urtean zehar ofizioz edo norbaitek eskatuta, jardura batzuk gauzatu izan dira, zeinetan dagozkien pertsonen inmigrante-egoera hori kontrolgai izan diren jardukizun administratiboez neurtzeko erreferentzia puntu bihurtuz. Zentzu honetan, atal honetan Bilboko San Francisco auzoko problematikari buruz egin izan den jazarpena adierazi nahi da, aztertzen diren poliziaren jardueren protagonista asko inmigranteak izanez, inguruabar hau eztabaidatuak diren interbentzioen hastapenean dagoela uste dugulako. Arazo honekiko ezagupen handiagoa txosten honetan San Frantziskoko auzoguneari buruzko jarduerak azaltzen dituen aipamenean ikus daiteke. Halaber, Autonomia Erkidegoko hiriburuetakoa udal eta foru aldundiekin egin izan diren tratatu txarrak jasan dituzten inmigranteenganako sorospideari buruzko 1998. urteari dagokion txotenean aipatutako izaera orokorra duen gomendioaren burutzapen bezala, subjektuen orokortasunari zuzenduta dauden ikuspegitik egin izandako eskuhartzeak aipatu genitzake. Eskuhartze horiek txosten honetan, dagokion idazpuruan, ikus daitezken gomendioekin burutu ziren.



Inmigrantearen egoera elementu zehazgarri bihurtzen den administrazioaren jarduera jakin batzuk direla-ta arrenkurak erakundean bertan tramitatu izatearen kaltetan barik, gure komunitateko bizitzan hiritarren integrazioaren normalizazioa lortu dezagunerarte, egia esan, Arartekoaren zeregina, ikusten diren egoera diskriminatorioak gainditu eta beste hiritar guztiek duten bezalako bizitza maila berdina lortzea laguntzen dieten egiturak bultzatzeko inguru egokiak gauzatzea da.

## 5. EZGAIUEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA

Atal honetan ezinduen kolektiboan zuzenean edo zeharretara eragina izan duten Arartekoaren ihardueretaz arituko gara, alde batetik, norbaiten eskariz hasitako arrenkura espedienteen tramitazioan kokatzen diren iharduerak bereiziz, eta, bestetik, erakunde honek ofizioz kolektibo honen eskubideen aldezipena eginez izandako iharduketek azalduz.

**Hezkuntza** eremuan, heziketa beharrizan bereziak dituzten ikasleenganako erakunde honen iharduera hiru arlo ezberdinetan garatu da:

Batetik, heziketa-zentroetan egindako jazarpenari dagokiona, ezintasun fisikoak zituzten ikasleek eskolaratu izatean oztupoak kendu eta beharrezkoak ziren adaptazio lanak egin behar zituztenak.

Bigarrena, heziketa-beharrizanak zeuzkaten ikasleei laguntza jakin batzuk zabaldu edo konfigurazio berria ematea aurkezten zuten salo ezberdinen ondorioz Hezkuntza-administrazioarekin bitartekotza lana garatu dutenena. Euren artean, Ikusmen Urriko Umeen Gurasoen Gipuzkoar Elkarteak (1998/1405 erref.) aurkeztutakoa.

Eta azkenez, hirugarrena, Hezkuntza-administrazioak onartutako erabakiak, aurretiaz onetsitako laguntzak (heziketa bereziraiko laguntzaileek...) etetearen zentzuan, zalantzatzen ziren kasuen banan-banako azterketa edo jazarpena egin izan direnena.

Hezkuntza eremuari dagokionez 1999. urtean izan diren ihardueren ondorio bezela, hurrengo aldeak adierazi nahi ditugu:

1. Hezkuntza Sailak, aukeratutako zentro publikoan eskolatzearen ahalbidea baliapideak izatearen edo pertsonal nahikoa eukitearen menpe dagoenez, gurasoak euren seme-alabek urte birekin eskolatzen hastea nahi duten umeenganako tratu diskriminatzailea iraurarazi egiten da.

2. Erakunde hau EHAEko heziketa berezien beharrizanenganako erantzunari buruzko ikerketa monografikoaren hastapeneko tramiteak gauzatzen hasi da. Beretan, hezkuntza mailan buru-atzerapena, ikusmen- edo entzumen-urritasuna, ezintasun-motora eta garun-paralisia bezalako beharrizan berezien mota ezberdinenganako erantzuna aztertuko da.

**Ogasun** arloan, erakundearen iharduera foru arau ezberdinak onesten dituzten ezintasun fisikoa jasaten duten pertsonen onura fiskalen erabilera mesedegarritzera bideratu da.

Trakzio mekanikoko Ibilgailuei buruzko Zergaz, ibilgailuen merkatuaren eskeintzarekin bat datorren "*vehículo adaptado para su conducción por una persona que sufre una discapacidad física*" bezala ibilgailua kalifikatua izateko euki behar dituen ezaugarrien interpretazioa, kalifikazio horretatik ibilgailuaren jaubea denak ezintasunagatiko salbuespena dela-ta zergan onura atera ahal izatea eratortzen delako (1999/442 erref.), tokizko erakundeetan aldeztu izan dugu.

Edozein kasutan, orokorrean ezindutako pertsonen EHAEn zergagaietan emoten zaien arreta bereziak kolektibo honek dituen beharrizanenganako gizaratearen etengabeko sentiberatasuna adierazten digu.

Zerga ikuspegitik kolektibo honi zegozkion hainbat arrenkura-espedienteen tramitazioan kokatzen diren iharduerak alde batera utzita, zerga bakoitza arautzen duten

manu ezberdinetan ezindutako pertsonen emondako zerga tratamenduaz diharduan izaera orokordun gomendioa urteroko Eusko Legebiltzarrentzako txosten honetan barneratzea erabaki zen.

Egindako ikerketatik, ezinduei zuzendutako neurri bereziak aintzakotzat hartzen ez dituzten zergak gitxi dirala ondorioztatzen da. Guztiarekin, diran onuretan setatzearen beharrezana eta gure ordenamendu juridikoak diseinatutako erabateko integrazioari buruzko helburuan eraginkortasunez lagungarri litzatekezan beste berri batzuk sortzeari buruzko aldeko apostuaren premia ikusi da.

**Hurbilerraztasunaren** sustapenari zuzendutako erakunde honen ihardueraz hauxe esan dezakegu:

Ordenazio urbanoaren gainean, Arartekoak ezintasun fisikodun pertsonen normaltasunez herri bizitzan parte hartzeko hiri-eragozpenak kentzeko botere publikoek duten beharra administrazio publikoaren aurrean adierazo du.

Era berean, erakunde honek eraikin publikoen barruan hurbilerraztasuna bermatzeko neurriak hartzeari arreta berezia eskeini izan dio eta berezitasunez eguneko zentro eta zaharren egoitzak bezalako adinezkoentzako oinarritzko giza-zerbitzuak euren eskeintzen direnean.

Eskaleen ezintasun jakinetara babesdun etxebizitzak egokitu eta etxebizitzaren birgaikuntzarekiko laguntzak lortu izatea, ezindutako pertsonen eskubideen aldeko erakunde honen beste iharduera eremu batzuk izan dira.

Horretara, Arartekoak Bilboko Udal Etxebizitzak kudeatzen dituan giza-etxebizitzaren esleipenaren arau orokorren barruan “subnormalidad” eta “anormalidad” hitzak bezalakoak aipatzen ziren. Erakunde honek instituzio horri, hitz horiek beste itzal handiagoa adierazten duten “*ezintasun edo minusbalotasuna duen pertsona*”, “*ezindu psikikoa*” edo antzerako esanahi peioratiborik gabeko beste batzuek aitik ordezkotzea eskatuz, eskutitza bialdu zion. Eskuhartze honen ondorioz, Udal Etxebizitzak Arartekoari arauok giza-errealitate berrira egokituz berriz idatziko dituela jakinarazi zion.

Minusbalotasuna duten pertsonenganako babes ofizialdun etxebizitzaren egokitzapenean, eskaleak aurkezten duten minusbalotasun zehatzera etxebizitzaren benetako egokitzea erreztekotan araubidezko garapenik eza egiaztatu dugu. Egoera horrek etxebizitzaren erabateko egokitzearekiko edo esleipendunen ezintasunei murriztu gabeko moldaketari buruzko arrenkurarik ekarri du.

Babes ofizialdun etxebizitzetarako irispidea izateko ezarritako baldintza ekonomikoei buruz, minusbalotasunen bat duten pertsonen jasan lezakeen diskriminazioari buruzko arrenkurak izan ditugu. Arazoa, babes ofizialdun etxebizitzaren promozioan parte hartu ahal izateko beharrezkoak diren gutxienezko irabaziak zuritserakoan, horretarako araudiak PFEZren aitortzearen erabilitako zerga-oinarria aintzakotzat hartzen duelako, azaltzen zaigu. Egoera hau kolektibo honentzako kaltegarri izan daiteke, zerga-oinarriaren kalkulua bereziki lan-etekinaren arabera egiten delako, beste kontzeptu batzuen artean, oroar, gastuek aitik %5a zergarinduz. Hala ere, minusbalotasunen bat benetakotzen den kasuetan kopuru horrek %15era igoten du. Murrizketa hau, herritarren kolektibo honi mesedegarri izan eitekie pentsatuta dago, baina izan ditzazke, etxebizitzari buruzko politikaren kasuan bezalako gaietan, zerga-oinarria murriztea dakarrelako eta beraz etxebizitzetarako aukera izateko eskatzen den gutxiengora ez heltzea bezalako nahi ez diran ondorioak ere.

Arartekoak, halaber, Getxoko hiritar baten eskabidez San Mamés futbol zelaiaren inguruan mugikortasun urridun pertsonen ibilgailuentzako bakarreko erabilerarako aparkalekuak gordetzea ez aurrikustearren iritsitako arazoari buruz ere ihardun zuen.

Erakunde honek Bilboko Udalari hurbilerreztasunaren sustapenerako abenduak 4ko 1997/20 Legeak ezarritakoaren arabera San Mames futbol zelaiaren inguruan ezinduentzako gordetako aparkalekuok atontzeari buruzko aukera azaldu zion. Tokizko erakunde horrek Rafael Moreno "Pitxitxi" kalean "ezinduentzako gordeta"ko aparkaleku birentzako eremua zegoela eta partidu egunetarako Felipe Serrate kalean 5 aparkaleku lekuen gordekina egitea onartu zala jakinarazi zigun.

Azkenez, hurbilerreztasuna sustatzera bideratutako erakunde honen ihardunei dagokienez, Euskalherriko Gorren Federazioak zeinu-hizkuntzaren interpretarien kostua euren hartzeko zituzten arazoak adierazoz aurkeztutako arrenkura azaltzeak interes berezia du.

Komunikazioan diren oztopoak hurbilerreztasunaren sustapenerako abenduaren 4ko 1997/20 Legeak erantzuna eman nahi dien arazoaren artean aurrikusita daude. Hain zuzen, legearen 6. artikulua zeinu-interpretarien bitartez oztopo hoiek ezabatzerakoan Administrazioa nahasten du. Zio hori zela eta, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria Sailari txosten bat eskatu zion, aitaturako Sailak eskakizun hori Giza Seguratasun, Lan eta Zuzentza Sailera, bere zereginen eremuan kokatzen zela uste zuelako, igorri zuela adierazoz.

Azkenengo Sail honek giza-zerbitzuen eremuan alkarreentzako urtero dirulaguntzen deialdiak zirala jakinarazi zigun. Bestalde, Gorren Elkarteen Federazioak azkenengo deialdian eskuratutako laguntza ere informatu ginduzan.

Gure txosten-eskakizuna hurbilerreztasunari buruzko 1997/20 Legearen ikuspegitik egin zen arren, jasotako erantzunak arrenkuragaia 96/5 Legearen eremuan kokatzen zuen, hau da, Administrazioaren erantzunak ez zuen, gure txosten eskakizunak berezitasunez eta arrenkuraren xede bakar bezela berezitasunez aipatzen zuen arren, zeinu-interpretariei buruzkoak ere barneratu zitezkeela jorratzen.

Zio honegatik, Giza Seguratasun, Lan eta Zuzentza Sailera, euren txostenean ezarritakoaren arabera, Euskalherriko Gorren Alkarteen Federazioak garatzen dituen ekintzen artean, eta iragarten diran dirulaguntzen eremuari dagokionez, zeinu-hizkuntzaren interpretarien bitartez gorren komunikazioa ahalbideratzen dituzten ekintzak ere barneratu zitezkeela ulertzen genuela adierazoz, idatzi bat igorri genuen. Halaber, gauzatu genituen ekimenak Federazioari jakinarazi genizkion eta, hasiera baten, hurrengo urteko deialdirako diruz lagungarri litzatekezan ekintzen artean zeinu-interpretariei buruzkoak ere barneratu zitezkeela adierazi genion.

Hurbilerreztasunari buruzko eremu honetan komunikabideen bitartez, noizean behin, kolektibo honek azaltzen dituen eskakizunak dirala eta, Arartekoak ofiziozko iharduera batzuei hasiera eman die. Zentzu honetan, Gipuzkoako Medula-Zaurituen Elkarteko Lehendakariak Gipuzkoako Foru Aldundiari Tolosa- Donostiako garraio erregularren linea erabilteko mugikortasun gutxi duten pertsonen aurkitzen dituzten eragozpenekatik egiten zion salaketa aipatu genezake.

Halaber, Arartekoak Gipuzkoako Foru Aldundian eta baita Bizkaiko Foru Aldundian ere gure autonomia erkidegoko ondartzetara iristeko arazoak dirala eta, batez ere lekualdatzeko gurgildun jarlekuak derrigorrez erabili behar dituzten pertsonen, eskuhartu du.

Azkenez, 1999.ko ekitaldian Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko oinarriko giza-zerbitzuen egoera aztertzen duen Arartekoak taiututako ohizkanpoko txostenari buruzko aipamena egitea ezinbestekoa da. Zerbitzuotarako hurbilerreztasun baldintzei buruz, euretariko askotan eragozpenak erabilera oztopotu egiten dutela egiaztatu da. Lana egiteko gure Erkidegoko oinarridun unitate guztietara gorri ziren galdera-sortetatik eratorritako datuek erabat larriak dira: gupil-aulkian pertsona batek bere kabuz gitxienez 159 zentrotara joaterik ez du; 62 kasutan beste inoren laguntasuna behar izango luke eta 97 kasutan laguntza hori ez litzateke nahikoa izango.

Arartekoaren erakundeak, zentroetara iristeko aukerak hobetzekotan udal ezberdinetan ofiziozko berarizko iharduerak hasteko hitza eman du.

**Ondorio** bezala, ezindutako pertsonen errealitatearen giza-ulermenean geroago eta sensibilizazio eta hobekuntza nabarmenagoa izan den arren, Konstituzioak aldarrikatutako integrazio osoaren helburua oraindino ez dela lortu esan dezakegu.

Arartekoak, bereziki, Eusko Jaurlaritzaren ahobatasunez ezindutako pertsonen kolektiboaren funtsezko eskabideetariko bat lortzea suposatu zuen 1997.eko abenduaren 4ean onartu izandako Hurbilerreztasunaren Sustapenari buruzko Legea bezalakoa, urte bi geroago bere erabilpenean hutsik gelditu izatea ikusterakoan, bere urduritasun larria azaldu nahi du, besteak beste legeak berak adierazo eta bere indarrean sartze egunetik sei hilabeteko epean Eusko Jaurlaritzak ezpazio publikoetako, eraikuntzaren garraioaren eta informazio eta komunikazio erapideetarako hiri-inguruneetan hurbilerreztasun baldintzak zehaztea zekarren izaera teknikodun arauadiak gauzatu eta onartu ez dituelako.

III. ATALA

**ARARTEKOAREN JARDUERA  
KOPURUTAN**

## 1. OHAR ETA DATU OROKORRAK

1999an erakundean aztertu diren banakako zein talde kexen %33,22an, Arartekoak administrazioaren jardueran irregulartasunen bat atzeman du.

Kexak aztertu eta gero Arartekoak administrazioak kexagilearen aurrean modu desegokian jokatu duela uste izan dueneko kasuen erdian baino gehiagotan, zegokion administrazioak kexa sorrarazi zuen jarduera zuzentzea erdietsi da, gomendiorik egin behar izan gabe, gainera. Hori azpimarratzekoa da. Modu honetan, Arartekoaren jardueraren fase desberdinetan arazo asko konpondu dira, hala nola informazio eskaera egitean edo gaiarekin zerikusia duten aldeek emandako datuak eta argudioak aztertzean. Fase hauek gomendioa burutzen den erabakia baino lehenagokoak izanik, gomendioa ez da beharrezkoa izaten. Arartekoak irregulartasunen bat egin duen administrazioari gomendioa egin behar izan dionean, aldeko erantzuna jaso da eta kasuen %60an gomendioa onartu da. Kexa eragin zuen arazoaren bi irtenbideak kontuan hartuta (gomendio beharrik gabe zein gomendioa onartu delako), Arartekoaren jardueraren eraginkortasuna maila handikoa izan da.

1999an 1.283 kexa luzatu zaizkio Arartekoari. Guztiek banan-banako tratamendua izan dute Arartekoaren eta kexagileen arteko harremanari dagokionez, berdin-berdinak diren kexek 62 espediente pertsonaleko multzo bat osatzen badute ere. Iaz jasotako kexa-kopuruarekin baldintza homogeneousan alderatuta, %19,55ean murriztu direla ikusten da. Kausa desberdinek eragin dute murrizte hau, alegia, alde batetik, aurreko urteetan zenbait administrazio errekamazio kopuru altua eragiten zuten gaietan (zirkulazio zigor batzuk, esate baterako) Arartekoaren gomendioak onartu izana, eta bestetik, kexa-kopuru handia eragiten zuten euskal administrazio publikoetarako pertsonala hautatzeko prozesu jendetsuak murriztu izana, eta, finean, taldeek aurkeztutako errekamazioen portzentaia –pertsona asko ordezkaturik kexa bakarra osatzen dutenak, alegia– nabarmen gehitu izana.

Azken gai honi dagokionez, 188 kexa aurkeztu dituzte talde desberdinek, hots, auzo elkarteek, plataforma aldarrikatzaileek, sindikatuek, talde ekologistek, etab. Horietaz gain, 1.100 pertsonak sinatutako kexa bat eta 500ek sustatutako beste bat jaso dira.

Arartekoaren jarduerak, Eusko Legebiltzarrarentzako Txostenaren kapitulu honetan zenbakitan laburtua, oso balorazio ona izan du erakunde honetan errekamazio bat aurkeztu duten pertsonen aldetik. Hori adierazten dute Arartekoak beren kexak erabat bideratu dituen pertsonen bidalitako inkestaren emaitzek, borondatezko galde-sorta anonimo baten bidez lortu direnak, alegia. Errekamazioa egin dutenen %85,9k oso

egokitizat edo nahikoa egokitizat jo dute Arartekoak beren kexaren aurrean azaldu duen jokabidea, oso zein nahikoa desegokitizat jo dutenen %10,6aren aldean. Inkesta honi -emaitzak ondoren eta xehetasunez aztertuko dira- erantzun dioten kexagile gehienek Arartekora jotzea gomendatuko liokete administrazioarekin arazoren bat duen norbaiti (%69,23k beti gomendatuko liokete, %21,37k kasu batzuetan), inoiz ere gomendatuko ez lioketen %6,84ren aldean.

### - Jasotako kexak

1999an 1.283 kexa jaso dira guztira Ararteko erakundean. Hala ere, Arartekoak bideratutako espediente pertsonalen kopuru osotik 62k berdin-berdinak diren kexen multzo bat osatzen dute, eta, horregatik, ondorengo orrialdeetan gaiaren, jatorrizko lurraldearen, etab.en arabera egingo dugun estatistika azterketan, 1.222 kexako kopurua hartuko dugu aintzat.

#### **Arartekoak jasotako kexen kopuruaren bilakaera (1989-1999)**

	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999
Guztira	585	1.159	766	781	827	747	1.164	1.674	1.991	2.660 <sup>1</sup>	1.283 <sup>2</sup>

<sup>1</sup> 1.143k berdin-berdinak diren bi kexa multzo osatzen dituzte.

<sup>2</sup> 62k berdin-berdinak diren kexa multzo bat osatzen dute.

(Ikus 1. diagrama eranskinean)

### - Onartu gabeko kexak

3/85 Legearen 21. artikulua, Ararteko erakundea sortu eta arautu zuenak, herritarren kexak ez onartzeko kausa diren baldintzak azaltzen ditu. Zentzu honetan, 1999an zenbatutako kexetatik arrazoi desberdinengatik atzera botatakoak aipatu behar dira lehenbizi: dela partikularren arteko gatazka izateagatik, dela auzitegira eraman eta epai tinko bat jaso edo epaiaren zai dagoen auzia izateagatik, dela Arartekoaren eskuduntza esparrutik kanpo geratzeagatik.

Nolanahi ere, bere ohiko jokabideari eutsiz, erakunde honek 1999an ere ahalik eta laguntza juridiko gehiena eskaini die erreklamazioei. Horrela, herritarrak aurkeztutako kexaren onarpena errazte aldera, prozedurazko arauen interpretazio egokia ematen saiatu da, *in dubio pro actione* maximari jarraikiz. Atzera botatako kexak direla-eta, erakundeak jakinaren gainean edukitzen du herritarra une oro, azaldutako arazoak konpontzeko egokienak gerta daitezkeen bideei dagokienez.



### **Onartu gabeko kexak eta arrazoiak**

Norbanakoen arteko arazoak .....	39
Erakundearen eskumenetik kanpo .....	18
Auzitegira eramandako kexak .....	17
Irregularitasun eza begibistakoa izatea .....	13
Aurrez administrazioari aurkeztu gabeak .....	13
Izenik gabeak .....	7
Legesan ezarritako epeak bete arte itxaron beharra .....	7
Defendatzailearen bulegoan, biderapenean .....	6
Urtebetetik gora iragana .....	5
Formazko akatsa .....	4
Bidezko interesik eza .....	2
Asmo txarra .....	1
<b>Guztira .....</b>	<b>132</b>

(Ikus 2. diagrama eranskinean)

#### **- Herriaren defendatzaileari zein beste defendatzaile batzuei igorritako kexak**

Ararteko erakundeak zuzenean bideratzen ez dituen kexen artean, aipatzen duten gaia dela-eta Estatuaren administrazioari dagozkionak daude, Arartekoaren kontrol-esparrutik kanpokoak, Herriaren Defendatzailea estatu-erakundeari luzatzen zaizkionak, alegia. Hauei gehitu behar zaizkie beste erkidegoetako parlamentu mandatariei luzatutakoak.

1999an %25ean murriztu da Herriaren Defendatzaileari luzatutako kexa-kopurua, 1998 urtearen aldean.

Herriaren Defendatzaileari igorritako kexak .....	134
Beste defendatzaile batzuei igorritakoak .....	13

#### **- Hainbat gestio eragin dituzten kexak**

Estatistika mailan, Ararteko erakundeak onartu izan arren berez euskal administrazio publikoaren jarduera baten aurka igorri ez diren kexak, modu desberdin batean zenbatzen dira.

Hain zuzen ere, herritarrak azaldutako arazoa konpontzeko gestio desberdinak eragin dituzten kexak dira, logikoaenez, oso mota desberdineko gai eta arazoak barne hartzen dituztenak, alegia.

Gestio desberdinak eragin dituzten kexak .....	23
--	----

### - Alor eta administrazio bakoitzari bidalitako kexa-kopurua zuzen interpretatzeko modua

Lehenengo hurbiltze batean, pentsa liteke arlo jakin batean edo administrazio jakin baten jarduerak eragindako kexa-kopurua handia izateak zerikusia izan lezakeela herritarrek administrazio horren funtzionamenduarekiko duten pertzepzio negatiboarekin, hain zuzen ere zabarkeriak, aginte gehiegikeriak zein legearen aurkako jarduerak izan ala ez izateari dagokionez.

Alabaina, erakunde honen ustez, ñabardura garrantzitsu batzuk egin behar dira kexa-kopuruaren lehen pertzepzio eta interpretazio horri buruz, presazko ondorioak atera ez daitezzen, ondorio horiek okerrak eta bidegabeak gerta bailitezke eragindako administrazioekiko.

Izan ere, alde aurretik administrazio jakin baten jarduerak eragindako kexa-kopurua adierazgarria bada ere, adierazgarriagoa da –eta hau da benetan garrantzitsua– administrazio batek zuzen ez jokatzeagatik kexagileak erakunde honetara jotzeko funtsezko arrazoiak izan ditueneko kexa-kopurua. Era berean, kexa-kopuruaren datu hotza baino, administrazio horren jokaera da garrantzitsuagoa Arartekoarentzat, bai ezarritako epearen barruan informatzeko eginbeharrari begira, bai erreklamazioaren azterketa eta ikerketa burutzean emandako erabakiei begira. Alegia, administrazioak zuzen jokatu ez duenean, ezinbestekoa da Arartekoaren gomendio eta iradokizunak azken finean onartzen diren ala ez egiaztatzea.

Estatistika alor honetako zenbakien balorazio bat egiteko orduan, geografi alderdia ere aintzat hartzea komeni da, izan ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, alderdi horrek berebiziko garrantzia hartzen du, kexagilea erakunde honen egoitza edo 1996an abiarazi ziren harrera zuzeneko bulegoetatik urrun ala hurbil bizi den.

## 2. ESTADISTIKA ALORREZ ALOR

Kexak ukitzen duten gai-alorraren arabera aztertzean, 1999an alor bakoitzari dagokion erreklamazio portzentaian aldaketa batzuk gertatu direla ikusten da.

Aldaketa horiekin zerikusia izango dute, agian, Arartekoaren jarduera-alorra zen Administrazio Antolakuntza desagertu izanak eta berorrek lotura duten kexak irregulartasunak eragindako berezko alor zehatzetan (Ogasuna, Hezkuntza, Osasuna...) zenbatzera pasatu izanak.

Lehenengo urtearekin alderatuta, erreklamazio kopurua nabarmen igo da Hezkuntza eta Herri Lanak eta Zerbitzuak alorretan, 24 eta 23 kexa jaso baitira, hurrenez hurren.

Proporzioan murrizte gehien izan duen alorra, ordea, Ingurugiroa delakoa izan da: 1998an baino 33 erreklamazio gutxiago jaso dira, eta alorraren pisu erlatiboak %13,99tik %8,14ra jaitsi da.

Ogasuna da kexa gehien jasotzen dituen alorra, eta, kexa-kopurua murriztu den arren, erreklamazioen %16,4a hartzen dute alor honetako kexek. Herri Lanak eta Zerbitzuak eta Hirigintza eta Etxebizitza alorrek %12a gainditzen dute, Funtzio Publikoa, Hezkuntza, Ingurugiroa eta Gizarte Ongizatea alorrek kexen %8a gutxi gorabehera jasotzen duten bitartean.

**Zuzenean bideratutako kexen banaketa, jarduera-alarren arabera**

	<b>Jasotako kexak</b>	<b>%</b>
Ogasuna .....	147	16,40
Herri Lanak eta Zerbitzuak .....	113	12,60
Hirigintza eta Etxebizitza .....	110	12,26
Funtzio Publikoa .....	79	8,81
Hezkuntza .....	76	8,47
Ingurugiroa .....	73	8,14
Gizarte Ongizatea .....	71	7,92
Herrizaingoa .....	70	7,80
Osasuna .....	61	6,80
Justizia .....	57	6,35
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa .....	22	2,45
Kultura eta Elebitasuna .....	15	1,67
Lana eta Gizarte Segurantzza .....	3	0,33
<b>Guztira .....</b>	<b>897</b>	<b>100</b>

(Ikus 3. diagrama eranskinean)

**- Kexen banaketa azpialorren arabera**

1999an jasotako kexen gaien arabeko banaketa aztertzean, ondorengo koadroan ikusten da azpialor bakoitzak nolako eragina duen Arartekoak bere lana sistematizatzeko bereizten dituen alor bakoitzeko aldaketetan.

Berritasun bezala azpimarratu behar da alor guztietan Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura izeneko azpialorra sartu izana. Honek, aurreko txostenetan, Administrazio antolakuntza sailean sailkatzen ziren kexak biltzen zituen bere baitan.

**Jasotako kexen banaketa jarduera azpialorren arabera**

<b>Ogasuna .....</b>	<b>147</b>
Udal zergak .....	45
Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura .....	21
Udal tasak .....	20
Udal salneurri publikoak .....	19
Foru zergak, PFEZ .....	15
Foru aldundiek tokiko zergak kudeatzea .....	11
Foru salneurri publikoak .....	5
EHAE salneurri publikoak .....	3

Kontratazioko, ondareko eta administrazio erantzukizuneko erregimena .....	2
Udal kontribuzio bereziak .....	1
Foru zergak, O EZ .....	1
Foru zergak, BEZ .....	1
Foru zergak, oinordetzak eta dohaintzak .....	1
Beste gai batzuk .....	1
EHA Eko tasak .....	1
<b>Herri lanak eta zerbitzuak .....</b>	<b>113</b>
Tokiko zerbitzu publikoak .....	44
Kontratazioko, ondareko eta administrazio erantzukizuneko erregimena .....	16
Garraioak .....	16
Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura .....	15
Lanen burutzea .....	6
Nahitaezko desjabetzea .....	6
Beste zerbitzu publiko batzuk .....	3
Lanen proiektuak .....	3
Bide eta landa bideak .....	2
Eskubide eta askatasunak .....	2
<b>Hirigintza eta Etxebizitza .....</b>	<b>110</b>
Etxebizitza .....	46
Hirigintza diziplina eta hondamena .....	38
Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura .....	8
Hirigintza antolamendua .....	8
Hirigintza kudeaketa .....	6
Beste gai batzuk .....	3
Kontratazioko, ondareko eta administrazio erantzukizuneko erregimena .....	1
<b>Funtzio Publikoa .....</b>	<b>79</b>
Funtzio publiko orokorra .....	36
Irakaskuntza funtzio publikoa .....	24
Osasun funtzio publikoa .....	8
Eskubide eta askatasunak .....	6
Polizi funtzio publikoa .....	3
Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura .....	1
Beste gai batzuk .....	1
<b>Hezkuntza .....</b>	<b>76</b>
Beste gai batzuk .....	36
Eskubide eta eginkizunak .....	13
Unibertsitate irakaskuntza .....	8

Irakaskuntza zentroak .....	6	
Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura .....	4	
Derrigorrezko bigarren hezkuntza .....	3	
Haur hezkuntza .....	2	
Batxilergoa .....	1	
Irakaskuntzaren kalitatea .....	1	
Arte irakaskuntzak .....	1	
Heziketa jardueraren oinarri berriemaileak .....	1	
<b>Ingurugiroa .....</b>		<b>73</b>
Bizitegi lurzoruan sailkatutako jarduerak .....	53	
Beste gai batzuk .....	8	
Urbanizaezinezko lurzoruan sailkatutako jarduerak...	4	
Industri lurzoruan sailkatutako jarduerak .....	4	
Hondakin eta isurkiak .....	3	
Babestutako natur inguruneak. Flora-faunarako babesa .....	1	
<b>Gizarte Ongizatea .....</b>		<b>71</b>
Ekonomi mailako gizarte sariak .....	36	
Adineko pertsonentzako laguntza .....	12	
Pertsona balio gabetuentzako laguntza .....	8	
Beste gai batzuk .....	7	
Haur eta nerabeentzako laguntza .....	4	
Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura .....	4	
<b>Herrizaingoa .....</b>		<b>70</b>
Zirkulazioa .....	49	
Herritarren segurtasuna .....	12	
Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura .....	4	
Beste gai batzuk .....	3	
Eskubide eta askatasunak .....	1	
Seguritate pribatua .....	1	
<b>Osasuna .....</b>		<b>61</b>
Osasun laguntza .....	20	
Erabiltzaileen eskubideak .....	18	
Osasun publikoa .....	8	
Kontratazioko, ondareko eta administrazio erantzukizuneko erregimena .....	6	
Beste gai batzuk .....	5	
Buruko osasuna .....	3	
Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura .....	1	

<b>Justizia .....</b>	<b>57</b>
Jarduerak presondegia gaitan .....	21
Justizi administrazioaren funtzionamendua .....	17
Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak .....	13
Kontratazioko, ondareko eta administrazio erantzukizuneko erregimena .....	3
Doako zuzenbide laguntza .....	2
Beste gai batzuk .....	1
<b>Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa .....</b>	<b>22</b>
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza .....	8
Industria .....	6
Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura .....	3
Kontsumoa .....	2
Kontratazioko, ondareko eta administrazio erantzukizuneko erregimena .....	2
Beste gai batzuk .....	1
<b>Kultura eta Elebitasuna .....</b>	<b>15</b>
Elebitasuna .....	5
Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura .....	3
Kultur ekintzak .....	2
Kultur ondarea .....	2
Kirola .....	1
Beste gai batzuk .....	1
Kontratazioko, ondareko eta administrazio erantzukizuneko erregimena .....	1
<b>Lana eta Gizarte Segurantzza .....</b>	<b>3</b>
Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura .....	2
Lana .....	1

### 3. ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO ESTADISTIKA

Administrazio bakoitzari dagokion kexen proportzioa kontuan izanik, 1999an ere 1998an gertatu zen alderantzizko joerari eusten zaiola ikusten da. Urte horretan tokiko administrazioak Eusko Jaurlaritzako administrazioak baino kexa gehiago jaso zituen lehenengo aldiz.

Honela, tokiko administrazioaren jarduerak eragindako erreklamazioak kopuru osoaren %40,79a dira, Eusko Jaurlaritzari dagokion %36,10aren aldean.

Foru administrazioak eta Arartekoaren ikerketa-esparruko beste erakunde batzuek beren kudeaketagatik jaso duten kexa-portzentaia iaizkoa baino handixeagoa izan da.

**Zuzenean bideratutako kexen banaketa,  
eragindako administrazioen arabera**

	Kop.	%
Tokiko administrazioa .....	383	40,79
Eusko Jaurlaritza .....	339	36,10
Foru administrazioa .....	164	17,46
Estatuko administrazioa .....	24	2,56
Justizia .....	14	1,49
Erakunde Publikoak .....	14	1,49
Eusko Legebiltzarra .....	1	0,11
<b>Guztira .....</b>	<b>939</b>	<b>100</b>

(Ikus 4. diagrama eranskinean)

**A) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Eusko Jaurlaritzaren) aurka aurkeztutako kexak**

**- Banaketa alorren arabera**

Aurreikus zitekeen moduan, Eusko Jaurlaritzak eskuduntza zabalak ditueneko sailak (Hezkuntza, Funtzio Publikoa, Osasuna, Hirigintza eta Etxebizitza eta Herrizaingoa) kexa gehien jasotzen dituztenak dira. Jasotako kexa guztiak alorren arabera banatzean ez bezala, Ogasunak beste alor batzuk baino pisu erlatibo txikiagoa dauka Eusko Jaurlaritzaren Administrazioaren jardueren eta ez-egiteen aurka ezarritako kexei dagokienez. Izan ere, Ogasun alorrean Eusko Jaurlaritzak oso jarduera gutxi ditu aldundien eta udalen aldean. Antzeko zerbait gertatzen da Gizarte Ongizateari buruzko kexekin.

**Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Eusko Jaurlaritzaren) aurka aurkeztutako kexen banaketa, alorren arabera**

	Kop.	%
Hezkuntza .....	72	21,24
Funtzio publikoa .....	60	17,70
Osasuna .....	58	17,11
Hirigintza eta Etxebizitza .....	43	12,69
Herrizaingoa .....	37	10,92
Gizarte Ongizatea .....	21	6,19
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa ...	11	3,24
Justizia .....	9	2,66
Herri Lanak eta Zerbitzuak .....	9	2,66
Kultura eta Elebitasuna .....	7	2,06
Ogasuna .....	6	1,77
Ingurugiroa .....	3	0,88
Lana eta Gizarte Segurantza .....	3	0,88
<b>Guztira .....</b>	<b>339</b>	<b>100</b>

(Ikus 5. diagrama eranskinean)

### - Banaketa sailen arabera

1999an Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa eta Lana eta Gizarte Segurantzza Sailen jardueren aurkako kexa-kopurua nabarmen igo da.

Hezkuntza Saila kexa gehien jaso dituen izanik ere, Arartekoak oso portzentaia txikian atzeman du administrazioaren irregulartasunik, aurrerago ikusiko dugun bezala.

#### ***Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren (Eusko Jaurlaritzaren) aurka aurkeztutako kexen banaketa, sailen arabera***

	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa .....	101	29,79
Osasuna .....	73	21,53
Herrizaingoa .....	45	13,28
Lurraldearen Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiroa .....	45	13,28
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzza .....	32	9,44
Ogasuna eta Herri administrazioa .....	13	3,83
Garraioak eta Herri Lanak .....	13	3,83
Industria, Merkataritza eta Turismoa .....	9	2,66
Nekazaritza eta Arrantza .....	4	1,18
Kultura .....	4	1,18
<b>Guztira .....</b>	<b>339</b>	<b>100</b>

(Ikus 6. diagrama eranskinan)

### B) Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexak

#### - Banaketa lurraldeen arabera

Aurrez ikus zitekeen bezala, Bizkaiko foru administrazioak jaso ditu kexa gehien 1999 urtean zehar, aurreko urteetan bezalaxe, hau da, Gipuzkoakoak eta Arabakoak baino askoz ere kexa gehiago.

Kexa-kopuruari dagokionez, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien jardueren aurka egindako kexak gutxitu dira. Hain zuzen ere, Bizkaiko Foru Aldundiak iaz baino 11 kexa gutxiago jaso ditu, Gipuzkoakoak 9 gutxiago, eta Arabakoak, aldiz, 4 gehiago.

#### ***Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexen banaketa lurraldeen arabera***

	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Bizkaiko Foru Aldundia .....	99	60,37
Gipuzkoako Foru Aldundia .....	36	21,95
Arabako Foru Aldundia .....	29	17,68
<b>Guztira .....</b>	<b>164</b>	<b>100</b>

(Ikus 4. diagrama eranskinan)



### - Alorren araberako banaketa

Ogasun alorra da, aurreko ekitaldian bezalaxe, lurralde historikoetako foru administrazioen aurka Arartekoan egiten diren kexa gehien eragiten duena, erreklamazioen %37a hain zuzen, guztira 61 kexa.

Osasun eta Gizarte Ongizatea alorrak, 55 kexekin, gertutik jarraitzen dio foru aldundien jardura aztertzeko bideratutako espediente-kopuruari begira. 55 kexa horietatik 44 Bizkaiko Foru Aldundiari dagozkio, eta aldundi honetan Osasun eta Gizarte Ongizatea alorrak Ogasun alorrak baino %9 gehiago jaso ditu.

#### **Foru aldundien aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Ogasuna .....	9	35	17	61	37,20
Gizarte Ongizatea .....	6	44	5	55	33,54
Herri Lanak eta Zerbitzuak .....	2	11	5	18	10,98
Funtzio Publikoa .....	3	5	8	4,88	
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa .....	4	3	1	8	4,88
Herrizaingoa .....	4	1	-	5	3,05
Kultura eta Elebitasuna .....	2	1	1	4	2,44
Ingurugiroa .....	1	1	1	3	1,83
Hirigintza eta Etxebizitza .....	1	-	-	1	0,60
Osasuna .....	-	-	1	1	0,60
Guztira .....	29	99	36	164	100

(Ikus 7. diagrama eranskinean)

### C) Tokiko administrazioaren aurka aurkeztutako kexak

#### - Banaketa lurraldeen arabera

Euskal Autonomia Erkidegoko udalen aurka egindako kexak direla-eta, Gipuzkoako udalen aurkako kexa-kopuruaren murrizte nabarmena da azpimarragarriena: 1998ko 176tik 1999ko 95era jaitsi dira, eta %32,59tik %24,80ra, alegia.

Bizkaia da orotara erreklamazio gehien jaso dituen lurraldea, hauek 1998 urtearen aldean murriztu badira ere. Ondoren Gipuzkoa darraio, eta, azkenik, Araba da –biztanle gutxieneko lurraldea– erreklamazio gutxien jaso duena.

Bilbo, 82 erreklamaziorekin, Donostia, 44rekin, eta Gasteiz, 31rekin, Tokiko administrazioaren aurkako kexa gehien jaso dituzten udalak dira.

Hiru lurralde historikoetako hiriburuez gain, Bizkaiko Portugaletak, Barakaldok, Santurtzik, Basaurik, Getxok eta Sestaok, eta Gipuzkoako Irunek, Errenteriak eta Hondarribiak ere kexa-kopuru nabarmena jaso dute.

**Tokiko administrazioen aurka aurkeztutako kexen banaketa**

	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Bizkaiko udalak .....	213	55,61
Gipuzkoako udalak .....	95	24,81
Arabako udalak .....	55	14,36
Bizkaiko mankomunitate, partzuergo eta parkeak ...	13	3,40
Arabako administrazio batzarrak .....	4	1,04
Gipuzkoako mankomunitate, partzuergo eta parkeak .....	3	0,78
<b>Guztira .....</b>	<b>383</b>	<b>100</b>

**Autonomia Erkidegoko udalen eta administrazio batzarren aurka aurkeztutako kexak**

<b>Arabako udalak</b>	<b>Kop.</b>	<b>Arabako administrazio batzarrak</b>	<b>Kop.</b>
Vitoria/Gasteiz .....	31	Antoñana .....	1
Barrundia .....	3	Berantevilla .....	1
Laguardia .....	3	Lezama .....	1
Laudio .....	3	Salinillas de Buradón .....	1
Salvatierra/Agurain .....	3	<b>Guztira .....</b>	<b>4</b>
Amurrio .....	2		
Aramaio .....	2		
Arraia-Maeztu .....	1		
Asparrena .....	1		
Ayala/Aiara .....	1		
Labastida .....	1		
Lapuebla de Labarca .....	1		
Valdegovía .....	1		
Zigoitia .....	1		
Zuia .....	1		
<b>Guztira .....</b>	<b>55</b>		

<b>Bizkaiko udalak</b>	<b>Kop.</b>		
Bilbao .....	82	Derio .....	1
Portugalete .....	14	Durango .....	1
Barakaldo .....	13	Erandio .....	1
Santurtzi .....	13	Errigoiti .....	1
Basauri .....	11	Forua .....	1
Getxo .....	10	Gautegiz-Arteaga .....	1
Sestao .....	7	Gernika-Lumo .....	1
Galdakao .....	5	Górliz .....	1
Abanto y Ciervana/ Abanto Zierbena .....	4	Leioa .....	1
Sopelana .....	4	Lekeitio .....	1
Amorebieta-Etxano .....	3	Mallabia .....	1
Muskiz .....	3	Markina-Xemein .....	1
Valle de Trápaga/Trapagaran....	3	Meñaka .....	1
Zalla .....	3	Mungia .....	1
Alonsotegi .....	2	Muxika .....	1
Arrigorriaga .....	2	Ondarroa .....	1
Bermeo .....	2	Ortuella .....	1
Ermua .....	2	Plentzia .....	1
Etxebarria .....	2	Sondika .....	1
Sopuerta .....	2	Zamudio .....	1
Arrankudiaga .....	1	Zeanuri .....	1
Bakio .....	1	Zeberio .....	1
Castillo-Elejabeitia .....	1	Zierbena .....	1
		Guztira .....	213

<b>Gipuzkoako udalak</b>	<b>Kop.</b>		
Donostia/San Sebastián .....	44	Ataun .....	1
Irun .....	10	Beasain .....	1
Errenteria .....	6	Villabona .....	1
Hondarribia .....	4	Elgoibar .....	1
Lasarte-Oria .....	3	Getaria .....	1
Oñati .....	3	Ikaztegieta .....	1
Pasaia .....	3	Itsasondo .....	1
Azkoitia .....	2	Lazkao .....	1
Deba .....	2	Ordizia .....	1
Eibar .....	2	Urnieta .....	1
Legazpi .....	2	Zumarraga .....	1
Tolosa .....	2		
Arrasate .....	1	Guztira .....	95

### - Banaketa alorren arabera

Aurreko urteetan bezala, tokiko administrazioen jarduerak eragindako kexak nahiko modu homogeneoan banatzen dira udalek eskuduntza garrantzitsuak dituzten alor desberdinen artean. Halakoxeak dira Herri Lan eta Zerbitzuak, Hirigintza eta Etxebizitza, Ingurugiroa eta Ogasuna alorrak.

Bizkaiko udaletako Herri Lan eta Zerbitzuak alorrean, 1999ko kexa-kopurua iazkoa halako bi baino handiagoa izan da. Gipuzkoan eta Araban ere erreklamazio ugari jaso dira alor honetan eta, honenbestez, aurreneko lekuan jarri da kexa-kopuruari dagokionez.

#### **Udalen aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Herri Lanak eta Zerbitzuak .....	11	55	21	87	23,71
Hirigintza eta Etxebizitza .....	13	32	25	70	19,07
Ingurugiroa .....	8	44	16	68	18,53
Ogasuna .....	6	43	17	66	17,99
Herrizaingoa .....	7	21	5	33	8,99
Gizarte Ongizatea .....	3	6	4	13	3,54
Funtzio Publikoa .....	4	5	3	12	3,27
Osasuna .....	2	2	1	5	1,36
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa .....	2	2	1	5	1,36
Hezkuntza .....	2	2	-	4	1,09
Kultura eta Elebitasuna .....	1	1	2	4	1,09
Guztira .....	59	213	95	367	100

(Ikus 8. diagrama eranskinean)

#### **Tokiko administrazioaren menpeko beste erakunde batzuen aurka aurkeztutako kexak**

	Guztira
Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa .....	11
Txingudi, S.A.-ko Zerbitzuak .....	3
Mebisa-Bilboko Metroa .....	2
Guztira .....	16

### D) Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako kexak

Aurrez aztertutako Eusko Jaurlaritzako, foru zein tokiko administrazioen aurkako kexez gain, erakunde honetan Arartekoaren ikerketa esparruaren barruan jarduten duten beste administrazio batzuen aurkako kexa batzuk jaso dira, gutxi izan arren iaz baino kopuru dezente handiagoa osatzen dutenak, alegia. Erakunde publikoen, zuzenbide publikoko organizazio korporatiboen (elkargo organizazioak), etab.en aurkako kexak dira. Atal honetan Estatuaren administrazioaren aurkako kexa batzuk ere biltzen dira, hain justu Herriaren Defendatzaileak Arartekoaren esku utzi dituenak, honek iker ditzan.

#### **Beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako kexak**

	Kop.	%
Estatuaren administrazioa .....	24	45,28
Justizia .....	14	26,42
Erakunde publikoak .....	14	26,42
Eusko Legebiltzarra .....	1	1,88
Guztira .....	53	100

### E) Justizia administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen administrazio zerbitzuen aurkako kexak

Ararteko erakundea arautu zuen 3/85 Legearen 9.2. artikulua araberan, Justizia administrazioaren funtzionamendua aztergai duten kexak kasu bakoitzean ikertzeko edo erabakitze eskuduntza duen organora zuzendu behar dira.

Horregatik, aparteko botere baten funtzionamenduaren aurkako salaketak direnez, kexa-kopuru hau bereizi behar da euskal administrazio publikoen aurka jasotako erreklamazioak zenbatzeko orduan.

Eusko Legebiltzarrari aurkeztutako aurreko txostenetan azaldu den bezala, kasuotan erakundeak Ministerio Fiskalari, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Lehendakariari, edo, dagokionean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari igortzen dio kexa, instantziok ikertze lanak burutu eta erakundeari egindako gestioen berri eman diezaioten.

1999. urtean, Justizia administrazioak Euskal herriko Autonomia Erkidegoan dituen administrazio-zerbitzuen funtzionamendua aztergai zuten 8 kexa-espeditente bideratu dira guztira.

Justizia administrazioak Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan dituen administrazio zerbitzuen aurkako kexak .....	8
--	---

#### 4. LURRALDE ESTATISTIKA (KEXEN BANAKETA LURRALDEEN ARABERA)

Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanleak izan dira, 1999an ere, Arartekoari kexa gehien aurkeztu dizkiotenak: 649 kexa guztira.

Gipuzkoan 372 kexa jaso dira. Lurralde honetan gai berari dagozkion banakako kexez (62) osatutako multzo bat dagoenez, erreklamazio bakartzat hartzen baditugu, Gipuzkoan jasotako kexak orotara 311 direla ondoriozta dezakegu.

Bai Bizkaian baita Gipuzkoan ere erreklamazio kopurua nabarmen jaitsi da. Araban, lehengo urtean –beste bi lurraldeetan ez bezala– kexak murriztu baziren ere, 1999ko kopuruak iazkoari eutsi dio gutxi gorabehera.

##### - Kexen banaketa lurraldeen arabera

###### *Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera*

	1989	1999	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999
Bizkaia	288	284	293	332	376	349	528	746	915	1.471 (764) <sup>1</sup>	649
Gipuzkoa	188	195	244	241	250	234	281	448	663	905 (471) <sup>2</sup>	372 (311) <sup>3</sup>
Araba	97	125	158	201	182	160	328	446	371	244	237

<sup>1</sup> Gai bakar bati buruzko 708 kexa kexa bakartzat hartuz lortzen den emaitza.

<sup>2</sup> Gai bakar bati buruzko 435 kexa kexa bakartzat hartuz lortzen den emaitza.

<sup>3</sup> Gai bakar bati buruzko 62 kexa kexa bakartzat hartuz lortzen den emaitza.

(Ikus 9. diagrama eranskinan)

##### - Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera 10.000 biztanleko

Lurralde historikoaren arabera kexen jatorriaren konparazio azterketa bat egiteko, lurralde bakoitzetik jasotako erreklamazio zenbaki osoa eta bakoitzaren populazioa erlazioatuko ditugu. Ondorengo koadroan, 10.000 biztanleko lurralde bakoitzetik jasotako kexei dagozkien datuak eskaintzen ditugu.

###### *Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera 10.000 biztanleko*

	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999
Araba	4,3	4,5	5,8	7,4	6,7	5,9	11,59	15,92	13,24	8,37	8,37
Bizkaia	3,3	2,7	3,6	3,5	3,7	3,5	4,54	6,55	8,03	12,95 (6,73) <sup>1</sup>	5,74
Gipuzkoa	3	2,9	2,5	2,8	3,3	3	4,11	6,66	9,77	13,30 (6,93) <sup>2</sup>	5,56 (4,64) <sup>3</sup>

<sup>1</sup> Gai bakar bati buruzko 708 kexa kexa bakartzat hartuz lortzen den emaitza.

<sup>2</sup> Gai bakar bati buruzko 435 kexa kexa bakartzat hartuz lortzen den emaitza.

<sup>3</sup> Gai bakar bati buruzko 62 kexa kexa bakartzat hartuz lortzen den emaitza.

(Ikus 10. diagrama eranskinan)

### - Kexen banaketa lurralde bakoitzean

Logikari jarraikiz, 1999an Ararteko erakundeak aurkeztu dituzten herritarren jatorriari dagokionez, berriz ere hiru hiriburu nagusitasuna nabarmentzen da.

Haatik, herritarrek ez dute lurralde desberdinetan modu berean jokatu. Araban Gasteizko herritarrek egindako kexen %72,95a bereganatzen duten bitartean, Gipuzkoako kexen banaketan oreka dago hiriburuaren eta lurralde historikoaren gainontzeko udalen artean (%46,30a, %53,70aren aldean), eta Bizkaian hiriburutik kanpoko herrietan bizi diren pertsonak aurkezten dute kexen %56,24a.

#### **Kexen banaketa hiriburutik datozen edo lurraldeko beste udalerririk batzuetatik datozen kontuan izanik**

<b>Araba</b>	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Vitoria/Gasteiz .....	180	75,95
Gainerako udalerririk .....	57	24,05
<b>Guztira .....</b>	<b>237</b>	<b>100</b>

<b>Bizkaia</b>	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Bilbao .....	284	43,76
Gainerako udalerririk .....	365	56,24
<b>Guztira .....</b>	<b>649</b>	<b>100</b>

<b>Gipuzkoa</b>	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Donostia/San Sebastián .....	144	46,30
Gainerako udalerririk .....	167	53,70
<b>Guztira .....</b>	<b>311</b>	<b>100</b>

(Ikus 11. diagrama eranskinean)

### - Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaz kanpotik etorritako kexak

Gehienetan gertatzen den moduan, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaz kanpotik datozen kexa gutxi batzuk daude. 1999. urtean 25 izan dira, 19 beste autonomia erkidego batzuetatik eta 6 atzerriatik datozenak, hain zuzen ere.

<b>Beste autonomia erkidego batzuetatik datozen kexak</b>	<b>Kop.</b>
Madrileko A.E. ....	4
Andaluziako A.E. ....	3
Aragoiko A.E. ....	3
Galiziako A.E. ....	3
Gaztela-Leongo A.E. ....	2
Errioxako A.E. ....	2
Kantabriako A.E. ....	1
Kataluniako A.E. ....	1
<b>Guztira</b> .....	<b>19</b>

<b>Beste estatu batzuetatik datozenak</b>	<b>Kop.</b>
Peru .....	2
Estatu Batuak .....	1
Frantzia .....	1
Maroko .....	1
Hego Afrika .....	1
<b>Guztira</b> .....	<b>6</b>

## 5. PROZEDURARI BURUZKO ESTADISTIKA (KEXEN EGOERA)

Ekitaldi honetan 584 erreklamazio bideratu dira. Hauetako gehienak 1999 urtean aurkeztu badira ere, 123 aurreko urteetan egindakoak ziren, ezinezkoa gertatu baitzen aurkeztu ziren urtean bertan bideratzea.

Arartekoak 1999an aztertu eta ikertu dituen erreklamazioetatik 194tan eragindako administrazioaren jardueran irregularitasunen bat zegoela erabaki du. Beraz, erreklamatzailen %33,22ak funtsezko arrazoiak zituen Arartekoari kexa egiteko.

	<b>Guztira</b>	<b>Administrazioaren % Irregularitasuna</b>	<b>%</b>	<b>Irregularitasunik ez</b>	<b>%</b>	<b>Beste batzuk</b>	<b>%</b>
1999an bideraturiko kexak	584	194	33,22	365	62,50	25	4,28

(Ikus 12. diagrama eranskinean)



**- 1999an burututako espedienteak, hasierako urteen arabera sailkatuak**

1999an guztiz bideratu diren 461 kexekin batera, ekitaldi honetan aurreko urteetan egindako erreklamazioei zegozkien 123 espedienteren tramitazioa amaitu da. Kopuru honen gehiengoa 1998ko bigarren seihilekoan aurkeztutako kexek osatzen dute.

<b>Hasierako urtea</b>	<b>Kop.</b>
1995 .....	2
1996 .....	3
1997 .....	22
1998 .....	96
1999 .....	461
1999an burututako espedienteak guztira .....	584

**- 1999an aurkeztutako kexak: burutuak eta burutu gabek**

1999an aztertzen hasi diren euskal administrazio publikoen aurkako kexen %54aren tramitazioa aurreko urteko burutu da, %46aren tramitazioa abenduaren 31n oraindik burutu gabe zegoen bitartean. Jakina, kopuru honek data horretarako zabaldu diren kexa-espediente guztiak biltzen ditu barnean.

***Kexa espedienteen egoera Arartekoaren jardura-alorren arabera***

	<b>Burutu gabe</b>	<b>Burutuak</b>	<b>Administrazioaren Irregularitasuna</b>	<b>Irregularitasunik Ez</b>	<b>Beste batzuk</b>
Ogasuna	64	80	34	35	11
Ingurugiroa	46	30	8	17	5
Herri Lanak eta Zerbitzuak	51	65	20	35	10
Hirigintza eta Etxebizitza	51	63	7	52	4
Gizarte Ongizatea	62	27	4	18	5
Funtzio Publikoa	34	47	17	24	6
Hezkuntza	10	67	3	60	4
Herrizaingoa	40	34	14	18	2
Osasuna	23	41	10	28	3
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	12	11	2	8	1
Kultura eta Elebitasuna	8	7	5	2	-
Justizia	5	3	1	1	1
Lana eta Gizarte Segurantzza	1	2	-	2	-
Guztira	407	477	125	300	52

**- Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Eusko Jaurlaritzaren) aurkako kexen egoera**

1999. urtean zehar, hizkera arruntean Eusko Jaurlaritza izena hartzen duen Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren aurka urte horretan bertan aurkeztu diren 209 kexen gainean erabaki du Arartekoak. Kopuru hau erreklamazioen %61,47a da. Erabaki horien %22,96an administrazioaren jardura okerra atzeman da eta onetsi da, beraz, herritarrek azaldutako argudioen baliotasuna.

***Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexen egoeraren azterketa  
Arartekoaren jardura-alorren arabera***

	Burutu gabe	Burutuak	Administrazioaren Irregularitasuna	Irregularitasunik Ez	Beste batzuk
Hezkuntza	7	66	3	60	2
Funtzio Publikoa	27	34	16	13	5
Osasuna	21	38	9	26	3
Hirigintza eta Etxebizitza	18	26	2	23	1
Herrizaingoa	20	16	7	8	1
Gizarte Ongizatea	19	2	-	-	2
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	4	6	2	3	1
Justizia	5	3	1	1	1
Herri Lanak eta Zerbitzuak	2	7	2	1	4
Kultura eta Elebitasuna	4	3	2	1	-
Ogasuna	1	5	4	1	-
Ingurugiroa	2	1	-	-	1
Lana eta Gizarte Segurantza	1	2	-	2	-
Guztira	131	209	48	139	21

**Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexen egoera,  
berori osatzen duten sailen arabera**

	Burutu gabe	Burutuak	Administrazioaren Irregularitasuna	Irregularitasunik Ez	Beste batzuk
Nekazaritza eta Arrantza	3	1	-	1	-
Kultura	2	2	1	1	-
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	21	80	6	69	4
Ogasuna eta Administrazio Publikoa	8	5	2	3	-
Industria, Merkataritza eta Turismoa	2	7	1	4	2
Herrizaingoa	25	19	9	9	1
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza	24	8	3	3	2
Lurralde Antolamendua, Etxebizitza eta Ingurugiroa	19	27	2	23	2
Osasuna	26	48	16	25	7
Garraioak eta Herri Lanak	1	12	8	1	3
<b>Guztira</b>	<b>131</b>	<b>209</b>	<b>48</b>	<b>139</b>	<b>21</b>

**- Foru administrazioen aurkako kexen egoera**

1999. urtean, ekitaldi horretan bertan Ararteko erakundean aurkeztu diren foru aldundien jardueraren aurkako kexa guztietatik 76ren tramitazioa burutu da, kopuru osoaren %46,72arena, alegia.

Erabaki horietan kasuen %30,26an atzeman dira foru administrazioaren jardueraren irregularitasunak.

**Foru aldundien aurkako kexen egoera lurralde historikoen arabera**

	Burutu gabe	Burutuak	Administrazioaren Irregularitasuna	Irregularitasunik Ez	Beste batzuk
Bizkaia	59	39	14	18	7
Gipuzkoa	17	19	4	13	2
Araba	11	18	5	11	2
<b>Guztira</b>	<b>87</b>	<b>76</b>	<b>23</b>	<b>42</b>	<b>11</b>

**Foru aldundien aurkako kexen egoera  
Arartekoaren jarduera-alorren arabera**

	Burutu gabe	Burutuak	Administrazioaren Irregularitasuna	Irregularitasunik Ez	Beste batzuk
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	6	2	-	2	-
Gizarte Ongizatea	37	18	1	14	3
Kultura eta Elebitasuna	2	2	2	-	-
Funtzio Publikoa	3	5	-	5	-
Ogasuna	24	36	15	14	7
Herrizaingoa	3	2	2	-	-
Ingurugiroa	2	1	-	1	-
Herri Lanak eta Zerbitzuak	8	10	3	6	1
Osasuna	1	-	-	-	-
Hirigintza eta Etxebizitza	1	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>87</b>	<b>76</b>	<b>23</b>	<b>42</b>	<b>11</b>

**- Tokiko administrazioen aurkako kexen egoera**

Gure erkidegoko tokiko administrazioei dagokienez, 1999an aurkeztutako kexa guztien erdia baino zertxobait gehiagoren tramitazioa burutu da, hain zuzen 187 kexarena, kopuru osoaren %51,23arena.

Erabaki horietan, kasuen %28,87an atzeman da administrazioaren jarduera okerra.

**Arabako udalen aurkako kexen egoera**

	Burutu gabe	Burutuak	Administrazioaren Irregularitasuna	Irregularitasunik Ez	Beste batzuk
Amurrio	1	1	-	1	-
Aramaio	2	-	-	-	-
Arraia-Maeztu	-	1	-	1	-
Asparrena	-	1	1	-	-
Ayala/Aiara	1	-	-	-	-
Barrundia	2	1	-	1	-
Labastida	-	1	-	-	1
Laguardia	2	-	-	-	-
Lapuebla de Labarca	1	-	-	-	-
Laudio	1	2	-	1	1
Salvatierra/Agurain	2	1	-	1	-
Valdegovía	-	1	-	1	-
Vitoria/Gasteiz	13	18	7	8	3
Zigoitia	1	-	-	-	-
Zuia	-	1	-	1	-
<b>Guztira</b>	<b>26</b>	<b>28</b>	<b>8</b>	<b>15</b>	<b>5</b>

**Arabako administrazio batzarren aurkako kexen egoera**

	Burutu gabe	Burutuak	Administrazioaren Irregularitasuna	Irregularitasunik Ez
Antoñana	-	1	1	-
Berantevilla	-	1	1	-
Lezama	-	1	-	1
Salinillas de Buradón	1	-	-	-
Guztira	1	3	2	1

**Bizkaiko udalen aurkako kexen egoera**

	Burutu gabe	Burutuak	Administrazioaren Irregularitasuna	Irregularitasunik Ez	Beste batzuk
Abanto y Ciérvana/					
Abanto Zierbena	1	3	-	3	-
Alonsotegi	2	-	-	-	-
Amorebieta-Etxano	1	2	1	1	-
Arrankudiaga	1	-	-	-	-
Arrigorriaga	2	-	-	-	-
Bakio	-	1	-	1	-
Barakaldo	4	9	2	7	-
Basauri	3	8	1	3	4
Bermeo	2	-	-	-	-
Bilbao	39	43	12	27	4
Castillo-Elejabeitia	1	-	-	-	-
Derio	1	-	-	-	-
Durango	1	-	-	-	-
Erandio	1	-	-	-	-
Ermua	1	1	1	-	-
Errigoiti	-	1	-	1	-
Etxebarria	-	2	-	2	-
Forua	-	1	-	1	-
Galdakao	3	2	-	2	-
Gautegiz Arteaga	-	1	-	1	-
Gernika-Lumo	1	-	-	-	-
Getxo	9	1	1	-	-
Górliz	1	-	-	-	-
Leioa	-	1	1	-	-
Lekeitio	-	1	-	1	-
Mallabia	-	1	1	-	-
Markina-Xemein	-	1	-	1	-
Meñaka	-	1	-	1	-

	Burutu gabe	Burutuak	Administrazioaren Irregularitasuna	Irregularitasunik Ez	Beste batzuk
Mungia	-	1	1	-	-
Muskiz	-	3	-	2	1
Muxika	1	-	-	-	-
Ondarroa	-	1	1	-	-
Ortuella	-	1	-	1	-
Plentzia	1	-	-	-	-
Portugalete	5	9	1	8	-
Santurtzi	10	3	-	3	-
Sestao	6	1	-	1	-
Sondika	-	1	-	1	-
Sopelana	-	3	1	2	-
Sopuerta	-	2	-	2	-
Valle de Trápaga/Trapagaran	2	1	-	1	-
Zalla	-	3	-	3	-
Zamudio	1	-	-	-	-
Zeanuri	1	-	-	-	-
Zeberio	-	1	-	1	-
Zierbena	-	1	1	-	-
Guztira	101	111	25	77	9

**Gipuzkoako udalen aurkako kexen egoera**

	Burutu gabe	Burutuak	Administrazioaren Irregularitasuna	Irregularitasunik Ez	Beste batzuk
Arrasate	1	-	-	-	-
Ataun	-	1	-	1	-
Azkoitia	-	2	1	1	-
Beasain	1	-	-	-	-
Deba	-	2	-	1	1
Donostia/San Sebastián	25	18	9	5	4
Eibar	1	1	-	1	-
Elgoibar	1	-	-	-	-
Errenteria	3	3	2	1	-
Getaria	-	1	-	1	-
Hondarribia	2	2	1	1	-
Ikaztegieta	1	-	-	-	-
Irun	4	8	3	5	-
Itsasondo	1	-	-	-	-
Lasarte-Oria	1	2	1	1	-
Lazkao	-	1	1	-	-
Legazpi	-	2	-	2	-
Oñati	3	-	-	-	-
Ordizia	1	-	-	-	-
Pasaia	3	-	-	-	-
Tolosa	-	1	1	-	-
Urnieta	1	-	-	-	-
Villabona	1	-	-	-	-
Zumarraga	-	1	-	1	-
<b>Guztira</b>	<b>50</b>	<b>45</b>	<b>19</b>	<b>21</b>	<b>5</b>

**Udalen aurkako kexen egoera Arartekoaren jarduera-alorren arabera**

	Burutu gabe	Burutuak	Administrazioaren Irregularitasuna	Irregularitasunik Ez	Beste batzuk
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	2	3	-	3	-
Gizarte Ongizatea	6	7	3	4	-
Kultura eta Elebitasuna	2	2	1	1	-
Hezkuntza	3	1	-	-	1
Funtzio Publikoa	4	8	1	6	1
Ogasuna	31	35	15	16	4
Herrizaingoa	17	16	5	10	1
Ingurugiroa	41	28	8	16	4
Herri Lanak eta Zerbitzuak	39	47	15	27	5
Osasuna	1	3	1	2	-
Hirigintza eta Etxebizitza	32	37	5	29	3
Guztira	178	187	54	114	19

**Tokiko administrazioaren beste erakunde batzuen aurkako kexen egoera, dagokion erakunde publikoaren arabera**

	Burutu gabe	Burutuak	Irregularitasunik Ez
Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa	8	3	3
Txingudi S.A.-ko Zerbitzuak	1	2	2
Mebisa-Bilboko Metroa	2	-	-
Guztira	11	5	5

**Tokiko administrazioaren beste erakunde batzuen aurkako kexen egoera, Arartekoaren jarduera-alorren arabera**

	Burutu gabe	Burutuak	Irregularitasunik Ez
Ogasuna	8	4	4
Ingurugiroa	1	-	-
Herri Lanak eta Zerbitzuak	2	1	1
Guztira	11	5	5



## 6. ESTADISTIKA SOZIOLOGIKOA (SEXUA, HIZKUNTZA, ERREKLAMATZEKO MODUA)

### - Kexagileen ezaugarriak

1999an Ararteko erakundearen aurkeztutako kexen azterketa soziologikoak taldeen erreklamazioek hartu duten garrantzia nabarmentzen du, guztira %14,65a osatzen baitute. Banakako kexei dagokionez, emakumezkoen kexen portzentaia %45,19tik %38,97ra jaitsi da eta, hortaz, 1997. urtearen mailan jarri da, gizonetzkoen kexen %46,84a burutu duten bitartean.

Azaldutako kexa guztiak kontuan izanik, gizon eta emakume erreklamatzailen portzentaiak ez du guztiz argitzen generoaren arabera Arartekoari kexa bat azaltzeko orduan. Horregatik, gainera bada ere, datuak alorrez alor aztertu behar dira. Azterketa hori egin dugu txosten honen atal batean, hain zuzen, emakumeen berariazko arazoari buruzkoan.

#### *Jasotako kexen banaketa kexagileen ezaugarrien arabera*

<b>Kexagileen ezaugarriak</b>	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>
Gizonetzkoak .....	590	45,99
Emakumezkoak .....	500	38,97
Taldeak .....	188	14,65
Izenik gabekak .....	5	0,39
Guztira .....	1.283	100

(Ikus 13. diagrama eranskinan)

### - Kexa idaztean erabilitako hizkuntza

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionez, euskaraz soilik zein ele bietan idatzitako kexa-kopurua %5,65koa izan da.

Arartekoaren erreklamazioa bideratzeko duen irizpidea herritarrak berau aurkeztean hautatutako hizkuntza errespetatzea da, betiere gure autonomia erkidegoan hizkuntza normalizazioarako gaietan indarrean dauden legeak betetzeari estu eutsiz.

Txostenaren atal honetan aurrez aipatu den bezala, 1999an, multzo bat osatzen zuten 62 kexa berdinean aurkeztu ziren. Horiek gauzatzearren, kexa-sustatzailen erreklamazio inprimaki bat banatu zuten salatutako arazoak kaltetutako bizilagunen artean; Arartekoak ez baina beraiek prestatutako inprimaki hori erdaraz soilik idatzia zegoenez gero, kexagileek ezin izan zuten beren hizkuntza aukera egin. Horregatik, kexa-multzo hau unitate bakartzat hartu da ondorengo datu taulan.

**Kexen banaketa erabilitako hizkuntzaren arabera**

Hizkuntza	Kopurua	%
Gaztelania .....	1.153	94,35
Euskara .....	54	4,42
Ele biak .....	15	1,23
Guztira .....	1.222	100

(Ikus 14. diagrama eranskinean)

**- Kexak aurkezteko modua**

Azkenik, kexen aurkezteko moduari buruz, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan harrera zuzeneko bulegoak ezartzearen ondorioz azken urteotan izandako aldaketa finkatu da. Iazko txostenean azaldu zen bezala, gutuna, 1996 urterarte ez bezala, ez da jada erreklamazioa egiteko modurik erabiliena. Hain zuzen ere, 1999an kexagileen %28,29ak soilik erabili du gutuna kexa burutzeko garaian. Askoz ere gehiago izan dira beren kexa aurkezteko Arartekoaren harrera zuzeneko bulego batera etorri diren herritarrak: kexagileen %66,25ak gauzatu zuen bere kexa erakundearen bulegoetan. Faxez kexen %5,38a jaso zen, eta kexa bat bakarrik jaso zen posta elektronikoz bidez. Kopuru hori 2000. urtean zalantzarik gabe gehitu egingo da, izan ere, aurtengo urtarrilaren 1ean Arartekoak web orrialde bat zabaldu du Interneten. Erakundeaz, jardueraz, txostenez eta sarbideaz informazio zabala eskaintzeaz gain, web orrialdean sartzen diren pertsonen eskura jartzen zaie kexa aurkezteko formatu bat. Bertan eskatzen diren datuak bete eta gero, Interneteko toki horretatik bidal dakiok zuzenean Arartekoari.

**Kexen banaketa aurkezteko moduaren arabera**

Jaso diren modua	Kopurua	%
Bulegoetan zuzenean .....	850	66,25
Postaz .....	363	28,29
Faxez .....	69	5,38
Interneten bidez .....	1	0,08
Guztira .....	1.283	100

(Ikus 15. diagrama eranskinean)

**7. HARRERA ZUZENeko BULEGOEN JARDUERA (BISITAK)**

1996ko uztailean eta irailean zabaldu ziren, hurrenez hurren, Gasteizen ordurako ezarria zegoenari gehitzen zitzaizkion Donostiako eta Bilboko Arartekoaren harrera

zuzeneko bulegoak. Orduz geroztik erakundeak hiru lurralde historikoen hiriburuetan finkatu ditu arreta bulegoak. Bulego berriak zabalduz Ararteko erakundea herritarrengana gerturatu nahi zen, euskal administrazio publiko batekin edo beren menpeko zerbitzu publiko batekin arazoak dituzten pertsonak erraz hel zitezten beraiei erantzuteko sortu den zerbitzu batera.

1999an, guztira 2.363 bisita jaso dira harrera zuzeneko bulegoetan, iaz baino %23 gutxiago, alegia. Bisiten %50,83a Bilboko bulegora joan zen, %31,61a Donostiakora, eta %17,56a Gasteizkora. Bulego desberdinen arabera banaketa portzentaiok eta 1998koak berdintsuak dira.

### **Harrera zuzeneko bulegoetara egindako bisita kopurua**

<b>Herria</b>	<b>Bisita kop.</b>	<b>%</b>
Bilbao .....	1.201	50,83
Donostia .....	747	31,61
Gasteiz .....	415	17,56
Guztira .....	2.363	100

(Ikus 16. diagrama eranskinean)

### **- Harrera zuzeneko bulegoetara jo duten pertsonen ezaugarriak**

Emakumezko baino gizonezko gehiagok jo dute 1999an Arartekoak hiru euskal hiriburuetan dituen harrera zuzeneko bulegoetara. Hori hiru bulegoetan gertatu da gainera: gizonezkoen portzentaia %48,24a da, emakumezkoen %39,15aren aldean. Bikoteek eta taldeek egindako bisitak, bi kasuetan, %6aren inguruan daude.

### **Harrera zuzeneko bulegoetara joan diren bisitarien ezaugarriak**

	<b>Bilbao</b>	<b>Donostia</b>	<b>Gasteiz</b>	<b>Guztira</b>	<b>%</b>
Emakumezkoak	471	290	164	925	39,15
Gizonezkoak	589	354	197	1.140	48,24
Bikoteak	51	66	29	146	6,18
Taldeak	90	37	25	152	6,43
Guztira	1.201	747	415	2.363	100

(Ikus 17. diagrama eranskinean)

### **- Harrera zuzeneko bulegoetara jo duten pertsonen adina**

Arartekoaren arreta bulegoak bisitatu dituzten pertsonak adin-taldean arabera aztertzean, ia bisiten erdia 36 eta 55 urte bitarteko pertsonen burutzen dutela ikusten da. 26 eta 35 urte bitarteko, 56 eta 65 urte bitarteko eta 65 urtez gorako pertsonen bisita asko ere jaso dira.

Adin-talde desberdinak osatzen dituzten pertsonen bisita portzentaiak lehengo urtekoen ia berdinak dira. Azpimarratzekoak dira 25 urtez beherako pertsonen bisita portzentaia baxua eta 65 urtez gorako pertsonen bisita kopuru handia.

**Harrera zuzeneko bulegoetara joan diren bisitarien banaketa adin-taldean arabera**

Adina	Bilbao	Donostia	Gasteiz	Guztira	%
25 arte	46	24	18	88	3,72
26-35	169	136	126	431	18,24
36-45	399	166	81	646	27,34
46-55	221	179	91	491	20,78
56-65	181	134	42	357	15,11
66 edo gehiago	185	108	57	350	14,81
Guztira	1.201	747	415	2.363	100

(Ikus 18. diagrama eranskinean)

**- Harrera zuzeneko bulegoetara egindako bisitetatik zenbat bilakatu ziren kexa**

Jasotako bisita guztietatik 786 bihurtu ziren kexa, %33,26a guztira.

Gainontzeko bisitei dagokienez, batzuetan, Arartekoaren jarduera esparrua gaintzen zuten, ezin ziren kexa bezala bideratu; beste batzuetan, beharrezkoa zen agiri gehiago ekartzea edo zegozkien administrazio organoen aurrean aurrez gestioak burutzea; eta, azkenik, beste kasu batzuetan, azaldutako gaiek ez zuten kexa bihurtzeko oinarririk, bisitak kexa-espeditante baten tramitazioarekin zuen zerikusia, edo herritarrak bere gai zehatzean egin beharreko izapideei buruzko informazioa nahi zuen.

**Kexa bihurtu diren bisitak**

	Kopurua	%
Bilbao .....	470	59,80
Donostia .....	214	27,23
Gasteiz .....	102	12,97
Guztira .....	786	100

(Ikus 20. diagrama eranskinean)

**A) GASTEIZKO HARRERA ZUZENKO BULEGOA**

Aurten 560 bisita jaso dira, hilabeteko batez beste 34,6, alegia. Ia %90ean banakako bisitak izan dira, eta gainontzekoak bikoteek zein taldeek burutu dituzte.

**Gasteizko bulegora joandako bisitarien ezaugarriak**

	Kopurua	%
Gizonezkoak .....	197	47,5
Emakumezkoak .....	164	39,5
Bikoteak .....	29	7
Taldeak .....	25	6
Guztira .....	415	100

**- Gasteizko bulegora jo duten pertsonen adina**

Adinari dagokionez, gazteen taldea (25 urtez beherakoak) eta 56 eta 65 urte bitarteko pertsonena izan dira erakundera zuzenean bisita gutxien egin dituzten taldeak; biek batera %14,46a osatu dute. Gainontzeko bisitak ondorengo koadroan azaltzen diren hiru adin tarteei dagozkie, eta hiruren arteko aldea oso txikia da.

**Gasteizko bulegora joandako bisitarien banaketa adin-taldean arabera**

Adina	Kopurua	%
25 arte .....	18	4,34
26-35 .....	126	30,36
36-45 .....	81	19,52
46-55 .....	91	21,93
56-65 .....	42	10,12
66 edo gehiago .....	57	13,73
Guztira .....	415	100

**- Bisitarien jatorri geografikoa**

Bisitarien jatorri geografikoari buruz, %96,63a Arabatik datoz, eta hauetatik %84,5a Gasteiztik.

**Gasteizko bulegora joandako bisitarien banaketa beren jatorri geografikoaren arabera**

	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>
Araba-hiriburua .....	339	81,69
Araba-beste herri batzuk .....	62	14,94
Gipuzkoa .....	9	2,17
Bizkaia .....	3	0,72
Beste batzuk .....	2	0,48
<b>Guztira .....</b>	<b>415</b>	<b>100</b>

(Ikus 19. diagrama eranskinean)

**B) DONOSTIAKO HARRERA ZUZENeko BULEGOA**

Bulego honetan 747 bisita jaso dira 1999an zehar. Bisitarien hilabeteko batezbestekoa %67,9koa izan da. Horietatik guztietatik 214 bihurtu ziren kexa formal.

**Donostiako bulegora joandako bisitarien ezaugarriak**

	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>
Gizonezkoak .....	354	47,39
Emakumezkoak .....	290	38,82
Bikoteak .....	66	8,84
Taldeak .....	37	4,95
<b>Guztira .....</b>	<b>747</b>	<b>100</b>

**- Donostiako bulegora jo duten pertsonen adina**

Adinari dagokionez, 46 eta 55 urte bitarteko pertsonak izan dira sarrien azaldu direnak, eta 26-35 bitartekoak eta 36-45 bitartekoak ere askotan azaldu dira. 55 urtez gorakoak ere (242) maiz joan dira.

**Donostiako bulegora joandako bisitarien banaketa  
adin-taldean arabera**

<b>Adina</b>	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>
25 arte .....	24	3,21
26-35 .....	136	18,21
36-45 .....	166	22,22
46-55 .....	179	23,96
56-65 .....	134	17,94
66 edo gehiago .....	108	14,46
Guztira .....	747	100

**- Bisitarien jatorri geografikoa**

Donostiako harrera zuzeneko bulegora joan diren pertsonetatik %99 Gipuzkoakoak dira; hiriburuak bi heren hartzen ditu eta gainerako herriek heren eskas bat.

**Donostiako bulegora joandako bisitarien banaketa beren jatorri  
geografikoaren arabera**

	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>
Gipuzkoa-hiriburua .....	508	68
Gipuzkoa-beste herri batzuk .....	234	31,33
Bizkaia .....	2	0,27
Beste batzuk .....	3	0,40
Guztira .....	747	100

(Ikus 19. diagrama eranskinean)

**C) BILBOKO HARRERA ZUZENKO BULEGOA**

Bulego honetan 1.201 bisita jaso dira 1999an. Hilabeteko batez beste 109 bisita izan direla adierazten du horrek. Horietatik guztietatik 470 bihurtu ziren kexa formal.

**Bilboko bulegora joandako bisitarien ezaugarriak**

	Kopurua	%
Gizonezkoak .....	471	39,22
Emakumezkoak .....	589	49,04
Taldeak .....	51	4,25
Bikoteak .....	90	7,49
Guztira .....	1.201	100

**- Bilboko bulegora jo duten pertsonen adina**

Bulegora joan diren pertsonen adinari dagokionez, 36 eta 45 urte bitarteko pertsonen bisitak nabarmentzen dira (%33,22a) gainerako adin-taldeen gainetik.

**Bilboko bulegora joandako bisitarien banaketa adin-taldeen arabera**

Adina	Kopurua	%
25 arte .....	46	3,83
26-35 .....	169	14,07
36-45 .....	399	33,22
46-55 .....	221	18,40
56-65 .....	181	15,08
66 edo gehiago .....	185	15,40
Guztira .....	1.201	100

**- Bisitarien jatorri geografikoa**

Bulegorako bisitarietatik, %98,75 Bizkaiko udaletatik etorri dira, eta horietatik %55,31 Bilbotik.

**Bilboko bulegora joandako bisitarien banaketa beren jatorri geografikoaren arabera**

	Kopurua	%
Bizkaia-hiriburua .....	656	54,62
Bizkaia-beste herri batzuk .....	530	44,13
Araba .....	6	0,50
Gipuzkoa .....	4	0,33
Beste batzuk .....	5	0,42
Guztira .....	1.201	100

(Ikus 19. diagrama eranskinean)



## 8. OFIZIOZKO JARDUERAK

Herritarren kexei erantzuteaz gain, erakunde hau bere kabuz hasi da zenbait gai ezberdin ikertzen: batzuetan, euskal administrazio publikoen jarduera okerrak egon zitezkeela uste izateagatik; beste batzuetan, lankidetzarako edo zerbitzu berriak emateko aukera sortzen zelako. Ofiziozko jarduerak izenekoak dira, eta Ararteko erakundea sortu eta arautu zuen otsailaren 27ko 3/85 Legeak 17.1 artikuluan Arartekoari eman dion eskuduntza dira. Eskuduntza horrek Arartekoari esku hartzeko ahalmena ematen dio, administrazioaren jarduera okerrekin edo zabarkeriekin kaltetutako herritarren erreklamazioak itxaron gabe.

1999an Arartekoa ofiziozko 61 kexa bideratzen hasi da. Horien artean azpimarragarriak dira, asko baitira, Gizarte Ongizatea alorrean euskal administrazio publikoek duten jarduerari buruzkoak, hain zuzen ofiziozko jardueren ia erdiak dira-eta.

### **Arartekoaren ofiziozko jardueren banaketa alorrez alor**

	<b>Ofizioz burutu diren espedienteak</b>	<b>%</b>
Gizarte Ongizatea .....	28	45,90
Herrizaingoa .....	11	18,03
Osasuna .....	5	8,19
Justizia .....	4	6,56
Hezkuntza .....	3	4,92
Kultura eta Elebitasuna .....	2	3,28
Hirigintza eta Etxebizitza .....	2	3,28
Herriaren Defendatzaileak .....	2	3,28
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa .....	1	1,64
Ingurugiroa .....	1	1,64
Herri Lanak eta Zerbitzuak .....	1	1,64
Ogasuna .....	1	1,64
<b>Guztira .....</b>	<b>61</b>	<b>100</b>

(Ikus 21. diagrama eranskinean)

Arartekoaren ofiziozko jarduerak eragiten dituzten administrazio publikoei dagokienez, tokiko administrazioek eragin dituzte jarduera gehien, %51,67, hain zuzen ere. Eusko Jaurlaritzaren administrazioak eta foru administrazioek ofiziozko jardueren %23,33 eta %21,67 eragin dituzte, hurrenez hurren.

**Arartekoaren ofiziozko jardueren banaketa eragindako  
administrazioen arabera**

	Kopurua	%
Tokiko administrazioak .....	31	51,67
Eusko Jaurlaritza .....	14	23,33
Foru administrazioak .....	13	21,67
Erakunde publikoak .....	2	3,33
Guztira .....	60	100

(Ikus 22. diagrama eranskinean)

## 9. ARARTEKOAREN JARDUERAREN BALORAZIOA (KEXAGILEEI EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK)

1996an, Arartekoak Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko biztaleengana gerturatzeko bide berri bat urratu zuen, erakundearen konfiantza jarri eta erreklamazioen bat egin dutenek Arartekoaren jardueraz zein iritzi duten eta nolako balorazioa egiten duten jakiteko. Horrela, herritarren ustez erakundearen hutsuneak zeintzuk ziren jakin eta horiei konponbidea eman nahi zien.

Horretarako, 1996ko urtarrilaren 1etik, Arartekoak kexa baten tramitazioa burutzen duen bakoitzean, galde-sorta bat bidaltzen dio erreklamatzailerari, eta bere borondatez eta izenik eman gabe galdera batzuei erantzuteko eskatzen dio, erakunde honetara jotzen duten herritarren ezaugarriak eta eman zaien zerbitzuaz egiten duten balorazioa hobeto ezagutzearren. Erantzun ezin hobea jaso zen lehenengo urte horretan, bai erantzundako galde-sorta kopuruari dagokionez, bai erakunde honek emandako zerbitzuaz kexagileek egin zuten balorazioari dagokionez.

Beste hiru urte igaro direlarik, orduan hasitako esperientziaren emaitza onari eusten zaio, kexagileek galde-sortei emandako erantzunen arabera. 1999an, erantzunaren balio kuantitatiboa aurreko urteetan baino oraindik ere garrantzitsuagoa izan da. Galde-sorten %50,43a, 234 guztira, galderak erantzunda itzuli dira, eta horri esker nahi genuen bidetik ondorio fidagarriak atera ditzakegu.

Aurten, erantzunen edukiak ona izaten jarraitzen du eta aldeko erantzunen portzentaia 1998 urtekoaren berdintsua da: jasotako inkesten %85,90ak Arartekoaren eskuhartzea oro har oso egokitzat edo nahikoa egokitzat jotzen du, iaz modu berean baloratu zuen %86,10aren aldean. Datuok Ararteko erakundeak eskaintzen duen zerbitzuaren balioa sendotzen dute eta bertan dihardutenei adre ematen diete erabiltzaileek estimatzen duten lan batean jarraitzeko, egunez egun hobetzeko ahalegin horretan.

Galde-sortaren emaitzak laburtuz, Arartekoari kexa bat aurkeztu dioten herritarrei egokiak iruditu zaizkie erabili dituzten zerbitzuak, eta kexaren tramitazioa bukatzean uste dute «Arartekotik jasotako informazioa ona edo oso ona izan dela» (%86,76), «kexa aurkeztu eta ebazpena eman arte igarotako denbora laburra edo oso laburra

*izan dela*» (52,13a), eta «*Arartekoak bere kexaren gainean emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin ados edo oso ados daudela*» (%63,25a) adierazten dute. Arartekoaren jarduera oro har nola baloratuko luketen galdetu zaienean (hau da, azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...), kexagileek oso balorazio ona egin dute eta zera erantzun dute «*administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora jotzeko gomendatuko lioketela beti*» (%69,23a) edo *kasu batzuetan*» (%21,37a). Galde-sortan «*kexa eragin zuen arazoa ez da konpondu edo nahikoa gaizki konpondu da*» erantzuten duten pertsonak ere (%54,28a), «*beti edo edo kasu batzuetan gomendatuko lukete Arartekora jotzea*» (%83,46a) eta «*Arartekoaren eskuhartzea oso egokitzat edo nahikoa egokitzat jotzen dute*» (%76,38a).

Ondoren emango ditugu berez oso adierazgarriak eta azalpen handirik behar ez duten galde-sortaren emaitzak, baina, horiez gain, aipatzekoak dira, nahiz horietako batzuk bitxikeria baino ez diren, galde-sortako ataletako bati erantzuterakoan herritar batzuek Arartekoari bidali dizkioten hobekuntzarako iritzi eta iradokizunak. Kritiken artean, 4 pertsonak Arartekoaren inplikazio handiagoa eskatzen dute, eta erakundeak gertuagotik jarrai dezala arazoa; beste 4 pertsonak Arartekoaren eraginkortasun eza administrazioak eskainitako informazioaz gehiegi fidatzeagatik gertatzen dela uste dute; 2 pertsonak kexagilearekin komunikazio gehiago eskatzen dute, batez ere kexaren tramitazioa luzatzen denean; beste 2k legalistegia izatea leporatzen diote Arartekoari, eta bere iritzia legean baino justizian oinarritzea eskatzen diote; pertsona batek Arartekoak ez duela ezertarako balio eta erakundeak desagertu beharko lukeela dio; eta beste batek, administrazioak eta Arartekoa lepoko desberdinekiko txakur bera direla. Iradokizunen artean, 4 pertsonak Arartekoak bere gomendioak lotesle bihurtzearen eskuduntza gehiago behar dituela adierazten dute; 2 pertsonak erakundea badela jendeari jakinarazteko informazioa falta dela; beste 2k uste dute Arartekoak ikerketa-baliabide propioak behar dituela emaitza hobeak erdiestearren; beste 2k eskatzen dute Arartekoak berak, administrazioen hitzaz fidatu gabe, arazoak konpondu diren ala ez egiazta dezala; pertsona batek Arartekoak bi aldeak elkartu eta bere aurrean bakoitzak bere jarrera defenda dezan komeni dela uste du; beste batek erakundearen bulego nagusia Eusko Legebiltzarraren eraikin berria izango dena eramatea proposatzen du -hori berehala gertatuko da-, eta, azkenik, kexagile batek Arartekoak erakundearen aurrean herriaren boza izateko eta jarrera gogotsuagoa azaltzeko eskatzen du.

- **Galde-sortaren emaitzak** (Ikus 23-28 bitarteko diagramak eranskinean)

**1. Nolako iruditu zaizu Arartekoak bidalitako informazioa?**

1. Oso ona .....	42,31
2. Ona .....	44,45
3. Txarra .....	9,40
4. Oso txarra .....	2,56
5. Erantzunik ez .....	1,28

**2. Nolakoa iruditu zaizu kexa aurkeztu zenuenetik biderapena bukatu arteko denbora?**

1. Oso luzea .....	11,97
2. Luzea .....	33,76
3. Laburra .....	41,45
4. Oso laburra .....	10,68
5. Erantzunik ez .....	2,14

**3. Zenbateraino zaude ados Arartekoak zure kexari buruz erabaki edo proposatu duenarekin?**

1. Oso ados dago .....	36,33
2. Ados dago .....	26,92
3. Ez dago ados .....	14,10
4. Ez dago batere ados .....	13,68
5. Erantzunik ez .....	8,97

**4. Zure ustez, kexa sorrarazi zuen arazoa:**

1. Oso ongi konpondu da .....	23,08
2. Nahikoa ongi konpondu da .....	15,38
3. Ez da konpondu .....	49,15
4. Nahikoa gaizki konpondu da .....	5,13
5. Erantzunik ez .....	7,26

**5. Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Hau da, azaldutako interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)**

1. Oso egokia .....	56,84
2. Nahikoa egokia .....	29,06
3. Ez oso egokia .....	6,41
4. Oso desegokia .....	4,27
5. Erantzunik ez .....	3,42

**6. Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora jotzeko gomendatuko al zenioke?**

1. Bai, beti .....	69,23
2. Bai, kasu batzuetan .....	21,37
3. Ez, inoiz ere ez. ....	6,84
4. Erantzunik ez .....	2,56

Gerta zitekeen galde-sortari erantzuten ziotenek jarrera ezberdina erakustea azaldutako kexa eragin zuen arazoa konponduta geratu ala ez. Baina ez da horrela gertatu, hori erakusten baitute beren arazoa konpontzeke geratu eta galde-sortari erantzun diotenek.

- «Arazoa ez da konpondu» edo «nahikoa gaizki konpondu da» dioten kexagileek Arartekoaren jarduerari buruz egin duten balorazioa

(Ikus 29. eta 30. diagramak eranskinean)

**5. Oro har zer iruditzen zaizu Arartekoaren lana? (Hau da, azaldutako interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)**

1. Oso egokia .....	35,43
2. Nahikoa egokia .....	40,95
3. Ez oso egokia .....	11,81
4. Oso desegokia .....	7,87
5. Erantzunik ez .....	3,94

**6. Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora jotzeko gomendatuko al zenioke?**

1. Bai, beti .....	54,33
2. Bai, kasu batzuetan .....	29,13
3. Ez, inoiz ere ez .....	12,60
4. Erantzunik ez .....	3,94

## IV. ATALA

# **ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA**

## 1. SARRERA ETA ZENBAIT OHAR

Ordenamendu juridikoak Arartekoari esleitutako erantzukizunak betetzeko, erakunde horrek aztertzen dituen administrazio publikoen kolaborazioa behar du. Kolaborazio hori kexa espedientea ekarri duten gaietarako buruzko informazio guztia ezinbestean Arartekoaren esku utziz gauzatzen da. Alabaina, informazio hori igortzea ez da praktika hori definitzen duen bakarra, Arartekoaren jardueraren elementu nagusia diren ikerketa eta kontrol lanen eraginkortasunak zeregin hori ezarritako epeetan burutzea eskatzen baitu.

Behar horiek direla eta, Arartekoaren irudia sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legea onartzean, euskal legegileak kolaborazio hori ezinbesteko betebehartzat jo du, eta epe jakin batean burutu beharrekotzat. Horrela, aipatutako arauaren 23. artikulua honako hau dio: *“9.1 artikulua aipatutako entitateen organoek, lehentasunez eta premiaz, eskatzen zaizkien datu, dokumentu, txosten eta argibideak emateko betebeharra dute”*. Agindu horren bitartez, jarduera kontrolatu egin dakiekeen organismoetarako erakundeetarako kolaborazioaren betebeharra ezartzen zaie, euren esku-hartzerik gabe zaila izango baita aurkeztutako kexei dagokienez komeni dena erabakitzea. Bestalde, arau bereko 26. artikulua, kolaborazioaren betebeharra gauzatzeko denborari dagokionez, ondoko hau dio: *“Informazioa, espedienteak igortzea edo bestelako datuak eskatzen diren kasuetan, Arartekoak eskatutakoa emateko epe bat ezarriko du”*.

Arartekoa bezalako instituzio bermatzaile batek bere eskumenak bete ditzan kolaborazioak duen betebeharraren garrantzia dela eta, obligazio hori betetzen ez denean erantzukizunen eskaera ez da Legebiltzarraren eremura eta, hala badagokio, iritzirik publikoaren arlora mugatzen. Hala, kolaboraziorik eza Estatuko Erakundeetarako eta Botereen Banaketaren aurkako delitutzat jotzen da indarrean dagoen Kode Penaleko 502.2 artikuluan, eta sei hilabetetik bi urtera bitartean enplegua edo kargu publikoa kentzeko zigorra ezar liezaieke *“eskatutako txostenak igortzeari uko eginez edo igorpena behar ez bezala atzeratuz, edo ikerketarako behar diren espedienteak edo administrazio dokumentazioa eskuratzea oztopatuz, Ararteko, Kontu Epaitegi edo Autonomia Erkidegoetarako organo baliokideen ikerketa”* eragozten duten agintariei edo funtzionarioei. Ikus daitekeenez, lehen aipatutako bi aldagaiak hartzen dira kontuan eta, biek batera, kolaborazio horren nondik norakoak ematen dizkigute: lankidetzaren bera, eta epe jakin batean gauzatzea.

Kapitulu honek administrazioek eta erakundeek ordenamendu juridikoak ezartzen dien obligazioa nola bete duten islatu nahi du. Ikuspegi orokor batetik, gure kudeaketaren alderdi honen analitika atera dugun ondorioa positiboa da, obligazioa

bete ez den kasuren batzuk izan badira ere, ondoren emango ditugun datuetan ikusi ahal izango denez. Kasu horietan, Arartekoak egin dituen gestioen berri ematen da, inplikaturako organismo eta erakundeei instituzio bermatzaile honekin kolaboratzeko duten betebeharra gogoraraziz eta lankidetzaz eskatuz, igorritako eskaeraren erantzunik eza edo atzerapena egon denean.

Aurreko txostenetan adierazi dugunez, jarduera honetan Arartekoak ez du automatikoki jokutzen. Organismo eta erakunde publikoen ezagutzak erantzukizuna eta zuhertasuna gogorarazte horren gidari eta erabakitzaile izatea dakar berekin; izan ere, zeregin horri ekitean, administrazio lanean burokraziarekin zehazki zerikusirik ez duten aldagai anitz dagoela hartzen da kontuan. Horri dagokionez, berriro diogu ikertzen diren gaien inguruko zenbait zirkunstantzia kontuan edukitzea komeni dela: informazioaren eskariari dagokion arazoa zer-nolakoa den, eskaera egiten zaion organoaren sare burokratiko eta administratiboaren konplexutasuna, burutu beharreko prozeduren pilaketa, ikertutako entitateak eratzeko epeak hauteskunde aldien ondorioz...

Era berean, kexa espediente batzuetan, informazio eskaerei erantzuna emateko denbora ekitaldi batetik haratago luzatzen da. Hori dela eta, egokitzen jo dugu, aurreko ekitaldietan adierazi dugun bezala, txosten honetan 1999 urtean zehar izapidean egon diren kexa espedienteetan egindako eskaeren zerrenda xehe bat jasotzea, nahiz eta aurreko ekitaldietan hasita egon. Praktika horren helburua, jokabide batzuk Arartekoak aztertu dizkien entitateen kolaboraziorik ezaren ikuspegi orokorragoa ematea da. Ondoren erakutsiko diren datuen irakurketak, kolaboratzeko obligazioa zenbateraino betetzen den baloratu ahal izateko ondorio objektibo bat ateratzea ahalbidetuko digu.

Aurrekoaren kalterik gabe, batzuetan, kolaboratzeko obligazioa ez betetzeak ezaugarri aipagarriak dituela ikusten dugu. Gai horietan, Arartekoak, eskaera batzuei erantzunik ematen ez zaiela ikusirik, administrazio afektatuetako titularrei lehen aipaturako delitua egiten ari direla eta, ondorioz, gaia arlo jurisdikzional penalera eramane daitekeela gogorarazi behar izan die. Aukera hori ez da inoiz erabili, kasu guztietan komunikazio horrek bere xedea lortu baitu: beharrezko informazioa jasotzea. Behartzeko ahalmen hori erabilarazi duten espedienteak ondoko hauek dira: 701/1997/17 eta 71/1999/17 (Donostiako Udala), 1405/1998/20 eta 2028/1998/20 (Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila) eta 2044/1998/17 (Barakaldoko Udala).

Iruzkina hauen ondoren, egokitzen jotzen dugu ondoren datozen zerrendetan jasotzen diren datuak hobeto ulertzeko argibide batzuk ematea:

- Lehenengo zerrendan, ondoko hauek jasotzen dira: jokabideak kontrolatu zaizkien organismo eta erakundeen aurrean bideratu diren espediente guztiak; izapidetze horrek gutxienez informazio eskaera bat egitea eta, hala badagokio, errekerimendu bat edo batzuk egitea ekarri du. Zutabe bakoitzean azaltzen den informazioa ondokoa da:
  - (1) 1999 urtean informazio eskaeraren bat egin den espedienteen kopurua.
  - (2) 1999 urtean informazio eskaera izan duten eta beren izapidean errekerimenduren bat egin den espedienteen kopurua.
  - (3) 1999 urtean informazio eskaeraren bat egin den espedienteen guztizkoan, errekerimendua izan duten espedienteen ehunekoa.





## B) Foru aldundiak

	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)		(6)
	99an eskatutako espedienteak	Errekerimendua daturen espedienteak	%	Aurreko urteetako errekerimendua	Errekerimenduen kopurua desglosatuta		99ko errekerimendua guztira
					1	2	
<b>Arabako Foru Aldundia</b>							
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendien Saila.....	2	-	-	-	-	-	-
Gizarte Ongizatea.....	2	-	-	-	-	-	-
Kultura.....	2	1	50	-	1	-	1
Ogasuna, Finantzak eta Aurrekontuak.....	8	-	-	-	-	-	-
Herrilanak eta Garraioak.....	2	1	50	-	1	-	-
Hirigintza, Arkitektura eta Ingurugiroa.....	1	1	100	-	1	-	1

	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)			(6)
	99an eskatutako espedienteak	Errekerimendua daturen espedienteak	%	Aurreko urteetako errekerimendua	Errekerimenduen kopurua desglosatuta			99ko errekerimendua guztira
					1	2	3	
<b>Bizkaiko Foru Aldundia</b>								
Gizartekintza.....	10	2	20	-	2	-	-	2
Nekazaritza.....	3	-	-	-	-	-	-	-
Kultura.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Ogasuna eta Finantzak.....	22	4	18,18	-	3	1	-	5
Ingurugiroa eta Lurralde Ekintza.....	2	-	-	-	-	-	-	-
Herrilanak eta Garraioa.....	7	5	71	-	4	1	-	6

	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)	(6)
	99an eskatutako espedienteak	Errekerimendua daturten espedienteak	%	Aurreko urteetako errekerimendua	1	99ko errekerimendua guztira
<b>Gipuzkoako Foru Aldundia</b>						
Nekazaritza eta Ingurugiroa.....	1	-	-	-	-	-
Ogasuna eta Finantzak.....	7	-	-	-	-	-
Lehendakaritza.....	4	2	50	-	1	3
Gizarte Zerbitzuak.....	2	-	-	-	-	-
Garraioa eta Errepideak.....	3	1	33,33	-	-	1

C) Udalak

- Arabako Lurralde Historikoa

	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)			(6)
	99an eskatutako espedienteak	Errekerimendua dituden espedienteak	%	Aurreko urteetako errekerimenduak	Errekerimenduen kopurua desglosatuta			99ko errekerimenduak guztira
					1	2	3	
<b>Arabako udalak</b>								
Amurrio .....	2	-	-	-	-	-	-	-
Arria-Maeztu .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Asparrena .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Ayala/Aiara .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Barrundia .....	3	1	33,33	-	1	-	-	1
Labastida .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Laguardia .....	2	1	50	-	1	-	-	1
Llodio .....	3	-	-	-	-	-	-	-
Salvatierra/Agurain .....	3	-	-	-	-	-	-	-
Valdegovia .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Vitoria/Gasteiz .....	26	12	46,15	1	9	3	1	18

	(1)	(2)	(3)	(5)		(6)
	99an eskatutako espedienteak	Errekerimendua dituden espedienteak	%	Errekerimenduen kopurua desglosatuta		99ko errekerimenduak guztira
				1	2	
<b>Arabako administrazio batzarrak</b>						
Antoñana .....	1	-	-	-	-	-
Berantevilla .....	1	1	100	1	-	1
Lezama .....	1	-	-	-	-	-
Salinillas de Buradón .....	1	1	100	-	1	2

## - Bizkaiko Lurralde Historikoa

Bizkaiko Udalak	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)			(6)
	98an eskatutako espedienteak	Errekerimendurak dituzten espedienteak	%	Aurreko urteetako errekerimendurak	Errekerimenduen kopurua desglosatuta			98ko errekeri- mendurak guztira
					1	2	3	
Abanto y Ciérvana/Abanto Zierbena .....	3	1	33,33	-	1	-	-	1
Alonsotegi.....	1	1	100	-	-	1	-	2
Amorebieta-Etxano .....	3	2	66,67	-	2	-	-	2
Arrankudiaga.....	1	1	100	-	1	-	-	1
Arrigorriaga.....	2	1	500	-	1	-	-	1
Barakaldo.....	10	5	50	-	2	3	-	8
Basauri .....	9	-	-	-	-	-	-	-
Bermeo .....	2	2	100	-	1	-	1	4
Bilbao .....	59	17	28,81	2	13	5	1	26
Carranza.....	-	-	-	1	-	1	-	2
Castillo-Elejabeitia.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Derio .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Durango .....	1	1	100	-	-	1	-	2
Elorrio .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Erandio.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Ermua.....	2	1	500	-	-	1	-	2
Errigoiti.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Etxebarria .....	2	1	50	-	1	-	-	1
Galdakao .....	4	1	25	-	1	-	-	1
Gautegiz Arteaga .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Getxo .....	7	2	28,57	-	1	-	1	4
Górliz .....	1	1	100	-	-	1	-	2
Leioa .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Mallabia .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Meñaka.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Mungia .....	1	-	-	1	1	-	-	1
Muskiz .....	2	-	-	-	-	-	-	-
Muxika.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Ondarroa.....	1	1	100	-	1	-	-	1
Ortuella.....	2	1	50	-	-	1	-	2
Plentzia.....	1	1	100	-	1	-	-	1
Portugalete.....	10	4	40	-	4	-	-	4
Santurtzi .....	9	4	44,44	-	3	1	-	5
Sestao .....	4	3	75	-	2	1	-	4
Sondika .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Sopelana.....	3	-	-	-	-	-	-	-
Sopuerta.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Valle de Trápaga/Trapagaran.....	3	2	66,67	1	3	-	-	3
Zalla .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Zamudio .....	1	1	100	-	1	-	-	1
Zeanuri .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Zeberio .....	1	1	100	-	1	-	-	1
Zierbena .....	1	-	-	-	-	-	-	-



### 3. INFORMAZIOA LORTZEKO ARARTEKOAK 1999AN EGINDAKO ERREKERIMENDUEN ZERRENDA

#### A) Eusko Jaurlaritzaz

Saila	Erreferentzia (espte. zk.)	Deskribapena (kexaren gaia)	Errekerimendu kopurua urtean	Azken errekerimenduaren data	Informazioa Jaso gabe (JG) Jasota (J)
Nekazaritza eta Arrantza	536/1999/15	Urtegi bat biotopo babestu izendatzeko eskaera, babestutako anfibio espezie bat gordetzeko	1	1999/07/07	J
"Getariako Txakolina" jatorri izendapenaren kontseilu arautzailea	621/1999/19	Dirulaguntza emateari uko egitea	1	1999/11/15	J
Kultura	1130/1999/20	SHEE. Barne erregimena eta irakaslegoa	1	1999/12/14	JG
EITB	425/1999/21	Komunikabide publikoetan sarbidea izateko eskubidea	1	1999/10/19	J
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	*962/1998/20	Irakasleen ordezkoen zerrendak eskura izatea	1	1999/01/26	J
	*1405/1998/20	Ikasle itsuen irakasleen prestakuntza	2	1999/10/08	J
	*1958/1998/18	Bizkaieraren erabilera	3	1999/05/25	J
	*2198/1998/20	Nominako deskontua	1	1999/01/26	J
	*2395/1998/20	Ikastetxearen mantenimendua eta zaintza	1	1999/12/01	J
	*2448/1998/20	Irakasleen ordezkoen zerrendak eskura izatea	1	1999/01/26	J
	*2580/1998/20	Oker adskribatutako irakasleak. Tratamendu egokiagoa	1	1999/01/26	J
	*2598/1998/20	Ikasturte hasierako lanpostu hutsen antolamendua	1	1999/01/26	J
	962/1998/20	Irakasleen ordezkoen zerrendak eskura izatea	1	1999/07/27	J
	962/1998/20	Irakasleen ordezkoen zerrendak eskura izatea	1	1999/12/15	J
	2028/1998/20	DBH. Laneguna aldatzeko baimena	1	1999/03/16	J
	2028/1998/20	DBH. Laneguna aldatzeko baimena	4	1999/11/25	J
	2198/1998/20	Nominako deskontua	1	1999/04/14	J
	2250/1998/20	Musika: erdiko mailarako probak	1	1999/09/07	J
	2395/1998/20	Ikastetxearen mantenimendua eta zaintza	2	1999/10/13	J
	128/1999/20	Ingeles/alemaneko lanpostu huts baten prestaketa	1	1999/03/16	J
	165/1999/19	Bai Euskarari kanpainarako ekarpena	1	1999/11/10	J
	461/1999/20	IEEko ikasketak	1	1999/06/11	J
	652/1999/25	Matrikula baliogabetzea HEOn	1	1999/07/05	J
	546/1999/20	B ereduaren eskaera Batxilergoan	1	1999/06/03	J
	785/1999/25	Eskolako instalazioen egoera	1	1999/09/23	J
	805/1999/20	Eskolako jangelaren zuzeneko kudeaketa	1	1999/09/07	J
	805/1999/20	Eskolako jangelaren kudeaketa	1	1999/12/15	J
	876/1999/20	Administrazio erregistroetan deitura konposatuak jasotzea	1	1999/10/13	J
	860/1999/18	Ezohiko azterketak	1	1999/09/08	J
	880/1999/20	Kuotak kobratzea itundutako ikastetxean	1	1999/09/07	J
	880/1999/20	Kuotak kobratzea itundutako ikastetxean	1	1999/12/15	JG
	886/1999/20	Irakasleen ordezkapenak. Zerbitzuen kontaketa	1	1999/09/29	J
	1090/1999/20	Eraikuntza lanak IESen	1	1999/12/15	J
	1091/1999/20	Ikasturte hasierako lanpostuen prozesua	1	1999/12/15	J
Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea	881/1998/20	UPV/EHU-Osakidetzaz Hitzarmena	1	1999/11/10	J
	194/1999/20	Ingeniaritza Eskolako Erregelamendua	1	1999/04/14	J
	362/1999/20	Ikerketa proiektuari uko egitea	1	1999/04/29	J
	362/1999/20	Ikerketa proiektuari uko egitea	1	1999/06/22	J
	365/1999/20	Sarbide Bulegoko Burutzaren Hornidura	1	1999/04/29	J
	862/1999/20	Erizaintza Eskola lekualdatzea	1	1999/09/07	J
Ogasuna eta Administrazio Publikoa	929/1999/25	Okerreko dirusarrerak itzultzea - trafiko isunak	1	1999/10/27	J
Industria, Merkataritza eta Turismo Saila	2486/1998/23	Ibilgailuaren Ikuskaritza Teknikoaren Txartela	1	1999/07/29	J

Saila	Erreferentzia (espte. zk.)	Deskribapena (kexaren gaia)	Errekerimendu kopurua urtean	Azken errekerimenduaren data	Informazioa Jaso gabe (JG) Jasota (J)
Herrizaingo Saila	*2317/1998/18	Administrazioarekiko harremanetan euskara erabiltzeko eskubidea	2	1999/03/23	J
	217/1999/19	Errekurtso baten izapideari uko egitea	1	1999/11/10	J
	689/1999/18	Langile publikoek euskara ikastaroak egin ahal izatea	2	1999/12/30	JG
	895/1999/19	Ertzaintzaren jokabidea	1	1999/11/10	J
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza	98/1999/23	Kontratazio administratiboa	1	1999/03/10	J
	98/1999/23	Kontratazio administratiboa	1	1999/10/13	J
	647/1999/21	Amentzako Unitaterik ez izatea euskal espetxeetan	1	1999/10/19	J
	775/1999/25	Bulego administratiboan jasotako tratua	1	1999/09/23	J
Lurraldearen Antolamentu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila	29/1998/23	Etxebizitzetako gabeziak	1	1999/03/10	J
	2556/1998/23	Etxebizitzetako gabeziak	1	1999/06/24	J
	2557/1998/23	BOEen esleipena. Baldintzak	1	1999/03/29	J
	325/1999/23	BOEen esleipena. Baldintzak	1	1999/04/21	J
	352/1999/23	BOEen esleipena. Baldintzak	1	1999/07/29	J
	421/1999/23	Etxebizitzak zaharberitzeko laguntzak	1	1999/06/01	J
	706/1999/23	Garajeetako gabeziak	1	1999/07/29	J
	968/1999/25	BOEetako akatsak konpontzeko eskaera	1	1999/11/10	J
	1073/1999/23	Etxebizitzetako gabeziak	1	1999/12/01	J
	SVS/Osakidetzeta	*2115/1998/20	Kirurgiako eta liseri aparatuko sendagile espezialisten lekualdatze lehiaketa. Eskaintako zerbitzuen balorazioa	1	1999/01/26
*2440/1998/20		Dietetikako eta elikadurako diplomatuak. Titulazioa osasun arloan aintzat hartzea	1	1999/02/03	J
2440/1998/20		Dietetikako eta elikadurako diplomatuak. Titulazioa osasun arloan aintzat hartzea	1	1999/04/13	J
93/1999/20		Bitarteko izendapenak. Epai judizialak eragindako kargugabetzea	1	1999/03/22	J
322/1999/18		Sistema publikoaren prestazioak antzutasunaren tratamendurako	1	1999/06/11	J
462/1999/20		Hizkuntz eskakizunak. Aldi baterako kontratazioak	1	1999/06/11	J

**B) Foru aldundiak**

**- Arabako Foru Aldundia**

Saila	Erreferentzia (espte. zk.)	Deskribapena (kexaren gaia)	Errekerimenduen kopurua urtean	Azken errekerimenduaren data	Informazioa Jaso gabe (JG) Jasota (J)
Kultura	467/1999/20	Dirulaguntzetako kopuruen itzulketa	1	1999/09/09	J
Herrilanak eta Garraioak	495/1999/15	Desjabetutako eta errepideko lanek okupatu gabeko lursaila bihurtzeko eskaera	1	1999/07/16	J
Hirigintza, Arkitektura eta Ingurugiroa	534/1999/23	Ondare erantzukizuna erreklamatzeari	1	1999/06/07	J

**- Bizkaiko Foru Aldundia**

Saila	Erreferentzia (espte. zk.)	Deskribapena (kexaren gaia)	Errekerimenduen kopurua urtean	Azken errekerimenduen data	Informazioa Jaso gabe (JG) Jasota (J)
Gizartekintza	50/1999/18	Administrazioen lankidetzaren osasun eta gizarte arazoetan	1	1999/06/08	JG
	602/1999/20	Lanpostuaren amortizazioa	1	1999/07/09	J
Ogasuna eta Finantzak	190/1999/22	Katastro balorazioaren aldakuntza	1	1999/05/04	J
	620/1999/16	ITPn igorritako likidazioaren balizko preskripzioa	1	1999/09/28	J
	668/1999/25	Okerra IBiri dagokion jabegoan	1	1999/08/02	J
	753/1999/25	PFEZren deklarazioetako atxikipenak itzultzea	2	1999/10/27	J
Herrilanak eta Garraioak	33/1999/15	Arriskua foru errepede batean espaloirik ez izateagatik	2	1999/12/16	JG
	348/1999/15	Bilboko auzo bateko argiteriaren eta sartzeko errepedearen egoera txarra	1	1999/12/15	JG
	408/1999/23	Hiri garraioaren Zerbitzu Publikoaren kontratua	1	1999/06/01	J
	517/1999/22	Irisgarritasun arazoak Astrabudua-La Ola linean	1	1999/10/29	JG
	799/1999/15	Garraio publikoa hobetzeko eskaera	1	1999/12/15	JG

**- Gipuzkoako Foru Aldundia**

Saila	Erreferentzia (espte. zk.)	Deskribapena (kexaren gaia)	Errekerimenduen kopurua urtean	Azken errekerimenduen data	Informazioa Jaso gabe (JG) Jasota (J)
Lehendakaritza	99/1999/20	Sarjentu lanpostuak eskuratzeko baldintzak	1	1999/03/02	J
	99/1999/20	Sarjentu lanpostuak eskuratzeko baldintzak	1	1999/04/29	J
	242/1999/18	Tabako kontsumoa, ez-erretzaileen eskubideak	1	1999/12/30	JG
Garraioak eta Errepedeak	1029/1999/23	Ondare erantzukizuna	1	1999/11/10	J

**C) Udalak****- Arabako Lurralde Historikoa**

Udala	Erreferentzia (espte. zk.)	Deskribapena (kexaren gaia)	Errekerimenduen kopurua urtean	Azken errekerimenduen data	Informazioa Jaso gabe (JG) Jasota (J)
Barrundia	690/1999/15	Udalak lursail batean eraikitze eskatzen dituen kargak	1	1999/07/23	J
La Guardia	472/1999/19	Ibilgailua bide publikotik kentzea	1	1999/11/19	JG
Vitoria/Gasteiz	*1183/1998/18	Euskara erabiltzeko eskubidea. Udaltzaingoaren komisaria	2	1999/07/30	J
	278/1998/23	Ustez abandonatuta dauden ibilgailuak kentzea	3	1999/06/24	J
	1183/1998/18	Euskara erabiltzeko eskubidea. Udaltzaingoaren komisaria	1	1999/12/30	JG
	1736/1998/23	Trafiko ordenantzen urraketak	1	1999/02/12	J
	157/1999/22	Hiri autobusetara haur kotxeekin sartu ahal izatea	1	1999/05/04	J
	389/1999/20	Administrazio espedientearen eskura izatea. Sartzeko probak. Ordezkapenak	1	1999/05/11	J
	433/1999/15	Udalaren erantzukizuna zulo batek eragindako kalteak direla eta	2	1999/07/01	J
	556/1999/16	IAEk igorritako likidazioak	1	1999/09/08	JG
	676/1999/19	Trafiko zigorra ibilgailua abandonatzeagatik	1	1999/11/10	JG
	694/1999/25	Minusbaliotasunen bat duten pertsonen IVTMko salbuespena	2	1999/09/23	J
	762/1999/19	Trafiko zigorrak	1	1999/11/10	JG
	782/1999/19	Salaketa bat aurkezteko arazoak	1	1999/11/10	JG
	1020/1999/23	Igogailua instalatzeko lizentzia	1	1999/11/10	J



## Administrazio Batzarrak

Arabako Administrazio Batzarrak	Erreferentzia (espte. zk.)	Deskribapena (kexaren gaia)	Errekerimenduen kopurua urtean	Azken errekerimen- duaren data	Informazioa Jaso gabe (JG) Jasota (J)
Berantevilla	476/1999/15	Iturri publikoa egokitze eskaera	1	1999/06/09	J
Salinillas de Buradón	521/1999/15	Udal lursaila hirugarren batzuek okupatzea	1	1999/07/16	J
	521/1999/15	Udal lursaila hirugarren batzuek okupatzea	1	1999/12/15	JG

## - Bizkaiko Lurralde Historikoa

Udala	Erreferentzia (espte. zk.)	Deskribapena (kexaren gaia)	Errekerimenduen kopurua urtean	Azken errekerimen- duaren data	Informazioa Jaso gabe (JG) Jasota (J)
Abanto y Ciérvana/ Abanto Zierbena	533/1999/22	Bide batetik ate bat erretiratzeko udal agindua deusezteko eskaera	1	1999/07/05	J
Alonsotegi	358/1999/17	Legeztatu gabeko jarduera	2	1999/10/05	J
Amorebieta- Etxano	203/1999/15	Landabide bat konpontzea	1	1999/05/31	J
	1004/1999/25	Industria bateko lanak	1	1999/11/10	J
Arrankudiaga	403/1999/15	Arau subsidiarioen aldakuntza	1	1999/12/15	JG
Arrigorriaga	511/1999/22	Zabor edukiontzien kokagunea	1	1999/11/03	JG
Barakaldo	65/1999/17	Supermerkatu bateko zarata gogaikarria	1	1999/10/05	J
	65/1999/17	Supermerkatu bateko zarata gogaikarria	1	1999/12/17	JG
	249/1999/15	Barakaldoko auzo bateko zona batzuk iristezinak izatea	2	1999/12/15	JG
	250/1999/15	Ur edanezina Barakaldoko auzo batean	1	1999/05/24	J
	251/1999/15	Argiteria publiko eskasa Barakaldoko auzo batean	1	1999/05/24	J
	530/1999/20	Goardiako txandak. Liburutegi zerbitzua	2	1999/07/12	J
Bermeo	81/1999/22	Hiri jarduera sailkatuak	3	1999/11/03	JG
	913/1999/15	Bizilagun batek bide publikoko pasabidea oztopatzen du	1	1999/12/15	JG
Bilbao	*2459/1998/22	Administrazioaren isiltasuna	3	1999/06/17	JG
	*2565/1998/23	Trafikoko arau urraketa	1	1999/01/26	J
	54/1999/19	Gorpuak hobitik ateratzea	1	1999/05/11	J
	125/1999/22	Zabor edukiontzien kokagunea bide publikoan	1	1999/04/13	J
	131/1999/17	Lanerako tailer bateko zarata gogaikarriak	1	1999/03/24	J
	228/1999/22	Edukiontzien kokagunea	1	1999/05/03	J
	247/1999/17	Administrazioaren isiltasuna	2	1999/07/28	J
	336/1999/17	Aire egokituaren instalazioak eraqindako eraqozpenak	1	1999/11/19	J
	348/1999/15	Bilboko auzo bateko argiteria publikoaren eta sartzeko errepidearen egoera txarra	1	1999/09/16	J
	360/1999/22	IVTM. Atoi arinak	1	1999/06/17	J
	398/1999/23	Minusbaliatuaren ibilgailuentzat aparkalekua erreserbatzea	2	1999/12/02	J
	408/1999/23	Autobus zaharrak ordezkatzea	2	1999/06/24	J
	450/1999/22	Zabor edukiontzien kokagunea bide publikoan	1	1999/06/17	J
	525/1999/23	Ondare erantzukizuna erreklamatzeko	2	1999/07/29	J
	777/1999/16	Suhiltzaileen tasa	1	1999/12/03	J
	922/1999/22	Administrazioaren isiltasuna	1	1999/11/02	J
	939/1999/15	Lonja baterako sarbidea eskatzea kalea oinezkoentzat jarri ondoren	1	1999/12/15	J
	973/1999/17	Minusbaliatuentzako aparkalekuak	2	1999/12/17	JG
	1061/1999/25	IAEn deklarazioa preskribitzeko eskaera	1	1999/12/03	J
	Carranza	*2501/1998/22	Zuhaitzak botatzeagatik Udalarai gehiegi ordaindutakoa itzultzeko eskaera	2	1999/03/05
Durango	16/1999/17	Taberna bateko zarata gogaikarriak	2	1999/03/24	J

Udala	Erreferentzia (espte. zk.)	Deskribapena (kexaren gaia)	Errekerimenduen kopurua urtean	Azken errekerimen- duaren data	Informazioa Jaso gabe (JG) Jasota (J)
Ermua	232/1999/22	Hiri jardueratzat sailkatutakoak	1	1999/04/20	J
	232/1999/22	Hiri jardueratzat sailkatutakoak	1	1999/07/28	J
Etxebarria	196/1999/17	Jatetxe bateko zarata gogaikarriak	1	1999/07/28	J
Galdakao	722/1999/22	Hiri lurzorian sailkatutako jarduerak	1	1999/11/03	JG
Getxo	25/1999/15	Kale bat trafikoari ixtea	3	1999/07/01	J
	946/1999/23	Ondare erantzukizuna erreklamatzea	1	1999/11/10	J
Góriz	926/1999/17	Ibilgailuen biltegi bateko zarata gogaikarriak	2	1999/12/17	JG
Mungia	*2081/1998/17	Ostalaritza establezimenduen ixteko ordutegia	1	1999/01/13	J
Ondarroa	737/1999/22	Irisgarritasun Legea ez aplikatzea	1	1999/11/03	J
Ortuella	2303/1998/20	Sartzeko baldintzak. Liburutegiko lanpostuak	2	1999/05/24	J
Plentzia	1070/1999/23	Erreklamazioa Udalaren jokabidea dela eta	1	1999/12/01	JG
Portugalete	56/1999/15	Uraren eta argiaren hornidurarik eza	1	1999/04/27	J
	337/1999/19	Udaltzaingoaren jokabidea	1	1999/11/10	J
	369/1999/23	Administrazio kontratua deusezteko eskaera	1	1999/05/10	J
	829/1999/17	Gimnasio batek eragindako eragozpenak	1	1999/09/16	J
Santurtzi	659/1999/22	Garbiketa publikoko sistemek sortutako zaratak	1	1999/11/03	JG
	720/1999/19	Motozikletak abiadura handiz ibiltzea	1	1999/11/10	JG
	925/1999/17	Taberna batek eragindako zaratak	1	1999/11/19	JG
	969/1999/20	Musika eskola batean musika tresna batzuen espezialitatea kentzea	2	1999/12/03	J
Sestao	375/1999/17	Taberna bateko zaratak	2	1999/10/05	J
	401/1999/22	IVTM. Atoi arinak	1	1999/06/16	J
	820/1999/25	Disko-taberna bateko zaratak	1	1999/09/23	J
Valle de Trápaga/ Trapagaran	*690/1997/22	Ogi salmenta ibiltariaren salaketa	1	1999/03/05	J
	355/1999/22	Eraikuntza, Obra eta Instalazioen Zerga oinarria	1	1999/11/03	JG
	540/1999/20	Enpleguaren eskaintza publikorik eza	1	1999/07/12	J
Zamudio	374/1999/17	Vista Alegre-ko hilerriko errauskailuaren poluzio atmosferikoa	1	1999/09/17	J
Zeberio	324/1999/15	Landabidea konpontzeko eskaera	1	1999/05/24	J

**- Gipuzkoako Lurralde Historikoa**

Udala	Erreferentzia (espte. zk.)	Deskribapena (kexaren gaia)	Errekerimenduen kopurua urtean	Azken errekerimenduren data	Informazioa Jaso gabe (JG) Jasota (J)
Arrasate/Mondragón	*610/1998/19	Garajeetara sartzeko baimendutako ibi iraunkorrak	2	1999/05/04	JG
Donostia/San Sebastián	*1052/1998/23	Trafiko arauak urratzeak ekarritako zigorra eta ibilgailua erretiratzea	2	1999/03/09	JG
	*1774/1998/23	Trafiko arauak urratzeak ekarritako zigorra	3	1999/03/10	J
	*1889/1997/17	Administrazioaren isiltasuna	2	1999/03/24	J
	1972/1997/19	TAOren ordenantza aplikatzea	1	1999/11/10	JG
	71/1999/23	Ondare erantzukizuna erreklamatzeko	5	1999/10/15	J
	75/1999/23	Ondare erantzukizuna erreklamatzeko	1	1999/03/10	J
	75/1999/23	Ondare erantzukizuna erreklamatzeko	4	1999/11/10	JG
	173/1999/01	Penalizazioa gizarte laguntzak ezarritako epeaz kanpo justifikatzeagatik	1	1999/05/31	J
	219/1999/17	Jarduera gogaikarriak	1	1999/06/17	JG
	352/1999/23	Biztanleen udal errolda	2	1999/10/13	JG
	427/1999/23	Kontzak jartzeko eskaera	2	1999/06/24	J
	453/1999/15	Espaloirik eza Ulian	1	1999/07/16	J
	454/1999/15	Aurri egoera deklaratzeko espedientea geldiaraztea	1	1999/12/15	JG
	456/1999/15	Ustezko irregulartasuna landa zona bateko obretarako lizentzian	1	1999/07/16	J
	470/1999/22	Jarduera gogaikarriak	1	1999/09/21	J
	605/1999/16	Ibien prezio publikoen gehikuntza	1	1999/09/28	JG
	625/1999/23	Lokalen sarbidea	2	1999/11/10	J
	832/1999/23	Administrazioaren isiltasuna	1	1999/10/05	J
	933/1999/17	Pentsio jarduerak baterako irisgarritasuna	1	1999/12/17	J
	987/1999/15	Administrazioaren isiltasuna	1	1999/12/15	JG
	988/1999/23	Administrazioaren isiltasuna	2	1999/12/02	JG
	990/1999/15	Aurri egoeraren deklarazio baten espedientea ez bideratzea	1	1999/12/15	J
	1117/1999/23	Ondare erantzukizuna erreklamatzeko	1	1999/12/02	JG
Elgoibar	396/1999/22	Sailkatutako jarduerak	1	1999/11/03	JG
Errenteria	68/1999/23	Ondare erantzukizuna erreklamatzeko	1	1999/03/10	J
Hondarribia	410/1999/18	Osasun publikoko arazoak etxebizitza batean	1	1999/07/05	J
Ibarra	*2086/1998/19	Oinezkoentzako zonak erabiltzea	1	1999/01/28	J
Irun	201/1999/17	Udal ebazpen bat ez burutzea	2	1999/06/16	J
	674/1999/15	Aurrez desjabetu gabe Udalak lursailak okupatzea	1	1999/07/15	J
Itsasondo	953/1999/17	Baimenik gabeko jarduerak	1	1999/11/19	J
Lasarte-Oria	89/1999/17	Taberna batek sortutako eragozpenak	1	1999/07/28	J
Lazkao	163/1999/17	Supermerkatu batek sortutako eragozpenak	2	1999/10/05	J
Pasaia	475/1999/22	Hiri jarduerak saikagarriak	1	1999/06/16	J
Urnieta	133/1999/15	Plaza publiko baten egoera txarra	1	1999/12/15	JG

## D) Bestelako erakunde publikoak

Erankudeak	Erreferentzia (espte. zk.)	Deskribapena (kexaren gaia)	Errekerimenduen kopurua urtean	Azken errekerimen- duaren data	Informazioa Jaso gabe (JG) Jasota (J)
Bizkaiko Abokatuen Elkargoa	431/1999/21	Abokatuen ordainsariei aurka egitea	2	1999/10/19	p
	622/1999/21	Abokatu baten jokabide profesionala salatzea	2	1999/10/19	J
	781/1999/21	Abokatuen Elkargotik erantzunik ez jasotzea	1	1999/10/19	JG
	810/1999/21	Abokatuen Elkargotik erantzunik ez jasotzea	1	1999/11/17	JG
Abokatuzaren Euskal Kontseilua	837/1999/21	Abokatuzaren Euskal Kontseilutik erantzunik ez jasotzea	1	1999/10/19	J
Bilbao-Bizkaiko Ur Partzuergoa	1027/1999/17	Itsasadar baten ingurugiro egoera	1	1999/12/14	JG
Mebisa-Metro Bilbao	*776/1998/22	Familia ugarietako kideei deskontuak egitea	2	1999/06/16	JG
	*806/1998/15	Alangos-eko trenbide pasagunea ixtea	1	1999/04/27	J
	167/1999/22	Administrazioaren isiltasuna	2	1999/11/03	JG
	436/1999/23	Eskailera mekanikoen funtzionamendua	4	1999/11/10	J

V. ATALA

**ARARTEKOAREN GOMENDIOAK  
ZENBATERAINO BETE DIREN**

Kexa espedienteak bideratzean, kasu askotan Administrazioaren okerreko jarduketak antzeman ditugu, bai araturen bat betetzen ez zuelako, bai herritarren eskubideren bat urratu zuelako, bai Administrazioaren jarduketa hori berme gehiagorekin eta era eraginkorragoan egin zitekeelako, administrazio guztiek eskaini beharreko zerbitzu publikoa betetzean.

Kexaren bat dela medio Arartekoak Herri Administrazioarengana informazio bila jotzen duenean, edo Administrazioak jakiten duenean instituzio bermatzaile honetan berari buruzko kexa bat azaldu dela, Administrazioak oker jardun duen gehienetan bere jokabidea zuzendu eta kexatu den herritarrari bere eskubidea aitortzen dio. Horrela, ez da beharrezkoa hasitako bidean aurrera egitea.

Prebentzio funtzio hori Administrazioak legea eta zuzenbidea erabat betetz jardun dezan aurreikusitako kontrol organoei dagokie eta nabarmen geratzen da agerian, lehen aipatu dugunez nahikoa baita kontrol batzuk ezartzea edo aurreikusitako mekanismoak abian jartzea Administrazioak kasu askotan kexa edo ofiziozko jarduketa eragin duen bere esku-hartzea alda dezan.

1999an Arartekoaren inolako gomendiorik eman gabe Administrazioak aldatutako okerreko jarduketak XX izan dira. Beste espediente asko aztertu eta gero, ordea, Arartekoaren ustez batzuetan Administrazioaren jarduketa zuzena izan da eta beste batzuetan okerrekoa. Azken hori gertatuz gero, Arartekoak gomendio bat ematen du, Administrazioak zerbait alda dezan.

Kapitulu honetan 1999an Arartekoaren gomendioei Herri Administrazioek emandako erantzunak jasoko ditugu. Joan den ekitaldian emandako 105 gomendioetatik eta 1998ko abenduaren 31n bete gabe zeuden 59etatik 66 onartu egin dira, 44 ez dira onartu eta 51tan zain gaude Arartekoaren erabakiari edo betearazteko eskaerari kasu bakoitzean aginpidea duen administrazioaren behin betiko erantzuna zein den jakiteko, edo Arartekoaren zerbitzuek emandako erantzuna aztertzeke. Horiez gain, 3 gomendio bertan behera geratu dira dagoeneko eskumen egoitzan daudelako eta azkenik gomendio bat atzera bota da, administrazioak emandako arrazoiak aztertu ondoren. Halaber, 157/1997 zenbakiko gomendia (1135/1997/22 espedientean emana) oraingoan onartutako gomendioen atalen barruan jasotzen da, 1998ko txostenean ez onartuen atalean agertzen bazen ere. Aldaketa horren arrazoia hau da: Bizkaiko Foru Aldundiak, ekainaren 8ko 90/1999 Foru Dekretuaren bidez familia ugarietara tarifa murriztuen txartela ematea erabaki zuela Bizkaibus garraio zerbitzu guztietan erabiltzeko. Horrela, neurri horren bidez erabat betetzen zen gomendioak zioena, nahiz eta Foru Aldundiak hasieran gomendia onartu ez.

Onartutako gomendioei dagokienez, erantzundako gomendio guztiak kontuan izanik, onartutakoen kopuruari aurten ere eutsi egin diogu eta gutxi gorabehera %60koa. Horrela, ondorio gisa esan dezakegu espediente askotan lortu dela erdietsi nahi zena, hasierako kexa eragin zuen administrazio jarduketa aldatu egin baita. Arartekoak berez

herri administrazioek gomendio guztiak kontuan izatea eta onartzea nahiko luke, baina Arartekoaren erabakiak ez dira hertsatzaileak eta, horren ondorioz, erabaki batzuei ez diete jaramonik egiten berez kontuan hartu beharko lituzketen administrazioek.

Horregatik, instituzio honek urtero erronka bati egin behar dio aurre: onartu gabeko gomendioen kopurua jaitsaraztea.

Instituzio hau otsailaren 27ko 3/1985 Legeak sortu eta arautu zuen eta bere 11.b) artikuluan hau dio Arartekoaren zereginari buruz: “*gomendioak zuzendu edo lege betebeharrak gogorarazi ahal izango dizkie aginpidea duten organoei, funtzionarioei edo bere goiko arduradunei, bidezkoak edo legezkoak ez diren egintzak zuzentzen saiatzeko edo Administrazioako zerbitzuak hobetzeko*”. Artikulu hori gure lege eratzailaren 1. artikulua helburuei lotuz gero, onartzen ez den gomendio bakoitzak hau dakar: gure ustez legezkoa edo bidezkoa ez den jarduketa bakoitza ez dela zuzenduko eta, beraz, herritarren eskubideak urratuta jarraituko dutela.

Aurreko ekitaldietako txostenetan ere antzeko hausnarketak egin ditugu, baina uste dugu beharrezkoa atzera gaiari heltzea. Gure ustez gogoeta egin beharra dago eta behar adinako garrantzia eman behar zaie legeek eman dizkiguten ardurak gauzatzeko herri administrazioen lege betebeharrei buruzko gomendio eta gogorarazteko idazkiei. Horrela, lehen aipatu dugu lege betebeharren inguruko gomendioak eta gogorarazteko idazkiak kexak egin dituztenen auziak juridikoki aztertzearen ondorio direla, eragindako administrazioek diotenarekin aurretik egiaztatu ondoren. Arartekoaren gomendioak ez dira borondate oneko deklarazioak, ez dira Administrazioak bere borondatearen arabera emandakoei egindako apelazioak, lege irizpideetan oinarritutako gomendioak baizik, eta behin lege eztabaidan sartutakoan Administrazioak gomendioa ez onartzeko zein arrazoi dituen argi azaldu beharko ditu; hori egin ezean, erabat onartezina den larderiazko jarreraren aurrean geundeke eta pentsatuko genuke Administrazioak kontroletik kanpo jardun nahi duela, nahiz eta legeak Administrazioaren jarduketa kontrolatzeko hainbat mekanismo ezartzen dituen.

Aldiz, Administrazioak bere jarduketa legearen arabera eta herritarren eskubideekiko begirunezkoa izan dela dioten zuzenbidezko argudioak eman eta arrazoi horiek Arartekoa gogobetetzen badute, Arartekoak gomendioaren oinarria berraztertu eta beharrezkoa bada gomendioa atzera botako du. Hori gertatu da, adibidez, 1999an emandako gomendio batekin.

Arestian aipatutako guztiak argi uzten du zeinen garrantzitsua den bi aldeek konparaketa tekniko-juridikoa egitea eta argi ikusten da hori dela jarraibide bakarra kolokan jarritako administrazio jarduketa zuzena izan den ala ez zehazteko.

Aurreko hausnarketa horrek are gehiago nabarmentzen du instituzio honek hartutako erabakiak behar bezala arrazoitu beharra. Gure ustez, bi arrazoirengatik. Alde batetik, derrigorrezkoa delako arrazoi pisutsuak izatea administrazio jarduketa aldarazteko, herri zerbitzuarekin erlazionatutako ardurak gauzatzeko eran edo itxuran aldaraketaren bat eragiteko edo lege betebeharrak gogorarazteko. Inolako zalantzarik edo ezbairik gabe, ardura hori gauzatzean erakutsi behar da konbentzitzeko maisutasuna, hori izanik, hain zuzen ere, hau bezalako instituzio berme emaileen ezaugarri bereizgarria.

Instituzio honek gomendioen bidez auziak konpondu eta prebenitu nahi ditu eta hori lortzeko oso lagungarria da konbentzitzeko gaitasuna behar bezala erabiltzea, batzuetan herri administrazioei euren jarduketetan lege hausteak egon direla ulertarazteko;

beste batzuetan, berriz, administrazio jarduna hobe litekeela adierazteko. Gure erabakiek gaitasun hertsatzailerik ez dutenez eta gure esku-hartzeak jakinarazteko baino ez direnez, batzuetan beharrezkoa izango da argudio bidez arrazoitzea, eragindako administrazioek pentsa baitezakete gomendio hori ez dela beharrezkoa, kexa espedientearen hasieratik bertatik auzi hori behar bezala aztertu eta konpondu delakoan. Herritarrek helarazi dizkiguten arazoei konponbide egokiak ematen saiatzen gara eta arazo horietan irregulartasunak eta/edo akatsak hauteman ditugunean hainbat baliabide erabili ditugu geure lanean: oinarriak behin eta berriz azpimarratzea, adostasunik gabeko puntuetan sakontzea eta argudio guztiak erabiltzea, besteak beste. Horregatik, uste dugu komenigarria dela –eta herri administrazioek ulertu beharra daukate– Arartekoaren erabakiak onarrazteko eskaera sendotuko duten argudio ugariren bidez osatzea eta behin eta berriz jakinaraztea, kexa bideraketaren hasieratik bertatik eragindako organoak bere jarduketa erabat zuzena izan dela badio ere.

Arartekoak badaki kexa espedienteak bideratzean ezadostasunak egon litekeela eta iritzi horiek errespetatzen ditu. Hainbat arrazoi direla medio, herri administrazioek batzuetan ez dituzte onartzen Arartekoaren gomendioak edo lege betebeharrak gogorarazteko idazkiak: kexaren oinarri diren gertaerei buruz beste uste bat dutelako, gertaera horietan erabili beharreko arauen interpretazioari eta jurisprudentziari buruzko ezadostasunak daudelako edo administrazio zerbitzuen funtzionamenduaren eraketa irizpideei buruz beste iritzi bat dutelako, besteak beste. Beraz, Arartekoak gomendioak eman eta bere esku-hartzeak ustez legezkoa ez den edo funtzionalki hobe litekeen administrazio jarduketa bat aldatzea lortzen ez badute, nahiz eta ahalegin aldetik orekatua eta eduki aldetik zorrotza den instituzioen arteko eztabaida gauzatu, ondorioztatu beharko dugu gomendia ez onartzea ez dela arbitrarioa izan, nahiz eta arrazoiekin bat ez etorri, eta horrela jakinaraziko zaio herritarrari eta horrela jasoko da urteroko txostenaren kapitulu honetan.

Baina beste batzuetan gomendioen aurrean ez da inolako eztabaida edo konparazio dialektikorik izaten eta gomendioak ez dira onartzen edo lege betebeharrak gogorarazteko idazkiei ez zaie jaramonik egiten. Hori larriagoa dela uste dugu. Esan beharra dago hori ez dela sarri gertatzen, baina jazotzen denean, Arartekoari ez zaio aukera handirik geratzen, gehienetan zalantzan jartzea baino ez administrazio organoek nolako arduragabekeria erakusten duten bermea emateko eta legeek administrazioaren jarduketak kontrolatzeko ahalmena ematen dien erakunde honekiko. Arartekoaren erabakia inolako arrazoibiderik gabe ez onartzea Eusko Legebiltzarreko batzordeburu bati eta, beraz, herri subiranotasunaren ordezkari bati uko egitea ez ezik, herritarrekiko begirunerik gabeko jokabidea ere adierazten du, herritar horiek Zuzenbide Estatuan aurreikusten diren mekanismoak erabili eta hau bezalako instituzio berme emaile batengana jo baitute, euren eskubideak defendatzeko.

Hori guztia azaldu ondoren, 1999an emandako gomendioen aipamena egingo dugu, 1998ko abenduaren 31n artean behin betiko erantzunik gabeko gomendioak ere barne direla. Aipamen horretan gomendioak labur azalduko dira, hiru mailatan banatuta: a) Administrazioak onartutakoak; b) Administrazioak onartu gabeak eta c) 1998ko abenduaren 31n artean Administrazioaren behin betiko erantzuna eman gabe zeudenak, bai hasierako erabakiari, baita administrazioaren ezezko erantzunaren aurrean beste argudio batzuk erabiliz berriz ere egindakoei ere. Bukatzeko, bertan behera geratutakoen aipamena egingo dugu, auzi horiek dagoeneko eskumen egoitzan daudelako.



## 1. ONARTUTAKO GOMENDIOAK

### A) EUSKO JAURLARITZA

#### - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

\* **2000/1998/23 espedientea (95/1998 gomendioa).** Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari honako gomendioa egin zitzaion: ikastetxe publiko bateko ikasle batek hezkuntza zerbitzu publikoaren berezko eskola jarduerak burutzean jasandako lesioak ikusirik, Administrazioaren ondare erantzukizunerako espediente bati hasiera eman ziezaiola eta egin zitzala izapideak honakoen arabera: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen -azaroaren 26ko-30/92 Legearen 142. artikulua arabera eta hura garatzen duen 429/1993 Errege Dekretuaren arabera.

\* **2247/1998/20 espedientea (100/1998 gomendioa).** Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari honako gomendioa egin zitzaion: unibertsitate mailakoak ez diren ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko irakaslegaien zerrenda kudeatzeari buruzko egun indarrean dauden argibideak egoki zitzala (1995eko irailaren 13ko Langileen Kudeaketarako Zuzendariaren Erabakia) honakoa ahalbidera zedin: interesatu kopurua ordezkapen eskaerei aurre egiteko adinakoa ez den espezialitatetan, hizkuntza baldintzak betetzen ez dituzten irakasle gaien zerrendetan sartzeko bidea ematea eta berori arautzea.

\* **2265/1998/20 espedientea (12/1999 gomendioa).** Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari honako gomendioa egin zitzaion: kexa aurkeztu duenari eman ziezaiola baimena honako grabaketak entzuteko: 1997ko ekainean eta uztaian Bizkaiko Lurralde Historikoan burututako hizkuntza eskakizunetarako azterketetarako deialdi librean epaimahaiek espedientearen zati gisa erabilitako grabaketak entzutekoa, hain zuzen.

\* **2585/1998/18 espedientea (3/1999 gomendioa).** Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari honako gomendioa egin zitzaion: azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 139. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoaren arabera, bidera zezala zegokion ondare erantzukizunerako espedientea, interesatuek aurkeztutako ondorengo kexari irtenbidea aurkitzeko: interesatuek zenbait liburu erosi zituzten, ikasketak egiteko onartuak izan ziren ikastetxeak hala esanda, baina behin betiko esleitu zitzaion ikastetxean ezin zituzten erositako liburuak erabili. Aipatu espedienteak prozedura laburtuari jarraituz bideratu beharko lirarteke, aipatu Legearen 143. artikuluan ezarritakoaren arabera, horretarako kontuan hartuz, alde batetik, Ikuskaritzak kexa horien ildotik jada burutu dituen jarduerak eta, bestetik, kexa horiek aurkeztu zirenetik pasatu den denbora.

\* **652/1999/25 espedientea (57/1999 gomendioa).** Arartekoari aurkeztutako kexaren arabera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ukatu egin zion hiritar bati Getxoko (Bizkaia) Hizkuntza Eskola Ofizialeko ikasle izatea. Hori zela eta, honako gomendioa egin zion Arartekoak aipatu Sailari: erabakia berrius zezala eta, ondorioz, egin zitzala egin beharreko jarduerak, 1998-1999 ikasturtean (euskara ikastaroko laugarren mailari dagokiona) interesatuak lortutako ikasketa maila ebaluatu ahal izateko.

\* **889/1999/20 espedientea (88/1999 gomendia)**. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari honako gomendia egin zitzaion: har zitzala beharrezkotzat zituen neurriak zera ahalbidetzeko: bitarteko funtzionario emakumezkoek (egoera egonkorra ez eduki arren, EAeko hezkuntza administrazioaren zerbitzura jarraitzekotan direnek) izan dezatela haurdunaldi eta erditzeagatik 18 asteko baimena hartzeko eskubidea, egun indarrean dagoen EAeko unibertsitate mailakoak ez diren hezkuntza langileak arautzeko Hitzarmenak ezarri bezala.

### **Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea**

\* **2316/1998/20 espedientea (96/1998 gomendia)**. Euskal Herriko Unibertsitateari honako gomendia egin zitzaion: har zitzala hartu beharreko neurriak Segurtasunaren Kudeaketarako Unibertsitate Masterrean -UPV/EHUko Gasteizko Industri Ingeniaritza Teknikoko eta Topografia Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolaren Ingeniaritza Kimikoko eta Ingurugiro Sailak antolatutako aipatu masterrean-lehenengo maila gainditu ondoren -lehen zikloko unibertsitate titulua baino ez aurkezteagatik, hala nola, diplomatua, ingeniari teknikoa edota arkitekto teknikoa, eta beraz, goi mailako unibertsitate titulurik ez izateagatik- masterreko bigarren mailan matrikulatzea ukatu zitzaion ikasleei, salbuespen gisa, aipatu mailan matrikulatzeko eskubidea bermatzeko.

\* **234/1999/19 espedientea (45/1999 gomendia)**. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen eskumendun organoek Kontseilua erakundearekin "Ordubeteko lana euskararen alde" kanpaina elkarlanean aritzeko prozedura onartu zuten. Hori zela eta, Arartekoak honako gomendia zuzendu zion EHUri: esku hartze txikienaren printzipioa errespetatze aldera, UPV/EHUK bere egiteko eta eskumen ezinbestekoak ez diren bestelako elkarlanerako jarduerak burutu edo bultzatzea erabakitzen duenean, saia dadila horietan parte hartzeko proposatzen edo antolatzen diren prozeduretan langile publikoek inolako borondate adierazpen pribaturik egin behar ez izaten Unibertsitateko aparatu burokratiko edo administratiboetako organo edo zerbitzuen aurrean, ez egitez ezta ez-egitez ere, Espainiako Konstituzioak 16.2, 18.1 eta 4. artikuluetan ezartzen duen funtsezko eskubideak berma daitezen.

### **- Ogasun eta Herri Administrazio Saila**

\* **165/1999/19, 230/1999/19, 231/1999/19, 326/1999/19, 366/1999/19 espedienteak (Espediente kolektiboa) (21/1999 gomendia)**. Eusko Jaurlaritzaren eskumendun organoek Kontseilua erakundearekin "Ordubeteko lana euskararen alde" kanpaina elkarlanean aritzeko prozedura onartu zuten. Hori zela eta, Arartekoak honako gomendia zuzendu zion Eusko Jaurlaritzari: esku hartze txikienaren printzipioa errespetatze aldera, Eusko Jaurlaritzak bere egiteko eta eskumen ezinbestekoak ez diren bestelako elkarlanerako jarduerak burutu edo bultzatzea erabakitzen duenean, saia dadila horietan parte hartzeko proposatzen edo antolatzen diren prozeduretan langile publikoek inolako borondate adierazpen pribaturik egin behar ez izaten Jaurlaritzako aparatu burokratiko edo administratiboetako organo edo zerbitzuen aurrean, ez egitez ezta ez-egitez ere, Espainiako Konstituzioak 16.2, 18.1 eta 4. artikuluetan ezartzen duen funtsezko eskubideak berma daitezen.

### **Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea**

\* **1605/1997/20 espedientea (3/1998 gomendia)**. Ogasun eta Herri Administrazio Sailari honako gomendia egin zitzaion: har zitzala hartu beharreko neurriak funtzionario izaera edo lan legepeko kontratuak dituzten interesatuek aldi baterako zerbitzuak eta zerbitzu finkoak -gutxienez epe luzeko bitarteko beharrak agertzen direnean- jaso ahal ditzaten.

### **- Herrizaingo Saila**

\* **1133/1995/19 espedientea**. Hiritar batek trafikoa arautzen duten arauak hausteagatik ezarritako isuna baliogabetzeko eskaria bidali zuen. Hori zela eta, Arartekoak honako gomendia bidali zion Herrizaingo Sailari: bidal ziezaiola erantzun formala interesatuak bidalitako idazkiari.

\* **477/1997/21 espedientea (50/1998 gomendia)**. Herrizaingo Sailari honako gomendia egin zitzaion: Krimen Auzipetzeetarako Legearen 268. artikuluan ezarritakoaren arabera, Ertzaintzako zerbitzuek eman ziezaietela hala eskatzen duten salatzailerei egindako salaketaren frogagiria. Polizia funtzionarioak euren esku hartzei buruzko ahalik eta informazio gehien ematera behartzen dituen printzipioaren arabera, salaketa idazkiaren kopia zigilatua eman beharko litzateke frogagiri gisa edo, salaketa ahoz egin denean, deklarazioaren transkripzio idatziaren kopia eman beharko litzaiokie hala eskatu duenari.

\* **404/1998/19 espedientea (111/1998 gomendia)**. Herrizaingo Sailari honako gomendia egin zitzaion: agindu zezala alde aurretiko informazioen espediente baten izapideak egitea, honakoa argitzeko asmoz: alde batetik, zein arrazoik bultzatu zituen Ertzaintzako zenbait funtzionario hiritar batzuek identifikatzera eta, bestetik, zernola egin zitzaion hiritarrei horiei ondorengo "katxoa".

\* **2120/1998/19 espedientea (110/1998 gomendia)**. Herrizaingo Sailari honako gomendia egin zitzaion: agindu zezala alde aurretiko informazioen espediente baten izapideak egitea, honakoa argitzeko asmoz: zenbait funtzionariok burututako identifikazio eginbide jakin batek nahiz ondorengo atxiloketak bete ote zituen Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia arautzen duen -uztailaren 17ko- 4/1992 Legeko 34. artikulua aipatzen dituen egokitasun, proportzionaltasun eta beharrezkotasun printzipioa.

\* **2628/1998/19 espedientea (73/1999 gomendia)**. Herrizaingo Sailari honako gomendia egin zitzaion: egin beharreko tramiteak egin ondoren, ofizioz baliogabetu zezala Hiritarren Seguritasunerako Zuzendari Jaunak emandako erabaki zigortzailea, zeinaren bidez manifestazio bat antolatu zuenari diru zigorra ezarri zitzaion, administrazioak manifestazioak burutzeko ezarritako baldintzak ez betetzeagatik. Egindako gomendia honetan oinarritzen zen: Arartekoaren ustez, prozedura zigortzailearen bidez ezin izan zela frogatu aipatu baldintzak ez betetzea manifestazioa antolatu zuenaren egitearen edo ez-egitearen ondorio izan zenik.

### - Osasun Saila

\* **997/1998/01 espedientea (15/1999 gomendia)**. Osasun Sailari honako gomendia egin zitzaion: azter zezala egun indarrean den Prestazio Ortoprotesikoen Katalogoa egokia ote den epe jakin baten buruan berritu beharreko produktuei dagokienez, kontuan har dadin haurren hazte prozesuaren ondorioz sortzen den egoera eta, ondorioz, berritu beharreko arrazoietakoa bat gehiago bezala sar dezaten aipatu katalogoan.

\* **17/1999/18OF espedientea (46/1999 gomendia)**. Osasun Sailari honako gomendia egin zitzaion: bidera zitzala bi botikari egin beharreko espediente administratibo bana, zenbait farmazia espezialitate Administrazioak baimendutako salneurria baino gehiagoko prezioan saltzeagatik izan dezaketen erantzukizuna zehazteko asmoz.

\* **17/1999/18OF espedientea (47/1999 gomendia)**. Osasun Sailari honako gomendia egin zitzaion: botikek farmazia espezialitateak Administrazioak baimendutako salneurria baino gehiagoko prezioan saltzen duten susmoa egonik, eman ziezaiela hasiera egin beharreko jardueri, helburu hauekin: alde batetik, aipatu arau haustek ematen ote diren eta zenbaterainokoak diren egiaztatzeko asmoz eta, bestetik, hala badagokio, botika arau hausleei erantzukizun administratiboak eskatzeko, behin egin beharreko espedienteak bideratu ondoren.

### Servicio Vasco de Salud/Osakidetza

\* **29/1999/18OF espedientea (75/1999 gomendia)**. Osakidetzari honako gomendia egin zitzaion: har zitzala hartu beharreko neurriak, etorkizunean bermatu ahal izateko Osakidetzaren menpeko zentroetan dauden gaixoen senitartekoei ahalik eta lehenen izango dutela gaixoa lekualdatuko den berri.

\* **462/1999/20 eta 519/1999/29 espedienteak (Espediente kolektiboa) (90/1999 gomendia)**. Hiritarren eskubidea da eurek aukeratutako hizkuntza ofizialean hartuak izatea. Bestalde, erakunde publikoan jardun ahal izateko, langile orok izan behar du gutxieneko euskara ezagutza. Horrela, hiritarren hizkuntza eskubideak betearazteko, batetik, eta erakunde publikoetarako sarbidea legezko irizpideen arabera egingo dela bermatzeko, bestetik, Arartekoak honako gomendia egin zion Osakidetzari: har zitzala hartu beharreko neurriak osasun arloaren hizkuntza normalizaziorako aparteko egitasmoa behin-betiko onar zedin bultzatu eta sustatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko –ekainaren 26ko– 8/1997 Legearen 28. artikuluko ezarri bezala.

### Lan Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea/Osalan

\* **1245/1997/23 espedientea (86/1998 gomendia)**. Osalani honako gomendia egin zitzaion: azter zitzala, aldiari behin, autoen galgak eta lozagiak konpondu eta maneiatzen dituzten auto konponketetarako lantegiak, otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuak ezartzen duen lagin hartze eta analisi metodoaren bidez, ondorengo zehatz-mehatz eta frogagiri gisa egiaztatzeko asmoz: horrelako lan jarduerak amiantoaren arriskupean dauden enpresen Erregistroan eta araudiak ezarritako neurri eta kontrolpean egon behar ote duten.

## B) FORU ADMINISTRAZIOA

### - Arabako Foru Aldundia

\* **317/1998/23 eta 435/1998/23 espedienteak (Espediente kolektiboa) (88/1998 gomendioa)**. Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Sailari honako gomendioa egin zitzaion: azter zezala berriro “Federación Alavesa de Pesca y Casting”-ekin urtero sinatzen duen zenbait arrantza barruti kudeatzeari buruzko hitzarmenaren edukia, zeren aipatu hitzarmenak aitzakia ematen baitu arrantza barruti horiek elkarte laguntzaileen artean kudeatzeko, horretarako gaituko lukeen inolako arau juridikorik izan gabe. Halaber, honako gomendioa ere egin zitzaion: proposa ziezaiela Arabako Lurralde Historikoko Batzar Nagusiei otsailaren 23ko 8/1998 Foru Araua aldatzea, zeinetan aldatu egiten den 1998. urterako Arabako Lurralde Historikorako Aurrekontu Orokorren Betearazpenari buruzko abenduaren 19ko 33/97 Foru Arauko 5. puntuko 7. xedapen gehigarria, eta ezar zezala erabiltzaile guztientzat kostuaren araberrako salneurri bakarra, alde batera utzita barrutien kudeaketa Foru Aldundiak egiten duen edo, zeharka, elkarte laguntzaileek egiten duten, zeren horrela egin ezean, legearen aurrean berdinak garen printzipioa urratuko bailitzateke, Konstituzioak jasotzen duen elkartzeko eskubideari dagokionez.

\* **182/1999/19 espedientea (52/1999 gomendioa)**. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari honako gomendioa egin zitzaion: egin beharreko izapideak egin ondoren, baliogabetu zezala trafikoko arau erregulatzailak hausteagatik ezarritako isuna betearazteko premiamenduzko espediente bat. Izan ere, Arartekoa ondorio honetara iritsi zen: premiamenduzko epaile erabakiaren legezko abisuaren jakinarazpenak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen – azaroaren 26ko– 30/1992 Legearen 59.4. artikulua ezarritakoa hautsi zuela, honako bi arrazoiengatik: 1) jakin baitzezakeen zordunaren helbidea –bahiturarako erabakia jakinaraztea lortzean egiaztatu bezala– eta 2) premiamenduzko epaile erabakia ez zelako ipini zegokion Udalaren legezko abisu taulan. Ondorioz, beste gomendio hau ere egin zitzaion: baliogabetu zitzala interesatuaren ondasunen aurka burututako jarduera guztiak eta itzul ziezaiola, hala balegokio, kendutako guztia.

### - Bizkaiko Foru Aldundia

\* **1135/1997/22 espedientea (157/1997 gomendioa)**. Bizkaiko Foru Aldundiaren Garraio Sailari honako gomendioa egin zitzaion: sar zitzatela Bizkaibus garraio zerbitzuan familia ugarietako kideentzat 25/1971 Legeak 21. artikuluan ezartzen dituen murriztapenak bi udalerrri lotzen dituen ibilbideetan. Hasieran Foru Aldundiak gomendioaren zehaztapenak onartu ez bazituen ere, ondoren zera erabaki zuen: familia ugarietako salneurri murriztuko txartelak ematea, Bizkaibus garraio zerbitzuko zerbitzu guztietan erabil zitzaten. Aipatu erabakia ekainaren 8ko 90/1999 Foru Dekretua onartzearen bidez gauzatu zen.

\* **1982/1998/21 espedientea (14/1999 gomendioa)**. Arartekoaren ustez, herri administrazioek asistentzia eman beharko liekete euren senar edo mutil lagunaren erasoengatik babestearren etxea uztera behartuta dauden edo egon diren emakume inmigranteei, horretara zuzenduta dauden etxebizitzetan hartuz eta babestuz, euren seme-alabekin batera. Eta, giza eskubideen ikuspegitik, asistentzia hori gainerako hiritar guztien

baldintza berberetan eman beharko litzateke, kontuan hartu gabe atzerriko emakume horiek zer-nolako egoera administratiboan dauden Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzen. Hori helburu, Arartekoak honako gomendioa egin zion Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailari, zehaztapen hauetan bilduta:

a) 1997an Eusko Jaurlaritzari zuzendutako Txostenean, atzerriko jatorria dutenak udal erroldetan sartzeari buruzko gomendio orokorra jaso zuen Arartekoak eta oraingoan ere orduan esandakoarekin bat egiten dugu. Izan ere, udalek indarrean dauden araudi xedapenak betetzen badituzte, udalerrian bizi diren hiritar guztien erroldatzea eman behar dute, nahiz eta aipatu bizilekua legez kontrakoa izan ikuspegi administratibotik. Erroldatuta egoteak gizarte laguntza jasotzea ahalbidetzen du, eta laguntza horiek ezinbestekoak izaten dira zenbait egoera larritan, inmigranteek sarritan jasaten dituzten egoera larrietan, besteak beste.

b) Dena den, erroldatuta ez egoteak ez luke eragozpena izan behar etxeiko indarkeria kasuetan asistentzia eman edo ez eman erabakitzerakoan eta, zehazki, ez luke eragotzi beharko babes etxeetara jo ahal izatea. Horrelakoetan, oinarriko gizarte zerbitzuek balioztatu egin beharko lituzkete behar egoeraren ezaugarriak, eta lehentasuna eman beharko liekete bizitza babesteari eta erasotako emakumearen segurtasunari eta, gertatuz gero, emakumearen ardurapean dauden adin txikikoen segurtasunari.

c) Esku hartze horietan zehar gizarte zerbitzuetako langileek kontuan izan beharko lukete, besteak beste, euren eta zerbitzua jaso dutenen arteko harremanetan zehar lortutako informazioa isilpekoa dela. Bestalde, emakume batek babes etxeren batean sartzeko baldintzak betetzen ote dituen balioztatzerakoan ez lirateke ahaztu behar, halaber, bestelako aldagai batzuk. Izan ere, aldagai horiek, agian, eragotzi egingo diote erasotako emakume inmigranteari salaketa jartzea edo egoera normaletan eskatu ahal izango zituen jarduerak burutzea. Berrito diogu, emakumearen funtsezko eskubideak defendatzeak bideratu beharko luke erakundeen esku hartze oro.

\* **407/1999/15 espedientea (34/1999 gomendioa).** Otsailaren 25etik martxoaren 22ra bitartean, Bizkaiko Foru Aldundiak UTE baten bidez azpikontratutako draga batek 22.373 m<sup>3</sup> hondar erauzi zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Kosta Mugapeak 1998ko urriaren 4ko erabakiaren bidez baimendutako eremutik kanpo. Hori zela eta, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurugiro eta Lurralde Ekintzako Sailari honako gomendioa egin zitzaion: ipin zezala berriro ere administrazio baimenik gabe erauzitako hondarra bere lekuan, baimendutako lekuetatik kendu eta hondarra legez kanpo atera zen leku zehaztutara eramanez. Halaber, honako gomendio hau ere egin zitzaion: lan horiek sortarazitako kostuak egokiazkiola Arrigunagako hondartza egokitzeko lanak burutzeko kontratatu edo azpikontratutako enpresari; azter zezala lanak zuzentzeko eta lanen gauzatzea dragatze proiektuari egokitzen ote zitzaion kontrolatzeko kontratatu zen enpresak izan zezakeen erantzukizuna eta baita berariaz dragatze lanak ikuskatzeko kontratatutako enpresarena ere. Bestalde, zenbait azterketa egitea gomendatu zitzaion, hots, dragatze lanak amaitu eta urte beteko buruan hondar bankuak jasan zitzaiekan aldaketak egiaztatzeko egin beharreko azterketak egitea, eta baita Bakioko hondartzako itsasertzak eta hondoak jasak ditzakeenak egiaztatzeko ere. Eta, azkenik, honako gomendioa egin zitzaion: behin maiatzaren 20an Euskal Autonomia Erkidegoko Kosta Mugapenak hondarra erauzteko emandako baimenaren bigarren luzapena amaitu ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak ez zezala luzapen gehiagorik eska, kosten 22/1988

Legearen 81-1. artikulua ezarritakoaren eta haren garapenerako Araudiaren 164-1. artikulua ezarritakoaren kontrakoa bailitzateke hori.

### - Gipuzkoako Foru Aldundia

\* **1875/1997/19 espedientea (2/1999 gomendia)**. Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta zehazki Foru Ogasunari, honako gomendia egin zitzaion: baliogabetu zitzala Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak eta Ibilgailuen Zerbitzuak trafiko arauak hausteagatiko isunak betearaztearen bideratutako zenbait premiamendu espediente, preskribitu egin baitziren. Izan ere, premiamenduzko erabakiak jakinarazi zirenetik haiei zegokien bahitura gauzatu bitartean, –martxoaren 2ko dataz 339/1990 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartutako– Trafiko, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunerako Legearen Artikulu Testuko 81.1. artikulua ezarritako epea gainditu baitzen.

\* **27/1998/21OF espedientea (18/1999 gomendia)**. Herri administrazioek asistentzia eman beharko liekete euren senar edo mutil lagunen erasoengatik babestearren etxea uztera behartuta dauden edo egon diren emakume inmigranteei, horretara zuzenduta dauden etxebizitzetan hartuz eta babestuz, euren seme-alabekin batera. Eta, giza eskubideen ikuspegitik, asistentzia hori gainerako hiritar guztien baldintza berberetan eman beharko litzateke, kontuan hartu gabe atzerriko emakume horiek zer-nolako egoera administratiboan dauden Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzen. Hori helburu, 1982/1998/21 espedientean Bizkaiko Foru Aldundiari egin bezalako gomendia luzatu zion Arartekoak Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailari.

## C) TOKI ADMINISTRAZIOA

### a/ Arabako udalak

#### - Gasteizko Udala

\* **1419/1998/19 espedientea (67/1998 gomendia)**. Gasteizko hiritar batek aurkeztu kexaren arabera, Gasteizko Udalak ukatu egin zion Gizarteratzeko Gutxieneko Sarrera, Giza Larrialdietarako Laguntza eta elikagai laguntza jasotzeko eskubidea. Hori zela eta, Arartekoak honako gomendia egin zion Udalari: ofizios azter zezala berriro ezezkoa ematea erabaki zen Gizarte Gaietarako Zinegotziaren Erabakia, eta kontuan har zezala interesatuaren helbidea hiritarren udal erroldan agertzen den bera dela. Udalak emandako erantzunaren arabera, gaia aztertu eta horretarako hasiera eman zitzaion espediente administratiboaren ondorioz, onartu egin zen kexa aurkeztu zuenaren helbidea hiritarren udal erroldan ageri dena dela, egiaz, eta ondorioz, giza larrialdietarako laguntza eman zitzaion interesatuari, berak eskatu bezala.

\* **389/1999/20 espedientea (35/1999 gomendia)**. Gasteizko Udalari honako gomendia egin zitzaion: har zitzala hartu beharreko neurriak kexa aurkeztu zuenaren nahiaz arduratzeko, hots, tekniko zerrenda sortzeko asmoz udalbatzak egindako deialdi publikoan azterketak gainditu zituzten teknikogaien azterketa teoriko zein praktikoan kopiak lortzea.

**b/ Bizkaiko udalak****- Alonsotegiko Udala**

\* **1844/1997/17 espedientea (167/1997 gomendioa)**. Alonsotegiko Udalari honako gomendioa egin zitzaion: itxi zezala aisialdi eta kultur elkarte jakin bat, haren jabeek instalazioak baldintza guztiak betetzen dituela bermatzen duen irekitze baimena lortu arte, hori guztia GOKA araudian ezarritako prozeduraren arabera.

**- Amorebieta-Etxanoko Udala**

\* **1555/1997/17 espedientea (107/1998 gomendioa)**. Amorebieta-Etxanoko Udalari honako gomendioa egin zitzaion: har zitzala hartu beharreko neurriak gauzez udalerriko ostalaritza lokalak sorburu dituzten zaratak ikuskatu eta kontrolatzeko eta, zehazki, lokal jakin bati jarraipena egin ziezaiola aipatu gaiaren inguruan.

\* **203/1999/15 espedientea (53/1999 gomendioa)**. Amorebieta-Etxanoko Udalari honako gomendioa egin zitzaion: eman ziezaiola hasiera ikerketa espediente bati Boroatik Arrizuriaga mendirantz doan bidearen jabea nor den zehazteko asmoz –Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiaren 45. artikulua eta ondorengoek ezarritako prozeduraren arabera– eta, Arrizuriagako bidea herri jabetzakoa dela ondorioztatuko balu espedienteak, orduan Amorebieta-Etxanoko Udalak burutu zitzala egin beharreko jarduerak aipatu bideko bidezorua egokitzeko.

**- Barakaldoko Udala**

\* **2249/1998/17 espedientea (108/1998 gomendioa)**. Barakaldoko Udalari honako gomendioa egin zitzaion: har zitzala hartu beharreko neurriak gauzez udalerriko ostalaritza lokalak sorburu dituzten zaratak ikuskatu eta kontrolatzeko eta, zehazki, lokal jakin bati jarraipena egin ziezaiola aipatu gaiaren inguruan.

**- Bediako Udala**

\* **1388/1997/15 espedientea (37/1999 gomendioa)**. Bediako Udalari honako gomendioa egin zitzaion: bere eskumenak gauzatuz eta lege betebeharrak betez, burutu zitzala egin beharreko jarduerak Ereño auzora joateko bidea egokitzeko.

**- Bermeoko Udala**

\* **2292/1998/15 espedientea (38/1999 gomendioa)**. Bermeoko Udalari honako gomendioa egin zitzaion: garaje batetik goiko etxebizitzara zarata pasatzen zela eta, exiji ziezaiola garajearen jabeari hartu beharreko neurriak hartzea goiko etxebizitzan garajeko zaratarik entzun ez zedin.

**- Bilboko Udala**

\* **1655/1997/19, 2563/1998/19 eta 501/1999/19 espedienteak (98/1998, 22/1999 eta 55/1999 gomendioak)**. Bilboko Udalari honako gomendioa egin zitzaion: baliogabetu zitzala zaborrak uzteko ordutegia arautzen duen Hiri Garbitasunerako Udal Ordenantzak ezarritako arauak hausteagatik ipinitako zigorrak. Izan ere, zigorra ezarritakoei egitea egozteko froga bakarra hauxe baitzen: hiritar



horiek poltsaren edukiarekin lotzen zituen dokumentu batzuk aurkitu izana ikuskatutako poltsan.

\* **1694/1997/21 espediente (36/1998 gomendioa)**. Polizi jarduera bat zela eta, honako gomendioa egin zitzaion Bilboko Udalari:

a) Hiritarren segurtasunerako zenbait polizi jarduerak, hala nola, hiritarren identifikazioak edo bide publikoan egin beharreko beste edozein egiaztapenek, ezin dute berezi gabeak izan. Gizarte alarma larria eragin duen delitu ekintzaren bat argitzera zuzenduta daudenean baino ez dira bidezkoak horrelako polizi jarduerak. Edozein kasutan ere, hiritarren gauzen miaketa azalekoa izango da beti eta behar bezalako bermeeekin egingo da. Beraz, bide publikoan bertan egin beharko da, baldin eta miaketa egingo zaionak kontrakoa eskatzen ez badu, eta edonola ere, interesatuak ikusteko moduan egingo da miaketa eta, beraz, ezingo da interesatua behartu bizkarrez egotera bere ondasun edo gauzak ikuskatzen diren bitartean.

b) Krimen Auzipetzeetarako Legearen 495. artikuluan ezarritakoaren arabera, ezin da inor atxilotu falta arruntengatik, honako kasuetan izan ezik: ustezko errudunak ez izatea helbide jakinik edo ez ematea nahikoa fidantzarik epaitegian aurkeztuko dela bermatzeko. Atxiloketa bidezkoa denean, ez da ohiz erabateko biluztasunezko gorputz miaketarik egingo, zeren horrelako miaketak honako kasuetan baino ez daude justifikatuta: atxilotuaren egoerak, hari egotzitako delituaren nolakotasunak eta atxiloketarena berarenak behar-beharrezko neurri bilakatzen dituztenean, eta beti ere arrazoizkotasunaren eta proportzionaltasunaren irizpideen arabera. Edozein kasutan ere, horrelako miaketa egitearen erantzuleak idatziz jaso beharko du bere erabakia, horretarako zein arrazoi izan zituen ere azalduz, neurria egokia izan ote zen inoiz ikertu nahi izanez gero aztertu ahal izan dadin.

c) Atxilotutakoaren eskubideak –Krimen Auzipetzeetarako Legearen 520. artikuluan jasoak– egoera eta une oro errespetatuko dira. Dagokigun gai honen harian, berriro esan beharra dago adin txikikoak atxilotutakoan poliziak betebeharra duela haien gurasoei edo tutoreei atxiloketaren berri emateko bai eta zein lekutan dagoen atxilotuta esateko ere. Adin txikikoaren gurasoekin harremanetan jartzerik lortuko ez balitz, ministerio fiskalari berehala eman beharko zaio horren berri. Halaber, atzerritarrak atxilotzen direnean, bertako hizkuntza behar adina ulertzen ote duen arduratuko da Udaltzaingoa. Bera atxilotzeko arrazoiak edo bere eskubideak zein diren ulertzeko gaitasunari buruzko zalantzarik txikiena izanez gero, interpreteren batengana joko da ofizioz, haren laguntza bila.

\* **99/1998/19 espediente (91/1999 gomendioa)**. Bilboko Udalak premiamenduzko espediente baten izapideak egin zituen hiritar baten aurka, besteak beste trafikoko arauak hausteagatik ezarritako isunen ondorioz. Baina ezarritako aipatu isunak ez ziren ordenamendu juridikoaren arabekoak, honako arrazoiengatik: espedienteetako batean eta haiek jakinarazteko prozeduran akatsak egon zirelako –salaketak TAOko zaintzaileek aurkeztu zituzten, haiek berrestu gabe– eta, gainera, preskribitu egin ziren. Horrela, beraz, Arartekoak honako gomendioa egin zion Bilboko Udalari: itzul ziezaiola interesatuari bere ondaretik kendutako guztia.

\* **1368/1998/21 espediente (70/1998 gomendioa)**. Bilboko Udaltzaingoko zenbait funtzionariok burututako atxiloketa bat zela eta, Arartekoak kexa espediente bat jaso zuen. Horren ondorioz, Arartekoak gomendio bat bidali zion Bilboko Udalari honako iritziekin:

a) Polizi komisarietan atxilotutakoak guztiz biluztera behartzeko neurria dela eta, berriro esan beharra dago gorputz miaketak ez duela ohiko jarduera izan behar, eta arrazoikotasun eta proportzionaltasunaren irizpideak dauden kasuetan baino ezin dela hartu horrelako neurririk. Bestalde, erabateko biluztasunezko gorputz miaketa egitera bultzatutako arrazoiak geroago aztertu ahal izateko, behar-beharrezkoa da horren berri idatziz ematea, nahiz eta azalpena labur-labur eman.

b) Krimen Auzipetzeetarako Legearen 520.2. artikulua, besteak beste, honela dio: atxilotu orori emango zaio “*berak ulertzeko moduan eta berehala, leporatzen zaizkion ekintzen berri, bai eta askatasunik gabe uztea eragin duten arrazoiaren eta bere eskubideen berri ere*”. Aipatu xedapenak, besteak beste, eskubideen berri atxilotetaren unean bertan emateko betebeharra sortzen du –horretarako polizi komisarian sartu bezain laster idatzizko akta egingo da– eta, beraz, ez soilik atxilotuak deklarazioa egingo duen aurretiko momentuan. Baina horrek guztiak ez du eragotzi beharrik atxilotua abokatuarekin dagoenean informazioa berriro ere informazioa errepikatzea, hark eskubideak behar bezala ulertu dituela ziurtatzeko. Halaber, legezko arau horrek eskubide ezberdina biltzen dituenez, eta bakoitza bere aldetik betearaz daitezkeenez, hobe litzateke eskubideen informazio aktaren idazkia aldatzea, eskubide bakoitzaren ondoren atxilotuak ulertu duen ala ez eta eskainitakoari zer erantzun dion idatziz jasoz.

c) Krimen Auzipetzeetarako Legearen 520.1. artikulua dioenaren arabera, atxilotu ezingo da inola ere luzatu “*egitateak argitzeko egin beharreko ikerketa lanek ematen duten denbora baino gehiago*”. Askatasuna kentzeaz ari denez, modu murriztailean ulertu behar da, hots, atxilotuaren ondorioz burutzen diren eginbide guztiak ez direla egitateak argitzera zuzenduak izaten ulertuko da, eta beraz, ez dute atxilotuak luzatzerik justifikatzen. Bestalde, atzerritarrak atxilotu eta Polizia Nazionalari informazioa eskatu behar zaionean, behar-beharrezkoa izango da Hiritarren Segurtasunerako Zerbitzuak egin beharreko izapideak bizkortzeko asmoz hartu beharreko neurri guztiak hartzea, atxilotuaren luzapenak ekiditeko.

d) Krimen Auzipetzeetarako Legearen 523. artikulua atxilotutakoak bisitak izateko eskubidea duela jasotzen du. Ikerketaren ardura duen polizi funtzionarioaren ustez atxilotuak bisitak jasotzeko ikerketaren emaitza ona arriskuan jarriko badu, orduan bisita jasotzeko eskubidea ukatu ahal izango du, baina beti ere idatziz jaso beharko du hartutako erabakia eta horretara bultzatu zuten arrazoiak, geroago neurria egokia izan ote zen aztertu nahi izanez gero ikerketa egin ahal izan dadin. Bisitak behar bezala izateko leku egokirik ez izatea, Hiritarren Segurtasunerako Zerbitzuaren txostenetako batean aipatua, azpimarratua zuen jada Arartekoak, Garellanoko komisariari egindako ikustaldiaren ondorioz Arartekoak ofizios hasitako jardueran. Garellanoko komisaria hobetzeko lan proiektua egon badagoenez, komenigarria litzateke kontuan hartzea leku egokia behar dela bertan atxilotuak euren senitarte edo adiskideekin hitz egin ahal izan dezaten.

\* **1982/1998/21 espedientea (16/1999 gomendia)**. Herri administrazioek asistentzia eman beharko liekete euren senar edo mutil lagunen erasoengatik babestearren etxea uztera behartuta dauden edo egon diren emakume inmigranteei, horretara zuzenduta dauden etxebizitzetan hartuz eta babestuz, euren seme-alabekin batera. Eta, giza eskubideen ikuspegitik, asistentzia hori gainerako hiritar guztien baldintza berberetan eman beharko litzateke, kontuan hartu gabe atzerriko emakume horiek zer-nolako egoera

administratiboan dauden Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzen. Hori helburu, 1982/1998/21 espedientean Bizkaiko Foru Aldundiari egin bezalako gomendioa luzatu zion Arartekoak Bilboko Udalari.

\* **2505/1998/23 espedientea (60/1999 gomendioa).** Kexa aurkeztu zeneko Hileta eta Hilerrri Zerbitzuen Udal Erakundeko langileek, ehorzte lanak egiten ari zirela, Vista Alegre hilerriko hilobi bateko aurrealdeko hilarria hautsi zuten. Hori zela eta, Arartekoak honako gomendioa egin zion Bilboko Udalari, hilerrien zerbitzu publikoaren titularra den aldetik: onarrezala, egin beharreko espediente administratiboa egin ondoren, Udalak hilarria hautsi izanagatik duen ondare erantzukizuna.

\* **2601/1998/22 espedientea (74/1999 gomendioa).** Bilboko Udalari honako gomendioa egin zitzaion: itzul ziezaiola kexa aurkeztu zuenari berak ordaindutako diru kopurua nahiz diru horrek sortutako interesak, ondorengo arrazoi honegatik: interesatuari bahitura deia jakinarazi zitzaionerako, kobratu nahi zen zorra preskribituta zegoela. Izan ere, ordurako jada pasatu zen Zergak arautzen dituen Bizkaiko Foru Arau Orokorrak 64.b) artikuluan horrelakoetarako ezarrita duen 5 urteko epea.

\* **102/1999/19 espedientea (25/1999 gomendioa).** Bilboko Udalak ibilgailu baten jabeari honako eskakizuna egin zion: kenrezala ibilgailua bide publikotik –utzikeria seinaleak zituela argudiatuz–, eta eman ziezaiola baja ibilgailuari zegokion erregistroan eta, ondoren, deseginrezala. Hori zela eta, ibilgailuaren jabeari egindako eskakizun hori baliogabetu zezan gomendioa egin zion Arartekoak Bilboko Udalari, ondorengo honetan oinarrituz: eskakizuna egin zuen garaian, ibilgailuak indarrean zuela IAT ziurtagiria. Arartekoak emandako argudioak 1998. urteko ohiko txostenean –“Utzitako ibilgailuak bide publikotik kentzeaz” izenburupean– egindako gomendio orokorrean agertutakoak ziren.

#### - Busturiako Udala

\* **2540/1998/23 espedientea (1/1999 gomendioa).** Busturiako Udalari honako gomendioa egin zitzaion: baliogabetu zezala Gobernu Batzordeak onartutako ebazpen zigortzaile bat, hirigintza arauak hausteagatik ezarritakoa, ondorengo arrazoi honegatik: aipatu erabakia baliogabea zelako, legeak dioen prozedurak ezarritako formalitateak eta bermeak alde batera utziz eman baitzen.

#### - Erandioko Udala

\* **1387/1997/23 espedientea (19/1998 gomendioa).** Hiritar batek Arartekoari aurkeztutako kexaren arabera, Erandioko Udalak ez zuen onartu interesatuaren ibilgailuak jasandako kalteak zirela-eta ondare administratibozko erantzukizuna zuenik. Udalaren erabakia alkate dekretu bidez eman zen. Hori zela eta, Arartekoak honako gomendioa egin zion Erandioko Udalari: baliogabetu zezala aipatu alkate dekretua, aipatu erabakiak ez baitzuen kontuan hartu egindako kaltearen eta bide publikoak mantendu eta zaintzeko udal zerbitzuaren funtzionamenduaren arteko kausalitate zuzen, berehalako eta bakarra. Honako beste gomendio hau ere egin zitzaion: eman zezala beste erabaki bat, zeinetan bere ondare erantzukizuna onartuko zuen, eta ordain ziezakziola interesatuari ibilgailuak jasandako kalteak, espedientean azaltzen den kopuruaz.

**- Gorlizko Udala**

\* **1536/1996/15 espedientea (87/1998 gomendioa)**. Gorlizko Udalari honako gomendioa egin zitzaion: eman zezala Uresaranseko familia bakarreko etxebizitzaren eraikuntza amaitzeko lan baimena, hango egitasmo partzialaren aurrera egiteagatik kaltetua. Baimenaren hirigintza baldintza gisa Udalak zera eskatu beharko lioke interesatuari: hirigintza kargetarako behin-behineko kitapenaren zenbatekoa berma dezala, dagokionean Uresaranseko bizileku eremuaren hirigintza kudeaketaren prozesuan egin beharko den behin-betiko kitapenaren kontura. Lurzoru lagapenak legez ezarrita daudenez –dagokion ekidistribuziorako hirigintza dokumentuaren bidez–, nahikoa izango litzateke interesatuak sinatutako etorkizuneko lagapenaren konpromiso idazkia.

**- Ortuellako Udala**

\* **715/1997/15 espedientea (152/1997 gomendioa)**. Ortuellako Udalari honako gomendioa egin zitzaion: hondatutzat jotako eta hala izendatutako ukuilu bat botatzeko agindua bete zezala subsidiarioki.

**- Plentziako Udala**

\* **1510/1998/23 espedientea (40/1999 gomendioa)**. Plentziako Udalari honako gomendioa egin zitzaion: eman zezala ondare erantzukizuneko eskakizun bati buruzko berariazko erabakia, azaroaren 30eko 30/1992 Legearen 42 eta 43. artikuluetan ezarritakoa betez, behin dagokion espediente administratiboaren izapideak egin ondoren, martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuak ezarritako aginduen arabera.

**- Portugaleteko Udala**

\* **640/1998/17 espedientea (89/1998 gomendioa)**. Portugaleteko Udalari honako gomendioa egin zitzaion: baliogabetu zezala Gobernu Batzordeak hartutako erabaki bat, zeinetan organo berak hartutako beste erabaki bat ezeztatu nahi zen. Erabaki horretan, jarduera bateko titularri baimena ematen zitzaion lokal batean haizeztatzeke tutua jartzeko. Arartekoak aipatu gomendioa egitearen arrazoia honakoa zen: aipatu erabakia Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeko 104. artikulua ezartzen dituen baldintzak eta egoerak eman gabe hartu zela eta horixe izan zen, Udaletxearen beraren arabera, aipatu administrazio jardueraren oinarria.

**- Sestaoko Udala**

\* **2376/1998/23 espedientea (23/1999 gomendioa)**. Sestaoko Udalari honako gomendioa egin zitzaion: eman ziezaiola hasiera ofizioz ikerketa espediente baten izapideei –Toki Erakundeetako Ondasunen Araudiaren 45. artikulua eta ondorengoek ezarritakoaren babesean– plazatxo baten titularra nor zen zehazteko eta, ondoren, aipatu plazatxoaren jabeari behar bezala zain zezan exijitzeko asmoz.

**- Trapagarango Udala**

\* **1189/1997/22 espedientea (2/1998 gomendioa)**. Trapagaraneko Udalari honako gomendioa egin zitzaion: Toki Erakundeetako Ondasunen Araudiak 45.

artikuluari eta ondorengoetan aitortu bezala, eman ziezaiola hasiera Udalaren beraren ondasunen ikerketari, Barrionuevotik Bitarratxora doan bidearen titularra nor den zehazteko asmoz. Halaber, honako beste gomendio hau ere egin zitzaion: ikerketen ondoren bidea udal jabetzakoa dela ondorioztatuz gero, sar zezala bidea Trapagarango ondasun eta eskubideen udal inbentarioan eta egin zitzala bidea konpontzeko eta mantentzeko beharrezko lanak. Arartekoari erantzunez, Trapagarango Udalak gomendio betetzea agindu zuen eta, espedientearen erabakiaren atzerapenaren aurrean, Arartekoak ikerketa espedientearen nondik-norakoan berri ematea eskatu zion Udalari. Arartekoak ez du jaso dokumentazio hori jaso honako txosten hau ixteko epera artean.

### **c/ Gipuzkoako udalak**

#### **- Donostiako Udala**

\* **1701/1997/19, 1972/1997/19, 642/1998/19 eta 669/1998/19 espedienteak (Espediente kolektiboa) (112/1998 gomendia)**. Donostiako Udalari honako gomendia egin zitzaion: egin beharrekotako izapideak egin ondoren, aldatu eta, hala balegokio, ken zitzala Araututako Aparkalekuen Udal Zerbitzuaren Ordenantzako zenbait arau. Udalbatzak gomendia onartzeko asmoa agertu zuen Arartekoak adierazitako arau batzuen edukiari zegokienez. Beste arau batzuen edukiari zegokienez, berriz, erabilitako premisa juridikoen garrantzia ikusirik, gomendia oinarritzen zuten iritzien azterketa juridiko zehatzari ekiteko konpromisoa hartu zuen Donostiako udalbatzak, bai eta horren arabera jokatzea ere.

\* **26/1998/21 OF espedientea (17/1999 gomendia)**. Herri administrazioek asistentzia eman beharko liekete euren senar edo mutil lagunen erasoengatik babestearren etxea uztera behartuta dauden edo egon diren emakume inmigranteei, horretara zuzenduta dauden etxebizitzetan hartuz eta babestuz, euren seme-alabekin batera. Eta, giza eskubideen ikuspegitik, asistentzia hori gainerako hiritar guztien baldintza berberetan eman beharko litzateke, kontuan hartu gabe atzerriko emakume horiek zer-nolako egoera administratiboan dauden Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzen. Hori helburu, 1982/1998/21 espedientearen Bizkaiko Foru Aldundiari egin bezalako gomendia luzatu zion Arartekoak Donostiako Udalari.

\* **528/1999/22 espedientea (67/1999 gomendia)**. Donostiako Udalari honako gomendia egin zitzaion: baliogabetu zitzala etxebizitza bateko jabeen zabor bilketaren tasa gisa bidalitako kitapenak, toki erakunde horrek ez baitio halako zerbitzurik eskaintzen etxe horri.

#### **- Elgoibarko Udala**

\* **1668/1998/17 espedientea (103/1998 gomendia)**. Elgoibarko Udalari honako gomendia egin zitzaion: erabaki zezala alkatearen dekretu bidez, eta kautelazko neurri gisa, etxebizitza bateko bigarren solairuan burutzen den jarduera bati amaiera ematea, jurisprudentziak behin eta berriro eskatu bezala, instalazioak behar bezala funtzionatuko duela bermatuko duen beharrezko baimenak lortu arte.

### - Irungo Udala

\* **2610/1998/16 espedientea (9/1999 gomendia)**. Irungo Udalari honako gomendia egin zitzaion: 1998ko otsailaren 3ko Agindua eta hura ordeztuko duten arauak ezarritakoa betez, onar dezala bere menpe dauden kutxa publikoetan egiten diren ordainketak erabilera legaleko edozein moneta zatikiarrekin egin dadin, kopuru mugarik jarri gabe.

\* **547/1999/22 espedientea (65/1999 gomendia)**. Irungo Udalari honako gomendia egin zitzaion: eska ziezaiola ostalaritza lokal bateko titularrari bere jardura legeza zezan otsailaren 27ko Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroaren Babeserako 3/1998 Lege Orokorraren 65. artikulua eta harekin bat datozenek ezarritakoaren arabera.

\* **547/1999/22 espedientea (66/1999 gomendia)**. Irungo Udalari gomendatu zitzaion kautelazko neurri gisa ostalaritza-establezimendu bat ixtea, bere jardura berriro baimendu arte.

### - Lasarte-Oriako Udala

\* **2313/1998/19 espedientea (104/1998 gomendia)**. Lasarte-Oriako Udalari gomendatu zitzaion Trafiko arauak urratzeagatik ezarritako bi zigor ezeztatzea, horren inguruan hartutako xedapenen jakinarazpenak behar bezalako justifikaziorik gabe ediktu baten bidez eman zirelako ezagutzera. Gainera, jakinarazpenak berak ere Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoa eta Guztientzako Administrazio Jardunbide (26ko 30/ 1992) Legearen 59.4 atalean aurreikusten diren baldintzak ez zituen bete, erabakiak ez zirelako Udaletxeko iragarki-oholean ezarri. Udalak ebazpen zigortzaileak atzera bota zituen, arau-hausteak preskribituta zeudela konturatu zelako.

### - Mutrikuko Udala

\* **2468/1998/23 espedientea (19/1999 gomendia)**. Mutrikuko Udalari gomendatu zitzaion ondare-erantzukizuna exijitzen zuen espediente bat bideratzea eraikin batean egindako obren ondorioz kaltetutako etxe baten jabearen alde bidezko kalte-ordainak zehazteko, zatiko hondamenaren aitortzea eragin baitzuten obra horiek.

### - Soraluzeko Udala

\* **2339/1998/20 espedientea (28/1999 gomendia)**. Soraluzeko Udalari gomendatu zitzaion administrazio-zereginak modu iraunkor eta egonkorrean egiten zituen Udaltzaingo zerbitzuetako funtzionario baten egoera berrikusi ahal izateko neurri egokiak hartzea. Ez da egoera hau arautzeko erabakirik hartu, ez betegabeko lanpostuaren konfigurazioari dagokionez, ezta berdintasun, meritu eta gaitasun-hatsapenen arabera lanpostua betetzeari dagokionez ere.

### - Tolosako Udala

\* **2590/1998/23 espedientea (51/1999 gomendia)**. Tolosako Udalari gomendatu zitzaion trafiko istripu baten ondorioz kaltetutako ibilgailu baten kalte-ordainak eskatzen zituen ondare-erantzukizun erreklamazio bat atzera bota zuen dekretua baliogabe uztea. Jardunbidean agertzen ziren datuen arabera, hiribideen antolamendu eta seinaleen

ardura duten udal zerbitzuen errua suma zitekeelako, autoaren jabe eta erreklamatailearen kulpa ikusten zen bezalaxe. Gomendatu zitzaion, halaber, udal erantzukizuna eta, beraz, kalte ordainketan egokitzen zitzaion partea ordaintzeko obligazioa onartzen zituen beste erabaki bat hartzea aurrerago.

#### - Urnietako Udala

\* **210/1998/19 espedientea (32/1998 gomendioa)**. Urnietako Udalari gomendatu zitzaion Trafiko arauak hausteagatik bideratutako bi espedienteren ondorio juridiko posibleak indargabetzea, erabaki zigortzaileek aginpidedunen sinadurarik ez zutela egiaztatu zelako.

#### - Zarauzko Udala

\* **1087/1997/23 espedientea (142/1997 gomendioa)**. Zarauzko Udalari gomendatu zitzaion ofiziozko espedientea abiaraztea, herri honetako kale bateko karga eta deskarga jardueren baldintza egokiak zehazteko. Honen helburua auzokideek jasaten zituzten enbarazuak saihestea eta norabide horretan kokaturik dagoen negozio-lokalaren merkataritza-lanak egoki eta zuzen egin ahal izan zitezen bermatzea zen.

#### - Zizurkilgo Udala

\* **2072/1998/17 espedientea (102/1998 gomendioa)**. Zizurkilgo Udalari gomendatu zitzaion enpresa jakin baten ordezkariak egindako legalizazio-eskaeraren ondoren abian jarritako udal espedienteak GOKA araudian preskribitutako jardunbidea jarrai zezan.

## 2. ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK

### A) EUSKO JAURLARITZA

#### - Ogasun eta Herri Administrazio Saila

\* **1700/1997/18 espedientea (93/1998 gomendia)**. Ogasun eta Herri Administrazio Sailari gomendatu zitzaion, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen (6/1989) 52.1 artikulua betez, A-1 Gorputzari dagokion lanpostua lortu zuenetik erreklamatzailerak postu horretan lan egiteko duen eskubidea onartzea, eta A-1 Gorputzatik kanpoko lanpostuan egindako denbora guztia errekonozitzea ondorio guztietarako. Halaber gomendatu zitzaion A-1 Gorputzaren barneko bere lehen destinoa behin behineko adskripzio bezala onartzea, ez zerbitzu-komisio gisa, eta, beraz, abenduaren 27ko 10/1996 Legearen 8. xedapen gehigarriaren arauen baitan egotea.

#### - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

\* **2503/1998/18 espedientea (11/1999 gomendia)**. Lanpostu zehatz batzuk lortzeko etxebizitza baten okupazioa nahitaezko baldintza denean, bide juridiko egokiaren aplikazioaren bidez okupazio horren baldintzak zehaztea aholkatu zitzaion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, beti ere etxebizitza batean bizitzeko obligazioak langilearengan ahalik eta eragin gutxien izan dezan saiatuz. Era barean, kexa sortarazi zuen kasu zehatzari dagokionez, bien bitartean aipatu irizpide orokorrak kontuan izaki erreklamatzaileraren eskaerari erantzuteko neurri egokiak abian jartzea aholkatu zitzaion. Zentzu honetan, bere eskaera aztertu beharko litzateke berak exijitutako etxetresna elektrikoaren birjartzea gure Erkidegoko etxebizitzetan ohiko hornikuntza kontsideratzen denarekin bat datorren baloratzeko.

\* **2583/1998/20 espedientea (36/1999 gomendia)**. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari garraio-laguntza ukatzen zuen xedapen bat berraztertzeke neurri egokiak hartzea gomendatu zitzaion. 1997. urteko egoera familiar eta ekonomikoa egiaztatzeke erreklamatzailerak aurkeztutako datuak nahiz berak arrazoitutako independentzia egoerarekin zerikusirik zuten beharrezko beste edozein informazio kontuan hartzea eskatu zitzaion.

\* **191/1999/20 espedientea (32/1999 gomendia)**. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari gomendatu zitzaion Juan Crisóstomo de Arriaga Kontserbatorio Gorenean 98-99 kurtso hasieran egindako onarpen-prozesua aztertzeke bidezko neurriak hartzea eta ondoren –lortutako klasifikazioa, beste ikasle interesatuen lehiaketa eta abar kontuan hartuz– erreklamatzailerak akordeo ziklo gorenean ikasle ofizial gisa matrikulatzeko posibilitaterik izan zuen erabakitzea, kontserbatorioen antolaketari buruzko egungo araudiak ez duelako instrumentuak hautatzeko aukerak oztopatzen. Berrazterketaren ondorioz interesatuaren aldeko erabakia hartuko balitz, bere interesen birjartze zuzena bermatuko luketen posibilitateak aztertu beharko lirateke.

\* **387/1999/20 espedientea (42/1999 gomendia)**. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari gomendatu zitzaion bi urteko haur bat 1999-2000 ikasturtean ikastetxe publiko batean eskolaratzeko eskaerari erantzuteke beharrezko



neurriak hartzea eta, halaber, bere behar bereziei erantzutea, horretarako behar den laguntza guztia eskainiz.

### **Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea**

\* **2288/1998/20 espedientea (97/1998 gomendioa)** Kexa bideratu zuen interesatuak adierazitako errekurtsu administratiboaren bidea erabiliz –ekimen administratiboen berrikuspena legitimatzen duen bidea– Donostiako Erizaintza Eskolan irakasle lagun baten lanpostua betetzeko deialdian eratutako ebaluazio-komisiorekin egitekoaren berrazterketa bermatuko luketen neurri egokiak abian jartzea aholkatu zitzaion Euskal Herriko Unibertsitateari. Bereziki lan eskarmentuaren baremoa jorratzen zuen atala aztertu ondoren osasun publiko/guztion osasuna kontzeptuaren inguruko kontsiderazio doktrinalak kontuan hartuko dituen erabaki arrazoitu berri bat hartzea proposatzen zitzaion.

#### **- Herrizaingo Saila**

\* **261/1997/21 espedientea (49/1998 gomendioa)**. Falta batek eragindako atxiloketa desegoki batzuek sortarazitako kalteak ahalik eta gehien bigundu ahal izateko, Herrizaingo Sailari eskatu zitzaion atxilotutako pertsona horiei buruz euren artxibo eta erregistroetan zituzten datu guztiak desagertarazteko neurri egokiak hartzea.

#### **- Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila**

\* **736/1999/25 espedientea (78/1999 gomendioa)**. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari gomendatu zitzaion Arabako Lurralde Etxebizitzako ordezkariaren erabaki bat berrikus zezan. Ebatzi honen bidez erreklamatzaila etxebizitza-esleipen jardunbide batetik kanpo utzi zuen, beste etxe baten jabe zela argudiatuz. Zentzu honetan eskatu zitzaion eskubideen deklarazio-egintzen berrikuspena erregulatzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legea bete zezan.

#### **- Industria, Nekazaritza eta Arrantza Saila**

\* **14/1998/16OF espedientea (62/1998 gomendioa)**. Gas naturalaren hornikuntzarako zerbitzu publikoa ondare-prestazio publikoak erregulatzen dituen Entzutegi Konstituzionalen araudiaren menpe dagoen bitartean (hau da, sektore pribatuan kompetentziarik ez duen beharrezko zerbitzu publikoa izaten jarraitzen duen bitartean), alta eta ikuskatze zerbitzuen tasen kobrantza lege mailako arau baten bidez erregulatzea gomendatu zitzaion Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailari. Halaber, hornikuntza-enpresei alta eta ikuskapen eskubideen kontura egindako kobrantza baliogabetu eta diru hori kaltetuei bueltatzeko eska diezaiela gomendatu zitzaion.

#### **- Garraio eta Herri Lan Saila**

\* **976/1999/18, 980/1999/18 eta 981/1999/18 (Espediente kolektiboa), 977/1999/18 eta 982/1999/18 espedienteak (93/1999, 97/1999 eta 98/1999 gomendioak)**. Gomendatu zitzaion Garraio eta Herri Lan Sailari euskara ikastaroetara joateko zenbait funtzionariok eginiko eskaeraren ezezko erantzuna jasotzen duen xedapena berriro aztertzea eta, aurretik egin zituzten euskara ikastaroak probetxugarriak izan ziren baloratu ondoren, erabaki berriak hartzea.

**\* 975/1999/18, 978/1999/18 eta 979/1999/18 espedienteak (azken hau kolektiboa) (92/1999 gomendioa).** Gasteizko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailari gomendatu zitzaion kasu hauetan aplika daitezkeen arauetan aurreikusten diren lehenetsun irizpideak jarraituz lortzen den ordena naturala errespetatzea euskara ikastaroetara joateko eskaerak baimentzeko orduan: Eusko Jaurlaritzako funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituen xedapena onartzen duen uztailaren 28ko 190/1998 dekretua eta Euskararen Erabileraren Normalizaziorako Plana. Aipatu ordena naturala aldatu egin zen, funtzionarioek aurretik egindako euskara ikastaroak kontuan izan zirelako, arauetan lehenetsuneko irizpide bezala agertzen ez ziren arren.

## **B) FORU ADMINISTRAZIOA**

### **- Bizkaiko Foru Aldundia**

**\* 1177/1998/23 espedientea (10/1999 gomendioa).** Ibilgailu batek jasandako kalteek eragindako ondare-erantzukizun erreklamazio bat atzera botatzen zuen agindua ezeztatzea gomendatu zitzaion Foru Aldundiko Herri Lan Sailari, espediente administratiboak jasotzen zuen informazio eta dokumentazioaren arabera, hiribideak zaintzeko eta mantentzeko Aldundiak duen zerbitzuaren funtzionamenduaren eragin zuzena eta berehalakoa izan baitzen erreklamatzeko den kaltea. Era berean eskatu zitzaion bere ondare-erantzukizuna onartzen duen erabaki berri bat hartzea eta espedientean zehaztutako kalte-ordainak erreklamatzailari ematea.

### **- Gipuzkoako Foru Aldundia**

**\* 1237/1997/23 espedientea (154/1997 gomendioa).** Gipuzkoako Foru Aldundiari aholkatu zitzaion Pertsona Fisikoen Errentaren Gainerako Zergaren aitortzearen egindako kitatze bat baliogabetu eta etxebizitzan egindako inbertsioaren kenkaria jasotzen zuen beste erabaki bat hartzea, interesak izan ezik, ohiko etxebizitzaren erosketako gastu guztiak kontuan izango zuen erabakia: etxea ordaintzeko mailegu irekieraren komisioak, tasazio gastuak eta behar bezala justifikatutako gainerako gastuak.

**\* 1418/1998/16 espedientea (72/1999 gomendioa).** Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari gomendatu zitzaion kitapen baten inguruan agindutako behartze-probidentzia eta zorpeko agiria ezeztatzea, Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu aurretik ebazpena ezagutzera emateko erabilitako metodoek ez dutelako ziurtatzen informazioa interesatuarengana iritsi zenik. Beraz, jurisprudenzian oinarrituta, ezohizko errekurtsua ez da behar bezala egin.

## **C) TOKI ADMINISTRAZIOA**

### **a/ Arabako udalak**

#### **- Gasteizko Udala**

**\* 1924/1997/22 espedientea (22/1998 gomendioa).** Gasteizko Udaleko animalien babes zentroari gomendatu zitzaion hiritar batek berea ez den etxaberearekiko

eskubideei uko egiteko baimena eskatzen duenean, horretarako jabearen baimena duela egiaztatzen duen ziurtagiria eskatzea hemendik aurrera, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoa eta Guztientzako Administrazio Jardunbidearen 30/90 Legaren 32. Artikuluaren arabera, administrazio mailan beste pertsona baten izenean eskubideei uko egiteko beharrezkoa baita ordezkaritza egiaztatzea Zuzenbidean baliagarri eta fidagarri den edozein bide erabiliz, ordezkutzen den pertsonaren zuzeneko deklarazioa barne. Halaber, gomendatu zitzaion ofiziozko ondare erantzukizun espediente bat zabaltzea erreklamatazailearen kalteak ordaintzeko, Gasteizko animalien babeserako zentroak kaltetuaren artzain-txakur bat bere baimenik gabe beste bati emateagatik.

#### - Aiarako Udala

\* **2360/1998/15 espedientea (29/1999 gomendioa)**. Labetoki bat handitzeko baimena jasotzen duen xedapena baliogabetzea gomendatu zitzaion Aiarako Udalari, hiribide baten ondoan dagoenez, udal baimenak Aiarako Arau Subsidiarioak eta Arabako Landa-bideen Zainketa, Kontserbazio eta Erabilerari buruzko 6/1995 foru araua urratuko lituzkeelako.

#### - Maeztuko Udala

\* **2338/1998/17 espedientea (7/1999 gomendioa)**. Euskal Herriko Ingurugiroaren Babeserako otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 65. B) artikulua betez, eta interesatuari entzun ondoren, Sabandon oilaskoak gizentzera dedikatzen den enpresa baten itxiera erabakitzeke gomendioa luzatu zitzaion Maeztuko Udalari.

### **b/ Bizkaiko udalak**

#### - Abanto-Zierbenako Udala

\* **7/1997/22 espedientea (4/1998 gomendioa)**. Kode Zibileko 4-1 eta 3 artikuluekin erlazionatutako 567 artikulua betez, bere lursail eta etxebizitzaraino motordun ibilgailuz iritsi ahal izateko lur komunalak zeharkatu behar dituen erreklamatazaileari hori egiteko eskubidea baimentzen duen xedapena hartzea gomendatu zitzaion Abanto-Zierbenako Udalari. Erabakia hartzeaz gain, Udalak plano batean markatu beharko luke etxerako bidearen trazatua, bere zabalera ongi zehaztuz, eta lur eremuaren birplanteaketa egin beharko luke, bide sarrera eta bere neurriak ongi seinatuz.

#### - Arrietako Udala

\* **1109/1996/15 espedientea (17/1997 gomendioa)**. Berokuntza galdara baten instalazioa legeztatzeke beharrezkoa zen obra lizentzia ezeztatzeke proposamena luzatu zitzaion Arrietako Udalari, legez kanpokoa zelako.

#### - Barakaldoko Udala

\* **2388/1998/23 espedientea (62/1999 gomendioa)**. Administrazioaren ondare-erantzukizuna exijitzen zuen eskaeraren aurka Udal Gobernu Batzordeak hartutako erabakia ezeztatzea eskatu zitzaion Barakaldoko Udalari, Arartekoak dioenez, hiribideen mantenimenduaz arduratzen diren udal zerbitzuen funtzionamenduak

eragindako kalteen erantzulea Udala baita, eta, ondorioz, baita espaloi edo errepedeetan abisatu gabe egindako aldaketek sortaraz ditzaketen ondorioen erruduna ere. Era berean eskatu zitzaion espediente administratibo egokiaren instrukzioaren ondoren beste erabaki bat hartzea, ondare-erantzukizunaren bere parte onartuz.

#### - Basauriko Udala

\* **1401/1997/23 espedientea (20/1998 gomendioa)**. Bere ibilgailuan kalteak jasan zituen pertsona batek Administrazioari exijitutako ondare-erantzukizunaren aurka Alkatetzak hartutako irizpena bertan behera uztea gomendatu zitzaion Basauriko Udalari, erabakiak ez zuelako kontuan hartzen hiribideen zainketa eta mantenurako udal zerbitzuaren funtzionamenduaren eta kalteen arteko lotura zuzen eta berehalakoa. Era berean eskatu zitzaion bere ondare-erantzukizuna onartzen duen erabaki berri bat hartzea eta espedientean zehaztutako kalte-ordainak erreklamatzailari ematea.

#### - Bilboko Udala

\* **243/1997/23 espedientea (126/1997 gomendioa)**. Bilboko Udalari gomendatu zitzaion emakidadun enpresa batek eragindako kalteen ondorioz aurkeztutako ondasun-erantzukizun eskaera bati buruzko erabakia har zezan, eskatutako ziurtagiriak aurkeztuak izan ez baziren ere, erantzukizunari eta kalte-ordainen kopuruari buruzko datuak ez zituelako behar bezala jasotzen. Kaltetuak ordainak jasoko dituela bermatu behar du Udalak, baina hori ere ez zen aipatzen.

\* **1786/1997/22 espedientea (29/1998 gomendioa)**. Bilboko Udalari gomendatu zitzaion erreklamatzaila batek epez kanpo ordaindutako suhiltzaileen tasa baten dirua -interes eta errekarquak barne- itzularaztea, Zerga Lege Orokorriari buruzko Legearen 64.b) artikulua arabera, likidazioa egin zenetik bost urte pasa zirenez, preskribituta zegoelako.

\* **13/1998/16OF espedientea (25/1998 gomendioa)**. Bilbogas enpresak gas-horniketaren alta eta ikuskapen zerbitzuen truke erabiltzaileei kobratutakoa baliogabetzea eta, ondorioz, diru hori itzularaztea gomendatu zitzaion Bilboko Udalari. Era berean, Udalak dagokion erabakia hartzen duenean tasa hori arautuko duen zerga-ordenantza egokia ere onar dezala eskatzen zitzaion, etorkizunean antzeko kasuen aurrean legez jokatua ahal izateko.

\* **1081/1998/23 espedientea (6/1999 gomendioa)**. Administrazioaren ondare-erantzukizuna exijitzen zuen eskaeraren aurka hartutako erabakia ezeztatzea gomendatu zitzaion Bilboko Udalari, hiribideen zainketa eta mantenuaz arduratzen diren udal zerbitzuen funtzionamenduaren eragin zuzena eta berehalakoa izan baitziren erreklamaturako kalteak. Era berean eskatu zitzaion bere ondare-erantzukizuna onartzen duen erabaki berri bat hartzea eta espedientean zehaztutako kalte-ordainak erreklamatzailari ematea.

\* **2536/1998/20 eta 34/1998/20OF espedienteak (espediente kolektiboa) (106/1998 gomendioa)**. 1998ko abuztuaren 24ean Bizkaiko Buletin Ofizialeko 160 zenbakian administrazio orokorreko laguntzaile eta menpeko lanpostuen hornikuntzarako deialdia argitaratu zen eta Bilboko Udalari gomendatu zitzaion deialdi horren oinarrien edukiak aztertzeke neurri egokiak hartzea. 50.000 - 300.000 biztanle

duten udaletan zein gainerako administrazio publikoetan aurretik eskarmentu administratiboaz izatearen merituen balorazio eskalonatua kentzea eskatu zitzaion.

\* **2546/1998/15 espedientea (26/1999 gomendioa)**. Jabe elkarte batek eskatutako obra-baimena ukatzea gomendatu zitzaion Bilboko Udalari, 2177/1996ko Errege Dekretuaren 7.4.3. atalek eta Bilboko Ordenazio Plan Orokorreko 6. Kapituluako 7.6.7-8 atalek ez dituztelako metro bat baino gutxiagoko zabalera duten eskailearik onartzen. Dena dela, kaltetutako jabe elkarteari dagokion kalteordainak, proiektu teknikoaren erredakzioaren gastuak alegia, ordaintzearen proposamena luzatu zitzaion, Hirigintza arloko udal ordezkariak argitaratutako dekretuan jasotako informazioa ez zelako zuzena.

#### - Galdakaoko Udala

\* **1394/1997/23 espedientea (155/1997 gomendioa)**. Galdakaoko Udalari gomendatu zitzaion udal honen aurka aurkeztutako ondare-erantzukizunaren eskaera atzera bota zuen erabakia balio gabetzea, kalteak eragin zituen zerbitzua Udalak kontratatutako enpresa baten esku dagoenez, erantzukizuna administrazio honi ez zegokiola pentsatuz ebatzi baitzen akordioa. Beraz, eskatu zitzaion erantzukizuna norena den eta kalteordainak zenbatekoak diren kontuan hartuko duen beste ebazpen bat hartzea. Udalak, berriz, erreklamatzailari kalteak ordainduko zaizkiola bermatu beharko luke.

#### - Getxoko Udala

\* **1117/1997/22 espedientea (68/1998 gomendioa)**. Getxoko Udalari gomendatu zitzaion ur-sarearen tuberietako ihesak eta presio galerak konpontzeko jabe elkarti batek egin behar izan zituen obren gastuak ordaintzea, ur-sarearen zaintze eta mantenu zerbitzua Udalaren esku baitago.

\* **1364/1998/18 espedientea (101/1998 gomendioa)**. Sestaoko Udalari gomendatu zitzaion Euskararen Erabileraren Normalizaziorako Oinarriko (azaroaren 24ko 10/1982) Legea betez, interesatu pribatuei idatziz zuzendutako erantzunetan eurek aukeratutako hizkuntza ofizial bera erabiltzea.

### c) Gipuzkoako udalak

#### - Donostiako Udala

\* **840/1996/15 espedientea (102/1997 gomendioa)**. Lursail pribatu bateko soberako zatia mugatzeko errazitako kateak kentzea agintzen zuen erabakia ezeztatzea gomendatu zitzaion Donostiako Udalari, partzela hura bide publikoa zela ez baitzen behar bezala egiaztatu.

\* **1083/1996/23 espedientea (18/1998 gomendioa)**. Honako hau gomendatu zitzaion Donostiako Udalari:

1. Hiritarren Segurantza eta Hiribide alorreko udal ordezkariak hartutako erabaki bat balio gabetzea. Ebazpen honek atzera bota zuen kalean erori eta min hartu zuen erreklamatzaila batek administrazioaren aurka aurkeztutako ondare erantzukizun eskaera,

baina erabaki honek ez zuen egokitzen jo frogak praktikatzea eta, beraz, lekukoei ez zitzaien deklaraziorik hartu, nahiz eta hauek izan hiribideen zainketa eta mantenuaz arduratzen diren udal zerbitzuen funtzionamenduaren eta erreklamaturako kalteen arteko zerikusi zuzen eta berehalakoa frogatzen. Beraz, Udalak ez zituen bete martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuaren 7 eta 9. Artikuluak, ondare-erantzukizun arloan administrazio publikoen jardunbideak arautzen dituztenak.

2. Espedientea erabakia hartu aurreko fasera bueltatzea, aipatu frogak egin ahal izateko.

3. Kaltetuak arrazoitutakoa egia dela egiaztatuko balitz, Udalaren ondare-erantzukizuna onartzen duen erabaki berri bat hartzea eta erreklamaturako espedientean zehaztutako kalteordainak ematea.

\* **691/1999/25 espedientea (79/1999 gomendioa)**. Donostiako Udalarik gomendatu zitzaion 1995 eta 1996 urteetan kexaren aurkezleak zabor-tasen subjektu pasiboak kontsideratzen zituen erabakia berrikustea. 1995eko otsailaren 2az geroztik erreklamaturako ez ziren etxe horretan bizi eta, beraz, eskatu zitzaion Udalarik euren zergadun egoera behar bezala aldaraztea.

#### - Errenteriako Udala

\* **522/1999/22 espedientea (70/1999 gomendioa)**. Errenteriako Udalarik gomendatu zitzaion auto baten jabeak 1999an kobratutako Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergaren likidazioa baliogabetu ondoren beste kitapen berri bat berridaztea 8 eta 12 bitarteko zaldi-potentzia duen ibilgailua dela kontuan hartuz. Ebazpen hau hartzea gomendatu zitzaion ibilgailu mistoek antza gehiago dutelako automobilekin kamioiekin baino, ibilgailuen klasifikazio eta definizio nahiz zenbakizko klabeen finkapenari buruzko arauak zehazten dituen 1984ko uztailearen 16ko Aginduaren arabera.

#### - Hernaniko Udala

\* **999/1997/22 espedientea (46/1998 gomendioa)**. Hirigintza-zerbak eguneratzeak eraikin baten eraspen eta berreraikitze-baimenaren tasan eragindako karga osagarria kobratzeari uko egitea gomendatu zitzaion Hernaniko Udalarik. Gainera, Hirigintza Kudeaketa Araudiaren 40. Artikulua betez, 1990ean hirigintzako gastuetara zuzendutako aportazio bat zenbateko berdineko fidantza gisa onartu beharko litzateke. Gomendioak erantzunik jaso ez zuenez, Arartekoak erabaki zuen ez zela onartua izan.

#### - Idiazabalgo Udala

\* **1890/1997/17 espedientea (65/1998 gomendioa)**. Alkatetza-dekretu baten bidez establezimendu bateko jabeak hilabeteko epearen barruan bere jarduerak legezartzeko beharrezko tramiteak abiarazteko agindua ematea gomendatu zitzaion Idiazabalgo Udalarik, GOKA araudian aurreikusten den jardunbidea betez. Gomendatzen zitzaion, halaber, lokala ixteko erabakia hartzea jabeak kasurik egiten ez bazion.

#### - Pasaiako Udala

\* **1268/1997/17 espedientea (1/1998 gomendioa)**. Pasaiako Udalarik gomendatu zitzaion zerbitzu teknikoak jabetze batera bidaltzea bertan instalazio-

baldintzak betetzen zituzten ikuskatzeko. Irregularitasunak atzemanaz gero, bertako jardueraren funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezko neurriak hartzea eskatzen zitzaion.

#### **- Tolosako Udala**

\* **302/1998/15 espedientea (54/1998 gomendioa)**. Tolosako Udalarari gomendatu zitzaion eraikuntza baten eraizpen baten ordainez kaltetuei emandako 9 milioiko kalteordainketa eguneratzea, SI-1 Laskorain Goikoako Errepartzelazio Proiektuaren Plan Partziala betez.

\* **74/1999/22 espedientea (71/1999 gomendioa)**. Tolosako Udalarari gomendatu zitzaion 1998ko abenduaren 1ean notifikatutako lan soldataren bahitura eta honek eragindako interesak erreklamatzailerari ordaintzea, bahikura gauzatu zenean zorrak preskribituta zeudelako. Gipuzkoako Zerga Foru Arau Orokorren 64.b) atalak 5 urteko epea ezartzen du ordaindutako zerga zorrak exijitzeko.

### **D) BESTE TOKI-ERAKUNDE BATZUK**

#### **- Atiegako Administrazio Batzarra**

\* **1848/1997/15 espedientea (55/1998 gomendioa)**. Atiegako Administrazio Batzordeari gomendatu zitzaion kontadore-kaxak instalatzeagatik kobratutakoa baliogabetzea, herriko ur-horniketa eta saneamendu tasak erregulatzen dituen Zerga Ordenantzak ez baitu jasotzen mota honetako tarifarik.

### **E) ERAGINDAKO BESTE ERAKUNDE BATZUK**

#### ***a/ Mankomunitateak, partzuergoak eta Bilboko parkeak***

##### **- Ur partzuergoa**

\* **262/1998/22 espedientea (83/1998 gomendioa)**. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari gomendatu zitzaion kexa aurkeztu zuenari azken bost urteetan kobratutako zabor eta estolderia tasak berraztertzea, profesionalen tarifak aplikatu zizkiotelako, berak 1992ko otsailean Getxoko Udalarari mediku kontsultako jarduera utzi zuela jakinarazi zion arren. Beraz, behin likidazio berriak egin eta gero, kaltetuak ordaindutako dirua bueltatzea gomendatzen zitzaion.

#### ***b/ Mankomunitateak, partzuergoak eta Gipuzkoako parkeak***

##### **- Txingudiko Zerbitzuak**

\* **121/1998/22 eta 271/1998/22 espedienteak (azken hau espediente kolektiboa) (84/1998 gomendioa)** Txingudiko Zerbitzuak S.A.ri gomendatu zitzaion zaborra jasotzen duen ibilgailua iristen ez den tokietako etxeetakoei kobratutako zabor tasak ezeztatzea, edukiontzi hurbilena 300 metroko inguruan ez baldin badago.

### 3. ERABAKI GABE GELDITU DIREN GOMENDIOAK

#### A) EUSKO JAURLARITZA

##### - Kultura Saila

##### EITB

\* **66/1996/210F espedientea (113/1998 gomendioa)**. Maiatzaren 20ko Euskal Irrati Telebista ente publikoaren sorreraren 5/1982 Legearen 21 artikulua betez, komunikabide publikoetan agertzeko talde sozial eta politikoeak duten eskubidea bermatzeko bere Administrazio Kontseiluak honako neurri hauek abian jartzeko erabaki egokiak har zitzaizkizkien gomendioa luzatu zitzaion EITBri:

a) 1998. urtean zehar EITBko programetan euren jarrera politikoak azaldu zituzten gizarte kolektiboaren inguruko ikerketa sakona egitea –eskaini zaien denbora eta espazioak kontuan hartuz–, euskal gizartearen pluralismoa bermatzeko legezko mandatua bete den jakin ahal izateko.

b) Antena-eskubideak etorkizunean izango duen garapenera buruzko plan zehatza egitea, hori gauzatzeko erabiliko diren bideak (aldizkako emisioko espazio espezifikoak, noizean behin emitituko diren iragarkiak, eztabaida edota iritzizko programetan taldeko ordezkarien partehartzea, hauen deklarazioak albistegietan...) zehaztuz eta honen inguruko irizpide objektiboak finkatuz, bai taldeen garrantzia nahiz ordezkatzeko maila determinatzeko, baita euren artean espazio libreak banatzeko ere; eta

c) Gizarte taldeen zereginei buruzko informazioei albistegietan eskaintzen zaien denbora noizean behin kontrolatzea, programa ezberdinetan –kulturalak, informatiboak, debateak...– parte hartzen duten gonbidatu edo elkarrizketatuen harremanak kontrolatu beharko lirakekeen bezala. Gauza bera egitea proposatzen zaie noizbait iritzi ideologiko ezberdinak dibulgatzeko programa bereziak egiten badira. Informazio hau enteari buruzko kontrolaz arduratzen den Eusko Legebiltzarreko Batzordeari helarazi beharko litzaioke. Gaian sakontzeko, Kultura eta Elebitasun alorreko kexaren laburpena jotzen dugu.

##### - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

\* **785/1999/25 espedientea (87/1999 gomendioa)**. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari gomendatu zitzaion Beasaingo Murumendi eskola publikoko eraikinekin behar zituzten berritze-lanen egutegia egitea, atzemandako hutsuneak betetzeko eta, 1.004/1991 Errege Dekretuaren eta gai honen inguruko gainerako araudien arabera, instalazioak behar bezala egokitzeko. Lehentasun berezia du jangelako zerbitzua osasun baldintza egokienetan martxan jartzeko beharrezkoak diren konponketak burutzea.

##### Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

\* **194/1999/20 espedientea (85/1999 gomendioa)**. Euskal Herriko Unibertsitateari gomendio bat egin zitzaion, Bilboko Industriako eta Telekomunikazioetako Goi Mailako Ingeniari Eskola Teknikoan, azterketetan 1. deialditik 4.era dagoen ebaluazio prozedura indarrean dagoen Irakaskuntza Plangintzako eta Ikasleen Ebaluaziorako Araudira egoki dezan; Araudi hori Gobernu Batzarrak 1993ko



uztailaren 20ko bilkuran onartu zuen, eta ondoren 1997ko martxoaren 13ko bilkuran aldatu.

### - Herrizaingo Saila

\* **924/1998/21 espedientea (103/1999 gomendia)**. Arartekoak Barne Sailari berriro luzatu zion gomendia, Ertzaintzak bere agenteei Instrukzio Epaitegiak hasieratik hitsegitezat kalifikatu dituen gertakariengatik atxiloketarik egin ez dezaten agintzeko, alegia. Nolanahi ere, atxiloketa gertatzen denean, LECr. 520.1 artikulua xedatutakoa zehatz-mehatz bete beharko litzateke; artikulua horren arabera, askatasun galera horrek *ezin izango du gertakariak argitzeko ikerketak egiteko behar-beharrezkoa dena baino gehiago iraun*. Horretarako, atestatuak egiten duen agenteak atxilotuari lagunduko dion abokatuak jakinaren gainean jarri beharko du hasieratik, letratu hori ofiziozkoa edo atxilotuak berak izendatua den kontuan hartu gabe. Poliziaren beraren funtzionamenduari dagozkion atzerapenek ezin izango dute inoiz atxilotuaren askapena geroratu.

\* **1797/1998/19 espedientea (27/1999 gomendia)**. Barne Sailari gomendia egin zitzaion, Berangoko kale batean egindako arau hauste batengatik Bizkaiko Trafikoko Lurralde Arduradunak ezarritako zigor bat ofizios baldiogabetzeko; izan ere, lehenak halakorik egiteko eskumenik ez zuela ondoretu zen, Trafiko, Motor bidezko ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasuneko Legearen Testu Artikulatuaren 68.2 artikulua dioen eskumen translazioa egiteko prozedura egokia errespetatu ez zuenez.

\* **1974/1998/21 espedientea (81/1999 gomendia)**. Barne Sailari gomendia egin zitzaion, pertsona atxilotuen eskubideak urratzen dituen polizia jokabiderik egon ez dadin prebentzio neurriak hartzearen, ziegetako korridoreetako kameraren grabaketen bidezko kontrol sistema bat aztertze eta, hala badagokio, sistema hori ezartzeko, atxiloketek irauten duten denbora guztian. Grabaketa horiek jadanik aipatu ditugun gutxienezko eraginkortasuna eduki beharko lukete, honela laburbil ditzakegunak: 1) grabaketa horiek agindu eta ondoren aztertzen dituen poliziarengandik independentea izatea; 2) grabatuko diren atxiloketen ausazko eta ezkutuko hautaketa, zerbitzuan dauden agenteek horren berririk ez dutela; 3) egindako grabaketak denbora batez gordetzea, eta 4) kontrol sistemaren garapenari buruzko oinarrizko datuak erregistratzea.

\* **32/1999/21OF espedientea (102/1999 gomendia)**. Barne Sailari gomendia egin zitzaion, botere publikoek pertsonen benetako berdintasunerako oztopoak ezabatzeko duten obligazioa betetz, Ertzaintzak Hondarribiako Alardean gizonezkoen baldintza berberetan parte hartu nahi duten emakumezkoen eskubidea bermatzeko neurri egokiak har zitzan. Helburu horrekin, etorkizunean biztanlegoaren zati bat eskubide horren aldarrikapenaren aurka agertzen bada oraindik eta, beraz, esku-hartze poliziala oraindik ere beharrezkoa bada, aipatutako eskubidea eta pertsonen segurtasuna bateratzen saiatu beharko du Ertzaintzak. Agenteen jokatzeko irizpidea aurrez finkatu nahi gabe, begi bistakoa da irizpide hori ezin izango dela inoiz jarrera baten edo bestearen aldekoen kopuruan oinarritu, baizik etaplanteamendu desberdinen legitimotasunari begiratu beharko liokeela. Bestalde, ez da ahaztu behar ordena publikoa eskubideak bete ahal izateko baldintzak ahalbidetzeko dela eta, beraz, eskubideak ezin direla baldiogabetu ordenari eustearren. Aitzitik, pertsonen segurtasuna babesteari utzi

gabe, Hondarribiako edo gatazka sortzen den beste edozein herritako jai nagusian berdintasunez parte hartu ahal izatea bermatzeko egokitzat, proportzionaltzat eta eraginkortzat jotzen diren neurriak hartu behar dira.

\* **151/1999/19 espedientea (43/1999 gomendia)**. Barne Sailari gomendia egin zitzaion, indarrean dagoen erantzukizun zibileko derrigorrezko aseguruaren agiririk gabe zirkulatzegatik ezarritako zigor bat baliogabetzeko; izan ere, Arartekoaren iritziz eta, dagoen informazioaren arabera, agente salatzailak hala eskatuta, gidariak luzatu zitzaion agiri bakarra erakutsi zuen, salaketa egin zen unean indarrean zegoena.

#### - Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila

\* **474/1999/23 espedientea (95/1999 gomendia)**. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari gomendia egin zitzaion, birgaitzeko emandako dirulaguntza batzuk baliogabetuz Gipuzkoako lurralde ordezkariak egindako

ebazpen batzuk deuseztatzeko; izan ere, espedientean jasotzen denaren arabera, obrak aldi baterako uztea –erabakiaren arrazoia– behar bezala justifikatuta zegoen eta, ondorioz, lanen atzerapenaren arrazoia ezin zitzaien inolaz ere laguntzen onuradunei egotzi. Aurrerago, obren amaiera frogatu gabe igarotako denbora kontuan hartuta, laguntzak lehengoratzeko beste espediente bat izapidetu beharko litzateke, non Sail horrek eska lezakeen gauza bakarra gauzatu ez den aurrekontuaren proportzioari dagokion kopurua itzultzea izango bailitzateke.

\* **842/1999/23 espedientea (83/1999 gomendia)**. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari gomendia egin zitzaion, babes ofizialeko etxebizitzaren transmisioetan lehenetsitako erosketa eskubidea erabiltzean, bere ebazpenak etxebizitzaren transmisioa erabaki zutenei jakinarazteko, RJAP-PAC 30/92 Legearen 59. artikulua adierazitako izapideen arabera, eta hala, interesatua bere etxean aurkitu ezean, ebazpen horiek Udaletxeko ediktuen taulan eta Aldizkari Ofizialean iragarkia ipiniz jakinarazteko, legearen ikuspuntutik ez baita nahikoa Notaritzaren Antolamenduaren eta Erregimenaren Araudiko 202. eta hurrengo artikulua betetzea.

## B) FORU ADMINISTRAZIOA

#### - Arabako Foru Aldundia

\* **467/1999/20 espedientea (86/1999 gomendia)**. Euskara eta Kultura Sailari gomendia egin zitzaion, arte eszeniko eta musikalen modalitateak ikertu eta hobetzeko 1998an antolatutako laguntzen arloan, kexaren egileak jasotako kopuruak itzultzeko jarraitu den prozedura aztertzeo neurri egokiak har zitzan eta, gutxienez, dagokion Foru Aginduaren ordezkari ebazpena egin zezan, non interesatuak aurkeztutako idatzizko erreklamazioaren alegazio guztiak eta bakoitza aztertzen den, arrazoiak emanaz.

#### - Bizkaiko Foru Aldundia

\* **1465/1998/19 espedientea (53/1998 gomendia)**. Bizkaiko Foru Aldundiko Obra Publikoen Sailari gomendia egin zitzaion, dagozkion izapideak egin

ondoren, lehiaketa bat esleitzen zuen foru agindu bat baliogabetzeko, eta ekintzak ebazpen proposamena egin arte lehengoratzera; ebazpen proposamen horretan baldintza teknikoen pleguan aurreikusitako esleipen irizpideak soilik hartu beharko liriateke kontuan.

\* **2441/1998/15 espedientea (30/1999 gomendia)**. Bizkaiko Foru Aldundiko Obra Publikoen Sailari gomendia egin zitzaion, Bilboko hirigunea zeharkatzen duten zazpi errepederen hiri tarteak mugatzeko espediente bati hasiera eman ziezaion, eskumen arazoak planteatzen baitituzte, eta horrek bide horien hiri zerbitzuetan baitu eragina, Bilboko biztanleen kalterako. Espedientearen tramitazioa Bizkaiko Errepedeen 2/1993 Foru Arauaren 57. artikuluan xedatutakora egokitu beharko litzateke, eta derrigorrezkoa da Bilboko Udalarari entzutea.

\* **9/1998/160F espedientea (109/1998 gomendia)**. Bizkaiko Foru Aldundiari gomendia egin zitzaion, Lurralde Historikoko Aldizkari Ofiziala hiritarregana heltzean, argitaratzen den datarekin bat etortzeko neurriak har ditzan, bertan jasotzen diren arauak ondorioak izan baino lehenago ezagut daitezten, indarrean dagoen ordenamendu juridikoak agindutakoaren arabera.

\* **566/1999/15 espedientea (96/1999 gomendia)**. Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari gomendia egin zitzaion, abenduaren 20ko 101/1994 Foru Dekretuak garatzen duen ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauan jasotako aurreikuspenen urraketa batengatik zigor espediente bati hasiera eman ziezaion, eukalipto plantazio baten eta larre baten artean egon behar duen distantzia ez errespetatzeagatik. Era berean, espediente horretan urraketa egotzi zitzaion pertsonari diru zigorrik ez ezartzea gomendatu zen, horren jokabideak Foru Sailak berak definitutako irizpideetan baitzuen jatorria, eta irizpide horiek aipatutako foru arauetan jasotzen diren aurreikuspenen aurkakoak dira.

#### - Gipuzkoako Foru Aldundia

\* **2368/1998/15 espedientea (82/1999 gomendia)**. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garraio eta Errepide Sailari gomendia egin zitzaion, CN-634ko uren ebakuazioaren instalazioa egoki zezan 1. eta 2. kilometroen artean, establezimendu jakin baten parean, urak Errotalde kalean gainezka egin ez dezan eta kale horretako lonjak urez bete ez daitezten.

### C) TOKI ADMINISTRAZIOA

#### a/ Arabako udalak

##### - Gasteizko Udala

\* **278/1998/23 espedientea (105/1999 gomendia)**. Vitoria/Gasteizko Udalarari gomendia egin zitzaion tasa gisa ordaindutako zenbatekoa itzul zezan; izan ere, ibilgailuak jabeari entzun gabe eta ordenamendu juridikoan aurreikusitako epea igaro zedin itxaron gabe erretiratu ziren, horixe izanik kexaren arrazoia.

\* **1736/1998/23 espedientea (101/1999 gomendia)**. Vitoria/Gasteizko Udalari gomendia egin zitzaion, dagozkion izapideak egin ondoren, kexaren egileari trafikoko arauak urratzeagatik bederatziz zigor ezartzen zitzaizkion alkatetza horren dekretuak baliorik gabe utz zitzaizkien.

\* **4/1999/200F espedientea (80/1999 gomendia)**. Vitoria/Gasteizko Udalari gomendia egin zitzaion, haurren eskoletako matrikula eskaerak kudeatzeko etorkizuneko arauetan, baremoari dagokionez, gurasoak gaur egun Hezkuntzako Udal Departamentuko enplegatuak diren kasuetan ematen den tratu berezi eta bereizlea ezaba dezan.

#### - Aguraingo Udala

\* **670/1999/23 espedientea (100/1999 gomendia)** Aguraingo Udalari gomendia egin zitzaion, Aguraingo kirol gunearen ustiapen kontratuaren deuseztapena, kontratistak dagokiona ez betetzeagatik –dagokion kanona ordaintzea-, baliorik gabe utz zezan; izan ere, Arartekoak egindako azterketaren arabera, udal horrek berari dagokiona ez zuen bete, jarduera burutu beharreko lokalaren titularrak izanik, osasun eta higiene baldintza egokietan mantentzea alegia, eta zirkunstantzia horrek ez zuen kontratuaren xedea zena behar bezala burutzeko aukerarik ematen. Ondoren, kontratu administratiboa deuseztu beharko litzateke, bi alderdien adostasunez, dagokion administrazio espedientearen instrukzioa egin ondoren, kontratu horretan alde bakoitzak dagokiona ez betetzearen eragina eta neurria zehaztuz.

#### **b/ Bizkaiko udalak**

##### - Alonsotegiko Udala

\* **2431/1998/23 espedientea (39/1999 gomendia)**. Alonsotegiko Udalari gomendia egin zitzaion, eraikitzekeko garaian hirigintza legeria babesteko ezarritako prozedura errespetatu ez zuen txabola bat eraisteko agindua bertan behera utz zezan. Era berean, ofizioz, ondare erantzukizunaren espediente bati hasiera emateko gomendatu zen, eraispeneren, exekuzio subsidiarioen eta, hala badagokio, kaltetuak frogatuz dezakeenaren eraginez izandako galeren kalteordaina emateko.

\* **1074/1999/20 espedientea (89/1999 gomendia)**. Alonsotegiko Udalari gomendia egin zitzaion, administrari laguntzaile bat aldi baterako kontratatzeke deialdi publiko bat geldiarazteke, eta udaleko erroldatzeari dagokionez izangaien baldintza aztertzeke, bai deialdi honetan, bai udalbatza horrek etorkizunean burutzen dituenetan ere.

##### - Arteako Udala

\* **874/1999/23 espedientea (77/1999 gomendia)**. Arteako Udalari gomendia egin zitzaion, emandako obren lizentzia batean urratetaren bat gertatu zenentz zehazteke, baimenean aurreikusitako ez ziren lan batzuk burutu zirenez, eta espediente horren izapidean eraikinaren jabeari eta beste bizilagun bati ere entzun ziezaien, biak baitziren interesatuak.

### - Bermeoko Udala

\* **707/1997/15 espedientea (58/1998 gomendia)**. Bermeoko Udalari gomendia egin zitzaion, Hirigintza Ordenantzaren 4.2.3.6.a) artikulua deuseztatu eta Bermeoko Arau Subsidiarioen Aldakuntza Puntualeko espediente baten izapidea egin zezan; izan ere, xedapen horrek ez du zerikusirik eta ez dator bat Bermeoko lurzoru ez-erakigarriko eraikinen errealitatearekin, eta horrek aipatutako hirigintza araudiaren oinarria izan behar du. Gainera, hautatutako hirigintza tresna, Hirigintza Ordenantzaren atal soil eta orokor bat, ez zen egokia. Horrelako erabakiak aurrez dokumentu zehatz eta xehea egitea eta tramitatzea eskatuko luke, hala nola 1976ko Lurzoruari buruzko Legearen Testu Bateratuko 25. artikuluan aurreikusitako katalogoak.

### - Bilboko Udala

\* **1885/1997/15 espedientea (44/1999 gomendia)**. Bilboko Udalari gomendia egin zitzaion, kasuaren zirkunstantziak kontuan hartuta, jabeekideen komunitate bati ezarritako zigorra partzialki barka ziezaion. Jabego Horizontalari buruzko Legearen 10-2. artikuluan xedatutakoaren arabera -8/1999 Legeak egindako erredakzio berriaren arabera-, eta zigorraren zenbatekoa obren aurrekontuaren %1-5 bitartean murriztea aurreikusten duen Udal Ordenantzaren 13-3. artikulua eraikinen kontserbazio eta aurri egoerari dagokionez xedatutakoaren arabera, zigorraren murrizketa hori aplikatzea gomendatu zitzaion Bilboko Udalari, eta obren aurrekontuaren %1ean finka zezala. Isunaren barkamen partzial hori obren exekuzio subsidiarioa finantzatzeko ekarpen kuotak ordaindu dituzten jabeek berehala aplikatu beharko litzaieke, kontserbatzeko legeko obligazioa bete dutenez. Era berean, epe laburrean, bide exekutibotik aurrez eskatu gabe, kuota horiek borondatez ordaintzen dituzten jabeek ere aplikatu beharko litzaieke.

\* **66/1998/23 espedientea (61/1999 gomendia)**. Bilboko Udalari gomendia egin zitzaion, Obra eta Zerbitzuetako ordezkaria den Alkateordearen ebazpen bat baliorik gabe utz zezan; ebazpen horren bitartez, Deustuko zubiko errepidearen egoeraren ondorioz ibilgailu batek jasandako kalteengatik formulatu zen erreklamazio bat ezetsi zen; izan ere, organo instruktoreak ez zuen erreklamazio egileak alegatutako gertakariak zehazki ezagutzeko frogarik egin. Era berean, espedientea ebazpen proposamenaren aurreko fasera atzeratzeko eta frogaren egiteko gomendatu zitzaion eta, ondoren, beste ebazpen bat egiteko non, alegatutako gertaerak frogatuko balira, Bilboko Udalaren ondare erantzukizuna aitortuko bailitzateke eta, ondorioz, erreklamazio egileari jasandako kalteen ordaina emango bailitzaike.

\* **2096/1998/23 eta 2484/1998/23 espedienteak (68/1999 eta 69/1999 gomendioak)**. Ondare erantzukizuna: Bilboko Udalari gomendia egin zitzaion, ondare erantzukizunagatik erreklamazio batzuei buruzko ebazpena egin zezan, dagozkion akordioetan alegatutako kalteek zerbitzu publikoaren funtzionamenduari zuzeneko zerikusia ote zuten baloratuz, Konstituzioaren 106.2 artikulua xedatutakoaren arabera. Era berean, gomendia egin zitzaion, Nahitazko Desjabetzeri buruzko Legearen 123. artikulua eta Administrazio Publikoaren Kontratuen 13/95 Legearen 98.3 artikulua jarraiki, zehatz zitzan zein den organo erantzulea, zenbatekoa den kalteordaina eta, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia betez, zein den Udalaren beraren erantzukizuna, kaltetuari ordaina bermatzeko. Azkenik, etorkizunean Administrazioaren kontratistek

edo emakidadunek eragindako kalteengatik tramita litezkeen ondare erantzukizuneko espedienteetan gomendio hauen oinarri diren kontsiderazioak kontuan hartu beharko liratekeela adierazi zitzaion.

\* **377/1999/19 espedientea (31/1999 gomendioa).** Bilboko Udalari gomendioa egin zitzaion, trafikoaren arauak urratzeagatik egindako zigor ebazpen bat baliorik gabe utz zezan, urraketa hori zigortzeko eskumena Eusko Jaurlaritzako Trafikoko eta Ibilgailuen Parkeko Zuzendaritzako organo eskudunei dagokienez; izan ere, urraketa hiriartekoa kalifika daitekeen edo, hala badagokio, hiri bidearen ezaugarriak ez dituen tartean gertatu zen.

\* **443/1999/19 espedientea (54/1999 gomendioa).** Bilboko Udalari gomendioa egin zitzaion, Hiri Garbiketako Udal Ordenantzak zaborrak botatzeko aurreikusitako ordutegia urratzeagatik jarritako zigorra baliorik gabe utz zezan; izan ere, leporatzeko elementu bakarra, aztertutako boltsa batean zigor espedienteko inputatuarekin zerikusia omen zuten dokumentuak aurkitzea izan zen. Era berean, jarritako isuna kobratzeko premiamendu prozedura deuseztea gomendatu zitzaion, preskripzioak zigorrak afektatzen zituenez.

\* **525/1999/23 espedientea (63/1999 gomendioa).** Bilboko Udalari gomendioa egin zitzaion, obra eta zerbitzuetako arloko ordezkaria den Alkateordearen ebazpen bat, erantzukizunagatik erreklamazio bat ezesten zuena, baliorik gabe utz zezan; izan ere, Udalak hiri bideen mantenimenduaren zerbitzu publikoaren funtzionamenduak eragindako kalteen erantzukizuna du, eta ez du udalerriko bideak baldintza egokietan edukitzeko obligazioa bete. Ondoren, dagokion administrazio espedientearen instrukzioa eginda, beste ebazpen bat egin beharko litzakete, erreklamazioaren egileari egindako kalteengatik ondare erantzukizuna aitortuz, dagozkion proportzio eta zenbatekoaz.

\* **793/1999/15 espedientea (76/1999 gomendioa).** Bilboko Udalari gomendioa egin zitzaion, lursail jakin baten titular gisa, berehala garbitzen has zedin eta segurtasun, osasungarritasun eta egokitasun publikoko baldintzetan eduki zezan, Lurzoruaren eta Balorazioen Erregimenari buruzko 6/1998 Legearen 19. artikulua xedatutakoari jarraiki.

\* **817/1999/22 espedientea (104/1999 gomendioa).** Bilboko Udalari gomendioa egin zitzaion, ofizios baliorik gabe utz zezan joko areto-kafetegi-jatetxerako instalazio lizentzia, lizentzia hori OREHAko 8.1 a) artikulua eskatzen duen jardueren arteko gutxienezko distantzia errespetatu gabe eman baitzen. Agindu horren arabera, Ordenantzaren menpe dagoen instalatutako edozein establezimenduren eta instalatu nahi denaren arteko distantziarik txikiena 20 metrokoa izango da, I. eta II. multzoko establezimenduen artean linealki neurtuta.

#### - Galdakaoko Udala

\* **731/1999/23 espedientea (64/1999 gomendioa).** Galdakaoko Udalari gomendioa egin zitzaion, Alkatetzaren ebazpen bat, erantzukizunagatik erreklamazio bat ezesten zuena, baliorik gabe utz zezan; izan ere, Udalak hiri bideen mantenimenduaren zerbitzu publikoaren funtzionamenduak eragindako kalteen erantzukizuna du, eta ez du errepideko edo espaloiko trazaketaren desberdintasunen berri emateko obligazioa bete. Ondoren, dagokion administrazio espedientearen instrukzioa eginda, beste ebazpen

bat egin beharko litzakete, erreklamazioaren egileari egindako kalteengatik ondare erantzukizuna aitortuz, dagozkion proportzio eta zenbatekoaz.

#### - Sestaoko Udala

\* **401/1999/22 espedientea (84/1999 gomendioa)**. Sestaoko Udalari gomendioa egin zitzaion, Bizkaiko Lurralde Historikoko 7/89 Foru Arauak, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzkoak, tributu honen zerga oinarriaren zenbatekoari buruz adierazten duenera egoki zezan trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen Ordenantzaren 7.2.d) artikulua. Era berean, Sestaoko Udalak ofizioz baliorik gabe utz zitzaion kexaren egileari Trakzio mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga gisa egindako likidazioak, 750 kg baino gutxiagoko atoiaren titularra izateagatik.

#### c/ Gipuzkoako udalak

##### - Donostiako Udala

\* **1960/1998/19 espedientea (33/1999 gomendioa)**. Donostiako Udalari gomendioa egin zitzaion, kexa egileari TAOko zonan aparkatzeagatik jarri zitzaion salaketa deuseztatzeko ordaindu zuen kopurua itzul ziezaion; izan ere, minusbaliatua izanik, nahiz eta beste udalerrri batean bizi, zilegi zitzaion autoa leku hartan eta baldintza haietan aparkatzea. Era berean, aparkamendu arautuaren udal zerbitzua arautzen duen Ordenantzaren aurreikuspenak aldatzea gomendatu zitzaion, bertan bizi diren eta ez diren minusbaliatuen egoeraren parekotasuna jaso dadin. Eta azkenik, Ordenantza aldatu artean, Udaltzaingoari agindu batzuk ematea, praktikan, eta ordura arte, Ordenantza aldatuz konpondu nahi den egoera parekotasun hori aintzakotzat har dezan.

\* **2239/1998/19 espedientea (5/1999 gomendioa)**. Donostiako Udalari gomendioa egin zitzaion, bost urteroko azken berriztapenari dagozkion orrialdeak bete ez zituen herritar bat eroldan jaso zezan, eroldako agentearen jokabidean hutsegite batzuk aurkitu baitziren.

\* **2423/1998/23 espedientea (99/1999 gomendioa)**. Donostiako Udalari gomendioa egin zitzaion, ondare erantzukizunaren erreklamazio bati buruz ebazpen zehatza egin zezan, Administrazio Publikoetako eta Administrazio Prozedura Komunekeo Erregimen Juridikoari dagokion azaroaren 30eko 30/1992 Legearen 42. eta 43. artikuluek administrazio publikoei ezartzen dien betebeharraren arabera.

\* **173/1999/01 espedientea (56/1999 gomendioa)**. Donostiako Udalari gomendioa egin zitzaion, 1998ko bigarren sei hilekoan jasotako AESeko laguntzaren erabilerari dagokionez kexa egileek aurkeztutako frogagiriak onar zitzaion eta, ondorioz, dokumentu horiek aurkeztu ez zituztelakoan, aurtan pertsona horiei AESeko laguntzak ukatzeko erabakia berrazter zezan.

\* **2308/1998/23 espedientea (20/1999 gomendioa)**. Donostiako Udalari gomendioa egin zitzaion, interesatuak aurkeztu zuen jarduera lizentzia bat deuseztatzeko eskaera bati buruz ebazpen zehatza egin zezan, Administrazio Publikoetako eta Administrazio Prozedura Komunekeo Erregimen Juridikoari dagokion azaroaren 30eko 30/1992 Legearen 42. artikulua administrazio publikoei ezartzen dien betebeharra hori dela kontuan hartuta.

Era berean, kontuan har zezan eskaera horren ebazpenean, jarduera lizentzia emateko unean, Donostiako Establezimendu Publiko eta Aisialdiko Jardueren 1994ko apirilaren 12ko Udal Ordenantza Arautzailea indarrean zegoela. Azkenik, Udalari gomendioa egin zitzaion, ebazpen hori emateko garaian, kalte ordaingarriengatik erantzukizuna izan dezakeela kontuan har zezan, 30/1992 Legearen 102.e artikulua arabera.

#### - Beasaingo Udala

\* **2150/1998/17 espedientea (4/1999 gomendioa).** Beasaingo Udalari gomendioa egin zitzaion, udal zerbitzu teknikoek haragiaren txikizkako salmentan aritzen den saltoki bateko zaraten neurketa eta lokal horren ikuskapen teknikoa egin zezaten, jarduera 1987ko apirilaren 13ko irekitze lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileetara eta Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/85 Dekretuko aurreikuspenetara egokitzen ote den zehazteko. Era berean, ikuskapen horretan akatsik aurkituko balitz, instalazioaren titularrari epe jakin batean zuzentzeko eska ziezaion gomendatu zen; epe hori, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Legearen 64.2 artikulua arabera, ezin izango da sei hilabetekoa baino luzeagoa izan, behar bezala justifikatuta dauden kasuetan izan ezik.

#### - Lasarte-Oriako Udala

\* **33/1998/23 espedientea (8/1999 gomendioa).** Lasarte-Oriako Udalari gomendioa egin zitzaion, trafikoko arauak urratzeagatik ezarritako zigor bat baliorik gabe utz zezan, tramitatutako espedienteak ez baitzuen zigor espediente hori ebazteko finkatu den funtsezko izapidea, ebazpen proposamena eta espedientea egokitzen jotzen dena alegatu ahal izateko helaraztea alegia. Izapide hori Trafikoari, Motor bidezko Ibilgailuei eta Bide Segurtasunari dagokien Prozedura Zigortzailearen Araudia onartzen duen otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuaren 13.2 artikuluan ezartzen da. Halaber, urratu zen aparkatzeko debekua ez zegoelako behar bezala seinalizatua gomendatu zen baliogabetzea, hau da, Zirkulazioaren Araudi orokorra onartzen duen urtarrilaren 17ko 13/1992 Errege Dekretuaren 154. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

#### - Pasaiaiko Udala

\* **2496/1998/17 espedientea (24/1999 gomendioa).** Pasaiaiko Udalari gomendioa egin zitzaion, alkatetzaren dekretu bidez, kautelazko neurri gisa, gimnasio bat berehala ixtea, bere titularrak instalazioaren funtzionamendu zuzena bermatzen duten beharrezko lizentziak lortu artean, jurisprudentziak behin eta berriro adierazi duen bezala.

\* **475/1999/22 espedientea (58/1999 gomendioa).** Pasaiaiko Udalari gomendioa egin zitzaion, ostalaritzako establezimendu baten titularrari bi hilabeteko epe luzaezinean, burutzen duen jarduera ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuaren 1. kapituluaren 1. atalean aurreikusitako neurri zuzentzaileetara egokitzeko proiektu bat aurkezteko eska ziezaion; Dekretu horrek jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei aplikatzeko arau tekniko orokorrak xedatzen ditu. Halaber, halakorik egin ezean, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Lege Orokorraren 109.d) artikulua ez betetzeagatik espediente zigortzailea hasi eta izapidetuko dela jakinaraztea gomendatu zen.



\* **475/1999/22 espedientea (59/1999 gomendia)**. Pasaiaiko Udalarik gomendia egin zitzaion, ostalaritza establezimendu batean instalatutako musika ekipoa erretira zezan, elementu hori ez baitzegoen titularrari emandako irekitze lizentzian. Neurri hori instalazioa erregularizatu artean eta udal zerbitzu teknikoek lokalean ezarri beharreko neurri zuzentzaileen eraginkortasunafrogatu artean hartu beharko litzateke, horretarako Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurugiro Sailak egin beharko lukeen kalifikatzeko eta neurri zuzentzaileak hartzeko txostenaren arabera.

#### - Segurako Udala

\* **2519/1998/15 espedientea (48/1999 gomendia)**. Segurako Udalarik gomendia egin zitzaion, baserri baten teiletal bateko erretena erretiratzeko beharrezko ekintzak burutu zitzaion; izan ere, udal bide publikoaren gainean dagoenez, altueran eta zabaleran igarobidea mugatzen du.

\* **2519/1998/15 espedientea (49/1999 gomendia)**. Segurako Udalarik gomendia egin zitzaion, baserri bateko baratzen eta landa bide baten artean dagoen karela bat erretiratzeko agin zezan. Arrazoia, karela zati hori lizentzia eman aurretik ez egotea da eta, beraz, konponketa ez izatean, beste itxitura bat baizik, Gipuzkoako Errepide eta Bideen 17/1994 Foru Arauaren 61-2. artikulua eskatzen duen metro bateko distantzia gorde beharko litzateke.

\* **2519/1998/15 espedientea (50/1999 gomendia)**. Segurako Udalarik gomendia egin zitzaion, baserri baten fatxadaren ondoan dagoen zubi baten sendotasuna ikusteko zama proba bat egin zezan. Entseiu honen emaitzaren arabera, udalbatzak zubiaren ahalmena ezagutu ahal izango du eta, ondorioz, 13,5 tonatik 26ra bitarteko ibilgailu astunei bertatik igarotzeko baimena eman edo ukatu erabakiko du, zubiaren erresistentziarekin bateragarriak izatearen arabera.

### D) BESTE TOKI ERAKUNDE BATZUK

#### - Osmako Administrazio Batzarra

\* **1667/1998/15 espedientea (13/1999 gomendia)**. Osmako Administrazio Batzarrari gomendia egin zitzaion, landa guneko horretako bide garbiketaz lege arduratzen denez, kaleen zaintzari eta garbitasunari dagokienez gutxieneko osasun baldintzak bete zitzaion. Horretarako, bere eskumena erabiliz, abelazkuntza ustiapenak dituzten bizilagun titularrei, azienda kaleetatik igaro ondoren, gorotza erretiratzeko eskatu beharko lieke, edo kaleen gutxieneko garbitasuna eta osasungarritasuna bermatzeko beste edozein neurri hartzeko.

#### - Orbisoko Administrazio Batzarra

\* **2551/1998/22 espedientea (94/1999 gomendia)**. Orbisoko Administrazio Batzarrari gomendia egin zitzaion, ur hartunea beste kokagune batera eramanez, Arabako Foru Aldundiak inbertsio hori finantzatzeko dituen laguntza planetan sartzeko eskatuz, edo beste neurri batzuk sustatzeko, plagizidien zisternak garbitu eta kargatzeko lanak gaur egiten diren etxolan ez burutzea lor dadin, beste administrazio batzuen laguntzaz, beharrezkoa bada.

#### 4. PROZEDURA JUDIZIALA IZATEAGATIK BERTAN BEHERA UTZITAKO GOMENDIOAK (OTSAILAREN 27KO 3/1985 LEGEAREN 13. ART.)

\* **404/1997/19 espedientea (8/1998 gomendioa)**. Urtuellako Udaleri gomendioa egin zitzaion, udalerrri horretan bizi den herritar bat erroldan sar zezan; dagokion erregistroan jasotzea ukatu zitzaion, bere bizitokia zen lekua okupatzeko titulu juridikoa ez zuelako.

\* **2008/1998/18 espedientea (90/1998 gomendioa)**. Barne Sailari gomendioa egin zitzaion, bertako bitarteko funtzionario batek euskara ikastaroetara joateko aurkeztutako eskaerari emandako ezetza azter zezan, eta beste ebazpen bat egin zezan, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioako eta bere organismo autonomoetako langileen lan baldintzak arautzen dituen Akordioan datozen baimen irizpideak soilik hartuz kontuan.

\* **610/1999/20 espedientea (41/1999 gomendioa)**. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari gomendioa egin zitzaion, ikastetxe itundu batean ikasle baten onarpen eskaerari eman zitzaion tratamendua aztertzeke neurri egokiak har zitzan, familiaren bizilekua hurbil egotea ikastetxe horretan ikasleak onartzeko prozesuan kontuan har dadin.

VI. ATALA

**GOMENDIO OROKORRAK**

## 1. EUSKAL ADMINISTRAZIOEK KOMUNITATEAREN ONERAKO LAN ZIGORRAK BETEARAZTEKO HITZARMENAK SINATZEKO ETA SUSTATZEKO BEHARRA

Administrazio publikoak egindako irregulartasunen aurrean norbanakoen eskubideak defendatzeaz gainera, Arartekoari dagokio giza eskubideen kultura hedatzeko eta talde zaurkorrenetik eta ahulenetik elkartasun soziala sustatzeko eginkizuna.

Ikuspegi horretatik, *Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeen egoerari* buruzko gure txostenean (1996), argi adierazi genuen gizarteak eztabaidatu egin behar duela egungo zigor-zehapenen sistemari buruz, eta jendaurrean jarri nahi izan genituen espetxe-zigorak dituen alde txar larriak, bai eta prebentziorako antzeko eraginkortasuna duten zehapen alternatiboak egon badaudela, eta gizon-emakumeentzat eta gizartearentzat askoz ere kostu txikiagoa dutela horiek. Europako Parlamentua 98-12-17ko espetxeetako baldintzei buruzko eta ordezeko zigorrei buruzko Erabakian (A4-0369/98) bat zetorren planteamendu horrekin, eta indar berezia jartzen zuen zigor-sistemak bilatzen dituen gizarteratze helburuen garrantzia azpimarratzeko, hain zuzen ere herritarrengandik elkartasunezko erantzuna jasotzearen (31. atala).

Aipatu erabakian (30. atala), askatasun-gabetezko zehapena ordezteko zigorren aplikazioaren alde egiten du Europako Parlamentuak, bereziki *“Batasuneko herri jakin batzuetan aplikatu eta eraginkor direla demostratu diren zigorrak; esate baterako, interes orokorreko lanak”*. “Espetxeetako bidea murrizteko” helburu berarekin, Arartekoak aipatu zigor-neurria zabaltzeko gomendio orokor horretan egin nahi du lan nagusiki; komunitatearen onerako lan zigorrak (KOL) esaten zaio horri gure antolamendu juridikoan.

### 1. Komunitatearen onerako lan zigorrak

1995eko zigor kode (ZK) berriak ekarritako berritasunen artean gehien espero zenetako bat -baita ere gehien eskatutakoetako bat- espetxe-zigor tradizionalaren ordezeko zigor alternatiboak sartzea zen. Legegilearen erantzunak aldez aurretik zeuden igurikapenak bete ez bazituen ere, zigor sistemak zenbait zehapen ezarri ditu askatasuna kentzea baino kalte txikiago egin eta dutelako larritasun gutxiko delituetan ezartzeko egokiagoak direnak. Delitu horiek -maizen gertatzen direnak- espetxe zigor laburren bitartez zehatzen ziren aurreko zigor legeetan; zigor horiek kritika ugari jaso zituzten doktrinan, pertsona bat giltzapean egoteak ekartzen zituen ondorio negatiboaz gainera -deserrotzea, estigmatizatzea, “kutsatze kriminala” eta abar-, birtualitaterik ez zutelako zigorpekoaren etorkizuneko jokaeran positiboki eragiteko.

Hori dela eta, 1995eko ZK-k sei hilabete baino gutxiagoko espetxe-zigorrek kendu zituen. Egia da askotan, legegileak zigorraren iraupena luzatzeko prozedura muturreko eta kritikagarriaren alde egin izan duela -esate baterako, ebastea hilabetetik 6 hilabete bitarteko askatasun-gabetzeaz zehatu ohi zen; egun, ordea, 6 eta 18 hilabete bitarteko espetxe-zigorraz-, baina, beste batzutan, zehapen horien ordeaz beste batzuk ezarri izan dira, funtsean Asteburuko Atxilotzeak (AA).

Zigor hori ere askatasun-gabetze bat da, era berean; hala ere, hura betetzeko modu ez-jarriak -astean bi eguneko espetxealdia-, itxialdiaren ondorio kaltegarrienak saihestu nahi ditu, eta helburu du zigorra jaso duen pertsonaren gizarte eta lan harremanetan kalterik ez sortzea. Zigor Kodearen 37.2 artikuluari jarraituz, kasu jakin batzuetan, AAk atxilotuen udaletan ere egin daitezke; beraz, erantzukizun berriak sorrarazten ditu horrek toki administrazioetan.

Urteko aurreko txostenetan, Arartekoak agerian jarri ditu beren helburuak betetzeko atxilotze-zentro horiek dauzkaten hutsak eta beharrak; eskasi horiek, batzutan, oso nabarmenak dira, eta AAk egitea galarazteraino ere iristen dira. Herriaren Defendatzaileak *Espetxeen egoera y Atxilotuen Udal Deposituiak (1988-1996)* txostenean antzeko ondorioa atera zuen Euskal Autonomia Erkidegoko ziegetara egindako bisitaren ondoren.

Egoera horretan, EAeko epaitegiek ezarritako AAk lehendik dauden espetxeetan bete behar dituzte; azken horietan ezin dira eskaini legeak diseinaturiko baldintzak, gainezka daudelako eta, gainera, horretarako behar diren bitartekoak eta egoitzak falta dituztelako.

AAk betetzeko arazoari garrantzirik bat ere kendu gabe, Zigor Kode berrian txertatutako zehapen berritzaileena -eta, agian, gizarteratzeko helbururako aukera onenak eskaintzen dituena- praktikan jartzeko dauden zailtasunak aztertu nahi ditugu une honetan nagusiki. Komunitatearen Onerako Lan (KOL) zigorrari buruz ari gara.

Zigor neurri hau -duela hogeitau urte baino gehiagotik Europako zenbait herritan aplikatzen ari dena- zigorpekoa eskubideez gabetzeko zigor bat da. Zigor Kodearen 49. artikulua arabera, ezin izango da halakorik ezarri zigorpekoa ados egon gabe. Halako neurrien bitartez, zigorpekoa behartu egiten da bere kooperazioa ematera, ordaindu gabe, erabilgarritasun publikoko jarduera batzuetan. KOL zigorrak betearazteari buruzko 690/96 Errege Dekretuaren arabera, jarduera horiek “*gizartearen interesekoak izango dira, eta hezkuntza-balioa edukiko dute, hain zuzen ere zigortutako legez kanpoko ekintzek komunitatean sorturiko kaltea konpondu ahal izateko; ezin izango da halakorik ezarri interes ekonomikoengatik.*”

Legezko arauen arabera, honela laburbil daitezke aipaturiko zigorraren ezaugarri nagusiak:

a) Lanaldi bakoitzak eguneko 8 ordu izango ditu gehienez ere eta 4 ordu gutxienez; hala ere, lanaldi hori zatitu ahal izango da, zigorrak betearazteko malgutasunaren aintzat harturik. Izan ere, zigorraren betearazteak neurri horiek eta zigorpekoaren eguneroko jarduerak bateragarriak izatea eduki behar du helburu.

b) Administrazioak emango ditu KOLak; horretarako, behar diren hitzarmenak sinatu ahal izango ditu gainerako administrazioekin, bai eta balio sozialeko jardueretan aritzen diren entitate publiko nahiz pribatuekin ere.

c) Betiere, KOLak, bai edukian eta bai betearazteko moduan ere, zigorpekoaren duintasuna begiratu beharko du. Zerbitzu-ematea ordaindu gabekoa izanda ere, garraio-

gastuen kalte-ordainak pagatu egingo zaizkio, bai eta jatekoak ere; halaber, zigorpekoak lege penitentiarioek Gizarte Segurantzaren arloan ezarritako babesa ere izango du.

KOL zigorrei buruz adierazi ohi diren alde onak gorabehera -batez ere, askatasun-gabetzeko zigorrekin alderatuta-, zigor lege berriak ez du egiazko apusturik egin halakoak ezartzeko. Hain zuzen ere, ez dago deliturik aipaturiko zehapena zigor gisa ezarrita duenik. Hori dela eta, halakorik ezin da ezarri, lege ezarritako beste zigor baten orde ez bada. Zigor Kodearen 88.2 artikulua xedatu bezala, epaitegiek AAen orde KOLak ezarri ahal izango dituzte. Honako hau da halakoak egiteko araua: bi lanaldi atxilotuta egotea asteburu bakoitzaren orde. KOLen bitartez ere isun bat ez ordaintzearen ordeko erantzukizun pertsonala bete ahal izango da. Hau da, askatasun-gabetzeko egun bat jasan orde, ordaindu gabeko isunen bi kuota bakoitzeko aipatu lan lanaldi bat bete ahal izango da (ZK, 53. art.).

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren txosten batean -99-07-12an onetsitakoa-, honakoak azpimarratzen ziren: *“isun-zigor batez edo AAez zehatutako delituak ez dira ugari, ez eta ohikoenak ere (gogoan izan ebasteagatik edo gauzetan indarra erabiliz lapurtzeagatik ere espetxe zigorra ezartzen dela)”*. Honako ondorioa ateratzen zuten gero: KOL zigorra aplikatzeko aukerak oso ere mugatuta daudela. Kontseiluak, gainera, bat egiten du Herriaren Defendatzailearekin ondokoa baieztatzerakoan: autonomia erkidego gehienetan ez dago ez azpiegiturarik ez behar diren baliabide materialik ere aztertutako zigorra praktikan jartzeko.

Aplikatzeko zailtasun horietaz gainera, Zigor Kode berriaren zehatzeko duen gehiegizko estutasuna aipatzen du Botere Judizialaren aipatu organoak; izan ere, askatasun-gabetzeko zigorrekin larritasun eskaseko delituak zigortu ezezik, zehapen alternatiboetarako gehiegizko iraupena ere ezarri baitu. Horrela, bada, KOLetan zuzenbide konparatuan gehieneko muga 240 ordutan dagoen bitartean, Espainiako legegileak 384 ordu bitarte onartzen ditu. Gainera, honako ezberdintasuna ere badago: beste herrialdeetan gehieneko muga hori larritasun ertaineko eta baita larritasun handiko delituetan baizik ez da erabiltzen; hemen, ordea, zigor hori larritasun eskaseko delituetan aplikatzen da maiz..

Horrenbestez, laburbildurik, esan beharra dago legeak ez duela biderik ematen zigor modalitate berria modu zabalean erabiltzeko; hala eta guztiz ere, badirudi argi dagoela espetxe-zigorraren alternatiba diren zigor horiek kontu handiz ezartzearen eskarmentuak etorkizunean izango duten garapenaren ildo egingo dutela. Horri dagokionez, gizartearen erantzuna eta, batez ere, aipatu zigorra betetzeko eginbeharrak, zerbitzuak eta postu jakinak eskaintzen dituzten administrazio edo entitateen konpromisoa erabakigarria izango da finean.

## 2. KOL zigorra aplikatzearen egungo egoera

Komunitatean aplikatzekoak diren zehapen eta neurriei buruzko Europako arauak, Europako Kontseiluak bere R (92) 16 gomendioan onetsitakoek, ezinbestekotzat jotzen dute erakundeek eta gizarte antolamenduek inplikatzeta eta parte hartzea zigor alternatiboak eta, bereziki, KOLak abian jartzeko lanetan. Hala eta guztiz ere, ezin esan daiteke gure inguruko egoera helmuga horretatik hurbil dagoenik.

Bai Administrazioak -Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila-, bai iturri judizialek eman dizkiguten informazioak oinarri harturik, Arartekoak ondorioztatu du EAEn ez direla askatasun-gabetzeko zigor laburrak ordeztzen ari komunitatearen onerako lan-zigorrekin. Basauriko Udalaren parte-hartzearekin gauzatu zen kasu isolatu bat alde batera utzita, euskal herritarrek ez dute aukerarik komunitatearen zerbitzuan lanik egiteko espextera sartu beharrik ez izateko. Egitate hori ez dator bat Euskadiko gizarte zerbitzuetan, oro har, lortu ditugun prestazioen mailarekin.

Salaturiko huts horren aurrean, agerian jarri behar da aipatu Justizia Saila zenbait urtez aritu dela komunitatearen onerako zerbitzuen neurrien erabilera kudeatzen, hain zuzen ere adinez txikientzako epaitegiek arauen bat hautsi duten nerabeei ezartzen dizkieten zigorren arloan. Neurri hori, funtsean, bat dator Zigor Kodeak delituak egiten dituzten 16 urtez goitiko pertsonentzat ezarritako zigorrarekin.

*Adin txikiko arau-hausleentzako jarduerari buruzko* Arartekoaren txostenean balio sozialeko zerbitzuetan neurri honek 1996 eta 1997 urteetan izandako aplikazioari buruzko datuak eman genituen. Beste gauza batzuen artean, azpimarratu genuen neurriaren edukian aniztasun gutxi lortuta ere, aipatzeko modukoa zela aplikazioaren maiztasuna (neurri guztien ia ehuneko 16). Programan, 20 baino gehiago entitate publikok nahiz pribatuk hartu zuten parte. Dirudenez, gora egiteko joera ere badago: 1999ko urtarrilaren 1etik urriaren 15era bitartean, EAEn komunitateari zerbitzuak egiteko 55 neurri judizial ezarri dira; horietatik 18 neskei ezarri zitzairen eta gainerako guztiak mutilei. 33 izan dira, gainera, beren balia bideak eskaini dituzten entitateak (horietatik 12 publikoak eta 21 pribatuak). Horien artean, hezkuntza zentroak, ludotekak, gizarte zerbitzuak, gizartearen arloko irabazi asmorik gabeko erakundeak, liburutegiak, aisialdiko zentroak eta abar.

KOLak betearazteko administrazioaren inplikazioari dagokionez antzeman ditugun aldeak, adin txikiko arau-hausleak eta helduak alderatuz gero, azalpen bat eman daiteke: oraindik ere ez dira gauzatu zigor arloan EAEn espexteen arloko eskumena osatzen dituzten eginkizunen transferentzia. Arartekoak hainbat foro eta unetan adierazi izan du komenigarri dela Eusko Jaurlaritzak eginkizun horiek bereganatzea; hori dela eta, ez dirudi beharrezkoa denik hemen errepikatzea gai horretan dauzkagun arrazoiak (*Euskadiko espexteen egoerari buruzko* txostena ikus daiteke horretarako). Hala ere, hori kendu gabe, ez dugu nahi transferentziak egiteko alde aurretiko baldintzak jartzea euskal administrazioek zigorrak betearaztearen arloan beren lankidetzak eskaintzei buruz. Horrela jokatzuz gero, aukerak kentzen ari baitzaizkie EAEn bizi diren pertsonentzat askatasun-gabetzeko zigorren ordezkari txikiagoko zehapen bat jasotzeko.

Espainiako Estatuko egoerak ere optimistak izateko arrazoi gutxi ematen baditu ere, bide luzeagoa egin dute. Azpimarratzekoa da, adibidez, Lan eta Espetxe Prestazioen Erakunde Autonomoak -Barne Ministerioaren menpe dago hori- eta Espainiako Udal eta Probintzien Federazioak sinaturiko lankidetzak hitzarmena. Bide horretatik lortu da 228 udal inplikatu eta 1.768 postu eskaintzea KOL zigorrak betetzeko. Beste 57 postu bi komunitate autonomoetako gobernuekin zuzenean hitzartu dira; azkenik, 3 plaza elkarte pribatu batekin hitzartu dira.

Katalunian -dakigunez bera da zigorren eta espexteen arloko betearazteak kudeatzen dituen autonomi erkidego bakarra-, programa berriazko bat dago askatasun-gabetzeko zigorren neurri alternatiboetarako buruz. KOLak aplikatzeari dagokienez, 77 eskakizuni

erantzun zaie 1997an eta 184ri 1998an. Zigor neurri hori betetzeko postuak toki administrazioak -zenbait hitzarmen sinatu dira Associació Catalana de Municipis i Comarques delakoarekin eta Federació de Municipis de Catalunya izenekoarekin- eta irabazi asmorik gabeko entitate pribatuek eskainitakoak dira. Horietako batzuekin, lankidetzaz-hitzarmen iraunkorrek daude neurri alternatiboen programak egiteko; halaber, hitzarmenak egin dira kasu jakin batzuetarako oso egoki jotzen diren entitateekin, arau-hauslearen ezaugarrien edo egindako arau-haustearen nolakoaren arabera.

Kataluniako Generalitateko Zigor Neurri Alternatiboen eta Gazteentzako Justiziaren Zuzendaritza Nagusiak entitate sozial horiekiko lankidetzaren garrantzia azpimarratu izan du, eta ñabardura bat ere erantsi du: hain zuzen ere, entitate horiek parte-hartzeak ez duela esan nahi zigorra kontrolatzeko aukera dutenik. Zigortutako pertsona eman zaizkion jardueretan aritzeko lekua, eginbeharra eta txertatzea eskaini besterik ez dute egiten. Horri dagokionez, ezinbestekoa da entitate horiek zigorra betetzearen erantzukizuna duen erakundearen laguntza orokorra jasotzea, bai eta berariazko laguntza bat ere: hain zuzen ere profesionalak inguru zabal horretan izaniko esku-hartzearen jarraipena egitea.

### **3. KOL zigorrak aplikatzea bideratzen duten bitartekoak artikulatzeko komenentzia**

Europako Kontseiluaren aipatu R (92) 16 gomendioak -espetxeetako baldintzei eta ordezkapen zigorre buruzkoa da- kapitulu bat eskaini zien zigor horien betetzeari, eta horretarako ondokoa ezarri zuen: *“informazio egokiak zabaldu behar dira komunitatean aplikatzen diren zehapen eta neurrien nolakoari eta edukiari buruz (...) jendeak (...) eta parte hartzen duten erakunde eta zerbitzu publiko eta pribatuek haien betetzearen bitartez ezagut dezaten haien oinarria, eta delitu-portaerentzako erantzun egoki eta sinesgarri gisa har ditzaten”* (44. araua). Arartekoak uste du, orain arte behintzat, jendaurreko informazio lan hori ez dela behar adina garatu gure herrialdean: gizarteak ez du ikusten zein alde on dagoen askatasun-gabetzea berekin ekartzen ez duten zigoretara jotzea, eta, hori dela eta, ez die administrazio eskudunei galdatzen halakoak ezartzeko.

Hala eta guztiz ere, Europako arauen adierazpideak berriz harturik, *“sekula ez da indar gehiegi jarriko komunitatean aplikatzekoak diren zehapen eta neurriek (...) bai delitu-egilearentzat eta bai komunitatearentzat ere benetako balioa dutela adierazteko”* (Atzinsolasa).

Izan ere, banakako aurreneurrien ikuspegitik -hau da, zigor-kondena bat jaso duen pertsonarengan duen eraginari dagokionez-, KOLak birgizarteratzeko ahalmen askoz ere handiagoa demostratu du espetxe zigorrak baino, arau-hausleak bere egiten baititu gizartean dituen erantzukizunak. Gizartean txertaturik egotean, delitua egindako pertsonak aukera gehiago ditu bere ekintzen ondorioak ere ulertzeko eta haien ondorioak eta sortu dituen kalteak baloratzeko.

Bestalde, zigorpekoak gizartearentzat baliagarri izanen den horretan jarri behar duen ahalegin pertsonalak, komunitateari egindako kaltearen konpontze sinboliko bat izateaz gainera, ondorio positiboak ditu delitua egin duen pertsona horrek bere buruaz duen ustearengan, eta horrek errazago egiten du gero gizarteko bizitzan ongi txertatzea.



Halaber, zigor gogorrakoak etorkizuneko delituei aurre egiteko eraginkorrakoak direlako uste sendoaren aurrean -esperientziak ez du halakorik egiaztatu-, demostratuta dago askatasun-gabetzea berekin ez dakarten neurriek *“luzera begira, babes handiagoa ematen diotela gizarteari”* (Europako arauak. Aitzinsolasa). Horri dagokionez, KOL zehapenak erantzukizunaren kidetasunaren printzipioa sendotzen dute; hain zuzen ere, arau-hausleak kolektibitatearen eta haren arauen aurrean duen erantzukizun pertsonalaz gainera, aitortu egiten du gizarteak ere halako erantzukizun bat duela, eta gizarteratzeko benetako aukerak eman behar dizkiola hari. Erakunde publikoak eta baliagarritasun sozialeko jarduerak egiten dituzten entitateak elkarrekin lan egitearen bidez, komunitateak inplikazio aktiboa du bere baitan sortzen diren gorabeherei konponbidea emateko. Aldi berean, toki mailako erakundeek zigortutako pertsonak birgizarteratzeko helburuan -Konstituzioaren 25.2 artikuluan ezarrita dago hori, bai eta Toki Araubideko Oinarriak arautzeko Legearen 25.k) artikuluan ere- parte-hartzea artikulatzen da horrela.

Aztertutako zehapenaren beste alde on bat da delinkuentziari eta delinkuenteei buruz dauden estereotipoen eragin negatiboa ahultzen laguntzea; horrela, arrazionalago bihurtzen dira gizarteak zigorraren beharrari buruz dituen sentimenduak.

KOL zigorra, noski, -gainerako zigor-erantzun guztiak bezala- ez da ukendu unibertsal bat. Nahiz eta argi dagoen ez dituela berekin ekartzen askatasun-gabetzeko zigorraren gizarteratzearen aurakako eragin larriak, eta haren betetzea bestea baino kostu txikiagoa duela, kritikak ere jaso izan ditu. KOLak betetzeak berekin dakartzan antolamendu-arazoez gainera, alerta piztu da zigorpekoek lanpostuak beteko ote dituzten, are gehiago langabezia arazo orokor den garai batean. Zigor-neurri hauek ezarri diren herrialdeetan ez sindikatuen, ez langileen antolamenduen aurkako jarrerak plazaratu ez badira ere, beharrezkoa da ongi begiratzea inongo kasutan ere KOL postuek lanpostuen betetze hutsa izatea: bolondres moduan egin ohi diren kooperazio lanak izan behar dute, bada, eskaintzen direnak.

Beste eragozpen bat ere badago, teorikoagoa bera, baina era berean kezagarria bermea eman behar duen erakunde honen ikuspegitik: zigor-kontrola hedatzeko arriskuari dagokiona da. Penagarria izango litzateke KOL zigorra espetxe-zigorrerako alternatiba erreala izan partez -hau da, espetxeetako populazioa murriztea ekarri beharko luke-, “askatasunaren alternatiba” bat gertatzen bada, hau da, zigor esku-hartzearen handitze bat gertatzen bada, hain zuzen ere lehen askatasun-gabetzea berekin ekartzen ez zuten jokaerak zigortzen direlako.

Badirudi argi dagoela, betiere, KOL zigorrak berez dituen ahalmenak baldintza jakin batzuetan baizik ezin direla garatu; hain zuzen ere, azpiegitura eta baliabide egokiak -giza baliabideak eta baliabide materialak- jarririk. Hala egin ezean, zigor-neurri hori iragarritako porrot bat izan dezake laster batean, eta, ondorioz, hala gertatuz gero, delitu arinenak ere zehatzeko espetxea ezinbestekoa delako ideia sendotu egingo litzateke.

KOL zigorrak aplikatzea bideratuko dituzten baldintzak artikulatzeko lehen erantzukizuna espetxeetako administrazioarena bada ere, gainerako botere publikoek ere laguntza eman beharko dute espetxearen alternatiba argia den neurri hori zabaltzen eta sustatzen. Hori dela eta, Arartekoak gomendioa egin nahi die Euskadiko administrazio publikoei, aukera duten neurrian, aipatu zigorra betetzeko postuak eskain ditzaten. Komenigarria da, halaber, administrazio horiek sustatzea eta laguntzea gizarte lanetan ari diren entitate eta erakunde pribatuak ere inplikatu eta KOLak betearazten lagun dezaten.

## **2. ERANTZUKIZUN PERTSONALAK, FAMILIARRAK ETA PROFESIONALAK UZTARTZEA: ENPLEGU BALDINTZAK MALGUTZEKO BIDEAN**

### **Sarrera**

Erantzukizun pertsonalak eta familiarrak erantzukizun profesionalekin uztartzea gaurko gizartean gero eta zabalduegoa dagoen beharrezkoa da.

Uztartzeko behar hori gizarteak azken urte hauetan jasan dituen aldaketa erabakigarriari zor zaie. Aldaketa horien artean, ondokoak dira aipatu beharrekoak: emakumea lan merkatuan gero eta gehiago sartzea; enplegua kontzentratuta izatea seme-alabak zaintzeko erantzukizun garrantzitsuenak dauden adin-taldean (25 eta 49 urte bitartean); bizi-itzaropena handitzea (horrek populazioaren zahartze gero eta handiagoa erakusten duen aldaketa demografiko batera eraman gaitu); eta, azkenik, familien bizi egituraren eta bizimoduak jasan duen aldaketa handia.

Aldaketa horiek guztiak direla eta, neurriak hartzea ezinbestekoa den eszenatoki berri batean jarri gaitu. Hona neurri horietako batzuk: lan egiten dutenen bizi pertsonala, familiako bizitza eta bizitza profesionala uztartzea, baldin eta norbanakoen eta haien familien gutxieneko ongizatea bermatu nahi bada. Horri dagokionez, beharrezkoa da gune edo gizarte-eredu berri bat aurkitzea, non emakumeek eta gizonek beren alde pertsonalak, familiarrak eta profesionalak bateratzeko modua izango baitute, haietako bakarrari ere uko egin gabe. Azpimarratu beharrezkoa da, halaber, uztartzearen helburu hori betetzea emakumeentzako ekintza positiboen estrategia batean kokatu behar dela; izan ere, emakumeak dira familiako erantzukizun handienak hartzen dituztenak, eta, horrenbestez, beren bizi pertsonala eta profesionala harmonizatzeko arazorik handienak dituztenak. Zalantzarik gabe, gure inguruko gizarte aurreratuak planteatuta dituzten erroka handienetako bat da hori.

Beharizan hori berresteko eta irudikatzeko, Arartekoaren erakunde honetan izapideturiko kexuak laburki aipatzea da onena; izan ere, herritarrek daukaten kezka errearen eta egiazkoaren isla argia dira horiek.

### **Izapidaturiko kexuen aipamen laburra**

Aurkezturiko kexu edo eskari gehienak gurasoen baimenekin lotu behar dira. Izan ere, kexu askotan haxe eskatzen da: adin txikiak adoptatzeko edo hartzeko kasuetara zabaltzea amatasun biologikoaren kasuetan aurreikusitako baimenak (1218/1996, 2255/1998 eta 677/1999 erreferentziak).

Halaber, berriki ondokoa ere eskatu da: irakasleen lan baldintzak arautzen dituen akordioan aurreikusitako hobekuntzak -hain zuzen ere, amatasun baimena 18 astetara zabaltzen du- aldi baterako funtzionario ezegonkorretara hedatzea (889/1999 erreferentzia. Ikus txosten honetako kexuen laburpenei buruzko kapitulua).

Hala eta guztiz ere, ordutegien arloan, besteak beste, lan baldintzak malgutzeko beharra aurreikusten zuten kexu batzuk ere jaso ditugu.

Horri dagokionez, aipatzekoa da udal bateko emakumezko enplegatu batek bitartekari ari gintezen helarazi zigun eskaria; izan ere, borondatezko eszedentzia eskatu

behar izan zuen alde zuzenetik baimendutako lanaldiaren murrizketa bere familiaren beharrei egokitzeko modurik ez zitzaiolako eman (985/1997 erreferentzia. Ikus 1998ko txosteneko kexuen laburpeni buruzko kapituluak).

Halaber, Osakidetzan lanean ari diren emakumezko enplegatu batzuen kolektiboak ere erakunde honen bitartekotza eskatu zuen, zenbait osasun zentrotako zuzendaritzek haurrak zaintzeko borondatezko eszedentzia etenekin erabakitzeko garaian, batzutan, jartzen dituzten arazoak direla eta (206/1999 erreferentzia. Ikus txosten honetako kexuen laburpeni buruzko kapituluak).

Ezin dugu alde batera utzi erakunde honetan aurkezturiko kexu guztiak emakumezkoek egindakoak direla; horrek argi adierazten du emakumeek ezberdintasun egoera batetik abiatzen direla, hain zuzen ere haiek direlako, funtsean, beren alderdi pertsonalak eta profesionalak uztartzen saiatzeko konpromisoa beren gain hartzen dutenak.

### **Erantzukizun pertsonalak, familiarrak eta profesionalak uztartzeari buruzko proposamenak. Zehazki, enpleguaren egiturak eta baldintzak egokitzea**

Gure inguruan emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna bultzatzeko politiken inguruan garatzen ari diren programek jarduteko hainbat proposamen eta lan-lerro aurreratu dituzte jada, hain zuzen ere enplegatuen erantzukizun pertsonalak, familiarako erantzukizunak eta erantzukizun profesionalak uztartzeko helburua erdiets dezagun.

Horretarako, programa horiek ondokoak adierazi izan dituzte: emakumeak eta gizonak elkarrekin hartu behar dituzte etxeko lanen erantzukizuna, eta gizartea sentsibilizatu egin behar da helburu horrekin; langileek enplegua eta erantzukizun pertsonalak eta familiarakoak batera hartu ahal izateko moduko lan baldintzak sustatu behar dira; azkenik, norbanakoen eta familien beharrak betetzeko gizartearen eta komunitatearen zerbitzuen garapena eta egokitzea bultzatu behar dira.

Gomendio honen izenburuan agertu nahi izan dugun bezala, kasu honetan Arartekoaren erakundearen asmoa da enplegu-baldintzak egokitzeko eta malgutzeko dauden ekimenak aztertu eta baloratzea.

Komenigarria da adieraztea erantzukizun pertsonalak eta familiarrak uztartzeko helburuak zailtasun nabarmen bat duela: enplegu-egiturak gizonezkoen ikuspegitik antolatu izan dira nabarmen, eta ikuspegi horretan ez dira ezertarako ere aintzat hartu familiariek dauzkaten beharrak; egitura horien arabera, beraz, esan daiteke gizonezkoek ez dutela famili erantzukizunik ekarpen ekonomikoez haratago. Horrek argi azaltzen du zergatik proposaturiko neurrien artean emakumeentzako eta gizonentzako enplegu-eredu berriak sortzearena dagoen, hain zuzen ere eredu horietan aitor daitezkeen langileek dauzkaten betebeharrak pertsonalak eta familiarakoak.

Bat baino gehiago dira batera erantzukizun pertsonalen, familiarren eta profesionalen uztartzea, eta beraz, enplegu-egiturak eta baldintzak egokitzea edo/eta malgutzea sustatzen aritu diren instantziak. Horrexegatik ondotik datorren azalpena - hartan, orain arte aurreratu diren neurriei buruzko aipamen laburra egiten dugu- instantzia horiek bere erantzukizunen eremuaren arabera sailkaturik (nazioartekoa, komunitatekoa eta autonomikoa) ematen duen eskema batez antolatu dugu.

## Lanaren Nazioarteko Erakundea (LNE)

1981ean, LNEaren Batzar Nagusiak C156 hitzarmena onetsi zuen, bai eta R156 gomendioa ere; erantzukizun familiarrak dituzten langileei buruzkoak dira biak.

Hona zer ezarri zuen C156 hitzarmenaren 4. artikulua:

*“Gizonezko eta emakumezko langileei benetan aukera berdinarak eta tratu bera emateari begira, nazio mailako baldintza eta aukerekin bat datozen neurri guztiak hartu beharko dira, zertarako-eta ondokoak bete daitezten: (...)*

b) kontuan hartzea nolako betebeharrak dituzten enpleguaren eta gizarte segurantzaren baldintzen ikuspegitik.”

Zehatzago izateko, R165 gomendioaren IV idatz-zatian, hain zuzen ere enplegu baldintzei buruzkoan, ondokoa dio:

- *“Nazio mailako baldintza eta aukerekin eta gainerako langileen interes zilegiekin bat datozen neurri guztiak hartu beharko lirateke, halako moldez non enplegu-baldintzak erantzukizun familiarrak dituzten langileek erantzukizun horiek eta erantzukizun profesionalak batera eramateko modukoak izango baitira.”*

- *“Arreta berezia jarri beharko litzateke lan baldintzak hobetzeko neurri orokorretan eta laneko bizi-kalitatean. Horren barrenean sartu beharko dira lan ordutegiak eta atsedenaldiak eta oporraldiak antolatzeako orduan malgutasun handiagoa izatea...”*

## Europako Batasuna

Europako Batasunean, enplegu-egiturak eta -baldintzak egokitzeko edo malgutzeko neurriek ikuspegi bikoitza dute. Alde batetik, enplegu politikaren berezko neurriak dira. Bestetik, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunaren aldeko zeharkako estrategian sartzen dira.

Horri dagokionez, ezaguna da Amsterdameko Hitzarmenak zehazten duela emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak deuseztatzea bere helburu nagusien artean, bai eta Batasunaren jardura guztietan berdintasuna sustatzea ere. Horrela, berdintasuna gainerako politiketan txertatzeko kontzeptua (*mainstreaming*) formalizatzen du.

Hain zuzen ere, Europako enplegu politika da, agian, berdintasunaren txertatzeak praktikan izan dezakeen esanahiaren adibiderik onena, politika ezberdinak egiteari dagokionez. 1999rako Kontseiluaren 5530/99 Ebazpenaren bitartez onetsi diren enplegurako zuzentarau orokorrek aukera-berdintasuna txertatzen dute jarduteko hiru zutabeetan (lanbidean txertatzeko ahalmena hobetzea, enpresa izpiritua garatzea, eta langileen eta enpresen egokitzeko ahalmena sustatzea), eta laugarren zutabe berariazko bat mantentzen dute emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna sustatzeko.

Zuzentarau horiek txertatze proiektu bat defendatzen dute; izan ere, emakumeek oraindik ere arazo bereziak izaten dituzte lan merkatuan sartzeko, lanbideetan

promozionatzeko, lansariei dagokienez eta lana eta bizitza familiarra uztartzeko. Hori dela eta, azpimarratzekoa da, beste ekintza batzuen artean, bermatu beharra dago emakumeek lana antolatzeko era malguez baliatu ahal izateko modua edukitzea. Zehatzago esateko, lan bizitza eta familiako bizitza uztartzeari buruz, ohartarazten dute komenigarri direla lanbide jarduerak etetearen, gurasoen baimenen, lanaldi partzialen eta lan ordutegi malguen aldeko politikak.

Europako Batzordearen iritziz, azken bi urte hauetan (1998 eta 1999) metaturiko esperientziak argi utzi du enplegu estrategiak baliatzen dituen lau zutabe horiek oinarri sendoa direla epe ertainean planteamendu integratua egiteko. Hori dela eta, uste dute ahal den eta aldaketa gutxien egin behar direla 2000 urterako zuzentarauetan. Horrek guztiak esan nahi du -oraingo gomendioari begira- mantendu egingo direla planteaturiko estrategiak, nahiz eta ikusteko dauden oraindik ere Helsinkiko Europako Kontseiluak (1999ko abendua) hartzen dituen erabakiak.

Ikuspegi hori bera da, azken finean, aurreko ekimen batzuetan erabili behar dena; esate baterako, haurdun dagoen emakumearen, haur izan berritako emakumearen edo bularra emateko aldian dagoenaren lanerako segurtasuna eta osasuna sustatzeko neurriei buruzko zuzentarauan (92/85/EEE Zuzentaraua), edo EIKKEEBek (Europako Industri Konfederazioen eta Enpresa Erakundeen Batasuna) eta ESKek (Europako Sindikatuen Konfederazioak) gurasoen baimenari buruz adosturiko akordio markoari buruzko zuzentarauan (96/34/EE Zuzentaraua). Hain zuzen ere, horien edukiak Estatuko arauetan ere islatu beharko dira.

## **EAE**

Gomendio hau prestatzeko garaian, Emakundek Euskadiko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Planaren zirriborroa aurkeztu du: "Generoaren ikuspegia politika publikoetan".

Zirriborro honetan aintzat hartzen diren jarduketak eremuetako bat da, hain zuzen ere, erantzukizun pertsonalak eta familiarrak erantzukizun profesionalekin uztartzeko beharra. Horren barrenean, berariazko helburua da enplegu-egiturak egokitzea gizartearen eta familiarren antolamenduari; gainera, ekintza zehatz batzuk gauzatzea ere aurreikusten du:

- Lanean ari diren gizon eta emakumeen artean zabaltzea famili arrazoiengatikoa baimen, lizentzia edo eszedentziei buruzko arauak, bai eta amatasun/aitatasunari buruzkoak ere.
- Famili arrazoiengatikoa baimenen araubidea zabal dadin sustatzea, bai eta amatasun/aitatasunarekin loturikoen araubidea ere.
- Sustatzea gizonezkoek har ditzaten baimen eta lizentzia horiek.
- Lanean ari diren emakumeen eta gizonezkoen prestakuntza erantzukizun familiarrekin bateragarria izan dadin behar diren baliabideak eta erraztasunak eman daitezen sustatzea.
- Enplegatuak lanaldia bere behar pertsonal edo/eta familiarren arabera egokitu ahal izateko neurriak sustatzea.
- Pizgarri fiskalak ematea kostu ekonomiko erantsia berekin ekartzen duten uztartze neurriak hartzen dituzten enpresei.

Ikusten denez, ekimen horiek guztiak, bakoitzak bere erabakien eta erantzukizunen eremuan, bat datoz azpimarratzerakoan emakumeek eta gizonezkoek elkarrekin gauzatu behar dutela beren bizi pertsonalak, familiarrak eta profesionalak uztartzeko ahalegin hori, eta ohartarazi egiten dute komenigarria dela enplegu-egiturak eta -baldintzak egokitzeko edo/eta malgutzeko neurriak sustatzea.

Proposaturiko neurrien aplikazioari edo betetzeari buruzko azalpen antolatuagoa eta sistematisagoa egiteko -ondotik ekingo baitiogu lan horri-, uste dugu egokia dela horiek guztiak bi multzo berezietan biltzea: lehenbizikoa, oro har gurasoentzako lizentziak edo baimenak (lanaldiaren murrizketa, ordaindutako baimenak, eszedentziak) biltzen dituen; bigarrena, lanaldia egokitzeko edo malgutzeko berariazko neurriei buruzkoa (ordutegiak malgutzeko, metatutako orduen konpentsazioa...).

**Erantzukizun pertsonalak, familiarrak eta profesionalak uztartzearen arlorako proposaturiko neurrien aplikazio edo betetze mailari buruzko balantzea. Bereziki, enplegu-egiturak eta -baldintzak egokitzeari buruzko balantzea.**

#### Gurasoentzako baimenak

Lanean ari diren pertsonen bizitza familiarra eta lan bizitza uztartzeko azaroaren 5eko 39/1999 Legeak aldaketa nabarmenak sorrarazi ditu lege sozialetan eta funtzio publikoari buruzko legeetan, amatasunarekin, aitatasunarekin eta familia zaintzarekin loturiko baimen eta eszedentziei dagokienez. Estatuko legegilearen esanetan, lege horrek nabarmen hobetu ditu Europako arauak, eta gizartearen errealiterara egokitu ditu baimen horiek. Zehazki:

- 96/34/EU Zuzentarauarekin bat eginarazten die baimen eta ordaindutako lizentziei.
- Erraztasunak ematen dizkie gizonezkoek haurrak zaintzeko lanetan ari daitezen; izan ere, aukera ematen die amatasun baimenak dituen 16 astetatik gehienez ere 10 haiek hartzeko.
- Haurdunaldiko arrisku egoera aitortzen du, eta Gizarte Segurantzaren babesa ematen du.
- Haurdunaldia arrazoi duten kaleratzeak gehiago begiratu direla zehazten du. Kaleratze deusezak direla esaten du.
- Edadeko pertsoneri edo pertsona gaixoei arreta emateko, lanaldia murrizteko eta eszedentzia hartzeko eskubidea zabaltzen du.
- Adopzioarako edo haurrak betiko edo adoptatu aurretik hartzeko baimenak arautzen ditu, eta amatasun eta aitatasun baimenen pare jartzen ditu -baldin eta haurrak sei urtez behitikoak badira-.

Lege hori onesterako, polemika sortu da. Kritikarik handienak banakako tratamendua ez duten baimenak direla-eta egin dira. Sektore batzuen iritziz, lege berri honekin berdin jarraituko du izaten gurasoek erabiltzeko lan baimen bakarra (bi egun, haur bat jaiotz gero) eta beste bat emakumeentzat (erditzearen ondoko atsedenerako sei asteko baimena). Gainerako baimen eta lan-etete guztiak aitak ala amak berdin erabiltzeko modukoak dira legearen arabera, nahiz eta argi eta garbi dagoen praktikan izan den esperientziaren ondorioz ez dela halakorik gertatuko.

Horri dagokionez, izan da baimen horien tratamenduak erantzukizun familiarrak eta soldatapeko jarduera profesionala direla-eta emakumeen eta gizonen arteko paperen banaketa tradizionala gainditu gabe uzten duela adierazi duenik. Salatu nahi dute, hain zuzen ere, legeak ez duela inolako neurririk ezarri gizonezkoek ardura gehiago izan dezaten familia zaintzeko eta familiako erantzukizunak beren gain hartzeko garaian.

Polemika horiek alde batera utzita, lege honek enplegu-egiturak gizartearen eta familiaren antolamenduari egokitzeko aintzat hartu behar diren ekintzen zati handi bat jasotzen du, batez ere besteren menpe dauden pertsonak (haurrak, edadekoak eta gaixoak) zaintzeko lizentziei eta baimenei dagokienez.

Bestalde, aurreko kritika horiek berretsi egiten dute erantzukizun pertsonalak, familiarrak eta profesionalak uztartzeko amaierako helburu horrek ekintza osagarriak behar dituela; esate baterako, gizartea sentsibilizatzearena gizonezkoek eta emakumeek elkarrekin har ditzaten etxeko eta familiako erantzukizunak, horrela eta ez bestela bukatuko baitira egungo ohitura edo irizpide sozial eta kulturek berekin dakartzaten atzera karga horiek.

### Enplegu-baldintzak malgutzea

Hala eta guztiz ere, ongi ezberdina da lanean ari diren pertsonen lanaldia bere behar pertsonal edo/eta familiarren arabera egokitzeko aukera izan dezaten neurriak sustatzearen arloko panorama, ondokoetan, bestak beste: lan ordutegiak malgutzea, ordu libreekin konpentsatzeko lan orduak metatzeko aukera, oporrak hartzeko garaia zehazteko eskoletako egutegia aintzat hartzea. Gaur egun, ordea, arestian aipatu dugun uztartzearen helburu hori erdiesteko baliagarri izango zaizkigun formulak bilatu eta betearaztea lortu ez den erronka bat dira, oraindik ere.

Ongi erakusten dute hori, gure ustez, Europako Batzordeak egindako txosten eta ekimenek. Horien artean, Batzordeak 1998an emakumeen eta gizonen aukera berdintasunari buruz egindako urteko txostena da bereziki azpimarragarria. Hona txosten horretako ondorioetan biltzen direnak:

*“Beharrezkoa da lanaldi partzialarekin eta lan ordutegi malguekin lan egiteko aukera izatea, hori baita emakumeek eta gizonek beren menpeko pertsonen arduratzeko aurkitzen dituzten egiturazko oztopoak eta unean uneko oztopoak gainditzeko moduetako bat. Lan partekatua, asteko lanaldia kudeatzeko ahalmena, lan orduen murrizketa: horiek eta beste neurri batzuk lan bizitzan gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den eztabaida baten adierazgarriak dira.*

*Lanaldi ereduaren gaineko kontrola egitea nahikoa zail gertatzen da. Egungo gertakariak adierazten digute, ordea, alor horretan pixkanaka aurreratzen ari dela. Emakumeen eta gizonen ordutegiaren arteko aldeak gutxiagotzen ari dira, agian lehenbizikoak bigarrenen baldintzetara hurbiltzen diren ahala; izan ere, gizonen ordutegiak luzeagoak izaten dira.*

*Hauxe da lan merkatuan gizonen eta emakumeen artean dauden ezberdintasunen gakoa: lanaldiari buruzko politikek berdintasunaren gaiari aurre egiteko modua.”*

Halaber, argigarri suertatzen da Estatu Kideen Batzordeak egindako komunikazio baten aipamena (Brusela, 1999ko urriak 13). Hartan, EQUAL Europako ekimenaren

baitan proposamenak aurkezteko gonbitea egiten da. Ekimen horren helburua da nazioez gaindiko kooperazioa sustatzea lan merkatu guztietan gertatzen diren era guztietako bazterkeria eta ezberdintasunei aurre egiteko. Proposamen horiek antolatzeko ezarritako gaien araberrako sailkapenean, bitzta familiarra eta bitzta profesionala bateragarria izan daitezzen lana antolatzeko modu berriak garatzearena aurki daiteke.

Hala eta guztiz ere, oraindik ere betegabe dugu erronka baten aurrean erakusteko frogarik argiena “familia eta lana” Europako sarearen existentzia bera da. Sare hori 1994an sortu zen, Europako Komisioaren Enplegurako, Lan Harremanetarako eta Gizarte Gaietarako Zuzendaritza Nagusiaren ekimenez. Hauxe du helburu: lan mundua eta bitzta pertsonala eta familiarra uztartzearekin loturiko praktika berritzaileak sustatu eta elkarrekin trukitzea, bereziki lana antolatzeko modu berriei, lan ordutegiak malgutzeari eta mugigarritasun profesionalari dagokienean.

Sare honek gauzaturiko jardueren artean “Lanaldiaren elkertasuna” izeneko azterlana da azpimarragarri. New Ways (3/98) izenburupeko aldizkako argitalpenen atal bat da, eta arlo honetan Europako Batasuneko kide diren herrietan aurrera eramaten ari diren praktika berritzaileak jasotzen ditu.

Azterlan honetan adierazten den bezala: *“gizonarentzat lanaldi osoko eta betiko lanaren eta emakumearentzat aldi baterako lanaren kontzeptu tradizionalari buruz gero eta zalantza gehiago dago, hain zuzen ere beharizan pertsonal, familiar eta ekonomikoen ondorioz. Bizitza pribatuarekin bat datozen lan ereduak lortzeko desioa gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da”*.

Luzeegi ez jotzeagatik, Europako Batasuneko herri batzuetan probatzen ari diren lanaldi eredu batzuk aipatuko ditugu ondoren:

✱ *Lanaldia murriztea* (ad.: sei orduko txanda etengabeak)

Finlandian esperientzia horri buruzko jarraipen berezia egin da. Garrantzi handiagoa hartu du eremu pribatuetan. Hala ere, sektore publikoan ere hainbat azterlan egin da: lanaldia murriztea 18 udaletan.

Enpresek azpimarratzeko moduko honako alde on lortu dituzte: produkzio ahalmena handitu da, produktuen kalitatea hobetu da, aparteko orduak murriztu dira, lanera ez joateko kasuak ere murriztu dira eta bezeroak gusturago daude, haiei arreta emateko ordutegi zabalagoa eskaintzen delako.

Zerbitzuen kantitatea eta kalitatea garatzea ere esperientzia horretan parte hartu duten udalen helburuetako bat da, nahiz eta arlo publikoko produktibitateaz hitz egiterakoan ñabardura batzuk egin behar diren.

Betiere, esperientzia horri buruz egindako jarraipenaren ondorioz, besteak beste, ondoko ondorioa atera dugu: hartan parte hartu duten enplegatuek uste dute hobeki uztartzen dituela lan bitzta eta bitzta familiarra.

✱ *Lanpostu partekatua*

Esperientzia horren bitartez, bi enplegatuk lanpostu bera partekatzen dute. Horrenbestez, bai lan-denbora eta bai lanaren edukia ere partekatu behar dituzte, eta horrek, ezinbestez, beharrezko egiten du lan-fluxua eta lana bera ere berregituratzea. Esperientzia horri buruzko adibide bat da Munich hiriko Udalak sustaturiko “lanaldi partzialeko erasoaldia” izenburupeko esperientzia.



✱ *Eszedentziak*

Izenburu horren azpian hainbat esperientzia ezberdin biltzen dira, Belgikakoa kasu. Helburua da eszedentziak eskatu ahal izatea zainketa paliatiboak eman beharreko kasuetan, edo etxeko bati laguntza eman beharreko kasuetan edo gaixo larriren bat duten familien kasuan. Eszedentzia hori eskatzen duen enplegatuak Enplegu Institutu Nazionalaren dirulaguntza bat jasoko du; enpresak, bere aldetik, bere langilea langabezi sari osoa jasotzen ari den pertsona bat kontratatuaz ordezteko konpromisoa hartzen du bere gain.

Alemanian, berriz, epe laburreko eszedentziak eskaintzen dituzte: soldatak 12tik 1 murrizten dira, eta enplegatuak urtean hilabete bat har dezake lanera joan gabe, edo, bestela, hiru hilabete hiru urtez behin.

Irlandan, sektore publikoan abian jarritako esperientzia batek aukera ematen die langileei beren lan ordutegia seme-alaben udako oporrekin ezkontzeko: ekaina eta irailaren hasiera bitarteko aldea hartzen dute, hiru hilabeteraino ere hartuz. Proiektua gutxi zabaldu da, agian *term time* izeneko ordaindu gabeko baja bat bezala hartzen delako. Enplegatuak uste izan zuten beren soldataren % 75 jasoko zutela urteko 52 asteetan, udako 13 asteetan lansaririk ez jasotzearen partez. Hala eta guztiz ere, honelako akordio bat gauzatzea ezinezko suertatu zen erretiro pentsiorako kontribuzioarekin zeuden arazo batzuegatik.

Erresuma Batuan, V ordutegiak aukera ematen dio enplegatuari lanaldiaren murrizketa negoziatzeko, negoziatu beharreko bitarte batez. Ordutegia eguneko lanaldia edo asteko lanaldia murriztuz ezartzen da, edo, bestela, lanean eten bat eginez denbora jakin batez. Enplegatuentzat izugarri malgua da V ordutegia. Aukera ematen die lan orduak murrizteko, adibidez, krisi pertsonal bati aurre egiteko, seme-alabak hezteko edo prestakuntza ikastaroetara ere joateko (Sheffieldeko Udala).

✱ *Erretiro malgua, epe luzean orduak metatuz*

Honelako ereduan, lehenbiziko lan urteetan, lan orduak metatu egiten dira. Esate baterako, soldataren %10 jaso baina lanaldi osoa lan egiteko aukera har daiteke. Aparteko orduak epe luzeko orduen erregistro batean metatzen dira, erretiro malguari begira. Hala ere, zenbait puntu badaude argitasunak behar dituztenak: interesa eta denbora-kredituen aldaketa.

✱ *Ordutegi propioa duten lan taldeak*

Eredu honen arabera egituratze aktiboa lortu behar da, bai ordutegian, bai lanaren edukian ere. Ezinbestekoa da enplegatuen elkartasuna. Adibidez, 8 enplegatu dauden talde batean guztiek lan ordutegia %80ra edo %90ra murriztuz gero, beste pertsona bati enplegua emateko modua egongo litzateke.

✱ *Errelebo kontratua*

Eredu honen bitartez, urte gehiago dituen enplegatu batek bere lan ordutegia lanaldi partzialera murrizten du, eta erretiro malgu baten alde egiten du. Bere lanpostua partekatuko du horrela enplegatu gazteago batekin. Azken hori era malguan sartu ahal izango da lan merkatuan.

✱ *Teletanaren eta lantoki partekatuaren txandakatzea*

Teletana gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da familian menpekorik dauzkaten enplegatuen irtenbide gisa; izan ere, sistema horrek aukera ematen du haiek etxean lan egiteko. Adibidez, Portugal Telecomek halakoan talde bat dauka: horretan ari direnek lanera ez joateko egunak murriztu dituzte eta familiakoen ardura hartzeko baldintza hobegoetan daude.

✱ *Ordutegia malgutzea*

Austrian, zenbait enpresa daude 5:00etatik 19:00etara erabateko askatasuna dutenak; horrek 45 ordutegi ezberdin sorrarazten ditu lan zentro berean.

Era moderatuago batez, Portugalen, eredu ohikoena lanaldiaren malgutasuna da, ordu finkoen kopurua murrizturik (4 ordu izaten dira normalean). Ordu finko horietan, noski, enplegatuek bere lanpostuan egon beharko du. Ordutegiaren gainerako denbora enplegatuaren beharren eta lanaren beharren arabera kudeatzen da.

✱ *Orduak metatzea*

Grezian, legegintzako ekimen batek halako berritasun bat dakar, hain zuzen ere 8 orduko lanalditik 10 orduko lanaldira pasaz behar handiena dagoen garaietan; gehienez ere, asteko 48 orduz egin daiteke lan, hilabeteko aldia oinarri harturik. Lan egindako aparteko orduak denbora askearen edo hurrengo lau hilabetetan baja hartzearen bitartez itzultzen zaizkio enpleguari.

Holandan, zenbait enpresatan, neurrien oinarrizko pakete bat bermatzen zaie enplegatuei (pentsioa; gaixotasunen aurkako aseguru bat; seme-alabak zaintzeko erraztasunak; oporretarako aparteko egunak...). Oinarrizko pakete horretaz gainera, enplegatuek hainbat lan egun eros nahiz sal ditzakete urtean, hain zuzen ere beren lanbide karreraren aldi jakin batean edo egoera familiarraren ondorioz dauzkaten beharrezkoen aurre egin ahal izateko.

✱ *Eredu konbinatuak*

Askotan ez da eredu bakarra egoten; saioak egiten dira horietako batzuk elkarrekin konbinatuz.

## **Ondorioak**

Laburbilduz, beharrezko jotzen dugu ondoko gogoetak azpimarratu eta argi uztea:

Erantzukizun pertsonalak, familiarrak eta profesionalak uztartzea lehen mailako helburu bat da, ikusirik zein beharrezkoa den gertatu berri diren eraldaketa eta aldaketa sozialei eta haiek sorturiko ondorioei aurre egiteko.

Elkarrekin uztartzearen helburu hori, bere baitako helburu bat izateaz haratago, tresna pribilegiatu bat ere izan daiteke beste estrategia batzuei laguntzeko: enplegua sortzea, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna eta babes berezia behar duten talde sozialei arreta ematea (haurrak, helduak eta gaixoak).

Gomendio honen iturburu izan den ekimenari dagokionez (hain zuzen ere, enplegu-egiturak eta -baldintzak gizartearen eta familiaren antolamenduei egokitu beharra), ezinbestez aitortu behar da ahalegin handiak egin direla familiako arrazoiengatiko baimen, lizentzia eta eszedentzien arloan, bai legegintzazko ekimenei dagokienez, bai lan-baldintzak araupetzeari dagokionez ere; bi horietan, Administrazioa da negoziazioaren bi aldeetako bat.

Hala ere, ezin dugu ahaztu beste ekintza osagarri batzuk ere behar direla: lanaldiaren arloko lan-baldintzak malgutzea...

Ongi dakigu azken ekintza horien eraginkortasuna haiek zuzen egituratzearen baitan dagoela, enplegu-zentro bakoitzaren inguruabar jakinei begira eta abar. Horri dagokionez, eremu publikoan aplikatu nahi den edozein esperientziak zuzen eta behar bezala erantzun beharko die kasuan kasuko zerbitzu beharrei. Beraz, zalantzarik gabe, komenigarria da halakoak negoziatu eta adostea, eta aldi esperimentalak ere ezarri beharko dira haien egokitasuna probatu ahal izateko.

Hala eta guztiz ere, administrazioetako enplegu publikoa emateko baldintza bereziengatik, argi dago administrazioak ezin dituela helburu horrekin sortzen diren ekimen guztiak lideratu edo, gutxienez ere, lagundu. Horri dagokionez, aipatu beharrekoa da Europako Batzordeak berariaz hartu duen konpromisoa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikaren baitan. Konpromiso horrek ondokoa ekarri du berekin: ahalegin berezia egiteko ekintza positiboen programak aplikatzea, besteak beste ordutegi malguaren eta lanaldi partzialaren arloan.

Arartekoaren iritziz, gogoeta hauek guztiek itzulpen argia dute EAEn esparruko administrazio ezberdin guztientzako gomendio orokor gisa. Horrenbestez, gomendioa ematen zaie administrazio horiei erantzukizun pertsonalak, familiarrak eta profesionalak hobeki uztartuko dituzten enplegu-baldintza berrien lidergoa izan dezaten, edo, bestela, haiek susta ditzaten.

### **3. ZAHARREN EGOITZETAN SARTZEKO JARDUNBIDE NEURRI BERME-EMAILEAK**

EAEko zahar etxeei eta zahar etxeek kanpoko zaintzari buruzko ezohiko txostenetan, agerian uzten zen zahar etxeetako lekuen eta zaharrentzako beste zenbait zerbitzuren (eguneko zentroen, etxez etxeko arretaren) urritasuna.

Egjaztatu egiten zen, gainera, gizarte ekintzazko autonomia legeak (euskal legea barne), eta zehazkiago hirugarren adinari buruzko arazoak arautzekoak, ez direla izan tresna juridiko egokiak konstituzioak onartzen dituen eskubide sozialak benetan gauzatu eta eskatu ahal izateko.

Ezin esan daiteke euskal hiritar zahar guztiek -hirugarren adinekoentzako zahar etxe zerbitzuen harreman juridiko-administratiboaren jasotzaile diren heinean- EAEko zahar etxe publikoetan lekua izateko benetako eskubide subjektiboak dutenik. Hala ere, esan egin daiteke pertsona zaharrek berdintasunezko baldintzetan eskura dezaketela lekua zahar etxe publikoetan, arauz ezarritako mugen arabera.

Balitzko erabiltzaileen eskubidea lehenetsun-orden jakin batek baldintzatua izango da. Ordena hori irizpide objektiboen arabera ezarriko da, eskatzaileen gorabeherak ebaluatu ondoren.

Horretarako, eskatzaileen hainbat alde balioztatuko dira: familiaren eta adinduaren beraren gorabeherak, baliabide ekonomikoak, menpekotasun egoera, egoera fisiko eta psikikoa, eta arauz aurreikus daitezkeen beste edozein gorabehera, bertan sartzeko jardunbidea irizpide zorrotz eta objektiboen arabera eta berdintasunaren printzipioa errespetatuz egingo dela ahalbidetzeko.

Baliabideak urriak direla eta, azpimarratzen dugu, hain zuzen ere, dauden horiek eskuratzea berdintasun zorrotza gordez egin behar dela. Horretarako, aginte publikoek, sarrera, esan bezala, baldintza objektiboen arabera egiten saiatzeaz gain, gardentasunez jokatu behar dute, zeren eta, erabiltzaileek zahar etxeko lekua esleitzeko zer irizpide izan diren dakitenean baino ezin baitute konparatu eta, hala badagokio, administrazioaren erabakiaren aurkako egoki deritzen arrazoibideak aurkezteko aukera izan.

Zaharren egoitza publiko batean sartu nahi zuten zenbait hiritarrek aurkeztutako kexek argi utzi digute, alde batetik, EAEan oraindik ere horrelako leku gutxi dagoela, eta bestetik, batzuetan erabiltzaileak ez daudela behar bezala informaturik euren eskaera baztertu izanaren arrazoiei buruz, edo ez dakitela hartutako erabakia berrikusteko aukerarik ote duten.

Izan ere, kexa horien helburu nagusia ez zen bakarrik zahar etxe batean sartzeko eskaeraren edo laguntzaren ezespena, baizik eta ezespen horren arrazoiak argitzea ere.

Kexa horietatik abiatuta, ikusi dugu zahar etxeetako zerbitzuak eskuratzea desberdin gauzatzen dela hiru lurralde historikoetan.

Jakina denez, zahar etxe zerbitzuen sistema foru organoek eta udaletxeek kudeatzen dute, eta protagonismo maila desberdina da administrazio bakoitzak zahar etxeen jabeagoan duten pisuaren arabera.

Erakundeen paperari dagokionez, lurralde historikoen arteko desberdintasun garrantzitsuenak honela laburbil daitezke: Araban, Foru Aldundiarenak dira zaharren egoitzetako lekuen erdia baino gehiago; Gipuzkoan, udaletxeak dira leku horien erdia baino gehiagoren jabe -fundazioenak direnak kontuan izan gabe- ; eta Bizkaian, ordea, garrantzi handiagoa dute fundazio, enpresa pribatu eta irabazi asmorik gabeko erakundeek.

Lurralde historiko bakoitzean zahar etxeetan sartzeko ezarritako arauak kontuan dute errealitate hori, eta norbere antolakuntza-ezaugarrien arabera ematen dituzte bertan sartzeko irizpideak.

Horrela, Bizkaian, azaroaren 2ko 108/1993 Foru Dekretuak zahar etxeetan sartzeko banakoentzako dirulaguntzak arautu eta horiek emateko jardunbidea ezartzen du. Arau honek dirulaguntzak eskuratzeko betekizunak ezartzen ditu, eta gehigarrietan, eskatzaileen gorabeheren baremazioa jasotzen da. Beharrezkoak betetzen dituztenak itxaron zerrenda batean sartzen dituzte eta interesatuei erabakiaren berri ematen zaie.

Arabán, maiatzaren 9ko 56/1995 Foru Dekretuak erabiltzailea Foru Aldundiko gizarte zerbitzuetan sartzeko araubidea ezartzen du. Foru arau horretan, erakundearen gizarte zerbitzuetako zentroetan sartzeko betekizunak zehazten dira, eta zera jasotzen da, alegia, Gizarte-ongizaterako Foru Institutuaren Administrazio-kontseiluak ezarriko dituela eskaerak balioztatzeko irizpide eta baremoak. Laguntzak bideratzeko jardunbidea ere ezartzen da, aldi guztietan, horien artean, interesatuei eginbehar zaien jakinarazpen arrazoitua.

Gipuzkoan, dirulaguntzak Foru Aldundiaren eta Zahar Etxeen Sare Publikoa (udal kudeaketa zein kudeaketa pribatua duten zentroak) osatzen duten zentroen arteko elkarlan hitzarmenen bitartez bideratzen dira. Hitzarmen horiek eskatzaileen gorabeheren baremazio irizpideak ezartzen dituzte eta itxaron zerrenda egitea aurreikusten dute. Eskatzaileari jakinarazi beharra kontuan izaten da leku libreren bat izaten denean. Hitzarmenok ez dira GAO-n argitaratzen.

Arau horietaz hitz egitean, ez dugu herri administrazioek erabiltzen dituzten tresna guztien aipamen zehatzik egiteko asmorik. Hemen aipatzeak zera argitzeko balio digu, hiritarraren eta administrazioaren arteko harremana, zaharren egoitzetan sartzeko eta gizarte zerbitzuez baliatzeko orduan, arau-eremu desberdinetan gerta daitekeela alegia, lurralde historikoen arabera.

Tresna juridiko hauen bitartez, horren ardura duten administrazioek ereduak ezartzen dituzte hirugarren adineko egoitzetan sartzeko, sarrera hori beharrian maila objektiboan oinarrituta egon dadin, lehen ohikoak ziren zenbait irizpide (eskari baten antzintasun hutsa, adibidez) baztertuz.

Arauen bidez ezarritako irizpide homogeen eta objektiboak hartzea funtsezkoa da sarrera baldintza berdinetan gertatu ahal izateko. Hala ere, neurri hori jardunbideari buruzko beste neurri berme-emaila batzuekin osatu beharra dago, ziurtatzeko, batez ere, zaharren egoitzetako lekuei buruzko administrazioaren erabakiak nahiko arrazoituak direla, eta eskatzaileak, administrazioaren erabaki horrekin ados ez badago, bidera ditzakeen errekurtsioei buruzko informazioa jasoko duela.

Arartekoari zuzenduriko kexetatik ezin da ondorioztatu zahar etxeetan sartzeko sistemak erabaki arbitrarioak egiten denik. Baina hautaketa irizpideetan eta horiek aplikatzerakoan nagusi izan behar duen objektibotasunak ez dute besterik gabe bermatzen hiritarren egoera juridikoa.

Kontuan izanik administrazioaren jardueren eremu batean gaudela, araututako jardunbidea bermea da hiritararentzat, horrekin bere eskaera aztertzerakoan erabilitako bidea zein den eta erabakia hartzerakoan kontuan hartutako arrazoiak jakin baititzake. Erabiltzaileek euren ezadostasunak argitzeko bidera ditzaketen errekurtsioak ere jardunbidearen parte direla esan dezakegu. Jardunbide betekizun hauek betetzen direnean zerbitzu horiek berenganatzeko hiritarren eskubidea guztiz bermaturik dagoela esan ahal izango dugu.

Hasieran aipatu dugu hiritarren egoeraren bilakaera, gizarte zerbitzuak erabiltzeko duten eskubidearen jabe diren aldetik. Administrazioa bilakaera horren eragile aktiboetako bat da, eta haren esku dago hiritarren egoera juridikoa hobetzen laguntzea, haien eskubideak hobeto gauza daitezzen saiaturaz.

Ikuspegi horretatik, badirudi beharrezkoa dela zaharren egoitzetan sartzeko eskariei buruz hartzen diren erabakiak administrazio- jardueran oro har aplikatzen diren printzipio berberei jarraitzea, gaiaren beraren edo lurralde historiko bakoitzaren kudeaketa sistemaren araberrako berezitasunei egokitu behar diren kalterik gabe.

Hiru lurralde historikoetako balizko kasuren bat aztertuko bagenu, baieztatu genezake posible izan beharko lukeela eskarien balioztatpena egiaztatzea, zeren eta abiapuntutzat hartutako erabakia, aipaturiko norbere arauen araberrera, irizpide objektiboetan oinarritu behar baita.

Baina egiaztapen hori egiteko ahalegina ez litzateke berdina izango hiritar guztientzat, eta horren harira datoz hemen egiten ditugun gogoetak.

Izan ere, ez da berdina, eskaera ebatzen duen jakinarazpenean, aplikaturiko arau zehatza zein izan den argitu eta eskatzaileak bidera dezakeen errekurtsuari buruzko informazioa jasotzea, edo eskaera ukatu diotela dioen jakinarazpenean, aplikaturiko araua zein izan den ez agertzea ezta erabakiaren berrikuspena planteatzeko aukerarik ez ematea ere. Berme gutxiago du oraindik, bere eskaera balioztatuta ere, horri buruzko erabakiaren berri leku libreak daudenean baino jakiten ez duen eskatzaileak.

Adibide horiek agerian jartzen dute administrazioek modu desberdinak erabiltzen dituztela egoitza-zerbitzuak jasotzeko eskariei buruzko erabakiak plazaratzeko.

Lehenago ere esan dugu lurralde historiko bakoitzeko zaharren egoitza-zerbitzuak modu desberdinean kudeatzen direla. Seguraski, administrazioek, erabiltzaileei jakinarazterakoan, erabakiak plazaratzeko dituzten modu desberdinak zerbitzuen kudeaketa sistema bakoitzaren berezitasunei lotuta dago.

Kontuan izan behar dugu kudeaketaren antolaketan dauden berezitasunek eraginak izan ditzaketela hemen planteatu nahi izan dugun arazoari aurre egiteko orduan. Jardunbideetan erantzun desberdinak ere eragin dezaketen berezitasun horiek ahaztu gabe, hemen jasotako gogoetek zera dute abiapuntu, zaharren egoitzei dagozkien gizarte zerbitzuak eskuratzeari buruzko erabakiak administrazio-jarduerara gauzatzeko modu bat dela, alegia, eta arrazoi horrengatik administrazio-jardunbidaren printzipio orokorreari jarraitu beharko lioketela.

Gogoeta hauek ikuspuntu juridikotik egin ditugu, erabiltzailearen eta administrazioaren artean ezartzen den harremana ere juridikoa baita. Hemen aipatu ez diren arren, kontuan izan dugu, erabiltzaileekin dituzten harremanetan, oinarritzko gizarte zerbitzuek betetzen duten betebeharrak garrantzitsuak, egoitza batean sartzeko eskaria egitera daramatzaten gora-beherari buruzko informazioa jasotzeko orduan. Beraz, hemen egin ditugun oharra, erabakiak administrazio-jardunbidez bideratu behar diren alegia, ez du esan nahi erabiltzaileek informazio falta dutenik -lan horretan, gizarte zerbitzuek jardunbide hark nekez ordezkatu dezakeen papera betetzen baitute-, baizik eta eskubideen jabe diren aldetik erabiltzaileen egoera indartu beharra dagoela.

Biak ere alde osagarriak dira (informazioa eskubidearena, zeinean funtsezkoa den gizarte zerbitzuetako langileen eginkizuna, eta harreman juridikoen esparruari dagokiona, hiritarren eta administrazioaren artean ezarritako arauen ikuspegitik landu behar dena) eta horiei erantzuteko guztientzako administrazio-jardunbideak ezartzen dituen arauak hartu behar dira kontuan.

## Ondorioa

Zahar etxeei buruzko ezohiko txostenean esaten genuen honakoak beteko dituen jardunbide bat ezarri beharko litzatekeela: egoitzetan sartzeko berdintasunaren printzipioa bermatzea, eta sartze hori beharrian maila objektiboan oinarritzea, betidanik aseptikoagotzat jo diren beste irizpide batzuk, kronologikoa kasu, baztertuz.

Zaharren egoitza batean sartzeko aukera beharrian maila objektiboan oinarritzeko hautaketa-irizpideak ezartzea sarrera baldintza berdinetan izatea lortzeko funtsezko elementua da. Hiritarra eskubide baten benetako jabe gisa tratatzeko hurrengo urratsa zera litzateke, erabakiak jardunbide jakin baten bitartez bideratzea alegia, horrela haren egoera juridikoa bermatuko bailitzateke.

Arartekoari aurkeztutako zenbait kexen esperientziak erakutsi digu, batzuetan, egindako eskaerari buruzko erabakia hartu ondoren, ez zaiola hiritarrari erabaki hori jakinarazten hura oinarritzen den arrazoiak edo erabakia berrikusteko bideak ezagutu eta argitzeko moduan. Horregatik, lerro hauen helburua zera gomendatzea da: zaharren egoitza batean sartzeko eskaerak baietsi edo ezetsi ote diren dioten erabakiak ondo arrazoiturik jakinaraztea interesatuei, eta erabakiaren berrikuspina planteatzeko erabil ditzakeen bideen informazioa emanez.

#### **4. ZENBAIT JARDUERA PROPOSATZEA, ABELTZAINZAKO USTIATEGIEK INGURUGIROAN ERAGITEN DITUZTEN ARAZOEI BEGIRA**

##### **Sarrera**

Erakunde honek urterourtero txostenak aurkezten ditu Eusko Legebiltzarrean. Txosten horietan salaketa asko jasotzen dira, abeltzaintzako jarduerak sortarazten dituzten arazoei buruz, batik bat, jarduerok landa-aldeetako hiriguneetan burutzen direnean. Salaketa horien muina berbera izan ohi da: landa-aldeetako udalerrietako bizilagunek usain txarrak salatzen dituzte, abeltzaintzako jarduerak halako usainak sortarazten baitituzte. Era berean, herritar horien salaketetan azaltzen denez, izurriteak eta gaixotasun kutsakorrek zabaltzeko arriskua izan daiteke, elementu zuzentzaileak gutxiegi direlako edo behar bezala erabiltzen ez direlako.

Interesatuek erakunde honetara jotzen dute, batez ere, udal administrazioaren eskuzabala eta ezegiteak begibistakoak direnean, hau da, administrazio horrek ez duenean neurri zehatzik hartzen salatutako arazoei aurre egiteko.

Gure autonomi erkidegoko hainbat eta hainbat herritan bizimodua aldatu egin da. Aldaketa horren ondorioz, halako jarduerak abeletxeetan, abeltzaintzako ustiattegietan eta horrelakoetan gauzatzen dira; horiek guztiak lur urbanizaezinean kokatzen dira edo, behintzat, hiriguneetatik urrun dauden lurretan.

Bestalde, hiri lurraren edo urbanizatzeko moduko lurraren balioak gora egin du, antolamendu planen ondorioz. Horrek berarekin ekarri du halako ustiategiak toki merkeagoetara eramatea, merkeagoak ondasun higiezinaren merkatuaren ikuspuntutik behinik behin.

Halaber, azaroaren 30eko 2.414/1961 Dekretuak Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko Araudia onetsi zuen (aurrerantzean, JGOKAA). Dekretu horren 13. artikuluan ezarritako debekuak ere laguntza handia eman du, halako ustiategien kokaera aldatzeko. Areal bere, manu horrek jarraikoa ezartzen du:

*“1. Aurrerantzean erabat debekatuta egongo da behitegiak, ukuiluak, kortak eta abelburu nahiz hegaztientzako eskortak ezartzea, 10.000 biztanletik gorako herrien hiriguneetan, horien helburu nagusia ez denean nekazaritza edo abeltzaintza.*

*2. Aurreko lerrokadan jasotako jarduerak desagertaraziko dira herrietako hiriguneetatik, hamar urteko epean; epe horren zenbaketa hasiko da, araudi hau indarrean jarritakoan. Epe hori igaro eta gero, Administrazioak bere ariaz itxiko ditu halakoak, eta ez da kalteordain eskubiderik izango”.*

Hori gorabehera, nekazaritzako udalerrri askotan, oraindik abeltzaintzako ustiategiak daude hiriguneen barruan; hori gertatzen da, batik bat, Arabako lurraldean, bertako ekonomiaren oinarri baitira, oraindik, nekazaritza eta abeltzaintza. Hasieran, horiek familiaren kontsumorako jarduerak besterik ez ziren. Alabaina, denborak aurrera egin ahala, jarduera horiek industri jarduera bilakatu dira erabat. Gainera, halako instalazioetan inbertsio ekonomiko handiak egin dira, bai teknologiari, bai makineriari dagokionez.



Inbertsio horien ondorioz, instalazioak egokitu egin zaizkio sektore horrek gaur egun duen egoerari. Are gehiago, zenbait kasutan, instalazio horietarako ekarriak publikoak nahiz pribatuak izan dira.

Ondorenez, interes desberdinak bateratu beharra dago. Batetik, ustiategi horien titularrek aspalditik gauzatu izan dituzte halako jarduerak, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko herrietan; hasieran, jarduera horiek biziraupenerako bide bakarrak ziren edo, behintzat, lagungarri gertatzen ziren etxeko baliabide ekonomiko urriak osatzeko. Bestetik, auzotarrek jarduera horien transformazioa antzeman dute, jarduerok industri jarduera bihurtu baitira; horrek berez ekarri du auzotarren bizimoduak okerrera egitea.

Halaber, aintzakotzat hartu behar da biztanle berriek nekazaritzako herrietara jotzen dutela, batez ere, herri horiek hiri edo hirigune handietatik hurbil daudenean. Biztanle berri horiek, eskuarki, lasaitasunaren eta ingurumen osasuntsuaren bila dabilta. Beste batzuetan, aldiz, biztanle berri horiek gazteak izaten dira eta, hiriguneetan etxebizitza bilatzea oso zaila denez gero, nekazaritzako gunetara jotzen dute.

Udal agintariak ingurumenarazoak konpontzeko ahaleginak egiten dituzte, abeltzaintzako ustiategiak halako arazoak sortzen dituztenean. Eskuhartze hori konplexuagoa da zenbait jardueratan, horiek udalaren baimenik izan ez eta eurok legezkotzea ezinezkoa denean. Jarduerak udalaren nahitaezko baimena dutenean edo, hala bada, jarduerok legezkotu ahal direnean, eskuhartzea ez da hain konplexua izaten.

Jarraian bananbanan aztertuko ditugu indarreko antomendu juridikoak abeltzaintzako jarduera horiei buruz ezartzen dituen jarduketaaginduak:

### **Abeltzaintzako ustiategiak, horiek baimendunak direnean**

Legezkotutako jarduera baten jardunbideak akatsak izan eta akats horiek salatzen direnean, JGOKAE horretan ezarritako prozedura aplikatu behar da. Prozedura horri helduta, salatutako akats edo arazoak konpontzeko, udalak ohartarazpena egingo dio ustiategiaren titularrari, horrek neurri zuzentzaileak har ditzan, ezarpenerako udal baimenaren arabera.

### **Baimenik gabeko ustiategiak, horiek legezkotu ahal direnean**

Jarduerak, jarduerabaimena izan ez arren, legezkotu ahal badira, Udal administrazioak egoera erregulariza dadin eskatuko du, otsailaren 27ko 3/98 Legearen 65a) artikulua arabera; lege hori Ingurumenaren Babesari buruzko Euskal Herriko Lege Orokorra da. Aipatu artikulua dioenez,

*“Zehapen egokiei kalterik egin gabe, alkateak jakin badaki edozein jarduera nahitaezko baimenik gabe gauzatzen dela, orduan hurrengo jarduerak burutuko ditu:*

*a) Jarduera legezkotzeko modukoa bada, orduan horren titularrari eskatuko dio horrek bere egoera erregulariza dezan. Horretarako, alkateak epe bat emango dio titularrari; behar bezala arrazoitutako kasu salbuespenekoetan izan ezik, epe hori ezin da sei hilabetetik gorakoa izan. Gainera, alkateak jarduera eten dezake, inguruabarren arabera hori komeni bada, betiere, aurretiaz interesatuak esan beharrekoa entzunez”.*

Jarduerak udalaren nahitaezko baimena izan ez eta jarduera horien inguruan keaxk tramitatu izan direnean, Arartekoak eutsi egin dio jurisprudentziak arianarian ezarri duen irizpideari. Izan ere, Auzitegi Gorenak dioenez, baimenik gabeko jarduerak ezkutuko jarduera gisa har daitezke, eta Zuzenbidearen arabera da udal agintaritzak horiek etetea, kautelazko neurri gisa, JGOKAE deiturikoan ezarritako prozeduraren arabera jarduera horiek legezkotzen ez diren bitartean.

Adibide gisa aipa daiteke Auzitegi Gorenak 1990eko martxoaren 27an emandako epaia (Ar. 2.679), horrek argiroargiro azaltzen baitu arazoa. Epaia horrek dioenez,

*“... merkataritza nahiz industriako establezimenduak ezkutuan irekitzen direnean edota, nahitaezko baimenik gabe, 1961eko azaroaren 30eko Araudian jasotako jarduerak burutzen direnean, kautelazko neurri gisa nahitaezkoa da, erabateko eta berehalako eragingarritasunarekin, obrak etetea, establezimendua ixtea edota jarduera geldiaraztea. Neurri horien guztien helburua da ahalik arinen amaiera ematea gizarteko elkarbizitzaren mugak urratzeari, harik eta baimen egokia lortu arte; baimen horrek bermatuko du urratzerik ez izatea edo, osterantzean, horiek zuzentzeko neurri egokiak hartzea.*

Irizpide berbera jasotzen da, berebat, Auzitegi Gorenak 1988ko otsailaren 1ean (Ar. 669) eta 1987ko apirilaren 24an (Ar. 3.158) emandako epaietan, bai eta beste batzuetan ere.

Areago oraindik, establezimenduaren itxiera dekretatzen denetan, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak bereizi egiten du jarduerak baimena izatea edota establezimendu publikoak baimenik ez izatea. Adibide gisa aipa daiteke, eredugarri gertatzen delako, Auzitegi Gorenak 1986ko urriaren 4an emandako epaia (Ar. 7.402).

*“...Baimenik gabeko jarduerak ixteko erabakia hartzen denean, jakin beharra dago zein prozedura bete behar den. Prozedura horri dagokionez, azpimarratu behar da itxiera horrek esangura desberdina duela kasuankasuan, eta kontuan izan behar dela ea jarduerak baimenik duen ala ez. Lehenengo kasuan, baimena dagoenez gero, hau da, Administrazioak aurretiazko kontrola duenez gero, zentzuzkoa da 1961eko azaroaren 30eko Araudiaren 36. artikuluko eta ondorengoetako tramiteak betetzea. Bigarren kasuan -baimenik ez dagoenean-, Administrazioak aurretiazko kontrolik ez duenez gero, itxiera erabaki daiteke, besterik gabe, baimen eza egiaztatze hutsarekin; dena den, aurretiaz interesatuak esan beharrekoa entzungo da, APLren 91. artikuluko eta Konstituzioaren 105c) artikuluko hala agintzen dutelako. Entzunaldia, beraz, ezinbestekoa da, salbu eta arriskua dagoenean eta horren antzkeo kasuetan”.*

Irizpide hori jasotzen da, orobat, Auzitegi Gorenak 1990eko otsailaren 21ean (Ar. 1.507) eta 1988ko otsailaren 1ean (Ar. 669) emandako epaietan, bai eta beste batzuetan ere.

Esangura horretan, udal agintaritzak ezkutuko ustiategi horien berri izan eta halakoak onartu baditu urte luze hauetan, hori alegazioak egiteko arrazoa izan daiteke, udalak isilbidezko baimena eman duela edo nolabait baimen hori aitortu duela erreklamatzeko.

Hala eta guztiz ere, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzibide Gelak ez du halako alegaziorik onartzen, ezta hurrik eman ere. Gela horrek dioenari helduta,

*“... denborak aurrera egin arren, ariel nahiz tributuak ordaindu arren eta udalak nolabaiteko tolerantzia erakutsi arren -1986ko uztailaren 18ko, 1987ko maiatzaren 5eko, 1995eko uztailaren 4ko eta 1998ko urriaren 20ko epaiak-, horiek ezin daitezke izan baimena emateko isilbidezko egintzak, ezta baimenaren inguruko halanolako aitortpenak ere. Bide beretik gaineratu behar da -1985eko abenduaren 20ko eta 1989ko urtarrilaren 20ko epaiak-baimenik gabeko jarduera ezkutuko jarduera gisa har daitekeela. Egoera hori irregularra da eta, epe luzeagoan edo laburragoan luzatu arren, denbora igarotze horrek ez du biderik ematen egoera legezkoetzeko. Hortaz, udal agintaritzak jarduera hori eteteko agindu dezake edozein unetan. Arean bere, baimenaren bitartez, Administrazioari helburu batzuk esleitzen zaizkio. Helburu horiek direla medio, jarduerak kontrolatu beharra dago, bai horien gauzatzeari ekin aurretik, baita gerogarreneko edozein unetan ere. Hortaz, ezin da onartu eskuratutako eskubiderik dagoenik, udalak tolerantzia erakutsi duenik, ezta jarduera gauzatzean behinbehinekotasuna egon denik ere; eta, horretarako, ez da kontuan izan behar jarduera udalarentzat ezaguna den ala ez. Batera zein bestera, hasierahasieratik jarduera ez da legebidezkoa, muga jakin eta zehatzen barruen baimena lortzen ez den bitartean (AGE, 1998ko abenduaren 16koa; JB, 1988/10.108)”.*

### **Ezkutuko abeltzaintza ustiategiak, horiek legezkoetza ezinezkoa denean**

Nolanahi den ere, abeltzaintzako ustiategiekin zer gertatzen da, horiek udalaren baimena izan ez arren, legezkoetzeko modukoak badira, indarreko hirigintzaplangintzaren arabera?

Otsailaren 27ko 3/98 Legearen 65b) artikuluan xedatutakoari helduta, ustiategia itxi beharra dago, aurretiaz interesatuak esan beharrekoa entzunez. Zehatzago, harako manuak jarraikoa adierazten du:

*“Jarduera ezin bada legezkoetu, arlo horretan indarrean dagoen arauketa edota kasuan kasuko udal ordenantzak urratu egin direlako, orduan jarduera hori itxi edo eten beharra dago, aurretiaz interesatuak esan beharrekoa entzunez”.*

Horrela, indarreko hirigintzaarauketari eutsiz, eta aipatu jurisprudentziaren doktrinarekin bat etorritik, udal agintaritzak abeltzaintzako ustiategiak ixteko agindua emango du, baldin eta ustiategi horiek ez badute jarduerarako baimen nahitaezkoa, eta ezin badira legezkoetu, indarreko hirigintzaplangintzak ezarritako erabileraren kontrakoak direlako.

Zernahi gisaz, aintzakotzat hartu behar da jorragai ditugun guneak nekazaritzakoak eta abeltzaintzakoak direla, batik bat; eta, halakoetan, eroldapeko abelburuek garrantzi handia dute.

Modu bertsuan ere, kasuan kasuko inguruabarrak gogoan izan behar direla uste dugu. Bestela, hauexek aurkitzeko aukera izango dugu: batetik, abeltzaintzako jarduera

prestu eta modernoak izatea, teknologiaren aldetik puntapuntakoak; bestetik, titular edo jabeek erretiroa hartzeko adina hurbil izatea eta, hala ere, ustiategiaren jarduna bermatu gabe egotea; edota, azkenik, instalazioen egoera, ingurumen, garbitasun eta osasunaren aldetik, desegoki gertatzea, baina akatsok konpontzeko modukoak izatea, neurri zuzentzaile aiposak hartuz gero.

Halaber, kontuan hartu behar dira, batetik, ustiategiaren kokaera eta, bestetik, kasuan kasuko inguruabarrak, gizartearen ikusmiratik nahiz ekonomiaren ikuskeratik.

Hori guztia dela eta, gure aburuz, onartzeko modukoa da aipatu etendura edo itxiera, baldin eta antzemandako akatsak oso larriak badira eta akats horiek ondorio kaltegarriak badituzte, herri horretako auzotarren bizimoduaren gainean. Osterantzean, mota horretako neurri erabatekoak hartzea neurritz kanpokoa izan daiteke, instalazioek izan ditzaketen inguruabar desberdinak aintzat hartuta bederen.

Esangura horretan, gogora ekarri nahi dugu Auzitegi Gorenak 1986ko otsailaren 3an emandako epaia (1986/1.221). Epaia horretan, aztertutako kasuaren inguruabar bereziak aintzat harturik eta, bereziki, jarduera zein herritan gauzatu eta herri horren lanbide nagusiak nekazaritza eta abeltzaintza direla gogoan izanik, bidezkoa da abeletxearen jarduera legezkatzea, nahiz eta jarduera hori hirigunean gauzatu. Ildo horretatik, hona hemen aipatu epaia:

*“LEHENENGOA.- 1961eko azaroaren 30eko Araudiak (1961/1.736 RCL eta 16.641 NDL) ahalmena ematen die alkateei, ‘jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsu’ izenekoetan esku hartzeko. Ahalmen hori araupetuta dago, jurisprudentziak behin eta berriz adierazi duen moduan. Horregatik, ahalmen hori erabiltzeko, aintzakotzat hartu behar dira administratuek alde aurretik dituzten eskubideei buruzko arauak, administratuek eskubide horiek erabili nahi dituztenean behintzat. Ahal den neurrian, errespeturik handiena zor zaio banakako askatasunari, Toki Erakundearen Zerbitzuei buruzko Araudiaren 6. artikulua arabera (1956/85 RCL eta 22.516 NDL); izan ere, artikulua horrek harako errespetua ezartzen du Administrazioaren eskuhartze orotarako. Gainera, jorragai dugun gaian, kontuan izan behar dira kasuan kasuko inguruabar guztiak. Betiere, auzotarren erosotasun, osasun eta segurtasunari kalterik egiteke, ez zaizkio gehiegiko trabak ezarri behar industrien gauzatzeari (1961eko Dekretuaren 5. artikulua, lehenago aipatua).*

*BIGARRENA.- Irizpide horiek jorragai dugun kasuari aplikatuz gero, apelaziopeko epaitza ezeztatu beharra dago eta, horrekin batera, errekurtsopeko egintzak deuseztatu behar dira, horiek ukatu egiten baitute abeletxearen legezkatzea. Auzijartzaileak abeletxe hori ustiatzen du txerriaziendarako, 1970. urteaz geroztik, gutxi gorabehera. Abeletxe hori, 1978. urtean onetsitako Plangintzari buruzko Arau Subsidiarioen arabera, hirigunean kokatzen da. Osasuntitularrak emandako txostenaren arabera, establezimenduaren baldintzak egokiak dira. Probintziako Saneamendu Azpibatzerdearen iritzirako, jarduera hori gogaikarri, osasungaitz eta kaltegarria da, infekzio eta kutsadurazko usain, isurketa eta gaixotasunak eragin ditzakeelako; edonola ere, azpibatzerde horren ustez, abeletxearen kokaera egokia da eta neurri zuzentzaileak ere onartzeko modukoak dira.*

*Hori guztia dela eta, azpibatzerdearen aburuz, zilegi da halako jarduerari baimena eman izana. Ingeniari agronomoak auzibidean emandako peritutzara horretan, argi eta garbi azaltzen da beharrezkoak diren neurri zuzentzaile guztiak hartu direla; ondorenez, ezin da ondorio kaltegarririk gertatu, horren antzeko eta hurbileko instalazioek eragin ditzaketenei begira.*

*HIRUGARRENA.- Kasuan kasuko inguruabarrak aintzat harturik ere, ondorio berbera atera daiteke. Inguruabarrok dira, besteak beste, hurrengoak. Hirurehun eta bost biztanleko herri horretan, lanbide nagusiak nekazaritza eta abeltzaintza dira. Erroldapeko abelburuek garrantzi handia dute, erroldapean baitaude seiehun eta hogeita bi txerri, bostehun eta hogeita hamar behi, bi mila eta bostehun argi, hogeita hamabost zaldi, hamabost mila abeletxehegazi eta berrogeita zortzi untxi. Auzijartzailearen abeletxeaz aparte, beste bederatzi abeletxe daude; bederatzi horietatik, zazpi behiabeletxeak dira, eta berrehun eta berrogeita hamar abelburu dituzte. Abeletxe horietatik lau hirigunean daude. Gainera, herriko bi abeletxe txerridunak dira, eta ehun eta hirurogeita hamar txerri dituzte. Eta, azkenik, abeletxea, gaur egun, kale batean kokatu arren, inguruan nekazaritzako biltegi eta kotxetegiak, kortak eta ukuiluak daude. Etxebizitza itxurako eraikinak bidearen beste aldean daude, epailearen ikuskapendilijentzian baieztatzen den bezala.*

Gai horren inguruan, aipatzeko modukoa da erakunde honetan tramitaturiko kexa espedientea. Espediente horretan, ezkutuko behitegi bat legezkotzea ezinezkoa zen, indarreko hirigintzaplangintzaren arabera. Ustiategi hori Arabako udalerrri bateko hirigunean kokatuta zegoen. Horrek kexa asko eragin zituen auzotarren artean, batez ere, horren jardunbideari buruz, usainek eragiten dituzten kalteei buruz, eta horiek eragin ditzaketen infekzio eta kutsadurei buruz.

Administrazio jarduleak, hau da, herriko udalak, ustiategiaren titularrei eskatu zien behin-behinean neurri zuzentzaileak hartzeko. Udalaren ustez, neurriz kanpokoa zen aipatu ustiategiaren itxiera dekretatzea, hori 1951. urtean hasi baitzen ekinean. Berebat, udalak bazekien arazo berbera agertzen zela, udalerriko abeltzaintza jarduera gehienetan. Horregatik, udalak konpromisoa hartu zuen, herriko hirigintzaarauketa berrikusi eta arazoa behin betiko konpontzeko. Halaber, ustiategi horretan inbertsio ekonomiko handia egin zen, instalazioak garbitasun, osasun eta ingurumenaren inguruko baldintzak bete zituzan.

### Proporzotasun printzipioa eta behin-behineko baimenak

Hori guztia azaldutakoan, jarraikoa azpimarratu nahi dugu: doktrina juridikoaren iritzi eraberekoa da hirigintza baimenak egintza araupetuak izatea erabat, bai horien emateari dagokionez, bai euren edukiari dagokionez, baita horiek ukatzeari dagokionez ere. Horrek esan nahi du, baimena emateko unean, organo eskudunek bete egin behar dutela eskaera egiteko unean indarean dagoen arauketa.

Zalantzarik gabe, Administrazioaren jardunak legezkotasun printzipioa bete behar du, baimenak emateari dagokionez. Nolanahi den ere, Zuzenbideak ezartzen dituen printzipio guztien ondorioz, arauen aplikazioa nolabait moldatu beharra dago, printzipio horiek berebiziko eragina baitute arauon interpretazioan.

Gauzak horrela, gogoratu beharra dago jurisprudenziak behin eta berriz aldarrikatu izan duena. Horri ekinez, *“Zuzenbidearen printzipio orokorrek antolamendu juridikoaren zutabeak dira eta euren inguruan gauzatu behar da bizitza juridikoa. Printzipio horiek dira arauak arnasa hartzeko behar duten oxigenoa. Hori dela eta, Zuzenbidearen printzipio orokorrek arauak eratzen dituzte eta, ondorenez, Administrazioa, legearen menpe egoteaz gain, Zuzenbidearen menpe ere badago”*. Nabari denez, printzipio horiek eratzen dute Administrazioari ahalmena ematen dion araua. Hortaz, Administrazioak ahalmen hori erabili behar du, Zuzenbidearen printzipio orokorrekin bat etorritz.

Printzipio horietatik bat da, hain zuzen ere, proportzotasun printzipioa. Hori atera daiteke, argiroargiro, Konstituzioaren 106. artikuluko 1. paragrafotik. Horrek, Administrazioaren jurisdikziokontrola ezartzen duenean, hauxe agintzen du: Administrazioaren jardunak zein helburu izan eta helburu horren menpe izan behar da jardun hori. Helburuaren ideia nahitaezko osagaia da Administrazioak dituen ahalmen guztietan. Jurisprudenziak ohartarazi duenez, helburuaren printzipio horrek agerpen berezia du Konstituzioaren aipatu manuan eta, horrekin batera, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeari buruzko Legearen 84.2. artikuluan eta Toki Erakundearen Zerbitzuei buruzko Araudiaren 6. artikuluan ere. Ondorenez, printzipio horrek honako ezaugarri hauek izan behar ditu:

1. *“ Erregela psikologikoa ”* izan behar da. Arean bere, antolamendu juridikoak zenbait jarduera burutzeko ahalmena ematen dio Administrazioari, horrek helburu jakin batzuk bete ditzan. Antolamendu juridikoaren helburu horien artean sartu behar dira, sartu ere, Administrazioaren beraren helburuak ere.
2. Administrazioak erabiltzen dituen baliabideetan, proportzotasuna zaindu behar da. Baliabideok ez dira gehiegikoak izan behar, horiekin lortu nahi den helburuaren arabera.
3. Hartu beharreko neurriak egokiak izan behar dira, lortu nahi den helburu zehatza erdiesteko.

Helburuaren inguruko irizpidea aplikatu beharra dago arauak interpretatzeko orduan. Horregatik, nahitaezkoa da proportzotasun printzipioa betetzea, proportzio hori izan behar baita erabilitako baliabideetan, administrazio egintzaren edukian eta lortu beharreko helburuan ere.

Ildo horretatik, doktrinak dioenez, proportzotasun printzipioa bi kasutan aplikatu daiteke. (1) Erregela orokor gisa, antolamendu juridikoak onartzen badu bi baliabideren artean bat aukeratzea, orduan proportzotasun printzipioa bete behar da. (2) Salbuespenez, eta onusteari eta ekitateari buruzko printzipioekin bat eginez, baliabide bakarra baldin badago, baina hori argi eta garbi desegokia eta gehiegikoa bada, kasuan kasuko inguruabarrak aintzat harturik, orduan ere proportzotasun printzipioa bete behar da (Auzitegi Gorenak 1992ko otsailaren 18ko epaia; JB, 1992/2.904).

Bigarren eremu horretan, proportzotasun printzipioak ondoreak sortu behar ditu betebeteen. Horren barruan sartu beharko litzateke, nolabait, Administrazioak polizi ahalmena erabiltzeko burutzen duen jarduna, batik bat, aipatu inguruabarrak ezkutuko jardueretan azaltzen direnean.

Horrekin guztiarekin hauxe adierazi nahi dugu: Administrazioak proportziozko erantzuna eman behar dio hirigintzako legezketasun ezari, gure Autonomia Erkidegoko abeltzaintza ustiategi asko ez baitira legezkoak. Saihestu behar da, ahal den neurrian, halako jarduerak berehala desagertzea, baldin eta jarduerok herri horietako auzotarren

eskubideak errespetatzen badituzte eta, inguruabar bereziak pilatzeagatik, salbuespeneko neurri bat hartzea justifikatuta badago. Neurri hori baldintzapekoa izan behar da; baldintza da ingurumen, garbitasun eta osasunaren inguruko baldintzak betetzea, halako instalazioentzat hori nahitaezkoa baita.

Halako erabilerak onartzean, egoera bereziak sortzen dira, eta egoerok, zenbait kasutan, ez zaizkio egokitzen edo moldatzen plangintzan ezarritakoari. Zernahi gisz, egoera berezi horiek Lurzoruari buruzko 1976ko Legearen 58.2. artikuluan barneratzeko modukoak izan daitezke (doktrinaren iritzirako, manu horren oinarrian proportzotasun printzipioa dago, printzipio hori nagusi baita Administrazio zuzenbide osoan, eremu juridiko horretan helburuak duen garrantziaren ondorioz). Lege horrek onartzen du erabilera eta obra jakin batzuei baimena ematea, behinbehinean bada behintzat, nahiz eta erabilera edo obra horiek plangintzan ezarritako destinorik izan ez. Halakoetan, ez zaie eragozpenik jarri behar halako erabilera eta obrei; baina, zentzuzkoa denez, ez dago kalteordaina eskatzeko eskubiderik, erabilera horiek bukatutakoan. Zehatzago esateko, aipatu manuak behin-behineko baimenak arautzen ditu honetara:

*“Hala eta guztiz ere, planen betearazpenari oztoporik jartzen ez bazaio, lurzatiaren gainean erabilera edota obrak baimendu daitezke, aurretiaz Hirigintzako Probintzi Batzordeak horien aldeko txostena eginez gero. Obra horiek behinbehinekoak izango dira eta, behin udalak hala erabakitakoan, errautsi egin beharko dira, kalteordaina erreklamatzeko eskubiderik izan gabe. Jabeak, baimena onartzen badu, baimen hori inskribatu beharko du, aipatu baldintzak betez, Jabetza Erregistroan”.*

Jurisprudentziak adierazi duenez, behinbehineko baimenak, berez, proportzotasun printzipioaren erakusgarri dira, aldi baterako esangurarekin behinik behin. Jurisprudentziari helduta, baimenok *“gure antolamenduaren azken ahaleginak dira, eskubideen egikaritzari murrizketa gehiegikoak ez jartzeko. Baimen horien oinarria da obra edota erabilerak ez eragozte, baldin eta horiek ez badiote kalterik egiten guztion interesari. Kalte ez hori bermatzeko, ezabatu egin behar da kalteordain eskubidea, obra edo erabilerak, nahitaez, desagertu behar diren unean”* (besteak beste, Auzitegi Gorenak 1994ko martxoaren 29an emandako epaia; JB, 1994/2.409).

Ildo beretik, Auzitegi Gorenak adierazi du manua aplikatu behar zaiela JGOKAEk araututako jardueri. Aplikazio horretan, kontuan izan behar dira Kode Zibilaren 3.1. artikuluko interpretazio irizpideak (1989ko urriaren 16ko epaia; JB, 1989, 7.368). Horrela, Auzitegi Gorenak hauxe dio:

- A) Hitzehitzezko ikusmiratik, argi dago 58.2. artikulua hurrengoak aipatzen dituela: *“behinbehinean justifikatuta dauden erabilera eta obrak”*. Esaldi hori hitzez hitz hartuz gero, manua aplikatu dakieke sailkatutako jardueri, obrak eta erabilerak, zalantzarik gabe, sailkatutako jarduerak izan baitaitezke.
- B) Sistematikaren ikuspuntutik, azpimarratu behar da lotura estuak daudela Jardueri buruzko Araudiak arautzen duen gaiaren eta hirigintzaren artean. Bide berbera jorratuz, aipatu manua aplikatu dakieke, beraz, JGOKAEn menpeko jardueri.
- C) Dudamudarik gabe, zenbait irizpide bide ematen dute, segurtasun handiarekin gainera, arauen esangura horien helburuan bilatzeko eta, era berean, Zuzenbidearen

printzipio orokorrak aplikatzeko. Printzipio horiek antolamendu juridikoa eratzan dutenez gero -Kode Zibilaren atariko tituluko 1.4. artikulua-, antolamendu horretako manu guztien interpretazioa ere eratu behar dute.

Behinbehineko baimena antolamendu juridikoaren neurri bat da, proportziorik gabeko debekuak saihesteko. Horrela, norbanakoen asmoa babestu nahi da, asmo hori bada zenbait jarduera gauzatzea, eta jarduera horiek, lehen aipatu bezala, ez badiote kalterik egiten guztion interesari.

Bide horretatik, doktrinak behin-behineko egintzak onartzen ditu, betiere kalteordaina baztertuz, baldin eta egintza horiek, berez, aldi baterakoak badira. Kasu horietan, egintzaren helburua ez da egiazko eskubide bat ematea, ezpada behin-behineko tolerantzia bermatzea.

## Ondorioa

Biztanleen ohituretan bilakaera izan da, eta bilakaera horrek ahalbideratu du abeltzaintzako ustiategiak udalerrietako ingurualdeetara eramatea. Nolanahi den ere, gure Autonomia Erkidegoko udalerrri askotan eta, batez ere, nekazaritzako herri askotan, oraindik abeltzaintzako ustiategiak daude hiriguneetan.

Instalazio horietan, hasieran, familiaren kontsumorako jarduerak gauzatzen ziren. Urteak joan, urteak etorri, ezariezarian, instalazio horiek transformatu egin dira, industri jarduera bihurtuz. Horrek auzotarren kekkak ekarri ditu, jardueron ondorioz sortzen diren usainengatik, bai eta osasunarentzat jarduera horiek dakartzaten arriskuengatik ere.

Ustiategi horiek transformatu badira ere, euren jarduera ez zaio egokitu indarreko arauketari. Horregatik, gure Autonomia Erkidegoan, instalazio horietatik gehienak, gaur egun, hirigintza legeriatik kanpo daude.

Administrazio eskudunek halako jarduerak kontrolatu behar dituzte eta euren gaineko eskuhartzea gauzatu behar dute. Horretarako, administrazioek beren ahalmenak erabili behar dituzte, ahal den neurrian, gatazkan dauden interesak harmonizatuz.

Legezketutako jarduera baten jardunbideari buruz, irregulartasunak salatzen badira JGOKAE horretan ezarritako prozedura erabiliz, orduan salatutako arazoei aurre egin beharko zaie eta, horretarako, udalak nahitaezko agindeia egingo dio ustiategiaren titularrari, horrek neurri zuzentzaileak har ditzan, instalazioa udalaren baimenari egokitzeko.

Aitzitik, kekkak sortzen badira baimenik ez duten jardueren kontra, baina jarduerok legezketzako modukoak badira, orduan Udal administrazioak egoera erregulariza dadin eskatuko du, otsailaren 27ko 3/98 Legearen 65a) artikuluaaren arabera; lege hori Ingurumenaren Babesari buruzko Euskal Herriko Lege Orokorra da.

Azkenik, abeltzaintzako jarduerak ezin badira legezketu, Lurzoruari buruzko 1976ko Legearen 58.2. artikulua salbuespeneko bidea ezartzen du. Arartekoaren iritziz, bide hori aintzakotzat hartu behar da, halako ustiategien egoera juridikoadministratibo berezia konpontzeko orduan. Dena den, kontuan izan behar da konponbidea behinbehinekoa izango dela eta jarduerak ezin diola kalterik egin guztion interesari. Helburu horrekin, eta segurtasun juridikoaren printzipioari helduta, nahitaezkoa eta presazkoa da Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bidez egoera berezi horiek arautzea.



## 5. EHAek BERE LURZORU LEGEA ONETSI BEHARRA

- I. Hirigintza arloko eskumenbanaketa
  - A. Eskumenbanaketa, Konstituzio Auzitegiaren 61/1997 epaiaz geroztik
  - B. Eskumenei buruz emandako azalpena, Lurzoruaren Araubideari eta Balorazioei buruzko 6/1998 Legean
  - C. EHAEn aplikatutako estatulegeria
- II. Indarreko legegindapenak, EHAEn
  - A. Indarreko legegindapenak
  - B. Arauketaren balorazioa
- III. Gainerako autonomia erkidegoetan aplikatutako hirigintza arauaketa
- IV. EHAek bere lurzoru arauaketa izateko beharra
- V. Azken ondorioak

### I. HIRIGINTZA ARLOKO ESKUMENBANAKETA

#### A. ESKUMENBANAKETA, KONSTITUZIO AUZITEGIAREN 61/1997 EPAIAZ GEROZTIK

17 autonomia erkidegoetako autonomia estatutuek eskumen eskusiboa aitortzen diete erkidego horiei, hirigintzaren arloan.

Euskadiri dagokionez, Autonomia Estatutuaren 10. artikuluko 31. paragrafoak Euskal Herriko Autonomia Erkidegoari eratzikitzen dio gai horren gaineko eskumen eskusiboa. Eskumen horren erabilera transferitu egin zen, azaroaren 21eko 2.581/12980 Errege Dekretuaren bitartez (EAO, 291. zk., abenduaren 4koa).

Konstituziomultzoaren banaketari eutsiz, hirigintzaren arloan autonomia erkidegoek eskumen eskusiboa dute. Nolanahi den ere, eskumen horrekin batera, estatuak beste eskumen batzuk ditu, EKren 1491. artikuluan xedatutakoaren arabera, artikuluko horrek modu eskusiboan eratzikitzen baitizkio halakoak estatuari. Zentzuzkoa denez, estatuaren eskumen horiek, neurri handi batean, autonomia erkidegoetako eskumenak baldintzatuko dituzte. Arazo horren inguruan, Konstituzio Auzitegiak bere iritzia azaldu zuen, martxoaren 20ko 61/1977 epaian. Epaia horretan aztertu zen ea ekainaren 20ko 1/1992 Legegintzazko Errege Dekretua Konstituzioarekin bat zetorren; dekretu horrek Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bategina onetsi zuen.

Konstituzio Auzitegiaren doktrinari helduta, autonomia erkidegoek eskumen eskusiboa dute hirigintzaren arloan, baina eskumen hori bat etorri behar da estatuak dituen beste eskumen batzuekin, estatuaren eskumen horiek ondore garrantzitsuak baitituzte hirigintzaren arloan. Eskumenei buruzko titulu horiek EKren 1491. artikuluan jasotako eta jarraikoak dira:

- *“Oinarrizko baldintzak arautzea, baldintza horiek espainiar guztien arteko berdintasuna berma dezaten, eskubideak egikaritzen direnean eta konstituzioegintzarako betetzen direnean (1. paragrafoa).*

- “*Legeria zibila...*” (8. paragrafoa).
- “*Jarduera ekonomikoaren plangintza orokorrari buruzko oinarriak eta horren gaineko koordinazioa*” (13. paragrafoa).
- “*...administrazio prozedura erkidea, betiere, autonomia erkidegoen berezko antolaketak dituen ezaugarriek kalterik egin gabe; derrigorreko desjabetzapenari buruzko legeria; (...)* eta herri administrazio guztien erantzukizunari buruzko sistema” (18. paragrafoa).
- “*Ingurugiroaren babesari buruzko oinarrizko legeria*” (23. paragrafoa).

Aipatu eskumenetatik batzuk gai edo erakunde juridiko zehatzei buruzkoak dira; gai edo erakunde zehatz horiek dira, besteak beste, ingurumena, ekonomiaren plangintza orokorra, derrigorreko desjabetzapena edota administrazioen erantzukizuna. Eskumenen arteko mugak argi finkatu nahi direnean, benetako zalantzak sortzen dira, oinarrizkoa -estatuaren eremukoa- eta gainerakoa -autonomia erkidegoen eremukoa- bereizi behar direlako.

Konplexuagoa da oraindik 149-1. artikulua 1. lerrokada: “*Oinarrizko baldintzak arautzea, baldintza horiek espainiar guztien arteko berdintasuna berma dezaten*”.

Begibistan dago edo, behintzat, hala ulertu du Konstituzio Auzitegiak, estatuaren eskuhartzea hirigintzaren arloan ezin dela hedatzaile eta orokorra izan, “*oinarrizko baldintzak...*” arautu behar direnean, “*baldintza horiek espainiar guztien arteko berdintasuna berma dezaten*”. Aitzitik, kontzeptu hori modu hertsian interpretatu behar da, horrek ezin baitu bere itzalpean hartu hiri antolamenduari buruzko osoosoko arauketarik.

Aurretiaz esan dugun bezala, Konstituzio Auzitegiak arazo horiek guztiak aztertu zituen, martxoaren 20ko 61/97 epaian. Epai horrek konstituzioaurkakotasun errekursoak ebatzi zituen, zenbait autonomia erkidegok halako errekursoak aurkeztu baitzituzten, Hirigintzaren Araubidea eta Lurzoruaren Balorazioak Eraldatzeari buruzko 8/90 Legearen aurka, bai eta ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzazko Errege Dekretuaren aurka ere; azken horrek Legearen Testu Bategina onetsi zuen.

Konstituzio Auzitegiaren adierazpen horretan, azpimarratzekoa da hirigintzaren arloan argitu egin dela zeintzuk diren estatuaren eskumenak eta zeintzuk diren, berriz, autonomia erkidegoenak.

Lurzoruari buruzko 1922ko Legearen Testu Bategina hartu, eta horren artikulua gehienak Konstituzioaren aurkakotzat jo dira. Arean bere, legeak beren beregi adierazten du (azken xedapen bakarraren 3. paragrafoan) estatuko arauketa autonomia erkidegoetako zuzenbidearen ordeztaila dela. Eginginean ere, ez dago eskumentitulurik, halako adierazpenak egiteko. Konstituzio Auzitegiaren doktrinari eutsiz (ekainaren 27ko 118/96 epaia), EKren 1493. artikuluko azken tartekadurak ordeztailatasun klausula ezartzen du, estatuko zuzenbidearen mesederako; baina klausula hori ez da eskumentitulu, estatuak, eskumen materialik ez duen gaietan, eta halakoa da hirigintza, arau ordeztailak eman ditzan, asmo horrekin beren beregi. Ordeztailatasun klausularen hartzailea, beraz, zuzenbideko jardulea da. Horrek, zuzenbidea aplikatu behar duenean, koherentziaz bateratu behar ditu autonomia erkidegoetako eta estatuko antolamendu juridikoak, gai berberari begira bi horiek aldi berean badira. Alabaina, ordeztailatasun klausula ez da, inola ere, eskumentitulu.

## **B. ESKUMENEI BURUZ EMANDAKO AZALPENA, LURZORUAREN ARAUBIDEARI ETA BALORAZIOEI BURUZKO 6/1998 LEGEAN**

Konstituzio Auzitegiak 1997ko martxoaren 20ko epaia eman eta gero, estatuak apirilaren 13ko 6/1988 Legea onetsi zuen, Lurzoruaren Araubideari eta Balorazioei buruz. Testu horrek bost titulu ditu:

- I. Xedapen orokorrak
- II. Lurzoruaren gaineko jabetzari buruzko hirigintza araubidea
- III. Balorazioa
- IV. Desjabetzapena
- V. Kalteordain kasuak

Zioen azalpenaren 6. paragrafoak adierazten duenez, *“Legearen asmoa izan da estatuari dagozkion eskumenen barruan jokatzea, eskumen horiek argi eta garbi mugatuta baitaude, Konstituzio Auzitegiak 1997ko martxoaren 20an emandako epaiaz geroztik. Hori dela eta, legeak alde batera utzi ditu, erabat, plangintzari, hirigintzako kudeaketari, eta bataren eta bestearen gaineko kontrolari buruzko arazoak”*.

Nolanahi den ere, autonomia erkidego batzuek eta Parlamentuko talde batzuek ere ez dute onartu legegilearen irizpide hori eta, horregatik, Konstituzio Auzitegian errekurtsua jarri dute. Euren iritziz, lurzoruaren gaineko jabetzari buruzko oinarriko estatutu juridikoa definitzean, estatuak bere eskumena gainditu du; eskumen horrek lurzoru motak definitzeko aukera besterik ez du ematen, definizio hori aurretiazko betekizuna baita, hiri jabetzaren oinarriko baldintzak definitu ahal izateko.

Zehatzago esateko, konstituzioaurkakotasun errekurtsua jarri dutenek honako artikulua hauek aurkaratu dituzte:

1. Nafarroako Parlamentuak (3.004/1998 errekurtsua) osoosorik aurkaratu ditu 4, 8, 9, 10, 11, 14, 16 eta 17. artikulua, eta 2 eta 3. xedapen iragankorrak. Zati batez aurkaratu ditu, ostera, 15, 18, 201, 27 eta 28. artikulua, 4. xedapen iragankorra eta azken xedapen bakarra.
2. Parlamentuko Sozialisten Taldeak, Ezker Batuko Federazioak eta Talde Mistoak (3.144/1998 errekurtsua) aurkaratu egin dituzte 1, 2, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13 eta 14.1. artikulua; 14.2. artikuluko a), b), d) eta f) letrak; 15, 16 eta 17. artikulua; 18. artikuluko 1, 2, 3, 5, 6 eta 7. lerroak; 20. artikulua; 24. artikuluko b) eta c) letrak; 29, 33, 37, 38, 40, 41, 42, 43 eta 44. artikulua; 1, 3 eta 4. xedapen gehigarriak; eta azken xedapen bakarra.
3. Extremadurako Batzak (3.182/1998 errekurtsua) aurkaratu ditu 8, 9, 10, 11, 142, 15, 16.1, 18.4, 201 eta 33. artikulua, eta azken xedapen bakarra.

Legearen artikulua zehatzmehatz aztertu gabe, esan beharra dago 6/1998 Legearen I eta II. tituluak EKren 149. art.ko 1, 8 eta 13. paragrafoetako eskumenbabesa dutela; paragrafo horiek aipatzen dituzte, hurrenez hurren, berdintasuna bermatzen duten oinarriko baldintzak, legeria zibila eta jarduera ekonomikoaren plangintza orokorrari buruzko oinarriak. III. tituluak hirigintzako balorazioak arautzen ditu eta, beraz,

lotura estuak ditu, EKren 149118. artikularekin (*“derrigorreko desjabetzapenari buruzko legeria”*) eta, batik bat, hiri jabetzaren edukiarekin; izan ere, titulu horrek hiri jabetza baloratzeko irizpideak ezartzen ditu, eta horren oinarritzko baldintzak arautzea estatuari dagokio (EKren 14911. art.).

IV eta V. tituluak desjabetzapenak eta kalteordain kasuak arautzen dituzte. Titulu horiek EKren 149118. artikulari batu behar zaizkio, artikulua horrek estatuari eskumena eratzkitzen baitio, hurrengo gaia arautzeko: *“derrigorreko desjabetzapenari buruzko legeria; (...) eta herri administrazio guztien erantzukizunari buruzko sistema”*.

Laburzurrean, 6/98 Legeak eskumenei buruzko arazoa argitzen lagundu du. Lege hori onetsi eta gero, autonomia erkidegoek badakite zein muga errespetatu behar duten, euren eskumentitulua erabiltzeko orduan. Halaber, estatuko legeak hirigintzako ahalmenen edukia finkatu du, ondasun higiezinaren gaineko jabetzari dagokionez; horrekin batera, estatuko legeak hiri jabetzaren oinarritzko edukia definitu du. Horrek guztiak erraztu egin du autonomia erkidegoetan legegintzako ekimenak azaltzea. Egineginean ere, ezin da autonomia erkidegoetan legerik egin, hirigintzako jarduera osoari buruz, aurretiaz ez bada jabetza eskubidearen eredia itxuratzen. Horixe egin du, hain zuzen ere, 6/98 Legeak.

### C. EHAEn APLIKA DAITEKEEN ESTATU-LEGERIA

EHAEn aplika daitekeen estatu-legeriari dagokionez, Lurzoruaren Araubideari eta Balorazioei buruzko 6/1998 Legeaz gain, Lurzoruari buruzko 1992ko Legearen Testu Bategineko manuak aipatu behar dira; izan ere, 6/98 Legearen xedapen indargabetzaile bakarraren 12. paragrafoak dienez, manu horiek indarrean daude. Horiekin batera, estatuaren bestelako arauak izan behar dira kontuan, horiek ordeztaille gisa aplikatuko baitira, EHAek hirigintzaren arloan legerik ematen ez duen bitartean.

Ondorenez, EHAek lurzoruaren hirigintza araubideari buruz lege orokorrik ematen ez duen bitartean (plangintza, urbanizazioaren betearazpena, kudeaketa, hirigintza legezkotasunari zor zaion babeseta etab.), modu ordeztaillean aplika daitezke estatuko arau hauek:

- Lurzoruari buruzko 1976ko Legearen Testu Bategina.
- Urriaren 16ko 16/1981 Legegintzako Errege Dekretua, Plan Orokorren Egokitzapenari eta Hiri Antolamenduari buruzkoa.
- Hirigintzako Plangintzari buruzko Erregelamendua (ekainaren 23ko 2.159/78 Errege Dekretua).
- Hirigintzako Kudeaketari buruzko Erregelamendua (abuztaren 25eko 3.288/78 Errege Dekretua).
- Hirigintzako Diziplinari buruzko Erregelamendua (ekainaren 23ko 2.187/78 Errege Dekretua).
- Lurren Birzatiketari buruzko Erregelamendua (1.006/1996 Dekretua) (28, 31, 34 eta 35. art.ak).

Aipatu testu arauemaileek, beraz, legeria ordeztaillea osatzen dute. Dena den, testu horiek ezin dira osoorik aplikatu. Euren manu batzuk indarrrik gabe geratu dira, isilbidez

bada ere, 6/1998 Legearen ondorioz. Beste batzuk, aldiz, bateraezinak dira Eusko Legebiltzarrak onetsi dituen hirigintza legeen edukiarekin, nahiz eta eduki hori mugatua izan. Hortaz, zehaztu beharra dago ea zeintzuk diren indarrean dauden manuak edo manu zatiak, eta hori ez da lan erraza; zenbait kasutan, hori lortzeko, interpretazio ahaleginak gauzatu behar dira. Edozein kasutan ere, hori ez da hemen jorratu behar dugun gaia. Guretzat nahikoa da jarraikoa nabarmentzea: Hirigintza zuzenbidea aplikatu behar duenak eguneroegunero interpretazio arazoak izaten ditu, eta horrek kalte egiten dio segurtasun juridikoari; dakigunez, segurtasun juridikoa nahitaezkoa da, batik bat, hirigintza bezalako gai garrantzitsuetan.

## **II. INDARREKO LEGE XEDAPENAK, EHAEN**

### **A. INDARREKO LEGE XEDAPENAK**

Hirigintzaren arloan, Autonomia Erkidegoak gauzatu duen legegintza lana, gure egunok arte behintzat, urria eta kasuan kasukoa izan da. Egingeginean ere, ez dago zehaztapen argirik Autonomia Erkidegoko hirigintza eredia definitzeko orduan.

Eusko Legebiltzarraren jardura, beraz, askieza izan da gai horretan. Zernahi gisaz, Eusko Legebiltzarrak zatikako arauak onetsi ditu, eta arauok lagungarri gertatu dira, gai horretan gaur egun dirauen sistematizazio txiki hori erdiesteko. Izan ere, bai Autonomia Erkidegoko legerian, bai estatuko legerian, hirigintzaren gaia sistematizazio urrikoa da.

Lehenik eta behin, aipatu behar da zeintzuk izan diren onetsitako hirigintza arauak eta zein den horien edukia. Horrela jakin daiteke zein den euskal hirigintzaren gaur egungo eremua. Behin eremua finkatutakoan, horren gabeziak eta hutsuneak antzeman daitezke eta, ondorenez, legeria berri, berezko eta argiaren bideari ekin dakioke.

#### **A.1) EKAINAREN 30EKO 17/94 LEGEA, ETXEBIZITZAREN ARLOKO PRESAZKO NEURRIEI, ETA HIRIGINTZAKO TRESNEN ETA KUDEAKETAREN TRAMITAZIOARI BURUZKOA**

Aurretiazko pauso gisa, Euskal Herriak arauak sortzeari ekin zion 9/1989 Legearekin, hau da, Lurzoruaren Balorazioari buruzko Autonomia Erkidegoko Legearekin. Arau horren xedea lurren balorazioa arautzea izan zen, lurrotan hirigintza planak betearazi ahal izateko. Arauketak jorratzen zituen arazoak ez zeuden jasota Lurzoruari buruzko 1976ko Legearen Testu Bateginean, ezta Hirigintzako Kudeaketari buruzko Erregelamenduan ere, nahiz eta azken horrek aurrekoa garatu.

Nolanahi den ere, Lurzoruari buruzko 1992ko Legearen Testu Bategina onetsi arte, Autonomia Erkidegoa ez zen hasi gai horren inguruan arauak ematen. Bide horri ekinez, ekainaren 30eko 7/1994 Legeak etxebizitzaren arloko presazko neurriak, eta hirigintzako tresnen eta kudeaketaren tramitazioa arautu zituen. Lege horrek zenbait neurri ezarri zituen, presaz eta legegintzazko sistematika argirik gabe, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak hirigintzaren arloan duen eskumen eksklusiboa erabiliz. Lege hori garatzeko, Eusko Jaurlaritzak ekainaren 17ko 142/1997 Dekretua onetsi zuen (EHAO, 123. zk., ekainaren 30ekoa).

Lege horren helburu nagusia zen Euskal Herriko hiritarrek etxebizitza duina eskuratu ahal izatea, aldez aurretik igarri baitzen nahitaezko printzipio eratzaille hori betetzea oso zaila zela.

Eginkizun hori aurrera eramateko, bi neurri hartu ziren, norainoko desberdinarekin. Lehenengo eta behin, sailkatutako luraren gutxieneko estandarra ezarri zen; lur horren destinoa zen bertan babes ofizialeko etxebizitzak egitea. Gutxieneko estandarra udalaren plangintza tresnei aplikatu ahal zitzaizen, bai betearazpen unitateen bitartez betearazitako hiri lurrean, baita urbanizatzeko moduko lurrean ere.

Bigarrenik, zenbait neurri hartu ziren, hirigintzako plangintzaren tramitazioa erraztu eta laburtzeko: zatikako planak, plan bereziak eta xehekapen azterketak, bai eta hirigintzako kudeaketaren tresnak ere.

**A.2) 61/1997 KAEZ GEROZTIK, EUSKAL HERRIAN EMANDAKO ZUBILEGEAK. 3/1997 LEGEA, HIRIGINTZA JARDUERAREN ONDORIOZKO GAINBALIOETAN AUTONOMIA ERKIDEGOAK IZAN BEHAR DUEN PARTAIDETZARI BURUZKOA - APIRILAREN 20KO 11/1998 LEGEAREN BITARTEZ ALDARAZIA- ETA MARTXOAREN 6KO 5/1998 LEGEA, LURZORUAREN ARAUBIDEAREN ETA HIRIANTOLAMENDUAREN GAINKO PRESAZKO NEURRIEI BURUZKOA**

Konstituzio Auzitegiak 61/1997 epaia eman eta gero, nahitaezkoa zen autonomia erkidegoetako biltzar legegileek, presaz gainera, zenbait arazoren arauketari ekitea, hirigintzako jarduerari segurtasun juridikoa emateko. Epaia eman baino lehen, Lurzoruari buruzko 1992ko Legearen Testu Bateginak arautzen zituen arazo horiek; baina, epaiaz geroztik, testu hori, hein handi batean, hustuta geratu zen.

Gauzak horrela, behinbehinean, hau da, estatuak lurzoruaren araubidea eta hirigintzako antolamendua orokorrean arautzen ez dituen bitartean, Eusko Legebiltzarrak zenbait lege onetsi ditu, zubilege gisa hartu izan direnak. Lege horiek arazo zehatzak arautu dituzte. Batetik, apirilaren 25eko 3/1997 Legeak, apirilaren 20ko 11/1998 Legearen bitartez aldarazia izan zenak, arautu zuen Autonomia Erkidegoak zernolako partaidetza izan behar duen hirigintza jardueraren ondoriozko gainbalioetan. Bestetik, 5/1998 Legeak presazko neurriak onetsi zituen, lurzoruaren araubideari eta hirigintzako antolamenduari buruz.

Lehenengo eta behin, 3/1997 Legeak zehaztu zuen ehuneko zenbat itzuli behar zaion Autonomia Erkidegoari, hirigintzako jardueraren ondorioz lurzoruaren balioak gora egiten duenean. Horrela, kasuan kasuko eremuaren irabazizko hirigintzaaprobetxamendua zein izan, eta horren ehuneko 15 itzuli behar zaio Autonomia Erkidegoari, urbanizazioaren inguruko zamarik gabe. Berriztatze obrak direnean ere, ehuneko 15 laga behar da, baina obren ondoriozko aprobetxamenduaren gehikuntzari begira bakarrik. Urbanizatzeko moduko lurretan edo urbanizatzeko egoki diren lurretan, ehuneko berbera laga behar da, kasuan kasuko arlo edo eremuari begira, betiere, urbanizazio zametatik aske. Arau berberak hainbat zehaztapen barneratu zituen, hirigintzako aprobetxamendua eta aprobetxamendu tipoa kalkulatzeko.

Geroago, apirilaren 20ko 11/1998 Legeak aldatu egin zuen Autonomia Erkidegoari hirigintzako jardueraren ondoriozko gainbalioetan dagokion ehunekoa. Aldarazpen hori nahitaezkoa zen, estatuak apirilaren 13ko 6/1998 Legea onetsi eta gero, lege hori lurzoruaren araubideari eta balorazioei buruzkoa baitzen. 11/1998 Legearen arabera, aurreko arauaren kasu berberetan, Autonomia Erkidegoaren partaidetza hirigintzako aprobetxamenduaren ehuneko 10 izan behar da.

Beste araua apirilaren 6ko 5/1998 Legea izan zen, hau da, Lurzoruaren Araubidearen eta Hiri Antolamenduaren gaineko Presazko Neurriei buruzkoa. Horrek kontuan hartzen ditu era askotako arazoak, besteak beste, plangintzaren aldeak, eta hirigintzako kudeaketa eta diziplina. Horiek guztiak legedoikuntzarik gabe geratu ziren, Konstituzio Auzitegiak adierazi zuenean Lurzoruari buruzko 1992ko Legearen Testu Bategina deuseza zela; edo, bestela, halako arazoen inguruan gatazkak sortzen ziren aurreko arauketaren arabera, eta gatazkek konpondu beharra zegoen.

Lehenik eta behin, lurzoruaren sailkapena egitean, testu arauemaileak hiru kategoria bereizten ditu, lurzoru urbanizaezinari buruz: babestua, erkidea eta nekazaritza gunekoa. Azken kategoria hori onartzeko arrazoia izan da baserrietako auzo txikietan eraikin berriak egin ahal izatea, hainbat eta hainbat baitaude halakoak gure lurraldean.

Berriro ere jasotzen da eta legebidezta ematen zaio lurrak kalifikatzeko aukerari, babes ofizialeko etxebizitzak udal plangintzaren bitartez egin ahal izateko.

Plangintzaren prozedurari dagokionez, indarreko arauketa batu egiten da, plangintzaren ekimen eta onespenerari buruz, bai eta plangintza horren garapenerako arauak ere.

Kudeaketaren eremuaren barruan, plangintzaren betearazpena berreskuratzen da, betearazpen unitateen bitartez; gainera, hiri lurrean sistematikarik gabe gauza daitezkeen jarduketak jasotzen dira. Halaber, desjabetzaren ahalmena erabiltzeko kasuak arautzen dira, eta plangintzaren garapen eta betearazpenerako epeak finkatzen dira. Xedapen gehigarrietan, zenbait zehaztapen jasotzen dira betearazpen unitateei buruz, hirigintzako aprobetxamendua gehiegia edo gutxiegia denean. Berebat, aprobetxamendu transferentziak arautzen dira, hiri lurrean sistematikarik gabeko jarduketak gauzatzen direnean.

Azkenik, legeak xedapen batzuk jasotzen ditu, hirigintzako diziplinari buruz, urratzeen eta zehapenen preskripzio epeari buruz, bai eta espediente zehatzaileak erabakitze eskumena duten organoei buruz ere.

### A.3) **EKAINAREN 29KO LEGEA, LURZORUAREN GAINEKO HERRI ONDAREEI BURUZKOA**

Guztiok etxebizitza duina izateko eskubidea dugu eta, beraz, gizarteak berebiziko interesa du lurzoruaren gainean. Horrek ekarri du herri administrazioek lurzoruaren gainean eskuhartze eta kontrol mekanismoak ezartzea.

20/1998 Legeak lurzoruaren gaineko hiri ondarea arautzen du. Lege horrek eskuhartzearen inguruko mekanismo publiko batzuk ezartzen ditu, lurzoruaren titulartasun publikoa eskuratzeko. Horiei deitzen zaie, hain zuzen ere, lurzoruaren udal ondareak. Halakoak nahitaezkoak dira, 7.000 biztanletik gorako udalerrietan.

- Lurzoru publikoaren erreserba horrek helburu zehatzak bete nahi ditu, alegia, Euskal Herriaren hiri eta lurralde garapena erraztea eta ekimen publikoetarako lurrak

izatea, bertan babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko, edota gizarte, ekonomia, kultura edo paisaiaren intereserako beste erabilera batzuk ezartzeko. Azken finean, legearen xedea da lurzuaren gaineko merkatua arautzea.

- Lurzoruaren gaineko udal ondarea osatzen dute, batetik, udalaren ondareko ondasunek; bestetik, plangintza betearaztearen ondorioz eta hirigintzako kudeaketaren ondorioz lortutakoek; eta, azkenik, eskubideak egikaritzearen ondorioz edo ustiatzearen ondorioz eskuratutakoek.

Arauari helduta, ondare hori kudeatzeko modua udalen esku geratzen da edo, bestela, kudeaketaz arduratzen diren erakunde instrumentalei eratziki dakieke. Edozein modutan ere, arauak agintzen duenez, besterentzeek bete behar dituzte legeak berak ezartzen dituen helburuak. Halaber, besterentzeok kostu bidezkoak izan eta jendaurreko lehiaketa edo enkantarearen bitartez gauzatu behar dira, salbu eta arauak zuzeneko salmenta onartzen duenean edota, irabazasmorik gabeko edo gizarte intereserako erakundeen mesederako, dohaineko lagatzea edo egiazko baliotik beherako lagatzea onartzen denean.

Testu arauemaileak beste mekanismoa bat arautzen du eskuhartzearen inguruan. Mekanismo horren bitartez, lurzuaren gaineko erreserbak sor daitezke, horiek lurzuaren gaineko udal ondarerako destinatuzko. Udalaren plangintza tresnek zehaztu ditzakete lurren udal erreserba horiek, betiere, babesik gabeko lurzoru urbanizaezinean edota urbanizatzeko moduko lurzorian, azken hori programaturik edo sektorizaturik ez dagoenean.

Lur batzuk udal erreserba gisa kalifikatzeak berarekin dakar horiek herri onuradunak direla adieraztea eta eurok okupatzea, derrigorreko desjabetzapena gauzatzeko. Berebat, Administrazioari eroslehentasun eta atzeraeskuratze eskubideak aitortzen zaizkio, lurzuaren erreserba gisa eremu bat mugatu eta eremu horretako lurak besterentzen direnean.

20/98 Legeak ahalmen hori ematen die udal administrazioei, Eusko Jaurlaritzari eta lurralde historikoetako foru organoei ere. Horiek guztiek koordinaturik jardun behar dute, eta mota guztietako bikoiztasunak saihestu behar dira.

## **B. ARAUKETAREN BALORAZIOA**

Dagoeneko aipatu ditugu Eusko Jaurlaritzak egin dituen hirigintza arauak. Aipamenarekin bukatutakoan, komeni da hausnarketa egitea, arau horien norainokoari buruz, eurokin lortu nahi den hirigintza ereduari buruz, eta hiritarrek nahiz Zuzenbideko jarduleek bizi duten behinbehinekotasunari buruz.

- Lehenengo oharbidea egin beharra dago, arauen behinbehinekotasunak hala agintzen duelako. Arauok presazko neurri gisa ezarri dira, eta arauketa iragankorra baino ez dute ezarri nahi, legegintzazko garapenaren zain. Eginginean ere, garapen hori oraindik ez da gertatu, nahiz eta eskumena transferituta egon, azaroaren 21eko 2.581/1980 Errege Dekretuak transferentzia horri hasiera eman zitzaionetik.
- Halaber, Autonomia Erkidegoak bere legea onetsi behar duela argiago geratu da, Konstituzio Auzitegiak Lurzoruari buruzko 1992ko Legearen Testu



Bategineko xedapen batzuk deuseztatu dituenetik. Deuseztatze horrek bide ematen dio Autonomia Erkidegoko legegilearen lanari. Ildo horri eutsiz, zubilegeetan lurzorua kalifikatzeko doikuntzak jaso ziren, lurzoru horretan babes ofizialeko etxebizitzak egiteko edota, banaketa guneen bitartez, jarduketa sistema ahalbideratzeko.

- Berebat, Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historiko desberdinetako foru organoen arteko harremanen ondorioz, zenbait xedapen onetsi dira, Euskal Herriko eskumenmaila desberdinetan banaketa nola egin behar den argitzeko.
- Bestalde, aipatzeko modukoak dira araututako hirigintza eremuak eta horien edukia.

Plangintzaz denaz bezainbatean, tresnen tramitaziorako epeak erraztu egin dira, bai antolamenduari dagokionez, baita hirigintzako kudeaketari dagokionez ere. Bestalde, zehaztu egin da zein organori dagokion planak egiteko eta horiek aldarazteko ekimena, eta zeini dagokion, berriz, hasierako, behinbehineko eta behin betiko onespena, hala plan orokorrei begira, nola garapen planei begira. Horren guztiaren helburua izan da prozedura Autonomia Erkidegoko eskumenbanaketari egokitzea.

Kudeaketari dagokionez, euskal legeriak hirigintzako aprobeixamenduaren eta aprobeixamendu tipoaren definizioak jasotzen ditu. Halaber, jabeak eskura dezakeen aprobeixamendua finkatzen du, Autonomia Erkidegoari dagokion partaidetza zehaztearekin batera. Bide beretik, betearazpen unitateak plangintza betearazteko mekanismo gisa jasotzen dira, salbu eta hiri lurzoruan sistematikarik gabeko jarduketak gauzatzen direnean edota sistema orokorrak betearazten direnean. Gainera, plangintzaren garapenerako eta betearazpenerako eskumena ezartzen da. Orobat, desjabetzapeneko jarduketa sistemari begira, zehaztu egin da zein kasutan erabil daitekeen sistema hori, estatuko eskumenaren garapen gisa.

Hirigintzako diziplinari helduta, finkatu egin dira hirigintzako baimenak eskatzeko epea eta, behin baimena emandakoan, hori betearazteko epea. Bestalde, urratze eta zehapenei dagokienez, preskripzio epea finkatzeaz gain, argitu egin da zein organok duen espediente zehatzaileak erabakitzeko eskumena.

- Aipatu arau guztiak ikusita, hausnarketa egin daiteke horiek ondorioztatzen duten hirigintza ereduaren inguruan. Esan bezala, nahitaezkoa da lurzoruaren ehuneko garrantzitsu bat babes ofizialeko etxebizitzetarako destinatzea., bai hiri lurrean, baita urbanizatzeko moduko lur programatuan ere. Gainera, lurzoruaren gaineko udal erreserbak ezar daitezke, lurzoru urbanizaezinean edota urbanizatzeko moduko baina programatu gabeko (edo sektorizatu gabeko) lurzoruan. Hori guztia aintzat harturik, begibistan dago euskal botere publikoek joera eskuhartzailea erakusten dutela.

Nondiknahi begiratuta ere, babes ofizialeko etxebizitzak izan dira eskuhartze publiko horren jomugak; egiatan, 20/1998 Legearen aginduz, bestelako jarduketarik ere bada izan, gizarteko beste interes batzuen inguruan. Ondorenez, ekimen publikoen helburu nagusia izan da lurzoruaren gaineko erreserbak sortzea, bertan babes ofizialeko etxebizitzak egiteko. Ez da arreta nahikoa izan, ordea, etxebizitza askeei begira eta, sailkatutako bestelako lurzoruaren gainean ere, ez da zuzeneko politikarik gauzatu. Hori

guztia dela eta, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak estatuko lurzorurik garestienetako bat du, etxebizitza askeak egin behar direnean.

### **III. GAINERAKO AUTONOMIA ERKIDEGOETAN APLIKA DATTEKEEN HIRIGINTZA ARAUKETA**

Autonomia Erkidego guztiek arauak eman dituzte hirigintzaren arloan, guztien eskumen eksklusiboa baita hori, euren autonomia estatutuen arabera. Lege horietatik gehienek jardueraren alde edo arazo zehatzak arautu izan dituzte. Araututako alde edo arazoak izan dira, besteak beste, hurrengoak:

- hirigintzako diziplina eta hirigintzako legezketasunaren babesa;
- eraikuntza eta erabilerak, nekazaritzako guneeetan;
- erakundeen arteko antolaketa: Autonomia Erkidegoko organoen artean eskumenak bereiztea, lurzoruaren gaineko erakundeak sortzea etab.;
- lehenespeneko hirigintza jarduketak;
- lurzoruaren gaineko erreserbak, helburu zehatzak betetzeko.

Kasuan kasuko ekimen horien bitartez, hirigintzako arazo zehatzei aurre egin zaie. Ekimen horietaz gain, autonomia erkidegorik gehienek, helburu handiagoak lortu nahian, euren hirigintza arauketa eratu dute, berezko, osoosoko eta koherentziazko arauketa, hain zuzen. Horretarako, euren biltzar legegileek arau orokorrak onetsi dituzte, euren arauak batuz, eta arau horiei argitasun eta segurtasun juridiko handiagoa emanaz. Hori egitean, euren hirigintza politikak definitzeko aukera izan dute eta, horrekin batera, lurzoruaren araubidearen eta hirigintzako jardueraren kontzeptuak, teknikak eta tresna juridikoak finkatu izan dituzte, guztiak ere modu bateratuan aztertuz: lurzoruaren sailkapena, plangintza, betearazpena eta kudeaketa, lurzoruaren merkatuan eskuhartzea, hirigintzako legezketasuna babestea etab.

Hortaz, autonomia erkidegoek legegintzako ekimenak gauzatu dituzte hirigintzako jardueraren gainean. Ekimen horiei buruzko aipamen laburra egiteko asmoarekin, ekimenok honetara sailka daitezke:

1. Konstituzio Auzitegiak 61/1997 epaia eman baino lehen onetsitako legeak.
2. Konstituzio Auzitegiak 61/1997 epaiaren ondorioz egindako zubilegeak.
3. Konstituzio Auzitegiak 61/1997 epaia eman eta geroako legeak.

Lehendabiziko taldean, bost autonomia erkidego sartu behar dira, erkidego horiek euren hirigintza araubidea onesteko orduan lehenak izan baitziren. Bost autonomia erkidego horiek aurretiaz ere euren berezko arauketa zutenaz gero, 61/1997 epaiak ez du arauketa horretan eraginik izan eta, izatekotan ere, eragin txikia izan du; gogoratu behar da epai horrek adierazi zuela Lurzoruari buruzko 1922ko Legearen Testu Bategina Konstituzioaren aurkakoa zela. Bost Autonomia Erkidego horiek jarraikoak dira:

- Katalunia: uztailaren 12ko 1/1990 Legegintzako Errege Dekretua, Lurzoruaren Araubideari buruzko Testu bategina Katalunian;
- Galizia: martxoaren 24ko 1/1997 Legea, Galiziako Lurzoruari buruzkoa;
- Madril: martxoaren 28ko 20/1995 Legea, Lurralde Politikari, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa;

- Nafarroa: uztailaren 4ko 10/1994 Legea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzkoa;
- Valentzia: azaroaren 15eko 6/1994 Legea, Hirigintzako Jarduera Arautzeari buruzkoa.

Bigarren taldean sei autonomia erkidego sartu behar dira. Horiek, 1922ko LLTB indargabetzen zuen epaiaren berri izan eta batera, legegintzako neurriak hartu zituzten, behinbehinean eta presaz. Lege horiei zubilege deitu zitzaien eta, halakoen bitartez, segurtasun juridikoa bermatzeaz gain, onetsitako plagintzari eta betetzeke zeuden jarduketei legebabesa eman zitzaien. Izan ere, horien guztien erreferentzia zen Lurzoruari buruzko 1922ko Legearen Testu Bategina, eta arau hori indarrik gabe geratu zen. Sei autonomia erkidego horiek jarraikoak dira:

- Andaluzia: ekainaren 18ko 1/1997 Legea, lege horrek, presaz eta behinbehinean, onetsi baitzituen lurzoruaren araubideari eta hiri antolamenduari buruzko xedapenak;
- Kantabria: apirilaren 25eko 1/1997 Legea, Presazko Neurriei buruzkoa;
- GaztelaMantxa: uztailaren 10eko 5/1997 Legea, Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Presazko Neurriak ezarri zituena;
- Gaztela eta Leon: urriaren 13ko 9/1997 Legea, Hirigintzaren arloan Neurri Iragankorrak ezarri zituena;
- Extremadura: abenduaren 23ko 13/1997 Legea, Hirigintzako Jarduera Arautzeari buruzkoa;
- Euskal Herria: martxoaren 6ko 5/1998 Legea, Lurzoruaren Araubidearen eta Hiri Antolamenduaren Presazko Neurriei buruzkoa.

Azpitarratzekoa da Andaluzia, Kantabria eta Extremadurako autonomia erkidegoetako legeek bere egin dutela, osoosorik, 61/1997 epaiaren aurretik indarrean zegoen estatuzuzenbidea. Beste modu batera esateko, aipatu autonomia erkidegoetan 1922ko LLTB aplikatzen da oso-osorik.

Gaztela-Mantxak, eta Gaztela eta Leonek onetsitako zubiarauerei dagokienez, horiek jadanik indarrik gabe daude, bi autonomia erkidego horiek lege orokor bana onetsi baitute, lurzoruaren araubidea ezartzeko, geroago ikusiko dugun bezala.

Hirugarren eta azken taldean sartzan diren autonomia erkidegoei dagokienez, euren biltzar legegileek hirigintzako lege berri eta orohartzaileak onetsi dituzte, Konstituzio Auzitegiaren erabakiak ekarri zuen astindu eta bultzadaren ostean. Lege testu horien ezaugarria da Konstituzio Auzitegiak 61/1997 epaian ezarritako doktrina eta irizpideak barneratzea. Gainera, testuek aintzakotzat hartzen dute estatuak apirilaren 13an onetsitako 6/1998 Legea. Lege hori Lurzoruaren Araubideari eta Balorazioei buruzko Legea da, eta horrek eskumenen inguruan erartortzen duen interpretazioa gogoan izan da. Autonomia erkidego horiek jarraikoak dira:

- Aragoi: martxoaren 25eko 5/1999 Hirigintza Legea;
- Kanariar Uharteak: maiatzaren 13ko 9/1999 Legea, Kanariar Uharteetako Lurraldearen Antolamenduari buruzkoa;
- Gaztela-Mantxa: ekainaren 4ko 2/1998 Legea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzako Jarduerari buruzkoa;
- Gaztela eta Leon: apirilaren 8ko 5/1999 Hirigintza Legea;

- Errioxa: uztailaren 2ko 10/1998 Legea, Lurralde eta Hirigintzari buruzkoa.

Azterketa honetatik kanpo geratzen da, nahiz eta oso interesgarri gertatu, autonomia erkidego horietako testu bakoitzaren edukia, irizpideak eta tresnak azaltzea. Komeni da, ordea, honako hau azpimarratzea: arau horien guztien eredia ez da berbera, batzuk beste batzuk baino berritzaileagoak baitira -alde horretatik, Valentziakoa nabarmendu beharra dago-. Heterogeneotasun horrek erakusten du Administrazioak, hirigintzaren arloan, bere gain hartu nahi duen zuzendaritza nahiz protagonismo handiagoa edo txikiagoa, batik bat, lurzoruaren jabeekin eta bestelako agente pribatuekin harremanetan jartzen denean.

Legegintzazko neurri horiek guztiek lotura estuak dituzte, Autonomia Erkidego bakoitzak lurzoruaren gainean gauzatu nahi duen politika zehatzarekin. Beste hitz batzuekin esanda, ezin da hirigintzako politikarik definitu eta garatu, baldin eta lurzoruaren araubidea osatzen duten alde guztiak kontuan hartzen ez badira. Lurzoruaren gaineko politika guztiek erakusten dute hiri jabetza ulertzeko modu berezi bat. Horrekin batera, tresna egokiak erabili behar dira, lurzoruaren gaineko politika benetan gauza dadin, asmo hutsetan geratu gabe. Arean bere, politika horren islak antzeman behar dira plangintzan, urbanizazioa betearaztean, eraikinak egitean eta, azken buruan, hiriak eta hiriguneak egin eta garatzen direnean.

17 autonomia erkidegoetatik, hamahiruk osoosoko testu arauemailea dute. Testu arauemaile horietan antzeman daiteke autonomia erkidego bakoitzak hirigintzaren arloan duen politika. Testu horien guztien helburua da lurzoru arrazionalizatu, eta lurzoru hori ahalik eta ondoen erabiltzea, betiere, baldintza zehatz batzuetatik abiatuta. Talde horretan sartu behar ditugu Andaluzia, Kantabria eta Extremadura. Horiek beren beregi barneratu dituzte 1992ko LLTBren xedapen guztiak eta, ondorenez, autonomia erkidego horietan berezko arauketa dagoela adieraz daiteke.

Lehenengo talde horri begira, bigarren taldean autonomia erkidego gutxiago daude; lau besterik ez. Lau horiek ez dute berezko legerik onetsi lurzoruari buruz eta, ondorenez, modu subsidiarioan, 1976ko LLTB aplikatzen zaie. Talde horretan dauden autonomia erkidegoek, beraz, ez dute onartu lurzoruaren inguruko lege propiorik. Talde horretan dago, hain zuzen ere, EHAE, Asturias, Balear Uharteak eta Murtziarekin batera. Lau autonomia erkidego horietan, honako paradoxa hau gertatzen da: estatuko arauketa modu ordeztailan aplikatzen denez gero, egun indarrean dago orain 25 urte onetsitako legearen testu bategina.

Lurzoruaren arauketa halakoa izanik, autonomia erkidego horiek zenbait traba edo muga dituzte, lurzoruaren gainean benetako politika gauzatu nahi dutenean. Izan ere, horretarako nahitaezkoa da, kontzeptu eta formaren aldetik behinik behin, erreferentzia bat izatea. Erreferentzia horrek udalaren plangintza osatu eta aintzatesi behar du, eta hirigintzako jarduera publiko nahiz pribatuarentzat bultzada eta egonkortasun bermea izan behar da. Gainera, erreferentzia horrek hirigintzako legezkotasuna eragigarritasunez kontrolatzea ahalbideratu behar du.

#### **IV. EHAE-K BERE LURZORU ARAUKETA IZATEKO BEHARRA**

EHAek bere hirigintza arauketa izan behar du, lurzoruaren gaineko politika definitu eta garatzeko, erkidegoaren ustez egokiak diren hirigintza tresna eta tekniken bitartez.

Horretarako, premiapremiazkoa da EHAEko botere publikoek arazoari oldartu eta Herri Administrazioaren jarduketaren definitzea, hirigintzaren arloan. Era berean ere, lurzuaren jabeek eta ondasun higiezinaren sustatzaileek zein eremutan jardun dezaketen zehaztu beharra dago, hirigintzako jarduera horren barruan. Autonomia Erkidegoak bere arauak onesten badu, horrek ahalbideratuko du hirigintzako araubidea herri honetako egitura bereziari egokitzea, erakunde, lurralde, ekonomia, gizarte eta hirietako ezaugarriak aintzat harturik.

Segurtasun juridikoaren printzipioari begirunea zor zaio eta, begirune horren ondorioz, gaur egungo egoerarekin bukatu behar da, arauak sakabanatuta eta barreiatuta baitaude; izan ere, gaur egun, ahalegin handiak egin behar dira kasuankasuan zein arau aplikatu behar den jakiteko. Arauen egoera konplexu eta behinbehineko hori gainditzeko, nahitaezkoa da ahalik arinen EHAEk bere Lurzoru Legea izatea. Lege horrek, lurzuari buruzko politika definitzeaz gain, hirigintzaren arloan indarrean dauden arau guztiak batu behar ditu. Egungo egoera onartezina da eta arazo asko sortarazten ditu. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak bere legeria onesten ez duen bitartean, Lurzoruari buruzko 1976ko Legearen Testu Bategina aplikatu beharra dago, ia osoosorik. Lege hori, sasoi hartan, aurreratua zen; baina, hogeita bost urte igaro eta gero, zaharkituta geratu da hainbat aldetan eta beste alde batzuetan, aldiz, akats tekniko larriak ditu.

Estatuko legegileak apirilaren 13ko 6/98 Legea onetsi du, lurzuaren araubideari eta balorazioei buruz. Lege hori onestean, estatuko legegileak oinarrizko arauak finkatu du, lurzuaren jabeek dituzten eskubide eta betebeharrak buruz. Gainera, hainbat kontzeptu definitu izan ditu, besteak beste, hiri lurzoru, lurzu urbanizazina eta urbanizatzeko moduko lurzoru. Oinarrizko arauak hori benetakoa eta eragingarria izan dadin, autonomia erkidegoen hirigintza arauak hori osatu eta garatu behar dute. Bestela, oinarrizko kontzeptu batzuk, adibidez, lurzu motak edota balorazio irizpideak, zehaztu gabe geratuko dira.

Hirigintzako plangintzaren teknikari helduta, eta azken 20 urteotako esperientzia aintzakotzat harturik, ezinbestekoa da zenbait arazo argitzea. Berbarako, hurrengo arazoak aztertu beharrekoak dira:

- Plangintzaren erakundeak berrikusi behar dira, ahal den neurrian, horiek erraztuz. Gainera, zehatzago definitu behar da erakunde horietako batzuen eskumeneremua. Hori gertatzen da, besteak beste, xehekapen azterketekin.
- EHAEn jadanik erabiltzen ez diren erakundeak ezabatu egin behar dira; horixe gertatzen da, adibidez, hiri lurzoru definitzeko proiektuekin. Halaber, beharrezkoak ez diren erakundeak ere ezabatu egin beharko liriteke, horien edukia eta plangintzaren beste agiri batek barneratzen duena antzekoak direlako edo harakoa horren barruan sartzen delako; hau da, bataren eta bestearen arteko desberdintasuna, kontzeptuaren inguruko baino gehiago, terminologiaren inguruko da.
- Planen arteko loturak antolatu behar dira, hierarkia eta eskumen printzipioak aplikatuz. Horretarako, loturok malgutu beharra dago, eragingarritasun eta azkartasunaren mesederako. Horrela, garapenerako plangintzak, berme egokiekin, oinarrizko plangintzaren alde batzuk aldatu ahal izango ditu, alde horiek oinarrizkoak ez diren heinean.
- Argitu behar da hirigintza planak zein unetan diren betearazteko modukoak - osorik zein zati batez-. Une hori bi hauetatik bat izan daiteke: planak erabaki

baten bitartez behin betiko onartu eta erabaki hori argitaratzeko data; edo, osterantzean, planen arauak eurak argitaratzeko unea.

- Tresna egokiak erabili behar dira hiritarrek parte har dezaten, planak egiteko unean.
- Zehaztu behar da ekimen pribatuak zernolako ahalmenak dituen, garapenerako plangintzan.
- Hirigintzako hitzarmenak arautu behar dira, maiz sarri erabiltzen baitira halakoak plangintzaren eremuan eta hirigintzako kudeaketan. Arauketa horrek publizitate eta gardentasun printzipioak errespetatu beharko ditu.
- Lurzoru urbaniezinean ordezipena egiteko aukera aztertu behar da, lur horretan baserriak edo nekazaritza nahiz abeltzaintzako ustiategiak izan, eta hirigintzako jarduketek edo herri lanetako proiektuek baserri eta ustiategi horiek ukitzen dituztenean.

Hirigintzako kudeaketaren ikusmiratik, premia-premiazkoa da ekimen pribatuaren eta lurzoruaren jabeen eskuhartze eremua finkatzea. Hirigintzako kudeaketaren esparruan izan dira, hain zuzen ere, autonomia erkidegoetako hirigintza arauketak ekarri dituen berrikuntza gehienak. Arauketa horrek eskuhartzearen inguruko teknika berriak edota osagarriak ezarri ditu.

Gaur egun, hirigintzaren arazoetako bat da lurzoru urbanizatua ahalik eta gehien merkaturatzea, bertan eraikinak egiteko aukera baitago. Merkaturatze horrek eragotz dezake lurzoruaren garestitzea eta, horrekin batera, etxebizitzaren prezioak gora egitea. Hori dela eta, EHAeko hirigintza legeriak erronka garrantzitsua du lurzoruaren kudeaketari dagokionez, hori baita lurzoruaren prezioan eraginik handiena izan dezakeen administrazio tresna.

Hirigintzako diziplinaren ikuskerari eutsiz, Autonomia Erkidegoko arauketak zenbait arazo konpondu beharko ditu nahitaez. Segurtasun juridikoaren printzipioak, eta legezketasunari eta hirigintzako antolamenduari zor zaien babes egokiak, eurekin dakarte, hainbat arlotan, eskuhartzea presazko kontua izatea. Arlo horiek, besteak beste, hurrengoak dira:

- Hirigintzako diziplinaprozeduraren baitara bildu behar dira HEAJ eta APEren 30/92 Legean ezarritako printzipio zehatzaileak.
- Urratze eta zehazpenei dagozkien tipoak berrikusi beharra dago.
- Kautelazko neurriak arautu behar dira, legearen aurkako obrei dagokienez.
- Urratzeetan parte hartu edo horietan laguntzen dutenen erantzukizuna arautu behar da.

Azkenik, gaur egun beste inoiz baino gehiago, premiazkoa da EHAek bere hirigintza arauketa izatea. Autonomia Erkidegoko legegileak berak ere hala aitortu du. Ildo horretatik, martxoaren 6ko 5/98 Legeak presazko neurriak ezarri zituen, lurzoruaren araubideari eta hiri antolamenduari buruz. Lege horren zioen azalpenak dioenez, lege hori behinbehinekoa da, EHAek bere Lurzoru Legea onetsi arte.

Gainera, EHAren legegintzako egutegian, 1999-2003 legealdirako, Lurzoruari buruzko Legea agertzen da, aurreproiektuen artean; zehatzago, 18. zenbakiaekin azaltzen da. Hala eta guztiz ere, gogoratu behar da aurreko legealdietan ere legegintzako egutegian agertzen zela Lurzoruari buruzko Legea; horrek ez zuen ekarri, ordea, inolako bermerik, lege hori onesteko.

## V. AZKEN ONDORIOAK

Konstituzio Auzitegiak bere iritzia eman zuen Lurzoruari buruzko 1992ko Legearen Testu Bateginari buruz. Iritzi hori jasotzean, behar beste definituta geratu da hirigintzaren arloko eskumenbanaketa. Autonomia erkidegoei dagokie hirigintzaren gaineko eskumen generikoa; eta estatuari dagokio, berriz, oinarrizko baldintzak arautzea, baldintza horiek jabetza eskubidearen edukia osatzen baitute.

Horretarako, estatuak apirilaren 13ko 6/98 Legea onetsi du, lurzoruaren araubideari eta balorazioei buruz. Arauketa hori ezartzea aurretiazko baldintza izan da, hirigintzako jardueraren arauketari ekiteko. Aipatu araua lagungarri gertatu da, Estatuko Administrazioari eta Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokien eskumeneremua argitzeko.

Nolanahi den ere, behin jabetza eskubidearen gutxieneko edukia finkatu eta gero, ezinbesteko eta nahitaezkoa da, eragingarritasun arrazoiak direla eta, lurzoruari buruzko hirigintza arauketa osoosorik garatzea. Erantzukizun hori autonomia erkidegoei dagokie.

EHAEn, gaur arte, zenbait legexedapen onetsi dira; horiek guztiak kasuan kasukoak, behinbehinekoak eta askiek izan dira. Horregatik, modu ordeztailan, estatuko arau eta xedapenak aplikatu behar dira; horiek ere eduki mugatua dute eta, denboraren poderioz, zaharkituta geratu dira (Lurzoruari buruzko 1976ko Legearen Testu Bategina eta hori garatzeko erregelamenduak).

Horregatik, Eusko Legebiltzarrari eta, orokorrean, Hirigintza Administrazioari ondorio nagusi hau helarazi behar zaie: beheralakoan lege bat onetsi behar da, Euskal Herrian lurzoruaren arauketa ezartzeko. Horrela, indarreko arauen behinbehinekotasuna eta hirigintzako politikaren zehazgabetasuna gainditi ahal izango dira.

Legetestuaren beharra saihestezina da, batik bat, argitasun, azkartasun eta erraztasun irizpideak aintzat harturik. Lege testu hori ezinbestekoa da, lurzoruaren gaineko politikak finkatzeko eta agente publiko nahiz pribatuen jarduketa suspertzeko, agenteok ere politika horietan parte hartzen baitute.

EHAEn aplikatzen den arauketa desegokia eta askieza da, eguneroko bizimoduan hirigintzak sortarazten dituen arazoei aurre egiteko. Plangintza eta kudeaketaren teknika eta erakundeak berrikusi eta eguneratu behar dira; areago oraindik, arazo garrantzitsu batzuk ez dute arauketa egokirik, ezta babes aproposik ere. Inguruabar horien guztien ondorioz, kalte handia egiten zaio segurtasun juridikoari; gainera, hirigintzako jarduera atzeratzen da eta jarduera horri eragingarritasuna kentzen zaio.

## 6. EUSKARAZ ERABILTZEN DEN LEGE-TERMINOLOGIA HIZKUNTZAK KOHERENTZIARIK EZ IZATEA

Arartekoak bermatu eta kontrolatu behar du herri erakundeen hirigintza jarduera. Eginkizun hori betetzean, harremanak izan behar ditu, arlokako eskumen hori erabiltzen duten administrazio eta erakunde guztiekin. Kontrol jarduera hori gauzatzean, aintzakotzat hartu behar da eremu publikoan hirigintza eskumenak administrazio maila desberdinetan banatuta daudela. Batetik, estatuak eta autonomia erkidegoek eskumen arauemailea dute, baina bakoitzak arauak ematen ditu, bere eskumentituluaren eremuaren barruan. Bestetik, foru aldundiei ahalmenak eratziki zaizkie, batik bat, plangintzaren inguruan. Azkenik, udalak dira hirigintzaren arloan benetako protagonistak; udalek, plangintza idatzi eta tramitatzeaz gain, erantzukizuna dute hirigintzaren kudeaketa eta diziplinaren gainean.

Bestalde, hirigintzari dagozkion arazo teknikoak eta eskumenarazoak oso konplexuak dira. Konplexutasun horrekin batera, gogoan izan behar da lurzoruaren gainean diharduten agenteak ere era askotakoak direla. Horrek guztiak agerian jartzen du hirigintzako terminoak erabiltzean hizkera argi eta zehatza erabili behar dela; eremu horretan diharduten profesional eta agenteentzat, hizkera hori da, hain zuzen ere, komunikaziorako eta lanerako tresna.

Esan bezala, teknika eta terminologiaren inguruko arazoak konplexuak dira eta, horren ondorioz, maiz sarri agertzen dira hirigintzako kontzeptuak definitu eta argitzeko liburuak edo, behintzat, liburuen kapituluak. Plangintzari buruzko agerietan, berebat, ez da arraro gertatzen atal berezi bat izatea, arauketa horretan gehien erabiltzen diren terminoak zeintzuk izan, eta termino horien esangura definitu eta zehazteko.

Hirigintzari buruzko hiztegiaren iturburu nagusiak dira, zentzuzkoa denez, hirigintza arautzen duten lege eta erregelamenduak. Arean bere, testu arauemaileek, zehaztasun handiagoarekin edo txikiagoarekin, hirigintzako terminoak erabili izan dituzte, 1956. urtean lurzoruari buruzko lehenengo legea onetsi zenetik. Lege horrek ezarri zuen, ezarri ere, gaur egun indarrean dagoen sistemaren aurrekaria; sistema horretan, hirigintzako plangintza hierarkiaren arabera antolatu eta, horrekin batera, hiri jabetza arautzen da.

Euskararen normalizaziorako prozesuari helduta, egundoko ahaleginak egin dira, beste teknika eta jakintzagai batzuetan erabilitako termino nahiz kontzeptuak hizkuntza ofizial horretara itzuli eta egokitzeko. Horixe da, hain zuzen ere, hirigintzaren kasua.

Konpondu beharreko arazo garrantzitsuetatik bat da euskarak tradiziorik ez izatea, Zuzenbidearen eta Administrazioaren eremuetan. Historian zehar, euskara ez da arlo horietan erabili, komunikaziorako tresna gisa. Horregatik, askotan nahitaezkoa izaten da muga zehatzak dituzten kontzeptuak moldatu eta eraberritzea, nahiz eta zenbaitetan hori lortu ez. Gure egunotan, HAEEn bitartez, lan izugarria egin da, beste garai historiko batzuetako aldizkari eta argitalpen ofizialak hartu, eta horietan jasotzen diren testuak eta kontzeptuak ikertu eta ezagutarazteko. Material hori lagungarri izan daiteke oso, Administrazioan terminologiarik egokiena aukeratzeko orduan.

Halaber, aipatu beharrekoak dira UZEIk eta bestelako herri erakundeek egindako hiztegiak. Horien artean nabarmendu behar da, besteak beste, Eusko Jaurlearitzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak argitaratutakoa (*Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Terminoen Zerrenda*, 1995). Halako hiztegieta jasotzen dira Administrazio eta hirigintzaren arloan gehien erabiltzen diren terminoak.



Edonola ere, hirigintzako terminologia euskarari egokitu izan zaionean, egokitze horren aurretik ez da egin, tamalez, benetako eztabaidarik; eta, era berean, jardunak ez du alde aurretik hausnarketa eta plangintza zehatzik izan. Ezin esan daiteke, orobat, herri administrazioen artean lankidetzeta eta elkarlanik izan denik, beharrezko eta komenigarri izango litzatekeen neurrian behinik behin. Kontuan izan behar da, gai horretan Herri Administrazioa aipatzen denean, aipamen horren barnean sartzen direla, bai udalak -ondore horretarako, udalak autonomia osoa baitu-, bai hiru foru aldundiak, baita Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ere. Ezin dugu ahanzi, aurrekoekin batera, Eusko Jaurlaritza ere, berak baitu legeak emateko ahalmena.

Administrazioek euskarara itzuli behar izan dituztenean euren ordenantza eta hirigintza erabakiak, edota euren plangintzaagiriak (plan orokorrak, arau subsidiarioak, plan bereziak, zatikako planak eta abarrekoak), batzuetan euren barne zerbitzuak erabili izan dituzte; beste batzuetan, aldiz, kanpo enpresa espezializatuak kontratatu izan dituzte. Kasu batean zein bestean, aurretiaz ez da eztabaida eta adostasunik izan, kasuankasuan terminorik egokiena zein den erabakitzeke.

Edozein modutan ere, denborak aurrera egin ahala, bilakaera txikia izan da eta, ondorenez, egokitzat hartu izan dira termino jakin batzuk, beste batzuen kalterako. Zernahi gisaz, terminologiaren inguruko adostasun hori oso mugatua da eta, egia esateko, hitz gutxi batzuk baino ez ditu barneratzen. Esate baterako, gaztelaniazko "normas subsidiarias" euskaratzeko, gaur egun "arau subsidiario" adierazmoldea erabiltzen da, "ordezko arauak" eta bestelakoak alboratuz.

Hirigintzako terminoekin askotan gertatzen da euskarazko baliokide bat baino gehiago izatea, eta horrek, zeresanik ez, nolabaiteko nahastea dakar kontzeptuaren aldetik. Berbarako, gaztelaniazko "estudio de detalle" plangintzako erakunde bat da, lerrun txikiko erakundea, hain zuzen; bada, hori itzultzeko, gutxienez, hurrengo adierazmoldeak aurki daitezke euskaraz:

- xehetasun azterlana
- xehetasun estudioa
- azterketa zehatza
- azterpen zehatza
- xehetasun azterpena
- xehapen azterpena

Gaztelaniazko "plan parcial" itzultzeko, ostera, honakoak:

- plan partziala
- zatikako plana
- zati eremua

Gaztelaniazko "proyecto de reparcelación" itzultzeko orduan, berriz, jarraikoak:

- birbanaketa egitasmoa
- birzatiketa egitasmoa
- zatiketa egitasmoa
- birlursailketa proiektua
- erreparzelazio proiektua

Eusko Jaurlaritzak hirigintzari buruzko azken legetestuak onetsi ditu 1998. urtean. Testu horietan honako hau antzeman daiteke: gaztelaniaz, hirigintzako terminoak esangura bakarrekoak dira eta, horren ondorioz, beti erabiltzen da hitz berbera, kontzeptu bera adierazteko; euskaraz, ordea, legeek esamolde edo adierazmolde desberdinak erabiltzen dituzte. Hizkuntzaren ikusmiratik, ez dago horretarako arrazoi edo karirik; eta, hirigintzaren ikuskeratik ere, koherentzia ez hori nekez justifika daiteke.

Hizkuntzak, beraz, ez du koherentziarik, eta hori igar daiteke, modu berean ere, hirigintzari buruzko azken hiru legeek erabiltzen duten terminologian; Eusko Jaurlaritzak hiru lege horiek tramitatu eta onetsi ditu urte berean, alegia, 1998. urtean. Azter dezagun, bada, euskaraz zein terminologia erabili den, oinarrizko eta erabilera handiko hirigintzakontzeptuak euskaratzeko; kontzeptuok izan daitezke, besteak beste, gaztelaniazko lurzoru motak: urbano, urbanizable, apto para urbanizar y no urbanizable. Lege batetik bestera, terminologia erabat aldatzen da, aurretiazko legeak zein terminologia erabili duen aintzat hartu gabe.

- I. Gaztelaniazko suelo urbano
  - A. Hiri-lurra (5/98 Legea, 5-1. art.)<sup>1</sup>
  - B. Hiri-lurra (11/98 Legea, artikulua bakarrekoa, 1. zatia)  
Hiri-lurzorua (20/98 Legea, 4-1. art.)
- II. Gaztelaniazko suelo urbanizable
  - A. Lur hirigarria (5/98 Legearen 3. lerrokada)
  - B. Hirigarri den lurra (11/98 Legea, artikulua bakarrekoa, 2. zatia)  
Lur zoru urbanizagarria (20/98 Legea, 4-1. art.)
- III. Gaztelaniazko suelo apto para urbanizar
  - A. \_\_\_\_\_
  - B. Hiritzeko gai den lurra (11/98 Legea, artikulua bakarrekoa, 2. zatia)
  - C. Urbanizatzeko lurra (20/98 Legea, 4-1. art.)
- IV. Gaztelaniazko suelo no urbanizable
  - A. Lur ez hirigarria (5/98 Legea, 1-1. art.)
  - B. Hirigarri ez den lurra (5/98 Legea, 1-1. art.)
  - C. Lurzoru ez urbanizagarria (20/98 Legea, art. 4-1. art.)

Euskararen normalizaziorako prozesuan, nahitaezkoa da hizkuntza ofizial hori eragozpen gehigarririk gabe erabiltzea, hau da, euskara komunikaziorako eta lanerako tresna izatea, eremu espezializatueta eta, horien artean, hirigintzaren eremuan. Helburu

---

<sup>1</sup> Martxoaren 6ko 5/98 Legea, Lurzoruaren Araubide eta Hiri Antolamenduaren gaineko Presazko Neurrei buruzkoa.

<sup>2</sup> Apirilaren 20ko 11/98 Legea, Hirigintza Jardueraren ondoriozko Gainbalioetan Erkidegoak izan behar duen Partaidetza zehazten duen Legea aldaraztekoa.

<sup>3</sup> Ekainaren 29ko 20/1998 Legea, Lurzoruaren gaineko Herri Ondareei buruzkoa.

hori lortzeko, aurretiaz agente guztien arteko eztabaida eta ahalegina ezinbestekoak dira, erabili beharreko terminologia egokia finkatu ahal izateko.

Herri Administrazioa (udal, foru aldundi eta Eusko Jaurlaritzaren bitartez) eskumen arauemaileen titular denez gero eta, gainera, hirigintzako jardueraren zuzendari denez gero, berari dagokio hizkuntzaren normalizaziorako ahalegina gauzatzea, euskara koherentziarekin hirigintzaren arloan finka dadin. Hori dela eta, komenigarri da herri erakunde guztiek lankidetzeta eta elkarlanerako ahalegina egitea, hizkuntzaren arloan, euskaraz erabili beharreko hirigintzaterminologia adosteko.

## **7. ZENBAIT GOGOETA ONDASUN HIGIEZINEN KUDEAKETA KATASTRALARI BURUZ**

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren (OHZ) kudeaketak, familien ekonomiaren duen eraginarengatik, ondokoa sortu du: urtero-urtero herritarrek kexuak aurkeztea Arartekoak azter ditzan. Zerga horrek, izenak ongi adierazten duen bezala, ondasun higiezinaren balioaren gainean ezartzen da, landa ondasunak nahiz hiri ondasunak izan.

Era askotakoak izan dira erakunde honetan OHZren kudeaketa eta ordainarazpenari buruz aurkeztutako gaiak: babes ofizialeko etxebizitzetara aplikatzen ahal zaizkien hobariak, udalek onesten dituzten zerga-tasak eta abar. Hala eta guztiz ere, erreklamazio gehienak zergaren kudeaketa katastralari buruzkoak dira, eta, bereziki, higiezinaren balioespen katastrala zehazteari buruzkoak.

### **A. OHZren kudeaketa katastrala**

OHZren kudeaketan, nahiz eta toki mailako tributua izan, bi administrazioek hartzen dute parte: foru aldundiek eta udalek. Horrek bidea ematen du bi kudeaketa mota bereizteko: kudeaketa katastrala -foru aldundien esku gelditzen da- eta OHZren tributukudeaketa -udalei dagokie-. Hala eta guztiz ere, salbuespen garrantzitsuak egin behar dira horretan guztian. Izan ere, askotan gertatzen da udalek foru aldundien esku uztea OHZren tributukudeaketa; beste batzutan, ordea, Basauriko kasuan bezala, toki entitateak bere gain hartu du OHZren kudeaketa katastrala.

Ondoko prozedurek osatuta dago kudeaketa katastrala: hiri lurzorua mugatzeko, balioei buruzko ponentziak prestatu eta onesteko, balio katastralak finkatu, berraztertu, aldatu eta eguneratzeko, eta udal bakoitzean zergari buruzko errolda bat egiteko prozedurek.

Fase horri dagokionez, zenbait herritarrek aurkeztutako kexuetan erakusten dute nahasturik daudela, higiezina eskualdatu eta hainbat urteren buruan saldutako ondasun higiezinaren OHZren erreziiboak jasotzen jarraitzen dutelako, higiezinaren eskualdatzea eskrituraturik egonda ere, Foru Ogasunari beren tributuko betebeharrak ordaindu ondoren eta Katastro Zerbitzuan ondasun horren titulartasuna aldatzeko eskaria egin ondoren ere. Beste batzutan, higiezinaren katastroan ageri den higiezinaren titularrak ez du sekula inolako erlaziorik izan titularra dela esaten dioten finkarekin. Baina, agian, erreklamazio gehienak iturburua ondokoan datza: jabeen komunitate beraren barruan ere antzeko higiezinaren balioespenean aldeak izatean, batzutan higiezinaren partaidetzari buruzko koefizientei buruzko edo azalerari buruzko datuak elkarrekin trukaturik daudelako eraikina katastroan inskribatu zen une beretik; beste batzutan, ordea, komunitatea osatzen duten higiezinaren datuak aldatzen dituen azterketa katastral baten ondorioz gertatzen da hori.

Erakunde honek egiaztatu ahal izan du espediente hauen oinarrian funtsean dagoena ez dela hiri edo landa ondasun higiezinaren katastroetan dauden datuak oker egoteagatik atsekabea, baizik eta oker hori zuzentzeko zenbat denbora igaro behar den. Horrekin batera, Arartekoari kexu bat aurkezten dioten pertsonak beren ezinegona adierazten digute beste honengatik ere: beren erreklamazioak ezetsi egiten dituzte, erabaki hori

hartzeko dauden arrazoiak eman ere gabe, eta horrela ezin diote inolaz ere aurka egin Administrazioak hartutako erabakiari. Horri dagokionez, maiz erabiltzen dira modu jakin bateko komunikazioak, non higiezinaren katastroan finkaren balioari eta kokapenari buruz dauden datuen ondotik halako formula orokor bat ematen baita; haren ondorioz baieztatzen da aurrekariak eta dauden datuak azterturik, ez dela bidezkoa katastroa zuzentzea. Erantzun hori, normala denez, ez da aski izaten herritarrarentzat; izan ere, hark jarraitzen du ikusten auzokoak gutxiago ordaintzen duela berak baino, antzeko azalera eta ezaugarriak dituen etxebizitza baten titularra izanik ere, eta, gainera, ez du jakiten, lehen bezalaxe, nondik nora duen bere etxebizitzak erreklamazioa ebazteko erabakian adierazten den balio hori.

Katastro eta balioespen zerbitzuekin izan ditugun harremanen ondorioz, egiaztatu ahal izan dugu zerbitzu horiek hartzen dituzten erabakiek kasuan kasuko higiezinaren katastroak eginiko txosten teknikoen abala izaten dutela. Hala eta guztiz ere, herritarrak ez ditu txosten horiek jasotzen. Arestian aipatu dugun bezala, herritarrak ez baldin badaki zein prozedura erabili den higiezina balioesteko edo hari balioa emateko zein irizpide erabili diren, nekez aurkatuko du hartutako erabakiaren edukia; horrenbestez, oso ere ahulduta dago babes judizialerako benetan duen eskubidea.

Halaber, adierazi beharra daukagu hiru foru aldundiek jo dutela, gutxi-asko, landa eta hiri ondasun higiezinaren katastroetako datuak mantentzeko eta eguneratzeko lanetarako zeharkako kudeaketaren formula erabiltzera. Horrela, bada, zenbait enpresarekin kontratatu da katastroak zati batean edo osorik mantentzeko lana. Egoera horrek hauxe ekarri du berekin: erreklamazio batzuei buruzko erabakia asko luzatzea, izan ere ezin zitziolako erantzuna eman erreklamazioari kontraturiko enpresa horrek erreklamazio-egilearen etxebizitza dagoen sektoreko edo populazioko datuak egiaztatu arte. Egiaztapen horiek oraindik ere ez dira bukatu lurralde historikoren batean, eta horren menpe dago, noski, herritarrek aurkezturiko erreklamazioei buruz erabakia eman ahal izateko.

## **B. Higiezinaren balioespen katastrala egiteko prozesuan gertaturiko gorabeherak**

Arestian adierazi dugun bezala, higiezin baten balioespen katastrala da OHZren zerga-oinarria. Hortik heldu da aldundiek ondasun higiezinari ematen dieten balioaren garrantzia; izan ere, udalen balio katastralaren gainean aplikatuko da udalak onetsitako zerga-tasa, eta, beraz, hortik ere kenduko da herritarrak ordaindu beharko duen tributuko kuota.

Lurralde historiko bakoitzean OHZ araupetzen duten oinarrizko arauak (Bizkaian, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen ekainaren 30eko 9/1989 Foru Araua; Gipuzkoan, uztailearen 5eko 12/1989 Foru Araua; eta Araban, uztailearen 19ko 42/1989 Foru Araua) hauxe ezartzen dute: ondasunen balioespen katastrala ezartzeko ondasunek merkatuan duten balioa hartuko dela erreferentziatzat. Hau da, ondasunek merkatuan duten balioa izango da, hainbat epai-erabakietan egiaztatu ahal izan den bezala, balioespenaren gehieneko muga (Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiaren 1998ko ekainaren 3ko epaia eta Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiaren 1999ko urtarrilaren 29ko epaia).

Hala eta guztiz ere, hiru foru arau horiek higiezin balio katastrala ezartzeko aintzat hartu behar diren printzipioak zehazten badituzte ere, gerta daiteke -hain zuzen ere, gertatzen ere da- bidegabeko aldeak egotea higiezin duten balioetan. Horietako batzuen kasuak aurkeztu izan dizkiote herritarrek Arartekoari.

OHZren oinarrizko arauak ezartzen dute ondokoek osatuko dutela higiezinaren balioa: lurzoruaren balioak eta hartan eraikitako eraikinaren edo eraikinen balioak, halakorik egonez gero.

Etxebizitza bat erosteko orduan ez da berdin zein den eraikinak udalean duen kokapen zehatza, etxebizitzak izan dezakeen izaera historikoa, edo eraikinaren kalitatea nahiz antzintatasuna: foru arauak adierazten dute inguruabar horiek guztiak hartu behar direla aintzat eraikinen balioespen katastrala kalkulatzeko.

Baloratzeko irizpide guzti-guztiak zehaztu eta zenbatekotu dira higiezin balioespenari buruz hiru lurralde historikoetan onetsi diren arau tekniko jakin batzuetan. Ondokoak dira arau horiek: urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretua, ondasun higiezin hiritarren balio katastrala eta balio egiaztatua merkatuko batez besteko prezioen bitartez zehazteko prozedura onartzen duena (1999ko otsailaren 5eko 23 zk.ko GAO); uztailaren 26ko 86/1990 Foru Dekretua, ondasun higiezin hiritarren balio katastrala zehazteko balioespen-arauak eta balioen koadro markoa ezartzeko arauak eta balioak egiaztatzeko erabili beharreko oinarrizko arauak onesten dituen (1990ko uztailaren 19ko 166 zk.ko BAO); eta urtarrilaren 18ko 2/1994 Foru Dekretua, ondasun higiezin hiritarren balio katastrala zehazteko balioespen arau teknikoak eta lurzoruaren eta eraikinen balioei buruzko koadro markoa onesten dituen (1994ko otsailaren 2ko 14 zk.ko ALHAO).

Hala eta guztiz ere, arestian adierazi dugun bezala, xedapen horietan jasotako aurreikuspenek ez dute balio izan bidegabeko aldeak ez gertatzeko katastroetako balioetan. Horrela, bada, berriki eraikitako babes ofizialeko araubideko etxebizitzak titularrek beren atsekabea adierazi izan dute erakunde honetan, beren etxebizitzek ezaugarri berdinak dituzten etxebizitzak katastroko balio bera dutelako, nahiz eta merkatuan etxebizitza horiek babestutako etxebizitzak prezioa baino bi edo hiru aldiz gehiago balio duten. Halaber, etxebizitzak udalen hedapen berriko eremuetan merkatuko prezioan erosi dituztenak ez daude ados etxebizitza horiei katastroan ematen zaien balioarekin; izan ere, OHZren ondorioetarako haien balioa, batzutan, hirien erdigunean dauden etxebizitzak balioaren gainetik baitago, nahiz eta, teoriarik, etxebizitza guztien balioespena higiezin merkatuan duten prezioa erreferentziatzen harturik egin den.

Beren higiezin balioespenean edo higiezin katastroetan bilduriko datuetan akats bat dagoela sinetsirik, herritarrek erreklamazioak aurkezten dituzte foru aldundietako katastro eta balioespen zerbitzuetan; zerbitzu horietan, normalean, etxebizitzari esleitutako balioa zuzen dagoela erantzun ohi diete.

Arazoa higiezin balioespen katastralak eguneratzeko prozesuan du jatorria. Horrela, bada, OHZ arautzen duten foru arauak jarraituz, balio katastralak zortzi urtez behin berraztertzea behar dira. Hala eta guztiz ere, arauetan bilduriko aurreikuspen hori ez da gauzatzen, eta eraikin berriak baloratzeko orduan aintzat hartzen dira foru diputazioek lurzoruak eta eraikinak balioesteko onetsitako arau teknikoak; higiezin zaharrei dagokienez, berriz, lurzoruaren eta eraikinaren balioak eguneratu egiten dira bere garaian balioei buruzko ponentzian bilduriko balioespen-irizpide eta taulei jarraituz, eta balio horiei aplikatuz urtero lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauak onetsitako koefizienteak.

Zehatzago izateko, hauxe ikusten ahal da: Bizkaian eta Gipuzkoan bi lurralde historiko horietako higiezinak baloratzeko erabiltzen ari diren udalen balio-ponentziak hirurogeiko hamarkadaren bukaera aldean edo hirurogeita hamarrek hamarkadaren lehen urteetan onetsi ziren. Hauxe esan nahi du horrek: gure udalen egiturak azken bi hamarkada hauetan erabat eraldatu diren arren, ez direla berraztertu herriek balioei buruz eginda dituzten ponentziak.

Egoera hau dela kausa, erreakzio ezberdinak izaten ari dira hiru lurralde historikoetan. Horrela, bada, Gipuzkoan balioei buruzko ponentzia berrien prestaketa oso aurreratuta dagoen bitartean -uste izatekoa da 2001 urtean sartuko direla indarrean Gipuzkoako udaletan-, Arabako berrazterketa-lanak ez dira homogenoak izaten ari lurralde historiko osoan. Zenbait udal dermiotari, berriki eguneratu dituzte higiezinaren balioa; beste zenbaitetan, ordea, hasi gabe dago oraindik lan hori. Hala eta guztiz ere, lurralde historiko honi dagokionez, kontuan hartu behar da, halaber, udaletako balio-ponentziak laurogeiko hamarkadan zehar berraztertu zituztela. Azkenik, Bizkaian ez dirudi epe laburrean lan horri ekingo diotenik.

### **C. Balioak berraztertze prozedura**

OHZ arautzen duten foru arauak antzeko prozedura definitzen dute hiru lurralde historikoetan balioak berraztertze; prozedura horrek, betiere, balio-ponentzia berriak prestatzea eskatzen du. Balio-ponentzia horiek egiteko lana foru aldundiek egin behar dute. Udal bakoitzak bere ponentzia egiten du, eta katastroko balioak finkatzeko beharrezkoak diren irizpideak, balioespen-taulak eta gainerako elementuak jaso behar dituzte.

Behin balio-ponentziak landu direnean, jendaurreko informazio-aldi bat zabaltzen da. Horretan, hasiera batean, ukitutako udalek hartuko dute parte; gero, herritarrak izango dira jendaurreko erakustaldi horretan egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko aukera izango dutenak.

Behin herritarrek aurkezturiko alegazio eta erreklamazioak ebatzi direnean, Foru Aldundiak onetsiko ditu, azkenik, balio-ponentziak. Gero, kasuan kasuko lurralde historikoaren aldizkari ofizialean argitaratuko dira, bai eta udaletan ere -horietan, ediktu moduan-, katastroko balio berriek indarra hartu aurreko urteko lehenbiziko seihilekoaren barruan.

Are gehiago, foru arauak ezartzen dute onetsitako balio-ponentzien ondoriozko balioak banan-banan jakinarazi behar zaizkiola subjektu pasibo bakoitzari, indarrean sartu aurreko urtearen barruan.

Horri dagokionez, garrantzi handia du herritarrari katastroko balio berria jakinaraztea balio horrek OHZren likidazioan indarra hartu baino lehenago; izan ere, jakinarazpen ezak ez du berez esan nahi formazko omisio hutsa izan denik; are gehiago, herritarra edo zorpekoa indefentsio-egoeran uzten du, higiezinari eman zaion balorazioa aurkatzeko dauzkan aukerak murriztu baitizkiote. Horri buruz, Auzitegi Gorenak, 1997ko azaroaren 19ko epai batean, hauxe azpimarratu zuen: beharrezkoa da katastroko balioa herritarrari alde aurretik jakinaraztea. Gainera, Auzitegi horrek aitortu egiten du herritarrari higiezinaren katastroko balioespena alde aurretik jakinarazi gabe ordainarazitako likidazioak baliorik ez izateko moduko akats bat dutela, eta, beraz, deuseztatutzat jo behar direla. Horrela, bada, ondokoa dio Auzitegi horrek:

“Interesatuak ez badu katastroko balioaren berri (eta, beraz, likidazio hori ezartzeko zerga-oinarriaren berri) izan Kontribuzioaren likidazioa baino **lehen**, indefentsio nabarmena gertatu da interesatu horren interesen aurka, bete ez den formalitate berariazko horren ezaren ondorioz, hain justu ere; izan ere, likidazioaren aurkako aurkapena beranduago gauzatzeko modua izan badu ere (eta hori ez da, katastroko balio horri dagokionez, zeharkako edo bigarren mailako aurkapen bat baizik), aurkapen horrek une horretan berraztertzearen erabakiaren (katastroko balioa finkatzeari buruzkoa) legezkotasuna “ex post facto” bermatu badezake ere, ez du jada haren egokitasuna eta pertinentzia segurtatzeko balio bera, zergatik-eta gerta daitekeelako une egokian aurkatutako alegazio batzuen ondorioz Administrazioaren irizpidea zuzendu edo ponderatu beharrean egotea; alegazio horiek, ordea, berandu aurkezten badira (likidazioa aurkatzeko garaian) eraginkortasunik gabe gertatuko dira ordurako.

(...)

Kontua da zerga-oinarriak (aipatu katastroko balioa iturburu duena) ez izatea eraginkorrak atzera indarrez; bestetik, ahaleginak egin nahi dira subjektu pasiboak zerga-oinarri hori aurkatu ahal izateko, zuzenean, zergaren likidazioa igortzeko ekintzarekin batera indarra hartu baino lehen (...); izan ere, jakinarazpen hori baita interesatuari bidea ematen diona, behar diren garaian eta egokieran, Legeak aurkapenerako eskaintzen dituen bideen bitartez zerga-oinarriaren entitate jakin hori -eta horrekin batera, etorkizuneko tributu-kuota- zehazteko.

Hau da, tributu-betebeharrak dituenak alde aurretiko finkapenaren gaian -eta finkapen horrek erabat kontrastatutakoa behar du izan- indefentsiorik ez izateko daukan eskubidea eta Administrazioak, bere aldetik, tributua likidatzeko -ordainarazpenaren funtsezko elementu zehaztera bideraturiko alde aurretiko entzute hori egin gabe- daukan eskubidea aurrez aurre jarritz gero -kontuan hartzekoa da, bestalde, norainoko eta izaera ezberdineko eskubideak direla bi horiek-, horietako lehenbizikoari eman behar zaio lehentasuna, arestian aipaturiko arauetan azaldutakoa betez, (izan ere, lehenbizikoa bigarrenaren zilegitasunaren aurrekaria baita).

(...)

Balio horiek banan-banan jakinarazi behar zaizkio subjektu pasibo bakoitzari, arestian aipaturiko urtea **bukatu baino lehenago**; hala egiten ez bada, tributu-betebeharrak dituen indefentsioan egon baitaiteke, noiz-eta zerga-oinarria finkatzeko une oso ere garrantzitsuan; aipatutakoa oso funtsezko elementua da tributu-harremanean; finkapen kontrastaturik eta alde aurretikoa ez egiteak egindako likidazioaren deuseztapena ekarri beharko du berekin (izan ere, zerga prestatzeko dinamikan, prozedurazko fase bat falta izan baita, interesatuek parte hartzekoa; fase hori 329/1988 Legeak ezarritako betekizuna da, ordainarazten duen Administrazioak behar den likidazioaren bitartez tributu-zorra zehazteko duen eskubidearen baitan)”.



## Ondorioak

- Foru aldundiek udal dermio jakin bateko higiezin artean katastroko balioespenetan dauden koherentzia ezak zuzendu beharko ditu, aintzat hartuz higiezin bakoitzaren ezaugarriak eta herrigunean duen kokapena. Horretarako, behar diren giza-baliabideak eta baliabide materialak erabili beharko dituzte, hain zuzen ere katastroetako higiezinei buruzko datuak eta deskribapenak eguneraturik mantendu ahal izan dituzten.
- Halaber, ahaleginak egin behar dituzte interesatuek aurkezten dituzten erreklamazioei erantzuna emateko epeak murrizteko.
- Komenigarria da katastro eta balioespen zerbitzuek hartzen dituzten erabakiek beren baitan izatea erabaki hori hartzeko izan diren arrazoien aipamen laburra eta argia; hain zuzen ere, erreklamazioa aurkeztu duen pertsonak ezagutu behar ditu administrazioaren jokaeraren zergatiak, eta, hala behar izanez gero, zergati horien edukia eztabaidatu ahal izango du. Horrela, bada, herritarrari Landa edo Hiri Ondasun Higiezinaren Katastroak prestaturiko txosten teknikoa helarazi behar zaio, hain zuzen ere hartutako erabakiaren oinarria izan delako.
- Azkenik, beren katastroetako balioespenak berraztertzen hasi diren lurralde historikoetako aldundiek eta udalek formula batzuk prestatu beharko lituzkete katastroko balorazioen egokitasunak tributu-kuotan izan dezakeen eraginari aurre egiteko. Horri dagokionez, uste dugu katastroko balorazioen berrazterketak ez lukeela berez ekarri behar herritarrek jasaten duten zerga-presioaren handitzea. Horretarako, komenigarria da, balio berriek indarra hartu baino lehen, foru aldundietan eta ukitutako udaletan behar diren erabakiak hartzea, aplikatu behar diren zerga-tasak egokitzeko eta, beraz, ekitaldi batetik bestera kuotaren gehiegizko igoerak saihesteko.

## 8. EZGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONEI ZUZENDUTAKO ZERGA POLITIKA EAEn

### I- Sarrera

Azken hogei urte hauetan aurrerapauso garrantzitsuak eman badira ere minusbaliotasuna duten pertsonen gainerakoek adina aukera izan ditzaten, oraindik ere ezin esan daiteke Konstituzioak eta hura garatu duten legeek bilatzen duten erabateko gizarteratzearen helburua erdietsi denik.

Konstituzioaren I. tituluko III. kapituluak politika sozial eta ekonomikoaren oinarritzko printzipioak aipatzen ditu, eta **49. artikuluan** ondokoa ezartzen du, hain zuzen ere:

*“Botere publikoek aintzinamendu politika bat aurrera eramango dute, baita tratamendu, berrabiltze eta **elbarri fisiko, zentzu eta psikikoen integrazioa**, hauei behar duten arreta berezia eskainiz eta bereziki babestuko die, Titulu honek hiritargoek eskaintzen dien eskubidearen gozatzeko.”*

Aurreikuspen horren ondorioz ugari izan dira ikuspegi ezberdinetatik, arrakasta handia nahiz txikia izan, funtsezko arauan diseinaturiko helburu hori erdiesten lagundu duten ekimen publikoak; haien artean, tributuei dagozkienak. Ekimen horiek, hala ere, bi ezaugarri izan dituzte: banaketa eta behin-behinekotasuna.

Hain zuzen ere, 1999ko azaroan, Estatuko Herriaren Defendatzailea Erakundeak “Minusbaliatuaren fiskalitatearen orainaldia eta etorkizuna” izeneko txostena aurkeztu zuen. Hartan, Minusbaliatuaren Ordezkarien Espainiako Batzarraren laguntzarekin, erakundeak aztertu nahi izan zuen, **Espainiako tributuzuzenbidearen ikuspegitik**, botere publikoek ezarritako babes-helburu horiek noraino diren egokiak **minusbaliatuentzat**.

Erabakigarria izan da txosen hori -Arartekoaren aurreko jardueren talde zaurkorrenen edo ezberdintasun-egoeran bizi direnen egoera dela-eta ezarritako bideangomendio orokor honek helburu bera izateko, betiere aintzat harturik Estatuaren eta EAEn artean sinaturiko hitzarmen ekonomikoak lurralde historikoetako erakunde eskudunei ematen dien berezitasuna. Hitzarmen ekonomikoa maiatzaren 13ko 12/1981 Legeaz onetsi zen, eta bidea ematen die lurralde historikoetako erakundeei beren lurraldeetan tributuzuzenbide propioa izateko, muga bakarrarekin: hitzarmenean bildutako printzipio orokorrak eta koordinazio printzipioak begiratzea.

Kontua da, azken finean, egun eta EAEn esparruan minusbaliatuei tributuzuzenbidearen arloan ematen zaien tratamendua azaltzea, bi helbururekin hain zuzen ere: alde batetik, argi uztea praktikan egungo antolamenduak sortzen dituen arazoak; bestetik, daukan hutsak antzematea, lurralde komunean indarrean diren arauak begira, askotan. Gero, hala behar denean, arauak aldatzeko proposamenak egingo ditugu.

Izan ere, Arartekoaren iritziz, minusbaliotasuna duten beste pertsona batzuk erabat gizarteratzeko botere publikoek egiten dituzten gainerako politikekin elkar gaineratu gabe, lurralde historikoetako erakunde eskudunek tributuei buruz ematen dituzten arauak helburu hori erdiesteko eginkizun lagungarri oso garrantzitsua eduki behar dute.

## II- Komenigarria da tributua politikaz sozialerako tresna gisa erabiltzea

Estu-estuan tributuen arloa denetik kanpo, minusbaliatuen aldeko bilbadura juridikoari eusten dion egitura juridikoa ondoko oinarritzko hiru multzoek zehazten dute, eskumen eremuaren arabera:

a) Estatuaren eremuan, Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko legea (LISMI izenez ezagutzen dena). Konstituzioaren 49. artikulua du iturri.

b) Autonomiaren eremuan, Gizarte Zerbitzuen Legea (urriaren 18ko 5/1996 legea) eta Irisgarritasuna Sustatzeko Legea (1997ko abenduaren 4koa). Halaber, Eusko Jaurlaritzaren 257/86 eta 85/94 Dekretuak hartu behar dira aintzat; haien bitartez minusbaliatuentzako gizarte zerbitzuen antolamendua arautu zen.

c) Lurralde historikoen eremuan, hasierako erreferentzia azaroaren 25eko 27/1983 Legea da, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundearen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundearen Arteko Harreman»ei Buruzkoa. (Lurralde Historikoen Legea); haren bitartez, gizarte laguntza kudeatzeko ardura foru aldundiei eskualdatzen zaie. Bestalde, horrenbestez, Gizarte Zerbitzuen Institutu Nazionalaren (INSERSO izenez ezagutzen dena) eginkizun eta zerbitzuen eskualdatzea arautzen duen foru dekretua hartu behar da kontuan.

Lege horietako bakarrak ere ez du berariaz ezartzen haietan diseinaturiko helburuak erdiesteko zerga-neurririk.

Horri erantsi behar zaio lege mailako xedapen horietan oro har bildutako aurreikuspenetako batzuek -eta agian haien funtsa bera ere- eraginkortasun gutxi dutela, hain zuzen ere botere publikoek ez dutelako beren gain hartu konpromiso erabakigarriak haiek gauzatu eta betearazteko.

Bada, adibidez, Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko 13/1982 Legeak ezarri bazuen ere soldatapekoen kopuru jakin bat gainditzeko duten enpresetan minusbaliatuen kupo bat egongo dela, ez zen inolako zehapenik erantsi hori betetzen ez duten enpresetan neurria eragingarria izango dela bermatzeko.

Era berean, Irisgarritasuna Sustatzeko Legeak -Eusko Legebiltzarrak aho batez onetsi zuen eta minusbaliotasunen bat duten pertsonen kolektiboaren aldarrikapen nagusietako baten erdiespena izan zen- oraindik ere ez da eragingarria, indarrean bi urtez egon ondoren ere; izan ere, Eusko Jaurlaritzak behar diren zirriborroak prestatu baditu ere, oraindik ere ez ditu hiri inguruneetako, guneko publikoetako, eraikinetako, garraioetako eta informazio eta komunikazio sistemetakoa irisgarritasun baldintzak zehaztea bideratuko luketen arau teknikoak onetsi. Legeak berak ezarritakoa betez, hark indarra hartu eta sei hilabeteko epean egin behar zuen hori.

Ikuspegi honetatik, ezarri diren zerga-neurririk -adibidez, bai Pertsona Fisikoen gaineko Errentari buruzko Zergan, bai Sozietateen gaineko Zergan lan arloko edo lanaz kanpoko oztopoak kentzea errazteari buruzkoak, edo ezgaitasunen bat duten pertsonak lanera sar daitezkeen erraztekoak, edo zenbait zerbitzuri finantzaketa pribatua emateari buruzkoak- justifikatzeko, esan daiteke ez direla soilik eragindako kolektibo baten aldarrikapen hutsa, baizik eta botere publikoek berek sektore mailako lege hauetan ezarritako helburuak.

Esan beharra dago lege hauek alde aurretik egotea baliagarria dela, gutxienez zilegitasun are handiagoa emateko haietan diseinaturiko helburuak erdiesteko bidean

osagarri gerta daitezen edo helburu horiek erdiets daitezen lanaren arloan zerga-neurriak txertatu behar direla gomendatzen dutenei.

Eta puntu honetara iritsita, planteatu daiteke ez ote den komeni tributuak erabiltzea guztiz finantzaketaren arlokoak ez diren helburuak erdiesten laguntza emateko, sektoreari buruzko arauak sakontzen eta hobetzen diren bidenabar.

Konstituzio Auzitegiak berak honelako interpretazioa egin du: jokaera ekonomikoekin loturiko erabaki guztiak ez zaizkio lotu behar efizientzia nahiz efikazia lortzeko helburuari. Zehazki, Konstituzioaren 9.2 artikulua onduz sortzen diren egokitasun eta justizia helburuen barrenean bil daitezke ezgaitasunen bat duten pertsonak gizarteratzeko neurriak, hain zuzen ere botere publiko ezberdinen eraginez. Botere publikoek, hori lortzeko, irispidean dituzten mekanismo guztiak erabili ahal izango eta erabili beharko dituzte, eta tributu-sistema horien arteko bat da.

Lurralde Historikoen Zergen Foru Arau Orokorra berak ere ondokoa aurreikusi du: *“Zergak, dirusarrera publikoak biltzeko bitartekoak izateaz gainera, politika ekonomiko orokorraren tresna ere izan behar dute, gizartearen egonkortasunak eta aurrerapenak eskatzen dituztenei erantzun behar diete eta errenta nazionala hobeki banatzea izan behar dute helburu”*.

Europako Erkidegoaren eremuan, berriz, Ruding (*“sozietateen gaineko zergapetzeari buruzko aditu independenteen batzarraren txostena”*) txostena ez da zerga-pizgarriak ematearen oso aldekoa, eta laguntza zuzenak ematearen zaleagoa da; izan ere, uste du (Sozietateen gaineko Zergari dagokionez), era etengabean mantendutako pizgarri batek merkatua nahas dezaketen jokaerak sor ditzakeela, edo, finean, aurreikusita zegoen helburuak betetzeko eragingarritasunik ez edukitzeko moduan gera daitekeela.

Hori guztia gora behera, ez du oztoporik jartzen horrelako neurriak era moderatuan erabiltzeko.

Aurretik azaldu den bezala, minusbaliotasunen bat duten pertsonen halako onura berariazko batzuk dituzte lurralde historikoen tributu-sistema osatzen duten tributueta barreiaturik.

Funtsean, hiru neurri mota erabili izan dira ezgaitasunen bat duten pertsonen zerga-tratamendua prestatzeko orduan:

a) Lehenbizi, tributuak ezgaitasunen bat duten pertsonen ahalmen ekonomikoetara doitzeko ahaleginetan egindako neurriak, tributu-betebeharrak betetzeko orduan kontuan har dadin ezgaitasun hori izateagatik gerta daitezkeen emendiozko gastua. Neurri horien artean, adibidez, PFEZn norberaren lanaren etekina zehazteko gastuen zergarinketari buruzkoak aipatu behar ditugu.

b) Bigarren mailan, zerga-akuilu gisa funtzionatu behar duten politikak daude, hain zuzen ere ezgaitasunen bat duten pertsonak laneratzeari begira egindakoak. Eredu horretan sartu behar dira langile minusbaliatuei enplegua emateagatik zerga-kenkariak eta lan ingurunea fisikoki egokitzeagatik aplikatzen diren zerga-kenkariak.

c) Azkenik, kolektibo honetako jendeari laguntza eta hezkuntza emateko arloan eta haiek gizarteratzearen arloan aplikatzen diren zerga-babeseko mekanismoak aipatu behar dira: adibidez, soilik minusbaliatuei laguntza, prestakuntza edo lana emateko dauden zerga-onurak eta haiei dohainak edo ekarpenak emateagatik zerga-onurak.

Horietako bakoitza zehaztekoa arrazoiek -justizia eta egokitasuna, desberdintasuna konpentsatzea eta bazterkeria deusezte, eta helburu orokorren arloan ordezkotzeko ekintzak

konpentsatzea- indarrean diraute, eta adituen doktrinaren arabera, onura horiek egotea eta etorkizunean ere mantentzea justifikatzen dute.

### III- Zerga-babesaren hartzaile den kolektiboa legez mugatzea

Tributu nagusietan ezgaitasunen bat duten pertsonen alde ezarritako onurak aztertzeari ekin baino lehen, komenigarria da haien hartzaile den subjektu pasiboa definitzea.

Deigarria da, lehenbizi, ezgaitasunen bat duen pertsonaren egoera aipatzen duten terminoetan ere gertatzen den zehaztasun eza eta banaketa. Minusbaliatua, ezindua, ezgaitua, urria eta abar erabili izan dira maiz, gutxi-asko asmatuta, baita legeen arloan bertan ere, elkarren sinonimo bezala errealitate ezberdinak aipatzeko. Hala jokatuta, logikoa denez, halako nahasmen bat sortu da.

Hori dela eta, nolabaiteko homogeneousasuna erdiesteko asmoz, gizarte zerbitzuen arloko eskumenak dituzten administrazioek Osasunaren Munduko Erakundeak urritasunen, gaigabezien eta minusbaliotasunen nazioarteko sailkapena egin dute; haren arabera:

- **URRITASUNA:** Egitura edo eginkizun psikologiko, fisiologiko edo anatomiko bat galtzeari edo haietan normaltasunik ez izateari esaten zaio.
- **EZGAITASUNA:** Urritasun baten ondorioz, jarduera bat gizaki batentzat normaltzat jotzen den moduan edo muga barrenean egiteko ahalmenik ez izatea edo ahalmen hori murriztua izatea.
- **MINUSBALIOTASUNA:** Gizaki jakin batek daukan desabantaila da, gizarteko rol normal bat (adinarean, sexuaren, eta gizarte eta kultur ingurunearen arabera) betetzeko daukan urritasun edo ezgaitasun baten ondorioz.

Termino horietako batzuk, “elbarriak” esate baterako -Espainiako Konstituzioak 49. artikuluan erabilitakoa-, alde batera utzi dira, zorionez, gaur egun, eta oso gutxi erabiltzen dira dauzkaten oihartzun negatiboengatik eta ez direlako egoki jotzen ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentimenezkoak dituzten pertsonen erabateko gizarteratzea eta onarpena bilatzen duen gizarte moderno baten baitan. Horrela, bada, agerian gelditu da hitzen erabilerak daukan garrantzia, bai eta izan ditzaketen eragin **integratzaileak nahiz baztertzailak**, ezgaitasun baten errealitate jakin bat islatu nahi dutenean.

Hori dela eta, Nazio Batuen Erakundeak errelatoreak “giza eskubideak eta **ezgaitasunen bat duten pertsonak**” azterlanean, “**ezgaitasunen bat duten pertsonak**” terminoa erabiltzearen alde agertzen da. Termino hori formulatzeko irizpide klinikoak ezezik ondokoak ere hartu dira kontuan: ezgaitasunen bat duten pertsonengan eragin eta giza eskubideak betetzerakoan, aukera eta tratuko berdintasuna izaterakoan, eta gizartean parte hartu eta autonomia izateko orduan oztopoak sorrarazten dituzten gai zehatzak. Aurreratu dezagun, beraz, tributu-administrazioei zuzendutako gomendioetako lehenbizikoa izango dena: “ezgaitasunen bat duten pertsonak” terminoa erabiltzea “minusbaliatua” terminoa erabili partez, ezertan kendu gabe unean unean, soilik legearen ondorioetarako, figura horri buruz gure antolamendu juridikoan dauden manuetara jotzeko orduan, termino hori erabili behar izatea eskubide jakin batzuk aitortzeko baldintza gisa.

Izan ere, legearen ikuspegi estu-estua harturik, Gizarte Segurantzaren eremuan ezartzen da **minusbaliatuaren** legezko egoera, eta figura horri eta ez besteri aitortzen zaio eraginkortasun juridikoa antolamendu ezberdinetan, bereziki tributuen antolamenduan, hain zuzen ere aztertzen ari garen horretan.

Bada, tributua araupetzen dituzten foru arauak beren erregelamenduetara jo beharra ezartzen dute, eta haietan bildutako kenkarien onura izan ahal izateko, minusbaliatuaren legezko egoera edukitzea eskatzen dute; hau da, gutxienez ere % 33 minusbaliotasuna izatea eskatzen dute. Maila horretara iristen ez diren pertsonak, legez, ezin dira minusbaliatuztat jo.

Horri dagokionez, derrigorrez aipatu behar dira ekainaren 20ko 1/1994 Errege Dekretu Legegilearen 148.1 artikulua eta 1984ko martxoaren 8ko Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerio Agindua. Azken horren arabera *“ehunekoak erabiliz adieraziko den minusbaliotasun maila zehazteko ustezko minusbaliatuaren ezgaitasun fisikoari, psikikoari edo sentimenetakoari buruzko balioespen bat egingo da, bai eta harengan eragina duten faktore sozial osagarrien balioespena ere. Minusbaliotasunik badagoela joko da egindako balioespenen ondorioz **ehuneko 33 edo gehiagoko** minusbaliotasuna dagoenean.”*

Beraz, minusbaliatuarena da legearen ikuspuntutik definituta dagoen kontzeptu bakarra, eta ez dago indarreko bestelako araurik “elbarria” edo “ezgaitua” bezalako kontzeptuak definitzen dituenik; azken hori, hala ere, “ezgaitasuna” bezalaxe, gizarteak hobeki onartzen dituen terminoak dira pertsona horien gizarteratzeari buruz ardura duten erakunde, elkarte eta kolektiboen esanetan.

Horri gagozkolarik, foru aldundiek berek emandako datuen arabera, “minusbaliatuen” kopuruak, hau da, dauden tributuen onurak izateko aukera duten pertsona ezgaituenak, 10.682 egiten du Araban, 21.727 Bizkaian eta 18.660 Gipuzkoan. (1997, 1996 eta 1995eko datuak dira, hurrenez hurren).

Aparteko aipamena merezi du “elbarritasun” terminoa, eta harekin lotura handia duen “ezintasun” terminoak ere. Horren bitartez, lehenbizikoaren modalitateak definitzen dira, eta biak zehaztuta daude Gizarte Segurantzaren arloan; izan ere, azken Gizarte Segurantzak bi kontzeptu horiek eta minusbaliotasun kontzeptua betidanik bereizi izan ditu.

Elbarritasun terminoak langile baten egoera -lan egiteko ahalmen handia nahiz txikia galtzea ekartzen du berekin- aipatzen du; hori dela eta, alde aurretik lan harremana dagoela auresuposatzen du. Minusbaliotasun terminoaren kasuan, ordea, ez da beharrezkoa alde aurretik harreman hori izatea.

Bi egoera horiek aitortzen dituzten erakunde publikoek eta aitorten horretarako erabili behar den administrazio prozedura arras ezberdinak dira. Minusbaliotasunaren kasuan, Estatua-Autonomi Erkidegoa-lurralde historikoak eskumenen banaketaren ondorioz, foru aldundiei dagokie haiek aitortzea; zergak ordaintzeko elbarritasunari dagokionez, berriz, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalako probintzia bakoitzeko zuzendaritzak dira egoera hori aitortzeko eskumena dutenak.

Bi figura horiek ere ezberdinak dira sortu ohi dituzten eraginei dagokienez ere; izan ere, ezintasun iraunkor bat (elbarritasun modu bat) aitortzeak -edozein dela ere haren maila- berekin ekartzen du interesdunak prestazio ekonomiko bat jasotzea; minusbaliatua izatearen aitortpenak, berriz, ez du berekin zertan ekarri eskubide hori edukitzea.

Hala eta guztiz ere, bi termino horiek elkargune bat dute: Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak aitorturiko elbarritasun iraunkorra homologatzea foru erakundeek aitorturiko minusbaliatu egoerarekin; erabakigarri suertatzen da hori zergei buruzko arauak interpretatzeko orduan, eta, zehazki, PFEZri buruzko arauak interpretatzerakoan. Gizarte Segurantzaren arauak elbarritasun maila bakoitzari dagokion minusbaliotasun maila doi-doi eta ondorio guztietarako zehazten ez badu ere, bai bildu ditu arazoari buruzko aipamen partzialak gaiari buruzko arau ezberdinetan; haien arabera, maila berean jarri dira alde batetik “ehuneko 65 edo gehiagoko minusbaliotasuna” duten pertsonak eta “lan guztietarako erabateko elbarritasuna” zerga-modalitatea aitortuta dutenak, eta, bestetik, “ehuneko 75 edo gehiagoko minusbaliotasuna” dutenak eta “elbarritasun handia” zerga-modalitatea aitortuta dutenak.

Zerga-onura horiek zuzenduta daudenen kolektiboa mugatzeari buruzko atal hau bukatzeko, gogoratu beharra dago ezgaitasun bat sortzen duten arrazoiak ez direla bakarrik sortzetikoak, eta edozein herritarrek nozitu dezakeela egoera hori bere bizitzako une batean nahiz bestean, behin-behinekoz edo betiko: bihotzeko eta hodietako gaixotasunak, gaixotasun neuromuskularrak, trafiko eta lan istripuak, hondamendi naturalak dira, besteak beste, herri garatuenetan “ustekabeko” ezgaitasunak ekartzen dituzten arrazoi nagusiak.

#### **IV- Minusbaliotasunari buruzko zerga-araupetzea Foru Lurraldean**

Euskal Autonomia Elkarteko hiru foru lurraldeetako (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) zerga-arauek ia idazkera bera dute oro har, salbuespen txiki batzuk alde batera utzirik. Hori dela eta, zergei buruzko azterketa egiterakoan, Bizkaiko zerga-arauen artikulua aipatuko ditugu; izan ere, ezberdintasunak Zerga horren kudeaketari baitagozkie.

##### **4.1 Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga**

Lehenbizi, argitu behar da, Estatuaren eta Euskadiren arteko Hitzarmen Ekonomikoa onetsi zuen maiatzaren 13ko 12/1981 Legeari jarraituz, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak (hemendik aurrera PFEZ) autonomia mailako arauen hitzartutako tributu baten izaera duela, subjektu pasiboak ohiko egoitza Euskadin duenean, salbu ez-egoiliarren kasua (azken horiek Estatutako arauen arabera jokatu behar dute).

Abuztuaren 4ko 38/1997 Legeak Hitzarmen Ekonomikoan sortutako aldaketen artean, zergan honetan eskumen berriak eta eskumen handiagoak hartzearena dago; izan ere, araupetzeko autonomia gutxi zuen tributu bat izatetik, araupetzearen aldetik erabateko autonomia duen tributu bat izatera pasatu da.

PFEZri buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Araua, PFEZri buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Araua eta PFEZri buruzko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Araua, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ohiko egoitza duten subjektu pasiboak aplikatu behar zaie hurrenez hurren. Oro har, lurralde komunekoarekin -abenduaren 9ko 40/1998 Legetik heldu da hori- bat datorren likidazio eskema bat zehazten dute, baina aldaketa txiki batzuk egiten dituzte kenkarietan, onuretan eta ehunekoei buruzko tauletan.

Bestalde, zerga-ondorioetarako minusbaliatu egoera aitortuta edukitzeko eskatzen diren betekizunei dagokienez -lehen ere aipatu ditugu-, arauak bat datoz hiru lurralde historikoetan.

Hona PFEZn minusbaliotasunak tratatzeari buruz garrantzitsuenak diren alderdiak:

#### 4.1.a) **Baterako zerga-ordainketa. Famili unitatea zer den**

Hasierako gai gisa, esan beharra dago tutore karguak, funtsean doakoa dena, tutorepekoaren bizitzeko premia larrienak betetzeko erantzukizuna dakarrela berekin, bai eta tutorepekoaren jokaeraren erantzukizun zibil eta penala edukitzearen erantzukizuna ere. Beraz, ez da koherentea kargu hori aitaren eta amaren figurekin batera ez sartzea famili unitatea definitzeko orduan -hala eginez gero, baterako zerga-ordainketaren araubidearen aplikazioa murriztuta gelditzen da ageriko arrazoirik gabe.

#### 4.1.b) **Salbuetsitako errentak**

Ezgaitasunen bat duten pertsonen buruzko Euskadiko foru araupetzea Foru Arauaren 9. artikuluan bilduta dago, eta, ñabardura batzuk alde batera utzita, lurralde komunekoaren idazkera berdina du. Horri dagokionez, artikulua horren idazketa bat dator funtsean lurralde komuneko PFEZri buruzko Legearen antzinako idazkerarekin -ekainaren 6ko 18/91 Legeaz ari gara orain.

Bizkaiko PFEZri buruzko Foru Arauaren 9. artikuluari jarraituz:

*«Errenta hauek salbuetsirik egongo dira:*

*a) Indarkeria ekintzengatik jasotzen diren ez ohiko prestazio publikoak.*

*b) **Ezintasun iraunkor osoa**gatik Gizarte Segurantzak edo haren ordezkotako erakundeek aitorturiko pentsioak, baldin eta zergadunak ez badu beste lanaren edo jarduera ekonomikoen etekinik.*

*Letra honetan azaldutakoaren ondorioetarako, aurreko lerro-aldean adierazitako prestazioetara egokituko dira, helburu bera izanik, borondatezko gizarte aurreikuspen erakundeak bazkide kooperatibisteei errokonozitutako errentak. Kontzeptu horrengatik salbuetsitako zenbatekoa, ezin izango da inolaz ere izan aipatu bazkide kooperatibistek Gizarte Segurantzaren araubide orokorrera afiliatuak egonez gero jasoko luketena baino handiagoa.*

*c) **Klase pasiboko** araubidean daudenentzako ezintasun edo ezgaitasun pentsioak, baldin eta zergadunak ez badu beste lanaren edo jarduera ekonomikoen etekinik.*

*(...)*

*e) Pertsonen eginiko kalte fisiko, psikiko edo moralen ondoriozko erantzun zibilaren kalte-ordainak, legalki edo juridikoki onetsi den zenbatekoan.*

*f) Aurreko letran adierazitako kalte berdinengatik aseguru kontratuen bidez jasotzen diren zenbatekoak, 25 milioi pezetako mugaraino.*

*(...)*

*j) Pertsonak etxean hartzeagatik herri erakundeetatik jasotzen diren zenbatekoak.*



k) 1936-1939 bitarteko gerra zibilaren ondorioz zauriak edo mutilazioak jasan zituzten pertsonentzat alde onartutako pentsioak, dela Estatuko Klase Pasiboen araubidearen bitartez, dela horretarako egindako legeria bereziaren babesean.

l) Kargupeko seme-alabarengatik jasotako prestazioak, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bateratuko II. tituluko IX. kapituluaren araututakoak (ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzazko Errege Dekretuaren bidez onetsitako testu bateratu hori).

(...)

n) Giza immunoeskasiaren birusak jota egoteagatik jasotzen diren edozein motatako laguntzak, maiatzaren 28ko 9/1993 Legegintzazko Errege Dekretuan araututakoak”

Salbuespenen azterketari dagokionez, aipatzekoa da **ezintasun iraunkor osoaren** kontzeptuan jasotako pentsioen salbuespena berriz sartzea -PFEZri buruzko aurreko arauetan zergapekoak ziren horiek, eta lurralde komunean aplikatzekoa den arauetan ere hala dira.

#### 4.1.c) **Lan-etekinak: Etekin garbia eta txikiak**

Lurralde komunean bezala, Euskadiko foru arauetan ehunekoaren txikiak daude lanaren etekin garbia kalkulatzeko orduan, bai eta jada kalkulaturiko etekin garbiaren gaineko txikiak ere; azken horien zenbatekoa arestian aipaturiko etekinen arabera ezarriko da.

Lehenbizi, lanaren etekin garbia kalkulatzeari dagokionez, minusbalioetan izatekotan kontuan hartu beharreko txikiak Bizkaiko PFEZri buruzko Foru Arauko 16. artikuluan daude aurreikusirik; lurralde komunean aplikatu beharreko Legeko 17. artikuluan ezarritako baliokideak badira ere, zenbait aldaketa daude idazkeran eta edukian, hain zuzen ere ondokoaren arabera:

«2. Alabaina, idazti honetan zerrendaturiko diren kasuetan, lanaren etekin osoa aurreko artikuluan zehaztu diren etekinen zenbateko osoari ondoko portzentaiak aplikatuz kalkulatu da:

(...)

b) Foru arau honetako 15.5. a) artikuluan ezarritako laguntzak dirutan jasotakoak direnean, baldin eta aurreneko ekarpenetik bi urte baino gehiago igaro badira, salbu foru arau horretako 15.5.

a) 5. artikuluan aipatzen dituen laguntzetatik eratorritako etekinak badira; kasu horretan laguntzak jaso diren eguna baino bi urteko aurrerapenaz ordaindutako primei dagozkien etekinei bakarrik aplikatuko zaie, 100eko 60. Bi urteko epea ezingo da exijitu laguntzak ezgaitasunagatik jasotakoak direnean.

(...)

d) Ezgaitasunaren laguntzetatik sortutako etekinen kasuan, arau ezarritako modu eta mailatan jasotakoak badira, eta foru arau honetako 15.5. a) 5. artikuluan aipatzen dituen aseguru kolektiboen kontratuetako

*onuradunek jasotakoak badira, 100eko 40 eta ezgai-tasun laguntzetatik sortutako etekinak izan baina aurreko eskakizunak betetzen ez direnean, 100eko 60.».*

Horri dagokionez, 15.5.a).5gn. artikulua ondokoa ezarri zuen:

*«15. artikulua: Lan etekinak*

*5. Lan etekintzat joko dira:*

*a) Ondoko prestazioak:*

*(...)*

*5gn. Pentsio plan eta fondoak araupetzen dituen ekainaren 8ko 8/1987 Legeko lehen xedapen gehigarrian eta horren garapenerako araudian ezarritakoaren arabera, enpresek bereganatu dituzten pentsio konpromisoak bideratzeko aseguru kolektiboen kontratuetako onuradunek erretiroagatik edo **ezintasunagatik** jasotzen dituzten prestazioak, horien zenbatekoek zergetan egotzitako kontribuzioak eta langileek zuzenean egindako ekarpenak gainditzen dituzten neurrian.»*

Horrenbestez, norberaren lanaren etekintzat jotako erretiro- eta elbarritasun-prestazioak bat datoz lurralde komunekoekin (lurralde horretako PFEZri buruzko legeko 16. artikuluan definitzen dira horiek).

Bigarrenik, lurralde komunean bezala, lan-etekin garbietarako oro har ezarritako hobarien igoera bat dago minusbaliotasunik izatekotan; hala eta guztiz ere, muga orokorrak txikiagoak dira, eta hobarien zenbatekoak eta haiek minusbaliotasun kasuan izango dituzten igoerak ere ezberdinak dira.

Honi dagokionez, 19. artikuluan hobari orokor batzuk ezarri dira lan-etekin garbiari buruz, bai lanaren etekin garbien arabera, bai ekitaldian zehar jasotako gainerako errenten etekinaren arabera ere.

Horrela, bada, lanaren etekin garbiak -halakotzat hartuz etekin osoen eta gastu kenkorren alde positibo- ondotik zehazten diren zenbatekoen arabera hobariak izanen ditu:

*«a) Diferentzia 1.250.000 pezetakoa edo hortik beherakoa bada, 625.000 pezetako hobaria ezarriko da.*

*b) Diferentzia 1.250.001 eta 2.500.000 pezeta bitartekoa bada, honako hobaria aplikatuko da: 625.000 pezeta ken aipatu diferentziari 1.250.000 pezeta minoratu ondoren ateratzen den emaitza 0,22rekin biderkatuz ateratzen den zenbatekoa.*

*c) Diferentzia 2.500.000 pezetatik gorakoa bada, 350.000 pezetako hobaria aplikatuko da.*

*2. Zerga oinarrian lanetik ez datozen errentak zenbatzen direnean, eta horiek 1.250.000 pezetatik gorakoak ez badira, hobaria 350.000 pezetakoa izango da.»*

Hobari horiek, ezgaitasunen bat duten pertsonen kasuan, lurralde komunean bezala igoko dira:

*“a) % **100**, aktiboan dauden langile ezgaituentzat, baldin eta beren minusbaliotasun maila % 33koa edo handiagoa izanik eta % 65era iritsi gabe,*

*beren lanpostura joateko edo lana burutzeko beste norbaiten laguntza behar dutela egiaztatzen badute edo mugikortasun mugatuko egoeran daudela egiaztatzen badute.*

*b) % 150, aktiboan dauden langile ezgaituentzat, beren minusbaliotasun maila % 65ekoa edo handiagoa bada.”*

Hala eta guztiz ere, goian aipaturiko igoerak lurralde komunekoez bestelakoak dira; lurralde komunean, txikipenak % 125 eta % 175 dira, eta, are garrantzitsuagoa dena, ez dago % 75ko berariazko txikipenik ehuneko 33 eta ehuneko 65 bitarteko minusbaliotasuna duten pertsonentzat, alde batera utzita beren lantokira joateko laguntzarik behar duten edo lan egiteko laguntzarik behar duten. Euskal foru arauetan, **mugikortasun mugatuko egoera** sartu da. Kontzeptu juridiko zehaztugabea da hori, eta aplikazio praktikoan, gure ustez, arazo ugari sortuko ditu.

Artikulu honetan aurreikusitako hobariaren aplikazioak ez du sortuko lanaren etekin negatiborik.

#### 4.1.d) **Higikorren kapitalaren etekina: gastu kenkorrak eta txikipenak**

Higikorren kapitalaren etekinei Euskadin, oro har, ematen zaien tratamendua ez da lurralde komunekoa tratamenduaz oso bestelakoa.

33. artikuluari jarraituz, ondokoak hartuko dira higikorren kapitalaren etekin osotzat:

*«33. artikulua.- Higikorren kapitalaren etekinen kontzeptua*

*1. Higikorren kapitalaren etekin osotzat hartuko dira hurrengoak:*

*(...)*

*c) Kapitalizazio eragiketetatik eta bizi edo baliaezintasun aseguruaren kontratuetatik ondorioztatutako etekinak, dirua zein gauzak izan.”*

PFEZri buruzko Bizkaiko Foru Arauko 36. artikuluan kapitalizazio eragiketen eta bizi edo elbarritasun aseguruaren kontratuen ondoriozko diruzko higikorren kapitalaren etekinen tratamendua ezarri zen. Bat dator tratamendu hori lurralde komunean aplikatzekoa den PFEZri buruzko Legearen 23.2 artikuluan ezarritakoarekin.

Bestalde, 38.2.c) artikulua ezarri zuen, arau orokor gisa, % 60ko txikipena egingo dela elbarritasun prestazioen ondoriozko higikorren kapitalaren etekinekiko -araz ezarriko diren termino eta mailetan- baldin eta haiek kapital moduan jaso badira. Horretarako salbuespena izango dira 15.5.a) 5gn. artikuluan jasotakoak. Halaber, artikuluan ezarritako gainerako arau bereziak begiratu beharko dira.

*«38. artikulua.- Higikorren kapitalaren etekin osoak*

*1. (...)*

*2. Hala eta guztiz ere, idazati honetan ezarritako kasuetan, higikorren kapitalaren etekin osoa lortzeko ondoren datozen ehunekoak aplikatuko zaizkio kapitulu honetako aurreko artikuluetan zehaztutako etekinen kopuru osoari:*

*(...)*

*c) **Baliezintasun** prestazioetatik ondorioztatutako etekinak, araudiz finkatzen diren baldintza eta mailetan, foru arau honetako 15.5.a) artikuluko 5. idazatian jasotako aseguru kontratuez bestelako onuradunek jasotzen dituztenean, 100eko 40z zenbatuko dira. Baliezintasun prestazioetatik*

*ondorioztatutako etekinak direnean, aurreko baldintzak betetzen badira, 100eko 60z zenbatuko dira.*

*Baliezintasun prestazioak hamabi urte baino gehiagoko antzinasunaz hitzarturiko aseguru kontratuen ondoriozkoak direnean 100eko 30ez zenbatuko dira, baldin eta kontratuaren iraupenean zehar ordaindutako primek halako aldizkakotasun eta erregulartasun bat izan badute, arauz ezartzen diren baldintzetan betiere.”*

#### 4.1.e) **Kenkari pertsonalak eta familiarrak**

PFEZren azken aldaketaren ondorioz lurralde komuneko arauetan kuotako kenkari pertsonalak eta familiarrak deuseztatu eta haien orde gutxieneko pertsonala eta familiarra jarri badira ere -zerga-oinarriaren arinketak dira horiek-, Euskadiko foru arauak oraindik ere aurreko irizpidea mantentzen dute; horrenbestez, kuotako zergarinketa pertsonalak eta familiarrak izaten jarraitzen dute.

Foru Arauaren 71. artikuluan, ondorengoentzat ezarritako zergarinketetan, 74. artikuluko ezgaitasunarengatiko zergarinketan sar daitezkeen 30 urte baino gehiagoko minusbaliatuak daude:

*“1. Zergadunarekin bizi den ahaide bakoitzagatik honako kenkari hau aplikatuko da:*

- a) 55.000 pezeta urteko, lehenengoagatik*
- b) 60.000 pezeta urteko, bigarrenagoagatik*
- c) 80.000 pezeta urteko, hirugarrenagoagatik eta ondorengo bakoitzagatik.*

*Zergadunarekin bizi den hiru urte baino gutxiagoko ahaide bakoitzagatik, aurre-aurreko 1. idazatian ezarritako kenkariaren gain, urteko 25.000 pezetako kenkari osagarria aplikatuko da.*

*2. Ez da kenkarik izango ondorengo egoera baten dagoen ahaide bakoitzarengatik:*

- a) Hogeita hamar urte baino gehiago dituenengatik, ondorengo ahaide horiek foru arau honetako 74. artikuluan jasotzen den kenkaria izateko eskubidea dutenen kasuan izan ezik. (ezgaitasunarengatiko zergarinketa; aurrerago hitz egingo dugu horretaz).*
- b) Dagokion zergaldian, eta urte horretan, lanbidearteko oinarritzko soldatetik gorako errentarik dutenengatik, salbuetsirikoak barne, edo beste familia unitate baten parte hartzen dutenengatik, unitate horretako edozein kidek dagokion zergaldian, eta urte horretan, lanbidearteko oinarritzko soldatetik gorako errentarik badu.*
- c) Dagokion zergaldiaren barne Zerga honen aitortpena aurkezten dutenengatik.»*

#### 4.1.f) **Ondarezko irabaziak edo galerak**

41.3.c) artikulua, Estatuko arauak bezala, ezartzen du ez dagoela ondarezko irabazkin edo galerarik enpresa nahiz partaidetzen irabazi asmoko eskualdaketetan

- Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 10. ataleko 4. artikuluan ezarritakoari jarraituz-, baldin eta eskualdaketa horiek ezkontidearen, aurretikoen edo ondorengoaren alde egin eta eskualdatzen duena ezintasun iraunkorra badu (elbarritasun osoko edo elbarritasun handiko mailan), eta gainera eransten diren gainerako baldintzak betetzen badira.

«41. artikulua. Kontzeptua..

(...)

2. Ondarearen osaketan aldaketarik ez dela izan joko da hurrengo kasuotan:

(...)

c) Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 4. artikuluko 110. idazatian aipatutako enpresa edo partaidetzen musu trukeko eskualdaketa, ezkontide, guraso edo seme-alaben alde egiten direnean, hurrengo baldintza hauek betetzen badira:

*Lehenengoa.- Eskualdatzaileak hirurogeita bost urte edo gehiago izatea, edo ezintasun iraunkorra izatea, bai erabatekoa izan bai baliezigintasun handia izan.*

*Bigarrena.- Eskualdatzailea zuzendaritza lanetan ari bazen, eginkizun horiek eta dagozkien ordainsariak laga izana eskualdaketa unetik beretik aurrera. Eragin horietarako, sozietatearen administrazio kontseiluko kide izate hutsa ez da zuzendaritza eginkizuntzat hartuko.*

*Hirugarrena.- Eskuratzailak mantendu egin beharko ditu, dohaintzaren eskritura publikoaren dataren ondorengo hurrengo bost urteetan zehar, jasotako enpresa edo partaidetzak, baldin eta epe horren baitan hiltzen ez bada. Halaber, eskuratzailak ezin izango du eskuraketa balioa nabarmen murriz dezakeen erabilpenik zein sozietate-eragiketarik gauzatu.*

*Zergadunak jarduera ekonomikoari, berau eskuratu eta gero, lotzen dizkion ondareko elementuak gutxienez eskualdaketa dataren aurreko 5 urteetan zehar etengabe atxikirik egonak beharko dira izan.*

*Mantendu beharreko epea bete ezean eskualdatzaileak bere zerga-egoera arauzkotu egin beharko du, hain zuzen ere epea bete ez duen urteko aitortpenean, eta izandako ondasun irabazi edo galera urte horretan gertatutakotzat joko da.»*

#### 4.1.g) **Ohiko etxebizitzan inbertsioak egiteagatiko kenkariak**

Lurralde komuneko zerga-arauetan gertatzen den bezala, foru lurraldean, ohiko etxebizitzarako kanpoko finantzaketako gastuengatik aplika daitezkeen kenkariak dagokienez, zergadun minusbaliatuek ohiko etxebizitza egokitzeko obrak eta instalazioak egiteko beste kasu bat sartu da. Kenkari horrek -Foru Arauko 77. artikuluan bilduta dago- garapen zehatza du zergari buruzko erregelamenduetan.

Zer dira egokitzeko obrak eta instalazioak?

- Alde batetik, ohiko etxebizitzaren **barruko erreforma** bat egiteko obrak.

- Bestetik, bai eraikineko **elementu komunak**, bai eta finkaren eta bide publikoaren arteko derrigorrezko iraganbideak ere (eskailerak, igogailuak, korridoreak, atalondoak) edo bestelako edozein arkitektura-elementu aldatzeko obrak.

- Azkenik, **sentimen-komunikaziorako oztipoak gainditzeko edo segurtasuna sustatzeko** gailu elektronikoak aplikatzeko behar diren obrak.

Obra eta instalazio horiei buruz alde zuzeneko ziurtagiria eman behar du administrazio eskudunak, hain zuzen ere zergadun horiei duintasunez eta behar bezala bizitzea errazteko behar diren irisgarritasuna eta sentimen-komunikaziorako beharrezkoak direla esanez: gure lurralde eremuan, pertsona bati minusbalotasuneko legezko egoera aitortzeko foru aldundietan dagoen zerbitzu berak eman behar du ziurtagiria.

Berritasun garrantzitsua da kenkaria bai ezgaitasuna duen subjektu pasiboak, bai harekin bizi denak ere aplikatu ahal izango dutela; eraikin bateko elementu komunak aldatzeko obrak ordaindu behar dituzten jabeek ere haiek aplikatzeko eskubidea izango dute.

Hala ere ondokoaren falta nabaritzen da: berariaz sartzea, ohiko etxebizitza aldatzeko arrazoi gisa, aurreko etxebizitza minusbalotasuna daukan pertsonarentzat desegokia izatea. Egoera hori lurralde komunean aurrekusi dira.

Eta oso garrantzitsua da, gure ikuspuntutik, kenkaria aplikatzeko eskubidea ematea ere zergadun minusbaliatuak errentan, azpierrean edo usufuktuan daukan etxebizitzan egin beharreko egokitze-obrak eta -instalazioak.

#### 4.1.h) **Ezgaitasunarengatiko kenkaria**

Lurralde komuneko arauetan ez bezala, Bizkaiko Foru Arauan berariazko kenkari bat dago ezgaitasunarengatiko kuotan; kenkari hori ondokoei aplikatu ahal izango zaie: arauan zehaztutako minusbalotasunen bat duten zergadunei, ondorengoei, aurretikoei nahiz tutoretzapekoei, bai eta 65 urtetik gora izan, zergadunarekin bizi eta laguntza behar duten pertsonen ere.

Kenkari hori 74. artikuluan jasota dago. Hona:

*“1. Zergadun bakoitzeko eta, hala balegokio, edozein adineko ondorengo edo aurreko ahaide bakoitzarengatik aplika daiteke kenkaria, betiere aipatutako hauek eta dagokion zergaldiaren garaian, urteko lanbidearteko oinarrizko soldatetik gorako errentarik ez badute eta jaiotzez edo geroztik itsu, mutilatu edo elbarritu fisiko edo psikiko bilakatu badira, betiere dagokion araudiari jarraiki, ezartzen den ezgaitasun mailaren arabera. Aurreko artikuluetan xedatutakoaren arabera legezkoen kenkari horietaz gain 62.000 pezetako beste kenkari bat aplikatuko da.*

*2. Era berean, kenkari hau aplikatu ahal izango da, minusbalotasuna jasaten duen pertsona hori zergadunaren mende, adingabekoen babespenari dagokionez gai den Erakunde Publikoaren aurrean hitzartutako eta dirutrukerik gabe etxean hartu edo tutoretzan duen adingabekoengatik, eta aurreko idazatian adierazitako errenta eta elbarritasun maila ematen direnean.*

*3. 65 urte edo hortik gora izan eta zergadunarekin bizi dadin pertsona bakoitzeko, pertsona horrek inoren laguntza behar badu edo araudiz erabagi dadin mailatik gorako mugitzeko ezintasuna badu, urtero Foru Arauz ezar dadin zenbatekoaren arabera kenkaria egin ahal izango da.*

*Ez da kenkari hori egin ahal izango zergadunaren edo ezinduaren errentak araudiz ezar dadin kopurutik gorakoak badira.*

*Kenkari hau eta 73. artikuluan eta artikuluan honen 1. idazatian agertzen direnak ezingo dira batera egin.”*

Beraz, manu honek ez du barne hartzen ezgaitasunen bat duen pertsona aurretikoa edo ondorengoa, esanahi hertsian, ez izateko kasua, baldin eta pertsona hori 65 urtetik gorakoa ez bada. Horrenbestez, kenkari horretatik kanpo gelditzen dira subjektu pasiboarekin bizi diren 65 urtetik beherako aldeko ahaideak (anai-arrebak, osaba-izebak, ilobak...), minusbaliatuak izatearen legezko egoera aitortuta badute ere.

*“4. Kenkari hau izateko eskubidea ematen duten pertsonak zergadun batzuren mende daudenean, kenkaria zati berdinetan hainbanatuko da zergadun bakoitzaren artean.*

*Ezgaitasuna duen pertsonak ez badu zerga honen aitortpena egiten, eta zenbait zergadunen mende dagoenean, kenkaria zati berdinetan hainbanatuko da zergadun bakoitzaren artean.»*

#### 4.1.i) **Minusbaliotasunen bat duten pertsonen alde eraturiko pentsio-planak eta gizarte aurreikuspeneko entitateak**

Minusbaliotasunen bat duten pertsonen alde borondatez eraturiko pentsio-planen eta gizarte-aurreikuspeneko entitateei egindako diru-ekarpenen buruzko arauak Foru Araueko hirugarren xedapen gehigarrian bildu dira, estatuko arauen antzeko terminoak erabiliz baina Euskadiko borondatezko gizarte-aurreikuspenen araupetzeak berekin ekartzen dituen berezitasunekin. Hona haien idazkera:

*“1. Minusbaliotasuna duten pertsonen aldeko borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeei eta pentsio planen eginiko ekarpenak, arau bidez finkatzen diren modu eta baldintzetan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarrian murriztu ahal izango dira, honako gehienezko muga hauez:*

*a) Partaide bakoitzak berarekiko ahaidetasun harremana zuten pertsonen alde egindako urteko ekarpenak, 1.100.000 pezetako mugaz. Hori guztia, euren borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeei eta pentsio planen egin dakizkiekeen ekarpenen kalterik egin gabe, foru arau honetako 62. artikuluan finkatutako muga arabera.*

*b) Minusbaliotasuna duen pertsona bakoitzaren aldeko urteko ekarpenak, norbere ekarpenak barne, 2.200.000 pezetako mugaz. Minusbaliatuak berak egindako ekarpenak eta beste pertsona batzuek bere alde egindakoak aldi berean biltzen direnean, lehenik eta behin minusbaliatuak berak egindako ekarpenak murriztu beharko dira, eta beroriek adierazitako 2.200.000 pezetako muga horretara iritsiko ez balira bakarrik murriztu ahal izango dira beste pertsona batzuek horien zerga oinarrian bere alde egindako ekarpenak, ahaidetasun gertutasunaren arabera, minusbaliatu beraren alde ekarpenak egiten dituzten pertsonen gauzatutako murrizpenek inola ere 2.200.000 pezetako kopurua gainditzerik ez dutelarik.*

*2. Minusbalia duten pertsonen lortutako xedapen honek aipatzen dituen borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakunde eta pentsio planen ondoriozko eta 1999. urteko urtarrilaren 1az geroztik egindako ekarpenen*

dagozkien laguntzek, lanbidearteko oinarrizko soldata bikoizterainoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren murrizpena izango dute.

**3.** Xedapen gehigarri honetan ezarritako zerga araubidea aplikatzeko, pentsio planek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Legearen xedapen gehigarrietatik hamazazpigarrenean finkatutako betekizun, ezaugarri eta baldintzak bildu beharko dituzte.

**4.** Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeei dagokienez, ekarpenak minusbaliatuaz bestelako pertsona batek ere egiten dituen xedapen gehigarri honetan ezarritako zerga araubidea aplikatzeko, honako betekizun hauek konplitu beharko dira:

a) Ekarpentak 100eko 65 edo goragoko minusbaliotasunaren legezko baldintza duten pertsonen alde egin daitezela eta horiek edozein egoerarako onuradun bakar eta ezeztaezinak izan daitezela.

b) Minusbaliatuarekin zuzeneko edo zeharko harremanak, hirugarren mailara arte, berori barne, egon daitezela.

c) Laguntzak errenta moduan jaso daitezela, salbuespenzko egoerak medio, eta arau bidez finkatzen diren baldintzetan, kapital moduan jaso daitezkeenean izan ezik.

**5.** Gizarte aurreikuspeneko mutualitateen bitartez bideratutako erretiro planen ekarpen eta laguntzak, zergari dagokionez, xedapen gehigarri honetan finkatu bezala hartuko dira, betiere plan horiek bertan finkatutako betekizun subjektiboak, ekarpen mugak eta errenta moduko jasotzea betetzen badituzte.”

PFEZri buruzko atal honetan esandakoak laburbilduz, esan dezakegu estatuko zergarekiko dauden aldeak foru arauaren eta Estatuko arauaren artean 1998tik aurrera dauden egitura-ezberdintasunen ondorio direla, eta horrek askoz ere zailago egiten duela ezgaitasunen bat duen pertsonak lurralde batean eta bestean duen zerga-egoeraren alderaketa. Betiere, adierazi beharra dago kuotako kenkariak berdin onuragarriak izaten direla praktikan eta zerga-oinarriko zergarinketek kuotan duten jasanarazpena subjektu pasiboaren errentaren arabera izaten direla. Hau da, zergarinketetan zenbat eta handiagoa izan zamaren batez besteko tasa orduan eta handiagoa izango da kuotak hark duen jasanarazpena.

**Hori guztia gorabehera, ondoko adibideetan egiazta daiteke ezgaitasuna duten pertsonen egoera okerragoa dutela PFEZko subjektu pasibo gisa euskal arauak aplikatzen direnean:**



**1. ADIBIDEA. EZGAITASUNIK EZ DUEN LANGILEA, SOLDATA BAKARRA, BI SEME-ALABA, ALOKAIRUA**

<b>SOLDATA GARBIA</b>	<b>LURRALDE KOMUNA</b>	<b>EUSKADI</b>	<b>ALDEA</b>	<b>NAFARROA</b>	<b>ALDEA</b>
3.000.000	229.200	141.000	-88.200	147.000	-82.200
4.000.000	469.415	405.000	-64.415	411.400	-58.015
5.000.000	752.415	705.000	-47.415	691.400	-61.015
6.000.000	1.035.860	1.118.400	82.540	1.014.600	-21.260
10.000.000	2.641.250	2.763.200	121.950	2.692.800	51.550

**2. ADIBIDEA. EZGAITASUNEN BAT DUEN LANGILEA, SOLDATA BAKARRA, BI SEME-ALABA, ALOKAIRUA**

<b>SOLDATA GARBIA</b>	<b>LURRALDE KOMUNA</b>	<b>EUSKADI</b>	<b>ALDEA</b>	<b>NAFARROA</b>	<b>ALDEA</b>
3.000.000	0	0	0	72.000	72.000
4.000.000	167.700	197.750	30.050	336.400	168.700
5.000.000	407.700	485.500	77.800	616.400	208.700
6.000.000	679.896	884.500	204.604	939.600	259.704
10.000.000	2.075.938	2.470.200	394.263	2.617.800	541.863

**3. ADIBIDEA. EZGAITASUNIK EZ DUEN LANGILEA, SOLDATA BAKARRA, BI SEME-ALABA**

<b>SOLDATA GARBIA</b>	<b>LURRALDE KOMUNA</b>	<b>EUSKADI</b>	<b>ALDEA</b>	<b>NAFARROA</b>	<b>ALDEA</b>
3.000.000	229.200	240.000	10.800	246.000	16.800
4.000.000	469.415	504.000	34.585	510.400	40.985
5.000.000	752.415	804.000	51.585	790.400	37.985
6.000.000	1.035.860	1.118.400	82.540	1.113.600	77.740
10.000.000	2.641.250	2.763.200	121.950	2.918.300	277.050

#### 4. ADIBIDEA. EZGAITASUNEN BAT DUEN LANGILEA. SOLDATA BAKARRA. BI SEME-ALABA

SOLDATA GARBIA	LURRALDE KOMUNA	EUSKADI	ALDEA	NAFARROA	ALDEA
3.000.000	0	46.750	46.750	171.000	171.000
4.000.000	167.700	296.750	129.050	435.400	267.700
5.000.000	407.700	584.500	176.800	715.400	307.700
6.000.000	679.896	884.500	204.604	1.038.600	358.704
10.000.000	2.075.938	2.470.200	394.263	2.843.300	767.363

Bestalde, gaixotasun gastuei buruzko kenkariak desagertu direnez, ezinezko egiten zaie ezgaitasunen bat duten pertsoneri, zati batean behintzat, beren egoerak berekin ekartzen duen emendiozko kostua berreskuratzea; ezin da ontzat jo lan-etekin garbieten aurreikusitako zergarinketa-ehunekoek eginkizun hori betebeharr hori dutenik.

#### 4.2 Sozietateen gaineko Zerga

PFEZrekin gertatzen den bezala, Sozietateen gaineko Zerga arauteria autonomoko itunpeko tributua da.

Sozietateen gaineko Zergaren araupetzea ondokoetan jasota dago: Arabako 24/96 Foru Arauan eta 51/97 Foru Dekretuan, Bizkaiko 3/96 Foru Arauan 81/97 Foru Dekretuan eta Gipuzkoako 7/1996 Foru Arauan eta 45/97 Foru Dekretuan.

Bizkaiko Foru Arauaren 45.6 artikuluan, enplegua sortzeagatik zenbait kenkari aurreikusi dira (600.000 PTA eta 750.000 PTA, kasuaren arabera, kontratu mugagabeengatik). Laguntza horiei 500.000 PTAko zenbatekoa gehitu behar zaie minusbaliatuak kontratatzeagatik, ondoko xedapenen arabera:

*«6. Artikulu honetan lana sortzeagatik ezarritako kenkariak 500.000 pezetatan gehituko dira kenkaria izateko eskubidedunak lan merkatuan sartzeko zailtasundunetarikoa badira, horri buruzko araudietan oharrekin denaren arabera.»*

Gaiari buruzko argitasun batzuk emateko, lurralde komunean 800.000 PTAko berriazko kenkaria dago langile minusbaliatuak kontratatzeagatik.

Bestalde, Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko foru arauak Sozietateen gaineko Zergaren kuota osoaren % 90ko hoberia aurreikusten dute, jarduketa sozialaren lehenbiziko bost urteetan, zergen aldetik babestuta dauden lan elkartuko kooperatibei, baldin eta gutxienez bazkideen % 50 kooperatiba eratzeko unean langabezian zeuden minusbaliatuak badira.

Zerga honetan bereziki deigarria da kuotako zergarinketak edo kenkariak ez izatea besteak beste arkitektura-oztopoak edo sentimenezko oztopoak deusezteko inbertsioen kasuan, hain zuzen ere ezgaitasunen bat duten enplegatuen mugimenduak errazteko balio duten inbertsioen kasuan.

### 4.3 Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga

Hau ere arauteria autonomoko itunpeko tributua da. Beraz, lurralde historikoetako erakundeek eskumen osoa dute hura araupetzeko.

Ondokoetan araupetuta dago: Bizkaiko 3/1993 Foru Dekretu Arau-emailean, Gipuzkoako 3/1990 Foru Arauan eta Arabako 25/1989 Foru Arauan.

Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko otsailaren 15eko 2/1989 Foru Arauaren Testu Bateratua onesten duen ekainaren 22ko 3/1993 Foru Dekretu Arau-emailearen arabera, *mortis causa* eskualdatzeetan ahaidetasun arrazoiengatik oinarri likidagarrian egiteko diren txikipenek erantsitako txikipen bat dute, minusbaliotasun fisikoko kasuetarako.

Lurralde komuneko arauetan bezala, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorrari buruzko Testu Bateratuko 148. artikulua aipatzen da minusbaliotasuna zer den definitzeko.

Hona 19.9 artikulua ezartzen duena:

*“Mortis causa’ eskuraketetan, aurreko idatz-zatietan ezarritakoa ezertan kendu gabe, oinarri likidagarria lortzeko zerga-oinarrian aplikatuko da ondoko ahaidego-graduaren arabera kerkaria:*

- a) I. taldea. Bigarren graduako aldeko ahaideen eskuraketak, 5.000.000 pezeta.
- b) II. taldea. Hirugarren graduako aldeko ahaideen, aurretikoan eta ondorengoan eskuraketak, 2.500.000 pezeta.
- c) III. taldea. Laugarren graduako aldeko ahaideen, gradu urrunagoko ahaideen eta besteren eskuraketetan, ez dago kerkaririk.

*Minusbaliotasun fisikoa, psikikoa edo sentimenezkoa duten pertsonen eskuraketetan, 10.000.000 pezetako kerkaria aplikatuko da, ezertan kendu gabe pertsona horrek kausatzailearekin daukan ahaidego-graduari dagokion kerkaria.*

Ondorio hauetarako, kerkaria jasotzeko eskubidea duten minusbaliatutzat joko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko legeetan ezarrita dagoenaren arabera zerga horretan kerkaria aplikatzeko eskubidea dutela jotzen diren pertsona guztiak.»

Lurralde Komunean ez bezala, ahaidetasun mailen arabera zerga-oinarriaren txikipen orokorrak soilik aldeko ahaideei buruzkoa da; izan ere, zuzeneko oinordetzaren kasuan (ezkontidea, aurretikoa, ondorengoa, adopzio-hartzailea edo adoptatutakoa), lurralde historikoetan ez da Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga aplikatuko.

### 4.4 Balio Erantsiaren gaineko Zerga

Aurreko zergak ez bezala, Balio Erantsiaren gaineko Zerga Estatuan une bakoitzean ezartzen diren eduki-arauen eta formazko arauen arabera itunpeko tributu bat da; beraz, edukiaren aldetik ez da alderik izango lurralde komuneko arauetarako.

Zerga hau Bizkaiko 7/1994 Foru Arauan, Gipuzkoako 102/1992 Foru Dekretuan eta Arabako 12/1993 Foru Dekretu Arau-emailean araupetuta dago.

Azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauan minusbaliatuei buruzko berariazko araupetzea ezarri da, hain zuzen ere ondoko artikuluetan:

- e) Barneko eragiketen salbuespenak:
  - 20. artikulua. Bat. 8gn. c) letra
  - 20. artikulua. Bat. 11gn. b) letra
- f) Inportazioari buruzko salbuespenak:
  - 45. artikulua.
- g) Elkartebarenen eskuraketen salbuespenak:
  - 26. artikulua. Bi.
- h) Zerga-tasak:
  - 91. artikulua. Bat. 1.6gn.
  - 91. artikulua. Bi. 1.4gn.
  - 91. artikulua. Bi. 1.5gn.
  - 91. artikulua. Bi.2.

Esan dugun bezala, Foru Araua bat dator zehatz-mehatz lurralde komuneko arauekin, bai forman eta bai edukian ere; beraz, kasu honetan, estatuko araua aztertuko dugu.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari (hemendik aurrera, BEZ) buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legeak hainbat onura ezarri ditu ezgaitasunen bat duten pertsonentzat. Horien ondorioz, zenbait salbuespen, bai barrenekoak bai inportazioari buruzkoak nahiz elkartebarenen eskuraketei buruzkoak, eta zerga-tasa txikituak ezarri dira. Hona haiei buruzko eskema bat:

### **a) Barreneko eragiketetan aplikatu beharreko salbuespenak**

37/1992 Legeko 20. artikulua ondoko barreneko salbuespenak ezarri ditu hezkuntza bereziko zerbitzuengatik eta ezgaitasunen bat duten pertsonen laguntza emateko zerbitzuengatik:

*«Bat. Zerga honetatik ondoko eragiketak salbuetsiko dira:*

*(...)*

*8. Zuzenbide publikoko entitateek edo gizarte izaerako entitate edo establezimendu pribatuek burutu eta ondoren adieraziko diren gizarte urgazpeneko zerbitzugintzak:*

*(...)*

*c) Minusbaliadunen bat duten pertsonentzako hezkuntza berezia eta urgazpena.*

*(...)*

*Salbuespenean bildurik daude aipatu establezimendu edo entitateek, nork bere baliabideekin edo besterenekin, elikadura eta ostatu zerbitzuak edo aurrekoen osagarri diren garraio-zerbitzuak ematea.*

*11. Zuzentzako Ministraritzako erregistro egokian izena emanda duten erlijio-entitateek, beren xedeak betez, burutzen dituzten pertsonal-lagapenak, ondoko iharduerak egitea helburu dutela:*

*a) (...)*

*b) Atal honen 8. zenbakian bildurik dauden gizarte-urgazpenekoak.*”

Artikulu bereko hirugarren idatz-zatian entitate edo establezimendu bati izaera soziala aitortzeko behar diren betebeharrak ezartzen dira:

a) Irabazi helbururik ez edukitzea eta, hala denean, inoiz lor daitezkeen mozkinak izaera bereko jarduera salbuesiak egiteko erabiltzea.

b) Lehendakari, ugazaba edo legezko ordezkariaren karguek dohainekoak izan beharko dute eta ez dute eduki beharko interesik ustiatetik emaitza ekonomikoetan, ez berek berez, ez eta tartean jarritako pertsonaren baten bidez ere.

Hala eta guztiz ere, minusbaliatuei laguntza sozialeko zerbitzuak ematen dizkieten entitateekin loturiko salbuespen hauek “salbuespen mugatuak” izenekoekin barruan daude, hau da, subjektu pasiboari jasandako BEZaren kuotetan kenkariak aplikatzeko bidea ematen ez duten horietan.

Zergak berezko duen mekanismo horrek berekin ekartzen du zerbitzua ematen duenak zerbitzu horren kostuetan sartzea jasandako BEZa, hain zuzen ere kendu ahal izan ez duen hori. Horrenbestez, zerbitzu horien prezioa merkatzeko bilatzen zen eragin hori murrizten da. Eragin hori lor zitekeen baldin eta salbuespen horiek “osoak” izenarekin ezagutzen direnetakoak balira. Salbuespen osoak dira subjektu pasiboari jasandako BEZaren kuotak kenkari gisa erabiltzeko bidea ematen diotenak.

- Hezkuntza bereziko zerbitzuak eta minusbaliotasuna duten pertsonen laguntza zerbitzuak emategatiko salbuespena.

Salbuespen horretaz balia daitezke zuzenbide publikoko entitateak eta entitate edo establezimendu pribatuak, baldin eta -azken kasu horretan bakarrik- izaera soziala badute.

Salbuespena zerbitzuak ematearen zerga-egitateari dagokio soilik -ez ondasunak emateari-, eta, bereziki, hezkuntza bereziko eta minusbaliotasuna duten pertsonen laguntza emateko zerbitzuak emateari. Gainera, salbuespen hori ondokoetara ere zabaltzen da: entitate horiek, beren baliabideekin edo kanpoko baliabideekin, ematen dituzten elikadura, lojamendu edo garraio zerbitzuetara, baldin eta hezkuntza bereziko eta minusbaliotasuna duten pertsonen laguntzeko zerbitzuei erantsitakoak badira.

Salbuespenetik kanpo egongo dira, Tributuen Zuzendaritza Nagusiak ezarritako doktrinari jarraituz, lanerako zentroek hirugarrenei emaniko zerbitzuak, zerbitzu horiek langile minusbaliatuen bitartez ematen badituzte. Kanpo geratuko dira ere zentro horiek hirugarrenei kontraprestazioaren bitartez gauzaturiko ondasunen ematea.

Salbuespen hau aplikatzeko derrigorrezkoa da alde aurretik tributu-administrazioak hura aitortzea. Zehazkiago, entitate edo establezimendu pribatuek edukiko dute betebeharrak izan ere, salbuespenaz baliatu ahal izateko, alde aurretik Administrazioak izaera sozialekoak direla deklaratu beharko baitu. Horrenbestez, ez da zerbitzu horien ematea alde aurretiko aitortpena behar duena, baizik eta zerbitzu horiek ematen dituzten entitateak.

- Erljio-entitateetako langileak hezkuntza bereziko eta minusbaliotasuna duten pertsoneri laguntzeko lagatzeagatiko salbuespena.

Salbuespen hau zeharka baizik ez da onuragarria ezgaitasunen bat duten pertsonentzat; hain zuzen ere salbuetsizat jotzen dena erljio-entitate batek beste entitate bati edo beste pertsona bati zerbitzuak ematea da, eta entitate edo pertsona hori izango da azken hartzaileari hezkuntza bereziko edo laguntzako zerbitzu horiek emateagatik ordainsari bat jasoko duena. Salbuespena, beraz, erljio-langileak lagatzeari buruzkoa da soilik; bestela, lagatze horri BEZaren tasa orokorra zegokion.

Garrantzitsua da azpimarratzea salbuespen hori ez duela, inolaz ere, ez determinatzen ez baldintzatzen 20.Bat.8gn. artikuluko salbuespenak -hezkuntza berezia eta minusbaliotasuna duten pertsonentzako laguntza-; hori dela eta, erljio-langileen lagapenaren hartzaile den entitateak edo establezimenduak ez du zertan izaera soziala izan, eta irabazi asmorik duen enpresa bat ere izan daiteke, ezertan ere kendu gabe langileak lagatzeagatiko salbuespena. Hori bai, erljio-langileen lagapen horrek bat etorri beharko du erljio-erakundearen helburuak betetzearekin eta hezkuntza-jarduera edo minusbaliotasuna duten pertsoneri laguntza emateko lanarekin edo artikuluko honetan jasotako gainerakoekin.

## **b) Inportazioari buruzko salbuespenak**

BEZari buruzko legeak ezarri du helburu nagusi gisa ezgaitasuna duten pertsoneri laguntzea duten entitateei inportazioa dela-eta salbuespena egiteari buruzko ondoko kasua:

*«45. artikulua. Pertsona minusbaliodunen onurarako inportatzen diren ondasunak*

*Bat. Zergatik salbuetsirik egongo dira minusbalio fisiko zein mentala duten pertsonen hezkuntza, enplegu edo gizarte sustapenerako beren beregi pentsaturiko ondasunen iharduera nagusia honelako pertsonen hezkuntza edo urgazpena duten erakunde edo organismo eskuetsiek burutzen dituzten inportazioak, baldin eta ondasunok dohainik eta merkataritzako xederik gabe bidaltzen bazaizkie aipatu erakunde eta organismoei.*

*Salbuespena ondasun horien ordezkai, elementu edo osagarrien inportazioetara eta haien mantenimendu, kontrol, kalibrazio edo konponketan erabiltzen diren erreminta edo tresnen inportazioetara hedatuko da, ondasunekin batera inportatzen direnean edota haiei dagozkiela identifikatzen denean.*

*Bi. Entitate edo establezimendu onuradunek salbuespena dutela inportatzen diren ondasunak irabazi asmorik gabe mailegatu, alokatu edo lagatu ahal izango dizkiete aurreko lerroaldean aipatu diren pertsoneri, salbuespenaren onuraren kalterik gabe.*

*Hiru. Aurreko lerroaldean aurrikusi denaren kalterik gabe, artikuluko honetan araupetu diren salbuespenei, eta beronetan deskribatu diren xedeei dagokienez, honako Foru Arau honen 44. artikulua 3. atalean xedaturik dagoena aplikatuko da.»*

Bestalde, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua onesten duen abenduaren 29ko 1.624 Errege Dekretuaren 17. artikulua legearen aipatu 45. artikulua garatu zuen. Hona zer dioen:

*«Ondasunen inportazioei dagozkien salbuespenak -Zergari buruzko Legearen 40, 41, 42, 44, 45, 46, 49, 54 eta 58. artikuluetan aipatzen dira-baldintzatzen dituzten administrazio-baimenak inportatzailearen helbide fiskala dagoen lurraldeko Tributu Administrazioaren Estatuko Agentziaren Delegazioan edo Administrazioan eskatu beharko dira, eta ondorioak sortuko dituzte kasuan kasuko erabakiaren egunetik aurrera sortzapena izango duten inportazioei dagokienez, edo, halakorik dagoenean, sortzapenak agertzen duen egunean».*

Hemen aztertzen ari den inportazioa, aipatu salbuespena sortzen duena, behar bezala baimenduta egon eta jarduera nagusi gisa ezgaitasunen bat duten pertsonen hezkuntza edo laguntza ematea jarduera nagusi gisa duten erakundeek edo organismoek egin beharko dute. Halaber, inportatuko diren ondasunak ezgaitasunen bat duten pertsonen hezkuntza, enplegu edo gizarte sustapena bultzatzeko bereziki egindakoak izan beharko dute, eta dohainik eta merkataritza-helbururik gabe igorri beharko dira.

Salbuespenak ondasun horien ordezkotzat piezak, elementuak edo osagarriak eta haiek mantendu, kontrolatu, kalibratu edo konpontzeko erabiltzen diren erreminta edo tresnak ere biltzen ditu, baldin eta ondasun horiekin batera inportatzen badira edo haietarako direla identifikatzen bada.

Gainera, hezkuntza bereziko zerbitzuak emateagatik eta minusbaliotasunen bat duten pertsonen laguntza emateagatik ezarritako salbuespenaren kasuan bezala, Administrazioak aldez aurretik aitortu beharreko salbuespena da. Aitorpen hori, bestalde, erakunde edo organismo bati buruzkoa da, baldin eta helburu gisa minusbaliotasunen bat duten pertsonen hezkuntza edo laguntza ematea badute. Beraz, *stricto sensu*, aipatu helburuen inportazioa ez dago lotuta aldez aurretik administrazio baimena izateari: helburu horiek betekizun duten entitateak dira lotura hori dutenak.

Salbuespena duten ondasun inportatu horiek ezin dira erabili edo maileguan nahiz alokairuan utzi edo lagatu ez kostubidez ez dohainik minusbaliotasuna duten pertsonen hezkuntza, enplegua edo gizarte sustapenaz besteko helburuetarako, salbu eragiketa horiek dohainik egiten direnean eta hartzaileek salbuespena duten ondasun horiek jasotzeko baimena badute; gainera, betiere, egitate hori tributu-administrazioari jakinarazi beharko zaio aldez aurretik.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa betetzen ez bada edo aldez aurretiko baimenaren ematea oinarritzen duten betekizunak jada betetzen ez badira edo arauetan baimena emateko baldintzei buruzko arauak aldatzen badira, zerga ordainaraziko da, inguruabar horiek gertatu ziren eguna erreferentzia hartuta.

### **c) Elkartearreneko eskuraketan salbuespenak**

Inportazioak bezala, Legearen 45. artikulua aipatzen dituen ondasunen elkartearreneko eskuraketak ere salbuetsita daude, 26.Bi artikuluan ezarritakoa betez.:

«Zergatik salbuetsirik daude:  
(...)

*Bi. Titulu honen III. kapitulua dela bide, beti ere Zergatik salbuetsirik inporta daitezkeen Elkartebarneko ondasun-eskuraketak.»*

26.Bi artikulua aipatzen duen III. kapitulua ondasunen inportazioari buruzkoa da; hartan aipatu 45. artikulua ere -hari buruzko iruzkinak egin ditugu lehen- sartzen da. Beraz, hartara jotzea gomendatzen dugu.

#### **d) Ezgaitasunen bat duten pertsonen aplikatu beharreko zerga-tasa txikitua**

Zergari buruzko Legeak 91.Bat.1 artikuluko 6. idatz-zatian ezartzen du 100eko 7ko zerga-tasa txikitua aplikatuko zaiela ezgaitasuna duten pertsonen. Hona zer dioen:

*«Objektiboki ulertuz gizakiaren edo animalien akastasun fisikoak osatzeko soilik erabil daitezkeen tresnak eta osagarriak, betaurreko graduatu eta lentilak barne.*

*Objektiboki ulertuz gizakiaren edo animalien gaisotasun eta eritasunak aurrikusi, diagnostikatu, zaindu, arindu edo sendatzeko soilik erabil daitezkeen sanitatzeko ekoizkinak, materialak, ekipamenduak eta tresneriak. Zenbaki honetan xedatutakoa bigarren atalaren 10. zenbakian aurrikusi denaren kalterik gabe ulertuko da. «*

Halaber, 91.Bi artikuluan ezartzen du ezartzen du 100eko 4ko zerga-tasa aplikatuko zaiela ezgaitasuna duten pertsonen, ondoko kasuetan:

*«1. Ondoren adierazten diren ondasun-emateak, eta Elkartebarneko eskuraketa edo inportazioak:*

*(...)*

*4gn. Trafiko, Ibilgailu Motoredunen Zirkulazio eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onetsi duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzazko Erret Dekretuaren eraskinaren 20. zenbakiak aipatzen dituen minusbaliodunentzako kotxeak, eta haien erabilera eskusiborako gurpil-aulkiak.*

*Gurpil-aulkia behar duten minusbaliodun pertsonak garraiatzeko zuzenean edo moldaketa egin ondoren erabiltzen diren autotaxi edo autoturismo bereziak.*

*Aurreko lerroaldean aipaturiko ibilgailuei zerga-tasa txikitua aplikatzeak eskuratzaileren eskubidearen aurretiazko aintzatespena beharko du, hark ibilgailuaren xedea bidezkotu behar izango duelarik.*

*Lege honen ondoretarako minusbaliodunentzako pertsonatzat joko dira legezko egoera hori dutenak 100eko 33ko edo gehiagoko graduak, abenduaren 20ko 26/1990 Legeko bigarren xedapen gehigarriak aipatzen duen baremoari jarraituz.*

*5gn. Pertsona minusbaliodunentzako protesi eta ortesiak.*

*2. Atal honetako 1. zenbakiko 9. idazatiaren lehenengo lerroaldean adierazten diren kotxe eta gurpil-aulkien konponketa-zerbitzuak eta manu berorren bigarren lerroaldean aipatzen diren pertsona minusbaliodunentzako autotaxi eta autoturismoen moldaketa-zerbitzuak.»*



### **Minusbaliatuen autoak eta gurpil-aulkiak**

Minusbaliatuen autoei dagokienez, 100eko 4ko zerga-tasa aplikatu ahal izateko betekizun bakarra da onura honen helburua bat etortzea 339/1990 Errege Dekretu Legegileko eranskinaren 20. artikulua minusbaliatuen autotzat jotzen duenarekin. Ez dago inolako betekizun subjektiborik, esate baterako subjektu pasiboak minusbaliotasuna kreditatzea; izan ere, auto hauen konfigurazio objektiboa ikusirik, minusbaliotasun jakin bat duten pertsonak baizik ezin izanen baitituzte auto hauek erabili.

Gurpil-aulkiei dagokienez, berriz, minusbaliatuek soilik erabiltzeko baldin badira salbuetsiko dira. Zerga-tasa honetaz baliatzeko ez da inolako formalitaterik eskatzen tributu administrazioari horren berri emateari edo hori alde aurretik aitortzeari dagokionez. Bai beharrezkoa da, ordea, saltzaileari kreditatzea 100eko 33 edo gehiagoko minusbaliotasun egoera; horretarako INSERSOren edo autonomi erkidegoetako organo eskudunaren ziurtagiri bat erabil daiteke.

### **Auto-turismoak eta auto-taxiak gurpil-aulkia behar duten pertsonak garraiatzeko**

Kasu hauetan zerga-tasa murriztu bat jasanarazteak berekin ekarriko du autoak zerga-zama txikiagoa izatea, baina, hala ere, pizgarri horrek zeharka baizik ez die onurarik ekartzen ezgaitasunen bat duten pertsonari.

Auto horiek egokitzeko zerbitzuei dagokienez, 100eko 4ko tasa aplika daiteke, egokitzea auto-turismo auto-taxia erosi aurretik nahiz erosi eta gero egin. Halaber, eskubide horretaz baliatzea ez da lotu behar Administrazioak alde aurretik egoera hori aitortzearekin; izan ere, aitorten hori auto-turismoak edo auto-taxiak erosteari baizik ez baitagokie.

### **Protesiak, ortesiak eta barruko inplanteak**

Protesiek, ortesiek eta barruko inplanteek minusbaliotasun duten pertsonentzat izan beharko dute; minusbaliotasuna duten pertsonentzat joko dira 100eko 33ko edo gehiagoko graduaren legezko egoera dutenak. Gainera, aparatu hauek tasa supermurriztuaren onuraz baliatzen den pertsonaren minusbaliotasunaren arrazoia arindu edo sendatzea izan beharko dute helburu.

Baldintza horiek betetzen ez badira, kontuan hartu beharko da 100eko 7ko tasa murriztua aplikatzen ahalko zaiela -protesiak, ortesiak edo inplanteak diren alde batera utzirik-, soilik Objektiboki ulertuz gizakiaren gaisotasun eta eritasunak aurrikusi, diagnostikatu, zaindu, arindu edo sendatzeko soilik erabil daitezkeen sanitatzeko ekoizkin, material, ekipamendu eta tresneriei. (BEZari buruzko Legearen 91.BAT.1.6gn.).

## **4.5 Garraibide Jakin Batzuen gaineko Zerga Berezia**

Alor honetan aipatzekoa da Garraibide Jakin Batzuen gaineko Zerga Bereziari edo Matrikulazioen gaineko Zergari dagokionez minusbaliotasunaren tratamendua Euskadin lurralde komuneko bera dela.

Foru lurraldean Zerga Bereziei buruzko 38/92 Legeko 66.1.d) artikulua aplikatu behar da; hartan ezartzen da minusbaliatuen izenean matrikulaturiko ibilgailuak salbuetsita daudela.

Ezgaitasunen bat duten pertsonentzat Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legeak ezarritako onurak BEZari buruzko 37/1992 Legearen ondorioz handituriko zerga-tasa deuseztatzearen isla dira. Garraibide Jakin Batzuen gaineko Zerga Bereziaren (GJBZB, hemendik aurrera) egiturak zerga-egitate berri bat ezarri zuten: edozein ibilgailuren behin betiko lehen matrikulazioa. Horrek behar den askatzea eskatzen du jasandako zerga-presioa berdintzeko -1993ko egoerarekin alderatuta- ezgaitasunen bat duten pertsonak zenbait ibilgailu erosteko orduan; beraz, salbuespenaren konponbide teknikoa hautatu da kasu batean (soilik minusbaliatuek erabiltzeko diren ibilgailuak), eta ez zergapetzea bestean (minusbaliatuentzako autoak).

38/1992 Legeak, 65. artikuluan, ezgaitasunen bat duten pertsonen kasua ez zergapetzea jasotzen du. Hona:

*«1. Zerga hau ordaindu beharko dute:*

*Bide edo lur publikoetan barrena zirkulatzeko motordun auto-ibilgailu berri nahiz zaharren Espainiako lehenbiziko behin betiko matrikulazioa, ondoko kasuan salbu:*

*(...)*

*5º Trafiko, Ibilgailu Motoredunen Zirkulazio eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onetsi duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Erret Dekretuaren eraskinaren 20. zenbakiak aipatzen dituen minusbaliodunentzako kotxeak, eta haien erabilera eskusiborako gurgil-aulkiak.»*

Minusbaliatuen autoen lehen behin betiko matrikulazioa ez zergapetzearen kasu honetaz baliatzeko, ez da eskatzen tributu administrazioak alde aurretik aitortpena egitea. Onura hori erabili ahal izateko betekizun objektibo bakarra dago: matrikulatu nahi den ibilgailua bat etortzea 339/1990 Errege Dekretu Legegilearen eranskineko 20. zenbakiak minusbaliatuen autotzat jotzen duenari egokitzea.

Antzeman daiteke ez dagoela inolako betekizun subjektiborik (esate baterako, subjektu pasiboak minusbaliotasuna kreditatzea); izan ere, ibilgailu horiek duten konfigurazio objektiboa ikusita, minusbaliotasun jakin bat dutenek baizik ezin izango dute erabili.

Bestalde, Lege horren 66. artikulua ezarri bezala, ondoko salbuespena ezarri da soilik minusbaliatuek erabiltzeko diren ibilgailuen kasuan:

*“1. Ondoko garraibideetako behin betiko lehen matrikulazioa salbuetsirik dago:*  
*(...)*

*d) Minusbaliatuen izenean eta haiek soilik erabiltzeko matrikulaturiko ibilgailuak, ondokoak betetzen badituzte:*

*1gn. Gutxienez 4 urte igaro izana antzeko baldintzetan beste ibilgailu bat erosi zenetik.*

*Hala eta guztiz ere, betekizun hori ez da eskatuko ibilgailuen siniestro erabatekoa gertatu bada; betiere, behar bezala egiaztatuko da hori.*

*2º Matrikulatu ondoko lau urteetan ez eskuz aldatzea inter vivos esku-aldaketa baten ondorioz.*

(...)

2. Aurreko idatz-zatiko a), b), c), d), f), i) eta k) letretan aipaturiko salbuespenak egiteko tributu administrazioak alde zurretik aitortu beharko ditu, arauz ezartzen den moduan.

Zehazki, minusbaliotasuna duten pertsonen izenean matrikulaturiko auto-ibilgaluak direnean, beharrezkoa izango da Gizarte Zerbitzuen Institutu Nazionalak edo entitate kudeatzaile eskudunek (EAEren eremuan, foru aldundietako zerbitzu eskudunek) minusbaliotasunari edo elbarritasunari buruzko ziurtagiria ematea alde zurretik.

Salbuespenaren gainerako kasuetan, beharrezkoa izango da tributu administrazioaren aurrean aitortu bat aurkeztea, Ekonomi eta Ogasun Ministroak zehaztuko duen lekuan, moduan eta epean. eta behar den inprimakia erabiliz”.

Onura hau eskatu beharreko salbuespen bat da, hau da, tributu administrazioak aitortu beharko du interesdunak eskatuta.

Zerga-onura honen garrantziak eta hura erabil dezaketen pertsona ugari egoteak berekin ekarri dute salbuespen horretaz baliatzeko aukera mugatzea; mugapen horren ondorioz, ibilgailua soilik minusbaliotasuna duen pertsonak erabiltzekoa izango da, eta halakotzat hartuko da, Tributuen Zuzendaritza Nagusiaren doktrinari jarraituz, minusbaliatu bat barrenean daraman ibilgailu oro, nahiz eta beste pertsona batek gidatu.

Salbuespena galtzeko bi arrazoi daude:

- Ibilgailua esku-aldatzea matrikulatu zenetik lau urte igaro ez direnean.
- Salbuespenaz baliatzeko inguruabarrak edo betekizunak aldatzea; esate baterako, minusbaliatua izatearen legezko egoera galtzea edo salbuespenaz baliatzen den pertsonaz beste bat baliatzea ibilgailuz.

## 4.6 Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga

Toki mailako zerga hau -derrigorrez eduki behar dute udal guztiek- ondoko foru arauetan araupepetuta dago lurralde historikoetan: 44/89 Foru Araua, Araban; 7/1989 Foru Araua, Bizkaian; eta 14/1989 Foru Araua, Gipuzkoan.

14/89 Foru Arauaren 2.d) artikuluan, Gipuzkoako lurralde historikoaren martxoaren 18ko 26/1997 Foru Dekretuaz (28. artikulua) ezarritako idazketaren arabera, minusbaliatuentzako Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren salbuespenak aurreikusi ziren.

Arau horiek lurralde komuneko arauen ia berdina dira; hala ere, Gipuzkoako arauetan ibilgailuen potentziari buruz ezarritako mugak zertxobait ezberdinak dira.

Estatu mailan, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 28ko 39/1988 Legeak, 94. artikuluan, Neurri Fiskal, Administratibo eta Gizarte Mailakoei buruzko abenduaren 30eko 50/1998 Legearen bitartez emaniko idazketari begiratuta, ondoko ezartzen du. salbuespena egongo dira Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ordaintzetik minusbaliatuen autoak eta ezgaitasunen bat duten pertsonen gidatzeko egokitutako autoak. Arau hauei jarraituko zaie:

«1. Zerga ordaintzetik salbuetsita daude:

(...)

d) Trafiko, Ibilgailu Motoredunen Zirkulazio eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onetsi duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzazko Erret Dekretuaren eraskinaren 20. zenbakiak aipatzen dituen minusbaliotuetako kotxeak, bai eta ezgaitasunen bat duten pertsonen gidatzeko egokitutakoak ere, baldin eta 14 edo 17 zaldi fiskal baino potentzia gutxiagokoak badira eta minusbaliatuen (100eko 65 baino gutxiagoko minusbaliotasuna) edo fisikoki ezgaituak diren pertsonenak (100eko 65 edo gehiago) badira. Betiere, salbuespen honetaz baliatuko diren subjektu pasiboek ezin izanen dute ibilgailu baterako baino gehiagorako erabili, aldi berean.

Halaber, 17 zaldi fiskal baino gutxiagoko potentzia izan eta gorpil-aulkia behar duten minusbaliatuak garraiatzeko erabiltzen diren auto-turismo berezien kasuak, zuzenean edo egokitu eta gero. Horretarako, minusbaliatutzat joko dira 100ko 33 edo gehiagoko minusbaliotasunaren legezko egoera aitortuta dutenak, Gizarte Segurantzaren prestazio ez-kontributiboak ezartzen dituen abenduaren 20ko 26/1990 Legearen bigarren xedapen gehigarriko baremoan ezarritakoari jarraituz.

2. Artikulu honetako lehen idatz-zatiko d) eta f) letretan aipatzen diren salbuespenez baliatu ahal izateko, interesdunek haiek emateko eskatu beharko dute, ibilgailuaren ezaugarriak, haren matrikula eta onuraren arrazoiak aipatuz. Udaleko administrazioak salbuespen hori aitorturik, emakida hori ziurtatuko duen agiri bat emango da.

Gainera, aurreko idatz-zatiko d) letrako bigarren lerroaldean aurreikusitako salbuespenari dagokionez, hartaz baliatu ahal izateko interesdunek **ibilgailuaren zertarako justifikatu** beharko dute zerga ezarri behar duen Udalean, zerga honi buruzko ordenantzan ezarritako moduan «.

Beraz, salbuespen horretaz baliatu daitezkeen ibilgailuak, aipatu lege-aldaketa egin ondoren, ondokoak izango dira:

- 339/1990 Errege Dekretu Legegilearen eranskineko 20. zenbakiak aipatzen dituen **minusbaliatuen kotxeak**.

- Ezgaitasun fisikoa duten pertsonen gidatzeko **egokitutako ibilgailuak**, baldin eta 14 edo 17 zaldi fiskal baino gehiagokoak ez badira, eta minusbaliatuen (100eko 65 baino gutxiagoko minusbaliotasuna) edo fisikoki ezgaituta dauden pertsonenak (100eko 65 edo gehiago) badira.

- **Auto-turismo bereziak**, gorpil-aulkia duten minusbaliatuak garraiatzeko erabiltzen badira, eta 17 zaldi fiskal baino gehiagokoak ez badira.

Azken kasu honetan, salbuespenaz baliatu ahal izateko, beste betekizun batzuen artean, gorpil-aulkia behar duten minusbaliatuak garraiatzeko ibilgailua objetiboki konfiguraturik egotea eskatuko da. Kontua ez da ibilgailua soilik pertsona horiek garraiatzeko erabiltzea, baizik eta dauzkan ezaugarri objektiboengatik, horretarako baliatu ahal izatea, nahiz eta horretaz gainera bestelako bidaiariak ere eramateko erabiliko den.

Salbuespenaren bigarren aukera horretan, derrigorrezkoa da Bizkaiko Batzar Nagusien ekimenez hartutako ekimena. Izan ere, tributu-neurriei buruzko apirilaren 15eko 6/1999 Foru Arauaren bitartez, 1999rako -1999ko urtarilaren 1etik aurrera izango du indarra-, multzo horren barrenean itsuak ere sartu dira. Aurreko idazketarekin haiek ezin ziren baliatu egokitutako ibilgailuetarako ezarritako albuespenaz, ez eta garraio berezarako albuespenaz ere, zergatik eta berez ez dutelako gurpil-aulkirik erabiltzen. Espero izatekoa da ekimen hori hemendik gutxira Gipuzkoako eta Arabako arauetan ere txertatzea.

Bestalde, aurreratu dugun bezala, Gipuzkoako Foru Arauan potentzia fiskalaren muga 13,50 zaldi fiskaletan ezarrita dago egokitutako autoetan, alde batera utzita minusbaliotasunaren gradua, eta 12 zaldi fiskaletan auto-turismo berezien kasuan..

Beti ere eskatu beharreko albuespen bat dira, hau da, albuespenaz baliatu nahi duen pertsonak eskatu beharrekoa. Udal administrazioak albuespena eman dela aitortuko du, behin interesduna albuespen-eskaria egin eta gero.

Halaber, ibilgailu bat matrikulatzea eskatzen dutenek Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergatik salbuesita daudela egiaztatu beharko dute kasuan kasuko Trafikoko zuzendaritza probintzian nahiz tokiko zuzendaritzan. Aldi berean, ibilgailuaren zertarako justifikatu beharko dute zerga ezarri behar duen udalean.

Atal honetan -kasu honetan ere, praktikan sortu diren arazoengatik-, udal askotan ibilgailuaren albuespena aitortzeko dauden eragozpenak aipatu behar dira, ibilgailua minusbaliatuaren beharretarako, geroan egokitzapenik egin gabe, egokiak diren ibilgailuen kasuan, zehazki, kanbio automatikodun ibilgailuen kasuaz ari gara. Horren aldeko zenbait erabaki eman izan dira epaitegietan.

Zehazki, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak, azaroaren 18ko 964/1998 epaian, gogorarazten du "bereziki" adjektiboa, ibilgailuaren albuespena aitortzeko derrigorrez eskatzen zena (egun, adjektibo hori kendu egin da), *"hasieran ez zuen esan nahi minusbaliatu bakoitzarentzat egokitzapen berezia egin behar zenik, baizik eta ezgaitasunari egokitutakoa zela, ezgaitasun hori berdintzeko moduan. Beraz, kanbio automatikoko serieko ibilgailu baten albuespena legekoa da, baldintza hori gidatzeko baimenean aurreikusita badago, eta ezin zaio inori eskatu marka eta mota bereko ibilgailu bat erosi eta hari kanbio automatikoki jartzeko albuespenaz baliatu ahal izateko, alde batera utzita serieko kanbio automatikodun autoak egon badaudela."*

#### **4.7 Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) eta Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga (LBGZ)**

Toki mailako zergen arloa utzi baino lehen, ezinbestekoa da aipatu bi zerga horietaz aritzea. Zerga horiek, toki ogasunen foru arauetan, kasuan kasuko udalek aukeran jartzekoak dira.

Horietako lehenbizikoa, EIOZa, edozein obra egiteko kasuan kasuko lizentzia edukitzeko beharrenduaren gainean ezartzen da, eta ez da inolako albuespenik aurreikusten ezgaitasunen bat duten pertsonentzako.

Arartekoaren iritziz, zerga horretan lizentzia behar duten obrak egiteko behar den ahalmen ekonomikoaren gainean ezartzen bada, ez luke zergapetu beharko beren behar

funtzionaletarako, sentimenezkoetarako eta abarretarako beren etxebizitzak egokitzeke pertsona ezgaituek egiten dituzten obrak, baldin eta obra horiek ezgaitasun horren ondorioz egin behar badira; betiere, kontuan hartu beharko da jende-multzo hori gizarteratzea Konstituzioak berak sustatzen duela. Hau da, kasu hauetan ez gara, oro har, aberastasun agerpen batez hitz egiten ari, baizik eta subjektu pasibo batek gizartean nozitzen duen ezberdintasun gainditzeko, hau da gizarteratze erabatekora iristeko, egindako obrez. Zerga horrekin lotura dutelakoan, udalek kasuan kasuko lizentzia eskuratzeko eskatzen dituzten tasak ere aipatu behar dira: horietatik ere salbuetsita egon beharko lukete ezgaitasunen bat duten pertsonak.

LBGZari (garai bateko plusbalioa) dagokionez, hiri lurzoru batek eskuratzen denetik eskualdatzen denera izandako balio-gehikuntza zergapetzen du. Arrazoizkoa dirudi balioaren gehikuntza hori ez zergapetzea, etxebizitzako titularrak, edo harekin bizi den edozein pertsonak, daukan ezgaitasunari egokitzen ez delako eskualdatzen denean ohiko etxebizitza hori.

Betiere, kasu guztietan, PFEZn kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten zaharberritze obretan gertatzen den bezala, eskualdaketa horren beharra foru aldundietako organo eskudunak ziurtatu beharko du.

#### **4.8 Inportazio Eskubideak**

Inportazio Eskubideei dagokionez, aplikatu beharreko arauak lurraldeko komuneko berak dira.

Europako Kontseiluaren urriaren 12ko 2913/92 Erregelamendua (EEE) -haren bitartez Europako Aduanen Kodea ezarri zen, eta hori Europako aduanen arau guztien testu bateratua da- 1994ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean. Ez du inolako onura berariazkorik ezartzen minusbalioetasuna duten pertsonentzat. Hala ere, 184. artikuluan ezartzen du Kontseiluak -gehiengo kualifikatu baldin badu eta Europako Batzordeak eskaturik- ezarriko dituela inportazio eskubideetan frankizia emateko inguruabar bereziak.

Bestalde, Europako Aduanen Kodea zabaltzeko uztailaren 2ko 2454/93 Erregelamenduak (EEE) ere ez du ezgaitasunari buruzko inolako aipamenik egiten.

#### **ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK**

Lehenbizi, oro har, esan daiteke EA Eren esparruan tributu ezberdinek ezgaitasunen bat duten pertsonari ematen dieten berariazko tratamenduak ongi islatzen duela gizarteak multzo horren beharrezko duen sentsibilizazio gero eta handiagoa.

Gutxi batzuk dira ezgaitasunen bat duten pertsonari zuzendutako berariazko neurriak biltzen ez dituzten zergak. Hala ere, gomendio honetan zehar antzeman ahal izan dugu beharrezkoa dela jadanik dauden onuretan eragiteko beharra eta baita ere onura berriak sortzeko beharra ere, hain zuzen ere eragingarriak izan daitezkeen gure antolamendu juridikoan diseinaturiko gizarteratze erabatekoaren helburura iristen laguntzeko.

Zergaz zerga eginiko azterketa batean antzeman ahal izan dugu PFEZn -zerga pertsonala eta jende guztiari aplikatzen zaiona; beraz, herritar guztiek ordaindu beharreko zerga-, lurralde komuneko arauetan zehaztutako likidazio eskemak eta lurralde historikoetakoak ezberdinak izateak zailtasunak sortzen dituela zenbakien bidezko azterketa konparatibo bat egiteko.

Hala eta guztiz ere, lurraldeko komuneko eta Euskadiko tributazioaz egineko konparaketa-adibideetan -errenta maila ezberdinak eta egoera ezberdinak kontuan harturik-, argi gelditu da, oro har, PFEZri buruzko foru arauetan bildutakoak onura txikiagoak ekartzen dizkietela ezgaitasunen bat duten pertsonen lurralde komunekoekin baino.

Gainerako zergei dagokienez, esan daiteke oro har ezgaitasunen bat duen pertsonaren inguruan lurralde ezberdinetan ezarri diren arauak bat datozela; orobat, hobetu daitezke, lortu nahi den erabateko gizarteratzearen helburuari begira.

Horri dagokionez, ikuspegi askotatik ageriko lorpenak lortu direla ahaztu gabe, tributazioaren ikuspegitik, ezgaitasunen bat duten pertsonen multzoa aukeraberdintasunaren bidean jartzeari begira esan dezakegu euskal zerga-arauek onura gutxiago dakarziela pertsona Estatuaren gainerako lurraldetan aplikatzen direnek baino.

Hain zuzen ere, Hitzarmen Ekonomikoa aldatu zenean, abuztuaren 4ko 38/1997 Legearen bitartez, arauak emateko autonomia handiagoa ematen zaie lurralde historikoetako erakundeei, funtsean PFEZren arloan; horrek bidea emango zien legearen ikuspegitik lurralde komuneko arauen parean jartzeko eta baita ere arau horiek gainditzeko ere.

Hori guztia dela eta -ez dugu zerrenda itxi bat egin nahi izan-, Arartekoaren iritziz bidezkoa da ondoko gomendioak egitea euskal erakundeek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, zenbait arau alda ditzaten:

## I. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

**a)** Famili unitateren definizioan, baterako tributazioaren ondoreetarako, ezgaitasuna duen tutoretzapekoaren tutoreak ere sartzea, baldin eta administrazioaren edo justiziaren erabakiaz emandako legezko hartzeaz ezgaitasunen bat duen pertsonaren ardura bere gain badute, salbu eginkizun hori kargu profesional edo administratibo baten ondorioz betetzen baldin bada.

**b)** Euskal foru arauetan **mugikortasun mugatuko egoeraren** exijitza kendu behar da, lan etekinen zergarinketaren gainean % 100eko hobaria aplikatzeko; hala egiten ez bada, gure iritziz, arazo handiak sortuko dira haren aplikazio praktikoan.

**c)** Espresuki sartzea ohiko etxebizitza hiru urte igaro baino lehen eskualdatzeko arrazoi determinatzaile gisa -kasuan kasuko kenkaria aplikatzeko eskubidea mantentzeari begira-, hura egokia ez izatea subjektu pasiboaren edo harekin bizi diren pertsonen ezgaitasunerako.

**d)** Ezgaitasunarengatik kenkaria zabaltzea aldeko ahaideei eta subjektu pasiboarekin bizi diren gainerako pertsonen ere, baldin eta minusbaliatuen legezko egoera egiaztatzen bada, 65 urtetara iritsi diren begiratu gabe.

**e)** Eritasun gastuen kenkaria berriz jartzea subjektu pasiboaren ezgaitasunaren ondoriozko gastu guztietarako.

## **II. Sozietateen gaineko Zerga**

**a)** Obra eta instalazioetan eginiko inbertsioen gaineko zergaren kuota osoan kenkari berariazko bat jartzea azter dadin, ezgaitasuna duten pertsonak laneratzea errazteko arkitektura-oztopoak, sentimenezko oztopoak eta abar kentzeagatik.

**b)** Ezgaitasunen bat duten pertsonentzat enplegua sortzeagatik foru arauetan ezarritako kenkaria igo dadin aztertzea.

## **III. Balio Erantsiaren gaineko Zerga**

**a)** Ondasunen ematearen eta zerbitzuen ematearen gainean ezartzen den zergari tasa supermurriztua edo, gutxienez, murriztua aplikatu dadin aztertzea, hori ezgaitasunen bat duten pertsonen urritasunak gainditzeko egiten denean. Ondasun edo zerbitzuen izaerari begiratuta egin daiteke hori, edo, bestela, erosleak behar bezala justifikatuta.

**b)** 1977ko maiatzaren 17ko Kontseiluaren 77/388/EEE Seigarren Zuzentarauaren esparruan, BEZan eta Garraibide Jakin Batzuen gaineko Zerga Berezian ematen diren tratamendu ezberdinak zuzentzeko, lehentasunezko erabilera izango duten eta minusbaliatuen izenean erosten diren ibilgailuak erosteko orduan tasa supermurriztua aplikatu dadin aztertzea.

## **IV. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga**

**a)** Minusbaliatuen izenean eta haiek erabiltzeko erositako ibilgailuen kasuan, alde batera utzita egokitzeko beharra dagoen nahiz zenbateko potentzia fiskala duten, Garraibide Jakin Batzuen gaineko Zerga Berezian ibilgailu horietarako ezarri den salbuespena bezalako onura fiskal bat jar dadin aztertzea.

**b)** Sorospidez, berehala, zerga honi gurzuko Arabako eta Gipuzkoako lurralde historikoetako foru arauak salbuespen hori zabaltzea itsuak garraiatzeko ibilgailuetarako ere. Gipuzkoako arauaren kasuan, potentzia fiskalaren mugak beste bi euskal lurraldeetakoarekin eta lurralde komunekoarekin berdintzea.

## **V. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga**

Salbuespen erabatekoa ezartzea ezgaitasunen bat duen subjektu pasiboak etxebizitza bere beharretara egokitzeko egiten dituen obretan.

## **VI. Lurzoruen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga**

Erabateko salbuespena ezartzea titularraren ezgaitasuna dela eta desegokiak diren etxebizitzak eskualdatzeko kasuetan.



## **VII. Hirigintza lizentziak emateko tasak**

EIOZen proposaturiko salbuespenarekin bat etorriz, kasuan kasuko udal ordenantzetan tasa horren erabateko salbuespena aurreikustea, arkitektura oztopoak deusezteko edo subjektu pasiboaren etxebizitza egokitzeko obretarako lizentziak eskatzen direnean.

## **VIII. Erabili behar den terminologia**

Oro har, tributu administrazioak pixkanaka **“Ezgaitasunen bat duen pertsona”** terminoa erabiltzen ohitu behar dira, minusbaliatua terminoa erabili ordez.

## VII. ATALA

# **AZKEN ONDORIOAK. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

Arartekoaren zeregina finkatu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 32.2. artikulua xedatzen duenez, *“txostena aurkeztu beharko dio urtero Legebiltzarrari, Euskal Autonomia Erkidegoan giza eskubideen babesa zertan den jakinarazteko”*.

Arartekoak egiten du aipatutako balorazioa, jakina, bere eginkizunetan lortutako zuzeneko informazioen bidez. EAEko herri administrazioek euskal hiritarren eskubideak zenbateraino errespetatzen dituzten azaltzea izan ohi du helburu. Ildo horretan, beti izan behar da kontuan zein esparru hartzen dituen Arartekoaren lanak: Autonomia Erkidegoa, lurralde historikoak eta udal administrazioak.

Ondorioz, Arartekoak ez ditu kontuan hartu 1999an izandako eskubide urratzeak, baldin eta bere funtzioak betetzerakoan ez badu horien berri izan edo bere kontrol esparrutik kanpo gertatu badira. Azken horiei dagokienez, aipatzekoa da Estatuko Administrazioaren ardura direla. Azkenik, Arartekoak ez ditu bideratuko partikularrek edo talde antolatuek egindako eskubide urratze larriak, ezta oso nabarmenak direnean ere.

Kapitulu honetan Konstituzioaren lehen tituluan aipatutako eskubideak izango ditugu lehenbizi aztergai, Arartekoaren funtzioak arautzen dituen Legearen 1.1. artikulua arabera, gure erakundeari baitagokio eskubideok babestea.

Aipatutako balorazioaz gain, II. kapituluko atal bakoitzaren sarreran zehatz-mehatz aztertu ditugu administrazio jardueraren alor guztiak eta alor horien eta hiritarren eskubideen arteko loturak.

Lehenik eta behin, honakoa nabarmendu behar dugu: Arartekoak eta Estatuko parlamentuko gainontzeko batzordeburuek aurkeztutako txostenetan oso urriak direla Espainiako Konstituzioaren I. tituluko bigarren kapituluaren lehen atalean aipatzen den eskubideen bat ustez urratu izanari buruzko kexak, hau da, oinarritzko eskubide eta askatasun publikoen urratzeak helburu dituzten kexak. Eta horixe bera gertatu da 1999an ere.

Esandako guztiaren erakusle garbiak ditugu kexa gehien bi arrazoiak: gizarte eskubideak eta Espainiako Konstituzioaren 103.2. artikuluan xedatutako ustez urratu izana. Aipatutako artikuluan xedatzen denez, herri administrazioek eraginkortasunez eta legea zein zuzenbidea erabat betez jardun behar dute, eta bestalde, guztien interesa izan behar dute beti helburu bakarra.

Azken urte hauetan, esan bezala, Espainiako Konstituzioaren I. tituluko bigarren kapituluaren lehen atalaren 14. artikuluan xedatzen diren eskubide eta askatasunak -oinarritzko eskubideak eta askatasun publikoak- ustez urratu izanaren ondoriozko kexak urriak izan dira oso gure erakundeetan. Aipatutako eskubideen funtsari dagozkion kexak ditugu, hain zuzen, hizpide.

Horrek ez du esan nahi, jakina, ez dela eskubide urratzerik gertatu. Kapitulu honetan, izan ere, gure erakundera giza eskubideen alorrean heldu diren kexen berri emango dugu.

## 1. BERDINTASUN PRINTZIPIOA

### • **Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua**

*“Espainiar guztiak berdinak dira legearen aurrean, eta ezin izango da inolako bereizketarik egin jaioterria, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo bestelako edozein baldintza edo gorabehera pertsonal zein sozial dela- eta”.*

Eskubideen eta askatasunen inguruko kexa gehienek berdintasun printzipioa ustez hautsi izanarekin dute zerikusia.

Ondorengo izan ohi da gure erakundearen kezka nagusietakoa: botere publikoen jokabideetan inoiz ez egokitzea Konstituzioan aipatzen den diskriminazio arrazoietakoa bat bera ere.

Berdintasun printzipioaren inguruko urratzeek beste eskubide batzuekin izaten dute maiz lotura eta, ondorioz, beste horien azterketan ere berdintasun printzipioa nahiko sarri agertu ohi da.

Gure erakundera heltzen diren kexen artean, urriak dira oso sexuaren ondoriozko diskriminazio jokabideen salaketan oinarrituak. Dena den, horrelako kexarik ez egoteak ez du esan nahi gure gizartean erabateko berdintasuna lortu dugunik gizonen eta emakumeen artean. Hortik abiatuta, kontzeptu berezi bat erabiltzen hasi gara gure erakundearen: genero ikuspegia. Izan ere, kontzeptu horren bidez, agerian ez dauden diskriminazio kasuak antzematea eta azalerratea dugu helburu, eta halaber, emakumeak gizonak baino baldintza okerragoak jasan beharrean dauden egoerak ere agerian uzten saiatzen gara.

Bada, ordea, gure autonomia erkidegoan diskriminazio tratua nahiko sarritan jasaten duen talde bat: atzerritarrak, alegia.

Horrela, adibidez, polizia ikuspegi eta inmigranteekin izandako hainbat jokabide salatu izan dira, besteak beste: inolako arrazoi objektiborik gabe burututako identifikazio lanak eta interesatuak delituren baten egile ote ziren egiaztatze egindako ekintzak. Jokabide horien eragile bakarrak ezaugarri fisikoak izan ohi dira, eta berdintasun printzipioaren kontrakoa da hori.

Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailaren kontrako salaketak ere jaso ditugu, berdintasun printzipioaren kontrako diskriminazio tratuan oinarrituak: euskarazko ikastaroak bertako langileen artean banatzerakoan, ustez ez zituela irizpide objektiboak eta arrazoizkoak erabili.

Badira, bestalde, zentzu hertsian berdintasun printzipioaren kontrakoak ez izan arren, bidegabekeria egoerak sortu dituzten jokabideak, eta horiek ere konpondu beharrekoak dira, jakina.

Horrela, adibidez, amatasun bajetan ez zitzaientzatu tratua ematen egonkorrek ez ziren bitarteko irakasle funtzionarioei eta gainerako irakasle funtzionarioei -bitarteko egonkorrek barne.

Hezkuntza Sailak onartu egin zuen ezinbestekoa dela bitarteko funtzionario guztiei tratua berbera ematea, egonkorrek izan ala ez, beti ere hezkuntza Administrazioan lan egiteko asmoa badute.

## 2. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK

### 2.1. BIZITZARAKO ETA INTEGRITATE FISIKO ETA MORALERAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 15. art.**

*“Denek dute bizitzarako eta integritate fisiko eta moralerako eskubidea, eta inoiz ere ez da onartuko inolako torturarik edo zigor zein tratu ezgizabidezko edo degradatzailearik. Heriotza zigorra ezeztatuta geratzen da, eta lege penal militarrek gerra garairako har dezaketen erabakia izango da salbuespen bakarra.”*

Giza eskubideen bermea helburu duten erakundeek zorrotz behatu behar dute botere publikoek bizitzarako eta integritate fisiko eta moralerako eskubidea erabat errespetatzen dutela.

Segurtasun Gorputz eta Indarren kontra egin diren tratu txar eta tortura salaketei dagokienez, atxiloketa aldiko jokabideen ondoriozkoak izan dira gehienak. Beraz, bai legebiltzarreko agerraldietan, bai hizpide dugun arazoaz aritu garen esparru guztietan, beti azpimarratu dugu behar-beharrezkoa dela prebentzio neurriak hartzea atxiloketetan ez dadin espazio edo tarte ilunik egon. Horretarako, kontrol judizial eraginkorra gauzatu beharko litzateke atxiloketa prozesu osoan.

1998ko txostenean adierazi genuenez, hainbat atxiloturen senideek Arartekoarengana joko zuten. Aipatutako atxiloketa gehienak estatuko polizia gorputzek burutu zituzten, eta beste batzuk, berriz, Ertzaintzak. Ia kasu guztietan isolamendu erregimena ezarri zitzairen atxilotuei eta atxiloketa epea luzatu, legeak talde armatuen edo terrorismoaren inguruko delituetarako dituen aurreikuspenei jarraiki. Komisaldegietan tratu txarrak eta irainak jasan izana salatu zuten atxilotuek.

Senide talde batek txostena egin zuen, 1998ko lehen hilabeteetan aurkeztutako 81 salaketen berri emateko: hamabost atxiloketa Ertzaintzak egindakoak ziren eta gainerakoak Guardia Zibilak eta Polizia Nazionalak egindakoak.

Aginpide arrazoiak zirela-eta, Herriaren Defendatzaileari bidali genizkion salaketa horietako batzuk eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari beste batzuk. Izan ere, lehenengoari dagokio Estatuko Administrazioako erakundeen kontrola. Bigarrenari, aldiz, Ertzaintzaren jokabideen inguruko salaketen berri eman genion.

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak jakinarazi gigituz, ez zuten izan tortura salaketen ondoriozko inongo prozedura judizialen berri, testigantza batzuetan kasuan kasuko salaketa argibideetarako epaitegian aurkeztuta zegoela adierazten zen arren. Ondorioz, ez zuen inolako barne ikerketarik bideratu salatutako gertakariak argitzeko, horien berri ez omen zuelako, alegia.

Ertzaintzaren kontrako hamabost salaketei dagokienez, 1999an Arartekoak zehatz-mehatz aztertu zituen kasu guztiei buruzko polizi atestatuak. Aipatzekoa da ez genuela inolako erregularitasunik aurkitu. Baina, hala ere, “denbora tarte eta espazio ilunak” edo ia kontrolaezinak bazeudela egiaztatu genuen berriro. Ondorioz, kontrol sistema jakin bat proposatu genion Ertzaintzari, tortura gaietarako NBEko ordezkari bereziaren planteamenduei jarraiki: atxiloketak hasieratik bukaerara bidez grabatzea, alegia. Neurri hori benetan gauzatzeko arazo tekniko ugari gainditu beharko direnez, tarteko bidea

proposatu dugu, azkenik: Ertzaintzaren ziegetako korridoreetan ezarrita dagoen TB zirkuitu itxiko kamaren grabaketak gordetzea.

1999an bi kexa bidali zizkiguten atxilotu edo espetxeratutako hiritarrek. Teixeiroko (A Coruña) kartzelako hiru presoren salaketa izan zen guztietan larriena. Presoek adierazi zuten, kartzelako funtzionarioek eraso egin zituzten eta, gero, hainbat egunetz isolatuta utzi zituzten, eskuburdinez oheari lotuta. Justizia alorraren hitzaurrean adierazi bezala, Arartekoak Herriaren Defendatzaileari jakinarazi zizkion gertakari horiek eta, familien eskariz, gestio batzuk aipatutako kartzelako Zuzendaritzarekin zuzenean burutu zituen.

Bizitza eta integritate fisikoarekiko mesprezua da gizarteko fenomenorik larrienetakoa, eta emakumeen kontrako indarkeria horren islarik nabarmenena. Arartekoak hainbat kasu izan ditu aztergai alor horretan: babes poliziala eta/edo judiziala ez dela behar bestekoa eta eraginkorra salatu zuten erasoak jasandako emakume batzuek. Oro har, gai hori auzitegietan erabaki beharrekoa izaten da eta, beraz, gure eskumenetik kanpo dago. Baina, hala ere, salaketa horiek jakinarazi egin behar zirela iruditu zitzaigun.

Azkenik, gure erakundeak ikerketa beka bat sortu zuen arazo larri hori zertan den eta epaitegietan nolako erantzuna ematen zaion ikertzeko, eta laster ezagutuko ditugu emaitzak.

## 2.2. ASKATASUN IDEOLOGIKORAKO ESKUBIDEA

### • Espainiako Konstituzioaren 16. art.

*“1. Bermatuta geratzen da gizabanakoen eta taldeen ideologia, erlijio eta gurtza askatasuna, eta legeak babestutako ordena publikoa mantentzea izango da adierazpenen muga bakarra.*

*2. Inor ez da egongo behartuta bere ideologia, erlijio edo sinesmenak jakinaraztera”.*

Funtzionario batzuek presionatuta sentitu ziren Eusko Jaurlaritzak Kontseiluaren “Ordubeteko lana Bai Euskarari akordioaren alde” kanpainari laguntzeko onartu zuen prozeduraren ondorioz, eta kexa aurkeztu zioten Arartekoari. Besteak beste, ideologia askatasunerako eskubidea nolabait urratu ote zen neurtu genuen, eta norbere ideologia ez jakinarazteko eskubideari erreparatu genion, bereziki.

Ildo horretan, ekar dezagun gogora Auzitegi Konstituzionalaren 292. epaia, 1993ko urriaren 18koa: “...ideologia askatasunak bizitza pertsonal eta sozialaren aukera guztiak bateratzen dituen printzipio pluralista du oinarri, eta tolerantzia eta iritzi aniztasunarekiko zein desberdintasunarekiko errespetua dira printzipio horren funtsak. Aipatutako aukerak, ondorioz, ezin dira mugatu erlijioari eta gizakiaren patuari buruzko sinesmenetara. Puntu hori oso garbi zehazten du Konstituzioak, honako bereizketa egiten baitu aztergai dugun eskubidearen agerpenen artean: batetik, ‘ideologia, erlijio eta gurtza askatasuna’ eta, bestetik, ‘ideologia, erlijioa edo sinesmenak’”.

Horrela, Arartekoari kexa bidali zioten funtzionarioak nolabaiteko “presioa” sentitu zuten, itxuraz, Jaurlaritzaren eskaria jaso zutenean.

Gure ustez, Kontseiluaren kanpainari laguntzeko Administrazioak onartutako prozedurak ez du, berez, norbere ideologiaren berri ez emateko eskubidea urratzen,

nahiz eta salatzaileek “presioa” sentitu zutela adierazi. Lehenik eta behin, Kontseiluaren kanpainari laguntza emateko erabakia borondatezkoa zen guztiz, ez baitzegoen ezertan parte hartzeko obligaziorik. Izan ere, ez zegoen parte hartu nahi ez zutenei azalpenik eskatzeko asmorik, inondik inora. Jurisprudentziara joko dugu, oraingoan, berriro. Auzitegi Gorenak 1997ko urriaren 20an emandako epaia (1997\7690 Ar.) eman zuen PFEZren aitortpenean Eliza katolikoarentzako zergaren ehunekoari dagokion laukia betetzeak norbere sinesmenak ez jakinarazteko eskubidea urratzen ote duen argitzeko: “*..bistakoa da ez dela eskubide hori urratu, aurkatutako egintzan (autoaitortpena) ez baita urratzerik egiaztatu; gainera, Erljio Katolikoarentzako zergak katolikoengan baino ez luke eraginik izango eta ez du, beraz, aipatutako eskubidea urratzen. Gainerako eskubideek bezala, norbere sinesmenak ez jakinarazteko eskubideak ere muga jakin batzuk ditu eta, aztergai dugun kasuan, aitortpenean Elizarentzako gastua alde aurretik zehaztea zilegia eta arrazoizkoa da, beti ere datu hori aipatutako helbururako baino ez bada erabiltzen. Bestalde, Erljio katolikoarentzako zerga ordaintzen duen orok ez du zertan izan, derrigorrez, sinesmen horretakoa, litekeena baita beste arrazoi batzuek eraginda hartzea erabaki hori: adibidez, inolako erlijio sinesmenik ez izan arren, erlijioek gizartean zeregin garrantzitsua dutela pentsatuko du, agian, zergadunak”.*

Aztergai dugun kexari dagokionez, aurreko jurisprudenzia tesiei jarraiki, honako ondorio hau atera dugu: zerbaitetan parte hartzeko eskatzeak ez duela urratzen norbere sinesmenak ez jakinarazteko eskubidea. Izan ere, Kontseiluaren kanpainari ez laguntzeak ez du aditzera ematen interesatuaren ikuspegiari buruzko inolako argibide edo jarrera positibo nahiz negatiborik, euskararen aldeko ekimen jakin batzuei dagokienez. Funtzionarioek hainbat arrazoi izan zitzaizketen inprimakia ez betetzeko, eta beraz, horrek ez du esan nahi ez daudenik kanpaina horren alde.

### **2.3. ASKATASUN ETA SEGURTASUNERAKO ESKUBIDEA. ATXILOTUEN ESKUBIDEAK**

#### **• Espainiako Konstituzioaren 17. art.**

*“1. Pertsona guztiek dute askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Inori ezin zaio askatasuna kendu, artikulu honetan eta Legeak aurreikusitako kasu zein moduetan izan ezik.*

*2. Atxiloteta prebentiboak ezingo du iraun kasuan kasuko gertakariak argitzeko behar den denbora baino gehiago. Dena den, inork ez ditu hirurogeita bi ordu baino gehiago atxilotuta emango. Epe horren ondoren, atxilotua libre geratuko da edo justiziaren esku utziko dute, bestela.*

*3. Atxilotuei berehala eta argi ulertzeko moduan adieraziko zaie zeintzuk diren euren eskubideak eta atxilotetaren arrazoiak, eta inork ezingo ditu deklaratzera behartu. Eginbide polizial eta judizialtan, bertan izango da abokatu, legearen xedapenak betez.*

*4. Legeak ‘habeas corpus’ prozedura arautuko du legeaz kanpo atxilotutakoak berehala gera daitezen justiziaren esku. Halaber, aldi baterako kartzeleratzearen iraupena ere legeak finkatuko du.”*

Aipatzekoa da Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak ikerketa prozedurari ekiteko asmoa duela bertako bi poliziaren jokabidea argitzeko asmoz. Izan ere, Arartekoaren ustez, bi poliziek gehiegikeriaz jokatu zuten identifikazio, atxiloketa eta araketa lan batzuetan. Bestalde, gai horren inguruan, Arartekoak hiritar baten kexa ere aztertu du: Ertzaintzaren komisaldegi batera joateko deia egin zioten. Bertaratu zenean, “eginbide” batzuk burutu behar izan zituen inolako bermerik gabe, eta eginbide horien ondorioz egiaztatu zuten interesatua ez zela delitu larri jakin baten egilea. Azkenik, Arartekoak Eusko Jaurlaritzari egindako gomendio bat ekarri nahi dugu gogora: kontrol mekanismoak ezarri behar direla atxiloketetan tratu txarrik ez dadin gertatu, ondorio hauen 15. artikuluan aipatzen den moduan.

Atxiloketa zentroi dagokienez, Arartekoaren ustez askotan ez dituzte betetzen giza duintasunaren errespetuak eskatzen dituen baldintzak, eta kontuan izan behar da atxilotuak denboraldi bat eman behar izaten dutela bertan, askatasunik gabe.

Udaletako atxiloketa zentroyen ezaugarriak ez dira berberak alde guztietan, baina erabat egiaztatu dugu horietako batzuk ezin direla atxilotuak hartzeko erabili, oso egoera kaskarrean baitaude.

## 2.4. INTIMITATERAKO ESKUBIDEA

### • **Espainiako Konstituzioaren 18.1. art.**

*“Bermatuta geratzen dira ohorerako, norbere eta famili intimitaterako eta norbere irudirako eskubideak”.*

Kontseiluaren “Ordubeteko lana Bai Euskarari akordioaren alde” kanpainari laguntzeko Eusko Jaurlaritzak onartutako prozedura zela-eta, hainbat kexa heldu zitzaizkion Arartekoari intimitaterako eskubidea ustez urratu izanagatik.

Kanpaina horren helburua bete nahi izanez gero, datu pertsonal batzuk utzi behar ziren Administrazioaren esku, beti ere norbere borondatez. Beraz, ez zen kanpainari laguntzea erabaki zutenen intimitaterako eskubidea urratu, datu pertsonalak ematea aukerakoa baitzen.

Era berean, Jaurlaritzaren eskariari ez erantzuteak ere ez dakar berekin norbere intimitatearen urratzea, isiltasun horrek ez baitu eragiten inolako legez kontrako eskuhartzerik norbere esparru pribatuan.

Administrazioak, bestalde, askotan ukatu izan die hiritarrei dokumentu publikoak eskuratzeko baimena, hain zuzen, besteen intimitate eskubidean oinarrituta. Arartekoari hainbat kexa heldu zaizkio aipatutako jokabidearen inguruan, eta beraz, gai horri helduko diogu jarraian.

Auzia sortzen denean intimitaterako eskubidearen eta, Konstituzioaren 105 b). artikulua xedatutakoaren arabera, artxibategi eta erroldak eskuratzeko eskubidearen artean, norbere eta famili intimitaterako eskubideak nagusitu behar du beti. Horrela, 20/92 Legearen 37. artikulua mugak ezartzen dizkio intimitatearen esparruko datuak biltzen dituzten dokumentuak eskuratzeko eskubideari.

Administrazioak erabat babestu behar du intimitaterako eskubidea, baina inola ere ezingo da oinarritu eskubide horretan behar bezain argiak ez diren jokabideak zuzitzeko. Zenbaitetan, eskubide bat ez babesteaz gain, beste eskubide bat betetzeko eragozpenak ere sortarazten dira: horren adibide dugu, besteak beste, administrazio espedienteak eskuratzeko eskubidea.



Horrela, irakasle funtzionario batek hizkuntz eskakizunak egiaztatzeke azterketetan ebaluaketa eredutzat erabilitako grabaketak eskuratu izana ez zitzaigun intimitaterako eskubidearen urratzea iruditu, eta ezta ordezkapen zerrendak osatzeko irekitako administrazio espedienteak eskuratzeko aukera ere. Bigarren kasua, gainera, prozedurazko araudian jasotako eskubidea dugu, eta beste eskubide zabalago bat gauzatzeko ezinbesteko oinarria ere bada: partaidetzarako eskubidea, informaziorako eskubideari lotuta dagoena.

Administrazio espedienteak eskuratzeko eskubidea, bestetik, Zuzenbide Estatu orotako administrazio jokabideek ezaugarri izan behar duten gardentasun printzipioaren adierazpena dugu. Eskubide horrek beste batekin du zerikusia: babes judiziala izateko eskubidearekin, alegia, eta hori funtsezko babesa da babesgabetasuna galarazteko.

Presoek duten osasun eta ospitale asistentziarako eskubideari dagokionez, bi kexa bidali zizkiguten ginekologia azterketa batzuetan intimitaterako eskubidea ustez urratu izanagatik. Kasu bat EAETik kanpo gertatu zen eta, beraz, Herri Defendatzaileari jakinarazi genion, baina bestea hemengo ospitale batean jazo zen. Salaketaren xedea ertzain batzuen jokabidea zenez, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailera jo genuen gertatutakoari buruzko informazioa jasotzeko. Honako hau izan zen Herrizaingo Sailaren erantzuna: erabat onartzen zuela norbere intimitatearen eta segurtasunaren artean auzia sortzen denean lehenengoak nagusitu behar duela, beti ere intimitaterako eskubidea ez betetzeko arrazoiak behar bezain garrantzitsuak eta bereziak ez badira. Ondoren, ertzainek jokabidearen arrazoiak -batik bat, presoaren ezaugarri penitentiarioak eta azterketarako erabilitako lokalaren berezitasunak kontuan hartuta- azaldu zizkigun: Ertzaintzaren arabera, intimitaterako eskubidea urratzea ez zen erabaki arbitrarioa izan, neurrizkoa baizik, une hartako inguruabarren arabera.

## 2.5. INTIMITATERAKO ESKUBIDEA INFORMATIKAREN ERABILERAN

### • Espainiako Konstituzioaren 18.4. artikulua

*“Legeak murriztu egingo du informatikaren erabilera, ohorerako eta norbere zein famili intimitaterako eskubideak erabat bermatuta egon daitezen eta hiritarrek euren eskubideak bete-bete gauzatzeko aukera izan dezaten”.*

Kontseiluaren “Ordubeteko lana Bai Euskarari akordioaren alde” kanpainari laguntza emateko Eusko Jaurlaritzak onartuta zuen prozedurari dagokionez, datuen tratamendu automatizatuan intimitaterako eskubidea urratu ote zen aztertu genuen.

Administrazioak lortutako datuak behar bezala ez erabiliz gero, intimitaterako eskubidea urratu egingo zen, agian, Kontseiluaren kanpainari laguntza ekonomikoa ematea nahiz ez ematea erabaki zutenei dagokienez.

Administrazioak, arrisku hori kontuan izanik, hainbat neurri hartu zituen datuen kontrola eta erabilera zuzena bermatu eta, gerora, horien euskarria (papera edo magnetikoa) ezaba zezaten.

Dena den, prozedura hori ez zen administrazio esparru guztietan berdin gauzatu. Adibidez, hezkuntzaren, ikastetxeen egitura bereziaren ondorioz, datu bilketan ez zen konfidentzialtasuna behar beste bermatu, irakasleek jaso zituzten argibideetan ez baitzen aipatzen lehen urrats horretan ere konfidentzialtasunak izan behar zuela nagusi.

Datu bilketan izandako konfidentziasun gabezia horren ondorioz, zenbait irakasle presionatuta sentitu ziren kanpainari laguntza eman ala ez erabakitzerakoan.

Azkenik, Arartekoak artxibategi automatizatu batzuetako polizi datuen ezeztapenaren inguruko erabakia ere eman zuen, polizi ikerketa horietan legez kontrako bideak erabili baitziren datuok lortzeko.

## 2.6. ADIERAZPEN ASKATASUNERAKO ESKUBIDEA

### • **Espainiako Konstituzioaren 20.1 a) artikulua**

*“Aitortuta eta babestuta geratzen da pentsamoldeak, ideiak eta iritziak askatasunez jakinarazteko eskubidea, ahoz, idatziz edo bestelako adierazpen bideak erabiliz”.*

Arartekoak adierazpen askatasunerako eskubidea izan zuen aztergai, udaltzain funtzionario batzuen kasuan -lotura bereziko harremanen esparruan, beraz-, interesatuak lan egutegiaren inguruan bere gaineko arduradunei egindako kritikak zirela-eta.

Udalaren ustez, kritika horiek gaituzten egin zituzten adierazpen askatasunerako eskubidearen mugak. Arartekoak ez zen, ordea, bat etorri udalaren iritziarekin, arrazoi honen ondorioz: Auzitegi Konstituzionalaren doktrinaren arabera, adierazpen askatasunaren mugak gaituzten ote zituen neurtzeko, argi bereizi behar da *“oinarrizko eskubide edo askatasun publikoak gauzatzekoan mugak gaituztuz, goragoko arduradunen agintea jendaurrean kolokan utzi den ala ez, eta halaber, jokabide horrek zerbitzuaren funtzionamendu egokian eraginik izan duen ere hartu behar da kontuan”.*

Auzitegi Konstituzionalak argi azpimarratzen du adierazpen askatasunak lehentasunezko balioa duela, iritzi libreago baterako oinarrizko bermea baita. Beraz, polizien eta euren gainetik dauden arteko harremanetan ezin da baztertu kritikarako askatasuna laneko eskubideen aldarrikapenetan. Kasu bakar batean izango da onartezina kritikarako askatasuna: neurritz kanpoko denean, eta hori ez zen gertatu aztergai izan genuen gertakarian.

## 2.7. KOMUNIKABIDEETAN AGERTZEKO ESKUBIDEA

### • **Espainiako Konstituzioaren 20.3. art.**

*“Legeak arautu egingo ditu Estatuaren edo edozein erakunde publikoren menpe dauden gizarte komunikabideen antolamendua eta kontrol parlamentarioa. Gainera, gizarte talde eta talde politiko esanguratsuei komunikabide horietan agertzeko aukera bermatuko die, gizartearen aniztasunarekiko eta Espainiako hizkuntza guztiekiko errespetuan oinarrituz”.*

Azken urteotan, Arartekoak hainbat ekintza burutu ditu zenbait gizarte taldek EITBen agertzeko duten eskubidearen inguruan.

Komunikabide publikoak erabat errespetatu behar dute, nahitaez, talde ideologikoei komunikabideetan agertzeko duten eskubidea, ideologia askatasunaren adierazpena ez ezik, informazio eskubiderako oinarrizko tresna ere bada-eta.

1998an, honako gomendioa egin zuen Arartekoak: EITBek bideratu egin beharko lukeela hain esanguratsuak ez diren gizarte taldeek komunikabide publikoetan agertzeko duten eskubidea. Eta ondorengo neurria proposatu zion, besteak beste, aipatutako eskubidea bermatzeko: *“plan zehatz bat egitea antena eskubidea etorkizunean nola garatuko den finkatzeko (programa bereziak aldizka, iragarkiak tarteka, talde horietako ordezkariak iritzi eta/edo eztabaida programetan parte hartzea, informatiboetan horien adierazpenak ematea...).* Gainera, *irizpide objektiboak finkatu behar dira aipatutako taldeen hedadura edo, hala badagokie, eragina neurtzeko, eta bestalde, unean uneko programak horien artean banatzeko”.*

Horrela, 1999an bilera bana egin genuen ETBko arduradun guztiekin, bertako programazioan aipatutako eskubidea betetzeko bideak aurkitzeko asmoz.

1999an talde feminista baten kexa ere heldu zitzaigun: ETBra jo zuten aipatutako eskubidea gauzatzeko moduari buruzko informazioa lortzeko, baina ez zuten erantzunik jaso. Beraz, lan horri ekin zion Arartekoak. Gure erakundearen ikuspegitik, komunikabideetan agertzeko eskubidea funtsezko bermea da adierazpen eta informazio askatasunerako. Baina, hala ere, gizarte talde askok ez du eskubide horren berri eta, ondorioz, ez dute ez aldarrikatzen, ez eskubide hori benetan nola gauzatzen den kontrolatzen. Arartekoak, giza eskubideen kultura hedatzea dagokion aldetik, egoera hori aldatzea komeni dela uste du.

## 2.8. MANIFESTAZIORAKO ESKUBIDEA

### • Espainiako Konstituzioaren 21.2. art.

*“Trantsito publikorako guneetan bilerak edo manifestazioak egin nahi izanez gero, kasuan kasuko agintariari alde zuzenetik emango zaio horren berri. Kasu bakar batean debekatu ahal izango da manifestaziorako baimena: ordena publikoan gorabeherak eragingo direla eta pertsonak edo ondasunak arriskuan egongo direla pentsatzeko behar beste arrazoizko oinarri badaude.”*

Arartekoak hainbat kasu izan ditu aztergai manifestaziorako eskubideari eta eskubide horren mugei dagokienez.

Herrizaingo Sailak zigorra ezarri zion manifestazio baterako deia egin zuen hiritar bati, aurretik ezarritako baldintzak ez bete izanagatik, hau da, manifestazioak galtzada osoa hartu eta ibilgailuei ez zielako pasatzen utzi.

Baina udaltzainek erabaki zuten trafikoa erabat moztea, gure erakundeak zigorra kentzeko eskaria egin zion Herrizaingo Sailari, eta halaxe egin zuen.

## 2.9. FUNTZIO PUBLIKOAN SARTZEKO AUKERA BERDINTASUNAREN PRINTZIBIOA

### • Espainiako Konstituzioaren 23.2. art.

*“Era berean, funtzio eta kargu publikoak baldintza berdinetan eskuratu ahal izateko eskubidea dute hiritarrek, legeak xedatutakoari jarraiki”.*

Herri administrazioek funtzio publikoan sartzeko aukeretan berdintasun printzipioa errespetatzea izan da betidanik Arartekoaren kezka nagusietakoa. Izan ere, Arartekoak

beti egin du berdintasun, merezimendu, ahalmen eta publizitate irizpideen alde, funtsezko oinarriak izan behar baitute guztiek lanpostu publikoak eskuratzeko aukeretan.

Hona hemen adibide bat: Gipuzkoako Foru Aldundiko suhiltzaile zerbitzuko arduradunak aukeratzeko lehiaketa-oposaketetarako deialdian hartu zuen esku Arartekoak. Oinarrietan adierazten zenez, oposaketetan ezingo zuten parte hartu edonolako lenteak zituzten izangaiek, eta ezta edozein maila zein motako astigmatismo edo miopia zutenek ere.

Jakinekoa denez, enplegu eta kargu publikoak lortzeko aukera berdintasunaren printzipioa, Konstituzioaren 23.2. artikuluan xedatua, oinarrietako baldintzak objektiboak eta arrazoizkoak ez direnean baino ez da hartuko urratutzat, edo bestela, aipatutako baldintzak merezimendu eta ahalmen printzipioekin bat ez datozenean. Ondorioz, honako gai hau argitzen saiatu zen gure erakundea: zergatik erabaki zuen Foru Aldundiak ezaugarri jakin horiek zituzten izangaiek ez onartzea, hots, lenteak edo edozein maila zein motatako astigmatismo edo miopia zutenak baztertzea. Gipuzkoako Foru Aldundiko osasun zerbitzuari esker jakin genuen zein zen muga horren arrazoia eta argi ikusi genuen ez zela berdintasunaren printzipioa urratu.

Azkenik, UPV/EHUK irakasle elkartuak kontratatzeko eta bitarteko irakasle titularrak izendatzeko antolatuta zituen lehiaketak aztertu genituen. Arartekoak egiaztatu zuenez, ebaluazio batzordeen irizpideak bat zetozen Gobernu Batzordeak elkarren jarraian onartutako puntuaketa tarteekin. Baina, batzuetan, baremoaren alderdi batzuk zehaztasun handiagoz aztertu ondoren, agerian geratu zen ez zegoela motibazio egokirik eta, hitz batean, ebaluazio batzordeek ez zutela berez zegokien lana bete. Gainera, kontuan izan behar da batzorde horiei dagokiela kasuan kasuko frogak berdintasun, merezimendu eta ahalmen printzipioei jarraiki burutuko direla bermatzea.

## 2.10. BENETAKO BABES JUDIZIALERAKO ESKUBIDEA. ERRUGABETASUN PRESUNTZIOAREN PRINTZPIOA

### • **Espainiako Konstituzioaren 24.1 eta 2. artikulua**

*“Pertsona guztiek dute epaile eta epaitegien benetako babes judiziala izateko eskubidea berez dagozkien eskubideak eta interesak gauzatzekoan, eta inoiz ezingo da inor babesik gabe utzi”.*

*“Ondorengo eskubideak aitortzen zaizkie hiritar guztiei: 1. auzialdiko epailea, abokatu baten babes eta presentzia, euren kontrako salaketa ezagutzea, behar den epean eta berme guztiez burututako epaiketa, norbere defentsarako frogetarako behar diren bideak eskura izatea, norbere buruaren kontra ez deklaratu behar izatea, norbere burua erruduntzat ez aitortzea eta errugabetasun presuntzioa.*

*Legeak arautuko du, senidetasun edo sekretu profesional arrazoiak direla eta, hiritarrak noiz ez duten zutako delituzko gertakarien inguruan deklaratzeko obligaziorik izango”.*

Benetako babes judizialerako eskubidea da, hain zuzen, kexa gehien eragin dituen, nagusiki prozesu judizialak gehiegi luzatu izanagatik.

Justizi epaitegien funtzionamendua mantsoegia dela iruditzen zaie hiritarrei, eta epaiketak luzeegiak izan ohi direla. Horrela, Arartekoak etengabe hartzen ditu prozedura

judizialetan izandako luzapenen ondoriozko kekak. Dena den, Justiziaren alorreko hitzaurrean adierazi bezala, Auzitegi Nagusiko Gobernu Sailak informazio eginbideak burutu izan dituenean, inoiz ez da aurkitu diziiplina bidea abiarazteko moduko irregulartasunik. Ondorioz, Justizi Administrazioaren “ohiko” funtzionamendua luzeegia izango da, agian, gizarte bizitzaren erritmoa kontuan hartuta.

Aipa dezagun adibide bat: trafiko istripu bat gertatu eta handik zortzi urtera erantzukizunak artean erabakitzeke zeuden eta, beraz, kaltetua inolako kalte ordainik jaso gabe zegoen.

Are larriagoak dira epai judizialen luzapenak salatu dituzten preso prebentiboak, luzapen horren ondorioz litekeena baita denbora luzeagoa eman behar izatea askatasunik gabe.

Arartekoak gogora ekarri nahi du, oraingoan, berriro ediktu bidezko jakinarazpenen gaia, kezka nabarmena eragiten baitio. Gai horrek lotura estua du benetako babes judizialerako eskubidearekin, eta aipatzekoa da administrazio zehatzailearen zuzenbidearen esparruan erabiltzen dela nagusiki ediktu bidezko jakinarazpena. Ekitaldi honetan ez zaizkigu keza asko heldu administrazio jokabide mota jakin horren inguruan. Baina egunkariak eta aldizkari ofizialak erregulartasunez behatuz gero, argi ikusten da ez-ohiko jakinarazpen prozedura hori nahiko hedatuta dagoela, nahiz eta eraginkorra ez izan. Gure ustez, ediktu bidezko jakinarazpenen inguruko arauak gauzatzekoan beti izan behar da kontuan oinarritzko eskubideren baten gain izango duela, agian, eragina. Ondorioz, herri administrazioek aukera eta bide guztiak erabili behar dituzte lehenbizi, ordenamenduaren bestelako aurreikuspenak hautsi gabe, interesatuek administrazio erabakien jakinarazpenak har ditzaten. Ediktu bidezko jakinarazpena kasu bakar batean erabili behar da: argi eta garbi ikusten denean ez dagoela jakinarazpen pertsonala burutzeko bestelako aukerarik.

Bestalde, funtzio publikoan sartzeko prozedura jendetsuei dagokienez, administrazio espedienteak eskuratu eta ikusteko aukerak ez du konfidentzialtasun printzipioa urratzen. Aitzitik, administrazio erabakien kontrako errekurtsioak arrazoi zuzenetan oinarrituz burutu nahi dituzten izangaiak babesik gabe ez geratzea bermatzen du. Beraz, aipatutako aukerak lotura estua du benetako babes judiziala izateko eskubidearekin.

Bestalde, zergen alorrean bereziki azpimarratzekoa da ediktu bidezko jakinarazpenek arazoak sortarazten dituztela aldizkako zergetan.

Horrela, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergak arazo iturri handia izaten darrai, aldizkakoa den aldetik. Eta horixe bera gertatzen da EJZarekin ere.

## 2.11. ASKATASUNIK GABEKO PERTSONEN ESKUBIDEAK

### • Espainiako Konstituzioaren 25.2 art.

*“Askatasuna kentzen duten zigoren eta segurtasun neurrien helburuak berreziketa eta gizarteratzea dira eta zigor eta neurri horiek ezingo dira derrigortutako lanak izan. Kartzela zigorra betetzen ari denak Kapitulu honetako oinarritzko eskubideak izango ditu, ondorengoak izan ezik: epaiak, zigorraren zentzuak eta zigor legeak zehatz-mehatz mugatutakoak. Edonola ere, ordaindutako lana eta Gizarte Segurantzako onurak izateko eskubidea izango du eta kultura eskuratzeko eta bere nortasuna osotasunean garatzeko eskubidea ere bai.”*

Txosten honetan askotan aipatu dugu askatasuna kentzen duten zigorren helburua gizarteratzea dela. Hortik honako ondorioa atera dugu: arazorik larrienetako bat kartzelen egitura gabezia dela oraindik ere. Adibidez, EAeko zigor zentroetan ez dago inolako sailik erregimen itxian zigorrak betetzeko; amentzako unitaterik ere ez dago; emakumeen eta adin txikikoen sailek gabezi ugari dituzte... Bestelako arazo larriez gain, gabezi horiek direla-eta, gero eta pertsona gehiago eramaten dituzte (zigorra betetzeko) bizitokitik urruti dauden kartzeletara eta horrek hainbat eragin kaltegarri izaten ditu.

Presoentzako ordaindutako lanik eza ere azpimarratu behar da -EKren 25.2 artikulua preso guztien eskubidetzat jotzen du- eta arazo hori bereziki larria da Langraiz Okako emakumezko presoen kasuan.

Kartzela zigorren alternatiben kasuan, aplikatzen ez direla azpimarratu behar dugu: ez da sortu asteburuko arrastatzea betetzeko toki egokirik; komunitatearen aldeko lanen zigorra ere ez da aplikatzen ari.

Aipatutako guztia kontuan hartuta, EAeri honako funtzioak transferitzea premiazkoa dela azpimarratu behar dugu berriro ere: zigor gaietan duen eskumena osatzen duten funtzioak. Baina, aipatutakoa alde batera utzi gabe, EAeko Administrazioak hainbat aukera garatu behar ditu gehiago luzatu gabe, hau da, arlo horretako lankidetzako marko akordioak eta egungo zigor araudiak egokitzen dizkioten aukerak. Txosten honetan hainbat adibide eman ditugu, hala nola, erregimen irekian zigorrak betetzeko menpeko unitateak sortzea, edo komunitatearen aldeko lanen zigorra betetzeko hitzarmenak bultzatzea.

Erakunde honetan hainbat kartzelatik jaso ditugun bestelako kexak kartzela zigorrak betetzeko lekuari buruzkoak izan dira. Jakina denez, EAeko biztanle ugari urrutiko kartzelatan ari dira zigorra betetzen. Askotan Zigor Administrazioak ez du familiako egoitzako datua kontuan hartzen -edo ez dio lehentasunik ematen-, zigorra betetzeko kartzela finkatzeko orduan. Nahiz eta lekuz aldatzeko eskaerak ugariak izan, atzera botatzen dira normalean. Arartekori azaldutako gai jakin bat honakoa da: urruti egote horrek zailtasun ugari sortzen dituela senideek bisitak egiteko garaian. Istripu arriskuaz gain, ez dago kartzelataraino eramango dituen garraio biderik eta horrek kostu ekonomikoa areagotu egiten du. Batzuetan, "bis a bis" komunikazio bereziak ez dira astebururako finkatzen; horrela, zailtasunak ugaltu egiten dira eta askotan bisita ere ezin izaten da burutu.

## 2.12. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 27.1., 2. eta 4. art.**

*"Denek dute hezkuntzarako eskubidea. Irakaskuntza askatasuna onartzen da".*

*"Hezkuntzaren helburua giza nortasunaren garapen osoa alderdi honetan lortzea izango da: elkarbizitzako printzipio demokratikoak eta oinarrizko eskubide eta askatasunak errespetatzea."*

*"Oinarrizko hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa da."*

Hezkuntzarako eskubidea prestazio eskubidea da eta, beraz, egokiagoa litzateke gizarte eskubideen artean jorratzea. Hala ere, Konstituzioan duen lekua eta aukeratutako metodoa kontuan hartuta, atal honetan aztertuko dugu.

Prestazio izaera hori dela-eta ulertzen da erakundean aurkeztutako zenbait kezari emandako tratamendua. Horien artean honakoari buruzko keza azpimarratu nahi dugu: B eredu izeneko hizkuntz eredia derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzara luzatzeko asmoa. Halaber, ildo horretan ondorengoari buruzko keza ere aipatu behar dugu: derrigorrezko bigarren hezkuntzan aukerazko zenbait ikasgai (atzerriko hizkuntza) hautatzeari buruzkoa. Oraingoz keza horiek ezin dira eskakizun gisa hartu.

Aurten ere haur hezkuntzako lehen zikloari dagokion hezkuntza tarte aipatu behar dugu. Izan ere, erakunde honek askotan salatutako egoerek bere horretan jarraitzen baitute: hezkuntza behar bereziak dituzten bi urteko haurren eskolatzean berdintasun printzipioa hausten da; lurralde historiko bakoitzean hezkuntza eskaintza desberdinak daude, beste administrazioak (udal administrazioak, esaterako) inplikatzaren neurriaren arabera. Espero dugu lehen hezkuntza tarte hori aztertzeke eta ebaluatzeke instituzioarteko batzorde bat sortzeak aipatutako arazoa behingoz konponduko duela.

Euskal Eskola Publikoaren Legeak aurreikusten duen moduan, hezkuntzarako eskubidea benetakoa izateko bazterte egoerak gaintitzen lagunduko duten neurri positibo guztiak hartu behar dira. Horregatik, lege horrek adierazi du ezintasun fisiko edo psikikoak gaintitzeko banakako neurriak hartzen ahalegina egin behar dela eta, bestalde, neurriak hartuko direla hezkuntza behar bereziak prebenitzeko, garaiz identifikatzeko, dagokion testuinguruan ebaluatzeke eta erantzun egokia emateko. Hezkuntza behar berezi horiek aztertzeke ezohiko txostena egitea komeni dela uste dugu.

Azkenik, 1998ko ekitaldian hasitako bideari jarraiki, urtero errepikatzen diren salaketak aipatzea baino ez zaigu falta, hala nola, ikasleak onartzea, eskola zentroen mantenimendua eta kontserbazioa, bekak eta ikasketetarako bestelako laguntzak...

### 3. HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

#### 3.1. BIDEZKO ZERGA SISTEMA. BERDINTASUN, MAILAKATASUN ETA LEGEZKOTASUN PRINTZPIOAK

- **Espainiako Konstituzioaren 31. art.**

*“1. Denek lagunduko dute gastu publikoen ordainketan euren ahalmen ekonomikoaren arabera eta bidezko zerga sistemaren bidez. Sistema hori berdintasun eta mailakatasun printzipioetan oinarrituko da eta ez du inolaz ere izaera konfiskatorioa izango.*

*2. Gastu publikoak baliabide publikoen bidezko esleipena egingo du, eta bere programazioak eta exekuzioak eraginkortasun eta ekonomia irizpideak beteko dituzte.*

*3. Izaera publikoko prestazio pertsonalak edo ondare prestazioak legeari jarraiki baino ezingo dira ezarri”.*

Zerga administrazioek oso gutxitan handitzen dute ofizioz zuzenbide publikoko zorren preskripzioko institutua, nahiz eta aurreikuspen hori Zerga Lege Orokorrean eta Bilketako Araudi Orokorrean jaso. Hori dela-eta, interesatuek alegatu behar izaten dute auzi hori errekurtsio bidez, beti ere behar bezalako aholkua jaso dutenean.

Berdintasun printzipioaren ikuspuntutik, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruz hitz egin behar dugu. Izan ere, zerga oinarri gisa erabiltzen den balio katastrala finkatzeko

orduan hainbat akats hauteman dira eta horrek badu eragina ordaindu beharreko kuotaren gain. Horri buruzko gomendio orokorra txosten honetan dagokion atalean eman dugu. Bestalde, azpimarratu behar da kexa ugari jaso ditugula, higiezin berdin-berdinek balorazio desberdina izaten dutela-eta.

Halaber, ezintasunen bat duten pertsonen gizarteratzea lortzeko zuzenean edo zeharka eragiten duten espedienteak aipa ditzakegu. Adibidez, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan edo Garraioak jakin batzuen gaineko Zerga Berezian salbuespenak onartzeari buruzko kexak jaso ditugu eta esku hartu behar izan dugu berriro ere, berdintasun printzipioa bermatzeko helburuarekin.

Errepikatzen diren gaiak izanagatik, Txosten honetan gomendio orokor bat eman dugu. Gomendio horretan zergak banaka-banaka aztertzen dira eta baita EAEn ezintasunen bat duten pertsonen emandako tratamendua ere. Gero, legeak aldatzeko gomendio zehatzak ematen dira eta horren helburua aipatutako taldearen gizarteratzea lortzea da.

### 3.2. JABETZA PRIBATUA IZATEKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 33. art.**

1. *Jabetza pribatua izateko eta herentziarako eskubidea onartzen da.*
2. *Eskubide horien gizarte funtzioak euren edukia mugatuko du, legeak kontuan hartuta.*
3. *Ezingo zaizkio inori bere ondasunak eta eskubideak kendu, erabilgarritasun publikoko edo interes sozialeko justifikatutako arrazoiengatik denean izan ezik. Kasu horretan dagokion kalte ordaina eman beharko da eta legeari jarraiki egin beharko da guztia.*

Herritarren jabetzan eragin handiena duen botere publikoen ekintza nahitaezko desjabetzea da. Horregatik, berriro ere azpimarratu behar dugu desjabetzen inguruko esku hartzeek guztiz bete behar dutela ezarritako prozedura, berme izaera baitu prozedura horrek.

Nahitaezko desjabetzeari dagokionez, gehien errepikatutako kexak proiektu teknikoen onarpenari buruzko akordioen ingurukoak izan dira. Proiektu horiek onartzeko, desjabetu behar diren higiezinak erabilgarritasun publikokotzat deklaratu behar dira eta okupatuta egon behar dute.

Desjabetutako ondasunen balorazioaren inguruko kexak ere jaso dira eta, batez ere, kontsultak. Gai hori ez dago guztiz araututa eta gertakariak eta egoerak teknikoki baloratzen direla uste dugunez, zaila izaten da benetan zer gertatzen den hautematea.

Desjabetzeko espediente gehienak premiazko prozeduraz bideratzen dira eta horren ondorioz, balio justuaren inguruko akordioa negoziatzeko eta lortzeko ahaleginak Administrazioak dagokion finka okupatu eta gero gertatzen dira. Administrazio testuinguru horretan, herritarrei normalean iruditzen zaie Administrazioaren aurrean gutxiago direla eta bere menpean daudela; finkaren truke Administrazioak eskaintako kalte ordaina (altua edo baxua) onartu baino ezin dutela egin iruditzen zaie. Eta hori guztia legearen babesarekin, edo bestela, Nahitaezko Desjabetzeko Lurralde Epaimahaiaren bidez zalantza bide administratiboa hartu beharko dute edo, hala badagokio, ondorengo eskabide jurisdikzionalaren bidez.



## 4. ESKUBIDE SOZIALAK (POLITIKA SOZIAL ETA EKONOMIKOAREN PRINTZPIO GIDARIAK)

### 4.1. FAMILIAREN BABESA. ADIN TXIKIKOEN ESKUBIDEEN BABESA

- **Espainiako Konstituzioaren 39.1 eta 4 art.**

*“1. Botere publikoek familiaren babes soziala, ekonomikoa eta juridikoa bermatzen dute.”*

*“4. Haurren eskubideak zaintzen dituzten nazioarteko akordioetan aurreikusitako babesak izango dute haurrek.”*

1999. urtean zenbait kexa jaso dira berriro ere, irakaskuntza zentro batzuek (Deustuko Unibertsitateak batez ere) familia ugariari onartutako onurak ez dituztelako aplikatu nahi. Oinarrizko arazoa oraindik ere konpontzeke dago, nahiz eta erakunde honek Eusko Jaurlaritzari eskatu, alde batetik, gai hori Arbitraje Batzordeari jakinarazteko eta, bestetik, familia ugarien inguruko araudi propioa sortzeko. (Araudi horrek aipatutako jokabideak zigortzeko eskumena argitu eta zehaztuko luke).

Helburu garrantzitsua da erantzukizun pertsonal, familiar eta profesionalak elkartzea. Izan ere, behar-beharrezkoa da aldaketa sozial berriei aurre egitea eta aldaketa horiek sortutako ondorioei ere bai. Hori guztia emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna bermatzeko, eta baita familiako parte hartzea bermatzeko ere.

Esan beharra dago familia arazoengatik baimen, lizentzia eta eszedentzia arloan ahalegin garrantzitsuak egin direla: behin-behineko lege ekimenak burutu dira eta lan baldintzak arautzeko ahalegina egin da, Administrazioa parte negoziatzailea denean.

Hala ere, horrek ez du esan nahi beste ekintza osagarri batzuk ahaztu egin behar direnik, esate baterako, lanaldiarekin lotutako lan baldintzak malgutzearen inguruko ekintzak.

Badakigu oraintxe aipatutako ekintzen eta antzekoen eraginkortasuna konfigurazio egokiaren arabera izango dela neurri handi batean. Konfigurazio horrek enplegu zentro bakoitzaren egoera zehatza hartu beharko du kontuan. Horri dagokionez, eremu publikoan inplantatu nahi den esperientzia orok ahalbidetu beharko du kasu bakoitzeko zerbitzu beharrei erantzuna modu egokian ematea. Beraz, behar-beharrezkoa da izaera negoziatua eta adostua izatea eta esperimentazio fasea burutzea, egokia den ala ez frogatzeko.

Administrazio publikoek lan baldintza berriak bultzatu behar dituzte, edo bestela, horretan lagundu beharko dute, erantzukizun pertsonal, familiar eta profesionalak errazago elkartzeko.

Adin txikikoen eskubideen babesari dagokionez, EAEn babesik gabe dauden haurren eta nerabeen atentzioari buruzko ezohiko txostenean araudi komuna behar dela gomendatu zen. Araudi horrek babesik ez duten adin txikikoen atentzioaren oinarrizko alderdiak arautuko litzuke eta adin txikikoen oinarrizko eskubideak errespetatzeko berme elementua izango litzateke. Berriro ere azpimarratuko dugu behar-beharrezkoa dela Jaurlaritzak horrelako arau garrantzitsua emateko lege ekimena burutzea.

Adin txikiko arau hausleei dagokionez, bihurtze justiziaren printzipioak aplikatzea oso garrantzitsua dela azpimarratu behar da. Bitartekotza, kontziliazio eta konpontze

prozedurak egokitu egin behar dira adin txikiko arau hausleak erantzule egiteko; eta beraz, esku hartzeen heziketa helburua eta biktimaren eta komunitatearen parte hartze aktiboa lortzeko. Horretarako, bihurtze justiziaren printzipioetan oinarritutako ekintza tresnak erabili behar dira. Printzipio horiek indarreko ordenamendu juridikoan aurreikusten dira. Bestalde, aipatutako printzipioak inplementatzeko behar diren baliabide pertsonal eta materialak artikulatu behar dira.

Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak erantzun hau eman du: *“1997. urtetik aurrera ‘Bitartekotza, kontziliazio eta konpontze’ programa EAEko hiru Lurralde Historikoetan jarri da martxan. Plan horren ondorioz, horrelako 94 prozesu burutu ziren 1997. urtean, 158 1998an eta 200/220 inguru burutuko dira 1999an. Programa garatzeko, Sailak dokumentu-programa bat onartu zuen iaz; azaldutako prozesuen ezaugarriak, helburuak, metodologia... finkatu dira dokumentu-programa horretan.”*

Bestetik, neurriak exekutatzeko bideen araudi erregulatzailerak onartzeari buruz, Justizia Sailak ere zera jakinarazi digu: *“Sail honek 1999ko irailean Dekretu zirriborroa egin zuen eta gaur egun kontsulta egiten ari gara”.*

Azkenik, adin txikikoen erantzukizun penala arautzen duen lege organikoa zorionez 1999an zehar tramitatu dela esan behar dugu (urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organiko gisa onartu zen). Horrela, ekainaren 5eko 4/1992 Lege Organikoaren hutsuneak bete egin dira.

Lege organiko hori argitaratu eta handik urtebetera sartuko da indarrean. Kode Penalaren zazpigarren azken xedapenak adierazitakoa kontuan harturik, hemendik aurrera Kode Penalaren 19. eta 69. artikulua aplikatu ahal izango dira. Horiek zera adierazten dute, hurrenez hurren: adin nagusitasun penala 18 urtetara pasatzen dela eta adin txikiko arau hausleekin esku hartzeko araudi erregulatzailerak 18 eta 20 urte bitarteko pertsonengana zabal daitekeela.

#### 4.2. **SEGURTASUN ETA HIGIENEAREN BABESA LANEAN**

- **Espainiako Konstituzioaren 40.2. art.**

*“Botere publikoek, halaber, lanbide prestakuntza eta moldaketa bermatuko dituen politika bultzatuko dute; laneko segurtasun eta higiena zainduko dituzte eta behar den atsedena bermatuko dute, lanaldia mugatuz, ordaindutako aldia behingo oporren bidez eta zentro egokiak sustatuz.”*

Gai honi dagokionez, Lan Segurtasun eta Osasuneko Euskal Institutua/OSALANen aurkeztutako kexa espediente bati amaiera eman zaio. Kexa honi buruzkoa zen: auto konponketarako tailerretan langileak amiantoren arriskuetatik babesten ote diren. Espedientea Arartekoko urteroko txostenean dago.

Erakunde honek jakin zuen ibilgailuen konponketarako tailerretan aldiro-aldiro egiaztatu behar dela jarduera hori amiantoko arriskua duten enpresen erregistroan sartu behar ote den. OSALANek aipatutakoaren inguruan zein ekintza burutu dituen azaldu zigun; ibilgailuen konponketarako enpresatan neurketak egiteko erabiltzen diren teknikei buruzko berri ere eman zigun. Guk ondorio gisa esango dugu zalantza ditugula zenbait gairen inguruan: banakako babeseko ekipoak erabiltzeko neurri prebentiboengatik inguruan eta amiantoa erabiltzeak sor ditzakeen patologia hautemateko politika eraginkorren beharrez inguruan.

Bestalde, azpimarratu behar da TCSA enpresako gidariek zarataren ondorioz izan ditzaketen arriskuak prebenitzeko araudia ez dela betetzen. Hori izan daiteke enpresa horretako autobusak agian zaharkituta daudelako. Enpresa horrek Bizkaiko garraio publikoko zerbitzua burutzen du.

#### 4.3. OSASUNERAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 43. art.**

*“1. Osasuna babesteko eskubidea onartzen da.*

*2. Botere publikoek antolatu eta zaindu behar dute osasun publikoa, neurri prebentibo bidez eta behar diren prestazio eta zerbitzuen bidez. Legeak horri buruzko eskubidek eta betebeharrak finkatuko ditu.*

*3. Botere publikoek osasun hezkuntza, gorputz hezkuntza eta kirola bultzatuko dituzte. Halaber, aisialdia ongi erabiltzea erraztuko dute.”*

Osasunerako eskubidea aplikatzerakoan, herritar guztiek osasun prestazio berak jasotzeko eskubidea bermatu behar da eta ezin dira legeak onartu gabeko irizpide murriztaileak finkatu.

Osakidetzako ospitale zentro batean zera gertatu zen behin baino gehiagotan: emakume seropositiboek haurduntzaren borondatezko etendura egin ahal izateko eurak esterilizatzeke baldintza onartu behar zuten.

Onartezina da emakume seropositiboek osasun prestazioen eskubidea izan ahal izateko baldintza hori jartzea eta gainera diskriminatu egin zituzten beste emakumeen aurrean.

Medikuren batek uste badu komenigarria dela emakume seropositiboak esterilizatzea, pazienteari bere arrazoiak ulertzeko moduan eman ahal izango dizkio eta emakumeak erabaki beharko du zer egin, inolako hertsadurarik gabe. Ezin izango da, inolaz ere, eskatutako osasun prestazioari –haurduntzaren borondatezko etendura– baldintzarik jarri.

Medikuek haurduntzaren etendura ez egiteko kontzientzia eragozpeneko eskubidea dute, baina ezin dute eskubide hori esterilizazioa egiteko presio tresna gisa erabili.

Bestalde, presoen osasunerako eskubideari dagokionez, Basaurin martxan jarritako xiringen programa beste zentro batzuetara (Martutenera, esaterako) zabaldu dela azpimarratu behar da.

Hori dela-eta, berriro ere aipatuko dugu programa hori Langraiz Okan ere aplikatzea komeni dela. Izan ere, arrakasta handia izan baitu esperientzia horrek gaixotasun infekziosoen kutsadura prebenitzeko orduan.

Presoek emandako osasun prestazio batzuk dezente mugatuta daudela ere azpimarratu behar da, esate baterako, atentzio psikiatrikoa.

Eusko Legebiltzarrak 1999ko otsailaren 12ko osoko bilkuran Jaurlaritza premiatu zuen behar diren neurriak hartzeko, EAEko kartzelatan dauden presoek atentzio psikiatriko integrala jaso ahal izateko.

Haxe da helburua: presoek populazioak oro har jasotzen duen atentzio psikiatrikoaren antzekoa izatea (kuantitatiboki eta kualitatiboki), nahiz eta euren berezitasunak kontuan hartu behar diren, askatasunik gabeko pertsonak diren aldetik.

#### 4.4. INGURUGIRO EGOKIA IZATEKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 45. art.**

*“1. Denek dute ingurugiro egokiaz gozatzeko eskubidea, eta ingurugiro hori babesteko betebeharra.*

*2. Botere publikoak baliabide natural guztiak arrazionalki erabiltzeaz arduratuko dira, honako helburuekin: bizitza kalitatea babestea eta hobetzea eta ingurugiroa defendatzea eta berritzea. Horretarako ezinbestekoa da taldearen solidaritatea izatea.*

*3. Aurreko atalean xedatutakoa urratzen dutenek legeak ezarritako zigor penalak bete beharko dituzte edo, bestela, zigor administratiboak eta egindako kaltea derrigorrez konpondu beharko dute.”*

Sailkatutako jarduerak izenekoek sortutako zarata, usain eta keen ondorioz EAEko biztanleek jasaten dituzten eragozpenak ingurugiro egokiaz gozatzeko eskubidearen urraketa nagusia izan dira 1999an ere. Sailkatutako jarduera horiek udaleko derrigorrezko baimena izan behar dute.

Administrazioak une oro sailkatutako jardueren ondorioz sortutako eragozpenak konpontzeko neurri zuzentzaileak ezartzeko eskumena du. Izan ere, jarduera horiek baimentzen dituzten baimenak funtzionamendu baimena izenekoak dira, nahiz eta, zoritxarrez, gehienetan, baimena ematen duten administrazioek jarduera horien gaineko kontrolik ez burutu.

Horri gehitu behar zaio udal batzuek jarduera klandestino izeneko funtzionamendua onartu egiten dutela, nahiz eta baimenik ez izan. Behar-beharrezkoa da udalak jarduera guztien funtzionamenduaz etengabe arduratzea, zuzena den ala ez eta baimenean finkatutako baldintzak zehatz-mehatz betetzen diren ikusteko.

Arazo gehien ematen dituzten sailkatutako jarduerak ez dira hotel jarduerak bakarrik, baita honako hauek ere: supermerkatuak, ibilgailuen konponketarako tailerrak, gimnasioak, ibilgailu aparkalekuak edo jarduera industrialak. Horiek ere, askotan, kutsadura atmosferikoa eta akustikoa sortzen dute.

Ibilgailu zirkulazioak ere kalteak eragiten ditu ingurugiroan. Hori guztia dela-eta, botere publikoek esku hartu beharko lukete ekintza zuzentzaileen eta antolamendua kontrolatzeko ekintzen bidez, kalte horiek saihesteko.

Bestalde, jarduera industrialen kontra erakunde honetan aurkeztutako kekek aipatu nahi ditugu. Horien artean hurrengoak azpimarratu behar dira: ikatz biltegiek sortutako eragozpenen ingurukoak eta transmisio antenen eraldaketa eta instalazio zentroetatik sor daitekeen kutsadura elektromagnetikoaren ingurukoak.

Bide publikoan obretan ari direnean sortutako zaraten inguruko kexa ugari jaso ditugu, batez ere obra horiek gauez burutzen direnean eta zarata garbiketa publikoko zerbitzuek eragiten dutenean.

Bestetik, azterlan monografiko batean Ulibarri-Ganboako eta Urrunaga eta Santa Engraziako urtegien babesa aztertu da. Urtegi horiek Euskal Autonomia Erkidegoko ia biztanle erdiak hornitzen dituzte. Ingurugiro ikuspuntutik, kezkatzekoa da pertsonen kontsumorako uren kalitatea.

Bakioko talde handi batek bertako itsasertzak jasandako eraso salatu du, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako ekintza bat dela-eta. Bakioko itsasertzetik hondarra atera dute, Getxora eraman eta horrela Arrigunagako hondartza lehengoratzeko.

Bakioko biztanleek euren itsasertzaz gozatzeko eskubidea aldarrikatzen zuten, itsas inguruneak kalterik izan gabe. Hondar hori (210.000 m<sup>2</sup>) ateratzeak hondartzaren, olatuen eta itsas espezieen ezaugarriak alda ditzakeela adierazi zuten. Azken finean, zera planteatzen zuten: aipatutakoa egitean ez zirela baliabide naturalak arrazionalki erabiltzen ari, ez zirela Bakioko itsasertza babesten eta defendatzen ari, eta horrek kalte zuzenak eragin ditzakeela bizitza kalitatean.

Arartekok salaketa hori ikertu eta honakoa jakin zuten: hondar parte bat Euskal Herriko Kosten Demarkazioa izeneko estatuko erakundeak baimendutako eskualdetik kanpo atera zela. Baimendutako eskualdean itsasertzeko ekosistemari kalterik txikiena eragingo zen. Gertaera hori egiaztatu genuenez, Bizkaiko Foru Aldundiari behar bezala atera ez zen hondarra bere lekura bueltatzeko gomendatu genion, eragindako kaltea konpontzearen ingurugiro printzipioa aplikatuz. Bizkaiko Foru Aldundiak gomendio hori onartu eta epe laburrean exekutatu zuten.

Azkenik, Erandioko Asua auzoko biztanleek aurkeztutako kexa azpimarratuko dugu. Asuako itsasadarrera isuritako ur zikin eta hondakin toxikoek ingurugiro narriadura sortu dute eta itsasadar hori osasunaren kalterako gunerak bilakatu da.

Eskualde horretako kutsaduraren igoera lotuta dago Asua-Txorierriko Bailarako interzeptorearekin. Interzeptore hori 1994an instalatu zen eta bertan isurtzen dira Lezama, Zamudio, Derio, Loiu eta Sondika udalerrietako etxeetako hondakin urak eta ur industrialak, Sangroniz presatik beherako urak. Horrez gain, Asuako itsasadarrean badira hondakin toxikoak. Izan ere, duela hamarkada batzuk ibilgura bota zituzten industriaren gorakada zela medio. Orain hondakin toxiko horiek eragozpen handia dira ibaia garbitu ahal izateko.

Asuako Bailarako interzeptorearen isuriak bildu eta arazteko, Arriaga-Sangroniz tarteko obrak eta ura batetik bestera eramateko Txorierriko obrak burutu behar dira. Horrela isuriak Lamiakoko Ponpaketa estaziora iritsiko lirateke eta hortik, Galindoko EDARera. Aurreikusitako obren iraupena 2 urte ingurukoa litzateke. Beraz, bertako biztanleen ustez, Asuako ibaiak isuriak jasoko lituzke 2003. urteko erdialdera arte.

Eskualdeko ingurugiro kalteak eta bertako biztanleek jasaten duten osasunaren kalterako egoera arintzeko, Arartekok esku hartu du eskumena duten administrazioek behin-behineko neurriren bat ahalik eta azkarren har dezaten.

#### 4.5. **ETXEBIZITZA DUINA IZATEKO ESKUBIDEA**

- **Espainiako Konstituzioaren 47. art.**

*“Espainiar guztiek etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea dute. Botere publikoek eskubide hori eraginkor egiteko behar diren baldintzak bultzatu eta arau egokiak ezarriko dituzte; lurraren erabilera arautzerakoan interes orokorra hartuko dute kontuan, espekulazioa galarazteko.*

Komunitateak parte izango du erakunde publikoen hirigintza jarduerak sortutako gainbalioetan.”

EAEko biztanle askoren helbururik nagusietako bat etxebizitza duina eskuratzea da oraindik ere, nahiz eta, oro har, EAEko administrazio publikoek ahalegin handiak egiten ari diren.

Erakunde honek, berriro ere, zenbait herritarren keak jaso ditu, babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko baldintzak zalantzan jarritz. Guri adierazitako arazoak honen ingurukoak izan dira: batetik, zein urte izan behar den kontuan promozio horietan sartzeko baldintza ekonomikoak ziurtatzeko orduan; bestetik, euren jabetzakoa den etxebizitza ohiko bizileku iraunkor gisa erabiltzeko ezintasuna.

Kontuan hartu beharreko beste bi alderdi etxebizitzaren eraikuntza kalitatea eta Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak burutu beharreko kontrola dira. Arartekok egiaztatu du Administrazioak obren sustatzailearen aurrean burututako kontrol mekanismoetan hobekuntzak gertatu direla. Hala ere, Administrazioak gehiagotan hartu beharko luke esku eraikuntza akats txikiak gertatzen direnean (hezetasuna, jasotako parketak, zartadurak, berokuntza instalazio akastunak...). sustatzaileek akats horiei konponbide eraginkorra ematen dieten ala ez ere zaindu beharko luke.

Azkenik, honakoa gertatzen zaien herritarren kexa ere azpimarratu behar da: babes ofizialeko etxea salgai jarri eta Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak tanteo eskubidea gauzatu eta etxebizitza erostea erabaki duela komunikatzen dio. Prozedura horri dagokionez, Arartekok Sail horri gomendio bat bidali eta ondorengo eskatu dio: jakinarazpen izapideak arautzen dituen araudi administratiboan errespetatzeko saltzaileei bidalitako jakinarazpenetan. Hori lotu egin behar da babes judizial eraginkorreko eskubidearekin.

#### 4.6. EZINDU FISIKO, SENTSORIAL ETA PSIKIKOEN ESKUBIDEAK

- **Espainiako Konstituzioaren 49. art.**

*“Botere publikoek ezindu fisiko, sensorial eta psikikoen aurreikuspen, tratamendu, birgaikuntza eta integrazio politika burutuko dute; behar duten atentzio espezializatua emango diete eta bereziki babestuko dituzte Titulu honek herritarrei emandako eskubideak goza ditzaten.”*

Ezintasunen bat duten haurren gurasoek 2 urterekin eskolatzea nahi dutenean, diskriminatu egiten dira haur horiek. Izan ere, Hezkuntza Sailak behar besteko baliabide edo langile izatearen menpe jartzen baitu gurasoek aukeratutako zentro publikoan haurrak eskolatu ahal izatea.

EAEn ezintasunen bat duten pertsonen zerga arloan emandako berariazko tratamenduak erakusten du gizartea gero eta sentsibilizatuago dagoela talde horren beharren aurrean.

Askotan bideratu izan ditugu hainbat espediente, talde horri emandako zerga tratamenduaren inguruan keak aurkezteko. Hori alde batera utzita, Eusko Legebiltzarrari aurkeztutako azken urteroko txostenean, gomendio orokorra sartzeko erabakia hartu genuen eta hauxe azaldu dugu bertan: zein tratamendu ematen zaien ezintasunen bat duten pertsonen zerga bakoitza arautzen duten araudietan.

Azterketa bat egin eta ondorio hau ateratu dugu: zerga gehienetan adierazten direla ezintasunen bat duten pertsonentzako neurriak zehatz-mehatz. Hala ere, uste dugu oraingo onurak azpimarratu eta beste batzuk sortu egin behar direla. Onura horien helburuak izan beharko du gure ordenamendu juridikoan diseinatutako gizarteratzea lortzea.

Hiriko antolamendu arloan, Arartekok administrazio publikoei azpimarratu die behar-beharrezkoa dela botere publikoek oztopo arkitektonikoak kentzea, hau da, ezintasunen bat duten pertsonen hiriko bizitzan normaltasunez parte hartzea eragozten dieten oztopoak kentzea.

Halaber, erakunde hau bereziki arduratu da eraikin publikoen barruan iriskortasuna bermatzeko neurriak hartzeaz, batez ere eraikin horietan adinekoentzako oinarriko zerbitzu sozialak ematen direnean, esate baterako, egoitzetan eta eguneko zentroetan.

Ezintasunen bat duten pertsonen eskubideen defentsari dagokionez, erakunde honek bi arlo hauetan ere esku hartu du: babestutako etxebizitzak eskatzaileen ezintasun zehaztetara egokitzea eta etxebizitzak birgaitzeko laguntzak eskuratzea.

Gero eta hobeto ulertzen da ezintasunen bat duten pertsonen errealitatea eta gizartea gero eta sentsibilizatuago dago, noski. Hala ere, oraindik ez da lortu Konstituzioak defendatutako gizartratze osoko helburua.

Eusko Legebiltzarrak 1997ko abenduaren 4an Iriskortasuna Sustatzeko Legea aho batez onartu zuen. Lege horren bidez ezintasunen bat duten pertsonen taldearen eskaera nagusietako bati erantzuna ematea lortu zen. Horri dagokionez, Ararteko bereziki kezkatuta dago, bi urte igaro direnean Lege hori ez baita aplikatzen. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak ez du zenbait lekutako iriskortasun baldintzak zehazteko balioko luketen arau teknikoak landu eta onartu. Aipatutako lekuak hiri inguruak, espazio publikoak, eraikuntzak, garraioak eta informazio eta komunikazio sistemak dira. Legeak adierazten duenez, indarrean sartu eta sei hilabeteko epean ekin behar zion Jaurlaritzak arau horiek lantzeari.

#### 4.7. ADINEKOEN ESKUBIDEAK

- **Espainiako Konstituzioaren 50. art.**

*“Botere publikoek, pentsio egokien eta aldiro-aldiro eguneratutako pentsioen bidez, adinekoek behar besteko baliabide ekonomikoak izatea bermatuko dute. Halaber, familiako betebeharrak alde batera utzita, adinekoen ongizatea bultzatuko dute, gizarte zerbitzuen sistemaren bidez; sistema horrek adinekoen osasun, etxebizitza, kultura eta aisialdiko arazo zehatzei eman beharko die erantzuna.”*

Administrazio publikoak ahaleginak ari dira egiten adinekoen atentziorako gizarte zerbitzuen eskaintza egokia emateko –egoitzetan eta egoitzetatik kanpo–. Hala ere, eskaintza hori ez da beti nahikoa izaten eta aldatu egiten da aztertutako administrazioaren arabera. Edonola ere, Arartekoan jasotako zenbait kexa zerbitzu horien eskaintza defizitari buruzkoak dira (egoitzetako plazen defizita batez ere).

Ezinbestekoa da egoitza plazak berdintasun baldintzetan eskuratzea, araudietan ezarritako mugak kontuan harturik.

Hirugarren adinekoentzako zerbitzuak eskuratzeko orduan, irizpide objektiboak izan behar dira nagusi. Baina horrez gain, sarrerari ezezkoa ematen zaionean, argi eta garbi azaldu behar da zein arrazoi izan diren kontuan erabaki hori hartzerakoan.

Horregatik, egoitzetan sartzeko eskaeren onarpenari edo ezezkoari buruz administrazioak hartutako erabakiak interesatuei jakinarazterakoan argi eta garbi azaldu behar dira arrazoiak; erabakiaren berrikusketa planteatzeko zein bide har ditzaketen ere azaldu behar zaie.

1998ko martxoaren 10ean adinekoen egoitzako gizarte zerbitzuei buruzko 41/98 Dekretua onartu zen. Bertan, eskatutako baldintzetara egokitzeko aldia finkatzen da. Nahiz eta bisitatutako egoitza askotan instalazioak eta zerbitzuak hobetzeko hainbat lan egin dituztela ikusi, etorkizunean konpon daitezkeen akatsak ere hauteman dira.

Egoitzaz kanpoko adinekoentzako zerbitzuei dagokionez, oinarriko bi tresnen (eguneko zentroak eta etxeko asistentziako zerbitzua) eskaintza publikoak gora egin duela ikusi dugu eta oso positiboa da aldaketa hori. Udal esparruan egoitzak eta jubilatuen zentroak aprobetxatzen ari dira eguneko zentroak antolatzeko.

Azkenik, adinekoen eskubideen defentsan eta babesean zera azpimarratu behar dugu: *adinekoentzako prestazio sozialen sistema publikoa ezin dela eta ez dela ekonomiaren ikuspuntutik soilik neurtu behar; bestalde, ezin da ahaztu sistema horrek justizia sozialeko eta zuzentasuneko printzipioak guztiz bete behar dituela.*

## 5. LABURBILKETA

Kapitulu honetan, esan bezala, hauxe bildu dugu: eskubideen babesaren egoera nolakoa den Euskal Autonomia Erkidegoan. Balorazio hori egiteko Konstituzioan onartutako eskubideak aztertu ditugu. Hala ere, ondorio kapitulua denez, ez dugu Arartekoaren jardueran sortutako gai guztiak jorratu nahi izan.

Horregatik, balorazio osatuagoa egiteko gainerako kapituluen jarraipena (II. kapituluarena bereziki) egin beharko litzateke. Izan ere, horien area sarreretan materia eremu bakoitzaren benetako balorazioak biltzen dira; kapitulu honetan, aldiz, ez dira beti jaso.

Kexa laburpenei esker 1999. urtean gertatutako kasurik garrantzitsuenak ikusteko aukera dugu.

Bestetik, I. kapitulari esker zenbait eskubide azter ditzakegu, 1999an egindako txosten monografikoen bidez eta lehen aurkeztutako txostenen jarraipena egin dezakegu.

Edonola ere, hauxe baino ez da gure nahia: kapitulu honetako eta txosten osoko edukiak botere publikoei lagun diezaiela herritarren eskubideen defentsarako neurri zehatzetan sakontzen.



ERANSKINAK

## I. ERANSKINA

### ADINEKOEN ESKUBIDEEN BABESA (Herriaren Defendatzaileen Koordinazioko XIV. Jardunaldiak)

#### AURKIBIDEA

#### SARRERA

##### I. ERREALITATE SOZIAL BERRIAREN INGURUKO ZENBAIT GOGOETA

1. Jaiotza tasaren beherapena eta bizi itxaropena luzatzea.
2. Familia egituraren aldaketak.
3. Emakumeak lan munduan duen paperaren aldaketa.
4. Gazteen inguruko guztiaren gorespen soziala eta zahartzaroaren balorazio sozialak behera egitea.

##### II. ADINEKOEN ESKUBIDEEN BABESAREN INGURUKO ERREGIMEN JURIDIKOA

1. Espainiako Konstituzioa eta hirugarren adinekoak.
2. Adinekoen babesa estatuko legeetan eta lege autonomikoetan.

##### III. HIRUGARREN ADINEKOEN INGURUKO POLITIKEN PLANGINTZA. PLAN GERONTOLOGIKOAK

- I. arloa. Pentsioak.
- II. arloa. Osasuna eta asistentzia sanitarioa.
- III. arloa. Gizarte zerbitzuak.
- IV. arloa. Kultura eta aisialdia.
- V. arloa. Parte hartzea.

##### IV. ADINEKOEN ESKUBIDEAK BERMATZERA BIDERATUTAKO NEURRIEN PROPOSAMENAK

- A) Komunitate osoari eragin eta adinekoen integrazioa errazten duten neurriak.
- B) Familia zaintzaileari laguntzera bideratutako neurriak.
- C) Adinekoei aplikatu beharreko neurriak.
  1. Orokorrak.
  2. Neurri arau-emaileak.
  3. Pentsioen inguruko neurriak.
  4. Asistentzia sanitarioaren eta osasunerako eskubidearen inguruko neurriak.
  5. Hirugarren adinekoentzako egoitzako gizarte zerbitzuen inguruko neurriak.
  6. Hirugarren adinekoentzako beste zerbitzu asistentzial batzuk, egoitzako zerbitzuez gain.
  7. Adinekoen parte hartzearen inguruko neurriak.

#### AMAITZEKO

## SARRERA

Nazio Batuen Batzar Nagusiak, 1992ko urriaren 16ko Erabakiaren bidez, 1999. urte hau Adinekoen Nazioarteko Urte izendatu zuen.

Parlamentuetako mandatarien bilera honetan, herritarren eskubideak bermatzeko erakundeak garen aldetik, efemeride hori ospatzeko modurik onena hauxe dela uste dut: adineko pertsonen eskubideak zeintzuk diren aztertzea eta administrazioei zein erantzun eskatu behar dizkiogun ere bai.

Ospakizun hori dela-eta, Arartekok EHUren Udako Jardunaldien esparruan ikastaro bat antolatuta zuen. Ikastaroaren izenburua oso esanguratsua izan zen: "Eskubideek ez dute balioa galtzen adinak aurrera egin ahala". Bistakoa den arren, gogoratu beharreko zerbait azpimarratzea izan zen ikastaroaren helburua, hots, adineko pertsonak eskubideen subjektu aktiboak direla eta eskubide horiek bermatu egin behar direla.

Beste ezer baino lehen, honakoa nahi dut azpimarratu: adinekoekin loturiko alderdi guztiei normalean baino ikuspegi zabalagotik heldu behar zaiela eta hirugarren adinari egotzitako iritzi negatiboa saihesten ahalegindu behar dugula. Izan ere, hirugarren adina arazotzat baino ez da ikusten, ikuspuntu ekonomizistetatik funtsean, errealitate guztiek (baita adineko pertsonenak ere) izaera multidimentsionala dutela kontuan hartu gabe. Gizartearen ulertzeko modu gutxiesgarri hori da hirugarren adinekoen arazo nagusietakoa eta arazo hori konpondu egin behar da nahitaez.

Ezin dugu ahaztu, Alan Warkerrek dioen moduan, *"populazioa zahartzea arrakastaren ezaugarria dela; horrek adierazten du Europa arrakasta ari dela izaten osasun eta gizarte sistemetan, heriotzak prebenitzen"*.

Adineko pertsonak talde anitza bezain heterogeneoa osatzen dute; adinekoen azturak, balioak, baldintza ekonomikoak eta osasun baldintzak desberdinak dira, pertsonalak eta besterenezinak. Adineko pertsona beste errealitate daude eta, denek dituzten elementuak badiren arren, ezin dira adinekoak talde sozial homogeneotzat hartu.

Egia da adineko zenbait pertsona gaixorik daudela, arazo fisiko eta psikiko larriak dituztela, ekonomikoki behar handiak izaten dituztela, bakar-bakarrik bizi direla. Pertsona horiei behar duten laguntza sozial eta instituzional guztia eman beharko zaie. Baina adineko beste lagun asko ez daude gaixorik, ez dute diru arazorik eta ez dira bakarrik bizi. Guzti-guztiek, beharrak dituztenei eta beharrik ez dutenei, eman beharko zaie laguntza eta euren eskubideak bermatu egin beharko dira. Baina behar gehien dituzten adinekoen arazoei eskaini beharko zaie, noski, ardurarik handiena.

Adinekoen eskubideen babesak bultzatu ditu hemen gauden erakundeon hainbat ekintza: parlamentuetara aurkeztutako txosten monografikoak, hirugarren adinaz arduratzen diren gizarte zerbitzuetara egindako bisitak edo adinekoek aurkeztutako kexei irtenbidea aurkitzea.

Denok ondo ezagutzen dugun errealitateaz ari gara, beraz; horren inguruko gomendioak eman ditugu, askotan eman dugu iritzia gai horren inguruan. Esan bezala, errealitate ezaguna denez, ez ditut hainbat alderdi azalduko, erredundanteak izango bailirateke. Hainbat gogoeta soziologikoren inguruan baino ez naiz arituko, eztabaidagaia kokatzen laguntza izan dezagun eta ondoren gure ekintzetan antzemandako adinekoen arazo batzuk azal ditagun.

Nire hitzaldian honako alderdiak jorratuko ditut gehienbat: adinekoen eskubideen araudi tratamendua eta administrazioek zein erantzun ematen dizkieten adinekoen beharrei. Amaitzeko zenbait ondorio agertuko ditut eta ondo baderitzozue, abiapuntua izan daitezke honetarako: ideiak eta iritziak elkarren artean azalduz, gomendio batzuk lortzeko (Koordinazioko Jardunaldi hauen emaitza) eta bakoitzari dagokigun administrazioan aurkezteko.

## I. ERREALITATE SOZIAL BERRIAREN INGURUKO ZENBAIT GOGOETA

Nire ustez behar-beharrezkoa da aztergai dugun gaiari estu-estu loturiko ohar soziologiko batzuk azaltzea, nahiz eta labur izan, ez baitzait iruditzen alde batera utz daitezkeenik.

### 1. Jaiotza tasaren beherapena eta bizi itxaropena luzatzea.

Herrialde industrializatuetan, mendearen azken heren honetan, gizartean izugarritzko ondorioak eragin dituen fenomeno gertatu da: populazioaren egitura zahartzea, bizi itxaropenak gora eta jaiotza tasak behera egin dutelako. Fenomeno horrek, zalantzarik gabe, ondorio asko eragin ditu

gizarte zerbitzuen gorakadan, pentsioen finantziazio sisteman, osasun sisteman edo hezkuntza sisteman.

Gabriel Cárceles-ek esan duen bezala, oreka altuko eredu zaharretik (jaiotza eta heriotza tasa altuak) oreka baxuko eredu modernora (jaiotza eta heriotza tasa baxuak) pasatu gara.

Europar 60 urtetik gorako biztanleen kopuruak %50 baino gehiago egin du gora azken hiru hamarkadotan. Aurreikuspen demografikoen arabera, 2020. urtean 88-100 milioi zahar inguru biziko dira Europako Batasunean, eta horietatik 17-22 milioi inguruk –guztien %25– 80 urte baino gehiago izango dituzte.

Espainiako jaiotza tasa munduko baxuenetakoa da: 1,3 seme-alaba emakumeko. Zifra hori belaunaldi ordezkapena egiteko behar den tasa –2,1 seme-alaba emakumeko– baino askoz baxuagoa da eta baita Europako batez bestekoa baino baxuagoa ere. Euskal Autonomia Erkidegoak du Espainiako jaiotza tasarik baxuena: 0,9 seme-alaba emakumeko.

Espainia, aldiz, Europako Batasuneko lehen postuan dago bizi itxaropenari dagokionez (79 urte gizonak eta 83,2 emakumeak, 1990. urtean).

## 2. Familia egituraren aldaketak.

Kide askoko familiaren eredu tradizionala ere aldatu egin da eta familia nuklearrerako joera dago, hainbat eragileren ondorioz, baina batez ere, hirigintza prozesuaren indarrez eta, gehienbat, emakumea lan merkatuan sartu delako.

Lehen, hiru belaunaldiko familiak etxe berean bizi izaten ziren. Baina orain, beste familia mota batzuk ageri dira, nahiz eta bi belaunaldiko familiak nagusi diren, hau da, gurasoak eta seme-alabak bizi izaten dira etxe berean.

Hala ere, nahiz eta etxe berean ez bizi, familia bereko lau belaunaldi ere bizi izaten dira askotan aldi berean: bilobak, gurasoak, aitona-amonak eta birraitona-amonak. Piramidea alderantzikatua da, gero eta adineko lagun gehiago daude eta gero eta ume gutxiago, eta 60 urte baino gehiagoko bi belaunaldi ere izaten dira.

## 3. Emakumeak lan munduan duen paperaren aldaketa.

Emakumeak lan mundura sartu dira eta gertakari horrek, nahiz eta leku guztietan garrantzi bera ez izan, etxekoandarearen paper tradizionala betetzen duten emakumeak gero eta gutxiago izatea bultzatu du.

Lehen, adinekoen beharrak oro har familiak betetzen zituela esan ohi zen. Hori aipatzean, funtzio hori benetan etxeko emakumeei zegokiela adierazten zen eta, batez ere, alaba jakin batzuei.

Mediterraneoko herrialdeetan emakumeak arduratu ohi dira adinekoak zaintzeaz. Baina horrez gain, haurrez, ezinduez eta langabezia dauzen gazteez ere arduratu izan dira eta horregatik zailagoa izan zaie lan munduan sartzea.

Baina, gaur egun, zaintzailearen profila aldatzen ari da eta igarotze garaian gaudela esan dezakegu. Horren ondorioz, hemendik urte batzuetara (gutxi edo gehiago), gizonetzkoak hasiko dira adinekoen zaintza lanetan.

## 4. Gazteen inguruko guztiaren gorespen soziala eta zahartzaroaren balorazio sozialak behera egitea.

Cowgill-ek adierazi du zahartzaroaren balorazio sozialak behera egiten duela, gizartearen modernizazio mailak gora egiten duen heinean.

Haustura bat dago gizarte tradizionalen (zahartzarora bizitzaren betetasun garaitzat hartzen zen) eta gizarte moderno industrializatuen (zahartzarolari buruzko iritzi soziala degradatu egin da) artean. Gizarte tradizionaletan jakinduria, prestigio eta esperientzia balioak ematen zitzaizkien adineko pertsonen eta balio horiekin batera kontuan hartzen zuten inperfekzio, zahartasun eta sufrimendu egoera gertatzen zela.

Gaur egun, adineko pertsonenak diren berezko balio positiboak ahaztu egiten dira askotan eta izugarriko garrantzia ematen zaie alderdi negatiboak.

\* \* \* \*

Ondorioz, gizarte errealitate berri honek eragina izango du adinekoen egoeraren inguruko gaiei emango zaien tratamenduan. Horren arrazoiak hauek izan dira, batez ere: pertsonen bizi zikloan

izandako aldaketak eta familia eredu berriak bultzatutako aldaketa demografikoak nahiz Ongizate estatuaren krisia deiturikoak eragindako eztabaida ideologiko indartsua.

## II ADINEKOEN ESKUBIDEEN BABESAREN INGURUKO ERREGIMEN JURIDIKOA

Espainiako Konstituzioak eta eztabaidagai dugunaren inguruko estatuko arauak eta arau autonomikoak adinekoen eskubideen marko juridikoa finkatzen dute. Azaletik hitz egingo dut marko horri buruz, administrazioek betetzen duten ala ez aztertzeko orduan erreferentziatzen izan dezagun.

### 1. Espainiako Konstituzioa eta hirugarren adinekoak

Espainiako Konstituzioak, lehen tituluaren hirugarren kapituluaren, "Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidariei buruz" izenburupean, adinekoen eskubideen babesaren erregimen juridiko erregulatzailearen oinarritzko bi arau biltzen ditu: EK-ren 41. eta 50. art.

Konstituzioan duten kokapena kontuan hartuz, aipatutako arauak eskubide ekonomiko eta sozial deiturikoetan sar daitezkeen eskubideak jasotzen dituzte, Konstituzioak eskubide horiei ematen dizkien ondorio juridiko eta guzti.

- EK-ren 41. artikulua Gizarte Segurantzako sistema birmoldatzeko oinarriak finkatzen ditu. Honelaxe dio:

*"Botere publikoek herritar guztientzako Gizarte Segurantzako erregimen publikoa mantendu beharko dute. Erregimen horrek behar besteko asistentzia eta prestazio sozialak bermatuko ditu, beharrak sortzen direnean (batez ere, langabezi egoeran). Asistentzia eta prestazio osagarriak libreak izango dira."*

Beltrán Aguirrek dioten moduan, Gizarte Segurantzako sistema honako printzipioen arabera eratzten da:

- a) Unibertsalitate subjektiboa (herritar guztiei dagokie, zergak ordaintzen dituzten edo ez kontuan hartu gabe).
- b) Orokortasun objektiboa (premia egoera guztiei ematen die erantzuna).
- c) Prestazioen askitasuna (aurreko diru sarreraren abstrakzio eginez).
- d) Finantziazio publikoa (aurrekontu orokorren bidez).

Nahiz eta Gizarte Segurantzako sistema herritar guztientzat ez unibertsalizatu, adineko guztientzat zahartzaro pentsioa unibertsalizatu egin dela esan dezakegu, baita prestazio kontributiboetara heldu ez eta baliabide ekonomikorik ez dutenen kasuan ere.

Espainiako Konstituzioaren 50. artikulua, bestalde, adinekoen eskubideen babesa zehatzago arautzen du. Adinekoak aipatzeko honako eufemismoa erabiltzen du: "hirugarren adineko herritarrak". Aipatutako arauak hauxe adierazten du:

*"Botere publikoek hirugarren adineko herritarrek behar beste baliabide ekonomiko izatea bermatu beharko dute, pentsio egokien eta aldiro-aldiro eguneratutako pentsioen bidez. Halaber, betebeharrak kontuan hartu gabe, euren ongizatea bultzatu beharko dute, gizarte zerbitzuen sistemaren bidez. Sistema horrek adinekoen osasun, etxebizitza, kultura eta aisialdi arazo zehatzei eman beharko die irtenbidea."*

Beraz, Konstituzioak 41. artikuluan Gizarte Segurantzako sistema publikoa diseinatzen duela esan dezakegu eta 50. artikuluan, berriz, hauxe agintzen die botere publikoari: adinekoek behar besteko baliabide ekonomikoak jasotzea bermatzeko, pentsio egokien eta aldiro-aldiro eguneratutako pentsioen bidez; eta bestalde, izaera teknikoko "gizarte zerbitzuen sistema" sor ditzaten, adinekoen beharrei erantzuna emateko.

### 2. Adinekoen babesa estatuko legeetan eta lege autonomikoetan

Jakinekoka da eskubide ekonomiko eta sozial izenekoek, EK-ren 53.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, honakoak informatzen dituztela: "legea positiboa, praktika judiziala eta botere publikoen

*jokabidea*". Eta "jurisdikzio arruntean baino ezingo dira alegatu, garatzen dituzten legeek xedatutakoa kontuan izanik".

Konstituzioko arau horien legegintza garapena zehazteko, hauxe gogoratu behar dugu: Estatu eta elkarte autonomikoen arteko eskumen banaketan, EK-ren 149.1.17. artikulua Estatuari esleitzen diola "Gizarte Segurantzaren oinarritzko legedia eta erregimen ekonomikoa, EE.AAek euren zerbitzuak burutzeari utzi gabe". 148.1.20. artikulua, bestalde, "gizarte asistentzia" elkarte autonomoek euren gain har dezaketen eskumen bakarra dela adierazten du.

Dagozkien eskumen tituluen aplikazioaren arabera, estatuko eta elkarte autonomoetako hainbat lege daude eta bakoitzak garapeneko arau propioak ditu. Lege horiek adinekoen eskubideen babeserako marko juridikoa osatzen dute, Konstituzioak agindutakoari jarraituz.

Erretiro pentsioak jasotzeko eskubideari dagokionez, Gizarte Segurantzako Lege Orokorra arautzen du, bai pentsio kontributiboak direnean bai ez-kontributiboak direnean ere.

Ia elkarte autonomo guztiak promulgatu dituzte gizarte zerbitzuen inguruko legeak, hainbat izenekin. Baina Asturiasek, Extremadurak eta Kanariak baino ez dituzte adinekoen inguruko berariazko legeak eman.

Gogoratu behar da, bestalde, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 18.1.g) artikuluan hauxe xedatzen duela: hiritarrek gizarte zerbitzuak sortzeko eta mantentzeko benetako eskubide subjektiboa dutela, 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan.

### III. HIRUGARREN ADINEKOEN INGURUKO POLITIKEN PLANGINTZA. PLAN GERONTOLOGIKOAK

Nahiz eta harrigarria izan, arrazionalizatorik handiena hirugarren adinekoen eremuan burutu dute administrazio eskudunek, bai Estatuko Administrazio Orokorra bai elkarte autonomoetako administrazioek ere. Adinekoen beharrei erantzun egokia eman ahal izateko baliabideak oso urriak direnez, elkarte autonomoetako administrazioek plan gerontologiko propioak sortu dituzte, adinekoen zuzendutako politikak epe labur, ertain eta luzera planifikatzeko tresna egoki gisa. Horrela sortu ziren, beraz, estatuko Plan Gerontologikoa eta lurralde eremu mugatuetako hainbat plan.

Elkarte autonomo askok dituzte tresna planifikatzaile propioak. Hona hemen horietako batzuk: Kataluniako Plan Integral de la Gent Gran, Gaztela eta Leongo Plan Regional de Personas Mayores, Euskadiko Plan Gerontologikoa, Madrildo Elkarte Autonomoko Plan de Mayores, Nafarroako Plan Gerontologikoa, Balearretako Elkarte Autonomoko Plan Integral de las Personas Mayores. Gaztela-Mantxa, Errioxa eta Valentiako Elkarteek ere badituzte plan propioak. Eta hiri batzuek ere Plan Gerontologiko propioak sortu dituzte, adibidez, Gasteizek.

Plan horien guztien helburuak ez dira berberak, noski. Izan ere, lurralde eremu bakoitzaren errealitatearen arabera izango dira eta baita eskuduntzen arabera ere. Baina, plan gerontologiko guztiak ezin ditugunez zehatz-mehatz aztertu (luzeegia eta alferrikakoa izango litzateke), estatuko Plan Gerontologikoa baino ez dut jorratuko, bi arrazoi hauengatik: elkarte autonomoetako plan askorentzako erreferentzia izan delako eta adostutako etorkizun politikarako bokazioa duelako Espainia guztian.

Denok dakigun bezala, estatuko Plan Gerontologikoak hainbat ekintza arlo biltzen ditu. Arlo horiek azaletik aztertuko ditut eta ondoren, Jose Antonio Miguelen oso azterlan interesgarriari jarraiki, zein mailatan betetzen diren ikusiko dugu.

#### \* I. arloa. Pentsioak

Arlo honetan bete dira neurri handienez finkatutako helburuak. Proposatutako helburu asko lortu dira:

- Pentsio ez-kontributiboak garatu dira.
  - 65 urtetik gorako, baliabide gutxiko eta ezkontidea euren kargu dutenentzako gutxieneko pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatu dira.
  - Pentsioen balioa automatikoki handitzea lortu da.
- Hala ere, badira oraindik bete beharreko beste helburu batzuk ere:
- 80 urtetik gorako pentsiodunen babesa handitzeko helbururik ez da finkatu.

- Pentsiodun askori ez zaie bermatu gutxienez lanbide arteko gutxieneko soldata jasotzea.
- Pentsio ez-kontributiboak erreferentzia horretatik (LAGS) are urrutiago daude.

\* **II. arloa. Osasuna eta asistentzia sanitarioa**

Zailagoa da arlo honetan finkatutako helburuak zein neurritan bete diren baloratzea:

- Adinekoen artean lehen eta bigarren mailako prebentzio ekintzak oro har burutzen dira eta osasunaren sustapenerako ekintzak ere bai.
- Lehen mailako atentzio eta atentzio espezializatuko mailak onargarriak dira adineko pertsonen kasuan.
- Produktu farmazeutikoak adinekoentzat ia dohainik izatea lortu da (duela gutxi neurri murriztaileak hartu diren arren).  
Aldiz:
- Errehabilitazio prestazioen erabilgarritasunean gabezi garrantzitsuak hauteman dira.
- Osasun zerbitzuen artean eta osasun zerbitzuen eta gizarte zerbitzuen artean koordinazio lan handia egin behar da.

\* **III. arloa. Gizarte zerbitzuak**

Sendotutako gizarte zerbitzuen sistema publikorik ez dagoela esan daiteke. Gizarte zerbitzuen kopuruari eta horien prestazioen kalitateari dagokionez, alde handiak daude lurraldeen artean. Politika orokorrari dagokionez, berriz:

- Hirugarren adinaren inguruko gaiei buruzko azterlan eta ikerketa ugari burutu dira. Baina inolako koordinaziorik izan ez denez, zenbait alderdi aztertu gabe geratu dira eta beste batzuk gaintetik baino ez dira aztertu.
- Adinekoen oinarriko eskubideak arauen bidez bermatzeko helburua garrantzitsuenetako bat da, nahiz eta elkarte autonomoetako arau ugarietan gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak kontuan hartzen dituzten.

Gizarte zerbitzuen prestazioari dagokionez:

- Beharrak dituzten adinekoen artean, aldizkakoak ez diren prestazio ekonomikoak oro har ezarri dira, esate baterako, etxebizitzak birgaitzeko edo laguntza teknikoak eskuratzeko. Hala ere, prestazio horiek lortzeko betebeharrak oso murriztaileak dira eta kopuruak, berriz, oso mugatuak.  
Honakoek gora egin dute nabarmen:
  - babestutako etxebizitzek;
  - etxeko laguntza zerbitzuek;
  - egoitzek, elkarteek eta antzeko instituzioek;
  - egoitza plazek.

Baina gizarte baliabide horiek Plan Gerontologikoak finkatutako helburuetatik oso urruti daude oraindik ere.

\* **IV. arloa. Kultura eta aisialdia**

Arlo honetan ondorengo ekintzak azpimarratu behar dira: adinekoentzako oporretarako programak eta termalismo programak.

\* **V. arloa. Parte hartzea**

Beste helburu garrantzitsu bat adinekoek gizarte bizitzan parte har dezaten lortzea da. Adinekoen zentroek, oro har, parte hartzea bultzatzen duten estatutuak izaten dituzte. Parte hartze hori duela gutxi sortutako Adinekoen Estatuko Batzordearen bidez instituzionalizatu egin da.

Azalpena xehetasunez egin dut, nire ustez hain tresna pribilegiatuari –Plan Gerontologikoa bera– esker oso modu sistematikoan ikus baititzakegu adinekoen inguruko politiken alderdi positiboak eta alderdi negatiboak.

Adinekoen beharrei erantzuna emateko orduan aurrerapen handiak egin direla onartu behar da, baina horrek ez du esan nahi den-dena eginda dagoenik. Plan Gerontologikoaren zenbait helburu oraindik ez dira erdietsi eta horiek betetzea izango litzateke herritarren interesen babesean aurre egiteko modua.

#### **IV. ADINEKOEN ESKUBIDEAK BERMATZERA BIDERATUTAKO NEURRIEN PROPOSAMENAK**

Adinekoen eskubideak bermatzera bideratutako neurrien proposamenak egiteko, nire ustez, Konstituzioak botere publikoei agindutakoa eta ondorengo legegintza garapena betetzen ote den ikusi behar da.

Horregatik iruditu zait Plan Gerontologikoa aztertzea komeni zela eta hori da aurreko kapitulua idaztearen arrazoia. Baina horiez gain, oso garrantzitsuak izango dira beste tresna batzuk ere, hala nola, hemen gauden erakundeetako askok landutako txosten monografikoak (*Hirugarren adinekoen egoitza publikoak eta pribatuak*, Herriaren Defendatzailea erakundearena; *Hirugarren adinekoen egoitza Elkarte Autonomoan*, Aragoiko Justiziarena; *Hirugarren adinekoen egoitzak Euskal Autonomia Erkidegoan eta Egoitzaz kanpoko asistentzia adinekoentzat Euskal Autonomia Erkidegoan*, Arartekorena; *Galiziako zaharren egoera*, Valedor do Pobo-rena; *Egoitzako atentzioa hirugarren adinekoentzat Gaztela eta Leonen*, Procurador del Común-ena), eta Europako Parlamentuko 1999ko apirilaren 16ko Erabakia; bere izenburua hau da: “Hirugarren adineko herritarrak XXI. mendean: bizitza osoa aurretik”.

Lehenik eta behin zera gogoratu behar dut: adinekoak euren etxeetan eta ohiko inguruan mantentzea dela botere publikoen egungo helburu nagusia. Horretarako, adinekoentzako neurriak aplikatzeaz gain, horiek zaintzen dituzten familientzako eta oro har komunitatearentzako neurriak aplikatu behar dira.

Proposatutako neurrien frontispizio gisa eta erdietsitako lorpen sozialak baztertu nahi dituzten korrante ideologikoen (jarrera guztiz ekonomizistetatik) aurrean, aipatutako Europako Parlamentuko 1999ko apirilaren 16ko Erabakiaren 5. puntua gure gain hartu behar dugula uste dut:

*“Babes sozial solidarioko Europako ereduarekin bat egiten duela berresten du, bake soziala mantentzeko bermea baita; uste du babes sozialeko erregimenen erreformek ezingo dutela erregimenak oinarritutako oinarritzko printzipioen edukia kanpoan utzi, gizarte solidaritateko printzipioaren edukia, bereziki.”*

##### **A) KOMUNITATE OSOARI ERAGIN ETA ADINEKOEN INTEGRAZIOA ERRAZTEN DUTEN NEURRIAK**

Europako Parlamentuko 1999ko apirilaren 16ko Erabakiari jarraiki, ezinbestekoa da mugikortasuna mantentzea, adinekoek bizitza independentea izan dezaten. Horretarako:

1. Garraio publikoko zerbitzuak (aldirikoak) hobetu eta zabaldu egin behar dira, eta bideak jarri behar dira gutxitu fisikoak garraioetan sar daitezten.
2. Oztopo arkitektonikoak eta urbanistikoak kentzeko neurriak burutu behar dira, eta horrek zaharren gizarteratzea erraztuko du, besteak beste.
3. Beharrak dituzten pertsonen integrazioa eta, beraz, adinekoen integrazioa mesedetzeko etxebizitza politikei heldu behar zaie, sustagarri ekonomikoen bidez edo aldeko beste edozein neurriren bidez.

##### **B) FAMILIA ZAINZAILARI LAGUNTZERA BIDERATUTAKO NEURRIAK**

Familiei adinekoak zaintzen lagunduko dieten neurriak hartu behar dira, sare formal eta informala arako lankidetzaren printzipiotik abiatuta. Horretarako, botere publikoek:



1. Gizarte zerbitzu anitzen eskaintza aurkeztu behar dute, adineko bakoitza baliabide teknikorik egokienaren bidez zaintzeko. Horretarako egokienak diren zerbitzuak bultzatu beharko dituzte (EAZ, eguneko zentroak).
2. Atsedenaldira zerbitzuak (asteburuetarako edo oporretarako zerbitzuak) sustatu behar dituzte, zaintzaileek laguntza izan dezaten adinekoak zaintzeko.
3. Seme-alabak hezten edo adineko senideak edo ezintasunen bat duten senideak zaintzen emandako denbora kontuan hartzea bermatu behar dute. Bi helburu izango ditu aipatutako neurriak: batetik, zaintzaile lanean ibili diren familiako kideen (gehienetan emakumeak) pentsio eskubideak bermatzea; eta, bestetik, adinekoak eta gaixotia euren familia giroan bizi daitezen erraztea. (Europako Parlamentuko 1999ko apirilaren 16ko Erabakia, 14. atala).

Horri dagokionez, oso positiboa da "lan egiten duten pertsonen bizitza familiarra eta lana biltzera bideratutako" Lege proiektua. Izan ere, Lege proiektu horrek *"adinekoak edo gaixoak zaindu behar dituzten langileen lanaldia murrizteko eskubidea edo eszedentziarako eskubidea zabaldu egiten du, populazioaren aldagata demografikoak eta zahartzea kontuan izanik"*. Aipatutako Lege proiektuak Langileen Estatutua aldatzea aurreikusten du; familia arrazoiengatik lanaldia murrizteko eskubidea honakoei zabaltzea aurreikusten du: *"senideren bat, odolkidetasun edo kideetasunaren bigarren maila arte, zuzenean zaindu behar dutenei, senideak adin, istripu edo gaixotasun arrazoiak medio bere kabuz moldatu ezin direnean, eta ordaindutako jarduerarik burutzen ez dutenean"*. Halaber, senideak zaintzeko eszedentziarako eskubidea zabaltzea aurreikusten du; *eszedentzia ez da urtebetekoa baino luzeagoa izango eta arrazoiak izango dira senideen adina eta euren kabuz moldatu ezin izana.*

Horrez gain, abuztuaren 2ko 30/84 Legearen 29. artikulua aldatzea aurreikusten du, Funtzio Publikoaren Aldatzeko Neurrien ingurukoa, alegia. Artikulu horrek hauxe adierazten du senideak zaintzeko eszedentziari buruz: *"Funtzionarioek ere senideak zaintzeko eszedentziarako eskubidea izango dute. Eszedentzia ez da urtebetekoa baino luzeagoa izango eta honako baldintzak bete behar dira: senidea funtzionarioaren kargu egotea, odolkidetasun edo kideetasuneko bigarren maila artekoa izatea (hori barne), senideak adin, istripu edo gaixotasun arrazoiak medio euren kabuz moldatu ezin izana eta ordaindutako jarduerarik ez burutzea"*.

- Adinekoen atentziorako zerbitzuetan, zaintzailea duten adinekoan kasuan onarpen baldintzak zorrotzagoak izatea saihestu behar da; kontrakoa laguntza informalarri trabak jartzea izango litzateke.

## C) ADINEKOEI APLIKATU BEHARREKO NEURRIAK

### 1. Orokorrak:

- Gizarte zerbitzuen helburu eta funtzionamendu jarraibideen inguruko gizarte eztabaida planteatu beharko litzateke, atentzio komunitarioaren esparru orokorraren barruan.
- Administrazio eskudunek ekintza eredu egokiak definitu eta eskaintza dibertsifikatua ezarri beharko dituzte. Zertarako? Zaharren beharrei erantzuna emateko baliabide indartsuenen bidez (esate baterako, egoitza erakunde bidez), baliabide arinenen bidez (hala nola, jubilatuen etxeen bidez) edo sare naturalari laguntzeko tarteko proposamenen bidez (adibidez, eguneko zentroak edo etxeko arreta zerbitzuaren bidez).

### 2. Neurri arau-emaeleak:

- Behar-beharrezkoa da **zaharren eskubideen zerrenda** arautzea. Zerrenda horretan legegile autonomikoak eskubide subjektiboak izan beharko ditu kontuan, eta ez adierazpen erretorikoak soilik. Horri dagokionez, oso adierazgarria da E. López-Aranguren egindako proposamena:
  - Sarrera egokiak jasotzeko eta sarrera horiek goraka berrikusteko eskubidea.
  - Arazo fisiko eta arazo emozionalerako ahalik eta asistentzia sanitariorik onena izateko eskubidea.
  - Etxebizitza duina eta euren beharretara moldatutako etxebizitza izateko eskubidea.

- Lana izateko eta boluntario sozial gisa aritzeko eskubidea, euren adinagatik baztertu gabe.
  - Lanbide prestakuntza edo eguneratzea burutzeko eskubidea.
  - Erretiro sistema malguak eskaintzen dituen aukeren artean hautatzeko eskubidea.
  - Erretirorako prestatzeko programa ezartzeko eskubidea.
  - Independentzia eta autonomiarako eskubidea; norbere bizitza kontrolatzeko eta ekimen propioa burutzeko eskubidea.
  - Gizarte zerbitzuetarako eskubidea, eskubide subjektibo gisa eraturia; galarazita egongo dira nahikoa baliabide ekonomiko izateagatik adinekoak baztertzeko dituzten klausulak. Baina horrek ez du esan nahi, plaza gutxi daudenean, lehenbait logikoak ezarri ezin direnik.
  - Zentro eta zerbitzuetako erabiltzaileak diren neurrian, pribatutasunerako eskubidea, autonomiarako eskubidea, aukerak askatasunez hautatzeko eskubidea, nahiz herritar izateagatik dagozkigun gainerako eskubide guztiak.
- Zaharrek adinekoen zentro eta establezimenduetako erabiltzaileak izateagatik dituzten eskubideak arautu behar dira nahitaez. Horixe egin dute, esate baterako, Asturiaseko eta Extremadurako adinekoen inguruko lurralde legeek edo Eusko Jaurlaritzako martxoaren 10eko 41/98 Dekretuak, adinekoentzako egoitzako gizarte zerbitzuen ingurukoak, alegia. Zuzenbide katalogo horrek ondorengo eskubideak bermatu beharko ditu, gutxienez:
    - Pribatutasunerako eta konfidentziasunerako eskubidea.
    - Duintasunerako eskubidea.
    - Autonomiarako eskubidea.
    - Hainbat aukeraren artean askatasunez hautatzeko eskubidea.
    - Gogobetetzeko eskubidea.
    - Euren eskubideak ezagutzeko eta babesteko eskubidea.
  - Hirugarren adinekoentzako zerbitzu asistentzialak izateko prozedurak arautu behar dira. Prozedura horietan irizpide objektibo zorrotzak ezarri behar dira, berdintasun printzipioa errespetatzea bermatzeko.
3. Pentsioen inguruko neurriak:
- Konstituzioak botere publikoei agintzen die hirugarren adineko herritarrek behar beste baliabide ekonomiko izatea bermatzea, pentsio egokien eta aldiro-aldiro eguneratutako pentsioen bidez. Hori betetzeko, botere publikoek honakoa egin beharko dute:
- Hainbat pentsio kontributibo eta ez-kontributiboren kopuruak handitzea. Izan ere, kopuru horietako batzuk lanbide arteko gutxieneko soldatetik oso azpitik baitaude.
  - Pentsio osagarri bat ezartzea, 80 urteko edo gehiagoko pentsiodunentzat, behar beste baliabide ekonomiko ez dutenean eta bizitzako jarduera normalak burutzeko ezin direnean euren kabuz moldatu. Laguntza osagarri horren bidez aipatutako adinekoek hirugarren baten laguntza izango lukete, Estatuko Plan Gerontologikoan aurreikusitakoaren arabera.
4. Asistentzia sanitarioaren eta osasunerako eskubidearen inguruko neurriak:
- Adinekoei zuzendutako osasun zerbitzuen artean eta osasun zerbitzuen eta gizarte zerbitzuen artean koordinazio politika burutu behar da.
  - Adinekoentzako errehabilitazio prestazioen erabilgarritasunean hautemandako gabeziak arindu egin beharko dira.
  - Alzheimerra duten adinekoentzako eta euren familientzako laguntza tresnak ezarri beharko dira. Espainian 400.000 gaixo daude.
5. Hirugarren adinekoentzako egoitzako gizarte zerbitzuen inguruko neurriak:
- Beharra duen edozein adinekori egoitza plaza bermatu behar zaio.
  - Egoitza plaza defizitaren arazoa nahiko larria da oraindik ere (50.000 plaza Espainian 2000. urterako, hainbat iturriren arabera) eta hori konpondu egin behar da. Estatuko Plan Gerontologikoan aurreikusitako %3,5eko ratioa (65 urtetik gorakoentzat) lortzen ahalegindu

- behar dira, edo bestela, elkarte autonomoetako plan gerontologikoetan aurreikusitako ratioak (%5 EAEn).
- Egoitza plazak gehitzeaz gain, Administrazioak egoitzek baldintza material eta funtzionalak betetzeaz arduratu beharko dira (ikuskatze zerbitzuen bidez). Izan ere, horrela baino ez dituzte erabiltzaileen eskubideak bermatuko.
  - Euren kabuz moldatzen diren adinekoentzat sortutako egoitzen egitura eta antolamendua aldatu behar dira, ezintasunen bat duten adinekoen asistentzia bermatu ahal izateko.
  - Hemendik aurrera sortuko diren egoitzak eredu mistora egokitu beharko dira eta ezintasunen bat duten pertsonak hartzeari eman beharko diote lehentasuna.
  - Egoitza eraikin batzuen egoeran hautemandako gabeziak konpontzeko neurriei heldu beharko zaie, hala nola:
    - Iriskortasuna kanpotik, arrapalen bidez eta labainkadakontrako lurrak.
    - Logeletan, bainugeletan gurgildun aukietan sartu ahal izatea.
    - Suteen kontrako babes neurriak.
  - Baliabide pertsonalei dagokionez:
    - Langileak egokitu egin behar dira sor daitezkeen zenbait egoeratarara, esate baterako, euren kabuz ondo moldatzen direnek adinak aurrera egin ahala okerrago moldatu eta atentzio handiagoa eskatzen dutenean.
    - Atentzio egokia eman behar zaie, geriatrico eta errehabilitazioko espezialisten bidez, adibidez mediku geriatren eta fisioterapeuten bidez.
    - Erreferentziako langilearen figura bultzatu beharko litzateke. Horrela, bada, egoitzako zahar bakoitzari arduradun bat egokituko zaio, bere beharrak bideratu eta koordinatzeko.
  - Ezinbestekoak dira limurtze eta elkarrizketa printzipioak egoitzek behar bezala funtzionatzeko. Horregatik, zenbait tresnek asistentziaren kalitate ona lortzen lagunduko dute, esate baterako: barne erregimeneko araudiek, praktika onen gidaliburuak (adibidez, Arabako Foru Aldundiak sortutakoa) nahiz zerbitzuak ebaluatzeko praktikak ezartzeak.
6. Hirugarren adinekoentzako beste zerbitzu asistentzial batzuk, egoitzako zerbitzuez gain:
- Adinekoak ohiko giroan bizitzea ahalbidetuko duten gizarte zerbitzu guztiak bultzatu behar dira, hala nola: etxeko arreta zerbitzuak, eguneko zentroak, jubilatuen etxeak, astebururako edo oporretarako atsedendaldi zerbitzuak edo babestutako etxebizitzak.
  - Egoitzaz kanpoko gizarte zerbitzuen eskaintza defizitarioa da une honetan. Defizit hori konpontzea izango da gizarte politikaren helburu nagusietako bat. Horri dagokionez, botere publikoek ahaleginak egingo dituzte ondorengoa lortzeko: Estatuko Plan Gerontologikoan edo elkarte autonomoetako planetan finkatutako ratioak betetzea, gutxienez. Adibidez:
    - Etxeko arreta zerbitzuko estaldura maila pixkanaka igo behar da, 65 urtetik gorako herritarren %8ko maila lortu arte. Badirudi nahiko zaila dela helburu hori lortzea, egungo estaldura maila %2 baino baxuagoa baita.
    - Gutxienez egoitza plazen %2 aldi baterako egonaldietarako gorde behar da, familiarekin bizi diren zaharrentzat.
  - EAZetan lehentasunez eta premiaz gaueko eta asteburuko zerbitzuak garatu behar dira, laguntzarik gabeko egoerak saihesteko. Izan ere, egoera horiek ezin baitira inolaz ere onartu.
  - Adinekoak egoitzetara bizitzera joan ordez, beste konponbide alternatibo batzuk eta sare naturalari lagunduko dioten konponbideak garatu behar dira, esate baterako, atsedendaldirako laguntza edo aldi baterako egonaldiak.
  - Eguneko zentroen eskaintza zabaltu beharko da (oso baliabide interesgarria), adinekoak euren ohiko giroan bizi ahal izateko.
  - Behar-beharrezkoa da administrazioek egoitzen zerbitzu alternatiboen sustapen kanpaina indartsua egitea, herritar gehienek ez baitituzte ezagutzen zerbitzu horiek.
7. Adinekoen parte hartzearen inguruko neurriak:
- Adinekoak protagonista nagusiak dira bizi diren egoitzetan. Horregatik, hauxe izango da helburu nagusietakoa: adinekoek egoitzaren funtzionamendu orokorrean parte har dezaten bultzatzea.

- Adinekoen parte hartzearekin lotutako bi gertakari garrantzitsu gertatu dira. Hona hemen:
  - Adinekoen Estatuko Batzordea sortu da, hau da, aholkularitzarako eta kontsultarako Administrazioaren menpeko erakundea.
  - Adinekoen Estatuko I. Biltzarra burutu da.  
Botere publikoek adinekoen parte hartzea biziki bultzatu beharko dute, dagozkien erabakiak hartzeko orduan adinekoek burutu behar duten zeregina berreskuratzeko. Horrela, adinekoek zahartzaroaren ikuspuntu positibo eta aktiboa emango dute.

## **AMAITZEKO**

Bizi itxaropena luzatzeak eta populazioa zahartzeak eragindako errealitate soziologiko berria aztertzen saiatu naiz; adinekoen beharrei araudiek eta erakundeek zer-nolako erantzunak ematen dizkieten aztertzen ere saiatu naiz.

Gainera, adinekoen eskubideak bermatzeko zenbait proposamen sistematizatzen ahalegindu naiz. Edonola ere, ez nuke nire hitzaldia bukatu nahi ondorengo esan gabe: adinekoentzako prestazio sozialen sistema publikoak ezin direla neurtu (eta ez direla neurtu behar) parametro ekonomikoen arabera soilik; eta ez da ahaztu behar sistema horrek justizia sozialeko printzipioa eta zuzentasun printzipioa guztiz bete behar dituela. Azpimarratu dudan moduan, Espainiako Konstituzioak botere publikoei agintzen die herritar guztientzako Gizarte Segurantzako erregimen publikoa mantendu behar dutela, eta erregimen horrek behar besteko asistentzia eta prestazio sozialak bermatuko dituela; azken finean, herritarren duintasun pertsonala babestu beharko duela (EK-ren 10. art.). Duintasun pertsonalaren axioma zera da: giza dimentsioko bizitzarako eskubidearekin estu-estu loturik egoteagatik gizakiak berezkoak dituen eskubide batzuen hazi edo nukleoa. Axioma hori dela-eta, botere publikoek prestazio publikoen sistema eratu beharko dute. Horretarako, behar den gastu maila eta aurrekontuetako lehentasunak finkatuko dituzte. Giza duintasunaren balio konstituzionalaren aurrean, atzera egin beharko dute nagusiki ekonomizistak diren ikuspuntuek. Lan hori oso zaila da eta bermerako gure erakundeek, beraz, zaindu egin beharko dute botere publikoek Konstituzioak agindutakoa (adinekoen beharrei erantzunak ematea) betetzen duten ala ez.

## II. ERANSKINA

### **HERRITARREN DEFENTSA ESKUALDE MAILAN, EUROPAN (Herriaren defendatzaileen eta Europako Batasuneko eskubideetarako eskualde batzordeen eta bi horien eta Europako Herriaren Defendatzailearen arteko lankidetzari buruzko hitzaldia)**

#### I. SARRERA

#### II. EUROPAKO HERRITARRA GORA EGITEN ARI DEN ERREALITATE BERRI BATEN AURREAN

- 2.1. Mundu mailako orokortzearen fenomeno eta estatueta dezentralizazio politikoa
- 2.2. Zuzenbideko estatu soziala. Esku hartzen zalea den estatua
- 2.3. Giza eskubideen eklosioa Europan eta berme sistemak. Justizia administratiboaren krisia
- 2.4. Arazo administratiboek konponbidea emateko sistema alternatiboak. Ebazpen judizialen metodo osagarriak. Arazoen ohiko konponbidea eta Ombudsmana

#### III. HERRITARRA ESKUBIDE ZIBIKO ETA SOZIALEN EUROPA BATEKO PROTAGONISTA

- 3.1. Eskubide zibiko eta sozialen europa baten alde (María Lourdes Pintasilgo andrea lehendakari duen Jakintsuen Batzarraren Txostena. Brusela, 1995eko urria-1996ko otsaila)
- 3.2. Europako Batasuneko oinarritzko eskubideen baieztapena. Jarduteko unea heldu da (Oinarritzko eskubideei buruzko Adituen Taldeak -Spiros Dimitris lehendakari duela- egindako txostena. Brusela, 1999ko otsaila)
- 3.3. Askatasunaren, segurtasunaren eta justiziaren Europako Batasunerantz: Tampereko mugarrak (Lehendakaritzaren ondorioak. Europako Kontseilua. Tampere, 1999ko urriaren 15-16)

#### IV. EUROPAKO HERRITARRA ESKUALDE MAILAN. BOTERE PUBLIKOEN JARDUKETEN ELKAR GAINERATZEA ETA HAIEN ESKUBIDEAK BERMATZEKO SISTEMAK

#### V. ESKUALDEETAKO HERRIAREN DEFENDATZAILEEN EGINKIZUNA EUROPAKO TRESNA JURIDIKOEN ALORREAN

- 5.1. Eskualdeko defendatzailea Europako Kontseiluko Ministroen Batzarrean
- 5.2. Toki eta eskualde mailako bitartekarien/Ombudsmanen papera herritarren defentsan. Europako toki eta eskualde mailako botereen kongresua

#### VI. ONDORIO GISA. ESKUALDEETAKO DEFENDATZAILEEN EGUNGO ETA ETORKIZUNEN EGINKIZUNA, HERRITARRARENGANDIK HURBILEN DAGOEN INSTANTZIA DIREN ALDETIK, GAINERAKO DEFENDATZAILEEKIN KOORDINATURIK

## I. SARRERA

Bereziki atsegina da, Europako herritarren eskubideen defentsaren azterketan sakontzeko, herriaren defendatzaileen eta eskualdeetako eskarien legebiltzar batzordeen eta Europako herriaren defendatzailearen bilkura honetan parte hartzea.

Egun hauetan atzera begirako balantzeak eta etorkizuneko proiektioak egin ditugu, milurteko berriari begira. Hala eta guztiz ere, nire hitzaldi honetan argi utzi nahi nuke, halako ur handitan sartu gabe, mundu osoan giza eskubideen balioa argiro indartzen ari den bidegurutze batean gaudela.

Bartzelonan egin zen azken konferentziatik, mugarri garrantzitsuak jarri ziren arauen esparruan - Amsterdameko Hitzarmenak aurtengo maiatzaren 1ean hartu du indarra- eta giza eskubideei buruzko azterlanetan eta eztabaidetan ere. Elkarrekin partekatzen ditugun eskubideak bermatzeko helburuarekin, erreferentzia argia izango dira, zalantzarik gabe.

Europako herritarren indarraren ideiak sekulako aukerak eskaintzen ditu, eta herritarren Europa bat eratzen lagunduko du. Hartan, noski, pertsona izango da protagonista eta Europako politika guztien benetako ardatza.

Eszenatoki berri horretan, gogoeta egin beharko dugu eskubideak bermatzeko erakundeoi egokitu zaigun eginkizunari buruz eta eskubideen betetze osoa bermatu beharreko gune batera iristeko egiteko dugun lanari buruz.

## II. EUROPAKO HERRITARRA GORA EGITEN ARI DEN ERREALITATE BERRI BATEN AURREAN

Une honetan, XX mendearen bigarren erdian eratzen joan den gizarte- eta erakunde-errealitate batean dago Europako herritarra. Errealitate horrek, zalantzarik bat ere gabe, eragin erabakigarria izango du botere publikoaren aurrean bere eskubideak defendatzeko garaian izango duen tokian eta eskubide horiek bermatzeko eta defendatzeko sorturiko sistemen aukeran.

Pintzelkada arin batzuk emango ditut horri buruz, zuen baimenarekin. Gaia osorik aztertzeo asmorik izan gabe ere, baliagarri gerta daitezke aipatzen ari naizen errealitate hori bere testuinguruan jartzeko.

### 2.1. Mundu mailako orokortzearen fenomeno eta estatuetao dezentralizazio politikoa

Mundu mailako orokortzearen fenomenoaren aurrean gaude. Mundu mailako orokortzea dela eta, herritarrarengan eragina duten erabakiek nazio mailako eremua gaingitu eta nazioez gaingidako eremua ere hartzen dute. Azken horretan, botere politikoez ezezik botere ekonomikoez ere elkarren arteko komunikazio bizia dute harremanen marko konplexu baten bitartez.

Mundu mailako orokortzearen erronkek gizarte gaitan ere eragiten dute. Adituek (M.L. Pintasilgo lehendakari izan duen txostenean) aipatzen dute "*mundu mailako orokortzeak gero eta argiago ageriko diren gizarte-alderdiak dituela, bereziki, lan merkatuaren mundu mailako orokortze progresiboari dagokionez*".

Aldi berean, mundu mailako orokortze horrekiko kontraesan bat izan gabe, botere politikoen dezentralizazioa gertatzen ari da; hain zuzen ere, erabakiak hartzeko guneak herritarrarengatik hurbilago egon daitezen bilatu nahi da.

Batasunari buruzko tradizio bakarzalea eta irmoki zentralizaturik dauden estatuetaan ere, dezentralizazio prozesuak gertatu eta autonomia politikoa ematen ari zaie eskualde edo toki mailako erakundeoi.

Mundu mailako orokortzearen eta dezentralizazio politikoen printzipio horiek txanpon bereko bi alde dira, eta ez dira kontraesan bat. Egituren elkar gaineratze horrek berekin ekarri du erakundeon egituratzea gero eta zailagoa izatea. Horrek, askotan, herritarren eta botere publikoen arteko harremanak ilunak eta ez oso malguak izatea sortu du.

### 2.2. Zuzenbideko estatu soziala. Esku hartzen zalea den estatu

Jakina da estatu liberalaren antzinako eredua estatuaren eta gizartearen kontzepzio berezian oinarritzen zela, eta, beraz, estatuak ez zuela herritarren bizitzan esku hartu behar.

Egungo estatua, ordea, gizarte-estatua edo ongizatearen estatua izenburupean, oso ere da esku hartzen zalea, eta haren jardueraren helburua da herritarren beharrianak betetzea.

Botere publikoek zenbait tresnaren bitartez -batez ere, legegintzaren bitartez- jarduten dute gizartearen errealitatea eraldatzeko, eta horretarako babes maila eragingarriak ezarriko dituzte. administrazioaren eta herritarren arteko harremanak aldatu egin dira, eta, horrenbestez, estatuaren eta gizartearen arteko harremanak ere aldatu egin dira. Interes publikoa/interes pribatua binomioa gero eta lausoagoa da. Gizarte eskubideak izenarekin ezagutzen diren horien norainokoa eta haien eragingarritasun juridikoa, bai eta babes sistemak ere, gainditzeko daukagun ikasgaia dugu oraindik ere.

Betiere, azpimarratu nahi nuke gizarte estatuaren legezkotasuna bera ere helburu edo jarraibideen emate bat bezala egituratzeko joera dagoela. Horrek lan egiteko tarte zabala eskaintzen dio administrazioari.

Jarduketa administratiboaren kontrol tradizionala gero eta zailagoa da, kontzeptu juridiko zehaztugabeak erabiltzen direlako edo ahalmen diskrezional handia ematen zaiolako. administrazioa nonahi dagoela argi eta garbi dago, eta auziren bat gertatzen den egoeretan, Zuzenbidea eta sistema judiziala gizarte errealitatearen atzean doaz. Horrek berekin ekarriko du kontrol modu berriak sortu behar izatea, besteak beste Ombudsmanenak.

### 2.3. Giza eskubideen eklosioa Europan eta berme sistemak. Justizia administratiboaren krisia

XX. mendearen bigarren erdian, eskubideen gutunak txertatu dira Europako konstituzio ia gehienetan. Bestalde, eskubideak babestu eta bermatzeko sistemak hautatu dira, eredu tradizionalak erabiliz ezezik kanpotik bestelako ereduak ekarri ere.

Babes sistema guztien artean sistema judiziala da garrantzitsuen; hala ere, krisi larrian dago.

Adierazi dugun bezala, krisi larrian dago administrazioarekiko auzietako prozesuen eredu, ez baitu beti balio izan herritarren eta administrazioaren arteko gorabeheri konponbidea emateko sistema gisa.

Justizia administratiboaren sistemaren krisia ere argi dago Europa osoan, baita eredu horren aitzindaria izan den Frantzia bertan ere.

Justiziak berezko duen eginkizuna gorabeheri konponbidea ematekoa da, baina ez da betetzen ari exijentzia irizpide berdinekin. Prozeduretan gertatzen den geldotasunak amaiera ez bat ere asegarria iragartzen digu.

Argi eta garbi dago, bestalde, administrazioarekiko auzibideen prozesua nabarmen eskasa dela administrazioaren eta herritarren artean sortzen diren arazoei erantzuna emateko eredu gisa. Garrantzi publiko eta juridiko agerikoa duten gaiak gaizki txertatzen dira auzibide estu eta askotan obsoletuetan.

Kontzeptu juridiko zehaztugabeak erabiltzeko bideak, prozesura jotzeko zilegitasuna murrizteak eta administrazioari gero eta ahalmen diskrezional handiagoak emateak defentsarik ezean utzi dute herritarra. Gainera, herritarrak, horren ondorioz, uste du prozedura egoki bat falta dela administrazio publikoekin dituen arazoei bide egokia emateko.

### 2.4. Arazo administratiboari konponbidea emateko sistema alternatiboak. Ebazpen judizialen metodo osagarriak. Arazoen ohiko konponbidea eta Ombudsmana

Duela hogeitaz urte baino gehixeago, Estatu Batuetan, pertsonen arteko arazoei konponbidea emateko teknika ezberdinak hasi ziren aztertzen. ADR (Alternative Dispute Resolution) siglekin ezagutu izan dira, eta izen hori mundu osora zabaldu da.

Sigla anglosaxoi horiek ordeztzeko ahaleginak ere egin dira, eta gaztelaniaz TARC (Técnicas Alternativas de Resolución de Conflictos) izena, eta frantsesez MARC (Modes Alternatifs de Règlement de Conflicts) edo RAD (Règlement Alternatif des Différences) izenak ere ezagutu ditugu.

Edozein dela ere erabiltzen den izena, egia da greziarrek ere auziei konponbidea emateko aipatzen zuten sistema oso zahar batez ari garela, eta sistema horri siglek ematen dioten modernitate itxura alde batera utzita, hirugarren batek pertsonen jarrerak hurbildu eta haien arteko arazoari konponbidea emateko baliabide hori betidanik erabili izan dela.

Paradoxa bat ere bada gizarte-harremanen eta pertsonen arteko harremanen zailtasunen aurrean, erantzunik eragingarriena izatea sistema zaharrenak eta oinarritzkoenak erabiltzea. Hain zuzen ere, haien bitartez konponbide azkarra ematen da, ez dago araututako prozedura bati lotu beharrik eta

arazo bakoitzarentzat *ad hoc* sortutako sistema bat erabil daiteke. Horiek guztiak makineria judicial geldo eta ohoragarriak eskaintzen dituen alde onak dakartzate.

Doktrina konparatuak (Charles Jarrosson) adierazten duenez, arazoei konponbidea emateko modu alternatiboak sortzea edo daudenetan berrikuntzak egitea herri anglosaxoiengan gorpuztu da aurrena, baina tradizio erromatar eta germaniarra duten herrietan ere arreta berezia jartzen ari da haietan, Zuzenbidea eta konponbide juridikoak alde batera uzteko halako joera bat gertatzen ari den aldi berean.

Arazoei konponbidea emateko modu alternatiboak sail zabal bat, eta, beraz, mugatzen zaila den sail bat osatzen dute. Baina guztiak batera dute ezaugarri hau: jurisdikzioez kanpo aldeak ados jarri nahi izaten dituzte. Askotan, erabakiak hartzeko uneetan, intentsitate maila ezberdinekin, parte hartzen duen hirugarren pertsona baten esku-hartzea ageri da.

Konponbide ohikoaren sistema klasikoan (bitartekaria, arbitraja, adiskidetzea) ondoan, autoreek *“Ombudsman eskandinaviarraren erakundea eta beste herrietan diren haren berdina”* (Charles Jarrosson) jarri dituzte.

Zenbait autore frantsesek, halaber, Ombudsmanen eginkizuna Zuzenbide administratiboan diren arazoan konponbide alternatibo gisa hautatu dute.

Horrela, bada, Arnaut Lyon-Caenek sistema alternatiboan hiru kategoria ezarri ditu, eta haietako lehenbizikoan *“gutxi-asko Ombudsman eskandinaviarrean inspiraturiko erakundeak”* kokatzen ditu. Gerard Cornuk ere arazoei konponbidea emateko era alternatibo gisa aurkezten du Ombudsmana.

Halaber, Espainian, Sánchez Morón irakasleak ondokoa adierazi du: *“administrazioaren arloan izandako bitartekotza esperientziak askoz ere gutxiago dira [Estatu Batuetan baino], Ombudsmanek burutzen dituzten jarduerak asko eta asko bitartekotza gisa hartzen ez badira behinik behin. Ombudsmanaren erakundea, ez alferrik, bitartekari izenarekin ezagutzen da herriren batean (Frantzia).”* Autore horrek uste du Espainian *“bitartekari jardueraren aurrekariak aurki ditzakegula autonomietako legebizarretako mandatarien kasuan”*.

Josep Redorta Lorentek adierazi izan du legegintzan izan berri diren aldaketek erakunde-bitartekotza indartzeko bidea hartu dutela, baita administrazioaren eta administratuaren arteko harremanaren arloan ere; harreman horrexetan kokatu behar da Ombudsmanaren figura.

Autore horrek zehaztu nahi izan du *“figura horiek [Ombudsmanek] batzuetan baizik ez dutela bitartekari lana egiten”*. Teknikoki, berezkoa ez duten halako bitartekotza bat da egiten dutena; bestela esanda, arazoari aurrea hartzeko lana da egiten dutena.

Beraz, esan genezake Ombudsmana arazoei konponbidea emateko sistema alternatiboaren modu berariazko bat dela, eta Ombudsmanen jarduerak bitartekotza lanaren halako aurrekari bat izaten dela administrazioaren arlo zehatzean; horri esaten diote autore batzuek *“berezkoa ez duten halako bitartekotza”*.

### III. HERRITARRA ESKUBIDE ZIBIKO ETA SOZIALEN EUROPA BATEKO PROTAGONISTA

Arestian marrazturiko ikuspegi horrek agerian utzi du aldatzen ari den egoera bat aztertzen ari garela, eta asko gelditzen dela egiteko herritarren eskubideen marko bat zehaztearen arloan eta herritarrari bere eskubideak bete-betean gauzatzeko bermeak emango dizkion sistema eragingarri bat ezartzearen arloan ere.

Europako gizarte eredu bat -non herritarra izatearen kontzeptua gauzatzen joango baita- bilatzeko lan horretan, nire ustez bereziki interesgarria da buruturiko erakunde-azterketa batzuk begiratzea; izan ere, horiek aurrerapen bat egiteko balio dezakete etorkizun hurbilenak nora joko duen jakiteko. Betiere, badirudi herritarraren jarrera indartu egingo dela.

#### 3.1. Eskubide zibiko eta sozialen europa baten alde (María Lourdes Pintasilgo andrea lehendakari duen Jakintsuen Batzarraren Txostena. Brusela, 1995eko urria-1996ko otsaila)

Europako gizarte eredu bat dagoelako ideiatik abiatuta, hona zer baieztatu dugun txosten honen aitzinsolasean: *“bide berriak aurki daitezke sistema nazional ezberdinetan izaniko esperientziak*



*batera jartzearen bitartez. Gizarte eskubideei buruzko eta haiek egungo munduan duten aplikazioari buruzko gogoetak behar duten lekua bete behar dute Europako Batasunaren eraikinean.”*

Ondokoa ere eransten dute: *“eskubide zibikoak eta eskubide sozialak elkarren menpekoak dira orain. Europako tradizioan bereiztezinak dira. Askatasuna eta askatasunaren baldintzak <demokrazia eta garapena> kontzeptuaren isla dira”.*

Batzar horrek zenbait proposamen egin ditu. Horietako batzuk gogorarazi nahi nituzke:

- Gure ongizatearen estatua berritzeko modalitateak zehaztea, elkarlehiarako eta kohesio sozialerako tresna hobea izan dadin.
- **Eskubide zibiko eta sozialen belaunaldi berri bat** agertzeko baldintzak aztertzea, kontuan haturik, batez ere, aldaketa teknologikoak, ingurumenaren arloko ezagutzetan izan den aurrerapena eta bilakaera demografikoa.
- Batasunean, herritartasuna eta demokrazia sendotzea, **eskubide zibikoak eta eskubide sozialak era bereiztezinean** aztertuz.
- Lehen etapa bati amaiera ematea, nola eta hitzarmenetan **eskubide zibiko eta sozial funtsezkoen oinarritzko multzo bat (“Bill of Rights”) inskribatuz**, eta hartan zehazturik jurisdikziopeko babes berehalakoa dutenak eta izaera programatikoagoa dutenak (horietan bigarren etapa batean sakonduko da).
- Prozesu zabal eta demokratiko bati ekitea, guztion artean Batasunean **eskubide eta betebeharrak zibiko eta sozialen zerrenda oso** bat egiteko.

\* \* \*

Jakintsuen Batzarreko txosten honetan oinarriturik, ESKUALDEETARAKO BATZARRAK, 1997ko ekainaren 11n, **irizpen** bat onetsi zuen. Hartan, toki entitateek eta eskualdeetako entitateek politika sozialerako eta gizarte-prebisorako egin beharreko ekarpena azpimarratu zuen, bai eta toki entitateen eta eskualdeetako entitateen eginkizunetarako eta toki mailako zerbitzuak emateko proposamen horiek daukaten garrantzia ere.

- Eskualdeetarako Batzarrak gogorarazten du *“toki entitateek eta eskualdeetako entitateek izatez badutela jada eginkizun garrantzitsu bat Batasuneko herri guztietako politika sozialean”*, eta, besteak beste, ondoko arloetako lehen hornitzaileak direla herritarrarentzat: hezkuntza, prestakuntza, etxebizitza sozialak, gizarte zerbitzua eta ongizate zerbitzuak, osasunaren sustapena eta ingurumena.
- Eskualdeetako Batzarra bat dator Jakintsuen Batzarraren proposamen guztiekin, eta Batasunak oinarritzko eskubideak babesteko berezkoa izango duen apelazioko jurisdikzio berezi bat ezartzeari dagokionez uste du *“metodo moderno eta merkeak behar direla eskubideak babesteko. Herriaren Defendatzailearengana jo beharko da behar denean.”*
- Amaitzeko, Eskualdeetako Batzarrak ondokoa dio: *“toki entitateek eta eskualdeetako entitateek ezinbesteko eginkizuna dute herritartasun aktiboa sustatzeko eta eskubide zibikoak eta sozialak zaintzeko; izan ere, herritarrarengandik hurbilen dauden gobernu-maila dira. Jakintsuen Batzarraren proposamen eta ondorio gehienek eraginak dituzte toki eta eskualde mailako gobernuetan.”*

### 3.2. **Europako Batasuneko oinarritzko eskubideen baieztapena. Jarduteko unea heldu da (Oinarritzko Eskubideei buruzko Adituen Taldeak -Spiros Dimitris lehendakari duela- egindako txostena. Brusela, 1999ko otsaila)**

Arestian adierazi dugu Jakintsuen Batzarrak, lehen esandako txostenean, planteatu duela funtsezko eskubideek izan behar dutela Europako Batasuna osatzen duten gaietako bat. Adituen taldeak hitzarmenetan -eta bereziki Amsterdameko Hitzarmen berriaren- dauden eskubideen egoera aztertzeke enkargua jaso zuen.

Jakintsuen Batzarraren eskaria gorabehera, *“Amsterdameko Hitzarmenak ez du oinarritzko eskubide zibil eta sozialen multzo oinarritzko bat jasotzen ‘Bill of Rights’ itxuran, eta ez die erantzun*

*betegarria ematen Jakintsuen Batzarreko txostenean adierazitako igurikapenei, hain zuzen oinarrizko eskubideak argiro zehaztu eta zabaltzeari dagokionez.”*

Txostenak argitasun batzuk eman nahi ditu hori dela eta: *“egia bada ere Amsterdameko Hitzarmenak ez duela egin zehazki oinarrizko eskubideen berariazko aitorten bat, aurrerapauso erabakigarria izan da Europako Batasunean oinarrizko eskubideak babesteko printzipioa era argiagoan aitortzeko bidean”*. Oinarrizko eskubideak aipatzeko partez, Amsterdameko Hitzarmenak haiek babesteko behar diren prozedurak ezartzen ditu.

Adituen Batzarrak hamar gomendio eman zituen oinarrizko eskubideak berariaz eta okerrik gabe aitortzeko. Haietatik hiru aipatu behar ditut orain interesatzen zaigunari begira:

• **Banaezintasuna**

*“Oinarrizko eskubideak berariaz aitortzeko edozein ahaleginetan, beharrezkoa da eskubide zibilak eta eskubide sozialak batera sartzeari; elkarrekiko duten menpekotasunaz ez jabetzeak zalantza jartzen du bien babesa.”*

• **Oinarrizko eskubideak berariaz aitortzea: zabalik dagoen prozesu bat**

Batzarrak ondokoa aitortu du: *“erreakzio egokiena oinarrizko eskubideen erabateko azterketa, azterketa zehatz bat egitea izango litzateke, haiek hobeki txerta daitezten Europako Batasunaren Zuzenbidean, eta kontuan hartzea gizarte moderno batean duten eginkizuna. Komunitatearen berezko oinarrizko eskubideen multzo berri bat egiteko arriskua handia da, eta, berez, berriz ere zabalduko luke jada gehiegi luzatu den eztabaida bat”*.

Hauxe adierazi du, gainera: *“ahalegin guztiak ‘Bill of Rights-en’ beste formulazio bat egitean jartzeko partez, komenigarriagoa izango litzateke Giza Eskubideak Babesteko Europako Hitzarmenean aitortzea eskubide horiek, eta haiek, organo horien jurisprudentziaren bitartez, bihurtzea Europa osorako ‘Bill of Rights’ komuna.”*

Horrenbestez, uste du Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 2-13 artikuluek aipatzen dituzten eskubide guztiak Europako Zuzenbidean sartu beharko lirakeela beren elementu guztiekin, protokolo erantsietan agertzen direnak bezalaxe. Eskubide horiek oinarrizko eskubide eta askatasun publiko gisa ezagutzen direnak dira: bizitzeko eskubidea, osotasun fisikorako eskubidea, askatasunerako edo segurtasunerako eskubidea... Beharrak sortu ahala, Giza Eskubideen Europako Hitzarmena osatuko eta zehaztuko duten klausulak erantsi beharko dira.

Aldi berean, zabalik gelditzen da etorkizunean ingurumenari, bioteknologiari eta abarri buruzko eskubide berriak eransteko aukera.

• **Eskubide guztiak testu bakarrean agertu beharko lukete**

**3.3. Askatasunaren, segurtasunaren eta justiziaren Europako Batasunerantz: Tampereko mugarrak (Lehendakaritzaren ondorioak. Europako Kontseilua. Tampere, 1999ko urriaren 15-16)**

Europako Kontseiluak saio berezi bat egin du Finlandiako Tampere herrian, 1999ko urriaren 15ean eta 16an. Europako Batasunean askatasunerako, segurtasunerako eta justiziarako gune berri bat sortzeaz aritu dira, eta ondokoak adostu dituzte: **Europako Batasuneko Oinarrizko eskubideen Gutunaren Proiektua** prestatzeko organo eskudunaren osaketa, lan metodoa eta xedapen praktikoak.

Erreferentzia nagusi gisa adierazten da Europako integrazioa askatasunaren konpromiso partekatuan errotuta dagoela, eta giza eskubideak, erakunde demokratikoak eta Zuzenbideko Estatuia izan dituela oinarri. Balio komun horiek ezinbestekoak izan dira bakea bermatzeko eta Europako Batasunaren aurrerakuntza garatzeko. Europako Batasuna zabaltzeko giltzarri ere izan dira.

Politika komunaren garapena aurreikusi da asiloaren eta inmigrazioaren arloetan, errefuxiatuekiko konpromisoaren arloan, justizi gune benetako bat lortzeko, delinkuentziaren aurkako politika komunetan...

Amaitzeko Amsterdameko Hitzarmena erabat eta berehala aplikatu dadin galdatzen dute, Vienako Ekintzen Planean eta jarraibide politikoetan eta Tamperen adosturiko helburu zehaztuetan oinarriturik.

#### IV. EUROPAKO HERRITARRA ESQUALDE MAILAN. BOTERE PUBLIKOEN JARDUKETEN ELKAR GAINERATZEA ETA HAIEN ESKUBIDEAK BERMATZEKO SISTEMAK

Orain arte deskribaturiko errealitatearen ondorioz, Europako herritarrak, bere eguneroko bizitzan, lurralde eremu ezberdinetako botere publikoen ekintzak aurkitzen ditu, eta eragin zuzena dute harengan.

Europako Batasunaren, Estatuaren, eskualdeko entitatearen edo toki entitatearen erakundeek eragin ezberdina dute herritar horrengan, konpetentzia, hierarkia edo, hala behar izanez gero, subsidiariotasun printzipioen arabera funtzionatu beharko duen eskumenen banaketa bati jarraituz.

Botere publiko horiek elkar gaineratzeak dakarren zailtasun horrek, askotan, defentsarik ezaren sentimendua eragiten du herritarrarengan. Informazio sistema argi eta zehatz bat nahi luke hark administrazioaren nahas-mahas horretan aise ibili ahal izateko.

Aldi berean, paraleloki, herritarren eskubideak bermatzeko tresnak dira elkar gaineratzen direnak, bere jarduketa materialetan eta lurralde-eskumenetan beren eremuari mugaturiko erakundeen bitartez.

Jurisdikziopeko babesa berme-sistematik sendoena balitz bezala agertu ohi bada ere, gero eta gehiago dira eskubide sozialen defentsan eta interes lausoen defentsan ere Ombudsmanaren eginkizuna bermea emateko bitarteko ezinbestekoa izango dela uste dutenak.

Estatu dezentralizatuetan, kasu gehienetan eskualde entitateenak izaten dira -bai eksklusiboki, bai Estatuarekin partekaturik- osasuna, hezkuntza, prestakuntza eta gizarte ongizatea bezalako eskumenak.

Hori dela eta, herritarrarengan eragiten duten jarduketa publikoak, neurri handi batean, eskualdeetako botere publikoetatik heldu dira, baina baita ere estatuko, toki mailako eta Europa mailako botere publikoetatik ere.

Eskualdeetako defendatzaileen eginkizuna -eta Europako, estatuko edo toki mailako herriaren defendatzaileena ere- funtsezkoa izango da herritarren eskubideak bermatzeko, bere menpe dauzkaten erakunde mailaren arabera.

Arriskurik badago herritarrak, horren konplexua den egitura berme-emaile baten aurrean, atzera egiteko, erakunde horien eginkizunak eta eskumen-eremua zein den jakin ezinik. Hori dela eta, funtsezkoa da, alde batetik informazio eta hedapen jarduketak aztertzea, eta bestetik, defendatzaileek, beren lurralde-eremua alde batea utzita, halako “**Defendatzaileen elkargo**” bat bailiran aritzea, kooperazio, koordinazio eta subsidiariotasun printzipioetan oinarrituriko harreman erabat harmoniko batzuen bitartez.

#### V. ESQUALDEETAKO HERRIAREN DEFENDATZAILEEN EGINKIZUNA EUROPAKO TRESNA JURIDIKOEN ALORREAN

Oro har Ombudsmanari eta bereziki eskualdeetako defendatzaileei gordetako protagonista-paper hori erakunde horien ezaugarriak eta eginkizunak agerian jarriko dituzten tresna juridiko ugaritan agertzen da.

Komenigarria da tresna juridiko horiei buruzko aipamen sistematizatu egitea; izan ere, xedapen akademikoez haratago, erakunde hauen funtzionamendurako giltzarri asko eta asko biltzen baitituzte.

##### 5.1. Eskualdeko defendatzailea Europako Kontseiluko Ministroen Batzarrean

Europako Ministroen Kontseiluko Batzarrak, 1998eko irailaren 23an, ondoko erabakiak hartu zituen:

\* **R(85)13 erabakia**

Erabaki horretan, pozik agertzen da Batzarra azken urteetan Ombudsmanaren erakundeak nazio mailan, eskualde mailan eta toki mailan Europako Kontseiluko Estatu kideetan nola garatu den ikusirik, hain zuzen ere administrazio modernoaren konplexutasunari aurre egin ahal izateko. Beraz, komenigarri jotzen da kontrol judizialeko ohiko prozedurak osatzea.

Estatu kideetako gobernuetara honako gomendioak egiten die:

- Ombudsman bat izendatzeko edo izenda dadin sustatzeko aukera aztertzea, nazio, eskualde nahiz toki mailan, edo bestela administrazio publikoaren berariazko eremuetan.

- Ombudsmana gaitzeko aukera aztertzea, gaituta ez baldin badago, arreta berezia jar dezan eskumen orokorren alorrean giza eskubideekin loturiko gaietan, haiek azter ditzan eta, nazioko legediak horretarako bidea ematen badu, ikerketak egin eta iritziak eman ditzan, giza eskubideekin loturiko gaiak jokoan daudenean.
- Ombudsmanaren botereak beste bide batzuetatik zabaltzeko eta indartzeko aukerak aztertzea, gizakiaren eskubideekiko eta funtsezko askatasunetikiko errespetu efektiboa sustatzeko administrazioaren jardueran.

\* **(85)8 erabakia, Estatu kideetako Ombudsmanen arteko eta haien eta Europako Kontseiluaren arteko kooperazioari buruzkoa**

Besteak beste, honakoak ebazten ditu:

Europako Kontseiluaren esparruan estatu kideetako Ombudsmanen konferentzia erregularrak ezartzea, giza eskubideak babesteari buruzko ikuspegiak eta esperientziak aztertu eta elkarrekin trukatzeko.

5.2. **Toki eta eskualde mailako bitartekarien/Ombudsmanen papera herritarren defentsan. Europako toki eta eskualde mailako botereen kongresua**

Europako toki mailako eta eskualde mailako botereen kongresuak eginiko seigarren osoko bilkuran -1999ko ekainaren 15etik 17ra bitartean egin zen Strasbourgen, herritarren eskubideen defentsan eskualdeetako Ombudsmanek dauzkaten eginkizunei buruz hitz egin zen.

(61)99 gomendioa eta 80(1999) erabakia aipatuko ditut hemen, gure berme-erakundeetan sakontzeko lan oinarri ederra baitira.

\* **61(1999) gomendioa, toki eta eskualde mailako Ombudsmanek herritarren eskubideen defentsan duten eginkizunari buruzkoa**

Gomendio horretan ondokoa egiaztatzen da: *“aparatu administratiboa gero eta zailagoa denez, herritarren eta burokraziaren arteko harreman onak oztopatzen dituztenek, eta herritarrek jurisdikzio administratiboetara jotzeko zailtasun praktikoei botere publiko gehien arazo bihurtu dira egun, eta bereziki kezkatzen dituzte toki eta eskualde mailako agintariak.*

Gomendio honek azpimarratzen du Europako herrien iritzi publikoak gero eta interes gutxiago duela publikoaren kudeaketa dela eta, eta gero eta distantzia handiagoa hartzen ari dela agintari eta administrazio publikoengandik; gainera, ongi irizten dio Europako herritarrek, oro har, administrazio publikoaren funtzionamendu hobea eskatzeari eta administrazioaren prozedurera eta errekurtsioen bideetara iristeko sistema berdinarik eta fidagarriak abian jar daitezkeen eskatzen dute.

Sinestuta dago herriaren defendatzailea erakundea (Europakoa nahiz nazio, eskualde edo probintzi mailakoa izan) lagungarria dela, alde batetik gizakien eskubideak babesteko sistema indartzeko, eta, bestetik, administrazioak erabiltzaileekin dituen harremanak hobetzeko.

Ombudsman bat daukaten herrietan harturiko esperientziaren argitan, seguru dago herriaren defendatzailearen ekintzak -batez ere, toki eta eskualde mailakoena- lagungarria izango dela ondokoak erdiesteko:

- prozedura judicial luze eta garestietara ez horrenbeste jotzea eta, horrenbestez, haien kopurua murriztea eta egun herritarrek eta erakunde publikoak bereizten dituen aldea gutxiagotzea.;
- ondokoak errazago egin daitezkeen: berdintasuna bilatzea, Zuzenbide Estatu begiratzea, gutxiengoen eskubideak begiratzea eta herritarren beharrezkoak zein diren entzutea;
- administrazioaren jarduerak behar duen gardentasuna eta eraginkortasuna hobetzea, bai eta ematen diren zerbitzuen kalitatea ere; hitz batez, administrazioa ona izatea.

Hona gomendioak:

- Estatu kide guztiei halako erakunde bat izatea (Ombudsmana): nazio mailan eta baita hiri eta eskualde mailetan ere herriaren defendatzailearen bulegoak sor daitezkeen sustatzea, eta ahal den guztia egitea

toki eta eskualde mailako agintariek ere, bitarteko juridiko eta finantzario egokiak erabiliz, laguntza eman dezaten herritarren eta gutxiengoaren eskubideak hobeki defendatzeko, gai publikoak hobeki kudeatzeko eta administrazioak funtzionamendu hobea izan dezan.

- Nazio mailan erakunde hau daukaten estatu kideetako gobernuak: toki mailan eta eskualde mailan ere halakoak era daitezzen sustatzea, eta herritarrei informazio egokia eman diezaieten erakunde honek dauzkan ezaugarriak buruz eta eskaintzen dituen aukerak buruz.

\* **80(1999) erabakia, toki eta eskualde mailako bitartekariak/Ombudsmanek herritarren defentsan daukaten eginkizunari buruzkoa**

Honetan ontzat jotzen da Europako zenbait hiri eta eskualdeetan herriaren defendatzaileen bulegoak zabaldu izana, hain zuzen ere herritarrei beren administrazioen funtzionamendu zuzena zaintzeko aukera ematen dietelako.

Aipatzen du gizartearen kategoria “ahulek” -adibidez, minusbaliatuak, behar sozialak dituzten taldeak, adin txikiak, gutxiengoak, etorkinak-, askotan administrazioa publikoaz baliatzeko besteek baino behar handiagoa dutela eta bitarteko erraz eta fidagarriak behar dituztela administrazio publikoaren prozedurak jo ahal izateko.

Seguru dago “bitartekari lana”, auzi-egoerak aurreikusi eta haiek konponbidea emateari dagokionez, baliagarri suertatzen dela prozedura judizialak jotzeko bidea murrizteko, eta, horrenbestez, administrazioarekiko auzien eta auzi zibilen zama arintzeko; herritarra asetzeko moduko erantzunak eman ditzake, eta, hartara, herritarren eta toki eta eskualde mailako administrazioen arteko harremanak hobetu.

Eranskin batean, herriaren defendatzaileen figuraren buruan toki eta eskualde mailan egon beharko luketen printzipioak ezartzen ditu.

Printzipio horietako batzuk errepikatuko ditut hemen, zuen baimenarekin; izan ere, uste dut erreferentzia argia izan daitezkeela eskualdeetako defendatzaileen gutxiengo komun hori definitzearen behar diren irizpideak zehazteko, betiere erakunde bakoitzaren independentzia errespetaturik.

- **Oro har**

- **Europako Kontseiluko kide diren estatuetan** aplikatu ahal izango den **eredu** bat ezartzea, **istema bakoitzaren berezitasunen arabera**.

- **Oinarri juridikoei dagokienez**

- **Ez** da egokia **printzipio finkoak** ezartzea herriaren defendatzaileen erakundeek ezartzen dituzten arau juridikoen mailari dagokionez (konstituzio-legeak, berariazko legeak, eskualde mailako estatutuak, erregelamenduak...).

- **Herriaren defendatzaileen esanahiari dagokionez**

- Lagungarria da **giza eskubideak babesteko sistemaren indargarri** eta administrazioaren eta erabiltzaileen arteko harremanak hobetzeko.
- Agintari judizialen oinarriko jardueretan interferentziarik sortu gabe, defendatzaileak **gizabanakoaren eskubideak, interesak eta berariazko egoerak babesten ditu administrazioaren ekintzen eta jokaeren aurrean**.
- Estatuetakoz dezentralizazio autonomikoaren eta lurralde mailako entitateei emaniko botereen arabera, toki eta eskualde mailako herriaren defendatzaileak **herritarrengandik hurbilen izango den babesa** emango du.
- Administrazioaren eta zerbitzuaren erabiltzaileengan eragin zuzena duten **agintariei buruzko kontrola sakonagoa eta eraginkorragoa da toki eta eskualde mailatan** maila zabalagoetan baino (nazio edo Europa mailan baino); izan ere, azken horiek programazioaren, orientazioaren eta koordinazioaren ardura baitute, batez ere..
- Argi gelditzen da **herriaren defendatzaileen eta herritarraren arteko hurbiltasunak alderdi onak dituela**. Hobe da toki edo eskualde mailako defendatzaileak sortzeko konponbidea erabiltzea toki edo eskualde mailako ekintza eta jokaerak nazio mailako herriaren defendatzaileen eskumenak zabaltzea baino.

- Egun zenbait estatutan dagoen dezentralizazio administratiboaren eraketak ongi justifika zezakeen udal bakoitzean ere bitartekariaren erakundea egotea. Gehiegizko zatiketa saihesteko, on litzateke **udalak elkarrekin biltzea**, herriaren defendatzaile bakoitzari lurralde-eskumen eta administrazio kopuru egokiak emateko.

#### - Bitartekaria hautatzeari dagokionez

- Independentzia, inpartzialtasuna eta konpetentzia dira herriaren defendatzaile baten funtsezko ezaugarriak.

#### - Herriaren defendatzailearen eskumenei dagokienez:

- ♦ **kontsulta eginkizuna**, jendeari laguntza emateko administrazio publikoarekin dituen arazoei konponbidea emateko garaian;
- ♦ **administrazioaren funtzionamendu zuzena begiratzeko oinarrizko eginkizuna**, bai eta **bitartekari aritzeko oinarrizko eginkizuna ere**; azken horren arabera, auzietako aldeak elkarrengana hurbiltzeko etengabeko ahaleginean aritu beharko du;
- ♦ administrazio txarra egin den kasuei konponbidea ematen laguntzeko eta administrazio publiko hobe emateko behar den **sustapen eginkizuna**, betiere administratuekin elkarriketa erabiliz.

#### - Herriaren defendatzailearen jarduteko bitartekoei dagokienez

- Kasuan kasuko administrazioaren **akta, dossier eta artxiboetara jotzeko askatasuna izatea**; funtsezkoa da hori herriaren defendatzaileak bermatu behar dituen eginkizunak bete daitezen.
- Haietara jotzeko askatasun horrek **ikerketak egiteko** eta, egoerak hala eskatzen duenean, gertagunera adituen laguntzarekin bisitak edo/eta ikuskaritza lanak egiteko **aukera ere** bildu behar du.
- Kasuan kasu ikertzen ari den **administrazioak aintzat hartu beharko ditu** herriaren defendatzaileak ematen dizkion **gomendioak**, egiten dizkion iradokizunak eta gainerako ekimen guztiak, eta, **halakorik gertatuz gero, haiek ez jarraitzeko izan dituen arrazoiak eman beharko ditu**. administrazioak epe jakin batean eman beharko du bere erantzuna.
- administrazioetara jotzeko askatasun hori errazteko, funtzionario batek edo administrazioeko edozein agentek **edonolako oztupoak** jartzea aurreikusita egon behar du, eta behar diren xedapenen bitartez **zehatu** beharko da.
- Txosten berariazkoetan, urteko txostenetan edo bestelako agirietan herriaren defendatzaileak jasotzen dituen **ondorioak argitara eman beharko dira**, publizitate bitarteko egokiak erabiliz.
- **Sustapen eginkizuna bete ahal izateko**, herriaren defendatzaileek lurraldeetako organo eskudunetara jo ahal izango dute **edozein iradokizun baliagarri egiteko**, betiere pertsonen eskubideekiko errespetua betetzearren administrazioak behar duen eraginkortasuna hobetzeko bidean.

## VI. ONDORIO GISA. ESKUALDEETAKO DEFENDATZAILEEN EGUNGO ETA ETORKIZUNEN EGINKIZUNA, HERRITARRARENGANDIK HURBILEN DAGOEN INSTANTZIA DIREN ALDETIK, GAINERAKO DEFENDATZAILEEKIN KOORDINATURIK

Herriaren defendatzaileek eginkizun garrantzitsua dute administrazioa fiskalizatzeko eta herritarren askatasunak eta eskubideak defendatzeko.

Defendatzaile guzti-guztiak, eta bereziki eskualde mailakoek, beren jardute-eremua murriztagoa baita eta herritarrarengandik hurbilago baitaude, ahal den guztian erabili beharko dituzte haiek sortu zituzten legeak ematen dizkieten jarduteko ahalmenak, bereziki ondokoei erantzun egokia emateko:

- **Eskubide sozialen** defentsa, Zuzenbideko estatu sozial bateko justizia administratiboaren sistemaren hutsen aurrean.
- **Interes lauso eta kolektiboen** defentsa. Halakotzat jotzen ditugu garrantzi juridikoa hartzen dituzten kolektiboen aldarrikapenak; zenbait legeren bitartez (adibidez, Umbriako eta Aostako Ibarreko Difensore Civicoari buruzko legea), haiek babesteko bermea eskualdeetako defendatzaileen eskurantz dira.
- **Talde behartsuenen** edo babes gehien behar dutenen -minusbaliatuak, adin txikiak, etorkinak, espetxeratuak, adimen gaixoak, gizarteak baztertutakoak, edadekoak- defentsa, ofiziozko jarduketan eta ikuskapenen bitartez, edo, bestela, haien beharrei buruzko txosten monografikoak eginez.
- **Arauetako eta praktika administratiboaren eskasiak** zuzentzea, Zuzenbidearen sustapena erabiliz.
- Herritarren eta administrazioaren arteko auziei konponbidea ematea, bitartekari-lanetarako teknikak erabiliz.

Horiek guztiak betetzeko, beharrezkoa izango da herriaren defendatzaileak elkarrekin eta eskubideak bermatzeko dauden beste instantzia batzuekin koordinatzeko sistema bat ezartzea, hain zuzen ere bermaturik gera dadin botere publikoetako jarduketa guztiak erakunde demokratikoen kontrolaren menpe geldituko direla.

Denbora gutxi barru Europako Batasuneko Oinarrizko eskubideen Gutun bat onesten bada -hala egin dadin espero dut-, aukera izugarriak zabalduko dira. Betiere, are argiago geldituko da orduan defendatzaile guztion arteko koordinazioaren beharra, eta bereziki eskualdeetako defendatzaileak eta Europakoa elkarrekin koordinaturik aritzeko beharra.

Guztiok daukagu herritarren eskubideak defendatzeko helburu ohoragarria. Ideiak eta esperientziak alderatuz eginkizun hori hobeki betetzen ikasiko ahal dugu!

### III. ERANSKINA

#### ALORREZ ALOR ETA TOKI MAILAN DEFENDATZAILEAK SORTZEARI BURUZ PARLAMENTUKO ORDEZKARIEK EGINDAKO GOGOETAK

##### PARTE-HARTZAILEAK

“Alorrez alorreko defendatzaileak” edo gure erakundeetako izaera hartu nahi duten figurak sortzen ari direla ikusirik, herriaren defendatzaileok komenigarri jo dugu denon artean gertakari horri buruzko gogoeta egitea. Gogoeta hori egiteko, ezin bestela izan, aintzat hartu dugu herritarren eskubideak hobeki defendatzen laguntzeko dagoen premia.

##### I. HERRIAREN DEFENDATZAILEAREN ERAKUNDEA HEDATZEA

Ombudsman (edo herriaren defendatzailea) erakundeak, gaur egun ezagutzen dugun moduan, XIX. mendearen hasieran egin zituen bere lehen urratsak, Europako iparraldeko herrietan. Hala eta guztiz ere, Zuzenbide Estatu ia guztietan dauden erakunde-bermean sakontzeko nahiak hauxe ekarri du berekin: figura hori sistema konstituzional gehienetara hedatzea. Gaur egun, Zuzenbide Estatu gisa eta hastapen demokratikoen gainean eraikirik eratzen diren herri askotako (80 herri inguru, gaur egun) oinarritzko testuetan aurki dezakegu herriaren defendatzailea. Horrela, bada, Ombudsmanaren zabaltzea gaur egun hain finkaturik dago non “ombudsmankeria” terminoa ere asmatu baita gertakari horri izena emateko.

Alor askotan ikusten ari gara Ombudsmanak ugaltzen ari direla, eta ugaltze horrek erakunde-ereduaren eraginkortasuna agerian jartzeaz gainera, ez du zalantza izpirik ere uzten fenomenoari buruz; izan ere, antzeko izenak dituzten erakundeen aniztasun mugagabeak Ombudsman kontzeptua lausotzea ere ekar dezake, eta halakorik gertatzen bada, figura horrek eskubideak eta askatasunak bermatzeko daukan eginkizuna ere lausotu egingo da.

##### II. HERRIAREN DEFENDATZAILEEN OINARRIZKO EZAUGARRIAK

Gure herrian, estatu demokratikoa eratu zenean, indartu egin nahi izan zen herritarren eskubide eta askatasunen defentsa, eta, horretarako, herriaren defendatzailearen figura sartu zen Konstituzioan, hain zuzen ere bermeen sistema konstituzionala ahal den guztian hobetzeko. Hartara, herriaren defendatzailearen figura sortu zen, “...Gorte Orokorretako komisionatu gorena, hauek izendaturik Titulu hontan barnetzen diren eskubideen defentsarako, berauen ondorioetarako Administralgo ekintzak gainbegira dezake, Gorte Orokorrei kontua eskainiz.” (Konstituzioaren 54. artikulua).

Geroago, Konstituzioak zabalduko bidetik, autonomia politikoa zuten ente batzuek ere autonomietako legebiltzarretako mandatarien figura ezarri zuten beren estatutuetan. Kargu horiek herriaren defendatzailearen antzekoak dira, baina jarduteko eremu jakin batean aritzen dira.

Halaber, oso profil zehatza ematen dioten izaera juridikoa, erakunde-konfigurazioa eta eginkizunak dituzte figura horiek; izan ere, haiek gabe, ezin hitz egin daiteke benetako defendatzaileez, hitz horrek daukan jatorrizko zentzuan eta zentzu klasikoan.



Ondokoak dira figura horiek mugatzen dituzten alderdi aipagarrienak:

- Legebiltzarrean dute jatorria, eta haiek hautatzen dituzten biltzar edo legebiltzarren mandatari dira: haiei eman behar diete beren jardueren berri.
- Konstituzioaren eskubideak eta libertateak babestea dute eginkizun nagusi, bai eta Administrazioak behar bezala funtziona dezan ere. Oinarritzko tresna bat daukate horretarako: administrazio publikoen jardura ikuskatzeko gaitasuna.
- Autonomia eta irizpide independentea dituzte beren eginkizunak gauzatzeko, inoren edo ezeren aginduetara lotu beharrik gabe.
- Beren jarduerak gauzatzeko, titularrek hainbat eskubide dituzte, bai eta bortxaezintasunaren eta inmunitatearen bermeak ere.
- Erakunde haiek ez dituzte inor edo ezer hertsatzeko eginkizunik, bai ordea behar dena konbentzitzeko.

### III. “ALORREZ ALORREKO DEFENDATZAILEEN” FIGURAK

Ikusi ahal izan dugunez, Ombudsmanaren figurak ezaugarri nagusi bat du -izan ere, haren hedatze gero eta handiagoaren giltzarrietako bat ere badena-: sistema juridiko eta politiko bakoitzaren berezitasunetara egokitzeko malgutasuna eta erraztasuna; betiere, sistema hori oinarri demokratiko benetakoetan oinarriturik. Beraz, ezin dugu ezer esan alorrez alorreko defendatzaileen erakundeak eratzearen aurka; hain zuzen ere, figura horiek gizartearentzat garrantzi berezia duten arazoaren defentsa eta tratamendu berariazkoa dute eginkizun nagusi: adinez txikia, emakumea, inmigranteak, minusbaliatua, ingurugiroa, soldaduak, zergaduna, osasuna eta abar.

Horri dagokionez, Zuzenbide konparatuak erakusten digu erakunde haiek antolatzeko eredu ugari daudela, eta denak direla baliozkoak, baldin eta herritarren defentsa eta babes baldin badute helburu nagusi eta helburu hori betetzen badute.

Gure herriari dagokionez, zenbait talde eta multzotan eragiten duten inguruabar eta baldintzei buruzko kezka gero eta handiagoa dela eta, legebiltzarrek, bai estatu mailan eta bai autonomia mailan ere, alorrez alorreko egiturak sortu dituzte lehendik zeuden herriaren defendatzaileen erakunde batzuetan; bestela ere, biltzarretako mandatari berariazkoak izendatu dituzte -Madrilgo Erkidegoko Adinez Txikiaren Defendatzailea kasu-, gizarteko talde edo alor zaurkorren eta babesgabeen defentsa egin ahal izateko.

Lehenbiziko kasuan, alorrez alorreko egitura horiek zenbait arau eman dituzte legebiltzarretako mandatariak -estatukoak nahiz erkidegoetakoak- izendatzeari buruz, esate baterako adinez txikiak defendatzeko (Herriaren Defendatzailea, Síndic de Greuges, Valedor do Pobo eta Andaluziako Herriaren Defendatzailea), bai eta adinez nagusiak defendatzeko ere (Guztion Ahalduna eta Andaluziako Herriaren Defendatzailea).

Hala ere, alorrez alorreko figura horiek eskumen orokorrak eskuratuta dituzten erakundeetan sortzeak -aipatutakoetan bezala-, alde zuzeneko zenbait arau-muga dituzte Konstituzioan bertan, estatutuetan eta legeetan oro har, bai eta erakunde horiek eratzerakoan oinarri hartu diren ezaugarrietan ere.

Herriaren defendatzailearen figura -bere izendapen ezberdinekin- ezarri dituztenek -Konstituzioak eta autonomi estatutuek- honela azaltzen dute erakunde hori: herritar guztien eskubide guztiak defendatzeko erakunde bat, pertsona bakarreko organo gisa egituraturik; hari atxikitzen zaio erakundearen ordezkaritza eta titularitate osoa, bai eta erakundea zuzendu eta administratzeko eginkizunak ere. Halaber, erakunde haiek arautu dituzten legeek halako ezaugarriekin eratu dituzte, non funtzionamendu malgua baitute gertatzen diren inguruabarretara egokitzeko, hain zuzen ere herritar guztien defentsa eraginkorra bideratu ahal izateko.

Bestalde, praktikan, herriaren defendatzaileen erakundeetan alorrez alorreko egitura horiek sartzek, gaur arte, ondorio bakarra izan du: hain zuzen ere, lanerako alor berariazkoak eratzea babes berezia behar duten lan eremuetan jarduteko. Lan eremu horien zuzendaritza defendatzailearen ondoko bati esleitzen zaio, haren laguntzaile gisa. Hala jakatuta ere, ez da ezertan aldatu erakunde horien pertsona bakarreko ereduak; izan ere, defendatzaileak jarraitzen baitu izaten erakundearen eskumeneren eremuan gehienezko ahalmenak bere esku dituenak, edozein dela ere lan egiten ari den gizartearen eremua.

Inguruabar hauetan, legebiltzarretako mandatarien egungo antolamendu-eredua aldatzen ez den bitartean, alorrez alorreko figura horien proportziorik gabeko ugaltzeak arrisku eta zailtasunak ekarriko ditu; arrisku eta zailtasun horiek, gainera, erakunde hauen funtzionamendu eraginkorrean eragingo lukete finean, eta kalte handia izango litzateke hori herritar guztien eskubideen defentsan hainbesteko zuzentasunarekin jokatu duten egitura hauentzat.

Horri dagokionez, argi utzi behar da gure erakundeak barrutik ezagutzen dugunok kezka handia daukagula herritarrek planteatzen dituzten kexuei egokitzeko malgutasuna eta ahalmena murriztu ditzaketen erabakiak direla kausa. Hain zuzen ere, administrazio publikoen jardutea gainbegiratzeko erakundeek ezin baitute mimetismo hutsez imitatu nahiz berretu gainbegiraturiko entitateen konfigurazioan ikusten dituzten eskeman. Gure erakundeak ataletan banatzeak, gure bulegoetara hurbiltzen den herritarrek, oro har, guregan duen konfiantza haustea ekar lezake; izan ere, beste gauza batzuen artean, herritarra seguru egoten baita guregana iritsita ez dugula beste sail edo leihatila batera bidaliko eskatzen duen horri erantzuna eman ordez.

Bestalde, adierazi dugun bezala, ezin dugu ahaztu herriaren defendatzaileako eratu dugun eredia, neurri handi batean, titularra den pertsonaren bitartez irudikatutako erakunde baten gisa ikusten dutela herritarrek. Defendatzailea pertsona bakarreko erakunde bat izateak alde on asko ditu; horietako garrantzitsuena da erakunde bat ezezik erraz identifikatu daitekeen pertsona bat izatea defendatzailea, Administrazioaren makineria izugarria ez bezala. Horrek errazago egingo du Administrazioaren aurrean defentsarik gabe eta isolaturik sentitzen den herritarra harengana iritsi eta hurbiltzea, eta sentitzea defendatzailea egitura gizatiarragoa eta hurbilagoa dela.

Hautatutako ereduarekin bat etortzeko, aipatzen ari garen alorrez alorreko egiturak eratzeke arauak ez dute formalki eraginik izan herriaren defendatzailearen figuran; hala eta guztiz ere, joera hori, orokorrago bihurtzekotan, arrisku handia ekar lezake erakundearen eraginkortasunerako eta herritarrek erakundeari buruz egiten duten azken balioespenean ere. Hain zuzen, halako nahasketa bat sor daiteke hari buruzko pertzepzioan eta eskumen eremu guztien kudeaketan.

Arestian aipatu dugun bezala, legebiltzarretako alorrez alorreko mandatariak aintzat hartu beharreko beste eredu bat dira: multzo edo talde jakin baten eskubideak defendatzeko figura autonomoak dira, Madrilgo Adinez Txikiaren Defendatzailea kasu.

Gogorarazi behar da, halaber, Konstituzioaren multzoaren arabera, Herriaren Defendatzaileak eta erkidegoetako defendatzaileek dutela Konstituzioaren I. tituluan bildutako eskubide guztiak babesteko eginkizuna. Beraz, alorrez alorreko edozein defendatzaile sortzeak defendatzaile orokorren eskumenezikiko halako konkurrentzia bat ekarriko luke berekin, ezinbestez, bereziki babestu nahi den multzoaren interesak zaintzeari dagokionez.

Hori dela eta, horrelako erakundeen arteko harremanak, edozein dela ere haien eginkizunen eremua edo haiek jarduteko lurraldea, ondoko printzipio orokorren gainean eraiki behar da: kooperazioa eta lankidetzeta, koordinazioa, baliabide publikoak erabiltzeko behar den eraginkortasuna eta erakundeekiko leialtasuna.

Printzipio horiek aintzat hartuz gero, argi gelditzen da zeinen zaila den kontzeptualki ulertzea alorrez alorreko defendatzaileak sortzea herriaren defendatzaile orokorren figura jada eraturik dagoen lurralde-eremuetan.

Horrenbestez, ondorio gisa, garrantzitsuena ez da egitura berriak sortzea, gure iritiz, baizik eta herritarrek defendatzea eta arreta berezia jartzea inguruabar jakin batzuetan gerta daitezkeen arazo gehigarrietan; adibidez, ondoko kasuetan: adinez txikiak, tratu txarrak jasandako emakumeak, inmigranteak, jokaera baztertzaila edo zuzengabea jasaten dutenak eta abar. Horiengan eragiten duen egoeraren ahuleziaren edo zaurkotasunaren arabera babesa eman beharko da halakoetan. Horri gagozkioz, alorrez alorreko egitura berriazko bat sortzeko zera egiaztatu beharko litzateke, ezinbestez: egungo erakundeak aski ez direla, edo beren betekizuna zuzen betetzen ez dutela.

#### IV. “TOKIKO DEFENDATZAILEAK”

Gero eta maizago aurkitzen ditugu “Defendatzailea”, “Sindic” edo “Valedor” izenekoak, udaletan edo aldundietan txertaturik. Tokian tokiko horrelako erakundeak ugari dira jada Katalunian eta beste autonomi erkidegoetako udaletan; esate baterako, Gijonen (Asturias) eta Calvián (Balearretan), eta

Kordobako aldundian (Andaluzia). Halaber, ugari dira gaur egun halakoak ezartzea aurreikusi duten udalak.

Konstituzioak udalbatzei aitortzen dien autonomia administratiboa betez sortutako defendatzaile horiek ez dira herriaren defendatzailearen pareko, ez baitituzte betetzen azken horiek dauzkaten ezaugarriak, hain zuzen ere arestian aipatu ditugun horiek. Hona legebiltzarretako mandatariekiko dituzten bereizgarri azpimarragarrienak:

- Ez daude legebiltzar bati loturik.
- Toki Administrazioaren beraren organoak dira, udalbatzek beren burua antolatzen duten ahalmenaren indarrez haren egitura txertatutakoak.
- Toki entitatearen gobernu-organoei sortutakoak eta izendatutakoak dira.
- Administrazioaren organoak diren aldetik, haien administrazio-jarduketak kasuan kasuko legebiltzarreko mandatariaik gainbegiratu ahal izango ditu.

Hala eta guztiz ere, ezin dugu ahaztu legebiltzarrik gabe ere, toki administrazioak ordezkaritza-egiturak direla, osoko bilkura ere organo gisa dutenak, eta haietan ere demokratikoki hautaturiko talde politikotako ordezkariek daudela; horrela, bada, defendatzailearen eginkizunak beteko dituen pertsona udalbatzaren osoko bilkurak hautatzen duenean, izendatutakoak halako berrespen demokratiko bat duela esan dezakegu, eta alde horretatik legebiltzarretako mandatariairen pareko da, alde batera utzita, betiere, arestian aipatu ditugun bereizgarriak.

Horri guztiari erantsiz gero jarduteko autonomia eta independentzia bezalako berme organiko nahikoak, toki administrazioetan halako figurak izatea ez da inolaz ere aurka egiteko modukoa: zalantzarik gabeko alde onak izango ditu herritarrentzat eta hura eratu duen entitatearentzat berarentzat ere. Toki administrazioa gero eta gehiagotan agertzen ari da gure bizitzan, eta gainera administrazio-prozeduren zailtasuna ere nabarmena da, bai eta herritarrek askotan eskura duten informazioa ere: horrek guztiak argi adierazten du zergatik sortu diren figura horiek udaletan eta aldundietan, herritarrei aholku eta informazioa emateko eta herritarrek administrazioan parte hartzeko bide osagarri gisa; hain zuzen ere, udalbatza eta herritarrak elkarrekin hobeki lotzeko eta elkar harturik lan egin dezaten.

Izan ere, herritarren parte-hartzearen esparru horretan dute lekua udaletan eta aldundietan sortzen ari diren defendatzaileak. Hala dago ezarrita haietako zenbait sortzeko arauetan; hain zuzen ere, herritarrari aholkua, laguntza, informazioa eta arreta emateko administrazio-organoei dira, menpeko diren entitatearen jarduketan administratiboaren aurka egiteko kexu eta erreklamazioei arreta eman eta izapidatzen dituztenak, betiere antolamendua eta administrazio-prozedura garatzeko xedapen orokorren esparruan.

Hori guztia oinarri harturik, gure erakundeetako lan esperientziak berak hala erakutsirik, argi esan dezakegu herriaren defendatzaileok abegi on egin behar diegula udaletako administrazio-egituraren eta herritarren arteko informazio-bideak azkartzeko eta arintzeko, toki entitatearen barrenean burutu beharreko izapideei buruz herritarrari aholkua emateko eta prozedurak azkarturik eta errazturik burokraziaren makinak egindako jarduketan aurrean herritarrak defendatzeko udalbatzek hartzen dituzten erabaki guztiak; izan ere, zalantzarik bat ere gabe, onuragarri izango dira herritarren eskubideak hobeki babestu eta bermatzeko.

Herriaren defendatzaileen erakundeek eta toki mailako organo horiek eduki beharreko harremanari dagokionez, arestian esan dugun bezala, ondoko printzipio orokorren gainean eraiki behar da: kooperazioa eta lankidetzak, koordinazioa, baliabide publikoak erabiltzeko behar den eraginkortasuna eta erakundeekiko leialtasuna. Esparru horren barrenean, figura horien arteko harremanak kooperazio eta lankidetzak bokazio argia izan behar du ardatz, betiere bakoitzaren eskumenen eremua errespetaturik, halako moldez non toki mailako organo horietakoren batean bere jarduteko eremuak gaintzen dituen gaiak aurkezten direnean, herritarrari informazioa eman eta herriaren defendatzaile eskudunari aurkeztuko baitzaio behar den kexua edo erreklamazioa.

Horri gagozkiolarik, azpimarratu beharrekoa da defendatzaileek toki administrazioan egin dezaketelako lan garrantzitsua, hain zuzen ere "herritartasunaren kultura" sustatzearen alorrean, legebiltzarretako mandatariek beren gain duten erakunde-eginkizuna garatzeko eman dezaketelako laguntza baliagarriaz haratago.

## V. “UNIBERTSITATEKO IKASLEEN DEFENDATZAILEAK”

Toki administrazioari buruz aipatu dugun egoera horren antzekoa da “Unibertsitateko ikasleen defendatzaileena”; Unibertsitatearen alorreko eginkizunetan aritzen dira horiek. Espainiako 18 unibertsitatetan daude, eta beste batzuetan aurki jartzea aurreikusi da.

Defendatzaile horien izaera, jatorri eta eginkizunak azaltzeko, toki mailakoei buruz esan ditugunetara jo daiteke.

Horrenbestez, uste dugu positiboa eta onuragarria dela, halaber, unibertsitatearentzat halako organoak edukitzea, betiere jarduteko garaian aipaturiko printzipio orokorren barrenean eta alor horri dagokionez erakundeen arteko harremanen oinarri izan behar duten eskumen-mugak errespetatzen badira.

## VI. BESTELAKO EREMUETAKO “DEFENDATZAILEAK”

Orain arte aipatutakoez gainera, beste eremu batzuetan ere ari da nabaritzen defendatzaileen hedapena, hain zuzen ere “defendatzaile” sasi-publikoak sortuta. Horiek, egia esatera, benetako administrazio-organok dira, erabiltzaileen eskubideen defentsa eginkizun dutenak. Praktikan, figura horiek nahasgarri gertatzen ahal zaizkie herritarrei; izan ere, administrazio-organoei egozten ahal zaizkie berez ez dagozkien eginkizunak.

Halaber, eremu pribatuetan, gero eta gehiago sustatzen ari dira “defendatzaile” hauek, Gobernu Kanpoko Erakundeetan eta salerosketaren arloan interesak dituzten enpresa eta entitateetan.

Herritarren eskubideen defentsan ari garen legebiltzar-erakundeek horri buruzko balioespen orokorra eginda, zera adierazi behar dugu, eremu pribatuan edo sasi-publikoan sorturiko figura horiei buruzko balioespen positiboa egiten dugula, batez ere erabiltzaileak babesteko balio duten gauza guztiak, alderdiak alderdi, positibotzat jo behar direlako.

Sektore pribatuan sorturiko figura horiek bai izan dezakete alderdi txar bat: izena oker erabiltzea. Herritarrak nahasi egin daitezke ofizialak diren, eta, batez ere, beren eginkizunetan aritzeko independentzia ote duten jakin ezinik.

Oro har, behar diren ezaugarriak edo antzekoak ere dituzten entitate edo erakunde batzuek “defendatzaile” hitza erabiltzeak helburu argi du: alde batetik, onuragarri zaie, haien eginbeharrak identifikatu nahi dituztelako herritarraren zerbitzuarekin edo defentsarekin, eta hori gizarteak aurrera egitearen ikur bat da, bai eta kultura demokratiko baten sendotzearen seinale bat ere.

Beste aldetik, ordea, kezagarria da izen bat bera erabiltzea errealitate ezberdinak izendatzeko, lehen ere adierazi dugun bezala; izan ere, finean horrek eragina izango du Konstituziotik abiatuta herritarren eskubideen defentsa egin behar duten erakundeen irudian eta eraginkortasunean ere, herritarrak nahasbidea eta zalantzak aurkituko baititu kasu bakoitzean norengana jo behar duen jakiteko garaian.

## ONDORIOAK

Eremu eta alor ezberdinetan legebiltzar-erakundeetako herriaren defendatzailearen antzekoak sortu izanak ondokoa ekarri du berekin: denon artean gogoeta egin behar izatea gertakari horien norainokoa eta ondorioak aztertzeke. Gogoeta horren ondorioz, laburbildurik, ondoko balioespenak azpimarratu behar ditugu:

**LEHENA.** Konstituzioa, autonomi estatutuak eta haiek arautzeko legeak:

- Herriaren defendatzailearen figura sortzen dute, izenak izen, bermea eman behar duen erakunde baten gisara. Erakunde horrek herritarren eskubideak eta libertateak babesteko sistema osatzeko balio du.
- Erakunde hauek oso profil zehatzak dituzte, jatorri juridikoaren, erakunde-konfigurazioaren eta eginkizunen ikuspuntutik; horiek gabe ezin esan daiteke herriaren defendatzaileez ari garenik.

- Herriaren defendatzaileak pertsona bakarreko erakunde gisa sortzen dira; pertsona horrek herritar guztien eskubide guztien defentsa izanen du eginkizun.

**BIGARRENA.** Konstituzioaren, estatutuen eta legeen esparruak -aldeztatik ezarrita baitago- antzeko figuren garapena eta sorrera baldintzatuko ditu, edozein dela ere sortu nahi den horren jarduteko eremua. Esparru hori, halaber, errespetatu egin beharko da, hain zuzen ere herritarren eskubide eta interesen defentsan aritzen diren figura horiek guztiak duten azken helmugan eta helmugarik garrantzitsuenean eragin okerrik ez izateko.

**HIRUGARRENA.** Erakundeen baitan herriaren defendatzaileen erakundeak eta talde zaurkorrenen edo babesgabeen eskubideak defendatzeko alorrez alorreko egiturak sortzeak ondokoa du oinarri: oro har, gizarte-talde horien babesa sendotzeko desioa.

Erakunde horiei esleitutako eginkizunean behar den eraginkortasunak berekin ekarriko du defendatzaileek gainbegiratu behar dituzten administrazioen antolamendu-egiturak mimetikoki berretzeko tentazioa; izan ere, herriaren defendatzaile guztiak behar duten malgutasuna eta herritarrek aurkezturiko eskaerei egokitzeko gaitasuna eduki behar dute.

Horrenbestez, aipaturiko alorrez alorreko figura horiek sartzeko justifikazio bakarrak egungo figurak aski ez direla edo beren eginkizunak behar bezala betetzen ez dituztela egiaztatzea izan beharko du.

**LAUGARRENA.** Alorrez alorreko defendatzaileak erakunde aparteko gisa ezartzeak, lehendik dauden defendatzaile orokorren eskumenekiko konkurrentzia gertatzea ekarri ohi du berekin. Hori konpontzeko, ondoko printzipio orokorrekin lan egin behar da: kooperazioa eta lankidetzeta, koordinazioa, baliabide publikoak erabiltzeko behar den eraginkortasuna eta erakundeekiko leialtasuna.

Printzipio horiek ikusirik, argi dago zailtasun kontzeptual bat dagoela alorrez alorreko defendatzaileak sortzeko herriaren defendatzaile orokorraren figura eraturik dagoen lurralde-eremuetan.

**BOSGARRENA.** Udaletan "herritarren defendatzaileak" edo unibertsitateetan "Unibertsitateko ikasleen defendatzaileak" bezalakoak agertzea aipatu bi erabaki-eremuek antolatzeke duten ahalmenaren agerpen argia dira, eta parte-hartze eta funtzionamendu demokratikoa sustatzeko helburu onuragarria dute. Figura horiek eta herriaren defendatzaileak bereizten dituzten alderdi ugari badaude ere, figura horiek herritarrei arreta emateko bide kualifikatu bat izan daitezke, baldin eta jarduteko garaian behar adinako autonomia eta independentzia baldin badute berme organiko gisa.

**SEIGARRENA.** Ondorioz, eremu guztietan herritarren eskubideen defentsarako sor daitezkeen figura eta tresna guzti horiek agertzea positiboki baloratu beharreko gertakaria da, gizarteak aurrera egitearen eta kultura demokratikoaren sendotzearen seinale argia baitira.


Hala eta guztiz ere, joera hori orokor bihurtzeak halako arrisku bat dakar Konstituzioaren bitartez herritarren eskubideak eta libertateak defendatzeko eginkizuna duten erakundeak eraginkorrak izateko, nahasbidea eta zalantzak sor baitezake horrek herritarrengan nora jo behar duten erabakitzeko garaian.

Horren aurrean, bakoitzaren eskumenen eremuak errespetatzea eta bakoitzaren eginbeharrak garatzeko koordinazioa eta kooperazio leiala dira arrisku hori gainditzeko eta herritarren eskubideen defentsa eraginkorrak bermatzeko bide bakarra; horixe da, gainera, honelako erakundeek eta figurek jarduteko denboran argi eduki behar duten benetako erreferentea eta, bidenabar, erreferente bakarra.

IV. ERANSKINA

**GRAFIKOAK**

### ARARTEKOAK JASOTAKO KEXA KOPURUAREN BILAKAERA (1989-1999)




<sup>1</sup> 1.143k berdin-berdinak diren bi kexa-multzo osatzen dituzte.

<sup>2</sup> 62k berdin-berdinak diren kexa-multzo bat osatzen dute.


1. DIAGRAMA

### 1999an JASOTAKO KEXEN EGOERA ONARPEN-PROZESUAREN ONDOREN




2. DIAGRAMA

### ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA JARDUKETA ALORREN ARABERA



3. DIAGRAMA


### ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA



4. DIAGRAMA




### EUSKO JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA




5. DIAGRAMA

### EUSKO JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA SAILEN ARABERA




6. DIAGRAMA

### FORU ALDUNDIEN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA




7. DIAGRAMA

### UDALEN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA




8. DIAGRAMA

**LURRALDE BAKOITZETIK JASOTAKO  
KEXEN BILAKAERA (1989-1999)**




9. DIAGRAMA

**LURRALDE BAKOITZETIK JASOTAKO  
KEXEN BILAKAERA 10.000 BIZTANLEKO (1989-1999)**




10. DIAGRAMA

### KEXEN BANAKETA HIRIBURUTIK DATOZEN EDO LURRALDEKO BESTE UDALERRI BATZUETATIK DATOZEN KONTUAN IZANIK




11. DIAGRAMA

### ARARTEKOA K ZENBATETAN IKUSI DUEN IRREGULARTASUNA ADMINISTRAZIOAREN JOKAERAN 1999an BUKATUTAKO KEXETAN




12. DIAGRAMA

**JASOTAKO KEXEN BANAKETA  
KEXAGILEEN EZAUGARRIEN ARABERA**




13. DIAGRAMA

**JASOTAKO KEXEN BANAKETA  
ERABILITAKO HIZKUNTZAREN ARABERA**




14. DIAGRAMA

**JASOTAKO KEXEN BANAKETA  
AURKEZTEKO MODUAREN ARABERA**




15. DIAGRAMA

**1999an HARRERA ZUZENENKO BULEGOETAN JASOTAKO BISITAK (KOPURUA ETA EZAUGARRIAK)**




16. DIAGRAMA




17. DIAGRAMA

**BANAKETA ADIN-TALDEEN ARABERA**




18. DIAGRAMA

### HARRERA ZUZENeko HIRU BULEGOETARA JOANDAKOEN JATORRI GEOGRAFIKOA



19. DIAGRAMA


### KEXA BILAKATUTAKO BISITAK



20. DIAGRAMA


## ARARTEKOAREN OFIZIOZKO JARDUERAK (1999)

### BANAKETA ALORREZ ALOR



21. DIAGRAMA

### ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BANAKETA




22. DIAGRAMA




### KEXAGILEEK ARARTEKOAREN JARDUERARI BURUZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)

#### 1. Nolako iruditu zaizu Arartekoak bidalitako informazioa?




1999




1998

23. DIAGRAMA

#### 2. Nolako iruditu zaizu kexa aurkeztu zenuenetik biderapena bukatu arteko denbora?



1999




1998

24. DIAGRAMA


## KEXAGILEEK ARARTEKOAREN JARDUERARI BURUZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)

### 3. Zenbateraino zaude ados Arartekoak zure kexari buruz erabaki edo proposatu duenarekin?



25. DIAGRAMA


### 4. Zure ustez, kexa sorrarazi zuen arazoa:



26. DIAGRAMA


### KEXAGILEEK ARARTEKOAREN JARDUERARI BURUZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)

**5. Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana?**  
(Hau da, azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)



27. DIAGRAMA



**6. Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora jotzeko gomendatuko al zenioke?**



28. DIAGRAMA



**ARAZOA “ez da konpondu” edo “nahikoa gaizki konpondu da” DIOTEN KEXAGILEEK ARARTEKOAREN JARDUERARI BURUZ EGIN DUTEN BALORAZIOA**

**5. Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana?**  
**(Hau da, azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)**



**29. DIAGRAMA**

**6. Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora jotzeko gomendatuko al zenioke?**



**30. DIAGRAMA**

# **GAIEN AURKIBIDEA**

**A****Abeltzaintzako ustiategiak**

- Baserri aldeen garapena, 437
- Segurtasun juridikoaren printzipioa
- Hiri jarduera sailkatuak, 437

**Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak**

- Erabakiak, 244
- Erantzukizun zibila
- Bitartekaritza, 244
- Ordainsariak, 244

**Adierazpen askatasuna, 512**

- Polizia alorreko funtzio publikoa
- Prozedura zigortzailea, 189

**Adin txikiko lege hausleak, 63, 301****Adin txikikoak, 301**

- Adin txikiko lege hausleak, 63
- Batxilergoa
  - Hezkuntzako beharrian bereziak
  - Minbizidunak
    - Berdintasun printzipioa, 165
- Burutik gaixo daudenak, 301
- Derrigorrezko bigarren hezkuntza
  - Hautazko irakasgaiak, 165, 172
  - Ikastegiak, 165
- Egoitzak eta zentro babestuak, 56, 152
- Eskola garraioa eta jantokia
  - Derrigorrezko bigarren hezkuntza, 165
  - Hizkuntz normalizazioa
  - Euskara, 165
- Lehen hezkuntza, 165
  - Hizkuntz normalizazioa
  - Euskara, 165
- Giza eskubideak, 301
- Giza eskubideen aldeko hezkuntza, 301
- Gizarte taldeak, 106, 301
- Haur hezkuntza
  - Hezkuntzako beharrian bereziak
    - Ezgaitasunen bat duten pertsonak
    - Berdintasun printzipioa, 165, 395
  - Hezkuntzaren programazio orokorra, 301
  - Ikasleen onarpena
    - Berdintasun printzipioa, 165, 170, 395, 407
- Hezkuntza eskubidea
  - Sasoikako langileak, 301
- Hezkuntzako beharrian bereziak
  - Hezkuntza eskubidea, 104, 301
- Hizkuntz ereduak
  - Batxilergoa, 165, 176

- Ikasleen eskubideak eta betebeharrak, 301
- Irakaskuntza artistikoak
  - Ikasleen onarpena
    - Berdintasun printzipioa, 165, 172, 395
- Legegintzaren beharra, 301
- Lehen hezkuntza
  - Hezkuntzako beharrian bereziak
    - Ezgaitasunen bat duten pertsonak
      - Berdintasun printzipioa, 165
  - Ikasleen onarpena
    - Berdintasun printzipioa, 165, 167, 169, 413
  - Ikastegiak, 165
- Nazioarte mailako bahiketa
  - Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 244
- Ombudsmana, 123
- Polizia, 221
- Prestazio ortoprotesikoak, 383
- Adin txikikoen babes, 123**
  - Ombudsmana, 123
- Adinekoen babes, 121, 122, 123, 305, 525, 529**
  - Arkitektura- eta hirigintza-oztopoak, 312
  - Egoitzak, 46, 305
    - Finantzaketa, 152, 305
  - Egoitzetan sartzea
    - Erabakien zioak, 152, 305, 433
  - Egoitzez kanpoko laguntza, 51
  - Eguneko zentroak, 51, 305
    - Aisia eta astialdia, 153
  - Gizarte eta osasun beharrianak
    - Kooperazio printzipioa, 305
    - Koordinazio printzipioa, 305
  - Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 305
  - Laguntza prestazioak
    - Bidegabeko kobrantza, 156
  - Legegintzaren beharra, 121, 123, 529
- Adjudikatzeko irizpideak**
  - Berdintasun printzipioa
    - Babes ofizialeko etxebizitzak, 279, 289
  - Etxebizitza sozialak
    - Ekintza administratiboak berrikustea, 396
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak
    - Babes ofizialeko etxebizitzak, 312
- Administrazio espedienteetako agiriak**
  - Konpultsa, 263
- Administrazio publikoaren kontratuak**
  - Administrazioaren erantzukizuna
    - Udal zerbitzu publikoak, 408
  - Zerbitzu eta lan atipikoen kontratua
    - Kontratuen adjudikazioa, 405
  - Zerbitzu publikoaren kudeaketaren kontratua
    - Kontratuak deusezte, 407
- Administrazioaren antolaketa**
  - Norberaren datuak babestea
    - Askatasun ideologikorako eskubidea, 180, 184, 381, 508
    - Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 180, 184, 381, 510, 511
- Aldizkari ofizialak**
  - Arauen publizitatearen printzipioa, 406

**Alkoholismoa**

Osasun zerbitzuen funtzionamendua  
Larrialdiak, 270, 275

**Alorrez alorreko defendatzaileak**

Ombudsmana, 123, 134, 553

**Ama-haurren modulua**

Berdintasun printzipioa  
Espetxeak, 244, 294

**Amatasun baimena**

Berdintasun printzipioa, 506

**Amiantoa**

Lan osasuna, 277, 383  
Lana, segurtasuna eta higiena, 277, 383  
Laneko arriskuak eragozteko neurriak hartzea, 277, 383

**Animalientzako biltegiak**

Ondare erantzukizuna  
Jabetza pribaturako eskubidea  
Udal zerbitzu publikoak, 397

**Arakaketak**

Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea  
Polizia, 509  
Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea  
Polizia, 221, 232, 382, 388

**Arauen hierarkiaren printzipioa**

Hirigintza arauak betearaztea  
Obrak egiteko baimenak, 398  
Plangintza, 408  
TAO, 221, 235, 392

**Arauen publizitatearen printzipioa**

Aldizkari ofizialak, 406

**Arkitektura- eta hirigintza-oztopoak, 279**

Adinekoen babesa, 312  
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 312

**Arkitektura ondarea**

Kulturarako eskubidea  
Kultur ondarea, 164

**Arkitektura-oztopoak**

Etxebizitza babestuak, 279

**Askatasun ideologikorako eskubidea, 508**

Norberaren datuak babestea  
Administrazioaren antolaketa, 180, 184, 381, 508

**Atmosferaren kutsadura**

Energia elektromagnetikoaren transformazio zentroak  
Industri jarduera sailkatuak  
Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 252  
Ikaztegiak  
Industri jarduera sailkatuak  
Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 252  
Izurri-hilkariak  
Jarduera sailkatuak  
Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 412  
Papergintza  
Industri jarduera sailkatuak  
Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 252, 394

**Atxiloketak**

Bisitak izateko eskubidea, 388  
Defentsarako eskubidea  
Polizia, 388, 404



Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea  
Polizia, 221, 382, 388, 396, 404

Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea

Norberaren datuak ezabatzea

Polizia, 396

Polizia, 221, 388

### **Atzerriko espetxeak, 244**

#### **Atzerritarak, 308**

Berdintasun printzipioa, 506

Gidatzeko baimena

Badaezpadako neurriak, 221

Errolda, 308

Gizarte taldeak, 106, 308

Kooperazio printzipioa, 308

Koordinazio printzipioa, 308

Oinarrizko eskubideak, 81, 308

Polizia, 81, 221, 308, 388

Sasoikako langileak, 308

### **Aurrez emandako zerbitzuak**

Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 180

### **Auria**

Hirigintza arauak betearaztea, 279, 391, 400

### **Auzibideratzea**

Emakumeak

Etxeko indarkeria, 119

## **B**

### **Babes bereziko taldeak**

Adin txikikoak, 123, 301

Adin txikiko lege hausleak, 63, 301

Batxilergoa

Hizkuntz ereduak, 165, 176

Berdintasun printzipioa

Batxilergoa

Hezkuntzako beharrizan bereziak, 165

Derrigorrezko bigarren hezkuntza

Hezkuntzako beharrizan bereziak, 165

Haur hezkuntza

Hezkuntzako beharrizan bereziak, 165, 395

Ikasleen onarpena

Lehen hezkuntza, 165, 167, 169, 413

Lehen hezkuntza

Hezkuntzako beharrizan bereziak, 165

Burutik gaixo daudenak, 301

Derrigorrezko bigarren hezkuntza

Eskola garraioa eta jantokia, 165

Hautazko irakasgaiak, 165, 172

Ikastegiak, 165

Egoitzak eta zentro babestuak, 56, 152

Euskara

Hizkuntz normalizazioa

Derrigorrezko bigarren hezkuntza

Eskola garraioa eta jantokia, 165

Lehen hezkuntza

Eskola garraioa eta jantokia, 165

Giza eskubideak, 301

Giza eskubideen aldeko hezkuntza, 301

Gizarte taldeak, 106, 301

- Haur hezkuntza
  - Hezkuntzaren programazio orokorra, 301
  - Ikasleen onarpena
    - Berdintasun printzipioa, 165, 170, 395, 407
- Hezkuntzako beharrian bereziak
  - Hezkuntza eskubidea, 104, 301
- Ikasleen eskubideak eta betebeharrak, 301
- Integritate fisiko eta moralerako eskubidea
  - Nazioarte mailako bahiketa, 244
- Irakaskuntza artistikoak
  - Ikasleen onarpena
    - Berdintasun printzipioa, 165, 172, 395
- Legegintzaren beharra, 301
- Lehen hezkuntza
  - Eskola garraioa eta jantokia, 165
  - Ikastegiak, 165
- Ombudsmana, 123
- Polizia, 221
- Sasoikako langileak
  - Hezkuntza eskubidea, 301
- Adinekoak, 121, 122, 123, 305, 529
  - Arkitektura- eta hirigintza-oztopoak, 312
  - Egoitzak, 46, 305
    - Finantzaketa, 152, 305
  - Egoitzetan sartzea, 305
    - Erabakien zioak, 152, 433
  - Egoitzez kanpoko laguntza, 51
  - Eguneko zentroak, 51, 305
    - Aisia eta astialdia, 153
  - Gizarte eskubideak, 525
  - Gizarte eta osasun beharrianak, 305
  - Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 305
  - Laguntza prestazioak
    - Bidegabeko kobrantza, 156
- Atzerritarrak, 308
  - Berdintasun printzipioa, 506
  - Gidatzeko baimena
    - Badaezpadako neurriak, 221
  - Errolda, 308
  - Gizarte taldeak, 106, 308
  - Kooperazio printzipioa, 308
  - Koordinazio printzipioa, 308
  - Oinarrizko eskubideak, 308
  - Polizia, 81, 221, 308, 388
  - Sasoikako langileak, 308
- Burutik gaixo daudenak
  - Adin txikikoak, 301
  - Ospitalez kanpoko laguntza psikiatrikoa, 103
- Drogaren menpekoak
  - Gizarte taldeak, 106
- Emakume atzerritarrak
  - Etxeko indarkeria
    - Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 294, 308, 384, 386, 389, 392
- Emakume espetxeratuak
  - Espetxeak
    - Ama-haurren modulua
      - Berdintasun printzipioa, 244, 294
    - Produktzio tailerrak
      - Ordaindutako lana izateko eskubidea, 244, 294

- Osasun laguntza
  - Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 244, 294, 510
- Emakumeak
  - Berdintasun printzipioa, 294, 506
    - Amatasun baimena
      - Emakumezko bitarteko funtzionarioak, 180, 195, 381
    - Borondatezko eszedentziak
      - Emakume funtzionarioak, 180, 196
    - Ekintza positiboa, 221
    - Funtzio publiko orokorra, 294
    - Haurdunaldia norberaren borondatez etetea
      - Tratamendua onartu aurretik informazioa izatea
        - Gaixoen eskubideak eta betebeharrak, 270, 272, 294
    - Kultur agerpenak, 294, 404
  - Doako laguntza juridikoa
    - Etxeko indarkeria
      - Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 244, 294
  - Elkartegintza, 294
  - Espetxeak
    - Ama-haurren modulua
      - Berdintasun printzipioa, 244, 294
    - Zereginetako lantegiak
      - Ordaindutako lana izateko eskubidea, 244, 294
  - Etxeko indarkeria
    - Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 119, 244, 294, 308, 384, 386, 389, 392, 507
    - Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 507
  - Gizarte taldeak, 106
  - Kexak, 294
  - Kultur gutxiengoak, 294
  - Lan alorreko arau-haustea, 294
  - Lan ordaingabea
    - Berdintasun printzipioa, 294
  - Lanbidea eta familiako bizi-uztartzea
    - Berdintasun printzipioa, 294, 423
  - Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 221, 294, 404
  - Ombudsmana, 123
  - Osasun laguntza
    - Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 244, 294, 510
  - Osasuna babesteko eskubidea, 294
  - Espetxeratuak, 244
    - Atzerriko espetxeak, 244
    - Baldintzapeko askatasuna
      - Berrito gizarteratzeko eskubidea, 244
    - Gaixotasun larriagatik espetxetik ateratzea
      - Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 244
  - Gizarte taldeak, 106
  - Laguntza psikiatrikoa
    - Osasuna babesteko eskubidea, 27
  - Lekualdaketak, 244
  - Ospitaletako zaintza
    - Osasuna babesteko eskubidea, 27
  - Tratu txarrak
    - Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 244
  - Xiringak banatzeko programa
    - Osasuna babesteko eskubidea, 27
  - Zigorra betetzea
    - Erregimen irekia
      - Berrito gizarteratzeko eskubidea, 244

- Zigorra non bete, 244
- Zigorraren ordezkak
  - Erkidegoarentzako lanak
  - Berriro gizarteratzeko eskubidea, 417
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak
  - Aparkalekuak, 312
  - Arkitektura- eta hirigintza-oztopoak, 312
  - Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 312
  - Babes ofizialeko etxebizitzak
    - Adjudikatzeko irizpideak, 312
  - Bidaiariari garraioa, 312
  - Etxebizitza babestuak
    - Arkitektura-oztopoak, 279
  - Gizarte eskubideak, 524
  - Gizarte taldeak, 106
  - Hezkuntza eskubidea, 516
  - Hezkuntzako beharrian bereziak, 312
    - Berdintasun printzipioa
      - Derrigorrezko bigarren hezkuntza, 165, 312
      - Haur hezkuntza, 165, 312, 395
      - Lehen hezkuntza, 165, 312
  - Irisgarritasuna sustatzea, 312
  - Sentimenezko oztopoak
    - Zeinu-hizkuntzaren interpretariak, 312
  - TAO
    - Prozedura zigortzailea, 410
    - Zergen alorreko politika, 312, 471, 517
    - Zergen legezotasunaren printzipioa
      - Salbuespenak
        - Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, 208, 215, 312
- Familia, 519
- Funtzio publiko orokorra
  - Berdintasun printzipioa, 506
- Guraso bakarreko familiak
  - Berdintasun printzipioa
    - PFEZ
      - Kenketa, 208
- HIESa duten emakumeak
  - Berdintasun printzipioa
    - Haurdunaldia norberaren borondatez etetea
      - Tratamendua onartu aurretik informazioa izatea
        - Gaixoen eskubideak eta betebeharrak, 270, 272, 294
- HIESa duten gaixoak
  - Gizarte taldeak, 106
- Ijitoak, 106
- Kultur gutxiengoak
  - Emakumeak, 294
- Presoak
  - Berriro gizarteratzeko eskubidea, 515
- Sasoikako langileak
  - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 40
  - Gizarte taldeak, 106
- Terrorismoaren biktimak
  - Bitartekaritza
    - Gizarte taldeak, 106
- Txiroak, 106
  - Gizarte bazterketa, 122

- Gizarte larrialdietarako laguntzak
  - Agiriak aurkeztea
    - Epeak, 157, 410
  - Gizarteratzeko gutxienerako diru-sarrera
    - Errolda, 152, 154, 386
- Babes ofizialeko etxebizitzak**
  - Adjudikatzeako irizpideak
    - Berdintasun printzipioa, 279, 289
    - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 312
  - Betekizunak
    - Berdintasun printzipioa
      - Oinarrizko eskubideak, 289
  - Eroslehentasun eskubidea
    - Jakinarazpena
      - Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 279, 285, 405
  - Zerga onurak
    - Ondasun higiezinaren gaineko zerga, 208, 214
- Badaezpadako neurriak**
  - Berdintasun printzipioa
    - Gidatzeko baimena, 221
  - Ibilgailuak erretiratzea, 221, 390, 406
- Baimenak**
  - Bideak eta landabideak
    - Proiektuak eta burutzapena, 262
- Bakezaleak**
  - Gizarte taldeak, 106
- Baldintzapeko askatasuna**
  - Berriro gizarteratzeko eskubidea, 244
- Baserri aldean garapena**
  - Abeltzaintzako ustiategiak, 437
- Baso berriak**
  - Basogintza, 146
- Basogintza**
  - Baso berriak, 146
- Bateraezintasunak**
  - Funtzio publiko orokorra, 180, 201
- Batxilergoa**
  - Hizkuntza ereduak, 165, 176
  - Minbizidunak
    - Hezkuntzako beharrezko berezikiak
      - Berdintasun printzipioa, 165
- Bekak eta laguntzak**
  - Irakaskuntza unibertsitarioa, 165, 175, 395
  - Kulturarako eskubidea
    - Sustapen jarduerak, 161, 405
- Berdintasun printzipioa, 506**
  - Amatasun baimena, 506
    - Emakumezko bitarteko funtzionarioak, 180, 195, 381
  - Atzerritarrak, 506
  - Babes ofizialeko etxebizitzak
    - Adjudikatzeako irizpideak, 279, 289
  - Derrigorrezko bigarren hezkuntza
    - Hezkuntzako beharrezko berezikiak
      - Adin txikikoak
        - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 165
  - Ekintza positiboa
    - Emakumeak, 221

- Emakume funtzionarioak
  - Borondatezko eszedentziak, 180, 196
- Emakumeak, 506
  - Funtzio publiko orokorra, 294
  - Gaixoen eskubideak eta betebeharrak
    - Tratamendua onartu aurretik informazioa izatea
    - Haurdunaldia norberaren borondatez etetea
    - HIESa duten emakumeak, 270, 272, 294
  - Kultur agerpenak, 294
  - Lan ordaingabea, 294
- Esparruen kudeaketa
  - Ibai arrantza
    - Prezio publikoak, 146, 147, 384
- Espetxeak
  - Ama-haurren modulua, 244, 294
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak
  - Aparkalekuak, 312
- Funtzio publiko orokorra, 506
- Gaixoen eskubideak eta betebeharrak
  - Edoskitze gelak, 270, 273
- Gidatzeko baimena
  - Badaezpadako neurriak, 221
- Guraso bakarreko familiak
  - PFEZ
    - Kenketa, 208
- Haur hezkuntza
  - Hezkuntzako beharrian bereziak
    - Adin txikikoak
      - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 165
    - Ikasleen onarpena, 165, 170, 395, 407
- Herri basoak, 146
- Irakaskuntza artistikoak
  - Ikasleen onarpena, 165, 172, 395
- Kultur agerpenak
  - Emakumeak, 404
- Lehen hezkuntza
  - Hezkuntzako beharrian bereziak
    - Adin txikikoak
      - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 165
    - Ikasleen onarpena, 165, 167, 169, 413
- Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea**
  - Funtzio publiko orokorra
    - Sarrera, 180, 199, 399, 407, 513
  - Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa
    - Sarrera, 513
  - Osasun alorreko funtzio publikoa
    - Sarrera, 180, 194, 396
- Berriro gizarteratzeko eskubidea**
  - Baldintzapeko askatasuna, 244
  - Espetxeak
    - Erregimen irekia
      - Zigorra betetzea, 244
- BEZ, 208**
- Bidaiarien garraioa**
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 312
  - Tarifak
    - Familiaren babesa, 384

**Bideak eta landabideak**

- Ekintza administratiboa
- Herri ondasunak, 398
- Proiektuak eta burutzapena
- Baimenak, 262
- Udal zerbitzu publikoak, 387
- Titulartasuna, 262, 387, 391

**Bidegabeko atzerapenak**

- Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 244, 249

**Biluzteak**

- Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea
- Polizia, 388

**Bisitak izateko eskubidea**

- Atxiloketak, 388

**Bitartekaritza**

- Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak
- Erantzukizun zibila, 244
- Herritarren elkarbizitza, 291
- Lurralde mugak, 135
- Terrorismoaren biktimak
- Gizarte taldeak, 106

**Bizikleten zirkulazioa**

- Oinezkoentzako aldeak, 221

**Bizitzeko eskubidea, 507****Borondatezko eszedentziak**

- Berdintasun printzipioa
- Emakume funtzionarioak, 180, 196

**Burnibidezko garraioak**

- Trenbide-pasaguneak
- Zerbitzu publikoak, 268

**Burutik gaixo daudenak**

- Ospitalez kanpoko laguntza psikiatrikoa, 103

**D****Defentsarako eskubidea**

- Polizia
- Atxiloketak, 388, 404
- Identifikazioak, 221

**Derrigorrezko bigarren hezkuntza**

- Eskola garraioa eta jantokia, 165
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak
- Hezkuntzako beharrian bereziak
- Berdintasun printzipioa, 165, 312
- Hautazko irakasgaiak, 165, 172
- Ikastegiak, 165

**Diskotekak**

- Prozedura zigortzailea
- Hiri jarduera sailkatuak
- Kutsadura akustikoa, 257

**Doako laguntza juridikoa**

- Etxeko indarkeria
- Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 244, 294

**Drogaren menpekoak**

- Gizarte taldeak, 106

**E****Edoskitze gelak**

Berdintasun printzipioa

Gaixoen eskubideak eta betebeharrak, 270, 273

**Egoitzak, 46**

Adinekoen babesa, 305

Finantzaketa, 152, 305

**Egoitzak eta zentro babestuak, 56, 152****Egoitzez kanpoko laguntza**

Adinekoen babesa, 51

**Eguneko zentroak, 51**

Adinekoen babesa, 305

Aisia eta astialdia

Adinekoen babesa, 153

**Ekintza administratiboa**

Herri ondasunak

Bideak eta landabideak, 398

Hiriko trafikoaren antolamendua

Ibilgailu astunak, 412

Zama-lanak, 394

**Ekintza administratiboak berrikustea**

Adjudikatzeke irizpideak

Etxebizitza sozialak, 396

Baimenak

Ezeztapena

Prozedura administratiboa, 282, 391

Hirigintza arauak betearaztea

Prozedura zigortzailea, 390

Manifestazio publikoak egiteko eskubidea

Prozedura zigortzailea, 229, 382, 513

**Ekintza positiboa**

Emakumeak

Berdintasun printzipioa, 221

**Elikagaiak**

Osasun publikoa

Salmenta ibiltaria, 146, 150

**Elkartegintza**

Emakumeak, 294

**Emakume atzeritarrik**

Etxeko indarkeria

Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 294, 308, 384, 386, 389, 392

**Emakume espetxeratuak**

Espetxeak

Ama-haurren modulua

Berdintasun printzipioa, 244, 294

Produktzio lanak

Ordaindutako lana izateko eskubidea, 244

Produktzio tailerrak

Ordaindutako lana izateko eskubidea, 294

Osasun laguntza

Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 244, 294, 510

**Emakume funtzionarioak**

Borondatezko eszedentziak

Berdintasun printzipioa, 180, 196

**Emakumeak**

Berdintasun printzipioa, 506

Amatasun baimena

Emakumezko bitarteko funtzionarioak, 180, 195, 381



- Borondatezko eszedentziak
  - Emakume funtzionarioak, 180, 196
- Ekintza positiboa, 221
- Funtzio publiko orokorra, 294
- HIESa duten emakumeak
  - Haurdunaldia norberaren borondatez etetea
    - Tratamendua onartu aurretik informazioa izatea
      - Gaixoen eskubideak eta betebeharrak, 270, 272, 294
  - Kultur agerpenak, 294, 404
- Doako laguntza juridikoa
  - Etxeko indarkeria
    - Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 244, 294
- Elkartegintza, 294
- Espetxeak
  - Ama-haurren modulua
    - Berdintasun printzipioa, 244, 294
  - Produktzio tailerrak
    - Ordaindutako lana izateko eskubidea, 244, 294
- Etxeko indarkeria
  - Auzibideratzea, 119
  - Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 119, 244, 294, 308, 384, 386, 389, 392, 507
  - Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 507
- Gizarte taldeak, 106
- Kexak, 294
- Kultur gutxiengoak, 294
- Lan alorreko arau-haustea, 294
- Lan ordaingabea
  - Berdintasun printzipioa, 294
- Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea
  - Berdintasun printzipioa
    - Lan-baldintzak, 294, 423
- Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 221, 294, 404
- Ombudsmana, 123
- Osasun laguntza
  - Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 244, 294, 510
- Osasuna babesteko eskubidea, 294
- Udal zerbitzu publikoak
  - Hiri garraioak, 294
- Emakumezko bitarteko funtzionarioak**
  - Amatasun baimena
    - Berdintasun printzipioa, 180, 195, 381
- Energia elektromagnetikoaren transformazio zentroak**
  - Ingurugiro egokia izateko eskubidea
    - Industri jarduera sailkatuak
      - Atmosferaren kutsadura, 252
- Erabakiak sinatzea**
  - Prozedura zigortzailea, 394
- Erabakien zioak**
  - Egoitzetan sartzea, 152, 305, 433
- Erabakitzeko betebeharra**
  - Ondare erantzukizuna, 391, 410
  - Prozedura administratiboa, 221
  - Prozedura zigortzailea
    - Trafikoa, 382
- Eraikuntzako akatsak**
  - Etxebizitza babestuak, 279
- Erantzukizun zibila**
  - Bitartekaritza
    - Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 244

**Erkidegoarentzako lanak**

Berriro gizarteratzeko eskubidea  
Zigorraren ordezkoak, 417

**Eroslehentasun eskubidea**

Jakinarazpena  
Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea  
Babes ofizialeko etxebizitzak, 279, 285, 405

**Erregimen irekia**

Berriro gizarteratzeko eskubidea  
Zigorra betetzea  
Espetxeak, 244

**Errekurtsoak tramiterako ez onartzea**

Prozedura zigortzailea, 221

**Errolda, 221, 410, 413**

Atzerritarrak, 308

**Errugabe joa izateko eskubidea**

Prozedura zigortzailea  
Udal zerbitzu publikoak  
Zarama, 387, 409

**Eskatzeko eskubidea, 128****Eskola garraioa eta jantokia**

Derrigorrezko bigarren hezkuntza, 165  
Euskara  
Hizkuntz normalizazioa, 165  
Lehen hezkuntza, 165  
Euskara  
Hizkuntz normalizazioa, 165

**Eskolako istripuak**

Ondare erantzukizuna, 380

**Esparruen kudeaketa**

Prezio publikoak  
Berdintasun printzipioa  
Ibai arrantza, 146, 147, 384

**Espedientea ikusi ahal izatea**

Prozedura administratiboa, 180, 191, 192, 380, 386

**Espetxeak**

Ama-haurren modulua  
Berdintasun printzipioa, 244, 294  
Produktzio tailerrak  
Ordaindutako lana izateko eskubidea, 244, 294  
Xiringak banatzeko programa  
Osasuna babesteko eskubidea, 27  
Zigorra betetzea  
Erregimen irekia  
Berriro gizarteratzeko eskubidea, 244  
Zigorra non bete, 244

**Espetxeratuak, 244**

Atzerriko espetxeak, 244  
Baldintzapeko askatasuna  
Berriro gizarteratzeko eskubidea, 244  
Gaixotasun larriagatik espetxetik ateratzea  
Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 244  
Gizarte taldeak, 106  
Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 244  
Laguntza psikiatrikoa  
Osasuna babesteko eskubidea, 27  
Lekualdaketak, 244

- Osasun laguntza, 27, 244
- Ospitaletako zaintza
  - Osasuna babesteko eskubidea, 27
- Xiringak banatzeko programa
  - Osasuna babesteko eskubidea, 27
- Zigorra betetzea
  - Erregimen irekia
    - Berriro gizarteratzeko eskubidea, 244
- Zigorra non bete, 244
- Zigorraren ordezkioak
  - Erkidegoarentzako lanak
    - Berriro gizarteratzeko eskubidea, 417
- Estanpazio tailerrak**
  - Ingurugiro egokia izateko eskubidea
    - Industri jarduera sailkatuak
      - Kutsadura akustikoa, 254
      - Zarata kutsadura, 392
- Etxebizitza babestuak**
  - Arkitektura-oztopoak, 279
  - Eraikuntzako akatsak, 279
- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 40, 523**
- Etxebizitza sozialak**
  - Ekintza administratiboak berrikustea
    - Adjudikatze irizpideak, 396
- Etxebizitzak birgaitzea**
  - Laguntzak, 405
- Etxeko indarkeria**
  - Auzibideratzea
    - Emakumeak, 119
  - Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 244, 294, 507
    - Emakume atzerritarrak, 294, 308, 384, 386, 389, 392
    - Emakumeak, 119, 294, 308, 384, 386, 389, 392
  - Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea
    - Doako laguntza juridikoa, 244, 294
    - Emakumeak, 507
- Europako elkarrearen politikak**
  - Merkatugaien zirkulazio askea
    - lbigailuen zerga-potentzia, 146
- Euskara**
  - Derrigorrezko bigarren hezkuntza
    - Eskola garraioa eta jantokia
      - Hizkuntz normalizazioa, 165
  - Hizkuntz normalizazioa
    - Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 159, 180
    - Osasun alorreko funtzio publikoa, 159, 180, 383
  - Lehen hezkuntza
    - Eskola garraioa eta jantokia
      - Hizkuntz normalizazioa, 165
- Euskara eta administrazio publikoa**
  - Hizkuntz normalizazioa, 159, 160, 400
- Euskara eta hirigintzako hizkuntza teknikoa**
  - Kooperazio printzipioa, 461
  - Koordinazio printzipioa, 461
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 524**
  - Arkitektura- eta hirigintza-oztopoak, 279, 312
    - Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 312
  - Babes ofizialeko etxebizitzak
    - Adjudikatze irizpideak, 312

- Berdintasun printzipioa, 312
  - Derrigorrezko bigarren hezkuntza
    - Hezkuntzako beharrian bereziak, 165, 312
  - Haur hezkuntza
    - Hezkuntzako beharrian bereziak, 165, 312, 395
  - Lehen hezkuntza
    - Hezkuntzako beharrian bereziak, 312
- Bidaiarien garraioa, 312
- Etxebizitza babestuak
  - Arkitektura-oztopoak, 279
- Gizarte taldeak, 106
- Hezkuntza eskubidea, 516
- Hezkuntzako beharrian bereziak, 312
- Irigarritasuna sustatzea, 312
- Prozedura zigortzailea
  - TAO, 410
- Sentimenezko oztopoak
  - Zeinu-hizkuntzaren interpretariak, 312
- TAO
  - Prozedura zigortzailea, 410
- Zergen alorreko politika, 312, 471, 517
- Zergen legezkotasunaren printzipioa
  - Salbuespenak
    - Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, 208, 215, 312

**F****Familiaren babesa, 519**

- Bidaiarien garraioa
  - Tarifak, 384

**Faunaren babesa**

- Ingurugiro egokia izateko eskubidea
  - Galtzeko arriskuan dauden espezieak, 252

**Funtzio publiko orokorra**

- Bateraezintasunak, 180, 201
- Berdintasun printzipioa, 506
- Emakumeak
  - Berdintasun printzipioa, 294
- Kalteordainak, 180
- Karrera administratiboa, 180, 395
- Lan-baldintzak, 197, 395
- Ordezkapenak, 180, 200, 382
- Prestakuntza ikastaroak, 180, 202, 205, 396, 397, 413
- Sarrera, 180
  - Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea, 180, 199, 399, 407, 513

**G****Gaixoen eskubideak eta betebeharrak**

- Edoskitze gelak
  - Berdintasun printzipioa, 270, 273
- Informazioa jasotzeko eskubidea, 274, 383
- Medikua aukeratzea, 270, 271
- Tratamendua onartu aurretik informazioa izatea
  - Haurdunaldia norberaren borondatez etetea
    - HIESa duten emakumeak
      - Berdintasun printzipioa, 270, 272, 294

**Gaixotasun larriagatik espetxetik ateratzea**

- Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 244

**Galtzeko arriskuan dauden espezieak**

- Faunaren babesa
- Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 252

**Garajeak**

- Ingurugiro egokia izateko eskubidea
- Hiri jarduera sailkatuak
- Zarata kutsadura, 387

**Garapenerako lankidetzak**

- Gizarte taldeak, 106

**Gas naturala**

- Tasak, 208
- Legezkotasun printzipioa, 396, 399

**Gidatzeko baimena**

- Badaezpadako neurriak
- Berdintasun printzipioa, 221

**Gimnasioak**

- Ingurugiro egokia izateko eskubidea
- Hiri jarduera sailkatuak, 411

**Giza eskubideak, 106**

- Adin txikikoak, 301
- Adinekoen babesa, 122, 529
- Berriro gizarteratzeko eskubidea
- Erkidegoarentzako lanak
- Zigorren ordezkioak, 417
- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 40
- Kultur gutxiengoak
- Emakumeak, 294
- Ombudsmana, 123
- Latinoamerika, 123
- Subsidiaritasun printzipioa
- Ombudsmana, 128, 541
- Txiroak
- Gizarte bazterketa, 122

**Giza eskubideen aldeko hezkuntza, 120**

- Adin txikikoak, 301

**Gizarte bazterketa, 122****Gizarte eskubideak**

- Adinekoen babesa, 525
- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 523
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 524
- Familiaren babesa, 519
- Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 522
- Lana, segurtasuna eta higiena, 520
- Osasuna babesteko eskubidea, 521

**Gizarte eta osasun beharrianak, 152, 270**

- Adinekoen babesa, 305

**Gizarte komunikabideak**

- Ombudsmana, 123

**Gizarte komunikabideetan agertzeko eskubidea, 159, 403, 512****Gizarte lokalak**

- Ingurugiro egokia izateko eskubidea
- Hiri jarduera sailkatuak, 387

**Gizarte taldeak**

- Adin txikikoak, 301
- Adin txikiko babesa, 106
- Atzeritarrak, 106, 308
- Bakezaleak, 106
- Drogaren menpekoak, 106

- Emakumeak, 106
- Espetxeratuak, 106
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 106
- Garapenerako lankidetzak, 106
- HIESa duten gaixoak, 106
- Ijitoak, 106
- Sasoikako langileak, 106
- Terrorismoaren biktimak
  - Bitartekaritza, 106
- Txiroak, 106

#### **Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera**

- Errola, 152, 154, 386

#### **Goi-tentsioko lineak**

- Lurpeko lineak, 146

#### **Grebarako eskubidea**

- Gutxieneko zerbitzuak
  - Zerbitzu publikoak, 291

#### **Guraso bakarreko familiak**

- Berdintasun printzipioa
  - Kenketa
    - PFEZ, 208

#### **Gutxieneko zerbitzuak**

- Zerbitzu publikoak
  - Grebarako eskubidea, 291

## **H**

#### **Harea-erazketa**

- Ingurugiro egokia izateko eskubidea
  - Itasertzaren kontserbazioa, 252, 259, 385

#### **Haur hezkuntza**

- Adin txikikoak
  - Hezkuntzaren programazio orokorra, 305
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak
  - Hezkuntzako beharrian bereziak
    - Berdintasun printzipioa, 165, 312, 395
- Ikasleen onarpena
  - Berdintasun printzipioa, 165, 170, 395, 407

#### **Haurdunaldia norberaren borondatez etetea**

- HIESa duten emakumeak
  - Berdintasun printzipioa
    - Tratamendua onartu aurretik informazioa izatea
      - Gaixoen eskubideak eta betebeharrak, 270, 272, 294

#### **Hautazko irakasgaiak**

- Derrigorrezko bigarren hezkuntza, 165, 172

#### **Herri basoak**

- Berdintasun printzipioa, 146

#### **Herri bideak**

- Ingurugiro egokia izateko eskubidea
  - Obrak
    - Kutsadura akustikoa, 252
  - Obrak
    - Kutsadura akustikoa
      - Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 252
  - Udal zerbitzu publikoak, 267, 406
    - Ondare erantzukizuna, 390, 398, 399
  - Zerbitzu publikoak, 406, 412
    - Ondare erantzukizuna, 264, 265, 393, 397

**Herri lanak**

Ondare erantzukizuna, 262

**Herri ondasunak**

Bideak eta landabideak

Ekintza administratiboa, 398

**Herritarren elkarbizitza**

Bitartekaritza, 291

**Herritarren eskubideak eta betebeharrak**

Jabetza pribaturako eskubidea, 518

Lurra berriro zatitzea

Konpentsazio batzordeak, 279

Nahitaez utzitako etxebizitzaren ordeztze beste bat jasotzeko eskubidea

Lurra berriro zatitzea

Hirigintzako balorazioak, 288

Titulartasuna, 400

Udal zerbitzu publikoak

Animalientzako biltegiak

Ondare erantzukizuna, 397

Zerga-berdintasunaren printzipioa, 517

Zerga-progresibitate printzipioa, 517

Zergen legezkotasunaren printzipioa, 517

Ezgaitasunen bat duten pertsonak

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga

Salbuespenak, 208, 215, 312

Ondasun higiezinaren gaineko zerga

Balioak egiaztatzea, 208, 465

Subjektu pasiboa, 208, 216

**Herritarren parte-hartzea**

Xehetasun azterketa

Plangintza, 279, 286, 287

**Hezkuntza eskubidea, 516**

Adin txikikoak

Hezkuntzako beharrian bereziak, 301

Hezkuntzako beharrian bereziak, 104

Sasoikako langileak

Adin txikikoak, 301

**Hezkuntzako beharrian bereziak**

Batxilergoa

Minbizidunak

Berdintasun printzipioa, 165

Derrigorrezko bigarren hezkuntza

Ezgaitasunen bat duten pertsonak

Berdintasun printzipioa, 165, 312

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 312

Haur hezkuntza

Ezgaitasunen bat duten pertsonak

Berdintasun printzipioa, 165, 312, 395

Hezkuntza eskubidea, 104, 516

Adin txikikoak, 301

Lehen hezkuntza

Ezgaitasunen bat duten pertsonak

Berdintasun printzipioa, 165, 312

**Hezkuntzaren programazio orokorra**

Haur hezkuntza

Adin txikikoak, 301

**HIESa duten emakumeak**

Berdintasun printzipioa

Haurdunaldia norberaren borondatez etetea

Tratamendua onartu aurretik informazioa izatea

Gaixoen eskubideak eta betebeharrak, 270, 272, 294

**HIESa duten gaixoak**

Gizarte taldeak, 106

**Hilerriak**

Ondare erantzukizuna

Udal zerbitzu publikoak, 390

**Hiri garraioak**

Emakumeak

Udal zerbitzu publikoak, 294

**Hiri jarduera sailkatuak**

Abeltzaintzako ustategiak

Segurtasun juridikoaren printzipioa, 437

Diskotekak

Kutsadura akustikoa

Prozedura zigortzailea, 257

Estanpazio tailerrak

Kutsadura akustikoa

Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 254

Zarata kutsadura

Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 392

Garajeak

Zarata kutsadura

Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 387

Gimnasioak

Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 411

Gizarte lokalak

Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 387

Merkataritza establezimenduak

Kutsadura akustikoa

Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 252

Zarata kutsadura

Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 411

Nekazaritza eta abeltzaintzako ustategiak, 255

Oilasko haztegia

Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 398

Ostalaritza establezimenduak

Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 252, 393, 401, 409, 411

Zarata kutsadura

Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 387, 412

Plangintza, 258

**Hirigintza**

Legegintzaren beharra, 446

**Hirigintza arauak betearaztea**

Aurria, 279, 391

Ondare erantzukizuna, 393, 400

Prozedura zigortzailea, 408

Obrak egiteko baimenak, 279, 281, 282, 283, 391, 407, 412

Arauen hierarkiaren printzipioa, 398

Legezketasun printzipioa, 398, 400

Ondare erantzukizuna, 407

Prozedura zigortzailea

Ekintza administratiboak berrikustea, 390

Zorrak, 412

**Hirigintza kudeaketa**

Lurra berriro zatitzea

Kalteordainak, 402

Zuzenbide publikoko sarrerak, 401



**Hirigintzako balorazioak**

- Lurra berriro zatitzea
- Nahitaez utzitako etxebizitzaren ordezkari bat jasotzeko eskubidea
- Jabetza pribaturako eskubidea, 288

**Hiriko trafikoaren antolamendua**

- Polizia, 242

**Hizkuntz ereduak**

- Batxilergoa, 165, 176

**Hizkuntz normalizazioa**

- Derrigorrezko bigarren hezkuntza
- Eskola garraioa eta jantokia
- Euskara, 165
- Euskara
- Osasun alorreko funtzio publikoa, 159, 180, 383
- Euskara eta administrazio publikoa, 159, 160, 400
- Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa
- Euskara, 159, 180
- Lehen hezkuntza
- Eskola garraioa eta jantokia
- Euskara, 165
- Prozedura administratiboa, 400

**I****Ibai arrantza**

- Esparruen kudeaketa
- Prezio publikoak
- Berdintasun printzipioa, 146, 147, 384

**Ibaien kutsadura**

- Osasun publikoa
- Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 252

**Ibilgailu astunak**

- Hiriko trafikoaren antolamendua
- Ekintza administratiboa, 412

**Ibilgailuak erretiratzea**

- Badaezpadako neurriak, 221, 390, 406

**Ibilgailuen zerga-potentzia**

- Merkatugaien zirkulazio askea
- Europako elkarrearen politikak, 146

**Identifikazioak**

- Defentsarako eskubidea
- Polizia, 221
- Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea
- Polizia, 221, 232, 382, 388, 509

**Ijitoak**

- Gizarte taldeak, 106

**Ikasleen eskubideak eta betebeharrak, 380**

- Adin txikikoak, 301
- Ebaluazioak
- Irakaskuntza unibertsitarioa, 403
- Hezkuntza eskubidea, 516

**Ikasleen onarpena**

- Berdintasun printzipioa
- Haur hezkuntza, 165, 170, 395, 407
- Irakaskuntza artistikoak, 165, 172, 395
- Lehen hezkuntza, 165, 167, 169, 413
- Irakaskuntza unibertsitarioa, 165

Tituluak  
Irakaskuntza unibertsitarioa, 381

### **Ikastegiak**

Derrigorrezko bigarren hezkuntza, 165  
Kontserbazioa eta mantenimendua, 403  
Lehen hezkuntza, 165

### **Ikaztegiak**

Ingurugiro egokia izateko eskubidea  
Industri jarduera sailkatuak  
Atmosferaren kutsadura, 252

### **Industri jarduera sailkatuak**

Energia elektromagnetikoaren transformazio zentroak  
Atmosferaren kutsadura  
Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 252

#### Ikaztegiak

Atmosferaren kutsadura  
Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 252

#### Papergintza

Atmosferaren kutsadura  
Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 252, 394  
Kutsadura akustikoa  
Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 252  
Zarata kutsadura  
Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 394

### **Informazioa jasotzeko eskubidea**

Gaixoen eskubideak eta betebeharrak, 274, 383

### **Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 123, 522**

Energia elektromagnetikoaren transformazio zentroak  
Atmosferaren kutsadura  
Industri jarduera sailkatuak, 252

#### Estanpazio tailerrak

Kutsadura akustikoa  
Industri jarduera sailkatuak, 254  
Zarata kutsadura  
Industri jarduera sailkatuak, 392

#### Galtzeko arriskuan dauden espezieak

Faunaren babesa, 252

#### Garajeak

Zarata kutsadura  
Hiri jarduera sailkatuak, 387

#### Gimnasioak

Hiri jarduera sailkatuak, 411

#### Gizarte lokalak

Hiri jarduera sailkatuak, 387

#### Ibaien kutsadura

Osasun publikoa, 252

#### Ikaztegiak

Atmosferaren kutsadura  
Industri jarduera sailkatuak, 252

#### Itsasertzaren kontserbazioa

Harea-erazketa, 252, 259, 385

#### Izurri-hilkariak

Atmosferaren kutsadura  
Jarduera sailkatuak, 412

#### Merkataritza establezimenduak

Kutsadura akustikoa  
Hiri jarduera sailkatuak, 252  
Zarata kutsadura  
Hiri jarduera sailkatuak, 411

- Obrak
  - Kutsadura akustikoa
    - Herri bideak, 252
- Oilasko haztegia
  - Hiri jarduera sailkatuak, 398
- Ostalaritza establezimenduak
  - Hiri jarduera sailkatuak, 252, 393, 401, 409, 411
  - Zarata kutsadura
    - Hiri jarduera sailkatuak, 387, 412
- Papergintza
  - Atmosferaren kutsadura
    - Industri jarduera sailkatuak, 252, 394
  - Kutsadura akustikoa
    - Industri jarduera sailkatuak, 252
  - Zarata kutsadura
    - Industri jarduera sailkatuak, 394

### **Inkestak**

- Norberaren datuak babestea
  - Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 291

### **Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 507**

- Adin txikikoak
  - Nazioarte mailako bahiketa, 244
- Emakume atzerritarrak
  - Etxeko indarkeria, 294, 308, 384, 386, 389, 392
- Emakumeak
  - Etxeko indarkeria, 119, 294, 308, 384, 386, 389, 392
- Espetxeratuak
  - Gaixotasun larriagatik espetxetik ateratzea, 244
  - Tratu txarrak, 244
- Etxeko indarkeria, 244, 294
- Tratu txarrak
  - Polizia, 221, 223, 404, 507

### **Internet**

- Ombudsmana, 123

### **Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa**

- Aurrez emandako zerbitzuak, 180
- Euskara
  - Hizkuntz normalizazioa, 159, 180
- Karrera administratiboa, 180
- Ordezkapenak, 380
- Sarrera
  - Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea, 180, 194, 396, 513

### **Irakaskuntza artistikoak**

- Ikasleen onarpena
  - Berdintasun printzipioa, 165, 172, 395

### **Irakaskuntza unibertsitarioa**

- Bekak eta laguntzak, 165, 172, 395
- Ikasleen eskubideak eta betebeharrak
  - Ebaluazioak, 403
- Ikasleen onarpena, 165
- Tituluak, 381

### **Irisgarritasuna sustatzea**

- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 312

### **Isunak**

- Ordainkera, 208, 218, 393

### **Itsasertzaren kontserbazioa**

- Harea-erazketa
  - Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 252, 259, 385

**Izurri-hilkariak**

- Ingurugiro egokia izateko eskubidea
- Jarduera sailkatuak
- Atmosferaren kutsadura, 412

**J****Jabetza pribaturako eskubidea, 518**

- Lurra berriro zatitzea
- Konpentsazio batzordeak, 279
- Nahitaez utzitako etxebizitzaren ordezkari beste bat jasotzeko eskubidea
- Lurra berriro zatitzea
- Hirigintzako balorazioak, 288
- Titulartasuna, 400

**Jabetzaren gaineko betebeharrak**

- Titulartasuna, 391

**Jakinarazpena**

- Ondasun higiezinaren gaineko zerga
- Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 208
- PFEZ
- Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 208, 210, 397
- Premiamendu bidea
- Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 208, 211, 402
- Prozedura zigortzailea, 241, 393
- TAO
- Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 238, 388
- Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea
- Prozedura administratiboa, 514

**Jarduera sailkatuak**

- Izurri-hilkariak
- Atmosferaren kutsadura
- Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 412

**K****Kalteordainak**

- Funtzio publiko orokorra, 180
- Lurra berriro zatitzea
- Hirigintza kudeaketa, 402

**Karrera administratiboa**

- Funtzio publiko orokorra, 180, 395
- Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 180
- Polizia alorreko funtzio publikoa, 180, 393

**Kenketa**

- Guraso bakarreko familiak
- Berdintasun printzipioa
- PFEZ, 208
- Ohiko etxean egindako inbertsioa
- PFEZ, 208, 397

**Kexak**

- Emakumeak, 294

**Konpentsazio batzordeak**

- Jabetza pribaturako eskubidea
- Lurra berriro zatitzea, 279

**Konpultsa**

- Administrazio espedienteetako agiriak, 263

**Kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak**

- Prezioak
- Produktu farmazeutikoak, 382

**Kooperazio printzipioa**

Euskara eta hirigintzako hizkuntza teknikoak, 461

**Koordinazio printzipioa**

Euskara eta hirigintzako hizkuntza teknikoak, 461

**Kriminalitatea**

Ombudsmana, 123

**Kultur agerpenak**

Berdintasun printzipioa

Emakumeak, 294

Emakumeak

Berdintasun printzipioa, 404

**Kultur gutxiengoak**

Emakumeak, 294

**Kultur ondarea, 123**

Arkitektura ondarea

Kulturarako eskubidea, 164

Museoak

Kulturarako eskubidea, 163

**Kulturarako eskubidea, 123**

Kultur ondarea

Arkitektura ondarea, 164

Museoak, 163

Sustapen jarduerak

Bekak eta laguntzak, 161, 405

**Kutsadura akustikoa, 252**

Diskotekak

Hiri jarduera sailkatuak

Prozedura zigortzailea, 257

Estanpazio tailerrak

Industri jarduera sailkatuak

Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 254

Herri bideak

Obrak

Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 252

Merkataritza establezimenduak

Hiri jarduera sailkatuak

Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 252

Papergintza

Industri jarduera sailkatuak

Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 252

**L****Laguntza prestazioak**

Bidegabeko kobrantza, 156

**Laguntza psikiatrikoa**

Osasuna babesteko eskubidea, 27

**Laguntzak**

Etxebizitzak birgaitzea, 405

**Lan alorreko arau-haustea**

Emakumeak, 294

**Lan ordaingabea**

Berdintasun printzipioa

Emakumeak, 294

**Lan osasuna**

Amiantoa, 277, 383

Lana, segurtasuna eta higieena

Laneko arriskuak eragozteko neurriak hartzea, 277

Zarata, 277

**Lana, segurtasuna eta higiena, 520**

- Amianto, 277, 383
- Laneko arriskuak eragozteko neurriak hartzea
  - Lan osasuna, 277
- Zarata, 277

**Lan-baldintzak**

- Berdintasun printzipioa
  - Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 294, 423
- Funtzio publiko orokorra, 197, 395

**Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea**

- Lan-baldintzak
  - Berdintasun printzipioa, 294, 423

**Laneko arriskuak eragozteko neurriak hartzea**

- Amianto, 277, 383
- Lan osasuna
  - Lana, segurtasuna eta higiena, 277
- Zarata, 277

**Larrialdiak**

- Alkoholismoa
  - Osasun zerbitzuen funtzionamendua, 270, 275

**Latinoamerika**

- Giza eskubideak
  - Ombudsmana, 123

**Legegintzaren beharra**

- Adin txikikoak, 301
- Adinekoen babesa, 121, 123, 529
- Hirigintza, 446

**Legezkotasun printzipioa**

- Gas naturala
  - Tasak, 396, 399
- Hirigintza arauak betearaztea
  - Obrak egiteko baimenak, 398, 400
- Plangintza, 408
- Prozedura zigortzailea, 406
- TAO, 392
- Tarifak, 402

**Lehen hezkuntza**

- Eskola garraioa eta jantokia, 165
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak
  - Hezkuntzako beharrian bereziak
    - Berdintasun printzipioa, 165, 312
- Ikasleen onarpena
  - Berdintasun printzipioa, 165, 167, 169, 413
- Ikastegiak, 165

**Liburuak eskuratzea**

- Ondare erantzukizuna, 380

**Lurra berriro zatitzea**

- Jabetza pribaturako eskubidea
  - Nahitaez utzitako etxebizitzaren ordez beste bat jasotzeko eskubidea
    - Hirigintzako balorazioak, 288
- Kalteordainak
  - Hirigintza kudeaketa, 402
- Konpentsazio batzordeak
  - Jabetza pribaturako eskubidea, 279
- Zuzenbide publikoko sarrerak
  - Hirigintza kudeaketa, 401

**Lurralde mugak**

- Bitartekaritza, 135

**M****Manifestazio publikoak egiteko eskubidea**

Prozedura zigortzailea

Ekintza administratiboak berrikustea, 229, 382, 513

**Medikua aukeratzea**

Gaixoen eskubideak eta betebeharrak, 270, 271

**Merkataritza establezimenduak**

Ingurugiro egokia izateko eskubidea

Hiri jarduera sailkatuak

Kutsadura akustikoa, 252

Zarata kutsadura, 411

**Merkatugaien zirkulazio askea**

Ibilgailuen zerga-potentzia

Europako elkartearen politikak, 146

**Minbizidunak**

Berdintasun printzipioa

Batxilergoa

Hezkuntzako beharizan bereziak, 165

**Museoak**

Kulturarako eskubidea

Kultur ondarea, 163

**N****Nahitaez utzitako etxebizitzaren ordezkari bat jasotzeko eskubidea**

Lurra berriro zatitzea

Hirigintzako balorazioak

Jabetza pribaturako eskubidea, 288

**NAN, 221****Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak**

Hiri jarduera sailkatuak, 255

**Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 509**

Emakumeak, 221, 294, 404

Polizia

Arakaketak, 509

Atxiloketak, 221, 382, 388, 396, 404

Identifikazioak, 221, 232, 382, 388, 509

Ziegak, 509

**Norberaren datuak babestea**

Askatasun ideologikorako eskubidea

Administrazioaren antolaketa, 180, 184, 381, 508

Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea

Administrazioaren antolaketa, 180, 184, 381, 510, 511

Inkestak, 291

Polizia

Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 226

**Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 510**

Emakume espetxeratuak

Osasun laguntza, 244, 294, 510

Emakumeak

Osasun laguntza, 244, 294, 510

Inkestak

Norberaren datuak babestea, 291

Norberaren datuak babestea

Administrazioaren antolaketa, 180, 184, 381, 510, 511

Polizia, 226

Norberaren datuak ezabatzea

Polizia

Atxiloketak, 396

- Polizia
  - Arakaketak, 221, 232, 382, 388
  - Atxiloketak, 221, 388
  - Biluzteak, 388
- Prozedura administratiboa
  - Espedientea ikusi ahal izatea, 510

**O****Obrak egiteko baimenak**

- Arauen hierarkiaren printzipioa
  - Hirigintza arauak betearaztea, 398
- Hirigintza arauak betearaztea, 279, 281, 282, 283, 391, 407, 412
- Legezketasun printzipioa
  - Hirigintza arauak betearaztea, 398, 400
- Udal tasak, 208

**Ohiko etxean egindako inbertsioa**

- PFEZ
  - Kenketa, 208, 397

**Oilasko haztegia**

- Ingurugiro egokia izateko eskubidea
  - Hiri jarduera sailkatuak, 398

**Oinarrizko eskubideak, 510**

- Adierazpen askatasuna, 512
  - Prozedura zigortzailea
    - Polizia alorreko funtzio publikoa, 189, 512
- Askatasun ideologikorako eskubidea, 508
  - Norberaren datuak babestea
    - Administrazioaren antolaketa, 180, 184, 381, 508
- Atzerritarrak, 81, 308
- Berdintasun printzipioa, 506
  - Amatasun baimena
    - Emakumezko bitarteko funtzionarioak, 180, 195, 381
  - Atzerritarrak, 506
  - Babes ofizialeko etxebizitzak
    - Adjudikatze irizpideak, 279, 289
  - Batxilergoa
    - Minbizidunak
      - Hezkuntzako beharrian bereziak, 165
  - Derrigorrezko bigarren hezkuntza
    - Adin txikikoak
      - Hezkuntzako beharrian bereziak, 165
    - Ezgaitasunen bat duten pertsonak
      - Hezkuntzako beharrian bereziak, 165
  - Emakume funtzionarioak
    - Borondatezko eszedentziak, 180, 196
  - Emakumeak, 294, 506
    - Amatasun baimena, 506
    - Ekintza positiboa, 221
    - Espetxeak
      - Ama-haurren modulua, 244, 294
    - Funtzio publiko orokorra, 294
    - Kultur agerpenak, 294, 404
    - Lan ordaingabea, 294
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 312
    - Derrigorrezko bigarren hezkuntza
      - Hezkuntzako beharrian bereziak, 312



- Haur hezkuntza
  - Hezkuntzako beharrian bereziak, 312
- Lehen hezkuntza
  - Hezkuntzako beharrian bereziak, 312
- Funtzio publiko orokorra, 506
- Gaixoen eskubideak eta betebeharrak
  - Edoskitze gelak, 270, 273
  - HIESa duten emakumeak
    - Tratamendua onartu aurretik informazioa izatea
      - Haurdunaldia norberaren borondatez etetea, 270, 272, 294
- Gidatzeko baimena
  - Badaezpadako neurriak, 221
- Guraso bakarreko familiak
  - PFEZ
    - Kenketa, 208
- Haur hezkuntza
  - Adin txikikoak
    - Hezkuntzako beharrian bereziak, 165
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak
    - Hezkuntzako beharrian bereziak, 165, 395
  - Ikasleen onarpena, 165, 170, 395, 407
- Herri basoak, 146
- Irakaskuntza artistikoak
  - Ikasleen onarpena, 165, 172, 395
- Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea
  - Lan-baldintzak, 294, 423
- Lehen hezkuntza
  - Adin txikikoak
    - Hezkuntzako beharrian bereziak, 165
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak
    - Hezkuntzako beharrian bereziak, 165
  - Ikasleen onarpena, 165, 167, 169, 413
- Prezio publikoak
  - Esparruen kudeaketa
    - Ibai arrantza, 146, 147
- Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea
  - Sarrera
    - Funtzio publiko orokorra, 180, 199, 399, 407, 513
    - Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 180, 194, 396, 513
    - Osasun alorreko funtzio publikoa, 180
- Berriro gizarteratzeko eskubidea
  - Erkidegoarentzako lanak
    - Zigorraren ordezkioak, 417
  - Espetxeak
    - Erregimen irekia
      - Zigorra betetzea, 244
  - Espetxeratuak
    - Baldintzapeko askatasuna, 244
  - Presoak, 515
- Bizitzeko eskubidea, 507
- Defentsarako eskubidea
  - Polizia
    - Atxiloketak, 388, 404
    - Identifikazioak, 221
- Errugabe joa izateko eskubidea
  - Prozedura zigortzailea
    - Udal zerbitzu publikoak
      - Zarama, 387, 409

- Eskatzeko eskubidea, 128
- Gizarte komunikabideetan agertzeko eskubidea, 159, 403, 512
- Grebarako eskubidea
  - Zerbitzu publikoak
    - Gutxieneko zerbitzuak, 291
- Hezkuntza eskubidea, 516
  - Adin txikikoak
    - Hezkuntzako beharrian bereziak, 301
    - Sasoikako langileak, 301
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 516
  - Hezkuntzako beharrian bereziak, 104, 516
  - Ikasleen eskubideak eta betebeharrak, 516
- Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 507
  - Adin txikikoak
    - Nazioarte mailako bahiketa, 244
  - Emakume atzeritarrak
    - Etxeko indarkeria, 294, 308, 384, 386, 389, 392
  - Emakumeak
    - Etxeko indarkeria, 119, 294, 308, 384, 386, 389, 392, 507
  - Espetxeratuak
    - Gaixotasun larriagatik espetxetik ateratzea, 244
    - Tratu txarrak, 244
  - Etxeko indarkeria, 244, 294
  - Tratu txarrak
    - Polizia, 221, 223, 404, 507
- Manifestazio publikoak egiteko eskubidea
  - Prozedura zigortzailea
    - Ekintza administratiboak berrikustea, 229, 382, 513
- Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 509
  - Atxikipenak, 221
  - Emakumeak, 221, 294, 404
  - Polizia
    - Arakaketak, 509
    - Atxiloketak, 221, 382, 388, 396, 404
    - Identifikazioak, 221, 232, 382, 388, 509
  - Ziegak, 509
- Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 510
  - Emakume espetxeratuak
    - Osasun laguntza, 244, 294, 510
  - Emakumeak
    - Osasun laguntza, 244, 294, 510
  - Norberaren datuak babestea
    - Administrazioaren antolaketa, 180, 184, 381, 511
    - Inkestak, 291
    - Polizia, 226
  - Norberaren datuak ezabatzea
    - Polizia
      - Atxiloketak, 396
  - Polizia
    - Arakaketak, 221, 232, 382, 388
    - Atxiloketak, 221, 388
  - Prozedura administratiboa
    - Espedientea ikusi ahal izatea, 510
- Ordaindutako lana izateko eskubidea
  - Emakumeak
    - Espetxeak
      - Produktzio tailerrak, 244, 294

- Subsidiariorotasun printzipioa
  - Ombudsmana, 128
- Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 514
- Bidegabeko atzerapenak, 244, 294, 514
- Doako laguntza juridikoa
  - Etxeko indarkeria, 244, 294
- Emakumeak
  - Etxeko indarkeria, 507
- Jakinarazpena
  - Babes ofizialeko etxebizitzak
    - Eroslehentasun eskubidea, 279, 285, 405
  - Ondasun higiezinaren gaineko zerga, 208
  - PFEZ, 208, 210, 397
  - Premiamendu bidea, 208, 211, 402
  - TAO, 238, 388
- Prozedura administratiboa
  - Jakinarazpena, 514

### **Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 100**

- Ezgaitasunen bat duten pertsonak
  - Arkitektura- eta hirigintza-oztopoak, 312

### **Oinezkoentzako aldeak**

- Bizikleten zirkulazioa, 221

### **Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga, 208**

#### **Ombudsmana**

- Adin txikikoak, 123
- Adin txikikoen babesa, 123
- Alorrez alorreko defendatzaileak, 123, 134, 553
- Emakumeak, 123
- Giza eskubideak, 123
  - Subsidiariorotasun printzipioa, 128, 541
- Gizarte komunikabideak, 123
- Internet, 123
- Kriminalitatea, 123
- Latinoamerika
  - Giza eskubideak, 123
- Oinarrizko eskubideak
  - Subsidiariorotasun printzipioa, 128, 541
- Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio nagusiak
  - Subsidiariorotasun printzipioa, 128, 541
- Teknologia berriak, 123
- Tokiko defendatzaileak, 123, 134, 553

#### **Ondare erantzukizuna**

- Aurria
  - Hirigintza arauak betearaztea, 393
  - Prozedura zigortzailea, 408
- Erabakitzekeo betebeharrak, 391, 410
- Eskolako istripuak, 380
- Herri bideak
  - Udal zerbitzu publikoak, 390, 397, 398
  - Zerbitzu publikoak, 264, 265, 393, 397
- Herri lanak, 262
- Hirigintza arauak betearaztea, 407
- Liburuak eskuratzea, 380
- Prozedura administratiboa, 410
- Udal zerbitzu publikoak, 399, 400, 409
  - Administrazio publikoaren kontratuak, 408

- Animalientzako biltegiak
  - Jabetza pribaturako eskubidea, 397
  - Hilerriak, 390
  - Trafikoa, 408
  - Zerbitzu publikoak, 262
- Ondare-eskualdaketen gaineko zerga, 208**
- Ondasun higiezinaren gaineko zerga**
  - Babes ofizialeko etxebizitzak
    - Zerga onurak, 208, 214
  - Balioak egiaztatzea
    - Zergen legezketasunaren printzipioa, 208, 465
  - Jakinarazpena
    - Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 208
  - Subjektu pasiboa
    - Zergen legezketasunaren printzipioa, 208, 216
- Ordaindutako lana izateko eskubidea**
  - Espetxeak
    - Produktzio tailerrak, 244, 294
- Ordainkera**
  - Isunak, 208, 218, 393
- Ordainsariak**
  - Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 244
- Ordezkapenak**
  - Funtzio publiko orokorra, 180, 382
  - Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 380
  - Osasun alorreko funtzio publikoa, 180
- Osasun alorreko funtzio publikoa**
  - Euskara
    - Hizkuntz normalizazioa, 159, 180, 383
  - Ordezkapenak, 180
  - Sarrera
    - Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea, 180
- Osasun laguntza, 27, 244**
  - Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 244
  - Emakume espetxeratuak, 294, 510
  - Emakumeak, 244, 294, 510
- Osasun prestazioak**
  - Umeak izateko tratamendua, 270
- Osasun publikoa**
  - Ingurugiro egokia izateko eskubidea
    - Ibaien kutsadura, 252
  - Salmenta ibiltaria
    - Elikagaiak, 146, 150
  - Udal zerbitzu publikoak
    - Udal lurren mantenimendua, 284, 409
    - Ur hornidura, 268, 270
  - Uraren kalitatea
    - Urtegiak
      - Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 93
- Osasun zerbitzuen funtzionamendua**
  - Larrialdiak
    - Alkoholismoa, 270, 275
- Osasuna babesteko eskubidea, 521**
  - Emakumeak, 294
  - Espetxeak
    - Xiringak banatzeko programa, 27

Laguntza psikiatrikoa, 27  
 Ospitaletako zaintza, 27  
 Xiringak banatzeko programa, 27

#### **Ospitaletako zaintza**

Osasuna babesteko eskubidea, 27

#### **Ospitalez kanpoko laguntza psikiatrikoa, 103**

#### **Ostalaritza establezimenduak**

Ingurugiro egokia izateko eskubidea  
 Hiri jarduera sailkatuak, 252, 393, 401, 409, 411  
 Zarata kutsadura, 387, 412

## **P**

#### **Papergintza**

Ingurugiro egokia izateko eskubidea  
 Industri jarduera sailkatuak  
 Atmosferaren kutsadura, 259, 394  
 Kutsadura akustikoa, 259  
 Zarata kutsadura, 394

#### **PFEZ**

Jakinarazpena  
 Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 208, 210, 397

#### **Kenketa**

Guraso bakarrek familiak  
 Berdintasun printzipioa, 208  
 Ohiko etxean egindako inbertsioa, 208, 397

Zerga ordainketarako aukera, 208

#### **Plangintza**

Arauen hierarkiaren printzipioa, 408  
 Hiri jarduera sailkatuak, 258  
 Legezkotasun printzipioa, 408  
 Xehetasun azterketa  
 Herritarren parte-hartzea, 279, 286, 287

#### **Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio nagusiak**

Adin txikikoen babesa, 63, 123, 301  
 Egoitzak eta zentro babestuak, 56, 152  
 Gizarte taldeak, 106  
 Hezkuntzako beharrian bereziak, 104  
 Prestazio ortoprotesikoak, 383  
 Adinekoen babesa, 51, 121, 122, 123, 305, 529  
 Egoitzak, 46  
 Finantzaketa, 152, 305  
 Egoitzetan sartzea  
 Erabakien zioak, 152, 433  
 Eguneko zentroak  
 Aisia eta astialdia, 153  
 Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 305  
 Laguntza prestazioak  
 Bidegabeko kobrantza, 156  
 Burutik gaixo daudenak  
 Ospitalez kanpoko laguntza psikiatrikoa, 103  
 Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 40  
 Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 312  
 Zergen alorreko politika, 312, 471  
 Zergen legezkotasunaren printzipioa  
 Salbuespenak  
 Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, 208, 215, 312

- Familiaren babesa
  - Bidaiarien garraioa
    - Tarifak, 384
- Gizarte eta osasun beharrianak, 152, 270
- Gizarte larrialdietarako laguntzak
  - Txiroak, 157, 410
- Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera
  - Txiroak, 152, 154, 386
- Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 123
- Adinekoen babesa, 305
- Atmosferaren kutsadura
  - Energia elektromagnetikoaren transformazio zentroak
    - Industri jarduera sailkatuak, 252
  - Ikaztegiak
    - Industri jarduera sailkatuak, 252
  - Izurri-hilkariak
    - Jarduera sailkatuak, 412
  - Papergintza
    - Industri jarduera sailkatuak, 252, 394
- Galtzeko arriskuan dauden espezieak
  - Faunaren babesa, 252
- Gimnasioak
  - Hiri jarduera sailkatuak, 411
- Gizarte lokalak
  - Hiri jarduera sailkatuak, 387
- Ibaien kutsadura
  - Osasun publikoa, 252
- Itsasertzaren kontserbazioa
  - Harea-erazketa, 252, 259, 385
- Kutsadura akustikoa
  - Estanpazio tailerrak
    - Industri jarduera sailkatuak, 254
  - Herri bideak
    - Obrak, 252
  - Papergintza
    - Industri jarduera sailkatuak, 252
- Oilasko haztegia
  - Hiri jarduera sailkatuak, 398
- Osasun publikoa
  - Urtegiak
    - Uraren kalitatea, 93
- Ostalaritza establezimenduak
  - Hiri jarduera sailkatuak, 252, 393, 401, 409, 411
- Papergintza
  - Atmosferaren kutsadura
    - Industri jarduera sailkatuak, 252, 394
- Zarata kutsadura
  - Estanpazio tailerrak
    - Industri jarduera sailkatuak, 392
  - Garajeak
    - Hiri jarduera sailkatuak, 387
  - Merkataritza establezimenduak
    - Hiri jarduera sailkatuak, 411
  - Ostalaritza establezimenduak
    - Hiri jarduera sailkatuak, 387, 412
  - Papergintza
    - Industri jarduera sailkatuak, 394

- Kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak
  - Prezioak
    - Produktu farmazeutikoak, 383
- Kultur ondarea, 123
- Kulturarako eskubidea, 123
  - Kultur ondarea
    - Arkitektura ondarea, 164
    - Museoak, 163
  - Sustapen jarduerak
    - Bekak eta laguntzak, 161, 405
- Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 100
- Osasun laguntza, 27, 244
- Osasuna babesteko eskubidea
  - Emakumeak, 294
  - Espetxeak
    - Xiringak banatzeko programa, 27
  - Laguntza psikiatrikoa, 27
  - Ospitaletako zaintza, 27
  - Prestazio ortoprotesikoak, 383
  - Xiringak banatzeko programa, 27
- Subsidiarotasun printzipioa
  - Ombudsmána, 128, 541
- Polizia, 221**
  - Adin txikikoak, 221
  - Arakaketak
    - Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 509
    - Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 221, 232, 382, 388
  - Atxiloketak
    - Defentsarako eskubidea, 388, 404
    - Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 221, 382, 388, 396, 404
    - Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 221, 388
    - Norberaren datuak ezabatzea, 396
  - Atzeritarrak, 81, 221, 308, 388
  - Biluzteak
    - Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 388
  - Hiriko trafikoaren antolamendua, 242
  - Identifikazioak
    - Defentsarako eskubidea, 221
    - Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 221, 232, 382, 388, 509
  - Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea
    - Norberaren datuak babestea, 226
  - Salaketen aldakia, 382
  - Tratu txarrak
    - Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 221, 223, 404, 507
- Polizia alorreko funtzio publikoa**
  - Karrera administratiboa, 180, 393
  - Prozedura zigortzailea
    - Adierazpen askatasuna, 189
- Premiamendu bidea**
  - Prozedura zigortzailea, 221, 384
  - Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea
    - Jakinarazpena, 208, 211, 402
- Preskripzioa**
  - Prozedura zigortzailea, 238, 386, 388
  - Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, 410
  - Zuzenbide publikoko zorrak, 208, 213, 390, 399

**Presoak**

Berriro gizarteratzeko eskubidea, 515

**Prestakuntza ikastaroak**

Funtzio publiko orokorra, 180, 202, 205, 396, 397, 413

**Prestazio ortoprotesikoak**

Adin txikikoak, 383

**Prezio publikoak**

Esparruen kudeaketa

Berdintasun printzipioa

Ibai arrantza, 146, 147, 384

**Prezioak**

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak, 383

Produktu farmazeutikoak

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak, 383

**Produktu farmazeutikoak**

Prezioak

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak, 383

**Produktzio tailerrak**

Ordaindutako lana izateko eskubidea

Espetxeak, 244, 294

**Prozedura administratiboa**

Agiriak aurkeztea

Epeak, 157, 410

Badaezpadako neurriak

Berdintasun printzipioa

Gidatzeko baimena, 221

Ibilgailuak erretiratzea, 221, 390, 406

Baimenak

Proiektuak eta burutzapena

Bideak eta landabideak, 262

Ekintza administratiboa

Herri ondasunak

Bideak eta landabideak, 398

Hiriko trafikoaren antolamendua

Ibilgailu astunak, 412

Zama-lanak, 394

Ekintza administratiboak berrikustea

Adjudikatzeko irizpideak

Etxebizitza sozialak, 396

Erabakien zioak

Egoitzetan sartzea, 152, 305, 433

Erabakitzeke betebeharra, 221

Errolda

Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera, 152, 154, 386

Espedientea ikusi ahal izatea, 180, 191, 192, 380, 386

Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 510

Herritarren parte-hartzea

Plangintza

Xehetasun azterketa, 279, 286, 287

Hirigintza arauak betearaztea

Auria, 279, 391

Obrak egiteko baimenak, 279, 281, 282, 283, 391, 407

Arauen hierarkiaren printzipioa, 398

Legezketasun printzipioa, 398, 400

Zorrak, 412

Hizkuntz normalizazioa, 400



- Isunak
  - Ordainkera, 208, 218, 393
- Jakinarazpena
  - Eroslehentasun eskubidea
    - Babes ofizialeko etxebizitzak, 279, 285, 401
  - Premiamendu bidea
    - Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 208, 211, 402
  - TAO
    - Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 238, 388
    - Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 514
- Konpultsa
  - Administrazio espedienteetako agiriak, 263
- Kooperazio printzipioa
  - Atzerritarrak, 308
  - Gizarte eta osasun beharrianak, 305
- Koordinazio printzipioa
  - Atzerritarrak, 308
  - Gizarte eta osasun beharrianak, 305
- Obrak egiteko baimenak
  - Hirigintza arauak betearaztea, 412
- Ondare erantzukizuna, 410
  - Erabakitzeke betebeharra, 391, 410
  - Eskolako istripuak, 380
  - Herri lanak, 262
  - Hirigintza arauak betearaztea, 407
    - Auria, 393, 400
  - Liburuak eskuratzea, 380
  - Udal zerbitzu publikoak, 399, 400, 408, 409
    - Animalientzako biltegiak
      - Jabetza pribaturako eskubidea, 397
    - Herri bideak, 390, 398, 399
    - Hilerriak, 390
    - Trafikoa, 408
  - Zerbitzu publikoak, 262
    - Herri bideak, 264, 265, 393, 397
- Preskripzioa
  - Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, 410
  - Zuzenbide publikoko zorrak, 280, 213, 390, 399
- Prozedura zigortzailea, 221
  - Adierazpen askatasuna
    - Polizia alorreko funtzio publikoa, 189, 512
  - Ekintza administratiboak berrikustea
    - Hirigintza arauak betearaztea, 390
    - Manifestazio publikoak egiteko eskubidea, 229, 382, 513
  - Erabakiak sinatzea, 394
  - Errekurtsoak tramiterako ez onartzea, 221
  - Eskumenak
    - Trafikoa, 404, 409
  - Hirigintza arauak betearaztea
    - Auria, 408
  - Jakinarazpena, 241, 393
  - Kutsadura akustikoa
    - Diskotekak
      - Hiri jarduera sailkatuak, 257
  - Legezkotasun printzipioa, 406
  - Premiamendu bidea, 221, 384
  - Preskripzioa, 238, 386, 388

- TAO, 235, 392
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 410
- Trafikoa, 405, 407, 411
  - Erabakitzeko betebeharra, 382
- Udal zerbitzu publikoak
  - Zarama
    - Errugabe joa izateko eskubidea, 387, 409
- Sustapen jarduerak
  - Bekak eta laguntzak
    - Kulturarako eskubidea, 161, 405

**Prozedura penala**

- Polizia
  - Salaketen aldakia, 382

**Prozedura zigortzailea, 221**

- Adierazpen askatasuna
  - Polizia alorreko funtzio publikoa, 512
- Diskotekak
  - Kutsadura akustikoa
    - Hiri jarduera sailkatuak, 257
- Ekintza administratiboak berrikustea
  - Hirigintza arauak betearaztea, 390
  - Manifestazio publikoak egiteko eskubidea, 229, 382, 513
- Erabakiak sinatzea, 394
- Errekurtsoak tramiterako ez onartzea, 221
- Eskumenak
  - Trafikoa, 404, 409
- Jakinarazpena, 241, 393
- Legezketasun printzipioa, 406
- Premiamendu bidea, 221, 384
- Preskripzioa, 238, 386, 388
- TAO, 235, 392
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 410
- Trafikoa, 405, 407, 411
  - Erabakitzeko betebeharra, 382
- Udal zerbitzu publikoak
  - Zarama
    - Errugabe joa izateko eskubidea, 387, 409

**S****Salaketen aldakia**

- Polizia, 382

**Salbuespenak**

- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga
  - Zergen legezketasunaren printzipioa
    - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 208, 215, 312

**Salmenta ibiltaria**

- Elikagaiak
  - Osasun publikoa, 146, 150

**Sarrera**

- Funtzio publiko orokorra, 180

**Sasoikako langileak**

- Adin txikikoak
  - Hezkuntza eskubidea, 301
- Atzerritarrak, 308
- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 40
- Gizarte taldeak, 106

**Segurtasun juridikoaren printzipioa**

Hiri jarduera sailkatuak  
Abeltzaintzako ustiategiak, 437

**Segurtasun pribatua**

Atxikipenak  
Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 221

**Sentimenezko oztopoak**

Zeinu-hizkuntzaren interpretariak  
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 312

**Subjektu pasiboa**

Zergen legezkotasunaren printzipioa  
Ondasun higiezinaren gaineko zerga, 208, 216

**Subsidiariotasun printzipioa**

Ombudsmana  
Giza eskubideak, 128, 541  
Oinarrizko eskubideak, 128  
Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio nagusiak, 128, 541

**Suhiltzaileak**

Udal tasak, 208

**Sustapen jarduerak**

Bekak eta laguntzak  
Kulturarako eskubidea, 161, 405

**T****TAO, 221**

Arauen hierarkiaren printzipioa, 221, 235, 392  
Legezkotasun printzipioa, 392  
Prozedura zigortzailea, 235, 392  
Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea  
Jakinarazpena, 238, 388

**Tarifak**

Familiaren babesa  
Bidaiarien garraioa, 384  
Legezkotasun printzipioa, 402

**Tasak**

Gas naturala, 208  
Legezkotasun printzipioa  
Gas naturala, 396, 399  
Zerbitzu publikoak  
Zarama, 402

**Teknologia berriak**

Ombudsmana, 123

**Terrorismoaren biktimak**

Bitartekaritza  
Gizarte taldeak, 106

**Titulartasuna**

Bideak eta landabideak  
Udal zerbitzu publikoak, 262, 387  
Jabetza pribaturako eskubidea, 400  
Jabetzaren gaineko betebeharrak, 391

**Tokiko defendatzaileak**

Ombudsmana, 123, 134, 553

**Trafikoa**

Erabakitzeko betebeharra  
Prozedura zigortzailea, 382  
Ondare erantzukizuna  
Udal zerbitzu publikoak, 408  
Prozedura zigortzailea, 405, 407, 411  
Eskumenak, 404, 409

**Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga**

Preskripzioa, 410

Salbuespenak

Ezgaitasunen bat duten pertsonak

Zergen legezkotasunaren printzipioa, 208, 215, 312

Zerga potentzia, 208, 216, 401

**Tratamendua onartu aurretik informazioa izatea**

Gaixoen eskubideak eta betebeharrak

Haurdunaldia norberaren borondatez etetea

HIESa duten emakumeak

Berdintasun printzipioa, 270, 272, 294

**Tratu txarrak**

Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 244

Polizia, 221, 223, 404, 507

**Trenbide-pasaguneak**

Burnibidezko garraioak

Zerbitzu publikoak, 268

**Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 514**

Bidegabeko atzerapenak, 244, 249, 514

Doako laguntza juridikoa

Etxeko indarkeria, 244, 294

Jakinarazpena

Babes ofizialeko etxebizitzak

Eroslehentasun eskubidea, 279, 285, 405

Ondasun higiezinaren gaineko zerga, 208

PFEZ, 208, 210, 397

Premiamendu bidea, 208, 210, 402

TAO, 238, 388

**Txiroak**

Gizarte bazterketa, 122

Gizarte larrialdietarako laguntzak

Agiriak aurkeztea

Epeak, 157, 410

Gizarte taldeak, 106

Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera

Errolda, 152, 154, 386

**U****Udal lurren mantenimendua**

Osasun publikoa

Udal zerbitzu publikoak, 284, 409

**Udal prezio publikoak**

Udal zerbitzu publikoak

Prestazioa, 208

Ur hornidura, 208

**Udal tasak**

Obrak egiteko baimenak, 208

Suhiltzailleak, 208

Udal zerbitzu publikoak

Prestazioa, 208, 219, 392

Zarama, 208, 219, 401, 402

**Udal zerbitzu publikoak**

Administrazio publikoaren kontratuak

Ondare erantzukizuna, 408

Animalientzako biltegiak

Ondare erantzukizuna

Jabetza pribaturako eskubidea, 397

- Bideak eta landabideak, 387
  - Titulartasuna, 262, 387, 391
- Herri bideak, 267, 406
- Hilerriak
  - Ondare erantzukizuna, 390
- Hiri garraioak
  - Emakumeak, 294
- Ondare erantzukizuna, 399, 400, 409
  - Herri bideak, 398, 399
- Prestazioa
  - Udal prezio publikoak, 208
  - Udal tasak, 208, 219, 392
- Trafikoa
  - Ondare erantzukizuna, 408
- Udal lurren mantenimendua
  - Osasun publikoa, 284, 409
- Ur hornidura
  - Gastuak itzultzea, 266, 400
  - Osasun publikoa, 268, 270
  - Prestazioa, 262
- Zarama
  - Prozedura zigortzailea
    - Errugabe joa izateko eskubidea, 387, 409

#### **Umeak izateko tratamendua**

- Osasun prestazioak, 270

#### **Ur hornidura**

- Gastuak itzultzea
  - Udal zerbitzu publikoak, 266, 400
- Osasun publikoa
  - Udal zerbitzu publikoak, 268, 270
- Prestazioa
  - Udal zerbitzu publikoak, 262
- Udal prezio publikoak, 208

#### **Uraren kalitatea**

- Urtegiak
  - Ingurugiro egokia izateko eskubidea
    - Osasun publikoa, 93

#### **Urtegiak**

- Uraren kalitatea
  - Osasun publikoa
    - Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 93

## **X**

#### **Xiringak banatzeko programa**

- Osasuna babesteko eskubidea, 27
- Espetxeak, 27

## **Z**

#### **Zama-lanak**

- Hiriko trafikoaren antolamendua
  - Ekintza administratiboa, 394

#### **Zarama**

- Tasak
  - Zerbitzu publikoak, 402
- Udal tasak, 208, 219, 401, 402
- Udal zerbitzu publikoak
  - Prozedura zigortzailea
    - Errugabe joa izateko eskubidea, 387, 409

**Zarata**

- Lan osasuna, 277
- Lana, segurtasuna eta higiena, 277
- Laneko arriskuak eragozteko neurriak hartzea, 277

**Zarata kutsadura**

- Estanpazio tailerrak
  - Industri jarduera sailkatuak
  - Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 392
- Garajeak
  - Hiri jarduera sailkatuak
  - Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 387
- Merkataritza establezimenduak
  - Hiri jarduera sailkatuak
  - Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 411
- Ostalaritza establezimenduak
  - Hiri jarduera sailkatuak
  - Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 387, 412
- Papergintza
  - Industri jarduera sailkatuak
  - Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 394

**Zeinu-hizkuntzaren interpretariak**

- Ezgaitasunen bat duten pertsonak
- Sentimenezko oztopoak, 312

**Zerbitzu eta lan atipikoen kontratua**

- Kontratuen adjudikazioa, 405

**Zerbitzu publikoak**

- Burnibidezko garraioak
  - Trenbide-pasaguneak, 268
- Grebarako eskubidea
  - Gutxieneko zerbitzuak, 291
- Herri bideak, 406, 412
- Ondare erantzukizuna, 262
- Zarama
  - Tasak, 402

**Zerbitzu publikoen kudeaketaren kontratua**

- Kontratuak deuseztea, 407

**Zerga onurak**

- Ondasun higiezinaren gaineko zerga
  - Babes ofizialeko etxebizitzak, 208, 214

**Zerga ordainketarako aukera**

- PFEZ, 208

**Zerga potentzia**

- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, 208, 216, 401

**Zerga-berdintasunaren printzipioa, 517****Zerga-progresibitate printzipioa, 517****Zergen alorreko politika**

- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 312, 471, 517

**Zergen legezotasunaren printzipioa, 517**

- Ondasun higiezinaren gaineko zerga
  - Subjektu pasiboa, 208, 216

**Ziegak**

- Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 509

**Ziegen egoera, 74, 221****Zigorra betetzea**

- Espetxeak
  - Berrito gizarteratzeko eskubidea
  - Erregimen irekia, 244

**Zigorra non bete, 244**

Espetxeak, 244

**Zigorraren ordezkioak**

Erkidegoarentzako lanak

Berrito gizarteratzeko eskubidea, 417

**Zorrak**

Hirigintza arauak betearaztea, 412

**Zuzenbide publikoko sarrerak**

Lurra berrito zatitzea

Hirigintza kudeaketa, 401

**Zuzenbide publikoko zorrak**

Preskripzioa, 208, 213, 390, 399